



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA

GIZARTEA, POLITIKA ETA KULTURA DOKTOREGO-PROGRAMA

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Doktorego-tesia

Egilea: Elixabete Larrinaga Artetxe

Zuzendaria: Francisco Juaristi Larrinaga

Leioa, 2018ko urtarrila

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

ZUEI, BIHOTZ-BIHOTZEZ

Patxi, lana gidatzeari berehala baietz esan zeniolako, zereginak iraun duen bitartean egin dizkidazun zuzenketa eta ekarpenengatik, eta bereziki, ahaleginari eusten lagundu didazulako.

Ikerketa honetan parte hartu duzuen euskara hutsezko hedabide inprimatuetako kideei, hainbat kontutarako ate joka izan nauzuen guztietan eskuzabaltasunez eta prestasunez erantzun didazuelako.

Tesiak ikertu duen 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuorde izan ziren Patxi Baztarrika eta Lurdes Auzmendi, eskainitako arreta eta laguntzagatik.

Edurne eta Pablo, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren "Hedabideak" deialdiaren kudeaketari buruzko zalantza guztiak azaldu eta argitzeagatik.

Pana, arazketa-taulen zein euskarazko hedabideei esleitutako diru-laguntzen inguruko galderaren bat egin orduko zure xehetasunez beteriko erantzuna jaso dudalako.

Lana elikatzeko behar izan ditudan hainbat datu zehatz eskuratzeko baimenak kudeatzen erakutsi eta lagundu didaten Eusko Jaurlaritzako kideak. Eskerrik asko emandako aukera eta erraztasunengatik.

Tesiaren tribunala osatu duzuenak, epaimahaikide izateko eskaera egin eta berehala ardura eta lana hartzeko prest agertu zaretelako.

Zelan/nola zoaz? edo Noizko? inoiz esan didazuenak, ibili banenbilela eta helmuga gertuago zegoela gogoratu didazuelako.

Jon, irakurle zintzo eta zorrotz, hitz-elkarketaren maisu eta mila legoako bidaia honetan izan diren ekaitz guztien babesleku.

Jokin eta Laida, zarietak zarielako.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

1. SARRERA	1
1.1. Ikerketaren habe nagusiak: zer, nola, zergatik eta zertarako	1
1.2. Lanaren egitura orokorra eta atal bakoitzaren edukia	6
2. IKERKETAREN ATERPE TEORIKOA: HIBRIDOTASUNAREN BIDETIK	13
2.1. Lehen solairua: masa komunikazioaren ikerkuntzaren sorreratik	
hizkuntza gutxituetako hedabideentzako diru-laguntzak aztertzeraz.....	17
2.1.1. Hedabideen azterketak jorratu duen bidea	20
2.1.1.1. Eragin zuzenaren paradigma	21
2.1.1.2. Eragin mugatuaren paradigma	23
2.1.1.3. Teoria kritikoa	25
2.1.1.4. Eragin indartsuaren itzulera	26
2.1.1.5. Erabilerak eta Sariak (<i>Uses and Gratifications</i>)	30
2.1.1.6. Ikerketa kulturalak (Cultural Studies)	33
2.1.2. Hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideen azterketa	37
2.1.2.1. Lehen urratsak: <i>Many Voices, One World</i> abiapuntu	37
2.1.2.2. Ikerketa-eremu berria loratzeko bidean: Joskua Fishman eta Stephen H. Riggins egileen ekarpenak	43
2.1.2.3. Hedabideak hizkuntza gutxituen biziberritze-prozesuan	49
2.1.2.4. Gizarte- eta hedabide-testuinguruaren garrantzia globalizazioaren garaian	59
2.1.2.5. Hizkuntza gutxituetako hedabideak, komunikazio-esparrua eta aginte publikoak	66
2.1.3. Hizkuntza gutxituetako hedabideak eta diru-laguntzak	73
2.1.3.1. Diru-laguntzen definizioa, motak eta hedabideen enpresa- ezaugarriak	73
2.1.3.2. Diru-laguntza publikoen aldeko eta kontrako argudioak. Eredu liberala eta eredu protekzionista	81

2.1.3.3. Prentsa-merkatua eta laguntzak Europan: eredu aniztasuna ezaugarri, eraginkortasuna helburu	86
2.1.3.4. Prentsarentzako laguntzak Espainian	90
2.1.4. Diru-laguntza publikoen azterketa eta ebaluazioa Euskadin	96
2.1.4.1. Ekarpen eta ikerketa aipagarrienak: gutxi eta oraintsukoak.....	98
2.1.4.2. Hedabideentzako diru-laguntza publikoen ebaluazioa	110
2.1.4.2.1. Ebaluazio prozesuei buruzko zenbait apunte.....	111
2.1.4.2.2. Jaurlaritzaren “Hedabideak” deialdiaren ebaluazioa	119
2.2. Bigarren solairua: Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politiketarik hedabide inprimatuen kontsumora.....	124
2.2.1. Euskara biziberritzeko ekimen instituzionala: hizkuntza-politikak.....	124
2.2.1.1. Euskararen legetik itun berri baterantz	126
2.2.1.2. Hizkuntza-politikak EAEn 2005-2013 bitartean	132
2.2.1.3. Hedabideak Euskararen Legean eta hizkuntza-politika garatzeko plan nagusietan	143
2.2.1.3.1. Hedabideak 10/1982 legean.....	144
2.2.1.3.2. Hedabideak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian	145
2.2.1.3.3. Hedabideak Euskara Sustatzeko Planean	148
2.2.1.4. Euskara sustatzeko diru-baliabideak	153
2.2.1.4.1. Eusko Jaurlaritzaren euskara sustatzeko aurrekontuak 1983-2013 epealdian.ikuspegi orokorra	153
2.2.1.4.2. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontuak 2005-2013 bitartean.....	160
2.2.1.4.3. Euskara sustatzeko aurrekontuak EAeko gainontzeko herri-administrazioetan: foru-aldundiak eta udalak	167
2.2.1.5. Euskararen bilakaera EAEn: sukaldeko azpiretik mugarik gabeko plazara.....	178

2.2.2. Euskarazko prentsa idatziaren ibilbidea: berandu sortzetik ugari loratzera	190
2.2.2.1. Lehen kazetaritza testuetatik gerra zibilera	190
2.2.2.2. Gerra zibila eta frankismoa: euskara hutsezko lehen egunkaria, debekua eta argitalpen berriak	196
2.2.2.3. XX. mendearen azken laurdena: euskarazko kazetaritzaren garai emankorra	198
2.2.2.4. XXI. mendea: erronka eta estrategia berrietarako garaia	204
2.2.3. Hedabide inprimatuen kontsumoa.....	208
2.2.3.1. Paperezkoen bilakaera: mundu osora hedatu den gainbehera baten kronika.....	209
2.2.3.2. Hedabide inprimatuen kontsumo-datuak Espainian.....	213
2.2.3.3. Gaztelaniazko eguneroko prentsaren kontsumoa EAEn	218
2.2.3.4. Euskara hutsezkoen paperezkoen kontsumoa EAEn.....	226
2.2.3.4.1. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso duten euskara hutsezko inprimatuen argazkia (2005-2013).....	228
2.2.3.4.2. Irakurle-datuak 2005-2013 bitartean	245
2.2.3.4.3. Euskara hutsezko paperezkoen kontsumoan eragiten duten faktoreak	252
2.3. Aterpe teorikoa laburbilduta	259
3. IKERKETAREN DEFINIZIOA: IKERGAIA, HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	265
3.1. Ikergaiaren definizioa	265
3.2. Ikerketaren helburuak	266
3.2.1. Helburu orokorrak	266
3.2.2. Helburu zehatzak	268
3.3. Ikerketaren hipotesiak	271

4. IKERKETAREN DISEINU METODOLOGIKOA 277

4.1. Metodologiaren hautaketa: aniztasunaren aldeko apustua	278
4.1.1. Informazio-iturri ez zuzenak: ikertuko den errealitatea arakatu eta deskribatzen	282
4.1.1.1. Erabilitako iturriak	284
4.1.2. Elkarrizketa sakonak: diskurtso adierazgarriak azaleratzen	287
4.1.2.1. Nortzuk: erreferentzialtasuna irizpide.....	290
4.1.2.2. Elkarrizketen egitura eta jarraitutako prozedura	292
4.1.3. Delphi teknika: adostasunen eta desadostasunen bila	295
4.1.3.1. Norekin: ahalik eta ahots gehien jasotzen.....	298
4.1.3.2. Idatzizko ekarpenen egitura eta jarraitutako prozedura.....	300
4.2. Diseinu metodologikoa laburbilduta	303

5. IKERKETAREN ANALISI-ATALA: EUSKO JAURLARITZAK 2005-2013 BITARTEAN EUSKARAZKO HEDABIDE INPRIMATUEI ESKAINITAKO DIRU-LAGUNTZAK 305

5.1. Informazio-iturri ez zuzenen analisia I: euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko deialdia	307
5.1.1. “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren helburuak.....	307
5.1.2. “Hedabideak” deialdiaren diru-baliabideen bilakaera	312
5.1.2.1. Hogei urte hazten: 1984-2004	313
5.1.2.2. Hazi, eutsi eta jaitsi: 2005-2013.....	321
5.1.3. “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren baldintzak	327
5.1.3.1. Ia urtero aldatuz eta berrituz: 1984-2004	329
5.1.3.2. Baldintzen egonkortasuna: 2005-2013.....	332
5.1.3.3. Diru-laguntzak eskatzetik kanpo geratu direnak	337
5.1.4. “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren esleipen-irizpideak.....	338
5.1.4.1. Irizpideak etengabe aldatuz: 1984-2004	338
5.1.4.2. Irizpideak egonkortuz eta sinplifikatuz: 2005-2013.....	341

5.1.4.2.1. Irizpideen eta puntuen dantza: 2005-2008	341
5.1.4.2.2. Irizpide eta puntu berberak urtero: 2009-2013	347
5.1.5. “Hedabideak” diru-laguntza deialdia laburbilduta	361
5.2. Informazio-iturri ez zuzenen analisia II: 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso duten euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta esleipenen bilakaera	367
5.2.1. “Hedabideak” deialdiaren onuradunen bilakaera 2005etik 2013ra	368
5.2.1.1. Eguneroko prentsa inprimatua	368
5.2.1.1.1. Aurrekontuak	370
5.2.1.1.2. Finantzaketa-maila propioa	376
5.2.1.1.3. Maiztasunak, botaldiak eta orrialde-kopuruak	380
5.2.1.1.4. Salmentak	386
5.2.1.2. Informazio orokorreko aldizkariak eta espezializatuak	388
5.2.1.2.1. Aurrekontuak	390
5.2.1.2.2. Finantzaketa-maila propioa	396
5.2.1.2.3. Maiztasunak, botaldiak eta orrialde-kopuruak	398
5.2.1.2.4. Salmentak	407
5.2.1.3. Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak (tokikoak)	408
5.2.1.3.1. Aurrekontuak	410
5.2.1.3.2. Finantzaketa-maila propioa	416
5.2.1.3.3. Maiztasunak, botaldiak eta orrialde-kopuruak	419
5.2.1.3.4. Salmentak	428
5.2.1.4. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak eta erreferentzia- orrialdeak	430
5.2.1.4.1. Euskara hutsezko gehigarrien bilakaera	433
5.2.1.4.2. Erreferentzia-orrialdeen bilakaera	436
5.2.2. Euskara hutsezko hedabide inprimatuak eta 2005-2013 bitartean esleitutako laguntzak	438
5.2.2.1. “Hedabideak” deialdiaren bidez estalitako aurrekontua	439
5.2.2.1.1. Eguneroko prentsa inprimatua	439

5.2.2.1.2. Informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak.....	444
5.2.2.1.3. Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak	446
5.2.2.1.4. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak eta erreferentzia-orrialdeak	449
5.2.2.2. Paperezkoek eskatutako diru-laguntzatik Eusko Jaurlaritzak esleitutakoa	452
5.2.2.2.1. Eguneroko prentsa inprimatua.....	458
5.2.2.2.2. Informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak.....	464
5.2.2.2.3. Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak	467
5.2.2.2.4. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak eta erreferentzia-orrialdeak	473
5.2.3. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza 2005-2013 epealdian jaso zuten euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta esleipenen bilakaera laburbilduta	476
5.3. Informazio-iturri ez zuzenen analisia III: Eusko Jaurlaritzaren eta euskara hutsezko hedabide inprimatuen arteko harremana	491
5.3.1. Autonomia Estatutuaren onarpenetik 1983ra. Abiatzen	491
5.3.2. Lehen diru-laguntza agindutik (1984) <i>Euskaldunon Egunkaria</i> kaleratu arte. Diru-laguntzak arautu eta harremana mikaztu	496
5.3.3. XX. mendeko azken hamarkada: 1991-1999. Eskatima-giroa	505
5.3.4. Diru-laguntzen onuradun berriak eta barealdia: 2000-2004	513
5.3.5. Egonkortasuna deialdietan eta harremanetan bakoitza bereari eutsiz: 2005-2013 epealdia	515

5.3.5.1. Diagnostiko eta aldarrikapenetatik krisiari usaina hartzen hasi arte	515
5.3.5.2. Krisiaren ziztadatik, aurrera begirako diagnostiko eta aldarrikapenetara: 2009-2013.....	528
5.3.6. Eusko Jaurlaritzaren eta euskarazko hedabide inprimatuen arteko harremana laburbilduta.....	544
5.4. Elkarrizketa sakonen analisia: euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta Eusko Jaurlaritzako ordezkarien diskurtsoak	549
5.4.1. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen bilakaera(z)	550
5.4.2. Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntza deialdia(z)	563
5.4.2.1. Deialdiaren prozedura administratiboari buruzko zenbait argibide.....	581
5.4.3. Euskarazko inprimatuek eta Eusko Jaurlaritzak egin beharrekoa(z)	587
5.4.4. “Hedabideak” diru-laguntza deialdian parte hartu duten aktore nagusien diskurtsoak laburbilduta	608
5.5. Delphi teknika bidezko analisia: adostasunak eta desadostasunak euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorean	613
5.5.1. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen egoera	615
5.5.2. Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntza deialdia	631
5.5.3. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremana.....	662
5.5.4. Etorkizunari begira: sektorearen eta Jaurlaritzaren egitekoak	671
5.5.5. Euskara hutsezko paperezkoen sektorean diren adostasunak eta desadostasunak laburbilduta	699
6. IKERKETAREN ONDORIOAK	711
6.1. Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntza ezinbestekoa da euskara hutsezko hedabide inprimatuentzat	711

6.2. “Hedabideak” diru-laguntza deialdiak euskara hutsezko hedabide inprimatuen eskaintza kuantitatiboari eusten lagundu dio	721
6.3. EAEko aurrekontu orokorrak nora/nola, “Hedabideak” diru-laguntza hara/hala... baina ez beti	726
6.4. Laguntza-eskaerak eta Eusko Jaurlaritzaren esleipenak: ertz ugari dituen binomioa.....	735
6.5. Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” deialdiaren lehentasun eta onuradun nagusia	746
6.6. Euskara hutsezko hedabide inprimatuek modu anitzean ulertzen dute 2005-2013 bitarteko deialdietan ezarritako helburua	753
6.7. Diru-laguntza deialdia eraginkorra den ala ez egiaztatzeko zailtasunak daude	757
6.8. Euskarazko hedabide inprimatuak sendotu, garatu eta normalizatu: betetzeko dagoen helburua	763
6.9. “Hedabideak” deialdiaren balorazio-irizpideak: ikuspegi anitz eta kontrajarriak inprimatuen artean.....	777
6.10. Euskara hutsezko paperezkoen sektoreak ez du begi onez ikusten diru publikoa eskaintzea nagusiki gaztelania darabilten egunkariek euskara hutsezko edukiak prestatu eta zabaltzeko	788
6.11. Eusko Jaurlaritzak eta euskara hutsezko hedabide inprimatuak: bat etorri ezinda.....	793
6.12. Etorkizunerako erronkak eta zereginak: saretuta dauden bi ikuspegi.....	806

7. AZKEN-AURREKO HITZA ETA AMAIERAKO GOGOETA: IRAGANA PRESENTE, ORAINA AKUILU, ETORKIZUNA HAUSPOTZEN 825

7.1. Denboraren joanaz: 2014-2017 urteak. Nobedade ugari sasoia.....	829
7.1.1. Euskara hutsezko inprimatuak: berriak sortuz eta daudenak berrituz ...	830
7.1.2. Euskarazko hedabideen eta euskararen ikerkuntza: ekarpen eta azterketa-ildo berriak	839

7.1.3. “Hedabideak” deialdia: diru-baliabideei eutsi, balorazio-irizpideak erabat aldatu eta urterokotasunetik urte anitzera	846
7.1.4. Eusko Jaurlaritzaren eta euskarazko idatzikoen arteko harremana: betiko bidetik	857
7.2. Datorrenaz: galdera eta erronka anitzei heltzeko sasoia	865
7.2.1. Ikerketa-proposamenak: hizkuntza gutxituetako hedabideen ekarpenetatik euskal esparru komunikatibora	868
7.2.2. Euskarazko hedabideen ekosistema osatzeko aukerak eta erantzukizunak.....	878
8. BIBLIOGRAFIA	891
8.1. Lanean aipatu eta kontsultatu diren erreferentziazko iturri bibliografikoak....	891
8.2. Helbide elektronikoak.....	925
8.3. Legeak, dekretuak eta “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren aginduak eta ebazpenak.....	927
9. ERANSKINAK	937

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

TAULEN AURKIBIDEA

<u>1. taula.</u> Hizkuntza gutxituetako hedabideen finantziario-iturriak, 2009	103
<u>2. taula.</u> Hizkuntza gutxituetako hedabideen finantza-egitura euskarriaren arabera. Prentsa,2009 (%).....	104
<u>3. taula.</u> Katalanez, euskaraz eta galegoz ari diren hedabideen eskariak.....	109
<u>4. taula.</u> Hedabideen arloko ekintzen betetze-maila neurtzeko adierazleak	152
<u>5. taula.</u> Euskara sustatzeko aurrekontua Eusko Jaurlaritzan, 1983-2013.....	154
<u>6. taula.</u> Euskara sustatzeko aurrekontuaren bilakaera, 1983, 1993, 2003, 2013.....	155
<u>7. taula.</u> Euskara sustatzeko aurrekontua Eusko Jaurlaritzan, 2001-2006.....	155
<u>8. taula.</u> Euskara sustatzeko aurrekontua Eusko Jaurlaritzan, 2009-2013.....	155
<u>9. taula.</u> Euskara sustatzeko aurrekontua Eusko Jaurlaritzan, 2005-2013.....	156
<u>10. taula.</u> Euskara sustatzeko aurrekontua zertan gastatu, 2005-2013.....	157
<u>11. taula.</u> Kultura Sailaren eta EITBren aurrekontuak, 2005-2013	159
<u>12. taula.</u> Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2013 bitartean kudeatu duen aurrekontuaren partida garrantzitsuenak	162
<u>13. taula.</u> “Hedabideak” deialdirako aurrekontuaren banakatzea, 2012	163
<u>14. taula.</u> Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontu-banaketa programaren arabera, 2005-2013.....	165
<u>15. taula.</u> Diru-laguntza deialdien aurrekontua, 2009 eta 2013	165
<u>16. taula.</u> Diru-laguntza deialdi bakoitzaren pisu erlatiboa diru-laguntza deialdietara bideratutako aurrekontu osoarekiko, 2005-2013	166
<u>17. taula.</u> Euskararen aurrekontuaren bilakaera erakunde-motaren arabera, 2006-2012.....	168
<u>18. taula.</u> Euskara-aurrekontuen pisu erlatiboaren bilakaera erakunde-motaren arabera, 2006-2012	168

<u>19. taula.</u> Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoen eta euskararen aurrekontu likidatuaren bilakaera, 2006-2012.....	169
<u>20. taula.</u> Foru-aldundien aurrekontu osoen eta euskararen aurrekontu likidatuaren bilakaera, 2006-2012.....	170
<u>21. taula.</u> Udalen aurrekontu osoen eta euskararen aurrekontu likidatuaren bilakaera, 2006-2012.....	172
<u>22. taula.</u> Hiriburuen aurrekontu osoen eta euskararen aurrekontu likidatuaren bilakaera, 2006-2012.....	173
<u>23. taula.</u> EAEn biztanle bakoitzeko euskararen sustapenerako erakunde-mota bakoitzak bideratu duen aurrekontu likidatuaren bilakaera, 2006-2012.....	174
<u>24. taula.</u> Euskara-aurrekontuaren bilakaera erakunde-mota eta hizkuntza-normalizaziorako eremuaren arabera, 2006-2012	176
<u>25. taula.</u> Euskarazko hedabideentzako diru-laguntzen banaketa erakundearen arabera, 2008-2010	177
<u>26. taula.</u> Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2011.....	181
<u>27. taula.</u> Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2011	182
<u>28. taula.</u> Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAEn eta lurraldeen arabera, 1991-2011.....	182
<u>29. taula.</u> Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera EAeko eskualdeen arabera, 2001-2011.....	183
<u>30. taula.</u> Bost urte edo gehiagoko biztanleriaren bilakaera gune soziolinguistikoen arabera, 1981 eta 2011	185
<u>31. taula.</u> Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, adinaren arabera. EAE, 1991-2011	187
<u>32. taula.</u> Etxean, eremu hurbilean eta eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2011	187
<u>33. taula.</u> Euskara sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. EAE, 1991-2011	188
<u>34. taula.</u> Ateak itxi dituzten hedabideak eta galdutako lanpostuak, 2008-2013	215
<u>35. taula.</u> Eguneroko prentsaren zabalkundea Espainian. 1.000 biztanleko aleak.....	215
<u>36. taula.</u> Hedabideen irismenaren bilakaera Espainian, 2005-2013.....	216

<u>37. taula.</u> Prentsaren irakurleak lurralde autonomoka, 2013	217
<u>38. taula.</u> Prentsaren kontsumo-bilakaera EAEn, 1984-2013	219
<u>39. taula.</u> Doako edizio elektronikoen irakurleak EAEn, 2007-2013	220
<u>40. taula.</u> EAeko biztanleriak gehien aipatzen dituen web orrien rankinga, 2012-2013 (15 urte eta gehiagoko Internet erabiltzaileak)	221
<u>41. taula.</u> Informazio orokorreko egunkarien zabalkundea EAEn. 2005, 2007, 2009, 2011, 2013	222
<u>42. taula.</u> Gaztelaniazko eguneroko prentsaren irakurleen bilakaera EAEn, 2005-2013.....	223
<u>43. taula.</u> Euskal Autonomia Erkidegoko eguneroko prentsaren kontsumitzaileen euskara-gaitasuna, 2013	225
<u>44. taula.</u> Euskaraz irakurtzeko gai diren EAeko eguneroko prentsaren kontsumitzaileak egunkarien arabera. 2013ko metatua	226
<u>45. taula.</u> Euskarazko eguneroko prentsa inprimatua, 2013	231
<u>46. taula.</u> Euskarazko eguneroko prentsa inprimatuaren eskaintza EAEn, 2005, 2009 eta 2013.....	231
<u>47. taula.</u> Euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak, 2005, 2009 eta 2013	235
<u>48. taula.</u> Euskara hutsezko egunkari eta aldizkarien irakurleen bilakaera, 2005-2013.....	245
<u>49. taula.</u> Euskarazko hedabideen kontsumitzaile-kopurua, 2007	248
<u>50. taula.</u> Euskarazko eguneroko prentsaren kontsumitzaile-kopurua eta irismena lurraldearen arabera, 2007	249
<u>51. taula.</u> Euskal hedabideen eta euskarazko eguneroko prentsaren kontsumitzaileak udalerrien biztanle-kopuruaren arabera, 2007	249
<u>52. taula.</u> Euskarazko argitalpenen kontsumitzaile-kopurua eta irismena lurraldearen arabera, 2007	250
<u>53. taula.</u> Euskal hedabideen eta euskarazko argitalpenen kontsumitzaileak udalerrien biztanle-kopuruaren arabera, 2007.....	250

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

<u>54. taula.</u> Zein hizkuntzatan irakurtzen dira egunkariak EAEn (orokorrak nahiz herri edo eskualde mailakoak)	253
<u>55. taula.</u> Euskarazko egunkaririk ez irakurtzeko arrazoiak. EAE	254
<u>56. taula.</u> Zein hizkuntzatan irakurtzen dira aldizkariak EAEn	254
<u>57. taula.</u> Euskarazko aldizkaririk ez irakurtzeko arrazoiak. EAE.....	255
<u>58. taula.</u> Sakoneko elkarrizketen atalak eta helburuak	293
<u>59. taula.</u> Delphi-galdeketa hedabideen izaeraren arabera.....	298
<u>60. taula.</u> <i>Hemen eta Eguna</i> argitalpenek jasotako diru-laguntzak, 1986-1990.....	314
<u>61. taula.</u> “Hedabideak” deialdiaren diru-baliabideak (pezeta/eurotan) eta jasotzaileak, 1988-1993.....	315
<u>62. taula.</u> “Hedabideak” deialdiaren diru-baliabideak (pezeta/eurotan) eta jasotzaileak, 1997-1999.....	317
<u>63. taula.</u> Euskarazko hedabideentzako diru-baliabideen bilakaera, 2000-2004	318
<u>64. taula.</u> “Hedabideak” deialdiko diru-baliabideen bilakaera, 2000-2004	319
<u>65. taula.</u> “Hedabideak” diru-laguntzen onuradunen bilakaera, 2000-2004.....	319
<u>66. taula.</u> Euskarazko hedabideentzako diru-baliabideen bilakaera, 2005-2013	322
<u>67. taula.</u> “Hedabideak” deialdirako diru-baliabideen bilakaera, 2005-2013. (eurotan eta portzentajetan)	323
<u>68. taula.</u> “Hedabideak” diru-laguntza deialdira aurkeztutako egitasmoen bilakaera, 2005-2013.....	324
<u>69. taula.</u> Euskara hutsezko hedabide inprimatuen balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2005	342
<u>70. taula.</u> Euskara hutsezko hedabide inprimatuen balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2006	343
<u>71. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarrien balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2006	344

<u>72. taula.</u> Euskara hutsezko hedabide inprimatuen balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2007 eta 2008.....	345
<u>73. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarrien balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2007 eta 2008.....	346
<u>74. taula.</u> Euskara hutsezko prentsa inprimatuaren balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2009-2013.....	348
<u>75. taula.</u> Euskara hutsezko prentsa inprimatuaren finantzaketa-maila propioari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013	349
<u>76. taula.</u> Euskara hutsezko prentsa inprimatuaren zabalkundeari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013	349
<u>77. taula.</u> Euskara hutsezko prentsa inprimatuaren produktuari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013	350
<u>78. taula.</u> Euskara hutsezko aldizkarien balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2009-2013.....	351
<u>79. taula.</u> Euskara hutsezko aldizkarien finantzaketa-maila propioari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013	351
<u>80. taula.</u> Euskara hutsezko informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarien zabalkundeari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013	352
<u>81. taula.</u> Euskara hutsezko informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarien produktuari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013	353
<u>82. taula.</u> Euskara hutsezko tokian tokiko aldizkarien zabalkundeari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013	354
<u>83. taula.</u> Euskara hutsezko tokian tokiko aldizkarien produktuari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013	355
<u>84. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrien balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2006-2011	356
<u>85. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrien balorazioa egiteko irizpideen banakatzea, 2006-2011.....	357

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

<u>86. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko erreferentzia-orrialdeen balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2009-2010.....	358
<u>87. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko erreferentzia-orrialdeen balorazioa egiteko irizpideen banakatzea, 2009-2010.....	359
<u>88. taula.</u> <i>Berria, Goierriko Hitza, Hernaniko Kronika, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza eta Urola Kostako Hitzaren</i> aurrekontuak, 2005 eta 2013.....	370
<u>89. taula.</u> <i>Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza eta Busturialdeko Hitzaren</i> aurrekontuak, 2005, 2006 eta 2010.....	371
<u>90. taula.</u> <i>Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzaren</i> aurrekontuak, 2011 eta 2013.....	371
<u>91. taula.</u> <i>Oarsoaldeko Hitzaren</i> aurrekontuak, 2005 eta 2010.....	371
<u>92. taula.</u> <i>Oarso Bidasoko Hitzaren</i> aurrekontuak, 2011 eta 2013.....	372
<u>93. taula.</u> <i>Irutxuloko Hitzaren</i> aurrekontuak, 2005 eta 2013.....	372
<u>94. taula.</u> Euskarazko eguneroko prentsa inprimatuaren aurrekontuen banakatzea, 2007 (€)	374
<u>95. taula.</u> Euskarazko eguneroko prentsa inprimatuaren aurrekontuen banakatzea, 2013 (€)	375
<u>96. taula.</u> <i>Oarso Bidasoko Hitza eta Irutxuloko Hitza</i> argitalpenen aurrekontuen banakatzea, 2013 (€).....	376
<u>97. taula.</u> Euskarazko eguneroko prentsa inprimatuaren autofinantzaketa-maila, 2005 eta 2013 (%)	378
<u>98. taula.</u> <i>Oarso Bidasoko Hitza eta Irutxuloko Hitza</i> hedabideen autofinantzaketa-maila, 2005-2013.....	380
<u>99. taula.</u> Euskarazko eguneroko prentsa inprimatuaren maiztasunak (astean//urtean), orrialde-kopuruak eta botaldiak, 2005 eta 2013	381
<u>100. taula.</u> Euskarazko eguneroko prentsa inprimatuak sortutako eta inprimatutako orrialde-kopuruaren bilakaera, 2005 eta 2013	383
<u>101. taula.</u> Euskarazko eguneroko prentsaren bilakaera orokorra, 2005-2013	385

<u>102. taula.</u> <i>Berria, Goierriko Hitza, Hernaniko Kronika, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza eta Urola Kostako Hitzaren</i> salmenta, 2005 eta 2013	386
<u>103. taula.</u> <i>Lea Artibai eta Mutrikuko Hitzaren</i> salmenta, 2005-2013.....	387
<u>104. taula.</u> <i>Oarso Bidasoko Hitzaren</i> salmenta, 2005-2012	387
<u>105. taula.</u> <i>Irutxuloko Hitzaren</i> salmenta, 2005-2012.....	387
<u>106. taula.</u> “Hedabideak” deialdiko laguntza jaso duten informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen bilakaera, 2005-2013	389
<u>107. taula.</u> Informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen aurrekontuak, 2005 eta 2013.....	390
<u>108. taula.</u> Informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen aurrekontuen banakatzea, 2007 (€).....	393
<u>109. taula.</u> Informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen aurrekontuen banakatzea. 2013 (€).....	395
<u>110. taula.</u> Informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen autofinantzaketa-maila, 2005 eta 2013	397
<u>111. taula.</u> Informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen maiztasunak (urtean), orrialde-kopuruak eta botaldiak, 2005 eta 2013.....	399
<u>112. taula.</u> “Hedabideak” diru-laguntzaren onuradun izan ziren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek urtean sortutako eta inprimatutako orrialde-kopurua, 2005	401
<u>113. taula.</u> “Hedabideak” diru-laguntzaren onuradun izan ziren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek urtean sortutako eta inprimatutako orrialde-kopurua, 2013	402
<u>114. taula.</u> 2005-2013 bitartean urtero “Hedabideak” diru-laguntzaren onuradun izan ziren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek urtean sortutako eta inprimatutako orrialde-kopurua.....	403
<u>115. taula.</u> Euskarazko informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen bilakaera orokorra, 2005-2013.....	404
<u>116. taula.</u> 2005-2013 bitartean desagertu ziren informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen bilakaera eta 2005-2013 bitartean 4 urtetik behera laguntza jaso zutenen bilakaera	406

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

<u>117. taula.</u> Informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen salmenta, 2005 eta 2013.....	407
<u>118. taula.</u> “Hedabideak” deialdiko laguntza jaso duten udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien bilakaera, 2005-2013.....	409
<u>119. taula.</u> Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien aurrekontuak, 2005 eta 2013	411
<u>120. taula.</u> Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien aurrekontuen banakatzea, 2007 (€)	413
<u>121. taula.</u> Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien aurrekontuen banakatzea, 2013 (€)	415
<u>122. taula.</u> Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien autofinantzaketa-maila, 2005 eta 2013 (%)	418
<u>123. taula.</u> Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien maiztasunak (urtean), orrialde-kopuruak eta botaldiak, 2005 eta 2013.....	420
<u>124. taula.</u> “Hedabideak” diru-laguntzaren onuradun izan diren udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak urtean sortutako eta inprimatutako orrialde-kopurua, 2005 eta 2013.....	422
<u>125. taula.</u> “Hedabideak” diru-laguntza jaso duten udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkari guztiek 2005ean eta 2013an sortutako eta inprimatutako orrialde-kopurua	423
<u>126. taula.</u> Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien bilakaera orokorra, 2005-2013	425
<u>127. taula.</u> 2005-2013 bitartean desagertu ziren udalerri, eskualde edo lurralde jakinetako informazio orokorreko aldizkarien bilakaera eta 2005-2013 bitartean 5 urtetik behera laguntza jaso zutenen bilakaera.....	427
<u>128. taula.</u> Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien salmenta, 2013	429
<u>129. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako gehigarriak eta erreferentzia-orrialdeentzako “Hedabideak” deialdia: laguntzak norentzat eta zein urtetan	430

<u>130. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduak euskara hutsezko gehigarrien aurrekontuak, 2006 eta 2011	433
<u>131. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduak euskara hutsezko gehigarrien aurrekontuen banakatzea, 2007 (€)	434
<u>132. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduak euskara hutsezko gehigarrien aurrekontuen banakatzea, 2011 (€)	434
<u>133. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduak euskara hutsezko gehigarrien autofinantzaketa-maila.2006 eta 2011	435
<u>134. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduak euskara hutsezko gehigarrien maiztasunak (urtean), orrialde-kopuruak eta botaldiak. 2006 eta 2011	435
<u>135. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduak euskara hutsezko gehigarrien bilakaera orokorra, 2006-2011	436
<u>136. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduak erreferentzia-orrialdeen aurrekontuak, autofinantzaketa, maiztasunak, orrialde-kopuruak eta botaldiak, 2009 eta 2010	437
<u>137. taula.</u> “Hedabideak” diru-laguntza bidez euskara hutsezko eguneroko prentsak estali duen aurrekontua, 2005 eta 2013.....	439
<u>138. taula.</u> Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak eta Busturialdeko Hitzak “Hedabideak” diru-laguntza bidez estalitako aurrekontua, 2005/2006 eta azken urtea	441
<u>139. taula.</u> Lea-Artibai, Mutrikuko eta Busturialdeko Hitzak “Hedabideak” diru- laguntza bidez estalitako aurrekontua, 2011 eta 2013.....	441
<u>140. taula.</u> Oarsoaldeko Hitzak “Hedabideak” diru-laguntza bidez estalitako aurrekontua, 2005 eta azken urtea.....	442
<u>141. taula.</u> Oarso Bidasoko Hitzak “Hedabideak” diru-laguntza bidez estalitako aurrekontua, 2011 eta 2013.....	442
<u>142. taula.</u> Irutxuloko Hitzak “Hedabideak” diru-laguntza bidez estalitako aurrekontua, 2005 eta 2013.....	443
<u>143. taula.</u> “Hedabideak” diru-laguntza bidez informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek estali duten aurrekontua, 2005 eta 2013.....	445

<u>144. taula.</u> “Hedabideak” diru-laguntza bidez udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak estali duten aurrekontua, 2005 eta 2013.....	447
<u>145. taula.</u> “Hedabideak” diru-laguntza bidez nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutsezko gehigarriak estali duten aurrekontua, 2006 eta 2011	449
<u>146. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutsezko gehigarrientzat laguntza deialdietan ezarritako diru-partida, horiei esleitutakoa eta soberakina, 2006-2011	451
<u>147. taula.</u> “Hedabideak” diru-laguntza bidez nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko erreferentzia-orrialdeek estali duten aurrekontua, 2009 eta 2010.....	451
<u>148. taula.</u> Euskara hutsezko eguneroko prentsaren aurrekontuak, eskatutako eta esleitutako laguntzak eta onuradunak, 2005-2013	453
<u>149. taula.</u> Euskara hutsezko aldizkari inprimatuen aurrekontuak, eskatutako eta esleitutako laguntzak eta onuradunak, 2005-2013	453
<u>150. taula.</u> Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuen aurrekontuak, eskatutako eta esleitutako laguntzak eta onuradunak, 2005-2013	456
<u>151. taula.</u> Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak aurrekontuak, eskatutako eta esleitutako laguntzak eta onuradunak, 2005-2013.....	456
<u>152. taula.</u> Euskara hutsezko eguneroko prentsaren aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2005 eta 2013	458
<u>153. taula.</u> <i>Lea-Artibai eta Mutriku Hitzaren eta Busturialdeko Hitzaren</i> aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2005/2006 eta azken urtea	459
<u>154. taula.</u> <i>Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzaren</i> aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2011 eta 2013.....	459
<u>155. taula.</u> <i>Oarsoaldeko Hitzaren</i> aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2005 eta 2013.....	460
<u>156. taula.</u> <i>Oarso Bidasoko Hitzaren</i> aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2011 eta 2013.....	460

<u>157. taula.</u> <i>Iruxuloko Hitzaren</i> aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2005 eta 2013.....	460
<u>158. taula.</u> Eguneroko prentsak eskatutako diru-laguntza eta esleitutakoa, 2005 eta 2013.....	461
<u>159. taula.</u> <i>Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak eta Busturialdeko Hitzak</i> eskatutako diru-laguntza eta esleitutakoa, 2005/2006 eta azken urtea.....	462
<u>160. taula.</u> <i>Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzak</i> eskatutako diru-laguntza eta esleitutakoa, 2011 eta 2013.....	463
<u>161. taula.</u> <i>Oarsoaldeko Hitzak</i> eskatutako diru-laguntza eta esleitutakoa, 2005 eta 2010.....	463
<u>162. taula.</u> <i>Oarso Bidasoko Hitzak</i> eskatutako diru-laguntza eta esleitutakoa, 2011 eta 2013.....	463
<u>163. taula.</u> <i>Iruxuloko Hitzak</i> eskatutako diru-laguntza eta esleitutakoa, 2005 eta 2013.....	464
<u>164. taula.</u> Informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2005 eta 2013.....	465
<u>165. taula.</u> Informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek eskatutako diru-laguntzak eta esleitutakoak, 2005 eta 2013.....	466
<u>166. taula.</u> Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2005 eta 2013.....	468
<u>167. taula.</u> Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eskatutako diru-laguntzak eta esleitutakoak, 2005 eta 2013.....	471
<u>168. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduetako euskara hutsezko gehigarrien aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2006 eta 2011.....	473
<u>169. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduetako euskara hutsezko gehigarriak eskatutako diru-laguntzak eta esleitutakoak, 2006 eta 2011.....	474

<u>170. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako erreferentzia-orrialdeen aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2009 eta 2010.....	475
<u>171. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako erreferentzia-orrialdeek eskatutako diru-laguntzak eta esleitutakoak, 2009 eta 2010.....	475
<u>172. taula.</u> Euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta “Hedabideak” deialdiaren esleipenen bilakaera, 2005-2013	477
<u>173. taula.</u> Euskarazko eguneroko prentsaren bilakaera, laguntzei esker lortutako estaldura-mailaren bilakaera eta jasotako diru-kantitatearen bilakaera, 2005-2013.....	479
<u>174. taula.</u> Informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen bilakaera, laguntzei esker lortutako estaldura-mailaren bilakaera eta jasotako diru-kantitatearen bilakaera, 2005-2013.....	482
<u>175 . taula.</u> Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien bilakaera, laguntzei esker lortutako estaldura-mailaren bilakaera eta jasotako diru-kantitatearen bilakaera, 2005-2013	485
<u>176. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrien bilakaera, laguntzei esker lortutako estaldura-mailaren bilakaera eta jasotako diru-kantitatearen bilakaera, 2006-2011	488
<u>177. taula.</u> Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako erreferentzia-orrialdeen bilakaera, laguntzei esker lortutako estaldura-mailaren bilakaera eta jasotako diru-kantitatearen bilakaera, 2009-2010	488
<u>178. taula.</u> Sendotu, garatu, normalizatu eta eraginkortu kontzeptuen esanahiak “Hedabideak” laguntzaren onuradun izan diren euskara hutsezko inprimatuentzat.....	642
<u>179. taula.</u> Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien autofinantzaketa-mailak eta “Hedabideak” deialdiaren bidez lortutako estaldura-mailak, 2005-2013.....	716
<u>180. taula.</u> Informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen autofinantzaketa-mailak eta “Hedabideak” deialdiaren bidez lortutako estaldura-mailak, 2005-2013	718

<u>181. taula.</u> Eguneroko prentsaren autofinantzaketa-mailak eta “Hedabideak” deialdiaren bidez lortutako estaldura-mailak, 2005-2013.....	719
<u>182. taula.</u> “Hedabideak” deialdiaren onuradunak hedabide inprimatuen sektorean, 2005-2013.....	722
<u>183. taula.</u> “Hedabideak” deialdiak finkatutako baldintzaren bat ez betetzeagatik bazterrean geratutako egitasmoak, 2005-2013.....	723
<u>184. taula.</u> EAEko aurrekontu orokorrak (€) eta Osasun, Hezkuntza eta Kultura Saisetako partidak (%). 2005-2013	728
<u>185. taula.</u> Euskara hutsezko hedabide inprimatuen aurrekontuak, eskatutako eta esleitutako laguntzak eta onuradunak, 2005 eta 2013.....	735
<u>186. taula.</u> Eusko Jaurlaritzak “Hedabideak” deialdian jarritako baliabide ekonomikoen bilakaera, 2005-2013.....	748
<u>187. taula.</u> “Hedabideak” deialdian euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatuarentzat jarritako diru-baliabideen eta onuradunen bilakaera, 2005-2013.....	749
<u>188. taula.</u> “Hedabideak” deialdian euskara hutsezko aldizkari inprimatuentzat jarritako diru-baliabideen eta onuradunen bilakaera, 2005-2013	750
<u>189. taula.</u> “Hedabideak” deialdian nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrientzat (2006-2011) eta erreferentzia-orrialdeentzat (2009-2010) jarritako diru-baliabideen eta onuradunen bilakaera	751
<u>190. taula.</u> Hedabideen irismenaren bilakaera Espainian, 2005, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017 (%).....	827
<u>191. taula.</u> EAEko informazio orokorreko egunkarien batez besteko zabalkundea, 2005, 2013, 2016, 2017.....	828
<u>192. taula.</u> Euskara hutsezko hedabide inprimatuen balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2014	849
<u>193. taula.</u> Euskara hutsezko hedabide inprimatuen balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2015	851
<u>194. taula.</u> Euskara hutsezko hedabide inprimatuen balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2016	854

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

<u>195. taula.</u> Euskara hutsezko hedabide inprimatuen balorazio irizpideen eta puntuazioen bilakaera, 2013-2018	855
<u>196. taula.</u> “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren ezaugarri nagusien bilakaera euskara hutsezko hedabide inprimatuentzat, 2013-2018	856
<u>197. taula.</u> Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2011 eta 2016. (zenbaki absolutuak eta %)	862

IRUDIEN AURKIBIDEA

<u>1. irudia.</u> Prentsaren kontsumo-bilakaera EAEn lurraldeka, 1984-2013.....	219
<u>2. irudia.</u> Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso duten udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak EAEko mapan, 2005.....	238
<u>3. irudia.</u> Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso duten udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak EAEko mapan, 2009.....	239
<u>4. irudia.</u> Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso duten udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak EAEko mapan, 2013.....	240
<u>5. irudia.</u> Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso duten udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak EAEko mapan, 2017ko urria	837
<u>6. irudia.</u> Etorkizunean garatu daitezkeen ikerketa-ildoak	877

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

1. SARRERA

Jakingura eta beharra, premia omen dira ikerkuntzaren oinarrian dauden funtsezko arrazoiak eta pizgarriak. Ikerketa-lan honek baieztapen horren lekuko izan nahiko luke.

1.1. IKERKETAREN HABE NAGUSIAK: ZER, NOLA, ZERGATIK ETA ZERTARAKO

Sei urte betetzeko hilabete falta zitzaiola sartu zen neskato trentza luzeduna lehen aldiz herriko eskolan. Eta ahalegindu arren, arreta osoa jarri arren, ez zuen señorita Maitek esandako ezer ulertu. Egun hartan deskubritu zuen trentza luzedunak mundua ez zela euskaraz bakarrik egina.

A, e, i, o eta u izan zituen lagun hasieran; letra haiek behin eta berriro errepikatuz ekin zion neskatoak gaztelania hutsezko ikasketa-bidaiari. Hortaz, ordura arte ahoz euskaraz pentsatutako, eraikitako eta adierazitako mundua, gaztelaniaz irakurtzen, idazten eta azaltzen ikasi zuen. Eta denbora batera baserriko ezkaratzean jarri zuten zuri-beltzeko telebistak ekarri zizkion marrazki bizidunekin eta pailazoekin gozatu zuen. Haiek ere gaztelaniaz bizi ziren.

Aspaldiko trentza luzeen lekukotza orduko argazkietan geratu da, gehienak, lehen telebistarekin gertatu zen antzera, zuri-beltzekoak dira. Hautzaroko oroimenez altzoan, berriz, ehunka kontu ditut, gozoak gehienak. Horien artean dago, zalantza barik, 1973 edo 1974 urtean nire eskuetara iritsi zen aldizkaria: *Kili-kili*. Ez dut gogoratzen nork edo zergatik ekarri zidan, bai, ordea, eragin zidan ilusioa, poza. Kili-kili lan ta lan! zen haren lema, eta ondo akorduan daukat zein gustura ibiltzen nintzen koaderno haiekin. Ikastolara joaterik izan ez genuen umeoi euskaraz irakurri eta idazteko aukera eskaini zigun *Kili-kili* aldizkariak. Aldi berean, ia oharkabean, modu entretenigarrian etxeko euskara osatu eta aberastu egiten genuen.

Kili-kili aldizkaria izan zen ezagutu nuen euskara hutsezko lehen aldizkaria. Gerora etorri ziren beste hamaikatxo “aurkikuntza”: Durangoko merkatu-plazan egiten zen liburu eta disko azokan ikusitakoak edo sasoi batean, Leioarako autobusaren zain nengoela, geltokiaren parean zegoen kioskoan ostegunero eta ostiralero erosten nituen *Eguna* eta *Hemen* astegunkariak. Pentsatzen hasita, esango nuke bizipen horiek denak ere ikerketa honen pizgarri izan direla.

Arestiko lerroetan bildu diren arrazoi sentimentalekin batera, esperientzia akademikoari zein lan-esperientziari uztartuta dauden beste zergati batzuek elikatu dute ikerketa honen aldeko hautua. Hortaz, ezin horiek aipatu gabe utzi burututako ahaleginaren pizgarri eta aldi berean lagungarri ere izan direlako. 2007. urtean Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordeko kide izendatu ninduten. Haren egitekoak euskararen biziberritzearen arlokoak dira; horien artean, esaterako, EAEko hizkuntza-normalizazioari buruzko gaiak aztertzea eta ikertzea. 2008an, *Euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan* izenarekin osatu zen batzorde-atal berezian parte hartu nuen. Eta 2009 eta 2010 urteetan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatuta, “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren balorazio-batzordean izan nintzen iritzia ematen, ebazpena kaleratu aurretik. Horietan guztietan egin ditudan ekarpenak eta ikasitakoa baliatu ditut hemen ere. Zertarako? sarreran adierazitakoa betetzen ahalegintzeko; hots, edozein ikerketa-lanaren oinarrian dagoen jakingura eta beharra asebetetzeko. Erantzunak bilatzeko. Ulertu eta ezagutzeko. Ikasi eta eskaintzeko.

Adierazitakoak adierazita, argi dago haurtzaroko *Kili-kili* aldizkaria edo gaztaroko *Hemen* eta *Eguna* lupapean jarriko genituzkeela lan honetan gaur egun kaleratuko balira. Izan ere, hizkuntza gutxituetako hedabideak eta horiei eskainitzako diru-laguntza publikoak dira doktorego-tesi honen objektua. Gurean fokua euskara hutsezko hedabide inprimatuetan eta Eusko Jaurlaritzak horiek laguntzeko eskaini duen diru-publikoan jarri da. Azterlanak helburutzat du aipatu diru-laguntzen eta idatzizko hedabideen 2005-2013 epealdiko ibilbidea sakon ezagutzea, eta horrez gain, Jaurlaritzaren eta inprimatuen arteko harremanaren gorabeherak ezagutu eta aurkeztea.

Lanean oso presente izan da euskara hutsezko idatzizko hedabideen jarduna eta horiek babesteko laguntza ekonomikoak eskaini dituen Eusko Jaurlaritzarena testuinguru bikoitzean garatzen dela. Batetik, hurbileko testuingurua, euskararen lurraldeak definitzen duena eta ezaugarri demografiko, historiko, ekonomiko, politiko, kultural, soziolinguistiko zehatzak dituena. Denborarekin aldatuz doazen ezaugarriak. Bestetik, mundu zabala altzoan hartzen duen testuingurua, azken urteotan berrikuntza teknologikoaren eskutik etengabeko aldaketa bizkorrean murgilduta dagoena. Izena ere jarri zaio prozesuari: globalizazioa. Egoera horren ondorioz, ezinezkoa da ikerketarako hautatu den objektua testuinguru hurbiletik zein globaletik aparte aztertzea. Ezinezkoa da euskarazko idatzizko hedabideak eta horiek jasotako diru publikoa laborategiko entsegu-hodian sartu, astindu eta inguruneko eraginetik isolatuta behatu, neurtu, deskribatu eta ondorioak ateratzea. Horregatik, lan honetan testuinguruak presentzia nabarmena izango du, hiru mailatan eragiten duelako: batetik, hedabideen jardunean eta bilakaeran; bigarrenik, erakunde publikoek hartzen dituzten erabakietan eta egikaritzen duten kudeaketan; eta hirugarrenik, batzuen eta besteen artean garatzen diren harreman-dinamiketan. Gainera, ez da ahaztu behar eragina bi norabidetan gauzatzen dela; testuingurutik (hurbila eta globala) hedabideetara zein erakunde publikoetara eta alderantziz.

Ikerlan honek alea jarri nahi dio *Mass Communication Research* eremu zabalaren barruan izaera eta espazio propioa dituela aldarrikatuz ari den azterketa-ildoari; zehatzago esateko, hizkuntza gutxituetan diharduten hedabideei eskainitako diru-laguntza publikoak interesgunetzat dituen azterketa-ildoari jarri nahi dio alea. Izan ere, begirada hizkuntza gutxituetako hedabideen eremura zuzendu duten ikerlari gehientsuenek, denek ez esatearren, ondoko interesguneak izan dituzte langai denboran zehar: hizkuntza gutxituetako hedabideen bilakaera historikoa, horien edukiak, ezaugarriak eta funtzioak, kontsumo-ohiturak eta audientzia-neurketak. Gaur egun, berriz, globalizazioak hartu gaituen garaiotan, hizkuntza gutxituei eta horietan ari diren hedabideei zein espazio eta zein rol dagokien argitzeko ekoizpen akademikoa ugaritu egin da. Panorama horretan, iraganekoan zein gaur egungoan, arreta gutxi eskaini zaio hizkuntza gutxituetako hedabideen jardunean funtsezkoa den dimentsio

ekonomikoari. Horren barne kokatzen dira erakunde publikoetatik jasotako diru-laguntzak.

Hizkuntza gutxituetako hedabideak, balio soziala duen zerbitzua eskaintzeaz gain, produktu zehatzak ekoizten dituzten enpresak dira, eta edozein sektoretan ari diren beste enprekin gertatzen den moduan, diru-sarrerak behar dituzte ekoizpena bermatzeko, soldatak ordaintzeko, berrikuntzak egiteko... Azken batean, irauteko, izateko. Hortaz, harritzekoa da hizkuntza gutxituetako hedabideak aztertzen dabilen ikerkuntza-komunitateak dimentsio ekonomikoari arreta gehiago eskaini ez izana. Oinarri ekonomikorik gabe, aurrekonturik gabe ez dagoelako hedabiderik. Ez hizkuntza gutxitua darabilenik, ezta milioika hitzun dituen hizkuntzan hedatzen denik. Ez hemen ez beste inon. Gordin esateko, hedabidearen osasun ekonomikoak baldintzatzen ditu horren ezaugarriak, presentzia, berrikuntza- eta egokitze-gaitasuna... Eta adierazitakoa Euskal Autonomia Erkidegora ekarrita, laguntza publikoen existentziak berak eta horiek duten tradizio luzeak argiro erakutsi dute kontu bat: hizkuntza gutxituetako hedabideak direnak dira eta duten presentzia izatera heldu dira, neurri batean, jaso duten diru publikoari esker. Noski, ez horri esker bakarrik. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen existentzia eta egun duten hedadura herri-ekimenaren eta herri-borondatearen emaitza dira. Horretan ez dago zalantzarik. Baina baieztapen hori egin den sendotasun berarekin aldarrikatu daiteke erakunde publikoek eskainitako babesaren emaitza ere badirela. Hortaz, euskara hutsezko hedabideen errealitatea, eta horien barne idatzizkoena, ezin daiteke ulertu eta interpretatu gobernu-erantzukizuna izan duten erakundeek horiekiko gauzatu dituzten politika zehatzak aintzat hartu gabe.

Horregatik ikerketa hau, erakunde publiko batek, Eusko Jaurlaritzak, epealdi zehatz batean (2005-2013) euskarazko idatzizkoei diru bidez emandako laguntza deskribatu, neurtu eta azaltzera dator. Hizkuntza gutxituetako hedabideen ikerkuntza-eremuak duen hutsuneari edo defizitari alea jartzera, hornitzera datorrela esan daiteke.

Ahalegina gauzatzeko bidelagun izango dira masa-komunikazioaren ikerkuntzan ibilbide oparoa egin duten zenbait teoriak eta korrontek eskainitako ekarpenak. Batetik, *Uses and Gratifications* edo erabilera eta sarien teoria hartuko da kontuan

hartailearen, publikoaren zeregin aktiboa azpimarratzen duelako hedabide bat edo bestea, eduki bat edo bestea hautatzeko orduan. Dena den, teoria hura egungo testuinguruari egokituko zaio; izan ere, eraldaketa teknologikoaren ondorioz, hedabideen hartaileak rol bikoitza eskuratu du: hartaile aktiboa izateaz gain, edukien ekoizle bilakatu da, esanahiak sortzeko eta esanahi horiek hedatu eta partekatzeko gaitasuna du; hortaz, eragile ere bada. Bigarrenik, *Cultural Studies* korronteari erreparatuko zaio hartaileak duen rol aktiboa azpimarratzeaz gain, hedabideen harrera- eta interpretazio-prozesua gertatzen den testuinguru sozialaren, historikoaren, politikoaren eta kulturalaren garrantzia nabarmentzen duelako. Horiei beste testuinguru bat gehitu behar zaie gaur egun, edozein gizarteren antolamenduan, egituretan (ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) eta gizakien zein gizarteen arteko harreman-dinamiketan aldaketa sakonak ekarri dituen testuinguru teknologikoa hain zuzen. Eta hirugarrenik, 90eko hamarkadan lehen urratsak egin zituen hizkuntza gutxituetako komunikazioaren azterketa-esparruak jorratutakoak hartuko dira aintzat; bereziki hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideek hizkuntza horren biziberritzean izan dezaketen funtzioaren eta eraginaren inguruan landutako ekarpenak, eta horiekin batera, nola ez, doktorego-tesi honen edukiarekin lotura zuzena duten hizkuntza gutxituetako hedabideen eta diru-laguntza publikoen arteko harremana arakatzeko egin diren lanak.

Bestalde, hautatu den objektua zehaztasunez aztertzeko, aurreikusitako helburuak gauzatzeko eta ezarritako hipotesiak egiaztatzeko aniztasun metodologikoaren aldeko apustua egin da. Ikuspegi positibista/kuantitatiboaren eta ikuspegi interpretatzailea/kualitatiboaren arteko norgehiagoka gainditu da eta metodologia bien arteko osagarritasuna eta elkarrekiko beharra aldarrikatzen duen planteamenduarekin bat egin da hemen. Bietatik edaten du lan honek eta bakoitzak eskaintzen dituen aukerak zorrotasunez eta irudimenez egokitu dira ikertu nahi den errealitateak ertz anitz dituelako eta horien guztien interpretazio-mapa osatzeko ezinbestekoa delako ikuspegi metodologiko biak uztartuz aritzea.

Ikerketaren egitura orokorra eta atal bakoitzak duen edukia aurkeztu aurretik esan hiru asmo edo nahi asebetetzeko ahalegina egin dela lan honekin. Lehenik, euskaraz egindako ikerkuntza-ekoizpenari alea jartzeko nahia. Bigarrenik, gizarte-

zientzietan laurogeita hamarreko hamarkadatik nortasun eta ezaugarri propioz jantzita haziz joan den hizkuntza gutxituetako hedabideen ikerkuntza-eremuan murgiltzeko nahia. Eta hirugarrenik, oraindik ekoizpen akademiko urria duen hizkuntza gutxituetako hedabide inprimatuen eta horientzako diru-laguntza publikoen arteko harremanaren nondik norakoak arakatzeko nahia.

1.2. LANAREN EGITURA OROKORRA ETA ATAL BAKOITZAREN EDUKIA

Ikerketa honek bederatzi ataletan bildu, landu eta aurkeztu du edukia. Hona hemen horietako bakoitzaren nondik norakoak.

Sarrera izenekoak ematen dio hasiera obra osoari eta bertan egilearen zergatiak eta eraiki duen obraren egitura azaltzen dira

Ikerketaren aterpe teorikoa: hibridotasunaren bidetik izenburua darama bigarrenak. Hautatu eta aztertu nahi den objektuaren testuinguru kontzeptuala, erreferentzia-markoa osatzeko ezinbesteko atala da; hau da, gaiari buruzko ezagutza handitzeko eta emaitzak interpretatzeko lagungarri izan daitekeen informazioa arakatu eta biltzeari ekin zaio fase honetan. Aukeratutako ikerketa-objektuaren aurrekari teorikoetan murgiltzeko fasea izan da, eta horretarako gaia zuzenean edo zeharka landu duten beste egile edo erakunde batzuek sortu eta argitaratu dituzten ikerketak, liburuak, txostenak, artikulak eta gainontzeko informazio-iturriak (ikus-entzunezkoak, esaterako) berrikusi, ordenatu eta gurera ekarri dira.

Bi solairu dituen aterpe teorikoa eraiki da. Beheko solairuak eusten dio aterpeari, eta hor masa-komunikazioaren ikerkuntzak lehen urratsak eman zituen garaian kokatu eta ordutik hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideetara bideratutako diru-laguntzak aztertzerantz iritsi bitarteko bidean izan diren teoria, paradigma, korrante, ikuspegi edota ekarpen nagusiak errepasatu dira. Agerian geratuko da hizkuntza gutxituetako hedabideen eremuak *Mass Communication Research* delakoaren azpi-atal ñimiñoa izatetik nortasun eta ezaugarri propioak dituen azterketa-arloa bihurtzerainoko jauzia egin duela. Horrekin batera, orokorretik partikularrera beste pauso bat eman eta hedabide inprimatuen eta diru-laguntzen arteko harremana

jorratu duten lan esanguratsuenei ere erreparatuko zaie. Eta bukatzeko, inguru hurbilenean, Euskal Autonomia Erkidegoan, erakunde publikoek euskara hutsezko hedabideei eskaini dizkieten diru-laguntzak aztertze eta horiek ebaluatze egin diren lanetan jarriko da fokua.

Aterpe teorikoaren goiko solairuak izaera hibrido zantzi du eraikina; hau da, ikerketa-objektuaren ezagutza osatzeko, aberasteko eta berau dagokion testuinguruan txertatzeko baliagarri diren edukiez hornituta dagoen solairua litzateke. *Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikatik hedabide inprimatuaren kontsumora* izenburupean ahalegina egin da, ikertu nahi den objektuari lotuta dauden gaiak eta hipotesien balioztatze-fasean zein emaitzen interpretazioan lagundu dezaketen gaiak aurkezteko. Ondokoak alegia: lehenbizi, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua onartu zenetik (1979) Eusko Jaurlaritzak egitaritu dituen hizkuntza-politikak izan dira aztergai, eta alde bikoitzean jarri da arreta: batetik, lege, arau eta erakunde-arloan gauzatutakoak (Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legea, EITB, Euskararen Aholku Batzordea, HABE, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN), Elebide, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) eta beste hainbat), eta bestetik, erakunde publikoek euskara sustatzeko denboran zehar kudeatutako baliabide ekonomikoak (horien barne euskarazko hedabideak laguntzera bideratutakoak). Bigarrenik, euskarazko hedabide inprimatuaren sektoreak 2013 urtean (ikerketak hautatu duen epealdiaren azken urtea) zituen neurria eta ezaugarriak ulertzeko, oso lagungarria den euskarazko prentsa idatziaren historia laburtua eskainiko da. Hirugarrenik, aterpe teorikoaren goiko solairuko azken atalean, hedabide inprimatuaren kontsumo-datuen bilakaerari erreparatuko zaie, mundu osora zabaltzen den panoramatik abiatu, eta Euskadin zabaltzen diren euskara hutsezko hedabide inprimatuaren kontsumo-egoerara heldu arte. Ikerlanak zehaztu duen 2005-2013 epealdian, euskarazko inprimatuaren kontsumoaren eta kontsumitzaileen argazki kuantitatiboa eta kualitatiboa osatzeko asmoz argitaratu diren lanetan oinarritu eta horien ondorio nagusiak aurkeztuko dira bertan.

Dokorego-tesia elikatzeke eraiki den aterpea teorikoa bertan bildu eta landu diren edukien laburpen batek zarratzen du.

Lanaren hirugarren atala *Ikerketaren definizioa: ikergaia, helburuak eta hipotesiak* deitzen da. Kapitulu labur eta ezinbestekoan ikergaia zein den adierazi da eta diru-laguntzak eta hizkuntza gutxituetako hedabide inprimatuen azterketarako definizioak eskaini dira. Horrekin batera, lanaren helburu orokorrak eta zehatzak aurkezteari ekin zaio. Lanak hiru helburu orokor planteatu ditu, eta horiek hamaika helburu zehatzetan garandu dira. Azkenik, kapitulu honetan hipotesiak zehaztu dira, dozena bat guztira. Horiek balioztatzeke (edo ez) erantzungo diren ikergalderak ere aurkeztu dira. Hipotesiak lanak dakartzan helburuekin ezkondu daude, eta batzuek zein besteak plazaratzeko unean, aintzat hartu dira aterpe teorikoan landu diren edukiak. Esan daiteke hipotesiek, neurri handi batean, marko teorikoan dituztela sustraiak eta handik edaten dutela. Ezin bestela izan.

Ikerketaren diseinu metodologikoa izenburupean garatu da laugarren kapitulua. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2013 bitartean euskara hutsezko paperezko hedabideei zuzendutako "Hedabideak" izeneko diru-laguntza deialdia aztertzeke prestatu den diseinu metodologikoaren berri zehatza eskaintzen da. Sarrera moduan, metodo egokia hautatzeak duen garrantzia nabarmendu eta gizarte-zientzien arloan ikuspegi positibista/kuantitatiboa eta ikuspegi interpretatzailea/kualitatiboaren artean luzaro izan den norgehiagokari lerro batzuk eskainiko zaizkio. Ondoren, ikerketa honetan aniztasun metodologikoa aplikatzearen alde egin den apustua arrazoitu da; eta kapitulua borobiltzeko, aipatu aniztasuna gauzatzeko jarraituko den estrategia eta erabiliko diren ikerketa-teknikak deskribatu dira.

Lanak darabilen ikerketa-objektua eta planteatu dituen helburuak aintzat hartuta, hiru teknika aplikatzea erabaki da: informazio-iturri ez zuzenak, elkarrizketa sakonak eta Delphi teknika. Elkar elikatuz funtzionatzen duten azterketa-prozesuaren osagai bezala kontsideratu dira hirurak, eta atal honetan, bakoitzak dituen ezaugarri nagusiak, zergatik aukeratu den eta gauzatzeko eman diren urrats guztiak azaldu dira. Zailtasunen bat izan denean, horren berri ere eman da.

Bosgarren kapituluan, *Ikerketaren analisi-atala: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 bitartean euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-laguntzak* deiturikoan, landa-lanaren emaitzak aurkeztu dira. Okinaren antzera jokatu da hemen, hark lehengaiak eta tresnak erabiltzen ditu ogia egosi eta erakusleihoan jartzeko, eta hemen ere beste horrenbeste egin da. Lehengaiak ondokoak izan dira: laguntza-deialdiak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diru-laguntzen esleipenak egiteko erabili dituen arazketa-taulak, hemerotekan kontsultatutako argitalpenak, elkarrizketa sakonetan parte hartu duten subjektu erreferentzialen diskurtsoak eta euskarazko hedabide inprimatuek idatziz eskainitako iritziak, ikuspegiak. Tresna eta prozedurak iturri ez zuzenen bidez, elkarrizketa sakonen bidez eta Delphi bidez eskuratutako materialei aplikatu zaizkie; izan ere, horiek irakurri, kategorizatu, multzokatu, sailkatu, ordenatu, taulak eratu, berrikusi, erlazioak ezarri, interpretatu... egin dira. Azkenean, lehengaiak eta tresnak uztartuz osatu/ekoiztu da lanean erakutsiko dena.

Analisi-atalak, luzerari erreparatuta, ikerketaren ia erdia hartzen du eta bertan, arestian azaldu bezala, informazio-iturri ez zuzenen, elkarrizketa sakonen eta Delphi bidezko ekarpenen laguntzaz bildu den informazio esanguratsua eskaintzen da. Betiere presente izanda zeintzuk diren ikerketak ezarri dituen helburuak eta hipotesiak.

Kapitulu honen mamia bost azpi-ataletan antolatu da. Lehenengo hiruretan, informazio-iturri ez zuzenen arakatzetik eratorri diren analisi-emaitzekin, eremu-sakonera handiko hiru argazki osatu dira: batetik, euskara hutsezko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntza deialdiaren argazkia; bigarrenik, 2005-2013 epealdian aipatu deialdiaren onuradun izan diren euskarazko hedabide inprimatuek eta esleipenek izan duten bilakaerarena; eta hirugarrenik, aztergai den laguntza-deialdian parte hartzen duten bi aktore nagusien arteko harremanean izan diren gorabeheren argazkia. Analisi-kapituluaren laugarren azpi-atalaren lehengaiak elkarrizketa sakonetan eskuratutako informazioa izan da, eta horretan euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta Eusko Jaurlaritzako ordezkarien diskurtsoak azaleratu eta aztertuko dira. Eta bosgarren azpi-atalean, 2005-2013 denbora-tartean urteroko laguntza-deialdien prozesuan parte hartu duten euskara hutsezko

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

hedabide inprimatuek Delphi bidez egin duten hausnarketan identifikatutako adostasunak eta desadostasunak bildu eta kontrastatuko dira.

Emaitzen analisia arestian aipatutako bost azpi-ataletan banatu den arren, eta bakoitza modu autonomoan, besteengandik berezita irakurri eta ulertu daitekeen arren, bada bostak lotzen dituen hari eroalea, ikerketaren analisi-eremuari osotasun ikuspegia eskaintzen diona. Gainera, azpi-atal bakoitzaren amaieran laburbilduta eskaintzen dira bertan landu diren eduki eta ideia garrantzitsuenak.

Bestalde, arreta nagusiki ikerketak hautatu duen 2005-2013 bitartean jarri da, baina ez horretan bakarrik, lan osoan zehar iraganera ere zuzendu delako begirada. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideak diruz laguntzen hasi zen laurogeiko hamarkadatik gertatutakoak kontuan hartu eta erreparasatu dira.

Ikerketaren ondorioak izeneko seigarren kapituluaren lanak proposatu dituen hipotesien balioztatze-zereginari (onartzeko edo alboratzeko) ekin zaio. Hots, ikerketaren analisi-atalean azaldu eta aurkeztu diren emaitzak ondorioetara ekarriko dira. Gurean hamabi ondorio eraiki dira. Aldi berean, lanaren hasieran prestatutako aterpe teorikoan bildu diren edukiekin harremanak ezartzeko eta horiek ondorioetan txertatzeko ahalegina ere egin da.

Hurrengo kapituluari *Azken-aurreko hitza eta amaierako gogoeta: iragana presente, oraina akuilu, etorkizuna hauspotzen* izena jarri zaio. Xede bikoitzarekin idatzi da; alde batetik, denboraren joanari tartea eskaintzeko; hau da, 2013 urtearen amaieratik “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren inguruan gertatu diren kontu aipagarrienak bildu eta labur aurkezteko. Adierazi bezala, doktorego-tesiak 2005-2013 epealdia hartu du aztergaitzat, eta lanean daude azalduta hautu horren zergatiak. Hala ere, ikerketaren egileak adi-adi jarraitu ditu ordutik lan honen azken puntua jarri den arte (2017ko urria) euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak, Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” laguntza-deialdiak eta batzuen eta besteen arteko harremanek ibili duten bidea, eta horien inguruan bildutakoak dakartza hona. Nobedade franko izan direlako euskara hutsezko hedabide inprimatuen bilakaeran eta “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren edukietan. Horiei erreparatu eta modu

laburrean bada ere, aurkeztu egingo dira. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren eta sektorearen artean izan diren gorabeherak ere jasoko dira kapitulu honetan. Bigarrenik, kapituluaren izenak dioen moduan, egilearen amaierako hausnarketari egin zaio lekua; beraz, ikertu duen errealitatea oinarritzat hartu eta horri buruzko ikuspegi eta proposamen pertsonalak, subjektiboak biltzeko lekua izango da honakoa.

Doktorego-tesia beste bi atal osagarrik borobiltzen dute. *Bibliografia* izenekoa da lehena eta hiru eratako edukiak biltzen ditu: batetik, ikerketaren aterpe teorikoa hornitzeko eta tesian lagungarri gisa erabili diren materialak daude (liburuak, aldizkarietako artikulak, doktorego-tesiak, euskarri digitaletan zabalduetako artikulak eta ekarpenak, argitaratu gabe dauden txostenak eta lanak...). Bigarrenik, lanean aipatu eta kontsultatu diren hainbat erakunde eta informazio-iturriren helbide elektronikoen zerrenda jaso da, eta azkenik, bibliografia-atalean daude lanean zehar agertu diren legeak, dekretuak eta EHAAn urtero kaleratu diren "Hedabideak" diru-laguntzak arautzeko aginduen eta horien ebazpenen erreferentziak. Azkenik, *Eranskinak* izenekoa da doktorego-tesia zarratzen duen atala. Bertan daude besteak beste landa-lanerako atondu diren elkarrizketa sakonen eta Delphiaren fitxa-teknikoak eta gidoiak, TOKIKOM eta Hekimen elkarten kide diren hedabide inprimatuaren zerrendak, 2005etik Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso dituzten euskara hutseko idatzizko hedabideen oinarritzako ezaugarriekin osatu diren fitxak, eta ikerketaren egileak Eusko Jaurlaritzak 2005etik kaleratutako urteroko aginduen eta ebazpenen edukiekin prestatu eta ustiatu dituen zenbait taula, lanaren ganontzeko ataletan txertatuta ez daudenak.

Ikerketaren habe nagusiak azaltzeko orduan egin den aitorpena errepikatuz eta aspaldiko neskato trentza luzeduna gogora ekarriz emango zaio amaiera doktorego-tesiaren aurkezpenari. Lan honen egileak, lehenago adierazi bezala, ekarpena egin nahi izan dio hizkuntza gutxituetako hedabideen ikerkuntzak oraindik gutxi jorratu duen azterketa-lerro bati; zehatzago esateko, hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideei eskainitako diru-laguntza publikoak interesgunez dituen azterketa-arloari. Ahalegina euskara hutsean diharduten hedabide inprimatuak erdigunean jarriz burutu da.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Halaber, azterketa deskriptiboarekin batera, fokua beste bi kontutan jarri da: diru-laguntzen eskatzaileen eta emaileen artean garatu den harreman-dinamikan, eta batzuek eta besteek aztertu den errealitateari buruz eraiki dituzten diskurtsoetan. Egileak bi tresna izan ditu akuilu eta elikagai ehun legoako bidaia osatzeko, aspaldiko neskato trentza luzedunak eskolako lehen egunean aldean zituen tresna berberak: jakingura eta euskara. Hauxe lanaren emaitza.

2. IKERKETAREN ATERPE TEORIKOA: HIBRIDOTASUNAREN BIDETIK

Doktorego-tesi hau bi solairu dituen aterpearen babesean haziko da. Ezinbestekoak dira biak hizkuntza gutxituetako hedabideen eta horietara bideratutako diru-laguntzen arteko harremanak izan ditzakeen ertz guztiak ganoraz heldu eta garatzeko. Horrela bakarrik lortu daitekeelako ikerketa honen hurrengo urratsak egiteko behar besteko materialez elikatuta egongo den diskurtsoa osatu eta eraikitzea.

Beheko solairua, aterpeari eusten diona, *Masa komunikazioaren ikerkuntzaren sorreratik, hizkuntza gutxituetako hedabideentzako diru-laguntzak aztertzeraz* izenburupean landu da eta lau gelatan dago banatuta; bakoitzak bere eduki propioa du, baina denak elkar lotzen dituen karraju baten inguruan daude antolatuta:

1.- Lehen gelan *Mass Communication Research* delakoaren sorrera abiapuntutzat hartu eta denboran zehar hedabideen eragina azaltzeko gorpuztu diren paradigma edo teoria nagusiak daude. Hortxe izango dira besteak beste, orratz hipodermikoaren teoria, eragin mugatuaren paradigma, teoria kritikoa, agendaren ezarpena, isiltasunaren espirala eta ereitearen teoria. Horien errepaso azkarra egingo da. Beste biren kasuan ordea, *Uses and Gratifications Theory* eta *Cultural Studies* korrontearen kasuan geldialdia luzatu egingo da, horien oinarritzko planteamenduek pisu nabarmena izango dutelako ikerketa honetan. Esan bezala, *Mass Communication Research* ikerkuntza-esparru zabalera egingo den hurbilketa funtsezko pausoa da atal honetako hurrengo edukiari ekiteko, hizkuntza gutxituetako hedabideen eraginari buruzkoari ekiteko alegia.

2.- Bigarren gelan, dagoeneko aurreratu den bezala, hizkuntza gutxituetako hedabideen eraginari buruz hainbat egilek landutako ekarpenak bildu dira. Agerian geratuko da ekarpen horiek, *Mass Communication Research* ikerkuntza-esparruaren azpi-atal ñimiñoa izatetik nortasun eta ezaugarri propioak dituen azterketa-arloa osatzerainoko jauzia egin dutela.

3.- Hirugarren gelan hedabide inprimatuetara bideratutako diru-laguntzen azterketak aurkeztuko dira, esku artean dugun ikerketari zuzen zuzenean lotzen zaion eremua litzateke beraz. Gela hau arakatzeko orduan ere, aterpearen lehen solairuko gela guztiekin egingo den bezalaxe, orokorretik zehaztasunerako bidea edo prozedura jarraituko da: batetik, diru-laguntzen definizioa eta hedabideek enpresa moduan dituzten ezaugarriak landuko dira; bestetik, diru-laguntzen inguruan diren ikuspegiak (aldekoak zein kontrakoak) eta munduan, bereziki Europan, laguntzak bideratzeko dauden ereduak jasoko dira; azkenik, errepasso azkarra egingo zaio Espainian prentsarako laguntzek denboran zehar izan duten bilakaerari.

4.- Aterpearen lehen solairuko laugarren eta azken atea zeharkatzeak gure inguru hurbilean, Euskadin kokatuko gaitu. Gela honek bi espazio ditu; batean Euskal Autonomia Erkidegoan erakunde publikoek hedabideetara bideratu dituzten diru-laguntzei buruz egin diren ekarpen akademiko aipagarrienak daude bilduta eta horiek aurkeztuko dira, eta besteak, berriz, laguntza publikoen ebaluazio-prozesuen arloan murgiltzera eramango gaitu; hots, Eusko Jaurlaritzak urtero kaleratu duen "Hedabideak" deialdia ardatz hartuta gauzatu diren ebaluazio-lanak hartu eta horien errepasso patxadatsua egiteari ekingo zaio.

Honaino lehen solairua osatzen duten lau gelen nondik norakoak. Horiek dira ikerketa honen arnagune eta euskarri trinkoa. Baina prestatu den aterpe teorikoak badu bigarren solairu bat ere, eraikin osoari itxura edo izaera hibridoa ematen diona. Hibridoa esaten diogu ez delako edozein ikerketak behar duen marko teoriko hutsa osatu eta aurkeztera mugatzen baizik eta beste era bateko osagaiak, huts hutsean teorikoak ez direnak ere barne hartzen dituelako; hots, neurri batean ikergaiarekin zeharkako lotura estua duten beste arlo batzuk jaso eta aztertzen dituelako. Horiek ikergaia dagokion testuinguruan kokatzeko funtsezkoak direla uste da. Hau da, doktorego-tesi honek dakarren aterpe teorikoak izaera bikoitza du. Batetik, ikergaia ganoraz jantzi, kokatu eta garatzeko ezinbestean aintzat hartu beharreko teorien babesa, gordelekua eta erakusleihoa da, eta bestetik, espazioa eskaintzen zaie ikerketa-objektuaren nukleoa inguratzen duten beste dimentsio edo geruza batzuei

ere; hala nola, hizkuntza-politikekin, euskarazko hedabideen historiarekin edota hedabideen kontsumoarekin zerikusia duten geruzei. Horiek aterpearen bigarren solairuan kokatu dira beste hiru gelatan banatuta.

1.- Bigarren solairuko lehen gela *Euskara biziberritzeko ekimen instituzionala: hizkuntza-politikak* deiturikoa da eta bertan, 1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua onartu zenetik Eusko Jaurlaritzak egikaritu duen hizkuntza-politiken ibilbideari helduko zaio. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren urteroko diru-laguntza deialdietan xedetzat jasotako “euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatu” horren oinarrian dagoen asmo nagusia ondokoa da: euskaraz ari diren hedabideak euskararen biziberritzean modu eraginkorrean ekiteko bitartekoak, tresnak izan daitezten laguntzea. Hortaz, garrantzitsua litzateke Eusko Jaurlaritzan izan diren gobernuek urteetan euskararen egoeran eragiteko eratu dituzten arau, erakunde, egitasmo eta baliabideak aztertu eta aldi berean horien bilakaera jasotzea. Hortaz, gela honetan bi gune edo espazio nagusi bereziko dira: batetik, Jaurlaritzak lege, arau eta erakunde arloan gauzatutakoa biltzen duen espazioa edo gunea. Hementxe izango dira, besteak beste, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legea, EITB, Euskararen Aholku Batzordea, HABE, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN), Elebide, Euskara 21 txostena, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), Euskararen Agenda Estrategikoa... eta beste hainbat. Bestetik, baliabide ekonomikoak; hau da, hizkuntza-politikak gauzatzeko, euskara sustatzeko erabilgarri izan diren aurrekontuen gunea dago: zenbat diru izan den eta izandakoa zertara bideratu den. Arreta nagusiki Eusko Jaurlaritzan jarriko da, baina horrekin batera, labor bada ere, gainontzeko administrazioek, hau da, foru-aldundiek eta udalek euskara sustatzeko izan dituzten aurrekontuak ere gainbegiratuko dira. Atala borobiltzeko, erakunde publikoetatik sustatu diren lege-esparruko ekimenen zein jarri diren baliabide ekonomikoen laguntzaz eta herritarren atxikimenduari esker euskarak izan duen bilakaeraren errebaso azkarra egingo da. Horretarako, azterketarako hautatu den 2005-2013 epealdian eskuragarri zeuden azken datu soziolinguistikoak baliatuko dira.

2.- Bigarren gela euskarazko prentsa idatziaren historiaren gordeleku gisa aurkeztu daiteke. Labor, zertzelada batzuk marraztuz burutuko da zeregina; beharrezkoa den zeregina. Izan ere, euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak

egun duen presentzia eta ezaugarriak ulertzeko lagungarria izateaz gain, agerian utziko digu 80ko hamarkadatik aurrera hedabideek eta diru-laguntzek bide paraleloak, elkarren ondokoak jorratu dituztela. Gela honen arakatzea 2013an, hau da, ikerketa honek mugatzat hartu duen urtean, euskarazko paperezkoek osatzen zuten argazkiaren xehetasunak garanduz borobilduko da.

3.- Eta aterpearen goiko solairuko bisita osatzeko geratzen zaigun hirugarren eta azken gelan, hedabide inprimatuen kontsumoak izan duen bilakaerari buruzko informazioa kokatu da, lau txokotan antolatu eta ordenatua:

a.- Lehen txokoa, mundu zabalean paperezkoek izan duten bilakaeraren kronika laburra prestatu da.

b.- Bigarrenean, Espainiako hedabide inprimatuen kontsumo-datuei erreparatu zaie.

c.- Hirugarrenean, Euskal Autonomia Erkidegoan kaleratzen diren gaztelaniazko egunkarien zabalkunde datuak, joerak, irakurle-zifrak ditugu ikusgai. Derrigor gainbegiratu eta aztertu beharreko zenbakiak dira euskara hutsez ari diren hedabide inprimatuak zein testuingurutan dauden murgilduta ulertu eta interpretatzeko.

d.- Laugarren txokoa oso-osorik euskarazkoen kontsumo-emaitzena da. Horren errebasoak agerian utziko du zailtasunak direla euskara hutsezko paperezko hedabideen kontsumo-datu zehatzak eskaintzeko, gehien gehien kasuan ez delako irakurleak denboran zehar modu sistematikoa, zehatz eta publikoan neurtzeko tresnarik erabiltzen. Zailtasunak zailtasun, 2005etik aurrera euskarazko hedabide inprimatuen kontsumoaren eta kontsumitzaileen argazki kuantitatiboa eta kualitatiboa osatzeko egin diren hainbat lan bildu eta horien ondorio nagusiak aurkeztuko dira.

Orain arte azaldutakoa bi solairudun aterpeari ataritik begira egindako aurkezpena litzateke, ikuspegi orokorra. Beheko solairuak, izaera teoriko hutsa duenak eusten dio eraikinari, horrek ematen dio trinkotasuna; goikoak berriz dotoretu eta ikuspegia osatzeko balio du. Baina ez gaitezen atarian geratu, aterpea kontu eta mimo

handiz eraiki duen egileak barruratzeko gonbitea luzatzen dizue. Hortaz, goazen izaera hibridoko aterpe honetan patxadatsu murgiltzen, haren gela, karraju eta bazter guztiak miatzen.

2.1. LEHEN SOLAIRUA: MASA-KOMUNIKAZIOAREN IKERKUNTZAREN SORRERATIK, HIZKUNTZA GUTXITUETAKO HEDABIDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK AZTERTZERA

la mende bat igaro da hedabidegintza modu eta helburu zientifikoz ikertzeari ekin zitzaionetik. *Mass Communication Research* delako ezagutza-arloak 1930ean egin zituen lehen urratsak¹ Ipar Amerikan. Ordutik, gizarte zientzialari ugari aritu da masa medioen fenomeno eta horren nondik norakoak aztertzen. Horien guztien ekarpenei esker, azterketa-esparruak mila legoako bidea egin duela baieztatu daiteke. Komunikazio-teorien lanketan aitzindari izan zen Harold Laswell politologo eta soziologoak proposatutako “*WHO (says) WHAT (to) WHOM (in) WHAT Channel (with) WHAT EFFECT*” paradigma ezagunak² ateak zabaldu zizkien hedabideen inguruko ikerkuntzak jorratu dituen gai edota arretagune nagusiei: kontrol-analisisa (NORK galderari erantzuteko), eduki-analisisa (ZER galderari erantzuteko), baliabideen edo euskarrien azterketa (ZEIN KANALETAN galderari erantzuteko), audientzia-azterketa (NORI galderari erantzuteko) eta azkenik, ondorioen azterketa (ZEIN ONDORIOREKIN galderari erantzuteko).

Hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideen ikerkuntzak berriz, historia laburragoa du. *Media studies* delakoaren atal txikia izan da hainbat urtetan. 1980ko hamarkadan gaiari buruzko zenbait artikulu akademiko kaleratu baziren ere (Howell, 1982; Bevan, 1984; Gifreu, 1986; Corbella, 1988) ikerketa-esparruarekiko interesa 90ekoan areagotu zen. Gainera, ibilbide horretan ezin aipatu gabe utzi garai berekoak diren beste bi gertaera azpimarragarri: 1991n, Joshua Fishman soziolinguistaren *Reversing Language Shift* lana argitaratu zen, eta, urte bete geroago, 1992an, *European Charter for Regional or Minority Languages* agiria onartu zen. Horiek guztiak

¹.- Armand eta Michèle Mattelarten arabera “La première pièce du dispositif conceptuel du courant de la *Mass Communication Research* date de 1927. C’est le livre de Harold D. Lasswell (1902-1978) intitulé *Propaganda Techniques in the World War*, qui tire les leçons de la guerre 1914-1918, première guerre « totale » ” (Mattelart eta Mattelart, 1995 : 18).

².- NORK esaten du, ZER, NORI, ZEIN kanaletan, eta ZEIN ONDORIOREKIN. Paradigma 1948koa da.

kontuan hartuta, pentsatzekoa da sasoi hartan haizeak nortasun, norabide eta zeregin propioak aldarrikatzen zituen ikerkuntza-esparrua suspertzearen alde jotzen zuela.

Mike Cormack ikerlari eskoziarraren arabera (Cormack, 2007) hizkuntza gutxituetako hedabideen ikerkuntza-arloko lehen urratsa Stephen H. Rigginek eman zuen 1992an *Ethnic Minority Media: An International Perspective* izenburuko lanarekin. Gero, 1995etik aurrera etorri zen ikerkuntza-arloaren lehen loraldia; Britainia Handitik eta Irlandatik abiatu (Cormack 1995a eta 1995b; Watson 1996, 1997; Hourigan 1998) eta, ondoren, Europa mendebaldera zabaldu zena.

Gure inguru hurbilean, aipatu 90eko hamarkadan bi arlok bereganatu zuten ikerlarien arreta eta ekoizpen zientifikoa; batetik, euskal kazetaritzari buruzko historiak (Díaz Noci, 1992, 1994, 1995a, 1997, 1999a) eta horrekin batera, tokian tokiko prentsak. Izan ere, tokiko argitalpenen esparruan gertatzen ari zen ugaltzeari³ loturik daude batik bat garai hartan kaleratu ziren hausnarketak eta antolatu ziren jardunaldiak⁴; hots, herri-aldizkariaren izaerari, ezaugarriari edota erronkei heltzen zieten lanak hedatu ziren gehienbat (Aranzabal 1990, 1992, 1998; Irigoien 1992, 1993a, 1993b; Mendiguren 1992; Elkoroberezibar, 1991, 1992, 1993; Agirreazaldegia, 1993; Arana, 1998). Nabarmenezkoa hamarkada bukatzeaz zela aurkeztu zen euskarazko tokiko hedabideei buruzko lehen tesia (Aranguren, 1999).

Ordutik, 2000. urtetik, biderkatu egin ziren hizkuntza gutxituetako hedabidegintza berezko izaera duen ezagutza-esparru bezala aztertzearen aldeko aldarrikapenak, eta esan daiteke ikergaiak mundu zabalean eragin duen interes akademikoak ez duela etenik izan. Horren lekuko, hizkuntza gutxituetako hedabidegintza objektutzat hartu duten egileen eta ekarpenen kopuruak erakutsitako bilakaera geroz eta handiagoa. Denborarekin, hizkuntzaren eta hedabideen

³ .- *Arrasate Press* aldizkaria kontsideratzen da tokian tokiko hedabidegintzaren arloan aitzindari; 1988an kaleratu zuten lehen aldiz. Urte horretatik biderkatu egin ziren hainbat herritan, bereziki Gipuzkoan, tokian tokiko aldizkariak sortu eta argitaratzeko saioak. Honen inguruko informazio osatuagoa dago euskara hutsezko prentsa idatziaren ibilbideari eskainitako atalean.

⁴ .- Hiru jardunaldi monografiko egin ziren Arrasaten hamarkadan zehar. Lehena 1991n *Prentsa lokalari buruzko I jardunaldiak* izenburupean, bigarrena 1993an *Herri komunikabideei buruzko II Jardunaldiak* izenarekin, eta hirugarrena 1998an *Herri komunikabideei buruzko III jardunaldiak* deiturikoa.

erabileraren arteko harremana aztertzeari ekin dioten hainbat lan garatu dira hizkuntza gutxituak dituzten testuinguruetan (Clément, Baker, Gordon eta Noels, 2005; Vincze, 2010; Moring et al. 2011). Azterketa horiek guztiek informazio aberatsa eskaini duten arren, zenbait egilek baieztatzen dute (Vincze, 2013) hizkuntzaren eta hedabideen erabileraren arteko loturaren nondik norakoak arakatzeko asmotan dabilen ikerketa-esparrua atariko fasean dagoela oraindik, eta lotura horri buruz lortu den ulerkuntza-maila nahikoa urria dela.

Arestian adierazitakoari gehitu behar zaio, objektuak ikerketarako eskaini ditzakeen aukera guztiei erreparatuta, ikerketa honek hautatu duena, diru-laguntza publikoei loturikoa hain zuzen ez dela gogokoenetarikoa izan. Ez orain arte behintzat. Hamaikatxo gizarte-zientzialariren interesgune kutunenetarikoen zerrendan goi-goian kokatu dira betidanik hedabideen funtzioak eta eraginak (bilatutako eraginak eta bilatu edo nahi ez direnak), hedabideak erabiltzeko moduak eta eskainitako aukerak, hedabideen bidez zabaldutako mezuen edukiak eta audientziak neurtzeko bideak. Baina ez da beste horrenbeste gertatu hedabideen eta diru-laguntza publikoen arteko harremanarekin. Eguneroko prentsari eta aldizkako argitalpenei bideratutako diru-laguntza publikoek tradizio historiko luzea, anitza eta aberatsa duten arren, ez dira apenas ikertu eta egindako lanak, urriak izateaz gain, atzo goizekoak ditugula gaineratu daiteke.

Ez da lan honen helburua horren zergatietan sakontzea, baina hipotesi moduan planteatu daiteke hizkuntza gutxituetako hedabideei buruz plazaratutako ikerketa gehientsuenek, ez bada guztiek, oraindik ere kezka edo galdera bikoitzari erantzuteko nahia dutela oinarrian; ondoko galderari edo kezkarari alegia:

- zein ekarpen egiten diote hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideek hizkuntzari berari eta horrekin batera,
- nola erabili daitezke hedabideak hizkuntza gutxituak biziberritzen laguntzeko.

Galdera bikoitzari erantzuteko nahia, gainera, areagotu egin da bizi ditugun globalizazio garaioan. Izan ere, ikusteko dago munduko bazter guztietara iritsi den fenomenoak hizkuntza gutxituei nola eragin diezaiekeen. Batzuen ustez, globalizazioak

uniformizaziorako joera dakar ezinbestean eta, ondorioz, mehatxu egiten dio kultura aniztasunari (Hamelink, 1994). Hari berari jarraituz, egile askok azpimarratu dute ingelesez ari diren komunikazio-korporazio erraldoiek ahulen dauden hizkuntzak desagertzera eramango dituztela (May, 2001). Beste batzuek, ordea, ikuspegi baikorragoa dute, eta arriskuak izan badirela onartzen duten arren, hizkuntza gutxituetako komunitate askok hedabideen esparruan egindako bidea azpimarratu dute (Miège, 2000).

Ikuspegia era betekoa zein bestekoa izan, baikorra zein ezkorra izan, agerian geratzen da arestian planteatu den aurpegi bikoitzeko galdera horri erantzuteko eta hedabideek hizkuntza biziberritzeko ekimenetan, plangintzetan toki garrantzitsua dutela aldarrikatu nahi bada, beharrezkoak, ezinbestekoak izango direla epe luzera begira burututako azterketak. Hizkuntza gutxituetako hedabideen ikerkuntza-arloari sakon heldu dion Mike Cormack ikerlariaren hitzak erabiliz:

“If we want to use media to help language development, we need to understand the processes by which people interact with language in the media, but in a general way which will cover any media interaction. Simply studying what is happening or has happened, while important, is not enough. Immediate reactions do not tell us much, and broad languages trends are too long-term to be useful (we cannot wait until the next census results). Such an approach might even be able to rescue a role for the media in language planning” (Cormack, 2013: 264).

Ikerketa ahalegina aurretik aurkeztutako galdera edo kezka bikoitz horretara bideratzeak itzal handia egin dio hizkuntza gutxituetako hedabideen esparruan aztergai izan daitekeen beste edozein interesguneri. Baieztapen honekin bukatzen den sarrerak atea zabaltzen dio ikerketaren marko teorikoa osatzeko zereginari.

2.1.1. HEDABIDEEN AZTERKETAK JORRATU DUEN BIDEA

Marko edo aterpe teorikoaren atarikoan aipatu da hedabideek hartzaileen jokabidean eta pentsamoldean izandako eraginak eta eragin horren neurriak,

zenbaterainokoak, bereganatu zutela hasiera hasieratik *Mass Communication Research* ezagutza-arloan murgildutako egileen arreta eta ikerketa-ahalegina.

Ondoko lerroetan ikusiko den bezalaxe, aniztasuna da hedabideen eraginari buruz denboran zehar garatu diren ikuspegien, planteamenduen ezaugarri nabarmenena; hots, ikerketa objektua bakarra izan arren, hedabideei begiratzeko, heltzeko moduak eta haien inguruan landuriko diskurtsoak anitzak dira eta inoiz elkarren artean nor baino nor lehian ibilitakoak ere bai.

Ez da tesi honen xedea denboran zehar sortu eta landu diren hedabideen eraginari buruzko diskurtso, teoria, ekarpen edo korrante guztien aurkezpen sakona egitea. Lan honi dagokionez, *Uses and Gratifications Theory* edo erabilera eta sarien teoria eta *Cultural Studies* edo ikerketa kulturalak izenekoak izango dira baliagarrienak, lanaren aterpe teoriko eta bidelagun izango ditugun neurrian. Ikerketak bietatik edango du hasieratik amaierara. Hala ere, oso presente izan behar da habe nagusitzat erabiliko diren *Uses and Gratifications* eta *Cultural Studies*, aurretik landutako beste ikuspegi batzuen oinordeko eta garabide direla neurri handi batean. Horregatik, ezinbestekoa da historian zehar masa komunikazioaren nondik norakoak azaltzeko izan diren teoria edo korrante aipagarrienen zertzelada azkar batzuk eskaintzea. Egungo egoera ezin daitekeelako egoki ulertu eta azaldu, iraganean egin diren urratsei erreparatu gabe.

2.1.1.1. ERAGIN ZUZENAREN PARADIGMA

1920tik 1940ra bitarteko garaian, Harold Lasswellek defendatutako eragin zuzenaren paradigma nagusitu zen. Horren erakusle balaren teoria *edo* orratz hipodermikoaren *teoria*. Horien ardatz den arrazonamenduaren arabera, hedabideek zabaldutako mezua bala bat *edo* orratz hipodermikoa litzateke, hartzaile bakoitzaren haragitan sartzen dena eta eragin zuzena, bat batekoa eta indartsua lortuko lukeena.

“The Lasswell Formula shows a typical trait of early communication models: it more or less takes for granted that the communicator has some intention of influencing the receiver and, hence, that communication should be treated mainly as a persuasive process. It is also assumed that messages always have effects” (McQuail eta Windahl, 1982: 14).

Hortaz, Lasswellek estimulu→erantzuna eskema konduktistari jarraitu eta komunikazioa goitik beherako prozesua dela baieztatuko du, beti efektuak lortzen dituen prozesua.

Eragin zuzenaren paradigmaren garapenean zerikusi handia izan zuen lehen mundu gerrak. Iñaki Zabaletak baieztatu duenez, “Gerra-garaian mezuak eta edukiak zorrozki aztertu ziren, propagandaren teknikak ezagutu eta hauen eragina jendearengan zein izan zitekeen neurtzeko” (Zabaleta, 1997: 24).

Teoria hipodermikoa behar bezala ulertzeko funtsezkoa da masa gizartearen kontzeptua; izan ere, orduko ikuspegiaren arabera, entzuleria itsu-itsuan erantzuten duen jomuga amorfo baten moduan kontsideratu daiteke. Armand eta Michèle Mattelartek diotenez, “L’audience est envisagée comme une cible amorphe qui obéit aveuglément au schéma stimulus-réponse” (Mattelart eta Mattelart, 1995: 19). Masa elkar ezagutzen ez duten pertsonaz osaturik dago, bata bestearengandik bakandurik daudenak eta elkarrekiko harremanik ez dutenak; horrez gain, masek ez dute tradizioz, portaera-araurik, liderrik ezta antolaketa-egiturarik ere. Ezaugarri horiek guztiak abiapuntutzat hartuta, erraz ondoriozta daiteke hedabideei aitortutako botere ahalguztiduna “(...) para cambiar opiniones y creencias, moldear activamente la conducta y producir transformaciones en los sistemas políticos, incluso frente a la voluntad de los miembros de la sociedad” (Roa Fernández, 1989: 73). Betiere, medioak eta edukiak kontrolatzen dituztenen desioen arabera.

Planteamendu horretatik abiatuta, Lasswellek hiru funtzio nagusi egokitu zizkion komunikazio prozesuari. Batetik, ingurunea gainbegiratzea edo zaintzea. Horretarako, inguruneari buruzko informazioa bildu eta banatu egingo litzateke. Bigarrenik, gizarteko atal ezberdinak korrelazioan, harremanetan jartzea inguruneari emango dioten erantzuna antolatzeko. Funtzio hori lortzeko, ingurunetik bildutako informazioa interpretatu egiten da, eta horrekin batera nola jokatu iradokitzen da. Hirugarrenik, gizarte oinordetzaren transmisio-funtzioa. Horri esker, belaunaldiz belaunaldi “komunikatzen” da gizarte batean nagusi den arau- eta balio-bilduma.

2.1.1.2. ERAGIN MUGATUAREN PARADIGMA

Hurrengo hiru hamarkadetan, 1940tik 1970era gutxi gora behera, zalantzan jarriko da aurrekoan nagusitu zen eragin ahalguztidunaren ikuspegia, eta horren ordez, *eragin mugatuaren teoria* mamitu eta defendatuko dute. Hovland⁵, Lazarsfeld, Katz, Berelson, Merton eta Klapper ditugu sasoi honetako egile aipagarrienak.

Paul F. Lazarsfeldek, Bernard Berelsonek eta Hazel Gaudet egileek jarri zituzten paradigma berriaren funtsezko oinarriak *The People's Choice*⁶ izenburuko lana argitaratu zenean (1944). Hautesleek botoa emateko orduan nola jokatzeko zuten ikertzeari ekin zioten, eta ikusi zuten hedabideek uste baino askoz eragin txikiagoa zutela boto-emateen iritzietan eta jarreretan. Lanak agerian utzi zuen iritzi eta jarreretan eragin nahi izan ezker edo horiek aldatu nahi izan ezker, askoz eraginkorragoa zela pertsonen arteko komunikazioa hedabideen bidezkoa baino; besteak beste, hautesleek modu selektiboan erabiltzen zituztelako hedabideak. Garai honetako ikerlariak talde egituren, iritzi-liderren eta harreman pertsonalen garrantzia azpimarratu zuten hedabideen eragina aztertu eta azaltzeko orduan. Horrez gain, komunikazio-prozesuak betetzen dituen zereginen bilduma zabalduz joan zen, Lasswellek aldarrikaturiko hiru funtzioei laugarren bat gehitu ziotelako: *entertainment* edo entretenimendua⁷. Gainera, funtzio agerikoak⁸, ezkutuak⁹ eta disfuntzioak¹⁰ bereizi zituzten.

⁵.- Carl Hovland egilea garai honetan kokatzen bada ere ezin da eragin mugatuaren teoriaren defendatzailetzat hartu. Izan ere, Hovlandek Bigarren Mundu Gerraren garaian burutu zituen laborategiko ikerketek bat egiten zuten Harold Lasswellen ikuspegi konduktistarekin.

⁶.- Ikerketa honetan, 1940an Estatu Batuetako presidentea aukeratzeko hauteskunde-kanpainan boto-emateak nola lantzen duten boto-erabakia arakatu zuten; azken batean, jakin nahi zuten zeintzuk diren jarrera politiko desberdinen oinarriak dauden motibazioak, zeintzuk diren horretan eragiten duten faktoreak. Horretarako, Lazarsfeldek, Berelsonek eta Gaudetek Ohioko Erie County konterrian egin zuten lana 600 hauteslerekin.

⁷.- Laugarren funtzioa, "entertainment" delakoa Charles Robert Wright soziologoak gehitu zuen 1959an.

⁸.- Funtzio agerikoak lirarteke sisteman parte hartzen dutenek desiratzen dituztenak.

⁹.- Ageriko funtzioekin alderatuta, hauek desiratzen ez direnak izango lirarteke.

¹⁰.- Disfuntzioak ulertzen dira sistema batera egokitzeko dauden eragozpen bezala. Esaterako, disfuntzio narkotizatzaileak (gizakien) apatia politikoa eragingo luke, masa-hedabideak erabiliz gero gutxitu egiten delako antolatutako gizarte-ekintzari eskaintzen zaion denbora. Hau da, inguruko munduaz interesa duena eta informatuta dagoena pozik egon daiteke interesa eta informazioa dituelako, baina ez da konturatuko ez duela erabakirik hartzen eta ez duela jokatzeko; ez delako gauza bera arazo bat konpontzeaz pentsatzea eta arazoa konpontzeko zerbait egitea (Lazarsfeld eta Merton, 1948).

Komunikazioa ulertu eta azaltzeko eredu berriaren arabera, beraz, hedabideen edukiak ez dira iristen audientziako kide guztiengana, baizik eta nagusiki horietan arreta gehien jartzen dutenengana, iritzi-liderra deituko diotenengana. Iritzi-liderrak dira hedabideetatik zabaldutako edukiak gehien jarraitzen dituzten pertsonak, egunkariak gehien irakurtzen dituztenak edota irratia gehien entzuten dutenak. Horrekin batera uste da iritzi-liderrek modu selektiboan hautatzen dituztela hedabideak. Hala, komunikazio-prozesua bi urratsetan gauzatuko litzateke, hortik dator *two step flow* izena. Lehenengo urratsean, mezua hedabideetatik liderrengana iristen da eta, ondoren, bigarren urratsean horiengandik lider ez direnengana, hedabideak neurri apalagoan jarraitzen dituztenengana, gizartean hain aktibo ez diren beste sektore batzuetako kideengana. Ondorioz, hedabideek ez dute efektu zuzenik lortuko hartzaileengan.

Bestalde, iritzi-liderraren teoriarekin bat egiten duen beste ekarpen bat ere aipatu behar da, Kurt Lewin psikologoarena hain zuzen. Lewini taldearen portaerak eta pertsuasio-estrategiak interesatzen zitzaizkion. Berak landu zuen *gate-keeper* kontzeptua (1947). *Gate-keeper* esango zaio hedabideetatik iritsitako informazioa jaso eta kontrolatu dezakeen pertsonari; hortaz, erraz ondoriozta daiteke iritzi-liderrek askotan gate-keeper zeregina betetzen dutela.

Esandakoak esanda, agerikoa da eragin mugatuaren teoriaren oinarrian dagoen gizarte-ikuspegiak ez duela zerikusirik teoria hipodermikoa edo balaren teoria babesten zuenarekin. Dagoeneko gizartea ez da ulertuko harremanetarako aukerarik ez duten pertsona isolatuez osaturik. Orain harreman-sareak dira garrantzitsu, gizaki bakoitzarentzat esanguratsuak diren harreman-sareak. Bereziki talde primarioak lirateke, eta horietan funtsezko zeregina izango lukete iritzi-liderrek.

Eragin mugatuaren bide bera jorratzeari ekin zion Klapperrek ere hirurogeiko hamarkadako lehen erdialdean. Bere esanetan, masa hedabideak ez dira audientziaren jokabideak eta jarrerak aldatzeko kausa bakarra ezta beharrezkoa ere. Horrez gain, Klapperrek defendatuko du hedabideek, zerbait lortzekotan, aurretik zeuden jarrerak indartzea lortzen dutela, eta ez aldaketak eragitea.

2.1.1.3. TEORIA KRITIKOA

Eragin mugatuaren korrontea garatu zen bolada berean, Francforteko Eskolaren babesean hazi ziren egileek teoria kritikoa mamitzeari ekin zioten. Max Horkheimer, Theodor Adorno, Herbert Marcuse edota geroago Jürgen Habermas dira Eskolako ordezkariarik aipagarrienak¹¹. Egindako ekarpenen artean nabarmentzekoa da ikerketa honekin, zeharka bada ere, harremana izan dezakeen kulturaren industriari buruz landu zutena. “Kulturaren industria” kontzeptua Horkheimerrek eta Adornok sortu zuten berrogeiko hamarkadaren erdialdera. Egileon esanetan serializazioa, estandarizazioa eta lanaren banaketa dira kultura industriaren ezaugarri nagusiak. Kultur-ondasunek (pelikulak, aldizkariak, irratsaioak...) beste edozein merkantziaren ekoizpen industrialaren logika jarraitzen dutela diote, eta hori horrela izanik, “(...) la production industrielle scelle la dégradation du rôle philosophico-existential de la culture” (Mattelart eta Mattelart: 1995: 43) Egoera honetan, Adornok dioenez, gizakia kontsumitzaile huts bilakatu da, gizakia ez da burujabea kulturaren industriak hala sinestarazi dion arren, gizakia ez da kulturaren industriaren subjektu, baizik eta bere objektu.

Argudioak hedabideen arlora eramanda baieztatu daitezke hedabideen kontsumoak, bereziki telebista bidez zabaldutako edukien kontsumoak, manipulazioa eta publikoaren atomizazioa eragin dezakeela hartzaileengan. “El espectador, a través del material que observa, se halla constantemente en situación, sin darse cuenta, de asimilar órdenes, prescripciones, procripciones” (Wolf, 1994b: 101). Korronte kritikoa oinarritzen duen Jürgen Habermasek gizartearen birfeudalizazioaz hitz egingo du urte batzuk geroago.

Hortaz, agerikoa da aldea dagoela Lazarsfelden eta Adornoren planteamenduen artean. Bi ikerkuntza-eredu desberdin defendatzen zituzten batak eta besteak. Lehena, Lazarsfeldek ordezkatzen duena, ikerkuntza administratibo bezala izendatu da. Horren “(...) abiapuntua masa-komunikabideak tresna neutralizat hartzea zen, helburu-multzo

¹¹ .- Francforteko Eskola Institut für Sozialforschung (Ikerketa Sozialerako Institutua) bezala sortu zen 1923an, eta Max Horkheimer izendatu zuten zuzendari. Nazismoa boterera iritsi zenean, Eskolako kideek erbesterako bidea hartu zuten eta, azkenean, Estatu Batuetan aritu ziren lanean. Gerra bukatu ostean, Adorno eta Horkheimer Alemaniara itzuli ziren, Marcuse berriz, Estatu Batuetan geratu zen.

desberdinak zerbitzatzeko gai ziren tresna neutralak” (Zabaleta: 1997: 28). Ondorioz, ikerkuntza administratiboak arreta audientzian, hedabideen edukietan eta eraginetan jartzen du. Adornok ordezkutzen duen eredia komunikazio-ikerkuntza kritikoa da. Bere iritziz testuinguru sozial eta historiko zehatz batean kokaturik dauden hedabideen eragina Lazarsfeldek uste zuena baino garrantzitsuagoa da, “(...) eta, horregatik, ikerkuntza kritikoak ‘komunikabideen paper orokorra sisteman’ erreibindikatzeko” (Zabaleta, 1997: 28).

2.1.1.4. ERAGIN INDARTSUAREN ITZULERA

1970etik aurrerako urteetan, hainbat ikuspegitatik heldu zitzaion hedabideen eragina azaltzeari (konduktuala, afektiboa, psikologikoa edota kognitiboa) baina, edozein kasutan, hasierako planteamendura, *powerful media* delakora itzultzeko joera nagusitu zen; hots, hedabideen eragina indartsua eta iraunkorra dela aldarrikatzen duen planteamendua defendatuko da berriz ere¹². Ziaboga horretan zerikusi handia izan zuen telebistaren agerpenak eta zabalkundeak. Baieztatutakoaren erakusle 60ko hamarkadaren amaieratik gorpuztuz joan ziren hainbat eredu teoriko, esaterako isiltasunaren espirala (Noelle Neumann, 1973), *agenda-setting* edo agenda-ezarpena, (Mc Combs eta Shaw 1972, Becker, 1982), *knowledge-gap* edo ezagutzaren hutsunea (Tichenor-Donohue eta Olien, 1970) eta kultiboaren edo ereitearen teoria (Gerbner, 1976).

Hala ere, ezin esan bolada honetan orratz hipodermikoaren argudioekin oso-oso bat egiten denik, badelako bereizketarako ñabardura azpimarragarria. Dagoeneko ez da esango hedabideen eragina horien erretorika edo mezu zuzenaren bidez lortzen denik, baizik eta eragina epe luzera lortzen dutela defendatuko da. Hau da, garai honetan aldarrikatzen da hedabideek denboran zehar sortzen dituzten irudien bidez eta mundua ulertzeko eraikitzen dituzten ikuspegi bidez lortzen dutela eragitea.

¹² .- Elisabeth Noelle Neumannek aldarrikatu zuen lehenengoz, 1973an, begirada berriro eragin indartsuaren teoriara itzuli beharra zegoela defendatu zuen *Return to the concept of powerful media* izenburu esanguratsuko artikuluan.

Mauro Wolf egilearen ustez, badira medioen eragin indartsu eta iraunkorren ikuspegia berriro babestearen alde jokatu duten hiru faktore. Lehena, garapen teknologiko-industrialari eta merkatuen integrazioari hertsiki loturik dagoen planetarizazio prozesua litzateke (planetarizazioak ezinbestekoa du hedabideen zabalkundea maila globalean). Bigarrena, bideopolitikaren fenomenoak, hau da, telebistarekiko menpekotasuna dela eta, erakundeen arloan eta jokaera politikoan gertatu diren aldaketak. Eta azkenik, hedabideek ezagutza-mailan izan dezaketen funtzioak piztu duen arreta, “Se considera a los media muy influyentes en el sentido de generar efectos de tipo cognitivo, es decir relativos a las imágenes de realidad y al conocimiento que difunden, construyen o establecen en el tiempo” (Wolf, 1994a: 55).

Labur-labur bada ere, merezi du aipatu eredu teorikoen errepeaso azkarra egitea:

- *agenda-setting* edo agenda-ezarpena izenekoa (Mc Combs eta Shaw 1972; Becker, 1982). Horren arabera hedabideek agenda ezarriko lukete, hau da, *agenda-setters* zeregina beteko lukete eta, ondorioz, kezka- eztabaida-multzo bat ezarriko liokete gizarte osoari. Beste era batera esateko, hedabideek erabakiko lukete zer den garrantzitsua audientziarentzat eta ez hori bakarrik, audientziak zertaz hitz egin eta pentsatu behar duen ezarriko lukete. Ez ordea zein jarrera hartu edo zer pentsatu behar den. “Les médias nous disent non pas ce qu’il faut penser mais à quoi il faut penser; ils jouent le rôle d’un “maitre de cérémonie” ou encore d’un tableau d’affichage sur lequel viendraient une société”¹³ (Mattelart eta Mattelart, 1995: 87).
- isiltasunaren espirala (Noelle-Neumann, 1973). Egile honek eraikitako ereduaren arabera, hedabideek gure testuinguruaren pertzepzioan, testuingurua ulertzeko moduan eragiten dute eta, hortaz, horretan jarri behar da arreta. Bere formulazioan kontzeptu klabe bat ageri da: iritzi publikoa. Noelle-Neumannek dio iritzi publikoa iritzi nagusia dela, beldurrik gabe jendaurrean kanporatu daitekeena, jarrera eta portaera

¹³ .- “Komunikabideek esaten digute, ez zer pentsatu behar dugun, *zertan* baizik; `zeremonia-maisu´ baten funtzioa betetzen dute edo iragarki-taula batena zeinetan ezarriko lirakeen gizarte batek eztabaidatu beharko lituzkeen arazoak” (Jose Antonio Sarasola eta Josu Amezagak egindako itzulpena: Mattelart, Armand eta Mattelart, Michèle: *Komunikazioaren teoriaren historia*, Arabera, Gasteiz, 1999: 119).

zehatz batzuk izatera behartzen duena. Hori horrela gertatzen da -dio Noelle-Neumannek- gizakiak beldur handia diolako isolaturik geratzeari. "To the individual, not isolating himself is more important than his own judgement. This appears to be a condition of life in human society; if it were otherwise, sufficient integration could not be achieved" (Noelle-Neumann, 1974: 43). Ondorioz, gizakiok etengabe ari omen gara gizartean gehiengoak onartutako iritziak eta jokaerak zeintzuk diren aztertzen eta baloratzen, isolatuta geratzearen beldur garelako. Hots, iritzi publikoa zein den arakutzen da eta norberaren iritziak iritzi publikoan islatzen direnekin bat egiten badute errazago kanporatuko dira; kontrakoa gertatu ezker berriz, gorde egiten dira, gizakiak bere burua gutxiengoan ikusten duelako. Horrela osatuko litzateke isiltasunaren espirala; isilpean, kanporatu gabe utzitako iritziekin osatua. Eredu honi erreparatuz, esan daiteke hedabideen zeregina ez dela iritzi publikoan diren joerak islatzera mugatzen, baizik eta harago doala, iritzi publikoa sortu eta garatzeraino alegia.

- *knowledge-gap* (Tichenor-Donohue eta Olien, 1970). Eredu hau ez da bete-betean hedabideen eraginari buruzko eztabaida zientifikoan kokatzen, baina merezi du aipamen laburra egitea. Funtsean, zera defendatzen du: gizarte-sistema batean hedabideen irismena handitu ahala, egoera sozioekonomiko onena duten herritar-taldeek hain egoera ona ez dutenak baino azkarrago eskuratzen dute informazioa; hala egiteko joera dute, eta, ondorioz, gizarte-sektore bien arteko ezagutza-desoreka haziz joango da. Horregatik hitz egiten dute *knowledge-gap* delakoaz edo ezagutza-hutsuneaz. Azken urteotan, komunikazio-teknologia berriek izan duten zabalkundeari eta garapenari erreparatuta, agerikoa da planteamenduak gaurkotasuna izan dezakeela. Izan ere, teknologia berriek eskuratzen dituzten lehen herritarrek denbora errealean jasoko dute informazioa; hortaz, egoera horretan ez dauden herritarrekiko ezagutza-hutsunea handitu egingo da eta hutsune horrekin batera gizarteko sektore edo talde ezberdinen arteko desoreka ere handituz joango da. Ikuspegi honetatik komunikazioaren teknologia berriek "(...) actúan como agentes creadores y amplificadores de desigualdades" (Wolf, 1994a: 82).

- ereitearen teoria (Gerbner, 1976). Ikuspegi honek baztertu egingo du hedabideek hartzaileengan lortutako berehalako efektuak arakatu nahi zituztenen enfokea, eta, horren orde, beste argudio bat plazaratuko du. Horren arabera, hedabideek, eta bereziki telebistak, errealitateari buruzko ikuskerak, balioak eta sinismenak ereingo lituzkete hartzaileengan. Hortaz, telebistaren aurrean ordu asko egiten dutenek munduaz duten ikuspegia telebistak aurkeztutakoa izango litzateke. “La televisión cultiva así imágenes de la realidad, produce aculturación y sedimenta sistemas de creencia, representaciones mentales y actitudes” (Wolf, 1994a: 97). Ereitearen eragina zabala eta heterogeneoa den publiko bati epe luzean bideratutako mezu errepikakorren metaketari esker gauzatuko litzateke. Horrela eginez, jendearen sozializazio-prozesuetan, bizitza-estiloetan eta errealitate sozialari buruzko ikuspegietan eragiten da (Morgan eta Shanahan, 2010). Ondorioz, denborarekin lortzen den emaitza ondokoa da: errealitateari buruzko ikuspegi konpartitua ereiten da izaeraz anitza den publikoan.

Korrante honek sozializazioaren teoria mamitzerainoko garapena izan du denboran zehar; hala, zenbait ikerlariren iritziz (Williams, 1986, Heath eta Bryant, 1992), telebistak berebiziko garrantzia izan dezake sozializazio prozesuan, “Television probably provides the child with the first information of a variety of places, types of people and social intentions: it is the first 'window' on the world” (Williams, 1986: 406). Telebistaren edukiak luzaro jaso gero, hartzaileek munduaren pertzepzioa - hurbilekoa zein urrunekoa- jasoko dute, eta metaketaren metaketaz, azkenean telebistak erakutsiko die munduan izan beharreko jokabide egokia zein den (Morgan, 2008; Signorelli 2008). Are gehiago, egun telebistak munduan zehar laguntzen ditu haurrak, horiek kalea bakarrik zeharkatzeko baimena izan aurretik (Meyorwitz, 1985). Beraz, planteamendu honen arabera, hedabideak oro har, eta telebista bereziki, sozializazio- agente garrantzitsuak lirateke (Rosengren, 1992).

Azkar-azkar gainbegiratu ditugun ereduak ikusita, ikerketa-lan hau gorpuztu eta babesteko erabiliko diren ekarpen teoriko nagusiei heltzeko unea iritsi da. Hedabideen eragina ulertu eta azaltzeko landu ziren ekarpenak dira. Biak ala biak azpimarragarriak hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideei erreparatuta izan ditzaketen interes eta

ondorioengatik. Batetik *Uses and Gratifications* edo erabilera eta sarien eredua, eta bestetik, *Cultural Studies* delakoa.

2.1.1.5. ERABILERA ETA SARIAK (USES AND GRATIFICATIONS)

Elihu Katzek, Jay G. Blumler eta Michael Gurevitch egileek proposatu zuten *Uses and Gratifications* edo erabilera eta sarien eredua (1973). Kasu honetan, fokua ez da jarriko hedabideek hartzaileengan lortzen dituzten ondorioetan baizik eta ahalegina egingo da hartzaileek hedabideekin zer egiten duten aztertzeko. Hau da, zer egiten dute hedabideek hartzaileekin? galdetu beharrean, beste galdera bat lehenetsikoa da, ondokoa: zer egiten du jendeak hedabideekin?. Hortaz, esan daiteke eredu honek hautsi egiten duela ordura arteko tradizio luzearekin, arreta eta ardura hedabideen erabileraren ondorioetan jartzen zuen tradizioarekin. Zehatzago esateko, hautsi egiten du audientziak estimulu edo mezu zehatz baten aurrean modu berean, bakarrean, erantzuten duela defendatzen zuen tradizioarekin.

“Frecuentemente considerada como un desafío a la tradición de los ‘efectos’, la tradición de los ‘usos y gratificaciones’ no mira a la audiencia como una masa pasiva sobre la que simplemente se actúa desde fuera sino que examina distintos compromisos activos de las audiencias con las comunicaciones de masas” (Barker eta Beezer, 1994: 155).

Uses and Gratifications edo erabilera eta sarien teoria babestu eta elikatu duten egileen esanetan (Palmgreen, Wenner eta Rosengren, 1985; Rubin, 2002) gizakiok beharrak asebetetzeko, helburuak eskuratzeko erabiltzen ditugu hedabideak; azken batean, saria eskuratzeko. Hortaz, beharrizanaren kontzeptua litzateke teoria honen ardatza, eta teoria bera zenbait uste edo baieztapenei helduta garatzen da. Batetik, uste da publikoa gai dela dituen beharrizanak identifikatzeko eta horiek asebate nahi dituela ahalik eta saririk onenak eskuratuz. Bigarrenik, uste da hartzaileak, publikoak modu aktiboan jokatzen duela hedabideei dagokienez; hau da, modu selektiboan eta kontzientean hautatzen duela hedabide bat edo beste bat, eta hedabide bakoitzean produktu bat edo beste bat; betiere, behar jakin bat asetzeko (saria izateko). Eta azkenik, ontzat ematen da hedabideekin batera badirela saria

eskuratzeko baliatu daitezkeen beste bitarteko batzuk; hortaz, lehia legoke batzuen eta besteen artean.

Hedabideen erabileratik asebate daitezkeen beharrei dagokienez, Denis McQuailek, Jay Blumlerrek eta John Brownek diote lau kategoriatan sailkatu daitezkeela. Lehena, dibertsio-beharra litzateke, hau da, emozioak askatzearekin, egunerokotasunetik edo arazoetatik ihes egitearekin zerikusia duena. Bigarrena, pertsonen arteko harreman-beharra. Hirugarrena, norberaren identitate-beharra, hau da, erreferentzia pertsonalak eta baloreak sendotzearekin zerikusia duena. Eta laugarrena, zainketa-beharra, informazioa bilatzeari loturik dagoena (McQuail, Blumler eta Brown, 1972). Adierazitakotik erraz ondoriozta daiteke hizkuntza-identitatea ere hedabideak erabiltzetik asebate daitekeen behar moduan kontsidera daitekeela, erabilera eta sarien teorian kontuan hartu beharreko aldagaia izan daitekeela; betiere ontzat ematen bada hedabideek hizkuntza-identitatea sustatu edo indartzeko gaitasuna izan dezaketela.

Eskuratutako sariei dagokienez berriz, *Uses and Gratifications* teoriaren sortzailatzat kontsideratu diren Elihu Katz, Jay Blumler eta Michael Gurevitch ikerlarien iritziz hiru iturritatik lortutakoak izan daitezke: edukietatik lortutakoak (informazio-saio bat edo entretenimendu-saio bat adibidez), hedabideen eraginpean izatetik beste barik, hau da, “exposición per se” delakotik eta hirugarrenik hedabideen edukien esposizioa, harrera gertatzen deneko gizarte testuinguruari esker lortutako saria legoke (etxean, kanpoan, bakarrik, lagunartean...). Rafael Rodak (1989) ederto laburbiltzen du *Uses and Gratifications* teoriaren mamia:

“El postulado esencial de la perspectiva de usos y gratificaciones es que el uso diferencial de los medios incide sobre el proceso de los efectos. A esto va unido el supuesto básico que sirve para explicar ese uso diferencial: los individuos son portadores de necesidades que tienden a satisfacer de diversos modos, entre los que cabe incluir la utilización de la comunicación de masas. De la utilización se derivan gratificaciones, cuyo origen se sitúa indistintamente en el contenido de la comunicación, el acto de exponerse o en el contexto social en que se produce el uso” (Roda, 1989: 232-233).

Hedabideen eraginpean jartzeak dakartzan sariei dagokienez, Rodak berak dioenez hainbat sailkapen aurkitu daitezke (1989: 236). Batzuen eta besteen arteko aldea hedabideei esleitutako funtzioen arabera litzateke. Horrela, saria funtzio bakarra asebetetzetik etorri daiteke (adibidez, gizarte-harremanetarako beharrezko asebete), edo bi funtzio asebetetzetik (adibidez, informazioa eta ihes-egitea), edo lau (ingurunearen zainketa, elkarrekiko harremana, entretenimendua eta kultura-ondarearen transmisioa) edota funtzio anitz asebetetzetik.

Manuel Martín Serranok bat egiten du Rodaren planteamenduekin. Martín Serranoren arabera, hedabideek funtzio anitz egikaritu ditzakete, erabiltzaileen gizarte-beharrak asetzera bideratzen diren funtzioak hain zuzen.

“Los autores especialistas en el estudio de los medios de comunicación coinciden en la opinión de que cumplen un repertorio de funciones sociales, es decir, creen que las audiencias los utilizan para satisfacer determinadas necesidades relativas a la vida en comunidad” (Martín Serrano, 1982: 223).

Gizakiok hortaz, hedabideak erabiltzen ditugu komunitatean bizitzeak, gizarteko kide izateak dakartzan beharrezko asetzeko. Zentzu honetan, oso interesgarria iruditzen zaigu Jay Blumlerrek aurkeztutako proposamena (1979). Egile honek defendatzen du erabiltzaileek lortutako saria lau funtzio egikaritzetik datorrela. Lehena, zainketa da; hots, norberaren testuinguru soziopolitikoan gertatzen denaz jakitun egotearekin lotuko litzateke. Bigarrena, jakingura da; testuinguruan gertatzen diren aldaketetatik isolaturik ez geratzeko egokitzapenarekin loturikoa. Hirugarrena, entretenimendu funtzioa litzateke; atsedeen hartzeko, buruhausteetatik ihes egiteko edota adoretzu ez gabiltzan uneetan, makal gabiltzan uneetan suspertzeko balioko lukeena. Eta laugarrena, hartzaileren identitatearekin, nortasunarekin loturikoa da; hau da, hedabideetatik iristen diren estimuluak erabiliko lirateke, besteak beste, hartzaileren bizitzan dagoeneko garrantzia duen zerbait azpimarratzeko.

“La función de identidad personal está asociada a consecuencias de carácter reforzante. En virtud de éstas, las personas consolidan las conductas, valores o perspectivas que mantienen o aprecian” (Roda, 1989: 255).

XXI. mendearen bigarren hamarkadan sartuta gauden egoeratik begiratuta, agerikoa da aurretik azaldutako lau kategoria horiek harremanetan jarri daitezkeela hizkuntza gutxituetako hedabideek bete ditzaketen zereginekin¹⁴. Baina zer diren kontuak, formulazio horiek guztiak mahairatu ziren sasoiari, hizkuntza gutxituetako hedabideen ikerkuntzak oraindik lehen urratsa egin gabe zeukan.

Uses and Gratifications teoriara egindako hurbilketa honi amaiera emateko esan, azken urteetan teknologia berrietan oinarritutako hedabideek izan duten bilakaerak ikuspegiaren berrikusketa behartu eta ekarri duela. Esandakoaren erakusle garbia da Shyam Sundar eta Anthony Limperos ikerlariak proposaturiko sarien tipologia. Egileok lau sari-iturri bereizten dituzte: edukien euskarria, ekimena (hau da, prosumer edo eduki sortzailea izateko aukera), interakzioa/elkarrekintza eta, azkenik, nabigagarritasuna (Sundar eta Limperos, 2013: 512-517). *Uses and Gratifications* teoriaren jatorrizko planteamenduetarekin alderatuta, berrikuntza dago orain. Katz, Blumler eta Gurevitchek hartzaileak berezko behar zabal batzuk zituela argudiatzen zuten bitartean (adibidez, informazio-beharra), Sunder eta Limperosek baieztatuko dute teknologia berriek eragina izan dezaketela beharretan, horiek itxuratuz eta ondorioz, sari berriak eta bereiziak sorraraziz eta eskainiz.

2.1.1.6. IKERKETA KULTURALAK (*CULTURAL STUDIES*)

Korrante hau joan den mendeko hirurogeiko hamarkadan hasi zen itxura hartzen eta zabaltzen. Lehen aztarnak 1964an kokatu daitezke, Birminghameko Unibertsitatean sortutako *Centre of Contemporary Cultural Studies* (CCCS) ikergunearen inguruan. Lau egile hartu dira aipatu behar dira sortzaile gisa: Richard Hoggart¹⁵, Raymond Williams¹⁶, Edward P. Thompson¹⁷ eta Stuart Hall¹⁸.

¹⁴ .- Hurrengo atalean, *Hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideen azterketa* izenekoan sakon landu eta azalduko diren zereginak.

¹⁵ .- Richard Hoggartek *The Uses of Literacy: Aspects of Working-Class Life with Special References to Publications and Entertainment* argitaratu zuen 1957an. (Frantsesez *La Culture du pauvre* bezala itzuli zen). Lan horretan langile-klaseen eguneroko bizimodua deskribatu eta hedabideek zabaldutako kulturak langileengan zuen eragina aztertzeari ekin zion. Mattelartek eta Neveuk diotenez, "La idea básica que desarrolla es que se tiende a sobreestimar la influencia de estos productos de la industria cultural en las clases populares" (Mattelart eta Neveu, 2004: 36).

¹⁶ .- Raymond Williamsek *Culture and Society* argitaratu zuen 1958an eta *The Long Revolution* 1961n. Lehenengoan, kultura kontzeptuaren genealogia egin eta kultura eta gizartearen artean askotan

Cultural Studies korronteari ekarpenak egin dizkioten ikerlariak aldarrikatzen dute kultura bere konplexutasun osoan arakatu eta ulertu behar dela eta hala jokatzeko funtsezkoa dela kultura ageri den testuinguru politiko eta sozialari erreparatzea (Sardar, 2005). Kultura, diote, ez da ulertu behar praktika huts gisa, ezta gizarte baten ohitura- eta usadio-multzoaren deskripzio soil gisa ere. Kultura kontzeptuak, korronte honetan kokatutako egileen ustez, gizarte-taldeetan sortu eta zabaltzen diren esanahiak, balioak eta, horiekin batera, aipatutako esanahi eta balioen isla diren praktikak barne hartzen ditu. Tonny Bennettek honelaxe laburbiltzen du *Cultural Studies* edo ikerketa kulturalen zeregina:

“A more open-ended formulation might be to say that cultural studies is concerned with all those practices, institutions and systems of classification through which there are inculcated in a population particular values, beliefs, competencies, routines of life and habitual forms of conduct” (Bennett, 1997: 52).

Baieztapen horretatik abiatuta, erraz ulertu daiteke *Cultural Studies* korrontek masa-hedabideen eta komunikazio-prozesuen azterketari eman dion garrantzia hasiera-hasieratik. Ziauddin Sardar eta Boris Van Loon egileek, esaterako, gogora ekartzen digute *Cultural Studies*en aitatzat hartzen den Raymond Williamsek proposatutako kulturaren definizioa:

“La cultura incluye la organización de la producción, la estructura de la familia, la estructura de las instituciones que expresan o rigen las relaciones sociales y las formas características que utilizan los miembros de la sociedad para comunicarse” (Sardar eta Van Loon, 2005: 5).

Definizioan hedabideak era esplizituan aipatzen ez badira ere, agerikoa da gizarte bateko harremanak adierazteko erakundeak diren heinean, eta gizarteko

egindako banaketa kritikatu du. Bigarreanean, hezkuntza eta komunikazio-sistemek gizarte-aldaketa prozesuetan duten zeregina azpimarratu du.

¹⁷ .- Langile-klasearen soziohistoriari buruzko hausnarketa egingo du bere lanik ezagunenean: *The making of the English Work Class* (1963). Williamsek bezala, historia ulertuko du klase sozialen arteko borroken eta kultura eta ekonomiaren arteko interakzioaren emaitza bezala.

¹⁸ .- Hoggartekin batera zuzendu zuen CCCS 1964tik. Urte berean argitaratu zuen Paddy Whannelekin batera idatzitako *The Popular Arts*. Lan horretan goi-mailako kultura eta behe-mailako kultura aztertzen ditu jazz musika baliatuz.

kideek elkarrekin komunikatzeko erabiltzen dituzten heinean, kulturaren osagai direla. Hortik abiatuta, Williamsentzat eta berarekin batera aitzindari izandakoentzat, ezinbestekoa izango da hedabideei erreparatu eta horiek ikertzea. Uste hori are sendoagoa bilakatuko da laurogeiko hamarkadatik aurrera argitaratutako lanetan.

Hedabideen esparruari dagokionez, *Cultural Studies* korronteko jarraitzaileek ikerkuntza kritikoa abiaraziko dute eta hedabideen eragina ulertzeko orduan, azentua bi kontutan jarri behar dela defendatuko dute: batetik, hartzaileren zeregin aktiboa, eta bestetik, aurrekoarekin batera, hedabideetako edukien harrera zein gizarte-egituran eta zein testuinguru historikoan gertatzen den. “Un rôle actif est reconnu au récepteur dans la construction du sens des messages, et l’importance du contexte de la réception est soulignée” (Mattelart eta Mattelart, 1995: 85). Hartzailak, edota ikusleak, zeregin aktiboa izango luke, iristen zaion mezua¹⁹ onartu, negoziatu edo uko egiteko gaitasuna izango lukeelako. Eta horrekin batera, hartzaileren testuinguruak (sozial, politiko, kultural eta hezkuntza-testuinguruak) ere baldintzatu egingo luke mezuari ematen zaion interpretazioa, esanahia; azken batean, mezuaren irakurketa.

“Audiences are active in the sense that they interpret media messages *socially*. That is, audiences do not simply watch, read, or listen to a media text, develop independent interpretations of what it means, and stick to them. On the contrary, media are part of our social lives, and we engage with media in social settings” (Croteau eta Heynes , 1997: 231).

Hortaz, *Cultural Studies* korronteko planteamenduak landu eta horiekin bat egiten duten egileentzat “(...) las estructuras sociales en torno al sistema de los media y las específicas condiciones históricas son elementos esenciales para comprender las prácticas mediológicas” (Wolf, 1994b: 123).

Hori horrela izanda, korronte honek uko egingo dio *Uses and Gratifications* edo erabilera eta sarien ikuspegiaren oinarrian dagoen psikologismoari. Ez dute ontzat emango hartzailera banaka ikertzea, beraientzat hedabideen harrera-prozesua beti gauzatzen delako testuinguru sozial eta kultural jakin batean. Esandakoaren erakusle

¹⁹ .- Mezua testu bezala ulertuta. “En el contexto de los estudios culturales, la idea del texto no solo incluye el lenguaje escrito, sino también películas, fotografía, moda: los textos en los estudios culturales abarcan todos los artefactos de la cultura” (Rodríguez, 2009: 37).

da korronte honetan mugarría jarri zuen *Everyday Television: Nationwide* (1978) artikula²⁰. Charlotte Brunsdon eta David Morleyk idatzitakoa da. Egileek, ikusitakoak ikusita, ondorioztatuko dute gizakiek parte hartzen duten taldeetan nagusi diren kode kulturaletatik abiatuta eta kode horiek baliatuz interpretatzen dituztela hedabideetatik iristen zaizkien mezuen esanahiak. Hots, hartzaileak dekodifikatu, “irakurri” egiten ditu esanahiak eta “irakurketa” horretan garrantzi handia du hartzaileak zein rol betetzen duen kide den taldean edo interpretazio-komunitatean. Horixe litzateke Morleyren lanen ekarpen nagusia.

“Lo importante de la obra de Morley es, por tanto, haber demostrado que los efectos de los textos culturales siempre están relacionados con las condiciones de su consumo; y que los analistas culturales no pueden deducir simplemente los significados de estos textos para la audiencia, y sus efectos sobre ésta, a partir de un análisis de sus estructuras textuales” (Barker eta Beezer, 1994: 162).

Cultural Studies korronteak bilakaera nabarmena izan du biderei ekin zionetik. Hasierako bi premisak indarrean jarraitzen dute: “a) que la audiencia siempre es activa (en un sentido no trivial), y b) que el contenido de los medios de comunicación es ‘polisémico’ o abierto a la interpretación”(Curran eta Morley, 1998: 418). Hala ere, denborarekin, korrontea paradoxa batean murgildu da. Batetik, *Cultural Studies* en ia etengabe hazi da izaera anitzeko objektuak ikertzera bideratutako ahalegina eta

²⁰.- Lan etnografikoa da, Londreseko hamazortzi familia aukeratu zituzten, gehienak langileak edo klase ertain-baxukoak. Morleyk horien etxeko testuinguruan kokatuta burutu zuen lana. Telebistaren inguruan biltzen diren familietan garatu daitezkeen elkarrekintzak aztertu zituen, esaterako, familiako kide bakoitzak pantailan ikusitakoaz egiten zituen irakurketak, harrera-portaerak, programak aukeratzeko orduan nola gauzatzen zen erabakia eta abar. Bi urte geroago, 1980an, “*The Nationwide Audience: Structure and Decoding*” izenburuko lana argitaratu zuen, eta bertan *Nationwide* izeneko saioaren kontsumo-baldintzak aztertzeari ekin zion; hau da, audientzia desberdinek nola egiten zuten saioaren dekodifikazioa aztertu zuen. Morleyk uste baitzuen talde-testuinguruak desberdinak direnean, horietatik sortutako dekodifikazioak ere desberdinak izan daitezkeela. Adibidez, kontsumoa etxe barruko testuinguruan edo laneko testuinguruan izateak modu desberdinetan interpretatzea ekarri dezakeela pentsatzen zuen. Uste horrek bidea zabaldu zion 1986an argitaratu zuen lanari: *Family Television: Cultural Power and Domestic Leisure*. “Fue más allá de las preocupaciones de *The Nationwide Audience*, para considerar no simplemente la producción de diferentes descodificaciones sino también el papel más general de la televisión dentro de las relaciones domésticas” (Barker eta Beezer, 1994: 151). Morleyren ondorioa da saio desberdinak ikusteko moduak eta horiei arreta jartzeko moduak desberdinak direla familia barruan betetzen diren rolen arabera.

zenbaiten iritziz, “mikro-objektuak”, azalekoak edo garrantzirik gabekoak ikertzeko joera hazi egin da (adibidez, Barbie, Madonna edo McDonald’s). Baina bestetik, aldi berean, txikitu egin da kultura-ondasunen ekoizpen-prozesuetan funtsezkoak diren beste arlo batzuekiko interesa; hala nola, industria kulturalakiko interesa, edota menpekotasun ekonomiko eta sinbolikoekiko interesa, edota arloko politika publikoekiko interesa. Argi diote Mattelartek eta Neveuk:

“El mejor conocimiento, bien apreciable, que surge del interés por los elementos más diversos del mosaico de lo cultural, tiene como contrapartida la obsesión por el pequeño objeto, por la trivialidad de las pequeñas historias en la amnesia de los mecanismos sociales que determinan su producción.” (Mattelart eta Neveu 2004: 148).

Cultural Studies korrontearen egungo egoerari dagokionez, zenbait egileren ustez, hazkunde-krisian murgilduta dago (Reynoso, 2000); ezagutza-arloaren nondik norakoak eta beronen mugak zeintzuk diren definitzean dagoen zehaztasun-faltak eragindako krisia litzateke. Hori dela eta, hasierako iturrietara, jatorrizkoetara itzultzeko beharra aldarrikatzen da. Egoera horrela, *Cultural Studies* korrontea gaur egun, eraberritze ahaleginean murgilduta dagoela esan daiteke; hausnarketa, birformulazio, eztabaida eta zenbait kasutan kritika erradikala egiteko sasoian.

2.1.2.HIZKUNTZA GUTXITUETAN ARI DIREN HEDABIDEEN AZTERKETA

Hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideen ikerkuntzak denbora behar izan du nortasun eta ezaugarri propioak, berezko ezaugarriak dituen ikerkuntza-esparru bezala onartua izateko. Hedabideen eraginari buruz landu den kapituluaren sarreran agertu bezala, ikerkuntza-esparru honen lehendabiziko urratsak 1980ko hamarkadan kokatu daitezke.

2.1.2.1. LEHEN URRATSAK: *MANY VOICES, ONE WORLD* ABIAPUNTU

1980an, *Many Voices, One World* txostena prestatu zuen UNESCO erakundeak, gerora Mac Bride txostena bezala ezagunagoa bilakatu dena. Izaera politiko-intelektuala duen testuan informazioaren eta komunikazioaren ordena berria ezartzeko aldarria egiten da; helburutzat garaiko desorekak gainditu eta bakea eta giza garapena sustatzea izango lukeena. Horretarako, Mac Bride txostenak 82 gomendio

biltzen ditu. Hizkuntza gutxituetako hedabideei eta hizkuntza gutxituei buruzko erreferentzia zuzenik ez dagoen arren, bada zeharka horren inguruko gomendio pare bat. Lehenaren arabera, komunikazio modernoaren eskakizunei erantzuteko beharrezkoak dira hizkuntza guztiak egoki sustatu eta garatzeko hizkuntza-politikak, baina, aldi berean, atea zabaltzen zaio zenbait arlotan (komunikazioan, goi-mailako hezkuntzan eta administrazioan) horietako batzuk lehenesteari.

“As language embodies the cultural experience of people, all languages should be adequately developed to serve the complex and diverse requirements of modern communication. Developing nations and multilingual societies need to evolve language policies that promote all national languages even when selecting some, where necessary, for more widespread use in communication, higher education and administration” (Many Voices, One World, 1980: 255).

Bigarren gomendioak kultura-identitateari begiratzen dio:

“Establishment of national cultural policies, which should foster cultural identity, and involve the media in these tasks. Such policies should also contain guidelines for safeguarding national cultural development while promoting knowledge of other cultures. It is in relation to others that each culture enhances its own identity” (Many Voices, One World, 1980: 259).

Hortaz, hedabideek zeregina izango lukete identitate kulturala sustatzeko orduan. Bestalde, Mac Bride txostenak argia ikusi zuen garaian, hizkuntza gutxituen gaia agenda politikoan sartu zen, gutxienez Europako mendebaldean. Horren erakusle lirateke 1982an Europako Parlamentuaren babesean hizkuntza-aniztasunaren alde lan egiteko xedez sortutako EBLUL (European Bureau for Lesser Used Languages) eta 1987an Europar Batzordearen eskutik jaio zen Mercator, hizkuntza gutxituen arloko informazio trukerako eta elkarlanerako foroa (Cormack, 2007). Bost urtera, 1992an, beste mugarri bat ezarriko da: Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna²¹. Testuak hizkuntza horiek²² babesteko eguneroko bizitzan sustatu beharreko

²¹ .- The European Charter for Regional or Minority Languages. Europako Kontseiluak sortutako ituna da. Espainiak 1992ko azaroaren 5ean sinatu zuen.

neurri zehatzak biltzen ditu; esaterako, Estatu sinatzaileek hizkuntza horietan eskaini behar dituzten hezkuntza-zerbitzuak, administrazio arlokoak eta komunikazio-zerbitzuak (prentsa, irratia eta telebista). Cormacken arabera, gutunak “(...) has tried to build minority languages into the structure of the ‘New Europe’” (Cormack 2007: 3). Lortu duen ala ez beste eztabaidagai bat da, baina ikerketa honi dagokionez, hedabideen inguruan jasotzen duen edukia interesatzen zaigu. Hala, 11. artikuluan ditugu agintari publikoek hartu beharko lituzketen konpromisoak. Artikulua luzea den arren, mamitsua ere bada, eta horregatik merezi du bere osotasunean jasotzea.

“11. Artikulua – Komunikabideak

1. Aldeek zenbait konpromiso hartu dituzte eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunei dagokienez, hizkuntzok erabiltzen diren lurraldeetan, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, eta agintari publikoak, modu zuzenean edo zeharkakoan, arlo horretan boterea edo eginkizunen bat duten neurrian, beti ere komunikabideen independentzia eta autonomia printzipioak errespetatuz. Konpromisoak hauek dira:

a) irratia eta telebista zerbitzu publikoak diren neurrian:

I) gutxienez irradi-estazio eta telebista-kate bana sortzea eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan; edo

II) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan gutxienez irradi-estazio eta telebista-kate bana sortzea sustatu eta/edo erraztea; edo

III) beharrezkoak diren xedapenak ematea difusioaren arduradunek eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan egindako emisioak programatu ditzaten;

b) I) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan gutxienez irradi-estazio bat sortzea sustatu eta/edo erraztea; edo

II) irradi-programak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan modu erregularrean emititzea sustatu eta/edo erraztea

c) I) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan gutxienez telebista-kate bat sortzea sustatu eta/edo erraztea; edo

II) telebista-programak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan modu erregularrean zabaltzea sustatu eta/edo erraztea

d) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako egindako entzunezko eta ikus-entzunezko materialen ekoizpena eta zabalkundea sustatu eta/edo erraztea;

²² .- Gutunak lehen zatian, xedapen orokorretan, argitzen du eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza aipatzerakoan ondokoaz ari dela: Estatu bateko lurraldean bertako biztanleek, Estatuko biztanleriaren barruan gutxiengoa izanik, tradizioz hitz egiten dituztenak eta horrez gain, zehazten du hizkuntzok ez direla Estatu horretako hizkuntza ofizialak izango. Gainera ez ditu eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen barruan sartzen Estatuko hizkuntza ofizialaren dialektoak, ez etorkinen hizkuntzak.

e) I) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan gutxienez prentsa-organo²³ bat sortu eta/edo mantentzea sustatu eta/ edo erraztea; edo

II) prentsa-artikuluak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan modu erregularrean argitaratzea sustatu eta/edo erraztea

f) I) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen dituzten komunikabideen kostu osagarriak estaltzea, legeak komunikabideentzat, orokorrean, finantza-laguntzarik ezarrita duenean; edo

II) dauden finantza-laguntzak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan sortutako ikus-entzunezko ekoizpenei ematea;

g) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan lan egiten duten komunikabideentzako kazetarien eta beste langile batzuen prestakuntza bultzatzea.

2. Aldeak konpromisoa hartu dute eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza edo antzekoa duten hurbileko herrialdeetako biztanleek irrati- eta telebista-emisioak modu zuzenean jasotzeko askatasuna izango dutela bermatzeko, bai eta hurbileko herrialdeek hizkuntza horretan egin ditzaketen irrati- eta telebista-emisioen aurka ez egiteko ere. Konpromisoa hartu dute, bestalde, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean edo antzekoan sortutako informazioaren adierazpen-askatasuna eta horren zirkulazio askea dela-eta idatzizko prentsari ez zaiola inolako murrizketarik ezarriko zaintzeko. Aipatutako askatasunak erabiltzeak betebeharrak eta erantzukizunak dakartza, eta lege ezarritako zenbait formalitate, baldintza, murriztapen edo zehapenen menpe egon daiteke. Horiek guztiak beharrezko neurriak dira, gizarte demokratiko batean, segurtasun nazionalerako, lurralde-osotasunerako edo segurtasun publikorako, ordenaren defentsarako eta krimenaren prebentziorako, osasunaren edo moralaren babeserako, hurkoaren ospearen eta eskubideen babeserako, isilpeko informazioak zabaltzea eragozteko, edo botere judizialaren agintea edo inpartzialtasuna bermatzeko.

3.- Aldeek konpromisoa hartu dute eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunen interesak ordezkatuta egon daitezen edo aintzat har daitezen komunikabideen askatasuna eta pluraltasuna bermatzeko egitekoa duen legearekin bat sor daitezkeen egituretan” (Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 1992: 8-9).

Komunikabideak xedetzat hartzen dituen 11. artikuluan, nagusi dira ikus-entzunezkoen arloan hartutako konpromisoak, baina badira idatzizkoen arlokoak ere. Horien kasuan, bi eratako konpromisoak ezartzen ditu: batetik, horien sorrerara edota mantentzera bideratutakoak, eta bigarrenik, hizkuntza gutxituetan landutako prentsa-

²³ .- Jatorrizko bertsioa, 1992koa, ingelesez eta frantsesez prestatu zen. Ingelesezko bertsioan “newspaper” ageri da, frantsesezkoan berriz, “organe de presse”.

artikuluaren argitalpena bideratutakoak. Deigarria eta esanguratsua da bien arteko lotura “edo”²⁴ juntagailua erabiliz egiten dela. Zenbait egileren ustez, Mike Cormack esaterako (2007), hala egiteak aukera ematen du prentsa-organo bat sortu edo mantentzeko konpromisotik “ihes egiteko”; eta horren ordez, hizkuntza gutxituetan argitaratutako prentsa-artikuluetara mugatzeko ekimena.

Bi konpromiso horiez gain, hedabideen egoera ekonomikoari begiratzen dioten konpromisoak daude, laguntza ekonomikoen bidez gauzatu daitezkeenak; eta, azkenik, hizkuntza gutxituetako hedabideetan ari diren langileen prestakuntza sustatzeari begira dauden konpromisoak ere jasotzen ditu testuak.

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak abiapuntua jarri zien hizkuntza gutxituak arreta espezifiko eta sustapen proaktiboa behar dutela aldarrikatzeko gerora landu eta sinatu diren beste hainbat aldarrikapen, adierazpen eta ekimenei. Hor da, adibidez, 1996ko Hizkuntza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (Bartzelonako aldarrikapena). Hedabideen inguruko edukia IV. atalean dago. Edukiari dagokionez, Gutunaren bide bertsutik jotzen du, baina bada azpimarragarria den berrikuntza. Izan ere, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak “teknologia aurreratuetan” gauzatzen diren hedabideak ere kontuan hartzen ditu²⁵:

“35. artikulua

Hizkuntza komunitate orok²⁶ eskubidea dauka erabakitzeke zein mailatako presentzia izan behar duen bere hizkuntzak bere lurraldeko komunikabideetan, hala tokikoak eta tradizionalak, nola irismen handiago eta teknologia aurreratuagokoetan, erabiltzen den hedapen eta igorpen-sistemari begiratu gabe.

²⁴.- Ingeleseko bertsioan *or* juntagailua ageri da eta frantsesezkoan *ou* juntagailua.

²⁵.- Deklarazio Unibertsalaren IV. atalaren izenburua ondokoa da: “Komunikabideak eta teknologia berriak”. Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean ez da halakorik agertzen, eta erraz ulertu daiteke kontuan hartzen badugu 1992an sinatutakoa dela, hau da, digitalizazioaren, teknologia berrien aroa hastapenetan zegoen urtean. Sasoi hartan, oraindik ez zen esparru horrek hartuko zuen neurri eta garapenaren usainik hartzen.

²⁶.- Testuak lehen artikuluan zehazten du nola ulertu behar den hizkuntza-komunitatea. Honelaxe dio: “Deklarazio honetan hizkuntza komunitatea aipatzean esan nahi da edozein gizarte, historian zehar lur-eremu zehatz batean eremua errekonozitua izan ala ez finkatua, bere burua herrizat daukana, eta hizkuntza komun bat garatu duena kideen arteko komunikazio naturalaren eta kultur kohesioaren bidetzat. Lurralde bateko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa deizioekin, lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen mintzairari egiten zaio erreferentzia”.

36. artikulua

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak eskura izateko ziurtatu ahal izateko bere hizkuntzaren eta kultur autoadierazpenaren presentzia non adinakoa izan dadin bere lurraldeko komunikabideetan: modu egokian hezitako giza baliabideak, diru-iturriak, totalak²⁷ eta ekipamendu, baliabide teknologiko ohiko zein berritzaileak”(Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, IV. atala: 35-36 artikulua).

Arestiko 36. artikuluan beste faktore batzuen artean diru-iturriak aipatzen dira, eskuragarri izan beharreko baliabide material gisa ulertuta, hedabideetan hizkuntza gutxituaren presentzia bermatzeko baliabide gisa ulertuta. Baina Gutunean ez bezala, Bartzelonako deklarazioak ez du zehazten agintari publikoei zer betebeharrak dagokien diru-iturri horiek lortzeko edo ziurtatzeko.

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala aldarrikatu ondoren, kultur-aniztasuna sustatzeko beste hainbat ekimen eta biltzar etorri ziren. Horien artean aipatu daitezke UNESCO erakundeak 1998an Stockholmen burutu zuen garapenerako kultura-politikei buruzko goi-bilera eta, hiru urtera, 2001eko azaroaren 2an, Parisen onartu zuen kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapen unibertsala. Testuaren sinatzaileek, aldarrikapenak jasotakoa praktikan bete dadin neurri egokiak ezartzeko konpromisoa hartzeaz gain, hogeitau hamar helburu zehaztu zituzten eta horietatik 12.a hedabideei dagokie. Honelaxe dio:

“Suspertzea komunikabideetan eta nazioarteko informazio-sareetan eduki dibertsifikatuak agertu eta zabalduko direla eta, asmo horrekin, irrati eta telebista bidezko komunikazioaren zerbitzu publikoen kalitatezko ikus-entzunezko produktuak ekoizteko zeregina bultzatzea, produktuon zabalkuntza bideratuko duten mekanismo kooperatiboen sorrerari berebiziko arreta eginez”(UNESCO, 2001)²⁸.

Paragrafo horretan, deigarria da ez dela hedabide inprimatuei buruzko erreferentzia zuzenik, bai ordea ikus-entzunezko hedabide eta ekoizpenei buruzkoa.

²⁷.- Ingeleseko bertsioan “buildings” ageri da; hortaz, pentsatzeko da euskarazko itzulpenean “totalak” delakoarekin eraikinei edo egoitzei buruz ari dela.

²⁸.- Hemendik jaso: http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/Kultura_Aniztasuna_Aldarrikapena.pdf

Hala ere, pentsa daiteke inprimatuak ere hortxe daudela, “eduki dibertsifikatuak komunikabideetan agertu eta zabalduko direla” dioenean.

Gure inguru hurbilean, berriz, euskarak normalizazioaren edo, nahiago bada, biziberritze-prozesuaren bideari ekiteko jarri zen lehen oinarri sendoa 1982ko azaroaren 24ko Euskararen Legea da. Egitura demokratikoak eraikitzen hasteko sasoian adostu zuten testuak ondoren taxutu eta garatu diren hizkuntzaren inguruko erabaki eta planen habe nagusiak finkatu zituen; azken batean, hizkuntza-politiken habe nagusiak. Ikerketa-lan honek kapitulu osoa eskaintzen dio horri²⁹, Euskararen Legetik hasi eta 2013 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan Eusko Jaurlaritzak euskara biziberritzeko onartu eta martxan jarri dituen egitasmo garrantzitsuenei, hala nola, 1998ko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta 2012an Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak bere egin zuen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana³⁰. Batean zein bestean, hedabideak sektore estrategikotzat jotzen dira hizkuntzaren normalizazioari dagokionez, haien ekarpena ezinbestekoa dela ziurtatzen da eta etorkizunera begirako hainbat erronka zehazten dira.

2.1.2.2. IKERKETA-EREMU BERRIA LORATZEKO BIDEAN: JOSHUA FISHMAN ETA STEPHEN H. RIGGINS EGILEEN EKARPENAK

Laurogeiko hamarkadatik lege-arloan eta kudeaketa-politikoaren eremuan mamitzen diren egitasmoekin batera, hizkuntza gutxituak ardatz gisa hartzen dituen ekoizpen akademikoaren loraldia izango da. Richard Bourhis ikerlari kanadarrak, esaterako, garai hartan baieztatu zuen hedabideak eta produktu kulturalak garrantzitsuak direla hizkuntza gutxitua duen komunitate baten bizindar etnolingustikoa zein den jakiteko (Bourhis, 1981). Baina arloko ikerketaren abiapuntua ezarri zuen lan bat aipatu beharko balitz, dudarik gabe, Joshua Fishman soziolinguistak idatzi eta 1991n argitaratutako *Reversing Language Shift* litzateke. Abiapuntu ez ezik, ondoren etorri ziren beste hainbat lanen pizgarri ere bilakatu zela gaineratu daiteke.

²⁹ .- Kontsultatu *Euskara biziberritzeko ekimen instituzionala: hizkuntza-politikak* izeneko atala.

³⁰ .- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) birritan berretsi zuen Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak. Lehena, 2012an, Patxi López sozialista lehendakari zela. Baina legegintzaldi hura aurreikusitakoa baino lehenago amaitu zen; hortaz, ez zen astirik izan ESEP Legebiltzarrerera eramateko. Urte hartako hauteskundeen ondoren, Iñigo Urkullu lehendakari izendatuta, Gobernu Kontseiluak berriro bere egin zuen ESEP, eta Legebiltzarrak beste horrenbeste 2013ko irailaren 11n.

Lan hartan, zortzi mailako eskala baten bidez, *Graded Intergenerational Disruption Scale (GIDS)* izenekoaren bidez, egiten du Fishmanek hizkuntza baten egoeraren eta biziberritze-prozesuaren analisia³¹. Azentua etxeko edo gertuko komunitatean jartzen du (Fishman, 1991: 87-109) eta eszeptiko ageri da hedabideek biziberritze prozesuan izan dezaketen zereginaz.

“The usefulness of the media is not only well behind the use of language in the home and community, but is also put behind such elements as education and the work sphere” (Fishman, 1991: 365).

Hamar urtera argitaratuko duen *Can threatened languages be saved?* izenburuko saio-bilduman ere Fishmanek ideia bera garatuko du. Bere esanetan, hizkuntza gutxituen alde sutsu ari diren zenbait ekintzaile edo eragile hedabideen fetitxista bilakatu dira, neurritz kanpoko balioa eman dietelako hizkuntza gutxituetako hedabideei eta horiek hizkuntzaren berreskuratzean ekarri dezaketenari (Fishman, 2001). Ikuspegi horren aurrean Fishmanek dio hedabideek lehen hizkuntzaren transmisioan lagundu beharrean, oztopo izan daitezkeela³² arrazoi sinple bategatik: hizkuntza nagusian dagoen hedabideen eskaintza kuantitatiboki askoz oparagoa delako hizkuntza gutxituan dagoena baino.

“The media can interfere with intergenerational Xish³³ mother-tongue transmission more easily and more frequently than they can reinforce it, if only because there are ever so much more Yish³⁴ media than Xish media” (Fishman, 2001: 473).

³¹ .- GIDS eskalako zortzigarren mailan hizkuntza galbidean dago, ia desagertzeaz, zaharrenek bakarrik hitz egiten dute. Zazpigarrenean, zenbait gaztek hizkuntza ikasteari ekiten diote, baina kasu honetan ere, desagertzeko bidean da. Seigarren mailatik gora zabaltzen da hizkuntza berreskuratzeak aukera. Laugarren mailan, esaterako, hezkuntza-sisteman erabiltzen da; hirugarrenean, lan eta merkataritzaren arloan; bigarrenean, erakundeetan eta hedabideetan, eta azkenik, eskalako lehen maila hizkuntzaren biziberritzea ordezkatzeko duena litzateke, maila horretan hizkuntza gutxitua lurralde osoan nagusi den hizkuntzaren ia ia parean legokeelako.

³² .- Antzeko planteamendua defendatzen dute beste zenbait egilek ere. Horien arabera, hedabideak garrantzitsuak izan daitezke hizkuntza baten biziberritze-prozesuaren azken etapetan, baina ez hasierakoetan. Brigitta Busch irakasle eta ikerlariak esaterako, *The virtual Square* izeneko artikuluan bat egiten du Fishmanen ikuspegiarekin; bere hitzetan, hedabideen eragina gehiago da lehen hizkuntzaren transmisioa oztopatzeakoa, berau sustatzeko baino (Busch 2001: 35-39).

³³ .- Hizkuntza gutxituari deitzen dio horrela Fishmanek, biziberritze-prozesuan dagoen hizkuntzari.

³⁴ .- Hizkuntza nagusiari deitzen dio horrela Fishmanek.

Eszeptiko izateak ez du esan nahi Fishmanek hizkuntzak biziberritzeko prozesuan hedabideak baliogabe, hutsaren hurrengo kontsideratzen dituenik; gertatzen dena da Fishmanek sarritan gogoratuko digula hizkuntza-biziberritzeari ekiteko zereginen estrategia bat baino gehiago garatu daitekeela:

“There are three possible alternative strategies for reversing language Shift (RLS) efforts. One is ‘shoot for the moon!’. Another is ‘anything is better than nothing’. The third is ‘the right step at the right time’”(Fishman, 2001: 474).

Fishmanek hirugarrenaren alde egiten du, hau da, lehentasunezkoak diren funtzioak eta testuinguruak identifikatu behar direla dio. Horrekin batera, Fishmanek gaineratzen du, garrantzitsua dela epe labur zein luzera jarraitu beharreko urratsak eta egin beharreko ahaleginak planifikatzea, “In addition to initial self-reliance, another basic prerequisite for RLS-success is that of the proper sequencing of efforts” (Fishman, 1991: 111). Fishmanentzat ezinbestekoak dira gertuko komunitatera, alegia familia, auzoa eta hurbileko harremanetara zuzenduriko interbentzioak, estrategiak eta ekintzak. Hedabideak, berriz, kasurik onenean ere, komunitate birtuala sortzen dutela gaineratzen du,

“Neighbourhood and community events and activities are real neighbourhood life and they feed back to one’s real family immediately. Media, at best, only creates a ‘virtual’ community (...)” (Fishman, 2001: 474).

Fishmanen ustez, hortaz, hedabideen zeregina komunitate birtuala sortzera mugatuko litzateke, zuzenean elkar ezagutzen ez duten kideez osatutako komunitateak sortzera, alegia. Baina hala izan arren, existitu existitzen dira, ez dira irrealak edo garrantzirik gabekoak, eta neurriren batean Benedict Anderson egileak plazaratutako “komunitate irudikatuen” pareko direla baieztatu dezakegu (Anderson, 1993). Izan ere, Andersonen arabera “irudikatuak” dira partaideek ez dutelako aurrez aurre ezagutzen, baina, aldi berean, partekaturiko elementuren baten gainean eraikitako komunitateak dira, adibidez, kultura baten gainean eraiki direnak. Eta gurera ekarrita, partekaturiko elementua edo ezaugarria hizkuntza izan daiteke.

Fishmanek planteatzen duen ereduaren ezaugarrietako bat linealtasuna da, eta jakin badaki horrek nolabaiteko kontraesana eragiten duela. Izan ere, egileak aitortzen du gizakion bizitzak eta gizartearen funtzionamenduak ez dutela logika linealik jarraitzen, “Stages are linear and human lives and societal functioning are not” (Fishman, 2001: 476). Aitorpen horrekin batera, Fishmanek baieztatzen du hizkuntza baten biziberritzeari heltzeko orduan, kontuan hartu behar direla zeintzuk diren hizkuntza hori txertatuta dagoen komunitatearen arazoak, baliabideak, helburuak eta asmoak. Horren arabera, gerta daiteke hizkuntzaren biziberritze-prozesuak mailaz mailako ibilbide lineala egin beharrean, bestelakoa burutzea; mailak elkarren artean aldi berean teilakatzen dituen ibilbidea zenbait kasutan. Horixe litzateke, esaterako, euskararen kasua:

“The process followed for the recovery and normalisation of Euskara has not been entirely linear, but rather spiral, and with some overlapping. That is, goals corresponding to different stages on the GIDS model have been pursued simultaneously” (Azurmendi, Bachoc eta Zabaleta, 2001: 257).

Ñabardurak ñabardura, arestian esan bezala, Joshua Fishmanen 1991eko lanak abiapuntua jarri zien ondoren hizkuntza gutxituen inguruan mamitu ziren beste hainbat ekarpeni; horien artean dira, noski, hizkuntza gutxituak eta hedabideen arteko harremana edota hizkuntza gutxituen garapenean hedabideek betetzen dituzten funtzioak aztertzeari ekin zioten lanak.

1992an, Stephen H. Rigginsen *Ethnic Minority Media: An International Perspective* kaleratu zen. Izenburuan ez dira hizkuntza gutxituetako hedabideak aipatzen, baizik eta gutxiengo etnikoen hedabideak. Hala ere, lanean biltzen diren saioen edukiari erreparatuta, behin eta berriz nabarmentzen da kontu bikoitza. Batetik, hedabideak faktore garrantzitsua direla, ez bakarra³⁵, gutxiengoaren biziraupena ziurtatzeko eta bestetik, gutxiengoek beharra dutela berezko balioak eta kultura

³⁵.- Rigginsen lekukoa hartuko duen Donald Browne egileak ere beste horrenbeste defendatuko du. Honelaxe dio Brownek: “The preservation or restoration of a language, and a culture in a larger sense, is not the task of the media alone” (Browne, 1996:7).

hedabideetan euren hizkuntzan adierazteko. Horri Riggins-ek *“the media imperative”* deituko dio.

“What better strategy could there be for ensuring minority survival than the development by minorities of their own media conveying their own point of view in their own language?” (Riggins, 1992: 3).

Rigginsen arabera, gutxiengo etnikoen hedabideek ekarpenak egiten dituzte hainbat arlotan. Besteak beste, hiztunen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko balio dute, baita hizkuntza bera modernizatzeko ere. Aldi berean gaineratzen du, hizkuntza gutxituak hedabideetan erabiltzeak hizkuntza horiek publikoki balioestea dakarrela eta hori bereziki garrantzitsua dela gazteei begira.

“ (...) ethnic minority media are making a substantial contribution to the continued survival of minority languages. The skills of imperfect speakers are improving, languages are being modernised by the addition of new technical vocabulary related to contemporary life (...) The public validation of minority languages by their use in the media is important for their survival especially in the eyes of the young who would be most tempted to speak exclusively the majority language” (Riggins, 1992: 283).

Riggins jakitun da hedabideek dituzten mugez. Horregatik aitortzen du gutxiengo etnikoen hedabideek epe luzera ez dutela lortzen minoritarioa den kulturaren erabateko babesa edo zaintza, baizik eta neurri batekoa; bere hitzak erabiliz *“some moderate degree of preservation”* (Riggins, 1992: 276).

Edozein kasutan, Rigginsen ikuspegitik gutxiengoaren biziraupen edo zaintza zeregin horretan eraginkorra izateko oso kontuan hartzekoak diren bi faktore daude; batetik, testuinguru politikoa, geroago argitaratuko diren beste lan batzuetan ere azpimarratuko den faktorea (Cormack, 1998; May, 2001) eta bestetik, hedabideen kontrola. Rigginsen ustez, *“(...) it is essential for minorities to have full control over the financing and administration of their own media”*(Riggins, 1992: 285).

Kontrol osoa, erabatekoa izatea, beraz, funtsezkoa litzateke. Horren zergatia ulertzea erraza da, kontuan hartzen bada, Denis McQuailen ekarpenari jarraituz (McQuail, 2000: 28), hedabideen izaerak lau aurpegi dituela; funtzio bezala irakurri edo interpretatu daitezkeen lau aurpegi:

- botere-baliabidea dira; hots, gizartearen kontrolerako, berrikuntzarako eta gizartean eragiteko baliabide dira; gizartearen erakunde gehien funtzionamendurako ezinbestekoa den informazioaren oinarritzko iturri eta transmisio-bide direlako.
- bizitza publikoaren gai, arlo asko garatzen direneko plaza, esparrua dira.
- errealitate sozialaren irudi eta definizioen iturri garrantzitsua dira. Era berean, gizataldeen eta gizarteen kultura eta balio aldakorrak modurik agerikoenean eraikitzen, biltzen eta adierazten diren tokia dira.
- publikoa eta ordenatua den esanahi-sistema baten jatorria dira, eredu “normala” zer/zein den zehazten eta eskaintzen dute, eta eredu horretatik diren desbideratzeak seinalatzen dituzte.

Adierazitakoak adierazita, logikoa da Rigginsen, hizkuntza gutxituko komunitateko kideek hedabideen gain izan beharreko kontrolari berebiziko garrantzia ematea.

Stephen H. Rigginsen lanak hizkuntza gutxituetako hedabideen ikerkuntza-arloa nondik nora eraiki zitekeen identifikatzeko oinarriak jarri zituela dio Mike Cormack ikerlari eskoziarrak (2007). Cormackek hamaika artikulua idatzi ditu hizkuntza gutxituetako hedabideena ikerketa-arlo berezitu gisa aldarrikatzeko, “minority language media studies should be seen as a distinct area of study, overlapping with but separate from both minority language studies more generally, and media studies” (Cormack 2004: 3).

Urteak joan urteak etorri, egun baieztatu daiteke hizkuntza gutxituetako hedabideen ikerkuntza ez dela dagoeneko tradizio luzeagoa duten beste arlo batzuetako³⁶ txoko txiki eta iluna baizik eta nortasun eta ezaugarri propioz, bereiziz jantzita dagoen ikerkuntza-arloa da; hedabideen eta hizkuntza gutxituen arteko harremanaren ertz guztiei heldu eta horiek ulertzera iristeko ahalegina egiten duena. Hortaz, nortasun, agenda eta ekarpen propioak dituen ikerkuntza-arloa da.

³⁶ .- Esaterako, hedabideen ikerkuntza-arloa, kulturarena edo ikerkuntza soziolinguistikoa.

2.1.2.3. HEDABIDEAK HIZKUNTZA GUTXITUEN BIZIBERRITZE-PROZESUAN

Hedabideak gizakumeon ekoizpenak izatez gain, txertaturik dauden gizartearen, komunitatearen ispilu eta leiho ere badira. Hizkuntza-komunitatearen barrura zein kanpora begira zeregin garrantzitsuak betetzen dituzten tresnak dira. Ideia hori garatzen duen zita batekin emango zaio hasiera hedabideek hizkuntza gutxituen biziberritzean izan dezaketen zeregina lantzeko helburua duen atal honi.

“Hedabideak dira, gaur egun, hizkuntzaren barne bizitza eta kohesioa erakusteko tresnarik eraginkorrenetakoak. Hizkuntz komunitate baten partaideen kultura ekoizpenak argira ateratzeko leihoak, hizkuntzaren beraren bizitasunaren isla, munduarekin komunitate horrek nahi duen harreman motaren neurtzaileak, eta, batez ere, hiltunen arteko hartu emanaren sakontasun eta mailaren ziurtagiriak. Hedabideen bidez komunitateek elkarren berri izaten dute, eta hedabideen bidez haien buruaren berri ematen diote munduari. Hedabideen garrantzia, horregatik, funtsezkoa da hizkuntzen berreskuratze prozesuetan. Leiho zabal bat direlako: hor ikusten dugulako gure aurpegia, eta hor ikusten gaituztelako” (Garabide, 2012: 11).

Garabide elkarteak³⁷ 2012an aurkeztu eta argitaratu zituen hitz horiek edozein hizkuntzatan, izan hegemonikoa zein gutxitua, ari diren hedabideentzat balio dute; baina agerikoa da ikerketa honek darabiltzan objektu eta helburuei begira duten lotura eta balioa.

Denboran zehar hizkuntza gutxituetako hedabideen inguruan ekoiztu diren lan akademikoen errebasoak (Browne, 1996; Cormack, 1999; Kelly-Holmes, 2001) agerian uzten du oinarri oinarrian galdera bati erantzuteko nahia, borondatea dagoela: nola erabili daitezke hedabideak hizkuntza biziberritzeko, nola lagundu diezaiokete hedabideek hizkuntza gutxitu bati. Beste modu batean adierazteko, nolako zeregina dute hedabideek hizkuntza baten biziberritze prozesuan. Cormacken hitzak erabiliz:

“How development and use of the media by minority language community actually helps language maintenance, how it might encourage people to speak a specific language when the dominant

³⁷ .- Garabide elkarte euskalgintzaren eta hizkuntza gutxituak dituzten munduko beste komunitateen arteko zubilana egiteko, lankidetzaz sustatzeko sortu zen. Garabidek 2012ko otsailaren 14an aurkeztu zituen Andoainen *Hedabideak. Euskararen berreskuratzea III* izenburuko liburua eta dokumentala. Lanotan hedabideek hizkuntzaren biziberritzean izan dezaketen eragina eta garrantzia da aztergai.

social, economic and political structures (not to speak of the media themselves) all work in favour of a different language” (Cormack, 2013: 256)

Eta *how*, nola galderari erantzuteko hizkuntza gutxituetako hedabideek hizkuntza normalizazioari³⁸ begira onuragarriak izan daitezkeen zereginak, funtzioak bildu eta azaltzeari ekin diote han, hor eta hemen egin diren azterketek. Horien artean lehenengoetarikoa³⁹, lehena ez bada, Donald Brownek egindakoa da. Egile honek ere, Rigginsekin ikusi bezala, ez du hizkuntza gutxituetako hedabideak kontzeptua erabiltzen, baizik eta “*indigenous media*” kontzeptua. Edozein kasutan, Brownek dio horiek zazpi helburu izan ditzaketela: (1)hizkuntza berreskuratu, (2)norberaren estima, konfiantza handitu, (3)irudi ezkorren aurka egin, (4)kohesioa landu eta horren bidez politikoki eragin, (5)gizarte indigenari ikus-entzunezko sinboloa eskaini, (6)sormenezko ekoizpenei irteera eskaini eta (7)enplegu-iturri izan (Browne 1996: 59). Esan beharrik ez dago zerrendan bildutakoez gain, hizkuntza gutxituetako hedabideek bere gain hartzen dituztela gutxituak ez diren hizkuntzatan ari diren beste edozein hedabideri egokitutako zeregin edo funtzio klasikoak ere; hala nola, funtzio informatzailea, interpretatzailea eta entretenimendu-funtzioa.

Brownek arestian azpimarratutako ekarpena duela bi hamarkada egin zuen eta urte berean, gure inguru hurbilean, Jon Sarasuak ere euskarazko prentsaren funtzioaz hausnartu zuen,

“Euskarazko prentsak funtzio garrantzitsua betetzen du hizkuntz komunitatean. Euskal Herri mailako hedadura eta lotura mantentzen duen elementu apurretako bat da, Bestetik, euskaraz bizitzea posible egiten duen ezinbesteko elementua” (Sarasua, 1996: 26).

³⁸ .- Ikerketa hau burutzeko hedabideen eta hizkuntza gutxituen arteko harremanak aztergaitzat hartu dituzten hainbat lan erabili ditugu. Horietan, lanaren arabera, normalization, revitalization edo preservation hitzak ageri dira. Gurean ideia bera garatzeko sinonimo gisa kontsideratu ditugu; hortaz, batzuetan hizkuntzaren normalizazioaz eta beste batzuetan biziberritzeaz arituko gara.

³⁹ .- Lehenengoetarikoa hizkuntza gutxituetako hedabideei dagokienez. Izan ere, *Mass Communication Researchen* barruan hedabideek betetzen dituzten funtzioei buruzko lanek askoz tradizio luzeagoa dute, lehenagokoak dira; XX. mendearen lehen laurdeneako.

la hogei urte geroago, 2013an, Sarasuak berriro heldu zion gaiari. Euskarak eta euskaltasunak bost hamarkadatan jorratu duen norabideari buruzko gogoeta egin zuen *Hiztunpolisa* izenburuko lanean eta bertan hedabideen zereginaren garrantzia nabarmendu zuen.

“Bost hamarraldiotako gorabide batzuk azaltzean, hedabideen gaia ezinbestean sortzen da. Aurrera begira ere, hala izateko itxura du: hedabideak hizkuntzaren bizi-indarra berritzeko ahalegin-lerro nagusietakoa izango dira. Hedabideek duten pisu soziala nabarmena da. Ez dago argudiatu beharrik hizkuntza bat hedabideetan sendotzea gizartean sendotzea dela” (Sarasua, 2013: 311).

Brownek eta Sarasuak adierazitakoak erakusten du hizkuntza gutxitua duen komunitate batentzat zein garrantzitsua den hizkuntza horretan ari d(ir)en hedabidea/k izatea. Garrantzitsua ikuspuntu sinboliko batetik eta ikuspuntu praktiko batetik. Ideia bera argiro laburbiltzen da Elin Haf Gruffydd Jones ikerlariari hartu diogun ondoko aipamenean:

“Having access to communication media in one’s own language can simultaneously be symbolic of the very essence of the struggle to ensure the future survival of the language in the modern world and provide a practical tool to enhance communication opportunities through the medium of that language and hence add to its use and usefulness” (Jones, 2007: 188).

Arestikoaren antzekoak diren beste hainbat baieztapen aurkitu daitezke hizkuntza gutxituak aztergaitzat hartu dituzten egileen lanetan; horren adibide, esaterako, David Crystal hizkuntzalaria. Berak beti defendatu du hedabideek funtsezko zeregina betetzen dutela hizkuntza gutxituen biziberritze-prozesuetan. Crystalen ustez, hizkuntza gutxitua duen komunitate batentzat hizkuntza horretan jarduten duten hedabideak eskuragarri izatea erabakigarria da hizkuntzaren heriotza saihesteko: “(...) obtaining access to the media (traditionally, the province of the dominant culture) is critical” (Crystal, 2000: 130).

Beste horrenbesteko garrantzia eskaintzen diote Félix Martí eta lankideek hedabideen zereginari:

“The media are one of the most powerful instruments for standardizing, changing or consolidating languages and cultural identities. Present in the landscape, and in the intimacy of every home, they shape values, attitudes and even identities, like a fine rain that eventually penetrates the being’s every pore” (Martí et al., 2005: 181).

Izan ere, hedabideak, izan hizkuntza nagusian zein hizkuntza gutxituetan ari direnak, gizabanakoon gizarteratze edo sozializazio-prozesuaren funtsezko agente direla kontsideratzen da. Beste era batera esanda, hedabideak dimentsio anitzekoa, epe luzekoa eta oso konplexua den gizarteratze prozesuko funtsezko agente lirateke. Prozesu horretan gizarteko kide bezala jokatzeko beharrezkoak ditugun ezagupenak, esperientziak eta praktikak eskuratzen ditugu (Perse, 2001; McQuail, 2005). Eta ez dezagun ahaztu aipatu gizarteratze-prozesua nagusiki hizkuntza bidez gertatzen eta garatzen dela; hortaz, agerikoa da hedabideek zeregina dutela norbanakoon gizarteratzean eta hizkuntzaren sozializazioan. Bietan eta aldi berean. Hortik erraz ondoriozta daiteke testuinguru elebidunetan hizkuntza gutxituetako hedabideak izateak hizkuntzarentzat berarentzat duen garrantzia.

Hizkuntza gutxituetako hedabideek lehenbizi hizkuntzaren beraren presentzia eta erabilera bermatzen dute. Are gehiago, terminologia berria lantzeko eta hizkuntzaren estandarizazioa sustatzeko tresnak dira (Hourigan, 2001; Pietikäinen, 2008). Gogoan izan behar da hizkuntzari dagokionez hedabideek perfil hirukoitza dutela: “(...) media carry language. They also operate through language. And furthermore, they develop language” (Moring, 2007: 17). Presentzia eta erabilera ziurtatzearekin batera prestigioa, estatusa ematen diote hizkuntzari (O’Connell, 2004; Williams, 2005). Prestigioa bi norabidetan: hiztun direnei begira, hau da, komunitate barrura begira eta kanpora begira ere bai, hiztun ez direnei begira, hain zuzen. Hala ondorioztatu du, esaterako, BBC ALBA telebista kateari buruz egindako ikerketa batek⁴⁰: “BBC ALBA helps to affirm the *contemporary relevance and presence* of Gaelic

⁴⁰ .- 2003an ikerketa bat egin zen 1.020 elkarrizketa burutuz. Horietatik %43k uste zuen gaelikoa ez zela baliagarria gizarte garaikidean, hizkuntzak ez zuela erabilgarritasunik. Lan honen ondorioen arabera, berriz, BBC ALBA kateak gaelikoaren garapenari egin dion ekarpen garrantzitsuena ondokoa litzateke: gizarte eskoziarrari erakutsi dio gaelikoak erabilera garaikidea duela (Chalmers et al., 2013).

in Scotland to both users and non-users alike” (Chalmers, 2013: 218). Beste horrenbeste erakutsi da hizkuntza gutxitua duen hainbat komunitatetan egin diren ikerketek; adibide bat aipatzearen Sami hizkuntza darabilen komunitatean egindako lanak (Markelin, 2013). Hizkuntza gutxitua darabilen hedabiderik ez dagoenean, ordea, hizkuntzak ez du presentziarik, ikusezin bilakatzen da. Hala gertatzen da, esaterako, quichuera hizkuntzarekin, hiztun kopuruari begiratuta, 10 milioi hiztun inguru dituen arren, ez da apenas erabiltzen hedabideetan.

Hizkuntza gutxituetako hedabideek bete ditzaketen zereginei dagokienez, aipagai da, zalantzarik gabe, Mike Cormackek egindako ekarpena. Horretan sakondu aurretik, esan beharra dago Cormackek bi aurpegi dituen errealitate gisa ikusten duela hedabideen eta hizkuntza gutxituen arteko harremana. Berak dioenez, pentsa daiteke hizkuntza gutxituetako hedabideek hizkuntza babesteko izan dezaketen zeregina bistakoa, nabaria dela; baina gaineratzen du bistakoa, logikoa dirudien zeregin horren egiaztatze enpiriko gutxi dagoela. Ez hori bakarrik, Cormackek baieztatzen du hedabideak hizkuntzaren biziberritze-prozesuan lagungarri direla defendatzeko argudioak dauden modu berean, badirela aipatu biziberritze-zereginerako balio ez dutela defendatzen duten argudioak ere. Eta argudio batzuk eta besteak parean jarri ezkerro, azken ondorioa, balantzan zein den garaile, ez dela hain argi geratzen dio Cormackek.

Mike Cormackek hizkuntza gutxituetako hedabideak sortzeko eta garatzeko beharrezkoak diren zazpi baldintza ezarri zituen XX. mendearen hondarretan (Cormack, 1998):

1.- Lehen baldintza hizkuntza gutxituaren erabiltzaile kopurua litzateke. Cormacken arabera, errentagarritasunaren ikuspegitik milioi bat hiztun beharko lirateke; baina gaineratzen du babes politiko nahikoa dagoenean, kopuru txikiagoekin ere aukera izan dezaketela hizkuntza gutxituetako hedabideek. Deigarria da zenbait urte lehenago Abram de Swann ikerlariak kopuru bera aipatu zuela, baina ez hedabideak sortzeko, baizik eta hizkuntza bat bideragarria izan dadin (De Swann, 1991: 310). Esan beharrik ez dago hizkuntza gutxitu asko eta asko, aipatutako hiztun kopuruaren azpitik daudela.

2.- Bigarren baldintza hizkuntza gutxituetako hedabideen aldeko kanpaina masiboak edo, gutxienez, babes zabala izatea litzateke. Cormacken arabera honako hau beharrezko baldintza da, baina ez nahikoa.

“It is necessary because it is a political matter and without clear demonstration of political pressure no changes will be made, but it is not sufficient because in contemporary societies, numbers alone do not make political changes. The contemporary political system is too complex for a minority group to gain success simply by pressure of numbers. For numbers to become really significant, alliances would have to be made with other groups, such as other minority language communities, or groups who accept the symbolic importance of the language” (Cormack, 1998: 40).

3.- Lidergoa eta antolaketa litzateke hirugarren baldintza. Cormacken ustez, lider indartsuek, harreman publikoei eta hedabideei buruzko ezagutza dutenak eta ondo antolatutako taldeek gaitasun bikoitza izango lukete. Batetik, hizkuntza gutxituetako hedabideen aldeko arreta erakartzeko gai dira eta bestetik, horien sorreran eragiteko gaitasuna ere izango lukete.

4.- Estatuaren kultura edo egitura politikoa. Cormacken arabera, hizkuntza gutxituetako hedabideak sortu eta garatzeko aukera gehiago daude egitura federala duen Estatuetan edo lurralde autonomoetan antolatuta daudenetan, izaera zentralista duten Estatuetan baino.

5.- Gobernu zentralaren ahultasun politikoa. Zenbat eta ahulagoa izan gobernu zentrala, orduan eta paktatzeko behar handiagoa izango du. Ondorioz, aukera horretaz baliatu daitezke lurralde autonomoak zein eskualdeak. Esandakoa azaltzeko Cormackek Espainian, Francoren heriotzaren ondoren gertatutakoa gogorarazten du.

“Spain after the death of Franco was a weakened central state, with resurgence from the regions, and so the central government was unwilling to attack regional aspirations too much. In this situation media provision in languages such as Basque, Catalan and Galician became quite explicit a political issue” (Cormack, 1998: 41).

6.- Hizkuntzaren estatus sinbolikoa. Hizkuntzak diskurtso nazionalistekin duen loturaz edo diskurtso horiek babesteko duen balioaz ari da Cormack, baita hizkuntza gutxitua ez dakitenentzat ere. Hala gertatzen denean, lotura edo gaitasun hori dagoenean, "(...) it is likely to gather support from non-speakers and to gather around it a political rhetoric which adds to the pressure" (Cormack, 1998: 41).

7.- Nazioarteko joerak edo nazioarteko testuingurua, esate baterako, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna bezalako agiriak izatea, edota Galeseko S4C, Kataluniako TV3 eta Euskal Herriko ETB gisako ereduak izatea. Horiek, Cormacken arabera, nazioartean eragina izan dezaketen adibideak lirateke.

Baldintza guztiak kontuan hartuta, erraz ondoriozta daiteke hizkuntza gutxituetako hedabideen sorrera eta garapenerako eszenatokirik onenak zein ezaugarri bildu beharko lituzkeen: hizkuntza gutxituaren erabiltzaile kopuru esanguratsua, hizkuntza gutxituetako hedabideen aldeko kanpaina masiboak, eragiteko gai den lidergo argia eta sendoa, egitura politiko deszentralizatua duen Estatua, hizkuntza identitatea nazio-identitateari loturik izatea, eta nazioarteko testuinguruak kultura eta hizkuntza aniztasunari buruzko hausnarketa sustatzea. Ezaugarri horiek guztiak aldi berean gertatu ezker, hizkuntza gutxitu batek aldapa arinagoa gainditu beharko luke bere hedabideak sortu eta garatzeko bidean.

Hedabideek hizkuntza gutxituak babesteko izan dezaketen rolari dagokionez, Cormackek lau zeregin nagusi bereizten ditu. Hedabide elektronikoei egokitutakoak badira ere, argi dago edozein euskarritan ekoiztutako hedabideentzat balio dezaketela.

1.- Hedabideek zeregin sinbolikoa dute, hau da, hedabideek balio dezakete erakusteko hizkuntza gutxitua eta berau erabiltzen duen komunitatea mundu garaikideak ezartzen dituen baldintza modernoetara egokituta daudela eta bertan funtzionatzeko gai direla.

2.- Bigarrenik, hedabideak ekonomiaren pizgarri eta enplegu berrien iturri ere izan daitezke.

3.- Hirugarrenik, kontuan hartuta gizakiak hedabideen bidez eskuratzen duela gizarteko hainbat arlotan, politikoa esaterako, parte hartzeko behar den informazioa, hedabideak eremu publikoaren sortzaile ere izan daitezke.

4.- Eta azkenik, zeregin representatiboa edo ordezkatzailea izan dezakete, hau da, komunitate bateko kide izatearen esanahia gorpuztu dezakete.

- (1) “The electronic media can have an important symbolic role for language communities, a signal that the language and the community are able to cope fully with the contemporary world, rather than being simply part of an outdated heritage;
- (2) They can provide real economic boost, including attractive career prospects for young people who want to work in the minority language;
- (3) They are important in developing a public sphere within a language community which allows a political community to develop and indeed allows the community to develop its own news agenda; and
- (4) They are important in relation to how the community is represented both within itself and to outsiders” (Cormack, 2004: 4).

Cormackek aipatzen duen laugarren zeregina taldearen nortasuna definitzeari lotzen zaio. Asko dira hedabideak talde-nortasunen eraikuntzan funtsezko eginbeharra dutela aldarrikatu eta defendatzen duten egileak. Gure inguru hurbilean, hala egiten du, adibidez, Josu Amezagak. Bere hitzetan, hedabideek talde-nortasunak eratzeko duten indarra hiru dimentsiotan agertzen da:

“Batetik, komunikabideak taldea definitzen duten ezaugarri objektiboen hedatzaile dira; bestetik, komunikabideek eremu publikoaren euskarria ematen dute; azkenik, komunikabideak ikur hedatzaile garrantzitsuenak dira” (Amezaga, 2009: 48).

Amezagak gaineratzen du hedabideek talde-nortasuna eratzeko duten rola ulertzea lagungarri izan daitekeela, hizkuntzak berak duen rola ulertu eta azaltzeko.

“Batetik, komunikabideen osagai lehenetsia baita hizkuntza; bestetik haiek bezala hizkuntza ere talde nortasunaren eraikuntzako hiru dimentsiotan agertzen baita: taldea zedarritzen duten ezaugarri objektiboak hedatzen ditu (kultur transmisoreaz gain bera ere ezaugarri objektiboa da); ikurrak hedatzen ditu (kontzeptuak); eta harremanetan jartzen ditu hiztunak (hizkuntza komunitatea)” (Amezaga, 2009: 49).

Amezagaren planteamendua erraz lotu daiteke Mike Cormackek ematen duen hurrengo urratsarekin. Funtzioak zehaztu ondoren, egileak dio hedabideek hizkuntza gutxituaren erabilera suspertu dezaketela zenbait ezaugarri betetzen dituztenean, besteak beste, izaera partehartzailea, hiztun-komunitatearekiko lotura sendoa eta hiztunei hizkuntza gutxitua duen komunitateko kide bezala identifikatzeko arrazoiren bat eskaintzea.

“Media seem most likely to encourage language use when they are strongly participative, strongly linked to communities (whether territorial or diasporic) of language speakers, and when they can give people a reason for adopting, or asserting, the identity of being a minority language speaker” (Cormack, 2007: 66).

Horraino txanponaren alde bat, baina aldi berean, lehenxeago aurreratu bezala Cormackek txanponaren beste aldea ere ikusten du; alegia, hedabideen eragina ez dela beti uste den edo aldarrikatu den bezain garrantzitsua eta onuragarria hizkuntza gutxituari erreparatuta, bereziki hizkuntza gutxituaren erabilera areagotzeari dagokionez. Cormacken hitzak erabiliz: “(...) it is not all clear how much the presence of a minority language actually encourages people to speak the language” (Cormack, 2007: 57). Egile honen iritziz, izan daiteke hizkuntza gutxituetako hedabideen eragina gainbaloratuta egotea. Hori dela eta, Cormackek dio oso kontuan hartzekoa dela hizkuntza gutxituaren hiztunak elebidunak direla (gutxienez) eta, horrez gain, polikontsumitzaileak izaten direla, hau da, ez dutela bakarrik irakurtzen/entzuten/ikusten/erabiltzen hizkuntza gutxituan ekoiztutako hedabideak. Hortaz, etxe batean hizkuntza gutxitua darabilen telebista ikusteak, esaterako, ez du ziurtatzen familia horrek ikusitakoari buruz zein beste edozein konturi buruz aritzeko hizkuntza gutxitua erabiliko duenik. Hori horrela bada, Cormackek ondokoa dio:

“Any calculation of minority language media impact must take this into account. In addition, it should not be assumed that the popularity of specific media content (such as a television programme) leads automatically to more use of the language in which the programme is made. It is not difficult to imagine a situation in which a very popular programme in a minority language is talked about most commonly in the majority language (music programmes aimed at teenagers may well fall into this category)” (Cormack, 2007: 57-58).

Esandakotik abiatuta, Cormackek zalantzan jartzen ditu ontzat hartu eta hedatu diren bi uste. Batetik, zenbat eta eduki gehiago izan hizkuntza gutxituetako hedabideetan orduan eta hobe hizkuntzaren berreskurapenerako defendatzen duen ustea. Cormacken iritziz, hori ez dago bat ere argi telebistaren kasuan:

“It is unlikely that television itself would bring more people to the language. It is also not clear that it makes people talk more to each other in the language, nor that it keeps children in the language—particularly the crucial (for language maintenance) mid-teens to mid-twenties category”. (Cormack, 2007: 58).

Eta bestetik, zalantzan jarriko duen bigarren ustea ondokoa da: zenbat eta zabalagoa izan hizkuntza gutxituko hedabideen eskaintza, orduan eta hobe hizkuntza gutxituarentzat. Cormackek dio hedabide desberdinak lehia direnean edota edukiak biderkatzen direnean, euren eragina ez dela batzen, ez dela metagarria. Horri, gainera, *new media* delakoek ekarri dutena gehitu beharko litzaiokeela dio. Izan ere, digitalizazioak aukera berrien mundu baterako ateak zabaltzen dizkie hizkuntza gutxituei, baina aldi berean, ia mugarik gabe biderkatu ditu beste hizkuntza batzuetan eskuragarri dauden hedabideen eskaintza. Ondorioz, “While the amount of minority language media content goes up, the percentage share of the minority language within the overall media offer goes down” (Cormack, 2007: 59).

Dena den, Cormackek uste du ezin dela baieztatu hizkuntza gutxituetako hedabideek hizkuntza gutxituei mesederik egiten ez diotenik. Arazoa da, dio Cormackek, gaur gaurkoz ez dakigula hedabideek nola sustatu dezaketen hizkuntza gutxituaren erabilera:“(…) at the moment, we simply do not know enough about how the media might encourage minority language use in a bilingual situation” (Cormack, 2007: 66).

Zalantzak zalantza, ekarpenak ekarpen, eta funtzioak funtzio, hizkuntza biziberritze-prozesu arrakastatsuek aztergai hartu dituzten hainbat lanek erakutsi dute prozesuan hainbat faktorek eragiten dutela, ez soilik hedabideek. Stan J. Anonby egileak bost faktore ezinbesteko ezartzen ditu: “(…) a sense of group solidarity, immersion language teaching environments, literacy, the use of mass media and the development of a sufficiently large group of speakers” (Anonby, 1996: 36). Hortaz,

hedabideak beste eragile batzuekin batera ari dira. Ez hori bakarrik, hedabideak testuinguru sozial eta politiko zehatzean ari dira, gizarte batetik bestera aldakorra den testuingurua. Eta horretantxe, jarriko dute azentua zenbait egilek, hurrengo atalean ikusiko den bezalaxe.

2.1.2.4. GIZARTE- ETA HEDABIDE-TESTUINGURUAREN GARRANTZIA GLOBALIZAZIOAREN GARAIAN

Mike Cormackek defendatzen duen ikuspuntua hartuko da berriro abiapuntu hedabideen eta horiek kokatzen diren testuinguruaren arteko harremana jorratzeko. Cormacken esanetan, gaur egun modu berritzailean edo ikuspegi berritzaile batetik ekin behar zaio hizkuntza gutxituetako hedabideek hizkuntzaren biziberritzean izan dezaketen zereginaren ikerketari. Hedabideen eta audientzien arteko harremana arakatzera mugatzen den ikuspegia gainditu beharko litzatekeela dio, eta horren ordez, erdigunean jarri beharko liratekeela hartzaileen arteko interakzioak eta horiek garatzen direneko testuingurua. Labur esateko, ikerketaren abiapuntua, ondoko oinarritzko galdera izan beharko litzateke:

“In what ways can different media interact with other aspects of language use to contribute, directly or indirectly, to language maintenance in specific communities?” (Cormack: 2007: 62).

Galdera horrela planteatuta, ezinezkoa izango da erantzun orokorrak ematea, gerta daitekeelako hizkuntza gutxituko komunitate batentzat baliagarria dena beste batentzat ez izatea. Zergatik? Bataren eta bestearen testuinguru sozial eta politikoak desberdinak direlako. Eta Cormacken arabera, arreta berezia jarri behar zaio testuinguruari; “ (...) in any specific discussion of minority language media careful attention needs to be given to the specific context”(Cormack, 1998: 48-49). Eta horri gaineratzen dio “(...) that central to any discussion of these media must be consideration of the political environment”. (Cormack, 1998: 49).

Testuinguru sozial eta politikoari, horiek duten garrantziari, hirugarren testuinguru bat gehitu beharko genioke: hedabideen testuingurua. Hizkuntza gutxituan dagoen esparru komunikatiboaren aberastasun-mailaz ari gara, horrek duen neurri

kuantitatiboaz eta kualitatiboaz. Hau da, hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideek hizkuntzaren biziberritzean modu proaktiboan jokatzeko, lagungarriak, eraginkorrak izateko, ezinbesteko baldintza litzateke hedabideen eskaintza (kuantitatiboa eta kualitatiboa) nahikoa, osatua izatea. Tom Moringek argi dio:

“If the conditions that allow the media to serve daily language use are to be met, the media landscape in the minority language must be rich enough to provide speakers with a relevant selection of diverse and qualitatively competitive content”(Moring, 2013: 44).

Ondorioz, hizkuntza gutxitua presente baldin badago hedabide-plataforma eta euskarri guztietan eta eskaintza aberatsa baldin bada, aberatsa zentzu kuantitatiboan eta kualitatiboan, eskaintza hori instituzionalki osoa dela baieztatu daiteke. Moringek erabilitako jatorrizko hitzetan: *institutionally complet* (Moring, 2007). Egoera horretan, hizkuntza gutxitua duen komunitateko kideek, hala nahi izan ezker, hizkuntza horretan eskuragarri duten hedabideen hornikuntzaz baliatu daitezke euren eguneroko jardunean. Eta presente izan behar da hizkuntza batek eguneroko jardunean duen erabilerak, arlo publikoan zein pribatuan duen erabilerak, baldintzatzen duela hizkuntza horren etorkizuna.

Moringen arrazoibidearen abiapuntua da edozein hizkuntzak, ez bakarrik hizkuntza gutxituak, osotasun funtzionala, *functional completeness* duela xede; hau da, hitzunek, hala nahi badute, hizkuntza horretan bizi ahal izateko aukera izatea, beste hizkuntza batzuetara jotzeko beharra izan gabe.

“This means that speakers of the language, if they so choose, can live their life in and through the language without having to resort to other languages, at least within the confines of everyday matters in their community. A necessary but not sufficient condition for such functional completeness is the *institutional completeness* of different providers of services and functions in a language, that is, that there are media platforms available in the minority language for each type of media”(Moring, 2007: 18-19).

Arestiko paragrafotik bi gauza interesgarri azpimarratu daitezke. Batetik, dagoeneko nabarmendu den hedabideen eskaintzari loturikoa; eta bigarrenik, osotasun funtzionala lortzeko bidean osotasun instituzionala (*institutional*

completeness) beharrezko baldintzat jotzen den arren, ez dela baldintza nahikoa. Zergatik ez da nahikoa? Instituzionalki osoa den hedabide-sistema bat izateak ez duelako ziurtatzen, ez duelako bermatzen hizkuntza gutxitua dutenek hedabide horiek erabiliko, kontsumituko dituztenik. Eta horrela izateak dagoeneko aurretik aipatu den (2.1.2.3. atalean) erronka dakar hizkuntza gutxituentzat, horien hiztunak gutxienez elebidunak direlako eta eskuragarri dutelako egunero berritzen doan hedabide-testuinguruko eskaintza ia mugagabea. Gainera, gizarte, politika, kultura eta teknologia eremuetako aldaketa-prozesuak barnebiltzen dituen globalizazioaren aroan, bi ezaugarri dituen hedabide-testuinguruan gaude murgilduta: hizkuntzari dagokionez, hedabide-testuinguru eleanitza da, eta bestetik, gero eta gutxiago dago lurralde fisikoari lotua:

“Modu generikoan globalizazio deitzen dugun fenomeno multzoari lotutako joera sozioekonomikoak (komunikazioen desarautze eta transnacionalizaziotik hasita migrazio jarioetaraino), bai eta informazioaren teknologien bilakaeratik eratortzen diren aldaketak (satelite zein internetetik hasita komunikazio mugikorretaraino), zera eragiten ari dira: komunikazio espazioak, oro har, gero eta gutxiago daudela lurralde fisikoari lotuta” (Amezaga, 2014: 50-51).

Arestian azaldutako egoera edo eszenatoki berriak eragin nabarmena du hizkuntza gutxituengan. Miquel Siguán soziolinguistak dioenez, gaur egun hizkuntza gutxitu baten biziraupen aukerak ez dira hizkuntza horrek lurralde berean dauden beste hizkuntza batekin edo beste hizkuntza batzuekin dituen harremanen arabera. Orain, mundu zabalean hizkuntza-portaeren gain eragiten duten zenbait faktore globalek baldintzatzen dituzte hizkuntza baten biziraupen-aukerak. Horien artean legoke globalizazioaren aroan hedabideek hartu duten dimentsio berria.

“En la actualidad los medios de comunicación, de los que Internet es el representante más significativo, permiten que una lengua esté presente en un territorio, e incluso ejercer una gran influencia, sin que estén físicamente presentes sus hablantes” (Siguán, 2001: 348).

Hala ikusita, batzuen ustez komunikazio garaikideen izaera globala mehatxu bilakatzen da ahulak diren komunitateentzat (ahulak ekonomiari, egitura politikoari zein hizkuntzari begira). Beste batzuen ustez, berriz, aurrera egiteko, garapenerako aukera-iturri litzateke.

“In a global age, despite being under threat in some respects, minority language communities have an opportunity for recognition and status, and thus development, which was seldom possible under the political conditions of large, homogenizing states. Central to this opportunity is the use of the media” (Cormack, 2000: 13).

Hedabideak, beraz, klabeak izan daitezke. Horiei erreparatuta, egungoa etengabeko aldaketa eta berrikuntza garaia dugu, hiru ezaugarri nagusi dituen garaia; lehenik, edukiak biderkatu eta transnazonalizatu egin dira; bigarrenik, termino kuantitatibotan neurtuta txikitu egin da hizkuntza gutxituen presentzia; eta hirugarrenik, aldatu egin da hartzailearen rola; izan ere, hartzaile-kontsumitzaile hutsa izatetik ekoizle eta banatzaile izatera igaro da. (Amezaga, Narbaiza, Arana eta Azpillaga, 2013: 246).

Horrekin batera, edota horren guztiaren ondorioz, hedabideen audientzia zatikatu egin da. Kopuruari dagokionez, masiboa izaten jarraitzen du, baina ezaugarri kualitatiboari erreparatuta gero eta zatikatuagoa bilakatu da. Globalizazioaren ondorioak eta komunikazioaren eta boterearen arteko harremanak luze eta zabal aztertu dituen Manuel Castellsen arabera (1997, 2005, 2009), gizakion egunerokoa baldintzatzen duten erabakiak, arlo ekonomiko, politiko zein kulturalari dagozkien erabakiak, gugandik urrun hartzen dira, eta ondorioz gizarte zibila ahulduta geratu da. Hedabideen arlora eramanda, berriz, Marshall McLuhanen “hedabidea/media da mezua” proposamen ospetsutik “mezua da hedabidea/media” izaterainoko jauzia egin dugula dio Manuel Castellsek:

“La audiencia se fragmenta cada vez más por las ideologías, los valores, los gustos y los estilos de vida. Por tanto, debido a la diversidad de medios y a la posibilidad de seleccionar a la audiencia, cabe decir que en el nuevo sistema de medios de comunicación *el mensaje es el medio*. Esto es, las características del mensaje determinarán las características del medio. Por ejemplo, si proporcionar el entorno musical de los adolescentes es el mensaje (muy explícito), MTV será diseñada de acuerdo con los ritos y el lenguaje de su audiencia, no solo en cuanto a su contenido, sino en toda la organización del canal y en la tecnología y el diseño de la producción/emisión de imágenes” (Castells, 2005: 412-413).

Gurera ekarrira, tokikoen kasuan esaterako, mezua baldin bada hizkuntza gutxitua duen komunitateko kideei gertuko informazioa bertatik bertara eskaintzea, eta horrekin batera, hizkuntza gutxituaren kontsumora erakartzea, horren normalizazioan aritzea; agerikoa da hedabidea bera, izan paperezkoa, ikus-entzunezkoa zein Internet bidezkoa, komunitate horri egokitutako ezaugarriekin pentsatua, diseinatua behar duela izan. Komunitate horren ezaugarrietara egokitua. Hau da, ikuspegi honi jarraituta, hedatu nahi den mezuak, edukiak baldintzatuko luke hedabidearen nolakotasuna. Eta mezuaren eta hedabidearen beraren ezaugarrien artean, zalantza barik hizkuntza dago. Beste horrenbeste azpimarratzen du Mike Cormackek:

“This suggests that minority language media content may well have to be rather different from conventional media content if it is to be designed to change or maintain people’s linguistic habits” (Cormack, 2007: 60).

Egoera honetan, Tom Moringek dio hizkuntza gutxitu bakan batzuk lortu dutela maila funtzional onargarria, aipagarria hedabideen arloan; horien artean legoke euskararen kasua⁴¹. Hala kontsideratuak izateko gutxieneko bezala ezartzen ditu hizkuntza gutxituan ari diren telebista kate bat, irrati estazio bat eta egunkari bat. Baina gutxienekora, minimora iritsi arren, Moringek gaineratzen du osotasun instituzionalera, *institutional completeness* delakora iristeko beste baldintza bat dagoela, alegia, aipaturiko hedabide bakoitzak hizkuntza nagusian eskaintzen den kalitate bereko zerbitzu osoa eskaintzea. Oso presente izan behar delako kasu gehienetan hizkuntza gutxituetako hedabideek pare parean dutela nagusi den hizkuntza hegemonikoa darabilen hedabideen eskaintza zabala eta hedakorra.

“A further prerequisite for institutional completeness is, however, that each of these platforms can provide at least one distinguishable full service alternative in the minority language of a quality that is at the level of the services available in the majority language” (Moring, 2007: 19)

Pasarte horretatik azpimarratzekoa da “each of these platforms” jarri izana. Moringen arabera, hedabide bakoitzak (irradiak, prentsak, telebistak eta Internet

⁴¹ .- Horrez gain, beste hizkuntza batzuen kasuak ere aipatzen ditu: katalana, alemana Tirol hegoaldean eta suediera Finlandian.

bidezkoak) ezaugarri eta funtzio bereizgarriak dituelako eta horregatik gaineratzen du “(...) for institutional completeness, minority language audiences would have to have access to them all in their own language” (Moring, 2007: 20).

Moringek irratiak, telebistak eta prentsak hizkuntza gutxituari begira dituzten bertuteak jasotzen ditu. *Uses and Gratifications* edo erabilera eta sarien teoriaren terminologiara joko bagenu, hedabide-mota bakoitzak zein behar asebetetzen duen, zein sari eskaintzen duen azaltzen du. Bere begikoa irratia da, zalantzarik gabe. Moringen esanetan, ikerketek erakutsi dute (Grin eta Moring, 2003b) irratiak efektu positiboak dituela ahozko hizkuntza estandarra garatzeko, baita hizkuntzaren estatusari dagokionez ere, eta horrez gain harremanetan jartzen ditu hizkuntza gutxitua duen komunitateko kideak, lurralde batean sakabanatuta⁴² egon daitezkeen komunitateko kideak. Telebistak berriz, esperientzia komunaren inguruan biltzen ditu gutxiengoak eta prestigioa eta ikusgarritasuna ematen dizkio hizkuntzari eta hizkuntza horretan garatzen den kulturari. Azkenik, prentsak irakurketaren pizgarri-balioa izateaz gain, zeregin klabea beteko luke komunitatea antolatzeko.

“The printed press is essential for daily stimulation in a reading culture. Where a local or regional press exists, the newspaper is also in a key role with respect to organising the community. Maintaining a presence that is physical in a different sense from the radio or the television programme (and also normally in comparison with a news page on the web), it is essential for the community’s short-term memory” (Moring, 2007: 21-22).

Azkenik, Interneti dagokionez, mugagabeak lirateke eskaintzen dituen aukerak eta geografikoki duen malgutasuna.

⁴² - Josu Amezagak dioenez “(...) hizkuntza gutxitu askoren arazoa izan da, historian zehar, hiztunen sakabanaketa hizkuntza hegemonikoaren hiztunen artean. Sakabanaketa honek arrazoi ezberdinak izan ditzake (populazioaren desplazamenduak, garapen ekonomikoari lotutako mugikortasun soziala, emigrazio zein inmigrazio handia, eta abar) eta arazo latza da bitartekotu gabeko komunikazio sareak eratzeko. (...) Euskararen kasura etorruta, populazio elebiduna populazio elebakarraren artean oso sakabanatuta dago” (Amezaga, 2014: 60-61). Errealitate hori aintzat hartuta, zenbait egilek uste dute hedabideak gai direla geografikoki sakabanatuta egon daitezkeen hiztunengana iritsi eta horien hizkuntza-portaeretan eragiteko. “As a medium of influence, media provision is able to reach minoritised language communities that are ‘geographically dispersed’ and, if it is able to alter aspects of economy, status and behavior, could therefore also be a powerful resource for reversing language shift” (Martí eta besteak, 2005: 182).

Hortaz, planteamendu honen arabera, zenbat eta zabalagoa, kalitatezkoagoa eta garatuagoa izan hizkuntza gutxitu bateko hedabideen eskaintza, zenbat eta gertuago egon *institutional completeness* delakotik, orduan eta aukera gehiago izango du *functional completeness* delakora iristeko. Hala ere, bien arteko harremana ez da zuzena erabat; hau da, lehenak ez du bigarrena %100ean ziurtatzen. Lehenxeago aipatu den bezala, *institutional completeness* izatea beharrezko baldintza da, baina ez nahikoa, *functional completeness* izatera heltzeko. Tartean badelako kontuan hartu beharreko beste faktore bat, Moringek *strict preference condition* izenarekin aurkezten duena eta lotura estua duena subjektuaren nahiarekin, borondatearekin. Labur esateko, hizkuntza gutxitua duen komunitateko kide orok, edozein jarduera burutzeko unean, (horien artean zein hedabide erabili, kontsumitu erabakitzeko orduan esaterako), nahiago izan dezake jarduera hori hizkuntza gutxituan burutu hegemonikoan baino. Gutxituaren aldeko hautua egiten duela esan nahi du *strict preference condition* delakoak.

Kontzeptu hori lantzeko egin diren zenbait ikerketek⁴³ erakutsi dute familia barruan hizkuntza gutxituetako hedabidearen aldeko hautua egiteko aukera asko jaisten dela kideren batek, elebiduna izan arren, hizkuntza nagusia baldin badu lehen-hizkuntza bezala. Hala gertatzen da, hizkuntza gutxituko hedabideen eskaintza zabala, kalitatezkoa eta garatua izan arren. Ondorioz, "(...) the media will be useless as an instrument to support the language in the long run, and ineffective in reversing language shift" (Moring, 2007: 29).

Arestian azaldutakoak badu *Cultural Studies* korronteak defendatutako planteamenduen usaina; hedabideekin burutzen diren praktikak, horien erabilerak ulertu eta azaltzeko orduan, toki nabarmena hartzen dutelako bi kontuk: batetik, hartzaillearen zeregin aktiboak (nahia, borondatea) eta bestetik, aurrekoarekin batera, harrera zein testuingurutan gertatzen den. Moringen hitzetan adierazteko, "(...) media use is to great extent relational and socially embedded" (Moring, 2007: 29). Ideia bertsuaren inguruan aritu zen urte batzuk lehenago Dennis McQuail. Egile honen

⁴³ .- Finlandian egin dira lanak, suediera hizkuntza gutxitu bezala duten familietan. Hantxe ikusi zuten etxeko giroan suediera erabiltzen zenean, familiako kideek sarri aukeratzen zituztela suedierazko hedabideak. Baina kideren batek suediera jakin arren, familia-giroan erabiltzen ez bazuen, orduan asko jaisten zen suedieraz ari ziren hedabideen aldeko hautua.

esanetan, “we can represent the unusual position of media as at the centre of three main forces –political, economic and technological-“ (McQuail, 1994: 155) eta gaineratzen du hedabideen azterketa egiteko orduan, hiru eremu horiekin batera, hedabideak dauden gizarte- eta kultura-testuinguruari ere erreparatu behar zaiola.

“(...) precisely because media are not only businesses, responding to economic forces, but also deeply rooted (usually nationally based) social and cultural institutions” (McQuail, 1994: 156).

Lerrook nabarmentzen dute testuinguru sozio-politiko-ekonomiko-teknologiko-kultural zehatz batek eta publikoen beharrak, nahiak baldintzatzen duela hedabideen erabilera, izan hizkuntza gutxituko hedabideen kasuan, zein hizkuntza nagusian daudenen kasuan. Beraz, hedabideen eta hizkuntza gutxitua duen komunitate bateko kideen arteko harremanari ganoraz heltzeko, ezinbestekoa da hedabideak-erabiltzaileak-testuingurua hirukoteari sakon erreparatzea.

2.1.2.5. HIZKUNTZA GUTXITUETAKO HEDABIDEAK, KOMUNIKAZIO-ESPARRUA ETA AGINTE PUBLIKOAK

Hedabideen eta hizkuntza gutxituen arteko harremanaren nondik norakoak aztertzeko osatu den atalari amaiera ematen joateko bi ideia nabarmendu behar dira, orain arte josi diren lerroak euri fina bezala bustitzen dituzten ideiak hain zuzen.

Hedabideak gizarte zehatz baten produktu eta isla dira. Beste era batera esateko, gizarte-erakundeak dira, eta gizarteak zehazten, definitzen, mugatzen du zein den beraien ekimen- eta jarduera-eremua. Hortaz, gizartearen menpeko dira, bereziki erakunde politiko eta ekonomikoen menpeko. Baina horrekin batera, hedabideak aktore ekonomiko, politiko eta kultural gisa jarduten dute gizartean. Denis McQuailek zioen bezala,

“The media institution is located in the ‘public sphere’, meaning especially that it is open in principle to all as receivers and senders; the media deal with public matters for public purposes –especially with issues on which public opinion can be expected to form (...).By virtue of their main publishing activity on behalf of members of a society, the media are institutionally endowed with a large degree of freedom as economic, political and cultural actors” (McQuail, 1994: 11-12).

Ondorioz, hedabideak gizartearen beraren eraikuntzan eta aldaketa-prozesuetan parte hartzen duten eragileak dira.

Esandakoak esanda, eta gaiak sortu ditzakeen zalantzak eta eztabaidak alboratuta, abiapuntu gisa hartzen bada hizkuntza gutxituan ari den hedabideak hizkuntza horren biziberritzean modu positiboan eragin dezakeela, lagungarri izan daitekeela, orduan agerikoa da, hala gertatzeko funtsezkoa izango dela hizkuntza gutxituko hedabide-sistema ahalik eta osatuena, aberatsena izatea. Hedabide-sistema bat Denis McQuailen arabera, izaera desberdineko hedabideek osatzen dute, sarri askotan elkarren arteko lehian ari direnak eta, horrez gain, geografikoki antolatuz jarduten dute; hots, nazioarte, nazio, eskualde, hiri edo tokian tokiko populazioei zuzendutako produktuak ekoizten dituzte.

“The term ‘media system’ refers to the actual set of mass media in a given national society, despite the fact that there may be no coherence or connection between the elements. Most media systems, in this sense, are the result of chance historical growth, with one new technology after another being developed and leading to the adaptation of existing media ” (McQuail, 1994: 157).

McQuailek hedabide-sistema kontzeptua Estatu-nazioei lotzen die. Baina zer gertatzen da Estatuak izan gabe beren burua nazio gisa aldarrikatzen duten komunitateen kasuan? Galdera, kezka, hausnarketa-gai horri heldu zion Josep Gifreu ikerlari katalanak 1980ko hamarkadan. Gifreurena da *espai de comunicació* edo komunikazio-espazioa kontzeptua, hainbat artikulu, elkarrizketa eta lan akademikoen lehengai bilakatu dena (Gifreu, 1983, 1986, 1991, 1996, 2005, 2006, 2009, 2013, 2014; Guimerá, 2010a, 2010b, 2013). Beste egile batzuek espazioa hitza erabili beharrean esparrua edo eremua erabiliko dute gai berberaz hausnartzeko. Hori ikusita, lan honetan ez da bereizketarik egingo eta hirurak sinonimotzat hartuko dira.

Gifreuren tesia da komunikazio-espazio propioa izatea klabea dela komunitate nazionalaren eraikuntzarako, botere politiko nahikoa eskuratu ez duen komunitate batek bere burua nazio gisa eratzeko. Eta helburu hori lortzeko Gifreuk ondokoa proposatuko du: “(...) una revisió de la distribució de competències entre Estat i comunitats històriques amb llengua pròpia, de manera que almenys fossin sobiranes

en matèria de llengua, comunicació i cultura” (Gifreu, 1991: 266). Hizkuntza, komunikazioa eta kultura arloetan subirano izateak atea zabalduko lukeelako, Gifreuren iritziz, nazio eraikuntza jomugan duten politika publiko propioak, bereziak, mamitu eta garatzeko (Gifreu, 2014). Argudio horretan oinarrituta, Gifreuren lanetan behin eta berriz azpimarratzen da hizkuntza gutxitua duen komunitate batek komunikazio-espazio propioa izateak duen garrantzia, baita aro digitalean ere.

“L'accés d'una comunitat lingüística a la plena normalització de la seva llengua específica requereix disposar avui d'un espai de comunicació en la llengua pròpia, políticament reconegut, socialment institucionalitzat i funcionalment apte per a tots els serveis de comunicació en l'era global digital” (Gifreu, 2014: 25).

Beste horrenbeste aldarrikatzen du Kataluniatik bertatik, Josep Àngel Guimerà irakasleak. Berak dioenez, trantsizioa hasi zenetik bost eratako argudioak erabili dira hedabideen sistema propioa sortzeko beharra defendatzeko: “lingüístic, identitari, polític, social o del bienestar i industrial” (Guimerà, 2013: 261).

Gurean ere, hedabide-sistema edo komunikazio-esparruaren inguruko kezka eta hausnarketa aspaldikoa da. XX. mendearen hondarreko urteetan, Txema Ramírez de la Piscina irakasleak zioen euskaldunon komunikazio-eremua edo komunikazio-esparrua osatzea abiapuntu izan zitekeela, hedabideen unibertso globalizatuan merkatuaren logikak bultzatuta iristen zen informazio-oldeari aurre egiteko.

“Batek baino gehiagok aipatu du *euskaldunon komunikazio-eremua* osatzearen garrantzia estrategikoa (...) Hori izan daiteke abiapuntua. Dena den, hauxe dugu itaun-gakoa: zer egin dezake 600.000 lagun dituen hiztun-komunitateak kanpotik datorkion informazio olde ikaragarri horren aurrean, kontuan hartuta gainera, fenomeno berri horren dinamizatzailea merkatuaren logika dela eta ez gizarte-interesa? Noraino da posible bizirautea, komunikazioaren handikiek eta merkatuaren beharrianek arautu eta zedarrituko duten oihan zaildu horretan?” (Ramírez de la Piscina, 1998: 12).

Ramon Zallo irakasleak ere azpimarratu du komunikazio-esparru beregaina eta indartsua izateak duen garrantzia. Zallok arreta berezia eskaini die komunikazioaren eta kulturaren industria eta politikei (Zallo 1995, 2006, 2011, 2013). Bere esanetan, Estaturik gabeko nazioek komunikazio-sistema indartsua behar dute, horrek funtsezko

zeregina duelako kudeaketa kolektiboan. Sistema komunikatiboa informazioen, ezagutzen, estetiken eta balioen zirkulazio-zelaia izanik, iritzi publikoa sortzen den zelai nagusia ere badelako. Azken batean, gizarte baten komunikazio-sistemak edo esparruak izaera bikoitza izango luke Zalloren arabera: ekonomikoa eta legitimaziorako eremua.

“Sens dubte, el sistema comunicatiu fa de mirall (fidel o deformat) entre realitat social i subjectivitat collectiva, en tant que té una funció essencial en l’aprehensió de l’espai, el coneixement referenciat mitjançant circulació d’idees, informació, estètiques i valors i la distribució de coneixements. Així afavoreix o discrimina identitats i llengües. És un camp central de generació de l’opinió pública, de comprensió de realitats i de fixació dels temes a debat. És així un àmit de legitimacions a més d’un subsector económic” (Zallo, 2013: 273).

Egoera horretan Aitor Zuberogoitia ikerlariarentzat hil ala biziko kontua da euskara hutsezkoa izango den eta funtzio guztiak bere baitan hartuko dituen kalitatezko komunikazio-esparru autozentratua osatzea, informazioa euskara hutsean eskaintzera mugatuko ez litzatekeen esparru bezala ulertuta:

“Hedaduraz, hizkuntzok euren errealiterara egokitutako komunikazio-ereduak garatu behar dituzte (horregatik diogu, hain zuzen, euskarak ez duela edozelako komunikazio-esparrua behar, esparru *autozentratua* baizik). Ez da aski informazioa euskaraz ematea: informazioa euskaraz emateaz gain, norbere hizkuntza-komunitatearen erreferentzia-sistema propioan eman behar da; eta kalitatea bazter utzi gabe, bistan dena” (Zuberogoitia, 2005: 280).

Zuberogoitiak aldarrikatzen du arestian proposaturikoa gauzatzeak, emaitza onuragarriak izango litzukeela hitzunen motibazio, erabilera eta ezagutza-tasei dagokienez. Bestalde, ikerlariak euskarazko komunikazio-esparrua sendotzeko formula ere zehazten du. Bere esanetan, formula euskarazko hedabideak indartzea da, eta inola ere ez hedabide elebidun diglosikoak sortzea edota sustatzea. Izan ere, bere iritziz, “(...) prentsa elebidun diglosikoa zurkaiztera bideratzen den ahalegin oro, euskal komunikazio-esparruaren eraikuntza oztopatzen ari da, zeharka bada ere” (Zuberogoitia, 2005: 287).

Eta zeregin horretan, hots, euskarako komunikazio-esparru zabal eta erakargarria osatzeko zereginean funtsezkoa izango da, derrigorrezkoa ez esatearren, aginte publikoen laguntza. Zuberogoitiaren esanetan, bi eratarata gauzatu beharko litzatekeena: diru-laguntza bidez eta prestigiatze-, sustatze-kanpainen bidez.

Sustapenaren bidea erabiltzearen aldeko apustua egiten du Josu Amezaga irakasleak ere. Amezagaren esanetan euskal komunikazio-espazioa eraikitzeak aukerak bi bidetik datoz: “Lehenengo bideak arautzea du ardatz nagusi. Funtsean botere politikoa edukitzeak emate duen arautzeko ahalmenean oinarritzen da” (Amezaga, 2017: 35). EITBren Sorrera Legea litzateke horren adibide. Bigarren bidea berriz, lehenago aurreratu bezala, sustapenetik dator: “Komunikazio espazio propio bat eraikitzeak bigarren bidea espazio hori birsortzen duten egitura eta komunikabideak sustatu eta indartzea da” (Amezaga, 2017: 38). Eta bide horretan, erakunde publikoek badute zeregina:

“Instituzioen bidea, kasu honetan, komunikabide publiko sendoak eraiki, eta indartu nahi den espazioan aritzen diren bestelako komunikabideei jardunbidea erraztu eta laguntzea da, ekimen ezberdinen arteko sinergiak bilatuz (instituzionala, herri ekimena eta ekimen pribatua)” (Amezaga, 2017: 38).

Antzeko ikuspegia plazaratzen du aterpe teoriko honetara hamaikatxo aldiz ekarri dugun Tom Moringek ere. Komunikazio-espazio edo komunikazio-esparru kontzeptua erabiltzen ez badu ere, bere hitzetatik ondoriozta daiteke berau osatzen joateko bidea ireki eta baliabideak jartzea, neurri handi batean, aginte publikoen ardura dela; erantzukizun politikoa dutenen ardura eta zeregina.

“A responsible policy-maker would be expected to act in favour of an institutionally more complete range of media offerings, including different formats that support varying functional needs of a minority language community” (Moring, 2007: 26).

Moringek gaineratzen du, zoritxarrez ez dela beti hala gertatzen. Sarritan agintariak eta erakunde arauemaileak gutxiengoak eta merkatuaren esku uzten dituztelako hizkuntza gutxituetako hedabideen ingurukoak, alegia hedabide horiekin zer egin eta nola egin. Ondorioa agerikoa da: gutxiengoak ahalegina edo ekimena, zeharo baldintzaturik egongo da; bitartekoen, baliabideen urritasunak baldintzatutako

ahalegina, ekimena izango da. Horrela aritzea, Moringek dioenez, ekintzaitzaren eta eraginkortasunaren akuilu izan daiteke, baina, aldi berean, baita amateurismoaren eta frustrazioen iturri ere.

Hortaz, bitartekoen, baliabide ekonomikoen gaiak badu garrantzia. Horiek baldintzatzen dute askotan hizkuntza gutxituko komunitate batek bere hedabideak garatzeko aukera izatea ala ez izatea.

“There are many linguistic communities which, although they have the awareness and the wish to develop media of their own, do not so because of the lack of financial resources” (Martí eta al.,2005: 190).

Bestalde, merkatuaren indarrek hizkuntza gutxituak baztertu eta hizkuntza nagusiaren alde egiteko joera dute. Hala gertatzen da arrazoi ekonomiko sinple batek bultzatuta: ahalik eta kontsumitzaile gehien eskuratzeko lehian ari diren enpresek lehentasuna ematen diete produktua kaleratzeko dakartzan kosteei eta errentagarritasun ekonomikoari.

“Quan una empresa privada pren la decisió lingüística en funció de la seva rendibilitat privada, aleshores tendirà a afavorir la llengua majoritària. (...) La situació canvia substancialment quan les empreses poden oferir més de una versió lingüística (a través del doblatge o la traducció). En aquest cas, els incentius privats a introduir una segona versió lingüística es veuen reforçats per la possibilitat d’atreure una alta proporció de consumidors potencials d’altres empreses, sense haver-ne de perdre cap” (Caminal, 2011: 327).

Hortaz, hizkuntza gutxituko hedabide baten bidez auzokoari kontsumitzaileak lapurtzeko aukera dagoenean eta, horren ondorioz, dirua irabazi daitekeenean, orduan bai, orduan hizkuntza gutxituaren alde egin daiteke; baina halakorik ziurtatzen ez denean, enpresa pribatuen apustua ez da izaten hizkuntza gutxituko hedabideen aldekoa.

Aurretik adierazitakoak berriro garamatza aginte publikoen, herri-aginteen erantzukizunaren auzira; edozein hizkuntza gutxitu biziberritzeko herritarren, hiltunen atxikimendu eta borondatearekin batera, behar beharrezkoa delako aginte publikoen

jarrera aktiboa; hizkuntza-politika edo hizkuntza-plangintza⁴⁴ sustatzaileetan gauzatuko den jarrera aktiboa. Betiere bi kontu argi izanda; lehena, hizkuntza-politika historiaren emaitza den testuinguru zehatz batean gauzatuko dela eta bigarrena, hizkuntza-plangintza burutzea gizarte-plangintza burutzea dela.

“To plan language is to plan society. A satisfactory theory of language planning, therefore, awaits a satisfactory theory of social change. (...) Language planning cannot be understood apart from its social context or apart from the history which produced that context” (Cooper, 1996: 182-183).

Ondorioz, hizkuntza-politika gizarte-aldaketarako tresna litzateke, eta berau egikaritzeko herri-agintek erabilgarri dituzten mekanismoen artean daude hedabideak⁴⁵. Horretaz jabetuta, mundu zabalean hamaikatxo dira herri-aginteen ekimenez hizkuntza gutxituetako hedabideak sortu eta sustatzeko xedez burutu diren ahaleginak; zenbait kasutan, politika publikoen ardatz bihurtzerainoko ahaleginak. Hedabideak sortzeari ekin diotenean ikus-entzunezkoak nagusitu dira, uste izan delako horiek izan daitezkeela euskarririk eraginkorrenak hizkuntza-normalizazioan laguntzeko (Moriarty, 2007). Idatzizkoen kasuan, berriz, administrazio publikoen, herri-aginteen lana horiek sustatzera zuzendu da nagusiki. Sustapena era anitzetan gauzatu badaiteke ere, jarraian datorren atalean aztertuko diren diru-laguntzak dira zalantzarik gabe, idatzizko sektoreak gehien eskatu eta eskertzen dituenak eta herri-agintek hedabideei begirako politikak kudeatzeko gehien erabili dituztenak.

⁴⁴ .- Ikerketa honen aterpe teorikoak atal oso bat eskaintzen dio Jaurlaritzak denboran zehar egikaritutako hizkuntza-politikei. Hemen bakarrik aurreratu geroxeago berretsiko den kontu bat: jakin badakigu hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza kontu ezberdinak direla, bereizi daitezkeela. Kaplanen arabera esaterako, hizkuntza-politika gizarte edo talde bateko hizkuntza-portaeretan aldaketak eragiteko ideia, lege eta arauen bilduma litzateke (Kaplan, 1997). Beste era batera esateko, hizkuntza-politika hizkuntza-aldaketak lortzera bideratutako helburuek eta bitartekoek osatuko lukete. Hizkuntza-plangintza berriz, aginte publikoak aurretik ezarritako helburuak gauzatzeko hartzen dituen erabakien, neurri zehatzen multzoa litzateke eta horien emaitzak ebaluatu egin daitezke. Baina kontzeptu bakoitzak berea den edukia izan arren, agerikoa da biak saretuta daudela; hortaz, esan bezala, ikerketa honetan bata zein bestea erabiliko da, bien arteko ezberdintasunei erreparatu gabe.

⁴⁵ .- Lan honek kapitulu oso bat eskaintzen dio, *Euskara biziberritzeko ekimen instituzionala: hizkuntza-politikak* izenburukoa, Franco hil ondorengo lehen Jaurlaritza osatu zenetik Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntzari eta hedabideei begira garatu diren politiken eta egitasmo zehatzen analisiari.

2.1.3.HIZKUNTZA GUTXITUETAKO HEDABIDEAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Hedabide gutxituen landan murgildu diren gizarte-ikerlarien begirada eta arreta akademikoa hedabideen zereginak eta eragina/k, hedabideen ezaugarriak, edukiak eta audientziak aztertzerazuzendu da nagusiki. Arlo ekonomikoarekin zerikusia duten interesguneak, ordea, hala nola hizkuntza gutxituetako hedabideen finantziazioak edota ikerketa honen jomuga diren diru-laguntza publikoek txoko txiki-txikia dute oraingoz; nahi baino artikulua, liburu, azterlan zientifiko gutxiagorekin hornitutakoa. Eta egoera deigarria da kontuan hartzen bada hedabide inprimatuei eskainitako diru-laguntzek tradizio historiko luzea eta garrantzitsua dutela.

2.1.3.1. DIRU-LAGUNTZEN DEFINIZIOA, MOTAK ETA HEDABIDEEN ENPRESA-EZAUGARRIAK

Diru-laguntza publikoen gaiari heltzeko lehen pausoa horiek zer diren argitzea da. Lan honetan laguntza publiko bezala kontsideratuko da lurralde batean gobernu erantzukizuna duen aginteak, (izan Estatu mailakoa, komunitate autonomo batekoa, eskualdekkoa zein herri mailakoa) interes publikoa duen ekintza edo egitasmoa sustatzeko helburuz modu zuzenean edo zeharkakoan eskainitako abantaila ekonomikoa, onuradunari sarrera osagarriak izateko edota kostuak txikitzeko balio diona eta hedabideen arteko lehia desitxuratzen duena edo desitxuratu dezakeena. Baina, aldi berean, laguntza ez da mugatzen aginteak esleitutako ekarpen ekonomikora. Izan ere definizioaren barne, onuradunarentzat abantailaren bat dakarten beste era batzuetako ekimenak hartu ditzake.

Definizio horretatik abiatuta, beste urrats bat eman eta adierazi behar da aginte publikoek prentsari eman dizkieten laguntzak bi eratakoak izan daitezkeela:

1.- Laguntza zuzenak, hau da, enpresaren kutxan berehalako diru-ekarpena, diru-sarrera sarrera dakartenak. Gainera diru-ekarpen hori ez zaio emaileari itzuli behar. Hainbat eratakoak izan daitezke: papera ordaintzekoak, makineria edo teknologia berritzekoak, produktu berriak ekoiztekoak, banatutako ale-kopuruaren araberako laguntzak, atzerrian banatzeagatik eskainitakoak, edota publizitate-espazioen kontratazioa.

2.- Zeharkako laguntzak. Kasu honetan dirua ez doa zuzenean hedabidearen kutxara, baina hedabidea onuraduna da, lagundu egiten dio. Zeharkakoak esaten zaie, laguntzaren onuradunak kazeta-enpresarekin harremana duten beste batzuk direlako edo Estatuak, gobernuak, laguntza eskaini duen erakundeak ez duelako jasotzen hedabide-enpresak egin beharko lukeen ordainketa. Zeharkako laguntzen adibide dira zerga eta tasa murrizketak edo salbuespenak, posta edo telefono tarifa merkeagoak izatea, kreditu merkeak, prentsa-papera ekoizten duten enpresei zuzendutako laguntzak, prentsak behar dituen makineria egiten dituztenentzako laguntzak, prentsaren erakunde korporatiboei eta banaketa-enpresei eskainitako diru-laguntzak edota hedabideen kontsumoa sustatzeko kanpainak.

Sailkapen honez gain bada kontuan hartu daitekeen beste bat. Laguntza selektiboak eta automatikoak bereizten dituen, administrazioak horiek esleitzeko orduan jokatzeko duen zereginaren arabera (Fernández Alonso eta Blasco Gil, 2008). Lehenengo kasuan, diru-partidak banatzen dituen sailak edo zerbitzuak aukera dauka aurkeztutako eskariak deialdian ezarritako baldintzen arabera baloratzeko. Laguntza automatikoen kasuan, ordea, laguntza ematen duen organoaren zeregina "(...) se ha de limitar a aplicar unas previsiones legales muy detalladas, que no dejan margen para la discrecionalidad" (Fernández Alonso eta Blasco Gil, 2008: 86). Hortaz, zeharkako laguntzak, kasurik gehienetan, izaera automatikoa izaten dute; laguntza zuzenak, berriz, selektiboak edo automatikoak izan daitezke.

Arestian aipatutako laguntza zuzenak eta zeharkakoak dira ohikoenak eta ezagunak, aitortuak. Izan ere, Justino Sinovak dioenez, badira beste izaera bat dutenak ere, aitortu ez direnak eta aitortu ezin daitezkeenak, hedabideen "historia beltza" osatzen dutenak.

"Las otras, las ayudas inconfesadas, muchas de ellas también inconfesables, favores ocultos, fondos de reptiles y demás arbitrariedades, quedan para la página negra de los medios, historia de un maridaje con el poder en el que siempre resulta un mismo perjudicado, el público" (Sinova, 1999: 240).

Egungo panoramari erreparatuta, munduan zehar prentsari, paperezko idatzizko hedabideei eskainitako laguntzen panorama anitza eta konplexua da. Hala ere, laburtzeko baieztatu daiteke, ondoko hiru oinarritzko beharrei edo helburuei egoki erantzuteko esleitzen diren laguntzak ditugula nagusiki:

- Hizkuntza gutxituetan ari diren argitalpenak sortu eta sendotu.
- Kalitatezko kazetaritza espezializatua sustatu eta sendotu.
- Irakurzaletasuna sustatu.

Diru-laguntzei eskainitako kapituluan hainbat aldiz ikusiko denez, hiru helburu horiek arrazoi edo aitzakia gisa hartuta gauzatu dira, denboran zehar, hainbat lurraldetan, bereziki Europan, hedabideei eskaini zaizkien diru-laguntzak.

Behin definizioa ezarrita eta diru-laguntza motak erreparatuta jasotzaileen, alegia, hedabideen ezaugarrietan jarriko da arreta. Abiapuntu moduan baieztatuko da hedabideak, ez soilik hizkuntza gutxituetan ari direnak, baizik eta hedabideak orokorrean, testuinguru zehatz batean jarduten duten enpresak direla; hots, hedabideen produktua baldintza ekonomiko, teknologiko, politiko eta sozial zehatz batzuen konbinazioaren emaitza den testuinguru jakin batean sortzen eta merkaturatzen dira. Hortaz, hedabideen funtzionamendua eta ekoizpena ulertzeko ezinbestekoa izango da horiek kokatuta dauden testuinguruari erreparatzea.

“The production perspective highlights the fact that mass media products are not free-floating texts; they do not just appear out on thin air. They are the result of a complex production process that, in turn, is shaped by a variety of social structural forces that operate on various levels, some affecting the industry as a whole, some affecting particular actors or groups of actors within the industry. Producers create media products under conditions that are always changing as economic, technological, political and social changes occur in the broader society. Therefore, if we are to better understand media products, we must take into account the historically specific context in which people create them” (Croteau eta Hoynes, 1997: 33-34).

Bestalde, edozein hedabidek enpresa gisa jarduten duen testuinguruak badu beste ezaugarri bat: lehiakortasuna. Hedabideak testuinguru lehiakorrean ari diren enpresak dira eta, horrez gain, Alan Albarranek dioen moduan, gizarte baten arlo ekonomikoaren aktore eroaleetariko bat kontsidera daitezke, etengabeko bilakaera-

prozesuan murgilduta daudenak (Albarran, 2010). Horren erakusle azken urteotako zatiketa eta digitalizazio prozesuak.

“The media industries are one of the many drivers of the economy in most developed and developing nations. Further, the media is constantly changing and evolving. Increasing fragmentation and digitalization of the media industries have eliminated the boundaries associated with studying ‘traditional’ media. Television, radio and newspapers no longer operate as single entities, but as enterprises offering content across multiple distribution platforms” (Albarran, 2010: 2).

Albarranek gaineratzen du, hedabideen industriak argazkitik kanpo geratu nahi ez badu, beste kontu bati ere erreparatu behar diola, hartzaillearen figurak izan duen aldaketari, hain zuzen.

“In the evolving media economy, the individual is in charge of his/her own media consumption –what you want, when you want it, and how you wish to access it- . This seminal change has disrupted traditional business models (...) Likewise, traditional media have had to evolve and respond so as not to be totally left out of the picture” (Albarran, 2010: 5).

Goiko paragrafoan azaldutako ideia bera jorratu dute beste hainbat egilek azken urteotan. Horien ekarpenak biltzeak luze joko luke; hortaz, gaiari buruz Pilar Kaltzadak kazetariak oraintsu egindako ekarpena aipatuko da hemen. Kaltzadak dio digitalizazioak hedabideen industria irauli egin duela eta aldaketak azaleratu dituela hiru mailatan: komunikazioaren egituran, negozio-ereduan eta legitimazioan (Kaltzada, 2017: 63). Egoera horretan, gaineratzen du hedabideek berriro definitu behar dutela zein den espazio berrian jokatu nahi duten papera; eta definizio-zeregin horretan funtsezkoa da negozio-ereduari erreparatzea.

“Negozio-eredua ez da soilik enpresaren kontularitzako antolamendua, zeren eta hedabidea bideragarri egiteaz gain, hartzaille eta komunitatearekiko sortzen duen harreman-bidea ere egituratu egiten baitu” (Kaltzada, 2017: 67).

Hortaz, negozio-ereduari erreparatzeak, hedabideraren ekonomia aztertzea dakar. Lehenxeago aipagai izan den Alan Albarranek azaltzen digu zer den hedabideen

ekonomia aztertzea. Bere esanetan, hedabideen ekonomia hedabideek euren edukiak ekoizteko behar dituzten bitartekoen analisia litzateke.

“The study of how media industries use scarce resources to produce content that is distributed among consumers in a society to satisfy various want and needs” (Albarran, 2002: 5).

Deigarria egiten da baliabideei edo bitartekoei eranstean dien “scarce” izenlaguna, hots, urria, eskasa.

Hortaz, hedabideek, beste edozein arlotako enpresek egiten duten bezala, besteak beste, diru-bitartekoak kudeatu behar dituzte produktuak merkaturatu ahal izateko; baina McQuailen hitzei jarraituz, “media `not just any other business” esan beharko genuke (McQuail, 1994: 154). Izan ere, beste enpresa batzuekin alderatuta hedabideek zenbait ezaugarri bereizgarri dituzte:

1.- Izaera hibridoa edo bikoitza dute, askotan merkatu bikoitzean ari direlako. Produktuak saltzen dizkiete kontsumitzaileei eta zerbitzuak iragarleei. Gainera, saltzen, merkaturatzen dituzten produktuei eta banaketarako erabiltzen dituzten bitarteko teknologiko eta enpresarialeiei erreparatuta, oso dibertsifikaturik daude. Horrekin batera, krisi ekonomikoak eta teknologia berrien garapenak negozio-ereduak egokitzera eta estrategia berriak arakatzera behartu ditu, izaera hibrido bikoitz horri eusteko finantziario-sistema osasuntsua izatea ezinbesteko baldintza delako.

2.- Paperezko egunkari eta aldizkarien koste-egiturari dagokionez, kostu finko handiak dituzte. Horiek zorua, eraikinak, makineria eta banaketa-sareari loturiko kosteak lirateke. Kostu aldakorretan berriz, materiala (papera, esaterako) eta eskulana leudeke. Informazioaren negozioan jardun nahi duen edozein enpresak kostu finkoen esparruko kapital-inbertsio handiak egin behar izaten ditu abiatzeko; gero, kaleratuko dituen produktuen bidez eta publizitatearen bidez berreskuratu ditzakeenak. Horrek ondorio bikoitza dauka: batetik, hasieran jarri beharreko dirutzak direla eta, zaildu egiten da sektorean aktore berriak aritzea; eta bestetik, hedabide tradizionalak, egunkariak kasu, oso zaurgarriak, kalteberak dira merkaturatu gerta daitezkeen aldaketen aurrean; izan eskariaren gorabeherak edota publizitate bidezko sarreraren gorabeherak. Enpresa gehienetan negozioak behera egiten duenean, diru-sarrerak murrizten direnean, irtenbidea eskulana murriztea eta produktu gutxiago ekoiztea

izaten da, baina horrek ez dio eragiten ekoiztutakoaren kalitateari. Hedabideen sektorean ordea, Julia Cagé irakasle eta ekonomialariak azaltzen duenez, ez da hala gertatzen (Cagé, 2016); saltzen diren egunkariak saltzen direla ezin delako kazetari kopurua murriztu, ez bada egunkariaren kalitatearen kaltean.

“Independientemente de los ejemplares vendidos, el número de periodistas necesarios para la producción del diario es más o menos el mismo. En efecto, los temas a tratar no cambian; el conjunto de esfuerzos se concentra en la escritura del primer ejemplar y los costes de reproducción posteriores son desdeñables. Si un periódico decide reducir su redacción para compensar los efectos de la disminución de su volumen de negocio, sólo podrá ser a costa de un descenso de la calidad” (Cagé, 2016: 59).

Egoera horrela, Cagék dio hedabideei ahalik eta merkaturik zabalena eskuratzea interesatzen zaiela, baina, ahal den neurrian, kostuak handitu gabe. Inprimatuen kasuan, horretarako aukera ezin hobea eskaintzen dute euskarri digitalek; horiekin lan eginez, kostu finkoak (eraikinak, inpresioa, banaketa...) askoz murriztagoak direlako eta, kostu aldakorrei begiratuta ere (papera, eskulana), beste horrenbeste gertatzen delako.

“ (...) eso aumenta su volumen de negocio sin por ello incrementar los costes de producción en la misma proporción. Es la estrategia seguida en la actualidad por el *Guardian*, que ha establecido una redacción digital en Estados Unidos (con alrededor de 60 periodistas) para penetrar en un nuevo mercado, mucho más importante por sus dimensiones que el mercado británico por sí solo. (...) para un medio de comunicación aumentar su mercado supone también minimizar la competencia” (Cagé, 2016: 59-60).

Esandakotik erraz ulertu daitezke hedabidegintzan izan diren joera monopolistikoak, kontzentrazioarako joerak. Zenbait egileren ustez, egungoa *the age of giants*, hots, “erraldioen aroa” litzateke (Herrick, 2012), eta horrek arriskuan jarri ditzake hedabideen aniztasuna eta demokrazia bera.

3.- Arestian adierazitakotik eratortzen da hirugarren ezaugarria: hedabideak ziurgabetasun handiko enpresak dira. Izaera askotakoak izan daitezke; hala nola enpresa pribatuak %100ean, irabazi asmorik gabeko erakundeak edo taldeak sustatutakoak edota publikoak. Edozein kasutan, euren etorkizuna kontsumitzaileek egiten duten etengabeko “ebaluazio” bati lotzen zaio, eta zaila, oso zaila da kontsumitzaileak eskura daukan aukera zabalaren aurrean nola jokatu duen aurreikustea, zein irizpideri jarraituko dion hautua egiteko orduan eta, behin hautua eginda, zenbat denboran eutsiko dion horri. Izan ere, hedabide baten izatezko arrazoia, eta aldi berean, inperatibo ekonomiko nagusia da audientzia eskuratu eta horri eustea. Cormackek dioenez, horretarako ezinbestekoa da hedabidearen xede izango den audientzia identifikatu, horri egokitutako produktua ekoiztu eta eusteko estrategia landu. Estrategiaren barnean izan daiteke, esaterako, xede den audientziarentzako identitatea landu, eskaini.

“One way of doing this (one of several) is by addressing the audience as a collectivity, thus trying to create some kind of identity within that audience so that returning to the media outlet is seen as an expression of the individual’s group identity” (Cormack, 2000: 9).

Agerikoa da Cormackek aurkeztutakoa hizkuntza gutxituetako hedabideek baliatu dezaketen eta baliatzen duten estrategia dela. Hala ere, ez du emaitza ziurtatzen, besteak beste, dagoeneko aurreko atalean ikusi den bezala, eta Cormackek berak dioen moduan, audientzia baten barnean identitate anitz izan daitezkeelako. Anitzak audientziako kide izan daitezkeen gizaki batetik bestera begiratuta, eta anitza baita gizaki bakoitzari dagokionean ere. “We are all members of various groups, our personal identity is an amalgam of, among other things, the various collectivities of which we are members” (Cormack, 2000: 10). Ondorioz, Cormackekin bat eginez, audientzia bati eusteko ahaleginetan dabilen hedabideak kontu horri erreparatu eta eutsi beharko dio ezinbestean.

4.- Hedabideak interes publikoari lotutako enpresak dira, helburu nagusizat ondasun publiko bat eskaintzea dutelako. Julia Cagék baieztatzen duenez, horixe da hedabideen lehentasuna, eta bigarren maila batean kokatu beharko litzateke etekin ekonomikoaren lorpena. Hala ez denean, informazioaren kalterako dela gaineratzen du.

“Los medios de comunicación no son empresas como las demás. Son empresas cuyo principal objetivo es proporcionar un bien público –una información de calidad, libre e independiente, indispensable para el debate democrático-, y no la maximización del beneficio y el reparto de dividendos entre sus accionistas. O, por lo menos, los medios de comunicación no deberían ser empresas como las otras. Porque cuando lo son, por lo general, es en detrimento de la información” (Cagé, 2016: 90).

Beraz, hedabideak interes publikoaren zerbitzura eta ongizate orokorraren zerbitzura dauden enpresak lirateke. Horregatik, Cagéren ustez, hedabideak babestu egin beharko lirateke. Hezkuntzarekin gertatzen den bezala, iruditzen zaio informazio-eskubidea, edonork informazioa eskura izatea funtsezkoa dela demokraziak egoki funtzionatu dezan. Ez bakarrik egile honek, argudio bera erabiltzen dute hedabideen sektoretik orokorrean, eta bereziki, hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideek, funtzio publiko esanguratsua betetzen dutela aldarrikatu, eta horren truke, laguntza eskatzen dutenean.

5.- Hedabideek errentagarritasun bikoitza lortzeko dihardute: batetik, ekonomikoa eta bigarrenik, ideologikoa, gizarteko arloren batean eragina izatea bilatzen duena⁴⁶. Ezaugarri hori aintzat hartuta, de la Quintana irakasleak dioen moduan (de la Quintana, 2012, 2016), erraz ulertzen da enpresari askok kazetaritza-negozioetan inbertsioak egiteko duten gosea, “cuando hay otros sectores que son más rentables económicamente, pero que no aportan esa posición estratégica de influir en la opinión pública” (de la Quintana, 2016: 17). Eta ezaugarri hori kontuan hartuta, de la Quintanak ondorioztatzen du gobernu edo erakunde batek laguntza ematen badiu hedabide bati logikoa izan daitekeela horren truke nolabaiteko leialtasun ideologikoa eskatzea. Eta ondoren ikusiko denez, ustezko morrontza horixe izango da, hain zuzen, hedabideei diru-laguntzak eskaintzearen kontra egiten dutenen argudio nagusietarikoa.

⁴⁶.- Honen adibide-zerrenda amaigabea da. Alfonso de la Quintana irakasleak, esaterako, kontatzen du dagoeneko XIX. mendearen amaieran Estatu Batuetan Hearts taldeko hedabideek estrategia garatu zutela hango iritzi publikoan ideia bat zabaltzeko: beharrezkoa zela Espainiarekin gerran aritzea Kuba eskuratzeko (de la Quintana, 2016: 16). Orduetik esan bezala, nonahi aurkitu daitezke antzeko kasuak.

2.1.3.2. DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOEN ALDEKO ETA KONTRAKO ARGUDIOAK. EREDU LIBERALA ETA EREDU PROTEKZIONISTA

Behin hedabideen enpresa-ezaugarriak zehaztuta, diru-laguntza publikoen auziari helduko zaio atal honetan. Arestian aurreratu denez, gaiak eztabaida ugari eragin ditu denboran zehar, eta ondorioz, defendatzaile sutsuak eta tamaina bereko aurkariak ditu. Lehenengoek diote paperezko egunkarien zirkulazioak etengabeko beherakada jasaten ari den garaian, eta merkatu librea nagusi den garaian, diru-laguntza publikoak inoiz baino beharrezkoagoak direla oinarrizko eskubidea den informazio-aniztasuna babesteko (Herman eta Chomsky, 2002; Gitlin, 2002; Gamble eta Watanabe, 2004). Inoiz baino beharrezkoago, hortaz, lehiakortasuna eta merkantilizazioa jaun eta jabe dituen hedabideen testuinguru berrian pluraltasuna eta edukien aniztasuna bermatzeko. Justino Sinova irakasleak honela azaltzen du:

“La libre difusión de la información que los ciudadanos necesitan y la circulación de las opiniones no son realmente posibles –no son eficaces- sin un número suficiente de medios. Sin ellos, la existencia de pluralismo que es uno de los valores del sistema democrático, corre serio peligro” (Sinova, 1999: 237).

Ikuspegi horri helduta, laguntza publikoak aniztasuna bermatu eta, bide batez, balio demokratikoetan sakontzeko tresna lirateke. Horrekin guztiz ezkondu eta legoke hizkuntza eta kultura aniztasuna babestu eta sustatzeko bitarteko direla eta, aldi berean, komunitate gutxituen informazio-beharrei erantzuteko tresna direla baieztatzen duten hainbat egileren zein elkarteren planteamendua⁴⁷. Horren lekuko Europako zenbait herrialdetan hizkuntza gutxituetan ari diren egunkariak hartzen dituzten laguntzak, “such as German and Slovenian in Italy, Frisian in the Netherlands, Breton in France, Sami in Norway and Welsh and Gaelic in the United Kingdom”

⁴⁷ .- Horien artean dago adibidez MIDAS elkarteak, *European Association of Daily Newspapers in Minority and Regional Languages*. 2001ean sortu zen Europako hizkuntza gutxituetako egunkarien estrategiak koordinatu eta elkarlana sustatzeko. Dagoeneko elkartearen kide dira Espainia (*Berria, El 9 Nou, Regió 7 Segre* eta *dBalears*), Finlandia, Danimarka, Italia, Suitza, Txekia, Eslovakia, Alemania, Kroazia, Letonia, Lituania edota Errumaniako hainbat egunkari. Elkartearen web-orrian ondokoa irakurri daiteke: “The existence of daily newspapers in minority and regional languages is crucial. We know from our own experience the central role such publications play in the life of minority language communities. They provide the vital daily services that national newspapers offer in majority languages, but this is not their only function. They also often protect and promote marginalized cultures which in turn help to maintain and extend the scope of their written languages. These publications make minorities visible to the majority, which often remains ignorant of them” (www.midas-press.org).

(Fernández Alonso eta Blasco Gil, 2014: 174). Azken batean, desberdintasunak laguntza behar duela aldarrikatzen dute.

Bestalde, diru-laguntza publikoen kontra daudenen edo horiekin kritiko direnen ustez, laguntza publikoekin dirua xahutzen da eta aukera ematen zaie unean uneko gobernuei hedabideetan muturra eta eskua sartzeko. Horrekin batera, zalantzan jartzen dute aniztasuna babesteko orduan, diru-laguntzek izan dezaketen zeregina eta batez ere, zalantzan jartzen dute laguntzen eraginkortasuna. Robert Picard egileak, adibidez, hainbat ikerketa egin ditu gaiaren inguruan, bereziki Europa iparraldeko herrialdeei egokitutakoak (Picard, 1985, 1986, 1994, 1999, 2003, 2006, 2007) eta ikuspegi ezkorra agertzen du,

“Most subsidies in Europe have had little effect on the financial situations of newspapers and do not provide a mechanism for real long-term viability of subsidised newspapers... If subsidies are not used to restructure an operation, to expand markets or to acquire cost-saving technology, they cannot solve the difficulties of failing newspapers” (Picard, 2003: 107).

Egoera horren arrazoietan ere sakontzen du Picardek. Bere esanetan, laguntzek egunkarien kostu aldakorrak ordaintzeko balio dute, baina ez kostu finkoei aurre egiteko; ondorioz ez die eragiten arazoaren sustraiari.

“Subsidies to the daily press, however, tend to fail because they tend to deal only with variable costs rather than the fixed cost issues that present the primary cost problems for daily newspapers” (Picard, 2006: 217).

Bestalde, Picardek gaineratzen du egunkariak babesteko martxan jarritako laguntza-politikak ez direla nahikoak, huts egiten dutela bi arlotan: batetik, huts egiten dute kalitatezko edukiak ekoizteko behar diren aurrekontuei eusteko eta bestetik, huts egiten dute egunkarien irakurketa-mailen beharakadari aurre egiteko orduan.

“Levels of support have been so low that they do not effectively provide resources equivalent to the advertising income necessary to maintain budgets at a level that sustains the content quality demanded by audiences. The policies have also done nothing to

respond to diminishing readership of newspapers overall and their substitution with other media use” (Picard, 2007: 242).

Laguntzen kontra daudenen argudioekin jarraituz, horien arabera, laguntzek aniztasunari eusteko baino, beste kontu batzuei eusteko balio dute; hala nola, hedabideetan izan daitezkeen jokaera inefikazak eta kudeaketa desegokiei eusteko tresna lagungarriak lirateke. Ez hori bakarrik, gaineratzen dute laguntzak oztopo, traba direla, gero eta lehiakorragoa den testuinguruan arrakastaz aritzeko behar den berregituraketa prozesuak martxan jartzeko. Euren esanetan, laguntzak menpekotasun-egoeren akuilu bilakatu daitezke.

“If used merely to pay operating costs and cover losses, subsidies ultimately lead to resource dependency on the state aid and the firm loses market incentives to improve their products and operations” (Picard, 2006: 216)

Hori gutxi ez eta azken argudio bat eskaintzen dute aurka daudenek, teknologiaren bilakaerari eta hedakuntzari loturiko argudioa hain zuzen. Haien iritziz, Internet eta multimedia zerbitzuen aroan paperezko hedabideetara bideratutako diru-laguntza publikoek ez dute izatezko arrazoirik, ez dute justifikaziorik.

“From the point of view of public intervention, policies designed to protect the press now face a new problem: when newspapers were the principal source of information for the public, the diversity of newspapers on offer was an essential pre-requisite for a healthy democratic system. But now –with news available from a wide variety of other sources such as radio, television, the Internet and mobile phones- it seems more difficult to justify direct governmental aid. To put it plainly, what is important is that the public are well informed, not that the public buy newspapers” (Sánchez Taberner, 2006: 25).

Beraz, Sánchez Taberneroren planteamenduari jarraituz, laguntzen aurka dauden egileen arabera, agintearen zeregina eskaintza eta eskariaren joan etorri librea eta gizakien pribatutasuna eta oinarritzko beste zenbait eskubide bermatzera mugatu beharko litzateke (Wolf, 1999; Zacccone, 2003).

Horraino batzuen eta besteen arrazoiak, aldarrikapenak eta kezkek. Beste urrats bat eginez, argitu beharra dago Estatuak, herri-erakundeek egunkariak babesteko hartu dituzten neurriak ez zirela sektorea gogor astindu duen krisiarekin batera edo horren ondorio gisa agertu, ezta gutxiagorik ere. Tradizio luzea dute, herrialde gehienetan, 60-70eko hamarkadetatik datorrena, eta zenbaitetan, Frantzian esaterako, lehenagotik⁴⁸. Gainera, egunkarien ekonomiari laguntzeko ekimena era askotara gauzatu da, ez soilik diru-laguntza bidez. Horiekin batera izan dira abantaila fiskalak eta beste sektore edo enpresa batzuei ezarritako arauak malgutzea.

“State supports takes a variety of forms including subsidies, fiscal advantages, and regulatory relief. Subsidies, in the purest use of the term, consist of actual cash transfers. Fiscal advantages provide reduced rates for services or obligations to government or quasi-government agencies, such as the postal system, state rail systems, or tax authorities. Regulatory relief exempts from or reduces firms’ obligations regarding certain regulations applied to other firms or sectors, thus providing a fiscal or competitive advantage” (Picard, 2007: 239).

Denborarekin, aurreko paragrafoan aipatutako hiru eratako babesa murriztuz joan da edonon. Joerak hedabideentzat eskainitako diru-laguntzei eragin dio bereziki. Hala gertatu da, gobernuek murrizketak egin behar izan dituztelako aurrekontuetan gastu publikoari eusteko. Dena den, Julia Cagé irakaslearen arabera diru-laguntzek kazeta-enpresen negozio-bolumen osoaren zati txikia baino ez lirateke, portzentajeetan jarrita Estatu Batuetako %1,5 eta Frantziako %10 bitartekoa. (Cagé, 2016: 74-76).

“Por razones evidentes de definición y de campo de análisis, es difícil llevar a cabo unas comparaciones internacionales con precisión. Sin embargo, parece que Francia se sitúa en lo alto de la horquilla, con un rango de valores bastante similar entre países. En particular, en todos

⁴⁸ .- Europako mendebaldean Frantzia izan zen zuzeneko laguntzak eta zeharkakoak konbinatzen zituen sistema bat martxan jartzen lehen Estatuak. Bigarren Mundu Gerraren ondoren egin zuten ondoko helburuarekin: eskaintzaren aniztasuna sustatu eta horrekin irakurleen aukera-aniztasuna akuilatu. Honelaxe azaltzen du Kuhnek: “(...) the avowed objective of fostering pluralism among newspaper titles and encouraging access for readers to different sources of information” (Kuhn, 1995:40).

los países, las ayudas representan una fracción muy minoritaria del volumen de negocio de los diarios (siempre inferior al 10% y generalmente por debajo del 5%)” (Cagé, 2016: 76).

Cagék dio prentsa arloko hedabideek Estatuari edo herri-aginteei zerga, tasa edo gizarte-karga bidez ordaintzen diotena zenbatu ezkerro, kantitate horrek aise gainditzen duela laguntzetan jasotzen dutena. Edozein kasutan, laguntzekin jarraituz, edonon murrizketak izan diren arren, oraindik izan badira eta gaiak bi paradigmari edo ikuspegi jarraitu dio nagusiki; liberala bata eta protekzionista bestea. Justino Sinova irakasleak ederto laburtzen du bataren eta bestearen mamia.

“Desde un planteamiento liberal, el socorro del Estado tiene escaso sentido. El mercado regula la necesidad de medios de la sociedad y sobreviven los más eficaces, los más útiles, los mejores. Para una mentalidad proteccionista, es precisamente el Estado el que debe regular el mercado de la comunicación hasta determinar, en el caso extremo, el número y la identidad de los medios”(Sinova, 1999: 236).

Ikuspegi protekzionistaren arabera, beraz, Estatuak, denen ongizatearen mesedetan, bere gain hartu behar ditu enpresa askoren gastuak. Ikuspegi honetatik, Estatuak arautzen du komunikazioaren merkatua; horixe, esaterako, garapen bidean zeuden herrialdeetan edo aspaldiko bloke komunistako herrialdeetan praktikan jarritako eredua⁴⁹. Bigarren eredua, liberala, batez ere Estatu Batuetan ezarri dena litzateke. Horren arabera, merkatuak, eskariaren eta eskaintzaren legeak baldintzatuko du zein hedabidek egingo duen aurrera eta zeinek ez. Horrekin batera, ikuspegi liberalarentzat arriskutsua da Estatuak enpresetan parte hartzea, “(...) ya que éstas pueden vivir de un modo ficticio -incluso, se puede llegar a primar la mala gestión empresarial-, si bien no rechazan las medidas aunque vengan del Estado” (de la Quintana, 2016: 17). Izan ere, Estatu Batuetan, liberalismoaren eta enpresa librearen

⁴⁹.- de la Quintana irakasleak (2012: 104) dio eredu honen adibiderik klasikoena Leninek sortu zuen *Pravda* egunkaria dela. Ohikoa omen zen kazetariak diru-sariak hartzea argitaratutako informazio bakoitzaren truke. Baina Sobietar Batasunak ateak merkatuari zabaldu zizkionean, egunkariak ezin izan zuen jarraitu. Azken labankada, hilkorra, Yeltsinen gobernuak eman zion, Informazio Ministerioak aukeratutako zenbait egunkariri papera ordaintzeko laguntzak eman zizkien, eta *Pravda* diru-laguntzatik kanpo utzi zuen.

sehaskan, egunkariak posta-tarifa murriztua dute 1972tik, eta, horrez gain, gaur egun zerga arloko hainbat salbuespenez gozatzeko aukera dute.

Prentsaren munduan, eredu liberalaren edo protekzionistaren arteko apustua egiteko orduan, zerikusi handia izan dezake herritarrek, publikoek edota gobernuan daudenek norainoko pisua, garrantzia ematen dioten euren identitatea, euren nortasuna babesteari (Bondebjerg eta Golding, 2004). Globalizazioaren sasoian, Frantziak, esaterako, “kultura-salbuespena” deritzon doktrina jarri du martxan, merkatuaren akatsak zuzentzeko eta bertako ikus-entzunezkoen sektorea, prentsarena eta Internet kanpoko enpresen esku geratu ez dadin. Frantsesentzat (herritarrentzat zein gobernariarentzat) funtsezkoa da bertako enpresak irautea eta sendoak izatea; horregatik, nolabait esateko, hesia jartzen diote bertako merkatuan sartzeko ahaleginetan ibili daitezkeen beste herrialde batzuetako lehiakide indartsuei. Horrela, Frantzia litzateke Europan prentsari begira politika protekzionistena egikaritzen duen herrialdea.

Prensa-merkatuak ezaugarri aldakorrek ditu herrialde batetik bestera. Beste horrenbeste gertatzen da gizarteak eta administrazioak prentsarekiko izan dezakeen ikuspegia eta jarrerarekin ere; horiek ere aldakorrek, anitzak direlako. Eta hala izateak, hurrengo lerrootan ikusiko den bezalaxe, diru-laguntzen gaian eragiten du.

2.1.3.3. PRENTSA-MERKATUA ETA LAGUNTZAK EUROPAN: EREDU ANIZTASUNA EZAUGARRI, ERAGINKORTASUNA HELBURU

Katalunian egin zen 2006an gaiaren inguruko lehen nazioarteko bilkura *Press subsidies in Europe: development, pluralism and transparency* izenburupean⁵⁰. Bertan Europako hainbat herrialdeetako laguntza-politika eta ekimenen nondik norakoak aurkeztu ziren. Garbi geratu zen laguntza-eredu desberdinak direla batetik bestera;

⁵⁰ .- Bilera 2006ko ekainaren 19an eta 20an egin zen Bartzelonan eta bertan prentsa sektorearekin zerikusia zuten 150 bat kide bildu ziren: enpresarioak, profesionalak, akademikoak eta ordezkari politikoak. Parte hartu zutenen artean izan zen Patxi Baztarrika, urte hartan Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea. Bilerak hiru lan-hizkuntza izan zituen: katalana, gaztelania eta ingelesa. Katalanezko goiburua *Ajuts a la premsa a Europa: desenvolupament, pluralisme i transparència* eta gaztelaniazkoa berriz *Ayudas a la premsa en Europa: desarrollo, pluralismo y transparencia*.

babes-lerro gutxi dituzten Erresuma Batutik⁵¹ edo Alemaniatik hasi eta Estatuaren partehartzea nabarmena den Suedia, Norvegia eta Finlandiaren kasuetara iritsi arte. Bilkura hartan hizlari moduan izan zen Alfonso Sánchez Tabertero irakaslearen esanetan, eredu desberdinak azaltzeko orduan, arreta jarri behar zaio Europako herrialdeetako prentsa-merkatuak dituen ezaugarri anitzei.

“Cultural, demographic, political and economic differences have formed a widely-varied press market in Europe. Readership levels in the north of Europe are three times those in the south. Some areas have both quality and sensationalist press; while in other cases the tabloids have not gained a foothold. In Great Britain and Ireland the *national* press predominates, whereas in continental Europe most of the circulation corresponds to regional papers. In the south of Europe, spots papers have a wide circulation, but this is not the case in the north. In some markets –such as Spain, Italy and Portugal- most copies of newspapers are sold in kiosks, but in others –the Scandinavian countries for instance- most newspaper distribution is carried out via subscription” (Sánchez Tabertero, 2006: 21-22).

Sánchez Taberterok plazaratutako argudio edo planteamendu berari eusten dio Robert Picardek ere:

“The mechanism selected to support the press are nation-specific and produce patterns of intervention reflecting the cultures, political realities and economic policies of the nations” (Picard, 2006: 213).

Beste horrenbeste dio Peter Humphreys ikerlariak. Bere hitzetan, herrialde bakoitzaren ezaugarri politiko, ekonomiko eta kulturei erreparatuta azaldu daitezke laguntza ereduaren arloan batzuetatik besteetara dauden aldeak (Humphreys, 2008).

“Los sistemas de subvenciones en Europa han variado en función de características políticas, económicas y culturales nacionales. Las principales variables que explican la amplitud de la subvención parecen ser: 1) el ‘color’ político o la orientación del gobierno (los

⁵¹ .- Erresuma Batuan bertako prentsaren egoerari buruzko txostena landu zuten 1977an. Horren arabera, laguntza selektiboak ez zuten prentsaren aniztasuna sustatzen eta gainera mehatxupearan jarri zezaketen prentsaren gobernuarekiko independentzia. Txostenak gaineratzen zuen laguntzek merkatua desitxuratzen zutela eta horiekiko gehiegizko menpekotasuna sor zezaketela. Hala ere, txostenak zeharkako laguntzen alde egiten zuen, horiek argitalpen guztientzat mesedegarriak izan zitezkeela argudiatuz. Horren lekuko Erresuma Batuan egunkariaren salmentari egokitutako BEZ zero edota posta tarifa bereziak. Biak oso estimatuak (Fernández Alonso eta Blasco Gil, 2006: 57).

gobiernos de izquierdas son más propensos a apoyar subvenciones), 2) afinidad hacia políticas intervencionistas (liberal, estatista), corporativista democrático y 3) la fortaleza/debilidad de la prensa (en el caso de que se considere que la prensa necesita ayuda)” (Humphreys, 2008: 73).

Ezberdintasunak ezberdintasun, Bartzelonako bileran izan zirenek ohartu ziren laguntzak tipologia orokor baten arabera sailkatu zitezkeela, lehenxeago aipatutako hiru helburuei⁵² ia erabat loturik ageri den tipologia, hain zuzen. Laguntzarik ohikoenak, gehien ematen direnak, arazo ekonomikoak eta publizitate baliabide gutxi dituzten argitalpen txikiei zuzendutakoak dira; talde honetan kokatuko lirateke, nola ez, hizkuntza gutxituetan ari diren egunkari eta aldizkariak. Laguntzen bigarren tipologia ohikoena, berriz, informazioaren kalitatea sustatzera bideratutakoa litzateke; besteak beste kazetariak, korrespontsalak kontratatzeke baliabideak jarriz eta baita prestakuntza profesionalerakoak edota prentsa sektorearen inguruko azterketak burutzekoak. Hirugarren multzoan, irakurzaletasuna bultzatzeko xedez pentsatutako laguntzak leudeke. Azkenik, askoz neurri txikiagoan, multimedia-bateratze edo multimedia-konbergentzia prozesuetara egokitzen joateko zenbait laguntza-programa ere azaleratu ziren.

Hausnarketa eta eztabaida saioetan parte hartu zutenen artean izan zen Patxi Baztarrika, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde moduan. Jaurlaritzak eskainitako laguntzak aurkezteaz gain, horiekiko ikuspegia ere azaldu zuen. Baztarrikaren hitzetan, euskal hedabideen etorkizuna ezin zitekeen merkatuaren eta mozkin-marjinen esku utzi, baina gaineratu zuen hedabideen arazoen konponbidea ez zela erakunde publikoetatik heldutako laguntzen eskutik soilik etorriko. Bere ustez, gogoan izan behar da beti irakurlea dela prentsaren epaile. Hortaz, hedabideek, kalitatea eta aniztasuna bermatuz, ahalik eta irakurle gehienengana iristeko erantzukizuna lukete. Horrela eginez ekidin daitekeelako, Baztarrikaren iritziz, laguntzak beharrezko bitarteko izatetik betiereko menpekotasun-helduleku bilakatzea.

⁵² .- Hizkuntza gutxituetako argitalpenak sortu eta sendotu, kalitatezko kazetaritza espezializatua sustatu eta sendotu, irakurzaletasuna sustatu.

“We should not forget that it is the readers who judge the press, who accept or reject the press. A press product is useless if it doesn't have readers, or if it does not increase its readership. So we need to examine how far we are meeting the expectations and the wishes of the thousands of Basque speakers who are potential readers of Basque-language printed media. We must guarantee quality and plurality, and consider seriously how long it will be possible to maintain present and future public subsidies as a *necessity*, without that *necessity* turning into *dependence*. If the need for public subsidies is not finite, how and to what extent should decision-making power be given to the public authorities? This and much more could be cause for reflection, and should be for the media themselves: not just as far as the size of the public subsidies is concerned, but rather in direct relation to the state of health of the Basque-language media” (Baztarrika, 2006: 183).

Nazioarteko bilera hartako parte hartzaileek azken adierazpen bat adostu zuten. Zortzi puntuko testuan prentsarentzako laguntzak beharrezkoak eta legitimoak direla aldarrikatu zuten, betiere gardentasun-baldintzak betetzen direnean eta hiru helburu lortzeko egikaritu ezker: lehena, informazio aniztasunaren sustapena; bigarrena, hizkuntzaren eta kultura aniztasunaren bermea; eta hirugarrena, prentsaren kalitatearen eta zorrotasunaren zaintza.

“The Organising Committee feels that such programmes [subsidy policies] are indeed democratically legitimate, on condition that they fulfil certain requirements concerning transparency and that they address three main objectives: the promotion of information pluralism, cultural and linguistic diversity in the media and preservation of press quality and rigor, thus effectively facing the challenges of concentration, cultural homogenisation and the need to maintain the quality of information” (Press subsidies in Europe: development, pluralism and transparency. Final Declaration, 2006: 226).

Horrekin batera, laguntza-politikak diseinatzeko orduan klabeak diren zenbait kontu azpimarratu zituzten. Hala nola, laguntzek ezin dutela arriskuan jarri prentsak gobernuekiko izan behar duen independentzia eta alderantziz, gobernuek prentsarekiko izan beharrekoa. Hori lortzeko ezinbestekotzat jo zuten deialdien irizpideak eta xedek ahalik eta zehatzenak izatea, eta aldi berean, esleipen-prozesuen gardentasuna eta independentzia bermatzea.

“Press independence from the governments granting the subsidies, and government independence from subsidised press interests must be ensured. Accurate definition of criteria and objectives is essential in the respective calls, as is the transparency and independence of the awarding processes” (Press subsidies in Europe: development, pluralism and transparency. Final Declaration, 2006: 226).

Azkenik, laguntzen eraginkortasuna eta jasangarritasuna bermatuko duten mekanismoak jarri behar direla martxan baieztatu zuten azken adierazpenean. Izan ere, laguntzen aurkako argudio nagusia da lehiakortasunik ezaren pizgarri izan daitezkeela, onuradunek jakin badakitelako urtero izango dutela subentzioa eta egoera horri helduta lehiakorra ez den kudeaketa egikaritu dezakete.

“Situations in which subsidies generate an excessive dependency of the beneficiaries on the benefactors, to the extent that recipients fail to exercise each year, must be avoided” (Press subsidies in Europe: development, pluralism and transparency. Final Declaration, 2006: 227).

Hortaz, onuradunak laguntza ematen duenarekiko gehiegizko menpekotasuna izatea ekidin behar da eta horretarako bidea deialdietan ezarritako helburuak betetzen diren ala ez egiaztatzea litzatekeela ziurtatu zuten 2006ko bileran. Orduko azken adierazpenean zehaztu ere zehazten da nola lortu proposatutakoa: formularik egokiena diote, laguntza programen eraginkortasuna egiaztatzeko balio dezaketen mekanismoak eta adierazleak sortu eta martxan jartzea litzateke.

2.1.3.4. PRENTSARENTZAKO LAGUNTZAK ESPAINIAN

Franco hil ondoren osatu ziren gobernuek, lehenbizi Unión de Centro Democrático (UCD) alderdiaren esku egon zenak, eta ondoren Partido Socialista Obrero Español (PSOE) alderdiarenak, diru-laguntzak eman zizkieten prentsa-sektoreari (Blasco Gil, 2008). Hasieran eskumenekoak ziren, izaera diskrezionala zuten (Fernández eta Santana, 2000) eta ondoren 29/1984 legean⁵³ aurreikusitakoaren

⁵³ .- Legea 1984ko abuztuaren 2koa da (LEY 29/1984, de 2 de agosto, por la que se regula la concesión de ayudas a Empresas Periodísticas y Agencias Informativas) eta bertan jasotako irizpideak 2089/1984

arabera banatu zituzten. Lege-testu hartan hainbat gai aipatuz justifikatzen zen laguntzak emateko beharra; besteak beste, informazio-eskubidea, iritzi publiko anitza osatzearen garrantzia, hedabideen kontzentrazio prozesuak, teknologia berriak, ikus-entzunezkoen lehia, krisi ekonomikoa eta irakurle-tasa baxuak.

“En una sociedad moderna los Medios de Comunicación Social cumplen la importante función de contribuir a formar una opinión pública pluralista acorde con el derecho de los ciudadanos a ser verazmente informados. En consecuencia la mayoría de los países democráticos ha establecido una política de ayudas estatales para asegurar la supervivencia de una Prensa plural acorde con las distintas concepciones que conviven en una sociedad libre. La finalidad última de aquellas ayudas es corregir la creciente concentración de los medios informativos, protegiendo las distintas corrientes de opinión propias de una sociedad democrática consecuente con el principio establecido de que las ayudas acordadas por el estado tienen su último fundamento en el interés del ciudadano, que se convierte en el destinatario de las mismas a través de las empresas periodísticas.

La necesidad de adaptación a las nuevas tecnologías aplicadas a los medios de comunicación y la crisis económica de una parte de la Prensa diaria son, además hechos generalizados en casi todos los países occidentales, provocados por diversos factores como el aumento acelerado de los costes, el elevado porcentaje del precio de venta absorbido por los gastos de distribución y la competencia de los modernos medios de comunicación audiovisual. Esta situación se ve agravada en España por los bajos índices de lectura y la obsolescencia de equipos tecnológicos cuya renovación exige fuertes inversiones” (BOE, 3 agosto 1984, nº185)

Gauzak horrela, legeak laguntza zuzenak eta zeharkakoak⁵⁴ aurreikusi zituen.

Zuzenei dagokienez, lau eratakoak: zabalkunderako laguntzak, prentsa-paperaren

dekretuaren bidez garatu ziren. Dekretuaren lehenbiziko paragrafoak honelaxe dio: “La ley 29/1984, de 2 de agosto, por la que se regula la concesión de ayudas a Empresas periodísticas y Agencias informativas, estableció, por primera vez en España con este rango normativo, las líneas básicas por las que habrán de regirse, con carácter general, las ayudas que el Estado deberá facilitar a estos medios de comunicación social, de tal manera que, a través de las mismas, se garantice la existencia de una prensa pluralista que contribuya a la formación de la opinión pública en el contexto de un régimen democrático” (BOE, 19 noviembre 1984).

⁵⁴ .- Legeak honelaxe azaltzen du zer diren zeharkako laguntzak: “Ayudas indirectas consistentes en los beneficios de carácter tributario, crediticio, postal, de distribución, de comunicación y otros análogos que se reconozcan en las Leyes o, cuando proceda, se otorguen por la Administración, de acuerdo con las normas aplicables. Además de las empresas y agencias mencionadas en el apartado anterior, disfrutarán también de estas ayudas las empresas editoras de publicaciones periódicas no diarias de información general” (BOE, 3 de agosto 1985, nº 185).

kontsumorako laguntzak, birmoldaketa teknologikorako laguntzak eta egunkari berrientzako laguntza bereziak⁵⁵. Alfonso Moralesek dionez, 1984-1989 tartean, 25.000 milioi pezeta (150 milioi euro) banatu zituzten, eta dirudienez, bi egunkari geratu ziren laguntza jaso gabe: *El Alcázar* eta *Egin*. “It would appear that only two newspapers, *Egin* and *El Alcázar*, did not receive this aid, because they refused to pay tax for ideological reasons” (Morales, 2006: 104).

Lau urtera, 1988an, Europako agintariek ohartarazpena egin zioten Espainiako Gobernuari; Batasuneko kide izateko ezinbestekoa zela prentsa-paperari eskainitako laguntzak ezabatzea, horiek konpetentzia araudian ezarritakoa hausten zutelako. Ohartarazpena baliatu zuen Gobernuak zuzeneko laguntza guztiak bertan behera uzteko, publizitate instituzionala salbu. Hala jokatzeko argudio bezala erabili zuen sektoreak publizitate sarreretan zein zabalkunde-kopuruetan izandako bilakaera positiboa (Fernández Alonso eta Blasco Gil, 2006). Gerora, zeharkako laguntza gehienak ere desagertu ziren⁵⁶. Ondorioz, XXI. mendean Estatuaren Aurrekontu Orokorretan ez da izango kazetal-enpresei edota informazio-agentziei zuzendutako diru-partidarik⁵⁷, eta laguntzak eskaintzeko aukera autonomia erkidegoen esku geratuko da⁵⁸. Moralesek dioenez, lurralde autonomoetan bertako hizkuntza propioen ezagutza sustatzeko baliagarri izango dira diru-laguntzak, “These organisations have the power to do this, because it allows them to promote the knowledge and use of their own languages” (Morales, 2006: 105).

⁵⁵ .- Laguntza hau behin bakarrik ematen zen eta, gainera, egunkaria agertu ondorengo urteko aurrekontuei lotuta. Alfonso de la Quintana irakaslearen esanetan, horren helburua pikarokeria kasuak ekiditea zen. “Con el objetivo de evitar que una sola persona inscribiera muchas cabeceras de periódicos y publicarlos durante un periodo muy corto de tiempo” (de la Quintana, 2016: 20).

⁵⁶ .- 31/1990 Legearen bidez (abendua 27koa).

⁵⁷ .- Oharra egin behar zaio baieztapen honi. Izan ere, Kultura Ministerioak urtero eman izan dizkie diru-laguntzak kultura arloan espezializatutako aldizkariei.

⁵⁸ .- Honek ez du esan nahi ordura arte autonomia erkidegoek ez zutela eskumenik arlo horretan. Izan ere, lurralde gehienetan hedabideei begirako diru-laguntzak Estatutuak onartu eta gutxira jarri ziren martxan.

Hala ere, arestian adierazitakoari ñabardura pare bat egin behar zaizkio. Alberto Colino irakasleak nabarmentzen duenez (Colino, 2013), ezin daiteke esan egun Estatuak prentsa laguntzen ez duenik, bereziki publizitate instituzionalaren bidez eta harpidetza masiboen bidez laguntzen duelako. Bigarren ñabardura, berriz, autonomia erkidegoek eskainitako laguntzei buruzkoa da:

“Si bien es cierto que las Comunidades Autónomas concentran las subvenciones a la prensa en España, es importante destacar que, aunque la mayoría se justifican por razones lingüísticas, también existen subsidios en comunidades sin lengua propia, así como ayudas que no se conceden por motivos lingüísticos en comunidades que cuentan con dos lenguas co-oficiales” (Colino, 2013: 47).

Andaluzia litzateke hizkuntza propioa izan gabe laguntzak eman dituen lurralde bat; bertan, egunkarien irakurketa sustatzekoak izan direlako. “Indeed, it is in the south of Spain where newspaper readership has always been particularly low” (Fernández Alonso eta Blasco Gil, 2014: 175).

Edozein kasutan, denborarekin Espainian diru-laguntzak eskaini dituzten lurralde autonomikoen zerrenda laburtzen joan da. 2007. urtean bederatzi lurralde ziren bitartean (Blasco Gil, 2008), bost urtera, 2012an, sei ziren: Katalunia, Euskadi, Galizia, Asturias⁵⁹, Valentzia eta Andaluzia. Zerrendatik Kanariar irlak, Balearrak eta Nafarroa jausi ziren aipatu denbora tarte horretan⁶⁰.

Hizkuntza gutxituen normalizazioan laguntzeko diru-partiden hainbat azterketa eginak dituzte Isabel Fernández Alonso eta José Joaquín Blasco Gil irakasleek (2005, 2006, 2008, 2014). Ikerketaren atal honetan, Katalunian 2008-2012 urtealdian Espainian eskainitako diru-laguntzen azterketa konparatiboa egiteko helburuz gauzatu zutena nabarmenduko da (Fernández Alonso eta Blasco Gil, 2014). Datu deigarri gisa

⁵⁹.- Asturiasen ere laguntzak hizkuntza arrazoiengatik ematen dira, Katalunian, Euskadin, Galizian eta Valentzian bezala. Helburua hizkuntzaren normalizazioan ekarpena egitea litzateke; asturiar hizkuntzarena lurralde osoan eta mendebaldean galiziar-asturiarrarena.

⁶⁰.- Kanarietan diru-laguntzak irla izaerari lotuta zeuden eta Garraiorako Zuzendaritza Orokorra ematen zituen bertako eguneroko prentsa irlen artean banatu ahal izateko. Baleareetakoa ezohiko kasua da; koofiziala den hizkuntza propiodun lurraldea dugu, baina emandako laguntzak ez ziren horren aitzakian banatzen. Helburuak beste batzuek ziren: hedabide berrien sorkuntza, egunkarietako gehigarrien edo zenbaki berezien edizioa edota prentsa digitalaren sustapena, esate baterako. Eta Nafarroan, 2012 urtean bertan behera geratu ziren ordura arte Euskarabideak idatzizko hedabideei eskaintzen zizkien diru-laguntzak. Kentzeko erabakia justifikatzeko aitzakia moduan, ekimena sustatzeko dirurik eza aipatu zuen orduko UPNko Gobernuak.

aipatzen dute laguntza asko deialdi publikorik gabe banatu zirela eta aurkitutako datuen artean, Galizian gertatua nabarmentzen dute.

“Moreover, in the research undertaken, a high volume of subsidies was found to have been granted without any public call for applications at all. This is, for example, the case of Galicia, where the Secretariat General for Language Policy, besides granting regulated subsidies, signs discretionary agreements with press publishers every year, also to promote the presence of the Galician language in the media” (Fernandez Alonso eta Blasco Gil, 2014:176).

Lanaren emaitzei errepassoa eginda, esan dezakegu Euskadi izan dela prentsa idatzari esleitutako kopuruei denboran zehar eutsi dien autonomia bakarra, batz bestea lau milioi t´erdi euroko diru-baliabideekin⁶¹; gainontzeko lurraldeetan esleitutako diru-kantitateek behera egin dute, zenbait kasutan nabarmen gainera⁶². Baina Euskadi ez da denboran zehar diru gehien esleitu dituen, hori Katalunia baita. Aldea erraz azaldu daiteke; izan ere, Katalunian hainbat urtetan prentsarentzako bi eratako diru-laguntzak esleitu dira: lehena, gainontzeko lurraldeetan bezala, hizkuntza gutxituetan ari diren egunkari eta aldizkako argitalpenei bideratutakoa; bigarrena, kopuruari erreparatuta garrantzitsuena⁶³, dagoeneko lan honetan aipagai izan den *espai catalá de comunicació* sustatzera bideratutakoa.

“Subsidies for press written wholly or partially in Catalan, like many other initiatives on communication policy matters, have since then⁶⁴ been tool at the disposal of the different Catalan governments for the articulation of Catalonia’s own communication space. This scheme is particularly aimed at assisting the build-up, strengthening and sustainable development of Catalonia as a separate nation. The Catalan government thus clearly links communication policies and cultural policies (essentially related to language) with the process of nation building” (Fernández Alonso eta Blasco Gil 2014: 177).

⁶¹ .- Andaluzian ere eutsi diote laguntza-kopuruari baina gogoratu han ez dela hizkuntza gutxitua sustatzeko ematen, irakurketa sustatzeko baino.

⁶² .- Asturiasen 2008 urtean 365.071 euro esleitu zituzten, eta 2012an kantitate horren herena baino gutxiago (101.887 euro). Valentzian urterik oparoena 2009a izan zen 46.780 euroekin eta 2012an 38.733 euro. Galizian 2008an 3.613.276 euro eta 2012an 839.491 euro, eta Katalunian urterik onena 2010ekoa izan zen, 14.742.035 euroekin, 2012an berriz, erdia baino gutxiago esleitu zuten, 6.681.553 euro (Fernández Alonso eta Blasco Gil 2014: 176).

⁶³ .- Zortzi milioi euro ingurukoa, idatzizko prentsaren arloan (papera eta online euskarriak kontuan hartuta).

⁶⁴ .-“Then” hori 1979ko Autonomia Estatutuaren onarpenari dagokio.

Katalunian hedabide-sistema propioa sortu eta garatzeko egin den ahaleginak zenbait lerro merezi ditu, aipatu ahalegina komunikazioaren arloko politika publikoen ardatz bilakatu delako (Gifreu, 1991, 1996, 2006, 2009, 2013, 2014; Corbella, 1995; Corominas, 2007, Blasco Gil, 2013, Fernández Alonso eta Espín, 2015). Bertan, Francoren heriotzaren ondoren martxan jarritako hizkuntza normalizaziorako politika bi zutabe nagusiren inguruan mamitu zen; batetik, katalanezko ikus-entzunezko hedabideen sorrera (CCRTV edo Corporació Catalana de Ràdio i Televisió⁶⁵ erakunde publikoaren legea 1983an onartu zuen Parlamentuak) eta bestetik, katalanezko hedabide pribatuen sustapena. Kataluniak 1983 urtean arautu zuen sustapena⁶⁶, bi bide erabiliz gauzatu dena: nagusia diru-laguntzak izan dira, bigarrena, berriz, kuoten ezarpena.

“A new language policy tried to promote Catalan language use within the media through the provision of a quota system in private radio and film dubbing. This policy represented an attempt to create equality of supply between Catalan and Spanish language material” (Corominas, 2007: 175).

Paperezko hedabide inprimatuei dagokienez, zenbait egunkarik katalanezko edizioak kaleratzeari ekin zioten⁶⁷ eskainitako diru-laguntzei esker. María Corominasek dioenez, sektore pribatuak hala jokatu zuen ikusi zuelako katalanezko egunkariak proiektu bideragarriak izateaz gain, errentagarriak ere bazirela; hau da, diru-etekinak lortu eta poltsikoratzeko balio zutela (Corominas, 2007). Eta esandakoari tokian tokiko hedabideen sektorean hamaika urtetan izandako ugalketa gehitu behar zaio. Horren guztiaren ondorioz, nabarmen handitu da hizkuntzaren presentzia hedabideetan. Hala ere, oraindik gaztelania da nagusi. Aurrera begira berriz, María Corominasek sinergiak, elkarlan-estrategiak garatzearen alde egiten zuen hizkuntzaren etorkizuna ziurtatzeko.

“The profound changes in media and cultural industries suggest that neither public policies nor social initiatives alone will be enough to ensure a specific Catalan language media space and new kinds of co-operative strategies need to be created in order to ensure the future of the language. (Corominas, 2007: 183).

⁶⁵ .- 2007. urtetik beste izen bat dauka: Corporació Catalana de Mitjans Audiovisuals (CCMA).

⁶⁶ .- Generalitatearen 497/1983 Dekretua.

⁶⁷ .- *Segre* egunkariak 1997ko irailean kaleratu zuen katalanezko edizioa eta *El Periódico de Catalunya* egunkariak hilabetera, 1997ko urrian ekin zion bide berari.

Corominasek aipaturiko aldaketei, gobernuen aurrekontuak era latzean astindu eta baldintzatu dituen krisi ekonomikoak eragindakoa gehitu beharko genieke gaur egun. Eta aurrekontuen murrizketak hedabideentzako diru-laguntza publikoetan artaziak sartzea ekarri du han, hor eta hemen. Kataluniaren kasuan, 2011tik aurrera inoizko murrizketarik handienak egin dira diru-laguntzetan, ia %60rainokoak (Fernández Alonso eta al.; 2012).

“En este contexto cabe plantearse, si el *espacio catalán de comunicación* logrará sobrevivir a este embate o si nos encontramos ante un giro radical de las políticas de comunicación catalanas que implicará una reformulación profunda del panorama comunicativo en este territorio” (Fernández Alonso eta al.; 2012: 15).

Kataluniara begira idatzitako hitz horiek, 2012koak, ez dute gaurkotasunik galdu. Momentuz ez delako han, hor ezta hemen ere tunelaren amaierako argiaren arrastorik.

2.1.4. DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOEN AZTERKETA ETA EBALUAZIOA EUSKADIN

Marko teorikoaren atal hau borobiltzeko, Euskadin diru-laguntzak gai nagusitzat hartuta egin diren lan akademikoak gainbegiratu dira. Labur gainbegiratu; izan ere, ikerketa honen beste atal batzuetan landuko dira behar bezalako sakontasunez Jaurlaritzak hiru hamarkadatan euskara biziberritzeko hizkuntza-politikak gauzatzeko eta horren barne euskarazko hedabideak laguntzeko esleitu dituen diru-laguntzak⁶⁸.

Gurean, euskarazko hedabidengintzaren inguruan idatzi diren artikulu, tesi zein liburu gehientsuenek aipatzen dute, luze edo labur, baliabide ekonomikoaren kontua. Ia beti ikuspegi bikoitza biltzen duen planteamendua plazaratu da. Batetik, diru-laguntzen ezinbestekotasuna azpimarratu da. Bestetik, aginte publikoek euskara hutsean kaleratzen diren hedabideekin duten erantzukizuna agerian jarri, argudioz jantzi eta erakundeek burutu beharreko ekimen zehatzak ere planteatu dira.

⁶⁸ .- Ikerketaren bi ataletan landu eta aurkezten dira aipatutako baliabideak, *Euskara sustatzeko diru-baliabideak* izenekoan eta “*Hedabideak*” deialdiaren *diru-baliabideen bilakaera* izenekoan.

“Euskarazko komunikazio-esparru sendo bat zurkaiztu gura bada, ezinbestekoa da aginte publikoen laguntza. Eta laguntza hori, gainera, ez litzateke mugatu behar –sektoretik maiz salatu izan denez- unean uneko behar larrienak nola edo hala estaltzera: gauzak ganoraz egitekotan. Egungo ziurgabetasun-egoera gainditu (urtea sasoi horretako sosak jasoko dituzten ala ez jakin ezinik ematen baitute hedabideetan) eta epe ertain-luzera begiratzea eta inbertsioak egitea ahalbidetuko luketen kontratu-programen edo gisako hitzarmen bidetik jotzea eskatzen du egoerak” (Alkorta eta Zuberogoitia, 2009: 199).

Aipamen horren edukiak beste baieztapen bat egitera darama. Erakunde publikoei, bereziki Jaurlaritzari, euskarazko hedabideak sustatzeko egin duen ahalegina aitortu eta onartu egin zaion arren, ikuspegi kritikoa nagusitu da Eusko Jaurlaritzaren hedabide-politikari dagokionez; zehatzago esateko, ikus-entzunezko sektore publikoa, hau da, EITB, lehenetsi duela aurpegiratu zaio.

“Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren hedabide-politika EITB garatzera eta sendotzera mugatu da urteetan zehar, erakunde horren gestioan, hori bai, hizkuntza normalizazioak funtsezko papera jokatu duen arren. Hala eta guztiz ere, oso murrizta izan da euskara beste hedabide moldetan sustatzerakoan jokatu duen papera; horrenbestez, gizartearen borondate eta ekimenaren eta merkatuko irizpideen arabera garatu da eremu horietan euskarazko eskaintza” (Zallo, Azpillaga eta de Miguel eta Zallo, 2002: 26)

Hori adierazten duten hiru egileek gaineratzen dute diru-laguntza publiko sendoak eta egonkorrak erabat lotuta daudela hedabideen bideragarritasunarekin.

“ (...) euskarazko hedabideentzako laguntza publikoen hazkunde progresiboak argi erakutsi du euskarazko hedabideen merkatua, prentsa idatzian batez ere, merkatu anitza bezain bideragarria izan daitekeela. Bereziki ikusi da hau 2000. urtetik⁶⁹ aurrera, EAJ-EA-EH gobernu-hitzarmenaren⁷⁰ ondotik hain zuzen ere. Sostengu publikoa

⁶⁹ .- Hitzek hitz jasotako aipamen honen egileek ondoko oin-oharra jartzen diote: “2000. urtean 622 milioi pezeta banatu ziren. Haietatik, 275 jaso zituen *Egunkariak*, ia 40 *Argiak* eta 35 *Zabalik* astekari berriak, hau da, aurrekontuetan zehazturiko kopuruaren erdia eraman zuten hirurek. Hainbat agerkari eta toki-kazeta, irrati eta telebista, batez ere lokalen eta multimedia-zerbitzuren artean banatu zen gainerakoa. Nafarroako Foru Gobernuak, bestalde, 49,5 milioi pezetako kopurua bideratu zuen hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko” (Zallo, Azpillaga eta de Miguel, 2002: 27).

⁷⁰ .- Zitan aipatzen den gobernu-hitzarmenak iraupen laburra izan zuen, urte betera iritsi ez zena. Hitzarmena 1999ko martxoan adostu eta bi hilabetera, maiatzean, sinatu zuten PNV, EA eta EHk. Baina 1999ko azaroaren 29an ETAK hautsi egin zuen 1998ko irailaren 18tik ezarritako sueten oso eta mugagabea. Nabarmenezkoa da sueten hura ezarri baino sei egun lehenago sinatu zela Lizarrako Hitzarmena. 2000ko urtarrilaren 21ean ETAK bonba-kotxea lehertarazi zuen Madrilen eta atentatu horren ondoren, Ibarretxe lehendakariak eten egin zuen EHrekin sinatutako gobernu-hitzarmena. 2000ko otsailean ETAK Fernando Buesa buruzagi sozialista hil zuen eta orduan etenda zegoen

sendoa eta egonkorra denean, euskarazko hedabideak bideragarriak izan daitezkeela frogatzen digu *Correo* taldeak berak eremu honetan sartu izanak, 1999an ekin baitzion *Correo* taldeak *Zabalik* izeneko astekariari, *Euskaldunon Egunkariarekin* akzioetan eta estrategian loturik dagoen *Argia* astekari dagoeneko klasikoarekin lehian. Modu orokorragoan, bideragarritasun horren adibide dugu tokian tokiko hedabideen garapena” (Zallo, Azpillaga eta de Miguel eta Zallo, 2002: 27)

Aipamenak aipamen eta kritikak kritika, baliabide ekonomikoena gai nagusitzat hartu duen ikerketa-esparrua oso berria da gurean , ia-ia atzo goizekoa. Ondorengo lerrootan bildu eta azalduko dira gaiaren inguruan bertatik bertara egin diren ekarpen esanguratsuenak.

2.1.4.1. EKARPEN ETA IKERKETA AIPAGARRIENAK: GUTXI ETA ORAINTSUKOAK

Euskadin erakunde publikoek hedabideei eskainitako diru-baliabideak objektu nagusitzat hartu dituzten ikerketa gehienak EHUKo Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakasle talde batek burututakoak ditugu⁷¹ (Zabaleta et al. 2004, 2007, 2008, 2010, 2011, 2012a, 2012b, 2012c, 2013). XXI. mendeko lehen urteetatik ekin zioten hedabideen arlo ekonomikoari begirako lanak gauzatzeari eta arlo horretako ekarpenekin batera etorri dira hizkuntza gutxituetako hedabideen azterketa konparatiboak ere.

Dena den, talde horrez gain, ezin aipatu gabe utzi euskara hutsezko idatzizko hedabideei emandako diru-laguntzak gai nagusi moduan jorratu ez arren, horiek ere euren lanetako atal esanguratsu gisa hartu dituzten beste lau egile. Denbora-lerroan kokatuta lehena, Jexux Mari Zalakain irakasleak egindakoa litzateke. Zalakainek

hitzarmena behin betirako hautsi zen. Horrek gutxiengoan utzi zuen PNV-EA gobernua. Zenbait hilabetetan legeak eta aurrekontuak aurrera atera ezinik ibili ondoren, Ibarretxek agortutzat eman zuen V. Legealdia, demokrazia garaian izan den laburrena, eta hauteskundeak deitu zituen 2001eko maiatzaren 13rako.

⁷¹ .- Talde horren buru Iñaki Zabaleta irakaslea da eta berarekin batera aritu dira Nikolas Xamardo, Arantza Gutiérrez, Itsaso Fernández eta Santi Urrutia irakasleak. Bestalde, talde horrek burututako zenbait lanetan, ez guztietan, parte hartu du Carme Ferré Pavia, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasleak ere.

Jaurlaritzak euskarazko prentsarekiko izan duen jarrera aztertu zuen *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da* izenburuko lanean. Bertan, euskarazko egunkariaren sorreran izandako gorabeheren analisia burutzeaz gain, 1980tik 1991ra bitartean, urte biak barne, Jaurlaritzak emandako diru-laguntzak jasotzen ditu. Egileak baieztatzen du euskarazko prentsari dagokionez, lehia-giroa nagusitu dela herri-ekimenaren eta instituzioen artean. Zalakain oso kritiko ageri da Eusko Jaurlaritzarekin.

“Gatazka sortu den bakoitzean, bitariko aukera egin du Eusko Jaurlaritzak euskarazko prentsari dagokionez: batetik ordezkioak sortu, bestetik luzamendura jo. Ordezkapena eta luzamendua izan dira gatazkaren irudi eta formula. Laguntza ere bai -subentzioen bidez-baina beti ere arrastaka eta planifikaziorik gabe” (Zalakain, 1993: 42).

XX. mendeko hondarretakoa da hemen nabarmendu daitekeen bigarren lana, Asier Aranguren *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian* izenarekin idatzitako tesia hain zuzen (Aranguren, 1999). Tokian tokikoen elementu bereizgarrien analisi sakona burutzen du, eta bertan diru-laguntzen, bereziki udalek eskainitako garrantzia azpimarratzen du Aranguren,

“Udala dirulaguntzen habe nagusia da: astekarrietan subentzioen %57, erdia baino gehiago beraz eta hamabostekarrietan ere %56. Ez da zalantzarik, Udalek emandako dirulaguntzei esker diraute aldizkari lokalek. Kontuan hartu beharra dago, jakina herri eta eskualde aldizkariak izanik informazioa eta zerbitzua udal eta eskualde mailako biztanleei ematen dietela batez ere, beste inork emango ez duen zerbitzua hain zuzen, eta beraz normalizat har daiteke datu hau” (Aranguren, 1999: 190).

Hirugarren lana, tokian tokiko idatzizko hedabideen inguruan hamaikatxo ekarpen egin dituen Idoia Camacho irakaslearena da (2002a, 2002b, 2004). XXI. mendearen hasieran, 2002an aurkeztu zuen *Herri aldizkarien funtzioak eta edukiak 1989-1999* izenburua daraman doktorego-tesiaren⁷² xedeetariko bat honela deskribatu zuen egileak: “Bigarren helburua administrazio eta herri-aldizkarien arteko lotura zein den jakitea da. Hau da, jakin nahi nuen ea erakundeek ematen zituzten dirulaguntzek euskarazko agerkarien argitalpenak areagotu egin zituzten” (Camacho, 2002a: 21).

⁷² .- Camachok ondoko bederatzi aldizkariak aztertu zituen lana burutzeko: *Galtzaundi, Arranondo, Bizarra Lepoan/UK, Irunero, Herrietan, Eraz, Aretxagazeta, Arrasate Press* eta *Karkara*. Metodologiari dagokionez, aldizkarien eduki-analisiaz baliatu zen eta horrez gain 23 galderadun elkarrizketak egin zizkien hedabideetako ordezkariak.

Camachok Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek tokian tokiko prentsari eskainitako laguntzen errepasoa egin ondoren, arestian irakurri daitekeen Asier Arangurenen zita bera erabiltzen du udalek egindako ekarpena nabarmentzeko: “Udalek, izan ere, tokian tokiko prentsari ematen dizkioten dirulaguntzak administrazioaren gainerako mailek (Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek) eskaintzen dizkiotenak baino askoz garrantzitsuagoak direla esan dezakegu” (Camacho, 2002a: 72-73).

Ikerketaren ondorioetan Camachok baieztatzen du “(...) herri agerkariek dirulaguntzen menpe ahalik eta gutxien egon nahi dute”(Camacho, 2002a: 328), eta egoera horretara heltzeko, aldizkariak 1989-1999 bitartean autofinantzaketa mailak igotzeko urratu zuten bidea azpimarratzen du. Bi eratako ahaleginak konbinatzen dituen bidea: batetik, publizitatea eskuratzea, eta bestetik, harpidetza-sistema sustatu eta erabiltzea. Hala ere, ahaleginak ahalegin, orduko egoerari eta aldizkariak administrazioarekin zuten loturari erreparatuta ondokoa dio:

“Euskarazko herri aldizkariak irabazi asmorik gabe sortu dira eta herri-ekimenez bultzatu dituzte. Finantziarioa partekatua da, publizitatea eta beste sarrera propioak alde batetik, eta dirulaguntza publikoak bestetik. Gaur egun aldizkariak autofinantzatzea ezinezkoa da eta erakunde publikoen dirulaguntzak beharrekoak dira” (Camacho: 2002a: 327)

Eta kontuan hartu beharreko laugarren lana Alazne Aiestaran irakaslearena da. Aiestaranek ere tokian tokiko hedabideei eta horien irakurleei buruzko hainbat azterketa burutu ditu. Bereziki Deba Barreneko eskualdean zabaltzen diren jarri du arreta (Aiestaran 2004, 2007a, 2007b, 2010, 2011). Doktorego-tesian Deba Barreneko tokian tokiko aldizkariak⁷³ hartu zituen analisi-objektutzat 2000-2004 urte bitartean. Ikerketaren ondorioetan dio diru-urritasuna eta denbora-eza direla aldizkariaren ahulezia aipagarriak.

⁷³ .- Aldizkari hauek aztertu zituen: ... *eta kitto!*. *Pil-pilean*, *Barren*, *Kalaputxi*, *Berriketan* eta *Drogeteniturrri*. Horien 2004 urteko gastuak, sarrerak (horren barne diru-laguntzak) eta balantzeak jaso zituen, eta, zenbaiten kasuan, 1999ko datuekin alderatu zituen. 1999ko datuak Asier Arangurenen tesitik hartu zituen Aiestaranek, baina, esan bezala, Arangurenek ez zituen Aiestaranek aztertutako aldizkari guztien datu ekonomikoak jaso bere tesian.

“Desberdintasunak desberdintasun, denbora eza eta diru urritasuna dira Deba Barreneko aldizkari gehienek kontrari dituzten bi faktore nagusiak, eta aldizkariaren egiturak zenbat eta txikiagoak izan, arazo larriagoa bihurtzen da bai bata zein bestea. (...) Diru faltak ere, makina bat buruhauste ematen die aldizkariari, Deba Barreneko herri prentsa erakundearen diru-laguntzen morroi bizi baita hein handi batean” (Aiestaran: 2007a: 741).

Aiestaranek jasotako datuen arabera, aztertutako aldizkariaren aurrekontu osotik diru-laguntza bidez jasotakoak %34 eta %63 bitarteko portzentajea suposatzen zuen⁷⁴. Egoeraren analisia eginda, Aiestaranek ondokoa baieztatu zuen: “Deba Barreneko euskarazko komunikazio sistemak berrantolaketa inoiz baino gehiago behar du, eta berrantolaketa multimedia erakoa izan daiteke erronka”. (Aiestaran, 2007a: 747).

Euskara hutsezko idatzizko hedabideen analisia egiteko orduan dimentsio ekonomikoari, bereziki erakunde publikoetatik jasotako diru-baliabide publikoen dimentsioari heldu zioten lau egileen lanak gainbegiratu ondoren, gatozen orain gurean hedabideen finantziario-iturriak lehentasunezko ikerketa-objektutzat hartu dituzten ekarpenak biltzera. Arestian esan bezala, Gizarte eta Komunikazio Fakultateko irakasle talde batek egindakoak dira, eta ez dira mugatzen bertako hedabideetara, baizik eta Espainian edota Europa mendebaldean ari diren hizkuntza gutxituetako hedabideen azterketa konparatiboak burutu dituzte.

Iñaki Zabaleta eta taldekideak hedabideen ekonomiarik loturiko baieztapen batetik abiatuta ekiten diote zereginari: hedabideen finantziarioa krisi bikoitzaren menpe dago; batetik, atzeraldi ekonomiko orokorraren menpe eta bestetik, bereziki hedabideei eragin dienaren menpe. Aipatu krisiak hedabideen osasun ekonomikoan izan dituen ondorioak maila askotakoak dira eta hainbat ikerlarik aztertu eta plazaratu dituzte. Rosario de Mateo, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasleak adibidez, ondoko hitzekin laburbiltzen du gertatu dena⁷⁵:

⁷⁴ .- Alazne Aiestaranek dio portzentaje hori altuagoa dela aldizkari ez profesionalen eta erdi profesionalen kasuan aldizkari profesionaletan baino. Ondoko datu zehatzak bildu zituen: “*Drogeteniturrik* 2004ko aurrekontu osoaren %59,8ko portzentajea jasotzen du diru-laguntzetan, *Pil-pilean* hamabostekariak aurrekontu osoaren %55,10 eta *Kalaputxik* %63. *Berriketan* aldizkariak ez du erakundearen diru-laguntzarik jasotzen, horiek jasotzeko baldintza nahikoak ez dituelako. Aldizkari profesionaletan diru-laguntzen portzentajeak baxuagoak dira: ...*eta kitto!*-n %33,9 eta *Barrenen* %49,3” (Aiestaran, 2009: 741-742).

⁷⁵ .- Hitzak Rosario de Mateo, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasleak *De la miseria del periodismo a la Torre de Babel de la información* izenburuko hitzalditik hartuta daude. Horiekin eman zion hasiera 2009an Sociedad Latina de Comunicación delakoak egin zuen lehen nazioarteko biltzarrari.

“La crisis económica de las empresas de comunicación se ha manifestado en: una reducción de sus ingresos por la venta de sus espacios publicitarios; el desplome de su cotización en bolsa; su endeudamiento; la caída del consumo de sus bienes y servicios de información y comunicación; y la reducción del empleo” (de Mateo, 2009:1).

Aurreko paragrafoan azaldutako panoramari gehitu behar zaizkio hedabideen jabegoan gertatu diren kontzentrazio-prozesuak, audientzien zatiketa, Internet eta zerbitzu digitalen gorakada eta aurretik aipatutako guztiak kazetari-jardunean eragin dituen aldaketak. Krisi bikoitz horrek “mundu berri bat iragarri du” (Nobre Correia, 2010) eta gogor astindu die edozein hedabideen jardunerako ezinbestekoak diren diru-funtsei.

“Though the goals and values to be reached by the media should not only (nor mostly) be economic but social and related to the welfare and development of the community, it is undeniable that the funding system is a crucial factor in any media outlet” (Zabaleta eta al., 2012c: 4).

Eta hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideak ez dira egoera horretatik salbuetsita geratu. Hortaz, Zabaletak eta lankideek hizkuntza gutxitua duten Europako hamar komunitateetako hedabide elebakarren finantza-sistemak aztertuz eta alderatuz⁷⁶ ikusi zuten erakunde publikoak zirela hedabideen finantziazioaren iturri nagusia. Hamar eurotik ia zortzi erakunde publikoek jarritakoak ziren⁷⁷, eta gainontzekoa publizitatetik, salmenta eta harpidetzatik eta beste era batzuetako

⁷⁶ .- Galeseko gaelikoa, Irlandako gaelikoa, Eskoziako gaelikoa, euskara, katalana, galegoa, korsikera, frisiara, bretoiara eta samiera. Esan bezala, bakarrik hartu zituzten kontuan hedabide elebakarrak. Horrela kontsideratuak izateko, ekoizpenaren %70etik gora hizkuntza gutxituan izan behar zuten. Baldintza horrek ezarritako portzentajetik salbuetsita geratu ziren frisiara, korsikera eta samiera. Hiru hizkuntza horien egoera ikusita, hedabide elebidunak ere aintzat hartu zituzten. Unibertsoari dagokionez, 2008ko kalkuluen arabera aipatu 10 komunitateetan 1.068 hedabidekoa zen, ia erdia prentsa sektorekoa (%49,5, hau da, 525 hedabide). Ikerketarako lagina 144 hedabidetakoa izan zen: 40 Kataluniakoak, 30 Euskal Herrikoak, Galiziakoak 22, Galesekoak 15 eta gainontzekoak geratzen diren sei komunitateetakoak (horien kasuan ia aukeran zeuden hedabide guztiak aztertu zituzten). Ikerketan erabilitako metodologiari dagokionez, galdetegiak, hedabideen balantze-orriak eta hedabideetako zuzendari edota finantza arduradunei egindako elkarrizketak baliatu zituzten. Bildutako datu gehienak 2009 urteari dagozkio, gutxi batzuk 2010ekoak dira.

⁷⁷ .- Portzentaje zehatza %78,5koa zen (Zabaleta et al., 2012c: 17).

iturrietatik eskuratzen zuten⁷⁸ (diru-bilketa kanpainak, babesleak...). Ondoko taulan daude bilduta portzentaje zehatzak:

1. *taula. Hizkuntza gutxietako hedabideen finantziario-iturriak, 2009 (%)*.

	Diru-iturri publikoak	Publizitatea	Salmentak eta harpidetzak	Beste batzuk
Katalana	70,4	19,5	2,0	8,2
Euskara	73,0	16,4	5,4	5,2
Galegoa	84,1	12,7	0,3	2,9
Galeseko gaelikoa	97,0	2,5	0,2	0,3
Eskoziako gaelikoa	99,1	0,3	0,0	0,6
Irlandako gaelikoa	92,1	6,2	0,2	1,5
Bretoiera	69,6	0,5	13,2	16,8
Frisiera	79,2	15,7	0,1	4,9
Samiera	94,2	2,4	1,5	1,8
Korsikera	75,2	20,2	0,2	4,4

Iturria: Zabaleta eta al. 2012c: 17. Tesiaren egileak itzulia eta moldatua.

Taularen interpretazioa egiteko, aintzat hartu behar da prentsa, irratia eta telebistari buruzko datuak daudela hor bilduta, izaera publikoko eta izaera pribatuko hedabideenak. Zenbakiak erakusten dutenez, lau komunitateetan (hiru gaelikoari lotuta eta laugarrena samierazkoa) finantziarioa ia %100ean erakunde publikoetatik dator. Bestalde, korsikeraz eta katalanez ari diren hedabideetan, bost eurotik bat publizitate bidez lortzen dute. Salmenta eta harpidetza bidez eskuratutako sarrereri erreparatuta, bretoiera nabarmentzen da, gainontzeko gehienek kasuan ia hutsaren hurrengo baita⁷⁹ finantziario bidez horrek hedabideari ematen diona. Beste horrenbeste gertatzen da beste iturri edo ekimen batzuen bidez lortutakoari dagokionean.

Behin argazki orokorra izanda, xehetasunetara jo ezkerreko, ñabardura esanguratsua egin daiteke. Izan ere, emaitzak euskarriaren arabera erreparatu ezkerreko, agerikoa da erakunde publikoen laguntzen onuradun nagusiak ikus-entzunezkoak

⁷⁸ .- Publizitatearen bidez %14,5, salmenta eta harpidetza bidez %1,6 eta beste iturri edo ekimen batzuetatik %5,4 (Zabaleta eta al., 2012c: 17).

⁷⁹ .- Egileek diote salmenta eta harpidetza bidezko sarreraren datua kontuz interpretatu behar dela; hor ageri diren zenbakiak ez direlako bakarrik prentsari dagozkionak baizik eta sektore osoa (prentsa, irratia eta telebista) kontsideratuz kalkulaturakoak.

direla, eta beste muturrean leudeke inprimatuak. Bien arteko aldea 65 puntukoa litzateke.

“Taking the ten communities together as constituting a European frame, we see that *public funding*, the most abundant type of revenue, makes an average of approximately 83% of the financing of the broadcasting sector (85.3% on radio and 79.8% on television).

However, in print press it goes down to 18.0%. The difference is of 65 percent points” (Zabaleta eta al., 2012c: 19).

Publizitate bidez lortutako diru-sarreretan, idatzizko sektoreak izango luke emaitzarik onena, %37koa hain zuzen; ikus-entzunezkoetan, batz bestean %14koa den bitartean. Beste horrenbesteko portzentajeak aurkitzen ditugu salmenta eta harpidetza bidezko sarreren atalean, %37,5 baita prentsarena.

Lurraldeen arteko alderaketa egin ezkerro eta prentsa-sektorea bakarrik kontsideratuta, Zabaleta eta lankideen ikerketak ondoko taulan bildutako datuak eskaintzen ditu:

2. taula. Hizkuntza gutxituetako hedabideen finantza-egitura euskarriaren arabera. Prentsa, 2009 (%).

	Diru-iturri publikoak	Publizitatea	Salmentak eta harpidetzak	Beste batzuk
Katalana	6,1	43,7	42,5	7,7
Euskara	28,6	27,8	36,5	7,1
Galegoa	33,9	39,3	24,7	2,1
Galeseko gaelikoa	18,8	43,7	23,8	13,8
Eskoziako gaelikoa	-	-	-	-
Irlandako gaelikoa	50,1	11,1	11,8	27,0
Bretoiera	11,0	2,8	78,3	7,9
Frisiera	89,5	1,7	8,8	0,0
Samiera	76,5	13,8	9,8	0,0
Korsikera	0,0	43,0	23,0	34,0

Iturria: Zabaleta eta al. 2012c: 20. Tesiaren egileak itzulia eta moldatua.

Portzentajeak ikusita, desberdintasun nabarmenak daude lurralde batzuetatik besteetara. Lau lurraldetan, Katalunian, Galesen, Galizian eta Korsikan, idatzizko hedabideek sarrera txukunak lortzen dituzte publizitate bidez, hamarretik lau euro gutxi gora behera. Horren ondoren daude euskaldunak, hamarretik ia hiru euroekin.

Eta azkenik, gainontzeko lurraldeetan, askoz portzentaje txikiagoa eskuratzen dute publizitate bidez. Erakunde publikoetatik jasotakoari begiratuz, korsikeraz ari direnek ez dute erakunde publikoen iturritik ezertxo ere hartzen. Ondoren, Katalunia eta Britainia lirateke portzentaje apalena duten lurraldeak (%6,1ekoa eta %11koa). Euskaraz eta galegoz diharduten hedabideei, berriz, hurrenez hurren, hamarretik hiru eta lau euro heltzen zaizkie erakundeetatik. Salmentak eta harpidetzak kontuan hartuta, zenbakirik onenak Britainiako idatzizko hedabideenak dira zalantzarik gabe, horixe baita hango idatzizkoen finantziatio-iturri nagusia (hamar eurotik ia zortzi). Ondoren, distantzia handira kokatzen dira katalanez, euskaraz, galegoz, gaelikoz eta korsikeraz argitaratzen diren egunkari eta aldizkariak. Azkenik, beste bide batzuetatik lortutako diru-iturriei dagokienez, ia lurralde gehienetan %10etik beherako portzentajeak daude. Hala ere, nabarmentzekoak dira Irlandako gaelikoz, korsikeraz eta bretoieraz ari direnek eskuratutakoak.

Hedabideen jabegoa publikoa edo pribatua den aintzat hartuta; aztertutako kasuetan agerikoa da publizitatea dela pribatuen diru-sarrera nagusia (%38,3) eta publikoetan, ordea, erakundeetatik datorrena (%80,8). Izaera sozialeko hedabideen kasuan ere, erakundeen diru-laguntzak dira finantziatio-bide nagusia baina izaera publikoko hedabideetan baino maila apalagoan (%55,7).

Azenik, lanaren egileek hamar lurraldeetako hizkuntza gutxituetako hedabideek aurrera begira zituzten arazoak arakatu zituzten, horien zuzendari eta finantza-arduradunekin izandako elkarrizketa bidez. Aurreikusi zitekeenez, finantziatioari lotutako kezka izan zen denen ahotan.

“As for a total of the ten communities, 58% of the problems revealed by the respondents were directly related to financing and 42% indirectly related” (Zabaleta eta al., 2012c: 25).

Finantziatioari zuzenean lotuta aipatu ziren kezken artean, lehena diru-laguntzak⁸⁰, ondoren publizitatearen beherakada, urte anitzeko finantza-planen

⁸⁰.- Katalanez eta euskaraz ari diren hedabideen kasuan diru-laguntzei lotutako kezka portzentajeetara ekarrita %19koa eta %10ekoa da, hurrenez hurren. Kezka horri publizitateari loturikoak irabazten dio nabarmen (%22 eta %33 hurrenez hurren). Galegoaren kasuan, ordea, patroia bete egiten da: hots, laguntzei loturiko kezkak %44 ordezkaten du eta publizitateari loturikoak, ordea, %7.

gabezia, salmenta urriak eta ekoizpen-kostu handiak. Finantziarioekin zeharkako zerikusia duten kontuen artean berriz, ikertutako hedabideen merkatuaren tamaina txikia nabarmendu zen elkarriketetan.

Ondorioetara iritsita, Zabaletak eta lankideek baieztatzen dute hizkuntza gutxituetako hedabideen finantziario-bide nagusia diru publikoa dela, beste diru iturriekiko alde handiarekin gainera.

In view of the origin of all the annual income collected by the media of those ten communities, almost eighty Euros come from taxpayers' money, fifteen from advertising, one⁸¹ from sales and subscriptions and five from other supplementary sources such as fund-raising, sponsorship, sales of contents and rights, etc. " (Zabaleta eta al., 2012c: 30-31).

Baieztapen horretatik abiatuta, ikerlariek hiru eredu bereizten dituzte. Lehenari, *nordic model* deitzen diote, Ipar Europan kokaturiko hizkuntza gutxituko komunitateetan gailentzen delako (gaelikoa hitz egiten den hiru lurraldeetako; hots, Gales, Irlanda eta Eskozia, eta samiera hitz egiten denekoa). Eredu horretan, ikusentzunezkoak dira nagusi, eta erakunde publikoek jartzen dituzten hamar eurotik bederatzi baino gehiago hedabideak finantzatzeko erabiltzen dira. Bigarren ereduari, berriz, dibertsifikatua esaten diote: erakundeek hamar eurotik zazpi jarriko lituzkete, baina publizitateak beste bi dakartza eta azken euroa salmenta bidezkoa litzateke. Eredu honetan sartuko lirateke argi eta garbi Galizia, Euskadi eta Katalunia, eta maila apalagoan, Frisia eta Korsika. Lurralde horiek guztiek duten kokapen geografikoari erreparatuta, eredu kontinentala ere deitzen diote. Eta azkenik, hirugarrena eredu soziala litzateke; honetan ere hamar eurotik zazpi erakunde publikoetatik datoz, baina gainontzeko hiru euroek ezartzen dute aurreko ereduarekiko ezberdintasuna. Izan ere, euro bakarra letorke salmentetatik eta gainontzeko biak diru-bilketetatik eta babesletzatik. Horixe litzateke bretoieraz ari diren hedabideen eredu, eta horren berezitasuna azaltzeko ondoko argudioa plazaratzen dute egileek:

⁸¹ - Euro bakarra hedabide-euskarri guztiak (prentsa, irratia, telebista) kontsideratuta. Prentsa bakarrik hartu ezkerreko lau euro lirateke salmenta eta harpidetza bidez eskuratutakoa.

“Probably this model, in the Breton case at least, came out that way partly as a consequence of the regulation established by the French government which does not allow advertising in socially owned radios” (Zabaleta eta al., 2012c: 32).

Lanari bukaera emateko, Zabaletak eta lankideek diote, ikusitakoak ikusita, Europar hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideen sektorean segurtasun-ezaren eta bidegabekeriaren sentazioak daudela sakon ereinda.

“Thus, we could conclude that the financing system of European minority language media is drilled by a general sensation of insecurity and some of grievance. It’s the cost of having a financing system that only provides subsistence, uncertainty and dependence on public money” (Zabaleta eta al., 2012c: 35).

Orain arte erreferentzia gisa izan dugun egile talde berberak⁸², aurreko lana oinarritzat hartu eta beste ikerketa konparatibo bat burutu zuen, *Media in Catalan, Basque, and Galician Languages: Under the Pressure of Public Aid* izenburukoa. Aurretik aztertu den lanaren ia patroia berari jarraitzen dio honek⁸³. Emaizegi dagokienez ere, antzekotasun handia dago. 2009 eta 2010 urteetarako egindako azterketaren egileek baieztatzen dute gobernu autonomikoak direla katalanez, euskaraz eta galegoz ekoizten diren hedabideen diru-babesle nagusiak, eta maila apalagoan kokatzen direla probintzia edo udal mailakoak. Salbuespen gisa, Nafarroako gobernuak aipatzen dute⁸⁴.

⁸² .- Iñaki Zabaleta, Nikolas Xamardo, Itxaso Fernández, Santi Urrutia, Carme Ferré eta Arantza Gutiérrez irakasleak. Lan hau *Funding sources of media in Catalan, Basque and Galician languages: in search of sustainability* izenekoaren osagarri eta garapena litzateke.

⁸³ .- Hiru ikerketa-galdera planteatu zituzten egileek: lehena, diru-laguntzak eskaintzen zituzten hedabideak identifikatzera zuzendutakoa; bigarrena, laguntza horiei buruzko iritzia arakatzekoa; eta hirugarrena, etorkizunari begirako lehentasunezko eskariak biltzera bideratutakoa. Metodologiari dagokionez, galdetegiak eta hainbat eratako dokumentuak erabili zituzten, besteak beste, hedabideen urteroko balantze-orriak eta horrekin batera, elkarrizketak egin zizkieten aztertutako hedabideen zuzendari eta finantza-arduradunei, hedabideen esparruko adituei eta diru-laguntzen kudeaketaren arduradunei. Datu bilketa 2009an eta 2010ean egin zen. Ikerketaren unibertsoari dagokionez, egileek diote (Zabaleta eta al., 2013: 60) 2008an hizkuntza gutxituan ari ziren 949 hedabide zeudela hiru lurraldeetan; horietatik 441 prentsan, 359 irrati-sektorean eta gainontzeko 169 telebistan. Gehienak katalanez ari ziren (796) eta gainontzekoak euskaraz (108) eta galizieraz (45). Kopuru horietatik abiatuta, 92 hedabidez osatutako laginarekin egin zuten lana.

⁸⁴ .- Ikerketa egin zen sasoian Nafarroako gobernuak ez zien laguntzarik eman euskaraz ari ziren hedabideei. Horiek 2015ean, Geroa Bai, EH Bildu, Ezkerra eta Ahal Duguk koalizio gobernuak osatu zutenean berreskuratu ziren.

Bestalde, hiru hizkuntzotan ari diren hedabide gehienetan uste dute erakunde publikoetatik (izan udal, eskualde, probintzia edo lurralde autonomo mailakoa) eskainitako diru-laguntza ez dela nahikoa. Horren kausak arakatuta, egileek lau bildu zituzten:

1.- Erakundeek huts-hutsean katalanez, euskaraz eta galegoz kaleratzen diren hedabideetan jarritako publizitate urria.

2.- Erakundeek hedabide horietara bideratutako baliabideen urritasuna; ez soilik diru-baliabideak.

“This category represents the need of more funding for infrastructure, more sponsorship, more projects related to media and youth and more agreements on different areas of media development” (Zabaleta eta al., 2013: 64).

3.- Erakundeek hedabide horiekiko erakusten duten sentsibilitate eskasa. Arrazoi honek pisu nabarmena du euskaraz ari diren hedabideen kasuan.

“Including the three communities, about one out of ten respondents considered that local and regional institutions showed little sensitivity toward the minority language media. That perception was more visible among Basque informants regarding local (30.8%) and regional (20.0%) institutions” (Zabaleta eta al., 2013: 64).

4.- Eta azkenik, laugarren arrazoi-multzoak era askotako argudioak biltzen ditu diru-laguntzen urritasuna azaltzeko; hala nola,

“(…) its politicization; the need to change the aid policy; and even the lack of a specific regulation at the state-level institutions planned to aid minority language media” (Zabaleta eta al., 2013: 64).

Etorkizunera begira, lehentasunezko eskariak zeintzuk diren azaltzeko eskatu zieten ikerketan parte hartu zutenei. Egileek bi kategoriatan sailka daitezkeen eskariak aurkitu zituzten: kuantitatiboki multzorik handiena zuzenean lotzen zaio finantziazioaren gaiari, bigarren kategoriako erantzunak berriz, zeharka lotzen zaizkie baliabide ekonomikoen arloari. Ondoko taulan bildu zituzten erantzunak:

3.taula. Katalanez, euskaraz eta galegoz ari diren hedabideen eskariak (%).

	Finantziarioari zuzenean loturiko eskariak				Zeharka loturikoak
	Epe luzeko finantz.	Laguntzak handitu	Baliabideen eraginkortasuna	Erakundeen arteko koordinazioa eta informazioa hobetu	Hizkuntzaren eta hedabideen sustapena
Katalana	31	28	19	6	16
Euskara	29	14	14	10	33
Galegoa	13	16	19	9	44

N= 92 Iturria: Zabaleta eta al., 2013: 65. Tesiaren egileak itzulia eta moldatua.

Taulak agerian uzten du badirela lurraldeen arteko desberdintasunak. Katalanez ari diren hedabideen kasuan, erantzunen %84k zerikusi zuzena du finantziarioarekin; euskarazkoetan, ordea, %67k, eta mailarik apalena, %56koa, galegoz ari direnetan ageri da. Hiru hizkuntzak multzo bakar bezala aztertuta, berriz, epe luzeko laguntzen eskaria da lehentasunen artean lehentasuna (%24); horri gertutik jarraitzen diote laguntzak handitzeko eskariak (%20) eta baliabideen eraginkortasunaren ingurukoak (%18). Eta azkenik, elkarrizketatuen %8k laguntzak eskaintzen dituzten erakundeen arteko koordinazioan eta informazio-trukean jartzen du azentua. Bestalde, finantziarioarekin zuzenean lotuta ez dauden eskarien artean, hizkuntza eta hedabide gutxituen sustapena legoke; portzentajeetan azpimarratzeko moduko datua du galegoz ari diren hedabideetan (%44).

Ikerketaren ondorio moduan, egileek diote hiru komunitateetako hedabideak diru-laguntza publikoei esker eusten diotela jardunari. Oso nabarmena dela hedabide publikoetan eta izaera soziala dutenetan ere. Eta egoera horrek menpekotasuna eta presioa eragin ditzakeela gaineratzen dute.

“Minority language media of the three communities have survived thanks to the funding provided by public institutions. That has been the case for public broadcasting channels of radio and TV as well as for socially owned media. Even private media receive some subsidies, necessary to balance the annual financial sheet. This funding structure may generate dependency and pressure. Indeed, about two thirds of the revenue of the three media systems is taxpayers’ money; and the

distribution indicates that private media get about 14% of public funds; social media, 45% and public media, 75% which can be condensed to a 1-3-5 scale” (Zabaleta eta al., 2013: 66).

Horrekin batera, bigarren ondorio bat azpimarratzen dute: hedabideen ikuspegitik erakunde publikoetatik eskainitako laguntza ez da nahikoa. Diru-baliabide gehiago beharko lituzkete “to develop a good and modern media system to serve the needs of the community” (Zabaleta eta al., 2013: 66). Egoera horrela, hiru hizkuntzetako hedabideen ordezkariak hiru ardatzen inguruko premiazko eskariak kaleratu zituzten:

- 1.- Segurtasuna: epe luzeko finantziarioari eta diru-poltsaren hazkundeari loturik.
- 2.- Erraztasuna: zeregin burokratiko gutxiago eta baliabideen eraginkortasuna bezala ulertuta.
- 3.- Modernizazioa: teknologia berrien ezarpenarekin erabat loturik dagoen kontua.

“Certainty (44%) related to long-term financing and aid increase; simplicity (26%), connected to less paperwork and resource efficiency; and modernization (30%) associated to the implementation of new technologies” (Zabaleta eta al., 2013: 66).

Esan bezala, ikerketa 2009-2010 urteko testuinguruan burutu zen, eta ordutik urteak igaro diren arren, baieztatu daiteke lan hark plazaratutako emaitzak eta ondorioak, neurri handi batean behintzat, egun ere gaurkotasunez jantzita datozkigula.

2.1.4.2. HEDABIDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZEN EBALUAZIOA

Atal honi, François Grin eta Tom Moring egileen aipamen batek emango dio hasiera:

“Intervention in the field of language can be seen as a form of public policy, in which a certain set of goals regarding language are pursued using certain means” (Grin eta Moring, 2003b: 75).

Esaldia ederto egokitzen zaio esku artean dugun ikerketari. Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzen bideratutako diru-laguntza, politika publikoen esparruan kokatu daitekeelako. Urteroko deialdiak helburuak finkatu eta horiek asetzeko bitartekoak ezartzen dituen neurrian, politika publikoko ekimena da zalantzarik gabe. Eta ebaluazioa politika publiko ororen baldintza eta ezaugarri da.

2.1.4.2.1. EBALUAZIO PROZESUEI BURUZKO ZENBAIT APUNTE

Joan Subirats zientzia politikoko katedradunak luze eta sakon jorratu du politika publikoen gaia (Subirats 2008, 2011, 2014). Berak dio garaiko politika publikoek hiru ezaugarri dituztela: lehena, konplexutasuna; bigarrena, hartutako erabakiek ekarri ditzaketen emaitzen inguruko ziurgabetasuna; eta hirugarrena, gatazka (giza taldeen artekoa, aktore politikoen artekoa zein herritar eta agente publikoen artekoa). Egoera horrela, Subiratsek gaineratzen du, testuinguru zehatz batean hartutako edozein erabaki publikoren azterketa egiteko orduan, funtsezkoa dela horretan inplikaturik dauden aktoreen, bitartekoen eta erakundeen arteko harremanak aintzat hartzea. Hortaz, ebaluazioak horiei guztiei erreparatu beharko lieke.

“Los resultados de un proceso de toma de decisiones de política pública dependen de la interacción de diferentes tipos de actores, con diferentes objetivos y roles diferentes que, dentro de una network o entramado que puede tener diferentes características, se intercambian recursos, utilizando diferentes modalidades de interacción, para conseguir un acuerdo dentro de un contexto decisional determinado” (Subirats eta Dente, 2014: 70).

Hitzak ikerketa honetara ekarrita, eta lehen laburki aurreratu den bezala, euskarazko hedabideei zuzendutako diru-laguntza deialdia hizkuntza-politikaren esparruan egikaritutako politika publikoa litzateke. Politika publiko hori gauzatzeko prozesuan, hainbat aktorek hartzen dute parte eta hainbat bitarteko kudeatzen dira, ez bakarrik diru-baliabideak. Esaterako, bitarteko politikoak (kontsentsua), juridikoak (legeak, arauak...), ezagutza arlokoak (erabaki egokiak hartzeko behar diren informazioak, interpretazio-ereduak) edota zenbait aktorek duten mobilizaziorako gaitasuna.

Administrazio batek martxan jartzen dituen egitasmoen edota ekimenen emaitza ondoko faktoreek baldintzatzen dute: inplikaturik dauden aktoreek, horiek erabilgarri dituzten bitartekoek eta hartutako erabakien edukiak. Aipatutako faktore horiez gain, arreta berezia jarri beharko zaie aktoreek elkarren artean garatzen dituzten harremanei eta interakzio horiek gauzatzen diren testuinguru zehatzari (ekonomikoa, politikoa eta teknologikoa).

“Cada proceso decisional se desarrolla, de hecho, en un espacio concreto y durante un determinado tiempo, y por tanto es razonable esperar que lo que era posible o imposible, aquí y ahora, no lo sea en otro lugar o momento” (Subirats, 2014: 168).

Hortaz, adierazitakoa laburbiltzeko esan daiteke edozein erabaki publikok lau elementu dituela oinarrian: lehena, prozesuan inplikaturik dauden aktoreak eta horiek erabilgarri dituzten bitartekoak eta estrategiak; bigarrena, erabakien edukia; hirugarrena, aktoreen arteko elkarrekintza; eta laugarrena, erabakiaren testuingurua.

Behin hori guztia argituta, eta urrats bat gehiago emate aldera, esan diru publikoekin egikaritzen den edozein arloko politiken kasuan derrigorrezkotzat jotzen dela dirua zertarako, nola eta zein emaitzekin erabili den azaltzea; hots, egindakoa ebaluatzeaz ari gara.

“En un sistema democrático el gobierno tiene que rendir cuentas de sus actos, explicar sus decisiones a los ciudadanos, presentar los logros alcanzados en las distintas áreas en las que interviene y legitimar sus decisiones con resultados. Entonces la evaluación cumple la función política de ofrecer un mecanismo de justificación de las actuaciones ante los ciudadanos” (Espejo, 2008: 6-7).

Arestiko lerroetan biltzen den ideia bera lantzen dute François Grin eta Tom Moring egileek ere. Hauen esanetan, ebaluazioa egitea beharrezkoa da bi arrazoiengatik: batetik, ebaluazioari esker herritarrek jakin dezaketelako agintariak nola ari diren betetzen jarritako etxeko-lanak; eta bestetik, ebaluazioa ezinbestekoa delako eztabaida demokratikoa gauzatzeko.

“The first and most immediate one simply comes down to good housekeeping: authorities acting on behalf of citizens ought to know what they do and how they do it. If only to check if they could not perform more efficiently the duties with which citizens have entrusted them. The other, more profound justification for evaluation is that it is necessary for democratic debate. Factual knowledge about various forms of intervention (whether in the field of language, the environment, education, health, etc.) must not be a privilege of the administration in charge of selecting, designing and implementing such intervention. Democratic principles require that it also be available to elected politicians, the press and, of course, the public at large” (Grin eta Moring, 2003b: 74).

Hortaz, aurreko egileen ekarpenetan jasota dagoen bezala, ebaluazioak administrazioak martxan jartzen dituen egitasmoei, ekimenei buruzko informazioa bildu eta eskaintzeaz gain (diru-laguntza deialdiak kasu), gardentasuna bermatzeko balio du eta baita jarduera publikoa legitimatzeko ere.

“La evaluación incrementa la credibilidad de los programas frente a opiniones políticas críticas, proporciona información sobre la actividad de la Administración y favorece, en todo momento, la transparencia, elemento imprescindible para la calidad. La evaluación es a la vez un factor y una estrategia de legitimación de la acción de los poderes públicos. (Cluster del Conocimiento, 2001: 17).

Aginte publikoek bi norabideko harremana dute ebaluazio-prozesuekin. Batetik, beraien jarduna ebaluazioaren objektu bilakatzen da, eta bestetik, Jaione Mondragon irakaslearen planteamenduari jarraituz, ebaluazioaren subjektu-eragile dira. Izan ere, ebaluazioa burutu dadin, behar beharrezkoa da borondate politikoa, aginte publikoek sustatzaile izatea. Beste era batean esateko, ebaluazioa izateko, funtsezkoa da aginte publikoen, arduradun politikoen babesa.

“La generalización de los procesos de evaluación sólo será posible en la medida en que tales iniciativas cuenten con el respaldo de los responsables políticos. Muchas barreras a la evaluación surgen a nivel político, por ejemplo, por las exigencias impuestas por dinámicas electorales.

Por lo tanto, consideramos, en primer lugar, que la evaluación deberá contar con un liderazgo institucional, deberá darse una voluntad política. Unido a esto, existirá la necesidad de que los políticos involucren a los administradores en la tarea de evaluar, sin perjuicio de una colaboración externa” (Mondragón, 2006: 251).

Aurreko paragrafoan idatzitako azken esaldiak ebaluazioak egiteko izan daitezkeen aukeretara garamatza zuzenean. Izan ere, lau motako sailkapena egin ohi da:

- 1.- Barne-ebaluazioa: egitasmoa, ekimena edo programa (gure kasuan diru-laguntza deialdia) diseinatzen edo kudeatzen duten langileek egindakoa da.
- 2.- Kanpoko: egitasmoa, ekimena edo programa kudeatzen duen lan-taldearekin zerikusirik ez duen kanpoko eragileek burututakoa (unibertsitateak, horretan ari diren enpresak...)

3.- Mistoa: aurreko bien konbinazioa. Kanpoko eragileek egingo lukete ebaluazioa baina erakundeko, administrazioko langileekin harreman estuan arituz.

4.- Partehartzailea edo pluralista: kasu honetan ebaluazio-prozesuan parte hartuko lukete egitasmoaren, ekimenaren edo programaren hartzaile direnek ere (gure kasuan hedabideek). Ebaluazio-era honen aldekoen iritziz, abantaila nagusia da ebaluatzaile, kudeatzaile eta onuradunen arteko distantzia txikitzen dela, eta ondorioz, handitu egiten da prozesuaren sinesgarritasuna eta ebaluazioak izan dezakeen gizarte-baliagarritasuna (Cluster del Conocimiento, 2001).

Burututakoa era batekoa zein bestekoa izan, ebaluazioa ez da ulertu behar prozesu osoaren azken urrats bezala. Ebaluazioa ez da prozesuari azken puntua jartzen dion etapa, baizik eta erabakiak hartzeko eta kudeaketarako balio duen tresna da; horren bidez erakutsiko da zehaztutako helburuak bete diren ala ez, bete badira noraino izan den, eta aurrera begira egin beharreko egokitzapenak eta hartu beharreko erabakiak zeintzuk diren.

“Evaluando el resultado de los programas públicos, conociendo hasta qué punto han respondido a los objetivos planteados, se podrán entonces tomar nuevas decisiones y reorientar los programas” (Mondragón, 2006: 244).

Zenbait egilek defendatzen duten bezala (Nirenberg eta al., 2000) ebaluazioak eraldaketarako balio du.

Ganoraz burututako ebaluazio jarraituak eta sistematikoak bere osotasunean aztertu beharko luke eskuhartze-prozesua, planifikazio-fasetik hasi, exekuzioa edo egikaritzearekin jarraitu eta ebaluazioarekin berarekin bukatu arte (Alvira, 1991, 1997, eta 2000). Horrela eginez, agenda publikoan dagoen egitasmo edo ekimen zehatz baten egokitasunari eta eraginkortasunari buruzko informazioa izango genukeelako eskura. Gure kasuan, “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren egokitasunari eta eraginkortasunari buruzko informazioa.

“Una recopilación y análisis sistemático de información que permite la comprensión y la emisión de juicios no sólo sobre la efectividad de un programa o política determinada, sino también sobre su propia configuración y su proceso de implantación y puesta en práctica” (Mondragón, 2001: 58).

Hortaz, ebaluazioaren laguntzaz, egoeraren diagnostikoa egiteko baliagarria den informazio anitza eta aberatsa bilduko genuke hedabideei beraiei buruz eta horiek hizkuntza gutxituen normalizazio-prozesuan duten rolaz. Alde batetik, erakutsiko litzateke diru publikoa jaso duten hedabideak sendotu, garatu eta normalizatu ote diren; horiek baitira deialdian aitortutako xedeak. Eta bestetik, aurrekoarekin batera, hizkuntza gutxituetako hedabideek ekarpenik egin ote dioten hizkuntzari; azken batean, zein zeregin duten hizkuntzaren berreskuratze-bidean. Hala izan dadin, irakurleak, entzuleak, ikusleak, edota erabiltzaileak zenbatze hutsetik harago doan neurketa, ebaluazioa beharko litzateke.

“The evaluation is not only a measurement of success of the media product in terms of attracting audience and compiling TAM⁸⁵ ratings but is also an assessment of context, process and implementation within the framework of language planning itself” (Ó Laoire, 2001: 67).

Ebaluazioak izaera bikoitza du; deskriptiboa batetik, eta baloratzailer bigarrenik. Izan ere, Francisco Alvira eta M^a José Aguilar egileek baieztatzen dutenez, ebaluatzeak egitasmo batek edo horren osagaien batek duen balioari buruzko iritzia azaleratzea dakar ezinbestean.

“Evaluar es emitir un juicio sobre el valor de un programa, o bien sobre alguno de sus componentes, fundamentado en información recogida y analizada sistemáticamente, con el objetivo último de utilizar dicho juicio e información para actuar sobre el programa, manteniéndolo, modificándolo o terminándolo” (Alvira eta Aguilar, 2015: 271).

Alvirak eta Aguilarrek gaineratzen dute ebaluazioak egiteko orduan, gehien erabili izan diren balio-irizpideak politika publiko, egitasmo edo ekimen zehatz batek ezarritako helburuei begirakoak izan direla. Hala, ebaluazioaren bidez politika publikoen edota egitasmo, ekimen zehatzen eraginkortasuna, efizientzia, eta batez ere, egokitasuna zehazteko ahaleginak egiten dira. Gero, hortik abiatuta, aipatu politikei buruzko erabakiak hartzeari (programari eutsi, aldatu, ezabatu) ekiten zaio; hots, ebaluatu diren politikei eutsi, horiek aldatu edo ezabatu behar ote diren erabakitzen da.

⁸⁵ .- TAM: Television Audience Measurement. Telebistako audientziak neurtzen dituen enpresa baten izena da.

Eraginkortasunak ezarritako helburuen eta lortutako emaitzen arteko harremanari erreparatzen dio; aurreikusten zena gertatu da? galderari erantzuteko balio du. François Grin eta Tom Moringek hizkuntza-arloa daramate kontzeptua, eta diote esparru horretan egikaritutako politika bat eraginkortzat har daitekeela, ageriko inpaktua lortzen badu azken emaitzan, eta, ondorioz, benetako hobekuntza dakarkionean hizkuntza-biziberritzeari.

“A policy may be considered **effective**⁸⁶ if it has a noticeable impact on the end result (outcome) aimed at, namely, a genuine improvement in the position of an RML⁸⁷. This should be reflected in the frequency of its use in a large number of ‘domains’ such as education, the media, administration, etc. Generally, this improvement should, in the long-term, result in the recreation of a self-priming mechanism of language reproduction” (Grin eta Moring, 2003b: 98).

Efizientziak, berriz, emaitzak eta horretarako erabilitako baliabideak jartzen ditu harremanetan. Beste era batera adierazteko, kostu eta onuren arteko harremana deskribatzen du. Hortaz, Jaione Mondragón irakasleak planteatzen duen bezala, efizientziari loturiko lau galdera egin daitezke:

“-Eficiencia intrínseca: ¿es efectivo en términos de coste para alcanzar sus objetivos específicos?
-Adecuación. ¿Existe una justificación clara para el tipo de intervención propuestos?
-Optimización: ¿Es más efectivo que otros instrumentos que podrían ser utilizados?
-Eficiencia sistémica: ¿Cómo interactúa el programa con otras políticas?” (Mondragón 2001, 53).

Esan bezala, ebaluazioa egiteko gehien erabiltzen diren balio-irizpideak aurreikusitako ageriko helburuei loturikoak izan arren, Alvirak eta Aguilarrek bat egiten dute Michael Scrivenek proposatutakoarekin, eta diote beste era bateko ebaluazioak burutu daitezkeela, helburuetatik aske daudenak, beste kontu batzuei erreparatzen dizkieten ebaluazioak. Esate baterako, politika publikoaren, egitasmoaren edo ekimen zehatzaren onuradunek, hartzaileek dituzten beharren asebetetzeari erreparatzen

⁸⁶ .- Negritaz jaso dugu, egileek hala idatzi zutelako.

⁸⁷ .- Reversing Minority Language.

diotenak edota interbentzioak dituen efektuei erreparatzen diotenak, edota jasangarritasunari, ahalduzeari begiratzen diotenak, edota beste interbentzio batzuekiko osagarritasunari begirako balio-irizpideak erabiltzen dituztenak.

“Hay otros criterios de valor posibles. La insatisfacción con usar solo los objetivos explícitos de una intervención, dado que éstos pueden estar mal formulados o no responder a lo que se necesita para acabar/paliar el problema origen de la intervención, llevó a Michael Scriven a plantear la evaluación ‘libre de objetivos’ e insistir en la satisfacción de las *necesidades* de los destinatarios de la intervención o en el conjunto de *efectos* realmente producidos por la intervención como criterios de valor, *necesidades y/o efectos* identificados/definidos por el evaluador o, mejor, por las partes legítimamente interesadas en la evaluación y el programa. La *sostenibilidad*, el *empoderamiento* de determinados grupos sociales, la *complementariedad con otras intervenciones* son valores/criterios de valor que cada vez tienen mayor relevancia”(Alvira eta Aguilar, 2015: 271).

Aurreko zitatik nabarmentzekoa da interbentzioak asebate beharko lituzkeen beharrak edo erditu beharko lituzkeen efektuak identifikatzea, definitzea egitasmo edo ekimen zehatzeko parte diren aktoreen erantzukizuna, ardura dela. Horrek aktoreen arteko adostasuna eskatuko du derrigor. Adostasuna ez soilik beharrak edota efektuak definitzeko, baita horiei noraino heldu zaien interpretatzeko/neurtzeko erabiliko diren adierazleei dagokienez ere. Izan ere, edozein ebaluazio-prozesuk halabeharrezkoa du adierazle-sistema bat martxan jartzea. Barrura zein kanpora begira informazio-tresna garrantzitsua izango da aipatu adierazle-sistema eta, horrekin batera, ondoren hartu daitezkeen erabakien oinarri bilakatuko da.

“La selección de indicadores juega un papel decisivo en el hecho de que la evaluación sea rigurosa y objetiva. Esto supone la selección de indicadores claros y pertinentes. Los indicadores no son simples datos estadísticos que se recogen de vez en cuando, deben ser referencias y estar contruidos e integrados en un sistema de interpretación. (...) Si lo que se pretende, es producir información creíble y fiable para colaborar en una decisión política, o para mejorar las formas de gestión, la existencia de unos indicadores se presenta casi como imprescindible” (Mondragón, 2006: 274).

Adierazleak zehaztea ez da lan erraza, denbora eta prestakuntza eskatzen dituen zeregina baita. Eta denbora falta eta prestakuntza falta dira sarritan egitasmoen, ekimen zehatzen ebaluazioa gauzatzeak izaten dituen trabak. Hau da,

administratzaileen, aginte publikoen ikuspegitik lau dira ebaluazioak burutzeko asmoak bidean aurki ditzakeen trabak (Mondragon, 2006). Zailtasun txikiena duenetik hasita, lehen traba denbora falta litzateke,

“La ausencia de tiempo disponible para llevar a cabo la evaluación dejaría de ser tal si se considerara la evaluación como una tarea más dentro de la actuación de la administración, al igual, por ejemplo que el diseño, la programación, la presupuestación o el control” (Mondragón, 2006: 281).

Zailtasun-eskalan hurrengo traba egitasmoak ebaluatzeko administrazioan ari direnek zeregin horretarako izan dezaketen prestakuntza-falta da. Hirugarrena, traba metodologikoa litzateke, zein metodologia jarri martxan ebaluazioa egiteko. Bigarren eta hirugarren zailtasunentzako irtenbidea ebaluazio mistoa litzateke. Eta azken traba, baina horrek ekarri dezakeen zailtasunari erreparatuta handiena zalantzarik gabe, lidergo falta da, bultzada edo babes politikoaren falta gisa ulertuta. Izan ere, aurretik azpimarratu den bezala, ebaluazioa egiteko funtsezkoa da borondate politikoa izatea, aginte publikoek eragile izatea. Aginte publikoen bultzadarik edo babesik gabe ez dago ebaluaziorik. Eta sarritan gertatzen da ebaluazioak ez duela bultzadarik izaten administratzaileek ondotoxo dakitelako ebaluazio-zeregina gatazka-iturri izan daitekeela.

“La evaluación no constituye una actividad fácil, si bien puede contribuir a alcanzar los objetivos, entregando información imprescindible para reorientar las políticas, también puede generar conflictos intraburocráticos y con el nivel político. Esto la torna potencialmente peligrosa y hace que en definitiva pueda no interesar a quienes deberían impulsarla” (Cohen eta Franco, 1988: 52).

Hau da, ebaluazioak berau bultzatu duenaren aurka egin dezake. Ernesto Cohen eta Rolando Francok honelaxe azaltzen dituzte ebaluazioak maila politikoan zein burokratikoan eragin dezakeen gatazka:

“Si entendemos el objetivo de la evaluación como aumentar la eficiencia, esto es, obtener los objetivos buscados con una utilización óptima de los recursos disponibles, en este caso la tarea de los evaluadores podría chocar con el papel de los administradores que querrían aumentar los recursos bajo su control (conflictos intraburocráticos) y con el nivel político cuando la evaluación es

negativa sin duda los políticos que apoyaron la realización del proyecto se sentirán atacados” (Cohen eta Franco, 1988: 54).

Gatazkak gatazka eta arriskuak arrisku, ebaluazioaren gaia aztertu duten egile guztiak bat datoz ondorioan; alegia, denek diote ebaluazioa egitea beharrezkoa dela eta, ez hori bakarrik, egitea bezain beharrezkoa dela horren emaitzak jakinaraztea eta praktikara eramateko konpromisoa.

“La evaluación se realiza para que sus resultados sean utilizados. Idealmente existe un cliente que tiene que tomar las decisiones y busca en la evaluación algunas respuestas en las que basar su decisión” (Ballart, 1992: 47).

Adierazgarria, esanguratsua da arlo akademikoan zenbat argitalpen aurki daitezkeen “ebaluazioen erabileraz”. Hala izateak argiro erakusten du ebaluazioak oraindik bide luzea duela egiteko administrazioaren eremuan. Gaur egun, oraindik zeregin puntuala, salbuespenekoa delako, eta burutzen denean ere, sarri askotan, emaitzak kaxatan gordeta geratzen direlako, aplikazio praktikorik gabe. Hortaz, administrazioarentzat gainditu beharreko erronka da ebaluazio-zeregina bere jardueraren ezinbesteko osagai gisa onartu eta integratzearena.

2.1.4.2.2. EUSKO JAURLARITZAREN “HEDABIDEAK” DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAREN EBALUAZIOA

Gurean, “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren ebaluazioa egin duen lan bakarra aurkitu dugu, Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren⁸⁸ enkarguz UNESCO Katedrak eta EHuko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak burututakoa. Lanaren izenburua: *Hizkuntza Politikorako⁸⁹ Sailburuordetzak kudeatzen dituen diru-laguntza deialdien ebaluaketa eta hobekuntzarako proposamenak. HEDABIDEAK DEIALDIA.*

⁸⁸ .- Aurrerantzean, ez beti, baina sarritan HPS bezala agertuko da.

⁸⁹ .- PolitikArako beharko luke izan, baina PolitikOrako dago idatzita.

Bertan, honelaxe laburbiltzen dute xedea:

“Gure lanarekin, Hedabideak sektoreari hurbilketa egin nahi izan diogu. EFQM kalitate eta Bikaintasun ereduaren oinarri hartuta, deialdiaren argitaratzeak, hedabidea garatzen den arte barne dauden prozesu eta alderdi desberdinak aztertu dira. Honetaz aparte, garatutako hedabideek euskararen erabilpenean eragindako inpaktua ere estimatu dugu. Hau guztirako hiru agente nagusien, hots, HPS-ko teknikarien, erakunde eskatzaileen, eta hedabideen jarraitzaile edo kontsumitzaileen iritzia jaso dugu” (UNESCO eta EHU, 2011: 4).

Zeregina burutzeko 45 hedabide desberdinei⁹⁰ buruzko 2010eko informazioa jaso zuten⁹¹, eta horrekin batera, horien kontsumitzaile ziren 150 pertsonen iritzia ere bildu zituzten.

Lanean, besteak beste, euskararen normalizazioan eragindako inpaktua baloratzeko eskatu zitzaizkien hedabideei. Emandako erantzunen arabera, %87,5entzat eragina handia edo osoa handia da. Bestalde, hizkuntzaren normalizazioan lortutako inpaktu kualitatiboa ere landu zuten. Horri dagokionez, hedabideei lotutako ondoko kontuak azpimarratu zituzten:

- Gizartearen sektore garrantzitsu batean, euskararen presentzia bermatzea.
- Normalkuntzarako bide onena, euskaraz erabat aritzea.
- Euskarazko hedabide edota produktuen eskaintza zabaltzea, populazio gehienarentzat erabilgarria dena.
- Gazteei zuzendutakoa izanda, hizkuntzaren transmisioan giltzarria eta estrategikoa den hartzailegoari zuzenduta egotea.
- Euskarazko irakurzaletasuna sustatzea.
- Euskaraz bizi egitea posible egitea eta posible dela erakustea⁹².
- Euskara jasoaren zabalpena egitea, jendeak menperatu dezan, eta hizkuntzak prestigioa irabazi dezan.
- Euskalkiak erabiltzea, gertutasuna emateko eta ez galtzen laguntzeko.
- Paisaia euskalduntzea: telebistan, irratan, prentsan... euskararen presentzia bermatuz, gizartean presentzia bermatzen da. (UNESCO eta EHU, 2011: 47).

⁹⁰ .- 2010eko diru-laguntza deialdiak ezarri zuen onuradunen multzokako banaketari erreparatuta, hauxe litzateke 45 hedabidez osatutako laginaren argazkia: eguneroko prentsa inprimatua: 7; aldizkari orokorrak: 13; aldizkari espezializatuak: 8; euskarazko gehigarriak: 2; euskarazko erreferentzia-orriak: 1; irratia: 3; telebista: 4; Internet bidezkoak eta berri-agentziak: 7.

⁹¹ .- Ebaluazio-lanaren egileek diote 45 hedabide horiek sektore osoaren %38,8 ordezkatzen zutela 2010ean.

⁹² .- Ulertzeko zaila suertatzen den arren, horrela dago idatzita.

Bestalde, aurretiaz esan bezala hedabide horien 150 kontsumitzailek hartu zuten parte ebaluazio-lanean. Horiek emandako iritziei erreparatuta, nabarmentzekoa da hedabideekiko asebetetze-maila oso altua dela; batz bestea 8,3ko nota jartzen diete eta. Gainera, hamarretik zortzik uste du (%80,6) aztertutako euskarazko hedabideak egokiak (%23,3) edo oso egokiak (%57,3) direla euskararen erabilpena sustatu eta normalizatzeko. Zeregin horren alde kualitatiboa landu ezker, kontsumitzaileen iritziz, ondokoa da hedabideek euskararen normalizazioan egiten duten ekarpena:

- “-Euskara hutsez egina izatea.
- Paisaia euskalduntzea: kioskoan, tabernetan... euskarazko hedabideak egonda, euskararen presentzia handitzea.
- Landutako gaien interesa dela eta, euskaldunak ez direnen arreta ere erakartzea.
- Euskaraz bizitzen laguntzea.
- Euskara hobetu nahi duenarentzat baliagarria izatea.
- Euskararen prestigioa hobetzea.
- Elebidunak diren hedabideetan, euskaldunak diren irakurle askok gazteleraz irakurtzeko joera dute, eta euskara hutsezkoen kasuan euskaraz irakurtzen dute, horregatik aproposa da euskaraz elebakarra izatea.
- Euskara normalizatzeko, era normalean erabiltzea.
- Geroz eta euskaldun gehiago dagoenez, hauei zuzendutako eskaintza zabaltzea.
- Eremu euskaldunetan, errealitatera ajustatzen da. Eremu ez euskaldunetan, euskara mantentzen eta sustatzea” (UNESCO eta EHU, 2011: 95).

Agerikoa denez, antzekotasun handia dago hedabideek eta kontsumitzaileek eskainitako ikuspegietan. Batzuegandik zein besteegandik jasotako iritzietan ageri dira hizkuntzaren presentziaren bermeari, baliagarritasunari edota irakurzaletasunaren sustapenari loturiko aipamenak.

Azterketa gehiago fintzeko, diruz lagundutako hedabideen inpaktua estimatzen ahalegindu ziren. Horretara heltzeko, euskarazko hedabideek hizkuntzaren transmisioa bultzatzeko, erabilpena sustatzeko eta kalitatea eta estatusa hobetzeko izan dezaketen balioaz galdetu zitzaizen kontsumitzaileei. Transmisioari eta erabilpenari dagokionez, hamar kontsumitzailetik zortzik uste zuen euskarazko hedabideak egokiak edo oso egokiak zirela, eta portzentajea are handiagoa zen, ia hamarretik bederatzi (%86), hedabideek euskararen estatusa edo prestigioa hobetzen laguntzeko izan dezaketen balioaz galdetu zitzaizenean.

Bestalde, diru-laguntza deialdiari buruzko balorazioa eskatu zitzaien hedabideei. Orik 10erako eskala batean, 6,03 puntu eman zizkioten deialdiaren edukiari; prozedurari berriz, 4,3 puntu; finantzaketari 5,5 eta puntuaziorik altuena, 8,08 puntukoa, HPSko teknikariekin izandako harremanak lortu zuen.

Behin datu guztiak jaso eta aztertu ondoren, ebaluazio-txostenaren egileek diru-laguntza deialdiaren inpaktua handitzeko hainbat proposamen aurkeztu zituzten.

Batzuk administrazioari zuzendutakoak, beste batzuk, berriz, hedabideei begirakoak:

1.- Deialdiaren edukiari dagokionez, lagundu beharreko hedabide berriak sortu daitezkeenez, orduan zeuden hedabide-multzoei (egunerokoak, aldizkakoak, irratiak, telebistak, Internet bidezkoak...) "Besteak" izeneko multzo berri bat gehitzea edo F multzoaren barruan⁹³ sartzea proposatu zuten.

2.- Deialdiaren prozesua arintzeko beharra agertu zuten, "batez ere erakundeek⁹⁴ ebazpenak eta esleitutako diru-kopurua lehenbailehen ezagutu ditzaten" (UNESCO eta EHU, 2011: 130).

3.- Hedabideek hainbat kontu definitu beharko lituzketela esan zuten; besteak beste, helburu estrategikoak eta erreferentziazko populazioa eta helburu-populazioa. Ez hori bakarrik, ebaluazio-txostenaren egileen arabera, ezarritako helburuen lorpena eta kontsumitzaileen asebetetzea neurtzeko prozedurak ezarri beharko liratekeela gaineratu zuten.

4.- Baliabideak optimizatzeko, elkarlana bultzatu beharko litzatekeela uste zuten.

5.- Hedabideak ahalik eta gehien kontsumitu daitezzen, eta aldi berean, kontsumitzaile berriak erakartzeko, horien difusio ona eta zabala egitearen beharra azpimarratu zuten. Hedabideen esku utzi zuten aipatu zeregina, "luzarorako inbertsio modu bat izango litzatekeena" (UNESCO eta EHU, 2011: 131).

6.- Ikus-entzunezkoen kasuan bereziki, materialen elkartrukaketa ahalbideratuko lukeen ekoizpenen banku bat sortzea proposatu zuten. "Banku hau hedabideen inizatibaz sor liteke, edota Administrazioetik bultzatu liteke"(UNESCO eta EHU, 2011:131).

⁹³ .- 2010eko diru-laguntza deialdian F multzoak Internet bidezko hedabideak eta berri-agentziak biltzen zituen.

⁹⁴ .- Euskarazko hedabideak kaleratzen, uhineratzen, zabaltzen dituzten enpresak, elkarrekin, eragileak.

7.- Hedabideen bultzatzaile diren erakundeek ebaluaketa egin behar dutela adierazi zuten eta horretarako tresna bat prestatu zuten⁹⁵.

8.- Aurreko proposamenekin batera, hedabideek kontsumitzaileei zuzendutako galdeketa prestatu zuten. Izan ere, txostenean zioten bezala, “(...) kontsumitzaileen iritzia ezagutzeak, alde batetik, auto-ebaluaketa egiteko lagungarria izan daitekeelako eta bestetik, lortutako emaitzen eta eraginaren estimazioa egiten lagungarria izan daitekeelako” (UNESCO eta EHU: 2011: 132).

9.- Azkenik, autoebaluazio bidez eta kontsumitzaileei egindako galdeketen bidez jasotako informazioa, urte amaierako memoriari eransteko proposatu zuten. Horrez gain, administrazioak auditoriak egin beharko lituzkeela gaineratu zuten zoriz hautatutako hedabideen artean; “auditoria honen bidez erakundeak aurkeztutako datu eta emaitzak zuzenak direla frogatuko da” (UNESCO eta EHU, 2011: 132). Ez hori bakarrik, “zoriz, galdeketei erantzun dioten 3 pertsona edo kontsumitzaileengana jotzea proposatzen dugu, datuak kontrastatzeko” esanez jarri zioten amaiera hobekuntzarako proposamenei (UNESCO eta EHU, 2011: 132).

Ikerketa-lan honen azalpenaren atarian aitortu bezala, horixe da Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntza deialdiari buruz aurkitu den ebaluazio-lan bakarra.

Politika publikoen ebaluazio-prozesuen nondik norakoekin, eta urteroko “Hedabideak” deialdiari buruz egin den ebaluazio-lanaren errebasoarekin emango da bukatutzat aterpe teorikoaren lehen solairua osatzen duten gelaz-gelako bidaia.

Orain, eraikinaren bigarren solairuko geletan diren edukiak aurkeztuko dira. Horiek, izaera hibrido zantziko dute aterpea. Lehen solairuko edukiek eratu duten gune trinkoa beste izaera bateko ekarpenez osatu eta aberastera datozelako. Hau da, ikergaia kokatuta dagoen testuinguruari erabat loturik dauden ekarpenak landuko dira; adibidez, euskarazko hedabideen kontsumoari, euskarazko hedabideen historiari eta

⁹⁵ .- Proposatutako tresnak bost informazio-bloke ditu. Lehenengoak, definitutako helburuak, horien lorpena neurtzeko erabilitako prozedurak eta helburuen lorpen-maila jasotzen ditu. Bigarren blokea, berriz, kontsumitzaile-kopuruak kuantifikatzekoa litzateke. Hirugarrenak, difusioari buruzko informazioa jasotzen du: difusiorako erabilitako bideak, eta bakoitzaren bidez difusio osoaren zein proportzio egiten den. Autoebaluazio-tresnaren laugarren blokeak hedabideen kontsumitzaileek zenbateko maiztasunez irakurri/entzun/ikusi/jarraitzen dituzten eta zenbat orduz jasotzen ditu. Bosgarren blokean, kontsumitzaileek egindako balorazioa dago: kalitateaz, kontsumitzaileen helburuen lorpenaz, hedabidearen arduradunek emandako arretaz, asebetetzeaz... (UNESCO eta EHU, 2011: 134-136).

Euskal Autonomia Erkidegoan martxan jarri diren hizkuntza-politikei buruzko hainbat ekarpen.

2.2. BIGARREN SOLAIRUA: EUSKO JAURLARITZAREN HIZKUNTZA-POLITIKETATIK HEDABIDE INPRIMATUEN KONTSUMORA

Ikerketaren aterpe teorikoaren aurkezpenean aurreratu bezala, bigarren solairuan bildutako edukiak hiru gelatan banatu dira. Lehenengoan, 1979tik, Estatutua onartu zenetik, Eusko Jaurlaritzak gauzatu dituen hizkuntza-politikak daude; horien barne kokatzen dira, noski, hedabideetara zuzendutako diru-laguntza deialdiak. Bigarren gelan, euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak egun duen presentzia izatera nola heldu den erakutsiko digun bilakaera historikoan murgilduko gara. Ikusiko dugu, gurean euskara hutsezko prentsak eta denboran zehar izan diren gobernuek hizkuntzarekiko erakutsi duten jarrerak bide paraleloa egin dutela. Euskarazko prentsak lehen urratsak egin zituen unetik gaur arte jorratu duen bidea eta garaian garaiko gobernuek hizkuntzarekiko agertu dituzten jarrerak eta horiekin batera martxan jarri dituzten neurriak eta politikak banaezinak dira. Baieztapenak edozein unerako balio du, diktadura garairako zein laurogeiko hamarkadatik aurrera euskara hutsezko hedabide inprimatuek izan zuten hazkunderako. Hizkuntzarekiko jarrera edo politika sustapenaren aldekoa izan denean, euskarazko prentsak loraldi-sasoia izan ditu eta alderantziz. Eta azkenik, bigarren solairuko hirugarren gelan hedabideen kontsumoaren inguruko informazioa bildu da, ikuspegi orokorretik hasi eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuetara iritsi arte. Betiere, ikerketa honek aztertzeko ezarri duen 2005-2013 aldian euskara hutsezko hedabide inprimatuen kontsumo-argazkia osatzeko ahaleginetan.

2.2.1. EUSKARA BIZIBERRITZEKO EKIMEN INSTITUZIONALA: HIZKUNTZA-POLITIKAK

Hizkuntza-politikaren nahi beste definizio dira aukeran. Beste horrenbeste gertatzen da hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza bereizteko egin diren ekarpenekin. Ikerketa honetan ez da sakonduko bataren eta bestearen arteko nondik

norakoetan. Eta hizkuntza-politikaren definizio bat erabiltzekotan François Grinek ekarritakoari jarraituko zaio:

“Language policy is a systematic, rational, theory-based effort at the societal level to modify a linguistic environment with a view to increasing aggregate welfare. It is typically conducted by official bodies or their surrogates and aimed at part or all of the population living under their jurisdiction (Grin, 2003a: 28)

Definizioan badira azpimarra merezi duten hitzak. “*Systematic*” da lehena; horrek adierazten baitu “(...)that language policy is assumed to be (even if informally) organised according to a certain method and aims at certain goals, which may be overt or covert” (Grin, 2003a: 28). Hau da, hizkuntza-politikak metodoa eta helburuak inplikatzeko dituen. Hizkuntza-politika oro, aurretiaz ezarritako helburu batzuk eskuratzeko berariazko asmoari lotuta dagoelako edo egon beharko lukeelako. Hortaz, Grinek dioenez, modu arrazionalen jokatzeko aurrekoaren ondorio logikoa litzateke. Hizkuntza-politika bitarteko/baliabide batzuk erabilia zenbait helburu lortzeko asmoz egikaritzen baldin bada, horrek berez dakar bitartekoak/baliabideak, sarri askotan mugatuak izaten diren bitartekoak/baliabideak, modu zentzuzkoan erabili behar direla pentsatzea. Bigarrenik, azpimarra merezi du “*linguistic environment*” delakoak; hizkuntza-politikaren objektu gisa ulertu behar dena. Izan ere, edozein delarik hizkuntza-politikaren xedea, beti egikaritutako da gizarte-testuinguru jakin batean eta testuinguru horretan eragingo du.

“Whether it aims to increase the visibility of an autochthonous minority language in cultural life, to develop foreign language skills among the school-age population, or even to *suppress* the use of certain languages, language policy is intended to modify the linguistic features of our environment” (Grin, 2003a: 28).

Eta aipamena merezi duen hirugarren hitza, esanguratsua bera, “*welfare*”, ongizatea, genuke. Grinen arabera, ongizate-mailan eragitea da edozein hizkuntza-politikaren helburua; hau da, ongizatearen hazkundea lortzea. Baina nola ulertu ongizatea? Galdera hori egiteak Pandoraren kutxa zabaltzea dakarrela dio Grinek. Hala ere, bere ustez, ongizatea ez zaio bakarrik gauza materialak izateari edo horiek kontsumitzeko aukera izateari lotu behar, baizik eta elementu ez-materialak hartu

ditzake kontuan, horien artean leudeke norberaren identitatea edo norberaren kultura-ondarearen zainketa.

“Welfare is not just a matter of material consumption or well-being. It can also include any non-material elements, including a feeling of safety in one’s identity or the preservation of markers of cultural heritage” (Grin, 2003a: 29).

Betiere ahaztu gabe hizkuntza bat edo batzuk dituen gizabanakoa izaki soziala dela, hizkuntza-ezaugarri zehatzak dituen gizarte-testuinguru batean bizi dela. Hortaz, hizkuntza-politika egiteak, lehenago aipatu bezala, gizarte-politika egitea dakar, gizartearen antolamenduan eragitea.

Behin kontzeptua argituta prest gaude Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza-politikak jorratu duen bidea aurkezteko.

2.2.1.1. EUSKARAREN LEGETIK ITUN BERRITU BATERANTZ

Euskarak laurogeiko hamarkadatik egin duen aurrerabidean mugarriztat jo daitezkeen ekimen, egitasmo eta gertaeren artean dago, inolako zalantzarik gabe, Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legea. Ordura arte, euskara normalizatzeko prozesu eta estrategia nagusiak gizarte zibiletik jaiok ziren; besteak beste, frankismoaren azken hamarraldietan gauzatu ziren euskararen batasuna, ikastolen sorrera, helduen alfabetatzea edota hainbat hedabideren kaleratzea. Baina instituzio publiko berriak martxan jartzeak, hizkuntza batek, kasu honetan euskarak, biziberritzeko ezinbesteko duen elementua ere ekarriko zuen: lege-babesa.

1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak euskararen ofizialtasuna ezarri ondoren ekin zioten Euskararen Erabilera Arautzeko Legea garatzeari⁹⁶. Berau gauzatzeko “sukalde-lana” zuzendu zuen Pedro Miguel Etxenike, garaiko Hezkuntza

⁹⁶.- Beste horrenbeste egin zuten Espainian, gaztelaniaz gain berezko beste hizkuntza bat zuten lurralde autonomoetan. Kronologikoki Euskararen Legea izan zen lehena, eta horren ondoren etorri ziren Kataluniakoa (apirilaren 18ko 7/1983 Legea), Galiziakoa (ekainaren 15eko 3/1983), Valentziakoa (azaroaren 23ko 4/1983 Legea), Balear Irletakoa (apirilaren 19ko 3/1986) eta Nafarroakoa (abenduaren 15eko 18/1986 Foru-Legea).

Sailburuaren⁹⁷ hitzetan, Legebiltzarrean aurkeztu zuten lege-proiektuaren xedea euskarari aterpe egokia eskaintzea izan zen:

“(...)Eusko Jaurlaritza 1980an berrantolatu genuenok gure hizkuntzari legean oinarritutako aterpe egokia eman nahi izan genion, eta horixe hartu zuen helburutzat, besteak beste gure gobernu sortu berriak: urteetan baztertua izan zen hizkuntzari ofizialtasuna eman nahi izan genion, eta berdintasunezko aukera”. (Baztarrika, 2009: 13)

Euskararen legea, testu labur⁹⁸ eta mamitsu hura osatzeari ekin zioten garaian euskararen normalizazioa ulertzeko ikuspegi asko zeuden arren, horietako batzuk elkarrekin lehian, akordioa lortzeko nahia gailendu zen, eta horri esker, legeak gehiengo sendoaren babes⁹⁹ izan zuen.

Legeak, euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa¹⁰⁰ dela eta euskaraz aritzeko oinarritzko eskubidea¹⁰¹ aitortzeaz gain, herri-aginteen funtzioak eta betebeharrak ezarri zituen. Hala, hizkuntza-politika sustatzaileak garatzeko bidea zabaldu zuen; hau da, funtsezko oinarria ezarri zuen gizarteko eremu giltzarrietan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko erabakiak taxutzeko. Denborak erakutsi du 1982ko azaroren 24an mamitutakoak berebiziko garrantzia izan duela euskararen biziberritzea bermatzeko zereginari begira. Hala ere, lege-babesarekin eta hizkuntza-politika egingarri eta eraginkorrekin batera, hizkuntzak beste bi kontu behar ditu aurrera egin nahi badu: herritarren aldeko jarrerak eta hizkuntza-portaerak.

Behin Legea onartuta, Jaurlaritzak berehala ekin zion testuan bildutakoa gauzatzeari, euskararen alde tresnak jartzeari eta alor guztietan neurri positiboak

⁹⁷ .- 1980ko apirilean Carlos Garaikoetxea lehendakariak osatutako Jaurlaritzan Pedro Miguel Etxenikek hartu zuen Hezkuntza Sailaren ardura eta Ramón Labaienek Kultura Sailarena. Hiru urtera, 1983an, Kulturak bat egin zuen Hezkuntzarekin, eta Etxenike izendatu zuten arlo bien sailburu lehen legegintzaldia bukatu arte, 1984ko apirilera arte alegia.

⁹⁸ .- Legeak 30 artikulua ditu.

⁹⁹ .- Alianza Popular taldeak izan ezik, gainerako alderdi politiko guztiek (EAJ/PNV, PSE-PSOE, EE, UCD eta Talde mistoa-PCE-EPK) aldeko botoa eman zuten. Herri Batasunak ez zuen parte hartu Legebiltzarreko eztabaidan ezta legea gauzatzeko prozesuan ere, eta ez zion babesik eman Euskararen Legeari.

¹⁰⁰ .- Atariko Tituluaren 2. artikulua.

¹⁰¹ .- Lehen Tituluaren 5. artikulua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

sustatzeari. Ordutik izandako gobernuek¹⁰² hainbat arau, erakunde, plan eta baliabide eratu dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen gaitasunean, erabileran eta estatusean eragiteko. Ondokoak lirateke aipagarrienak kronologikoki aurkeztuta:

1.- Euskararen Aholku Batzordea (1982). Hizkuntza-normalizazioan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzeke, bideratzeko eta koordinatzeko harreman-organoa¹⁰³ da. Egun, Euskararen Aholku Batzordea erakundeetako ordezkariak (Legebiltzarra, HABE, EITB, IVAP, foru-aldundiak, EUEDEL, Euskaltzaindia..) eta arlo askotako adituek osatzen dute.

2.- Euskal Irrati Telebista (EITB, maiatzaren 20ko 5/1982 Legea). Euskal kulturaren, eta bereziki euskararen sustapen eta zabalkunderako tresna dela aldarrikatzen du EITBren sorrerarako legeak.

3.- EAEko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzeko dekretua (uztailaren 11ko 138/1983). Beste zenbait gairen artean irakaskuntzako A, B eta D ereduak¹⁰⁴ arautu ziren.

¹⁰² .- Euskal Autonomia Erkidegoan hamar legegintzaldi izan dira 1979ko Estatutua onartu zenetik 2013ra bitartean; hau da lan honek ikergaitzat hartu duen azken urtera bitartean. Lehenengo bietan, EAJk bakarrik gobernatu zuen. Hirugarrenean, EAJ eta sozialisten arteko koalizio-gobernua izan zen. Laugarrenak bi aldi izan zituen, 1991ko otsailetik urrira bitartekoan EAJ, Eusko Alkartasuna eta Euskadiko Ezkerra (EE) izan ziren gobernuan eta gero, 1991ko urritik 1995eko urtarrilera bitartean, EAJk sozialistekin gobernatu zuen. Bosgarren legegintzaldian, EAJk eta PSE-EEK osatu zuten koalizio-gobernua. Seigarrenean eta zazpigarrenean, EAJk eta Eusko Alkartasunak. Zortzigarren legegintzaldian gobernu hirukoitza osatu zen, EAJ, EA eta Ezker Batua-Berdeak alderdien artekoa hain zuzen. Bederatzigarrenean, PSE-EEK osatu zuen gobernua. Eta azkenik, 2012ko abenduan hasi zen hamargarren legegintzaldian EAJk berreskuratu zuen Jaurlaritza.

¹⁰³ .- Lehen Aholku-Batzordeko kideak hamazazpi izan ziren, denak gizonezkoak: Lino Akesolo, Jesus Altuna, Patxi Altuna, Jose Mari Aranalde, Luis Alberto Aranberri, Joseba Arregi, Jesus Eguskitza, Pako Garmendia, Jean Haristchelhar, Ander Manterola, Koldo Mitxelena, Jose Antonio Obieta, Josu Oregi, Juan San Martin, Ibon Sarasola, Jose Mari Satrustegi eta Mikel Zalbide. 1982ko otsailaren 16an izendatu zituen Jaurlaritzak eta otsailaren 25ean dekretuz eratu zuen ofizialki Batzordea Carlos Garaikoetxea lehendakariak. Handik hilabete batzuetara onartu zen Euskararen Legearen (10/1982, azaroaren 24koa) 29. artikuluan dago jasota. Honela dio: "Jaurlaritzak, euskararen erabileraren normalizazioa ahalbideratzeko, Lege hau gauzatu eta garatze aldera erakunde guztien lanak eta ahaleginak aztertu, bideratu eta bateratzea helburu izango duen topagune bat sortuko du". Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez eraberritu zuen 1996an (ekainaren 18ko 156/1996 Dekretua) eta 2007an (urriaren 16ko 176/2007 Dekretua).

¹⁰⁴ .- Dekretuak eranskinetan zehazten du zer den eredu bakoitza. Labur esateko: A erudian, irakasgai guztiak, euskara bera izan ezik, gaztelaniaz lantzen dira. B erudian, euskara eta gaztelania, biak erabiltzen dira. Dekretuak dioenaren arabera, "Gaztelania berez, irakurketa-idazketa eta matematika

4.- HABE, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea¹⁰⁵ (HABE, azaroaren 25eko 29/1983 Legea). Izenak berak adierazten duen moduan, helduen alfabetatze-euskalduntzea sustatzea du helburu nagusi.

5.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, IVAP (uztailaren 27ko 16/1983 Legea). Sorrerako legeak esleitzen dizkion xedeen artean dago “Euskera Herri-Arduralaritzan sarraraztea, hedatzea, erabiltzea eta arauzkotzea, baita arduralaritza-hizkuntza zehaztea ere”.

6.- Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia (1983). Hizkuntza-politikaren arloan eskumena duen organo gorena bezala sortu zen, eta 1995ean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza bilakatuko da.

7.- Mapa Soziolinguistikoa (1989). Zentsuak eskainitako datuen ustiaketa eginez, 1986tik bost urtero burutzen den EAEko azterketa da, azkena 2011koa. Mapak lau aldagai aztertzen ditu: hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, biztanleriaren lehen hizkuntza, BILA indizea (hizkuntza-gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren arteko gurutzaketa) eta etxeko erabilera.

8.- Euskal Funtzio Publikoaren Legea (6/1989, uztailaren 6koa). Administrazio publikoetako hizkuntza-normalizazioari ere heltzen dio legeak edukian¹⁰⁶. Bertan jasotakoa gauzatzeko plangintzaldiak jarri dira martxan administrazioiko langileak arian-arian gaitzeko hizkuntzaren aldetik, euskararen erabilera areagotzeko, euskara zerbitzu-hizkuntza bihurtzeko herritarrekiko harremanetan eta euskara lan-hizkuntza bihurtzeko. 2013-2017 bitartean V. plangintzaldia garatuko da.

bezalako gaietarako erabiliko da. Euskara beste arloetako gaiak lantzeko” (138/1983 dekretua: 2474 orria). Eta D ereduan, irakasgai guztiak, gaztelania izan ezik, euskaraz lantzen dira.

¹⁰⁵ .- HABE sortzeko legea 1983an onartu bazen ere, erakundea 1981ean jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak. Ordurako, ezarria zegoen Euskal Herri osoan AEK, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundearen ikastegi-sarea.

¹⁰⁶ .- Funtzio Publikoaren Legearen V. idazpuruko lehen atalean dio: “Euskara eta gaztelera dira euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza ofizialak, eta bi hizkuntzok erabiltzea bermatu beharko dute Administrazio horiek bere barneko zein kanpoko harremanetan” (EHAA, 1989-07-28: 144zk.).

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

9.- Inkesta Soziolinguistikoa¹⁰⁷(1991). EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko euskararen bilakaera sozialari buruzko azterketa sakona. Bost urtero egiten da eta azkena 2016koa da.

10.- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN, 1998). Hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategiko moduan landutako tresna izan zen; aldi berean, hizkuntza-politikaren ildo nagusiak definitzeko oinarritzko erreferentzia.

“Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea” (EBPN, 1998: 49).

11.- Justizia Administrazioiko hizkuntzaren normalizazioari buruzko dekretua (2001). Estatuko gobernuak horren aurkako eskumen-gatazka aurkeztu zuen, dekretua etetea lortuz. Baina 2002ko ekainaren 5eko autoak etenaldia altxatu zuen eta testuaren alde ebatzi. Orain martxan da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan Hizkuntzen Erabilera Normalizatzeko Plan Orokorra (2009-2017).

12.- Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko Dekretua (2003). Bi urrats aurreikusi zituen: erakundearen euskararen plan orokorra onartzea (2005) eta ondoren Osakidetza osatzen duten zerbitzu-erakunde guztiek planaren egokitzapena egin eta gauzatzea (2006). Bigarren plana, 2013-2019 aldian gauzatuko da.

13.- Elebide. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua (2008). Bere funtzioak dira “hizkuntza eskubideen gaineko sentikortasuna sustatzea, eskatzen duten herritarrei horien babesari buruzko informazioa eta aholkularitza ematea, eta lankidetzak eskaintzea eragindako sail, instituzio eta erakundeei, aipatutako eskubideak bete daitezen”¹⁰⁸.

¹⁰⁷ .- Lehen inkesta, 1991ean egin zena, 1995ean argitaratu zen *Euskararen Jarraipena* izenburupean. Hurrengo inkestak 1996, 2001, 2006, 2011 eta 2016an egin ziren.

¹⁰⁸ .- 150/2008 Dekretua, uztailaren 29koa.

14.- Euskara 21. Itun Berritu Baterantz (2009). XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriari buruzko txostena. Lehentasunezko hamalau ildo ezarri zituen eta adostasunean, pertsasioan eta tinkotasun demokratikoan oinarrituriko hizkuntza politika progresibo baten premia azpimarratu zuen.

15.- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana¹⁰⁹ (ESEP, 2012/2013). *Euskara 21* ekimenean jasotako oinarri eta gidalerroen aplikazio praktikoa. 2012-2022 urtaldian gauzatuko da eta 1998an martxa jarri zen EBPN egungo premietara egokitzen du. ESEPe 99 neurri, 353 ekintza eta 140 adierazle zehazten ditu, hamasei lan-esparrutan banatuta.

16.- Euskararen Agenda Estrategikoa¹¹⁰ (2013-2016). Aurretik aipatutako bi dokumentuetan oinarrituta, Jaurlaritzak 2013-2016 legealdian euskara biziberritzearen alde burutu beharreko ekintza eta jarduera nagusiak jaso zituen egitasmoa da agenda estrategikoa. Hiru arlotan jarri zuen fokua: euskararen ezagutza, erabilera eta kalitatea.

17.- EITBko Euskararen Erabilerarako Plana (2013-2016). Bi ildo estrategikoen inguruan egituratuta dago plana; lehen ildoak "EITBk euskaraz funtziona dezake" dio eta bigarrenak "Euskal Irrati Telebistak euskaldun irudia zabaltzen du kanpoan". Bi ildo horietako bakoitzarentzat hainbat helburu eta horiek gauzatzeko ekintzak zehazten dira.

Arestian nabarmendutakoez gain, lerro hauek idazteko orduan Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko I. Plangintzaldia ari da gauzatzen¹¹¹ Jaurlaritza.

Aurreko zerrendak agerian uzten duenez, 1982tik Eusko Jaurlaritzak esparru guztietara zabaldu du euskara sustatzeko ahalegina. Orduetik, Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu diren hizkuntza-politikek lau zutabe nagusi izan dituzte beti

¹⁰⁹ .- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2012an onartu zuen Euskararen Aholku Batzordeak Patxi López lehendakari zela. Ondoren, EAJko gobernuak berretsi zuen 2013an eta Legebiltzarrak ere bere egin zuen 2013ko irailaren 11n.

¹¹⁰ .- Euskararen Agenda Estrategikoa 2014ko ekainaren 24an aurkeztu zen Gasteizen.

¹¹¹ .- Estefania Beltrán de Heredia Herrizaingo sailburuak 2014ko urriaren 22an aurkeztu zuen plana Legebiltzarrean. Jendearekin harreman zuzena duten lanpostuen euskalduntzea lehenesten du planak eta xede orokor bat jartzen du: 2017rako derrigortasun-data ezarri nahi diete Ertzaintzaren jendaurreko postu guztiei (2014an %36k zuen akreditatuta lehen edo bigarren hizkuntza-eskakizuna, hau da 3.006 ertzainek eta 2017rako kopuru hori %43koa izatea nahi dute; hau da, 500 ertzain gehiagok izatea hizkuntza-eskakizuna).

abiapuntu eta ipar-orratz: lehena, normalizazioa eta sustapena; bigarrena, herritarren borondatearen kontra ezer ez egitea; hirugarrena, gizarte elebiduna indartzeko ahalegina; eta laugarrena, gizarte-kohesioa. Azken batean, 1982an gehiengoaren oniritzia lortu zuen lege-testuan jasotako zutabeak dira.

2.2.1.2. HIZKUNTZA-POLITIKAK EAEn 2005-2013 BITARTEAN

Aurreko atalean Euskararen Legea onartu zenetik 2013ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte nagusiak, hau da, Eusko Jaurlaritzak, hizkuntza-politika diseinatzeko eta gauzatzeko erantzukizunari zein tresnarekin heldu dion aurkeztu ondoren, orain geldialditxo egingo da ikerketa honek aztergai duen epealdian, berau sakonago aztertzeko.

2005etik 2013ra arte hiru legegintzaldi izan dira gurean. VIII.ean EAJ, EA eta EB-Berdeak alderdiek hitzarturiko gobernua osatu zen¹¹² (2005eko maiatza – 2009ko maiatza). IX. legegintzaldiak trantsizio demokratikoa egin zenetik inoiz ezagutu gabeko aldaketa ekarri zuen Jaurlaritzara; lehen aldiz alderdi sozialistako lehendakari bat izendatu baitzen,¹¹³ Euskadiko Alderdi Popularrak eskainitako babesari¹¹⁴ esker (2009ko maiatza – 2012ko abendua). Azkenik, X. legegintzaldian EAJk berreskuratu zuen Jaurlaritza,¹¹⁵ eta gehiengo osoa lortu ez bazuen ere bakarrik gobernatzeari ekin zion.

Hortaz, hizkuntza-politikari dagokionez ere, hiru epealdi bereiz daitezke aipatu denbora-tartean: lehena, 2005-2009 bitartekoa; bigarrena, alderdi sozialistak EAE kudeatu zueneko; eta hirugarrena, EAJk berriro Ajuria Eneara itzuli zenean abiatzen den epealdia.

¹¹² .- Lehendakaria Juan Jose Ibarretxe izan zen, Kultura sailburua eta Gobernu bozeramalea Miren Azkarate eta Hizkuntza Politikarako sailburorde, berriz, Patxi Baztarrika izendatu zuten.

¹¹³ .- Lehendakaria Patxi López izan zen, Kultura sailburua Blanca Urgell eta Hizkuntza Politikarako sailburuordetzan zenbait hilabetez Ramón Etxezarreta aritu ondoren, Lurdes Auzmendik hartu zuen lekukoa legealdia amaitu arte.

¹¹⁴ .- Alderdi Popularrak 13 aulki lortu zituen Legebiltzarrean, horiek eta Alderdi sozialistak eskuratutako 25ak batuta gehiengo osoa izan zuten Patxi Lopez lehendakari izendatzeko.

¹¹⁵ .- Lehendakaria Iñigo Urkullu, Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburua Cristina Uriarte eta Hizkuntza Politikarako sailburordea Patxi Baztarrika.

LEHEN ETAPA: 2005eko maiatzetik-2009ko maiatzera. Garai honetan euskara biziberritzeko ildo, oinarri eta jarraibide nagusiak *Hizkuntza politika aurrera begira* izeneko dokumentuan daude bilduta. Oinarrizko helburuak euskararen kalitatea gordetzea eta bereziki esparru guztietan erabilera handitzea izango dira. Bi xede horiek lortzera zuzenduko dira baliabideak, Patxi Baztarrika sailburuordearen esanetan.

“(...) horretara bideratu beharko dira aurrekontuak, horretara bultzatu beharko da elkarlana, horretara jarri beharko ditugu erreferentzia eredugarriak, etxetik hasita –administratibotik, Jaurlaritza bertatik” (Eusko Jaurlaritza, 2005:18).

Euskarara bideratutako dirua haziz joan zen urte horietako aurrekontuetan,¹¹⁶ eta koalizio-gobernua osatu zuten EAJ, EA eta EB-Berdeak alderdiek hizkuntza-politika integratzaile, malgu eta errealitate sozialari egokitu garatzeko asmoa agertu zuten. Zilegitasuna eta eraginkortasuna bilakatu ziren Sailburuordetzaren ikur eta erronka.

“Zilegitasuna eta eraginkortasuna, biak behar ditu hizkuntza-politika aurreratu eta demokratikoak: zilegitasuna, kohesio soziala areagotzea nahitaezko baldintza delako; eta eraginkortasuna, arrakasta bermatzeko” (Baztarrika, 2011:15).

Zilegitasunarekin eta eraginkortasunarekin batera kontsentsua berregitea izango da lau urteotako lanaren xedea. Horren oinarrian aurpegi bikoitza duen argudioa legoke; lehenak, euskararen normalizazioa gizarte-integratzaile eta elkarbizitzarako funtsezko elementu dela aldarrikatzen du, eta bigarren argudioak dio atzera egin dela Euskararen Legea onartu zenean lortu zen hizkuntzaren aldeko adostasun politiko-sozial zabalean¹¹⁷.

“Gutxienez 1982an Euskararen Legea onartzerakoan izan genuenaren neurriko adostasun berri bat lantzeari ekin beharko genioke

¹¹⁶ .- Hizkuntza-politikara bideratutako baliabide ekonomikoen azterketa zehatza egiten da lan honen beste atal batean, *Euskara sustatzeko diru-baliabideak* izenekoan.

¹¹⁷ .- Adierazitakoaren erakusgarritzat har daiteke ezker abertzaleak (EAB) 2006an aurkeztu zuen ekimena. EABren ustez, 1982ko Legea agortuta zegoen, eta horren ordez Euskara Berreskuratzeko Lege Proposamena eraman nahi izan zuen Legebiltzarrerara. Baina urriaren 20an egindako saioan EAJK, PSE-EEK, EAK, PPK eta EB-Berdeak alderdiek proposamen hura eztabaidatzearen kontrako botoa eman zuten, eta ondorioz, ekimena bertan behera geratu zen. Aralarrek aintzat hartzearen aldeko botoa eman zuen.

euskararen inguruan; liskarraren bidean zer irabazirik ez, baina galtzeko ikaragarri baitu euskarak, baita elkarbizitzak ere” (Eusko Jaurlaritzak, 2005: 34-35).

Kontsentsua berreskuratzeko egindako ahaleginaren gailurra Eusko Legebiltzarrak 2009an onartu zuen *Euskara 21* gogoeta prozesuarekin¹¹⁸ eta horren emaitza izan zen *Itun Berritu Baterantz* izeneko txostenarekin lortu zen. Dokumentuak etorkizunerako hizkuntza-politikaren abiapuntuak eta oinarriak finkatu zituen, bi printzipioren inguruan eraikitakoak:

1.- Adostasun politiko eta sozial zabalean, pertsuasioan eta tinkotasun demokratikoan oinarrituriko hizkuntza-politikaren premia. Kontsentsua lortzeko bidean berriz, malgutasuna eta euskararekiko aldeotasuna kontsideratzen ditu ezinbesteko baldintza.

2.- Progresibotasuna. Hizkuntza-politikan presarik ez izatea gehiegizkoa izatea bezain kaltegarria dela adierazten da; horregatik, progresibotasunaren aldeko apustua egiten du.

“Progresibotasunak urrezko lege bat du: baldintza eta egoera ahulagoi, ezinbestez erritmo lasaiagoa dagokie; baldintzak eta egoerak hobetuz doazen neurrian, aukerakoagoa izango da erritmoa bizkortzea, beti ere komenigarritasun, helburu eta adostasun maila orokorren artean” (Itun berritu baterantz, 2009: 57).

Hortaz, progresibotasuna ulertzen da atxikimendua, egingarritasuna eta erritmo egokia lotzen dituen printzipio gisa.

Printzipio horietatik abiatuta, *Euskara 21. Itun berritu baterantz* dokumentuak lehenasunezko hamalau jardun-ildo identifikatzen ditu XXI. mendeko hizkuntza-politikarentzat. Merezi du horiek denak hemen jasotzea.

¹¹⁸ .- Gogoeta prozesua 2008an hasi zen eta herritarrek ere parte hartzeko aukera izan zuten horretarako propio jarritako webgunean (41.671 bisitari eta 6.500 iruzkin izan ziren). Azken txostenari 2009ko otsailaren 6an eman zion oniritzia aho batez Euskararen Aholku Batzordeak, eta ondoren, Legebiltzarrak onartu zuen.

- “1.- Euskararen ezagupena eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea.
- 2.- Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnagune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea besterik gabe, baizik eta euskal hiztunak sortzea.
- 3.- Familia-transmisioa bermatzea, oso bereziki 25 urte barru izango diren 30 urtez azpiko gazte elebidunek euskara ere izan dezaten etxeko hizkuntza. Hauxe dugu etorkizunaren gako nagusia.
- 4.- Euskal hiztunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerarako sare operatibo presentzialak zein birtualak hedatuz eta indartuz.
- 5.- Hiri handietan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanez.
- 6.- Elebitasun pasiboa helduen munduan -eta gutxieneko helburutzat- areagotzea eta prestigiatzea.
- 7.- Euskarazko kultura kontsumoa indartzea, euskal kultura industria, ekoizle eta sortzaileekiko ikuspegi askatzaile batetik.
- 8.- Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea, hauen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara erabileraremu demografikoki dinamikoetara hurbiltzeko xedez.
- 9.- Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.
- 10.- Hizkuntza eskubideak eremu publikoan aitortzeko ez ezik errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea.
- 11.- Euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea: euskarak mundu ugari ditu bere baitan, eta euskarara datozen munduentzako tokirik ere badu bere barnean. Proiektatzen dugun baino anizkoitzagoa da euskararen unibertsoa, eta are anizkoitzagoa egin beharra dugu, gizartearen pare anizkoitza izatera iritsiko bada.
- 12.- Euskararen irudiari prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz, batetik, eta, bestetik, euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.
- 13.- Hizkuntzaren teknologiak (informazio eta komunikazioaren teknologiak euskararen garapenerako baliatzea), sarerako euskarazko edukiak sortzea eta komunikaziorako sare birtualak era egokian

baliatzea, euskararen normalkuntza eta erabilera aukeren mesedetan. Izan ere, euskarak informazio eta komunikazioaren teknologiak baliatu behar ditu, horixe baitu ezinbesteko baldintza hizkuntza guztiz garatua izatera iristeko.

14.- Hizkuntza politikaren inguruko akordiorik zabalena etengabe elikatu eta sendotzea, euskararen biziberritzea eta kohesio soziala estu lotuko dituen itun berri baten bila.”(Itun berri baterantz, 2009: 52-53).

Halaber, dokumentuak badu euskarazko kultura eta merkatuaren inguruko politikak jarraitu beharko lituzkeen ildo nagusiei buruzko hausnarketa mamitsua, diru-laguntza sistemak izan beharreko tokia ere aipagai duena:

“Euskal kultura sistema suspertzeko politika publikoek kontsumoa areagotzea izan behar dute jomuga nagusi. Merkatuaren garapena eta hazkundera modu naturalean gauzatu behar dira, euskararen ezagutzarekiko era paraleloan, eta inguruko kultura merkatuekiko modu ahalik eta koherenteenean. Helburua beraz, ez da sekula izango betiereko diru-laguntza sistema bati eustea, baizik eta morrontza arriskuetatik urrundu eta normalkuntzak zein lehiakortasunak gidaturiko babes publiko askatzaile bat eratzea. Hala ere, ezin da merkatuaren zeregina neurritz gaindi balioetsi, guztiz premiazkoak izango baitira, beti, goi mailako kalitatea duen ekoizpenak, eta herri-aginteen zeregin berezkotzat hartu behar da horrelakoak babestea eta bultzatzea, baita merkatuaren harrerak itxuraz justifika lezakeenetik haraindi ere. Ez baita ahaztu behar kultur erreferentzialtasuna dela, hain zuzen, hizkuntzarekiko atxikimenduaren pizgarrikeragingarrieneraiko bat” (Itun berri baterantz, 2009: 45-46).

Hortaz, diru-laguntza sistema bai baina morrontza-sistema bilakatu gabe. Horregatik, etorkizunerako erronka gisa planteatzen ditu, batetik, merkatuaren garapena kalitatearekin uztartzea, “kalitateak eta kalitatean oinarrituriko arriskuak izan behar dute herri-aginteen iparra, euskal kulturgintza babesterakoan” (Itun berri baterantz, 2009:45) eta bestetik, gaineratzen du produktuen dibertsifikazioari erreparatu behar zaiola, kontsumoa ahalik eta esparru gehienetara zabaltzeko; baina kontuan hartuta “euskal kultura kontsumitzaileon masa kritikoak ez duela justifikatuko den-dena euskaraz ere ekoizteak eskatuko lukeen ahalegina” (Itun berri baterantz, 2009: 46).

Azkenik, Euskara 21 dokumentuaren azken paragrafoak enkargu argia egiten du: 1998an onartu zen eta dagoeneko aurreikusitako epea beteta zeukan Euskara Biziberritzeko Plan nagusiaren (EBPN) berrikuspena, “lanabes baliotsu hori XXI. mende hasierari begira findu eta egokitzeko”¹¹⁹. Zeregin horri hurrengo gobernuak ekingo dio, Patxi López sozialistak 2009ko maiatzetik aurrera zuzendu zuen gobernuak hain zuzen.

BIGARREN ETAPA: 2009ko maiatzetik 2012ko abendura. Hiru hamarkadatan EAJ/PNVk gidatutako gobernuak izan ondoren (bakarrik zein beste alderdi batzuekin koalizioan), 2009ko martxoaren 1ean, ezker abertzalearen parte hartzerik gabe¹²⁰ egindako hauteskundeen emaitzek¹²¹ inoiz ezagutu gabeko aldaketarako bidea zabaldu zuten Euskal Autonomia Erkidegoan. Hauteskundeak EAJ/PNVk irabazi zituen arren, PSE-EEK eta PPK, elkarrekin zuten gehiengo osoaz baliatu ziren, eta Ajuria Eneara eramán zuten Patxi López lehen lehendakari sozialista¹²².

Gobernu-hitzarmenerako akordioa PSE-EEK eta PPK adostu eta sinaturiko¹²³ *Euskal gizartearen zerbitzurako aldaketa demokratikoaren oinarriak* izenburuko agirian bildu zen. Bertan botere alternantziaren beharra eta garrantzia azpimarratzeaz gain¹²⁴, gobernu berriak gauzatu eta betetzeko asmoz landuko dituen helburuak azaltzen dira. Eta horien artean hizkuntza-politikari dagozkionak zazpi puntu argigarritan jasota daude:

- “Hizkuntza askatasuna bultzatzea, hiritarrek ofizialak diren hizkuntza bien artean aukera egin dezaten, eta horrek ezin du lana lortzeko edota funtzio publikorako kalterik, marjinaziorik ezta mugarik eragin. Bete beharreko funtziorako hizkuntza eskakizuna beharrezkoa den kasua salbuetsita.
- EAEn administrazio publikoekiko harremanetan ofizialak diren hizkuntza bietako edozeinetan hitz egiteko eskubidea bermatuta egongo da. Eskubide hori bermatzeko esleituko dira hizkuntza eskakizunak, zonalde bakoitzeko administrazioekiko harremanetan hizkuntzen benetako erabileraren arabera egingo da.

¹¹⁹ - Euskara 21. Itun berritu baterantz, 62. orria.

¹²⁰ - Ezker abertzalea legez kanpo utzi zuten eta ondorioz, ez zuen hauteskundeetara aurkezterik izan.

¹²¹ - EAJ/PNVk 30 legebiltzarkide eskuratu zituen, PSE-EEK 25, PP alderdiak 13, Aralarrek 4, Eak 1 eta beste bana izan zuten EB-Berdeak eta UPyD alderdiek.

¹²² - Patxi Lópezek 2009ko maiatzaren 7an zin egin zuen lehendakari bezala Gernikan.

¹²³ - Akordioa 2009ko apirilaren 1ean sinatu zuten.

¹²⁴ - Agiriaren bigarren paragrafoak honela dio: “Euskal hiritarrek aldaketarako tartea nahi dutela adierazi dute, eta berori askatasuna defendatzeko aukera paregabea da, baita bakea, berdintasuna, elkarbizitza, tolerantzia eta aniztasun politikoa lortzeko ere”.

- Eusko Jaurlaritzako langileak kontratatzeke EPE¹²⁵ desberdinetan euskararen balorazio egokia egingo da, horrela euskararen balorazioa eta lan-merituen arteko oreka bilatuko da.
- Euskal gizartea hizkuntza komunitate desberdinak zatitzeko nahia saihestuko da, horretarako euskara erabiltzea indartuko da, baina askatasunetik.
- Hizkuntzaren inposaketak eta erabilera sektarioak zein hizkuntzaren erabilera alderdikoia ekiditea.
- 1982ko Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Legean lortutako kontsentsuaren ikuspuntutik eta egungo benetako erabilera kontuan hartuta euskalduntze planak berraztertzea.
- Europar belaunaldi berrien mugikortasuna erraztea, horretarako Europako hirugarren hizkuntza, ingelesa, batez ere, ikastea bultzatuko da”.

Lerro horien irakurketatik ondoriozta daiteke gobernu-akordioa sinatu zuten bi alderdientzat aurreko legegintzaldietan ezarritako hizkuntza-politikak ez zirela proposak izan, bereziki PPren ikuspegitik. Laura Garrido PPko legebiltzarkidearen hitzetan:

“(Euskararen) legeak ez ditu bere emaitzak eman, ezarri diren politika inposatzaileengatik. Batetik, euskalduntzeko erritmoak zehazterako orduan ez da kontuan hartu leku bakoitzeko errealitatea. Inposaketak gainera disfuntzioak eragin ditu”.¹²⁶ (Berria, 2012-12-04)

Ondorioz, PSE-EEren gobernuak “inposiziorik ez, derrigortasunik ez” errezetarekin ekingo dio jardunari hizkuntza-politikaren arloan. Horren lekuko 2011 eta 2012ko Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan hizkuntza-politika programarako memorian adierazitakoa:

“Inork behartu gabe, bi hizkuntza ofizialak dakizkien gizartea dugu helburu; erabili ere, inork derrigortu gabe, beren apeten, beharren eta egoeren arabera erabiliko dute herritarrek hizkuntza bata zein bestea”¹²⁷. (EAEren aurrekontu orokorrak, 2012: 1)

¹²⁵ .- Enplegu Publikorako Eskaintza.

¹²⁶ .- Euskararen Legearen 30. urteurrenean egindako adierazpenak (Berria, 2012/12/04).

¹²⁷ .- Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak (2011). Programa : Hizkuntza Politika. Memoria, 1go orria. Aipatutako erreferentzia bera ageri da 2012ko aurrekontuen hizkuntza-politikarako memorian. 2010eko aurrekontua ere sozialistek landu zuten, baina hartan ageri den aipamena beste era batera formulaturik dago: “Herritarren hizkuntza aukera errespetatzea bultzatu nahi dugu, herritar guztien hizkuntza eskubideak zainduz”.

Horrekin batera, euskararen erabilera askatasunean eta askatasunetik gauzatu beharra azpimarratuko dute behin eta berriz. Euskara eta askatasunaren artean ezarritako lotura horrek hautsak harrotuko ditu behin baino gehiagotan. Hala gertatu zen, esaterako, 2011n lehendakariak Euskararen Aholku Batzorde eraberrituaren aurrean egin zuen agerraldian¹²⁸:

“Ekonomia aldetik garai zail batean bizi gara. Baina bestaldetik, itxaropenez betetako garaia da gurea. Bortizkeriaren bukaera amets egitera ausartzen gara. Espero dugu laster minbizi hau iraganeko kontua izatea. Horrek bide berriak urratu eta gauzak asko erraztuko dizkio euskalgintzari. Euskarak bat egingo du behin betikoz askatasunarekin” (Patxi López, 2011-01-24)

Gobernu sozialistak hizkuntza-politikaren arloan egindako lana bi norabidetan gauzatu da:

1.- Batetik, arestian aipatutako “derrigortasunik ez, inposiziorik ez” printzipioan oinarrituta, aldaketak ezarriko dituzte hainbat arlotan. Hala gertatu zen aurreko legealdian saltoki handientzako onartutako dekretuarekin¹²⁹. Era berean, hizkuntza-eskakizunak ez eskatzeko bidea zabaldu zuten¹³⁰, hezkuntzan eredu hirueleduna¹³¹ abiarazi zuten, lehen hizkuntza-eskakizuna jarri zuten Haur Hezkuntzan, Osakidetzan azterketa-eredua aldatu zuten eta krisi-egoera ekonomiko orokorrak baldintzatuta, murrizketak egin zituzten euskararen sustapenera bideratutako diru-laguntzetan, nabarmenenak 2012koak, nahiz eta ordura arte zeuden deialdi guztiei eutsi. Lurdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak honelaxe azaltzen zuen egoera:

¹²⁸ .- Bilera 2011ko urtarrilaren 24an egin zen.

¹²⁹ .- Dekretuak saltoki handietan euskaldunei euskaraz egiteko modua jartzeko agintzen zuen, eta zigorrak jasotzen zituen aurreikusitako epeetan hala egiten ez zutenentzat. Sozialistek ez zuten begi onez ikusi, eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Legea aldatzeko, legez besteko proposamena aurkeztu zuten, arlo pribatuan hizkuntz arrazoiengatik ezarritako zigorrak ezabatzeko. Hala egin zen.

¹³⁰ .- Lurdes Auzmendi, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak honela azaldu zuen ekimena: “DBH, Batxilergoa eta unibertsitate ikasketak euskaraz egiten dituzten ikasleei lehen, bigarren eta EGA mailak aitortuko zaizkie. Horrek esan nahi du haien espedientean agertuko dela zenbat kreditu egin dituzten euskaraz, eta, horren arabera, salbuetsita egongo direla titulu bat aurkeztetik” (Berria, 2012-02-25: 13).

¹³¹ .- Eredu honetan ikastetxeetan, gutxienez orduen %20 eman behar dituzte hizkuntza bakoitzean. Hortik aurrera, bakoitzaren esku. Horrek euskarazko ordu gutxiago izatea dakarkie ikasle gehienei. 2010-2011 ikasturtean jarri zuten martxan proba aldia, 40 ikastetxetan eta 2012-2013an 118 ikastetxetan.

“Krisiak jota gaude denok, eta, tamalez, ez dio inork ihes egiten. Jada ez da borondatezko kontu bat, sakrifizioak egitea guztioi ari zaigu tokatzen, eta sakrifizio horien barruan dago euskalgintza. Krisian sartzen hasi ginenean, esan nuen mundu osoak solidario izan behar zuela, eta gauza bera pentsatzen jarraitzen dut” (Berria, 2012-2-25:12).

2.- *Itun berritu baterantz* dokumentuak agindutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren berrikuspena, eguneratzea eta hurrengo hamarraldirako (2012-2022) hizkuntza-politikaren neurri-proposamenak zehaztuko dituen plan eragingarri baten diseinua: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP). Blanca Urgell, orduko Kultura sailburuaren hitzetan, planak euskal gizartean gertatutako aldaketei egokitzeko beharrari erantzuten dio,

“EBPN onartu zen garaitik hona gure gizartearen hainbat esparrutan aldaketa esanguratsuak gertatu dira, hala nola etorkinen presentzian, teknologia berrietan edo euskararen zabalkundean. Esparru horiek guztiek tratamendu eguneratua dute ESEPen. Atal oso bat eskaini zaio, halaber, nazioartean zein gure artean garapen handia izan duen hizkuntza eskubideen gaiari” (ESEP, 2012: 9).

Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren helburu nagusia euskararen erabilera handitzea izango da, ezagutza bermatu eta indartzearekin batera. Patxi López lehendakariaren esanetan, Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen arteko oreka lortzen joateko asmoaren adierazle da ESEP,

“Euskararen garapenaren aldeko apustu garbia egin dugu, ez historia edo nortasun kontuek hala agintzen digutelako, baizik eta gaur egungo herritarren borondatea, hezur-haragizko pertsonen nahia horixe delako. Euskararen sustapena eta herritarren atxikimendua eskutik loturik doaz, eta hori da euskara sustatzeko plan berriaren izpiritua”(ESEP, 2012 : 8).

Plana 2012ko udan onartu zuen Euskararen Aholku Batzordeak, baina gobernu sozialistak ez zuen astirik izan legebiltzarrean aurkezteko, Patxi López lehendakariak

hauteskunde-deia aurreratu zuelako¹³², popularren babesak galdu eta hainbat hilabetetan esku artean zituen proiektuak aurrera atera ezinik ibili ondoren.

HIRUGARREN ETAPA: 2012ko abendutik aurrera¹³³. Iñigo Urkulluren gidaritzapean izango da berriro EAJ/PNV Jaurlaritzan¹³⁴, eta gehiengo osorik gabe gobernatzeari ekingo dio. Legebiltzarrean aldaketa esanguratsua gertatuko da: ezker abertzalearen itzulera. Euskal Herria Bildu koalizioa¹³⁵ bilakatuko da bigarren indar eta ondorioz, ganbararen osaketa orokorrari erreparatu ezkerko alderdi nazionalistak dira nagusi¹³⁶.

Urkulluk zortzi sailetan banatuko ditu gobernu-ardurak, inoizko sail-kopuru txikiena. Horrekin batera gertatu ziren bi kontu nabarmendu daitezke: batetik, Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika arloko zereginak sail bakarretik kudeatuko dira eta Hizkuntza Politikarako sailburuorde zereginetan arituko da, berriz ere, 2005-2009 legealdian ardura bera izan zuen Patxi Baztarrika; bestetik, sailburu guztiak, euskara-gaitasun maila desberdinak dituzten arren, gai izango dira agerraldiak, neurri handiagoan ala txikiagoan, EAEko hizkuntza ofizial bietan egiteko.

Gobernu berriak Euskararen Agenda Estrategikoan jasoko ditu 2013-2016 bitarteko legealdian euskara biziberritzearen alde gauzatu asmo dituen ekintza eta jarduera nagusiak. Hizkuntza-politika iraunkorra bultzatzeko konpromisoa berresten da agendan. Xede gisa, berriz, elebitasun orekatuago batera hurbilaraztea bermatzen duen politika gauzatzea. Halaxe adierazi zuen Iñigo Urkullu lehendakariak Euskararen Aholku Batzordean egindako lehen bileran:

¹³² .- Hauteskundeak, legealdia agortu ezker, 2013ko udaberrian egitekoak ziren, baina 2012ko maiatzetik Patxi López lehendakaria Alderdi Popularraren babesik gabe geratu zen. Egoera 2012ko abuztura arte luzatu zen. Hilabete horretako 21ean Legebiltzarra desegin eta Patxi López lehendakariak urriaren 21erako deitu zituen X. legealdirako hauteskundeak.

¹³³ .- Kasu honetan ikerketak 2013ko amaiera arteko epealdia aztertzen duenez, hizkuntza-politikari dagokion analisia ere, data horretara artekoa izango da.

¹³⁴ .- 2012ko abenduaren 13an izendatu zuten lehendakari Legebiltzarrean. Bigarren botazioan lortu zuen izendapena EAJ/PNV alderdiaren babesarekin. Gernikan bi egun geroago, abenduaren 15ean, egin zuen zin.

¹³⁵ .- EHBildu Eusko Alkartasuna, Alternatiba, Ezker Abertzalea eta Aralarren batuketatik sortu zen. Laura Mintegi aurkeztu zuten lehendakariarako.

¹³⁶ .- EAJ/PNVk 27 legebiltzar lortu zituen, EHBilduk 21, PSE-EEK 16, PPK 10 eta UPyD alderdiak 1.

“Bi hizkuntza dituen eta izan nahi dituen gizarte baten lehen ardua bi hizkuntza horien arteko oreka lortzea baita. Gaur eguneko elebitasuna desorekatua da, bi hizkuntza ofizialen arteko orekarantz eramango gaituen bidea egiten jarraitu behar dugu”¹³⁷ (Iñigo Urkullu, 2013-06-28).

Bide hori jorratzeko, ESEPen eta *Itun berri*u baterantz txostenaren edukiak bere egin eta bederatzi xedetan biltzen ditu euskararekin hartutako konpromisoa¹³⁸:

1. xedea: euskararen gizarte-hazkundera bultzatzea: ezagutza, transmisioa eta gizarte erabilera sustatzea, eta euskal hiztunen komunitatea trinkotzea.
2. xedea: hizkuntza-eskubideak baliatzeko berme osoa, gizarte bizitzaren esparru guztietan.
3. xedea: lexiko eta komunikazio gaitasuna aberastea, arreta berezia jarritz gazteen eta euskal hiztun berrien komunikazio beharrezanetan.
4. xedea: euskara etorkinei hurbiltzea, integrazio eta bizikidetzaren faktorea baita.
5. xedea: euskara modernotasun, aniztasun eta elkarbizitzari buruzko balioekin lotzea, haren erakargarritasuna areagotuz.
6. xedea: euskara, komunikazio eta harreman sistema berrien hizkuntza gisa erraztu eta bultzatzea, eta informazio eta komunikazioaren teknologien hizkuntza propio moduan garatzea.
7. xedea: euskararen nazioarteko proiektzioa eta eleaniztasunaren kudeaketa sustatzea.
8. xedea: adostasun politiko eta soziala sustatu eta sakontzea, euskararen sustapenaren eta hizkuntza-aniztasunaren inguruan.
9. xedea: hizkuntza-politika, Gobernuaren jardueraren zeharkako ardatz.

Xede horiek, neurri handi batean, 2005-2009 bitarteko ezarritakoen jarraipena eta sakontzea direla baieztatu daiteke. Hala ere, bada ekarpen berritzaile bikoitza:

¹³⁷ .- Euskararen Aholku Batzordearen Osoko Bilkura, 2013ko ekainaren 28a, Lehendakaritzan (Gasteiz).

¹³⁸ .- Legegintzaldirako hartutako konpromisoak “1.000 eguneko programa” izenez landutako dokumentuan bildu ziren eta Urkullu lehendakariak Legebiltzarrean aurkeztu zituen 2013ko maiatzaren 2an. Hor ageri da, besteak beste, Gobernuak “euskararekin eta hizkuntza bizikidetzarekin hartu duen konpromisoa”.

1.- Gobernuak zeharkakotasunaren ezaugarria erantsi nahi dio hizkuntza-politikari; hau da, hizkuntzaren normalizazioa ez da kontsideratuko sail bakar baten eginkizuna, baizik eta guztiena.

“Hala, euskararen normalizaziorako lehendik dituen berariazko baliabide eta organoez gainera, Euskara Atalak sortu ditu bere sail guztietan. Izan ere, euskararen erabilera normalizatua eta euskararen sustapena Eusko Jaurlaritzaren sail, organo eta sozietate guztien eginkizuntzat hartzea da bi hizkuntzen arteko berdintasunerantz pausuak ematen jarraitzeko Jaurlaritzak egin lezakeen ekarpenik sendoena” (Euskararen Agenda Estrategikoa, 2013-2016: 3).

2.- Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu eta bateratze bidean jartzeko ekimena. Uste da, orain arte nagusi izan diren hizkuntza-diskurtso, *framing* edo paradigmatik, ez dutela euskal biztanleria osoa euskarara biltzeko gaitasuna izan, eta horregatik, beharrezkotzat jotzen da hizkuntzari buruzko ikuskera eta interpretazioa gizarte-baldintza berrietara egokitzen duen diskurtsoa eraikitzea.

Urteak joan, urteak etorri, hizkuntza-politikaren diseinuaren eta kudeaketaren arduraren izan duten Jaurlaritzako arduradunek bi elementutan jarri nahi izan dute beti azentua: batetik, gizartearen borondatearekin bat datozen neurriak eta ekimenak garatzeko ahalik eta adostasun sozial eta politiko zabalena erdiesteko beharra, eta bestetik, herritarren atxikimendua, edozein hizkuntza gutxitu aurrerabidean jartzeko faktorerik erabakigarriena delakoan. Planteamenduaren oinarrian dagoen ustea ondokoa da: adostasunik eta atxikimendurik gabe, guztiz ezinezkoa izango litzateke urteotan egin diren urratsak egitea, eta euskara ez legoke gaur dagoen tokian.

2.2.1.3 HEDABIDEAK EUSKARAREN LEGEAN ETA HIZKUNTZA-POLITIKA GARATZEKO PLAN NAGUSIETAN (EBPN ETA ESEP)

Aurreko atalean adierazi bezala, 1980an autogobernua abiatu zenetik, EAEn izan diren gobernuek lege, dekretu, eta hizkuntza-plangintza zehatzen bidez ekin diote hizkuntzaren normalizazioa gizartearen esparru guztietan gauzatzeko ahaleginari. Ikuspegi normatibo batetik, zalantzarik gabe, hiru izan dira asmo horrekin jorrotutako bidean Eusko Jaurlaritzak jarri dituen mugarri aipagarrienak: lehena eta oinarritzkoena,

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea (1982), eta beste biak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (1998) eta Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2012). Hirurek dute hedabideei begira landutako atal berezitua. Hala da, Euskararen Legeak aldarrikatzen duen printzipioa delako herritarrek “aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea” dutela¹³⁹.

2.2.1.3.1. HEDABIDEAK 10/1982 LEGEAN

Hedabideei dagokienez, 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzakoak¹⁴⁰, hirugarren kapituluan arautzen du euskararen erabilera hedabideetan. Berau osatzen duten lau artikuluetan, herritarrei informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzeaz gain, Jaurlaritzaren ardurak eta eginbeharrekoak zehazten dira.

“HIRUGARREN KAPITULUA Euskararen erabilera hedabideetan¹⁴¹

22. artikulua

Herritar guztiei aitortzen zaie gizarte-hedabideen aldetik euskaraz zein gaztelaniaz informatuak izateko eskubidea.

Horretarako, hedabideetan euskararen presentzia areagotzera bideratutako neurriak hartuko ditu Jaurlaritzak, hizkuntza ofizial bien erabilera arian-arian berdintzeraino.

23. artikulua

Jaurlaritzak, aurreko artikuluan agindutako bi hizkuntzen arteko berdintasuna ziurtatze aldera, Autonomia Erkidegoko hedabideetan euskara lehentasunez erabili dadin bultzatuko du.

24. artikulua

Jaurlaritzak hizkuntza-normalizazioa bultzatuko du Espainiako Irrati Telebistaren emanaldi-zentroetan, euskarak, Euskal Herriko hizkuntza propioa denez, behar duen presentzia izan dezan.

¹³⁹ .- Euskararen Legearen lehen titulua, 5. artikulua: herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean.

¹⁴⁰ .- Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak egindako itzulpen eguneratua.

¹⁴¹ .- 1982an onartu zen jatorrizko bertsioan euskarazko hedabideak erabili beharrean “euskararen gizarte-adierazpideak” terminoa erabili zuten. Hemen dakargun bertsioa, Jaurlaritzak Euskararen Legeak 30 urte bete zituenean egindako argitaraldiarena da.

25. artikulua

Jaurlaritzak, 22. artikuluan aitortutako eskubidea arian-arian bermatzeko, euskararen erabilera bultzatu eta babesteko neurriak hartuko ditu eta, nolanahi ere, honako hauetan hedatu eta benetan erabiltzea ahalbidetuz:

- irratian,
- egunkari eta aldizkarietan,
- zinema,
- antzerki eta ikuskizunetan,
- irudiaren eta soinuaren grabazioetan.

Horretarako, gaiok ukitu eta arautu ditzaten legeetan titulu apropos bana garatuko da.”(Euskararen Legea, 2012: 19-20).

Zaila da 1982ko testuan hedabideei begiratuta jasotako edukiak zein neurritan asebate diren, eta gauzatu dena, zein neurritan izan den legeari esker zehaztea. Botila erdi beteta edo erdi hutsik ikusi daiteke. Argi dago horren eraginez lortutakoan argi-ilunak direla, indarguneak eta ahuleziak, baina aitortu beharrekoa da euskarak 1982an hedabideetan zuen egoeraren eta 2013an zuenaren artean aldea dagoela, onerako aldea¹⁴². Jauzia kuantitatiboa eta kualitatiboa izan da, eta bi eratako eragileen ekimenari eta lanari esker gauzatu da: gizarte-eragileak, batetik, eta eragile publikoak, bestetik. Azken hauen jardunari dagokionez, ikerketa honen objektu diren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskainitako diru-laguntzak lirarteke hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko tresnarik aipagarrienetakoak.

2.2.1.3.2. HEDABIDEAK EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAN (EBPN)

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (EBPN) atal oso bat eskaintzen dio euskararen indarguneak eta ahuleziak aztertzeari¹⁴³, eta atal horren barruan

¹⁴² .- Baieztapen hau hainbat datu objektiboz jantziko da ikerketa honetan; besteak beste euskarazko prentsa idatziaren ibilbideari eskaini zaion ataleko edukiekin eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen onuradun izan diren hedabideen bilakaera-datuekin.

¹⁴³ .- Azterketari ekiteko ondoko hamabost azpi-atal bereizten ditu: irakaskuntza, familia, aisia, kirola, kulturgintza, telebista, irrata, prentsa idatzia, liburugintza, publizitatea, euskalduntze-alfabetatzea, enpresa-mundua, erlijioa, administrazioa eta corpus-plangintza eta euskararen kalitatea.

hedabideen indarguneak eta ahuleziak jasotzen ditu. Gainera, orokorrean aurkeztu beharrean banaka-banaka (prentsa idatzia, irratia, telebista) egiten du horien azterketa. Prentsa idatziari dagokionez, argigarria da ikustea indarguneen aurkezpena paragrafo bakarrean egiten dela: ahuleziena, berriz, lau paragrafotan.

Indarguneei dagokienez, euskarazko prentsaren merkatuak izandako hazkundera azpimarratzen da, “(...) inoiz izan duen indarririk eta hedapenik handiena du” (EBPN, 1999: 33) eta herri-aldizkarien arrakasta nabarmentzen da. Bestalde, *Euskaldunon Egunkariaren* eta *Argia* aldizkariaren auto-finantzaketa maila eta euskarari eta euskal kulturari ematen dioten tratamendua goraipatzen dira.

Ahulezien arloa, aurretik adierazi bezala, luzeagoa da, eta egoera deskribatzeko erabiltzen dituen hitzetan, sendoa, zorrotza da. Ondokoa EBPNk prentsaren ahuleziei buruz jasotakoa:

“Urria eta baliabide urrikoa, irabazirik eta elkarren lehiarik gabea da euskarazko prentsa, hizkuntza horretan, lehiakiderik ez izateak erdipurdikeriarako duen arrisku nabarmenarekin. Oso zaila zaio publizitatea eskuratzea. Bestalde, alderdi politikoek eta Administrazioak berak ez diote garrantzi handirik ematen. Euskarazko prentsak ez du irratia-euskaldungoa irabazi eta erakarri. Herri aldizkariak bakarrik iritsi dira irakurleria zabal batengana.

Doi-doi bizi den euskarazko prentsak erdarazko ugariagoak, hobeak eta indartsuagoak ditu lehiakide. Gazteen merkatua ari da galtzen horrela, eskolak euskalduntzen duen gaztea prentsak erdalduntzen duelarik. Izan ere, hutsaren hurrengoa da erdal prentsak euskarari ematen dion lekua. Euskarazko prentsa hori erdarazkoaren mendekoa da, gainera. Iturriak erdaldunak direlako, albisteak erdaraz sortzen direlako eta euskarazko agentziarik ez dagoelako.

Era guztietako prentsa-moldeak kontuan hartuko lituzkeen sistema falta da, baliabideak erabiltzeko eta helburuak lortzeko orduan. Izan ere, begi-bistakoak dira Euskaldunon Egunkariaren eta Argiaren gabeziak erdarazko argitalpenen ondoan: orrialde-kopurua, kolorearen erabilera, grafismoak eta infografismoak duten lekua, albiste lokalen tratamendua eta tokian tokiko edizioak.

Lan egiteko baldintzak hobetzen ez badira, bestalde, orain bere burua trabatzen ari den belaunaldi honi ez zaio bizimodua kazetaritza

ateratzea erraza izango, batez ere bizitzako zenbait eginkizuni erantzun behar badio” (EBPN, 1999: 39).

Arestiko diagnostikoan nabarmentzekoa da alderdi politikoei eta administrazioari loturiko erreferentzia: “ez diote garrantzirik ematen”. Baieztapen nahikoa adierazgarria, batez ere kontuan hartzen bada, irratia eta telebistaren ahuleziak aztertzeko ataletan ez delako inon antzekorik agertzen.

Gauzak horrela, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak hiru helburu estrategiko zehazten ditu etorkizunera begira: euskara ondorengoetaratzea, euskararen erabilera eta euskararen elikadura. Hedabideak elikadura-zereginarekin lotzen dira. Hau da, aldarrikatzen da hedabideek balio dutela euskara bigarren hizkuntza gisa, eskolan edota euskaltegian ikasi duen euskaldun berriak dituen hizkuntza-ezagupenak sendotzeko, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzeko eta harreman-sare euskaldunak zabaltzen laguntzeko.

Horregatik, ondokoa proposatzen du:

-“ Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.

- Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuak lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio.

- Euskarazko prentsak elkarlana bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea hobetu eta produktu berriak eskaini behar ditu”. (EBPN, 1999: 58-59).

Bi hartzaileri zuzenduriko proposamenak dira beraz; batzuk administrazioari begira eginikoak, eta besteak, hedabideei begira daudenak. Goiko lerro horiek aspaldikoak diren arren, egun ere gaurkotasun osoz jantzita daudela esan daiteke. Izan ere, aurrerago ikusiko den bezala, ikerketa hau burutzeko hainbat iturritatik jasotako informazioetan ia hitzez hitz azalduko dira aspaldi, EBPN martxan jarri zenean, prentsa idatziarentzat proposaturikoak.

Atal honekin bukatzeko esan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian badela ebaluazioari buruzko aipamenik ere; ezarritako helburuen eta proposamenen betetze-mailaren jarraipena egiteko beharra jasotzen da.

“(…) Plan Nagusian onartutako helburu zehatz eta egitasmo-proposamenen betetze-maila ere jarraitu beharko du aurrerantzean Euskararen Aholku Batzordeak. Horretarako, onartutako helburu edo egitasmo proposamen bakoitza neurtzeko ebaluazio-adierazleak finkatzeko eta horien jarraipena egiteko batzorde-atala osatzea litzateke egokiena: Jarraipeneko batzorde-atala¹⁴⁴” (EBPN, 1999: 65).

Testuan horrela jasota dagoen arren, ez zen ebaluazio-adierazlerik finkatu, eta ondorioz, ez zen jarraipenik egin. Hamar urtera, sozialistak gobernuan izan ziren garaian, HPSk kudeatutako bost diru-laguntza deialdien¹⁴⁵ emaitzak ebaluatzeko eta hobekuntzarako proposamenak jasotzeko asmoa agertu zuten. Norabide horretan, kokatzen da aterpe teorikoaren lehen solairuan dagoeneko aurkeztu den “Hedabideak” deialdiaren ebaluazio-txostena¹⁴⁶.

2.2.1.3.3. HEDABIDEAK EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANEAN (ESEP)

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hamar urterako onartu bazen ere, hamahiru urtez izan zen indarrean; berau egokitzeko eta osatzeko asmoarekin landu zen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) taxutu arte. ESEPe 2012-2022 aldirako hizkuntza-plangintza oso bat eskaintzen du, eta EBPNrekin gertatu zen bezala, hedabideen balioa, beharra eta zeregina euskararen elikadurari¹⁴⁷ lotzen zaio. Kasu honetan, hala ere, bada aipatzeko moduko desberdintasuna aurreko egitasmoarekin alderatuta. ESEPen ez da hedabide-motaren araberako (prentsa, irratia, telebista)

¹⁴⁴.- Euskararen Aholku Batzorde Osoak 1998ko ekainaren 24ko bileran eratu zituen Lege Garapenerako eta Jarraipeneko batzorde-atalak.

¹⁴⁵.- Deialdiak ondokoak dira: IKT, Euskalgintza, Hedabideak, Lanhitz eta EBPN. Lan honek, *Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontuak 2005-2013 bitartean* izeneko atalean eskaintzen ditu aipatutako bost deialdiei buruzko xehetasunak.

¹⁴⁶.- Ebaluazio-zeregina Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak eta EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia sailak egin zuten. 2012ko apirilean aurkeztu zuten txostena.

¹⁴⁷.- Hedabideekin batera, “Euskararen elikadura” izeneko helburu estrategikoan kokatzen dira liburugintza, kulturgintza, publizitatea, corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

bereizketarik egiten ekintza-proposamenak zehazteko orduan, baizik eta orokorrean, hedabide guztiei bideraturikoak aurkezten dira. Horrez gain, ekintza bakoitzaren eragileak izen abizenekin¹⁴⁸ agertzen dira; hau da, ekintza burutzea nori dagokion zehazten da, baita ekintza bakoitzari ematen zaion garrantzia ere. Azkenik, ESEPe adierazleak ezartzen ditu; hots, ekintza bakoitzaren, eta azken batean ESEPen beraren, eraginkortasunaren eta gauzatze-mailaren jarraipena egiteko erabiliko diren adierazleak. Hitz batean, Euskara Sustatzeko Ekintza Planean ebaluazioa egiteko beharra eta konpromisoa azaltzen dira, eta ez edonolako baizik eta ebaluazio sistematikoa:

“ Ebaluazio sistematikoaren sinesgarritasuna eta sakontasuna ematen dio hizkuntza-plangintzari. Neurketen bidez ikusiko dugu zein neurritan izan duten eragina abian jarritako neurriek eta ekintzek euskararen suspertzean eta elebitasunaren garapenean eta zer-nolako aldaketak egin beharko liratekeen dela plana indarrean dagoen bitartean, dela haren indarraldia agortu ondoren” (ESEP, 2012: 10).

ESEPe estrategikotzat jotzen ditu hedabideak euskararen normalizazioaren bidean, “(...) haien ekarpena ezinbestekoa da hizkuntzaren erabilera indartzeko, eta, aldi berean, hizkuntza horretan gauzatzen diren kultura jarduerak proiektatzeko”(ESEP, 2012: 38). Etorkizunari begira, berriz, garai berriak dakartzan berrikuntzetara egokitzeko orain arte izan den eredia birplanteatzeko beharra azpimarratzen du. Bide horretan ondokoa dio ESEPe: “euskarazko hedabideek elkarlana eta koordinazioa bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea etengabe hobetu eta produktu berriak eskaini behar dituzte” (ESEP,2012: 39).

Ekintza zehatzen arloan, ESEPe zazpi ekintza aurkezten ditu hedabideen esparruari zuzenduta. Honakoak:

1.- Erakundeen artean euskarazko hedabideei zuzendutako laguntzen irizpideak adostu eta finkatu. Hasiera hasieran dago, beraz, diru-laguntzen gaia. Gainera, bere garrantzia handia dela adierazten da. Ekintza hori gauzatzeko bi bide ezartzen ditu planak; bata, “erakundeen arteko koordinazioa sendotzea, HAKOBaren bitartez” eta bigarrena,

¹⁴⁸ .- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, logikoa denez, eragile izango da ekintza guztietan. Batzuetan bera bakarrik eta beste batzuetan, ekintzaren izaeraren arabera, beste eragileren bat ere ageri daiteke, adibidez, Unibertsitatea, hedabideak, beste herri-administrazioak edo Jaurlaritzako beste sailen bat.

“herri-administrazioen publizitate instituzionalean hizkuntza irizpideak txertatzea, hizkuntzen berdintasunera bidean”(ESEP, 2012: 84).

2.- Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartu. Aurrekoarekin erabat lotuta dago, eta honi garrantzi ertain/handia¹⁴⁹ ematen zaio. Hamar neurri aipatzen dira guztira, izaeraren arabera hiru multzotan bildu daitezkeenak:

a.- Administrazioaren eta sektorearen arteko lankidetzan eta erakundeen arteko koordinazioan oinarrituta, euskarazko hedabideen ildo estrategikoak finkatu eta horiek garatzeko politikak sustatu.

b.- Euskarazko hedabideen audientzia aztertzeko sistema bat eta euskarazko hedabideen behatokia sortu eta garatu.

c.- Azterketak egin. Euskarazko hedabideen erabiltzaileen eta publiko potentzialaren komunikazio-beharrak ezagutu euskararen eskualde desberdinak kontuan hartuz, hizkuntza gutxituak dituzten beste lurralde batzuetako esperientziak eta praktika onak ezagutu, erdal hedabideetan euskarazko edukiek duten harrera neurtu eta kualitatiboki aztertu ...

3.- Hedabide publikoen hizkuntzarekiko betekizunei buruzko hausnarketa bideratu. Garrantzi handiko ekintza kontsideratzen da eta hausnarketaren ondorioak praktikara eramane behar direla esaten da.

4.- Euskarazko hedabideen garapen industrial eta teknologikoa bultzatu. Garrantzi handikotzat jotzen den ekintza hau burutzeko, lehenik eta behin, euskarazko hedabideen enpresa-dimentsioa aintzat hartzea¹⁵⁰ proposatzen da. Horrekin batera, prestakuntza orokorra eta espezifikoa eskaintzea, herritarren inplikazioa bultzatzen dituzten komunikazio-proiektu globalak edo multimedia saritzea eta aplikazio teknologiko berrien garapenean laguntzea. Edukiari erreparatuta, agerikoa da

¹⁴⁹ .- Horrela dago adierazita testuan.

¹⁵⁰ .- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, beste hitz batzuekin bada ere, gauza bera esaten zuen: “Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio”(EBPN, 59)

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ez ezik, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak ere parte hartu beharko dutela eragile moduan.

5.- Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatu. Garrantzi ertaineko ekintza kontsideratzen da, eta berari lortzeko, kontsumoa sustatzeko eta prestigiatzeko kanpainak antolatzea, hedabideen eta gizartearen arteko lotura sustatzea eta hedabideen arteko elkarlan-egitasmoak bultzatzea proposatzen da.

6.- Erdal hedabideetan, publiko zein pribatuetan, euskarazko edukien presentzia areagotzea. Kasu honetan aipamen zehatza eta zuzena egiten da: “indarrean dagoen legerari jarraiki, RTVEn euskararen presentzia lortzea” (ESEP, 2012: 87). Ekintza honi ematen zaion garrantzia ertain/handia da. Gogoratzekoa da 1982an onartu zen Euskararen Legeak artikulua bat eskaintzen diola kontu honi, berari¹⁵¹. Kasu hartan, “euskararen presentzia lortu” adierazi beharrean “hizkuntza-normalizazioa bultzatu” formula erabiltzen zuen.

7.- Hedabideetako hizkuntzaren kalitatea bermatu. Garrantzi handiko ekintza dela esaten da, eta Unibertsitatea ageri da eragile moduan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak egiten zuen bezala, Euskara Sustatzeko Ekintza Planak ere, beronen jarraipena nola egingo den zehazten duen atala dauka. Batetik, ekintza bakoitzaren betetze-maila neurtzeko adierazleak proposatzen ditu. Hala, hedabideen esparruan bederatzi dira jasotako adierazleak:

¹⁵¹ .- Euskararen Legearen 24. artikulua: “Jaurlaritzak hizkuntza-normalizazioa bultzatuko du Espainiako Irrati Telebistaren emanaldi-zentroetan, euskarak, Euskal Herriko hizkuntza propioa denez, behar duen presentzia izan dezan”:

4. taula. Hedabideen arloko ekintzen betetze-maila neurtzeko adierazleak.

Hedabideei zuzendutako diru-laguntzen bilakaera erakundearen arabera
Euskarazko hedabideen bilakaera, hedabide-motaren arabera
Euskarazko hedabideen kontsumoa
Euskararen presentziaren bilakaera erdal hedabideetan
EITBren eta gainerako hedabide publikoen ekoizpena, hizkuntzaren eta programamotaren arabera.
Euskarazko hedabideek garapen teknologikorako jasotako diru-laguntzen bilakaera
Euskarazko hedabideek garapen teknologikorako diru-laguntzetara aurkeztutako proiektuen bilakaera
Euskarazko hedabideen kontsumoa sustatzeko kanpainak, eremuaren arabera
Erdal hedabideetako euskarazko edukien bilakaera

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. ESEP (84-87)

Bestetik, ebaluaziorako, hau da, proposatutako neurrien betetze-mailaren jarraipena egiteko, hiru neurketa-une ezartzen dira: lehena, 2013an zehar egitekoa eta adierazleetan oinarritutakoa; bigarrena, tarteko ebaluazioa, plana martxan jarri eta bosgarren urtera; eta hirugarrena hamar urtera, hau da, planaren indarraldia amaitzen denean. Momentuz, lehena *“ESEPen neurketa. Euskararen diagnostikoa”* izeneko txostenean¹⁵² bilduta dago. Dokumentuaren funtsa kuantitatiboa da, eta hedabideei buruzko deskribapenari erreparatuta, zeregina burutzeko bi informazio iturri erabiltzen ditu: batetik, CIESen 2013ko audientzia datu gutxi batzuk eta bigarrenik HPSk 2006. urtean eginiko *Euskarazko Hedabideak* izenburuko lana. Hortaz, agerikoa da euskarak hedabideetan izan duen bilakaerari eta egoerari buruzko emaitzak aurkezteko orduan gabeziak direla, erabili daitezkeen datuak gutxi eta zaharkituak direlako¹⁵³. Horren erakusgarri, arestian aurkeztutako bederatzid adierazleetatik soilik biri buruzko informazioa biltzen duela txostenak: euskarazko

¹⁵² .- Txostena euskararen egoeraren ahalik eta argazki zehatzena eskaintzeko ahalegina da eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen arteko lankidetzaren emaitza da. Bertan, ESEPeke helburu estrategikoei eta zehar-lerroei jarraituz, bost atal nagusiri buruzko informazio kuantitatiboa biltzen da. Aipatutako bost atalak dira: euskara-gaitasuna eta jabekuntza, euskararen erabilera, euskararen elikadura, euskararen aldeko motibazioa eta euskararen zabalkundea. Hedabideen azterketa euskararen elikadurari buruzko atalean kokatzen da.

¹⁵³ .- Txostenaren egileek honelaxe diote lanerako erabilitako materiala justifikatzeko. “Hedabideetako azterketari heltzeko lan dezente topatu ditugu, baina gehientsuenak zaharkituak aurkitzen dira. 2006-2007. urteetako datuak biltzen dituzte aurkitu ditugun azterketa berrienak. Nabarmen geratzen da, datu eguneratuak mantenduko dituen adierazle sistema baten beharra” (ESEPen neurketa. Euskararen diagnostikoa, 2014: 247).

hedabideen bilakaerarena (hedabide-motaren arabera), eta euskarazko hedabideen kontsumoari buruzkoa. Eta kasu bietan gainera, esan bezala, informazio zaharkitua da. Gainontzeko sei adierazleen kasuan, ez dago horiei buruzko informazio erabilgarririk era sistematikoan jasota eta horien artean dago, besteak beste, diru-laguntzen bilakaerari buruzkoa.

Baina gabeziak gabezia, esan beharra dago *ESEPen neurketa*. *Euskararen diagnostikoa* txostenak funtsezko ekarpena egiten duela, Euskararen Legea onartu zenetik lehen aldiz aurkeztu, landu eta proposatu delako esparrukako adierazle zehatzetan oinarritzen den neurketa edo ebaluazioa. Berau izango da gainera, ESEPen aurreikusita dauden bi neurketen abiapuntua eta erreferentzia. Lehena, planaren indarraldiaren bosgarren urtean (2017) egin beharrekoa, eta bigarrena, hamargarrenean (2022).

2.2.1.4. EUSKARA SUSTATZEKO DIRU-BALIABIDEAK

Erakunde publikoek hizkuntza-politika egikaritzeko eskuragarri izan dituzten diru-partidei helduko zaie atal honetan. Izan ere, nekez burutu daitezke hizkuntza bat biziberritzeko planak, egitasmoak, zein ekintza zehatzak; hitz batean esateko, hizkuntza-politikak diru-baliabiderik ez badago. Arreta batez ere Jaurlaritzari eskainiko zaio, baina horrekin batera, foru-aldundiek eta udalek euskararen sustapenera bideratutako diruak ere aztertuko dira.

2.2.1.4.1. EUSKO JAURLARITZAREN EUSKARA SUSTATZEKO AURREKONTUAK 1983-2013 EPEALDIAN. IKUSPEGI OROKORRA

Konplexua da oso Eusko Jaurlaritzak 1983-2013 bitartean euskara biziberritzeko egin duen ahalegina magnitude ekonomikoetara ekartzea. Azken batean, euskarari zenbat diru eskaini dion eta euskararako gastuak aurrekontu osoarekiko zein pisu erlatibo duen zenbakitan jartzeaz ari gara; eta zereginaren zailtasuna erraz uler daiteke kontuan hartzen bada hiru hamarkadatan aldaketa eta egokitzapen ugari izan direla

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen egitura, bertan jasotako kontzeptuetan¹⁵⁴ eta aurrekontua bera kudeatzeko aplikazioetan ere.

Arazoak arazo, ondoko taulak laburbiltzen du Eusko Jaurlaritzak 1983-2013 aldian, euskara bultzatu eta sustatzeko egin duen gastua¹⁵⁵, hau da, euskara-aurrekontuaren¹⁵⁶ nondik norakoa.

5. taula. Euskara sustatzeko aurrekontua Eusko Jaurlaritzan, 1983-2013.

	GUZTIRA (eurotan)	%
Hizkuntza-politika	329.185.718	16,8
Hezkuntza sistemaren euskalduntzea	770.816.687	39,3
Euskalduntzea eta Hizkuntza normalkuntza (IVAP)	92.576.828	4,7
HABE	753.161.490	38,4
Jaurlaritzako beste sailen gastua ¹⁵⁷	16.134.508	0,8
GUZTIRA	1.961.875.231	100,0

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (barne-txostena). Tesiaren egileak moldatua.

Hortaz, datuak ikusita, ondokoak dira nabarmendu daitezkeenak:

1.- Jaurlaritzak 1.961.875.231 euro erabili ditu euskara sustatzeko 1983-2013 epealdian; hots, Eusko Jaurlaritzak denbora tarte horretan izan duen aurrekontu likidatu osoaren % 1,24.

¹⁵⁴ .- Adibide pare bat jartzearen: "hizkuntza-politika" kontzeptua, lehen aldiz, 1985eko aurrekontuan ageri da. "Euskararen sustapena" eta "euskara arazoak" kontzeptuak txandaka ageri dira 1984-1994 bitarteko aurrekontuetan, eta ondorengoetan ez ditugu berriz izango.

¹⁵⁵ .- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Euskara sustatzeko aurrekontua Eusko Jaurlaritzan (1983-2012)* izeneko txosten batean ditu jasota 1983-2012 aldian, urtez urte, Jaurlaritzak euskara sustatzeko egindako gastua. Aipatu txostena Eusko Legebiltzarrean 2013ko irailaren 11n egindako eskari bati erantzuteko landu zuen HPSk. Patxi Baztarrika sailburuordeak Euskararen Aholku Batzordearen aurrean aurkeztu zituen bertan bildutako datuak, Gasteizen 2014ko abenduaren 1ean eginiko bileran. Esan bezala, txostenak 2012. urtera arteko zenbakiak jasotzen ditu; 2013 urteari dagozkionak ez daude dokumentu horretan: hortaz urte horri buruzko informazioa HPSri eskatu ondoren lortutakoa da.

¹⁵⁶ .- Aurrekontu likidatuaz ari gara.

¹⁵⁷ .- Atal honek 2008tik *Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen Estatistika* izenburua daraman ikerlanak jasotako hiru kontzeptu barnebiltzen ditu: Jaurlaritzako beste sailen egitura eta funtzionamendu-gastuak, euskarazko kulturgintza eta hirugarrenik, euskarazko liburugintza, literatura eta irakurzaletasuna.

2.- 1983an Jaurlaritzak 3.119.414 euro erabili zituen euskara sustatzeko, 2013an berriz, 86.417.190 euro.

6. taula. Euskara sustatzeko aurrekontuaren bilakaera, 1983, 1993, 2003, 2013.

Urtea	1983	1993	2003	2013
Gastua (eurotan)	3.119.414	49.614.686	82.066.883	86.417.190

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (barne-txostena). Tesiaren egileak moldatua.

Nabarmenezkoa da 1983-1993 aldian jarritako diruak duen hazkundera (hamasei aldiz biderkatzen da). Egoera erraz ulertu daiteke kontuan hartzen bada garai haietan jarri zirela martxan euskararen biziberritze prozesuan funtsezko zeregina betetzen hainbat erakunde eta ekimen, besteak beste, hezkuntza-ereduak, HABE, IVAP, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, Mapa Soziolinguistikoa edota Inkesta Soziolinguistikoa, eta horiek guztiak baliabide ekonomikoz hornitu zirela egoki jarduteko.

3.- Aurrekontua urtez urte gora joan bada ere, hazkundera ez da jarraitua izan, bi makalaldi egon direlako diru-baliabideetan. Lehena, 2002etik 2005era bitartekoa, urte biak barne hartzen dituena,

7. taula. Euskara sustatzeko aurrekontua Eusko Jaurlaritzan, 2001-2006.

Urtea	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Gastua (milioi eurotan)	90,8	80,3	82,1	81,1	86,7	106,1

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (barne-txostena). Tesiaren egileak moldatua.

eta bigarrena 2010etik aurrerakoa, 2013ra arte irauten duena.

8. taula. Euskara sustatzeko aurrekontua Eusko Jaurlaritzan, 2009-2013.

Urtea	2009	2010	2011	2012	2013
Gastua (milioi eurotan)	113,7	106,8	100,6	93,1	86,4

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (barne-txostena). Tesiaren egileak moldatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

4.- Hezkuntza-sistemaren euskalduntzeak eta HABEk hartu dituzte 1983-2013 aldian Jaurlaritzak euskara sustatzeko erabili dituen hamar eurotik ia zortzi. Hezkuntza sistemaren euskalduntzera gastu osoaren %39,3 bideratu da, irakasleak euskalduntzeko ahaleginari eta horrek sorturiko ordezkotako irakasleen kostuei aurre egiteko. HABEri dagokionez, gastu osoaren %38,4 erabili da euskaltegi publiko zein pribatuen jarduerak babestu eta bermatzeko eta 2004. urtetik euskaltegi-tako ikasleei diru-laguntza zuzenak emateko, 2012an izan ezik¹⁵⁸.

5.- Hizkuntza-politikaren programari dagokionez, 1983-2013 denbora-tartean euskara sustatzeko gastu osoaren %16,78 jaso du. Honen barne, diru gehien HABEri egindako transferentzietan eta diru-laguntza deialdietan erabili da, batez ere euskarazko hedabideei zuzenduriko laguntzetan.

Horraino hiru hamarkadetan hizkuntzaren sustapenean erabilitako diru-baliabideen ikuspegi orokorra. Baina ikerketa honek 2005-2013 bitartean jarri du arreta; beraz goazen aipatu epealdiko zenbakiak sakonago arakatzeko.

2005-2013 epealdian, 917,8 milioi euro jarri ditu Eusko Jaurlaritzak euskara sustatzeko; hots, 1983-2013 tartean xede bera gauzatzeko bideratu diren baliabide ekonomiko guztien ia erdia (%46,8). Bestalde, urterik apalenak lehena eta azkena izan ziren: 2005ean, 86.710.304 euro erabili zituen Jaurlaritzak euskara sustatzeko eta 2013an zertxobait gutxiago oraindik, 86.417.190 euro guztira. Urterik oparoena berriz 2008koa izan zen.

9. taula. Euskara sustatzeko aurrekontua Eusko Jaurlaritzan, 2005-2013.

Urtea	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Gastua (milioi €)	86,7	106,1	109,0	115,4	113,7	106,8	100,6	93,1	86,4

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (barne-txostena). Tesiaren egileak moldatua.

¹⁵⁸ .- 2012an euskaltegi-tako ikasleek ez zuten diru-laguntzarik jaso, gobernu sozialistak horiek kentzea erabaki zuelako.

Datu orokorretatik partida zehaztarako urratsa egin ezker, 2005etik 2013ra euskara sustatzeko erabilitako diru-baliabideetatik partidarik handienak, 1983-2013 epealdi osoaren azterketa egiterakoan ikusi bezala, hezkuntza-sistemaren euskalduntzera eta HABEra bideratu dira, hamar eurotik zazpi hain zuzen.

10.taula. Euskara sustatzeko aurrekontua zertan gastatu, 2005-2013.

	Gastua (€)	%
Hizkuntza-politika	197.037.625	21,5
Hezkuntza-sistemaren euskalduntzea	310.915.210	33,9
Euskalduntzea eta Hizkuntza-normalkuntza(IVAP)	39.672.263	4,3
HABE	354.080.187	38,6
Jaurlaritzako beste sailen gastua ¹⁵⁹	16.134.508	1,7
GUZTIRA	917.839.793	100,0

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (barne-txostena). Tesiaren egileak moldatua.

Hizkuntza-politikaren esparruari dagokionez, 197 milioi euro erabili dira 2005etik 2013ra, epealdi horretan euskara bultzatu eta sustatzera bideratutako diru osotik %21,5.

Ikuspegi kualitatibo orokor batetik aztertuta, esan daiteke baliabide ekonomikoak hiru norabide nagusitan bideratu direla: euskararen erabilera esparru guztietan (formaletan eta ez formaletan) bultzatzera, hizkuntzaren kalitatea zaintzera eta euskarazko produktu erakargarriak sortzera. Hala ere, bilakaera gertatu da denboran zehar; 2005-2013 bitartean garatu diren hizkuntza-plangintza zehaztutan ezarritako lehentasunekin bat datorren bilakaera hain zuzen. Hala ondoriozta daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren hizkuntza-politika arloko memoriak irakurrita. Hiru fase bereiz daitezke:

1.- Hasierako urteetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian (EBPN) eta *Hizkuntza Politika aurrera begira. 2005-2009 legealdiko egitasmoa* izeneko dokumentuetan jasotakoak aintzat hartu eta beraz zehaztutako lan lerroak garatzea izango da lehentasuna.

¹⁵⁹ .- Kontuan hartu atal hau, aurretik esan bezala, 2008tik jaso dela eta hiru kontzeptu barnebiltzen dituela: Jaurlaritzako beste sailen egitura eta funtzionamendu-gastuak, euskarazko kulturgintza eta hirugarrenen, euskarazko liburugintza, literatura eta irakurzaletasuna.

2.- PSE-EE alderdia Jaurlaritzan dagoen urteetan, 2010-2012 bitartean hain zuzen, deigarria egiten da hizkuntza-politika programako aurrekontuen memoriatan ez dela behin ere Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aipatzen¹⁶⁰ eta “Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokionez, Euskararen Legearen eta, bereziki, Euskararen Aholku Batzordearen XXI. Mende Hasierako¹⁶¹ Hizkuntza Politikarentzako Lehentasunezko ildoekin bat egiten dugu” diote¹⁶². Adierazpenak adierazpen, kontua da gero zehazten diren lan-lerroak aurreko urteetako berdintsuak direla; hau da, nazionalistak gobernuan zeudenean ezarritakoen antzekoak.

3.- Azkenik, 2013ko memoriak jasotakoaren arabera, EAJ berriro Jaurlaritzan dela, Euskara 21 gogoeta-prozesua arloz arlo garatzea eta Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) gauzatzea izango dira lehentasunak, eta ondorioz zeregin horretara bideratuko da zehaztutako aurrekontua.

Lehentasunak lehentasun, eta Jaurlaritzan alderdi bat edo bestea izan, azpimarratzekoa da 2005-2013 aldirako landutako aurrekontuen memoria guztietan ezartzen dela jardunbide nagusi gisa euskarazko hedabideak bultzatu eta sendotzea. Eta hori gauzatzeko ekintza moduan diru-laguntza deialdia ageri da beti. Hala ere, 2013ko memorian, lehen aldiz, diru-partida berezitua izango duen bigarren ekintza bat aurkezten da: tokian tokiko euskarazko hedabideak sustatzeko lankidetzara bideratzea¹⁶³.

¹⁶⁰ .- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren azterketa egiten duen atalean adierazi bezala, EBPN 1998-2008 aldirako onartu zen arren, indarrean egon zen 2012ra arte, hau da, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) burutu arte.

¹⁶¹ .- “Mende Hasierako” horrela dago idatzita, maiuskulaz.

¹⁶² .- Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak (2010). Programa: Hizkuntza Politika. Memoria, 1go orria. 2011 eta 2012ko memoriatan berdintsu adierazten dute: “Kultura Sailaren 2010-2013 Plan Estrategikoak etorkizuneko gure jardunbide nagusiak finkatuko ditu eta horiek, gehienbat, Euskararen Legean eta Euskararen Aholku Batzordearen XXI. Mende Hasierako Hizkuntza Politikarentzako Lehentasunezko ildoetan xedatutakoari jarraituko diote”.

¹⁶³ .- Ekintza honek 25.000 euroko diru-partida berezitua izango du 2013ko aurrekontuan eta beste 30.000 euroko konpromiso-kreditua 2014kotik.

Atal honetan orain arte euskarazko hedabideak aipatu ditugunean, argi geratu behar da publikoak ez diren hedabideez ari garela. Hortaz, Euskal Irrati Telebista¹⁶⁴ ez dago kategoria horretan, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorre dagokienez, EITBk jaso du betidanik Kultura Sailarentzat aurreikusitako diruaren zatirik handiena; 2005 eta 2013 urteetan, esaterako, Kultura Saileko 10 eurotik 6 EITBra joan ziren.

11.taula. Kultura Sailaren eta EITBren aurrekontuak, 2005-2013.

	Kultura Saila (€)	EITB (€)
2005	208.890.000	110.831.726
2006	231.661.948	123.136.000
2007	242.892.500	119.831.000
2008	278.265.000	142.930.651
2009	305.427.000	155.189.336
2010	296.957.000	150.180.000
2011	290.052.925	144.290.484
2012	267.769.000	132.017.270
2013 ¹⁶⁵	213.225.317	109.189.000 ¹⁶⁶

Iturria: EAEko Aurrekontu Orokorrak. Tesiaren egileak moldatua.

2005-2013 epealdiko aurrekontu orokorren memorietan adierazitakoaren arabera, Euskal Irrati Telebistak zerbitzu-enpresa moduan funtzionatzen du, eta gaineratzen da erakunde publikoaren helburua dela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan duen erreferentziatzko tokia sendotzea eta euskal herritarren esku jartzea informazio eta zuzeneko partaidetza zerbitzua, hezkuntza-sistemari laguntzeko eta euskal kulturaren eta euskararen zabalkundea sendotzeko. Aipatutako helburu orokorra 2005-2013 bitarteko aurrekontuen memoria guztietan ageri bada ere, sozialistek Jaurlaritzara iristearekin batera, ekarpena egingo diote ordura arteko testuari, aurreko legealdietan egindakoaren balorazio inplizitua dakarren ekarpena, hain zuzen:

¹⁶⁴ .- Euskal Irrati Telebista enpresak bere baitan hartzen ditu Euskal Telebista, Eusko Irratia (Radio Euskadi + Euskadi Irratia + Radio Vitoria + Gaztea + EITB musika) eta EITBNET.

¹⁶⁵ .- Iñigo Urkullu lehendakariak 2012ko abenduan eratu zuen gobernu berrian, Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza-politika arloetako zereginak sail bakarrak kudeatuko ditu. Hau lehen aldiz gertatuko da 1980tik, hau da, Carlos Garaikoetxeak osatu zuen lehen Jaurlaritzatik. Ondorioz, Sailak aurrekontu bateratua izango du. Dena den, taula honetan Kultura arloari dagokiona aurkeztu da banakatuta.

¹⁶⁶ .- Hor ageri den kantitatea EAEko Aurrekontu Orokorretan 2013an, EITBrentzako aurreikusitakoa da. Dena den, Eusko Jaurlaritzak beste 4 milioi euro jarri behar izan zituen urte amaieran, EITBk urtea zenbaki gorriekin bukatu ez zezan.

“ Planteatzen dituen erronken artean dago EITBk espresuki adieraztea euskal gizartearen pluraltasuna bere programazioan, eta konpromiso aktiboagoa erakustea balio demokratikoen defentsan. EITB irrati-telebista¹⁶⁷ publiko izateari zor dion konpromisoari lotuko da, bai eta gizartean duen lidergoari ere, eta pedagogia aktiboa egingo du bakearen alde eta terrorismoaren ideologia deslegitimatze bidean. Horrekin batera, euskal herritarrek Gernikako Estatutua erreferendum bidez onartuz beren buruari eman dioten esparru instituzional eta juridikoa aldeztu eta begiratuko duen lerro editorialari bermatzeko behar diren berrikuntzak egingo ditu” (Gizarte-hedabideak aurrekontu-programaren memoria, 2010: 2)

2013 urtean, EAJ Jaurlaritzara itzultzearekin batera, desagertu egingo dira terrorismoari, Gernikako Estatutuari eta lerro editorialari buruzko erreferentziak¹⁶⁸.

2.2.1.4.2. HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAREN AURREKONTUA 2005-2013 BITARTEAN

Aurretik erakutsi den bezalaxe, 1983-2013 bitartean euskara sustatzeko gastu osoaren %16,8 jaso zuen hizkuntza-politikaren programak. Ikerketa honek aztergaitzat duen 2005-2013 epealdian, berriz, 197 milioi euro erabili dira zeregin horretarako eta ehunekotan adierazita, euskararako gastu osoarekiko ia bost puntu irabazi ditu (%21,5). Hizkuntza-politikarako zeregin nagusiak, horien artean euskarazko hedabideekin zerikusia dutenak, izen bera daraman Sailburuordetzatik (HPS) kudeatzen dira; hortaz, interesgarria litzateke HPSk 2005-2013 bitartean izan dituen aurrekontuen banakatzeari erreparatu eta dirua zertan erabili den aztertzea.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontua, labur-labur esateko, bi arlo nagusitan erabili da betidanik:

1.- Helduen alfabetatzea eta euskalduntzea (HABE).

¹⁶⁷ .- Horrelaxe idatzita ageri da aurrekontu programaren memorian.

¹⁶⁸ .- 2013ko memoriak honela dio: “EITB irrati-telebista publiko bat izateari zor dion konpromisoari lotuko da, bai eta gizartean duen lidergoari ere, eta pedagogia aktiboa egingo du bakearen alde. Horretarako, euskal gizartearen pluraltasuna islatzen duen eta balio demokratikoen defentsa aktiboa egiten duen programazioa eskaintzen jarraituko du” (Gizarte-hedabideak aurrekontu-programaren memoria, 2013: 1).

2.- Euskara biziberritzeko zereginen funtsezkotzat jo diren esparruetara bideratutako diru-laguntza deialdiak. Bost dira:

- a.- Hedabideak deialdia. Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko.
- b.- LanHitz deialdia. Arlo sozioekonomiko pribatura zuzenduriko ekimena da, enpresek EAEn dituzten lantokietan euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak.
- c.- EBPN/ESEP¹⁶⁹ deialdia. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateetan (udalak, kuadrilak, mankomunitateak) Euskara Sustatzeko Ekintza Plana /Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (ESEP/EBPN) garatzeko diru-laguntzak.
- d.- Euskalgintza deialdia. Gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzak: aisialdia, harreman sareak, erdal munduaren hurbilketa, euskararen ondarea, irakurzaletasuna, nazioarteko zabalkundea eta abar.
- e.- IKT deialdia. Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzak dira, ondoko arloetara zuzentzen direnak: euskarazko atari eta webguneak, hizkuntzen teknologietan euskara integrazeko asmoak, softwarea euskaraz sortzea edota euskarara lokalizatzea, eta abar.

Ondoko taulan ikusi daiteke esparru bakoitzak urtez urte izan duen bilakaera:

¹⁶⁹ .- 2012. urteko aurrekontuetara arte, horiek barne, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) agertuko da bakarrik, baina 2012an Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartu zen eta ondorioz, 2013ko aurrekontuetan ESEP/EBPN bezala ageri da.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

12.taula. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2013 bitartean kudeatu duen aurrekontuaren¹⁷⁰ partida garrantzitsuenak. (eurotan).

DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAK							
	HPS guztira	HABE	HEDABIDEAK	EUSKALGINTZA	LANHITZ ¹⁷¹	EBPN/ESEP	IKT ¹⁷²
2005	37.033.728	19.470.000	3.800.000	1.000.000	1.118.522	1.600.000	832.000
2006	44.982.755	23.525.056	4.750.000	1.250.000	2.350.000	1.600.000	1.000.000
2007	51.043.750	25.603.358	5.575.000	1.320.000	2.720.000	1.672.574	1.600.000
2008	54.304.865	28.039.100	5.575.000	1.300.000	2.710.000	1.700.000	1.700.000
2009	56.648.340	29.792.000	5.725.000	1.339.000	2.710.000	1.700.000	1.626.000
2010	54.221.595	30.631.424	5.725.000	1.339.000	2.200.000	1.800.000	1.626.000
2011	53.395.028	30.967.832	5.480.000	1.280.000	2.400.000	1.800.000	1.576.000
2012	49.842.755	30.700.000	4.880.000	1.151.600	2.228.000	1.626.500	1.464.000
2013	45.158.138	29.188.438	4.878.750	976.480	1.944.120	1.382.025	814.875

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontuak. Tesiaren egileak moldatua.

¹⁷⁰ .- Kasu guztietan onartutako aurrekontuaz ari gara.

¹⁷¹ .- LanHitz egitasmoa 2006. urtean jarri zen martxan. Beraz, 2005ean ez zen LanHitz diru-laguntzarik izan gaur egun ezagutzen dugun bezala. Hala ere, urte hartan 1.118.522 euro aurreikusi ziren entitate-privatuetan euskara-planak garatzeko.

¹⁷² .- IKT diru-laguntza deialdia modu ezberdinetan jaso da aurrekontuetan denboran zehar: 2005ekoetan, 832.000 euro ageri dira teknologia berrietan euskara sustatzeko (horietatik 332.000 inbertsio moduan eta gainontzeko 500.000 euroak diru-laguntza moduan). 2006koetan, euskararen sustapenerako teknologia berrietan 1.000.000 euro jasotzen da. 2007tik aurrera, berriz, IKT bezala agertuko da aurrekontuetan.

HPSk kudeatu duen aurrekontuaren partidarik garrantzitsuenak jasotzen dituen goiko taulan bada argitu eta kontuan hartu beharreko detaile bat: 2011ra arte, Sailburuordetzak diru-laguntza deialdi bakoitza kudeatzeko aurreikusten zuen dirua, hau da, aurrekontuetan jasotakoa, eta EHAAk kaleratutako laguntza-deialdietan jasotzen ziren diru-baliabideak bat datoz zifraz zifra. Esaterako, 2010eko aurrekontuan diru-partida bakarra ageri da “Hedabideak” deialdirako, 5.725.000 eurokoa eta deialdiaren aginduak beste horrenbesteko diru-baliabideak ezarri zituen. Ez da hala gertatzen, ordea, 2012 eta, bereziki, 2013 urteetan. Bi ekitaldi horietako aurrekontuetan hiru diru-partida ageri dira “Hedabideak” deialdiarekin lotuta: lehena, aurretik agindutako kredituari dagokiona; hots, aurreko ekitalditik oraindik kitatu gabe daudenak ordaintzeko; bigarrena, aurrekontuari dagokion urtean (2012 edo 2013) erabilgarri izango dena; eta hirugarrena, hurrengo urteko aurrekontuko konpromiso-kreditua, 2012an eta 2013an ordaindu gabe geratuko dena ordaintzeko¹⁷³. Urte zehatz bateko aurrekontuetan ageri den konpromiso-kreditua, beraz, hurrengo urteko aurrekontuetan derrigor sartu beharreko diru-partida litzateke.

13. taula. “Hedabideak” deialdirako aurrekontuaren banakatzea, 2012 (eurotan).

	“Hedabideak” diru-laguntza deialdiko aginduan jasotako diru-baliabideak	4.875.000
Aurrekontua 2012	Lehendik agindutako kreditua: aurreko ekitaldikoa (2011) ordaintzen amaitzeko	1.041.801
	Hedabideak 2012 diru-laguntza deialdirako	3.900.000
	2013ko konpromiso-kreditua: 2012koa ordaintzen amaitzeko	980.000

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontua 2012. Tesiaren egileak moldatua.

Hortaz, 2012ko aurrekontuetan Sailburuordetzak 4.941.801 euro izan zituen aurrekontuan erabilgarri hedabideentzat¹⁷⁴ (1.041.801 euro 2011ko deialdikoa ordaintzen amaitzeko eta gainontzeko 3.900.000 euroak 2012ko deialdirako). Baina

¹⁷³ .- 2013ko aginduak zehaztu egiten du esleitutako diru-laguntzen %35 hurrengo urtean, 2014an ordainduko dela.

¹⁷⁴ .- Konpromiso-kreditua aipatu egiten delako 2012ko aurrekontuan, baina ez dago kontabilizatuta ekitaldi horretako diru-partida gisa, baizik eta hurrengo ekitaldiko aurrekontuetan (2013) “lehendik agindutako kreditu” moduan. Kasu honetan, 2012koan, 980.000 euroko konpromiso-kreditua aurreikusi zen, baina 2013an 5.000 euro gutxiago (975.000) kontabilizatu ziren partida gisa, horrekin nahikoa izan zelako aurreko urtekoa osorik ordaintzeko.

2012ko deialdia osatzeko falta ziren 975.000 euroak hurrengo urteko konpromiso-kreditu moduan ageri dira jasota¹⁷⁵.

Bi faktoreren konbinazioak azaltzen du 2012an eta 2013an gertatutakoa. Batetik, Sailburuordetzak jaitziera izan zuen aurrekontuaren partida osoan, eta horrek nahitaezko egokitzapenak edota mozketak egitera behartu zuen diru-partida guztietan. Bestetik, euskararen biziberritzean lehentasunezkoak kontsideratzen diren bost diru-laguntza deialdiei ahalik eta aldaketa txikienekin eusteko borondatea agertu zuten. Gauzak horrela, arestiko formula erabiliko dute; hau da, ekitaldi bateko aurrekontuarekin ekitaldi horretarako aurreikusitako diru-esleipenak ordaintzeko nahikoa ez denez, diru-laguntzaren zati bat hurrengo ekitaldiko aurrekontuetatik ordainduko da, eta zati hori konpromiso-kreditu bezala geratuko da jasota. Egoera honek diru-laguntza guztiei (Euskalgintza, Lanhitz, IKT eta EBPN/ESEP) eragin die, ez soilik "Hedabideak" deialdiari.

Behin hori argituta, 12. taulan bildu diren datuen errebasoak agerian uzten du:

1.- HABEk hartu du urtero Hizkuntza Politikako aurrekontuaren erdia baino gehiago; 2005 urtean, %52,6 eta 2013an, %64,6. Epealdi osoa kontuan hartuta, helduen euskalduntze eta alfabetatzerako erakundeak HPSren aurrekontu osoaren %55,5 hartu du.

2.- HABEk jasotakoari diru-laguntza deialdietara bideratutakoa gehitzen badiogu, batuketak HPSren aurrekontu osoaren %75 (2005ean edo 2009an) eta 2013ko %87 artean hartzen du. Ikerketarako aukeratutako denbora-tarte osoa kontuan hartuta, batez beste %79; hots, 2005-2013 bitartean HPSk izan dituen hamar eurotik ia zortzi HABE eta diru-laguntza deialdietara bideratu da. Gainontzekoa langile-

¹⁷⁵ .- 2013ko konpromiso-kreditua 975.000 euro izan beharrean, 980.000 eurokoa da. Horrela, 5.000 eurogatik gaintzen da 2012ko "Hedabideak" diru-laguntza deialdiak jaso zuen diru-hornikuntza (4.875.000 euro).

gastuak, funtzionamendu-gastuak eta Sailburuordetzak beste hainbat ekimen eta elkarterekin dituen hitzarmenak gauzatzeko erabili da¹⁷⁶.

14. taula. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontu-banaketa programaren arabera, 2005-2013 (%).

HABE	55,5
Diru-laguntza deialdiak	23,5
Gainerakoak	21,0

Iturria: HPS (barne-txostena). Tesiaren egileak moldatua.

3.- Hedabideei zuzendutako dirua Sailburuordetzak urtero erabilgarri izan duen partida osotik bigarren garrantzitsuena izan da beti.

4.- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurrekontu osoaren %10 erabili du, gutxi gora behera, (urteen arabera %9,2tik %10,9ra), euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko.

5.- Diru-laguntzetarako partidei erreparatuz, horien baturak 2009an lortu zuen maila gorena, 13.100.000 euroekin. Ondorengo urteetan, krisi ekonomiko orokorrak eraginda, beheranzko joera izan da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontuetan. Izan ere, %20ko murrizketa izan du urterik onenetik, 2009tik, 2013ra bitartean. Horrek isla izan du bere barne hartzen dituen partida ia guztietan. Hala ere, hedabideetara bideratutakoa izan da, diru-laguntza deialdi guztien artean, beherakadarik apalena jasan duena.

15. taula. Diru-laguntza deialdien aurrekontua, 2009 eta 2013 (eurotan).

	Hedabideak	Euskalgintza	Lanhitza	ESEP/EBPN	IKT ¹⁷⁷
2009	5.725.000	1.339.000	2.710.000	1.700.000	1.626.000
2013	4.878.750	976.480	1.944.120	1.382.025	814.875
Aldea (%)	-14,78	-27,07	-28,26	-18,70	-49,88

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (barne-txostena). Tesiaren egileak moldatua.

¹⁷⁶ .- Horien artean, besteak beste, Euskaltzaindia, Euskaltzaleen Topagunea, Labayru Ikastegia, UPV/EHUko Euskara Institutua, UNESCO Katedra, EUDEL, UEMA, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Tokikom, EIZIE, Espainiako Itsuen Elkarte Nazionala (ONCE), Mintzola, Galtzagorri Elkarte, Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, Nafarroako Euskara Kultur Elkargoa (EKE) eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa -Office Publique de la Langue Basque.

¹⁷⁷ .- IKT deialdiaren diru-hornidurarik onena ez zen 2009koa izan, 2008koa baizik; orduan 1.700.000 eurokoa izan baitzuen. Lanhitza deialdian ere 2007an 2009koan baino 10.000 euro gehiago izan zituen. Gainontzeko deialdi guztien kasuan, ez dute inoiz 2009ko diru-partida gainditu; berdindu bai, baina gainditu ez.

6.- Diru-laguntza deialdiei erreparatuta, nabarmena da hedabideei eskainitakoa lehentasunezkoa izan dela 2005-2013 epealdi osoan.

Taula 16. Diru-laguntza deialdi bakoitzaren pisu erlatiboa diru-laguntza deialdietara bideratutako aurrekontu osoarekiko, 2005-2013 (%).

Hedabideak	42,1
Lanhitza	20,7
ESEP/EBPN	15,1
Euskalgintza	11,1
IKT	10,9

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (barne-txostena). Tesiaren egileak moldatua.

Hedabideak sustatu, garatu eta normalizatzeko ahalegin ekonomikoak diru-laguntza deialdietarako aurrekontuaren zatirik handiena hartu du, hamar eurotik lau pasatxo (%42,1), eta ondoren, hogeita bi puntura, kokatzen da Autonomia Erkidegoko arlo sozioekonomiko pribatuan euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-partida (%20,7).

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi “Hedabideak” diru-laguntza deialdirako partidez gain, 2005-2013 bitartean, zenbait urtetako aurrekontuetan, euskarazko hedabideetan euskara sustatzeko bestelako ekimen batzuk gauzatzeko diru-kopuruak izan direla. Txikiagoak bai, baina hor izan dira. Adibidez, euskarazko hedabideen erabilera sustatzeko sentiberatze-kanpainak¹⁷⁸, euskarazko hedabideetan hobekuntza-azterketak egiteko ekimena (HEHOBBA)¹⁷⁹ edota UKAN berrikuntza saria¹⁸⁰. Ekimen horiek denak desagertu egingo dira 2012 eta 2013ko aurrekontuetatik.

¹⁷⁸ .- Kanpaina hauek gauzatzeko 300.000 euroko diru-partida jaso zen 2007, 2008 eta 2009ko aurrekontuetan, 2010ekoan 100.000 euro eta 2011koan 90.000 euro.

¹⁷⁹ .- HEHOBBA 165.000 euroko diru-partida izan zuen 2008 eta 2009ko aurrekontuetan; 90.000 eurokoa 2010ekoan eta 86.000 eurokoa 2011ko aurrekontuan.

¹⁸⁰ .- Ekimen honek helburu bikoitza zuen. Batetik, kontsumitzaileen premiak eta beharrak asetzea, eta bestetik, ekonomikoki bideragarri egite aldera, berariazko ahalegina egiten zuen euskarazko hedabidea saritzea. 12.000 euroko diru-partida izan zuen 2008ko eta 2009ko aurrekontuetan.

2.2.1.4.3. EUSKARA SUSTATZEKO AURREKONTUAK EAEko GAINONTZEKO HERRI-ADMINISTRATIOETAN: FORU-ALDUNDIAK ETA UDALAK

Orain arte, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan jasotako datuak izan ditugu erreferentzia gisa, euskara sustatzeko erabilitako diru-baliabideen azterketa egiteko. Baina Eusko Jaurlaritza ez da zeregin horretara bideraturiko ahalegin ekonomikoa egiten duen herri-erakunde bakarra. Izan ere, foru -aldundien eta udalen aurrekontuetan xede berbera duten diru-partidak jasotzen dira, eta horien zati bat, zenbait kasutan zatirik garrantzitsuena, euskarazko hedabideetara zuzentzen da.

Foru-aldundiek, udalek eta Eusko Jaurlaritzak berak euskara sustatzeari eskainitako baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak era sistematiko batean daude ikertuta 2006. urtetik. Eusko Jaurlaritzak bi urtero burutu den lanaren bidez jaso du herri-administrazio ezberdinen aurrekontu likidatueta oinarrituriko informazioa. Hortaz, osaturik dago 2006-2008-2010-2012 urte segidari dagokiona¹⁸¹. *Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen Estatistika (EAE 2012)* izenburukoa¹⁸², Legebiltzarrean aurkeztu zen 2014ko maiatzaren 5ean, eta bertan 2006-2012 urte-seriearen bilakaera dago bilduta. Lana bereziki interesgarria da 5.000 biztanlez gorako udalerrriak, foru- aldundiak eta Eusko Jaurlaritzaren sail eta menpeko erakunde autonomo guztietako datuak jaso eta aztertzen dituelako¹⁸³; horrela, euskara-aurrekontuen erkidego mailako ikuspegi bateratua eskainiz.

Ikerlanaren arabera, 2006tik 2012ra, biak barne, hiru epealdi bereiz daitezke euskara-aurrekontu kontsolidatuei¹⁸⁴ dagokienez:

¹⁸¹ .- 2014koa ere egina dago, baina ikerketa honek hartu duen denbora tartea gainditzen du; hortaz, ez dugu hemen 2014 urteko daturik kontuan hartuko.

¹⁸² .- Aurreko hiru lanen izenburua (2006, 2008 eta 2010) zertxobait desberdina da. 2010ekoa *Euskara sustatzeari eskainitako aurrekontu publiko, diru-laguntza eta giza-baliabideen azterketa* deitzen da eta beste biek berriz ondoko izenburua dute: *2008an* (edo 2006an) *euskararen sustapenerako erabilitako aurrekontu publiko, diru-laguntza eta giza-baliabideen ikerlana*.

¹⁸³ .- Legebiltzarrean 2014ko maiatzean aurkeztu zen *Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen estatistikak* izeneko lanaren unibertsoa ondokoa izan zen: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 5.000 biztanlez gorako 69 udalerrietako udalak (EAEko biztanleria osoaren %89 ordezkatzen zutenak, Arabako 3, Bizkaiko 33 eta Gipuzkoako beste 33), hiru lurralde historikoetako foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako 20 sail eta erakunde autonomo. Jasotako erantzun-maila %100ekoa izan zen; hau da, ikertu beharreko unibertso guztietako informazioa jasotzea lortu zen.

¹⁸⁴ .- Gastu kontsolidatua, erakunde arteko euskararako diru-laguntzen eraginez, erakundeen aurrekontu likidatuen baturan bi bider kontabilizatuak dauden gastuak neutralizatuz kalkulatzeko den EAEko euskara-

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

- 1.- Lehenengoan, 2006tik 2008ra bitarteko hirurtekoan, euskararako baliabideak igoera izan zuten erakunde guztietan.
- 2.- Bigarreanean, 2008tik 2010era, udalek eta hiriburuak goranzko bideari eutsi zioten baina ez zen hala gertatu foru-aldundietan eta Jaurlaritzan.
- 3.- Azkenik, 2010etik 2012ra, euskara-aurrekontuek behera egin zuten erakunde guztietan.

17. taula. Euskararen aurrekontuaren bilakaera erakunde-motaren arabera, 2006-2012 (milioi eurotan).

	2006	2008	2010	2012
Udalak	24,0	29,1	29,3	28,4
Hiriburuak	6,8	8,0	8,5	7,2
Foru-aldundiak	16,0	19,9	18,1	17,5
Eusko Jaurlaritza	106,1	115,4	106,8	93,1
EAE guztira	152,8	172,5	162,8	146,3

Iturria: Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen estatistikak 2012. Eusko Jaurlaritza. Tesiaren egileak moldatua.

Bestalde, erakundeek likidatutako aurrekontu orokorretatik euskararakoak zein pisu erlatibo duen aztertuta, agerikoa da aldeak daudela batzuetatik besteetara. Horren arrazoia azaltzeko orduan, oso kontuan izan behar da pisu erlatiboa euskararako aurrekontuaren igoera-jaitsiera eta erakundearen aurrekontu osoaren bilakaeraren arteko erlazioaren arabera dela.

18. taula. Euskara-aurrekontuen pisu erlatiboaren bilakaera erakunde-motaren arabera, 2006-2012 (%).

	2006	2008	2010	2012
Udalak	1,9	2,1	1,9	2,3
Hiriburuak	0,7	0,7	0,7	0,7
Foru-aldundiak	0,6	0,7	0,6	0,6
Jaurlaritza	1,4	1,2	1,0	0,9

Iturria: Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen estatistikak 2012. Eusko Jaurlaritza. Tesiaren egileak moldatua.

aurrekontu netoa edo garbia izango litzateke; hots, aldundietatik eta Jaurlaritzatik udaletara egiten diren diru-ekarpenak behin bakarrik kontabilizatuz kalkulatu.

Udaletan, esaterako, 2010-2012 tartean euskara aurrekontuek beherakada izan duten arren, pisu erlatiboak gora egin du (1,9tik 2,3ra), udalen aurrekontu orokorrek izan duten murrizketa askoz handiagoa izan delako. Jaurlaritzaren kasuan, ordea, kontrakoa gertatu da, aurrekontu orokorrek baino jaitsiera handiagoa izan dute euskarakoek¹⁸⁵ eta ondorioz, 2010-2012 bitarteko pisu erlatiboak behera egin du (1,0tik 0,9ra).

Euskal Autonomia Erkidegoan, atal honen hasieran adierazi den bezala, Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak dira euskarazko hedabideen sustapenerako xedearekin diru-laguntzak eskaintzen dituzten erakundeak. Beraz, merezi du *Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen Estatistikak* izeneko lanean eskaintzen den informazioaz baliatu eta herri-administrazio bakoitzean euskararako aurrekontuak izan duen bilakaerari arretaz erreparatu eta berau aztertzea.

19. taula. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoen eta euskararen aurrekontu likidatuaren bilakaera, 2006-2012 (eurotan).

Urtea	Aurrekontu likidatua		%
	Osoa (€)	Euskarakoa (€)	
2006	7.770.938.413	106.074.632	1,4
2008	9.317.300.321	115.404.359	1,2
2006-2008 igoera-jaitsiera (%)	19,9	8,8	
2010	10.327.556.416	106.785.965	1,0
2008-2010 igoera-jaitsiera (%)	10,8	-7,5	
2012	10.246.437.704	93.070.112	0,9
2010-2012 igoera-jaitsiera (%)	-0,8	-12,9	

Iturria: Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen estatistikak 2012. Eusko Jaurlaritza. Tesiaren egileak moldatua.

Jaurlaritzan aurrekontu osoaren igoera izan denean, 2006tik 2010era bitartean, euskararenak ez du neurri bereko hazkunderik izan edo behera egin du (2008-2010), eta aurrekontu osoak behera egin duenean (2010-2012), euskararenak are nabarmenago egin du behera.

¹⁸⁵ .- 2010-2012 epealdian Jaurlaritzako aurrekontuaren jaitsiera %1ekoa izan zen, eta euskarakoarena, berriz, %13koa.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Foru-aldundiei dagokienez¹⁸⁶, alde handiak daude batetik bestera, aurrekontu osoari begira, zein bakoitzean euskarara bideratu diren diru-baliabideei begiratuta.

20. taula. Foru-aldundien aurrekontu osoen eta euskararen aurrekontu likidatuaren bilakaera, 2006-2012 (eurotan).

	Urtea	Aurrekontu likidatua		
		Osoa (€)	Euskarakoa (€)	%
Arabako FA	2006	376.235.130	1.219.385	0,3
	2008	474.858.316	2.039.854	0,4
	2006-2008 igoera-jaitsiera (%)	26,2	67,3	
	2010	446.461.983	2.333.221	0,5
	2008-2010 igoera-jaitsiera (%)	-6,0	14,4	
	2012	394.996.501	1.670.917	0,4
	2010-2012 igoera-jaitsiera (%)	-11,5	-28,4	
Bizkaiko FA	2006	1.368.591.426	9.374.277	0,7
	2008	1.730.768.708	10.785.052	0,6
	2006-2008 igoera-jaitsiera (%)	26,5	15,0	
	2010	1.764.609.826	9.641.826	0,5
	2008-2010 igoera-jaitsiera (%)	2,0	-10,7	
	2012	1.602.611.726	10.408.787	0,6
	2010-2012 igoera-jaitsiera (%)	-9,2	8,0	
Gizpukoako FA	2006	760.594.989	5.367.513	0,7
	2008	799.410.352	7.101.559	0,9
	2006-2008 igoera-jaitsiera (%)	5,1	32,3	
	2010	910.651.000	6.156.422	0,7
	2008-2010 igoera-jaitsiera (%)	14,0	-13,3	
	2012	746.982.329	5.428.110	0,7
	2010-2012 igoera-jaitsiera (%)	-18,0	-12,0	

Iturria: Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen estatistikak 2012. Eusko Jaurlaritza. Tesiaren egileak moldatua.

¹⁸⁶ .- EAEko hiru foru-aldundiak alderdi ezberdinen esku izan dira 2005-2013 urtealdian. Arabaren kasuan, bi alderdi, PP eta PNV txandakatu dira lurralde-erakundearen gobernuan aipatutako denborartean. 2005etik 2007ra PPko Ramón Rabanera izan zen diputatu nagusi. Handik 2011ra PNVko Xabier Agirre, eta 2011tik 2013ra PPko Javier de Andrés izendatu zuten diputatu nagusi. Bizkaian, berriz, foru-aldundia PNVrena izan da 1979tik, eta aztergaitzat dugun 2005-2013 bitartean José Luis Bilbao izan zen diputatu nagusia. Azkenik, Gipuzkoan, 2005-2007 tartean PNV-EA koalizioaren esku egon zen (Joxe Joan González de Txabarri). Hortik 2011ra PNVren esku (Markel Olano), eta azkenik, 2011ko hauteskundearen ondoren, EH Bilduko Martin Garitanok hartu zuen foru-aldundiko aginte-makila.

Datuen arabera, aurrekontu osoa eta euskararakoaren arteko erlazioa kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak foru-aldundiek baino diru gehiago izan du beti euskararako. Lurraldeetako erakundeei erreparatur, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaini dio baliabide ekonomiko gehien euskararen sustapenari, ondoren Bizkaikoak eta gutxien Arabakoak. Azken lurralde honetan, deigarria da 2006-2008 bitartean euskararen aurrekontuak izan zuen igoera; hala ere, zenbaki absolutuari begiratuta ez dio inoiz aurrekontu orokorraren %0,5 baino gehiago eskaini euskarari. Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, aurrekontu orokorrak igoera izan duenean, euskararena ez da neurri berean hazi edo beherakada izan du. Hala ere, 2010-2012 tartean, Bizkaian aurrekontu orokorrak behera egin zuen (-9,2) eta euskararenak aldiz, gora (8,0), eta aipatzeko modukoa da, joera hori erakusten duen lurralde bakarra delako. Azkenik, aurreratu bezala, Gipuzkoakoa da aurrekontu osotik euskarara ehunekorik handiena bideratu duen foru-aldundia. 2006-2008 bitartean, asko hazi zen, baina 2008tik aurrera euskararakoak beheranzko bidea hartu du.

Herritarrengandik gertuen dauden herri-erakundeei dagokienez, udalei dagokienez, hurrengo orrian dagoen taulak erakusten du denboran zehar izandako bilakaera.

21. taula. Udalen aurrekontu osoen eta euskararen aurrekontu likidatuaren bilakaera, 2006-2012 (eurotan).

	Urtea	Aurrekontu likidatua		
		Osoa (€)	Euskarakoa (€)	%
Arabakoak	2006	48.263.127	707.613	1,5
	2008	44.410.346	613.699	1,4
	2006-2008 igoera-jaitsiera (%)	-8,0	-13,3	
	2010	46.680.959	723.318	1,5
	2008-2010 igoera-jaitsiera (%)	5,1	17,9	
	2012	33.258.893	708.885	2,1
	2010-2012 igoera-jaitsiera (%)	-28,7	-2,0	
Bizkaikoak	2006	819.205.219	13.316.110	1,6
	2008	934.776.064	15.237.992	1,6
	2006-2008 igoera-jaitsiera (%)	14,1	14,4	
	2010	957.941.648	14.291.832	1,5
	2008-2010 igoera-jaitsiera (%)	2,5	-6,2	
	2012	795.396.018	15.147.026	1,9
	2010-2012 igoera-jaitsiera (%)	-17,0	6,0	
Gipuzkoakoak	2006	597.115.540	13.689.142	2,3
	2008	651.630.301	17.792.786	2,7
	2006-2008 igoera-jaitsiera (%)	9,1	30,0	
	2010	664.426.526	16.709.940	2,5
	2008-2010 igoera-jaitsiera (%)	2,0	-6,0	
	2012	556.393.787	15.608.398	2,8
	2010-2012 igoera-jaitsiera (%)	-16,2	-6,6	
Udalak guztira	2006	1.464.583.886	27.712.865	1,9
	2008	1.630.816.711	33.644.477	2,0
	2006-2008 igoera-jaitsiera (%)	11,3	21,4	
	2010	1.669.049.133	31.725.090	1,9
	2008-2010 igoera-jaitsiera (%)	2,3	-5,7	
	2012	1.385.048.698	31.464.309	2,3
	2010-2012 igoera-jaitsiera (%)	-17,0	-0,8	

Iturria: Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen estatistikak 2012. Eusko Jaurlaritza. Tesiaren egileak moldatua.

Udalak dira, EAEko herri-administrazioen mailan, ehunekotan euskararako aurrekontu handienak dituzten erakundeak. Horien artean, Gipuzkoakoak nabarmentzen dira besteen gainetik. Oro har, euskararako aurrekontu likidatuek hazkundera izan zuten 2006tik 2008ra (21,4), eta ordutik, beheranzkoa izan da joera. Adierazitakoaren salbuespena Bizkaian gertatu zen 2010-2012 bitartean; izan ere, lurralde horretan %6ko igoera izan zen euskararako aurrekontuetan.

EAEko hiru lurraldeetako hiriburuei erreparatu ezker, aurrekontu orokorren bilakaerak eta euskararako aurrekontuenak joera berdintsua erakusten dute; batek gora egiten duenean, besteak ere bai, eta alderantziz. Salbuespenen bat aipatzekotan, Bilbon gertatutakoa litzateke: 2010etik 2012ra, aurrekontu orokorrak behera egin zuenean, euskararenak are beherago egin zuen.

22. taula. Hiriburuen aurrekontu osoen eta euskararen aurrekontu likidatuen bilakaera, 2006-2012 (eurotan).

	Urtea	Aurrekontu likidatua		
		Osoa (€)	Euskarakoa (€)	%
Vitoria-Gasteizko udala	2006	319.668.271	2.602.848	0,8
	2008	405.128.870	2.946.925	0,7
	2006-2008 igoera-jaitsiera (%)	26,7	13,2	
	2010	438.193.164	3.454.521	0,8
	2008-2010 igoera-jaitsiera (%)	8,2	17,2	
	2012	309.218.750	3.075.233	1,0
	2010-2012 igoera-jaitsiera (%)	-29,4	-10,9	
Bilboko udala	2006	474.718.244	2.228.239	0,5
	2008	543.300.000	2.852.119	0,5
	2006-2008 igoera-jaitsiera (%)	14,4	28,0	
	2010	589.418.636	2.779.990	0,5
	2008-2010 igoera-jaitsiera (%)	8,5	-2,5	
	2012	472.200.000	1.928.969	0,4
	2010-2012 igoera-jaitsiera (%)	-19,9	-30,6	
Donostiako udala	2006	228.883.110	2.229.156	1,0
	2008	274.293.365	2.694.640	1,0
	2006-2008 igoera-jaitsiera (%)	19,8	20,9	
	2010	333.721.320	2.796.828	0,8
	2008-2010 igoera-jaitsiera (%)	21,7	3,8	
	2012	266.990.481	2.626.189	1,0
	2010-2012 igoera-jaitsiera (%)	-20,0	-6,10	
Hiriburuak	2006	1.023.269.625	7.060.243	0,7
	2008	1.222.722.235	8.493.684	0,7
	2006-2008 igoera-jaitsiera (%)	19,5	20,3	
	2010	1.361.333.120	9.031.339	0,7
	2008-2010 igoera-jaitsiera (%)	11,34	6,33	
	2012	1.048.409.231	7.630.391	0,7
	2010-2012 igoera-jaitsiera (%)	-23,0	-15,2	

Iturria: Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen estatistikak 2012. Eusko Jaurlaritzaren TESIAREN EGILEAK MOLDATUA.

Erakunde-motaren arabera errepassoa osatu eta bukatzeko, beste datu bat aztertuko da: biztanleko zenbat euro eskaini dizkion erakunde-mota bakoitzak euskara sustatzeari¹⁸⁷.

23. taula. EAEn biztanle bakoitzeko euskararen sustapenerako erakunde-mota bakoitzak bideratu duen aurrekontu likidatuaren bilakaera, 2006-2012.

	Eusko Jaurlaritza € biztanleko	Foru-aldundiak € biztanleko	Udalak € biztanleko	Hiriburuak € biztanleko
2006	49,8	7,5	23,7	9,3
2008	51,5	9,4	29,5	11,2
2010	46,4	8,4	27,1	11,6
2012	42,4	7,3	26,9	10,8

Iturria: Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen estatistikak 2012. Eusko Jaurlaritza. Tesiaren egileak moldatua.

Arestiko taulan datu orokorrak jaso dira, eta esan behar da aldeak daudela erakunde-mota desberdinen artean, horiek kokatuta dauden lurralde historikoaren arabera. Horrela, 5.000 biztanletik gorako udalen kasuan, Gipuzkoakoak dira biztanleko euro gehien erabiltzen dutenak, eta nabarmen gutxiago Arabakoak eta Bizkaikoak.

Hiriburuei dagokienez, Bilbokoak askoz gutxiago erabiltzen du biztanleko (borobilduz 6 eta 8 euro artean) Gasteizkoak eta Donostiakoak baino (lehenengoak 11 eta 14 euro artean eskaini du, eta bigarrenak 12 eta 15 euro artean). Foru-aldundietan, aldeak txikiagoak diren arren, Gipuzkoakoa dago lehen tokian, ondoren Bizkaikoa eta Arabakoa. Azkenik, Jaurlaritza da biztanleko euro gehien eskaini duena, 42 eta 51,5 euro artean. Erakundea edozein izanda ere, 2008tik aurrera, denetan egiten du behera biztanleko euskararen sustapenera bideraturiko diruak.

Herri-administrazioek euskarara bideratutako diru-baliabideak zertan erabiltzen diren; hau da, zein alorretara zuzentzen diren ere aztertzen du lanak. Horretarako, lau eremu bereizten ditu:

1.- Ondorengoetaratzea: euskararen ezagutza eta transmisioa helburu duen eremua litzateke. Horren barne leudeke hezkuntza-sistemaren euskalduntzera, herritarren

¹⁸⁷.- Gogoratu Siadecok Eusko Jaurlaritzarentzat egindako lanak 5.000 biztanletik gorako udalak hartzen dituela kontuan. Hortik beherako biztanleria duten udalerrietan euskara sustatzeko duten aurrekontuari erreparatuta, oso xumea denez; ez du aldaketa handirik ekarriko hemen eskaintzen diren datuetan.

euskalduntze-alfabetatzera eta familia bidezko transmisiora bideratutako ekimenak eta programak gauzatzeko diru-baliabideak.

2.- Erabilera: honen barne kokatzen ditu arlo publikoan zein pribatuan euskararen erabilera sustatzeko programa sektorialak; hala nola, herri-administrazioetako euskara-planak, teknologia berriak, alor sozioekonomikoa, publizitatea eta lantegietako euskara-planak, eta baita ere kirol, aisia eta erlijio elkarteetan euskara zabaltzeko ekimenak.

3.- Elikadura: euskararen corpusak, hedabideek eta kulturgintzak osatzen dute eremu hau¹⁸⁸.

4.- Gainontzekoak: esparru honetan euskararen ikerketa eta komunikazio-ekintza orokorrak (tokiko entitateek kudeatutako euskara egitasmoetarako diru-laguntzak, hizkuntzaren diagnostiko eta plangintzarako ikerketak, sentiberatze eta komunikazio-ekintzak, aurreko ataletan kokatu ezin diren gastuak) eta herri-administrazioetako euskara-atalen egitura eta funtzionamendu-gastuak¹⁸⁹ leudeke.

Sailkapen horren arabera, ondokoa litzateke 2006-2012 bitartean izandako diru-baliabideen bilakaera EAEko herri-administrazioetan:

¹⁸⁸ .- 2006, 2008 eta 2010eko ikerketetan publizitatea eremu honetan sartu zuten; 2012koan, ordea, erabilera-eremuan dago.

¹⁸⁹ .- Euskara-atalaren zuzendaritza, koordinazio, administrazio eta bestelako kudeaketa gastu arruntak.

24. taula. Euskara-aurrekontuaren bilakaera erakunde-mota eta hizkuntza-normalizaziorako eremuaren arabera, 2006-2012 (%).

Erakundea	Urtea	Ondorengo- taratzea	Erabilera	Elikadura	Gainontzekoak
Eusko Jaurlaritza	2006	69,1	6,0	8,4	16,4
	2008	64,3	10,5	10,1	15,1
	2010	60,0	19,7	12,3	8,1
	2012	64,3	19,5	9,0	7,2
Foru-aldundiak	2006	1,9	29,8	41,5	26,8
	2008	2,4	19,0	40,0	38,6
	2010	2,9	31,3	22,6	43,1
	2012	0,6	30,5	21,1	47,5
Udalak	2006	37,7	22,2	17,7	22,4
	2008	37,2	27,6	15,6	19,7
	2010	33,9	27,3	16,1	22,7
	2012	35,7	26,6	16,6	22,1
Hiriburuak	2006	29,2	14,9	22,7	33,2
	2008	25,3	27,6	18,8	28,2
	2010	28,9	31,8	14,6	24,8
	2012	31,5	31,8	17,7	19,0

Iturria: Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen estatistikak 2012. Eusko Jaurlaritza. Tesiaren egileak moldatua.

Taulan jasotako zenbaki-multzoak erakusten du Jaurlaritzaren kasuan, aurretik 1983-2013 denbora-tartearen azterketa egin denean ikusitakoa berresten dela. Hau da, diru-gehien ondorengoetaratzere-eremura; zehatzago esateko, hezkuntza-sistemaren eta herritarren euskalduntzera doala. Horrez gain, azpimarratzekoa da erabilpenaren sustapenera zuzenduriko diru-baliabideak hirukoiztu egin direla 2006tik. Foru-aldundietan berriz, elikadura-eremua nagusi izatetik erdira jaitsi da denborarekin, eta 2010etik aurrera, euskara-atalaren gastuak eta tokiko entitateek kudeatutako euskara-egitasmoetarako diru-laguntzak hartu dute protagonismoa. Udaletan, diru-baliabideen banaketak gorabehera handirik gabe iraun du denboran zehar, eta eremuen arteko banaketari begira ere gauza bera gertatu da; ondorengoetaratzera bideraturiko baliabideak nabarmentzen dira zertxobait besteen ginetik. Eta azkenik, hiriburuetan, erabilera-eremuak bikoiztu egin du bere pisua 2006tik eta euskararako baliabideen herena hartzen du; ondorengoetaratzere-eremuan erabilitako kantitate berdintsua izanik.

Elikaduraren eremuan kokatuta dauden hedabideei zuzenean loturiko diru-baliabideei dagokienez, hamar eurotik sei Jaurlaritzak jartzen ditu.

“Hedabideei inputatutako euskara aurrekontutik ia guztia, diru-laguntzei lotutakoa da; urtean 8,8 milioi euro inguruko aurrekontua du administrazio publikoak; horietatik 5,2 milioi (% 60) Jaurlaritzak ipintzen ditu, udal eta hiriburuek 2,5 milioi (% 27) eta foru-aldundiek 1,1 milioi (% 13)”(Eusko Jaurlaritza, 2013b: 125).

Arestiko baieztapena 2012 urteari badagokio ere, beste horrenbeste gertatu da aurreko urteetan. Horren erakusgarri 2008 eta 2010eko datuak:

Taula 25. Euskarazko hedabideentzako diru-laguntzen banaketa erakundearen arabera, 2008-2010 (%).

	<i>Jaurlaritza</i>	<i>Foru-aldundiak</i>	<i>Udalak</i>	<i>Hiriburuak</i>
<i>2008</i>	<i>62,8</i>	<i>15,3</i>	<i>19,9</i>	<i>1,9</i>
<i>2010</i>	<i>64,8</i>	<i>11,4</i>	<i>22,0</i>	<i>1,8</i>

Iturria: Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen estatistikak 2012. Eusko Jaurlaritza. Tesiaren egileak moldatua.

Euskarazko hedabideak diruz laguntzeko eskaintzen diren 10 eurotik erdia baino gehiago (6 euro inguru) Jaurlaritzak eskainitakoa da. Beste muturrean kokatzen dira hiriburuak. Horiei dagokienez, diru-baliabide ia guztiak Donostiako udalak jarritakoak dira¹⁹⁰. Foru-aldundietan, Gipuzkoakoa izan da euskarazko hedabideak laguntzeko diru gehien eskaini duena¹⁹¹, eta beste horrenbeste gertatzen da lurralde horretako udalen kasuan. Adierazitakoa, neurri batean, euskarazko hedabideen lurralde-banaketari lotuta azaldu daiteke. Izan ere, Gipuzkoa da euskarazko hedabide gehien dituen lurraldea, batez ere tokian tokiko aldizkari gehien dituen, eta horiek banatzen diren udalen diru-babesa lortu dute¹⁹².

¹⁹⁰ .- Eusko Jaurlaritzaren ikerlanaren arabera, 2012an Bilbok eta Vitoria-Gasteizek ez zuten euro bakar bat izan euskarazko hedabideentzako, Donostiakoak berriz, 168.297 euro. 2010ean Bilbok 28.000 euro, Gasteizek 4.000 euro eta Donostiak 139.090 euro. 2008an Gasteizek deus ez, Bilbok 88.500 euro eta Donostiak 174.403 euro.

¹⁹¹ .- Eusko Jaurlaritzaren ikerlanaren arabera, 2012an Arabako Foru Aldundiak ez zuen euro bakar bat jarri euskarazko hedabideentzat, Bizkaikoak 300.000 euro eta Gipuzkoakoak 828.740 euro. 2010ean Arabakoak 41.632 euro izan zituen, Bizkaikoak 621.500 euro eta Gipuzkoakoak 801.740 euro. Eta 2008an Arabakoak 18.000 euro, Bizkaiko Foru Aldundiak 924.884 euro eta Gipuzkoakoak 1.133.020 euro.

¹⁹² .- Udal horietan euskararen aurrekontua nagusiki euskarazko hedabideetara eta kultura gintzara bideratuta dago.

Euskara sustatzeko bideratu diren diru-baliabideei eskaini zaion tarte honen ondorio moduan baieztatu daiteke, EAEn diren herri-erakunde administratiboek dagokienez, Eusko Jaurlaritza izan dela denboran zehar baliabide ekonomiko gehien jarri duena, kantitate orokorrean begiratuta zein biztanle bakoitzeko kopuruei begiratuta; hamar eurotik sei jarri ditu eta. Hala ere, erakunde bakoitzak urtero erabilgarri duen aurrekontu orokorretatik euskararakoak zein pisu erlatibo duen aztertu ezker, udalak nabarmendu dira Jaurlaritzaren zein foru-aldundien gainetik. Baina administrazioa edozein izanda ere, 2008tik aurrera, denetan egiten du behera biztanleko euskararen sustapenera bideraturiko diruak.

Joerak joera, Eusko Jaurlaritzak eta EAeko gainontzeko erakunde publikoek euskararen biziberritzea bermatzeko martxan jarri dituzten hizkuntza-politiken atala zarratzeko derrigorrezkoa da egindako ahaleginaren emaitzei erreparatzea; hau da, euskarak izan duen bilakaerari erreparatzea. Goazen ba horra.

2.2.1.5. EUSKARAREN BILAKAERA EAEn: SUKALDEKO AZPIRETIK MUGARIK GABEKO PLAZARA

Hazkundera. Irabaziak. Bi hitz horiekin definitu daiteke euskarak hirurogeiko hamarkadatik, eta bereziki Automomia Estatutua onartu zenetik EAEn jorratu duen bidea. Lege-babesa eta hizkuntza-politika sustatzaileak izan dira zalantzarik gabe euskararen akuilu, baina bi faktore horiekin batera bada edozein hizkuntzaren berreskuratze-prozesuan funtsezkoa den hirugarren bat: herritarren atxikimendua. Euskara nekez egongo litzateke dagoen tokian herritarren aldeko jarrerarik eta aldeko hizkuntza-portaerarik izan ez balitz. Horri esker egin du jauzi euskarak sukaldeko azpiretik mugarik ez duen plazara (Larrinaga, 2011).

Euskarak denboran zehar egin duen jauzia zein neurritakoa izan den konturatzeko lekuko eta informazio-iturri ederra da *Jakin* aldizkariak 1983ko otsailean argitaratu zuen 26/27 zenbaki bikoitza. Bertan Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-

Azterketarako Lantaldeak euskararen egoera sozialaz egindako ikerlan¹⁹³ baten berri sakona eta zehatza eskaini zuen. Nabarmentzeko moduko hamaika kontu ditu lanak baina hona, lehenago aipatu bezala, euskara laurogeiko hamarkadaren hasieran “non” zegoen irudikatzeko balio dezaketen pare bat pasarte ekarriko dira. Lehenak, botere publikoek euskararen alde zer egin dezaketen aurkezten duen atalean dago eta bertan ondokoa irakurri daiteke:

“Inkestatuentzat garrantzitsuena euskarazko irakasleak gertatzea da. Ondoren, helduentzat zein umeentzat, eskola eta ikastetxeetako euskara-ikastaldiak bultzatzea eta ordaintzea. Bestalde, euskararen irakaskuntzarekin harreman zuzenean ez dauden beste zenbait neurri eratzeko interesgarria litzateke: publizitatekanpainak, eta literatur sariketak eratzeko, adibidez. Hirugarren neurri aukeratuena, herri-, kale-, kamio-, eta zirkulazio-ohar guztiak euskaraz ipintzea da. Eta, azkenik, Euskal Gobernuko funtzionari direnei euskararen ezagutza ezartzea” (Jakin, 26/27: 130).

Bigarrenak, euskarak une hartan zeukan egoeraren diagnostikoa egiten du eta aukera biak, desagertzea eta biziberritzea aurreikusten dituen diagnostikoa da:

“Ez da inoiz egon hain hurbil eta hai berehalakoan euskararen heriotza soziala. Baina berriro ere, paradoxaz, sekula santan ez da egon, horrenbeste probabilitaterekin, hain prest eta hain ondo hornitua bere errestituzio sozialerako eta bere heldutasun linguistikorako. Bere zientzigizon eta filologo mugimendu zuzpertzailerekin batera, herriaren aldetik birreskurapenerako mugimendua jauzi da, euskararen ikasketa sistematikoaren bidez” (Jakin, 26/27:196) .

Kontuan hartu ikerlana Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legea onartu zeneko sasoi berekoa dela.

Hortaz, arestikoa zen euskararen argakia laurogeiko hamarkadaren hasieran. Ezin uka, ordutik bide luzean egin duela, ez bakarrik urtetan neurtu daitekeena, baita lorpenetan ere.

¹⁹³ .- Ikerlana Jose Ignacio Ruiz Olabuénaga soziologoak zuzendu zuen *Euskararen Borroka. Oinarrizko inkesta bat: ezagutza, erabilera, jarrerak* izenburuarekin eta bi datu-iturri erabili zituzten; batetik 1981-02-28 datarekin jasotako Biztanle-Zentsua eta bestetik Eusko Jaurlaritzako Gizarte-Azterketarako Lantaldeak egindako 2 inkesta: lehena, *Euskararen ezagutza eta erabilera* izeneko eta bigarrena, *Euskararekiko jarrera* izeneko.

Euskararen bilakaeraren azterketa zehatza egiteko bi informazio-iturri erabili daitezke:

1.- Inkesta Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egiten du bost urterik behin euskararen egoeraren berri izateko. Lehen 1991n burutu zen eta azkena, seigarrena, 2016koa da; hortaz, hizkuntzaren bilakaera zenbatekoa eta nolakoa izan den erakusten duen 25 urteko azterketa diakroniko jarraitu eta sistematikoa dago osatuta. Dena den, ikerketa honek 2005-2013 epealdia aztertuko duenez, hizkuntzaren egoeraren berri emateko 2011ko inkesta soziolinguistikoaren datuak¹⁹⁴ baliatzea eabaki da.

2.- Mapa soziolinguistikoa. Mapak Eustat erakundeak¹⁹⁵ eskuraturiko datu ofizialak ditu oinarritzat eta datu horien ustiaketa eginez Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lau aldagai aztertzen ditu: hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, biztanleriaren lehen hizkuntza, hizkuntza-gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren arteko gurutzaketa (BILA indizea) eta azkenik, etxeko erabilera. Lehen mapa Eustatek 1981eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan bildutako datuen ustiapena eginez¹⁹⁶ osatu zen eta momentuz V. mapa dago argitaratuta.

Euskarak izan duen bilakaera azaltzeko atal honetan arreta jarriko zaio V. inkesta soziolinguistikoak eskainitako informazioari; bertan 16 urte edo gehiago dutenen datuak jasotzen direlako eta euskarazko hedabide inprimatuen kontsumitzaile izan daitekeen publikoari begira mapak darabilen 5 urtetik gorako unibertsoa baino

¹⁹⁴ .- Inkesta Soziolinguistikoaren unibertsoa Euskal Herri osoko (EAE+Nafarroa+Iparraldea) 16 urte edo gehiago duen biztanleria da. Kontuan hartzekoa da 16 urtetik beherakoek unibertso osoarekiko pisu demografiko txikia badute ere, adin horretan daudela, eskolaren ekarpenari esker, elebidunen kopururik handienak. V. inkestarako datuen bilketa 2011ko ekainetik abendura bitartean egin zen. Guztira 7.900 inkesta (4.200 EAEn, 2.000 Iparraldean eta 1.700 Nafarroan), telefono bidez eta galdetegi egituratu eta itxia erabiliz. Lagina gune soziolinguistikoaren eta udalerrriaren arabera estratifikatua izan zen.

¹⁹⁵ .- Eustat Euskal Estatistika Erakundea da. 1986ko apirilaren 23ko 4/1986 legearen bidez onartu zuten (EHAA, 1986-05-30: 105 zk.) eta urte bereko azaroaren 25ean jarri zuten martxan (251/1986 Dekretua, EHAA, 1986-11-29: 236 zk.). Eustat Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, Ekonomia eta Ogasun Sailari atxikia dago eta bere zeregina gizartearen eta ekonomiaren hainbat arlori buruzko informazio estatistikoa bildu, aztertu eta zabaltzea da.

¹⁹⁶ .- Mapa soziolinguistikoaren kasuan unibertsoa Euskal Aeronomia Erkidegoko bost urte edo gehiagoko biztanleria da.

egokiagoa delako (salbuespenen bat izan daitekeen arren, 5 urtetik 16 urtera bitartekoek ez dituzte hedabide inprimatuak irakurtzen).

V. Inkesta Soziolinguistikoak bildutako informazioaren arabera, 2011n EAE n 16 urte edo gehiagoko 1.873.000 pertsona ziren eta horietatik %32 euskalduna¹⁹⁷ zen, %17,4 euskaldun hartzailea (euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egin ez arren, ulertzeko gai da) eta gainontzeko %50,6 erdalduna zen (ez da gai ez euskara ulertzeko ezta hitz egiteko ere). Lurralde bakoitzeko datuei dagokienez, Gipuzkoan ia biztanleriaren erdia euskalduna zen, Bizkaian laurdena eta azkenik Araban euskaldunen portzentajea ez zen biztanleriaren bostenera heltzen.

26. taula. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2011.
(zenbaki absolutuak eta %)

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Euskaldunak	600.000 %32	46.000 %16,8	254.000 %25,4	300.000 %49,9
Euskaldun hartzaileak	322.000 %17,4	46.000 %16,8	177.000 %17,8	99.000 %16,4
Erdaldunak	951.000 %50,6	180.000 %66,4	568.000 %56,8	203.000 %33,7
Guztira	1.873.000	272.000	999.000	602.000

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Adinari erreparatuz eta V. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak oinarritzat hartuz, 2011n euskaldun gehien gazteen artean dago; EAE n 16 eta 24 urteko gazteen %60 euskalduna da eta 25 eta 34 urtekoen artean %44,5 ; baina adin tarte horren pisua biztanleria osoarekiko txikia denez, multzo horretan izan den hazkundeak ez du horrenbesteko isla biztanleria osoko emaitzetan. EAE osorako aipaturiko joera hori bera errepikatzen da hiru lurraldeetan; hots, zenbat eta gazteago izan orduan eta euskaldun gehiago. Erdaldunen ehunekorik handienak berriz, 50 urtetik gorakoen artean daude, demografikoki multzorik handiengan.

¹⁹⁷.- V. Inkesta Soziolinguistikoan “euskalduna” eta “euskaldun hartzailea” kontzeptuak erabili beharrean, “elebiduna” eta “elebidun hartzailea” ageri dira. Sinonimo moduan har daitezke. Kontua da 2016ko VI. inkestan “euskalduna” eta “euskaldun hartzailea” erabiltzen dituztela eta horregatik hemen ere, horien aldeko hautua egin da. “Euskalduna” euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten duena da; eta “euskaldun hartzailea” euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egin ez arren, gai da euskara ulertzeko.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

27. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2011 (%).

	EAE	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
Guztira	1.873.000	417.000	434.000	529.000	319.000	174.000
Euskaldunak	32,0	23,3	22,9	29,8	44,5	59,7
Euskaldun hartzaileak	17,4	9,5	14,2	19,7	25,0	23,2
Erdaldunak	50,6	67,2	62,9	50,5	30,5	17,0

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Lehen Inkesta Soziolinguistikoa 1991n egin zen; beraz, aukera dago 20 urteko bilakaera aztertzeko.

28. taula. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAEn eta lurraldeen arabera, 1991-2011(%).

		EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
1991	Euskaldunak	24,1	7,0	16,5	43,7
	Euskaldun Hartzaileak	8,6	7,6	7,5	10,7
	Erdaldunak	67,3	85,4	76,0	45,6
2001	Euskaldunak	29,4	13,4	22,4	48,0
	Euskaldun Hartzaileak	11,4	11,1	12,7	9,5
	Erdaldunak	59,2	75,5	64,9	42,5
2011	Euskaldunak	32,0	16,8	25,4	49,9
	Euskaldun Hartzaileak	17,4	16,8	17,8	16,4
	Erdaldunak	50,6	66,4	56,8	33,7

Iturriak: Euskararen Jarraipena 1991, III. Inkesta Soziolinguistikoa, 2001 eta V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Taulan bildutako ehunekoek argi erakusten dute euskara hazi egin dela 1991tik. Denbora tarte horretan landutako inkesta soziolinguistikoen arabera, 16 urte edo gehiagoko 181.000 euskaldun irabazi ditu EAEn 1991-2011 bitartean; euskaldun hartzaileen kopurua ere bikoiztu egin da eta erdaldunak duela bi hamarkada baino 223.000 gutxiago dira.

Hazkundera ez da lurralde guztietan neurri berekoa izan; zentzu honetan aipatzekoa da Araban izan duen goranzko bilakaera¹⁹⁸.

¹⁹⁸ .- Araban 1991n elebidunak %7 ziren eta 2011n %16,8. Bizkaian elebidunen ehunekoak ia 10 puntu irabazi ditu denbora tarte berean (%16,5 etik %25,4ra) eta Gipuzkoan 6 puntu (%43,7tik %49,9ra).

Lurraldez lurraldekako azterketatik eskualdekora ere salto egin daiteke eta interesgarria da hala ergitea, ikerketa honetan aurrerago ikusiko den bezala euskara hutsezko hedabide inprimatuen zabalkunde geografikoak lotura estua duelako eskualdeen egoera soziolinguistikoarekin. Hortaz, ondokoa izan da euskarak 2001-2011 bitartean eskualdeka izan duen bilakaera:

29. taula. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera EAEko eskualdeen arabera, 2001-2011(%).

		Bizilagunak guztira		Euskaldunak		Euskaldun hartzaileak		Erdaldunak	
		2001	2011	2001	2011	2001	2011	2001	2011
ARABA	Aiaraldea ¹⁹⁹	31.321	32.634	21,9	27,8	20,3	20,9	57,8	51,4
	Añana ²⁰⁰	4.522	5.660	7	16,2	11,7	18,6	81,4	65,3
	Arabako Errioxa	9.533	10.934	12,9	20,8	10,6	15,2	76,5	63,9
	Arabako Lautada	217.825	241.368	14,9	21,9	20,4	19,6	64,7	58,5
	Gorbeialdea	6.502	8.220	37,5	41,4	15,9	18,4	46,6	40,2
	Mendialdea	3.013	3.080	11,5	20	10,2	14,9	78,3	65,1
BIZKAIA	Arratia-Nerbioi	20.246	22.151	56,4	54,1	13,1	16,8	30,6	29,1
	Bilbo Handia	828.162	827.392	16,5	23,1	21,3	22	62,2	54,8
	Busturialdea ²⁰¹	42.164	43.593	75,4	72	11,6	11,9	13,1	16,1
	Durangaldea	86.077	91.956	47,2	48,5	16,7	17,9	36,1	33,6
	Enkarterri	28.514	30.237	12,8	21,5	17,4	21,5	69,8	56,9
	Lea-Artibai ²⁰²	24.973	25.036	87,5	81,2	5,7	7,7	6,8	11,1
	Plentzia-Mungia	42.558	50.912	47,3	48,8	18,2	21,5	34,5	29,7
GIPUZKOA	Bidasoa Beherea	67.815	71.627	38,2	40,3	14,9	19,2	47	40,5
	Debabarrena ²⁰³	51.923	51.624	60,3	58,1	12,1	15	27,7	26,9
	Debagoiena	59.142	58.442	65,7	62,8	10,7	13,9	23,7	23,3
	Donostialdea	295.838	305.728	39,1	43,4	19,2	19,8	41,8	36,8
	Goierri	60.293	62.997	61,8	59,4	10,4	14,1	27,8	26,5
	Tolosaldea	41.900	44.217	72,2	70,6	11,6	12,6	16,2	16,8
	Urola Kosta	62.637	68.328	80,1	76	7,7	9,3	12,2	14,6
	EAE	1.984.958	2.056.136	32,2	36,4	18,2	19,3	49,6	44,3

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Taulan bildutako datuek agerian uzten dute hizkuntza-gaitasunak 2001-2011 bitartean izan duen bilakaeraren arabera bi multzo berezitu daitezkeela: batetik, EAEko 20 eskualdeetatik 12tan euskaldunen kopuruak gora egin du. Hori gertatu da Arabako eskualde guztietan, Bizkaiko lau eskualdetan (Bilbo Handia, Durangaldea, Enkarterriak eta Plentzia-Mungia) eta Gipuzkoako bi eskualdetan (Donostialdea eta Bidasoa

¹⁹⁹ .- Lan honetan Inkesta Soziolinguistikoak erabilitako eskualde-izenak erabili dira. Aiaraldea eskualdeari Eustatek beste izen bate maten dio: Kantauri Arabarra.

²⁰⁰ .- Eustaten arabera Arabako Ibarrek dira.

²⁰¹ .- Eustaten arabera Gernika-Bermeo da.

²⁰² .- Eustaten arabera Markina-Ondarroa da.

²⁰³ .- Eustaten arabera Deba Beherea da.

Beherea). Kontuan hartzekoa da eskualde horietako biztanleriak oso bilakaera desberdina izan duela hamarkada horretan, batzuek galerak izan dituzte, Arabako Mendialdeak eta Bilbo Handiak esaterako eta beste batzuek, ordea, irabazi handiak, Aiaraldea, Añana, Gorbeialdea edo Plentzia-Mungiaren kasuak dira. Bestetik, gainontzeko 8 eskualdeetan euskaldunen kopuruak behera egin du 2001-2011 bitartean eta gainera beherakada euskaldunen ehunekorik handienak biltzen dituzten eskualdeetan gertatu da: Lea-Artibai, Urola Kosta, Busturialdea, Tolosaldea, Debagoiena, Goierri, Debabarrena eta Arratia-Nerbioi. Bost Gipuzkoakoak eta beste hirurak Bizkaikoak. Aurreko multzoan aipatu dugun bezala, honetan ere biztanleriak bilakaera ezberdina izan du denboran zehar. Batzuetan gora egin du, adibidez Urola Kostan, Tolosaldean, Arratia-Nerbioi eta Busturialdean eta beste batzuetan, esaterako Debabarrenan, Debagoienan, Goierri eta Lea-Artibain galeren bidea hartu du.

Lurraldez lurraldekako eta eskualdez eskualdeko azterketarekin batera, oso interesgarria da hizkuntza-gaitasunaren bilakaera gune soziolinguistikoak aintzat hartuz aztertzea. Euskarari dagokionez 4 gune soziolinguistiko bereizten dira:

- lehen gunea: euskaldunak %20 baino gutxiago dira.
- bigarren gunea: euskaldunak %20 eta %50 bitartean.
- hirugarren gunea: euskaldunak %50 eta %80 artean.
- laugarren gunea: euskaldunak % 80 baino gehiago.

Kasu honetan datuak Eustatek eskaintzen ditu; beraz, 5 urtetik gorako unibertsoa hartzen du aintzat eta horrez gain, bada 1981etik 2011 bitartean izandako aldaketa arakatzeko modua.

30. taula. Bost urte edo gehiagoko biztanleriaren bilakaera guneko soziolinguistikoen arabera, 1981 eta 2011.

	Euskaldunak (>-5urte)		Udalerrri-kopurua	
	1981	2011	1981	2011
Guneak				
Lehen gunea (<%20)	75.278	31.403	82	22
Bigarren gunea (%20-50)	146.986	384.243	37	80
Hirugarren gunea (%50-80)	156.440	280.008	52	87
Laugarren gunea (>%80)	69.072	53.528	79	62
EAE	447.776	749.182	250	251*

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak.

*Ziortza-Bolibar udalerria ere sartu da. 2004an onartu baitzen udalerrri hau Markina-Xemeinetik desanexionatzea (EHAA: 2005/01/27)

Azpimarratzekoa da 2011n udalerrri gutxiago daudela lehen eta laugarren gunetan eta hiru hamarkadetan asko hasi direla bigarren eta hirugarren gunek.

Lehen gunean bost urte edo gehiagoko 178.591 pertsona bizi ziren 2011n eta 22 udalerrri daude, horietatik bat ere ez Gipuzkoan. Gune honetako udalerrri handienak Barakaldo, Santurtzi, Sestao eta Arabak Oion dira. Gainontzekoak txikiak dira, 500 biztanle baino gutxiagokoak.

Bigarren gunea, hau da, euskaldunak %20 eta %50 diren gunea da 1981-2011 bitarteko hiru hamarkadetan gehien hazi dena, 37 udalerrri izatetik 80 izatera iritsi da eta. Izan ere, biztanle gehien dituzten udalerrri asko, Bilbo, Gasteiz edo Getxo adibidez, lehen gunetik bigarren gunera pasatu dira denbor-tarte horretan. Bertan bizi da EAEko bost urtetik gorako biztanleriaren erdia baino gehiago 2011n (1.365.969 pertsona) eta bertan daude EAEko euskaldunen erdia baino gehiago. Hiru hiriburuak eta 50.000 biztanletik gorako hiri guztiak bigarren guneko soziolinguistikoen daude, Barakaldo izan ezik. Era berean, 20.000 biztanletik gorako hiri gehienak, Itsasadarraren Ezkerraldeko udalerrriak izan ezik guneko honetan daude.

Hirugarren gunek ere udalerrriak eta euskaldunak irabazi dituzte nabarmen. 1981ean zituenak baino 35 udalerrri gehiago ditu 2011n, gehienak 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak dira, Zarautz, Arrasate eta Eibar izan ezik. Guztira bost

urtetik gorako 448.083 pertsona bizi da bertan eta gune honetan kokatzen da euskaldun guztien herena pasatxo.

Laugarren guneak; hots, euskaldunak %80 baino gehigo dituen udalerriak biltzen dituenak, lehenengoarekin gertatu bezala, udalerriak eta biztanleak galdu ditu denboran zehar. 62 udalerrri dira 2011n (Arabian Aramaio bakarrik) eta Azpeitia eta Lekeitio izan ezik, gainontzekoak 5.000 biztanle baino gutxiago dituzte.

Orain arte ikusitakoaren arabera, beraz, hizkuntza-gaitasunak gora egin du EAEn. Horrekin batera, hizkuntza baten biziberritzean funtsezkoa den beste fenomeno bat ere gertatu da gurean: euskararen erabilera hazi egin da. Erabileraren hazkundera gaitasunarena baino apalagoa izan da eta alde hori erabileran eragiten duten bi faktorek azaltzen dute: erraztasunak eta harreman-sareak. Kontuan hartu behar da euskarak irabazi dituen euskaldunen artean gehiengoak lehen hizkuntza erdara duela eta hortaz euskaraz aritzeko erraztasun urriagoa duela. Horrez gain gehienak gune erdaldunetan bizi dira. Hala ere, azken urteetako bilakaera aztertuz esan daiteke, zalantzarik gabe, erabilerak gora egin duela EAEn.

Dena den, gaitasunarekin gertatzen zen bezala, erabilera-eremuetan ere alde handiak daude lurralde batetik bestera. Gipuzkoan, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak 5 puntu egin du gora 1991-2011 epealdian (%33,5etik %39ra), Bizkaian ia lau puntu irabazi ditu (%9,1etik %12,8ra) eta azkenik Araban ere ia lau puntu egin du gora (%0,5etik %4,3ra).

1991-2011 bitarteko bi hamarkadetan euskararen erabilerak hazkunde nabarmena izan du bereziki gazteenen artean; esaterako 14,4 puntu irabazi ditu 16 eta 24 urtekoen artean eta 8,1 puntu 25 eta 34 urtekoen artean. 65 urtetik gorakoan artean berriz, behera egin du.

31. taula. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, adinaren arabera. EAE, 1991-2011 (%)

	Adina				
	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
1991	25,3	16,6	13,3	14,2	12,4
2001	20,6	15,5	16,6	16,6	18,9
2011	19,3	16,7	19,7	22,3	26,8

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Euskararen erabilerak eremuaren arabera izan duen bilakaera aztertzen badugu esan beharra dago hazkundera handiagoa izan dela eremu formalean (bankuak, osasun-zerbitzuak, udal-zerbitzuak...) etxe barruan eta eremu hurbilean (lagunekin auzokideekin, lankideekin) baino.

32. taula. Etxean, eremu hurbilean eta eremu formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2011 (%)

	1991	2001	2011
Etxean (orokorra)	17,3	17,0	17,2
Lagunekin	16,1	18,2	21,4
Lankideekin	15,4	18,0	24,6
Dendariekin	14,8	16,9	20,4
Bankukoekin	14,4	19,9	21,2
Osasun-zerbitzukoekin	8,3	14,1	19,8
Udal-zerbitzukoekin	13,9	20,0	24,7

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Erabilerari dagokionez, gorakadarik handiena osasun-zerbitzuetan (11,5 puntuko irabazia) eta udal-zerbitzuetan (10,9 puntuko irabazia) gertatu da.

Beraz, euskarak euskaldunak irabazi ditu nabarmen, horren lekuko hizkuntza-gaitasunean izandako gorakada baina ez da joera bera gertatzen erabilerarekin. Hori azaltzeko funtsezkoa da lehen hizkuntza kontuan hartzea, hau da, umeak 3 urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntza edo hizkuntzak. 2011n EAEko lau biztanletik hiruk erdara (gaztelania edo beste bat) zuen lehen hizkuntza. Bestalde, azpimarratzekoa da 1991-2011 epealdian, atzeritarren etorrera dela eta etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza

bat jaso dutenen ehunekoak nola egin duen gora, %1,5 izatetik %3,8 izatera igaro baita (Bizkaian eta Gipuzkoan bi puntuko igoera izan zuen bitartean, Araban ia 4 puntu egin zuen gora).

Atal honekin bukatzeko, euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak nolako bilakaera izan duen azalduko da. 1991-2011 denbora-tartean, euskara sustatzearen aldekoen ehunekoak 7 puntuko igoera izan du.

33. taula. Euskara sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. EAE, 1991-2011 (%).

	1991	2001	2011
Alde	55,0	58,0	62,0
Ez alde, ez aurka ²⁰⁴	31,0	32,0	26,0
Aurka	14,0	10,0	12,0

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Euskararekiko jarrera guztiz lotuta dago hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskaldunen kasuan ia 10etik bederatzi daude euskara sustatzearen alde eta erdaldunen artean ia hamarretik bost. Euskara sustatzearen aldeko jarrera handiagoa da Gipuzkoan (%75), Bizkaian (%59) eta Araban (%48) baino.

Honaino euskarak egin duen bidearen argazkia zenbakitan. Daturik esanguratsuenak ondokoak dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko euskaldunek etenbage egin dute gora. V. inkesta soziolinguistikoaren arabera, 2011n EAEn 16 urte edo gehiagoko 600.000 euskaldun daude, 1991n baino 181.000 gehiago²⁰⁵.

²⁰⁴ .- Ez alde, ez aurka dauden herena baino gehiago etorkinak (%37) eta guraso etorkinak dituztenak (%30) dira.

²⁰⁵ .- Inkestaren datuetara jo beharrean V. Mapa Soziolinguistikoak eskaintzen dituen hartu ezker, kopurua are handiagoa da, mapa 5 urte edo gehiagoko biztanleriaren datuekin osatzen delako. Maparen arabera 2011n EAEn 749.182 euskaldun daude. V. Mapan elebidun, elebidun hartzaile eta erdaldun kategoriak erabili beharrean beste hiru hauek agertzen dira: euskaldunak (inkestako elebidunen parekide), euskaldun hartzaileak (inkestako elebidun hartzaileen parekideak) eta erdaldunak. Bakoitza nola ulertu behar den azaltzen da mapan: "euskalduna gai da euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko; euskaldun hartzailea gai da euskaraz ondo ulertzeko, nahiz eta ondo ez hitz egin. Bestela, ondo ulertzeko gai ez bada, gai da zailtasunez bada ere, hitz egiteko. Erdalduna ez da gai ez euskaraz ulertzeko ezta hitz egiteko ere" (V. Mapa, 29).

- Gipuzkoa da euskaldun gehien dituen lurraldea. Bertan, 2011ko datuen arabera 16 urte edo gehiagoko biztanleen erdia euskalduna da (%49,9), Bizkaian laurdena (%25,4) eta Araban ez da bostenera iristen (%16,8)²⁰⁶.
- Adinari erreparatuta, euskaldunen portzentajerik handiena adin-multzo gazteenean dago: 16 eta 24 urte bitartekoen %60 euskalduna da.
- Euskararen erabilerak ere gora egin du EAEn. 1991eko datuekin alderatuta 2011n erabilerak 4,5 puntu irabazi ditu eta “biztanleen %20k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du” (V. Inkesta, 2011: 125).
- Erabilera gehiago hazi da eremu formaletan, batez ere osasun- eta udal-zerbitzuetan, etxean baino.
- Euskararen erabilerak izan duen hazkundera ezagutzak izan duena baino apalagoa da. Bien arteko aldea ulertzeko aintzat hartu behar da erabileran eragiten duten bi faktore daudela: hizkuntza erabiltzeko erraztasuna eta harreman-sarea. Euskaldunen ia erdia lehen eta bigarren guneko soziolinguistikoetan bizi da eta horietako gehienek etxeko-giroa eta harreman-sare erdaldunak dituzte.
- Azkenik, jarrerari dagokienez, euskara sustatzearen aldeko jarrerak zazpi puntu irabazi ditu 1991-2011 epealdian. Hala, 2011n 16 urte edo gehiago duten EAeko hamar biztanletik sei euskara sustatzearen alde daude.

Horixe Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek eta gizarte-eragileek euskara biziberritzeko egindako ahaleginaren emaitzak. Jaurlaritzaren ekimena ezinbestekoa izan da hizkuntzari behar zuen lege-estatusa eskaintzeko eta hizkuntza-politikak diseinatu eta horiek egikaritzeko tresnak eta baliabideak martxan jartzeko. Baliabide ekonomiko gehien ondorengoetaratzerara bideratu du diru Eusko Jaurlaritzak; hots, hezkuntza-sistemara eta herritarren euskalduntze-alfabetatzera. Publikoak ez diren euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko xedearekin, berriz

²⁰⁶ .- V. mapa soziolinguistikoaren arabera, 5 urte edo gehiagoko bizilagunak hartzen dituen kontuan, datuak are hobeto dira: Araban euskaldunen portzentajea %22,9 da, Bizkaian %30,3 eta Gipuzkoan %52,6.

sustapenerako ezarritako hamar eurotik bat bideratu du, eta euro horretatik zentimo gehien prentsa idatzira joan da betidanik; lehen urratsak XIX. mendean egin zituen sektorerara.

Goazen, labur bada ere, euskarazko prentsa idatziaren ibilbide historikoaren zertzelada batzuk ematera. Iraganera begiratzea, oraina ulertu eta etorkizuna jorrazteko baliagarri izan daitekeelako; baita ikerketa honen kasuan ere.

2.2.2. EUSKARAZKO PRENTSA IDATZIAREN IBILBIDEA: BERANDU SORTZETIK UGARI LORATZERA

Euskarazko prentsa idatziaren sorrera eta garapena fenomeno berantiarra da. Inguru hurbilean, Espainian eta Frantzian, baziren aldizkariak XVII. mendetik. Hemen, ordea, XIX. mendearen erdira arte ez dira izango kazeta-lan moduan har daitezkeen lehen testuak edo ekoizpenak. Atzerapena, nagusiki, bi arrazoirengatik azaldu daiteke. Batetik, prentsa idatziaren sorrera hizkuntzaren beraren bilakaerari lotuta dagoelako. Euskara ahozko hizkuntza izan da hainbat mendetan zehar. Erromantzeak edota baladak izan ziren berriak jakinarazi eta zabaltzeko bitartekoak XIV. eta XV. mendeetan eta ondorioz, euskaraz idatzitako informazio-argitalpenek berandu egin zituzten lehen urratsak. Bestetik, inprenta ez zen Euskal Herrira heldu XVI. mendera arte. Ordukoa da euskarazko lehen liburua, 1545ean Bordelen argitaratu zen Bernart Etxepare apaizaren *Linguae Vasconum Primitiae*.

2.2.2.1. LEHEN KAZETARITZA TESTUETATIK GERRA ZIBILERA

Euskaraz ekoiztutako kazetaritzari buruzko hamaika azterketa sistematiko egin dituen Javier Díaz Nociren arabera, almanakak dira euskarazko kazetaritzaren hastapenak ikertzerakoan ezinbesteko abiapuntua²⁰⁷ (Díaz Noci, 1995: 28). Horietako

²⁰⁷.- Abiapuntua almanakak izan arren, euskaraz badago aipatzeko moduko beste aitzindari bat, 1766an Baionan argitaratu zen *errelazio* bat: *Jaun Dauphin cenaren eritassuneco circunstancia berecien errelacionea, haren Coffesorac arguitarat emana*. Ez zen benetako aldizkaria, eta frantsesetik itzulitako testu hartan gertakari baten berri ematen zen, Frantziako erregearen aitaren heriotzaren berri hain zuzen. Javier Díaz Nocik honelaxe azaltzen du zer den *errelazioa*: “Errelazioak ez dira aldizkariak, baizik eta noizbehinka gertakizun zehatz eta garrantzitsu baten berri emateko argitaratzen diren orriskak” (Díaz Nozi, 1996).

batzuek egutegi hutsak ziren, baina bazeuden helburutzat informazioa zabaltzea zutenak ere. Horien artean, aipatzekoa da Jose Paulo Uribarri albaitari arabarrak 1815ean kaleratu zuen *Egutegi eusquerascoa*. Almanaka hura, euskaraz ezer argitaratzea ezinezkoa zela zioen batekin egindako apustu baten ondorioz kaleratu zuen Uribarrik. Baina egun bakar bateko kontua izan zen, apustuaren galtzaileak ez zuelako bere hitza bete; alegia, ez zituen argitalpenaren gastuak ordaindu.

Aurrekariak aurrekari, euskarazko prentsaren hasiera lehen gerra karlistaren testuinguruan kokatu behar da. 1834ko maiatzaren 5ean eta 30ean *El Correo del Norte. Periódico político, literario y comercial* izenekoan argitaratu ziren euskaraz idatziko lehen bi kazeta-testuak²⁰⁸. Nekazariei zuzendurikoak ziren, apaiz eta jauntxo karlistengandik urruntzeko eskatuz, eta aldi berean, liberalen ideietara hurbiltzeko mezuarekin.

Hala ere, euskara hutsezko lehen kazeta ez da 1848 arte argitaratuko: Agosti Xaho idazle zuberotar eta politikari errepublikazale sutsuaren *Uskal Herrico Gaset*a, birritan kaleratu zena, 1848ko maiatzean eta ekainean. Xahoren ekimena gizarte gatazka eta xurien (monarkikoak eta elizkoiak) eta gorrien (errepublikazaleak) arteko polarizazio politiko handiko sasoiari gauzatu zen. Aldi berean, pizgarri izan zen aldarrikapenak, gero eta indartsuagoa den prentsaren bidez, euskaraz ere, zabaldu nahi zituztenentzat.

*Uskal Herrico Gaset*a argitaratu zen urtearen amaieran ikusiko du argia Jean-Baptiste Etcheberry apaizaren *Escualdun laborarien adiskidea* izeneko almanakak; denborarekin egutegi hutsa izatetik, informazioa eta eduki politikoa izatera iritsi zen argitalpena. Hortik aurrera, ugartuz joan ziren Ipar Euskal Herrian sortutako almanakak. Horren adibide, gorriek edo errepublikazaleek 1852an kaleratutako *Egunari berria edo conseillu oneco almanaca* edo urte batzuk geroagoko *Almanaca berria edo egunaria*, hau ere errepublikazaleena.

²⁰⁸ .- Lehen karlistadaren garaikoa eta Donostiako liberalen ekimenez sortutakoa. Hasieran asmoa zen euskara hutsezko aldizkaria argitaratzea, baina azkenean, gaztelaniaz atera zuten.

Hego Euskal Herrian, sasoi berean, ez zen era horretako argitalpenik falta izan, baina kasu honetan ez zuten Iparraldekoen kutsu politikorik. Gehienak egutegi hutsak ziren, nekazal-informazioa zabaltzekoak²⁰⁹ edo izaera literarioa²¹⁰ zutenak.

Ipar eta Hego Euskal Herrian ez ezik, garai hartan Amerikan ere izan zuen bilakaera euskarazko prentsak. Izan ere, XIX. mendearen bigarren erdialdean, Hego Amerikara joandako euskaldunen ekimenez sortutako zenbait kazeta nabarmendu daitezke. Lehena, Buenos Aireseko *Laurac Bat* elkarteak izen berberaz 1878an kaleratutako aldizkaria izan zen, eta ondoren etorri ziren beste hainbat; adibidez, *Vasconia* (1898), *Haritza* (1898), *Euskal Herria* (1898) eta *Irrintzi* (1904). Denetan gaztelania nagusi zen arren, euskarari txokoren bat egiten zitzaion.

Euskara hutsez egindako prentsaren lehen aztarnak, berriz, Estatu Batuetan daude. Hantxe, Ipar Euskal Herriko joandako bi legegizon euskaldunen eskutik sortuko baitira *Escualdun Gazeta* (1885-1886) eta *California-ko Eskual Herria* (1893). Lehenak, hiru zenbaki kaleratu zituen San Franciscon, bigarrenak, berriz, arrakasta lortu eta 1897ra arte iraun zuen. *California-ko Eskual Herria* astekariaren arima izan zen Jean Pierre Goytinok honelaxe laburtzen zuen egitasmoaren xedea:

“Bertze nazione guziek beren gazetak badituzte eta gu haimbertze garelarik hedatuak Pacifiko-ko kostan ez da yustu baizik yunta guten denac berriketari baten medioz. Gure interesak, -hemen bederen-igualtsuak dira eta gure mintzo ederraren medioz bat bertzen berriak yakiten ahal ditugu gure lekhutik hihuitu gabe(...)” (Díaz Noci, 1995: 43).

California-ko Eskual Herria astekariak, esan bezala, lau urte iraun zituen. Goytinoren ondorengo belaunaldikoek, gero eta amerikartuago zeudenez, denborarekin ez zuten euskal kazeta baten beharrik izan. Dena den, *Escualdun Gazetak* eta, bereziki, *California-ko Eskual Herriak* “hasiera eman zieten euskaraz idatzitako genero informatiboari, Europako euskal aldizkariak –Kontinente Zaharreko beste

²⁰⁹ .- *Euscaldun necazarien adisquidea eta guaria* (1865-1866).

²¹⁰ .- Serafín Barojaren lan literario bana duten *Santo Tomasco Feriya* (1877) eta *Almanaque bilingüe (erderaz eta eusqueraz) para el año 1879*.

hizkuntzeko aldizkariak bezala- ideologikoagoak izaten bait ziren”(Díaz Noci, 1995: 45).

Denboran iraunkortasunez kaleratutako lehenengo argitalpenei buruz hitz egiteko, Ipar Euskal Herrira jo behar da berriro, bertan sortu zirelako *Le Réveil Basque* (1886-1895) eta *Eskualduna* (1887-1944). Lehena, Martial Henri Berdoly errepublikazale dirudunaren eskutik jaioa, elebiduna zen, frantsesez idatzitako testuak ere bazituelako. *Eskualduna* aldiz, euskara hutsezkoa zen, Louis Etcheverry kontserbadoreak bultzatutakoa *Le Revéil Basque* argitalpenari aurka egiteko eta azkenean gailendu zitzaiona. Familia, nekazal mundua, fedea eta euskara izan ziren 57 urtez *Eskualduna* hauspotu zuten oinarriak. 1944an Frantziako gobernuak *Eskualduna* debekatu zuen frankismoaren eta nazien alde agertu zelako²¹¹. Hala ere, euskarazko prentsa ez da geratuko aipatzeko moduko ordezkariarik gabe. Izan ere, *Eskualduna* itxi zuten urte berean, 1944an, gaur egun oraindik kaleratzen den *Herria* astekaria jarri zuen martxan Pierre Laffitek.

Orain arte egindako errepasso azkar honek agerian uzten du euskal kazetaritzaren garapena XIX. mendean Ipar Euskal Herriko apaizen edo Ipar Euskal Herritik Amerikara joandakoen ekimenari esker gertatu zela. XX. mendean, ordea, Hegoaldeak hartuko du protagonismoa.

Hegoaldean, euskarazko prentsa modernoaren hastapenetako izen nabarmena aipatu beharko bagenu, Resurrección María de Azkue²¹² litzateke zalantzarik gabe. Azkuek oso argi zeukan kazetaritza funtsezkoa zela hizkuntza zabaltzeko. ”Euskaldunak ez zeuden batere ohituta euskaraz idatzitako libururik, eta are gutxiago, aldizkaririk ikusten”(Díaz Noci, 1995: 102). Hortaz, Azkuek zereginari heldu eta alderdien menpe ez zeuden bi aldizkari argitaratu zituen: *Euskalzale* (1897-1899) eta *Ibaizabal* (1902-1903). *Euskaltzale* astekariak denetariko berriak ematen zituen euskaraz (batez ere bizkaieraz). Hiru urtez kaleratu zen, eta Bizkaiko gobernadore zibilak euskaraz eta

²¹¹ .- Hitlerren hitzaldiren bat ere itzuli zuten.

²¹² .- Azkue aitzindaria izan zen arlo askotan: lehen ikastolaren sortzailea, musikaria, hiztegiilea, gramatikalaria, Bizkaiko Foru Aldundiak sorturiko lehen Euskara Katedra eskuratu zuen (Sabino Arana eta Miguel Unamuno izan zituen lehiakide) eta Euskaltzaindiaren lehen presidentea ere izan zen.

erdaraz idaztera behartu nahi zuelako itxi zuten. Baina Azkuek ez zuen etsi, eta hiru urtera *Ibaizabal* aldizkaria kaleratu zuen, Ebaristo Bustintza *Kirikiñoren* laguntzaz. Aldizkariak *Euskalzaleren* lekua hartu eta haren zereginari jarraitu zion, eta korrespontsal-sarea osatu zuten herrietako informazioa jasotzeko.

“Hego Euskal Herrian, *Ibaizabalek* hasiera ematen dio geroagoko euskal aldizkari ia guztietan errepikatuko den informazio mota oso garrantzitsu bati, herrietako informazioari, informazio lokalari” (Díaz Noci, 1995: 104).

Ahaleginak egin arren, *Ibaizabalek* ez zuen lortu zorrak ordaintzeko dirurik ezta bideragarritasuna ziurtatzeko irakurle nahikorik izaterik ere, eta azkenean, 1903an, itxi egin zuten.

Hego Euskal Herrian, XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasierako urteetan prentsa abertzale jelkideak lehen urratsak eman zituen Sabino Arana Goiriren eta bere jarraitzaile jelkideen ekimenez. Argitalpenetan euskarak leku gutxi badu ere, aipatzeko modukoak dira *Bizkaitarra* (1894-1895), *Baserritarra* (1897), *Bizkaitarra*²¹³ (1909-13), *Gipuzkoarra* (1907-1913), *Arabarra*²¹⁴ (1912-1933), *Napartarra* (1911-1919), *La Patria* (1901-1903), *Aberri* (1906-1908) eta *Aberrija* (1908).

XX. mendearen bigarren eta hirugarren hamarkadetan, euskarak eta euskal kulturak garai oparoak izan zituen. Horren lekuko dira Eusko ikaskuntzaren²¹⁵ eta Euskaltzaindiaren²¹⁶ sorrera.

“Euskarak, lehenago hainbestetan gutxietsia, bazeukan nolabaiteko prestigio eta estatusa ematen zion erakundea. Hori, esan beharrik ez dago, laguntza eta adore handia izan zen euskaltzaleen proiektu guztietarako, kazetaritza barne” (Díaz Noci, 1995: 136).

²¹³ .- Bigarren *Bizkaitarra* hau Sabino Arana hil ondoren agertu zen, berak aurretik sortutakoaren izen berberarekin.

²¹⁴ .- *Arabarra* jarraipen finkorik gabe argitaratu zuten 1912-1933 urte bitartean (1912-13, 1918-19, 1922 eta 1932-33).

²¹⁵ .- Lehen Batzarra 1918ko udan egin zen Oñatin, eta irailaren 7an osatu zen Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntzaren araudia.

²¹⁶ .- 1919an jaio zen, Resurrección María de Azkueren zuzendaritzapean.

Euskaltzaindiak bere emaitzak eta iritziak hedatzeko aldizkaria kaleratzeari ekin zion 1920tik, *Euskera. Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak* izenburukoa.

Giro akademikoan izandako bulkadarekin batera, euskal kazetagitza urrats nabarmenak eman zituen garai hartan. Kopuruari begiratu, aldizkari-kopuru handia kaleratuko da. Zenbait aipatzearen: erlijiosoen artean, *Jaungoiko-Zale* (1912- 1936) *Jesus'en Biotzaren Deya* (1917-1936) eta *Ekin* (1932-1936); kulturalen artean, abertzaleek argitaratu zuten euskara hutsezko *Euzko-Deya* aldizkaria (1916-1923) eta *Hermes* (1917-1922); prentsa abertzalearen esparruko *Euzkadi*²¹⁷ egunkari jeltzale elebiduna (1913-1937), *Euzko*²¹⁸ Bizkaian (eta bizkaieraz) jeltzaleek euskara hutsez landutako aldizkaria (1932-1934), ANV- EAEn *Tierra Vasca* egunkari elebiduna (1933-1934), Iruñeko kaputxinoek sortutako *Zeruko Argia* hilabetekari erlijiosoa²¹⁹ (1919-1936), Gipuzkoako frantziskotarren eskutik etorri zen *Aranzazu* (1921-1936) eta bereziki hurrengo lerroetan jorratu den Donostiako *Argia* astekaria (1921-1936).

Argiaren lehen alea 1921eko apirilaren 21ean kaleratu zen. Berau sortu zutenak oso argi zeukaten zeintzuk ziren egitasmoaren hiru ardatzak: lehena, hizkuntza, euskara; bigarrena, fedea, katolikotasuna; eta hirugarrena, nekazaritza, hori zelako nahi zuten publikoa. Hasieratik, gai kultural eta erlijiosoei batera, beste era bateko eduki informatiboak jorratu zituzten astekarian, horretarako era guztietako kazeta-baliabideak erabiliz: argazkiak, marrazkiak, grafikoak... Horrez gain, *Argiak* kazetaritza modernoaren beste hainbat arlotako ekimenak sustatu zituen, irratigintza²²⁰ edo komikigintza²²¹ arlokoak, esaterako. Primo de Riveraren garaian, zentsura gogorra izan arren, hura gainditzea lortu zuen, eta 1929-1930 bitartean euskal egunkaria sortzeko

²¹⁷ .- *Euzkadi* informazio orokorreko egunkaria izan zen. Politikaz aparte erlijio-, gizarte-, kultura- edota kirol-gaiak jorratzen zituen, eta bazuen *Euzkel atala* izeneko ere. Bertan aritu ziren Ebaristo Bustintza *Kirikiño*, Nikolas Ormaetxea *Orix*e eta Esteban Urkiaga *Lauaxeta*.

²¹⁸ .- Javier Díaz Nociren arabera, *Euzkoren* garrantzia azpimarratu eta aldarrikatu beharra dago. Bere esanetan, *Euzko* izan zen "jeltzaleek euskara hutsezko egunkaria sortzeko egin zuten lehen saiakera, garai hartako egunkariekin eta batez ere *Euzkadirekin* antzik handiena zuen aldizkaria" (Díaz Noci, 1995: 193).

²¹⁹ .- Erlijiosoa zen arren, ez zen erlijiosoentzat bakarrik egina; jende guztientzako eta Euskal Herriko bazter guztietara iritsi nahi zuen. Hala, 1921ean, Nafarroan, sorlekuan baino gehiago saltzen zen Gipuzkoan eta Bizkaian.

²²⁰ .- Ander Artzelus eta Joseba Zubimendi, *Argiako* bi kazetariak egin zituzten euskarazko lehen irratia 1925etik aurrera Radio San Sebastián irradian.

²²¹ .- 1927an *Argiak* laguntza eman zuen Euskal Herriko eta euskara hutsezko lehen komiki-aldizkaria kaleratzeko: *Txistu*.

asmoari lotu zitzaioan bete betean. Baina arazo ekonomikoak zirela medio, proiektua ez zen gauzatu. 1935ean euskara hutsezko lehen *magazinea* bihurtzeko ahaleginari ekin zioten. Hasieran, ideologikoki zuhertasunez jokatu bazuten ere, Errepublika garaian abertzaletasun jeltzidearen alde agertu ziren *Argian*. Ez hori bakarrik, Euzko Nekazarien Bazkuna izeneko sindikatu katoliko-abertzalea sortzen lagundu zuen eta haren bozeramale bihurtu zen. “Azken finean, mugimendu zabal horretan tokatu zitzaion egin beharra bete zuen. Euskararen alde hasieran, kutsu politikorik gabe, politika arazoetan murgildurik gero, eta nekazarietzako sindikato bat sortuz, azkenik” (Díaz Noci, 1995: 173).

2.2.2.2. GERRA ZIBILA ETA FRANKISMOA: EUSKARA HUTSEZKO LEHEN EGUNKARIA, ERABATEKO DEBEKUA ETA ARGITALPEN BERRIAK

Espainiako Gerra Zibilaren garaian Hego Euskal Herrian zeuden hainbat aldizkari desagertu egin ziren, horien artean *Argia*. Hala ere, euskarazko prentsak oso berri ona eta ezohikoa izan zuen, euskara hutsezko lehen egunkaria sortu zutelako: *Eguna*. 1937ko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 13ra arte kaleratu zen, Bilbo Francoren esku geratu arte. Estepan Urkiaga *Lauaxeta* egon zen sorburuan, eta egunkariak sei hilabeteko bizitza laburra izan bazuen ere, tinko aritu zen euskal gobernuaren, nekazarien eta kristautasunaren defentsan, faxismoari aurre egiten eta euskara eta euskal kultura hedatzen. *Eguna* gudariei kemena emateko sortu bazen ere, aspaldiko asmoa eta erronka gauzatzeko balio izan zuen, euskara komunikazio-tresnatzat zuen egunkari bat izatea, alegia.

Frankismoaren garaipen armatuaren ondoren, debekatu egin zen euskararen jendaurreko edozein erabilera, ahozkoa zein idatzizkoa. Ondorioz, hizkuntza desagertu egin zen esparru komunikatibotik, eta 1962ra arte ez zen Hego Euskal Herrian euskarazko artikulurik onartu egunkarietan. Hala ere, erbesterako bidea hartu zuten milaka euskaldunek egindako ahaleginari esker,²²² eta bertan, beste askok

²²² .- Hainbat dira Ipar Euskal Herrian eta Amerikan kaleratu zituzten aldizkariak. Adibide bakan batzuk jartzearen: *Euzko-Enda. Boletín mensual dedicado a la unión de la raza vasca. Bulletin mensuel dédié à l'union de la race basque* (Baiona, 1939-1940), *Anayak* (Paris, 1939), *Gernika* (Donibane Lohitzune, 1948-1953), *Argia* (Caracas eta New York, 1946-48, ez du zerikusirik gerra aurretik Euskal Herrian

klandestinitatean arriskatutakoari esker, ez ziren itzali behin betiko euskarazko kazetaritza eta hizkuntza bera.

Berrogeita hamarreko hamarkadaren azken urteetan, eta bereziki hirurogeikotik aurrera, zailtasun eta debekuei aurre egin eta euskal hizkuntza eta kultura berreskuratzeko egitasmo ugari sortu eta hedatu ziren. Horra ikastolen eta helduen euskalduntze-alfabetatzerako mugimendua edota euskal liburuen ekoizpena (23 ziren 1960an).

Testuinguru horretan kokatu behar dira garai hartako euskarazko argitalpenik garrantzitsuenak: *Karmel* (1950), *Anaitasuna* (1953), *Yakin*²²³ (1956), *Goiz-Argi* astekaria (1958), umeentzako *Umeen Deia* (1959) eta *Kili Kili* (1966) eta Donostiako *Zeruko Argia*²²⁴ astekaria (1963). Horiek denek hainbat urtetan egin zuten lanak berebiziko garrantzia eta eragina izan zuen batetik, egungo euskarazko hedabide inprimatuen garapenean eta, bestetik, horrekin batera, euskarari eta euskaldun orori espazio berriak eskaintzeko zereginen. Horren lekuko *Zeruko Argia* astekariak 1970eko azaroaren 1eko alean aldarrikatzen zuena:

“(Zeruko Argia) euskaldun desberdinentzat egiten da: sinestun eta sinesgabe, ezkertiar eta eskuindar, aurrerakoi eta atzerakoi, baserritar eta kaletar, jakitun eta ezjakin, zahar eta gazte, hemengo eta mugaz handikako. Bagara zerbaitetan bat: euskaldunak, euskaldun menperatuak, gaitzetsiak, minduak, erasoak, urrutiratuak. Batzen gaituzten alderdi eta lokarriei eutsi nahi genieke. Batzen gaituen sua indartu. *Zeruko Argiak* oso irekia, talde jakin bati lotu gabea eta lotan daudenen esnalea izan nahi du. Euskal iritzi eta jokabideetan dabilzan guztientzat irekia. Idazle eta irakurle, denon artean egingo dugu Z.A. bizi, gaurko, ireki. Esnatzaile eta euskalduna” (Zeruko Argia, 1970: lehen alea).

kaleratu zenarekin), *Euzko Gogoa* (1949-1959, Guatemala). Hego Euskal Herrian, berriz, aipamena merezi dute bi aldizkarik: Larrinagako kartzelan eskuz egindako *Espetxean* izenekoa (1937-1938) eta Donostian argitaratutako *Egan* kultur hiruhilabetekaria (1948-1953).

²²³ .- *Jakin* aldizkariak gorabehera ugari izan zituen zentsurarekin. 1962an eta 1963an debekatu egin zuten, eta beste horrenbeste gertatu zen 1969an. Orduan Manuel Fraga iribarne espainiako ministroak abertzale eta progresista izatea leporatu zion aldizkariari eta debekatu egin zuen. Ez zen berriro kaleratu 1977ra arte.

²²⁴ .- *Zeruko Argia* gerra zibilarekin desagertu zen. Lerro hauetan aipatzen den 1963ko data baino lehenago beste bolada bat izan zuen. Iruñeko kaputxinoek hilero euskara hutsez kaleratu zuten 1954tik aurrera, eta 1958rako 5.000 harpidedun lortu zituen. Hala ere, gero eta arazo ekonomiko larriagoak izaten hasi zen, eta gainera, Francoren gobernuak eduki guztien herena gaztelaniaz argitaratzeko agindua eman zion. Ez zioten aginduari men egin, eta 1960an itxi egin zuten.

Aurrera begirako asmoen adierazpen horretatik abiatuta, etapa berria urratzeari ekingo dio aldizkariak. Izan ere, *Zeruko Argiarentzat* ez ezik, euskarazko idatzizkoen esparrura aldaketa sakonak ekarriko dituen aroaren bezperatan gaude.

2.2.2.3. XX. MENDEAREN AZKEN LAURDENA: EUSKARAZKO KAZETARITZAREN GARAI EMANKORRA

Francoren heriotzaren ondoren aro berria hasiko da arlo guztietan, politikoan, sozialean zein kultura-arloan. Euskarazko kazetaritza modernoaren eta profesionalaren abiapuntutzat har daiteke 1976. urtea, euskal prentsaren urtea izendatutakoa. Horren lekuko *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkariak urratu zuten aldaketa-bidea. *Zeruko Argiaren* kasuan, kaputxinoek jabe izateari utzi eta langileek kooperatiba osatu ondoren, 1980ko urriaren 2an *Argia*²²⁵ astekariaren lehen alea kaleratu zuten Elixabete Garmendia kazetariaren zuzendaritzapean.

“Donostiako astekari hau euskal komunikabideen arloko zenbait egitasmo oso garrantzitsuen aitzindari eta bultzatzaile bihurtu zen, hala nola euskara hutsezko aldizkari batena, Euskal Herriko lehen komikiaren edo euskarazko irratia” (Díaz Noci, 1995: 145).

Aro berria eta berritzailea hasi zuen *Argia* aldizkariak, edukietan zein lan egiteko moduetan nabaritu zena.

“Aldaketak gaietan ere nabaritu ziren. Orduan pil-pilean zeudenak ekarri zituzten aldizkariaren orrialdeetara: euskal unibertsitatea, amnistia, erreferenduma, azken batean politikak dinamika bat inposatzen zuen. Profesionalago bihurtzea izan zuten asmoa. Argi zegoen euskal prentsak iraun behar baldin bazuen, ingurukoarekin parekatu behar zela(...). Espainian bezala, newsmagazineen ordua zen, euskara hutsezko egunkaria artean urrun ikusten baitzen” (Díaz Noci, 2009: 325).

Anaitasuna aldizkariak ere, *Argiaren* antzeko bideari ekin zion. 1976an Juan Mari Torreldaik²²⁶ hartu zuen zuzendaritza, kutsu erlijiosoko edukiak alde batera utzi

²²⁵ .- Kaputxinoek izen ezberdina jartzeko eskatu zuten, horregatik desagertu zen *Zeruko hitza*. Izena aldatzearekin batera beste bi baldintza jarri zituzten fraideek: aldizkariak Okendo kalean zuten egoitza uztea eta zeukan zorra ordaintzea. Iturri batzuen arabera, zorra 600.000 pezetakoa (3.606 euro) zen, beste batzuen arabera, berriz, milioi bat pezetakoa (6.010 euro).

²²⁶ .- *Joan Alzibar* ezizena erabiltzen zuen Torreldaik bertan.

eta Espainiako kazetaritzarekin zerikusirik ez zuen eredu, abertzalea eta sozialista, lantzea proposatu zuten. Hizkuntzaren erabileraren aldetik ere azpimarratzekoa da *Anaitasunan* agertu zirela batueraz idatzitako lehen testuak. 1980an *Argia*, *Anaitasuna*, *Jakin*, *Saski Naski* eta Baionako *Herria* aldizkariak *Prentsa Euskaraz* izeneko kanpaina jarri zuten martxan, *Euskal prentsarik gabe ez dago Euskal Herririk* lemapean. Helburua bakoitzarentzako 4.000 harpidedun lortzea izan zen, baina ez zuten lortu. Arrazoi ekonomikoak zirela eta *Anaitasuna* 1983an itxi zuten eta bertan ibilitako zenbait kazetari *Argiara* joan ziren.

Urte haietan, hainbat aldizkari elebidun plazaratu ziren talde politikoen eskutik, gehienak iraupen laburrekoak. Adibidez, *Punto y Hora de Euskal Herria* (1976, esker abertzalearen ingurukoa), *Garaia* (1977, ESB), *Berriak* (1976, euskal sozialisten ingurukoa), *Euzkadi* (1979, PNV). Sasoi berekoak dira bere burua elebiduntzat aurkeztu zuten bi egunkari ere, *Deia*²²⁷ eta *Egin*²²⁸, baina bietan euskararen presentzia txikia izan zen hasieratik, eta urrituz joan da urteekin. Auzitegi Nazionalak *Egin* ixteko agindua eman zuen 1998an, eta horren lekukoa *Gara* egunkariak hartu zuten.

Hizkuntzaren inguruan sortutako interesak eta arlo guztietan euskara berreskuratzeko abiatu ziren ekimenek eragin zuzena izan zuten euskaraz idatzizko argitalpenen bilakaeran. Esandakoaren isla dira kazetagintza espezializatuaren esparruan sortutako aldizkariak. Horien aitzindari kontsidera daiteke *Elhuyar*, 1974an izen bereko zientzia-elkartek²²⁹ kaleratutakoa. Ondoren etorriko direnen zerrenda luzea eta denetarikoa da; banaka batzuk aipatzearen: literatur-aldizkarien artean *Ustela* (1975-1976), *Pott* (1977-1980), *Susa* (1979-1994), *Oh!Euzkadi* (1980-1983), *Maiatz* (1982), *Idatz&Mintz* (1982), *Literatur Gazeta* (1982-1989), edo *Hegats* (1989); *RIEV, Revista Internacional de los Estudios Vascos*²³⁰ (1983); euskalgintzari lotutakoen

²²⁷ .- *Deia*, Euzko Alderdi Jeltzalearen egitasmoa, 1977ko martxoan kaleratu zen lehen aldiz Iparragirre enpresaren eskutik.

²²⁸ .- *Egin*, ezker abertzalearen egitasmoa, 1977ko irailean kaleratu zen lehen aldiz Orain enpresaren eskutik.

²²⁹ .- *Elhuyar* Zientzia-elkartea 1972an jaio zen, eta bi urtera hasi ziren izen bereko aldizkaria kaleratzen. 2002an Elhuyar Fundazioa sortu zuten.

²³⁰ .- RIEV aldizkaria Julio de Urquijok sortu zuen 1907an, eta garaiko argitalpen zientifiko prestigiotsuena izan zen. Julio de Urquijo *La Gaceta del Norte* egunkariaren zuzendari izandako José María de Urquijoren anaia zen eta gaztetik ekin zion euskara eta ikerkuntza lantzeari. *RIEV, Revista Internacional de los Estudios Vascos* aldizkarian euskaraz, gazteleraz, ingelesez, frantsesez, alemanez

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

artean daude *Aizu* eta *Habe*, (biak 1981ekoak), eta *Zutabe* (1983-1996); soziolinguistika-esparruan espezializatuta dago *BAT* aldizkaria (1989), gizarte-zientzietako gaiak jorratzen ditu *Uztaro* aldizkariak (1990), hezkuntza-arlokoak *Hik hazi* izenekoak (1995), haurrentzat landutakoan artean *Xirrixta* (1992-1998), *Kometa* (1996-1998) eta *Ipurbeltz* (1977- 2008).

Errepaso labur honetan, agerian geratu den bezala, XX. mendeko azken bi hamarkadak bereziki emankorrak izan ziren euskarazko hedabidegintzarentzat. Eta ez soilik idatzizkoentzat. Ikus-entzunezkoei dagokienez, Euskadi irratiak 1982an ekin zion euskara hutsezko emanaldiari,²³¹ eta 1983ko Gabon zaharrean estreinatu zen ETB, euskara hutsezko telebista²³². Prentsa idatziaren arloan, berriz, hutsean geratu ziren zenbait ahaleginen ondoren²³³, Orain eta Iparragirre enpresek aurkeztutako proiektuak²³⁴ babestu zituen Jaurlaritzak eta horri esker *Hemen*²³⁵ (1986-1990) eta *Eguna*²³⁶ (1986-1990) astekariak lau urtez izan ziren merkatuan irakurgai.

zein portugesez idatzitako testuak argitaratu zituzten. Hasieran, euskarak testu guztien %15a betetzen bazuen ere, portzentaje hori %5era murriztu zen 1912tik 1936ra bitartean. 1936an desagertu egin zen eta 1983an berrargitaratu.

²³¹ .- Aurretik, 1976ko martxoaren 27an Herri Irratiak euskara hutsezko 24 orduko emanaldia egin zuen Euskaltzaindiaren omenez. Dena den, euskara irratiari askoz lehenago sartu zen, 1925ean Joseba Zubimendi eta Ander Artzelus kazetariak lehen euskarazko irratsaioak egin zituzten Radio San Sebastián irratiari. 50eko hamarkadan, zenbait irratsaio egiten dira euskaraz *Segura* Irratian (1956), *Arrate* Irratian (1959) eta Loiolako *Herri Irratian* (1961).

²³² .- Euskarak telebistan 1975ean egin zituen lehen urratsak. Urte hartan Televisión Española (TVE) Bilbon zeukan zentroan *Euskalerría* izeneko saioa hasi zen eskaintzen euskaraz. Saioa 1977an desagertu zen.

²³³ .- 1976an euskaldun-talde batek euskara hutsezko egunkaria kaleratzeko aspaldiko asmoari heldu zion. Taldeak Santiago Aizarna eta Manu Oñatibia gipuzkoar kazetariak zituen buru eta publikoki agertu ziren asmoa gauzatzearen alde. Izena ere eman zioten buruan zuten egunkariari: *Erria*. Baina hilabete gutxitara asmoa asmo geratu zen. Urte batzuetara, 1982an, Mikel Atxagak (*Deia* egunkariako kazetaria eta aurretik *Argian* ibilitakoa) euskara hutsezko 28 orriko egunkaria sortzeko proposatu zuen. Horretarako, beharrezkotzat jotzen zuen hainbat egunkariako gehigarrietan sakabanaturik zeuden edukiak biltzea (*Deia*, *Egin*, *La Voz de Euskadi* eta *Diario Vasco*). Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektuari 105 milioi pezetako diru-laguntza emango ziola agindu zuen, baina azkenean ekimena ezerezean geratu zen.

²³⁴ .- Lehiaketan Orain eta Iparragirre enpresek aurkeztutako proiektuez gain, hirugarren bat ere izan zen, *Argia* astekariarena, baina honek Jaurlaritzaren ezetza jaso zuen.

²³⁵ .- *Hemen* ostiralero kaleratu zuten. Zuzendaria Joxean Agirre izan zen. Lehen zenbakia 1986ko irailaren 26an agertu zen. Honela zioen egun hartako lehen orrian kokatutako *Zita goiztiar bat zurekin* izenburuko tarteak: "Paper guztiak haizatzen dituen zikloi baten begian sentitzen gara. Egunkari berri bat ari da jaiotzen. Zurrunbiloak teletipoak barreiatu ditu, serpentinak bezala espiral festiboak osatuz. Mahai gainean bokadilo ausikiak ikusi daitezke eta zerbeza latak. Udazkenean egunkari bat jaiotzen da herri honetan eta, hala ere, unkitu egiten gaitu gertakariak, edozein jaiotzak unkitzen gaituen bezala..." On

“Tras estos cuatro años experimentales y al cesar de recibir la subvención que les permitía sobrevivir, ninguna de las dos empresas se planteó convertir los semanarios en diarios. Entre los dos ni siquiera llegaron nunca a vender más de 7.000 ejemplares, 3.000 menos que los previstos por el Gobierno Vasco” (Díaz Noci, 2012: 216).

Egoera horrela, 1988an Eusko Legebiltzarreko talde guztiek euskarazko merkatuaren ikerketa egiteko eskatu zioten Jaurlaritzari. Lana Nafarroako CIES enpresak burutu zuen eta hiru eszenatoki posible aztertzen zituen arren (egunkari bat, bi ala hiru agertzearen arabera) ondorio argia erakutsi zuen: Euskal Herrian ez zegoen lekurik euskara hutsezko egunkari bat baino gehiago kaleratzeko.

Hala ere, bi proiektu aritu ziren lehia bizian; bata herri-ekimenetik sortua²³⁷, Egunkaria Sortzen S.L. enpresaren ingurukoa eta bestea instituzionala, Kultura Sailak babestu eta Jose Ramón Belokiren ardurapekoa²³⁸. Hamaika tirabiren ondoren²³⁹ Egunkaria Sortzen gailendu zen, eta 1990eko abenduaren 6an *Euskaldunon Egunkaria* kaleratu zuten, euskara hutsezko egunkaria²⁴⁰. 2003ko otsailean guardia zibilek itxi egin zuten, Espainiako Auzitegi Nazionaleko Juan del Olmo epailearen aginduz. Baina gizartearen erantzuna berehalakoa izan zen eta 2003ko ekainaren 21ean kaleratu zen *Berria*²⁴¹ egunkaria.

egin dagizula gosariak eta kalterik ez `hemen´ labetik atera berri honek”. Azken zenbakia berriz, 1990eko irailaren 28koa izan zen. 1989ko datuen arabera, 3.500 ale saltzen zituen.

²³⁶ .- Lehen zenbakia 1986ko urriaren 5koa eta azkena 1990eko irailaren 27koa. Gerra Zibilean izandako egunkariaren izena hartu zuen. Ostegunero kaleratzen zen eta 1989ko datuen arabera 2.500 ale saltzen zituen. Zuzendaria Luis Alberto Aranberri *Amatiño* izan zen, eta kazetari gehienak *Deia* egunkaritik zetozen.

²³⁷ .- Ekimen honetan parte hartu zuten izen esanguratsuen artean Martin Ugalde, Juan Mari Torrealdei, Nerea Azurmendi, Josu Landa, José Miguel Zumalabe, Txema Auzmendi, Iñaki Zabaleta, Luzien Etxezaharreta, Hasier Etxeberria, Koldo Eizagirre eta Txema Auzmendi.

²³⁸ .- *Egunero* deitzen zen zortzi orrialdeko prototipoa ere aurkeztu zuten 1990eko abuztuan, baina hura ezerezean geratu zen.

²³⁹ .- Ikerketa honen analisi-atalean sakontasunez aztertzen da Jaurlaritzaren eta idatzizko sektorearen arteko harremanak denboran zehar izan duen bilakaera. Hemen, beraz, zertzelada labur batzuk baino ez ditugu jasoko.

²⁴⁰ .- *Euskaldunon Egunkaria* jaio zen egun berean, beste kazeta baten 0 zenbakia doan banatu zuen Jaurlaritzak Durangoko Azokan. *Euskaldunon Egunkaria* dagoeneko kalean zegoela, Jaurlaritzako Kultura Sailak euskarazko egunkaria argitaratzeko baldintza ekonomikoei buruzko beste azterketa bat enkargatu zion Irigoyen & Pérez de Calleja Consultores enpresari. Egindako lanaren arabera, euskarazko egunkaria kaleratzeak 900 milioi pezetako kostua izango zuen. Proiektu hau ere, ezerezean geratu zen.

²⁴¹ .- *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta gero, *Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT)* izeneko enpresa sortu zuten *Berria* martxan jartzeko. Horrekin batera, *EKT*ren zereginen artean egongo da eskualdeetako egunkariak (*Hitzak*) sustatu eta garatzea.

Nabarmentzekoak baita XX. mendearen amaieran, eta hurrengoaren lehen urteetan argia ikusi zuten beste bi kazeta-ekimen. Lehena, 1999ko azaroan kaleratu zen egunkari formatuko *Zabalik* astekaria. Correo taldeak (egungo Vocento) bultzatuta jaio zen, euskararen esparruko irakurle guztiengana iristeko helburuarekin. Aisialdiari begirako edukiak argitaratzeari ekin zion, 2002an kolorez hornitu zuten eta 2005ean eraberritu²⁴², baina ez zuen arrakastarik izan, eta 2005ko abenduaren 29an kaleratu zuen azken alea. Bigarrena, 2003ko urriaren 7an lehen zenbakia kioskoetan salgai jarri zuen *Aldaketa 16* astekaria. *Cambio 16* izenekoaren parekide zen, baina ez itzulpen hutsa. Ekonomia, politika, kultura zein gizarte-arloko gaiak eskaintzen zituen. Gorka Landaburu zuzendariaren hitzetan “euskararen esparrua zabaltzeko asmoarekin jaiotako hedabidea zen” (*Berría*, 2003-10-09: 18). *Aldaketa 16* astekariak sei urte iraun zituen. 2010ean, arazo ekonomikoak tarteko, desagertu egin zen.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi tokian tokiko idatzizko hedabideak. Fenomeno honen lehen aztarnak Espainiako II Errepublikaren garaian kokatu daitezke. 1931n, *Arrati'ko Deya* agertu zen, Eulogio Gorostiaga apaiz zeanuriarrak bultzatuta, inguruko berriak euskaraz zabaltzeko. Gero, 50eko hamarkadakoak ditugu *Eibar* (1952), *Ondarribi'ko Izparrak* (1956), Etxebarri-Barinagako *Gure Erria* (1957) eta Zornotzako *Sirimiri Zornozano* (1959).

Tokian tokiko prentsak garapen handia izango du 80ko hamarkadatik aurrera, eta ordura arte zegoen hutsune bat betetzera etorriko da.

“Nazio edota probintzi mailako prentsak betetzen ez duen hutsunea eta eskaintzen ez dituen aukerak hartzen ditu prentsa lokalak bere gain, hau da, herri eta eskualdeko informazioa zuzenki eta era sakonean plazaratzen du” (Elkoroberezibar, 1992: 11).

Hau da, tokiko argitalpenek bertatik bertara jardungo dute, garatu gabe zegoen informazio-esparrua euskarak hartu eta landuko du. Jon Sarasuak argudiatu zuen moduan (1996b: 24) “produktuaren doanekotasuna eta maila horretako kompetentziarik eza, lidergoa” bilakatuko dira arrakastaren giltzarri.

²⁴² .- Formatu txikiagoa, orrialde gehiago eta *El Correo* eta *El Diario Vasco* egunkariekin erosteko aukera 0,35 euro gehiago ordainduz.

Hainbat faktorek lagundu eta erraztu zuten tokian tokikoen hazkunde-prozesua, hala nola, teknologia-arloan izandako aurrerakuntzak (auto-edizioa), euskara batua izatea, erakunde publikoetatik agertutako jarrera irekiak eta eskainitako laguntzak edota Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza fakultatean prestakuntza osoa euskaraz osatutako lehen belaunaldiak lanerako prest egotea. Baina, zalantza barik, bilakaera arrakastatsuen arrazoi nagusia landutako edukien gertutasuna eta herri-ekimenaren bultzada izan ziren. Euskara elkarteek eta kultura elkarteek sustatuta jaio ziren tokian tokiko hedabide gehienak, eta gizarte-integratziorako tresna bilakatu ziren. "(...) faktore kohesionatzaile eta integratziorako tresna direla; bizitza soziala estimulatu, lagundu eta zuzpertzeko bitartekari" (Muniozguren, 1993: 233).

Euskal Autonomia Erkidegoan *Arrasate Press* izan zen tokikoen artean aitzindaria. 1988an, Arrasate Euskaldundu Dezagun (AED) elkartearen eskutik argitaratuta jaio zen²⁴³. *Arrasate Press* eta Nafarroan urte batzuk lehenago²⁴⁴ kaleratutako *Ttapi-ttapa* eredu izan ziren osteko urteetan hainbat herri eta eskualdeetan sortu ziren beste hainbat argitalpenentzat. Denek zuten helburu tokiko informazioa euskaraz landu eta hedatzea, eta bide batez, hizkuntzaren normalizazioan laguntzea.

"80ko hamarkadaren hasiera hartan, euskarak, komunikatziorako hizkuntza gisa, aldizkari lokal jaioberrietan aurkitu zuen habia epela. Eta informazio lokalaren eta euskararen uztartze horretatik etorri da euskarazko kazetaritzaren garapenean atalik itxuraz xumeena, baina errealtatean sendoen txertatua" (Garmendia, 2005: 23).

Tokian tokiko argitalpenek hizkuntzaren normalizazioaren alde eginiko lanak aurpegi anitz ditu; horietako pare bati helduz, batetik, Fernando Muniozgurenek 1997an zioen moduan, euskaraz irakurtzea sustatu du,

²⁴³ .- Lehen zenbakia Arrasateko 1.700 etxetan banatu zuten doan eta herritarren harrera beroa lortu zuen. Hala, 1990ean dagoeneko 7.000 ale banatzen zituzten (Arrieta, 2005: 156). *Arrasate Press* ez zen izan AEDren ekimenez garai hartan sortutako idatzizko hedabide bakarra. Urte bat geroago, 1989an *Jazten* soziolinguistikari *buruzko* aldizkaria sortu zuten euskararen aldeko gizarte-mugimenduetan ari zirenei zuzenduta. Guztira hamar zenbaki kaleratu zituen, 1994an desagertu zen arte.

²⁴⁴ .- *Ttapi-ttapa* hiruhilabetekari gisa sortu zen. Lehen alea 1981eko neguan argitaratu zuten, *offset*-ez erreproduzitu, berrogei orrialdekoa eta zuribeltzean. Laurehun aleko tirada izan zuen eta nagusiki Bortzirietan banatu zen. Hamar bat pertsonen osatutako lagun-talde batek bultzatu zuen egitasmoa, geroago, 1984an, *Ttapi-ttapa* izeneko kultur elkartea sortuko zutenak. 1989ko udazkenean, *Arrasate Press* en eredu aintzat hartu eta goitik behera berri zuten aldizkaria.

“Argi dago irakurzaletasuna sustatzeko garrantzitsua dela gurea, etxeetako postontzietan euskara hutsez jende gehienak jasotzen duen gauza bakarra edo bakarretakoa baikara” (Muniozguren, 1997: 76).

Eta bestetik, Miguel Angel Elkoroberzibarrek azpimarratu zuenez, euskaraz egindako publizitatearen suspertzaile izan ziren tokikoak,

“Prensa lokalak inoiz publizitaterik egin ez duten merkatariak jarri ditu publizitatea egiten. (...) Euskarak ere saltzen du, nahiz eta orain arte euskara baztertuta egon den publizitatearen munduan” (Elkoroberezibar, 1992: 16).

Tokian tokiko hedabideak loratu ahala, horien arteko koordinazioa lantzeko harreman gune finkoa izatearen beharra ere sortuko da.

“ (...) erakundeekiko eta merkatarietikiko harremanak errazteko, subentzio-bideak bilatzeko, material teknologikoa erostean erraztasun handiagoak izateko, diru-laguntza bereziak, azkarragoak, indartsuagoak izateko, edukinari buruzko arazoak jorrazteko, jendearen prestakuntza hobetzeko, esperientziak ezagutzeko, gauzak eztabaidatzeko...”(Askoren artean, 1992: 66).

1990eko hamarkadaren hasieran ahalegin bat edo beste izan zen arren, urteak igaroko ziren ideia benetan gauzatu arte. Tokian tokiko hedabide gehienak Topagunea, Euskara Elkarteen eta Herri Aldizkarien Federazioan²⁴⁵ bildu ziren 1997an. Eta hala, sinergiak lortzeko ahaleginetan helduko dira erronka berriak ekarriko dituen mende berrira.

2.2.2.4. XXI. MENDEA: ERRONKA ETA ESTRATEGIA BERRIETARAKO SASOIA

Mendearen eta milurtekoaren azken urteetan erronka, joera, estilo eta eskaintza berriak gauzatu dira euskarazko hedabide inprimatuen sektorean. Esanguratsuenak ondokoak:

²⁴⁵ .- Topagunearen sorrerarako lehen urratsa 1996ko ekainaren 15ean egin zen. Orduan eratu zen Euskara Elkarteen Topagunea, eta hilabete batzuetara, 1997an, herri-eskualde aldizkarien batzordea eratu zen. Hortik sortuko da Euskara Elkarteen eta Herri Aldizkarien Topagunea. Helburu nagusitzat euskararen erabileran eragitea izango du, eta horretarako, funtsezkotzat joko du euskaldun orok euskarazko astekari bat eskura izatea.

1.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan izandako iraultzaz ohartu eta, pixkanaka bada ere, ziberespazioan kokatzeko zereginari²⁴⁶ eta horrek eskaini zitzakeen aukerak arakatzeari ekin zioten. *Ttipi-ttapa* eta *Argia* izan ziren horretan aitzindari, lehenak web orrialdea jarri zuen Interneten 1996ko irailean, eta bigarrenak eduki aberats eta aukera anitzez hornitu zuen sarea 1997tik, hasiera hasieratik eskaintza elektronikoari balio erantsia emanez²⁴⁷. Gero, horien bide bera jorratzeari ekin zioten gainontzeko euskarazko argitalpenek, haiseran inguruko inertziak bultzatuta eta sarean euskarri fisikoan argitaratzen zutenaren kalko hutsa jarritz, baina denborarekin gehienek izaera eta ezaugarri bereizidun edukiak eskainiz.

2.- Egunerokoen eskaintza handitu egiten da. Fenomeno honek bi zutabe izango ditu. Bata, *Hernaniko Kronika*, tokiko informazioa lantzen duen lehen egunkaria dugu. 2000. urteko ekainean kaleratu zen, Dobera Euskara Elkarteak babestuta. Bestea, 2001etik aurrera Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKT) bultzatutako *Hitza* egunkariak, horiek ere zenbait eskualdeetako informazioa egunero jaso, landu eta hedatzeko helburuarekin sortuak. Lehena *Tolosaldean Egunero*²⁴⁸ deiturikoa (gerora *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza* izango zena). Ondorengo urteetan, prozesuak EKTren eta tokian tokiko elkarten eta hedabideen arteko tirabirak²⁴⁹ eragin bazituen ere, *Hitza*

²⁴⁶ .- Mundu Osorako Amarauna edo World Wide Web delakoa 1991ko udan jarri zuten Interneten. Javier Díaz Noci eta Koldi Mesok adierazi duten moduan, "Interneten eta batez ere WWWren zabalkundea egokia dela kazetaritza berria, handik gutxira Europan, baita Espainian ere eta, berandu samar Euskal Herrian. Erdarazkoak eta euskarazkoak" (Díaz Noci eta Meso, 1999: 91-92). Euskadin sarerako urratsa egin zuen lehen egunkaria *Diario Vasco* izan zen 1995ean. Hasieran argitalpen elektronikoa asterokoa izan zen eta paperezko bertsioan eskainitako albisteen laburpenak eskaintzen zituen. Baina 1996tik aurrera egunerokoa bihurtuko da. *Diario Vascorekin* batera, 1995ean sarean ziren *Avui*, *El Periódico de Catalunya*, *La Vanguardia*, *El Mundo* eta *Abc*. *El País* eta *El Correo* egunkaria, berriz, 1996tik aurrera. *Euskaldunon* Egunkariak ere 1996an ekin zion sareratzeko zereginari, baina 1998ra artekoa ez da euskarazko egunkariak sortutakoa izango baizik eta irakurle batek, Josu Azanzak, albiste garrantzitsuenekin prestatutakoa. *Egin* egunkaria ez zen inoiz sarean egon. Bere ondorengoa, *Gara* eta *Deia* 1999tik daude Interneten. Aldizkarien artean *Ttipi-Ttapa* eta *Argiaren* ondoren, goiztiarren artean aipa daitezke Uribe Kostako *Santamariñe*, eta ondoren, Urretxuko *Otamatz*, Aretxabaletako *Aretxagazeta* eta *Bidasoaldeko Mobidak*.

²⁴⁷ .- Horren lekuko 1997an sortu zuten CD-ROMa, astekariak 1963-1997 bitartean kaleratutako elkarrizketa guztiak biltzen zituena.

²⁴⁸ .- Galtzaundi Euskara Elkartearen, eskualdeko gizarte eragileen eta *Euskaldunon Egunkariaren* arteko elkarlanaren emaitza izan zen.

²⁴⁹ .- Gaia landu duen Aitor Zuberogoitiaren iritziz "Tolosaldean ez ezik beste bazter batzuetan ere batzuek zera sentitu zutela: kanpotik zetorren eragile bat (*Egunkaria*) eurak aintzat hartu gabe euren esparru naturalean sartu guran zebilela" (Zuberogoitia, 2005: 278).

egunerokoen egitasmoa zabaldu egin zen²⁵⁰, batez ere Gipuzkoan, eta eredu berari²⁵¹ jarraitu zioten beste zenbait egunkarik.

3.- Ordura arte zeuden aldizkari askok maiztasunak handitu zituzten. Horrekin batera, tokiko idatzizko hedabideen bigarren belaunaldia hasi zen loratzen. Denen artean azpimarratzekoa da jardunbide multimediararen paradigma bilakatu den Goiena Komunikazio Taldea kooperatiba. Goio Aranak eta Aitor Zuberogoiak diotenez, 2000. urteko ekainean Debagoiena eskualdean eratu zen taldeak bi xede izan zituen sorreratik:

“Batetik, batzeko eta modu eraginkorragoan kudeatzeko Debagoieneko bederatzi²⁵² herrietako euskarazko tokiko hedabideak²⁵³ (komunikabideak eurak, baina baita erredakzio-taldeak, baliabideak eta egoitzak ere); eta bestetik, egituratzeko erakunde indartsu bat, gauza izango zena aurre egiteko ibarreko komunikazio-erronka berriei” (Arana eta Zuberogoiak; 2012: 76).

Hala sortu ziren *Goienkaria* (2000) eta *Asteleheneko Goienkaria* (2003). Mende berriko lehen hamarkadaren amaieran, 2010ean, Goiena Komunikazio Taldeak erabaki zuen izen bera ematea taldeko hedabide guztiei: *Goiena* (*Goiena papera, Asteleheneko Goiena, Goiena telebista...*).

Bestalde, aurretik azaldutako joera eta berrikuntzekin batera, finantziazioa izango da XXI. mendean ere euskarazko hedabideen buruhaustea eta erronka (ez soilik inprimatuena). Bakoitzak lortu dezakeen autofinantzaketa-mailaren araberakoa izango

²⁵⁰ .- 2003an *Oarsoaldeko Hitza* eta *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* sortu ziren, 2004an *Urola Kostako Hitza* eta *Goierriko Hitza* eta 2005ean *Irutxuloko Hitza* eta *Busturialdeko Hitza*.

²⁵¹ .- 2003tik aurrera kaleratutako *Hitzak* egunkariaren sorreretan parte hartu zuten eskualdeetako euskara elkarteak, bertako gizarte eragileak eta Euskara Komunikazio Taldea (EKT) enpresak (*Berria* martxan jartzeko sortutako enpresa).

²⁵² .- EAEko eskualdeen banaketa ofizialaren arabera, Debagoienak 8 herri ditu; Aramaiio Arabako eskualde batekoa litzateke (Gorbeia inguruak). Baina hala ere, betidanik sartu izan da Goiena Komunikazio taldearen lan-eremuan.

²⁵³ .- Aretxabaletako *Aretxagazeta*, Arrasateko *Arrasate Press*, Bergarako *Berrigara*, Elgetako *Goibekokale*, Antzuolako *Kontuola*, Aramaioko *Txirritola*, Leintz Gatzagako *Uratik* eta Eskoriatzako *Ze barri?*. Proiektuarekin bat egin zuten *Arrasate Telebista (ATB)* eta *Atxabalta Telebistak*, une hartan eskualdean zeuden euskarazko bi telebistek eta baita *Arrasate irratia* udal-lizentziadunak ere. Kanpo geratu ziren Eskoriatzako *Telesko* telebista elebiduna, Oñatiko *Kontzejupetik* hilabetekaria eta udal-lizentziadun *Oñati Irratia*.

direlako hedabidearen eguneroko jarduna, langileen lan-baldintzak eta ekoiztutako produktua.

“Autofinantzaketa lortzea da sekreturik handiena kazetal enpresa batek behar bezala lan egin dezan. Emaidza-kontua positiboa bada eta enpresak beste inoren laguntzarik behar ez badu, gauzak samurragoak izanen dira (...). Kazetal enpresek borroka egin behar dute euren emaitza-kontua osasuntsua izan dadin” (Molet, 1992 : 85).

Jordi Moletek hitz horiek aspaldi idatzi zituen arren, gaur bertan idatzita baleude bezala irakurri daitezke. Eta borroka horretan ari dira ikerketa honek aztergaitzat hartu duen denbora tartean (2005-2013) etengabeko berrikuntza, berregituratze eta hausnarketa prozesuan murgilduta ibili diren euskarazko hedabide inprimatuak. Berregituratze eta hausnarketa horren erakusgarri dira TOKIKOMen²⁵⁴ eta Hekimen²⁵⁵ elkartearen eraketa edota 2013ko urrian martxan jarri zen *Tolosaldeko Ataria* komunikazio-talde berria²⁵⁶. Hori guztia ahaztu gabe digitala nagusi den garaiotan, oraindik badirela paperezkoak sortzearen aldeko hautua egiten dutenak. Horren adibide dira Aiaraldea Arabako eskualdean 2013ko urriaren 3an abiatu zen

²⁵⁴ .- TOKIKOM, toki komunikabideen bateragunea, 2012ko otsailean Eibarren egindako batzarrean eratu zuten juridikoki Topagunean biltzen diren toki-hedabideek. Mikel Irizar TOKIKOMeko presidentek honelaxe laburbildu zituen egitasmoaren helburuak: “Esparru komunak elkarrekin kudeatzea, solaskidetzaz sendoa eraikitzea sektorearen eta erakundearen aurrean, eta bazkideen arteko integrazioa lantzea eta sustatzea. Horiek erakunde berriari jartzen zaizkion egitekoak” (*Berria*, 2014-02-20: 4). Tokiko hedabide guztiak ez dira TOKIKOMen bazkide. 2017ko urrian, ikerketa honi azken puntua jarri zitzaionean idatzizko 26 hedabide zeuden toki komunikabideen bateragunean: *Aiaraldea*, *Aikor!*, *Aiurri* (astekaria eta hamaboskaria), *Alea*, *Anboto*, *Astigarragako Kronika*, *Baleike*, *Barren*, *Berton*, *Geuria*, *Goiena*, *Guaixe*, *Hernaniko Kronika*, *Hiruka*, *Karkara*, *Mailope*, *Maxixatzen*, *Noaia*, *Pil-pilean*, *Prest!*, *Puntua*, *Ttipi-ttapa*, *Txintxarri*, *Urumeako Kronika* eta *Uztarria*. Horiez gain, bazkide ziren *28 Kanala telebista*, *Erlo telebista*, *Goiena telebista*, *Goierri telebista*, 9 irrati eta Internet bidezko beste 26 hedabide.

²⁵⁵ .- Hekimen 2012ko urtearen amaieran sortu zuten, euskarazko hedabide ez-publikoek ahots bakar batez hitz egiteko eta euskararen eremu komunikatiboa sendotzeko. Euskarazko hedabide guztiak ez dira Hekimenen partaide. Ikerketa honek azken puntua 2017ko urrian jarri zuen. Data horretan TOKIKOMen zeuden hedabideez gain, honako hedabide inprimatuak zeuden Hekimenen: *Aizu*, *Aldiri*, *Argia*, *Berria*, *Bertsolari*, *...eta kitto!*, *Elhuyar*, *GAUR8*, *Gazteberri*, *Gaztezulo*, *Goiberri*, *Goierriko Hitza*, *Lea-Artibai*, *Mutriku eta Busturialdeko Hitza*, *lurraldeetako Hitzak*, *Irria*, *Irutxuloko Hitza*, *Jakin*, *Oarso Bidasoko Hitza*, *TOKIKOM*, *Tolosaldeko ataria*, *Urola Kostako Hitza*, *Uztaro* eta *Zazpi Haizetara*. Horiez gain, Hekimenen dira irrati. telebista zein internet bidezko beste hainbat hedabide.

²⁵⁶ .- *Tolosaldeko Hitzak*, *Galtzaundi* aldizkariak eta *Txolarre irratia* bat egin zuten Tolosaldeko Komunikazio Taldea (TKT) sortzeko. Horren ondorioz, lehenengo biak kazeta bakar bihurtu ziren: *Ataria*. Bestalde, Interneteko gunea *Tolosaldeko Ataria* bihurtu zen, eta uhinetakoa *Ataria Irratia*. Hiru arrazoi nagusi daude batera jarduteko erabakiaren oinarrian: baliabideak optimizatzea, eraginkorragoak izateko ahalegina eta Tolosaldeko 28 herrietako erreferentzia informatiboa bihurtzea.

*Aiaraldea egunkaria*²⁵⁷, abenduan *Pop pilulak* izenarekin kaleratu zuten pop kulturari buruzko euskarazko fanzinea eta 2014 urtean aurkeztuko diren beste bi egitasmo: Bizkaiko Hego Uriberako *Geuria* hilabetekaria²⁵⁸ eta *Alea*, Arabako astekari²⁵⁹ berria (2015eko urtarrilean kaleratuko dena).

Aurreko paragrafoan aipatu diren azken bi hedabideak, *Geuria* eta *Alea* hain zuzen, ikerketa honek zehaztu duen denbora-mugatik kanpo sortutakoak dira. Hala ere, interesgarria da horiek ere jasotzea bi arrazoiengatik: batetik, hedabideen sektoreak, bereziki paperezkoak krisi-garaiak bizi dituen arren, halako egitasmoak hizkuntza gutxitu batean martxan jartzeko ekimena oraindik badela erakusten dutelako; eta bestetik, *Alea* astekariak bi ezaugarri esanguratsu biltzen dituelako: sinergia-ahaleginaren adibide delako eta Araban zabaltzen delako, euskarazko hedabideen eskaintza urrien den lurraldean.

Behin euskara hutsezko prentsak izan duen bilakaera historikoa errebasatuta, hurrengo urratsak paperezkoen kontsumoa aztertzeraz eramango gaitu. Orain ere, orokorretik, mundu osora hedatzen den landa zabaletik hasi eta euskara hutsezkoen ortuan kontsumoari dagokionez zer dagoen erakutsiko duen bidea egingo da.

2.2.3. HEDABIDE INPRIMATUEN KONTSUMOA

Kontsumoari eskainitako tarte honek osatuko du eraiki den aterpe teorikoa. Gizakumeok lanari eskaintzen diogun denboraren ondoren, hedabideen kontsumoa da eguneroko bizitzan ordu gehien “jaten” dituen jarduera. Baina ez hedabide inprimatuen kontsumoak baizik eta ikus-entzunezkoenak. Manuel Castellesek dioen moduan,

²⁵⁷ .- Proiektua Aiaraldea Komunikazio Leihoa elkarteak abiatu zuen. 2010ean *Aiaraldea.com* ataria jarri zuten martxan, 2011n Internet bidezko irratia eta paperezkoa eskualdean euskarari ahalik eta komunikazio-esparrurik zabalena emateko helburuarekin sortu zuten. *Aiaraldea egunkariak* 2014an eskatu zuen lehen aldiz Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntza.

²⁵⁸ .- Egitasmoa Basauriko aholku batzordearen eskutik sortu zen, udalak diruz babestuta. Ezaugarri nagusiak: 10.000 aleko botaldia hileroko eta berarekin batera webgunea eta kontuak Twitterren eta Facebooken. Helburu gisa Basauri, Galdakao, Arrigorriaga, Etxebarri eta Zaratamoko euskaldunengana iristea eta horientzako gertuko informazio-tresna erakargarria eta kalitatezkoa bilakatzea.

²⁵⁹ .- *Alea* astekaria GEU Gasteiz elkartearen, *Berria* egunkariaren eta *Goienaren* eta Arabako hainbat eragileren elkarlanari esker jaiotako egitasmoa da. 0 zenbakiaren aurkezpenean azaroaren 24an egin zen eta sustatzaileen esanetan, *Alea* astekaria euskararen normalizazioan eragiteko eta Arabako lurraldean informatiboki kohesionatzeko bokazioarekin jaio zen.

“(...) la radio y la televisión se han convertido en el entorno audiovisual con el que interactuamos de forma incesante y automática. Con mucha frecuencia, la televisión es, sobre todo, una presencia en casa” (Castells, 2005: 406).

Eta joera areagotu egin da Internet dugunetik. Internet geratzeko etorri da eta aldaketa handiak eragin ditu aisialdian zein hedabideen kontsumo-ohituretan. Pantailek inbaditu gaituzte, informazioa edonon dago, edukien sortzaileak inoiz baino gehiago dira, baina paradoxikoki paperezkoak ez dira sekula hain ahul egon. Julia Cagék honela azaltzen du egoera,

“Vivimos en el mejor y el peor de los tiempos. Desde cierto punto de vista, todo invita al optimismo: nunca ha habido tantos lectores de periódicos. Las estadísticas de lectores en línea provocan “vértigo” (...). Sin embargo, las estadísticas expresadas en decenas de millones de internautas descansan en buena medida sobre una ilusión. Como veremos, una vez reconducidas a la realidad, no dan pie al cuento de la lechera. Además, aunque lleguen a un público cada vez más amplio, los diarios no logran monetizar su nuevo público digital. Al contrario. A fuerza de correr en pos de ingresos publicitarios en línea de los que creen que depende su futuro, los diarios han perdido en todos los terrenos: en el de la calidad, y por lo tanto de la difusión en papel, y en el digital, por el que no consiguen cobrar. Y, mientras, los diarios aguardan a que caiga la noche” (Cagé, 2016: 12-13).

Gordina, beraz, panorama. Irakurleek, kontsumitzaileek nahi beste euskarritan dugu informazioa eta doan gainera. Beraz, dagoeneko ez gaude ordaintzeko prest. Baieztatutakoaren lekuko, hemendik bertatik aurrera aurkeztuko direnak.

2.2.3.1. PAPERETZKO PRENTSAREN BILAKERA: MUNDU OSORA HEDATU DEN GAINBEHERA BATEN KRONIKA

2006ko abuztuaren 24an, *The Economist* aldizkariaren lehen orriak hauxe zekarren: *The future of newspapers. Who killed the newspaper?*. Handik hiru urtera, 2009an, *The New York Times* egunkari ahalguztidunaren editoreari, Arthur Sulzberger jaunari, egin zioten elkarrizketa eta prentsa idatziaren etorkizunaz galdetuta, gizonak Titanic ontziarekin konparatu zituen egunkariak (Burgueño, 2008: 87). Sulzbergerrek ondokoa baieztatu zuen: “Even if the Titanic came in safely to New York Harbor, it was

still doomed (...) Twelve years earlier, two brothers invented the airplane”²⁶⁰ (Yuan, 2009). Eta hori baino gehiago, zenbait analistak, Philip Meyer kazetari eta ikerlariak esaterako, heriotza-data zehatza ere jarri diote paperean inprimatutako kazetaritzari: 2043. urtea (Meyer, 2009).

Batzuentzat titular eta baieztapen horiek guztiak tremendistak dira, gehiegizkoak, eta ez datoz bat paperezkoek munduan bizi duten egoerarekin. Izan ere, *World Association of Newspapers and News Publishers* erakundeak²⁶¹ urtero argitaratzen duen *World Press Trends* txostenak dio 2013an 2.500 milioi pertsonak irakurtzen zituztela egunkariak eta prentsaren zabalkundeak %2ko hazkundera izan zuela aurreko urtearekin alderatuz. Baina aipatu hazkundera ez da mundu osoan gertatu, baizik eta zenbait zonaldeetan kokatu da. Bereziki klase ertainak indartzen doazen eta banda zabala gutxi garatuta zuten Asiako, Latinoamerikako, Ekialde Hurbileko eta Afrikako herrialdeetan kokatzen zen. Paperezko prentsaren merkatuak ibilbide luzea eginda zuen Iparramerikan, Australian, Ozeanian eta Europan joera oso bestelakoa zen 2013an; gero eta jende gehiagok besarkatzen zituelako plataforma digitalak eta paperezkoak baztertu.

Laurehun urteko historia duten inprimatutakoek ez dituzte garai onak bizi herrialde garatuetan. Horren erakusgarri aipagarrienetakoak 2013an sona handiko bi egunkarirekin gertatutakoa. Batetik, abuztuan *The Washington Posten* jabeek *Amazon* enpresari saldu zioten egunkaria. Zergatik? goi-mailako kalitatezko kazetaritza eginez Estatu Batuetako presidente bat kargu uztera behartu zuen egunkaria hondoratuta zegoelako ekonomikoki. Bestetik, 2013ko abenduaren 20an munduko berripaper zaharrenak, *Lloyd's List* izenekoak, betirako itxi zuen paperezko bertsioa. Aurrerantzean, itsaso bidezko garraioaren industrian espezializatuta zegoen *Lloyd's*

²⁶⁰ .- Jose Manuel Burgueñok zuzenketa egiten dio Sulzberger jaunari. Titanic ontzia 1912an hondoratu zen eta Sulzbergerrek esandakoaren arabera Wright anaien asmakizuna 1900 urtean kokatuko litzateke. Baina Wilbur eta Orville Wrightek 1903an patentatu zuten euren asmakizuna.

²⁶¹ .- *World Association of Newspapers and News Publishers* erakundeak 18.000 argitalpenetik gora, 15.000 webgune eta 120 herrialdeetako 3.000 enpresatik gora biltzen ditu. Txostenaren emaitzek prentsa sektorearen balio osoaren %90 ordezkatzen dute.

List hedabideak edizio digitalari eutsiko dio bakarrik; 1734an sortutako egunkari honen irakurle gehienek teknologia berrien bidez jarraitzen dituztelako albisteak.

Mundu mailako neurria hartu duen krisi ekonomikoak eta teknologia digitalen arloan izandako bultzadari esker doako informazioa lortzeko zabaldutako aukerak etengabeko galera-bidean²⁶² jarri dituzte prentsak betidanik izan dituen finantziario-bide nagusiak: publizitatea eta aleen salmenta, hain zuzen ere. Horri inprimatuen krisia sakondu duten beste era bateko arrazoiak dira; batetik, prentsa idatziak “didn’t see the Internet coming” (Shirky, 2009) eta berandu hasi zen informazioa nahieran ekoiztu eta zabaltzeko gaitasuna duen euskarri berriaren aukerak kudeatzen, eta bestetik sektorearen barneko kausak nabarmendu dituzte zenbait egilek, esate baterako idatzizko prentsaren sinesgarritasunaren galera (Ramonet, 2005). Ondorioz, hedabide inprimatuen negozio-eredua kolokan baino, kinka larrian dago.

Prentsa inprimatuaren sorrera aro berri bati hasiera eman zion gizarte-aldaketaren akuilu izan zen (Eisenstein, 1978); hedabide elektronikoen garapenak berriz, gizabanako bakoitzaren eguneroko bizitzari, nortasunari eta harremanen esparruari eragin dio sakon “undermining the connection between physical place and social place” (Meyrowitz, 1985). Eta gaur egun gizateria beste jauzi bat egiten ari da, atomoetan oinarrituta zegoen mundu batetik bits delakoak jaun eta jabe diren beste mundu baterako jauzia. Nicholas Negropontek iragarritako aro digitalean ari gara murgiltzen erabat, berak “post-information age” moduan izendatu zuen aroan. Negropontek aurreikusi zuen banakako audientziak eta muturreraino pertsonalizatutako informazio-eskaintza izango zirela aro horren ezaugarriak.

“In the post-information age, we often have an audience the size of one. Everything is made to order, and information is extremely personalized (...) In being digital I am *me*, not a statistical subset (...) In the same ways that hypertext removes the limitations of the printed page, the post-information age will remove the limitations of geography. Digital living will include less and less dependence upon being in specific place at specific time, and the transmission of place itself will start to become possible” (Negroponte, 1995: 164-165).

²⁶² .- 2008-2013 bitartean paperezko prentsan kaleratutako publizitateak %17,9ko beherakada izan zuen Europan eta %29,6koa Iparramerikan. Prentsaren zabalkundeak, denbora tarte berean, %23ko beherakada Europan eta %10,2koa Iparramerikan. Iturria: 2014ko *World Press Trends* txostena.

Kontuan hartu behar da Negropontek 1995ean idatzi zituela goiko lerroak, Internet hastapenetan zegoenean; beraz, gaur eguneko testuinguruari erreparatuta onartu behar da gizonak bete betean asmatu zuela iragarpenarekin. Eta deskribatutako egoerak eragin itzela izan du hedabide inprimatuen sektorean, lehenago adierazi bezala, kinka larrian jartzerainokoa.

Egun, paperezko hainbat hedabide soberan omen daude han eta hemen. Ziurtzat ematen da urte gutxiren buruan asko eta asko desagertu egingo direla. Gure inguru hurbilean, hamaikatxo hedabidek itxi behar izan dituzte ateak ikerketak hartzen duen denbora bitartean. Adibidez, *Nora* bidaia aldizkaria eta *Le Journal du Pays Basque-Euskal Herriko Kazetak*. Lehenak, 2008an kaleratu zuen lehen zenbakia eta 2013ko urtarrilean azkena, 58.a; bigarrenak, berriz, 2013ko abenduaren 21ean argitaratu zuen azken zenbakia, hamabi urteko ibilbidearen ondoren²⁶³.

Egoera horrela, ematen du gaur atzo baino lagun gutxiago hurbilduko dela bere etxetik kioskora, edo beste hainbat produkturekin batera egunkariak ere eskaintzen dituen dendara, prentsa bila. Eta horrela eguna joan, eguna etorri. Banakako harpidetza ereduarekin ere beste horrenbeste.

Hedabideen esparruan diren gorabeherak azaltzeko hainbat ekarpen egin dituen *The Euromedia Research Groupeko* adituen ustez, faktore ugari eragin dute prentsaren eta bere publikoaren artean gertatzen ari den harreman-aldaketa sakona:

“Print media markets are confronted with challenging changes that threaten to destabilize the relationship between newspapers, the advertisers and their publics (...) The factors of change are related to social developments, to shifts in audience and advertising preferences, but also to the appearance of new media competitors (Trappel et al. 2011: 45).

Iraganean, ondo informatuta egon nahi zutenek egunkari bat edo batzuk erosteko ahalegina egiten zuten. Horrela eginez, informazioa urria eta, ondorioz, garestia zen testuinguruan, besteengandik bereizteko gainbalioa lortzen zuten. Baina egun, informazioaren eskaintza biderkatu egin den testuinguruan bizi gara, teknologia

²⁶³.- Lehen zenbakia 2001eko urriaren 16an kaleratu zen.

berriek etxera dakarkigutelako munduko edozein bazterretan eta edozein hizkuntzatan sortutako informazioa. Erabiltzaileek euskarri berriak hautatzen dituzte, ohiko inprimatuen kaltean. Klik bakarrarekin erabaki dezakegu zer irakurri eta, bakoitzaren gaitasunen arabera, zein hizkuntzatan. Erosotasuna, doakotasuna, eta unean unekoaren berehalako eskuragarritasuna bilakatu dira jaun eta jabe informazioaren kontsumoari dagokionez²⁶⁴.

Ondorioz, arestian esan bezala, XXI. mendeko bigarren hamarkadan prentsa inprimatuak aspaldi hasitako beheranzko bidea eginez jarraitu du Europan. Batasuneko kide diren herrialdeetan, 2008-2013 artean, ordainpeko egunkarien zabalkundeak %23,0ko batezbesteko galera²⁶⁵ izan zuen, eta publizitateak %13ko beherakada izan zuen denbora tarte berean. 2013an paperezko prentsaren zabalkundearen eta publizitatearen bidez lortutako diru-sarrerak 163.000 milioi dolarrekoak izan ziren, 2008an, berriz, 187.000 milioi dolarrekoak.

2.2.3.2. HEDABIDE INPRIMATUEN KONTSUMO-DATUAK ESPAINIAN

Espainiara etorrita, *European Social Survey* txostenaren²⁶⁶ arabera biztanleriaren %47,9k ez du inoiz egunkaririk irakurtzen. Batasunean hiru herrialdek, Portugalek, Txiprek eta Greziak bakarrik gaintitzen dute ehuneko hori.

2008an hasi ziren Espainiako kazeta-enpresak zetorren ate joka zuren krisiari usaina hartzen. Hortik aurrera jardunari eusteko neurriak barra barra ezarri behar izan zituzten, nagusiki lan-erregulazio planak, kaleratzeak eta aurre-jubilazioak. Eta langileengan eragin zuzena zuten horiekin batera etorri zen eskaintzaren murrizketa

²⁶⁴ .- 2014ko World Press Trends report delakoaren arabera, 2013an munduan 800 milioi pertsonak irakurtzen zuen egunero egunkaria formatu digitala erabiliz.

²⁶⁵ .- Datu honetan bereiztu egin beharko lirateke banan banako aleen salmenta eta harpidetza bidezkoa. Lehenak, 2008tik %26ko galera izan duen bitartean, bigarrenak %8koa izan du, World Press Trends report 2014 dokumentuan islatutakoaren arabera. Harpidedunen leialtasunak azalduko luke bi ehunekoen arteko aldea.

²⁶⁶ .- *European Social Survey* txostena 2002tik egiten da bi urtero, 15 urte edo gehiagoko europar hiritarren iritziak eta jokaerak jasotzeko asmoarekin. Lan hau osatzeko jaso diren datuak 2014koak dira. Horien arabera, ondokoak ditugu Europan egunkaria inoiz irakurtzen ez dutenei dagozkion emaitza esanguratsuenak: Norvegia %5,7, Finlandia %9,8, Suitza %11,8, Suedia %12,2, Eslovenia %22,2, Alemania %24,7, Erresuma Batua %37,4, Frantzia %41,9. *European Social Survey* txostenaren 2016 urteko datuak 2017ko urrian-azaroan argitaratuko dituztela jakinarazi dute.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

ere. Ondoko hitzekin deskribatzen zuen panorama Joan Corbella irakasleak krisia hasi eta urte batzuetara:

“Les mesures més reiteradament adoptades en totes les modalitats de premsa a Catalunya i Espanya, com en altres països, van ser els ajustaments de plantilla de la majoria de les empreses i la reducció de l’oferta periodística (paginació, suplementos locals, suplementos temàtics)” (Corbella, 2013: 23).

Eta neurriak hartuta ere ezin zitekeen %100ean ziurtatu enpresak aurrera egingo zuen ala atea itxi beharrean izango ote zen; hots; Jaume Guillamet irakasleak dioenez, desorientazio-giroa zabaldu zen; bereziki informazio orokorreko prentsaren sektorean. Prentsa lokalaren edo tokian tokikoaren kasuan, Guillameten iritziz, irakurleekiko hurbiltasunak oinarri sendoagoa eskaintzen dio.

“La desorientació general sobre les possibilitats de supervivència de la premsa d’informació general –sembla que la premsa local té una base més sòlida gràcies a la relació de proximitat i a la identificació amb lectors i anunciants –acompanya també una certa desorientació sobre el futur del periodisme” (Guillamet, 2011: 288).

Egoeraren eragile izan diren arrazoiei dagokienez, egile gehienek diote ez dagoela kausa bakarra baizik eta askoren konbinaketa bezala ulertu behar dela gertatutakoa. Hala, Sergio Valerak, Madrileko Prentsa Elkartearen (APM) Komunikazio eta Argitalpenen saileko erredaktore-buruak zazpi kausa aurkeztu ditu; batzuek zerikusia dute hedabideek informazioarekiko erakutsitako jokabidearekin, beste batzuek audientzia eta teknologia berrietara egokitzeko gaitasun faltarekin, eta badira enpresa kudeaketarekin eta publizitate bidezko diru-sarrerekiko gehiegizko menpekotasunarekin lotura duten arrazoiak ere.

“- Crisis de la calidad informativa de los medios.
- Tendencia a la banalización de la información.
- Pérdida de la credibilidad de los medios.
- Crisis de gestión empresarial y redaccional.
- Crisis estructural de la industria mediática.
- Dependencia extrema de los ingresos publicitarios.
- Inadaptación a las nuevas audiencias y tecnologías”(Valera, 2016: 102).

2008tik 2013ra bitartean, Espainian 284 hedabidek itxi zituzten atea eta 11.151 lanpostu²⁶⁷ galdu ziren sektorean, horietatik 4.362 lanpostu paperezkoetan. Zenbait lurraldetan, Guadalajaran eta Cuencan esaterako, bertatik bertarako sortu eta ekoiztutako informazio orokorreko egunkaririk gabe geratu ziren aipatu epealdian.

34. taula. Ateak itxi dituzten hedabideak eta galdutako lanpostuak, 2008-2013²⁶⁸.

	Itxi egin dute	Galdutako lanpostuak
Egunkariak	31	2.365
Aldizkariak	182	1.438
Doako argitalpenak	11	559
Telebistak	29	4.509
Irratiak	9	630
Berri-agentziak	2	186
Digitalak	20	303
Hedabide-taldeen arlo korporatiboak	-	1.161
Guztira	284	11.151

Iturria: Asociación de la Prensa de Madrid. Informe de la Profesión Periodística 2013.

Paperezko kazetaritza nola eta non dagoen adierazteko erabilgarri izan daitezkeen beste zenbait datu ematearren, aipatu Espainian 2013an egunero batezbeste 2.660.000 egunkari-ale saltzen zirela, aurreko urtean baino %11,6 gutxiago (AEDE, Libro Blanco, 2014). Horrez gain, beheko taulan ikusi daitezkeen bezalaxe, 2001etik 2013ra bitartean egunkarien zabalkundeak ia 30 puntu galdu zituen, eta 2013an 1.000 biztanleko 77 ale banatzen ziren Espainian. UNESCO erakundearen arabera, 100 aletik beherako kopuruek herrialde azpigaratuei dagozkie.

35. taula. Eguneroko prentsaren zabalkundeak Espainian. 1.000 biztanleko aleak.

2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
102	101	97	96	96	93	90	90	88	82	79	75	73

Iturria: Libro blanco de la prensa. AEDE. Tesiaren egileak moldatua.

²⁶⁷ .- Ez bakarrik kazetari-lanpostuak, baizik eta hedabideetako gainontzeko zereginekin zerikusia duten lanpostuak. 2013. urtean epealdi osorako aipatutako lanpostuen herena galdu zen, guztira 4.434, eta horietatik 1.680 azaroan "beltzera" joan zen Valentziako Telebista Publikokoak (RTVV).

²⁶⁸ .-Jasotako azken datua 2013ko azaroaren 30ekoa da.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Ikerketa honek objektutzat hartu duen 2005-2013 bitartean hedabideen irismenak izan duen bilakaera aztertzen bada, nabarmena da egunerokoen, gehigarrien eta aldizkarien emaitza negatiboa; telebistak eutsi egiten dio irismenari; irratiak, berriz, 2005ean baino irismen handiagoa du²⁶⁹, eta zalantza barik, bilakaerarik arrakastatsuen, irismenaren zein publizitate-inbertsioaren²⁷⁰ ikuspuntutik, Internetek izan du.

36. taula. Hedabideen irismenaren bilakaera Espainian, 2005-2013 (%).

Hedabidea	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Egunerokoak	41,1	41,8	41,3	42,1	39,8	38,0	37,4	36,1	32,4
Gehigarriak	27,7	25,4	24,9	21,7	21,9	19,2	18,2	16,2	14,6
Aldizkariak	53,8	47,7	49,4	53,3	51,3	50,4	48,9	45,4	43,4
Iratia	55,5	56,1	54,7	53,1	55,3	56,9	58,5	61,9	61,5
Telebista	88,9	88,6	88,7	88,5	89,0	87,9	88,5	89,1	88,7
Internet	19,7	22,2	26,2	29,9	34,3	38,4	42,5	46,7	53,7

Iturria: EGM.

EGMk²⁷¹ eskainitako informazioaren arabera, eta gure ikerketak zehaztutako denbora-esparruan hurbilen dagoen urtera etorrira, 2013ra hain zuzen, ikusten dugu Espainian 14 urtetik gorako populazioaren %32,4k, guztira 12.752.000 pertsonak, irakurtzen²⁷² zuela prentsa egunero, eta aldizkarien kasuan, kontsumoa %43,4koa izan zen (17.053.000 pertsona).

Prentsa idatziaren eskaintzari dagokionez, 2013an bost egunkarik jaten zuten irakurle gozaren erdia baino gehiago²⁷³ : *Marca + El País + As + El Mundo + La Vanguardia* = 7.796.000 irakurle²⁷⁴. Gure ingurukoei dagokienez, *El Correo* hamaikagarrena zen zerrenda horretan 422.000 irakurlerekin, *El Diario Vasco*

²⁶⁹ .- Hala ere, irratiak irismenean izandako bilakaera arrakastatsuek ez du islarik publizitate-inbertsioak hedabide horretan izan duen bilakaeran. 2008-2013 bitartean, publizitateak %37ko beherakada izan zuen irratan.

²⁷⁰ .- 2008 urtetik 2013ra %134 hazi zen Interneten egindako publizitate-inbertsioa. Iturria: Informe de la Profesión periodística 2013.

²⁷¹ .- EGMk hiru neurketa egiten ditu urtean. Unibertsoa 14 urte edo gehiago dituen biztanleria da. Datuak eskuratzeko, *face to face* edo aurrez aurreko elkarrizketak eta elkarrizketa telefonikoak egiten ditu.

²⁷² .- Alea erosita edo harpidetza bidez jasota.

²⁷³ .- Denak dira EGMk 2013ko otsaila-azaroa bitarteari dagozkion datuak.

²⁷⁴ .- *Marca*: 2.779.000 irakurle, *El País*: 1.812.000, *As*: 1.346.000, *El Mundo*: 1.107.000, *La Vanguardia*: 752.000 irakurle.

hamazortzigarrena 236.000 irakurlerekin, eta *Deia* berrogeita bosgarrena 91.000 irakurlerekin.

Asteroko aldizkarien sektorean, arrakastatsuenak *Pronto, Hola, Lecturas, Diez Minutos* eta *Semana* ziren, denak ere milioi batetik gorako irakurlerekin. Hilerokoetan, milioi bat jarraitzaile baino gehiago zituzten *Muy interesante, National Geographic* eta *Saber Vivir* aldizkariak.

Dena den, EGMk emandako prentsaren irakurleei buruzko zifrak gorabehera handiak zituen lurraldez-lurralde.

37. taula. Prentsaren irakurleak lurralde autonomoka, 2013 (%).

Lurraldea	Egunkariak 2013 (1)	Gehigarriak 2013 (1)	Aldizkariak 2013 (1)	Ez du inoiz/ia inoiz irakurtzen 2013 (2)
Andaluzia	24,8	6,2	35,2	35,7
Aragoa	35,6	21,5	49,2	21,9
Asturias	49,7	25,5	47,0	19,0
Baleareak	38,5	21,6	41,5	14,8
EAE	46,0	34,3	43,8	14,1
Errioxa	43,1	26,0	51,2	17,4
Extremadura	24,7	9,7	30,4	31,5
Galizia	45,0	21,7	40,9	13,2
Gaztela-Leon	38,1	22,7	49,8	17,6
Gaztela-Mantxa	20,4	7,0	41,4	43,0
Kanariar uharteak	31,1	12,9	45,6	21,8
Kantabria	45,9	28,6	40,1	15,3
Katalunia	35,2	13,6	51,7	21,9
Madril	30,4	13,0	45,5	18,7
Murtzia	24,2	11,3	40,9	34,5
Nafarroa	49,8	33,2	38,9	15,4
Valentzia	26,8	10,4	41,8	33,6

Iturriak:(1)EGM eta (2) Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Tesiaren egileak moldatua.

Hortaz, egunkariei erreparatuz, Gaztela-Mantxa, Murtzia, Extremadura eta Andaluzia lirateke 2013an irakurle gutxien zituzten lurraldeak. Horiek berberak eta Valentzia ziren prentsa “inoiz ez” edo “ia inoiz ez” irakurtzen zutenen ehunekorik altuenak erakusten zituztenak. Beste muturrean leudeke Nafarroa, Asturias, EAE eta Kantabria; geografikoki Espainiako iparraldean eta elkarren ondoan kokatutako lau lurralde horiek zituzten 2013an irakurle-daturik onenak. Deigarria egiten da Madril eta Kataluniak zituzten irakurle-indizeak, 30,4 eta 35,2 hurrenez hurren; hau da, zerrendan

irakurle gutxien zituzten zazpigarrena eta zortzigarrena lirateke. Joera oso antzekoa da gehigarriekin eta aldizkariekin, horien kasuan Kataluniak eta Errioxak zituzten 2013an, ehunekoetan, irakurle- kopuru handienak.

2.2.3.3. GAZTELANIAZKO EGUNEROKO PRENTSAREN KONTSUMOA EAEn

Urtero bi neurketa²⁷⁵ egiten dituen CIES enpresaren arabera Autonomia Erkidegoan eguneroko prentsaren kontsumoa %51ekoa²⁷⁶ izan zen 2013an, Europako herrialde garatuen maila berekoa hain zuzen. Gurean, 1984tik, hau da, Eusko Jaurlaritzak hedabideentzako diru-laguntzak deialdi bidez lehenengoz argitaratu zituen urtetik 2013ra bitartean, prentsaren kontsumoak bilakaera gorabeheratsua izan du:

- 1984-1987: lau urte horiek izan ziren 30 urteko epealdi osoko makalena. Bolada hartan kontsumoak %49tik abiatu eta %47rako bidea egin zuen.

- 1987-1991: joera zeharo aldatu zen eta kontsumoak urteroko irabaziak izan zituen 1991ra arte. 1991n eguneroko prentsaren kontsumoa EAEn %54koa izan zen.

- 1991-2000: hamarkada batez kontsumoak egonkor eutsi zion, %52-%53 arteko datuekin.

- 2000-2005: beherako joera erakutsi zuen, urterik makalena 2002koa (%49) eta hortik 2005era kontsumoa %50ekoa izan zen. Kontuan hartzekoa da 2003an doako egunkarien sorrera gertatu zela; hala ere ordainpekoek eutsi egin zieten salmentei.

- 2005-2008: urte goxoak izan ziren berriro EAeko prentsarentzat eta hiru hamarkadetako kontsumo mailarik handiena lortu zuen 2008an, %56koa hain zuzen.

- 2008-2013: krisiaren eragina nabarmentzen hasi zen; hala ere, esan bezala, 2013an Autonomia Erkidegoko hamalau urtetik gorako biztanleriaren erdiak baino gehiagok (%51) eguneroko prentsa kontsumitzen zuen.

²⁷⁵ .- CIES enpresak egindako neurketen ezaugarriak ondokoak dira: ikerketa-esparrua EAE eta Nafarroa. Urtean bi neurketa egiten ditu, eta bietako datuekin urteko akumulatua ere eskaintzen du. Unibertsoa 14 urte eta gehiagoko biztanleak dira. Urtero 6.600 elkarrizketa egiten ditu EAEn, eta 2.000 elkarrizketa Nafarroan. Neurtzeko teknika moduan, aurreko eguneko oroitzapena baliatzen du.

²⁷⁶ .- Kasu honetan EGMk ematen dizkion datuak baino hobeak dira (portzentajeetan 5 puntu gora).


38. taula. Prentsaren kontsumo-bilakaera EAEn, 1984-2013 (%).

1984	1987	1991	1992-2000	2002	2006	2009	2013
49	47	54	52-53	49	55	56	51

Iturria: CIES. Informe 30 años. 1984-2013.

Lurraldeka, arestian azaldutako bilakaerari ñabardurak egin behar zaizkio. Hurrengo irudiak erakusten du argiro zein izan den Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren portaera 1984-2013 bitarteko hiru hamarkadetan.

1. irudia. Prentsaren kontsumo-bilakaera EAEn lurraldeka, 1984-2013.



Iturria: CIES. Informe 30 años. 1984-2013.

Taulari erreparatuta zenbait kontu nabarmendu daiteke. Batetik, 1984an hogeita bat puntuko aldea zegoen Araba eta Gipuzkoako kontsumo-datuen artean. Araban, 1984an 14 urtetik gorako biztanleriaren herenak baino ez zuen prentsa egunero irakurtzen. 2013an ordea aldea sei puntura murriztu zen; izan ere, Gipuzkoa eta Bizkaiaren kasuetan kontsumoaren portzentajeak puntu bat galdu du hiru hamarkadetako lehen eta azken urteak alderatuz. Urterik onenean ere ez datoz bat hiru lurraldeak, Gipuzkoan, EAE osorako datuekin gertatu bezala, 1991 izan zen urterik onena (%65). Arabarentzat ordea 1991 makala izan zen, kontsumoa %40tik behera baitzegoen. Bizkaiaren daturik bikainena 1992koa izan zen (%52) eta Araban berriz, bi urte aipatu behar dira onerako: 1994(%52) eta 2011 (%53).

Euskal Autonomia Erkidegoan eguneroko prentsak galdu dituen irakurleen adinari erreparatuz, gehienak 26 urtetik 45 urtera bitarteko adin-tartean daude, eta aldi berean, logikoa denez, adin-tarte horretan egin du gora gehien edizio elektronikoen irakurketak. Informazioa eskuragarri izateko erraztasuna, albiste berriak eskaintzeko azkartasuna eta informazioaren argitasuna dira edizio elektronikoen aldekoek joera-aldaketa azaltzeko erabiltzen dituzten arrazoi nagusiak. Horrela, 26-45 urtekoen arteko %16k ez zuen paperezkorik kontsumitzen 2013an. Izan ere, hedabideen kontsumo-ohiturak aldatzearekin batera, EAEko etxeetan nabarmen hasi da IKT-ekipamendua. 2013an, CIESen datuen arabera, Bizkaian bizilagunen %63k erabiltzen zuen egunero Internet, Gipuzkoan %64k eta Araban bizilagunen %65ek.

39. taula. Doako edizio elektronikoen irakurleak EAEn, 2007-2013 (%).

Adin-tartea	Edizio elektronikoa+papera		Edizio elektronikoa soilik	
	2007	2013	2007	2013
14-20	10	29	5	13
21-25	13	37	4	12
26-35	14	41	4	16
36-45	11	48	3	16
46-55	9	28	2	9
56-65	4	21	1	6
66-99	1	10	0	3

Iturria: CIES.

Zenbait egunkariren kasuan nabarmena da sarean lortu duten emaitza. Horren lekuko 2012-13 biurtekoan, 15 urte eta gehiagoko Internet erabiltzaileek gehien erabili zituzten web orrien bilakaera esanguratsua.

40. taula. EAEko biztanleriak gehien aipatzen dituen web orrien rankinga, 2012-2013 (15 urte eta gehiagoko Internet erabiltzaileak).

Postua 2012	Postua 2013	Web orria
3	1	HOTMAIL.COM
2	2	FACEBOOK.COM
1	3	ELCORREODIGITAL.COM
7	4	YOUTUBE.COM
8	5	GMAIL.COM
4	6	DIARIOVASCO.COM
6	7	MARCA.ES
12	8	GOOGLE.COM
5	9	TUENTI.COM
10	10	ELPAÍS.COM
42	13	TWITTER
18	17	DEIA.ES
13	19	GARA.NET
19	20	ELMUNDO.ES
21	21	BERRIA.INFO
39	26	ELMUNDODEPORTIVO.COM

Iturria: Eustat.

Goiko taulak erakusten du lehenengo hamarren artean prentsa idatziaren sektoreko lau ordezkari zirela. Horietatik posturik onenetan kokatuta, berriz, enpresa berekoak diren EAEko bi mantxeta: *El Correo* eta *Diario Vasco*.

Euskara hutsezkoak ez diren bi egunkari horien eta EAEn zabaltzen diren informazio orokorreko gainontzeko beste zenbaiten botaldiak eta zabalkundeak neurtzen ditu OJD enpresak²⁷⁷. Ondokoak dira ikertzen ari garen 2005-2013 denbora-tarteko emaitzak zabalkundeari dagokienez:

²⁷⁷ .- OJD edo Oficina de Justificación de la Difusión enpresa 1964 urtean sortu zuten eta haren zerbitzua kontratatzen duen egunkarien eta aldizkarien botaldiak eta zabalkundeak neurtu eta kontrolatzen ditu.

41. taula. Informazio orokorreko egunkarien batez besteko zabalkundea. 2005, 2007, 2009, 2011, 2013.

HEDABIDEA	2005	2007	2009	2011	2013
El Correo	124.844	118.107	110.826	97.313	82.943
Diario Vasco	89.259	84.221	76.360	68.140	59.122
Deia ²⁷⁸	-	-	19.091	17.013	14.203
Gara ²⁷⁹	-	-	-	-	-
Noticias de Gipuzkoa ²⁸⁰	-	5.536	6.151	6.898	5.411
Diario de Noticias de Álava ²⁸¹	-	4.627	4.558	4.946	3.925
El País ²⁸²	453.602	435.083	391.815	365.117	292.227
El Mundo S. XXI ²⁸³	314.592	326.286	300.030	252.770	172.427

Iturria: OJD. Tesiaren egileak moldatua.

Kasu guztietan eta OJDk neurtutako datuak direnean, joera orokorra beheranzkoa da. Taulan bildutakoen arabera, bistakoa da *El Mundo* egunkariak izan zuela galerarik handiena, bere zabalkundea 2013an ia erdira etorri zelako 2005ean zuenarekin alderatuz. Gainerakoen kasuan ere maldan behera joan ziren, *El Correo* eta *Diario Vasco* egunkariak adibidez, herena galdu zuten 2005-2013 bitartean, *Deia* egunkariak laurdena bost urteko epean, *Noticias de Gipuzkoa* gorako bidea indartsu egin zuen 2007tik 2011ra, baina gero galeretan sartu zen, *Diario de Noticias de Álava* %15 utzi du bidean, eta *El País* egunkariak zabalkundearen %35 galdu du 2005etik 2013ra bitartean.

Zabalkundeak izan duen bilakaerak ikuspegi adierazgarria eskaintzen duen arren, lan honetarako are interesgarriagoak dira irakurleen bilakaerari buruzko datuak. Kasu honetan gainera, EGMrekin ez bezala, EAERI soilik dagokion informazio osatua dago eskuragarri CIES enpresaren eskutik.

²⁷⁸ - *Deia* egunkaria 2008an hasi zen OJDren neurketak egiten.

²⁷⁹ - *Gara* egunkariak ez du OJDren neurketa egiten.

²⁸⁰ - *Noticias de Gipuzkoa* 2007an hasi zen OJDren neurketak egiten.

²⁸¹ - *Diario de Noticias de Álava* 2006an hasi zen OJDren neurketa egiten; beraz, ez dago 2005eko daturik.

²⁸² - *El País* egunkariaren neurketa Espainia osorako da. Ez dago EAERako banakatzerik.

²⁸³ - *El Mundo SXXI* egunkariaren neurketa Espainia osorako da. Ez dago EAERako banakatzerik.

42. taula. Gaztelaniazko eguneroko prentsaren irakurleen bilakaera EAEn, 2005-2013.

HEDABIDEA ²⁸⁴	Irakurleak (x 000)								
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
El Correo	462	459	464	462	463	460	464	457	465
Diario Vasco	288	284	298	293	278	271	273	266	262
Gara	97	100	94	87	82	79	84	89	85
Deia	87	81	92	80	76	85	94	98	105
Marca	66	68	64	65	83	92	92	78	82
El País	38	47	48	51	49	45	48	50	67
Mundo Deportivo	36	29	32	31	39	55	50	49	43
El Mundo del País Vasco	35	38	34	27	29	31	23	19	29
Diario de Noticias de Álava	13	16	17	17	24	27	29	27	25
Noticias de Gipuzkoa	-	19	25	23	26	30	30	30	29

Iturria: CIES. Urteroko datu metatuak.

Taulako zenbaki-multzoak zenbait baieztapen egiteko aukera ematen du:

- 1.- *Vocento*²⁸⁵ enpresako bi egunkarik (*El Correo* eta *Diario Vascok*) biltzen dute urtero irakurle-kopuru osoaren erdia baino gehiago²⁸⁶.
- 2.- *Grupo Noticias* taldeko²⁸⁷ *Deia*, *Diario de Noticias de Álava* eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkariaren irakurleak batuta 100.000ko muga gainditzen dute.
- 3.- 2005-2013 bitartean, CIES enpresak eskainitako emaitzak kontuan hartuta, hiru joera bereiz daitezke:

²⁸⁴ .- Egunkariaren zerrenda, horietako bakoitzak 2005 urtean zuen irakurle-kopururaren arabera aurkeztu da, irakurle gehien zituenetik gutxien zituenera.

²⁸⁵ .- *Vocento* 2001ean sortu zen, *Grupo Correo* eta *Prensa Española* taldeek bat egin ondoren. Eguneroko prentsa idatziaren arloan, Estatu osoan zabaltzen den *ABC* egunkariak gain, lurraldeetako beste hamabi kudeatzen zituen 2013 urtean: *El Correo*, *Diario Vasco*, *El Diario Montañés* (Kantabria), *El Norte de Castilla* (Gaztela-Leon), *La Verdad* (Murtzia), *Ideal* (Almería, Granada eta Jaén), *Sur* (Hegoandaluzia), *Las Provincias* (Valentzia), *El Comercio* (Asturias), *Hoy* (Extremadura), *La Rioja* eta *La Voz de Cádiz*.

²⁸⁶ .- Euskara hutsezko egunkariak, *Berría* eta *Hitzak* hain zuzen, kontuan hartuko bagenu, baitapen bera egingo genuke.

²⁸⁷ .- Talde berekoa da Nafarroako *Diario de Noticias*, Foru Komunitatean *Diario de Navarra* egunkariaren ondoren gehien irakurtzen dena.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

a.- Zenbait egunkarik hobetu egin dituzte 2005 urtean zituzten irakurle-datuak, eta gainera, 2013koak denbora bitarte horretako onenak dira: *El Correo*, *Deia* eta *El País*.

b.- Beste egunkari batzuek hobetu egin dituzte 2005eko irakurle-datuak, baina 2013koak ez dira denbora bitarte horretako onenak: *Marca*, *Mundo Deportivo*, *Diario de Noticias de Álava* eta *Noticias de Gipuzkoa*.

c.- Hirugarren taldekoek galdu egin dituzte irakurleak: *Diario Vasco*, *Gara* eta *El Mundo del País Vasco*.

Irakurleei erreparatuta hortaz, ezin hedabide guztiak zaku berean sartu. Datuek nabarmen erakusten dute EAEn egunkaririk gogokoenak erabakiguneak bertan kokatuta dituztenak direla; hots, bertan sortu eta ekoiztutakoak. Horien artean mantxetarik gogokoenak *El Correo* eta *Diario Vasco* dira, hurrengo biekiko, *Deia* eta *Gara* egunkariekiko alde handiarekin. Gorka Salces ikerlariaren arabera, bi arrazoik azaltzen dute aipatutako egunkariak dituzten kontsumo-emaizta ikusgarriak; batetik, diktadura garaian jaso zuten fabore-tratua, eta bestetik, egunkari horiek sortu duten erreferentziazko eredua.

“Alde batetik, Francoren diktadura garaian hiru egunkariak²⁸⁸ jasotako fabore-tratuak euren lidergoa finkatzeko bultzada nabarmena izan zela uste dugu, eta abantaila posizio horrek zentralitate mediatikoari eusteko aukera eman zietela gerora ere, oso ildo editorial argia (eta ez beti euren hedapen esparruko gehiengo sozialarekin armoniotsua) atxiki arren. Bestetik, (...) egunkari horiek berrien hedadura geografikoari dagokionez erreferentziazko eredua sortu dutela, albiste hiperlokalen eskaintza oparoan eta gainontzeko maila geografikoetako notizien uztarketan oinarrituko litzatekeena” (Salces, 2016: 645-646).

Bestalde, sorreran bertakoak ez diren eta Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan banatzen diren informazio orokorreko gainontzeko egunkariak ez dute irakurlegoaren %10 bereganatzen. Mikel Arriaga eta José Pérez Soengas egileek euskal gizartearen ezaugarri politiko eta linguistikoei, eta eskaintzaren aniztasun ideologikoei heltzen diete EAeko hedabide inprimatuen kontsumo-egoera azaltzeko,

²⁸⁸ .- *El Correo* eta *Diario Vasco* egunkariez gain, *Diario de Navarra* egunkariak ere ari da Gorka Salces.

“Las características políticas y lingüísticas que conforman un sentimiento de diferencialidad en un gran sector de la población y (...) la pluralidad ideológica de la oferta informativa autóctona lo que hace innecesaria la presencia de periódicos centrales para defender una línea política nacional-estatal” (Arriaga eta Pérez Soengas, 2000: 65 eta 95).

Hortaz, ezaugarri politikoez eta informazio-eskaintzaren aniztasun ideologikoez gain, hizkuntza-ezaugarriak ere aintzat hartu beharrekoak dira EAEko kontsumo-datuak eta joerak egoki interpretatzeko. Hau da, euskara hutsezko informazioa jarraitzeko gutxieneko baldintza eta abiapuntua da euskaraz irakurtzeko gai izatea.

43. taula. EAEko eguneroko prentsaren kontsumitzaileen euskara-gaitasuna, 2013.

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Ulertzen du	171.000	27.000	90.000	54.000
Hitz egiten du	49.000	4.000	24.000	21.000
Hitz egiten eta irakurtzen du	49.000	6.000	17.000	26.000
Hitz egiten, irakurtzen eta idazten du	326.000	31.000	141.000	154.000
Ez du ulertzen	349.000	67.000	211.000	71.000

Iturria: CIES. Urteroko datu metatuak.

2013an eguneroko prentsak EAEn izan zituen 944.000 irakurleetatik euskaraz irakurtzeko gai ziren 375.000 pertsona²⁸⁹; hau da %39,7. Lurraldeka Araban irakurleen %20 gai zen euskaraz irakurtzeko, Bizkaian %32,6 eta Gipuzkoan %55,2.

Egunkariz egunkari egiten bada azterketa, *El Correo* eta *El Mundo del País Vasco* dira euskaraz irakurtzeko gai diren irakurle gutxien dituzten hedabideak; beste muturrean daude *Gara*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Diario Vasco*. Gainontzekoen kasuan, irakurleen herenak baino gehiagok du euskaraz irakurtzeko profila. Ondoko taulan daude bilduta egunkari bakoitzari dagozkion zenbakiak.

²⁸⁹.- Kalkulu hauek egiteko CIEsek lantzen dituen bi azpimultzotako emaitzak batu ditugu: hitz egiten eta irakurtzen dutenen azpimultzokoak + hitz egiten, irakurtzen eta idazten dutenen azpimultzokoak hain zuzen.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

44. taula. Euskaraz irakurtzeko gai diren EAEko eguneroko prentsaren kontsumitzaileak egunkarien arabera. 2013ko metatua. (zenbaki absolutuak eta ehunekoak).

Hedabidea	Euskaraz irakurtzeko gai dira	Irakurle guztiekiko %
El Correo	122.000	26,2
Diario Vasco	131.000	50,0
Deia	46.000	43,8
Gara	68.000	80,0
Marca	31.000	37,8
Berria ²⁹⁰	53.000	96,4
El País	23.000	34,3
Mundo Deportivo	19.000	44,2
Noticias de Gipuzkoa	21.000	72,4
Diario de Noticias de Álava	9.000	36,0
El Mundo del País Vasco	8.000	27,6
Beste bat	17.000	34,0

Iturria: CIES. Urteroko datu metatuak. Tesiaren egileak moldatua.

Orain arte, arreta EAEn kaleratzen diren gaztelaniazko egunerokoetan jarri da, azken taula horretan euskara hutsez kaleratzen den egunkari bakarraren datu bakanen bat txertatu bada ere. Baina aterpe teorikoak bete nahi duen bidea osatzeko ezinbestekoa da diru-laguntzak eskatu dituzten idatzizko hedabideen kontsumo-argazkia osatzea. Zeregin horri helduko zaio hurrengo lerroetan.

2.2.3.4. EUSKARA HUTSEZKO PAPEREZKO HEDABIDEEN KONTSUMOA EAEn

XXI. mendeko bigarren hamarkadan sartuta gauden honetan, baieztatu daiteke EAEn euskara hutsezko idatzizkoek inoiz izan duten presentziarik zabalena lortu dutela hedabide-kopuruari begiratuta. Egoera horren arrazoia tokiko hedabideek azken hamarkadetan izandako hazkundera eta garapenean bilatu behar da. Tokikoek oraindik agerian dituzte 80 hamarkadan bidea urratu zuten lehen herri-komunikabideen nortasun-ezaugarriak, baina urteekin, egungo irakurleen interes eta

²⁹⁰ .- *Berria* egunkariari 55.000 irakurle ematen dizkio CIESen 2013ko txostenak. Horietatik 2.000 pertsonak aitortzen du euskara ulertu egiten duela, baina ez dira irakurtzeko gaitasuna dutenen kategorian sartzen. Hortaz, taulan 53.000 kontabilizatu ditugu; horiek CIESek emandako irakurle guztien % 96,4 lirateke.

behar berriei erantzuteko eskaintza-moduak aldatuz eta egokituz joan dira: paperezko euskarri hutsetik Internetera, eta zenbait kasutan, herriz herriko egituratik eskualdeetara.

Udalerrri eta eskualde zehatzetan zabaltzen diren tokikoekin batera, euskararen esparru geografiko osora iristen diren informazio orokorreko eta informazio espezializatuko aldizkariak eta eguneroko prentsa inprimatuak osatzen dute euskara hutsezko paperezko kontsumo mediatikoaren eskaintza. Nerea Azurmediren planteamenduekin bat eginez gaineratu daiteke merkatu berezian jokatzeko duen eskaintza dela.

“Euskararen merkatua -euskarazko hedabideena, bide batez- ez da ohiko sailkapenetara ondo egokitzen. Beste hizkuntza batzuetan diharduen merkatu zabaleko zati txikia da. Merkatu zabal horren baitakoa da, eta baliabide handiagoak dituzten merkatu-atalekin konkurrentzia latzean dago. Ez da errealitate isolatu bat, ezta irizpide demografiko, kultural, geografiko edo ekonomiko jakin batzuen arabera ezagutu daitekeena ere. Bere txikian izugarri askotarikoa da, eta aniztasun hori behar bezala ezagutzea ez da gauza erraza” (Azurmendi, 2003: 38).

Azurmedik dioen moduan, euskara hutsez ari diren hedabideen sektorea, eta horren barne, paperean zabaltzen direnena anitza da. Hedabide horien irakurle-zenbakiak biltzen eta interpretatzen hasi aurretik, komenigarria da, labur bada ere, nori buruz hitz egiten ari garen jakitea; betiere ahaztu gabe 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntzen onuradun izan diren paperezkoen azterketara mugatuko dela zeregina. Izan badirelako hemen aipatuko direnak baino gehiago²⁹¹ baina horiek ez dira ikerketan kontsideratu.

²⁹¹ .- Adibidez, eskola-aldizkariak, glotodidaktika- eta psikopedagogia-aldizkariak, kultur-berripaperak, alderdi politiko edo sindikatuena, informazio orokorrekoak edota gai anitzeko informaziozkoak ez diren aldizkariak.

2.2.3.4.1. EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZA JASO DUTEN EUSKARA HUTSEZKO INPRIMATUEN ARGAZKIA

Ikerketa honek aztergaitzat hartu duen 2005-2013 epealdian euskara hutsezko 98 hedabide inprimatu izan dira “Hedabideak” deialdiaren onuradun eta horietatik 41ek (unibertso osoaren %41,8) urtero jaso dute diru-laguntza. Horiez gain, diru publikoaren jasotzaile izan dira nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak (5 egitasmo 2006tik 2011ra, urte biak barne) eta erreferentzia-orrialdeak (beste 5 egitasmo 2009 eta 2010ean).

Baieztapen horretatik abiatuta, paperean kaleratzen diren euskara hutsezko hedabideen zabalkundeari buruzko bigarrena egin daiteke: 2005-2013 epealdian EAE osoan izan da euskarazko hedabide inprimaturen bat eskuratzeko aukera. Izan ere *Berría* egunkariak eta informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak euskararen lurralde geografiko osoa dute zabalkunde-eremutzat. Horiez gain, zenbait eskualdetan, bereziki Gipuzkoan, astero gutxienez²⁹² 4 egunez banatu diren *Hitzak* izan dira. Orain arte aipatutakoei udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak (tokikoak) gehitu behar zaizkie. Kuantitatiboki hori da euskarazko inprimatuen artean hedabide-multzorik handiena, eta multzo horretan daude, besteak beste, 2011tik *Berría* egunkariarekin batera argitaratu ziren *Bizkaiko Hitza*, *Gipuzkoako Hitza* eta *Arabako Hitza*; beraz, data horretatik 2013 bitartean EAEko lurralde bakoitzean izan da informazio orokorreko astekari bat eskuragarri. Bestalde, tokikoen multzoko gainontzeko argitalpenak, udalerrri edo eskualdetan zabaltzen direnak, ez dira EAE osora iristen. Berriro ere, Gipuzkoa da horien eskaintza kuantitatibo handiena duena, eta Araba kokatzen da beste muturrean, ez baitu apenas euskara hutsezko tokikoen eskaintzarik.

²⁹² .- Gutxienez diogu bi arrazoiregatik; batetik, inprimatuen multzo horretan *Hernaniko Kronika* delako, 2013an egunero kaleratzen zena, gainontzeko *Hitzak*, berriz, astero 4 egunetan. Bestetik, *Hitzak* argitalpenen kasuan maiztasunak beherako bilakaera izan du 2005-2013 bitartean (6 egunetan kaleratzetik 4 egunetan kaleratzera). Analisi-atalean sakon aztertuko da euskarazko hedabide inprimatuek denboran zehar hainbat arlotan, besteak beste maiztasunean, izan duten bilakaera.

Adierazitakotik ondorioztatzen da Gipuzkoa dela EAEn euskara hutsezko hedabide inprimatuen eskaintza eta estaldura handiena duen lurraldea eta Araba, berriz, txikiena duena. Datua bat dator euskarak hiru lurraldeetan duen egoera soziolinguistikoarekin. Gipuzkoa da euskaldun gehien dituen lurraldea; dagoeneko azaldu denez (ikus 2.2.1.5.) V. inkesta soziolinguistikoaren datuen arabera Gipuzkoan, 2011n, 16 urtetik gorako biztanleriaren ia erdia euskalduna zen (%49,9), Bizkaian laurdena (%25,4) eta Araban euskaldunen portzentajea %16,8koa zen.

Behin aurkezpena eginda, goazen 2005-2013 epealdian Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako "Hedabideak" deialditik diru-laguntzak jaso dituzten paperezkoen eskaintzaren ezaugarri orokorrak ezagutzen. Ezaugarri orokorrak adierazi da, aurrerago landuko den analisi-atalean bilduko direlako ez bakarrik sektorearen baizik eta hedabide inprimatu bakoitzaren ezaugarri partikularrak eta denboran zehar bakoitzak izan duen bilakaera. Beraz, honako honek lehen hurbilketa moduan balio du; euskara hutsezko hedabide inprimatuen mapa nola aldatu den, aldatu baldin bada, ikusteko balio duen ariketa da. Azterketa egiteko orduan, urteroko deialdietan euskarazko inprimatuen sektorean ezarri diren hiru azpi-multzoak kontsideratuko dira, eta 2005etik 2013rako bilakaera orokorra erakusteko hiru urte hartuko dira kontuan: 2005, 2009 eta 2013. Lehena eta azkena ikerketarako hautatutako denbora-tartearen munarriak direlako, eta 2009a denbora-tarte horren erdi erdian egoteaz gain, laguntza-deialdiak onuradun gehien izan zituen urtea izan zelako.

1.- Eguneroko prentsa inprimatua.

EAEn, euskararen esparru geografiko osoan eta udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariez ari gara. Oso ezaugarri desberdinak dituzten *Berria*, *Hitzak* eta *Hernaniko Kronika* kokatzen dira azpi-multzo honetan. Maiztasunari erreparatuz, lehenago adierazi bezala, astean gutxienez 4 egunetan kaleratzen dira. Alde handia dago elkarren artean hedapenari, botaldiari, ordainpekoa ala doakoa izateari, banatze-sistemari, orrialde-kopuruari eta beste hainbat konturi begiratuz gero. Dena den, *Berria* da egunkari orokortzat jo dezakegun bakarra, beste edozein hizkuntzatan argitaratutako egunkarien atal bertsuak dituelako. 2003an sortu zen, 16.500 aleko

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

botaldia²⁹³ zuen 2013an, ez da astelehenetan kaleratzen, kioskoetan saltzen da, baina ale-kopuru erdia harpidetza bidez banatzen zuen 2013an.

Hernaniko Kronika 2000 urtekoa da. Astean bost egunez kaleratzen hasi zen, baina 2003tik aurrera sei egunez eta 2013an asteko zazpi egunetan argitaratzen zen. Doako herri-egunkari bakarra da. 2013an 4 orrialde zituen, eta botaldia 4.600 alekoa zen²⁹⁴.

Azkenik *Hitza* egunkariak eskualdeetan banatzen dira, batez ere Gipuzkoan. *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza* izan zen kaleratzen lehena, eta 2013an horrekin batera ziren eskualdeetako beste hiru egunkari²⁹⁵: *Goierriko Hitza*, *Urola Kostako Hitza* eta *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza*. 2012ra arte, beste bi ere baziren multzo honetan: *Oarso Bidasoko Hitza eta Irutxuloko Hitza*, baina bi horiek 2013an egunerokoak izateari utzi zioten, eta diru-laguntzak esleitzeko orduan aldizkari inprimatuen multzoan kokatu zituzten²⁹⁶. *Hitza* egunkariak 8 orrialde kaleratzen zituzten 4 egunez 2013an, eta botaldiak 4.500 aletik 6.700 alera bitartekoak ziren.²⁹⁷

²⁹³ .- Datua 2013an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren "Hedabideak" diru-laguntza ebazteko arazketa- tauletan jasotakoa da.

²⁹⁴ .- *Hernaniko Kronikari* buruzko datuak 2013an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren "Hedabideak" diru-laguntza ebazteko arazketa-tauletatik jasotakoak dira.

²⁹⁵ .- Eskualdeetako *Hitzak* egunkari-multzoak gorabehera ugari izan ditu denboran zehar, batez ere 2010 urtetik aurrera. Ikerketa honek aztertu duen tartean (2005-2013) ondokoa izan da bilakaera: 2005etik 2010era, biak barne, *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza*, *Urola Kostako Hitza*, *Goierriko Hitza*, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*, *Irutxuloko Hitza*, *Oarsoaldeko Hitza* eta *Busturialdeko Hitza* ziren. 2011n, *Oarso Bidasoko Hitzak* aurreko urteetako *Oarsoaldeko Hitza* ordezkatu zuen, eta Bizkaian zeuden *Hitza* biak batu eta bakar batean kaleratuko dira: *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza*. 2012an ez da *Busturialdeko Hitza* izango (*Lea-Artibai* eta *Mutrikuko* kaleratzen den arren) eta 2013an berriro berreskuratuko da *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza*. Bestetik, 2013an, *Oarso Bidasoko Hitza* eta *Irutxuloko Hitzaren* kasuetan maiztasunak behera egiten duenez, egunkari izateari utziko diote, aldizkari bilakatuz. Jaurlaritzak gutxienez astean lau egunetan kaleratzea eskatzen du egunkari bezala kontsideratua izateko.

²⁹⁶ .- Ebazpena, 2013ko uztailaren 23koa; Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarena, Hedabideak deialdiari dagozkion 2013ko diru-laguntzen berri ematen duena (A, B1, B2 eta C multzoak). 2013ko abuztuaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua.(163. zk., 4-5 or.).

²⁹⁷ .- Datuak 2013an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren "Hedabideak" diru-laguntza ebazteko arazketa-tauletan jasotakoak dira. Botaldiei dagokienez: *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza* 4.500 ale, *Urola Kostako Hitza* 5.100 ale, *Goierriko Hitza* 5.800 ale eta *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza* 6.700 ale.

Ondoko taulak biltzen ditu arestian aipatutakoen datu nagusiak:

45. taula. Euskarazko eguneroko prentsa inprimatua, 2013.

Hedabidea	Botaldia	Saldu	Maiztasuna (astean)	Orrialde-kopurua
Berria	16.500	13.500	6	42
Hernaniko Kronika	4.600	0	7	4
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	4.500	2.325	4	8
Goierriko Hitza	5.800	3.250	4	8
Urola Kostako Hitza	5.100	3.763	4	8
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	6.700	6.650	4	8
Oarso Bidasoko Hitza*	4.500	2.500	4	8
Irutxuloko Hitza*	4.100	1.612	4	8

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak "Hedabideak" diru-laguntza deialdia ebazteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

**2012ra arte eguneroko prentsaren multzoan zeuden, 2013an maiztasuna txikitu eta aldizkari inprimatuaren multzora pasa dira. Beraz, bi hauen datuak 2012koak dira.*

Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatuaren multzoko hedabideen eskaintzak 2005, 2009 eta 2013 urteetan izan duen bilakaera jasotzen du ondoko taulak:

46. taula. Euskarazko eguneroko prentsa inprimatuaren eskaintza EAEn, 2005, 2009 eta 2013.

Egitasmoa	2005	2009	2013
Berria	✓	✓	✓
Goierriko Hitza	✓	✓	✓
Hernaniko Kronika	✓	✓	✓
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	✓	✓	✓
Urola Kostako Hitza	✓	✓	✓
Irutxuloko Hitza	✓	✓	✗
Oarsoaldeko Hitza	✓	✓	✗
Oarso Bidasoko Hitza ²⁹⁸	✗	✗	✗
Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza	✓	✓	✗
Busturialdeko Hitza	✗	✓	✗
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	✗	✗	✓

Iturria: tesian egileak prestatua.

²⁹⁸ .- Oarso Bidasoko Hitza inprimatuak 2011n jaso zuen lehen aldiz "Hedabideak" diru-laguntza mantxeta horrekin, ordura arte Oarsoaldeko Hitza zen. Horregatik gertatzen da egoera bitxi hau taulan jasotzen denean: 2005ean oraindik ez zuen funtzionatzen izen horrekin, 2009an ere ez eta 2013an bai, baina ez zegoen egunerokoen multzoan baizik eta aldizkari inprimatuenean.

Taulan bildutako informazioari erreparatuta, esan daiteke egonkortasuna izan dela egunerokoek osatzen duten hedabide-multzoaren ezaugarri nagusia 2013 urtera arte. 2005 urtean 8 hedabide ziren multzo honetan, 2009an bat gehiago *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza* bitan kaleratzen zelako eta 2013an 6 hedabide, *Oarso Bidasoko Hitza* eta *Irutxuloko Hitza* astekari bilakatu zirelako.

Bestalde, egunerokoek Gipuzkoan dute zabalkunderik handiena. Hala ere, lurralde hartan 2005. urteko egunerokoen eskaintza 2013koa baino oparoagoa zen. Edozein kasutan, 2013an *Berría* egunkariak gain, Gipuzkoako biztanleria osoaren %29,7k²⁹⁹ zuen aukera egunerokoen multzoan kokatutako beste inprimaturen bat irakurtzeko (*Hitzak* eta *Hernaniko Kronika*). 2012an, berriz, portzentaje hori %76,2ra iristen zen³⁰⁰. Bizkaian egoera berbera errepikatzen da 2005ean eta 2013an; *Berría* egunkariak gain, *Lea-Artibai*, *Mutriku* eta *Busturialdeko* herritarrek izan dute euskara hutsezko beste eguneroko bat irakurtzeko aukera. Baieztapena portzentaje zehatzetara ekarrita³⁰¹, 2013an Bizkaiko populazio osoaren %6,3k izan du aipatu aukera. Azkenik, Araban *Berría* izan da 2005-2013 bitartean euskara hutsezko eguneroko hedabide inprimatu bakarra.

2.- Euskara hutsezko aldizkari inprimatuak: bi azpi-multzo bereiz daitezke:

a.- EAEn euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak (pentsamendua, zientzia, musika, natura, haur eta gazteei zuzendutakoak...). Informazio orokorra ematen duen aldizkari bakarra izan da 2005-2013 epealdi osoan: *Argia*. 1919an sortutakoa da, 9.500 ale kaleratzen zituen astero 2013an, eta gehienak harpidetza bidez banatzen ziren.

²⁹⁹ .- Portzentaje hau Eustat, Euskal Estatistika Erakundeak eskaintzen dituen datu-bankuak erabiliz kalkulatu da. Horri esker jakin daiteke zenbat bizilagun dituen lurralde batek, eskualde batek, zein udalerrri batek data zehatz batean. Hedabide inprimatu bakoitzaren zabalkunde-esparruko herriak zeintzuk diren jakinda erraza da kalkulua burutzea. Ikerketa honetarako kontsultak 2013ko urtarrilaren 1eko datarekin egin dira.

³⁰⁰ .- Kontuan hartu behar da 2012an egunerokoen multzoan *Irutxuloko Hitza* eta *Oarso Bidasoko Hitza* ere bazeudela eta bi hedabide horiek biztanleria handia duten herrietan zabaltzen zirela, besteak beste Donostia, Errenteria-Orereta eta Irun. Eustaten datuen arabera, hiru udalerrri horien artean 2013ko urtarrilaren 1ean 280.394 biztanle zituzten (eta Gipuzkoa osoak 707.891 biztanle).

³⁰¹ .- Eustaten datu-bankuen arabera, 2013ko urtarrilaren 1ean 1.150.792 bizilagun zituen Bizkaia eta *Lea-Artibai*, *Mutriku* eta *Busturialdeko Hitza* guztira 72.553 bizilagun zituzten herrietara iristen zen.

lkerketa-lan honen epealdiko lehen urtean, 2005ean, ordea, beste bi ere baziren: *Zabalik*³⁰² (2005eko abenduan desagertu zena) eta *Aldaketa hamasei*³⁰³ (2010ean desagertutakoa).

Bestalde, aldizkari espezializatuei dagokienez, dozenaka daude. Dena den, lan honen objektu diren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzako diru-laguntzak jaso zituztenei bakarrik erreparatzen bazaie, esan beharra dago 2.005 urtean 20 izan zirela laguntza jaso zuten multzo honetako aldizkariak³⁰⁴ eta 23, aldiz, 2013an³⁰⁵. Aldizkari espezializatu gisa hartzen dira bi arrazoirengatik: batetik, jorratzen duten gaiagatik, adibidez, pentsamendua (*Jakin* esaterako), zientzia (*Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkaria adibidez), musika (*Entzun*), erlijioa (*Hemen*), natura (*Euskal Herriko Natura*). Bestetik, espezializatutzat har daitezke helburu moduan duten publikoagatik, esaterako, haurrentzako *Ipurbeltz* edo gazteei zuzendutako *Gaztezulo*. Tirada, hedapen eta ezarpen txikikoak dira mota honetako aldizkari gehienak; izan ere, gutxik gaintitzen zuten 2.000 aleko tirada 2013an.

Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko zein espezializatuko aldizkari asko eta asko harpidetza ordainduaren bidez iristen dira kontsumitzaileengana; kioskoak edo salmenta-puntuak toki zailak dira multzo honetako hedabide inprimatuentzat, bereziki gazteleraz ekoizten diren dozenaka

³⁰² .- Gipuzkoako *Diario Vasco* egunkariak ostiralero kaleratzen zuen gehigarri bezala. 2005ean 7.600 ale inprimatzen zituzten eta horietatik 4.800 saldu egiten ziren.

³⁰³ .- *Cambio 16* aldizkariaren euskarazko bertsioa. Baina edukien %50 berea zen, euskaraz propio sortutakoa. 2005ean 6.000 ale inprimatzen zituzten, eta horietatik 3.000 saldu. Gorka Landaburu kazetaria izan zen haren zuzendaria, eta aurkezpenean honela aurkeztu zuen aldizkariaren asmoa: "Euskararen normalizazioarekin eta hedapenarekin batera, Aldaketa hamasei agertoki libre eta independente izan nahi dugu, askotarikoa eta egatia, iritzi eta planteamendu guztiak plazaratzeko gunea, beti ere errespetuz eta askatasunez adierazita" (<https://sustatu.eus/1064415153>).

³⁰⁴ .- Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (2005eko abenduak 1, 229. zk.) eta hiru multzotan banatu zituen jasotzaileak: lehenengoan, pentsamendua, zientzia, musika edota natura jorratzen zutenak zeuden (*Uztaro*, *Karmel*, *Euskal Herriko Natura*, *BAT soziolinguistika aldizkaria*, *Aizu!*, *Bertsolari*, *Egan*, *Nabarra*, *Hemen*, *Jakin*, *Elhuyar Zientzia eta Teknika aldizkaria*, *Entzun*, *Aisia biziz* eta *Ostiela!*); bigarrenean, haurrei zuzenduriko bi aldizkari (*Mantangorri* eta *Ipurbeltz komiki aldizkaria*) eta hirugarrenean, nerabe eta gazteei zuzenduriko beste lau (*Gazteberri*, *Xirika*, *Matraka* eta *Gaztetxulo*).

³⁰⁵ .- 2013an onuradun izan ziren aldizkari espezializatuetatik dozena bat 2005eko onuradunen zerrendan zeuden. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (2013ko abuztuak 28, 163. zk.). Kasu honetan onuradunak izan ziren: *+/-18 Presta Ezazu zure Etorkizuna*, *Gazteberri*, *Euskal Herriko Natura*, *Bertsolari*, *Gaztezulo*, *Ekai center*, *Elhuyar Zientzia eta Teknologia aldizkaria*, *Xabiroi komikia*, *Aizu!*, *Hemen Erlijio gogoetarako aldizkaria*, *Ekonomiaren KZ*, *Gazteon KZ*, *GAUR8 astekaria*, *Zazpi haizetara*, *Irria aldizkaria*, *Jakin*, *Argia*, *Karramarro*, *Egan*, *BAT soziolinguistika aldizkaria*, *Uztaro*, *Aldiri*, *Arkitektura eta abar* eta *Hazi Hezi etxerako heziketa aldizkaria*.

produktu espezializatuz inguratuta daudelako eta horrela izanda ikusgarritasunaren, presentziaren lehian galtzaile ateratzen direlako. Bestalde, ordaindutako harpidetza bidezkoak izateak urteko jardunerako gastu-aurrekontua elikatuko duten diru-sarrerara jakin batzuek eskuratzea ahalbidetzen die multzo honetako inprimatuei. Bereziki, fidelizazio-maila sendoan oinarrituriko harpidetzak baldin badira.

Egunerokoekin egin bezala, euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak 2005, 2009 eta 2013an zuten presentziaren egoera bildu daiteke taula batean³⁰⁶ (taula hurrengo orrian dago aldizkari batzuk orrialde honetan eta gainontzekoak hurrengoan geratu ez daitezen).

³⁰⁶ .- Taulan argitalpenak logika honi jarraituz daude aurkeztuta: lehenbizi 2005-2013 epealdi osoan laguntzak jaso zituzten hamabi aldizkariak ordena alfabetikoz, eta ondoren ikertu den denbora-tartean izan ziren gainontzeko aldizkari guztiak ordena alfabetikoz zerrendatuta.

47. taula. Euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak, 2005, 2009 eta 2013.

Egitasmoa	2005	2009	2013
Aizu!	✓	✓	✓
Argia	✓	✓	✓
BAT, soziolinguistika aldizkaria	✓	✓	✓
Bertsolari	✓	✓	✓
Egan	✓	✓	✓
Elhuyar, zientzia eta teknologia aldizkaria	✓	✓	✓
Euskal Herriko Natura	✓	✓	✓
Gazteberri	✓	✓	✓
Gaztezulo	✓	✓	✓
Hemen, erlijio gogoetarako aldizkaria	✓	✓	✓
Jakin	✓	✓	✓
Uztaro	✓	✓	✓
+/- presta ezazu zure etorkizuna	✗	✓	✓
Aisia biziz	✓	✗	✗
Aldaketa hamasei	✓	✓	✗
Aldiri, arkitektura eta abar	✗	✗	✓
Ekai center	✗	✗	✓
Ekonomiaren KZ	✗	✓	✓
Entzun, musika aldizkaria	✓	✗	✗
Gazteon KZ	✗	✓	✓
GAUR8	✗	✓	✓
Hazi Hezi	✗	✗	✓
Ipurbeltz	✓	✗	✗
Irria	✗	✗	✓
Karmel	✓	✓	✗
Karramarro	✗	✗	✓
Lanabesa	✗	✓	✗
Mantangorri	✓	✗	✗
Matraka	✓	✗	✗
Nabarra	✓	✓	✗
Nora	✗	✓	✗
Ostiela	✓	✗	✗
Xabiroi	✗	✓	✓
Xirika	✓	✗	✗
Zabalik	✓	✗	✗
Zazpi Haizetara	✗	✓	✓
GUZTIRA	23	23	23

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Emitza kuantitatibo orokorrari begiratuta, egonkortasuna da multzo honetako ezaugarria, EAEn 2005-2013 epealdian informazio orokorreko eta espezializatuko 23 aldizkari ziren euskara hutsez irakurgai. Hala ere, denbora-tarte horretan sarrera-irteera ugari izan dira, 2005ean laguntza jaso zuten hamaika dagoeneko ez zeudelako mapan 2013an; baina horiei beste hamaikak hartu diete erreleboa. Horri esker eusten dio azken zenbakiak (23).

b.- EAEn udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak. Tokikoak direla esan dezakegu, esparru anitza osatzen dute eta gertuko informazioa jorratzen eta zabaltzen dute. 1988tik (*Arrasate Press*) hona sortutakoak dira, eta euskara indartsu dagoen eremuetan, bereziki Gipuzkoan, gertatu da batez ere hedabide-mota honen hedapena. Sorreran herria izan zuten gehienek berezko esparru, baina denborarekin, udalerrri mailakoak izatetik eskualdeetara hedatzeko urratsa egin dute zenbaitek³⁰⁷, eta horiek, zereginak bateratzearen ondorioz, egun 50.000-100.000 biztanle duten eskualdeetan daude txertatuta.

Zalantzarik gabe, aniztasuna da multzo honetako hedabideen ezaugarri nagusia. Izan ere, askotarikoak dira hainbat kontutan: izaera³⁰⁸, formatuak, tiradak, maiztasunak (astekariak, hamabostekariak, hilabetekariak), antzinasunak edota lantaldeen antolaketa eta egiturak. Baina denek jorratzen dute hurbileko informazioa hurbiletik, eta arrazoi horregatik jasotzen dute, hain zuzen, irakurleen balorazio positiboa, euskaraz ez dakien jendearen atxikimendua lortzerainokoa. Gehienak doan banatzen dira, eta finantziazioari dagokionez, hiru iturri nagusi dituzte: diru publikoa, publizitatea eta ekarpen partikularrak.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak era honetako 53 tokiko aldizkari ezberdinei esleitu die diru-laguntza 2005-2013 bitartean, 36 aldizkariri 2005ean eta

³⁰⁷ .- Sinergiak bilatzeko helburuarekin egin zen eskualde mailako antolaketaren aldeko apustua. Horretan aitzindari izan ziren *Ttipi-Ttapa* (Bortziriak-Baztan-Malerreka), *Goienkaria* (Debagoiena), *Anboto* (Durangaldea) edota *Guaixe* (Sakana), eta ondoren beste batzuk ere bide bera jorratu zuten, adibidez, *Aikor* (Txorierrri) eta *Begitu* (Arratia).

³⁰⁸ .- Asko eta asko euskara edo kultur elkarte baten babesean sortutakoak dira. Baina horrez gain, badaude fundazio izaera dutenak, komunikazio-enpresak sortutakoak, eta sozietate edo kooperatiba izaera duten enpresak kaleratutakoak.

beste horrenbesteri 2013an. Horietatik 21 aldizkari deialdi bietan³⁰⁹ izan ziren onuradun.

Multzo honetako hedabideen artean, Goiena Komunikazio Taldeari loturiko *Goiena* nabarmendu behar da, dituen botaldi datuengatik³¹⁰, irakurle kopuruagatik³¹¹ eta euskarazko kazetaritzan erreferente bilakatu den talde multimedia batean integratuta dagoelako. *Goienarekin* batera, eta botaldiei erreparatuz, *Gipuzkoako Hitza*, *Bizkaiko Hitza*, *Anboto*, *Ezkerraldeko KZ*, *...eta kitto!*, *Txintxarri*, *Aikor*, *Ttipi-ttapa*, *Goiberri* eta *Begitu* dira sendoenak³¹².

Hedabide-multzo honen zabalkunde-eremua kontuan hartuta, eguneroko prentsarekin gertatutakoa errepikatzen da; hau da, Gipuzkoa litzateke, alde handiarekin gainera, tokiko inprimatuen eskaintzarik handiena duen lurraldea, eta Araba txikiena duena. Datua, berriro ere, bat dator lurralde bakoitzak duen egoera soziolinguistikoarekin, zenbat eta euskaldun gehiago izan, orduan eta tokiko gehiago. Kasu honetan, taula erabili beharrean, EAEko maparen gainean kokatuz erakutsiko da 2005, 2009 eta 2013 urteetako egoera.

³⁰⁹ .- Ebazpenen kontsulta egiteko: 2005ekoa EHAA 229. zk. (2005eko abenduak 1) eta 2013koa EHAA 163. zk. (2013ko abuztuak 28).


³¹⁰ .- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ebazpena egiteko lantzen dituen arazketa-taulen arabera, 2013an *Goiena paperak* 20.150 aleko botaldia zuen eta *Asteleheneko Goiena paperak* 4.250 alekoa.

³¹¹ .- CIES enpresak neurtzen ditu bere irakurleak. 2013ko datu metatuen arabera, *Goienak* 35.000 irakurle zituen; horietatik 32.000 Debagoiena eskualdean, eta gainontzeko 3.000 beste hiru eskualdetan banatzen ziren: Deba Barrena, Goierrri eta Urola Kosta.

³¹² .- Aipatutako denak 6.000 aletik gorako botaldiak zituzten 2013an. Ikerketaren lehen urtean, aldiz, 2005ean, 6.000 aletik gorako tiradak zituzten: *El social Basauriko aldizkaria*, *Anboto*, *... eta kitto!*, *Txintxarri*, *Txaparro*, *Goierritarra*, *Arrasate Press* eta *Berrigara*. Zerrenda bietan agertzen ez direnen egoera erraz azaldu daiteke: batzuk 2005ean ez zeuden oraindik, geroago sortutakoak dira; besteak (2005eko zerrendan daudenak eta 2013koan ageri ez direnak) bidean gelditu ziren; hots, arrazoi ezberdinak direla medio, ez ziren 2013ra heldu.


Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

2. irudia. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso duten udalerri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak EAEko mapan, 2005.



Iturria: tesiaren egileak prestatua.

3. irudia. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso duten udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak EAEko mapan, 2009.



Iturria: tesiaren egileak prestatua.












Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.





























4. irudia. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso duten udalerri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak EAEko mapan, 2013.



Iturria: tesiaren egileak prestatua.

ARABA	
	<i>GEU Gasteiz</i>

BIZKAIA			
	<i>Aikor</i>		<i>Drogeteniturri</i>
	<i>Akatz</i>		<i>El Social Basauriko aldizkaria</i>
	<i>Anboto</i>		<i>Ezkerraldeko KZ</i>
	<i>Bagabiz</i>		<i>Prest!</i>
	<i>Begitu</i>		<i>UK</i>
	<i>Berton</i>		

GIPUZKOA			
	<i>Aiurri astekaria</i>		<i>Irunero</i>
	<i>Aiurri hamaboskaria</i>		<i>Irutxuloko Hitza</i>
	<i>Aretxagazeta</i>		<i>Kalaputxi</i>
	<i>Arrasate Press</i>		<i>Karkara</i>
	<i>Artzape</i>		<i>Maxixatzen</i>
	<i>Asteleheneko Goienkaria/Goiena</i>		<i>Noaua</i>
	<i>Baleike</i>		<i>Oarso Bidasoko Hitza</i>
	<i>Barren</i>		<i>Oarsoaldean On</i>
	<i>Berrigara</i>		<i>Otamotz</i>
	<i>Danbolin</i>		<i>Pil-pilean</i>
	<i>...eta kitto!</i>		<i>Txaparro</i>
	<i>Galtzaundi</i>		<i>Txintzarri</i>
	<i>Goienkaria/Goiena papera</i>		<i>Uztarria</i>
	<i>Goierritarra</i>		<i>Zuhatza berriketan</i>

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Arestian, elkarren segidan aurkeztu diren 2005, 2009 eta 2013ko mapetan oinarrituta, zenbait baieztapen egin daiteke, betiere ikertzen ari den denbora-tartean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen onuradun izan diren inprimatuei egokituta:

- EAeko udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien kopuruak behera egin du 2005etik 2013ra bitartean, 35 izatetik 33 izatera igaro da. Bizkaiak 9 zituen 2005ean eta 10 2013an; Arabak bakarra, baina ez argitalpen bera urte batean eta bestean, eta Gipuzkoa 25 izatetik 22 izatera igaro da.
- Arestiko 2013ko mapan ez dira ageri, baina aurreko zenbaketan kontabilizatuta daude, 2011tik aurrera "Hedabideak" diru-laguntzaren onuradun izango diren *Arabako Hitza*, *Bizkaiko Hitza* eta *Gipuzkoako Hitza*. Bakoitza izena ematen dion lurralde osoan zabalduko da, ez dira doakoak, *Berria* egunkariarekin batera argitaratzen dira.

- Araban, aztertutako denboran tokiko bakarra izan da, 2005-2009 bitartean *GEU Gasteiz* eta 2011tik 2013ra *Berría* egunkariarekin batera lurralde osora zabaldu den *Arabako Hitza*.
- Bizkaian, tokikoen eskaintza Durangaldean, Arratian, Uribe-Kostan eta Txorierrin biltzen da. Busturialdean eta Lea-Artibain, %70etik gorako euskaldunen portzentajeak dituzten bi eskualdeetan³¹³, *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzaren* bidez jasotzen dute informazio orokorra. Mungian eta inguruetan dituen herrietan, berriz, euskaldunen portzentajea handia den arren, ez da tokikorik garatu. Beste horrenbeste gertatu da Enkarterrietan, baina hemen egoera soziolinguistikoa ezberdina da, euskaldunen portzentajea bostena inguru delako³¹⁴. Bilbon *Berton* eta *Prest!* aldizkariak izan dira epealdi osoan, lehena batez ere Mahatserrian³¹⁵ zabaltzen da eta bigarrena Deustualdean. Azkenik, bi herritan tokian tokiko aldizkari bat baino gehiago banatzen da, Mallabian *Anboto* eta *Drogeteniturri*, eta Erandion egoera bera gertatu zen *UK* eta *Aikor* aldizkariekin³¹⁶. Bizkaian izandako gorabeheren laburpen moduan esan daiteke ikertu den denbora-tartean “Hedabideak” laguntza-deialdiaren onuradun izan ziren *El Social Basauriko aldizkaria*³¹⁷ eta Bermeoko *Akatz* galdu dituela. Baina beste hiru irabazi ditu: lurralde osoan zabaltzen den *Bizkaiko Hitza*, Gernikako *Bagabiz* eta euskaldun portzentaje apalak dituzten herrietan³¹⁸ sortu eta garatu den *Ezkerraldeko KZ*.
- Gipuzkoan, mapak agerian uzten du udalerri, eskualde edo lurralde jakinetako informazio orokorreko aldizkariaren zabalkundea bat datorrela euskarak bertan duen

³¹³ .- V. Mapa Soziolinguistikoaren arabera, 2011n, Lea-Artibai eskualdean %81,2 zen euskalduna eta Busturialdean %72.

³¹⁴ .- V. Mapa Soziolinguistikoaren arabera, 2011n, Enkarterrietan euskaldunen portzentajea %21,5ekoa zen.

³¹⁵ .- Horrela deitzen zaio bilboko hamai auzo biltzen dituen inguruari: Arabella, Begoña, Bolueta, Castaños, Loruri, Matiko, Otxarkoaga, Santutxu, Solokoetxe, Txurdinaga, Uribarri eta Zurbaran. Izen hori iraganean izandako izaeratik datorkio; antza denez, mahasti asko zeuden eta txakoli ugari egiren zen bertan.

³¹⁶ .- Aipatu egoeran dauden herrietan bi kolorerekin marraztu dira mapetan.

³¹⁷ .- Aldizkari honek jarraipena izan zuen *Berbaz* izeneko argitalpenarekin 2011 eta 2012 urteetan. Bi urte horietan Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso zuen.

³¹⁸ .- Barakaldo, Sestao, Portugalete, Trapagaran eta Santurtzi. 2011ko datuen arabera, euskaldunen portzentajeak %17 eta %20 artean zeuden.

bizindarrarekin³¹⁹. Tokikoek ia lurralde osoa estaltzen dute; 2013ko mapan, esaterako, 5 udalerrri baino ez daude kolorez jantzi gabe: Aizarnazabal, Zarautz, Azkoitia, Astigarraga eta Hernani. Dena den, horietan ere ez zeuden tokiko informaziorik gabe. Izan ere, 2005etik aurrera Gipuzkoan informazio orokorra lantzen duen eskaintza bikoitza eta 2010etik aurrera eskaintza hirukoitza izan dute udalerrri askotan: batetik, udalerrri edo eskualde askotan kaleratzen diren tokikoak; bestetik, egunerokoen multzoan dauden *Goierriko Hitza*, *Hernaniko Kronika*, *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza*, *Urola Kostako Hitza*, *Irutxuloko Hitza* eta *Oarso Bidasoko Hitza*, eta hirugarrenik, *Berria* egunkariarekin batera argitaratutako *Gipuzkoako Hitza*. Gipuzkoan udalerrri edo eskualde jakinetako 25 tokiko aldizkari ziren “Hedabideak” deialdiaren onuradunak 2005ean eta 2013 urtean 22 aldizkari. Zenbakitan behera egiten duen arren, kualitatiboki hobera egiten du, zabalkundean irabazten du. Egoera erraz azaldu daiteke ikertu den denbora-tarteko gorabeherei erreparatuta. “Irabazien” aldean daude 2009tik diru-laguntza jasoko duen Debako *Zuhatza berriketan* aldizkaria³²⁰, eta 2013an eguneroko hedabide inprimatuen multzoa utzi eta aldizkakoenean kokatuko diren *Irutxuloko Hitza* eta *Oarso Bidasoko Hitza*³²¹. Bestalde, 2005etik 2013ra desagertu egingo dira *Arrasate Press* (Arrasate), *Aretxagazeta* (Aretxabaleta), *Berrigara* (Bergara), *Otamotz* (Urretxu eta Zumarraga), *Goierritarra* (Urretxu eta Zumarraga kenduta Goierriko gainontzeko herrietan zabaltzen zen aldizkaria), *Oarsoaldean On* (Errenteria) eta *Txaparro* (Zarautz). Baina horietako askok, lekua utziko diote beste proiektu berri batzuei; hala, 2011n, *Otamotz* eta *Goierritarra* desagertu eta aurrerantzean Goierri eskualdean zabalduko den *Goiberri* izango da³²², eta *Arrasate Press*, *Aretxagazeta* eta *Berrigara* aldizkariaren kasuan, 2005a izango dute azken urtea;

³¹⁹ .- V. Mapa Soziolinguistikoaren arabera, 2011n, honakoak ziren euskaldunen portzentajeak Gipuzkoako eskualdeetan: Bidasoa-Beherea %40,3, Debabarrena %58,1, Debagoiena %62,8, Donostialdea %43,4, Goierri %59,4, Tolosaldea %70,6 eta Urola-Kosta %76.

³²⁰ .- Aldizkaria 1998an sortu zen, baina 2009. urtean jaso zuen lehen aldiz Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza.

³²¹ .- 2013 urteari dagokion mapan Irun herria bi kolorez dago marraztuta, batetik *Irunero* aldizkariari dagokion gorrixka eta *Oarso Bidasoko Hitzari* dagokion gris argia.

³²² .- Horregatik ageri da 2013ko mapan aurretik bi inprimatu ezberdin zirenen koloreen nahasketarekin margotuta.

izan ere, ordurako haien lekukoa hartuta zuen beste hedabide batek, *Goienkariak*³²³. Gertatutakoak TOKIKOMETik eta sektoretik bertatik sinergiak eta eskualdeko formulak bultzatzearen alde egindako apustuari erantzuten dio. Horren erakusgarri argiak dira *Goiena* Debagoiena eskualdean, *Goiberri* Goierri eta *Galtzaundi* Tolosaldean. Bestelakoa da Urola-Kosta eskualdeak 2005-2013 epealdian erakutsi duen patroia; kolore anitz ageri dira bertan, ia herri bakoitzak izan duelako bere tokiko argitalpena³²⁴.

- Maparen irakurketarekin bukatzeko esan bertan ez daudela 2005-2013 bitartean “Hedabideak” diru-laguntzak jaso dituzten *Ttipi-ttapa*, *Guaixe*, *Mailope*, *Pulunpe* eta *Herria* aldizkariak. Lehen laurak Nafarroan zabaltzen direlako eta azkena Iparraldean. Nafarroako tokiko aldizkariak 2007an izan zuten lehen aldiz Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskatzeko aukera eta lau horiek Bortzirietan, Sakanan, Aralarko Iparraldean eta Ultzamaldean zabaltzen dira. Horiez gain, 2011tik aurrera *Berria* egunkariak kaleratzen duen *Nafarroako Hitza* dute. *Herriaren* kasuan 2006an jaso zuen azken aldiz diru-laguntza “Hedabideak” deialditik. Izan ere, 2007tik aurrera *Herriari* beste formula baten bidez iristen zaio laguntza: Eusko Jaurlaritzak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) sinatutako hitzarmenen aurreikusten den diru-partidatik.

Behin diru-laguntzak jaso dituzten euskara hutsezko inprimatuen 2005-2013 bitarteko argazkia osatuta, hurrengo urratsean, horiek irakurleen aldetik izan duten kontsumo-erantzuna aztertuko da.

³²³ .- Lan honen beste zenbait tokitan gogoratu bezala, *Goienkariak* 2000 urtean egin zituen lehen urratsak. Proiektu berriarekin bat egin zuten ordura arte Debagoienan zabaltzen ziren ondoko aldizkariak: *Arrasate Press* (Arrasate), *Berrigara* (Bergara), *Goibekokale* (Elgeta), *Aretxagazeta* (Aretxabaleta), *Kontuola* (Antzuola) eta *Ze barri?* (Eskoriatza eta Leintz Gatzaga). Baina 2005ean oraindik aldi berean kaleratzen ziren *Goienkaria papera*, *Asteleheneko Goienkaria*, *Arrasate Press*, *Aretxagazeta* eta *Berrigara*. Arrazoi horregatik, 2005eko mapan horiek bat egiten duten lekuetan bi kolore daude nahastuta (*Goienkaria+Arrasate Press*, *Goienkaria+Aretxagazeta* eta *Goienkaria+Berrigara*).

³²⁴ .- 2005 eta 2009 urteetan zazpi tokiko aldizkari zabaltzen ziren Urola-Kostako zortzi herritan: *Baleike* Zumaian, *Artzape* Getarian, *Txaparro* Zarautzen, *Maxixatzen* Azkoitian, *Uztarria* Azpeitian, *Danbolin* Zestoan eta *Karkara Aia* eta *Orion*. Ikerketak aztertu duen azken urtean, 2013an berriz, 5 aldizkari 6 herritan. Izan ere, *Txaparro* eta *Maxixatzen* desagertu egin ziren 2010ean. *Maxixatzen* urte batzuetara kaleratuko dute berriro.

2.2.3.4.2. IRAKURLE-DATUAK 2005-2013 BITARTEAN

Zaila da euskara hutsezko hedabide inprimatuen irakurlegoari buruzko datu zehatzak ematea. Izan ere, *Berria* egunkaria, *Argia* aldizkaria, *Goiena* komunikazio-taldeko hedabideak, eskualdeetako *Hitza*, Bortzirietako *Ttipi-ttapa*, Sakanako *Guaixe*, eta 2009 urtetik aurrera *GAUR8* eta *Zazpi Haizetara* aldizkariak kenduta³²⁵, gainontzeko paperezko hedabideek ez dute bakoitzak dituen irakurleak denboran zehar modu sistematiko, zehatz eta publikoan neurtzeko tresnarik erabiltzen. Hala ere, eskuragarri diren datuak aurkeztu eta aztertuko dira ondoko lerroetan. Abiatzeko, CIES enpresaren datuez baliatuko gara³²⁶.

48. taula. Euskara hutsezko egunkari eta aldizkarien irakurleen bilakaera, 2005-2013.

HEDABIDEA	Irakurleak (x 000)								
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Berria ³²⁷	55	53	64	61	57	53	53	56	55
Hitza ³²⁸	71	77	79	88	86	87	92	89	80
Goienkaria/Goiena ³²⁹	42	44	50	45	41	34	33	32	35
Argia ³³⁰	-	-	51*	-	-	-	47	51	50
Ttipi-ttapa	17	28	26	26	24	23	29	26	26
Guaixe ³³¹	17	15	14	12	15	18	-	-	-
GAUR8	-	-	-	-	50	50	46	40	35
Zazpi Haizetara	-	-	-	-	67	69	63	61	51

Iturria: CIES. Urteroko datu metatuak.

*Argia astekariari dagokion datu hau CIESen *Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa* izeneko lanetik (2007) jasota dago.

³²⁵.- Aipatutako hedabideen kasuan, CIES enpresak jasotzen ditu irakurleen datuak, urtean zehar egiten dituen bi neurketetan. *GAUR8* eta *Zazpi Haizetara* aldizkarien kasuan, 2009an hasi ziren neurketak egiten eta CIESek eskaintzen dituen bi neurketetatik bakarra egiten dute, lehena.

³²⁶.- CIESen datuak enpresak Iruñean duen bulegoan bertan jaso zituen tesiaren egileak hara 2014ko ekainaren 27an egin zuen bisitaldian.

³²⁷.- EAEko hiru lurraldeetan dituzten irakurle-datuak dira.

³²⁸.- Eskualdetako *Hitza* guztien irakurle-datuak gehituta.

³²⁹.- 2010ean Goiena Komunikazio taldeak erabaki zuen izen bera ematea bere hedabide guztiei: *Goiena*.

³³⁰.- EAEko hiru lurraldeetan dituzten datuak dira, eta *Argiaren*, kasuan 2011tik daude neurketaren emaitzak.

³³¹.- 2011- 2013 bitartean ez zuten CIESen neurketa egin.

Datuak ikusita, esan daiteke denek izan dutela 2013koa baino irakurle-kopuru handiagoa 2005-2013 bitarteko beste uneren batean. Ezaugarri komun horretatik abiatuta hiru joera bereiz daitezke:

1.- *Berría* egunkariak hasierako maila berari eusten dio;

2.- *Hitza*, *Argia*, *Ttapi-ttapa* eta *Guaixek* (azken honen 2011-2013 bitarteko irakurle-daturik ez badago ere), 2005ean zuten kopurua hobetu dute eta azkenik,

3.- *Goiena*, *GAUR8* eta *Zazpi Haizetara* hedabideak 2005ean zituzten irakurle-kopuruaren azpitik zeuden 2013an.

Gainontzeko euskara hutsezko idatzizkoetan, askotan estimazio edo pertzepzio hutsetan oinarrituta eman izan dira datuak, irakurle potentzialen artetik zenbatenganako irismen-maila duten kalkulatzeko adibidez. Horren ondorioz, noizbehinka irakurleen kopuruak ezagutzeko eskainitako zifrak, iturriaren arabera, zeharo ezberdinak izan dira. Hainbat urtetan, euskarazko tokiko hedabideen irakurleak kalkulatzeko orduan, ale bakoitzeko 4tik gora irakurle ematen zitzaizkien, baina *Aztiker Ikerguna* enpresak³³² burututako azterketek erakutsi dute tokiko prentsaren kasuan, estimazio haiek ez zirela baliagarriak, eta ale bakoitzeko irakurleak 1,6-1,8 inguruan kokatu beharko lirakekeela batezbeste.

Edozein kasutan, denboran zehar tokikoen irakurle kopuruaren kalkulua egiterakoan izan den jaitsiera, Alazne Aiestaran irakaslearen ustez, demografiari eta hizkuntza-gaitasunari lotutako arrazoen bidez azaldu daiteke,

“Alde batetik, gizartean izan den demografia-aldaketa, lehen etxebizitza bakoitzean jende gehiago bizi baitzen. Beste alde batetik, etxe askotan bizilagun guztiak ez direla euskaldunak, beraz, ez dute aldizkaria irakurtzeko gaitasunik”(Aiestaran, 2010: 43).

³³² .- Aztiker Ikerguna enpresa 2001ean sortu zen, Euskal Herriak gizarte-ikerketaren arloan dituen ezagutza-beharrei erantzuteko helburuarekin.

Kausak kausa, CIES eta Aztiker enpresen eskutik datozkigunez gain, apenas³³³ dago beste irakurle-datu zehatzik esku artean dugun lan honek aztergai duen 2005-2013 bitarterako. Egoera ezin zaio datu horiek ezagutzeko interes faltari egotzi. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik eta sektoretik bertatik, aspalditik, eta behin eta berriro, aldarrikatu dute funtsezkoa dela euskarazko hedabideen kontsumoaren eta kontsumitzaileen argazki kuantitatiboa eta kualitatiboa ahalik eta osatuena eta zehatzena izatea. Nahia eta beharra gauzatzeko ahaleginak ere egin dira denboran zehar³³⁴ baina euskarazkoen sektore osoa aintzat hartuta burutu diren azterlan gehienak 2005etik aurrerakoak dira. Horren erakusle Eusko Jaurlaritzak sustatuta egin diren ondokoak:

- *Euskarazko Hedabideak* izeneko azterketa (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2006).
- *Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa* (Eusko Jaurlaritzarentzat CIES enpresak egindakoa, 2007).
- *Euskarazko komunikabideen polikontsumoari buruzko azterlana* (Eusko Jaurlaritzarentzat CIES enpresak egindakoa, 2007).
- *Euskarazko komunikabideak erabiltzeko eragingarriak eta eragozpenak* (Eusko Jaurlaritzarentzat Ikerfel enpresak egindakoa, 2007).
- *Euskal Hedabideak EAEn* (Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2008).

Lan horien edukiak eta Aztiker enpresak 2008 eta 2009an tokian tokiko bost aldizkariarekin³³⁵ egindako azterketen emaitzak hartuko dira oinarritzat euskarazko idatzizko hedabideen kontsumoari buruzko atala landu eta osatzeko. Horrekin batera, CIEsek eta EGMk aldiro burutzen dituzten neurketak ere kontuan hartuko dira.

³³³ .- *Noaua!*, *Aiurri* (hamaboskariak eta astekariak), *Txintzarri* aldizkariak eta Hernaniko *Kronika* egunkariak azterlana enkargatu zioten 2006 urtean Ikerlan enpresari.

³³⁴ .- Honetan ere, beste arlo askotan bezalaxe *Arrasate Press* izan zen aitzindaria. 1989 urtean egin zuen argitalpenaren ezarpena eta zabalkundeari buruzko ikerketa-lana. Hari beste hainbatek jarraitu zioten ondorengo urteetan; adibidez *Ttipi-ttapak* 1992an egin zuen, *...eta kitto!*k 1993an. Gero Siadeco enpresak 1996an *Aiurri*, *Irutxulo*, eta *Galtzaundi* aldizkariak irakurleei buruzko inkesta egin zuen. Euskal Herriko Unibertsitatetik, Jotxo Larrañagak, Miren Gabantxok eta Asier Arangurenak *Sei herri aldizkari* izenburuko lana argitaratu zuten 1997an; bertan *Arrasate Press*, *Goierritarra*, *Akatz*, *Irutxulo*, *Ttipi-ttapa* eta *Elgoibarren* aldizkariak eta horien irakurleen perfilak aztertu zituzten.

³³⁵ .- Eibarko *...eta kitto!*, Txorierriko *Aikor*, Elgoibarko *Barren*, Idiazabalgo *Aldaize* eta Orio eta Aiako *Karkara*.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

CIEsek Eusko Jaurlartizaren enkarguz 2007an egindako azterketaren³³⁶ arabera EAEn, 14 urtetik gorako 780.000 euskaldun edo ia euskaldun zeuden, eta horietatik 123.000k kontsumitzen zuten eguneroko prentsa³³⁷. Datuak agerian uzten du kontsumoa ez dela iristen euskaldunen %16ra. Irismena txikia da beraz, eta txikitasun hori bi mailatan nabarmentzen da:

- kontsumitzaile potentzialei begiratuta: 780.000 milatik 123.000 irakurle.
- EAeko biztanleria osoaren kontsumo-datuekin alderatuta: garai berean, EAeko biztanleria osoaren %50,2k irakurtzen zuen egunero prentsa. Bitartean, euskarazkoa kontsumitzen dutenen portzentajea %15,8koa da. Joera bera errepikatzen da irrati, telebista eta Internetekin ere.

49. taula. Euskarazko hedabideen kontsumitzaile-kopurua, 2007 (kopuru absolutuak eta ehuneko bertikalak).

Hedabide-mota	Euskarazkoen kontsumitzaile kopurua	Ehunekoa
Argitalpenak ³³⁸	284.000	36,4
Irratia	173.000	22,2
Telebista	169.000	21,7
Eguneroko prentsa	123.000	15,8
Interneta	23.000	2,9
Irismena guztira	450.000	57,7
Guztira	780.000	

Iturria: Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa. Eusko Jaurlaritzak. CIES.

Euskarazko eguneroko prentsak EAeko hiru lurraldeetan duen irismenari erreparatuta, berriz, 2007an Gipuzkoan zuen harrerarik onena, bertan bizi ziren euskaldunen %20,7rengana iristen zelako. Bizkaian irismena %12,2koa zen eta Araban bizi ziren euskaldunen %3,2rengana iristen zen.

³³⁶ .- Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa izenburukoa Jaurlaritzako Kultura Sailak eskatutako lana da. 4.121 elkarrizketa egin zituzten EAeko 14 urtetik gorako bizilagunekin. Elkarrizketatuek euskara ongi edo oso ongi ulertu eta behintzat zerbait hitz egin behar zuten.

³³⁷ .- Berria eta eskualdeetako Hitzak aztertu ziren.

³³⁸ .- Egunerokoak ez diren gainontzeko argitalpenak daude kategoria honetan: informazio orokorreko edo espezializatuko aldizkariak eta tokian tokikoak.

50. taula. Euskarazko eguneroko prentsaren kontsumitzaile-kopurua eta irismena lurraldearen arabera, 2007 (kopuru absolutuak eta ehuneko bertikalak).

Herrialdea	Kopuru absolutua	Irismena (%)
Araba	4.000	5,8
Gipuzkoa	78.000	20,7
Bizkaia	41.000	12,2
Guztira	123.000	15,8

Iturria: Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa. Eusko Jaurlaritzak. CIES.

Urrats bat gehiago egin eta udalerrien tamainaren araberako kontsumoa aztertuz gero, agerikoa da euskal hedabideek oro har, eta euskarazko eguneroko prentsak, 10.000-50.000 biztanle arteko udalerrietan zuela jarraitzaile gehien 2007an; tamaina horretako udalerrietan bizi zelako euskaraz irakurtzeko gai zen jende gehien. Baina irismena kontuan hartuz ezin da esan gauza bera, biztanleen kopurua handitu ahala irismenak behera egiten duelako, zenbat eta biztanle gehiago orduan eta euskaldun gutxiagorengana heltzen dira euskarazkoak.

51. taula. Euskal hedabideen eta euskarazko eguneroko prentsaren kontsumitzaileak udalerrien biztanle-kopuruaren arabera, 2007 (kopuru absolutuak eta ehuneko bertikalak).

Biztanle kopurua	Euskal hedabideen kontsumitzaileak	Irismena(%)	Euskarazko eguneroko prentsaren kontsumitzaileak	Irismena(%)
5.000>	127.000	68,6	26.000	20,6
5.000-10.000	94.000	66,1	25.000	26,1
10.000-50.000	307.000	62,0	46.000	15
50.000<	57.000	51,4	4.000	6,9
Hiriburua	195.000	41,5	22.000	11,3
Guztira	780.000	57,7	123.000	15,8

Iturria: Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa. Eusko Jaurlaritzak. CIES.

Bestelakoa da, desberdina zenbakitan, argitalpenen emaitza. Hortxe daude kokatuta egunerokoak ez diren gainontzekoak³³⁹: informazio orokorrekoak, espezializatuak eta tokian tokikoak. Hasteko, esan behar da 2007an multzo honen irismenak egunerokoek lortutakoa bikoizten zuela aise eta lurraldeei begiratuta Gipuzkoan ia %50era iristen zen. Erraza ulertzeko, kontuan hartzen bada lurralde

³³⁹ .- Eusko Jaurlaritzak sustatuta CIEsek 2007an burutu zuen lanean 76 euskarazko argitalpen aztertu zituzten. Horietatik multzorik zabalena (49) tokian tokiko hedabideak ziren (3 Araban zabaldukoak, 14 Bizkaian eta 32 Gipuzkoan).

horretan banatzen zirela (eta direla) euskarazko argitalpen gehien eta bertan zeudela (eta daudela) elebidun kopururik altuenak.

52. taula. Euskarazko argitalpenen kontsumitzaile-kopurua eta irismena lurraldearen arabera, 2007 (kopuru absolutuak eta ehuneko bertikalak).

Lurraldea	Kopuru absolutua	Irismena(%)
Araba	14.000	21,8
Gipuzkoa	183.000	48,9
Bizkaia	87.000	25,4
Guztira	284.000	36,4

Iturria: Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa. Eusko Jaurlaritza. CIES.

Udalerrien tamainari erreparatuta, 10.000-50.000 biztanle arteko udalerrietan zituzten irakurle gehien eta irismen altuena argitalpenak 2007an. Egunerokoek zutenarekin alderatuta, kasu guztietan, nabarmen handiagoak dira irismenak (5.000-10.000 biztanle arteko udalerrietan izan ezik).

53. taula. Euskal hedabideen eta euskarazko argitalpenen kontsumitzaileak udalerrien biztanle-kopuruaren arabera, 2007 (kopuru absolutuak eta ehuneko bertikalak).

Biztanle kopurua	Euskal hedabideen kontsumitzaileak	Irismena(%)	Euskarazko eguneroko prentsaren kontsumitzaileak	Irismena(%)
5.000>	127.000	68,6	52.000	41
5.000-10.000	94.000	66,1	33.000	35,3
10.000-50.000	307.000	62,0	133.000	43
50.000<	57.000	51,4	17.000	29,7
Hiriburua	195.000	41,5	49.000	25,3
Guztira	780.000	57,7	284.000	36,4

Iturria: Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa. Eusko Jaurlaritza. CIES.

Ikusitakoak ikusita, eta oso presente izanda aipatutako datu guztiak 2007an jaso eta landutakoak direla, ondoriozta daiteke euskal hedabideek oro har, eta eguneroko prentsak bereziki, kontsumitzaile-kopuru txikia dutela. Beste era batera esanda, merkatu potentzialaren zati txiki bat baino ez dutela bereganatzen. Eta are txikiagoa da gaztelaniazkoen eskaintza zabal eta indartsuarekin alderatzen bada. Ikerketaren egileek, Xabier Aierdik, Alfredo Retortillok eta Harkaitz Zubirik eskariari eta eskaintzari lotutako arrazoiekin azaldu zuten egoera. Egileek diotenez, eskariaren arazoek euskararen hizkuntza-komunitatea txikia eta ahula izatearekin dute zerikusia,

hau da, euskaraz irakurtzeko gai den kontsumitzaile-kopurua txikia da tamainaz eta horrez gain baieztatu zuten euskarazko hedabideak ez direla iristen kontsumitzaile potentzial guztiengana, irismen txikia dutela (Zubiri, Retortillo eta Aierdi, 2008).

Bestalde, egileen arabera, paperezkoek eta euskal hedabideek oro har, eskaintza-arazoak ere badituzte. “Hots, eskaria egon arren, hedabide baten eskaintza eskasa denean eta ondorioz bere publiko potentzialarengana iristen ez denean”(Zubiri, Retortillo eta Aierdi, 2008: 89).

Hiru autoreek euskararen hizkuntza-erkidegoa zirkulu zentrokidez osatutako fenomeno bezala azertu daitekeela diote, eta euskal hedabidek nagusiki nukleora iristen direla gaineratzen dute.

“Nukleoa hizkuntza erkidegoaren gune dinamikoena litzateke, euskararekiko atxikimendu handiena luketenak (atxikimendu praktikoa, ez sentimentala). Nukleoa ezinbestekoa da erkidegoaren sendotasunerako, beronen bizindarrak eta dinamikotasunak nabarmen baldintzatzen dute erkidegoaren bizitasuna” (Zubiri, Retortillo eta Aierdi, 2008: 94).

Baina euskal hedabideen eragina txikitu egiten da nukleotik urrundu ahala, ez dute nukleotik periferiara zabaltzea lortzen, eta hori galga bilakatzen da bizirauteko derrigorrez zabaldu behar duen hizkuntza batentzat.

“Euskararen hizkuntza erkidegoak nukleo sendoa eta ahal bezain zabala behar du eta, halaber, zirkulu konzentrikoetara hedatzeko gaitasuna behar du” (Zubiri, Retortillo eta Aierdi, 2008: 94).

Paragrafoan seinalatutako gaitasuna eskuratu ahal izateko, euskarak nukleotik periferiarantz hedatzeko, lagungarri izan daitezke euskarazko hedabideak; baina funtzio hori betetzeko ezinbestekoa litzateke euskarazko hedabideek ere jauzi hori egitea; hots, nukleotik kanporantz dauden zirkuluetara iristea. Orain arte azaldutakoaren arabera ordea ez dute halakorik lortzen. Horren zergatia aritu eta ulertzeko garrantzitsua da euskarazko hedabideen kontsumo-datuetan eragiten duten faktoreei erreparatzea.

2.2.3.4.3. EUSKARA HUTSEZKO PAPERZKOEN KONTSUMOAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Euskarazko hedabideen kontsumoa oro har, loturik dago irakurlearen adinarekin, hizkuntza-gaitasunarekin, kontsumitzailea bizi den lurraldearekin eta udalerrriaren tamainarekin batez ere. Era honetan, ikerketak bat datoz euskarazko hedabide inprimatuen kontsumitzaileen ezaugarri nagusiak emateko orduan: adinari dagokionez, kontsumoa ertaina eta handia da 35 urtetik 65 urte bitartekoengan, gipuzkoarrak dira nagusiki, 10.000 biztanletik beherako udalerrietan eta batez ere hirugarren gune soziolinguistikoan³⁴⁰ bizi dira. Gaia jorratu duten lanek erakutsi dute harreman zuzena dagoela udalerrriaren tamaina eta hedabideen irismenaren artean; hau da, irismenik edo sarbiderik handiena 10.000 biztanletik beherako udalerrietan dute euskara hutsezko paperezkoek, eta biztanleen kopuruak gora egin ahala irismenak behera egiten du.

Sarbideari dagozkion datuei dagokienez, bada nabarmentzeko beste kontu bat: tokiko aldizkarien kasuan, atxikimendu eta onarpen maila handia dute euskaraz ez dakien jendearen artean ere³⁴¹; hortaz, tokiko hedabideena, euskaraz irakurtzeko gaitasuna ez dutenengana iristeko eredu eragingarri eta egokia dela egiaztatzen da.

Arestian aipaturikoarekin batera, kontsumitzaileen ikasketa-mailari erreparatzen bazaio, eguneroko prentsaren eta informazio orokorreko aldizkari zein aldizkari espezializatuen kasuan, kontsumorik handiena unibertsitate-ikasketak dituztenen artean gertatzen da, ez ordea tokiko hedabideen kasuan.

Hedabide bat edo bestea aukeratzeko orduan, bi dira eragozpen moduan jokatu dezaketen faktoreak: batetik, ohitura eta bestetik, erraztasuna. Egunkarien zein aldizkarien kasuan, lehen hizkuntza euskara dutenek askoz gehiago kontsumitzen dituzte euskal hedabideak. Horrela ulertu eta azaldu daiteke, hedabideen kopuruari

³⁴⁰ .- Elebidunak %50 eta %80 artean.

³⁴¹ .- Aztiker Ikergunea enpresak 2008an eta 2009an *Aikor!*, *...eta kitto!*, *Karkara*, *Aldaize* eta *Barren* aldizkariekin eginiko azterlanetan galdetegiak erabili zituzten iritziak jasotzeko. Horietako asko gazteleraz erantzunda jaso zituzten bueltan. Euskaraz idazteko gai ez izan arren, aldizkariarenganako atxikimendua erakusten zuten jendearenak ziren.

begiratuta zein kontsumitzaileen datuei begiratuta, euskarazko idatzizko hedabideak askoz eraginkortasun handiagoz iristea Gipuzkoara EAEko beste bi lurraldeetara baino.

54. taula. Zein hizkuntzatan irakurtzen dira egunkariak EAEn (orokorrak nahiz herri edo eskualde mailakoak)(%).

Gaztelaniaz	Euskaraz	Bietan	Ez du egunkaririk irakurtzen
52	10	30	7

Iturria: Euskarazko hedabideak erabiltzeko ezaugarriak eta eragozpenak. Eusko Jaurlaritza (Ikerfel).

Ikerfelek 2007an egindako ikerketaren³⁴² arabera, gaztelaniazko egunkariak irakurtzeko tradizioa eta etxean gaztelaniazkoak erostea dira euskarazko egunkariak ez kontsumitzeko inkestatuek ipini zituzten arrazoi nagusienetarikoak. Lehen, gainera, alde handiarekin nabarmentzen zen (Ikerfel 2007: 49). Izan ere, kasu gehienetan ohitura etxetik hartutakoa izaten da, eta “familian” gaztelaniazko idatzizko hedabideak irakurtzeko ohitura sustraituta baldin badago, zaila izaten da hori aldatzea. Bestalde, euskaraz moldatzeko gaitasunak edo naturaltasunez irakurtzeko besteko gaitasuna izateak ere kontsumoan eragiten du: erraztasun txikiagoa dutenek idatzizko hedabideak kontsumitzeko joera txikiagoa dute, nahiz eta lehenago adierazi den bezala, tokiko hedabideena salbuespena izan. Ikerfelen ikerketa berean, inkestatuen %30ek aitortzen zuten, euskaraz irakurtzeak lana/zailtasuna duela eta gaztelaniazko albisteak hobeto ulertzen dituela.

³⁴² .- Ikerketak teknika kualitatiboak eta kuantitatiboak konbinatu zituen. Fase kualitatiboan 10 eztabaida-talde garatu ziren eta fase kuantitatiboan 500 elkarrizketa telefoniko egin zitzaizkien EAEko hiru lurralde historikoetako eta euskara maila oneko 15 eta 64 urte bitarteko bizilagunei.

55. taula. Euskarazko egunkaririk ez irakurtzeko arrazoiak³⁴³. EAE. (%)

Gaztelaniazkoak irakurtzeko tradizioa/ohitura	40
Euskaraz irakurtzeak lana/zailtasuna du	30
Etxean gaztelaniazkoak erosten dituzte	14
Euskarazko egunkari gutxi daude	12
Gaztelaniazko albisteak hobeto ulertzen dituzu	10
Ez dira interesgarriak	2
Joera ideologikoa	2
Euskal kultura/politika lantzen dute gehienbat	2
Ez daukat arrazoi berezirik	1
Beste arrazoi batzuk	2
ED/EE	17

Iturria: Euskarazko hedabideak erabiltzeko ezaugarriak eta eragozpenak. Eusko Jaurlaritza (Ikerfel).

Aldizkarien kasuan, elkarrizketatuen laurden batek aitortu zuen gehienbat euskaraz, edo gaztelaniazkoekin batera, irakurtzen zituela argitalpenak.

56. taula. Zein hizkuntzatan irakurtzen dira aldizkariak EAEn. (%)

Gaztelaniaz	Euskaraz	Bietan	Ez du aldizkaririk irakurtzen	ED/EE
37	6	19	37	1

Iturria: Euskarazko hedabideak erabiltzeko ezaugarriak eta eragozpenak. Eusko Jaurlaritza. (Ikerfel).

Egunkariekin gertatzen zen moduan, gaztelaniaz irakurtzeko ohitura eta euskaraz irakurtzeak eskatzen duen ahalegina ageri dira, berriz ere, faktore baldintzatzaille moduan. Horrekin batera, nabarmentzekoa da laurden batek baino gehiagok (%28) eskaintzari loturiko arrazoa, hau da, euskarazko aldizkari gutxi egotea aipatu zuela euskarazkoak ez irakurtzeko motiboen artean.

³⁴³ .- Elkarrizketatuek erantzun bat baino gehiago emateko aukera izan zuten. Ondorioz, ehunekoan batuketak ez du zertan 100 izan.

57. taula. Euskarazko aldizkaririk ez irakurtzeko arrazoiak³⁴⁴. EAE (%).

Gaztelaniazko aldizkariak irakurtzeko ohitura	36
Euskaraz irakurtzeak lana/zailtasuna du	32
Euskarazko aldizkari gutxi daude	28
Gaztelaniazko edukiak hobeto ulertzen dituzu	10
Ez daukat arrazoi berezirik	6
Beren edukiak ez dira interesgarriak	5
Gustuko ditudan gaiak ez dira euskarazko aldizkarietan agertzen	3
Euskal kultura/politika lantzen dute gehienbat	3
Ez dut euskarazko aldizkaririk ezagutzen	2
Denbora falta	2
Beste arrazoi batzuk	1
ED/EE	6

Iturria: Euskarazko hedabideak erabiltzeko ezaugarriak eta eragozpenak. Eusko Jaurlaritzak. (Ikerfel).

Ikertean elkarrizketatuei euskarazko zein aldizkari irakurtzen zuten ere galdetu zitzairen. Deigarria da elkarrizketatuen %44k ez zuela zehazki gogoratzen irakurtzen zuten aldizkariaren izena, eta gogoratzen zutenen erantzunek argi utzi zuten euskarazko aldizkariaren irakurketa oso sakabanatuta zegoela³⁴⁵.

Orain arte azpimarratu diren ondorioak eta argudioak berretsiko dira 2007tik aurrera kaleratutako beste hainbat lanetan. Hala, 2008an Iñigo Fernándezek euskarazko produktuek, ez soilik hedabideek, kontsumitzaileak erakartzeko dituzten zailtasunez eta egoera horren arrazoiez hausnartu zuen. Ondokoak berak idatzitakoak:

“Euskarazko produktu guztiek (liburuek, diskoek, jolasek, hitzaldiek, antzerki lanek...) zailtasun handiak dituzte kontsumitzaileak erakartzeko, eta euskarazko hedabideak ez dira horretan salbuespen.

³⁴⁴ .- Elkarrizketatuek arrazoi bat baino gehiago emateko aukera izan zuten. Hortaz, ehunekoen batuketak ez du zertan 100 izan.

³⁴⁵ .- Elkarrizketatuek aldizkari bat baino gehiago aipatzeko aukera izan zuten. Ondorioz, ehunekoen batuketa ez da zertan 100 izan. Emaitza zehatzak ondokoak izan ziren: *Argia* % 13, *...eta kitto!* % 9, *Aiurri* % 7, *Zazpika* % 6, *Gaztezulo* % 6, *Sustrai* % 4, *UK Aldizkaria* %3, *Elhuyar* %2, *Galtzaundi* %2, *Beste batzuk* % 15, *ED/EE* % 44.

Zergatik? Zeintzuk dira euskarazko hedabideen hazkundera eragozten duten arrazoiak?

Batetik, sektoreak bere-bereak dituenak: eskaintza zabala, lehiakortasun handia, audientziaren fideltasunik eza,... Eta bestetik, euskararen egoera konplexutik etortzen direnak: hizkuntza gutxitua da euskara; gutxi dira euskaldun heldu alfabetatuak; zailtasun handiak ditu hezkuntza sistemak haur eta gazteak euskalduntzeko; ez dago (hedabideak, liburuak, zinema...) euskaraz kontsumitzeko ohiturarik...

Horiek guztiak egia izanda ere, aitortu beharra dago euskarazko hedabideak, produktu gisa, pobre samarrak direla askotan, duinak edo onak soilik gehienetan, eta oso-oso gutxitan direla bikainak.

Ematen du, gainera, hain eskaintza zabala dagoen lekuan ez dela nahikoa produktu ona eskainita. Produktu bikain bat eduki gabe zaila dago audientzia lortzen. Audientziarik gabe ezin da publizitate inbertsio zabalik erakarri. Eta baliabide ekonomiko sendorik gabe ezin produktua hobetu. Sorgin-gurpil horretan daude euskarazko hedabideak” (Fernández, 2008: 64-65).

Zita mamitsu horretan jositako hitzek egoeraren argazki gardena eskaintzen digute. Fernándezen ustez, euskarazko hedabideek baliabide ekonomiko sendorik ez izateak ondorio gisa dakarkie produktuaren hobekuntzan edota sustapenean inbertitzeko aukerarik ez izatea. Egile honen arabera, 100.000 lagun lirateke euskarazko hedabideak kontsumitzeko joera dutenak, eta egoerari aurre egiteko ondokoa proposatu zuen “(...) sormena landu eta esploratu gabeko bideak ibiltzea beste erremediorik ez dago berritzaileak izaten jarraitzeko” (Fernández, 2008: 65).

Fernándezek azaltzen duen egoeran murgildu dira beti euskarazkoak. Ezin ahaztu gainera, gaztelaniaz diharduten lehiakide indartsuekin ari direla zelai berean irakurle bila. Horretaz ohartarazi zuen XX. mendearen azken urteetan Javier Díaz Nocik ere, euskara merkatuaren legeen menpe zegoela eta euskarazko hedabideak erakundeen babesaren menpe zeudela baieztatu zuenean.

“El euskera está ausente de los grandes medios privados de comunicación. Ni las radios privadas comerciales más poderosas, ni los periódicos de más ventas lo utilizan. El mercado impone sus reglas estrictamente, y todos los esfuerzos oficiales no valen para doblegar esa realidad inapelable. Los medios en euskera dependen en buena medida del sostén oficial” (Díaz Noci, 1998: 459).

la hamarkada bat geroago Díaz Nocik berriro erreparatu zion euskarak hedabideen merkatuan zuen presentziari, eta agerian utzi zuen, berriro, egoerak bere

horretan jarraitzen zuela; hots, euskarazkoak merkatu marjinala izaten jarraitzen zuen (Díaz Noci, 2009: 619). Bere iritziz, euskarazko kazetaritzak hazteko eta etorkizunari begiratzeko dituen aukerak tokian tokiko prentsaren eta Interneten eskutik etorriko lirateke.

“El verdadero crecimiento y las posibilidades de futuro del periodismo en lengua vasca vienen dados por la conjunción de dos tipos de medios: la prensa local e Internet. Las revistas locales suponen un sector muy importante del lectorado, la publicación y la publicidad en euskera (...). Los grandes medios, los de más audiencia, consideran, sin embargo, irrelevante, innecesario o poco rentable emplear el euskera como instrumento de comunicación”(Díaz Noci, 2009: 620).

Denborak erakutsi du euskara hutsezko paperezkoen kasuan Díaz Nocik iradokitako bidea jarraitzeko ahalegina egin dela neurri handi batean.

Ezin da atal hau zarratu Gorka Salcesek landutako tesiari erreparatu gabe. Lerro hauek idazteko orduan euskara hutsezko hedabideen kontsumoarekin zerikusi zuzena duen azkenengotariko ekarpena da *Euskaldunak komunikabideen aurrean. Iritzien, ohituren eta jarrearen azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa* izenburukoa. Lana ondoko galdera ardatz hartuta burututa dago: “Zeintzuk dira ukipen egoeran dauden hizkuntza gutxituetako hiztunek hizkuntza horretako komunikabideak kontsumitzeari (edo ez kontsumitzeari) lotuta agertzen diren faktoreak?” (Salces, 2016: 621).

Salcesek baieztatzen du euskarazko hedabideen kontsumo-maila azaltzeko, funtsezko faktore direla “norbanako bakoitzaren identitatea, hizkuntza gaitasuna eta harreman sarearen ohiko hizkuntza” (Salces, 2016: 623). Horrekin batera, aintzat hartzekoa litzateke kontsumitzailea bizi den inguruko egoera soziolinguistikoa, horrek lotura duelako euskarazko hedabideen eskaintza-osotasunarekin. Hau da, tokikoen bilakaerak erakutsi duen bezala, euskarazko hedabide gehienak gutxieneko euskal hiztunen dentsitatea³⁴⁶ dagoen eremuetan sortzen dira; hortaz, logikoa da pentsatzea eskaintza zenbat eta oparagoa izan orduan eta kontsumorako aukera gehiago egon daitekeela. Izan ere, Salcesek dioenaren arabera, “kontuan hartu behar da

³⁴⁶ .- Enrique Uribe-Jongbloedek honela definitzen du erabiltzaileen dentsitatea edo *density of users* kontzeptua: “the relation of users to the overall population of a place or area” (Uribe-Jongbloed, 2014: 49). Berak dioenez, aipatu dentsitatea hizkuntza gutxituetako hedabideen sorreran eragiten duen faktore garrantzitsua da.

eskaintzaren osotasunak eta harekiko perzepzioak kontsumoan eragiten duela” (Salces, 2016: 624). Eta orain arte nabarmendutakoei gehitu behar zaie hedabideen ezaugarri arruntek ere (formatuak, edukiak, euskarriak, hizkera-motak) baldintzatu dezaketela kontsumitzaileak egingo duen hautaketa.

Azkenik, euskarazko hedabideen kontsumo-motibazioei dagokionez, Salcesek bi erabilera-mota eta, ondorioz, bi kontsumitzaile-mota bereizten ditu; batetik, hautu aktiboa egiten duena, militantea, garrantzia hizkuntzari ematen diona, eta bestetik, hizkuntzari baino eskainitako edukia gustukoa izateari garrantzia ematen diona, hedonista, hautua egiterakoan irizpide instrumentalak darabilena.

“Lehenengo erabilera motan [militanteagoa], euskarazko hedabideen aldeko hautu aktibo bat dago. Norbanakoaren testuinguruaren arabera, arrazoi zehatzak aldatu daitezke: besteak beste, hizkuntzarekin lotura mantendu nahi duelako, proiektu zehatzak babestu nahi dituelako, komunikabideek normalizazio linguistikoan zeregin zentrala dutela uste duelako edota aurrez aurreko harremanetan ere egunero euskaraz bizi delako erabili ditzake hitzun kontzienteak euskarazko hedabideak. Bigarren erabilera motan, berriz, ez da azentua kodean (euskaran) jartzen, baizik eta edukian. Kasu horretan, hedabideak ez dira kontsumitzen euskarazkoak direlako, baina euskarazkoek gustuko saio mota eskainiz gero aukera probestuko du erabiltzaile banalak. Hautu mediatikoa irizpide instrumentalagoetan oinarritzen da erabilera tipologia honetan, eta euskararekiko jarrera ere halakoa dela identifikatu dugu tankera horretako kontsumoa egiten duten solaskideengan” (Salces, 2016: 626).

Agerikoa da aurreko paragrafoa edozein euskarritan lan egiten duen hedabideei egokitzeko modukoa dela. Hortaz, bertan azaldutakoak %100ean balio du ikerketa honen objektu diren euskara hutsezko paperezko argitalpenentzat.

2.3. ATERPE TEORIKOA LABURBILDUTA

Ikerketa honetarako bi solairu dituen aterpe teorikoa eraiki da. Abiapuntua *Mass Communication Research* edo masa-komunikazioaren ikerkuntza-esparru zabala eta anitza izan da. Denboran zehar hedabideen inguruan gorpuztu diren ekarpen akademiko nagusien errebaso azkarra egin ondoren, arreta-fokua *Uses and Gratifications* eta *Cultural Studies* delakoetan jarri da. Izan ere, horien oinarritzko argudioak hartu ditu lan honek garapenerako abiapuntu gisa.

Lehenak, *Uses and Gratifications* teoriak defendatzen du hartzaileak, publikoak beharrak asetzeko erabiltzen dituela hedabideak eta, horrekin batera, modu aktiboan, kontzientean jokatzen duela hedabide bat edo bestea, eduki bat edo bestea hautatzeko unean. Bigarrenak, *Cultural Studies* korronteak, berriz, testuinguruaren garrantzia azpimarratzen du; hau da, hedabideen erabilerak ulertu eta azaltzeko funtsezkoa dela harrera-prozesuak zein testuinguru sozial, politiko eta historikotan gertatzen diren kontuan hartzea.

Behin abiapuntu orokorra azalduta, hizkuntza gutxituetako hedabideen ikerkuntzak egin duen ibilbidea jorratu da. Joshua Fishman soziolinguistaren ekarpenetik hasi eta ondoren ekoiztu diren lanek nabarmendu dute gizakien gizarteratze-prozesuan eragiten duten funtsezko agenteak direla hedabideak.

Hizkuntza gutxitu baten biziberritzean hedabideek izan dezaketen zereginari dagokionez, gaiaren inguruan aritu diren ikerlariak galdera bikoitzari erantzuten ahalegindu direla ikusi dugu. Batetik, zein ekarpen egiten dioten hedabideek hizkuntza gutxituari eta hizkuntza horretan ari den komunitateari; eta bestetik, nola erabili daitezkeen hedabideak hizkuntzaren biziberritzean eraginkorrak izateko.

Bestalde, arestiko bi galdera horiei ganoraz heltzeko, testuinguru hirukoitza aintzat hartzeak duen garrantzia ere nabarmendu da aterpe teorikoan. Testuinguru sozial eta politikoarekin batera, hedabideen testuinguruari erreparatzea funtsezkoa dela aldarrikatzen dute egile gehienek. Tom Moringek dioenari jarraituz, derrigorrezko bi baldintza bete behar dira hizkuntza gutxituan ari diren hedabideek osotasun funtzionala lortzeko (*functional completeness*), eta ondorioz, biziberritzean

eraginkorrak izateko. Batetik, hizkuntza gutxituko hedabideen eskaintzak osoa, kuantitatiboki zein kualitatiboki ahalik eta aberatsena behar du izan (*institutionally complet*). Bigarrenik, aurrekoarekin batera, *strict preference condition* delakoa bete behar da, hau da, erabiltzaileak hizkuntza gutxituko hedabidea hautatu behar du. Esandakotik, erraz ondorioztatzen da hizkuntza gutxitudun komunitateak komunikazio-esparru propioa, beregaina izateak duen garrantzia.

Aterpe teorikoaren lehen solairua osatzeko, aginte publikoen eta hizkuntza gutxituen arteko harremana azertu da. Hortxe kokatu dira politika publikoen bidez hizkuntza gutxituak biziberritzeko egikaritu diren egitasmoak. Horien artean daude lan honek objektutzat dituen diru-laguntza deialdiak. Diru-laguntza publikotzat hartu da ikerketa honetan lurralde batean gobernu-erantzukizuna duen aginteak hedabideei esleitutako diru-partida, onuradunari sarrera osagarriak izateko edota kostuak txikitzeko balio diona. Definizioa ikerketa honetara ekarrita, Eusko Jaurlaritzak euskara hutsezko hedabide inprimatuei urteroko deialdien bidez esleitzen dien diruaz ari gara.

Definizioa eman ondoren, diru-laguntzak eskaintzearen alde eta kontra daudenen argudioak jaso dira. Lehenengoek aldarrikatzen dute laguntzak informazio-aniztasuna babestu eta bermatzeko baliabide direla. Kontra daudenen iritziz, berriz, dirua xahutzeko, unean uneko gobernuak hedabideak kontrolatzeko eta hedabideetan izan daitezkeen kudeaketa desegokiei eusteko balio duten tresna lirateke.

Europar, Espainiar eta Euskadin, hizkuntza gutxituetako prentsari eskainitako laguntzei buruz egin diren biltzarrak eta ekoizpen akademikoak ere errepasatu dira. Gurean, gaiari buruz landutako ikerketak gutxi eta oraintsukoak ditugu. Horietatik bi ondorio nagusi azpimarratu daitezke: batetik, hizkuntza gutxituetako hedabideek diru-laguntza publikoei esker eusten diotela jardunari, eta bestetik, hedabideen ikuspegitik, erakunde publikoetatik eskainitako laguntza ez dela nahikoa. Euskadira etorrita, diru-laguntzak jaso dituzten euskara hutsezko hedabideek aitortu egin diote Jaurlaritzari egindako sustapen-ahalegina. Hala ere, ikuspegi kritikoa nagusitu da. Izan ere, ikus-entzunezko sektore publikoa, hau da, EITB, lehenetsi duela aurpegiratu zaio.

Eusko Jaurlaritzak urtero esleitutako diru-laguntza deialdiaren ebaluazioekin osatu da aterpe teorikoaren lehen solairua. Pluralean baino, singularrean hitz egin beharra dago. Diru publikoa erabiliz egikaritzen den edozein arloko politiketan, ebaluazioa derrigorrezko zeregintzat jotzen den arren, ikerketa honekin zuzenean loturik dagoen ebaluazio-lan bakarra aurkitu da. Lan horrek, besteak beste, deialdiari buruzko balorazioa eskatu zien hedabideei eta 0tik 10erako eskala batean, 6,03 puntu jarri zioten deialdiaren edukiari; prozedurari berriz, 4,3 puntu; finantzaketari 5,5 puntu eta notarik onena, 8,08 puntukoa, deialdia kudeatzen duten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren teknikariekin izandako harremanak lortu zuen.

Aterpe teorikoaren bigarren solairuan, aurretik jorratutakoa osatzeari eta aberasteari ekin zaio. Horretarako, ikergaia kokatuta dagoen testuinguruari erabat loturik dauden kontuak jaso eta landu dira hiru ataletan: lehenengoa, Eusko Jaurlaritzak gauzatu dituen hizkuntza-politikei buruzkoa; bigarrena, euskara hutsezko idatzizko hedabideen ibilbide historikoa gainbegiratzekoa; eta hirugarrena, hedabideen kontsumoaren inguruko informazioa eskaintzeko prestatua.

Eusko Jaurlaritzak euskara biziberritzeko gauzatu duen ekimen instituzionalari dagokionez, 1979tik, Estatutua onartu zenetik, 2013. urtera arteko hizkuntza-politiken bilakaerari heldu zaio ikuspegi bikoitzetik: normatiboa bata, eta aurrekontuei lotua, bestea.

Lehenik eta behin, lege-esparruan eta arlo normatiboan adostu eta martxan jarritakoa erreparatu da. Hala, Euskararen Legea, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta Euskara Sustatzeko Ekintza Plana jorratu dira, Euskal Autonomia Erkidegoan autogobernua abiatu zenetik hizkuntzari begira jarri diren mugarri aipagarrienak direlako. Denetan, euskararen normalizaziorako zeregin estrategikoa aitortzen zaie hedabideei.

Horrekin batera, aurreratu bezala, erakunde publikoek hizkuntza-politika egikaritzeko erabili dituzten diru-partidak aztertu dira. Ez bakarrik Jaurlaritzak izan dituenak, baita foru-aldundietan eta udaletan erabilitakoak ere. Egindako lanak erakutsi du Jaurlaritza izan dela denboran zehar euskara sustatzeko baliabide ekonomiko gehien jarri duen erakundea, kantitate orokorreari begiratuta zein biztanle

bakoitzeko kopuruei begiratuta, hamar eurotik sei ipini ditu eta. Hala ere, erakunde bakoitzak urtero erabilgarri izan duen aurrekontu orokorretatik euskararakoak zein pisu erlatibo izan duen aztertu ezker, udalak nabarmendu dira Jaurlaritzaren zein foru-aldundien gaineratik. Bestalde, Jaurlaritzaren barruan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) urtero erabili duen diruaren zatirik handiena, beti, HABEra, helduen alfabetatze eta euskalduntzera bideratu da. Horren ondoren, hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzen zuzendutakoa izan da bigarren diru-partida garrantzitsuena.

Hizkuntza-politikaren testuinguru normatiboa eta ekonomikoa aztertu ondoren, euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorearen testuinguru historikoan murgildu gara. Horiek nola sortu ziren eta nondik datozen erreparatzea, azkar bada ere, ezinbesteko zeregina delako, euskarazko paperezko argitalpenek gaur egun duten presentzia ulertzeko. Agerian geratu da gurean, euskara hutsezko prentsak eta denboran zehar izan diren gobernuak hizkuntzarekiko erakutsi duten jarrerak bide paraleloa egin dutela neurri handi batean. Erakunde publikoek hizkuntza gutxituaren aldeko jarrera erakutsi eta sustapen-politikak gauzatu dituztenean, euskarazko prentsak loraldi-sasoia izan ditu. Adierazitakoa oso nabarmena da laurogeiko hamarkadatik aurrera.

Amaitzeko, hedabideen kontsumoari buruzko informazioarekin osatu den atalarekin biribildu da aterpe teorikoa. Marko orokorretik hasi, eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuetara iritsi arteko bidea egin da. Ikusi dugu egun inprimatutako hedabideek ez dituztela garai onak bizi herrialde garatuetan. Informazioaren eskaintza biderkatu egin da, eta erosotasuna, doakotasuna, eta berehalako eskuragarritasuna bilakatu dira jaun eta jabe kontsumoari dagokionez. Horrek paperezkoen kaltean eta euskarri berrien alde jokatzeko du. Egoera orokorrak euskara hutsezko hedabide inprimatuei ere eragin die. Horien kontsumo-datuetan sakontzeko, 2013ra bitartean egin diren lanak aurkeztu dira, eta lanon emaitzek erakutsi dute gaztelaniazko hedabide inprimatuak erosi eta irakurtzeko ohiturak eta hizkuntza-gaitasunak baldintzatzen dutela euskarazkoen kontsumoa.

Arestiko baieztapen horri lotuta dator aterpe teorikoa zarratzeko erabili den krisketa. Euskarazko hedabideen eskaintza txikia da parean duen gaztelaniazko erakusleiho zabalarekin alderatuta. Eta eskaintza urria izateaz gain, ahula da, merkatu potentzialaren zati txiki batera heltzen direlako euskarazko hedabideak; euskararen hizkuntza-erkidegoaren nukleora heltzen dira, hizkuntzari garrantzia emanaz euskarazkoen aldeko hautu aktiboa, militantea egiten duten kontsumitzaileengana hain zuzen.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

3. IKERKETAREN DEFINIZIOA: IKERGAIA, HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Atal laburra da honakoa. Bertan, ikerketaren objektua, helburuak eta hipotesiak aurkeztuko dira.

3.1. IKERGAIAREN DEFINIZIOA

Doktorego-tesiaren izenburuan jasota dagoenez eta sarreran aurreratu bezala, lanaren objektua diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabide inprimatuak dira. Ikerketa-eremu zabal horretan, gurean arreta Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian, urte biak barne, euskara hutsezko idatzizko hedabideei eskaini dizkien diru-laguntzetan jarri da.

Azterlan honetan, diru-laguntza publikotzat kontsideratuko dira gobernu erantzukizuna duen erakunde batek, agindu bidez arautu eta eskaintzen dituen baliabide ekonomikoak; onuradunari sarrera osagarriak izateko edota kostuak txikitzeko baliagarriak zaizkion baliabide ekonomikoak hain zuzen. Bestalde, hizkuntza gutxitua zer den azaltzeko Soziolinguistika hiztegia jasotako definizioa erabiliko da: “Hizkuntza-gatazkako egoeran, hizkuntza menderatzailearen esku hainbat esparru eta funtzio galdu dituen hizkuntza da” (Soziolinguistika hiztegia, 2010: 43). Eta azkenik, lanean zehar, ikergai diren hedabideez aritzeko hiru izendapen-aukera erabiliko dira: hedabide inprimatuak, idatzizko hedabideak edo paperezoak. Edozein kasutan, ikerketa honetan hizkuntza gutxituetako hedabide inprimatuez ari garenean, edukiak euskara hutsean eta paperean kaleratzen dituzten ondokoak hartuko dira aintzat:

- 1.- Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua: euskararen esparru geografiko osoan eta udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariak.
- 2.- Euskara hutsezko aldizkari inprimatuak: euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak eta

udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak.

3.2. IKERKETAREN HELBURUAK

Ikerketak hiru helburu orokor eta hamaika helburu zehatz ezarri ditu.

3.2.1. IKERKETAREN HELBURU OROKORRAK

Ikerketa honek hiru helburu orokor ditu. Ondokoak:

1.- Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko xedearekin kaleratutako deialdia eta hedabide inprimatuei esleitutako diru-laguntzak ezagutu.

Lehen helburu honi dagokionez, 2005etik 2013ra Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren ardura izan duen sailak³⁴⁷ urtero kaleratu duen “Hedabideak” izeneko diru-laguntza deialdiaren azterketa deskriptiboa egingo da. Ahalik eta modurik zehatzenean bildu, landu eta egituratuko da deialdien testuetan ageri den informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa. Paperean argitaratzen diren euskara hutsezko hedabideekin loturiko edukietan jarriko da arreta. Lanak ikuspegi diakronikoa ere jasoko du; hau da, laguntza-deialdiek 2005-2013 bitartean aldaketak izan ote dituzten arakatuko da, eta izan baldin badira, horien ezaugarriak jaso eta aztertuko dira.

2.- “Hedabideak” deialdiko diru-laguntzak eskatu dituzten euskara hutsezko hedabide inprimatuek 2005-2013 bitartean izan duten bilakaera ezagutu.

Bigarren helburu honen barne, hedabideen “osasun-egoeraren” bilakaera zein izan den jaso nahi da. Eta horretarako, horien “erradiografia” egingo da, ondoko datu ekonomiko eta ezaugarriei erreparatuta: aurrekontuak, autofinantzaketa-mailak, maiztasunak, orrialde-kopuruak, botaldiak eta salmentak. Kasu honetan ere, lehen helburuarekin egin bezala, ikuspegi diakronikoa hartuko da aintzat.

³⁴⁷.- 2005-2012 bitartean, biak barne, Kultura Saila izan da, 2013an, berriz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

3.- Diru-laguntzak kudeatzen dituen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak denboran zehar izan duten harremana ezagutu eta horrekin batera, batzuek zein besteek deialdiari buruz duten ikuspegia jaso.

Hirugarren helburu honi dagokionez, jakin nahi da diru-laguntza deialdietan inplikaturik dauden bi aktore nagusien arteko harremanean gorabeherarik izan den eta izan baldin bada, zein testuingurutan, zerk eraginda eta nola bideratu diren gorabeherok. Bestalde, inprimatuen sektorean diru-laguntza deialdiaren edukiei eta esleipenei buruzko ikuspegi bakarra ala ikuspegi-aniztasuna ote den ere aztertuko da.

Beste urrats bat egin aurretik, hau da, adierazitako helburu orokorretara heltzeko zein helburu zehatz diren azaldu aurretik, argitu lan honek 2005-2013 urteak, biak barne, hartu dituela ikerketa ondoko arrazoiengatik:

- Diru-laguntzak esleitzeko orduan erabilitako irizpideak sinplifikatu, finkatu, eta egonkortu egiten dira 2005etik aurrera eta ia aldaketarik gabe eusten zaie 2013ra arte. Horri esker, errazagoa bilakatzen da ikerketa honek helburutzat duen datuen arteko konparaketa eta irakurketa-zeregina. Gainera, bederatzi urteko segida kontuan hartzeak aukera ematen du esanguratsuak izan daitezkeen ondorioak plazaratzeko.
- 2005etik aurrera egin eta kaleratu dira ikerketa honen abiapuntuko aterpe teorikoa osatzeko ezinbestekoak diren euskarazko hedabideen ezaugarriei, kontsumoari eta kontsumitzaileei buruzko azterketa gehientsuenak³⁴⁸.

³⁴⁸ .- Aurretik ere badira lanak, baina gehientsuenak tokiko hedabideen esparrua lantzen dute. 2004ko azaroan egin zen Euskarazko Kazetaritzaren lehen Kongresuak mugarrira ezarriko du sektorearen diagnostikoa mahairatzeko eta erronkak identifikatzeko. Gainera, hilabete gutxira, 2005eko maiatzean, lanean hasi zen Jaurlaritzaren berriak (VIII. legegintzaldia, EAJ, EA eta Ezker Batua- Berdeak arteko koalizio-gobernua) euskarazko hedabideei buruzko hainbat ikerketa jarri zituen martxan.

3.2.2. IKERKETAREN HELBURU ZEHATZAK

Ikerketaren helburu zehatzak erabat loturik daude arestian aitortutako helburu orokorreki; beraz, hiru multzotan bildu dira. Guztira hamaika helburu zehatz planteatu dira. Lehenengo hirurak urteroko diru-laguntza deialdiaren ezaugarri kuantitatibo eta kualitatiboekin dute zerikusia; hurrengo laurak laguntzen onuradun izan diren euskara hutsezko hedabide inprimatuen bilakaerarekin; azken laurak, berriz, euskarazko idatzizko sektorearen eta diru-laguntzak kudeatu dituzten Eusko Jaurlaritzako ordezkarien arteko harremanen inguruan eraikitako helburu zehatzak dira.

1.- Jaurlaritzak 2005-2013 bitartean kaleratutako "Hedabideak" deialdiari dagozkion helburu zehatzak:

a.- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, aipatu denbora tartean, euskara hutsezko idatzizko hedabideak laguntzeko ezarri dituen diru-partida zehatzak azaleratu, urteroko datuak jasoz eta denboran zehar izandako bilakaera aztertuz. Deialdien informazio kuantitatiboa landuz helduko zaio helburu honi.

b.- Deialdietan diru-laguntzak eskatzeko eta onuraduna izateko ezarritako baldintzak xehe-xehe jaso eta denboran zehar aldaketak izan badira, horien berri eman. Hortaz, atal honetan deialdien informazio kualitatiboa landuko da.

c.- Diru-laguntzen esleipenak egiteko erabili diren irizpideak eta horietako bakoitzari emandako balorazio-puntuak identifikatu, jaso eta denboran zehar horietan aldaketak izan badira azaleratu. Kasu honetan informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa, biak jorratuko dira.

2.- "Hedabideak" diru-laguntza deialdia eskatu duten euskara hutsezko idatzizko hedabideek 2005-2013 bitartean izan duten bilakaerari dagozkion helburu zehatzak:

d.- Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso³⁴⁹ dituzten euskarazko hedabide inprimatuen bilakaera ekonomikoa aztertu. Horretarako, eskaeretan aitortutako gastu-aurrekontuak eta hedabideen finantzaketa-mailak aintzat hartu eta landuko dira.

e.- Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak esleitu zaizkien euskarazko hedabide inprimatuen botaldiak, maiztasunak eta orrialde-kopuruak aztertu denboran zehar. Saldu egiten direnen kasuan, eta datuak baldin badaude, salmentak ere jasoko dira. Helburu orokorren aurkezpenean adierazi bezala hedabideen ezaugarri hauek eta kudeatzen dituzten aurrekontuek hedabideen “osasun-egoerari” buruzko hausnarketa egiteko informazio baliagarria eskaintzen dute.

f.- 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” deialdiaren diru-laguntzak jaso dituzten euskara hutsezko hedabide inprimatuen mapa osatu. Horrela, modu grafiko batean adieraziko da onuradunek zein hedadura duten eta lurraldeen artean izan daitezkeen ezaugarri bereizgarriak hedadurari dagokionez.

g.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuei urtero esleitutako diru-laguntzen eta onuradunek izandako bilakaeraren arteko harremana ezagutu. Hau da, 2005-2013 urteetan jasotako diru-kantitateak hedabideen aurrekontuaren zein portzentaje estali duen aztertuko da. Horrekin batera, euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskatzen duten diru-kopurutik zein portzentaje esleitu izan zaien ere landuko da.

³⁴⁹ .- Jaso baino eskatu esan beharko genuke. Izan ere, zenbait hedabideren kasuan gertatu izan da 2005-2013 bitartean diru-laguntza eskaria egin eta onuradun izateko baldintza guztiak bete arren, dirurik ez jasotzea. Horren arrazoia beti berbera izan da: hedabideari esleipenean emandako diru-kantitatea ez da deialdiaren aginduan aurreikusitako gutxienera heltzen, eta ondorioz, hedabidea diru-laguntzarik gabe geratzen da. Adibidez, 2013ko aginduak zioen “hedabide bakoitzari esleitutako diru-laguntza, gehienez ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskatutakoa bestekoa izango da, eta, gutxienez, 2.000 eurokoa. Gutxienerako kopuru horretatik beherakorik ez da esleituko. Ondorioz, egoera horretan aurkitzen den hedabidea ez da diruz lagunduko” (EHAA, 2013-05-06, 85zk.). Horren arabera, ebazpen-proposamenean 2.000 eurotik beherako laguntza zegokien hedabideak diru-laguntzarik gabe geratu ziren 2013an. Ebazpenen errepasoa egin ezker, gehien jota hedabide inprimatu pare bati gertatu zaie azaldutakoa urte bakanen batean. Horregatik, lan honetan horien datu ekonomikoak ere kontuan hartu eta aztertuko ditugu.

3.- Eusko Jaurlaritzaren eta sektorearen arteko harremanari eta aktore bakoitzak "Hedabideak" deialdiaren inguruan duen ikuspegiari dagozkion helburu zehatzak:

h.- Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso dituzten euskara hutsezko hedabide inprimatuen arduradunek deialdiarekiko duten iritzia jaso. Horretarako, urteroko aginduen edukiari buruzko diskurtso adierazgarrienak eta denboran zehar egin dituzten aldarrikapenak azaleratu eta aztertuko dira. Arreta jarriko da bereziki deialdiaren helburuarekiko³⁵⁰ eta deialdiak ebazteko erabili diren balorazio-irizpideekiko diskurtsoan edo diskurtsoetan.

i.- "Hedabideak" diru-laguntza kudeatzeko ardura izan duten ordezkari politikoek deialdiarekiko duten ikuspegia, diskurtsoa jaso. Azentua jarriko da deialdian ezarritako helburuen betetze-mailaz duten iritzian. Horrekin batera arduradun politikoek euskara hutsezko sektorearekiko duten ikuspegia ere jasoko da.

j.- Aurreko helburu zehatz bien ondorio logikoa da honako hau: diru-laguntza deialdia dela eta, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta idatzizko sektorearen artean denboran zehar gauzatu den harremana aztertu eta izan diren adostasun/ desadostasun puntuak identifikatu.

k.- 2005-2013 bitartean, urteroko deialdien prozesuan parte hartu duten eragileek, sektorekoak zein administraziokoak, etorkizunari begira egindako ekarpenak eta izan daitezkeen aldaketa edota hobekuntza-proposamenak bildu eta aurkeztu.

³⁵⁰ .- Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatu.

3.3.- IKERKETAREN HIPOTESIAK

Ondorengo lerroetan agerian geratuko da planteatu ditugun helburu zehatzak eta hipotesiak ezkondata datozela; ezin bestela izan.

H1.- Abiapuntuko hipotesi bezala planteatuko da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duen “Hedabideak” diru-laguntza funtsezko baliabide ekonomikoa dela euskara hutsezko hedabide inprimatuentzat. Hedabide bakoitzarentzat eta idatzizko sektorearentzat oro har. Funtsezkoa dela esaten denean ondokoa adierazi nahi da: paperean kaleratzen diren euskara hutsezko hedabideek diru-laguntza publikoekiko dependentzia dute; hau da, finantziario publikoa behar dute irauteko, diru-laguntzarik gabe zailtasun handiak izango lituzkete jarduerari eusteko. Ondorioz, diru publikorik gabe euskarazkoen eskaintza murriztu egingo litzateke.

H2.- Bigarren hipotesia aurrekoari lotzen zaio erabat, eta euskara hutsezko hedabide bakoitzaren ortutik sektorearen landara salto egiten du. Honakoa da hipotesiaren formulazioa: Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntza deialdiak paperezkoen eskaintza egonkorra izan dadin lagundu du. Egonkorra ikuspegi kuantitatibo batetik.

Hipotesia lantzeko ondoko iker-galderak (IG) formulatuko dira:

IG1- Nolako bilakaera izan du 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntzaren deialdiak eskatzaileei erreparatuta?

IG2- Nolako bilakaera izan du 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” deialdiak diru-laguntzaren onuradun izan diren euskara hutsezko hedabide inprimatuei dagokienez?

H3- Hirugarren hipotesiak xedatzen du harremana dagoela 2005-2013 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrek izan duten bilakaeraren eta

euskarazko hedabideak, ez soilik inprimatuak baizik eta euskarri guztietan ari direnak, laguntzeko bideratu diren diru-partiden artean. Hipotesi honen arabera, EAEko aurrekontu orokorrak haziz joan direnean, euskarazko hedabideak laguntzera bideraturiko diru-partidak ere hazi egin dira, eta EAEko aurrekontu orokorrek beherako bidea hartu dutenean, hedabideentzako diru-laguntzek behera egin dute.

H4.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen gastu-aurrekontuak 2005-2013 bitartean izan duen bilakaerari, horiek eskatu duten laguntza-publikoaren tamainari eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak paperezko argitalpenak sendotu, garatu eta normalizatzeko esleitu dituen diru-partiden bilakaerari begiratzen dio laugarren hipotesiak. Honen arabera, inprimatuek kudeatutako aurrekontuek hobera egin dutenean haziz joan dira eskatutako laguntzak eta alderantziz, gastu-aurrekontuetan murrizketak izan direnean diru gutxiago eskatu dute. Bestalde, Jaurlaritzak euskara hutsezko hedabide inprimatuei esleitutako kantitateek harremana dute laguntzarako ezarritako diru-poltsaren tamainarekin, onuradunen kopuruarekin eta hedabideek eskatutakoarekin. Diru-poltsa zenbat eta handiagoa izan orduan eta gehiago esleitu daiteke, onuradunen kopurua zenbat eta txikiagoa izan orduan eta gehiago dago banatzeko eta hirugarrenik hedabideen gastu-aurrekontuak eta eskatutako laguntzak behera egiten duenean esleitutakoak ere behera egiten du.

Hipotesi honi loturik ondoko iker-galderak landuko dira:

IG1- Zenbatekoak izan dira Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza eskatu duten euskara hutsezko hedabide inprimatuen gastu-aurrekontuak 2005-2013 bitartean?

IG2- Zenbatekoak izan dira Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2013 bitarteko deialdietan euskara hutsezko hedabide inprimatuak sendotu, garatu eta normalizatzeko jarritako diru-partidak?

IG3- Zenbatekoak izan dira euskara hutsezko hedabide inprimatuek Eusko Jaurlaritzari eskatutako laguntzak?

IG4- Euskara hutsezko hedabide inprimatuek eskatutakotik zenbat esleitu die Eusko Jaurlaritzak?

IG5- Zeintzuk izan dira 2005-2013 bitartean “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren onuradun nagusiak? Nolakoak (zenbatekoak) dira diru-laguntzarik handienak kudeatzen dituzten idatzizkoen gastu-aurrekontuak? Nolakoak laguntzarik txikienak jaso dituztenenak?

H5.- Bosgarren hipotesi gisa planteatzen da Eusko Jaurlaritzak euskara hutsezko hedabideak laguntzeko ezarri duen diru-partidaren banaketa sektorearen argazki kuantitatiboa aintzat hartuta egin duela. Horrela, multzorik zabalena osatzen duten inprimatuentzat izan du beti diru gehien; hau da, Jaurlaritzak erabilgarri izan dituen baliabide ekonomikoetatik partidarik garrantzitsuena paperezkoetara bideratu du. Hortaz, harreman zuzena dago eskatzaile-kopuruaren eta diru-publikoaren banaketaren artean.

Hipotesia egiaztatzeko (edo ez) ondoko iker-galderak landuko dira:

IG1- Zenbat diru jarri du Eusko Jaurlaritzak urtero 2005-2013 bitartean euskara hutsezko hedabideei laguntzeko?

IG2- Urtero jarritako diru-partida orokorrean banakatzerik egin al da, hau da, azpi-partidarik sortu al da laguntzen esleipenak egiteko?

IG3- Banakatzeak egin badira, zeren araberakoak izan dira eta zenbat diru (kopuru absolututan eta portzentajetan) egokitu zaio azpi-partida bakoitzari?

H6.- Seigarren hipotesiak Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza deialdiaren xedeari heltzen dio. 2005-2013 bitartean, ondokoa izan da helburua: euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatu. Hipotesi honek planteatzen du euskara hutsezko idatzizko hedabideek modu desberdinean, eta zenbait kasutan kontrajarrian, interpretatzen dituztela deialdiak helburu moduan ezarri dituen sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuak.

H7.- Aurrekoari lotuta dator zazpigarren hipotesia. Izan ere, "Hedabideak" deialdian ezarritako helburuen betetze-mailari edo eraginkortasunari erreparatzen dio. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen artean, ikuspegi desberdinak daude Jaurlaritzaren diru-laguntza ekimenak 2005-2013 bitartean lortu duen betetze-mailari edo eraginkortasunari buruz. Ez dago iritzi argi eta bakarra. Ikuspegi desberdinak azaleratzen dira hedabide batetik bestera, eta baita urteroko aginduetan, inprimatuen sektorean onuradun moduan zehazten diren multzo batetik bestera ere (egunerokoak, informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak eta tokikoak).

H8.- Zortzigarren hipotesiak 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza deialdiaren onuradun izan diren euskara hutsezko hedabide inprimatuak aipatu denbora-tartean ez direla sendotu, garatu eta normalizatu planteatzen du.

Hipotesia elikatu eta egiaztatzeko (edo ez) ondoko iker-galderak landuko dira:

IG1- Nolako bilakaera izan du 2005-2013 bitartean diru-publikoa jaso duten euskara hutsezko hedabide inprimatuen gastu-aurrekontuak?

IG2- Nolako bilakaera izan du 2005-2013 bitartean diru-publikoa jaso duten euskara hutsezko hedabide inprimatuen autofinantzaketa-mailak?

IG3- Nolako bilakaera izan du 2005-2013 bitartean diru-publikoa jaso duten euskara hutsezko hedabide inprimatuen kontsumoak?

IG4- Nolako izan da euskara hutsezko egunerokoen, aldizkarien eta tokian tokiko idatzizkoen bilakaera orokorra 2005-2013 bitartean botaldi, maiztasun eta orrialde-kopuruari begiratuta?

H9.- Bederatzigarren hipotesiak Eusko Jaurlaritzaren "Hedabideak" deialdian 2005-2013 bitartean jasotako eduki zehatzera darama, esleipenak egiteko erabili diren balorazio-irizpideen arloa hain zuzen. Diru-laguntzen onuradun izateko, deialdian zehaztu diren irizpideei dagokienez, ikuspegi desberdinak daude sektorea osatzen duten hedabideen artean.

H10.- Aztergai den 2005-2013 epealdiko zenbait urtetan, Eusko Jaurlaritzak diru-partidak ezarri ditu nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduak euskara hutsezko gehigarriak laguntzeko. Hamargarren hipotesiak dio euskara hutsezko hedabide inprimatuak, oro har, horientzako laguntzak ezarri eta esleitzearen kontra daudela.

H11.- Hamaikagarren hipotesiak "Hedabideak" diru-laguntza deialdian inplikaturik dauden bi aktore nagusien arteko harremanari begiratzen dio. Honela aurkeztuko litzateke: 2005-2013 bitartean euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta urteroko diru-laguntza deialdia kudeatu duen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arteko erlazioa diru-emaile//diru-hartzaile dinamika bidez gauzatu da. Egoera horretan, Jaurlaritzak jarritako diru-partidaren tamainak baldintzatu du harremanaren tenperatura; hau da, diru-partidarik oparoenak izan diren urteetan bien artekoa lasaitasun-giroan garatu da, baina krisi ekonomikoak eraginda, hedabideentzako baliabide ekonomikoak murriztu direnean harremana mikaztu egin da.

Hipotesia elikatu eta egiaztatzeko (edo ez) ondoko iker-galderak landuko dira:

IG1.- Ikuspegi kronologiko batetik begiratuta nolakoa izan da Eusko Jaurlaritzaren eta horrek eskainitako diru-laguntzen onuradun izan diren euskara hutsezko hedabide inprimatuen arteko harremanaren bilakaera?

IG2- Nola baloratu du euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak Eusko Jaurlaritzarekin denboran zehar, bereziki 2005-2013 epealdian izandako harremana?

IG3- Zeintzuk izan dira euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak denboran zehar, bereziki 2005-2013 epealdian, Eusko Jaurlaritzari zuzendu dizkion eskaerak? Izan al da harreman-ereduaren inguruko eskaerarik?

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

H12.- Etorkizunari begiratzen dio lanaren azken hipotesiak. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorean ikuspegi konpartitua dago, adostasuna da nagusi, aurrerantzean dituzten zereginak eta erronkak zehazteko orduan; baina ez da gauza bera gertatuko sektorearen eta Eusko Jaurlaritzaren artean. Hau da, administrazioak eta euskara hutsezko hedabideen sektoreak ikuspegi desberdinak azaleratzen dituzte euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko bidean lehentasunezkoak diren zereginak eta erronkak proposatzerakoan.

Hipotesi hau gorpuzteko honako iker-galdera hauek landuko dira:

IG1.- Zeintzuk dira 2005-2013 bitartean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntza jaso duten euskara hutsezko hedabide inprimatuen ustetan sektoreari dagozkion zereginak edota erronkak etorkizunera begira?

IG2.- Zeintzuk dira 2005-2013 bitartean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntza jaso duten euskara hutsezko hedabide inprimatuen ustetan administrazioari dagozkion zereginak edota erronkak etorkizunera begira?

IG3.- Ba al dago ezberdintasunik euskara hutsezko inprimatuen sektorea osatzen duten hedabideen artean (egunerokoak, aldizkariak, tokikoak) etorkizunerako zereginak edota erronkak zehazteko orduan?

IG4.- Zeintzuk dira 2005-2013 epealdian "Hedabideak" diru-laguntza deialdia kudeatu duten Eusko Jaurlaritzako ordezkarien iritziz euskara hutsezko hedabideen sektoreari dagozkion zereginak edota erronkak etorkizunera begira?

IG5.- Zeintzuk dira 2005-2013 epealdian "Hedabideak" diru-laguntza deialdia kudeatu duten Eusko Jaurlaritzako ordezkarien iritziz administrazioari dagozkion zereginak edota erronkak etorkizunera begira?

4. IKERKETAREN DISEINU METODOLOGIKOA

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2013 bitartean euskara hutsezko paperezko hedabideei zuzendutako “Hedabideak” izeneko diru-laguntza deialdia jarri da azterketaren erdigunean. Lanaren sarreran baieztatu bezala, hautuaren oinarrian gaiak ikerlariarengan piztutako jakin-mina dago; hots, gaia sakon ezagutzeko interesa eta beharra. Alberichek dioenez, edozein errealitate (ekonomikoa, soziala, politikoa) ulertu eta kontrolatu ahal izateko lehen urratsa errealitate hori aztertu nahi izatea da (Alberich, 2000).

Zentzu honetan, esan dezakegu oinarrizko ikerketa dela honakoa, gai batek sortutako galderei, kezkei erantzutea duelako helburu. Baina, aldi berean, ezagutza horretatik abiatuta beste urrats bat eman nahi da: euskara hutsezko hedabide inprimatueta bideratutako diru-laguntza publikoei buruzko hausnarketa eta balorazioa egin, aurrera begira, sektorearentzat zein laguntzak kudeatzen dituen erakunde publikoarentzat erabilgarri izan daitezkeen ekarpenak biltzeko. Apaltasunez aitortutako bigarren asmo honi erreparatuta, ikerketa aplikatu baten aurrean geundeke. Hortaz, gizarte-zientzien ikerkuntzan sarri gertatzen den bezala, oraingoan ere helburu biak nahastuta ageri dira. Ikerketa bera aldi berean, oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua delako. Patxi Juaristik dioen bezala, “(...) ikerketa baten emaitzak gai bati buruzko ezagutza teorikoa handitzeaz gain, arazoren baten inguruan adiera erakartzeko, arazo zehatzei irtenbideak aurkitzeko edo politika zehatzak martxan jartzeko erabili daitezke” (Juaristi, 2003: 25).

Zeregina burutzeko metodologia hautatzeko orduan aztertu nahi den errealitatea eta planteaturiko helburuak hartu dira kontuan; hori baita gizarte-zientzien arloan egindako ikerketaren urrezko araua.

4.1. METODOLOGIAREN HAUTAKETA: ANIZTASUNAREN ALDEKO APUSTUA

Ezagutza zientifikoa, zientzia, bi eratarara ulertu daiteke: emaitza bezala eta ekintza bezala. Lehen adierari dagokionez, zientzia edozein errealitatearen gaineko ezagutza-multzoa litzateke, “es el resultado de la investigación realizada con el método y el objetivo de la ciencia” (Sierra Bravo, 1983: 36). Bigarren adierari dagokionez, zientzia ekintza bezala ulertuta, metodo eta tekniken aplikazio-prozesua litzateke; behargarria den errealitate bat aztertu, azaldu eta beharrezkoa balitz, horren inguruko erabakiak hartzeko balio duen prozesua. Modu batera zein bestera ulertuta, zientziak ezaugarri bereizgarritzat du metodoa. Eskuratu nahi den ezagutzara heltzeko bidea dugu metodoa.

Agerikoa da badirela tesi honetan interesgunetzat hartu den errealitateari edo fenomenoei buruzko erantzunak lortzeko beste aukera batzuk, hala nola norberaren esperientzia edota intuizioa. Baina aukerak aukera, hautatu dugun objektua edo fenomenoaren modu sistematikoan eta kontrolatuan ikertu eta ezagutu nahi bada, metodo zientifikoa erabili beharra dago, zergatik? horrela eginez bakarrik lortu daitekeelako “(...) una averiguación sistemática, controlada, práctica y crítica sobre proposiciones hipotéticas de las relaciones entre los fenómenos observados” (Wimmer eta Dominick, 1996: 8). Hortaz, gizarte-errealitatearen edozein aspektu zehaztasunez eta era sistematikoan, egiaztagarrian, fidagarrian, kontrolatuan aztertzeko bide bakarra metodo zientifikoa da. Restituto Sierra Bravoren hitzek modu bikainean laburtzen dituzte gizarte zientzietarako egokitutako metodo zientifikoaren nondik norakoak:

“De acuerdo con todo esto, se puede definir la investigación científica social como el proceso de aplicación del método y técnicas científicas a situaciones y problemas teóricos y prácticos concretos en el área de la realidad social para buscar respuestas a ellos y obtener nuevos conocimientos, que se ajusten lo más posible a la realidad” (Sierra Bravo, 1984: 81).

Arestian irakurritakotik, erraz ondoriozta daiteke metodoaren hautaketa egokiak duen garrantzia, “ya que no todos sirven para todo: un método erróneamente escogido puede crear de manera no prevista una respuesta propia, silenciando o deformando la de la realidad social que es la que busca el investigador”(Beltrán, 2015: 40-41). Azken batean, metodoa aukeratzeko dugunean ikertu nahi den objektura, errealitateara nola hurbilduko garen eta nola ezagutuko dugun erabakitzen ari gara. “Se refiere a la instrumentación técnica del proceso cognoscitivo” (Corbetta, 2003: 9).

Metodologiari dagokionez, gizarte-zientzietako ikerkuntzaren arloan ez da eztabaidarik falta izan; ezaguna da bi paradigma edo ikuspegiren artekoa: batetik, ikuspegi positibista/kuantitatiboa, eta bestetik, interpretatzailea/kualitatiboa. Lehenak, natur zientzien enpirismo klasikoa oinarritzat hartu eta neurketa objektiboan jartzen du azentua; bigarrenak berriz, ikertzailearen eta ikergaiaren arteko harreman enpatikoa azpimarratu eta esanahian, subjektibotasunean jarri du azentua.

Sarritan, metodo kuantitatiboen eta kualitatiboen arteko bereizketa egin eta azpimarratu izan da (Berger, 1998; Sierra Bravo, 1995; Wimmer eta Dominik, 1996). Badira batzuen eta besteen abantailak eta desabantailak zerrendatzeari ekin dioten egileak. Badira zein baino zein baliagarriago ote den argitu nahian ibili direnak. Izan dira metodo kuantitatiboak eta kualitatiboak elkarren aurkakoak edota arerioak balira bezala aurkezteko saiakerak ere. Baina ikerketa honek muzin egingo die ahalegin eta jarrera horiei guztiei. Egokiagoa iruditzen zaigulako laurogeiko hamarkadatik hedatuz joan den beste planteamendu bat: batzuen eta besteen legitimitatea eta erabilgarritasuna defendatu eta bien arteko osagarritasuna eta elkarrekiko beharra aldarrikatzen duena, alegia. Beraz, bat egiten dugu Miguel Beltrán soziologoak dioenarekin:

“Los métodos empíricos cuantitativo y cualitativo son, cada uno de ellos, necesarios *in sua esfera, in suo ordine*, para dar razón de aspectos, componentes o planos específicos del objeto de conocimiento. No sólo no se excluyen mutuamente, sino que se requieren y complementan, tanto más cuanto que el propósito de abarcar la totalidad del objeto sea más decidido”. (Beltrán, 2015: 36).

Ikuspegi positibistak eta ikuspegi interpretatzaileak, ikerketa kuantitatiboak eta ikerketa kualitatiboak, bakoitzak du bere lekua eta bakoitzak eskaintzen du ezagutzamota bat. Baina hori ez da muga bezala ulertu behar, aberasteko aukera bezala baizik. Gizarte-ikerketaren objektua konplexua, dinamikoa eta anitza delako, eta ondorioz, objektu horretara hurbildu eta berau ezagutzeko bidea ere, ezinbestean, anitza behar duelako izan. Izan ere, Beltranek dioenez, errealitate sozialak ez dauka aurpegi bakarra eta berau ulertu eta interpretatu ahal izateko ikerlariak mapa bat eraiki behar du,

“Construir conceptualmente la realidad es tanto como elaborar un mapa de la misma, mapa que no es la realidad ni su reflejo, pero que la representa, interpreta y hace inteligible. Y tal construcción existe siempre: o la hace la ciencia o la hace la ignorancia” (Beltrán, 1991: 60).

Beraz, gizarte-errealitatearen mapa eraikitzeko, errealitate horri heltzeko begirada ere ezin da bakarra izan. Anitza behar du izan. Hau da, ez soilik metodologia kuantitatiboa edo soilik kualitatiboa, baizik eta hirugarren ikerketa-kultura inplikatzan duten estrategiak behar dira, metodologia biak, kuantitatiboa eta kualitatiboa konbinatuz, bakoitzaren potentziala irudimenez eta sormenez garatzen dutenak. Horixe da, hain zuzen Miguel Beltránek aldarrikatzen duen aniztasun metodologikoaren muina:

“Lo que hay es una proteica realidad, la realidad social, dotada con un millar de rostros relativamente autónomos (o que como tales los consideramos para hacer posible su análisis) que demanda un pluralismo cognitivo, y a la que por tanto hay que ir provistos de una pluralidad de teorías y métodos que respeten su complejidad y que puedan dar cuenta de ella sin mutilarla en exceso”.(Beltrán, 1986: 17)

Hiru hamarkada igaro dira Beltranek hitz horiek kaleratu zituenetik, eta ordutik, behin eta berriz defendatu ditu hainbat lanetan. Bere esanetan, objektuaren konplexutasunak dakar halabeharrez metodo anitza erabiltzeko beharra. Kasu bakoitzean zorroztasunez erabaki beharko delako zein den aztertu nahi den dimentsioari ondoen egokitzen zaion metodologia.

“(…) si a la complejidad del objeto corresponde necesariamente un planteamiento epistemológico que he venido calificando de pluralismo cognitivo, ello impone como correlato necesario un pluralismo metodológico que permita acceder a la concreta dimensión del objeto a la que en cada caso haya de hacerse frente. La propuesta, pues, aquí formulada es la adecuación del método a la dimensión considerada en el objeto, y ello no de manera arbitraria e intercambiable, sino con el rigor que el propio objeto demanda para que su tratamiento pueda calificarse de científico” (Beltrán, 1985: 39)

Esku artean dugun ikerketa honen kasuan, ikuspegi biak artikulatzen dituen estrategia garatzearen aldeko apustua egin da. Xede batekin jokatu da horrela: ikergai den errealitatearen, objektuaren ahalik eta dimentsio gehienetan murgiltzea eta ondorioz, aipatu errealitatea/objektua ahalik eta ondoen ezagutzeko eta ulertzeko zereginen honako ikerketa-teknikak erabili dira:

- 1.- Informazio-iturri ez zuzenak edo bigarren mailako iturriak.
- 2.- Elkarrizketa sakonak.
- 3.- Delphi teknika³⁵¹.

Argi utzi beharra dago erabilitako hiru ikerketa-tekniken hurrenkera horrela aurkeztu arren, elkar elikatzen dutela eta hirurak kontsideratu direla banaezina den prozesu baten osagai gisa. Iturri ez zuzenetatik eskuratutako informazioaren azterketa balio handikoa izan da sakoneko elkarrizketak prestatzeko, aberasteko eta horiei bidea zabaltzeko. Era berean, sakoneko elkarrizketek iturri ez zuzenetatik bildutako informazioa osatzeko balio izan dute eta, aldi berean, elkarrizketak funtsezko abiapuntu bilakatu dira Delphi teknika bideratzeko. Eta Delphia aurreko bien osagarri izateaz gain, informazio-iturri ez zuzenak eta elkarrizketak esanahiz elikatzeraz datorren tresna metodologiko bilakatuko zaigu. Laburbilduz, ikerketa-teknika bakoitzak beste bietan eragin du.

³⁵¹ .- Delphi izena bi erataria idatzita agertzen da bibliografian. Kasu gehinetan i erabilia, baina badira y darabilten egileak ere. Ikerketa honetan, egileren baten aipamena ez badin bada, Delphi forma erabiliko da.

4.1.1. INFORMAZIO-ITURRI EZ ZUZENAK: IKERTUKO DEN ERREALITATEA ARAKATU ETA DESKRIBATZEN

Ikerketa honek Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2013 bitartean euskara hutsezko idatzizko hedabideei emandako diru-laguntzak eta horien inguruan eraikitako diskurtsoak aztertzeko asmoa duela aintzat hartuta, lehenik eta behin, ezinbestekoa da diru-laguntza deialdiek, diru-laguntzen eskatzaileek eta urteroko esleipenek denboran zehar izan duten bilakaera deskribatzea, ezagutzea, ahalik eta modurik zehatzenean.

Zeregin horretarako, derrigorrez jo behar da bigarren mailako informazio-iturrietara. Zenbait egileren arabera, izendapen horrek kutsu ezkorra du, garrantzia gutxiagokoa, beharrezkoa ez den zerbaitekin identifikatzen delako, eta ondorioz, egile horien ustez, ez da izendatzeko modurik egokiena: “Es quizás desafortunado que el término ‘secundaria’ se haya elegido para referirse a datos existentes. Este término no implica algo sobre la importancia de la información”. (Stewart, 1984: 13). Egia da bigarren mailako iturrietan oinarritzen den ikerketa beste batzuek bildutako datuen, informazioen analisiari lotzen zaiola, baina, aldi berean, kontuan hartzekoa eta azpimarratzekoa da bigarren mailako ikerketa lehen mailakoaren luzapena eta sarri askotan horren abiapuntua ere badela.

Bigarren mailako informazio-iturriez ari garenean, dokumentuez ari gara. Era edota formatu askotarikoak izan daitezkeen dokumentuez. Dokumentutzat kontsideratuko da gizarte-fenomeno bati buruzko informazioa eskaintzen duen edozein material, betiere horren ekoizpenean ikerlariak parte hartu ez duenean. Beraz, “el documento es generado por los individuos o por las instituciones para fines distintos de los de la investigación social: no obstante, éste puede apropiarse de él para utilizarlo en sus propios fines cognoscitivos” (Corbetta, 2003: 400).

Edozein gizartek hainbat dokumentu ekoizten ditu etengabe. Horra hor, gizartearen “argazkia” izateko asmoarekin, hainbatero osatzen diren erroldak edota erakunde publiko zein pribatuaren eguneroko jardueran sortutakoak (legeak, aginduak, ebazpenak, epaiak, kontratuak, lan-hitzarmenak, gutunak, hauteskunde-programak, testamentuak, bilera-aktak, ezkontza-ziurtagiriak, ospitaleetako medikuntxostenak, trafiko-araudiak eta abar, eta abar). Horiekin guztiekin batera, ezin dira ahaztu hedabideek sortu eta zabalduetako materialak; izan ere, gizarte modernoetan hedabideak dira berauek txertaturik dauden komunitateari buruzko informazioa biltzen duten dokumentu-ekoizle handienak. Iturria bat zein bestea izan, kontua da dokumentu horiek guztiek berebiziko balioa dutela gizarte-ezagutzarako. Eta, aldi berean gizarte-ikerentzarako erabili daitezkeen lehengai empiriko ere badira.

Émile Durkheim soziologo frantses handiak burutu zuen bigarren mailako datuetan oinarrituriko lehen ikerketa garrantzitsua, *Le Suicide* lanean (1897). Europako hainbat lurraldetako suizidio-tasak lehengai gisa hartuta, gizarte-integrazioari buruzko teoria konplexua garatu eta probatu zuen enpirikoki.

120 urte igaro dira ordutik, eta egun, bigarren mailako informazio-iturriak ikerlariak eskura dituen lanerako tresna garrantzitsuak dira. Ia ezinbestekoak. Edozein ikerketaren hasierako urratsetan, ikerlariak beti dauka begiz jota duen interesguneari buruz jorratu diren lanetan eta informazioetan sakontzeko beharra. Sarritan informazio-iturri horiek izaera kuantitatiboa izaten dute. Beste batzuetan, ikerketa garatzeko aukeratu den metodologia kualitatiboa denean, landa-lana burutu aurreko ikaskuntza eta arakatze zereginetan, zalantzarik gabe, datu-iturri ez zuzenen errebasoa egongo da. Labur esateko, iturri ez zuzenak lagungarri dira beti prestakuntza-aldian, ikertuko den errealitatea hobeto ulertzeko fasean.

“Ikergaiari buruzko literaturaren azterketa oso loturik dago iturri ez zuzenen azterketarekin: hau da, ikertzen ari garen gaiari buruz beste pertsona edo erakunde batzuk (erakunde publikoak zein pribatuak, ikerlariak, gobernuz kanpoko erakundeak...) bildu, sortu edota gorde dituzten estatistikak, dokumentuen eta materialen ikerketarekin.(...) Era horretako materialen azterketak informazio asko eman dezake gaiari buruzko ezagutza handitzeko” (Juaristi, 2003: 28).

Ikerketa honen kasuan, goiko hitzetan adierazi bezala, iturri ez zuzenek ikergaiaren inguruko ezagutza handitzeko balioko dute; baina horrez gain, bigarren mailako informazio-iturrien, dokumentuen beste erabilpen bat interesatzen zaigu: Durkheimen egin bezala, lehengai gisa erabiliko ditugu horiek berraztertu eta patrio edo harreman berriak, ordura arte ezezagunak izan zitezkeenak, aurkitzen ahalegintzeko.

4.1.1.1. ERABILITAKO ITURRIAK

Aurreko atalean adierazitakoei jarraituz, ondoko informazio-iturriak hautatu eta landu ditugu:

1.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) kaleratutako “Hedabideak” deialdiaren urteroko aginduak eta horien ebazpenak. Horiek dokumentu publikoak dira, erakunde batek bere jardueraren arlo bat garatzeko argitaraturikoak dira. Aldi berean, politika publikoak aztertzeko lehengai garrantzitsu ere izan daitezke. Ikerketak arreta 2005-2013 bitartean jartzen badu ere, diru-laguntza deialdien edukiak 1984tik aurrera izan duen bilakaeraren errebaso sistematikoa egin da, ikergaia bere testuinguruan kokatzeko; hau da, lehen agindua kaleratu zenetik 2013ra bitarteko guztiak aztertu dira. Horietan ondoko kontuei erreparatu zaie bereziki:

- diru-laguntza deialdiaren helburuak
- deialdiaren diru-baliabideak eta jasotzaileak
- diru-laguntza deialdiaren aurkezteko baldintzak
- diru-laguntzak esleitzeko irizpideak

Informazio-iturri ez zuzenak baliatuz emango den lehen pauso honetan beraz, ikertzen ari garen fenomenoak denboran zehar izan duen dimentsio deskriptiboa eta horren barne alde kualitatiboa nagusituko da, salbu urtero jarritako diru-baliabideak aztertzeko unean. Bestelako izaera eta emaitza izango du ondoren datorren bigarren urratsak.

2.- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) 2005-2013 bitartean diru-laguntzen esleipena egiteko erabili dituen arazketa-etaulak. Ikerketaren helburu zehatzak gauzatzeko eta planteatu diren hipotesiak egiaztatze/alboratzeko, ezinbestekoa da diru-laguntzak eskatu dituzten hedabideen zenbait kontu objektiboei buruzko informazioa jasotzea, hala nola, gastu-aurrekontuak, maiztasunak, orrialde-kopuruak... Eta horretarako tresna edo iturri ezin egokiagoa dira aipatutako arazketa-etaulak. Horietan diru-laguntzak jaso nahi dituzten³⁵² hedabideek eskaerak egiteko orduan adierazitako datu ugari biltzen da. Hortaz, informazio-iturri honek diru-laguntzen eskatzaileei buruzko hainbat aspekturen azterketa longitudinala egitea ahalbidetuko du. Gure kasuan, ondokoen bilakaera aztertze eta zenbaketa adierazgarria ekartzeko balioko du:

- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen aurrekontu orokorrak eta horien banakatzea: langile-gastuak³⁵³, funtzionamendu-gastuak³⁵⁴, produkzio-gastuak³⁵⁵ eta produktuaren banaketa-gastuak.
- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen autofinantzaketa-mailak.
- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen botaldiak, maiztasunak eta orrialde-kopuruak.
- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen salmentak.

Esan beharra dago aipatu arazketa-etaulak ez direla publikoak; beraz, ikerketaren egileak burutu nahi zuen lanaren nondik norakoak azaldu eta baimena eskatu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako teknikariek esleipen-proposamenak egiteko lantzen dituzten datuak eta taulak eskuratu eta erabili ahal izateko. Baimen-eskaerak Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikoen oniritzia jaso zuen.

³⁵² .- "Jaso nahi dituzten" diogu eta ez "jaso dituzten". Lehena zergatik hobetsi den ulertzeko gogoratu eskatzaile guztiek ez dituztela beti diru-laguntzak jaso. Zenbait kasutan hala izateko baldintza guztiak bete arren, batzuei esleitutako diru-partida ez da deialdiak agintzen duen gutxienera heltzen eta orduan laguntzarik gabe geratu dira. Kontu hau bera sakonago dago azalduta 349. oin-oharrean.

³⁵³ .- Eskaera egiteko dokumentazioaren arabera, edozein zereginetan ari diren kontratupeko langileen gastuak liriateke.

³⁵⁴ .- Eskaera egiteko dokumentazioaren arabera, funtzionamendu-gastuen barne daude alokairuak, zergak, argindarra, telefona, ura, posta, mezularitza, garbiketa, bulego-materiala, lokomozioa eta egonaldiak, profesional beregainen zerbitzuak, bestelako zerbitzuak.

³⁵⁵ .- Inprenta-gastuak.

Aurreko atalean, arreta deialdien edukira, hau da alde kualitatibora zuzendu da. Orain, ordea, arazketa-eta oinarri hartuta garatuko den atalean, hedabideen bilakaeraren alde kuantitatiboari erreparatuz egingo da lan.

3.- Hemeroteca: "Hedabideak" diru-laguntza deialdiak izan duen bilakaera ulertu eta azaltzeko, urteroko aginduen eta ebazpenen edukiaz gain, ezinbestekoa da prozesuan parte hartu duten aktoreek denboran zehar agertu dituzten iritziak, eskariak eta aldarrikapenak jasotzea; horiei ere arreta eskaintzea. Aktore diogunean, euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreko ordezkariak zein Eusko Jaurlaritzan deialdiaren ardura izan duten ordezkariak ari gara. Horretarako, informazio-iturri bikaina dira rol bikoitza izan duten paperezko hedabideak. Aldi berean diru-laguntzen eskatzaile eta jasotzaile izan direlako.

Gizarte modernoetan, hedabide-sistema da, zalantzarik gabe, gizarte horien edozein arlotako gorabeherak jarraitu eta ulertzeko informazioa eskaintzen duen ekoizle nagusia. Gertaera txikiak zein handiak, balio ideologiko-ekonomiko-kulturalekin zerikusia dutenak, edozein arlotako politika zehatzak... denak ageri dira hedabideetan denboran zehar eta etengabe. Edozein euskarritan diharduten hedabideetan. Ondorioz, ikerketa askok hartu dituzte hedabide inprimatuetan zabalduko informazioak lanerako lehengai gisa. Hemen ere modu berean jokatu da.

Gurean, lehen Eusko Jaurlaritza osatu zenetik, eta bereziki 2005-2013 bitartean, gaiari buruz kaleratutakoak arakatzeari ekin zaio, eta material horiek bildu eta landu dira. Aitortu beharra dago ez direla diru-laguntzak eskatu edota jaso dituzten hedabide inprimatu den denak hartu eta gainbegiratu, ezinezko zeregina litzatekeelako. Baina, hala ere, arakatze-lan sakona egin da. Jarritako helburuari ahalik eta ondoen erantzuteko, ikerketa honek objektutzat duen gaiari jarraipenik eta espaziorik handiena eskaini dioten hedabideak hautatu dira lehenik, honakoak alegia:

- *Euskaldunon egunkaria* eta ondorengo *Berria*
- *Argia* aldizkaria

- *Jakin* aldizkaria

Hirurak errepasatu dira sistematikoki, zenbakiz zenbaki, eta Jaurlaritzak kudeatzen duen “Hedabideak” diru-laguntzarekin zerikusia duten informazioak (albisteak eta iritzi-artikuluak) bildu dira. Baina, horiez gain, hemerroteketan zein sarean eskuragarri diren beste hainbat informazio-iturri ere baliatu dira, hala nola *Hemen* eta *Eguna* astegunkariak, *Anaitasuna* aldizkaria, *BAT* soziolinguistika aldizkaria, *Deia* eta *Gara* egunkariak, Topaguneak eta TOKIKOMek landutako agiriak, Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordearen agiriak eta txostenak eta, azkenik, Eusko Legebiltzarreko bilkura-egunkaria; izan ere, Gasteizko ganbara behin baino gehiagotan, bereziki laurogeiko hamarkadan, bilakatu da euskarazko hedabideei eskainitako diru-laguntzei buruzko hausnarketen eta eztabaiden eszenatoki.

Atal honekin bukatzeko esan ikerketarako lehengai gisa erabili dren informazio-iturri ez zuzenen laguntzaz (deialdiak, ebazpenak, arazketa-taulak eta hemerroteka) jasotako material guztia orraztu egin dela, aukera eman duenean, estatistikoki landu eta, azkenik, egituratu egin dela. Betiere, euskara hutsezko hedabide inprimatuentzat esleitutako diru-laguntzen azterketa deskriptibo zehatza, sakona eta adierazgarria burutzeko asmoarekin. Hala jokatzeari ezinbesteko urratsa baita ikerketaren analisiari eta ondorioen lanketari ganoraz ekiteko.

4.1.2. ELKARRIZKETA SAKONAK: DISKURTSO ADIERAZGARRIAK AZALERATZEN

Agerikoa da planteaturiko lana ikuspegi humanistari lotzen zaiola; aurkezpenean azaldu bezala, ikerketak “Hedabideak” diru-laguntza deialdia deskribatzeaz gain, jomugatzat ezarri du interpretazioa, balorazioa eta aurrera begirako prospekzioa egitea. Ikuspegi horrek zuzen-zuzenean garrantzitsua metodologia kualitatiboaren esparrura. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak sustatutako hedabideentzako diru-laguntzei buruz dauden pertzepzioak, ikuspuntuak eta jarrerak; azken finean, diru-laguntzei buruz dauden diskurtsoak azaleratzeko eta lantzeko, ezinbestekoa da perspektiba kualitatiboaz baliatzea. Hala gertatzen da arrazoi nagusi batengatik: ikusmolde kualitatiboak errealitatea, gizarte-egoerak, portaerak, prozesuak eta

ekintzak ulertzea eta interpretatzea dituelako helburu, eta hori lortzeko esanahian jartzen du azentua.

“Los métodos cualitativos son los que enfatizan conocer la realidad desde una perspectiva de *insider*, de captar el *significado particular* que a cada hecho atribuye su propio protagonista y de contemplar estos elementos como *piezas de un conjunto sistemático*” (Ruiz Olabuénaga, 1996: 17)

Ikerketa honetan, metodologia kualitatibo interpretatzaileak esanahiak “harrapatzeko” eskaintzen dituen aukeren artean, bi hautatu ditugu: sakoneko elkarrizketak, lehenbizi, eta Delphi teknika ondoren.

Sakoneko elkarrizketari helduta, Juaristik honelaxe laburbiltzen du ikerketa-teknika horren nondik norakoa: “Elkarrizketa oinarritzat hartuz, elkarrizketatuak bere mundua, bizitza, zein ondo ezagutzen duen arlo edo gai bat nola ikusten duen, sailkatzen eta bizitzen duen ezagutu daiteke” (Juaristi, 2003: 139).

Sakoneko elkarrizketen erabilpena XX. mendearen hasieratik hasi zen garatzen, etnologo eta etnografoen eskutik. Horiek, esku artean zituzten lanak gauzatzeko, adituek edo berriemaile nagusiek emandako informazioa bildu eta aztertzen hasi ziren. Hala ere, badira elkarrizketa kualitatiboen lehen urratsak askoz lehenagotik datozela defendatzen duten egileak ere; Tucídidesek Peloponesoko gudetatik bizirik itzultzen zirenak elkarrizketatzen omen zituen borroketan izandako gorabeherak aztertu eta ulertzeko, eta Sokratesek ere elkarrizketak baliatzen omen zituen ezagutza filosofikoa ekoizteko. Baina denboran hain atzera egin gabe, zenbait egilek (Burguess, 1984; Holstein eta Gubrium, 1995) XIX. mendean burututako *London Labour and the London Poor* izeneko lana³⁵⁶ (Mayhew, 1851) aipatzen dute elkarrizketa ez egituratuaren lehen adibide gisa.

³⁵⁶ .- Lan hau aitzindaria izan zen, ordura arte ez zitzaielako inori burutik pasatu ere egin jende txiroa elkarrizketatzeko modukoa izan zitekeenik. Pentsatzen zen jende arrunta ez zela gai euren bizitzari, esperientziari buruz hitz egiteko. “Hasta entonces se daba por supuesto que las personas corrientes eran incapaces de hablar de su vida, de su experiencia, con *autoridad*” (Valles, 2007: 188).

Hastapenak Kristo aurreko garaietan, XIX. mendean edo XX.aren hasieran jarri, elkarrizketa kualitatiboa asko garatu den ikerketa-teknika da. Sakoneko elkarrizketei dagokienez, izenak iradokitzen duen bezala, aurrez aurreko zuzeneko harremanaz ari gara. Alfonso Ortík honelaxe deskribatzen du:

“Consiste en un diálogo face to face, directo y espontáneo, de una cierta concentración e intensidad entre el entrevistado y un sociólogo más o menos experimentado, que oriente el discurso lógico y afectivo de la entrevista de forma más o menos `directiva` (según la finalidad perseguida en cada caso)”(Alfonso Ortí, 2002: 272-273).

Gaur egun, elkarrizketa sakona gizarte-zientzien arloko ikerkuntzan erabilitako tresna baliotsua eta emankorra da, elkarrizketatu eta elkarrizketatzailearen artean bi norabideko harreman dialektikoa gauzatuz burutzen dena eta ikergai den objektuari buruzko informazio aberatsa eskuratzeko aukera ematen duena.

“La entrevista es, por definición, un acto de interacción personal, espontáneo o inducido, libre o forzado, entre dos personas, entrevistador y entrevistado, en el cual se efectúa un intercambio de comunicación cruzada, a través de la cual, el entrevistador transmite interés, motivación, confianza, garantía y el entrevistado devuelve, a cambio, información personal en forma de descripción, interpretación y evaluación” (Ruiz Olabuénaga eta Ispizua, 1989: 131).

Aurreko hitzek agerian uzten duten bezala, elkarrizketak ikergai diren gizarte-praktiketan inplikaturik dauden aktoreen, protagonisten testigantza zuzenak, lehen eskukoak entzun eta biltzeko aukera eskaintzen du. Elkarrizketatuak ikerkuntza-prozesuan modu zuzen eta sortzailean parte hartu dezala bilatzen da, “(...) el objetivo último es acceder a la perspectiva del sujeto estudiado: comprender sus categorías mentales, sus interpretaciones, sus percepciones y sus sentimientos, los motivos de sus actos” (Corbetta, 2003: 368).

Hau da, elkarrizketatuak errealitate jakin bati buruz, kasu honetan euskara hutsez kaleratutako hedabide inprimatuei esleitutako diru-laguntzei buruz, ekoiztu duen kontaketa jaso eta aztertu nahian gabilta. Betiere Borgesek zioena presente izanda: “Mi relato será fiel a la realidad o, en todo caso, a mi recuerdo personal de la realidad” (Borges, 1997: 15).

Elkarrizketak hortaz, subjektibotasunaren esparruan egiten du lan bete betean, "(...) el interlocutor es un sujeto concreto, real, con experiencias no intercambiables, aunque evidentemente objetivables en la investigación"(Alonso, 2015: 393). Ikuspegi soziologiko batetik kontsideratuta, fokua ez da jartzen hautaturiko subjektuen bizipen partikularretan, baizik eta garrantzia ematen zaio elkarrizketatuak euren praktiken testuinguruan kokatzeari eta, hortik abiatuz, ekoizten dituzten diskurtso adierazgarriak aztertzeari. Horrela egitetik datorkio sakoneko elkarrizketari ikerkuntza-teknika moduan duen balioa.

"El sello autenticador de las entrevistas cualitativas en profundidad es el aprendizaje sobre lo que es importante en la mente de los informantes: sus significados, perspectivas y definiciones; el modo en que ellos ven, clasifican y experimentan el mundo" (Taylor eta Bodgan, 1984: 114).

Hortaz, elkarrizketa-prozedurak zenbakizko informazio hutsak erakusten ez dituen esanahiak hobeto ezagutzeko, interpretatzeko eta baloratzeko aukera eskaintzen du, eta, horrekin batera, aurrez aurreko harremanean eskuratutako materialaren bidez, fenomeno edota gertaera sozialen inguruko inferentziak egiteko aukera ere izango da. Hori guztia, elkarrizketatu-elkarrizketatzailearen arteko interakziotik sortutako kontakizunak bi aurpegi dituelako: bata, informatiboa, ikergaiaren edukiari lotutakoa, eta, bestea, esanahiari loturikoa; hots, ikertzen ari den horri ematen zaion esanahiari dagokiona. Bata zein bestea, biak, testuinguru zehatz batean garatzen dira.

4.1.2.1. NORTZUK: ERREFERENTZIALITASUNA IRIZPIDE

Adierazitakoak adierazita, hurrengo urratsa elkarrizketatuen aukeraketa izan zen. Kontu handiz eta sakon hausnartuz burututako zeregina, hala egin behar delako ezinbestean. "La del interlocutor no es una búsqueda fácil y de resultados previsibles y seguros, y eso por una razón fundamental de exigencia, es decir, porque no da igual cualquier interlocutor" (Martín Gaité, 1995: 153-154). Carmen Martín Gaité idazle eta

kazetariak adierazitakoak ondo baino hobeto balio du errealitate sozialaren dimentsioren bati elkarrizketa bidez heldu nahi diogunontzat ere.

Ikergaiaren espazio diskurtsibo-sinboliko osoa betetzeko, diru-laguntza politiken nondik norakoak eta euskarazko hedabide inprimatuen bilakaera sakon ezagutzen dituzten subjektu kualifikatuak, ordezkari erreferentzialak³⁵⁷ aukeratu dira; hau da, aztertzen ari garen objektuaren inguruko ezagutza zuzen eta sakona duten pertsonak, lehen mailako informatzaileak. Horrez gain, aukeratuek beste ezaugarri batzuk ere badituzte:

- Eskuragarri izan ditugu,
- Proposatutako elkarrizketan parte hartzeko prestutasuna agertu dute,
- Lanaren helburu eta hipotesiei heltzeko interesatzen zaigun informazioa modurik zuzen eta zehatzenean komunikatzeko gaitasuna dute.

Ikerketa honetan hamabi elkarrizketa-saio burutu dira beste horrenbeste pertsonekin. Aukeratuen zerrendan daude:

- Aztertu den denbora-tartean (2005-2013) Eusko Jaurlaritzan diru-laguntza deialdiaren ardura politikoa eta kudeaketa-ardura izan duten pertsonak³⁵⁸,
- Hekimen, 2012tik euskara hutsezko hedabideen sektorea osotasunean ordezkatzeko duen elkarteko kide bat,
- TOKIKOM, tokikoen ahotsaren ordezkaria,

³⁵⁷ .- Erreferentzialak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan eta euskarazko hedabide inprimatuen sektorean. Lehenak, hedabideentzako diru-laguntza politika zehazten eta kudeatzen den erabakigunean erantzukizuna dutelako eta bigarrenak, euskarazko prentsa idatzian izandako ibilbideagatik eta esperientziagatik sektorearen ikuspegi globala eskaini dezaketelako.

³⁵⁸ .- Ardura politikoa duen pertsonak deialdiaren edukiaz hartzen ditu erabakiak; hau da, zenbat diru jarri, zein baldintza ezarri, zein irizpideren arabera esleitu laguntzak... Unean uneko Jaurlaritzaren osaketaren arabera aldatu daitezke pertsona horiek. Kudeaketa-ardura duten pertsonak ordea, administrazioaren langileak dira, teknikariak dira. Euren zeregina diru-laguntza eskariak jaso, landu eta deialdian ezarritako edukien arabera esleipen-proposamena gauzatzea litzateke.

- Euskara hutsezko inprimatuen sektorean betidanik izan duten pisua, historia edota ibilbideagatik esanguratsuenak kontsidera daitezkeen hedabideetako ordezkariak: *Argia*, *Jakin*, *Berria* eta *Goiena*. Horiekin batera *Zabalik* ere kontuan hartu da, berau izan zelako EAEn gehien irakurtzen diren gaztelaniazko eguneroko paperezkoen jabeak martxan jarri zuen egunkari formatuko astekari aipagarria.

Elkarrizketa sakonetarako hautatutako subjektuen perfilari erreparatuta, baieztatu daiteke ikergaiak inplikaturik dauden aktore guztien ahotsak barnebildu direla. Labur esateko, ikergaiak izan ditzakeen ertz, dimentsio guztiak daude ordezkaturik.

4.1.2.2. ELKARRIZKETEN EGITURA ETA JARRAITUTAKO PROZEDURA

Landa-lana 2014ko otsaila eta urte bereko ekaina bitartean gauzatu zen. Kasu guztietan, elkarrizketatuei ikerketaren nondik norakoak azaldu zitzaizkien eta horrekin batera hautatuak izateko arrazoiak ere eman zitzaizkien. Beraiek esandako guztiak grabagailu bidez jaso ziren, kasu batean izan ezik³⁵⁹. Saiok, elkarrizketatuek proposatutako lekuetan edo ikerlariak eskainitakoetan burutu ziren.

Sakoneko elkarrizketen egiturari dagokionez, hiru atal nagusiren inguruko edukiak lantzeko gidoi erdi egituratua prestatu zen, ikerketaren helburu eta hipotesiei hertsiki loturiko gaiak biltzen zituena. Ondoko taulak erakusten du atal bakoitzaren nondik norakoa.

³⁵⁹ .- Elkarrizketatu baten kasuan ez zen aurrez aurreko elkarrizketa izan. Berak nahiago izan zuen galderei idatziz erantzun, eta kontuan izanda pertsona horrek sektorean duen ibilbidea eta ikerketari egin diezaiokeen ekarpena, erabaki zen berak eskatu bezala egitea.

58. taula. Sakoneko elkarrizketen atalak eta helburuak.

atala	helburua
Lehena	Elkarrizketatuek euskarazko hedabide inprimatuen iraganaz eta orainaz duten ikuspegia ezagutu.
Bigarrena	Elkarrizketatuek "Hedabideak" diru-laguntza deialdiari buruz duten ikuspegia ezagutu.
Hirugarrena	Elkarrizketatuek euskarazko hedabide inprimatuek eta erakunde publikoek etorkizunari begira dituzten erronkez eta zereginenez duten ikuspegia ezagutu.

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Lehenengo atalean, euskara hutsezko hedabide inprimatuek denboran zehar izan duten bilakaeraz, egungo egoeraz, euskarazkoek dituzten kontsumitzaileez, globalizazio-garaiotan proiektu berriak martxan jartzeko dauden aukerez... galdetu zitzairen elkarrizketatuei. Deialdiaren ardura izan duten ordezkari instituzionalei berriz, aipatutakoez gain, hedabide- eta hizkuntza-politikei buruzko galderak ere izan ziren.

Bigarreanean, hedabideen eta diru-laguntza publikoen arteko harremanean sakondu zen. Arreta berezia jarri zen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak urtero kaleratutako deialdian. Atal honi eskaini zaio elkarrizketen tarterik zabalena, diru-laguntza deialdiaren ertz guztiei helduz: helburuak, baldintzak, esleipenerako irizpideak, diru-partida orokorrak, horien multzokako banaketa, deialdiaren urterokotasuna, gaztelania nagusiki darabiltenei zenbait urtetan emandako laguntzei buruzko iritziak... jorratu dira atal honetan.

Hirugarren atalean, etorkizunari begirako ikuspegia landu da, hau da, paperean euskaraz kaleratutako hedabideek eta administrazioek (udalek, foru-aldundiek eta nagusiki Eusko Jaurlaritzak) aurrerantzean dituzten erronkez, betebeharreko zereginenez, bien arteko harremanez edota hedabide publikoen eta herri-ekimenekoek edota pribatuen artekoak.

Hala ere, arestian aipatutakoak salbuespena dauka. Lehenago adierazi bezala, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan "Hedabideak" diru-laguntza deialdia kudeatzeko ardura duten teknikarien kasuan, elkarrizketak deialdiaren nondik norakoak jorratu zituen: deialdia kaleratu aurretik egin beharrekoak, denboran zehar

deialdiek izan dituzten aldaketa formalak zein edukizkoak eta esleipen-prozedura eta ebazpena kaleratu ondoren burutu beharreko zereginak.

Gainontzekoen kasuan, elkarrizketetan erabilitako gidoia berdintsua izan da denentzat. Berdintsua bai, baina ez iguala. Hau da, gidoiak elkarrizketatu guztiekin jorratu nahi izan diren gaiak perimetro baten barruan kokatzeko eta gai bakoitza zein sakontasunarekin landuko den zehazteko balio izan du. Baina horrekin batera, elkarrizketatu bakoitzari egokitutako galderak ere egin izan dira, batzuk izandako lan-esperientziari lotutakoak, eta beste batzuk hedabideei eskainitako laguntzei buruz inoiz kaleratu dituzten iritziekin zerikusia dutenak. Lehen erako galderak, bakoitzak jorratutako ibilbide profesionalari lotutakoak elkarrizketen hasieran kokatu dira, elkarrizketatu-elkarrizketatzailearen arteko harreman dinamikoa lortzeko asmoz. Luis Enrique Alonsok dioenari jarraituz,

“Se trata de crear una relación dinámica en la que, por su propia lógica comunicativa, se vayan generando los temas de acuerdo con el tipo de sujeto que entrevistamos, arbitrando un primer estímulo verbal de apertura que, verosímilmente, sea el comienzo de esa dinámica que prevemos” (Alonso, 1998: 85).

Bigarren erako galderak formulatzeko, hau da, deialdiei buruz inoiz agertu duten iritzietan sakontzeko, oso lagungarria izan da aurreko fasean burutu den hemeroteke-lanean jaso eta landutako informazioa.

Hortaz, esandakoak esanda, argi geratzen da denentzat aurretik erabakitako eskema bati jarraituz burutu dela zeregina, baina eskema hori elkarrizketatu bakoitzari egokitutako malgutasunez gauzatu dela.

Aurretik esan bezala, elkarrizketa-saioetan adierazitako guztia grabagailuaren laguntzaz jaso zen. Saio bakoitza amaitu eta egun berean ekin zitzaion transkribatzeko zereginari. Lehenbizi elkarrizketa bere osotasunean erreproduzitu eta entzun zen; aldi berean entzundakoei eta saioan zehar, saioa hasi aurretik edo saioa bukatu ondoren gertaturiko kontu aipagarriei buruzko oharrak jaso ziren (saioan izandako etenak,

isiluneak, zalantzak, grabazioa hasi aurreko eta amaitu osteko iruzkinak...). Lan egiteko prozedura horrek badu zergatia; Steinar Kvalek dioen bezala, material hori garrantzitsua izan daiteke elkarrizketen azterketa egiterakoan.

“These immediate impressions, based on the interviewer’s emphatic access to the meanings communicated, may – in the form of notes or simply recorded onto the interview tape - provide a valuable context for the later analysis of transcripts” (Kvale, 1996: 129).

Elkarrizketak osorik transkribatu ziren, esandakoak esan ziren modu berean jasoz (euskalkiak, hasi eta bukatu gabeko esaldiak errespetatuz...). Eta behin zeregin hori osatuta analisiari ekin zitzaion. Ekin baino jarraitu esan beharko genuke; izan ere, interpretazio edo analisi-fasea lehenago hasten dela baieztatu daiteke. Transkripzioa egiten den unean, dagoeneko azterketa-fasean murgilduta dago ikerlaria, aurrez aurreko elkarrizketa gauzatzen denean ez gabiltzalako bakarrik materiala jasotzen baizik eta neurri batean azterketa egiten ari gara. Dena den, oraintxe iritsi da elkarrizketetan eskuratu eta transkribatutako informazioaren analisi intentsiboa egiteko sasoia.

Horretarako, elkarrizketa bakoitzaren transkripzioa birritan irakurri da. Lehenengo irakurketak elkarrizketatu bakoitzak eraiki duen narrazioaren ikuspegi panoramikoa izateko balio izan du eta horrekin batera aipagai izan diren gai, kontzeptu edota interesgune nagusiak identifikatzeko. Bigarrenarekin, berriz, elkarrizketatuek adierazi dituzten eduki esanguratsuak kategoriatan kodifikatu eta horien arteko harremanak, ustezko loturak, kontraesanak aztertu dira.

Elkarrizketatuengandik jasotakoak atea zabaldu du ikerketan planteatu diren hipotesiekin zerikusia duen informazio aberatsa lortzeko eta aztertzen ari garen gaiaren zergatietara eta ondorioetara pauso sendoz hurbiltzeko.

4.1.3. DELPHI TEKNIKA: ADOSTASUNEN ETA DESADOSTASUNEN BILA

Ikerketa honek, gogoratu dezagun, 2005-2013 bitartean, urteroko deialdien prozesuan parte hartu duten eragileek, etorkizunari begira egindako ekarpenak eta izan daitezkeen aldaketa- edota hobekuntza-proposamenak bildu eta aurkeztea du

helburuetariko bat. Horretarako, ezinbestekoa da ondoko zeregin bikoitza: batetik, ahalik eta modurik zehatzenean jaso euskara hutsezko inprimatuen esparrua osatzen duten hedabideetako aktoreen ikuspegia eta hausnarketa, eta bestetik, aurrekoarekin batera, ikuspegien arteko adostasun- eta desadostasun-puntuak identifikatu eta kontrastatu. Gero, horietatik abiatuta aldaketarako edota hobekuntzarako proposamenak iradokitzeke.

Aipatu zereginak bat egiten du, goitik behera, Delphi teknikaren izaera eta ezaugarriekin. Horren oinarrian uste ximple bezain borobila dago: “bi begik batek baino gehiago ikusten dute”; ondorioz, erabakietan asmatu nahi baldin bada, hobe askoren iritzia bakar batena baino.

“Delphi recurre a la opinión de un grupo de individuos para averiguar cuál es el dato que mejor garantiza el acierto en la toma de decisiones, sin fiarse de una sola opinión individual”. (Ruiz Olabuénaga, 1996: 261)

Agerikoa denez, Delphi teknikak antzekotasun handia du sakoneko elkarrizketekin zein eztabaida-taldeekin. Horietan gertatzen den bezala, Delphian ere subjektuei galdetzen zaielako, informazioa talde batetik jasotzen delako, baina kasu honetan, iritzia eman edo hausnarketa egiten duten subjektuek ez dute espazio fisikorik konpartitzen ekarpenak egiteko orduan, ez daude aurrez aurre. Horri esker, parte-hartzaile guztiek dute iritzia emateko aukera bera, ez da nagusitzen bakar batena edo batzuenak. Gainera ikuspegiak askatasun osoz adierazi daitezke anonimotasuna bermatzen delako. Delphi teknika hortaz, oso baliagarria da gai bati buruzko iritzi-giroa “harrapatu” eta lantzeko. Horregatik, banakako idatzizko ekarpenetatik abiatuta eraikitzen den sakoneko talde-elkarrizketa dela kontsidera daiteke.

Puntu honetara helduta, baieztatu dezakegu ikerketa honek ezarritako helburuei eta jarraituko duen prozedura metodologikoari erreparatu ezker, agerikoa dela Delphi teknika aplikatzeak osagarritasuna eta aberastasuna ekarriko dituela. Izan ere, aurreko bi urratsetan informazio-iturri ez zuzenen laguntzaz eta elkarrizketa

sakonen bidez jaso eta landu den materiala aberasteko eta osatzeko balioko digu. Zehatzago esateko, bi arrazoik bultzatuta hartu da Delphia burutzeko erabakia:

- Batetik, euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorearen ordezkari erreferentziales, hau da, TOKIKOM eta Hekimen elkarteetako ordezkariak elkarriketa sakonetan eskaini duten ikuspegia aberasteko asmoa dago. Sektorearen ikuspegi globaletik hedabide bakoitzaren ikuspegi partikularra jauzi egiteko asmoa. Izan ere, hainbat ezaugarri erreparatuta³⁶⁰, oso anitza den sektoreko hedabide guztientzat balio dezakeen diskurtsoan izan daitezkeen ñabardurak bildu nahi dira Delphiarekin, banaka-banaka bildu nahi dira.
- Bestetik, azken elkarriketa sakona egin baino egun batzuk lehenago argitaratu zen 2014ko "Hedabideak" deialdia³⁶¹. Horren edukiak aldaketak ekarri zituen hainbat kontutan, baina nabarmenena, goitik beherako aldaketa, diru-laguntza esleipenak egiteko erabiliko ziren irizpideetan³⁶² gertatu zen. Eta irizpideetan ezarritako berrikuntzen ondorioz, are handiagoa izan zen esleipen-ebazpenak ekarri zuen aldaketa, bereziki *Berrria* egunkariari eragin ziona³⁶³. 2014ko diru-laguntzen esleipenak erreakzio-kate luzea eragin zuen inprimatuen sektorean. Hurrengo urteko deialdia ia ia aurrekoaren kopia izan zen³⁶⁴. Gauzak horrela, interesgarria ez ezik, garrantzitsua ere bada diru-laguntza deialdiaren edukietan egindako aldaketek hedabide inprimatuen ikuspegiaren eraginik izan duen arakatzea. Zeregin hori ere sektorea ordezkatzeko duten Hekimen eta TOKIKOM elkarten ahotsak jasoz burutu daiteke, baina kasu honetan,

³⁶⁰ .- Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso dituzten hedabideak, aurrerago sakon landuta ikusiko denez, oso ezaugarri desberdinak dituzte hedadura geografiko, maiztasun, orrialde-kopuru, botaldi zein izaerari dagokionez.

³⁶¹ .- Elkarriketa sakonak 2014ko otsaila-ekaina bitartean egin ziren; azkena ekainaren 27an eta 2014ko diru-laguntza deialdia 2014ko ekainaren 19ko EHAAn kaleratu zen.

³⁶² .- 2014ko diru-laguntza deialdiak irismen-maila ezarri zuen ebaluazio irizpide nagusitzat; 100 puntutik 70 irismenari lotuta zeuden. Deialdiak honelaxe zioen: "b) Irismen maila: gehienez ere 70 puntu. Puntu horietatik aurreneko 60 puntuak banatzeko, kontuan hartuko da hedabideak bere eragin-eremuan duen irismen-maila. Gainontzeko 10 puntuak, berriz, hedadura mailaren arabera banatuko dira" (EHAA, 2014-06-19: 115 zk.). Hau guztia sakonago azalduta dago lan honen 7.1.3. atalean.

³⁶³ .- Urriaren kaleratu zen 2014ko deialdiaren ebazpena. Horren arabera, *Berrria* egunkariari aurreko urtean baino 208.217 euro gutxiago esleitu zitzaizkion. Gainontzeko euskarazko hedabide inprimatuen kasuan, esleitutako laguntzak 2013koen oso antzekoak izan ziren.

³⁶⁴ . Ebazpena ere aurreko urtekoaren, 2014koaren antzekoa izan zen; eguneroko hedabideen kasuan, esleitutako laguntzak behera egin zuten, aldizkako kasuan, ordea, berdintsu jarraitu zuten.

hedabide bakoitzaren atea jotzea erabaki da. Horretarako tresna ezin egokiagoa da Delphi teknika.

4.1.3.1. NOREKIN: AHALIK ETA AHOTS GEHIEN JASOTZEN

Hortaz, aurreko lerroetan esandakoari jarraituz, diru-laguntzak eskatu dituzten euskarazko hedabide inprimatu guztiekin harremanetan jarri eta lau galdera irekiz osatutako galdeketa bidali zitzairen posta elektronikoz. Hirurogeita zazpi hedabide guztira. Baina horiez gain, 2014an eta 2015ean kaleratutako bost hedabideak³⁶⁵ ere kontuan hartu dira; denak tokikoen multzokoak. Hala egin da, interesgarria izan daitekeelako diru-laguntzak eskuratzeko prozesuan “hasi berrien” iritzia ere jasotzea. Hortaz, 72 hedabidek jaso zuten Delphian parte hartzeko gonbitea. Ondoko taulak erakusten du jasotzaileen banaketa hedabidearen izaeraren arabera.

59. taula. Delphi-galdeketa hedabideen izaeraren arabera.

Hedabide-mota	zenbat
Eguneroko prentsa inprimatua	6
Informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak	23
Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak (tokikoak)	38+5

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Galdeketa lau atalez osatuta dago, eta horiei buruzko hausnarketa idatzia egiteko eskatu zitzairen hedabide bakoitzean “aditu” bezala kontsidera daitezkeen pertsoneri; hots, euren esperientzia edota ibilbide profesionalarengatik galdetegian eskatutakoari buruzko informazio zabal eta sakonena eskaintzeko gai diren pertsoneri. Ruiz Olabuénagak dioen bezala,

“La principal consideración que debe tenerse en cuenta a la hora de seleccionar los expertos es que estas personas dispongan de información relativa al tema, que estén motivados para trabajar en el

³⁶⁵ .- Hauek dira aipatutako idatzizko hedabideak: *Aiaraldea egunkaria* (2014an sortua), *Alea*, *Arabako aldizkaria* (2015), *Puntua* (2015), *Urumeako Kronika* (2015) eta *El Periódico universitario/Unibertsitateko aldizkaria* (2015).

proyecto, que dispongan de tiempo suficiente para desempeñar las tareas del Delphy, y, sobre todo, que dispongan de opinión personal apoyada en conocimientos que superen la información general” (Ruiz Olabuénaga, 1996: 266).

Delphian parte hartu beharko luketen pertsonen kopuruari dagokionez, Ruiz Olabuénagak dio aldakorra dela, azertu nahi den gaiak sortu dezakeen iritzien adostasun/desadostasun mailaren arabera.

“El tamaño del panel puede oscilar, como hemos dicho, entre diez y treinta personas, dependiendo de si el tema se halla en una situación en la que los expertos forman una población relativamente homogénea o, más bien, los expertos se encuentran profundamente divididos entre sí y defienden posturas relativamente irreconciliables”. (Ruiz Olabuénaga, 1996: 266)

Ikerketa honetan ez da laginik osatu, diru-laguntzen eskatzaile/jasotzaile izan diren guztiak hartu eta denei eskatu zaie prozesuan parte hartzeko. Arestian aipatu bezala, aniztasuna da deialdirako eskaera egiten duten hedabide inprimatuen ezaugarria. Aniztasuna diogu, euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak hiru multzo barnebiltzen dituelako: euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua, euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta informazio espezializatuko aldizkari inprimatuak eta, azkenik, udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak (tokikoak). Hori gutxi ez, eta multzo bakoitzaren barruan ere aniztasun-ezaugarria errepikatzen da, bereziki aldizkako hedabideei dagokienez³⁶⁶. Beraz, adierazitakoa kontuan izanda, eta sektorearen ikuspegi orokorraren altzoan izan daitezkeen ñabarduren bila ari garenez, 2005-2013 bitarteko deialdietan parte hartu duten argitalpen inprimatu guztiei ekarpenak eskatzea erabaki zen.

³⁶⁶ .- Aldea dago informazio orokorrekoa den *Argia* astekaria eta informazio berezituko beste edozein aldizkariaren artean, edota espezializatuen esparrukoak direnen artean, esaterako *Xabiroi* komikia eta *Jakin* aldizkariaren artean. Beste horrenbeste gertatzen da tokikoen multzoan, adibide bat jartzearren *Anboto* eta *Zuhatza berriketan* aldizkariaren artean.

4.1.3.2. IDATZIZKO EKARPENEN EGITURA ETA JARRAITUTAKO PROZEDURA

Galdeketa zehaztutako lau atalak edo gai nagusiak, lehentxeago aurreratu bezala, lau izan ziren. Ondokoak:

- 1.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen egoera.
- 2.- Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntza deialdia.
- 3.- Harremanak: euskara hutsezko inprimatuen sektorea osatzen duten hedabideen artekoa eta horien eta Eusko Jaurlaritzaren artekoa.
- 4.- Etorkizunari begira: sektorearen eta Eusko Jaurlaritzaren egitekoak.

Gaiak hain irekiak izanik, bakoitzari lotutako hainbat galdera lagungarri proposatu zitzaizkien³⁶⁷ eskatutako zeregina errazteko eta gai bakoitzaren barruan ahalik eta dimentsio gehien jasotzeko asmoarekin. Esate baterako, bigarren atalean, fokua “Hedabideak” deialdia lantzeko atalean adibidez, deialdiaren balorazio orokorra eskatu zitzaizen lehenik, eta ondoren, urteroko aginduen hainbat konturi buruzko galderak luzatu zitzaizkien, hala nola, deialdiaren helburuak, esleipenatarako balorazio-irizpideak, nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskarazko gehigarriei eta erreferentzia-orrialdeei eman zaizkien diru-laguntzak... “Etorkizunari begira” izeneko atalean, berriz, euskara hutsezko hedabide inprimatuek aurrera begira dituzten erronkak edota zeregin nagusiak eta gainditu beharreko oztopoak zehazteko eskatu zitzaizen, beste horrenbeste administrazioek (Jaurlaritzak, foru-aldundiek zein udalek) izan ditzaketan erronka edota zereginei buruz eta euskal hiztun-komunitateak beharko lukeen hedabide-mapa proposatzeko gonbitea ere luzatu zitzaizen.

Delphi-galdeketa posta elektronikoz bidali eta egun gutxira telefonoz deitu zen hedabide bakoitzera, mezua jaso zutela baieztatzeko³⁶⁸ eta bide batez eskaturiko zeregina hilabeteko epean betetzeko gai izango ote ziren jakiteko. Une horretan,

³⁶⁷.- Erabilitako galdeketa zehatza ikerketa honen *Eranskinak* izeneko atalean dago.

³⁶⁸.- Ondo jaso zutela eta pertsona egokiarengana bideratuta zegoela baieztatzeko.

2016ko hasiera, euskarazko inprimatuek aurreko urteko deialdian jasotako diru-laguntzen zuri-keta-zereginetan zebiltzan buru belarri, eta hainbat kasuan, gainera, ale berria kaleratzeko lanak gehitzen zitzaizkien. Egoera horrela, ikerlariak proposatutako hilabeteko epean 29 hedabideren iritzia ordezkatzeko duten ekarpenak jaso ziren. Beste hedabide askok, momentuan zuten lan-kargak behartuta, luzapena eskatu zuten. Hala egin zen, eta luzapenekin beste 32 hedabideren iritzia ordezkatzeko duten ekarpenak eskuratu ziren. Hortaz, guztira euskara hutsezko 61 hedabide inprimatuen ikuspegia bildu da, unibertso osoaren %85.

Puntu honetara helduta komenigarria da kontu garrantzitsu bat argitzea. Goiko lerroetan “29 (eta 32) hedabideren iritzia ordezkatzeko duten ekarpenak jaso ziren” formula erabili da arrazoi zehatz batek bultzatuta. Delphian parte hartzeko gonbitea euskara hutsezko 72 hedabideren ordezkari diren pertsonen luzatu zitzaizen eta horiek eskaintako erantzunekin 61 hedabide daude ordezkaturik, esan bezala unibertso osoaren %85. Hau da, ez ziren 61 erantzun jaso, baizik eta 46. Zenbakien arteko aldea azaltzea erraza da oso. Izan ere, euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorean gertatzen da enpresa edo elkarte bakar batek egitasmo bat baino gehiago sustatu eta kudeatzen duela; esaterako, 2013 urtean Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” deialdiaren diru-laguntza hartu zuten *Asteleheneko Goiena papera*, *Goiena papera*, *Goiena telebista* eta *Goiena.net* kudeatzen zituen eta laguntza-eskaera egin zuen horietako bakoitzarentzat. Ondorioz, ikerketa honetarako prestatu den Delphian erantzun bakarrean daude ordezkaturik *Asteleheneko Goiena papera* eta *Goiena papera*. Beste horrenbeste gertatzen da beste eskatzaile batzuekin³⁶⁹ eta horregatik azkenean 46 ahotsek ordezkatu dituzte 61

³⁶⁹ .- Ondokoak dira Delphi bidezko ekarpenak jaso zirenean Eusko Jaurlaritzari hedabide inprimatu bat baino gehiago diruz laguntzeko eskaera egin ziotenak: Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak (*Asteleheneko Goiena papera* eta *Goiena papera*), Erroitz S.L. (*Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria* eta *Aiurri Beterri-Buruntzako astekaria*), Jesus María de Leizaola Fundazioa (*Ekonomiaren KZ*, *Gazteon KZ* eta *Ezkerraldeko KZ*), Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.L. (*Galtzaundi* eta *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza*), Shareak Kultur Elkarteak (*Gazteberri* eta *+/- 18 presta ezazu zure etorkizuna*), BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak (*Prest* eta *Berton*), Dobera Euskara Elkarteak (*Hernaniko Kronika* eta *Urumeako Kronika*), Goierriko Hedabideak S.L. (*Goiberri* eta *Goierriko Hitza*), Udako Euskal Unibertsitatea (*Uztaro* eta *Aldiri*), Herritar Berri S.L. (*Gaur 8* eta *Zazpi Haizetara*). Azkenik esan *Berria* egunkaritik bidalitako ekarpenean ordezkaturik zeudela egunkariaz gain, *Arabako Hitza*, *Bizkaiko Hitza*, *Gipuzkoako Hitza* eta *Nafarroako Hitza*.

hedabideen ekarpenak. Beraz, Delphiaren analisi-atalean erabiliko diren pasarteak kodifikazioa 1etik 46ra bitartekoa izango da³⁷⁰.

Behin erantzunak jasota, idatzizko ekarpenetan adierazitako iritziak, ikuspuntuak eta informazioak sistematizatu eta kategorizatu egin ziren. Ondoren, identifikatutako kategoriak ordenatu, egituratu ziren. Hurrengo urratsa prozesuan parte hartu zuten guztiek adierazitako edukia ahalik eta modurik osatua eta gardenean barnebiltzen zuen testua eraikitzea izan zen. Aipatu testua hedabide bakoitzean Delphi-galdeketerari erantzun zioten pertsoneri bidali zitzaizkien berritoki³⁷¹, helburu bikoitzarekin: batetik, beraien ekarpenak oinarri hartuta landutako testuarekin ados zeuden ala ez zehazteko eskatu zitzaizkien, eta bestetik, nahi izanez gero, zerbait gehitu, zehaztu edo zuzentzeko aukera eskaini zitzaizkien.

Une horretan, esan daiteke prozesuan parte hartu zutenen arteko nolabaiteko "elkarrizketa" hasi zela. Nolabaiteko diogu, ez delako aurrez aurre gauzatzen, baina hala ere, hedabide bakoitzera bidalitako behin-behineko txostena edo testua irakurri ondoren, lehen fasean parte hartu zuen ordezkari/aditu bakoitzak ondotxo ikusi dezake proposaturiko gaiei buruz adierazi duena besteek adierazitakoekin bat datorren edo ez. Eta bat ez badator, orain aukera izango du desadostasuna arrazoitzeko, argudioz janzteko, eta, nahi izan ezker, azken iritzia emateko. Horretarako hiru aste-hilabeteko denbora-tartea eskaini zitzaizkien.

Bigarren fasean bidalitako mezuak hainbat hedabideren erantzuna hartu zuen bueltan³⁷², horietatik gehienak landutako behin-behineko txostenaren edukiarekin konforme zeudela adierazteko, eta gainontzeko 5en kasuan, adostasuna agertzearekin batera ekarpena egin zioten txostenean irakurritakoari, Delphiaren behin betiko analisisian aintzat hartu izan diren ekarpenak.

³⁷⁰ .- Delphiaren fitxa teknikoa lan honen *Eranskinak* izeneko atalean dago.

³⁷¹ .- Bidalketa 2016ko maiatzaren 9an egin zen. Testua ekarpena egin zuten hedabideei zein egin ez zutenei helarazi zitzaizkien.

³⁷² .- Guztira 36 erantzun jaso ziren, eta horiek 43 hedabide ordezkatzeko zituzten. Gogoratu zenbait kasutan erantzun bakar batean enpresa edo elkarte baten kudeatzen duen hedabide baten baino gehiagoren ekarpena dagoela.

Prozesuaren azken urratsa azken txostenaren taxuketa izan da, bertan Patxi Juaristik baieztatzen duenari jarraituz,

“Txosten honetan adostasunak, adituentzat gai desberdinek duten garrantzia eta iritzi desberdinen aurrean aldeko eta aurkako arrazoiak agertu behar dira. Horrekin batera, hartu behar diren erabakiak edo jarraitu beharreko bidea zehazten dira” (Juaristi, 2003:190).

Azken txostena taxutzeari 2016ko ekainaren erdialdean ekin zitzaion.

Bestalde, Delphi teknikaren prozedura-azalpenekin bukatuko ohar bat: doktorego-tesi honen analisi-atalean jaso diren ekarpenak hedabide bakoitzetik hartu ziren moduan erreproduzitu dira hitzez hitz; hau da, ez da inolako aldaketarik egin idazkera-estiloan, ekarpenaren egileek zerbait maiuskulaz edo negritaz jarri badute, hala gorde eta erakutsi da, eta erabilitako euskalkiak errespetatu egin dira. Ikerlariaren interbentzio bakarra anonimotasuna babestu eta bermatzeko helburuarekin eginikoa da; kasuren batean, ekarpenaren egileak ordezkatzeko izena jarri ezkerreko, beratu kendu eta kortxete artean jarritako “gurean”, “gureak”, “guk” edo antzeko beste formularen batez ordezkatu da.

4.2. DISEINU METODOLOGIKOA LABURBILDUTA

Diseinu metodologikoari eskaini zaion tarte laburbiltzeko, esan ikerketaren objektuari eta helburuei erreparatu eta hiru iturritatik edaten duen diseinua prestatu eta burutu dela. Aniztasun metodologikoaren aldeko apustua egin da ikertzeko hautatu den objektuaren; hots, 2005-2013 bitarteko “Hedabideak” diru-laguntza deialdiak eskaintzen dituen ertz guztietara hurbiltzeko eta horiei sakontasunez heltzeko. Ikuspegi positibista/kuantitatiboa eta ikuspegi interpretatzailea/kualitatiboa uztartuz burutu da lana. Azken batean neurketa eta esanahia, biak artikulatu eta elikatu dira.

Hasteko, informazio-iturri ez zuzenak erabili dira, urteroko diru-laguntza deialdiek, esleipenek eta eskatzaileek denboran zehar izan dituzten gorabeherak ahalik eta modurik zehatzenean ezagutzeko. Horretarako, lehenbizi, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu diren “Hedabideak” diru-laguntza aginduak hartu eta aztertu dira. Aginduetan daudelako jasota laguntzak eskatu eta eskuratu ahal

izateko betebeharrekoak. Deialdiekin batera, bigarren informazio-iturri bezala, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2013 bitartean laguntzen esleipenak egiteko erabili dituen arazketa-etaulak baliatu dira. Ez dira dokumentu publikoak; hortaz, horiek lantzeko beharrezko baimena eskatu eta oniritzia jaso da. Arazketa-tauletatik laguntzak jaso dituzten hedabide inprimatuen ondoko datuei erreparatu zaie: gastu-aurrekontuak, autofinantzaketa-mailak, maiztasunak, botaldiak, orrialde-kopuruak eta salmentak. Eta azkenik, informazio ez zuzeneko hirugarren iturri gisa hemerotekara jo da, prozesuan parte hartu duten aktoreek (euskarazko inprimatuen sektoreko ordezkariak zein administrazioan deialdiaren ardura izan dutenek) denboran zehar agertu dituzten iritziak eta jokabideak jasotzeko asmoz. Hemerotekan iturri anitz erreparatu dira, baina fokua gehienbat *Euskaldunon egunkaria* eta *Berria* egunkarietan eta *Argia* eta *Jakin* aldizkarietan jarri da arrazoi zehatz bategatik: lau hedabide horiek dira Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen gaiari arreta eta espazio gehien eskaini diotenak.

Diseinu metodologikoaren bigarren zutabea elkarrizketa sakonak dira. Teknika kualitatibo horren bidez, Eusko Jaurlaritzak kaleratutako diru-laguntzen inguruan gauzatu diren diskurtso adierazgarriak azaleratzeko ahalegina egin da. Horretarako aztergaiaren dimentsio guztiak ondo ezagutzen dituzten pertsona erreferentzialak aukeratu eta elkarrizketatu dira.

Azken urrats metodologikoa Delphi teknikaren eskutik egin da. Urteroko diru-laguntza deialdietan parte hartu duten euskara hutsezko hedabide guztiei luzatu zaie parte hartzeko gonbitea. Jasotako ekarpenei esker, sektorea osatzen dutenen arteko adostasun eta desadostasun puntuak identifikatu eta kontrastatu ahal izan dira. Ezinbesteko zeregina, aurrera begiratzen duten proposamenak iradokitzeko.

5. IKERKETAREN ANALISI-ATALA: EUSKO JAURLARITZAK 2005-2013 BITARTEAN EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEI ESKAINITAKO DIRU-LAGUNTZAK

Ikerketa honek bildu, aztertu eta landu dituen datuak aurkeztu aurretik, komenigarria da atal metodologikoan azaldutako kontu bat berriro hona ekartzea. Hiru hanka edo aurpegi dituen estrategia metodologikoa hautatu eta garatu da, objektuaren ahalik eta dimentsio gehienei heltzeko asmoz.

Informazio-iturri ez zuzenak, elkarrizketa sakonak eta Delphi izeneko teknika erabili ditugu. Hurrenkera horretan erabili gainera. Elkar elikatuz funtzionatzen duen prozesu gisa ulertu behar da jarraitutako prozedura metodologikoa.

Emaitzen analisia bost atal nagusitan banatu da. Horietako bakoitzak bere esanahia du, eta besteengandik bereizita irakurri eta ulertu daitekeen arren, bada atal guztiak lotzen dituen hari eroalea, ikerketaren atal analitikoari osotasun ikuspegia eskaintzen diona.

Lehenik eta behin, informazio-iturri ez zuzenen analitiko eskuratutako informazioa garandu eta aurkeztuko da. Horrek aukera ematen du analisiaren lehen hiru atalak garatzeko:

1.- Eusko Jaurlaritzak kaleratu duen "Hedabideak" diru-laguntza deialdiaren azterketa deskriptiboa (5.1. atala). Deialdiaren helburuak, ezarritako diru-partidak, onuradun izateko baldintzak eta esleipenak egiteko erabili diren irizpideak aurkeztu eta aztertuko dira. 1984tik helduko zaio zereginari, baina arreta berezia jarriko da lanaren xede bezala ezarritako 2005-2013 urtaldian.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

2.- Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2013 bitartean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabili dituen arazketa-taulen azterketa (5.2. atala). Horren bidez diru-laguntzen onuradun izan diren euskarazko hedabide inprimatuen bilakaera eta esleipenen bilakaera lantzeko aukera izango da. Agerian geratuko den bezala, zenbaki dantza izango da nagusi bigarren azpi-atal honetan.

3.- “Hedabideak” diru-laguntza deialdien prozesuan aktore nagusi izan diren Eusko Jaurlaritzaren eta euskara hutsezko inprimatuen arteko harremanaren azterketa (5.3. atala). Hemerrotekak eskaintzen dituen baliabideez baliatuz batzuen eta besteen arteko harremanera hurbiltzeko eta denboran zehar izan diren gorabeherak jaso eta horiek ulertzeko ahalegina egingo da. Kasu honetan ere, deialdiaren edukiarekin egin bezala, laurogeiko hamarkadatik hasiko da arakatze-zeregina, baina fokua, bereziki, 2005-2013 urteetan jarriko da.

4.- Analisiaren laugarren urratsean elkarrizketa sakonetan bildutako pertzepzioak, ikuspuntuak, ekarpen esanguratsuak, lehen eskuko testigantzak aurkezteari ekingo zaio (5.4 atala). Elkarrizketatu eta elkarrizketatzailearen arteko bi norabideko interakzioaz baliatuz “Hedabideak” diru-laguntza deialdian parte hartzen duten bi aktore nagusiek eraiki dituzten kontakizunak, diskurtso adierazgarriak azaleratzeko eta esanahietan sakontzeko ahalegina egingo da. Betiere presente izan behar delako diskurtsoetan alde bikoitza aurkituko dela: informatiboa bata, ikergai diren laguntza-deialdien edukiei lotutakoa; eta interpretaziozkoa bestea, hots, azentua diskurtsoaren esanahian jartzen duena.

5.- Bukatzeko. Delphi teknikaren laguntzaz identifikatu eta azpimarratu diren adostasunen eta desadostasunen aurkezpenarekin borobilduko da analisi-zeregina (5.5. atala). Horrela eginez, aurreko atal guztietan jorratutako bidea aberastu eta osatuko da. Aldi berean, ikerketa aurrera begira ere jarrita dagoenez, Eusko Jaurlaritzako eta euskara hutsezko hedabide inprimatuen ordezkariak etorkizunerako proposaturiko erronkak eta zereginak bildu eta azalduko dira.

5.1. INFORMAZIO-ITURRI EZ ZUZENEN ANALISIA I : EUSKARAZKO HEDABIDEAK SENDOTU, GARATU ETA NORMALIZATZEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzak euskara hutsezko hedabideei zuzendutako diru-laguntza deialdiak denboran zehar izan duen bilakaera aztertuko da. Lehenengoz kaleratu zenetik, 1984tik, abiatutako erreposoa egingo bada ere, arreta berezia jarriko da ikerketak objektutzat hartu duen 2005-2013 epealdian. Gogoan izan lan honen helburuetariko bat "Hedabideak" deialdia ezagutzea dela. Horretarako, urteroko aginduetan dagoen informazioa jaso eta xehe-xehe aurkeztuko da, laguntza-deialdietan bertan bildutako edukien ordenari jarraituz.

5.1.1. "HEDABIDEAK" DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAREN HELBURUAK

Urteroko aginduetan ezarritako helburuen irakurketak agerian uzten du xedek euskarazko hedabideek izan duten bilakaerara egokitu direla. Hasieran, paperezko aldizkariak baino ez ziren; hortaz, horien zabalkundea sustatzea edota aldizkari horiek bideragarriago egitea ezarriko da aginduetan helburu moduan. Hala egingo da mende laurden batean. Euskaraz jardungo duten ikus-entzunezkoak sortuz doazen neurrian, horiek ere kontuan hartuko dira laguntza-deialdietan. 2005-2013 bitartean, berriz, urtea joan urtea etorri, ekimenaren helburua modu berean formulatuko da aginduetan: euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak ematea izango da xedea.

1984ko lehen deialdiak esaldi bakarrean laburbildu zuen horren zergatia. Honelaxe zioen: "Eusko Legebiltzarrak, 1982.eko Azaroaren 24an onartu zuen Euskararen Normalizazio-Legeak, komunikabideak euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen duenez eta, euskal aldizkarien eta irakurlegoaren ezaugarriak kontuan harturik, aurtengo deialdi honen laguntzen oinarria aldizkarien zabalkundea handitzea da"³⁷³.

³⁷³ .- Kultura Sailaren 1984ko uztailaren 10eko agindua da Joseba Arregi Aranburu sailburuak sinatua. 1984ko abuztuak 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (137 zk.).

Lehen deialdi hura, beraz, aldizkarien zabalkundearen eragiteko asmoarekin bultzatutako ekimena izan zen. Azpimarratzekoa da testuan ez dagoela jasotzaile izan zitezkeen hedabideen egoera ekonomikoari buruzko aipamen bakarra, ez eskaria aurkezteko baldintzei³⁷⁴ buruzkoa, ezta ebazpena egiteko orduan erabiliko ziren irizpideei³⁷⁵ buruzkoa ere.

Ondoren etorri ziren deialdi guztietan, berriz, beti izango da egoera ekonomikoari buruzko erreferentzia, eta gehienetan ez bakarrik laguntzen onuradun izateko baldintzen edota ebazpena egiteko irizpideen kapituluetan, baizik eta hasiera hasieratik, deialdiaren xedeak zehazteko idatzitako lehen lerroetatik. Dena den, 1985etik 2004ra kaleratu ziren aginduetan, aitortutako helburuei erreparatuz, ondoko etapak bereiz daitezke:

1.- 1985 eta 1986: zalantzarik gabe bi urte horietako deialdietan argitaratu ziren modurik zehatzenean zeintzuk ziren diru-laguntza egitasmoaren helburu nagusiak. Hala, 1985ean, aldizkarien merkatuari, egoera ekonomikoari, eskaintzari eta zabalkundeari begirako asmo handiko ondoko lau helburuak ezarri zituen aginduak³⁷⁶:

- “ Euskaraz argitaratzen diren aldizkarien kostu materialak berdindu edota diru-laguntzak eskaintzea.
- Merkatuan euskaldungoari eskaintzen zaizkion aldizkarien espektroa zabaltzea, eduki eta gai aldetik nabarmentzen diren hutsuneak betetzeko ahaleginei lehentasuna emanez.
- Kaleratzen diren euskal aldizkariak salneurri standarretan³⁷⁷ erosleari helaraztea.
- Euskal aldizkarien zabalkunderik handi eta egokiena bultzatzea norberak daukan irakurle potentziala bereganatzea” (EHAA, 1985-07-18: 148 zk.).

³⁷⁴ .- Deialdiak denboran zehar ezarritako baldintzak beste atal batean jorratuko dira sakon.

³⁷⁵ .- Ebazpenak egiteko erabilitako irizpideak beste atal batean jorratuko dira sakon.

³⁷⁶ .- Agindua 1985eko ekainaren 3koa da, eta 1985eko uztailaren 18an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (148. zk.).

³⁷⁷ .- Hala dago idatzita aginduan.

Hurrengo urteko deialdian³⁷⁸, 1986koan, helburuak lautik bira etorri ziren: bata eskaintzari begirako aurreko urteko berbera, eta bestea, egoera ekonomikoari begirakoa. Baina oraingoan bada berezitasuna: deialdiak "kostuak arintzeko" dio baina ez da "kostuak berdintzeko" aipamenik izango. Ondokoak dira 1986ko aginduan jasotako helburuak:

- " Euskaraz argitaratzen diren aldizkarien kostuak arintzeko diru-laguntzak eskaintzea.
- Merkatuan euskaldungoari eskaintzen zaizkion aldizkarien espektroa zabaltzea, eduki eta gai aldetik nabarmentzen diren hutsuneak betetzeko ahaleginei lehentasuna emanez" (EHAA, 1986-07-18: 143 zk.).

Bestalde, esan beharra dago 1986an arestian aipatutako deialdiaz gain, beste bat izan zela. Orduko Kultura eta Turismo Sailak bigarrena kaleratu zuen asteburuko egunkariei diru-laguntzak ematea araupetuz,

"(...) euskararen zabalkundeari eta benetan erabili ahal izateari indar emateko asmoz eta gaurko euskal gizartearen euskarazko egunkariaren beharrez kontuan hartuz(...)" (EHAA, 1986-07-24: 148 zk.).

Handik hilabete gutxira kaleratu ziren *Hemen* eta *Eguna* egitasmoei³⁷⁹ zuzendutako ekimena izan zen eta argitalpen biak 1990ean desagertu arte iraun zuen.

2.- 1987 - 1996: hamar urte horietako deialdietan ez da helburu zehatzik agertzen, baina denetan³⁸⁰ aipatzen da xede nagusizat har dezakegun ondokoa: "Eusko Jaurlaritzak hartzen du bere gain euskarazko aldizkarigintza suspertu, sustatu eta babesteko erantzukizuna". 1991ra arte, diru-laguntzak euskarazko aldizkako

³⁷⁸ .- Agindua 1986ko uztailaren 11koa da eta 1986ko uztailaren 18an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (143. zk.).

³⁷⁹ .- *Hemen* 1986ko irailaren 26an kaleratu zuten eta *Eguna* urriaren 5ean. Deigarria da horiei begira prestatutako aginduak "asteburuko egunkariak" aipatzen dituela, baina lehena ostiraletan izaten zen salgai eta bigarrena ostegunetan. Hurrengo urteetako deialdietan "astean behingo euskarazko kazetak" formula erabili zuten.

³⁸⁰ .- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren ondoko data eta zenbakietan argitaratu ziren 1987tik 1996ra bitarteko diru-laguntza deialdiak: EHAA, 1987-09-08 (167 zk.), EHAA, 1988- 09-07 (166 zk.), EHAA, 1989-03-29 (59 zk.), EHAA, 1990-04-09 (71 zk.), EHAA, 1991-06-19 (124 zk.), EHAA, 1992-04-8 (68 zk.), EHAA, 1993-02-19 (34 zk.), EHAA, 1994-03-09 (47 zk.), EHAA, 1995-04-27 (80 zk.), EHAA, 1996-09-13 (177 zk.).

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

argitalpenentzako kaleratu ziren, 1992tik 1996ra bitartean, ordea, egunerokoak ez diren euskarazko aldizkako argitalpenei zuzendu zitzaizkien. Formulazio-aldaketak, txikia dirudien arren, eragin nabarmena izango du onuradun izan daitezkeenei begira. Batetik, 1992tik aurrera tokian tokiko argitalpenak ere urtero urtero diru-laguntzen jasotzaile izan daitezkeelako³⁸¹, eta bestetik, 1993an sortutako *Euskaldunon Egunkariak* ez duelako diru-laguntza hauek eskatzerik izango.

3.- 1997 – 2004: mende baten amaierako eta hurrengoaren hasierako aginduek³⁸² lehen atalean adierazten dute diru-laguntzak xede bikoitza betetzeko direla. Batetik, prentsa idatzian euskararen erabilera sendotu eta indartzeko; hots, hizkuntzaren normalizazioari begiratzen dion xedea litzateke; eta bestetik, egitasmoak bideragarriago egiteko; hau da, hedabideen egoera ekonomikoari begiratzen dion xede da.

Denbora-tarte horretan berrikuntza gertatuko da laguntzen onuradun izan daitezkeenei dagokionez. 2000. urtean, lehen aldiz aurkeztu daitezke irratiak, herri-telebistak eta multimedia-taldeak sendotzeko edota euskarazko komunikabideetan teknologia berrien erabilera sustatzeko egitasmoak. Ordura arte, irratiek *Euskalgintza*

³⁸¹ .- Tokian tokiko aldizkariekin egoera bitxia gertatzen da. 1984tik 1991ra bitartean ez zuten Jaurlaritzaren diru-laguntzarik jaso. Egoera, neurri batean erraz ulertu daiteke, era honetako argitalpenak 88tik aurrera hasi zirelako kaleratzen *Arrasate Presse* eginiko urratsari jarraituz. Baina tarte horretan salbuespena aipatu behar dugu; izan ere, 1990eko deialdian 5.750.000 pezetako partida (34.558,2 euro) izan zen “Udal informaziozko aldizkariak eta bestelakoak” izenburupekoentzat. Ordukoa, ondokoen artean banatu zen: *Arrasate Press* (3.116.500 pta, 18.730,5 euro), *Ttipi-ttapa* (1.270.750pta, 7.637,4 euro), *Goierritarra* (454.250 pta, 2.730 euro), *Ene bada* (425.500 pta, 2.557,3 euro), *Jazten* (172.500 pta, 1.036,7 euro) eta *Pimpa* (100.000 pta, 601 euro). Esleitutako partidak gehitu ezkeroko agerikoa da ez zela tokikoentzat ezarritako diru guztia agortu, soberakina 1990eko deialdiak aurreikusten zuen gainontzeko aldizkariaren artean banatu zen (haur eta gazteentzakoak, zientzia-dibulgaziokoak, informazio orokorrekoak, pentsamendu-aldizkariak, literaturari buruzkoak eta itzulpen eta terminologiazko aldizkariak). Gainontzeko deialdietan, tokian tokikoek ezin zuten diru-laguntza hau eskatu, deialdiaren “Bazterketak” izeneko atalean ageri ziren eta. Honela zioen 1991ekoak esaterako: “Aurreko atalean jakin arazitako baldintzak beteak izanik ere, dirulaguntza hauetaz ezin baliatu ahal izango dira, dena dela, ondoko ezaugarri hauetariko bateko aldizkariak: a) Toki, udalerrri, eskualde, zein lurralde-mailako zabalkunde-esparrukoak...”.(EHAA, 1991-06-19: 124 zk.).

³⁸² .- Urte horietako deialdiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren ondoko data eta zenbakietan kaleratu ziren: EHAA, 1997-04-22 (75 zk.), EHAA, 1998-04-17 (71 zk.), EHAA, 1999-06-04 (105 zk.), EHAA, 2000-07-12 (133 zk.), EHAA, 2001-02-23 (39 zk.), EHAA, 2002-07-09 (129 zk.), EHAA, 2003-09-10 (176 zk.) eta EHAA, 2004-04-14 (69 zk.).

deialdira³⁸³ jo behar zuten eta telebistak eta multimedia-taldeak ez zuten kokapenik inolako diru-laguntza deialdietan. Aipatu aldaketa edo berrikuntza "Hedabideak" deialdiaren helburuetan txertatzeko, nahikoa izan zuten "euskarazko egitarauak bideragarriago egiteko" jarri ordez, "euskarazko komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko" jartzea.

4.- 2005 – 2013: ikerketa honen interesgune den denbora tartean beste era batean jasoko da deialdiaren nondik norakoa. Urteroko aginduek³⁸⁴ "euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak" emateko araubidea ezartzen dute. Hortaz, sendotu, garatu eta normalizatu hitz gakoekin laburbiltzen da diru-laguntzen helburu nagusia. Hiru termino horiek gogora ekartzen dute 1987-1996 aldiko deialdietako helburuetan agerturiko beste hirukote hura: suspertu, sustatu eta babestu. Antzekotasunak alde batera utzita, kontua da ez dela inon azaltzen nola ulertu beharko liratekeen asmo handiko hiru kontzeptu horiek (sendotu, garatu eta normalizatu). Konkrezio bila joanda, aginduetan bada diru-laguntzen nondik norakoa eta zertarakoa argi uzteko propio idatzitako artikulua. Adibide gisa, 2006ko deialdia hartuta, honelaxe dio 6. artikulua³⁸⁵:

" Agindu honek arautzen duen diru-laguntzak honako gastu-mota hauek estaliko ditu:

a) Euskara hutsez ari diren hedabideen kasuan, horiei dagozkien prestakuntza-, gauzatzeko- eta zabalkunde-lanei zuzen-zuzenean egotzi eta agiri bidez frogatu beharreko gastuak. Ez da, hortaz, patrimonializa daitezkeen elementuetan egindako inbertsiorik estaliko. Nolanahi ere, erdal aldizkariaren erabateko edo zatikako itzulpena edota moldaketa diren hedabideen kasuan, edukiak itzuli eta hedabidea argitaratu eta

³⁸³ .- Orduan ez zen deialdia izen horrekin, *Euskalgintza* izenarekin ezagutzen. Kultura Sailak euskara sustatzeko, garatzeko eta normalizatzeko beste diru-laguntza batzuk ematen zituen urtero, eta horien jasotzaile izan zitezkeen, besteak beste, enpresetan euskararen erabilera areagotzeko planak, euskararen ondarea (kantuak, bertsoak, euskalkiak etab.) jaso, gorde eta gizarteratzeko egitarauak, euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko egitarauak, edota irratietan euskararen erabilera sustatzekoak.

³⁸⁴ .- Urte horietako deialdien nondik norakoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren ondoko data eta zenbakietan kaleratu ziren: EHAA, 2005-06-03 (104 zk.), EHAA 2006-05-29 (100 zk.), EHAA, 2007-03-05 (45 zk.), EHAA, 2007-12-28 (249. alearen gehigarria), EHAA, 2008-12-26 (247 zk.), EHAA, 2010-06-04 (105 zk.), EHAA, 2011-05-20 (95 zk.), EHAA, 2011-12-29 (216 zk.) eta EHAA, 2013-08-28 (163 zk.).

³⁸⁵ .- Aipatu artikulua a) eta b) azpi-atalak bakarrik daude hemen, hedabide inprimatuei dagozkienak. 2006ko deialdiaren artikulua honek c) eta d) azpi-atalak ere baditu, baina horiek irratia eta telebistek dagozkie.

zabaldur ahal izateko egin beharreko gastuak baino ez dira gogoan hartuko.

b) Euskara hutsez ari diren egunkari edo bestelako aldizkarien gehigarri moduan ere zabaltzen diren argitalpenen kasuan, egunkari edo aldizkarietatik aparte banatutakoen zabalkunde- eta inprimaketa-gastuak bakarrik izango dira diru-laguntza gai”(EHAA, 2006-05-29: 100 zk.).

Hiru hamarkadatan publikoak ez diren euskarazko hedabideak diruz laguntzeko deialdietan ezarritako helburuek denboran zehar izan duten bilakaera aztertzeko egin den ahaleginetik ondoriozta daiteke lehentasuna bikoitza izan dela: batetik, euskara hutsezko idatzizko egitasmoen bideragarritasun ekonomikoa laguntzea, horri arnasa ematea; eta bestetik, aurrekoarekin batera, eskaintza bultzatzea, zabaltzea. Euskarazko hedabideen sektorea gero eta anitzagoa eta konplexuagoa izateak ez du eragin handirik izan xedeen funtsezko mamiari dagokionez, eta egin diren egokitzapenak hedabide berriak deialdian barne hartzeko izan dira. Lehenbizi, 1992koa tokian tokiko argitalpenak kontuan hartu zituena; gero, 1997an, eguneroko prentsari begirako egokitzapena; eta azkenik, 2000koa, irratiak, telebistak, berri-agentziak eta Internet bidezkoak jasotzen dituen.

5.1.2. “HEDABIDEAK” DEIALDIAREN DIRU-BALIABIDEEN BILAKAERA

Eusko Jaurlaritzak, 1980tik, hau da, lehen Jaurlaritzaren osatu zenetik lagundu ditu diruz euskarazko argitalpenak. Lehen lau urtetan, 1980-1983 bitartean, laguntzak diskrezionalak izan ziren³⁸⁶; 1984tik aurrera, berriz, agindu bidez arautuko dira.

Deialdiaren helburuekin gertatzen den moduan, urteroko aginduetan zehaztu den diru-hornikuntzan ere zenbait fase bereizi daitezke. Hala ere, orokorrean baieztatu

³⁸⁶ .- Lehen urtean, 1980an, Eusko Jaurlaritzak ia 3 milioi pezeta (18.030 euro) eman zituzten hamalau argitalpenentzat (*Anaitasuna, Argia, Elhuyar, Euskera, Goiz-Argi, Ikastola, Ipurbeltz, Jakin, Jaun. Deia, Karmel, Kili-Kili, Oh Euzkadi, Saski-naski* eta *Zer*). Hurrengo urtean, 1981ean 4,5 milioi pezeta (4.499.947 =27.045 euro) hamabost argitalpenentzat (*Anaitasuna, Argia, Elhuyar, Euskera, Goiz-Argi, Ikastola, Ipurbeltz, Jakin, Karmel, Kili-Kili, Oh Euzkadi, Olerti, Saski-Naski, Susa* eta *Zer*). 1982an, 4.420.000 pezeta (26.565 euro) hamabost argitalpenentzat (*Aizu, Anaitasuna, Argia, Elhuyar, Euskera, Goiz-Argi, Ikastola, Ipurbeltz, Jakin, Jaun. Deia, Karmel, Kili-Kili, Olerti, Saski-Naski* eta *Zer*). Eta 1983an, 12.500.000 milioi pezeta (75.126 euro) bederatzi argitalpenentzat (*Aizu, Argia, Ipurbeltz, Jakin, Jaun Deia, Karmel, Kili-Kili, Susa* eta *Zer*).

daiteke euskarazko hedabideak laguntzeko diru-baliabideen bilakaera bi faktore nagusiren arabera izan dela: batetik, sektoreak denboran izan duen garapena eta bestetik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak urtero erabilgarri izan duen aurrekontua.

5.1.2.1. HOGEI URTE HAZTEN: 1984-2004

Diru-baliabideen hornikuntzak 1984tik 2004ra urte arteko bi hamarraldietan izan duen bilakaerari dagokionez, badira zenbait puntu azpimarragarri:

1.- Lehenbiziko urteetan, zehatzago esateko 1984tik 1986rako aginduetan, ez da zehaztuko laguntzekin lortu nahi diren xedeak gauzatzeko erabiliko den diru-laguntzaren zenbatekoa. Esleipena aldizkarien edizio-kosteen arabera egin zen hiru urte haietan³⁸⁷.

2.- 1987ko aginduan ere ez da zehaztuko zenbat diru erabiliko den aldizkako argitalpenei laguntzeko. Hala ere, orduko aginduak, laguntza orokorraz gain, 5.000.000 pezetako³⁸⁸ partida gehigarria aurreikusi zuen "proiektu berriak aurrera eramanez izateko" (EHAA, 1987-09-08: 167 zk.). Urte hartako ebazpenaren arabera, laguntza orokorra 20 milioi pezetakoa³⁸⁹ izan zen, eta hamahiru aldizkarien artean banatu zen³⁹⁰. Proiektu berriei bideratutako bost milioiak, berriz, lau aldizkarik jaso zituzten³⁹¹.

c.- Aldizkako argitalpenei zuzendutako deialdiaz gain, egunkariak kaleratzen zituzten kazeta-enpresei zuzenduriko bigarren deialdi bat izan zen 1986tik 1990era bitartean³⁹²,

³⁸⁷ .- 1984an 19.277.212 pezeta (115.858 euro) banatu ziren 17 argitalpenen artean, 1985ean 20.000.012 pezeta (120.202 euro) banatu zituzten 21 argitalpenen artean eta 1986an 22.500.000 pezeta (135.228 euro) banatu ziren 15 argitalpenen artean.

³⁸⁸ .- Eurotan: 30.051 euro.

³⁸⁹ .- Eurotan: 120.202 euro.

³⁹⁰ .- Deialdi honetan diru gehien *Argia* aldizkariak jaso zuen (6.770.456 pta=40.691 euro) eta gutxien *Literatur Gazeta* aldizkariak (104.159pta=626 euro).

³⁹¹ .- *Elhuyar* aldizkariak 1.914.000 pezeta (11.503 euro) "Gai monografikodun eranskina" izeneko proiektua gauzatzeko, *Jakin* aldizkariak 1.262.000 pezeta (7.585 euro) "Lan-liburutegia" proiekturako, *Argiak* 1.022.000 pezeta (6.142 euro) "Azala lau koloretan" proiektua gauzatzeko eta *Aizu* aldizkariak 803.000 pezeta (4.826 euro) "Barruko komikia koloretan" proiekturako.

³⁹² .- 1990ean ez zen agindurik izan, laguntza eman zitzaizen orduko euskarazko bi egunkariei: *Hemen* eta *Eguna*.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

biak barne. Lehen, 1986koa euskara hutsezko egunkaria sortu eta kaleratu zezaten³⁹³ eta ondorengoak, kaleratutakoari diru-laguntza emateko.

60. taula. Hemen eta Eguna argitalpenek jasotako diru-laguntzak, 1986-1990.
(pezeta/eurotan)

	1986	1987	1988	1989	1990
Hemen	6.500.000 (39.066 €)	23.110.000 (138.894 €)	19.610.000 (117.858 €)	20.500.000 (123.207 €)	11.200.000 (67.313 €)
Eguna	6.500.000 (39.066 €)	26.110.000 (156.924 €)	19.610.000 (117.858 €)	20.500.000 (123.207 €)	11.200.000 (67.313 €)
GUZTIRA	13.000.000 (78.132 €)	49.220.000 (295.818 €)	39.220.000 (235.716 €)	41.000.000 (246.414 €)	22.400.000 (134.626 €)

Iturria: Diru-laguntza deialdien ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

4.- Euskarazko aldizkariari zuzendutako diru-laguntzen kasuan, 1988ko aginduak zehaztuko du lehen aldiz zein den erabiliko den diru-partida orokorra³⁹⁴ eta horren banakatzea; hau da, deialdira aurkeztutako aldizkari-mota bakoitzari dagokiona³⁹⁵. Hala jarraituko du 1993ko³⁹⁶ deialdira arte. Denbora tarte horretan diru-hornikuntza hirukoiztu egingo da (26.915.000 pezetatik 73 milioi pezetara; hots, 161.762 eurotik 438.739 eurora) eta jasotzaileak ia laukoiztu egingo dira (12 aldizkari izatetik 45 izatera).

³⁹³ .- Honelaxe zioen 1986ko aginduak: "Asteburuero euskaraz egunkari bat argitaratu nahi duen eta beharrezko lege-nortasunez horniturik dauden enpresek eskatu ahal izango dituzte Agindu honek finkatzen dituen diru-laguntzak". Horrez gain 9. atalean gaineratzen zuen: "Proiektua onartutakoan eta iraileko lehen astetik abenduaren azkenerarte astero gutxienez 10.000 ale argitaratzeagatik diru-jasotzaileak 6.500.000 pezetako laguntza eskuratuko du abenduaren 31a baino lehenago, ordainketak zatikakoak izan daitezkeelarik". Azkenean, aginduan ezarritako epea baino zertxobait beranduago kaleratu ziren, *Hemen* 1986ko irailaren 26an eta *Eguna* urriaren 5ean, baina hala ere, Eusko Jaurlaritzak aginduan ezarritakoa eman zion bakoitzari.

³⁹⁴ .- Aginduak 26.915.000 pezeta (161.762 euro) ezarri zituen euskarazko aldizkako argitalpenentzat eta hamabi aldizkariaren artean banatu zituen. Gehien jaso zuenetik gutxien jaso zuenera ondokoak izan ziren onuradunak: *Argia*, *Ipurbeltz*, *Jakin*, *Aizu*, *Kili-Kili*, *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, *Karmel*, *Senex*, *Larrun*, *Susa*, *Literatur Gazeta* eta *Idatz-Mintz*.

³⁹⁵ .- Haur eta gazteentzako aldizkariak: 6.500.000 pezeta (39.066 euro). Itzulpen eta terminologiako aldizkariak: 750.000 pezeta (4.507 euro). Literatur aldizkariak: 1.165.000 pezeta (7.002 euro). Informazio orokorreko aldizkariak: 12.500.000 pezeta (75.126 euro). Giza-zientzia/Zientzia-dibulgaziozko aldizkariak: 6.000.000 pezeta (36.061 euro).

³⁹⁶ .- 1993an bi agindu kaleratu ziren, lehenak, otsailaren 10ekoak, 76 milioi pezetako "diru-zuzkiketa" finkatzen zuen (456.769 euro), baina kantitate hori ekainaren 9ko aginduak zuzendu eta 73 milioi pezetatan (438.739 euro) utzi zuen.

61. taula. "Hedabideak" deialdiaren diru-baliabideak (pezeta/eurotan) eta jasotzaileak, 1988-1993.

	1988	1989	1990	1991	1992	1993
Diru-baliabideak	26.915.000 (161.762€)	32.000.000 (192.324€)	45.000.000 (270.455€)	45.000.000 (270.455€)	75.500.000 (453.764€)	76.000.000 (456.769€)
Jasotzaileak	12	10	18	8	33	45

Iturria: Diru-laguntza deialdien aginduak eta ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Taulan jasotako datuetatik zenbait kontu azpimarratu daitezke. Batetik, 1991n diru-laguntzen jasotzaile-kopuruan gertatzen den beherakada; erraz ulertu daitekeena aintzat hartzen bada zenbait argitalpen desagertu egingo direla, eta gainera, helburuei buruzko atalean aipatu bezala, urte hartan tokikoek ez zuten eskaera egiteko aukerarik izan. Bestetik, diru-partidak hazkunde nabarmena izango du 1992an, baina horrek ez du ekarriko diru gehiago argitalpen bakoitzarentzat, jasotzaile-kopurua ere asko ugaltzen delako, batez ere 1993an.

5.- 1994-1996 hirurtekoan, berriz, aldatu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko modua. Aginduetan, ez da deialdira bideratutako kopuru orokorrik agertuko eta ezberdintasunak izango dira urterik urtera. Hala, 1994. urtekoan "behin-behineko diru-laguntzetako bakoitzaren zenbatekoa ezingo da 13.000.000tik³⁹⁷ gorakoa izan" dio aginduak eta "toki erakundeek argitaraturiko aldizkarien kasuan, behin-behineko diru-laguntza ezingo da defizit ponderatuaren³⁹⁸ %50etik gorakoa izan" gaineratzen du (EHAA, 1994-03-09: 47 zk.). Hurrengo urteko deialdian, 1995ekoan, zertxobait aldatzen da edukia. Bertan zehazten du euskararen esparru geografikoa berezko zabalkunde eremua duten aldizkako argitalpenen eta lurralde mailako zabalkundea dutenen kasuan, diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa ezingo dela 13.500.000 pezetatik (81.136 euro) gorakoa izan, eta tokian tokiko zabalkundea dutenen kasuan, laguntza 3.500.000 pezetakoa (21.035 euro) izango dela, gehienez jota. Azkenik, 1996koan labor-labor jasoko du diru-laguntzen zenbatekoari dagokiona: "Eusko Jaurlaritzak

³⁹⁷ .- Pezetatan adierazitako kantitate hori 78.131 euro dira.

³⁹⁸ .- Defizit ponderatuaren kalkulua egiteko, bi faktore hartzen zituzten kontuan: batetik, defizit aitortua (diru-irteeren, eta inongo diru-laguntzarik kontuan hartu gabe, lortutako diru-sarreraren arteko diferentzia/kenketa), eta bestetik, autofinantzaketa-indizea (inongo diru-laguntzarik kontuan hartu gabeko diru-sarreraren eta diru-irteeren arteko zatiketaren emaitza). EHAA, 1995-04-27, 80. zk.

argitalpen baterako emango duen diru-laguntza, gehienez ere, aurkeztutako aurrekontuaren %50 izango da”³⁹⁹.

Kasu honetan ezin da jaso taula batean, aurrekoetan egin bezala, diru-baliabideen eta jasotzaileen bilakaera. Ahalegindu arren, ez dira 1994ko eta 1995eko ebazpenak aurkitu⁴⁰⁰.

6.- 1997ko deialdian salto kuantitatiboa izango da diru-hornikuntzari begiratuta. Izan ere, aurreko deialdietan inoiz izandako diru-baliabiderik handiena, 1992koa hain zuzen, ia hirukoiztu egin zen 1997an. Orduko aginduak 198.100.000 pezetako diru-laguntza ezarri zuen (1.190.605 euro). Hazkundera ulerterraza da, kontuan hartzen bada urte hartako deialdira lehengoz aurkeztu ahal izan zela euskararen esparru geografiko osoko eguneroko prentsa. Izen abizenak jarrita: *Euskaldunon Egunkaria*. Aginduak 120.000.000 pezeta (721.215 euro) aurreikusi zituen eguneroko prentsarentzat, osorik *Euskaldunon Egunkariari* eman zitzaizkionak. Gainontzeko dirua, 78.100.000 pezeta (469.390 euro) aldizkako artean esleitzekoa zen, baina deialdian ezarritakoaren arabera 78.000.000 pezetako partida (468.789 euro) ezarri zen aldizkakoentzat⁴⁰¹.

Joera errepikatu egingo da, hurrengo bi urteetan. Deialdiak aurreikusitako diru-laguntza orokorrak gora egingo du; 1998an 234.200.000 pezeta (1.407.570 euro) eta 1999an 273.000.000 pezeta (1.640.763 euro). Bietan *Euskaldunon Egunkaria* izango da eguneroko prentsaren atalean eskatzaile bakarra, eta ondorioz, berak jasoko du atal horretara bideratutako diru-laguntza osoa:156.000.000 milioi pezeta (937.579 euro)⁴⁰².

³⁹⁹ .- 1996ko deialdian, Jaurlaritzak 65.999.931 milioi pezeta (396.667 euro) banatu zituen 34 aldizkako argitalpenen artean.

⁴⁰⁰ .- 1994 eta 1995 urteetako Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko (EHAA) ale guztiak erreparatu dira. Baita bi urte horietako *Euskaldunon Egunkariaren* zenbaki guztiak ere.

⁴⁰¹ .- Euskararen esparru geografiko osoko astekariarentzat 15.000.000 pezeta (90.152 euro), osorik *Argia* astekariak jaso zituenak. Euskararen esparru geografikoko haur eta gazte aldizkariarentzat 13.000.000 pezeta (78.132 euro). Euskararen esparru geografikoko bestelako aldizkariarentzat 20.000.000 pezeta (120.202 euro) eta EAeko herri eta toki mailako aldizkariarentzat 30.000.000 pezeta (180.304 euro).

⁴⁰² .- Deialdi bietan, 1998koan eta 1999koan diru-kantitate bera, 156 milioi pezeta (937.579 euro), zehaztu ziren eguneroko prentsarentzat.

62. taula. "Hedabideak" deialdiaren diru-baliabideak (pezeta/eurotan) eta jasotzaileak, 1997-1999.

	1997	1998	1999
Eguneroko prentsa	120.000.000 (721.215€)	156.000.000 (937.579€)	156.000.000 (937.579€)
Aldizkakoak	78.000.000 (468.789€)	78.200.000 (469.991€)	117.000.000 (703.184€)
Eguneroko prentsako jasotzaileak	1	1	1
Aldizkako jasotzaileak	38	41	39

Iturria: Diru-laguntza deialdien aginduak eta ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Aipatzekoa da 1998ko eta 1999ko deialdietan badela berrikuntza bat; izan ere, diru-partida berezitu bat ezarri zen Euskal Autonomia Erkidegoko herri eta toki mailako aldizkariak aurkeztutako bideragarritasun-planetarako edota ohiko funtzionamendutik kanpoko proiektuetarako⁴⁰³.

7.- XX. mendeko azken urteak bi berrikuntza azpimarragarri dakartza. Batetik, euroaren sorrera⁴⁰⁴, eta bestetik, diru-laguntzen jasotzaile izan daitezkeenei dagokiona. Hemendik aurrera irratiak, telebistak eta on-line argitalpenak⁴⁰⁵ ere laguntza-eskatzaile eta onuradun izan daitezke. Hautagaiak handitzeak diru-hornikuntzak nabarmen gora egitea ekarriko du. Baina hala ere, oraindik eguneroko prentsara bideratuko da baliabide ekonomiko gehien. Ondoko taulak laburbiltzen du 2000-2004 urteko bilakaera:

⁴⁰³ .- 1998ko deialdian milioi bat pezeta (6.000 euro) ezarri zen horretarako, eta ARKO elkarteak aurkeztutako bi proiekturen artean banatu zen (Arko-Gunepress publizitate-agentzia eta Dena-Auto publizitate-gehirria). 1999ko deialdian, diru-partida 4 milioi pezetakoa (24.040 euro) izan zen, horietatik 3.500.000 pezeta (21.035 euro) banatu ziren zazpi proiekturen artean (*Noaia!* eta *Irutxulo* aldizkariaren arteko elkarlan egitasmoa, Euskal Herriko Betiko Errezetak, Reala-Alaves derbiari buruzko kirol-argitalpena, Kontxako estropadei buruzko liburuxka, *Irutxulo* eta *Gaztetxuloren* kudeaketa-planak garatzeko lan-proposamena, ...*eta kitto!* euskara-elkartearen publizitatea kudeatzeko proiektua eta Durangaldeko Historiari buruzko bilduma).

⁴⁰⁴ .- Aro berri honetako lehen bi deialdietan, 2000koan eta 2001ekoan hain zuzen, diru-baliabideak pezetatan eta eurotan adieraziko dira. Arlo horri dagokionez kopia hutsa dira, bietan 622.000.000 pezeta/3.738.295,29 euro ezarri ziren eta.

⁴⁰⁵ .- On-line argitalpenak: izen horrekin, lehen aldiz, 2003ko deialdian agertu zen. Aurreko beste hiruretan (2000, 2001 eta 2002) honela izendatu zen diru-laguntza jaso dezakeena: "Multimedia-taldeak sendotzeko edota euskarazko komunikabideetan teknologia berrien erabilera sustatzeko egitasmoak, besteak beste, euskaraz diharduten komunikabideen titularrek antolaturiko bategite-egitasmoak, on-line argitalpenak, euskarazko komunikabideen ondarea digitalizatzea, eta antzeko beste egitasmoak".

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

63. taula. Euskarazko hedabideentzako diru-baliabideen bilakaera, 2000-2004 (eurotan)⁴⁰⁶.

	2000	2001	2002	2003	2004
Eguneroko prentsa	1.652.783,3	1.652.783,3	1.500.000,0	1.700.000,0	1.700.000,0
Astekariak	480.809,7	480.809,7	460.460,0	-	-
Haur eta gazte aldizkariak	120.202,4	120.202,4	120.202,0	-	-
Bestelako aldizkariak ⁴⁰⁷	330.556,7	330.556,7	310.556,0	-	-
Toki-aldizkariak	330.556,7	330.556,7	320.556,0	-	-
Bestelako maiztasuneko argitalpenak ⁴⁰⁸	-	-	-	1.630.000,0	1.635.951,0
Irratiak	150.253,0	150.253,0	125.255,0	244.693,0	244.693,0
Euskarazko herri-telebistak	450.759,1	450.759,1	450.759,0	131.000,0	131.000,0
On-line argitalpenak	222.374,4	222.374,4	150.000,0	82.000,0	82.000,0
DIRU-LAGUNTZAK GUZTIRA⁴⁰⁹	3.738.295,3	3.738.295,3	3.437.788,0	3.787.693,0	3.793.644,0

Iturria: 2000-2004 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

⁴⁰⁶.- Aginduetan hedabide-multzo bakoitzarentzako partida bi dezimalekin publikatu da. 2002, 2003 eta 2004 urteetan komaren ostean bi zero izan da kasu guztietan; baina ez zen hala gertatu 2000 eta 2001ean. Esaterako, astekarientzat 480.809,68 euro ziren. Ikerketan dezimal bakar batekin lan egitea erabaki da; hortaz, bi dezimaleko zenbakiekin hurbilketak egin dira: bigarren dezimala 5etik gorakoa denean unitate bat gehitu zaio lehenari, eta 5etik azpikoa denean dagoen bezala utzi da lehen dezimala (irratietan adibidez, 150.253,03 euro izan zen 2000 eta 2001ean, eta taula honetan 150.253,0 ageri da).

⁴⁰⁷.- Azpi-multzo honetan daude, besteak beste, ondoko aldizkariak: *Jakin, Aizu!, Elhuyar Zientzia eta Teknika, Nabarra, Egan, Bertsolari, Bat, Napartheid, Putz, Uztaro, Karmel, eta Ostiela!* aldizkariak.

⁴⁰⁸.- 2003ko eta 2004ko deialdian "bestelako maiztasuneko argitalpenak" izenburupean bildu ziren informazio orokorreko aldizkariak, tokiko-argitalpenak, zientzia arloko, pentsamendu- eta zabalkunde-aldizkariak, eta haur- eta gazte- aldizkariak. Horrez gain, ez zen, aurreko hiru urteetako deialdietan bezala, bakoitzarentzako diru-partida zehatzik ezarri, baizik eta bakarra denen artean banatzekoa.

⁴⁰⁹.- 2000 eta 2001eko deialdietan, kantitate guztien batura eginda zentimo bat gehiago ateratzen da. Hala ere, lan honetan, aginduetan jaso bezala jarri dira partida guztiak.

Taulako datuek ondo agerian uzten dute bost urteko epealdiko deialdietan hedabide berriak parte hartu arren (irradiak, telebistak, on-line argitalpenak), diru-baliabideen kopuru osoari begiratuta, hedabide inprimatuak izan direla jaun eta jabe, diru-baliabide guztien %78 eta %88 artean beraientzat delako, eta horien barruan, eguneroko prentsak jaso duela babes ekonomikorik garrantzitsuena.

64. taula. "Hedabideak" deialdiko diru-baliabideen bilakaera, 2000-2004.(%)

		2000	2001	2002	2003	2004
Inprimatutako argitalpenak	egunerokoak	44,21	44,21	43,63	44,88	44,81
	aldizkakoak	33,76	33,76	35,25	43,04	43,12
Irratiak		4,02	4,02	3,64	6,46	6,45
Telebistak		12,06	12,06	13,12	3,46	3,46
On-line argitalpenak		5,95	5,95	4,36	2,16	2,16
DIRU-LAGUNTZAK GUZTIRA		100	100	100	100	100

Iturria: Diru-laguntza deialdien aginduak eta ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

2000tik 2004ra, hedabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskarazko hedabideen egitasmoak bideragarriago egiteko diru-laguntzak zenbaterik jaso zituzten aztertu ezker:

65. taula. "Hedabideak" diru-laguntzen onuradunen bilakaera, 2000-2004.

	2000	2001	2002	2003	2004
Eguneroko prentsa	1	1	1	4	5
Aldizkakoak	47	53	57	55	58
Irratiak	7	9	10	9	10
Telebistak	7	6	4	8	5
On-line argitalpenak	17	16	15	6	17
GUZTIRA	79	85	87	82	95

Iturria: Diru-laguntza deialdien ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Taulan bildutako datuek zenbait kontu interesgarri eskaintzen dute:

a) Eguneroko prentsaren multzoan, 2000tik 2002ra bitartean, *Euskaldunon Egunkaria* izan zen eskatzaile bakarra. Hortaz, berak jaso zuen egunerokoentzat ezarritako diru guztia. 2003tik aurrera, berriz, *Euskaldunon Egunkaria* Auzitegi Nazionalak itxi ondoren kaleratu zen *Berria* egunkariak, eta pixkanaka bidea urratzen zihoan udalerrri edota eskualdeetako prentsak⁴¹⁰ partekatu zuten laguntza, baina zatirik handiena, alde handiz, *Berriarentzat* izaten zen urtero.

b) Aldizkako argitalpenei dagokienez, haziz joan den multzoa da. Kuriositate moduan aipatu, 2001eko eta 2002ko ebazpenetan *Hernaniko Kronikak* ez zuela laguntza jaso eguneroko prentsaren multzoko hedabide moduan, baizik eta aldizkako argitalpen moduan⁴¹¹.

d) Irratien multzoan urterik makalena 2000 izan zen eta oparoenak, jasotzaile-kopuruari begiratuta, 2002 eta 2004. Hala ere, irratien artean diru-laguntza jasotzaileak zeintzuk izan ziren ikusita, oso multzo egonkorra dela baieztatu daiteke⁴¹².

⁴¹⁰ .- 2003an, *Berria* egunkariarekin batera (1.029.450 euro), laguntza jaso zuten *Oarsoaldeko Hitzak* (58.888 euro), *Tolosaldeko Hitzak* (56.490 euro) eta *Hernaniko Kronikak* (29.000 euro). Eta 2004ko deialdian, *Berriarekin* batera (1.450.191 euro), laguntza jaso zuten *Oarsoaldeko Hitzak* (67.848,6 euro), *Tolosaldeko Hitzak* (64.136,2 euro), *Hernaniko Kronikak* (34.000 euro) eta *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak* (83.824,2 euro).

⁴¹¹ .- Bi urte horietan, 2001ean eta 2002an, *Hernaniko Kronikak* ez zituen baldintzak betetzen, eguneroko prentsaren multzoko eskaria egiteko; horretarako, deialdiak tiradaren %25 edo gehiago argitalpena kaleratzen den probintziatik at banatzea eskatzen zuelako. Ondorioz, E multzoko kide moduan eman zitzaion laguntza, hau da, EAeko toki-aldizkari bezala, tiradaren %75 edo gehiago argitaratzen den probintzian bertan banatzen den hedabide bezala. Hurrengo urteko deialdian, 2003koan, aldatu egin zen formulazioa. 2003ko aginduan ezarritakoaren arabera, eguneroko prentsa moduan hartu ziren herri, udalerrri edota eskualdeko prentsa-hedabideak, tiradaren %75 edo gehiago argitaratzen den lurraldean bertan banatzen zutenak. Ondorioz, 2003an *Berria* eta *Hernaniko Kronikarekin* batera, laguntza jaso zuten *Oarsoaldeko Hitza* eta *Tolosaldeko Hitzak*. Eta 2004an, onuradun izan ziren *Berria*, *Hernaniko Kronika*, *Oarsoaldeko Hitza*, *Tolosaldeko Hitza* eta *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*.

⁴¹² .- 2000 urtean laguntza jaso zuten *Aralar irratia*, *Arrasate irratia*, *Arrate irratia*, *Bizkaia irratia*, *Euskal irratia*, *Herri irratia* eta *Segura irratia*. Zazpi horiek urtero jasoko dute laguntza eta jasotzaile-kopuruak gora egiten duenean beste irratia batzuei esker izango da: 2001ean esaterako, *Durango irratia* eta Oñatiko udal irratia gehituko zaizkie; 2002an, horiei *Xorroxin irratia* batu zitzaien; 2003ko ebazpenean *Durango irratia* ez da jasotzaileen artean egongo; eta azkenik, 2004an hasierako zazpi irratiekin batera diru-laguntzen onuradun izan ziren *Elorrioko udal irratia*, *Antxeta irratia* eta *Beleixe, Sakanako irratia*.

e) Telebisten multzoan 2000 urtean zazpi herri-telebistei⁴¹³ esleitu zizkieten laguntzak⁴¹⁴, hurrengo deialdietan, ordea, laguntzak egitasmoei eman zitzaizkien; horrek esan nahi du herri-telebista batek egitasmo bat baino gehiagorentzako laguntza eskatu eta lor zezakeela⁴¹⁵.

f) Azkenik, on-line argitalpenen multzoan beherakada nabarmena izan zen 2003 urtean. Gertatutakoa erraz ulertu daiteke: aurreko deialdietan, 2000-2002 bitartekoetan, posible zen diru-laguntza eskatzea ez bakarrik euskara hutsezko on-line argitalpenentzako, baizik eta baita euskarazko hedabideen ondarea digitalizatzeko, hedabideen titularrek antolaturiko lankidetz-egitasmoetarako....ere. Bestalde, 2003ko deialdian zorrotz egin zituzten eskaera-baldintzak⁴¹⁶, eta horrek, ondorio moduan ekarri zuen urte hartan eskaerek eta onuradunek behera egitea. 2004an, ordea, on-line argitalpenen multzoak berriro egingo du gora, nabarmen gainera.

5.1.2.2. HAZI, EUTSI ETA JAITSI: 2005-2013

Ikerketan aztergaitzat hartu den 2005-2013 denbora tartean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak⁴¹⁷ 46.380.000 euro bideratu ditu *Hedabideak* laguntza-deialdia gauzatzeko. Ondokoa izan da bilakaera:

⁴¹³ .- 2000, 2001 eta 2002ko deialdietan "Euskarazko herri-telebistak" izena eman zitzaien, 2003 eta 2004 urteetako deialdietan berriz izendapena aldatu eta "Euskarazko toki-telebistak" bezala agertu ziren.

⁴¹⁴ .- *Canal Bizkaia, Canal Gasteiz, Goiena Tb, Oarso TB, Urola Tb, Ttipi-ttapa Tb* eta *Xaloo Tb*.

⁴¹⁵ .- 2001ean, esaterako, 13 egitasmo eman zitzaion laguntza, baina horiek denak 6 telebista ezberdinetakok ziren. *Canal Bizkaia* egitasmo bat aurkeztu zuen; *Canal Gasteiz* izenekoak 4 egitasmo (Bertsoz blai, Soinketa saioa, GKEblai eta laugarrena, Korrika, Olentzero eta Araban Euskaraz jaialdiari buruzko saio bereziak egitekoa zen); *Goeina Telebistak* hiru egitasmo, *Oarso Telebistak* bat, *Zarauzko Telebistak* bat eta *Xaloo Telebistak* hiru egitasmo aurkeztu zituen laguntza jasotzeko. Beste horrenbeste gertatu zen ondorengo urteetan.

⁴¹⁶ .- 2000-2002 urteetan aurkeztutako proiektuak bideragarriak izatea eta gutxieneko kalitate-estandarrek betetzea eskatu zitzaien. 2003an, ordea, argitalpena euskara hutsean egoteaz gainera, berau elikatzea, kalitatea eta maiztasunari eta kopuruari loturiko kontuak eskatu zitzaizkien onuradun izateko. Zehatzago esateko, honela dio orduko aginduak: "Produktua paperezkoan egiten den maiztasun berarekin eguneratuko da. Lau hilabeteko gehienezko epe bat jarriko da paperezko bertsioa ateratzen denetik". Hortaz, aurreko urteetan aurkezturiko proiektu askok ez zuten aipatu baldintza betetzen.

⁴¹⁷ .- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS) Kultura Sailaren barruan dago. Urteroko "Hedabideak" diru-laguntza deialdiaren aginduak Kultura sailburuak izenpetzen ditu, ebazpenak, berriz, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak. Deialdia kaleratzen denetik ebazpena jakinarazi bitarteko kudeaketa-zeregina HPSren esku dago, eta ezarritako diru-baliabideei begiratuta ere, euskarazko hedabideentzako diru-laguntzak hizkuntza-politikari dagokion aurrekontuaren atalean kokatzen dira.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

66. taula. Euskarazko hedabideentzako diru-baliabideen bilakaera, 2005-2013 (eurotan).

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua	1.700.000	1.848.200	2.003.480	2.003.480	2.003.480	2.003.480	2.000.000	1.820.000	1.820.000
Euskara hutsezko aldizkari inprimatuak	1.580.000	1.490.850	1.901.120	1.901.120	1.901.120	1.901.120	2.050.000	1.841.500	1.841.500
Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak ⁴¹⁸		507.650	568.600	568.600	718.600	718.600	250.000		
Zati batean edo osorik euskaraz ari diren uhin bidezko irratiak	280.000	305.200	329.000	329.000	329.000	329.000	250.000	227.500	227.500
Zati batean edo osorik euskaraz emititzen duten telebistak	150.000	500.000	575.000	575.000	575.000	575.000	550.000	500.500	500.500
Internet bidezko hedabideak eta berri-agentziak	90.000	98.100	197.800	197.800	197.800	197.800	380.000	485.500	485.500
GUZTIRA	3.800.000	4.750.000	5.575.000	5.575.000	5.725.000	5.725.000	5.480.000	4.875.000	4.875.000

Iturria: 2005-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

⁴¹⁸ .- 2006an nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriekin ez zuten deialdian multzo berezitu bat osatu; euskara hutsezko aldizkari inprimatuen barruko azpi-multzo bezala kontsideratu ziren. Hortaz, deialdiak 1.998.500 euro zehaztu zituen aldizkariarentzat, eta horietatik 507.650 euro euskara hutsezko gehigarriarentzat ziren. Ondorengo urteetan, (2007tik 2011ra), aparteko azpi-multzoa osatu zuten. Bestalde, 2009 eta 2010eko deialdietan, erreferentzia-orraildeak ere euskara hutsezko gehigarrien multzoan sartu zituzten, horregatik egiten du gora bi urte horietako diru-partidak (718.600 euro).

Agerikoa denez, ekitaldirik oparoenak 2007-2010 bitartekoak izan dira. Urte batetik besterako bilakaera aztertuta, honakoa da emaitza:

67. taula. "Hedabideak" deialdirako diru-baliabideen bilakaera, 2005-2013.
(eurotan eta portzentajetan)

05-06	06-07	07-08	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13
↑950.000 (↑% 25)	↑825.000 (↑% 17,3)	= (%0)	↑150.000 (↑% 2,7)	= (%0)	↓245.000 (↓% 4,28)	↓605.000 (↓% 11)	=(%0)

Iturria: 2005-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Bestalde, diru-baliabideen ehunekorik garrantzitsuena euskarazko hedabide inprimatuek jaso dute epealdi osoan. Urteroko deialdietan agindutako diru-baliabide guztien bi herenetik gora joan da inprimatuetara beti. Zenbakitan jarrita, 2005ean euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko helburuekin jarritako diru-partida osoaren %86 eta 2013an berriz, %75. Laguntzen jasotzaileak zein multzotakoak izan diren kontuan hartuta hala izatea logikoa dela pentsa daiteke; paperezko argitalpenak direlako, alde handiarekin gainera, deialdira aurkeztu izan diren hedabide gehienak.

68. taula. "Hedabideak" diru-laguntza deialdira aurkeztutako egitasmoen bilakaera, 2005-2013.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua	8	9	9	9	9	9	8	8	6
Euskara hutsezko aldizkari inprimatuak	59	51	52	53	59	55	59	59	59
Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak ⁴¹⁹		4	4	4	7	5	4		
Zati batean edo osorik euskaraz ari diren uhin bidezko irratiak	8	8	5	5	5	4	4	4	4
Zati batean edo osorik euskaraz emititzen duten telebistak	4	6	7	9	8	8	7	7	7
Internet bidezko hedabideak eta berri-agentziak ⁴²⁰	26	23	22	25	34	35	40	42	42
GUZTIRA	105	101	99	105	122	116	122	120	118
Deialdiak finkatutako baldintzetako bat bete ez izanagatik bazterrean utzitako egitasmoak ⁴²¹	26	7	20	14	4	6	7	16	16

Iturria: 2005-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Datuen irakurketa azkarra eginez, esan daiteke idatzizkoen multzoak egonkor, gorabehera handirik gabe eutsi diola eskatzaileen kopuruari. Eguneroko prentsaren multzoan, 2013ko deialdian izan zen hedabide gutxien (6). Urte hartan *Oarso Bidasoko*

⁴¹⁹ .- Kopuruak gora egiten du 2009an eta 2010ean, bi urte haietan nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatutako erreferentzia-errialdeak ere onartu zituelako deialdiak.

⁴²⁰ .- Denboran zehar multzo honetara hedabideak gehituz joan dira. Lehen urtean, 2005ean, aipatu multzoan bakarrik sartu ziren Internet bidezko euskara hutsezko egunkariak eta aldizkariak; 2006an, berriz, notiziak euskaraz ematen zituzten berri-agentziak ere kontuan hartu zituzten; 2007an, zati batean edo osorik euskaraz ari ziren irratiak; eta 2012an, lehen aldiz, sartu ziren zati batean edo osorik euskaraz ari ziren telebistak.

⁴²¹ .- Bazterrean utzitako egitasmoen artean, bi talde bereizi daitezke: batetik, deialdian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez zuten hedabideak, eta bestetik, baldintza guztiak beteta, diru-laguntzen esleipena egiterakoan aginduetan ezarritako gutxienerako diru-laguntzara heldu ez ziren hedabideak. Gutxienerako hori aldatuz joan da, 2011ko deialdian gutxienerakoa 500 euro zen; 2012 eta 2013koan berriz, 2.000 eurokoa izan zen. Hortaz, 2013ko deialdiaren esleipen-fasean hedabideren bati 2.000 euro baino gutxiagoko diru-laguntza egokituz gero, bazterrean geratzen zen, hots, laguntzarik gabe.

Hitzak eta Irutxuloko Hitzak egunerokoak izateari utzi eta euskara hutsezko aldizkari inprimatuaren multzoko kide gisa aurkeztu zutelako laguntza-eskaera. Euskara hutsezko aldizkariaren banan-banako errebasoa egin ezker, nabarmendu daiteke sartu-irten ugari izan dela 2005etik 2013ra. Hala ere, denbora-tarte horretan urtero-urtero 33 aldizkarik jaso zuten Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza, eta horietatik zenbaitek 1984tik, lehen deialdia egin zenetik, izan dira onuradun, *Argia* eta *Jakin* aldizkariak esaterako.

Diru-baliabideei buruzko azterketa azkar honetan ezin aipatu gabe utzi 2006tik 2011ra bitartean (biak barne), diruz lagundu zirela nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutsezko gehigarriak⁴²². 2006an euskara hutsezko aldizkariaren azpi-multzo bezala ageri ziren aginduan (507.650 euroekin hornituta) eta gainontzeko urteetan multzo eta diru-partida berezituarekin⁴²³.

Irratien multzoari dagokionez, 2005-2013 bitartean 9 irratik jaso zituzten diru-laguntzak, horietatik lauk epealdi osoan⁴²⁴. Telebisten multzoan, dozena batek izan dituzte laguntzak⁴²⁵, horietatik bakarrak, *Goiena telebistak* epealdi osoan. Azkenik, Internet bidezko hedabideak eta berri-agentziak multzoa oso anitza izan da jasotzaileei begira, asko eta asko paperezko hedabideei lotutako on-line argitalpenak izan dira. Ikerketa honek aztergaitzat hartu duen epealdiaren azken bi urteetan, 2012 eta 2013ko deialdietan, berrikuntza bezala zati batean edo osorik euskaraz ari ziren

⁴²² .- Horiek diruz laguntzeko ekimena 2006an gauzatu zen lehenengoz. Hala ere, asmoa aurretik zetorren. Izan ere, 2003ko deialdiak horiek laguntzeko aukera eman zuen: "A.3 multzoa: euskararen presentzia esanguratsua ziurtatzen duten erdal egunkariak" (EHAA, 2003-09-10: 176 zk.). Baina aukera ez zen gauzatu diru-laguntza jasotzeko aurkeztu zen hedabide bakarraren eskabidea, *Gara* egunkariarena, baztertuta geratu zelako bi arrazoiengatik: "Ez du betetzen eskatutako euskaraz argitaratutako kopurua. Aurrekontua ez da doia izan" (EHAA, 2004-03-05: 45 zk.).

⁴²³ .- Multzo horretan diru-laguntzen jasotzaile izan ziren *Xirika 16*, *Ortzadar*, *Araba Gaztea*, *Izan gazte* gehigarriak. Erreferentzia-orrialdeetan, berriz, *El País*, *Diario de noticias de Álava*, *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *El Diario Vasco*.

⁴²⁴ .- Epealdi osoan diru-laguntzak jaso zituzten irratia ondokoak dira: *Segura irratia*, *Arrate irratia*, *Bizkaia irratia* eta *Xorroxin irratia*. Horiez gain, 2005ean eta 2006an, laguntzak izan zituzten *Antxeta irratia* eta *Beleixe irratia*; 2005ean, *Euskal irratia*, 2006an, *Info7 irratia*, eta azkenik, *Herri irratia* laguntzak izan zituen 2005etik 2009ra, biak barne.

⁴²⁵ .- *Goierrri telebistak* eta *Oizmendi telebistak* zortzi urtean izan zuten laguntza (2006-2013), *28 kanala* telebistak zazpi urtean (2007-2013), *Xaloa telebistak* sei urtean (2005-2010), *Erlo telebistak* eta *Hamaika Bilbo telebistak* bost urtean (2009-2013), lau urtean *Ttipi-ttapa telebistak* (2005-2008) eta *Hamaika Donostia telebistak* (2010-2013), hiru urtetan *Durango telebistak* (2005, 2008 eta 2009), *Zarauzko telebistak* bi urtean (2006-2007), eta azkenik, *Bilbovisión telebistak* laguntza izan zuen urte bakarrean, 2008an.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Internet bidezko telebistak ere sartu ziren onuradun izan zitezkeen zerrendan⁴²⁶. Internet bidezko hedabideen esparruan 2005-2008 bitartean, jasotzaileen kopurua antzekoa izan zen, bi dozena ingurukoa; 2009an hazkundera izan zuen, eta hortik aurrera gorako bideari ekin dio. Berri-agentziei dagokienez, *Europa Press* izan da beti eskaera egin eta laguntza izan duen bakarra.

Azkenik, diru-baliabideen atalari amaiera emateko, ohar pare bat esleitu daitekeen gutxienerako diru-laguntzaz eta ordainketaz:

1.- 2006tik aurrera jaso zitezkeen gutxienerako diru-laguntza zehaztu zen aginduen edukian. Hala, 2006an ez zen 300 euro baino gutxiagoko laguntzarik esleitu, hurrengo bost urteetan muga 500 eurotan jarri zen, eta 2012an eta 2013an jaso zitezkeen gutxienerako laguntza 2.000 eurokoa izan zen.

2.- 2005-2013 epealdian, diru-laguntza deialdiak EHAAn argitaratu izan direnetik 4-8 hilabete igaro dira ebazpena izan arte⁴²⁷. Hedabideek eskaria aurkeztu izan dutenetik dirua jaso arte 6-10 hilabeteko denbora igaro da. Ordainketa egiteko prozedura eta epeei dagokienez, gorabehera ugari izan dira 2005-2013 aldirian. Kasu gehienetan, bi epetan egin da: lehenengoa, diru-laguntza jasoko duen hedabideak berau onartu eta bi hilabeteko epean, eta gainerako kopurua diru-laguntza zurriz aldera aurkeztutako agiriak ontzat ematen diren egunetik hasi eta handik hilabeteko epean. Hala ere, formula hori nagusi izan den arren, epe bakoitzean ordaindutako kantitatea aldatuz joan da denboran zehar:

- 2005, 2006, 2007 eta 2008ko deialdietan, lehen epean laguntza osoaren %75 eman zitzaien.
- 2009ko deialdirian lehen ordainketa esleitutakoaren %50ekoa izan zen.

⁴²⁶ .- 2012 urteko deialdirian, esaterako, *Xaloa telebistak* jaso zuen multzo honetan laguntza.

⁴²⁷ .- Salbuespen bakarra 2013ko deialdiria da. Kasu horretan, agindua maiatzaren 2an kaleratu zen eta idatzizko hedabideentzako eta irratientzako ebazpena uztailaren 23an argitaratu zen. Hortaz, hiru hilabete egin zen. Urte hartan, telebista eta Internet bidezko hedabideentzako ebazpena beranduago kaleratu zen.

- 2010ean eta 2011n ordainketa-prozedura beste era batera gauzatu zen. Esleitutako kantitateak 12.000 euro gainditzen ez zuenean, ordainketa bakar bat egin zen onarpena jaso eta bi hilabeteko epean; hortik gorako kantitateen kasuan, lehenik %80a eta ondoren %20a.
- 2012an lehen ordainketan esleitutakoaren %80 eman zitzaien.
- 2013ko deialdian, lehen ordainketan, hedabideari zegokion diru-laguntza osoaren %65 eman zitzaien eta, horrez gain, deialdiak zehaztu zuen bigarren ordainketa 2014. urtean bideratuko zela⁴²⁸.

5.1.3. "HEDABIDEAK" DIRU-LAGUNTZA DEIALDIEN BALDINTZAK

Lehen deialdia kaleratu zenean, 1984an, bost baldintza ezarri zitzaizkien diru-laguntzen jasotzaile izan nahi zuten euskarazko aldizkariari:

- “ - Euskarazko aldizkariaren jabe edota arduradunak, elkarte edo talde pribatua izan behar du, ez publikoa ezta alderdi politiko edo sindikatoen organoa ere.
- Legezko baldintzak betetzea.
- Beren burua eta egoitza nagusia Euskalerrian kokatua izatea.
- Deialdi honetan adierazten den eran eta epean eskabidea Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari dagokion Euskara Arazoetarako Zuzendaritzan⁴²⁹ aurkeztua izatea.
- Aldizkariaren edukina edo mamiaren ehuneko 90 guttienik euskaraz idatzirik egotea” (EHAA, 1984-08-11: 137 zk.).

Oso oinarrizko baldintzak, beraz. Deigarria egiten da edukiari dagokionez, agindu bidezko 1984ko lehen deialdi hartan ez zitzaizela hedabideei euskara hutsean egotea⁴³⁰ eskatu diru-laguntza jaso ahal izateko.

⁴²⁸ .- Lehenengoz zehazten da deialdi batean ordainketaren zati bat deialdi horri dagokion urtean ordaindu beharrean, hurrengoan egingo dela.

⁴²⁹ .- 1984an Euskara Arazoetarako Zuzendaritzak kudeatzen zituen diru-laguntzak. Izena deigarria eta esanguratsua kontsidera daiteke. Gaztelerazko bertsioan “Dirección de Promoción del Euskera” bezala ageri zen. Izen hori, Euskara Arazoetarako Zuzendaritza, 1984-1990 bitarteko deialdi guztietan izango da, biak barne. 1991koan, berriz, Euskara Sustapenerako Zuzendaritza agertu zen lehen aldiz.

⁴³⁰ .- 1985eko deialdian ezarri zen, lehen aldiz, diru-laguntza jasotzaile izan nahi zutenek euskara hutsean egon behar zutela. Honela dio 1985ko deialdiak: “Aldizkari denak osoki euskaraz idatzita egotea. Kontsiderazio honetaz kanpo egongo dira batzutan egin ohi diren laburpen itzuliak”(EHAA, 1985-07-18: 148 zk.).

Ordutik, hiru hamarkadetan, hamaikatxo gorabehera eta aldaketa izan ditu aurkeztu ahal izateko bete behar diren baldintzak jasotzen dituen urteroko aginduaren atalak. Horien banan-banako azterketa ez da ikerketa honen xede; hala ere, laburbilduz esan daiteke era askotako ezaugarriei erreparatu izan zaiela, eta kasu askotan, urtez-urte joan direla horiek egokitzen. Adierazitakoaren erakusgarri kontsidera daiteke hedabideek denboran zehar diru-laguntza eskaera formalizatzeko bete behar izan duten eskabide-agiria nola aldatu den ikustea. Laurogeiko hamarkadan eskabide-agirian oinarri-oinarrizko informazioa eskatzen zen⁴³¹. Hurrengo hamarkadan, laurogeita hamarrekoan, aldatu egin zen, asko gainera, eskabide-agiria⁴³². Gero eta datu eta informazio zehatzagoa eta osatuagoa bildu zen bertan, argitalpenaren ezaugarri teknikoari zegokion informazioa zein gastu-aurrekontuaren egoerari zegokiona⁴³³. Hedabideen egoera ekonomikoari loturik, azpimarratzekoa da 1993an “Bestelako sarrerak” izeneko atala agertu zela lehen aldiz, eta bertan eskatzaileek entitate publikoetatik⁴³⁴ eta erakunde pribatuetatik lortutako diru-sarrerak zehaztu behar izan zituztela.

⁴³¹ .- Garai hartan eskatzaileek aldizkako argitalpenaren izena, argitaratzailea, egoitza ofiziala, ezaugarri teknikoak (formatua, orrialde-kopurua, urtean zehar argitaratutako zenbakiak, maiztasuna, saldutako aleak, salneurria, aldizkari-mota) eta aurrekontuaren laburpena (sarrerak eta irteerak) biltzen zituen fitxa tekniko bat betetzen zuten, eta, horrekin batera, aurkezturiko datuak egiazkoak zirela aitortzeko adostasun-agiri bat sinatzen zuten.

⁴³² .- Bitxikeria moduan esan, 1991eko eskabide-agiria, berau gauzatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa zehaztu ondoren, esaldi honekin bukatzen zela: “Horiek horrela, zera ESKATZEN DIZUT: Beka bat luzatu diezadazula, aipatu euskarazko aldizkariak aurrera jarraitu ahal izan dezan” (EHAA, 1991-06-19: 124 zk.). Diru-laguntzari “beka” deitzen zitzaion 1991-1992 urteetan; 1993an, berriz, diru-laguntza hitza agertuko da. Gaztelarazko bertsioan, urte haietan, zera irakurri dezakegu: “ Por todo lo cual, SOLICITA: Que, previa la tramitación pertinente, le sea concedida la citada subvención” (EHAA, 1991-06-19: 124zk.). Formula horri 1991-1995 bitartean eutsiko zaio. 1996ean, laburtu egin zen eta honela ikusiko dugu: “Horiek horrela, zera ESKATZEN DUT: Dirulaguntza bat eman diezadazula, aipatutako euskarazko aldizkarirako” (EHAA, 1996-09-13: 177zk.). Eta azkenik, aipatutako formula desagertu egingo da 1997tik aurrerako eskabide-orrietatik.

⁴³³ .- 1993tik aurrera gastuen atalkako banakatze xehatu eta zehatza jaso zen eskabide-agirian. Pertsonal-gastuen arloan, esaterako, langile finko eta ez-finko bakoitzaren izen-deiturak, hedabideen burututako eginkizuna, lan-sari gordina urtean eta eginiko atxikipeak (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, langileari dagokion segurantzaren zatia eta enpresari dagokion segurantzaren zatia) jaso ziren. 1997tik aurrera, langile bakoitzarena eskatu beharrean, datua orokorrean jaso zen (langile guztiena zenbaki bakar batean).

⁴³⁴ .- Hasieran, kopuru orokorra eskatu zen, baina 1996tik aurrera erakunde publikoetatik lortutako diru-sarreraren atalean, ondokoetatik jasotakoak aitortu beharko dira: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak,

Diru-laguntza eskatzeko baldintzak erreparatzeko zeregina, diru-baliabideekin egin bezala, bi urratsetan burutuko da. Lehenbizi, 1984tik 2004ra bitartekoa, eta bigarrenik ikerketak helburutzat duen 2005-2013 denbora-tartearena.

5.1.3.1. IA URTERO ALDATUZ ETA BERRITUZ: 1984-2004

1984-2004 bitartean gorabehera handiak izan zituen Eusko Jaurlaritzaren laguntza deialdien baldintzen atalak. Batetik, denborarekin baldintzak gehituz joan ziren, eta bestetik, bakoitzari loturiko edukietan ere aldaketak izan ziren. Dena den, aginduetan zehaztutako baldintzak bi eratakoak dira: batzuek hedabidearen ekoizpen-ezaugarriei dagozkienak, eta besteak, hedabideen egoera ekonomikoari begira ezarritakoak.

1.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen ekoizpen-ezaugarriei dagozkien baldintzak. Ondokoak dira 1984-2004 bitarteko aipagarrienak:

a.- Botaldiak. Zenbaki-dantza izan zen denboran zehar. Lehen bi urteetan ez zen alekopuru zehatzik ezarri; 1986an, berriz, 1.000 aletik gorakoa ezartzen zuen aginduak; 1987koak 1.500 aletik gorakoa eta ondoko deialdietan kopuru hori murriztuz joan zen, lehenengo 1.200era eta gero 1.000 alera. Tokian tokiko zabalkundea zuten argitalpenen kasuan, tiradaren eta aldizkaria zabaltzen zen inguruko biztanleria euskaldunaren arteko erlazioa hartzen zen kontuan. Horren arabera, erlazio hori ezin zen 1/8 baino txikiagoa izan.

1997tik aurrera, eguneroko prentsak ere parte hartu ahal izan zuen laguntza-deialdietan (*Euskaldunon Egunkaria*). Hala izateak, aginduetan eskaturiko botaldien egokitzapena ekarri zuen berrir: 5.000 ale eguneroko prentsarentzat eta 1.000 ale aldizkariarentzat, tokikoak barne. Dena den, tokikoa banatzen zen udalerririk 3.000 biztanle baino gutxiago izan ezker, deialdian ezarritako gutxieneko botaldia 500 alekoa zen.

udalak, Estatuko administrazioa, Europako Batzordea eta besterik. 2007an, zerrenda horri EUDEL gehitu zitzaion.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

b.- Argitalpenen maiztasuna eta orrialde-kopurua. Hedabideon bi ezaugarri horiek diru-laguntzen baldintzetara eramateko orduan izan den bilakaera aztertzeak zenbaki-dantza itzela ekartzeaz gain, luze joko luke. Hala ere, aipatzekoa da 1991ko deialdira arte ez zitzaiela orrialde-kopuru zehatzik ezarri eskatzaileei. Beste horrenbeste gertatu zen maiztasunarekin. Gainera, kasu honetan, maiztasun zehatz bat ez eskatzea beste bost urtez luzatu zen⁴³⁵. Ondorengo urteetako bilakaera laburtzeko, esan daiteke laguntza hartu nahi zuten denei, gutxienez 20 orrialde eta urtean gutxienez 4 zenbaki eskatzetik, bakoitzaren izaerari⁴³⁶ lotutako kopuruak ezartzera igaro zirela deialdiak.

c.- Publizitatea. Baldintza bezala agertuko da 1991-1995 bitarteko diru-laguntza deialdietan, biak barne. Lehen urtean, 1991n, publizitatea ezin zen orrialde-kopuruaren %35a baino handiagoa izan, eta ondorengo deialdietan, publizitateak informazio-multzoaren %40 baino txikiagoa izan behar zuen.

2.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen egoera ekonomikoari begira ezarritako baldintzak: 1984tik 1992ra bitarteko deialdietan, baik barne, ez zen baldintza ekonomikorik ezarri onuradun izateko. 1993tik 1996ra bitartekoetan, baik barne, ez dago hedabideen ekonomiari buruzko aipamenik onuradun izateko bete beharreko baldintzen atalean, baina autofinantzaketari buruzkoak ageri ziren aginduen beste atal batzuetan⁴³⁷. Aipatu autofinantzaketa baldintza bilakatuko da 1997ko aginduan. Datak badu garrantzia. Izan ere, 1997ko deialdiak berrikuntza handia ekarri zuen: lehen aldiz, euskara hutsezko aldizkako argitalpenekin batera, laguntzen onuraduntzat hartu zuen euskararen esparru geografiko osoko eguneroko prentsa.

⁴³⁵ .- Maiztasunari dagokionez, 1991-1995 bitarteko deialdiek ondoko formula erabili zuten baldintza-atalean: "(fitxa teknikoan) aitortutako maiztasunari tinko eutsi behar izatea".

⁴³⁶ .- Tokiko aldizkarien kasuan, esaterako, gutxienez 16 orrialde eta urtean gutxienez 10 zenbaki.

⁴³⁷ .- Esan bezala, 1993tik hasita, autofinantzaketak lekua izan zuen deialdiaren testuan baina ez baldintzen atalean baizik eta diru-laguntzen zenbatekoa finkatzeko balorazio-faktore gisa. 1996koan, berriz, autofinantzaketa kontzeptua deialdiko bi tokitan ageri da; batetik, "Bazterketak" izeneko atalean zehazten da ezin izango direla deialdira aurkeztu "gutxienik kontu osoaren %30eko autofinantzaketa-mailara iristen ez direnak", eta bestetik, diru-laguntzak emateko irizpide moduan erabiliko dute esleipen-proposamena egiteko orduan. Hortaz, deialdira aurkeztu ahal izateko baldintza bezala, gutxienerako autofinantzaketa-maila bat zehazten duen lehen deialdia 1997koa kontsidera daiteke.

1997ko deialdiak lehen baldintza bezala honakoa ezarri zuen: "Autofinantzaketa gutxienik % 30ekoa izatea" (EHAA, 1997-04-22: 75 zk.). Hortaz, urte hartako aginduak autofinantzaketa-maila zehatz bat ezarri zien euskara hutsezko hedabide inprimatuei diru-laguntzaren jasotzaile izateko. Hau da, diru-sarrera propioez, herri-erakundeen diru-ekarpenak kanpo utzita, hedabidearen kostu osoarekiko portzentaje zehatz batera iristea eskatu zitzaien. 1997tik 2002ra, biak barne, portzentajea gutxienez %30ekoa izan zen, eta 2003an finantzaketa propioaren portzentajea %35era igo zen.

3.- Beste baldintza batzuk: antzinasuna litzateke horietako bat, deialdi guztietan aipatzen ez dena, eta ageri denean ere, gorabeherak dituena. Dena den, gehienetan urte bete izatea eskatu zitzaien⁴³⁸. Esandakoak badu salbuespena; izan ere, 2000tik 2004ra bitartean, biak barne, diru-laguntza deialdietan hedabideen gastu-aurrekontuen arabera ezarri zen hiruhilabeteko edo sei hilabeteko antzinasuna frogatu behar zutela⁴³⁹.

Azkenik, 1984tik 2004ra bitartean, bada aipamena merezi duen beste baldintza bat, *Hemen* eta *Eguna* astekarien jarduera babesteko kaleratu ziren deialdietan⁴⁴⁰ soil-soilik agertu zena. Deialdi haietan kaleratutakoaren arabera, laguntzen eskatzaileek gutxienez 6 euskal erredaktore izan behar zituzten, horiek enpresako langileak izan behar zuten, eta gainera, nolako formazioa behar zuten ere zehaztu zen: Informazio Zientzietan lizentziatuak zein irrati, egunkari edota aldizkarigintzan bost urteko esperientziadunak⁴⁴¹ izatea eskatu zen.

⁴³⁸ .- Gutxienez urte beteko antzinasuna eskabideak egiteko epea amaitu denerako.

⁴³⁹ .- 2000 eta 2001 urteetan, 50 milioi pezeta (300.506 euro) edo gehiagoko gastu-aurrekontua zutenek hiru hilabeteko antzinasuna frogatu behar zuten, eta 50 milioitik beherakoek, sei hilabetekoa, eskabideak egiteko epea amaitzen zenerako. 2002an 30.050,6 euro edo gehiagoko gastu-aurrekontua zutenek hiru hilabeteko antzinasuna, eta hortik beherakoek, sei hilabetekoa. Azkenik, 2003an eta 2004an 30.000,0 euroko gastu-aurrekontua erabili zuten hiru edo sei hilabeteko antzinasuna ezartzeko.

⁴⁴⁰ .- 1986tik 1990era bitartekoetan.

⁴⁴¹ .- Baldintza honetaz gain, beste zenbait ezartzen zitzaizkien diru-laguntza honetara aurkeztu nahi zuten egunkarigintza-enpresei: goizez argitaratua izan behar zuen eta beste egunkariak banatzen ziren ordu berberetan banatu behar zen; gutxienez 32 orrialde, tabloide formatukoak eta %75 gaurkotasunezko informazioz osatua; banaketa Euskal Herriko lurralde guztietan egin behar zen eta astero gutxienez 10.000 ale banatu behar zituen.

5.1.3.2. BALDINTZEN EGONKORTASUNA: 2005-2013

Ikergaitzat hartu den denbora-tartean, diru-laguntzetara aurkezteko baldintza orokorrak⁴⁴² finkatu egingo dira eta hala iraungo dute; hots, ez da aldaketarik egingo eskatzaileei ezarritako baldintza orokorreari dagokienean. Aurreko bi hamarkadetan gertatu bezala, orain ere bi eratako baldintzak daude: batzuek, hedabideen ekoizpen ezaugarriekin dute zerikusia, eta besteak, kontu ekonomikoari begirakoak dira. Hala ere, 2005-2013 bitartean, bigarrenak, baldintza ekonomikoak, pisu nabarmena hartzen dute. Horregatik, horien erreposoak emango dio hasiera atal honi.

1.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen egoera ekonomikoari begira ezarritako baldintzak. Lau dira atal honen barruan kokatu daitezkeenak:

a.- Hedabideak defizita izan behar du. Hau da, aurreikusitako gastuak, eskatzaileak ezinbestean jarri beharreko finantzaketa propioarekin berdindu ezin dituzten hedabideek bakarrik jaso dezakete diru-laguntza.

b.- Autofinantzaketa-maila. 2005-2013 bitartean kaleratutako aginduetan argi eta garbi ezartzen da nola ulertu behar den kontzeptu hau. Adibidetzat 2005ekoa eta 2013ko deialdiak hartuta, formulazioan aldaketatxoren bat dagoen arren, ia kopia hutsa dira autofinantzaketa-maila definitzeko orduan. 2005ekoak honelaxe dio:

“Aurreko puntuan aipaturiko finantzaketa propioa honako diru-sarrerara harez osatuta egongo da:

- a) Norberaren diru-ekarpenak.
- b) Salmenta eta publizitatetik eskuratutakoak.
- c) Entitate pribatuetatik jasotakoak” (EHAA, 2005-06-03: 104 zk.).

Eta 2013ko diru-laguntza deialdian:

“Agindu honen 8.4 atalean aipaturiko finantzaketa propioa honako diru-sarrerara harez osatuta egongo da:

- a) Eskatzailearen diru-ekarpenak.
- b) Zerbitzuen salmentatik eskuratutakoak.

⁴⁴² .- “Hedabideak” diru-laguntza deialdira aurkeztu daitezkeen edozein eratako hedabide zein egitasmori aplikatzen zaizkionak (inprimatuak, irratiak, telebistak, internet bidezko hedabideak eta berri-agentziak).

- c) Produktuen salmentatik eskuratutakoak.
- d) Publizitatetik eskuratutakoak.
- e) Entitate pribatuetatik jasotakoak" (EHAA, 2013-05-06: 85 zk.).

Bien artean dagoen alde bakarra da 2013koan salmenta bidez eskuratutako diru-sarrera bi azpi-ataletan banatzen dela: zerbitzuen salmenta bidezkoa, eta produktuen salmenta bidezkoa. Ñabardura hori 2008ko diru-laguntza deialdian agertu zen lehen aldiz.

Autofinantzaketa-mailari dagokionez, bi egoera aurreikusten dira: agindua indarrean sartzen den egunean urte bete baino gutxiago duten hedabideen kasuan autofinantzaketa-proporzioa, gutxienez ere, gastu-aurrekontuaren %35 izango da, eta lehenagotik ari diren hedabideen kasuan, berriz, %40.

c.- Aurkezten den hedabide orok gastu- eta sarrera-aurrekontu orekatua izan behar du.

d.- Gain-finantzaketarik ez izatea. Hau da, "Hedabideak" diru-laguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok zein pribatuk xede berberaz eman ditzaketenekin, betiere, gain-finantzaketarik ez badago. Horrelakorik gertatuko balitz, aginduetan zehazten da diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo dela eta murrizketa gain-finantzaketaren bestekoa izango dela.

2.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen ekoizpen-ezaugarriei dagozkien baldintzak. Ondokoak dira 2005-2013 bitarteko aipagarrienak:

a.- Antzinasuna. 2005-2009 bitartean, biak barne, deialdira aurkeztutako hedabide orok eskabidea eta agiriak aurkezteko azken eguna baino lehenago kalean izan behar zuen⁴⁴³. Gainontzekoetan, 2010etik 2013ra bitarteko urteetan, zorrotzu egiten da baldintza hau, hedabide-eskatzailea zegokion deialdiaren urtarrilaren 1ean izan behar zuelako kalean ohiko maiztasunarekin edo jardunarekin.

b.- Legezko gordailuaren edota ISSN delako zenbakiaren jabe izatea. Besterik ezean, zenbakion eskabidea tramitatuta izatea.

⁴⁴³ .- 2009ko deialdiak data zehatza aipatzen du baldintzen atalean: 2009ko otsailaren 16a; horixe izan baitzen eskabide-orriak aurkezteko azken eguna.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

c.- Banaketa-sistema gardena eta agerikoa izatea.

d.- Salneurriaren berri ematea, eta harpidetza-sistemaren bat erabiltzen denean, argi adieraztea ale bakoitzean. Dohainik zabaltzen diren hedabideen kasuan ez da baldintza hori bete beharrik izango.

e.- Aleek zenbakikuntza jakin bati jarraitzea eta data jarrita izatea.

f.- Originala izatea. Hots, laguntza-mota honetan ez da onartuko laguntza-gai den hedabide edo aldizkako argitalpen baten aldaerarik.

Arestiko sei baldintzak hedabide guztiei aplikatzekoak dira, izan egunerokoak, informazio orokorreko aldizkariak, aldizkako espezializatuak zein tokikoak. Baldintza orokor horietatik aparte, deialdira aurkeztu daitezkeen idatzizko hedabideen ezaugarri bereizgarriei begirako beste hainbat ageri dira deialdietan, hala nola:

g.- Gutxieneko maiztasuna izatea. Euskara hutsezko eguneroko prentsaren kasuan, 2005-2013 bitartean, beti eskatu da asteen 4 zenbaki kaleratzea. Aldizkarien kasuan, ordea, ezarritako maiztasunak desberdinak dira hedabideen ezaugarrien arabera:

- euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarietarako 44-45 zenbaki⁴⁴⁴ eskatu zaizkie,
- udalerriri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorrekoei 11 zenbaki urtean,
- aldizkari espezializatuei⁴⁴⁵ 4 zenbaki urtean.

⁴⁴⁴ .- 2005eko deialdian 45, gainontzekoetan 44 zenbaki urtean.

⁴⁴⁵ .- Epealdi honetako lehen bi urteetan, 2005ean eta 2006an, haurrei zuzenduriko aldizkariak eta nerabeei eta gazteei zuzendurikoak bi azpimultzo berezitu bezala kontsideratu ziren. Lehenengoen kasuan, urtean 4 zenbaki izatea eskatu zitzaizkien, eta nerabeei eta gazteei begirako kasuan, berriz, urtean 11 zenbaki izatea.

h.- Formatua eta orrialde-kopurua. Bi ezaugarri horiei erreparatuta, zenbaki-dantza biderkatu egiten da, bereziki orrialde-kopuruak zehazteko orduan. Orokorrean, esan daiteke deialdia egokituz joan dela hedabideek izan duten bilakaerara. Denborarekin hedabide inprimatu askok murriztu egin dute kaleratutako orrialde-kopurua, eta ondorioz, diru-laguntza deialdiak errealitate horri erreparatu dio eta laguntza-deialdietan baldintza bezala ezarritako orrialde-kopurua beherantz egokituz joan da. Adierazitakoa agerikoa da, esaterako, aldizkari espezializatuen multzoan. Horien kasuan, DIN A4 formatua ezartzen zaie⁴⁴⁶ eta orrialde-kopuruari dagokionez:

- euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarietara 20 orrialde edo gehiago eskatu zaizkie,
- udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorrekoei 16 orrialde edo gehiago,
- aldizkari espezializatuak lehen bi urtetan, 2005ean eta 2006an, 48 orrialde edo gehiago; hortik aurrera, 32 orrialde edo gehiago.

Eguneroko prentsaren multzoan, 2005-2013 bitarteko deialdietan, tabloide formatuko 28 orrialde edo gehiago eskatu zaizkio euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen den euskara hutsezko egunkariari. Udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariekin, berriz, tabloide formatuko 4 orrialde edo gehiago eskatzetik, asteen tabloide formatuko 16 orrialde edo gehiago eskatzera egin dute deialdiek⁴⁴⁷.

Horraino 2005tik 2013ra laguntzen onuradun izan zitezkeen idatzizko hedabideei jarritako baldintza orokorrak eta espezifikoak. Ez da ahaztu behar epealdi horretako urte batzuetan diru-partidak izan zirela nagusiki gaztelania zerabilten egunkariekin prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrientzat eta

⁴⁴⁶ .- Hala ere, gerta daiteke diru-laguntza eskatzaileak beste formatu batekin zabaltzea aldizkaria. Hala gertatzen denerako deialdiek ondokoa aurreikusten dute: "Kasu bakoitzean zehaztutako formatua erabili beharrean beste bat erabiliz gero, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak berariaz prestatutako baliokidetasun-taula erabiliko du". Horrekin, edozein aldizkarik erabilitako formatua DIN A4ra ekarri dezakete.

⁴⁴⁷ .- Formulazio-aldaketa 2011ko deialdian egin zen.

erreferentzia-orrialdeentzat⁴⁴⁸. Hala egin zenean, horiei zuzendutako beste zenbait baldintza zehaztu ziren deialdietan:

a.- Gehigarrientzako baldintzak: gutxienez euskararen esparru geografikoko lurralde historiko batean banatzea. Merkataritza-enpresa bakoitzak gehienez ere gehigarri bat izan zezakeen diru-laguntza gai. Urtean 44 zenbaki izatea eta tabloide formatuko 16 orrialde edo gehiago⁴⁴⁹. Horrez gain, gutxienik ere 2.500 karaktere izan behar zuten batz bestean orrialdeko.

b.- Erreferentzia-orrialdeentzako baldintzak: orrialde-kopuruari eta eduki-motari lotutako baldintzak ezarri ziren. Honela zioten hitzez-hitz 2009 eta 2010eko aginduek⁴⁵⁰:

“Entitate eskatzaileek astean-astean, gutxienez euskaraz idatzitako 12 orrialde⁴⁵¹ standard argitaratu beharko dute honako atal hauetan: gizartea, politika, mundua, ekonomia, kirolak eta kultura. Euskarazko informazio horrek, informazioaren izaeraren ikuspegitik garrantzitsua izan behar duenak, nagusiki kronikekin, erreportajeekin, elkarrizketekin eta analisi/iruzkinak eskaintzen dituzten leihoekin zerikusia izango du; gainera, hedabidearen aldetik berezko balio erantsia ekarri beharko du informazioak. Eskatutako gutxienerako horrek ez ditu tokian tokiko berriak kontuan hartuko. Nolanahi ere, entitate eskatzaileak tokiko berriei dagokienean euskararen presentzia ziurtatuko du. Era berean, euskaraz azalean kontrazalean izango duen presentzia, bai kuantitatiboa bai kualitatiboa, baloratuko da. Estatu mailan zabaltzen diren egunkarien lurralde edizioen kasuan, astean asteko euskarazko edukiek 4 orrialdeko luze-zabalera hartuko dute. Edizio digitala duten egunkariak goian aipatutako euskarazko edukiak oso-osorik zabaldu beharko dituzte”(EHAA, 2008-12-26: 249zk.).

⁴⁴⁸ .- Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrientzako laguntzak izan ziren 2006-2011 urte bitartean, biak barne. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko erreferentzia-orrialdeentzako laguntzak izan ziren 2009an eta 2010ean.

⁴⁴⁹ .- Kopurua murriztu egin zen 2010eko eta 2011ko deialdietan: 8 orrialde edo gehiago.

⁴⁵⁰ .- Hemen jarritako aipamena 2009ko aginduari dagokio. Urte hartako laguntza-deialdia 2008. urtea bukatzeaz zegoela argitaratu zen, zehatzago esateko, abenduaren 26an. Horrek azaltzen du aipamenaren amaieran ageri den erreferentzia-data.

⁴⁵¹ .- 2010eko deialdian, 12 orrialde estandar eskatu beharrean, 16 eskatu zituzten.

Hortaz, erreferentzia-orrialdeen kasuan, ezarritako baldintzak nabarmen malguagoak dira Estatu mailan zabaltzen diren egunkarientzat. Eta euskararen esparru geografikoan zabaltzen direnen kasuan, ez da derrigorrezkotzat ezartzen hizkuntza gutxitua azalean, lehen orrialdean izatea.

5.1.3.3. DIRU-LAGUNTZAK ESKATZETIK KANPO GERATU DIRENAK

"Hedabideak" diru-laguntzaren onuradun izateko bete beharreko baldintzei eskaini zaion atalarekin amaitzeko, garrantzitsua da, modu laburrean bada ere, eskabideak aurkezterik izan ez duten hedabide inprimatuei erreparatzea.

1984an, deialditik kanpo utzitako bakarrak irakasleentzako bereziki prestaturik zeuden aldizkariak izan ziren. Geroztik, diru-laguntza eskatzerik ez dutenen zerrenda moldatzen eta luzatzen joan da. Aipatzeko modukoa da zenbait urtetan botaldia edo tirada izan zela diru-laguntzez baliatzeko aukerarik ez izateko irizpidea; esaterako, 1986ko deialdiak kanpoan utzi zituen 1.000 ale baino gutxiagoko argitalpenak; 1987koak, berriz, 1.500 aleko tirada baino txikiagokoak; eta 1988tik 1990era, biak barne, 1.200 ale baino gutxiagokoak geratu ziren laguntza-deialditik kanpo. Dohain banatutakoak ere diru-laguntzak eskatu ezin zituztenen artean izan dira urte batzuetan (1985etik 1989ra eta 1991n). Horiekin batera, deigarria eta azpimarratzeko modukoa da 1989 eta 1991ko deialdietan baztertuen zerrendan ageri zirela toki, udalerrri, eskualde zein lurralde mailako zabalkunde-esparrukoak⁴⁵².

Ikerketa honek helburutzat duen 2005–2013 denbora tartean, baldintzen atalarekin gertatu zen bezalatsu, ez da apenas aldaketarik izan diru-laguntza deialdira aurkezterik ez zutenen zerrendan. Hala, 2013koa adibidetzat hartuta, honelaxe dio:

"2.- Nolanahi ere, 8. artikuluan jarritako baldintzak⁴⁵³ betetzen ez dituzten hedabideak edo ezaugarri hauetakoren bat duten hedabideak ez dira diruz lagunduko:

- a) Euskadiko Administrazio orokorra osatzen duten entitateen hedabideak.

⁴⁵².- *Arrasate Press* 1988an kaleratu zuten; beraz, esandakoaren arabera, ez zuen 1989ko deialdian ezta 1991koan parte hartzerik izan. 1990eko deialdian, ordea, bai. Beste horrenbeste gertatu zitzairen 1991n martxan zeuden euskara hutsezko tokian tokiko aldizkariei.

⁴⁵³.- Arestian aztertu ditugun baldintza orokorrei eta espezifikoei buruz ari da.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

- b) Alderdi politikoek, hauteskundeetarako koalizioen eta sindikatuen hedabideak.
- c) Elkarrekin, fundazioek zein antzeko erakundeek beren bazkideentzat soil-soilik eginiko hedabideak.
- d) Glotodidaktika- eta psikopedagogia-aldizkariak; orobat bere edukiak hezkuntza arloa zuzenduak dituzten aldizkariak.
- e) Eskola-aldizkari, -irradi eta -telebistak.
- f) Kultur berripaperak, ikuskizun-gidak, denbora pasakoak eta antzekoak.
- g) Mota guztietako konfidentzialak, harpidetza bitartez nahiz kioskoan saldutakoak edota formatu elektronikoan zabalduak.
- h) Informazio orokorrekoak edota gai anitzeko informaziozkoak ez diren tokian tokiko aldizkariak.
- i) Diruz lagungarriak izan arren, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2013an xede berberarekin diruz lagundutako hedabideak”(EHAA, 2013-05-06: 85 zk.).

Zerrenda horretan daudenez gain, kanpoan gelditu dira bere kapital gehiena publikoa duten entitate pribatuen eskabideak eta fundazio-ondarea edota gobernu-edo zuzendaritza-organoetan partaidetza nagusiki publikoa duten entitateen eskabideak.

5.1.4. “HEDABIDEAK” DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAREN ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Diru-laguntzak ebazteko irizpideena da, inolako zalantzarik gabe, denboran zehar aldaketa gehien izan duen arloa. Kasu honetan ere, aurreko atalean aztertu diren baldintzekin gertatu bezala, 1984-2004 arteko bi hamarkadetan, eskariak baloratu eta diru-esleipenak egiteko erabili ziren irizpideak sektorearen bilakaerari lotuko zaizkio ezinbestean. Gero, 2005etik 2013ra, irizpideak egonkortzera joko dute.

5.1.4.1. IRIZPIDEAK ETENGABE ALDATUZ: 1984-2004

Deialdia euskarazko hutsezko paperezko hedabideentzako soil-soilik kaleratu zen urteetan (1984-1999), ohikoa zen esleipena burutzeko prozeduran kontuan hartu beharreko irizpideak goitik behera aldatzea agindu batetik bestera. 1984an, esaterako, lau irizpide hartu ziren aintzat: aldizkariaren zabalkunde-gunea, aldizkariaren izaera edota edukiaren arloa, aldizkariaren argitalpen-maiztasuna eta, azkenik, aldizkariaren kopurua urtean. Hurrengoan, 1985ekoan, beste irizpide batzuk ezarri zituzten, aurreko

urteko deialdian ageri zirenekin apenas zerikusirik zutenak. Horrela, 1985ekoan, aldizkariaren defizitariotasun-maila (kostu mekanikoen eta diru-sarreraren arteko kenketaren emaitza), orijinaltasun-maila⁴⁵⁴ eta aldizkariaren izaera edota edukiaren arloa⁴⁵⁵ bezalako parametroak ezarri zituen aginduak aldizkari bakoitzari eman beharreko diru-kopuru zehatza finkatzeko.

Aipatutako irizpide horiekin batera, hasierako garai haietan, pertsonal-kostuak (finkoak, ez finkoak eta kolaboratzaileenak), lan-etekina, produkzio-bolumena, defizit ponderatua eta antzeko beste hainbat kontzeptu formula matematikoetan balioztatuz ere ebatzi ziren deialdiak.

Deialdiak gauzatu ahala, kaleratutako produktuari loturiko irizpideak agertu ziren. Hau da, aldizkariaren forma- zein eduki-ezaugarriak erabili zituzten diru-laguntzen finkapenerako balorazio-faktore gisa: argitalpen-maiztasuna, DIN A4 formatudun orrialde-kopurua, zenbakiko tirada, aldizkari-mota, aldizkariaren edukia eta doakotasuna⁴⁵⁶. Horiekin batera, beste hainbat irizpide agertu ziren deialdietan, hala nola, erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako diru-laguntzak, langileen lan-egoera⁴⁵⁷, euskalkien erabilera edota tokian tokiko euskalkiaren egoera soziolinguistikoa.

1997ko deialditik aurrera, euskarazko aldizkako argitalpeneni eguneroko prentsa gehitu zitzaion diru-laguntzen onuradun moduan. Egoera horrek eragina izan zuen deialdian ezarritako irizpideei dagokienez. Hala, 1997-1999 hirurtekoan kaleratutako produktuen ezaugarriak, egoera ekonomikoa eta proiektuaren hainbat esparrutako estrategiak eta aurreikuspenak konbinatzen zituen irizpide-multzoa erabili

⁴⁵⁴ .- Aldizkariaren erredakzio-lana edota jatorriz sortutako informazio, gai eta lanak saritu nahi omen zituzten parametro honen bidez.

⁴⁵⁵ .- Aldizkariaren izaera ezberdinen garrantzia neurtu ahal izateko, lehentasun-indizeak erabiltzen zituzten. Adibidez, informazio orokorreko aldizkariak, haur eta gazteentzako aldizkariak eta kirol-aldizkariak zuten lehentasun-indize gorena (3); komikiak, literatur arlokoak, euskara lantzekoak eta gizarte-zientzietakoak maila bat beherago zeuden (2); eta bestelako lehentasun-indizea 1 zen. Horrekin, euskarazko aldizkarigintzan eduki eta gai aldetik zeuden hutsuneak balioztatu nahi zituzten.

⁴⁵⁶ .- 1992ko deialdian ageri da diru-laguntzaren finkapenerako kontuan hartuko den faktore moduan. Eta bitxia da, urte bete lehenago (1991) dohainekoak ziren argitalpenak deialditik kanpo utzi zituztelako; hau da, doakotasuna baztertua izateko arrazoi izatetik baloratua izateko arrazoi izatera igaro zen urte batetik bestera.

⁴⁵⁷ .- 1996ko diru-laguntza deialdian.

zuten balorazioa egiteko eta esleipenak ebazteko. Honakoa irizpideen zerrenda: proiektuaren bideragarritasun-plana, autofinantzaketa handitzeko ekimenak, harpidetzak gehitzeko egitarauak, inguruko produktu berriak, irakurle berriak irabazteko proposamenak, inbertsio berrietarako aurreikuspenak, autofinantzaketa-indizea, harpidetza zein kaleko salmenta bidezko sarrera propioak, argitalpenaren maiztasuna, orrialde-kopurua, grafikoen, argazkien zein koloreen erabilera, benetako defizita eta elkarlana eta sustapena bultzatzeko ekintzak.

2000. urtetik aurrera irratiek, telebistek eta Internet bidezko hedabideek ere sarbidea izango dute diru-laguntza deialdian. Ondorioz, eskatzaileei begira egindako berrikuntzak eragina izango du balorazio-irizpideetan, ezinbestekoa izango delako onuradun berrien berezko izaera eta ezaugarriei egokitutako irizpideak txertatzea. Oso deigarria da esaterako, 2000ko, 2002ko eta 2003ko deialdietan irratien eta telebisten kasuan eta irizpide berezi moduan, kontuan hartu zutela euskararen sustapen, garapen eta normalizazioan izan zezaketen eragina.

Euskara hutsezko argitalpenen esparruan, epealdi honetan (2000-2004), diru-laguntzak banatzeko irizpide nagusia hedabideen egoera ekonomikoari begirakoa izan zen, hedabidearen gastu-aurrekontuari lotutakoa hain zuzen. Horren arabera ezarri ziren jaso zitezkeen gutxieneko eta gehienezko kopuruak⁴⁵⁸. Behin hori finkatuta, gutxieneko diru-laguntza baino handiagoa jasotzeko, beste balorazio-irizpide batzuk aipatzen ziren orduko deialdietan. Eguneroko prentsaren kasuan, bideragarritasun-plana, autofinantzaketa handitzeko ekimenak, harpidetzak egiteko egitarauak,

⁴⁵⁸ .- 2000 urteko deialdian esaterako, ezartzen da 5 milioi arteko (30.050 euo) gastu-aurrekontua duten proiektuek gutxienez kostuaren %30 jasoko dutela diru-laguntza gisa, eta gehienez kostuaren %50. Bestalde, 5 milioitik 25 milioi arteko (30.050 eurotik 150.253 eurora) gastu-aurrekontua duten proiektuen kasuan, gutxienez kostuaren %25 eta gehienez kostuaren %30 jasoko dutela. Eta 25 milioitik gorako (150.253 euro) gastu-aurrekontua dutenek, gutxienez kostuaren %20 jasoko dutela diru-laguntza gisa eta gehienez kostuaren %30. Ondorengo deialdietan, 2001 eta 2002 urtekoetan kopuruak berdinak izango dira, baina 2002koan pezetak erabili beharrean kantitateak eurotan agertuko zaizkigu. Eta 2003 eta 2004ko aginduetan ez da gutxienez jaso daitekeen diru kopururik aipatuko. Hala, bi deialdi horietako testuan irakurri daiteke 30.000 euro arteko gastu-aurrekontua duten proiektuek gehienez kostuaren %50 jasoko dutela diru-laguntza gisa; 30.000 eurotik 150.000 euro arteko gastu-aurrekontua dutenek, gehienez kostuaren %40 jasoko dutela, eta 150.000 eurotik gorakoek gehienez kostuaren %30.

egunkariaren inguruko produktu berriak, irakurle berriak irabazteko proposamenak eta inbertsio berrietarako aurreikuspenak erabiliko dira balorazio-irizpide moduan. Aldizkarien kasuan, aurretik aipatutako horiez gain, argitalpenaren maiztasuna, orrialde-kopurua, orrialde-kostua eta grafikoaren, argazkien zein koloreen erabilpena.

5.1.4.2. IRIZPIDEAK EGONKORTUZ ETA SINPLIFIKATUZ: 2005-2013

Ikerketa honen objektu den 2005-2013 epealdiko deialdietan, pixkanaka bada ere, ebazteko irizpideen berrikuspena, sinplifikazioa, finkatzea eta egonkortzea gertatzen dela esan daiteke. Aipatu egonkortasuna, esan bezala, pixkanaka gauzatuko da. Izan ere, epealdiko lehen lau urteetan (2005-2008) oraindik irizpide- eta puntuazio-dantza izango da; 2009tik aurrerakoetan, berriz, irizpide eta puntuazio berberak erabiliko dira urtero diru-laguntzen esleipenak egiteko. Hori dela eta, bi azpi-ataletan egingo da ikertzeko hautatu den epealdiaren azterketa.

5.1.4.2.1. BALORAZIO-IRIZPIDEEN ETA PUNTUEN DANTZA: 2005-2008

Euskarazko hedabide inprimatuei erreparatu ezker, lehen urtean, 2005ean, aginduak ezarri zituen azpimultzo guztien kasuan⁴⁵⁹, ondoko esaldiarekin hasten zen esleipen-irizpideei buruzko artikulua: "(...) azpimultzoari dagokion diru-kopuruaren erdia azpimultzo horretako hedabideek egindako diru-eskabideen arabera banatuko da" (EHAA, 2005-06-03: 104 zk.). Gainontzeko erdia, berriz, ondoko taulak jasotzen dituen balorazio-irizpideen arabera banatu zuten:

⁴⁵⁹ .- 2005eko deialdiak bi multzo ezarri zituen inprimatuei dagokienez. Batetik, euskara hutsezko eguneroko prentsa (A multzoa); eta bestetik, euskara hutsez zabaltzen ziren aldizkariak (B multzoa). Lehenengo multzoan berriz, bi azpimultzo kontsideratu zituzten: euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen ziren euskara hutsezko egunkariak (A1 azpimultzoa) eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen ziren euskara hutsezko egunkariak (A2 azpimultzoa). B multzoari dagokionez, bost azpimultzo ezarri zituzten: euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen ziren euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkariak (B1 azpimultzoa); Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen ziren euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkariak (B2 azpimultzoa); euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen ziren euskara hutsezko aldizkari espezializatuak (pentsamendua, zientzia, musika, natura... B3 azpimultzoa); haurrei zuzendutako euskara hutsezko aldizkariak (B4 azpimultzoa); eta nerabeei eta gazteei zuzenduriko euskara hutsezko aldizkariak (B5 azpimultzoa).

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

69. taula. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2005.

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Finantzaketa-maila propioa	gehienik ere 50 puntu
Inprimatutako ale-kopuruaren eta saldutako/zabaldutako ale-kopuruaren arteko erlazioa	gehienik ere 10 puntu
Orrialde-kopurua eta orrialde-kostua	gehienik ere 15 puntu
Ustezko ⁴⁶⁰ irakurle-kopurua	gehienik ere 10 puntu
Zabaltzeko era ⁴⁶¹	gehienik ere 10 puntu
Irakurle berriak irabazteko proposamenak ⁴⁶²	gehienik ere 5 puntu

Iturria: 2005 urteko diru-laguntza deialdiaren agindua. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Agerikoa denez, balorazio-unean lortu zitekeen goreneko markatik (100 puntu) pisu kuantitatibo handiena, erdia izateraino, hedabidearen finantzaketa-maila propioari lotuta dago. Finantzaketa-maila propio handiena zuen hedabideari gehienezko puntuazioa ematen zitzaion eta gainontzekoei, proportzionalki zegokiena.

Taulan jasotako irizpide bakoitzari zegokion puntuazioaren zehaztapena, deialdira aurkeztu zen hedabide multzo bakoitzerako berariaz prestatutako taula batean jasotzen zen.

2006an bada berrikuntzarik. Hasteko, 2006ko deialdian azpimultzo berri bat sartu zuten diru-eskatzaileen artean: nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarrien azpimultzoa, hain zuzen ere⁴⁶³.

⁴⁶⁰ .- "Ustezko" dio ez dagoelako urte hartan laguntzak eskatu zituzten paperezko argitalpen guztien irakurle-kopuru errealak jakiterik, gehienek kasuan ez zirelako neurtzen.

⁴⁶¹ .- Zabaltzeko erari dagokionez ondoko aukerak hartu zituzten kontuan: ordaindua (kioskoa, liburudendak edo harpidetza), doakoa (toki puntaletan edota postontziak) eta mistoa (doakoa + etxez etxe harpideduna). Zabalkunde ordaindua zeukanari ematen zioten puntu gehien (10 puntu) eta doakoari gutxi (1).

⁴⁶² .- Atal honetan denetariko proposamenak/ekimenak ageri dira: telemarketina, harpidetza-kanpainak, euskaltegietan harpidetza-txartelak banatzea, jendea biltzen den ekintza puntaletan parte hartzea (Korrika, Kilometroak, Zarauzko triatloia, Azpeitiko mendi-martxa...), saltzen ez diren aleak ikastetxeetan oparitu edo merkeago eskaini, euskara-zerbitzuekin harpidetzak adostu... Horiei guztiei puntuak emateko orduan, berriz, hiru kontu baloratzen zituzten: aurkeztutako proposamenen/ekimenen zehaztasun maila (2 puntu), promoziorako produktuak (2 puntu) eta ekintza puntualak (puntu bat).

⁴⁶³ .- 2006ko deialdian, aurreko urteko multzo eta azpimultzoen banaketa ia berbera errepikatzen da baina aldaketa batekin: 2005eko deialdian ezarritako B4 eta B5 azpimultzoak bakar batean biltzen dira eta nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarriekin osatuko da 2006an B5 azpimultzoa (EHAA, 2006-05-29: 100 zk.).

Bestalde, deialdian zehaztu zen inprimatuen azpimultzo bakoitzari zegokion diru-kopuruaren erdia azpimultzo horretako hedabideek aurkeztutako gastu-aurrekontu araztuaren arabera banatuko zutela; baina gero ez zen halakorik egin. Esleipenak egiteko osatu zituzten taulek erakusten dute 2006an dirua 2005eko prozedura berbera jarraituz esleitu zela; hau da, erdia hedabideek egindako diru-eskabideen arabera. Eta diru-kopuruaren beste erdia, ondoko taulan bildutako irizpide eta puntuazioak baliatuta banatu zuten azpimultzo guztientzat, nagusiki gaztelania darabilten euskara hutsezko gehigarrientzat izan ezik:

70. taula. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2006.

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Finantzaketa-maila propioa	35 puntu ⁴⁶⁴
Zabalkundea	25 puntu
Irakurleak	20 puntu
Produktua	10 puntu

Iturria: 2006 urteko diru-laguntza deialdiaren agindua. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Finantzaketa-maila propioari dagokionez, 2006an aurreko deialdiaren prozedura bera jarraitu zuten; hau da, finantzaketa-maila propio handiena zuen hedabideak hartzen zuen gehienezko puntuazioa, eta gainontzekoek, proportzionalki zegokiarena.

Zabalkundearen arloan hiru konturi eman zizkioten puntuak: inprimatutako ale-kopuruaren eta saldutako/zabaldutakoaren arteko erlazioari (10 puntu), zabaltzeko erari (10 puntu) eta hedadura geografikoari (5 puntu).

Irakurleen arloari egokitutako 20 puntuak banatzeko, ondokoak baloratu zituzten: ustezko irakurle-kopurua (10 puntu) eta irakurle berriak irabazteko proposamenak (10 puntu). Bi horiekin batera, irakurle-kopuruari eusteko ekimenak ere ageri ziren irizpide moduan; baina horri ez zioten punturik eman.

⁴⁶⁴ .- 2006ko deialdian ez da agertzen 2005eko aginduko testuan puntuazioei buruz aritzeko erabili zen "gehienez ere" formula. 2006ko aginduan, balorazioa egiteko kontsideratutako irizpide bakoitzari esleitutako puntuak ageri dira, eta besterik ez. Ulertu daiteke, zehaztutako puntu horiek balorazioa egiteko orduan gehienez ere eman daitezkeenak direla. Beste horrenbeste gertatuko da 2007 eta 2008ko deialdietan. Eta 2009tik 2013 bitarteko deialdietan berriro joko da "gehienik ere" formula.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Azkenik, produktuari egokitutako 20 puntuak banatzeko, hiru aspektu baloratzen zituzten: orrialde-kopurua (7 puntu), orrialde-kostua (8 puntu) eta berrikuntzak (5 puntu).

Ikusten denez, funtsean aurreko urtean, 2005ean, erabilitako irizpide berdintsuak dira, baina beste era batean aurkeztuta. Puntuazioei dagokienez, finantzaketa-maila propioak pisua galtzen du eta produktuari lotutakoak, ordea, irabazi.

Nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarrien kasuan, ondokoak izan ziren balorazio-irizpideak eta horiei egokitutako puntuak:

71. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarrien balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2006.

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Kalitatea	30 puntu
Zabalkundea	50 puntu
Produktua	20 puntu

Iturria: 2006 urteko diru-laguntza deialdiaren agindua. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Kalitatea baloratzeko kaleratutako gehigarrien diseinua eta kazetaritza-trataera hartu zituzten kontuan; zabalkundea baloratzeko, ale-kopurua⁴⁶⁵ eta hedapen-eremu geografikoa.

Puntuen banaketari erreparatuta, deigarria egiten da, lehen aldiz kontsideratu zutela “kalitatea” balorazio-irizpide gisa. Kalitatea, euskara hutsezko gehigarrientzat ez ezik, gainontzeko argitalpen guztiei egokituko zaien irizpidea ere bilakatuko da 2006tik aurrerako deialdietan; denborarekin, puntutan indarra hartuz joango den irizpidea da, gainera.

⁴⁶⁵.- Ale-kopurua zehazteko, euskara hutsezko gehigarria banatzen zuen egunkariak banaketa egunean zuen zabalkundea kontuan hartzen zen.

2006ko deialdian, aurrekoan eta ondoren egingo diren guztietan bezala, irizpide bakoitzari zegokion puntuazioaren zehaztapena, deialdira aurkeztu zen hedabide-multzo bakoitzerako berariaz prestatutako taula batean jaso zen.

Hurrengo bi urteetan, 2007an eta 2008an, goitik beherako astindua ez bada ere, aldaketa nabarmena izan zen hedabideen balorazio-prozeduran. 2007tik aurrera arazketa-operazioari ekingo zaio. Deialdian bertan jasotzen da horren nondik norakoa:

"Arazketa egiteko, hedabideari dagozkion faktore guztiak (langileak, produkzioari loturikoak, ezaugarriak...) prezio estandarrez osatutako berariazko txostenarekin erkatuko dira. Erkaketa horretan, aitortutako gastu-aurrekontua araztutako gastu-aurrekontutik gora zenbat eta gehiago urrundu, orduan eta puntu gutxiago izango ditu egitasmoak. Prezio estandarrak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzan eskuratu ahal izango dira" (EHAA, 2007-03-05: 45 zk.).

Hortik abiatuta, honakoak izan ziren 2007 eta 2008ko deialdietan erabilitako irizpideak eta bakoitzari emandako garrantzia puntutan neurtuta:

72. taula. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2007 eta 2008.

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Hedabideak aitortutako gastu-aurrekontuaren eta araztutako gastu aurrekontuaren arteko aldea	30 puntu
Finantzaketa-maila propioa	20 puntu
Zabalkundea	20 puntu
Produktua	25 puntu
Ordainpekoa izatea	5 puntu

Iturria: 2007 eta 2008 urteetako diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Hedabide inprimatu bakoitzak laguntza-eskabidean aitortzen zuen gastu-aurrekontuari aplikatzen zioten arazketa-operazioa. Bestalde, zabalkundea baloratzeko inprimatutako ale-kopuruaren eta saldutako/zabaldutakoaren arteko erlazioa (10 puntu) eta bestetik, hedadura geografikoa (10 puntu) erabili zituzten. Produktuari

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

egokitutako 25 puntuak banatzeko, berriz, maiztasuna (5 puntu), orrialde-kopurua (5 puntu), ustezko irakurleak (5 puntu) eta kalitatea⁴⁶⁶ (10 puntu) hartu zituzten kontuan. Azkenik, ordainpekoa izateari (salmenta, harpidetza ordaindua) 5 puntu eman zizkioten.

Hortaz, 2007an eta 2008an, berriro ere pisua irabazten du hedabidearen egoera ekonomikoari zuzenean lotutako irizpideak eta puntuazioak. Baina bi urte horietan, 2005ean ez bezala, diru-laguntzak esleitzen dituen erakundeak bi informazio-iturri baliatu zituen kalkulua egiteko: batetik, finantzaketa-maila propioa, eta bestetik, hedabideak aurkeztutako gastu-aurrekontuaren eta araztutako gastu-aurrekontuaren arteko aldea. Hots, lehen aldiz ekingo zaio arazketa-operazioari. Eta horrekin batera, bada azpimarratzekoa den beste kontu bat: 2005 eta 2006ko deialdietan bezala saritu egingo da hedabidea ordainpekoa izatea baina puntu gutxiagorekin, 2005 eta 2006 deialdietako 10 puntutik 2007 eta 2008ko 5 puntura.

Nagusiki gaztelania zerabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarriek ere izan zuten laguntzak eskatzerik 2007an eta 2008an. Horien kasuan, 2006ko deialdian erabilitako hiru irizpideei laugarren bat gehitu zitzaion, hedabidearen gastu-aurrekontuari loturik zegoena. Ondokoak izan ziren multzo honetako eskatzaileei egokitu zitzaizkien irizpideak eta puntuak:

73. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarrien balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2007 eta 2008.

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Hedabideak aitortutako gastu-aurrekontuaren eta araztutako gastu-aurrekontuaren arteko aldea ⁴⁶⁷	30 puntu
Kalitatea	20 puntu
Zabalkundea	40 puntu
Orrialde-kopurua	10 puntu

Iturria: 2007 eta 2008 urteetako diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

⁴⁶⁶ .- Kalitatea baloratzeko, besteak beste, ondokoei erreparatzen zioten: itxura, erakargarritasuna, originaltasuna, kolaboratzaile-ugaritasuna...

⁴⁶⁷ .- Kalkulua egiteko prozedura euskara hutsezko idatzizkoekin (eguneroko prentsa eta aldizkariak) erabilitako berbera da.

Arestiko taulak agerian uzten du, nagusiki gaztelania zerabilten euskara hutsezko gehigarrien kasuan ere, inprimatuen gainontzeko azpimultzoekin azaldu bezala, hedabidearen ekonomiarekin zerikusia duten zenbakiak pisu handia izan zutela balorazio-prozeduran. Gehigarrien kasuan eskuratu zitekeen puntuazio osoaren herena, hain zuzen. Horrekin batera, garrantzi handia eman zitzaion zabalkundeari.

5.1.4.2.2. ESLEIPEN-IRIZPIDE ETA PUNTU BERBERAK URTERO: 2009-2013

2009an gauzatuko da aurrera begira erabiliko diren balorazio-irizpideen behin betiko egonkortzea. Urte hartako deialdian zehaztutako irizpideak ez ziren gehiegi aldatu 2008an ezarritakoekin alderatuta; hala ere, berrikuntza moduan aipatu daiteke aginduan lehen aldiz azaldu zela balorazio-batzordeak esleipen-prozedura burutzeko jarraituko zituen urratsak. Bi esparrutako urratsak dira: batetik, adierazitako aurrekontuari eta eskatutako diru-laguntzari dagokion esparrukoak, eta bestetik, emandako puntuen arlokoak.

1.- Adierazitako aurrekontuari eta eskatutako diru-laguntzari dagokienean: lehen urrats moduan, balorazio-batzordeak eskabidean adierazitako gastu-aurrekontua eta eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa hartzen ditu abiapuntutzat. Ondoren, konprobazio-zereginari ekiten zaio; hau da, balorazio-batzordeak ikusi behar du laguntza-deialdira aurkeztutako hedabidearen gauzatzeari zuzenean eta bakarrik egozgarri zaizkion gastuak baino ez daudela jasota adierazitako gastu-aurrekontuan. Zeregin hori burutzeko, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak finkatutako kostu estandarrak erabiltzen ditu, eta horiek entitate eskatzaileen eskueran egongo dira. Behin kontraste-lana eginda, gerta daiteke laguntzaren eskatzaileak adierazitako gastu-aurrekontuari alaketaren bat egin behar izatea. Hala gertatzen den kasuetan, beste horrenbesteko aldaketa egingo zaie eskatzaileak adierazitako sarrera-aurrekontuari eta eskatutako diru-laguntzari, betiere gastu-aurrekontua aldatu den proportzio berean. Horrelakoetan, diru-laguntza kalkulatzeko orduan, onartutako gastu-aurrekontua, onartutako laguntza-eskabidea eta eskabidean zehaztutako finantzaketa-maila propioa hartuko dira erreferentzia-oinarritzat.

Era berean, gerta daiteke aipaturiko kontraste-lanaren ondorioz onartutako gastu-aurrekontua entitate eskatzaileak adierazitakoa baino handiagoa izatea. Horrelakoetan, adierazitako gastu-aurrekontua hartuko da erreferentzia-oinarriztat, eskatutako diru-laguntzarekin eta eskabidean zehaztutako finantzaketa-maila propioarekin batera, diru-laguntza kalkulatzeko.

2.- Puntuei dagokienean: aginduetan adierazten da puntuek onartutako gastu-aurrekontuaren estalpen-indizea zehaztuko dutela⁴⁶⁸. Horrekin batera zehazten da kalkulaturako diru-laguntzen baturak diru-baliabideen muga gainditzen duenean, kasuan kasu esleitu beharreko diru-kopurua banaketa-sistema proportzionalaren arabera finkatuko dela.

Arestian esandakoetatik abiatuta, eskatzaile-multzo bakoitzaren balorazioa egiteko erabiliko diren puntuak zehaztea izango da hurrengo urratsa. Arlo horren azterketa, laguntzen onuradun izan daitezkeen hedabide-multzoak aintzat hartuta egingo da.

1.- EUSKARA HUTSEZKO EGUNEROKO PRENTSA INPRIMATUAREN MULTZOA.

2009tik aurrera, hiru irizpidetan oinarrituta egiten da balorazioa, eta irizpide bakoitzari puntuazio osoaren herena eskaintzen zaio.

74. taula. Euskara hutsezko prentsa inprimatuaren balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2009-2013.

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Finantzaketa-maila propioa	gehienik ere 35 puntu
Zabalkundea	gehienik ere 30 puntu.
Produktua	gehienik ere 35 puntu

Iturria: 2009-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

⁴⁶⁸ .- 2009 urtetik aurrerako deialdietan dio “Estalpen-indizea balorazio-batzordeak zehaztuko du, betiere puntu-tarteak finkatu eta gero” (EHAA, 2010-06-04: 105 zk.). Formula bera errepikatzen da deialdi guztietan, 2012 eta 2013koan, berriz, zerbait gehiago gaineratzen da: “Horretarako, honako gutxieneko eta gehieneko mugak kontuan izango zituzten: 35 puntu edo 35 puntu baino gutxiago zuen hedabideari onartutako gastu-aurrekontuaren % 10eko estalpen-indizea legokioke, eta 90 puntu edo gehiago zuenari berriz, gastu-aurrekontuaren %60koa. Proportzionaltasunaren irizpidea erabiliko da gainontzekoak kalkulatzeko” (EHAA, 2011-12-29: 246 zk.).

Arestiko taulan balorazio-irizpide eta puntuazio orokorrak daude. Baina gero irizpide bakoitza banakatu egingo da; hau da, finantzaketa-maila propioari edo produktuari dagozkion 35 puntuak eta zabalkundeari eskainitako 30 puntuak banatzeko orduan, hainbat azpi-atal edo azpi-irizpide erabiliko dira. Horiek guztiak, banaka-banaka aztertzeari ekingo zaio ondoko lerroetan.

Finantzaketa-maila propioari erreparatu ezker, goiko taulan ageri diren 35 puntuak honelaxe banatzen dira:

75. taula. Euskara hutsezko prentsa inprimatuaren finantzaketa-maila propioari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013.

FINANTZAKETA-MAILA PROPIOA: 35 puntu	PUNTUAZIOA
% 75eko edo gehiagokoa	35 puntu
% 35 - % 75 artekoa	modu proportzionalen
% 35ekoa	15 puntu

Iturria: 2009-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Zabalkundeari eskainitako 30 puntuei dagokienez, horien banakatzea egiteko hiru azpi-atal kontsideratu dira: aurreko urtearekiko tirada (8 puntu), hedadura geografikoa (10 puntu) eta gehien baloratzen dena, ordainpekoa izatea (12 puntu).

76. taula. Euskara hutsezko prentsa inprimatuaren zabalkundeari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013.

ZABALKUNDEA : 30 puntu	
Tirada aurreko urtearekiko: 8 puntu	<ul style="list-style-type: none"> - Aurreko urtekoa baino handiagoa bada: 8 puntu - Antzekoa bada: 4 puntu - Txikiagoa bada: 2 puntu
Hedadura geografikoa: 10 puntu	<ul style="list-style-type: none"> - Nazio mailakoa: 10 - Lurraldea: 8 - Eskualdea edo hiriburua: 6 - Udalerri bat baino gehiago: 4 - Udalerri bakarra: 2
Ordainpekoa izatea: 12 puntu	<ul style="list-style-type: none"> - Salmentaren araberako erlazioa: 7 <ul style="list-style-type: none"> • saldutakoa inprimatutakoaren %70 edo handiagoa bada: 7 • %69-%50 artekoa bada: 5 • %49 edo txikiagoa bada: 2
	<ul style="list-style-type: none"> - Zabaltzeko era: 5 <ul style="list-style-type: none"> • harpidetza ordaindua eta saltoki bidezkoa: 5 • harpidetza ordaindua bakarrik: 2 • zabalkunde masiboa: 1

Iturria: 2009-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Taulak agerian uzten du aurreko urtearekiko botaldia hobetzea, nazio mailakoa izatea, saldutako aleak inprimatutakoen %70etik gora egotea eta irakurlearengana harpidetza ordainduaren bidez eta saltoki bidez iristea direla puntu gehien eskuratzeko formula. Ezaugarri horiek saritu egiten dira puntuatzeko orduan.

Azkenik, euskara hutseko prentsa inprimatuaren multzoko eskatzaileen balorazioak egiteko produktuari erreparatzen zaio. Horri 35 puntu eskainiko zaizkio, eta horien banakatzea egiteko, maiztasuna, orrialde-kopurua, irakurleekiko proposamenak eta itxura eta edukia hartzen dira kontuan. Ondoko taulak erakusten ditu arlo bakoitzeko xehetasunak.

77. taula. Euskara hutsezko prentsa inprimatuaren produktuari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013.

PRODUKTUA : 35 puntu	
Maiztasuna: 5 puntu	<ul style="list-style-type: none"> - Astean 7: 5 puntu - Astean 6: 4 puntu - Astean 5: 3 puntu - Astean 4: 2 puntu
Orrialde-kopurua: 5 puntu	<ul style="list-style-type: none"> - Esparru geografiko osokoa: <ul style="list-style-type: none"> • 57 orrialde edo gehiago: 5 puntu • 41 - 56 orrialde artekoa: 3 puntu • 28 - 40 orrialde artekoa: 2 puntu - Udallerri edo eskualdekoa: <ul style="list-style-type: none"> • 25 orrialde edo gehiago: 5 puntu • 9 - 24 orrialde artekoa: 3 puntu • 4 - 8 orrialde artekoa: 2 puntu
Irakurleekiko proposamenak: 5 puntu	<ul style="list-style-type: none"> - Banakako zerbitzuak eta bestelako produktuak eskaintzea: 2 - Ohiko ekintza jakinak: masiboak eta dinamikoak: 2 puntu - Ohiko ekintza jakinak: masiboak eta pasiboak: 1 - Zehaztasunik ematen ez bada: 0
Itxura eta edukia: 20 puntu	<ul style="list-style-type: none"> - Koloreen trataera: gehienez 4, gutxienez 1 - Diseinua eta maketazioa: 4/1 - Kolaboratzaileen sarea: 4/1 - Euskarria: papera, inpresioa... 4/1 - Edukien berriztapena: 4/1

Iturria: 2009-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Produktuaren itxura eta edukia lehenesten dira balorazioak egiterakoan, puntu guztien erdia baino gehiago (%57) horri eskaintzen zaiolako. Beste era batera esanda,

produktuaren kalitatea saritzen da. Ondoren geratzen dira irakurleekiko proposamenak, orrialde-kopurua eta maiztasuna.

2.- EUSKARA HUTSEZKO ALDIZKARI INPRIMATUEN MULTZOA.

2009tik aurrera, aldizkariei egokitutako irizpide orokorrak eta horietako bakoitzari emandako puntuak, eguneroko prentsa inprimatuaren multzoarekin erabilitako berberak, kopia hutsa izango dira.

78. taula. Euskara hutsezko aldizkarien balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2009-2013.

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Finantzaketa-maila propioa	gehienik ere 35 puntu
Zabalkundea	gehienik ere 30 puntu
Produktua	gehienik ere 35 puntu

Iturria: 2009-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Euskara hutsezko aldizkari inprimatuen kasuan finantzaketa-maila propioari dagozkion 35 puntuak banatzeko prentsa inprimatuarekin egin bezala jokatu da.

79. taula. Euskara hutsezko aldizkarien finantzaketa-maila propioari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013.

FINANTZAKETA-MAILA PROPIOA: 35 puntu	PUNTUAZIOA
% 75eko edo gehiagokoa	35 puntu
% 35 - % 75 artekoa	modu proportzionalen
% 35ekoa	15 puntu

Iturria: 2009-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Zabalkundea eta produktua banakatzeari ekingo diote ondoren. Kasu honetan, gainera, bi azpimultzo ditugu:

a.- B1 azpi-multzoa: euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak. Ondoko taulak erakusten du azpimultzo honetan nola banatzen ziren zabalkundeari egokitutako 30 puntuak:

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

80. taula. Euskara hutsezko informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarien zabalkundeari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013.

ZABALKUNDEA : 30 puntu	
Tirada aurreko urtearekiko: 15 puntu	- Aurreko urtekoa baino handiagoa bada: 15 puntu - Antzekoa bada: 10 puntu - Txikiagoa bada: 5 puntu
Ordainpekoa izatea: 15 puntu	- Salmentaren araberako erlazioa: 10 puntu <ul style="list-style-type: none"> • saldutakoa inprimatutakoaren %70 edo handiagoa bada: 10 • %69-%50 artekoa bada: 7 • %49 edo txikiagoa bada: 5
	- Zabaltzeko era: 5 puntu <ul style="list-style-type: none"> • harpidetza ordaindua eta saltoki bidezkoa: 5 • harpidetza ordaindua bakarrik: 3 • zabalkunde masiboa: 1

Iturria: 2009-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Multzo honetako hedabideekin ere, egunerokoekin egindakoaren oso-oso antzera jokatzen da; baina ez da hedadura geografikoa baloratzen, denak zabaltzen direlako euskararen esparru geografiko osoan.

Eta produktuaren atalari dagozkion 35 puntuak honelaxe banakatzen dira:

81. taula. Euskara hutsezko informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarien produktuari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013.

PRODUKTUA : 35 puntu	
Maiztasuna: 5 puntu	<ul style="list-style-type: none"> - Orokorrak: 44tik gora 5 puntu, 44tik behera 3puntu - Espezifikoak: <ul style="list-style-type: none"> • 44tik gora: 5 puntu • 13 - 44: 3 puntu • 5 - 12: 2 puntu • 4: puntu bat
Orrialde-kopurua: 5 puntu	<ul style="list-style-type: none"> - Orokorrak: <ul style="list-style-type: none"> • 40 orrialde edo gehiago: 5 puntu • 28 - 39 orrialde: 3 puntu • 20 - 27 orrialde: 2 puntu - Espezifikoak: <ul style="list-style-type: none"> • 56 orrialde edo gehiago: 5 puntu • 44 - 55 orrialde: 3 puntu • 32 - 43 orrialde: 2 puntu
Irakurleekiko proposamenak: 5 puntu	<ul style="list-style-type: none"> - Banakako zerbitzuak eta bestelako produktuak eskaintzea: 2 - Ohiko ekintza jakinak: masiboak eta dinamikoak: 2 puntu - Ohiko ekintza jakinak: masiboak eta pasiboak: 1 - Zehaztasunik ematen ez bada: 0
Itxura eta edukia: 20 puntu	<ul style="list-style-type: none"> - Koloreen trataera: gehienez 4, gutxienez 1 - Diseinua eta maketazioa: 4/1 - Kolaboratzaileen sarea: 4/1 - Euskarria: papera, inpresioa... 4/1 - Edukien berriztapena: 4/1

Iturria: 2009-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Taulan bildutako informazioaren arabera, egunerokoekin erabiltzen diren lau adierazleak eta bakoitzari esleitutako puntu berberak erabiltzen dira azpimultzo honetako aldizkarietan. Gainera, biren kasuan (irakurleekiko proposamenak eta itxura eta edukia) puntuen banakatzea eguneroko prentsarekin egindakoaren kopia hutsa da. Gainontzeko adierazle bietan, maiztasuna eta orrialde-kopurua, logikoa denez, ezberdintasunak ditugu egunerokoekin alderatuta. Informazio orokorreko aldizkarietara dagokienez, astero kaleratzea eta 40 orrialdetik gora izatea sarituko da; espezializatuei dagokienez, berriz, asteroko maiztasuna eta 56 orrialde edo gehiago izatea sarituko da puntuak emateko orduan.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

b.- B2 azpi-multzoa: udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak. Tokian tokiko argitalpenak dira. Horietan zabalkundeari dagozkio 30 puntuak honelaxe banakatzen dira 2009tik 2013ra bitartean:

82. taula. Euskara hutsezko tokian tokiko aldizkarien zabalkundeari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013.

ZABALKUNDEA : 30 puntu	
Tirada aurreko urtearekiko: 5 puntu	- Aurreko urtekoa baino handiagoa bada: 5 puntu - Antzekoa bada: 3 puntu - Txikiagoa bada: puntu bat
Irakurle- kopurua: 5 puntu	-Euskaldunen indizea: • 40.000 edo hortik gora: 5 puntu • 25.000 - 39.999: 4 puntu • 15.000 - 24.999: 3 puntu • 5.000 - 14.999: 2 puntu • 5.000tik behera: puntu bat
Hedadura geografikoa: 10 puntu	- Lurraldea, eskualdea edo hiriburua: 10 puntu - Udalerrri bat baino gehiago: 5 - Udalerrri bakarra: 2
Ordainpekoa izatea: 10 puntu	- Salmentaren araberako erlazioa: 5 puntu • saldutakoa inprimatutakoaren %50 edo handiagoa bada: 5 • %50 baino txikiagoa bada: 2
	- Zabaltzeko era: 5 puntu • harpidetza ordaindua eta saltoki bidezkoa: 5 • harpidetza ordaindua bakarrik: 3 • zabalkunde masiboa: 1

Iturria: 2009-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Azpi-multzo honetan bada, orain arte ikusitako guztiekin alderatu ezker, azpimarratzekoa den kontu bat: lehenbizi ageri da irakurleen kopurua balorazio-adierazle moduan. Bost puntu egokitzen zaizkio eta horien banakatzea egiteko argitalpenak duen zabalkunde-esparruaren euskaldunen indizea hartzen da kontuan; hau da, tokian tokiko argitalpena zabaltzen den esparru geografikoan zenbat euskaldun dauden. Horrekin batera, taulan bildutako datuen errebasoak agerian uzten

du lurralde, eskualde edo hiriburukoa izatea, ordainpekoa izatea eta harpidetza ordaindu bidez edo saltoki bidez zabaltzea saritzen direla.

Azkenik, multzo honetako argitalpenen produktuari egokitutako 35 puntuen banakatzea erakusten du ondoko taulak:

83. taula. Euskara hutsezko tokian tokiko aldizkarien produktuari eskainitako puntuazioaren banakatzea, 2009-2013.

PRODUKTUA : 35 puntu	
Maiztasuna: 5 puntu	- 44tik gora: 5 puntu - 21 - 44: 3 puntu - 11 - 20: 2 puntu
Orrialde-kopurua: 5 puntu	- 45 orrialde edo gehiago: 5 puntu - 33 - 44 orrialde: 3 puntu - 21 - 32 orrialde: 2 puntu - 16 - 20 orrialde: puntu bat
Irakurleekiko proposamenak: 5 puntu	- Banakako zerbitzuak eta bestelako produktuak eskaintzea: 2 - Ohiko ekintza jakinak: masiboak eta dinamikoak: 2 puntu - Ohiko ekintza jakinak: masiboak eta pasiboak: 1 - Zehaztasunik ematen ez bada: 0
Itxura eta edukia: 20 puntu	- Koloreen trataera: gehienez 4, gutxienez 1 - Diseinua eta maketazioa: 4/1 - Kolaboratzaileen sarea: 4/1 - Euskarria: papera, inpresioa... 4/1 - Edukien berriztapena: 4/1

Iturria: 2009-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Ez dago apenas alderik informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarien atalean jarritako taularekin. Azpimultzo honetan ere itxura eta edukiari ematen zaio puntu gehien (20 guztira), eta horrekin batera, asterokoa izatea eta 45 orrialdetik gorakoa izatea saritzen dira.

Irizpideen atala zarratzeko, 2009-2013 bitarteko zenbait urtetan diru publikoz lagundutako beste multzo bati erreparatu behar zaio: nagusiki gaztelania darabilten egunkariek prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak eta erreferentzia-orrialdeak.

1.- EUSKARA HUTSEZKO GEHIGARRIAK.

2006tik 2011ra bitarteko deialdietan, urte biak barne, diru-partida berezituak izan zituzten. Multzo horretan, entitate eskatzailea eta onuraduna gehigarria zabaltzen duen egunkariaren edizio-enpresa izan da. Baloratzeko erabili diren adierazle eta bakoitzari egokitutako puntuak biltzen ditu ondoko taulak:

84. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrien balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2006-2011.

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Finantzaketa-maila propioa	gehienik ere 25 puntu
Zabalkundea: ale-kopurua eta hedapen-eremu geografikoa	gehienik ere 30 puntu
Produktua: diseinua, kazetaritza-trataera eta lankide-sarea	gehienik ere 25 puntu
Orrialde-kopurua	gehienik ere 10 puntu
Karaktere-kopurua	gehienik ere 10 puntu

Iturria: 2006-2011 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Euskara hutsezko gehigarrietan eguneroko prentsaren eta euskara hutsezko aldizkarien zein tokikoen multzoetan erabilitako irizpide ia berberak aplikatuko dira. Puntuei dagokienez ere, ez da alde handirik nabarmentzen. Berrikuntza moduan aipatu orrialde-kopurua irizpide berezitu gisa kontsideratzen dela eta orain arte agertu ez den irizpide berria dagoela: karaktere-kopurua. Bestalde, aintzat hartutako irizpide bakoitzari puntuak emateko orduan, ondoko banakatzeari ekingo zaio:

85. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutsezko gehigarrien balorazioa egiteko irizpideen banakatzea, 2006-2011.

Finantzaketa-maila: 25 puntu	- %75 edo gorago: 25 puntu - %35 - % 75: proportzionala - %35: 15 puntu
Zabalkundea: 30 puntu	- Ale-kopurua: 15 puntu <ul style="list-style-type: none"> • 5.000 - 10.000 ale: 5 puntu • 10.001 - 35.000 ale: 8 puntu • 35.001 - 80.000 ale: 12 puntu • 80.000 aletik gora: 15 puntu
	- Hedapen-eredu geografikoa: 15 puntu <ul style="list-style-type: none"> • Euskal Herria: 15 puntu • Lurralde bat baino gehiago: 10 puntu • Lurralde bat: 5 puntu
Produktua: 25 puntu	- Diseinua: 10 puntu <ul style="list-style-type: none"> • Oso landua, koloreen erabilera nabarmena, grafismo ugari, tipografia ugari: 10 puntu • Zuri-beltza nagusi, zenbait tipografia, gune zuriak: 8 puntu • Zuri-beltza nagusi, tipografia bakarra, gune zuri ugari: 5 puntu
	- Kazetaritza-trataera: 10 puntu <ul style="list-style-type: none"> • gai errepertorio zabala: 10 puntu • gai errepertorio mugatua: 8 • errepertorio eskasa: 5 puntu
	- Lankide sarea: 5 puntu <ul style="list-style-type: none"> • lankidetza ugari eta kritikari adituak: 5 puntu • lankidetza bakanak: 2 puntu
Orrialde-kopurua: 10 puntu	- 20 orrialde edo gehiago: 10 puntu - 8 -19 orrialde: 5 puntu
Karaktere-kopurua: 10 puntu	- 2.500 - 3.000 karaktere: 3 puntu - 3.000 - 5.000 karaktere: 5 puntu - 5.000 karaktere baino gehiago: 10 puntu

Iturria: 2006-2011 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Arestiko taulan bada aipatzeko moduko konturik, batez ere produktuaren arlokoak. Saritu egiten da diseinu landua izatea, koloreak, grafikoak eta tipografia ugari erabiltzea eta gai-errepertorio zabala jorratzea. Gune zuriak izatea, berriz, "zigortzeko" arrazoi litzateke puntuak banatzerakoan. Horrekin batera, dituen lankideen kantitateari eta kalitateari ere erreparatzen zaio.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

2.- ERREFERENTZIA-ORRIALDEAK.

2009 eta 2010 urteko deialdietan izan zuten diru-laguntzak eskatu eta onuradun izateko aukera. Baloratzeko erabiliko diren adierazleak eta bakoitzari egokitutako puntuak biltzen ditu ondoko taulak:

86. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko erreferentzia-orrialdeen balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2009-2010.

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Produkzioa (kazetaritza-trataera, informazioaren balio erantsia, gaurkotasuna, lankide-sarea, kokapena, diseinua)	gehienik ere 50 puntu
Zabalkundea	gehienik ere 30 puntu
Orrialde-kopurua/karaktere-kopurua	gehienik ere 20 puntu

Iturria: 2009-2010 urteetako diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Erreferentzia-orrialdeekin desberdintasun nabarmena dago orain arte ikusitakoarekin alderatu ezker. Irizpideetan ez da finantzaketa-maila propioa kontsideratzen, eta eskuratu daitezkeen puntu guztien erdia kaleratutako produktuari lotzen zaio. Arlo bakoitzaren banakatzea ondoko taulan dago jasota:

87. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko erreferentzia-orrialdeen balorazioa egiteko irizpideen banakatzea, 2009-2010.

Produktua: 50 puntu	- Diseinua: 5 puntu <ul style="list-style-type: none"> • Oso landua, koloreen erabilera nabarmena, grafismo ugari, tipografia ugari: 5 puntu • Zuri-beltza nagusi, zenbait tipografia, gune zuriak: 3 puntu • Zuri-beltza nagusi, tipografia bakarra, gune zuri ugari: puntu bat
	- Kazetaritza-trataera: 10 puntu <ul style="list-style-type: none"> • gai erreperitorio zabala: 10 puntu • gai erreperitorio mugatua: 8 • erreperitorio eskasa: 5 puntu
	- Informazioaren balio erantsia: 10 puntu <ul style="list-style-type: none"> • handia eta zaindua: 10 puntu • hala moduzkoa: 5 puntu
	- Gaurkotasuna: 10 puntu <ul style="list-style-type: none"> • handia: 10 puntu • hala moduzkoa: 5 puntu
	- Kokapena: 5 puntu <ul style="list-style-type: none"> • zaindua: 5 puntu • hala moduzkoa: 2 puntu - Azala: 5 puntu <ul style="list-style-type: none"> • Azalean eta kontra-azalean: 5 puntu • Azalean bakarrik: 3 puntu • Kontra-azalean: 2 puntu
	- Lankide sarea: 5 puntu <ul style="list-style-type: none"> • lankidetza ugari eta kritikari adituak: 5 puntu • lankidetza bakanak: 2 puntu
Zabalkundea: 30 puntu	- Ale-kopurua: 20 puntu <ul style="list-style-type: none"> • 7.000 - 10.000 ale: 5 puntu • 10.001 - 35.000 ale: 8 puntu • 35.001 - 50.000 ale: 12 puntu • 50.001 - 80.000 ale: 15 puntu • 80.001 aletik gora: 20 puntu
	- Hedapen-eredu geografikoa: 10 puntu <ul style="list-style-type: none"> • nazio maila: 10 puntu • lurralde bat baino gehiago: 7 puntu • lurralde bat: 5 puntu
Orrialde eta karaktere kopurua: 20 puntu	- Orrialde-kopurua: 10 puntu <ul style="list-style-type: none"> • 24 orrialde edo gehiago: 10 puntu • 16 - 23 orrialde: 5 puntu
	- Karaktere-kopurua: 10 puntu <ul style="list-style-type: none"> • 1.500 karaktere baino gutxiago: 3 puntu • 1.500 - 2.500 karaktere: 5 puntu • 2.500 karaktere baino gehiago: 10 puntu

Iturria: 2009-2010 urteetako diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

2009 urtean, *El País*, *Diario de Noticias de Álava*, *Deia* eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak kaleratutako euskarazko erreferentzia-orrialdeak jaso zituzten diru-laguntzak⁴⁶⁹; 2010eko deialdian *El Diario Vasco* eta *Noticias de Gipuzkoa* izan ziren laguntzen onuradunak⁴⁷⁰.

Arestian baieztatu bezala, erreferentzia-orrialdeen kasuan, eskainitako produktuari ematen zaio puntu gehien balorazio-prozeduran. Horren barne, euskara hutsezko gehigarriekin alderatu ezker, ikusten da diseinua, kazetaritza-trataera eta lankide-sareaz gain, beste hainbat konturi erreparatzen zaiola puntuak banatzeko orduan; hala nola, informazioaren balio erantsia, gaurkotasuna, kokapena eta azalean izatea. Gainontzean, euskara hutsezko gehigarriekin gertatu bezala, puntu gehiago ematen zaizkio diseinu landua, koloreak, grafikoak eta tipografia ugari eta gai-errepertorio zabala baliatu eta jorratzen dituenari. Orrialde-kopuruari dagokionez, euskarazko gehigarriei baino gehiago eskatzen zaizkie, baina karaktere-kopuruarekin alderantziz gertatzen da. Hedapen-eremu geografikoari dagokionez, bada aipatzeko moduko bitxikeria: erreferentzia-orrialdeen kasuan euskararen lurralde osoan banatzen direnak izendatzeko “nazio mailakoak” direla esaten da, euskara hutsezko gehigarriekin, ordea, hedapen geografiko bera izendatzeko “Euskal Herria” erabiltzen da.

Atal honekin bukatzeko esan 2010etik 2013ra bitarteko ebazpen-prozedura 2009an egindakoaren kopia izan zela. Denbora-tarte horretan egin zen aldaketa bakarrak nagusiki gaztelania darabilten egunkariari eragin zien; 2011an ez zen diru-laguntzarik izan nagusiki gaztelania darabilten egunkarietako euskarazko erreferentzia-orrialdeentzat, eta hurrengo bi urteetan (2012, 2013) ez zen laguntzarik bideratu nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrientzat.

⁴⁶⁹ .- *El País* egunkariak 100 puntutik 56 lortu zituen balorazio-prozeduran eta 31.777,4 euro jaso zituen; *Diario de Noticias de Álava* egunkariak 56 puntu eta 26.401 euro; *Deia* egunkariak, 55 puntu eta 45.502,4 euro, eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak 55 puntu lortu eta 38.781 euro jaso zituen.

⁴⁷⁰ .- *El Diario Vasco* egunkariak 100 puntutik 61 lortu zituen balorazio-prozeduran eta 100.000 euroko diru-laguntza izan zuen; *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak, berriz, 53 puntu eta 52.800 euro.

5.1.5. "HEDABIDEAK" DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA LABURBILDUTA

Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko xedez kaleratzen duen diru-laguntza deialdiaren azterketa deskriptiboa burutu da atal honetan. Urteroko aginduek jaso duten eduki nagusiei erreparatu zaie: deialdiaren helburuak, ezarritako diru-partiden bilakaera, laguntzetara aurkezteko eta onuradun izateko bete beharreko baldintzak eta esleipenak egiteko erabili diren irizpideak.

1984ko lehen deialdia argitaratu zenetik jorratu den ibilbidea hartu da kontuan, baina arreta-fokua ikerketak hautatu duen 2005-2013 bitartean jarri da.

Diru-laguntza deialdiaren helburuei dagokienez, horiek euskarazko hedabideek izan duten bilakaerara egokituz joan dira. Laurogeiko hamarkadaren hasieran, aldizkariak baino ez zeudenez, horien zabalkundea eta bideragarritasuna sustatzea ezarri zen helburutzat. Hortaz, euskara hutsezko hedabideen eskaintzari eta egoera ekonomikoari begirako helburuak ezarri ziren urte haietan. Gero, publikoak ez ziren eta euskara hutsean jarduten zuten ikus-entzunezkoen sorrerak eta garapenak ez zuen aipatzeko moduko aldaketarik ekarri deialdiaren helburuen arlora. Aldaketa 2005eko deialdian etorri zen; izan ere, ikerketa honek interesgunetzat duen 2005-2013 bitarteko lehen laguntza-deialdiaren testuan modu berrituan adierazi zen zein zen ekimenaren xedea: euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzea. Hortik aurrera, 2013ra arte, formula bera erabili da.

Euskara hutsezko hedabide inprimatuak, eta oro har euskaraz jarduten duten hedabideak laguntzeko ezarri den diru-partida bi kontuk baldintzatu dutela erakutsi da; batetik, sektoreak izan duen garapenak eta bestetik, laguntzak kudeatzen dituen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak erabilgarri izan duen aurrekontuak. Baieztapen horretatik abiatuta bi etapa berezitu dira:

1.- Lehen bi hamarkadetan (1984-2004), urteroko aginduetan paperezkoentzat zehaztutako baliabide ekonomikoak etengabe haziz joan ziren. Eta sektoreak ere beste horrenbeste egin zuen. Joera orokor horretan bi azpi-etapa kontsideratu daitezke:

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

a.- 1984tik 1999rako. Denbora tarte honetan nabarmentzeko moduko bi hazkunde-mugarri izan ziren: lehena, 1986-1990 bitartekoa, *Hemen* eta *Eguna*, astean behin argitaratzen ziren egunkarien presentziak eragindakoa, eta bigarrena, 1997ko laguntza-deialdian gertatua. Izan ere, deialdi hartan, hiru urtez Jaurlaritzaren laguntzarik gabe aritu ondoren, *Euskaldunon Egunkariak* aukera izan zuen deialdira aurkeztu eta diru publikoa jasotzeko. Horrek ondorio moduan ekarri zuen "Hedabideak" diru-laguntza deialdian inprimatuentzat ezarritako partidak inoizko hazkunderik aipagarriena izan zuela, eta horren onuradun nagusia *Euskaldunon Egunkaria* bilakatu zen. Ez bakarrik 1997an, baita hurrengo urteetan ere.

b.- 2000 urtetik 2004rako. Denbora horretan, euroaren sorrerarekin batera, hedabide inprimatuez gain, ikus-entzunezkoak eta on line argitalpenak ere onartuko dira laguntzen eskatzaile moduan. Hala ere, multzorik handiena paperezkoek osatzen dute; hortaz, haientzat ezarriko da diru gehien. Zehatz esateko, euskarazko hedabideen egitasmoak bideragarriago egiteko jarritako partida osoaren %75etik gora paperezkoetara bideratzen zen sasoi hartan, eta horien artean, diru gehien gastu-aurrekonturik handiena duen hedabideari esleituko zaio urtero: *Euskaldunon Egunkariari* lehenengo eta, Auzitegi Nazionalak hura itxi ondoren, kaleratu zen *Berriari*, hain zuzen.

2.- Bigarren etapa, 2005-2013 bitartekoa, haztetik eusterakoa dela esan daiteke. Laguntza-deialdietan jarritako diru-baliabideek haziz jarraitu zuten 2010era arte, zenbait urtetan nabarmen gainera; baina hortik aurrera diru-partidak beherako bidea hartu zuen. Hala, 2012ko partida 2006koaren pareko izan zen. Horren zergatia aurkitzeko, euskara biziberritzeko politikak kudeatzen dituen Kultura Sailaren aurrekontuaren bilakaerari erreparatu behar zaio. Sailak erabilgarri zuen aurrekontuak behera egin zuen eta beste horrenbeste gertatu zen diru-laguntza guztiekin. Hala ere, hedabideetara bideratutakoa izan zen murrizketarik txikiena jasan zuena. Horren barruan, diru-kopururik oparoena, beti bezala, eskatzaile gehien zituen inprimatuen multzora bideratu zen. 2005-2013 bitartean, eskatzaile-kopuruari dagokienez, ez da aldaketa nabarmenik gertatuko aldizkari inprimatuen eta telebisten multzoan; bai,

ordea, euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatuaren eta irratien multzoan; bi kasu horietan, behera egingo du eskatzaile-kopuruak. Azkenik, ezin esan gabe utzi 2006tik 2011ra, urte biak barne, diru-laguntzak esleitu zitzaizkiela nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriari, eta 2009an eta 2010ean, baita horiek landutako erreferentzia-orrialdeei ere.

"Hedabideak" diru-laguntza eskatzeko bete beharreko baldintzen arloak hamaikatxo aldaketa eta gorabehera izan ditu 1984tik. Zenbait deialditan urtez urte ere aldatzen ziren baldintzok. Edozein kasutan, eta paperezkoegi dagokienez, agerikoa da bi eratako baldintzak ezarri zaizkiela eskaria egin ahal izateko: batetik, idatzizkoaren ekoizpen-ezaugarriari lotutakoak, hala nola, maiztasuna, botaldiak edota orrialde-kopuruak; eta bestetik, egoera ekonomikoarekin zerikusia duten baldintzak. Azken hauek garrantzia hartuz joan ziren 90eko hamarkadaren erditik aurrera.

Lan honek ikergaitzat duen 2005-2013 bitartean egonkortu egin ziren diru-laguntzetara aurkezteko baldintza orokorrak; euskarazko edozein eratako hedabideak bete beharrekoak. Epe honetan, gainera, kontsolidatu egin zen lehendik zetorren joera; hau da, hedabideen egoera ekonomikoari lotutako baldintza ekonomikoak pisu nabarmena hartu zuten. Labur esanda, honakoa da euskara hutsezko hedabide inprimatuen argazkia Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza eskaria egin ahal izateko: defizitarioa behar du izan, beste edozein erakunde publikok zein pribatuk eskainitako laguntzak izan ditzake, baina ezin du gain-finantzaketarik izan, idatzizkoak sarrera- eta gastu-aurrekontu orekatua behar du izan eta azkenik, %35 edo %40ko autofinantzaketa-maila lortu behar du⁴⁷¹. Baldintza ekonomikoez gain, ekoizpen-ezaugarriari begirako baldintzak bete beharko dituzte. Horiek oso anitzak dira, laguntzaren onuradun izan daitekeen hedabide-multzo bakoitzaren perfilari egokitzen zaizkiolako; hots, egunerokoak, aldizkakoak, tokikoak, nagusiki gaztelania darabilten euskara hutsezko gehigarriak edo erreferentzia-orrialdeak izateari egokitzen zaizkio.

⁴⁷¹ .- Laguntza-deialdiko agindua indarrean sartzen den egunean urte bete baino gutxiago duten hedabideen kasuan autofinantzaketa-mailak %35ekoa behar du izan, eta lehenagotik ari direnen kasuan, berriz, %40koa.

Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzen azterketa deskriptiboa esleipenak egiteko erabili izan diren irizpideak landuz bukatu da. Atal honetan, diru-baliabideenean eta eskaria aurkezteko bete beharreko baldintzenean gertatu bezala, zenbait etapa ezberdinu daitezke:

1.- 1984ko lehen deialdia kaleratu zenetik 2004ra, irizpideen etengabeko dantza gertatu zen. Hasierako deialdietan, eskatzaile moduan inprimatuak bakarrik zituzten haietan, ohikoa zen irizpideak goitik behera aldatzea urte batetik bestera. 2000 urtetik aurrera berriz, irratiak, telebistak eta Internet bidezkoak ere laguntzen onuradun izan daitezke. Horrek euskarri berriei egokitutako irizpideak txertatzea ekarri zuen.

2.- 2005-2013 bitartean irizpideak egonkortzeko eta sinplifikatzeko bidea jorratu zen. Aipatu epealdiko lehen urtean, finantzaketa-maila propioak izan zuen hedabide bakoitzak eskuratu zezakeen puntuazio osoaren erdia; 2006an herena, eta 2007 eta 2008an bostena. Gainontzeko balorazio-irizpideak zabalkundeari, irakurleei eta produktuari loturikoak ziren. Eta azkenik, 2009an gauzatu zen irizpideen behin betiko egonkortzea. Ordutik 2013ra, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan irizpide eta puntuazio berberak erabili zituzten urtero diru-esleipenak egiteko: finantzaketa-maila propioa, zabalkundea eta produktua. Irizpide bakoitzari puntuazio osoaren herena egokitzen zitzaiola esan daiteke⁴⁷². Gero, aipatu hiru irizpideak diru-laguntzen onuradun izan zitezkeen hedabide-multzo bakoitzaren ezaugarri partikularren arabera banakatu ziren⁴⁷³. Azpimarratzekoa da irakurle-kopurua irizpide bezala bakarrik erabili zela euskara hutsezko tokian tokiko aldizkarien kasuan, eta horri egokitu zitzaizkion puntuak (100etik 5) banatzeko argitalpenak zuen zabalkunde-esparruan zenbat euskaldun zeuden hartu zen kontuan.

⁴⁷² .- Finantzaketa-maila propioari 100 puntutik gehienez ere 35 emango zaizkio, zabalkundeari 100 puntutik gehienez ere 30, eta produktuari 100 puntutik gehienez ere 35 emango zaizkio.

⁴⁷³ .- Ez da gauza bera egunkaria, edo informazio orokorreko aldizkaria, edo informazio espezializatuko aldizkaria, edo tokian tokiko argitalpena izatea. Hortaz, zabalkundea irizpideari dagozkion 30 puntuak banatzeko ezarriko diren azpi-irizpideak hedabide-multzo bakoitzak dituen ezaugarri partikularren arabera eraikiko dira.

"Hedabideak" deialdiaren azterketa deskriptiboa burutzeko landu den atalaren laburpena zarratzeko, esan zenbait urtetan nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak eta erreferentzia-orrialdeak dagokienez, gainontzeko idatzizkoekin erabilitako oso antzeko balorazio-irizpideak erabili zirela. Baina ez berberak. Gehigarrietan, finantzaketa-maila propioaz, zabalkundeaz eta produktuaz gain, orrialde-kopuruari⁴⁷⁴ eta karaktere-kopuruari erreparatzen zitzaion balorazioa egin eta puntuak banatzeko unean. Eta azkenik, 2009 eta 2010 urteetan dirua eskatu eta jasotzeko moduan izan ziren erreferentzia-orrialdeetan, berriz, ez zen autofinantzaketari loturiko irizpiderik izan; horietan, puntu guztien erdia produkzioari lotu zitzaion eta gainontzekoa zabalkundeari eta orrialde eta karaktere-kopuruari.

Honaino "Hedabideak" diru-laguntzaren erradiografia. Orain horren onuradun izan diren euskara hutsezko hedabide inprimatuei begira jartzeko unea iritsi da; ondokoa delako ikergai honen bigarren helburu orokorra: diru-laguntzen onuradunek denboran zehar izandako bilakaera ezagutu.

⁴⁷⁴ .- Euskara hutsezko egunkariak, aldizkariak eta tokiko kasuak, orrialde-kopuruak ere baloratzen dira, baina produktuari lotutako azpi-irizpide moduan, ez aparte, gehigarriekin eta erreferentzia-orrialdeekin egiten den bezala.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

5.2. INFORMAZIO-ITURRI EZ ZUZENEN ANALISIA II: 2005-2013 BITARTEAN EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZA JASO DUTEN EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEN ETA ESLEIPENEN BILAKAERA

Zenbakiz jositako atala izango da honako hau. Bertan, 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntza deialdira aurkeztu ziren hedabide inprimatuen balorazioak eta ondorengo esleipenak egiteko erabili zituzten taulak lehengai gisa hartu eta esplotatzeari ekingo zaio.

Zeregina bi urratsetan burutuko da:

1.- Lehenengo urratsean, inprimatuen multzo bakoitzak 2005-2013 bitartean izan duen bilakaera azaleratuko da, ondoko arlo hauek landuz:

1.1.- Aurrekontua.

1.2.- Finantzaketa-maila.

1.3.- Maiztasuna, orrialde-kopurua eta botaldia.

1.4.- Salmenta.

Hiru arrazoi daude azterketa aipatutako arloetan oinarritzeko: batetik, horiei buruzko datu zehatzak eskuragarri daude; bigarrenik, urteroko diru-laguntzen esleipenak egiteko orduan erabilitako balorazio-irizpideak dira⁴⁷⁵; eta hirugarrenik, azterketarako kontuan hartuko diren lau arlo horiek argiro erakusten dute nolakoa izan den denboran zehar hedabide bakoitzaren bilakaera ikuspegi kuantitatibo batetik.

2.- Bigarren urratsean, behin euskara hutsezko hedabide inprimatuen bilakaera landuta, zeregin bikoitza burutuko da. Batetik, harremanetan jarriko dira hedabide bakoitzaren 2005-2013 bitarteko aurrekontuak eta denbora-tarte horretan esleitu zaizkion diru-laguntzak. Horrela, esleitutako diru-laguntzak hedabidearen aurrekontuaren zein portzentaje estaltzen duen kalkulatu da. Bestetik, hedabide

⁴⁷⁵ .- Ez dira irizpide bakarrak, baina bai nagusiak, hau da, esleipen-prozesuan hedabide bakoitzak izan ditzakeen puntuazio osotik (100 puntu) pisu gehien dutenak.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

bakoitzak eskatutako diru-laguntza eta esleitutakoaren arteko harremanari ere erreparatuko zaio. Horrela, paperezko bakoitzak eskatu duen kantitate osoaren zein portzentaje esleitu zaion erakutsiko da.

5.2.1. "HEDABIDEAK" DEILDIAREN ONURADUNEN BILAKAERA 2005etik 2013ra

Atal honetan erradiografia kuantitatiboa osatuko da. Analisia burutzeko, 2005-2013 bitarteko diru-laguntza deialdietan onuradun gisa kontsideratu ziren hedabide-multzoen banaketa-irizpideari jarraituko zaio; hau da, ezaugarri propioak, bereizgarriak dituzten hiru hedabide-multzorekin egingo da lan:

- a) Eguneroko prentsa inprimatua.
- b) Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak (pentsamendua, zientzia, musika, natura, haur eta gazteei zuzendutakoak...)
- c) Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak.

Horiez gain, 2005-2013 bitarteko zenbait urtetan, diru-laguntzak esleitu zitzaizkien nagusiki gaztelaniaz ari diren egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriei eta erreferentzia-orrialdeei. Horiek ere aintzat hartuko dira azterketan.

5.2.1.1. EGUNEROKO PRENTSA IMPRIMATUA

Eguneroko prentsa inprimatuaren multzoko hedabideek 2005-2013 aldian izandako azterketari ekin aurretik, ohartu beharra dago euskara hutsezko zenbait egunkarik egiturari eta zabalkunde-eremuari eragin dioten berrantolaketa-prozesuak gauzatu dituztela aipatu urteetan, eta horrek zaildu egiten du azterketa. Bi azpimultzo berezitu daitezke denboran zehar egin duten ibilbideari erreparatuta:

1.- Ikerketarako hautatu den epealdian (2005-2013) mantxeta berari eutsi diotenak: *Berria*, *Urola Kostako Hitza*, *Goierriko Hitza*, *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza* eta *Hernaniko Kronika*.

2.- Ikerketarako hautatu den epealdian (2005-2013) bilakaera gorabeheratsua izan dutenak:

a.- *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza*. Ikerketaren lehen urtean, 2005ean, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* bezala kaleratu zen, 2006an *Busturialdeko Hitza* sortu zen, eta hortik 2010 urtera arte biak argitaratu ziren. 2011-2013 bitartean berriz, biak bat eginda izango dira irakurgai⁴⁷⁶.

b.- *Irutxuloko Hitza*. Eguneroko bezala sortu bazen ere, 2013an asteroko argitalpena bilakatu eta, ondorioz, ikerketak aztertzeko hartu duen epealdiaren azken urtean “Hedabideak” deialdiko egunerokoen multzoan izateari utzi eta aldizkari inprimatuen multzoan kokatu zen.

c.- *Oarso Bidasoko Hitza*. Aurrekoaren bidetik joko du honek ere. 2005-2010 bitartean *Oarsoaldeko Hitza* izan zen kalean, 2011-2013 aldirian, berriz, *Oarso Bidasoko Hitza* bezala kaleratu zen eta, gainera, azken urtean, 2013an, *Irutxuloko Hitzak* erakutsitako bidea burutu zuen, egunerokoa izatetik aldizkakoa bihurtzea hain zuzen.

Egoera horrela, eguneroko prentsa inprimatuaren aurrekontuak, finantzaketa-maila propioak, maiztasunak, botaldiak, orrialde-kopuruak eta salmenta-datuak lantzeko, aintzat hartuko da arestian azaldutako hedabide bakoitzaren bilakaera. Hau da, datuak taula ezberdinetan aurkeztuko dira; batetik, lehenengo bostak landuko dira, nolabait esateko ibilbide egonkorra izan dutenak, eta bestetik, ibilbide gorabeheratsua izan dutenak.

⁴⁷⁶ .- Oharra egin behar zaio baieztapen honi. Izan ere, 2012ko deialdian diru-laguntza esleitu zitzaion Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L. enpresak aurkeztu zuen *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* izeneko egitasmoari; hortaz, mantxetan ez zegoen Busturialdea. 2011 eta 2013ko urteetan, ordea, bai. Bi urte horietan, enpresa berak aurkeztutako egitasmoak izan zuen laguntza; baina egitasmoaren izena *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza* izan zen.

5.2.1.1.1. EGUNEROKO PRENTSA INPRIMATURAREN AURREKONTUAK

Ondoko taulan dago jasota 2005-2013 bitartean mantxeta berarekin, gorabehera handirik gabe kaleratu diren euskarazko bost egunerokoek azterketako lehen urtean, 2005ean, eta azken urtean, 2013an, izan zituzten aurrekontuak eta bien arteko bilakaera.

88. taula. Berria, Goierriko Hitza, Hernaniko Kronika, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza eta Urola Kostako Hitzaren aurrekontuak, 2005 eta 2013.

	Aurrekontua 2005 (€)	Aurrekontua 2013 (€)	2005-2013 (€)	2005-2013 (%)
Berria	8.196.391	6.575.517	-1.593.874	-19,4
Goierriko Hitza	577.453	439.706	-137.747	-23,8
Hernaniko Kronika	280.000	295.000	+15.000	+5,0
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	481.533	411.755	-69.778	-14,5
Urola Kostako Hitza	638.029	476.616	-161.413	-25,3

*Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatua.*

Eguneroko prentsaren azpi-multzo honetan, 2005-2013 bitartean, *Hernaniko Kronika* izan ezik, gainontzeko guztiek aurrekontu txikiagoa zuten 2013an 2005ean baino. Portzentajetan jarrita, *Urola Kostako Hitzak* eta *Goierriko Hitzak* izan zuten murrizketarik handiena, bi eguneroko horien 2013ko aurrekontuek ia laurdena galdu zutelako 2005ekoekin alderatuta.

Bestalde, esan behar da aurrekontuen bilakaera ez dela urtetik urtera beti norabide berekoa izan⁴⁷⁷; hau da, denen kasuan gertatu da 2005-2013 epealdian tarteko urteren batean izan zutela epealdi osoko aurrekonturik onena. Hala, taulan bilduta dauden bost hedabideetatik, *Gorierriko Hitzak*, *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak* eta *Uroko Kostako Hitzak*, 2009an izan zuten diru gehien gasturako, *Berria* egunkariarentzat, berriz, 2008a izan zen onena aurrekontuari dagokionez, eta *Hernaniko Kronikaren* kasuan, 2011. urtean izan zuen aurrekonturik oparoena.

⁴⁷⁷ .- *Hernaniko Kronikaren* kasuan izan ezik, beti beherako bidea jarraitu duela esan beharko litzateke.

Eguneroko prentsa inprimatuaren multzoan, 2005-2013 bitartean diru-laguntzak esleitu zitzaizkien gainerako hedabideei dagokienez:

1.- *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza*: bi eguneroko desberdinetan kaleratu ziren urteetan, bataren zein bestearen aurrekontuek beherako joera erakutsi zuten.

89. taula. *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza eta Busturialdeko Hitzaren aurrekontuak. 2005, 2006 eta 2010.*

	Aurrekontua lehen urtean (€)	Aurrekontua 2010 (€)	2005/2006- 2010 (€)	2005/2006- 2010 (%)
Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza (2005-2010)	471.385	383.248	-88.137	-18,7
Busturialdeko Hitza (2006-2010)	420.519	354.615	-65.904	-15,7

Iturria: HPSk 2005, 2006 eta 2010 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Beste horrenbeste gertatu zen 2011tik 2013ra bitartean, hau da, bat eginda kaleratu zirenetik, nahiz eta hiru urteko horretan aurrekontua maila apalagoan jaitsi zen.

90. taula. *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzaren aurrekontuak, 2011 eta 2013.*

	Aurrekontua 2011 (€)	Aurrekontua 2013 (€)	2011-2013 (€)	2011-2013 (%)
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	593.901	565.918	-27.983	-4,7

Iturria: HPSk 2011 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

2.- *Oarso Bidasoko Hitza*: arestian esan bezala 2005etik 2010era, biak barne, *Oarsoaldeko Hitza* mantxetarekin argitaratu zuten. Urte horietan aurrekontuak ia herena galdu zuen.

91. taula. *Oarsoaldeko Hitzaren aurrekontuak, 2005 eta 2010.*

	Aurrekontua 2005 (€)	Aurrekontua 2010 (€)	2005-2010 (€)	2005-2010 (%)
Oarsoaldeko Hitza	471.022	327.943	-143.079	-30,4

Iturria: HPSk 2005 eta 2010 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Oarso Bidasoko Hitza aurrekontu oparoagoarekin aritu zen lehen urtean (2011n 2010ean baino %17 gehiago), baina ondoko bi urteetan behera egin zuen, asko gainera. Jaitsiera hori, ia osorik, 2012-2013 aldiaren gertatuko da; aurrekontu osoko hamar eurotik ia lau galduko ditu, *Oarso Bidasoko Hitzak* egunerokoa izateari utzi eta aldizkakoa bilakatu zen sasoian⁴⁷⁸.

92. taula. *Oarso Bidasoko Hitzaren aurrekontuak, 2011 eta 2013.*

	Aurrekontua 2011 (€)	Aurrekontua 2013 (€)	2011-2013 (€)	2011-2013 (%)
Oarso Bidasoko Hitza	385.927	238.736	-147.191	-38,1

*Iturria: HPSk 2011 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatua.*

3.- *Irutxuloko Hitza*: kasu honetan ere, lehenago azpimarratu den moduan, 2013an egunerokoa izateari utzi eta aldizkakoen multzoa kokatu zen, “Hedabideak” deialdiko diru-laguntzak eskatzeko orduan. Horrek isla izango du hedabidearen ekonomian; izan ere, 2005-2012 bitartean, astean sei egunez kaleratu zen urteetan, aurrekontua ia herena txikitu bazen ere⁴⁷⁹, are gehiago murriztu zen asterokoa bilakatu ondoren.

93. taula. *Irutxuloko Hitzaren aurrekontuak, 2005 eta 2013.*

	Aurrekontua 2005 (€)	Aurrekontua 2013 (€)	2005-2013 (€)	2005-2013 (%)
Irutxuloko Hitza	670.208	262.080	-408.128	-61,0

*Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatua.*

Euskara hutsezko egunerokoek 2005ean eta 2013an izan zituzten aurrekontuak erreperatuta, interesagarria litzateke erabilitako diruak zertara bideratu zituzten lantzea. Aurrekontuen partidarik handiena soldatak ordaintzekoa zen? Egunerokoa inprimatzeko? Banaketa zereginetarako?... Hori argitzeko, ezinbestekoa da aurrekontuaren-banakatzea ezagutzea. Euskara hutsezko hedabideek kudeatu izan duten diruaren banakatzea zehatz-mehatz jasota dago 2007tik aurrerako arazketa

⁴⁷⁸ .- *Oarso Bidasoko Hitzak* %0,03ko aurrekontu jaitsiera izan zuen 2011-2012 bitartean (2012ko aurrekontua 384.816 eurokoa izan zen), baina 2012-2013 artean beherakada %38,1ekoa izan zen.

⁴⁷⁹ .- *Irutxuloko Hitzak* 450.508 euroko aurrekontua izan zuen 2012an, eguneroko moduan funtzionatu zuen azken urtean, horrek esan nahi du 2005-2012 bitartean aurrekontuak %32,8ko beherakada izan zuela.

tauletan⁴⁸⁰. Horietan, diru-laguntza eskatzen zuen hedabide bakoitzaren aurrekontu osoa lau gastu-atal bereizten da: langile-gastuak⁴⁸¹, funtzionamendu-gastuak⁴⁸², produkzio-gastuak⁴⁸³ eta bestelakoak⁴⁸⁴. Banakatze horri esker, gastua zein ataletan egiten zen eta atal bakoitzari zenbat egokitzen zitzaion aztertu daiteke.

Datu-zaparrada horretan murgildu eta horien irakurketari ekin aurretik, esan 2007ko eta 2013ko aurrekontu-banakatzeak landuko direla. Hortaz, 2007 urteari dagokion banakatze-taulan, bederatzi eguneroko kontsideratuko dira: *Berria, Goierriko Hitza, Hernaniko Kronika, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Urola Kostako Hitza, Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza, Busturialdeko Hitza, Oarsoladeko Hitza* eta *Irutxuloko Hitza*. Epealdiko azken urteko banakatze-taulan, berriz, 2013koan, sei eguneroko ageriko dira⁴⁸⁵.

⁴⁸⁰ .- Ikerketa honek objektutzat hartu duen denbora-tartearen lehenbiziko bi urteetan, ordea, HPSk esleipenak egiteko erabili zituen tauletan aurrekontu orokorra jasotzen da, baina ez dago atalez ataleko banakatzerik. Horregatik, atal hau ikertzeko abiapuntu gisa 2007 urtea hartu beharrean gaude.

⁴⁸¹ .- Langileei lotutako gastu-aurrekontua hiru azpi-ataletan banatzen da: lehena, ordainsariak dira; bigarrena, kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak; eta hirugarrena, “beste gastu sozial batzuk” deitutakoa.

⁴⁸² .- Funtzionamendu-gastuen barne hainbat azpi-atal hartzen ditu diru-laguntza eskariak; hala nola, alokairuak, zergak, argindarra, telefonoa, ura, posta eta mezularitza, garbiketa, bulego-materiala, lokomozioa eta egonaldiak, profesional beregainen zerbitzuak eta bestelako zerbitzuak.

⁴⁸³ .- Produkzio-gastuen barne daude papera eta inprimaketa-gastuak.

⁴⁸⁴ .- Bestelakoak izeneko atalean, zabalkundeari lotutako gastuak ageri dira. 2011ko deialditik aurrera, atal honi “banaketa” deituko zaio.

⁴⁸⁵ .- *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* eta *Busturialdeko Hitza* eguneroko bakarrean kaleratzen zirelako eta, horrekin batera, *Oarsoaldeko Hitza* eta *Irutxuloko Hitza* dagoeneko ez zeudelako egunerokoan multzoan, baizik eta aldizkako argitalpenenean.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

94. taula. Euskarazko eguneroko prentsa inprimatuaren aurrekontuen banakatzera, 2007 (€).

Egitasmoa	Aurrekontua	Langileak	Funtzionamendua	Produkzioa	Bestelakoak
Berria	7.755.083	2.808.500	2.430.157	1.319.937	1.196.489
Goierriko Hitza ⁴⁸⁶	488.506	188.264	63.749	68.465	168.028
Hernaniko kronika	282.000	152.000	15.000	83.000	32.000
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	447.306	181.128	66.609	73.642	125.927
Urola kostako Hitza	534.704	186.673	82.416	80.384	185.231
Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza	459.413	151.283	102.987	69.211	135.932
Busturialdeko Hitza	350.841	163.249	44.852	54.360	88.380
Oarsoaldeko Hitza	367.557	162.236	51.624	55.471	98.226
Irutxuloko Hitza	598.341	238.430	68.360	113.368	178.183

Iturria: HPSk 2007 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Taulan bildutakoen arabera, langile-gastuek jaten zuten 2007 urtean aurrekontuaren herena eta %40 artean; kasuren batean, *Hernaniko Kronikan* esaterako, erditik gora gastatzen zen (%54). Hortik aparte, 2007an, “bestelakoak” izeneko atalera, hau da, banaketara bideratutako gastua zen bigarren garrantzitsuena, bi kasutan izan ezik: *Berria* egunkarian funtzionamendu- eta produkzio-gastuak banaketarako behar zituztenen gaintik zeuden, eta *Hernaniko Kronikan* gehiago gastatzen zuten produkzioan banaketan baino.

⁴⁸⁶ .- Zenbait kasutan, *Goierriko Hitzarenean* esaterako, aurrekontuari zein horren barruan arlo bakoitzari dagokion zenbakia ez da osoa, bi dezimal ditu (aurrekontua: 488.506,23 euro; langileak: 188.264,20 euro; funtzionamendua: 63.748,66 euro; produkzioa: 68.464,80 euro eta bestelakoak: 168.028,57 euro). Horrela gertatzen denean, borobildu egin dira zenbakiak, lehen dezimala 5etik azpikoa denean zenbaki osoari eutsita eta lehen dezimala 5 edo gorakoa denean, zenbaki osoari unitate bat gehituz. Erabaki honek ez dio kalterik egiten azterketari, milaka euroko diru-partidetan, gehien jota euro baten azpitik dauden gorabeheraz ari garelako.

2013an, panorama aldatuta ageri zen. Denboran zehar izandako berrantolaketak, batetik, eta bereziki 2012tik 2013ra *Oarso Bidasoko Hitzarekin eta Irutxuloko Hitzarekin* gertatutakoaren ondorioz, egunerokoen multzoak kide gutxiago zituelako: bederatzi izatetik sei izatera igaro zen. Aurrekontuen banakatzeak ere aldaketa esanguratsuak ekarri zituen.

95. taula. Euskarazko eguneroko prentsa inprimatuaren aurrekontuen banakatzea, 2013 (€).

Egitasmoa	Aurrekontua	Langileak	Funtzionamendua	Produktzioa	Banaketa
Berria	6.575.517	2.147.904	2.332.802	1.056.587	1.038.224
Goierriko Hitza	439.706	199.427	96.623	48.218	95.438
Hernaniko Kronika	295.000	182.000	20.000	75.000	18.000
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	565.919	184.507	183.319	75.943	122.150
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	411.755	188.641	49.515	90.354	83.245
Urola Kostako Hitza	476.616	210.714	93.355	90.703	81.844

Iturria: HPSk 2013 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Goiko taulan bildutakoaren arabera, eta 2007an jasotakoekin alderatuz, esan daiteke 2013an, aurrekontuek oro har behera egiten badute ere, langileen soldatak, prestazioak eta abarrak ordaintzeko gastuak gora egiten duela zenbaki absolututan zein portzentajetan. Salbuespen bakarra *Berria* egunkariarena da⁴⁸⁷. Horrekin batera, azpimarratzekoa da 2013an funtzionamendu-gastuek hartu zuten pisua, ia denetan bigarren gastu garrantzitsuena bilakatuz. Honetan ere *Berria* da salbuespena, funtzionamendu-gastuak langile-gastuen gainetik zeudelako⁴⁸⁸.

⁴⁸⁷ .- Aurrekontu osoaren eta langile-gastuen arteko harremanak ia lau puntu galtzen ditu *Berria* egunkariaren kasuan (2007an langileei bideratutako dirua aurrekontu osoaren %36,2 zen eta 2013an, berriz, %32,6). Gainontzekoei dagokienez, *Urola Kostako Hitza* bederatzi puntu egiten du gora denbora tarte berean (%35etik %44,2ra), *Hernaniko Kronikak* zortzi puntu gora (%54tik %62ra), *Goierriko Hitza* zazpi puntu gora (% 38,5etik % 45,3ra), *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza* bost puntu gora (%40,5etik %45,8ra) eta *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza* 2007ko portzentaje berdintsuei eutsi zien (%33).

⁴⁸⁸ .- 2011 urtera arte *Berria* egunkarian langile-gastuak funtzionamendura bideratutako gastuen gainetik zeuden; 2011n, ordea, joera aldatu eta aurrerantzean funtzionamendu-gastuak handiagoak izango dira.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Arestian hainbat alditan aipatu denez, badira beste bi hedabide 2005-2013 denbora-tarteko azken urtean izan ezik gainerako guztietan egunerokoen multzoan kokatuta zeudenak: *Oarso Bidasoko Hitza* eta *Irutxuloko Hitza*. Bi horiek honako aurrekontu banakatzea aurkeztu zuten 2013an, aldizkako hedabideen multzora igaro ziren urtean.

96. taula. Oarso Bidasoko Hitza eta Irutxuloko Hitza argitalpenen aurrekontuen banakatzea, 2013 (€).

Egitasmoa	Aurrekontua	Langileak	Funtzionamendua	Produkzioa	Banaketa
Oarso Bidasoko Hitza	238.736	132.541	57.246	25.089	23.860
Irutxuloko Hitza	262.080	132.290	40.566	44.028	45.196

Iturria: HPSk 2013 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Bietan aurrekontuek behera egin zuten nabarmen eta beste horrenbeste gertatu zen gainontzeko banakatze-partida guztiekin, baina aurrekontu orokorren eta langile-gastuen arteko harremanak gora egiten du portzentajetan⁴⁸⁹. Bestalde, *Irutxuloko Hitzak*, 2013an ere, banaketa izan zuen bigarren gastu-iturri garrantzitsuena. *Oarso-Bidasoko Hitzan*, aldiz, egunerokoetan gertatutakoa ikusiko dugu, hots, funtzionamendu-gastuak kokatu ziren banaketari lotutakoen gainetik.

5.2.1.1.2. EGUNEROKO PRENTSA INPRIMATUAREN FINANTZAKETA-MAILA PROPIOA

Finantzakea-maila propioa edo autofinantzaketa izan da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2013 urte bitarteko diru-laguntza deialdiak ebazteko orduan pisurik nabarmenena izan duen irizpidea. Aldi berean, autofinantzaketa izan da betidanik euskara hutsezko hedabideen (ez soilik inprimatuena) erronka eta buruhaustea.

⁴⁸⁹ .- *Oarso Bidasoko Hitzaren* kasuan, langilego-gastuek hamaika puntu irabazi zituzten aurrekontu osoarekiko, eta *Irutxuloko Hitzaren* kasuan, hamar puntu egin zuten gora.

Autofinantzaketaz zer ulertu behar den urteroko aginduetan dator zehaztuta. Adibidez, 2011 urteko deialdia hartu ezkeron honelaxe dio:

“Agindu honen 6.4 atalean aipaturiko finantzaketa propioa honako diru-sarrera hauez osatuta egongo da:

- a) Eskatzailearen diru-ekarpenak.
- b) Zerbitzuen salmentatik eskuratutakoak.
- c) Produktuen salmentatik eskuratutakoak.
- d) Publizitate eskuratutakoak.
- e) Entitate pribatuetatik jasotakoak” (EHAA, 2011-05-20: 95 zk.).

Hortaz, logikoa denez, autofinantzaketa kalkulatik kanpo geratzen dira diru-laguntza publikoak.

Autofinantzaketa-maila kalkulatzeko, bi kontzeptuen arteko zatiketa egingo da: sarrera pribatuak / aurrekontua. Eragiketa matematiko horretan gertatu daitezkeen konbinazioak anitzak dira, zatikizunak (sarrera pribatuen kopurua) eta zatitzaileak (aurrekontuen kopurua) erakutsitako joeraren arabera:

- 1.- Sarrera pribatuen kopuruak eta aurrekontuak, biak, gora egiten dute baina sarrera pribatuen hazkundera aurrekontuena baino handiagoa bada: autofinantzaketak gora egingo du.
- 2.- Sarrera pribatuen kopuruak eta aurrekontuak, biak, gora egiten dute baina aurrekontuen hazkundera sarrera pribatuena baino handiagoa bada: autofinantzaketak behera egingo du.
- 3.- Sarrera pribatuen kopuruak eta aurrekontuak, biak, behera egiten dute baina sarrera pribatuen jaitsiera aurrekontuena baino handiagoa bada: autofinantzaketak behera egingo du.
- 4.- Sarrera pribatuen kopuruak eta aurrekontuak, biak, behera egiten dute, baina aurrekontuen jaitsiera sarrera pribatuena baino handiagoa bada: autofinantzaketak gora egingo du.
- 5.- Sarrera pribatuek gora egiten dute eta aurrekontuak behera: autofinantzaketak gora egingo du.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

6.- Sarrera pribatuek behera egiten dute eta aurrekontuak gora: autofinantzaketak behera egingo du.

Formula orokor moduan esan daiteke zenbat eta gertuago izan sarrera pribatuak eta aurrekontua, zenbat eta berdintsuagoak izan bi kopuru horiek, zatiketaren emaitza hobea izango dela, 1etik gertuago egongo da eta horrek adieraziko luke hedabideak bere sarrera propioekin estaltzen duela aurrekontuaren zati handia. Egoera ideala, noski, sarrera pribatuak eta aurrekontua berdinduta dituen litzateke, egoera horretan %100eko finantzaketa lortuko litzateke eta.

Ondoko taulak erakusten du euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatuak, finantzaketa-maila propioaren arloan 2005-2013 tartean izan zuen bilakaera. Azterketa egiteko, epealdiaren hasieran (2005) eta amaieran (2013) ziren eguneroko finantzaketa-datuak hartu dira kontuan. Denbora horretan ibilbide gorabeheratsua izan dutenen kasuan, zehaztapenen bat egin behar izan ezker, datuen irakurketan ageriko da.

97. taula. Euskarazko eguneroko prentsa inprimatuaren autofinantzaketa-maila⁴⁹⁰, 2005 eta 2013 (%).

	2005	2013	2005-2013	Urterik onena eta %	
Berria	82,1	74,2	-7,9	2005	82,1
Goierriko Hitza	48,2	57,4	9,2	2008	61,4
Hernaniko Kronika	52,9	55,2	2,3	2011	59,2
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza ⁴⁹¹	64,3	63,6	-0,7	2012	68,7
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	63,8	53,2	-10,6	2006	67,4
Urola Kostako Hitza	55,2	52,5	-2,7	2007	60,3

Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatua.

⁴⁹⁰ - Autofinantzaketa-mailari dagokionez, HPSren tauletan bi dezimalekin ageri dira. Hemen dezimal bakarra jartzea erabaki da, ikerketa osoan hala egin delako. Balorazio- edo arazketa-tauletan bi dezimalekin ageri diren zenbakietan dezimal bakarrera ekartzeko borobildu egin dira datuak, hau da, bigarren dezimala 5 edo handiagoa denean lehenengo dezimala gora borobildu da, eta bigarren dezimala 5 baino txikiagoa denean bere horretan utzi da.

⁴⁹¹ - Gogoratu 2005 urtean *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* bezala kaleratzen zela.

2005-2013 urte-segida kontuan hartuta, *Berria* egunkariak agertu du beti finantzaketa-maila propiorik altuena, bi herenetik gorakoa. Gainontzekoei dagokienez, gorabeherak diren arren, oro har esan daiteke denek lortu zutela aurrekontuaren erdia gutxienez sarrera propioekin estaltzea.

Egunerokoen multzoko hedabide bakoitzak ikergaitzat hartu den denbora-tartean egindako bidea erreparatu ezker, ibilbide edo joera desberdinak ageri dira 2013 urtean kalean zeuden euskarazko sei egunerokoen artean:

1.- Horietako bik autofinantzaketa hobea zuten 2013an 2005ean baino: *Goierriko Hitzak* eta *Hernaniko Kronikak*.⁴⁹² Lehenengoaren kasuan, gainera, ia hamar puntu irabazi zituen, nahiz eta biek ere azken urtekoa baino finantzaketa propio hobea izan zuten beste urteren batean.

2.- Beste batek, *Lea-Artibai*, *Mutriku* eta *Busturialdeko Hitzak* ia portzentaje berari eusten dio. Goranzko joera erakutsi zuen 2012ra arte, baina 2013an behera egin zuen⁴⁹³.

3.- Gainontzeko hirurei dagokienez (*Berria*, *Tolosaldeko* eta *Leitzaldeko Hitza* eta *Urola Kostako Hitza*), finantzaketa-maila eskasagoa zuten 2013an 2005en baino. Horien artean badira aipatzeko moduko bi kontu: batetik, *Berria* egunkariaren kasuan autofinantzaketak urtero egin duela behera, beste bi egunerokoetan, ordea, bitarteko urteren batean 2005ean baino finantzaketa-maila hobegoren bat izan dute, gero behera egin arren; bestetik, *Tolosaldeko* eta *Leitzaldeko Hitzak* ia hamaika puntu galdu zituen 2005etik 2013ra. Galera erraz ulertu daiteke, hedabide horren sarrera pribatuek

⁴⁹² .- *Goierriko Hitzaren* kasuan, 2005-2013 bitartean, sarrera pribatuek behera egin zuten (278.154 eurotik 252.596 eurora), baina are beherago egin zuten aurrekontuek (577.453 euro 2005ean eta 439.706 euro 2013an); ondorioz, finantzaketa-maila propioak gora egin zuen. *Hernaniko Kronikan* beste era batera azaltzen da finantzaketa-mailak denbora tarte berean izandako igoera: aurrekontuek gora egin zuten (280.000 eurotik 295.000 eurora) eta sarrera pribatuek ere kopuru berean egin zuten gora (2005eko 148.000 eurotik 2013ko 163.000 eurora). Baina 2013an sarrera pribatuek izandako hazkundera aurrekontuak izandakoa baino handiagoa izan zenez, bien arteko zatiketa egitean autofinantzaketa-maila handiagoa ateratzen da.

⁴⁹³ .- *Lea-Artibai*, *Mutriku* eta *Busturialdeko Hitzak* bi egitasmo bezala funtzionatu zuen tartean ondoko portaera erakutsi zuen autofinantzaketari dagokionez: 2005-2010 bitartean aritu zen *Lea-Artibai*, *Mutriku* eta *Busturialdeko Hitzak* %64,3tik %68,9rako jauzia egin zuen; hortaz, hoberako bidea. 2006-2010 bitartean aritu zen *Busturialdeko Hitzak* ere gora egin zuen, baina askoz maila apalagoan; hala, 2006 urtean %42,9ko autofinantzaketa-maila zuen, eta 2010ean %47,0koa. Biak egitasmo bakarrean abiatu zirenean, 2011n, % 66,1eko autofinantzaketa-maila erakutsi zuten.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

eta aurrekontuek nolako harremana izan zuten kontuan hartzen bada; izan ere, 2005etik 2013ra aurrekontuak %14,5 egin zuen behera, eta sarrera pribatuen kopuruak are gehiago, %28,6raino. Ondorioz, autofinantzaketa-maila kalkulatzeko egiten den zatiketaren emaitza txikiagoa bilakatu zen⁴⁹⁴.

Azkenik, 2005-2013 epealdian eguneroko argitalpenen multzoan izatetik aldizkakoenean izatera igaro ziren bi hedabideen bilakaera:

98. taula. Oarso Bidasoko Hitza eta Irutxuloko Hitza hedabideen autofinantzaketa-maila, 2005-2013 (%).

	2005	2013	2005-2013	Urterik onena eta %	
Oarsaldeko/Oarso Bidasoko Hitza	58,8	59,1	+0,3	2007	66,0
Irutxuloko Hitza	52,9	45,7	-7,2	2005	52,9

*Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatua.*

Oarso Bidasoko Hitzak ia datu berbera erakutsi zuen 2005ean eta 2013an, asteroko gisa ekin zion urtean. Hala ere, bere autofinantzaketa-mailarik onena 2007koa izan zen. *Irutxuloko Hitzak* zazpi puntu baino gehiago galdu ditu epealdi osoan; beti behera egin du, 2012an, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza eskatzeko egunerokoen multzoan aurkeztu zen azken urtean %47,1eko finantzaketa-maila propioa zuen, eta hurrengoan, dagoeneko astekari bezala kaleratu zenean, oraindik autofinantzaketa txikiagoa zeukan.

5.2.1.1.3. EGUNEROKO PRENTSA INPRIMATUAREN MAIZTASUNAK, BOTALDIAK ETA ORRI-KOPURUAK

Hedabideen egoera ekonomikoak, hau da, aurrekontuaren eta finantzaketa-maila propioaren gorabeherek modu sakonean baldintzatu ditzakete hedabideen beste zenbaki batzuk ere; esaterako, tiradak, orrialde-kopuruak eta maiztasunak. Zenbat eta egoera ekonomikoa osasuntsuagoa eta sendoagoa izan hedabide batek, orduan eta

⁴⁹⁴ .- *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak* 307.097 euroko sarrera pribatuak izan zituen 2005ean eta aurrekontua 481.533 eurokoa izan zen. Hortaz, autofinantzaketa $302.097 : 481.533 = 0,637$; ehunekotan 63,7. 2013an, berriz, sarrera pribatuak 219.077 eurokoak eta aurrekontua 411.755 eurokoa; ondorioz, autofinantzaketa %53,2koa.

aukera gehiago ditu beste hiru adierazle horietan hobekuntzak gerta daitezzen. Tiradak, orrialde-kopuruak eta maiztasunak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2013 bitarteko deialdien ebazpen-proposamenak egiteko erabili izan dituen arazketa-tauletan ageri dira.

99. taula. Euskarazko eguneroko prentsa inprimatuaren maiztasunak (astean//urtean), orrialde-kopuruak eta botaldiak, 2005 eta 2013.

	Maiztasuna (astean // urtean)		Orrialde-kopurua (ale bakoitzak)		Botaldia (zenbaki bakoitzeko)		
	2005	2013	2005	2013	2005	2013	05/13
Berria	6 // 310	6 //310	64	42	22.000	16.500	-5.500
Goierriko Hitza	6 // 285	4 //184	8	8	8.500	5.800	-2.700
Hernaniko Kronika ⁴⁹⁵	7 // 362	7 //362	4	4	3.600	4.600	+1.000
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza ⁴⁹⁶	6 // 281	4 //182	8	8	5.300	6.700	+1.400
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	6 // 285	4 //185	8	8	7.500	4.500	-3.000
Urola Kostako Hitza	6 // 285	4 //182	8	8	7.700	5.100	-2.600
Oarso Bidasoko Hitza ⁴⁹⁷	6 // 287	Asterokoa Urtean 45	8	16	6.000	4.400	-1.600
Irutxuloko Hitza	6 // 248	Asterokoa Urtean 44	12	16	10.000	3.950	-6.050

Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-taulak. Tesiaren egileak moldatua.

Taulan jasotako datuek argiro erakusten dute maiztasunari erreparatuta, bi talde bereizi daitezkeela:

1.- Maiztasunari eutsi dioten egunerokoak: *Hernaniko Kronika* eta *Berria*.

2.- Maiztasunean behera egin dutenak: gainontzekoak. Horien artean galerarik handienak *Irutxuloko Hitza* eta *Oarso Bidasoko Hitza* izan dituzte, egunerokotasuna galdu eta asterokoak bilakatu direlako.

⁴⁹⁵ .- *Hernaniko Kronika* aste barruan bi orrialde argitaratu izan ditu 2005-2013 bitartean eta asteburutan 8. Hala ere, arazketa-tauletan 4 orrialde jarri dizkiote aipatu epealdian.

⁴⁹⁶ .- 2005 urtean ez zuen *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza* bezala funtzionatzen, bere ordez *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* zegoen, asteen 6 eguneko maiztasuna zuena.

⁴⁹⁷ .- 2005ean oraindik *Oarsoaldeko Hitza* zen.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Beste horrenbeste esan dezakegu orrialde-kopuruari dagokionez:

1.- 2005eko orrialde-kopuruari eutsi egin diotenak: *Goierriko Hitza*, *Hernaniko Kronika*, *Tolosako eta Leitzaldeko Hitza*, *Urola Kostako Hitza* eta *Lea-Artibai*, *Mutriku eta Busturialdeko Hitza*⁴⁹⁸.

2.- Argitaratutako orrialde-kopuruetan galerak izan dituztenak: *Berria*. Orrialdeen herena, zehatzago esateko, %34,4 galdu du 2005-2013 bitartean⁴⁹⁹.

3.- *Irutxuloko Hitza* eta *Oarso Bidasoko Hitza*: bi hedabide hauen kasuan azken urtean, 2013an, gora egin dute orrialde-kopuruan, baina igoera maiztasunean behera egitearen truke gertatu da. *Irutxuloko Hitzak* urterik onena, orrialde-kopuruari dagokionez, 2011 izan zuen: 14 orrialde.

Eta botaldiei erreparatu ezker:

1.- Euskarazko prentsa inprimatuaren multzoan bi hedabidek tirada handiagoa dute 2013an 2005ean baino. *Hernaniko Kronikak* 1.000 ale irabazi ditu, hots, %28 igo du tirada. *Lea-Artibai*, *Mutriku eta Busturialdeko Hitzak*, berriz, %26,4 irabazi du⁵⁰⁰.

2.- Gainontzekoek murriztu egin dute botaldia denboran zehar. Ehunekotara ekarrita *Berria* egunkariak %24,4 egin du behera, *Goierriko Hitzak* %31,8, *Tolosako eta Leitzaldeko Hitzak* %40, *Urola Kostako Hitzak* %33,8, *Irutxuloko Hitzak* %60,5 eta *Oarso Bidasoko Hitzak* %26,7.

Azkenik, aurreko taulan jasotako informazioak aukera ematen du urtean euskaraz zenbat orri sortu eta inprimatu den ikusteko:

⁴⁹⁸ .- *Lea-Artibai*, *Mutriku eta Busturialdeko Hitza* 10 orrialde izatera heldu zen bi urtetan, 2011n eta 2012an.

⁴⁹⁹ .- Bi unetan galdu ditu *Berria* egunkariak orrialde gehien; 2007an, 64 orrialde izatetik 56 izatera igaro zen, eta 2011n, 52 orrialde izatetik 42 izatera.

⁵⁰⁰ .- Botaldiaren igoera 2011n gertatu zen, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak* eta *Busturialdeko Hitzak* elkarrekin bat eginda aritu zirenean. Baina 2011tik aurrerako 6.700 aleko botaldia ez da iritsiko banaka kaleratzen zirenean zituzten botaldien batuketa izatera. 2010ean *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak* 4.200 aleko botaldia zuen eta *Busturialdeko Hitzak* 4.000 alekoa.

100. taula. Euskarazko eguneroko prentsa inprimatuak sortutako eta inprimatutako orrialde-kopuruen bilakaera, 2005 eta 2013.

	Urtean sortutako orrialde-kopurua		Urtean inprimatutako orrialde-kopurua	
	2005	2013	2005	2013
Berria	19.840	13.020	436.480.000	214.830.000
Goierriko Hitza	2.280	1.472	19.380.000	8.537.600
Hernaniko Kronika	1.448	1.448	5.212.000	6.660.800
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	2.248	1.456	11.914.400	9.755.200
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	2.280	1.480	17.100.000	6.660.000
Urola Kostako Hitza	2.280	1.456	17.556.000	7.425.600
Oarso-Bidasoko Hitza ⁵⁰¹	2.296	-	13.776.000	-
Irutxuloko Hitza ⁵⁰²	2.976	-	29.760.000	-
GUZTIRA	35.648	20.332	551.178.400	253.869.200

Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatua.

Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatuaren sektoreak 2013an 2005ean baino 15.316 orrialde gutxiago sortu zituen; hau da, portzentajetan, sortutako orrialdeen kopuruak %43 egin zuen behera. Eragiketa inprimatutako zenbakiakin egin ezkerro, jaitsiera are handiagoa da, 2013an 2005ean baino 297.309.200 orrialde gutxiago inprimatu baitziren; hots, %54ko galera. Banan banakako portaerari dagokionez, 2013an eguneroko bakar batek ere ez zuen 2005ean baino orrialde gehiago sortu; hala ere, *Hernaniko Kronika* izan zen inprimatutako kopuruak hobetu zituen (%27,8), denbora-tarte horretan botaldiak igoera izan zuelako. Gainontzekoen emaitzak, esan bezala, galeretan neurtzen dira; orrialde-kopuruetan *Berriak* izandako %34,3ko jaitsieratik *Urola Kostako Hitzaren* %36,1erainokoak. Egunerokoak izateari

⁵⁰¹ .- *Oarso Bidasoko Hitza* 2013ko deialdian aldizkako multzoan zegoen kokatuta; beraz taula honetan ez dira kontabilizatuko 2013an sortu eta inprimatutako orrialdeak. Horiek aldizkakoei dagokien taulan agertuko dira.

⁵⁰² .- *Irutxuloko Hitzarekin Oarso Bidasoko Hitzarekin* gertatu zen kontu bera dago. 2013ko deialdian eguneroko multzoan izateari utzi eta aldizkako multzora joan zen. Hortaz, taula honetan ez dira kontabilizatuko 2013an sortu eta inprimatutako orriak. Horiek aldizkakoei dagokien taulan agertuko dira.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

utzi eta asterokoak bihurtu ziren *Oarso Bidasoko Hitzak* eta *Irutxuloko Hitzak*, berriz, askoz galera handiagoak izan zituzten, %68,6 eta %76,3koak hurrenez hurren. Horiei dagozkien 2013ko zenbakiak ez dira taula honetan jarri, geroago landuko den udalerrri eta eskualdeetako informazio orokorreko aldizkariekin batera kontabilizatuko baitira. Eta inprimatutako orrialdeetan gertatu den portzentaje-aldaketa kalkulatu ezker, *Lea-Artibai*, *Mutriku* eta *Busturialdeko Hitzak* izan zuen beherakadarik txikiena, %18,1ekoa⁵⁰³. Besteenak, *Berriaren* %50,8tik *Tolosaldeko* eta *Leitzaldeko* Hitzaren %61era bitartekoak dira. Eta berriro ere emaitzarik txarrenak *Oarso Bidasoko* eta *Irutxuloko* Hitzak izan zituztela baieztatu behar da, inprimatutako orrietan %79 eta %90,6 galdu zutelako hurrenez hurren 2005etik 2013ra⁵⁰⁴.

Arestiko taulan ez daude kuantifikatuta egunerokoek 2005-2013 bitartean kaleratu zituzten gehigarriak. Eta ez daude, besteak beste, diru-laguntzen esleipenak egiteko 2005ean eta 2006an erabili ziren balorazio-tauletan ez dagoelako gehigarriei buruzko informaziorik, bai ordea 2007koetan. Gehigarrietan sortutako eta inprimatutako orrialdeak ere kontuan hartuko balira, 2005etik 2013rako beherakada zertxobait arinduko litzateke; izan ere, 2007an 8 hedabideek 3.389 orrialde sortu zituzten gehigarriekin (64.694.800 orrialde inprimatuta) eta 2013an berriz, 5.024 orrialde sortu zituzten eta horiekin 75.110.800 inprimatu ziren.

Euskarazko eguneroko prentsaren arloan orain arte aurkeztutako informazio guztia taula bakar batera ekarrita, ondokoa genuke:

⁵⁰³ .- Hala ere, tentu handiz irakurri behar da datu hori. Izan ere, ez daude kontabilizatuta 2006-2010 bitartean funtzionatu zuen *Busturialdeko Hitzaren* orrialde-kopuruak. Horiek ere batuko bagenitu, testuan aipatzen den %18,1eko beherakada handitu egingo litzateke. 2010ean, esaterako, *Busturialdeko Hitzak* 6.832.000 orrialde inprimatu zituen urtean eta horiek ez daude 2013an.

⁵⁰⁴ .- *Oarso Bidasoko Hitzak* eta *Irutxuloko Hitzak* 2013an inprimatu zituzten orrialde-kopuru zehatzak, sortutakoekin egin bezala udalerrri eta eskualdeetako informazio orokorreko aldizkarien datuekin osatutako taulan kontabilizatuko dira.

101. taula. Euskarazko eguneroko prentsaren bilakaera orokorra, 2005-2013.

	Aurrekontua	Finantzaketa-maila propioa	Maiztasuna	Orrialde-kopurua	Botaldia
Berria	↓	↓	=	↓	↓
Goierriko Hitza	↓	↑	↓	=	↓
Hernaniko Kronika	↑	↑	=	=	↑
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	↓	↓	↓	=	↑
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	↓	↓	↓	=	↓
Urola Kostako Hitza	↓	↓	↓	=	↓
Oarso Bidasoko Hitza	↓	=	↓	↑	↓
Irutxuloko Hitza	↓	↓	↓	↑	↓

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Landutako adierazle guztiak aintzat hartuta, *Hernaniko Kronikak* erakutsi du 2005-2013 bitartean bilakaerarik onena. Gainerako egunerokoetan beherako bidea da nagusi, nahiz eta kasu bakanen batean baden gorako joera agertu duen adierazleren bat. Hala ere, gorako joera duten horiek ere tentu handiz interpretatu beharrekoak dira. Izan ere, *Goierriko Hitzak* autofinantzaketa-mailan duen gorako ikurra ez da gertatu aurrekontuek edo sarrera pribatuek hobera egin dutelako; *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzak* botaldi zenbakietan izan duen hazkundera bi egunerokoek une zehatz batean, 2011n, bat egiteari zor zaio, eta *Oarso Bidasoko Hitzak* eta *Irutxuloko Hitzak* orrialde-kopuruetan irabazi dutena maiztasunean izandako galeraren ondotik etorri da.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

5.2.1.1.4. EGUNEROKO EUSKARA HUTSEZKO PRENTSA INPRIMATUAREN SALMENTAK

Inprimatutako edozein hedabidek, ez soilik hizkuntza txikietan landutakoak, denboran zehar izan duen bilakaera ezagutzeko balio handia duen beste datua salmentena da. Harpidetza ordainduaren zein saltoki bidez gauzatu daiteke salmenta, eta zalantzarik gabe, sektorearen bilakaera orokorra eta banan banakoa arakatzea ahalbidetzen duen informazioa eskaintzen du.

Diru-laguntzen esleipenak egiteko erabili izan diren balorazio-taletan jasota daude salmenta-kopuruak⁵⁰⁵. Horien arabera, ondokoa litzateke izan duten bilakaera:

102. taula. Berria, Goierriko Hitza, Hernaniko Kronika, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza eta Urola Kostako Hitzaren salmenta, 2005 eta 2013.

	Salmenta 2005	Salmenta 2013
Berria	20.000	13.500
Goierriko Hitza	2.986	3.250
Hernaniko Kronika	2.000 ⁵⁰⁶	0
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	3.069	2.325
Urola Kostako Hitza	3.509	3.763

Iturria: HPSK 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-taulak. Tesiaren egileak moldatua.

2005-2013 bitartean, *Berriak* eta *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzaren* salmentak behera egin zuen, *Urola Kostako Hitzak* eta *Goierriko Hitzak*, ordea, gora eta azkenik, *Hernaniko Kronika* ez zen saltzen⁵⁰⁷.

Denboran zehar berrantolatu den *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzaren* kasuan, salmentak gorako bidea egin duela esan daiteke. Hala ere, garai batean bi hedabide zirenek bat egin ondoren ez dute lortuko 2005ean biak batuta zuten beste saltzea.

⁵⁰⁵ .- 2007 urtekoan izan ezik.

⁵⁰⁶ .- 2005eko esleipenak egiteko erabili zuten balorazio-taulan 2.000 aleko salmenta ageri da *Hernaniko Kronikarentzat*, 2006an erabilitakoan, berriz, salmentari dagokion zutabearen ohar hauxe ageri da: "3.700 ale. Ez da saltzen. %100 zabaldu". Hau da, 3.700 aleko botaldia zuela, ez zela saltzen eta ale guztiak zabaltzen zirela. Ondorengo deialdi guztietako balorazio-taletan, *Hernaniko Kronikak* 0 zenbakia izango du salmenta-datuak jasotzeko zutabearen.

⁵⁰⁷ .- *Hernaniko Kronika* eskuragarri izaten da dohainik hainbat puntutan: kioskoetan, okindegietan...

103. taula. *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzaren salmenta, 2005-2013.*

	Salmenta 2005	Salmenta 2013
Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza (2005-2010)	3.079	-
Busturialdeko Hitza (2006-2010)	(2006) 3.800	-
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza (2011-2013)	(2011) 4.000	6.650

Iturria: HPSk 2005, 2006, 2011 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

*Oarso Bidasoko Hitzaren salmentak gora egin du 2005etik 2012ra bitartean, eguneroko bezala funtzionatu zuen epealdi osoan*⁵⁰⁸.

104. taula. *Oarso Bidasoko Hitzaren salmenta, 2005-2012.*

	Salmenta 2005	Salmenta 2012
Oarsoaldeko Hitza (2005-2010)	1.858	-
Oarso Bidasoko Hitza (2011-2013)	2.223	2.500

Iturria: HPSk 2005, 2011 eta 2012 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Azkenik, *Irutxuloko Hitzak* saldutakoak ia erdira etorriko dira 2005-2012 bitartean, portzentajetan % 45 egiten du behera salmentak⁵⁰⁹.

105. taula, *Irutxuloko Hitzaren salmenta, 2005-2012.*

	Salmenta 2005	Salmenta 2012
Irutxuloko Hitza	2.933	1.612

Iturria: HPSk 2005 eta 2012 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Hortaz, salbuespenak salbuespen, euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatuaren salmenta-datuak txarrera egin dute urteekin. Batzuen kasuan, *Berria* eta *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza*, esaterako, beherakada etengabea izan da urterik urtera; beste batzuenean, ordea, *Urola Kostako Hitza* eta *Goierriko Hitza* hain zuzen, 2005-2013 urte bitartean izan dute 2013an baino salmenta hobeak ekarri dituen beste urteren bat⁵¹⁰.

⁵⁰⁸ .- Egunerokoa izatetik, aldizkako izatera igaro zen urtean, 2013an, salmenta-datuak behera egin zuen: 2013an, 2.400 saldu zituen, arazketa-tauletako informazioaren arabera.

⁵⁰⁹ .- Egunerokoa izatetik aldizkakoa izatera igaro zen urtean, 2013an, salmenta-datuak hobera egin zuen: 2013an, 2.150 alde saldu zituen, arazketa-tauletan jasotako informazioaren arabera.

⁵¹⁰ .- *Urola Kostako Hitzak* 2009an saldu zuen gehien (3.924 ale zenbaki bakoitzeko) eta *Goierriko Hitzak* 2012an (3.370 ale zenbaki bakoitzeko).

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

5.2.1.2. INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIAK ETA ALDIZKARI ESPEZIALIZATUAK

“Hedabideak” deialdiaren diru-laguntzak informazio orokorreko eta informazio espezializatuko 36 aldizkari desberdinetara iritsi dira, 2005-2013 bitartean. Denbora tarte horretan, batzuk desagertuz eta beste batzuk sortuz joan dira; baina balantze orokorrak ez du galerarik izan onuradunen kopuru orokorrari begiratuta: 2005ean, 23 aldizkari izan ziren diru-laguntzen onuradun, eta 2013an, beste horrenbeste: 23 aldizkari. Horietatik urtero urtero jaso dituztenen nukleo trinkoa hamabik osatzen dute: *Argia astekaria, Jakin, BAT soziolinguistika aldizkaria, HEMEN erlijio gogoetarako aldizkaria, Elhuyar zientzia eta teknologia aldizkaria, Bertsolari, Uztaro, giza eta gizarte zientzien aldizkaria, Euskal Herriko Natura, Gazteberri, Aizu! aldizkaria, Gaztezulo eta Egan literatur aldizkaria*. Beste muturrean leudeke 2005-2013 bitartean urte bakar batean onuradun izan diren 7 aldizkariak; kasu batzuetan, 2005ean (*Zabalik, Ostiela, Mantangorri, Xirika* eta *Matraka*), eta gainontzekoek, 2013an hasi zuten ibilbidea (*Ekai center* eta *Hazi hezi etxerako heziketarako aldizkaria*).

106. taula. "Hedabideak" deialdiko laguntza jaso duten informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen bilakaera, 2005-2013.

	Laguntzen onuradunak
9 urtean: 12 aldizkari	<i>Aizu!, Argia, BAT soziolinguistika aldizkaria, Bertsolari, Egan, Elhuyar zientzia eta teknologia aldizkaria, Euskal Herriko Natura, Gazteberri, Gaztezulo, Hemen erlijio gogoetarako aldizkaria, Jakin eta Uztaro.</i>
8 urtean: 1	<i>Xabiroi komikia: 2006-2013</i>
7 urtean: 2 aldizkari	<i>Nabarra aldizkaria: 2005-2011 GAUR8 astekaria: 2007-2013</i>
6 urtean: 3 aldizkari	<i>Aldaketa hamasei: 2005-2010 Ekonomiaren KZ eta Zazpi Haizetara: 2008-2013</i>
5 urtean: 3 aldizkari	<i>Nora: 2008 - 2012 Gazteon KZ eta +/- 18 presta ezazu zure etorkizuna: 2009 - 2013</i>
4 urtean: 4 aldizkari	<i>Ipurbeltz: 2005 - 2008 Karmel: 2005 - 2007 eta 2009 Lanabesa: 2009 - 2012 Aldiri, arkitektura eta abar: 2010 - 2013</i>
3 urtean: 3 aldizkari	<i>Aisia biziz eta Entzun musika aldizkaria: 2005 - 2007 Karramarro aldizkaria: 2011 - 2013</i>
2 urtean: 1	<i>Irria: 2012 - 2013</i>
Urte bakarra: 7 aldizkari	<i>Mantangorri, Matraka, Ostiela, Xirika eta Zabalik,: 2005 Ekai center eta Hazi hezi: 2013</i>
GUZTIRA	36 ALDIZKARI

Iturria: 2005-2013 urte bitarteko ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Multzo honetako azterketa burutzeko, hamasei aldizkari hartuko dira aintzat, zehatzago esateko, 2005-2013 bitartean sei, zazpi, zortzi eta bederatzi urtez laguntzak jaso dituzten eta oraindik kaleratzen diren hamaseiak⁵¹¹. Hala egitea erabaki da bi arrazoiengatik: batetik, bost urtez azpitik laguntza jaso zuten aldizkari asko dagoeneko ez direlako kaleratzen, eta bestetik, eguneroko prentsaren multzoan egin bezala 2005-2013 bitartean ahalik eta urte segida luzeena hartu nahi delako, onuradunek denboran zehar izan duten bilakaera lantzeko. Hortaz, bederatzi urte hartzen dituen epealdia dela kontuan hartuta, bi hereneko tartea hautatu da.

Azterketan lehenbizi 2005-2013 epealdi osoan diru-laguntzak jaso dituzten hamabiak aurkeztuko dira; horien ondoren landuko da zortzi urtean laguntza jaso duen *Xabiroi* aldizkaria, gero zazpi urtean onuradun izan den *GAUR8*, eta azkenik, sei urtean

⁵¹¹ .- *Aldaketa hamasei* eta *Nabarra* aldizkariak ere betetzen dute baldintza, baina desagertu egin ziren.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

diru-laguntza izan duten *Ekonomiaren KZ* eta *Zazpi Haizetara* aldizkarien bilakaera landuko da.

5.2.1.2.1. INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIEN ETA ALDIZKARI ESPEZIALIZATUEN AURREKONTUAK

Multzo honetako hedabideek eguneroko prentsak baino askoz aurrekontu xumeagoak kudeatu dituzte 2005-2013 bitartean. Hala ere, badira salbuespenak. Horietatik aipagarriena *Argia* astekaria da, eta maila apalagoan aipatu daitezke *GAUR8*, *Elhuyar zientzia eta teknologia aldizkaria*, *Gaztezulo*, *Aizu! Jakin* eta *Zazpi Haizetara*.

107. taula. Informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen aurrekontuak, 2005 eta 2013.

	Aurrekontua 2005 (€)	Aurrekontua 2013 (€)	2005-2013 (€)	2005-2013 (%)
Aizu!	215.809	216.469	+660	+0,3
Argia	1.571.900	820.500	-751.400	-47,8
BAT	61.300	55.250	-6.050	-9,9
Bertsolari	76.000	76.000	0	0
Egan	46.700	14.125	-32.575	-69,7
Elhuyar	461.399	253.084	-208.315	-45,1
Euskal Herriko Natura	37.625	30.240	-7.385	-19,6
Gazteberri	245.000	36.000	-209.000	-85,3
Gaztezulo	238.787	278.000	+39.213	+16,4
Hemen	28.467	43.382	+14.915	+52,4
Jakin	204.642	180.045	-24.597	-12,0
Uztaro	29.000	33.895	+4.895	+16,9
	Aurrekontua 2006 (€)	Aurrekontua 2013 (€)	2006-2013 (€)	2006-2013 (%)
Xabiroi	99.071	110.242	+11.171	+11,3
	Aurrekontua 2007 (€)	Aurrekontua 2013 (€)	2007-2013 (€)	2007-2013 (%)
GAUR8	477.240	391.000	-86.240	-18,1
	Aurrekontua 2008 (€)	Aurrekontua 2013 (€)	2008-2013 (€)	2008-2013 (%)
Ekonomiaren KZ	75.000	81.235	-6.235	-8,3
Zazpi Haizetara	442.600	307.000	-135.600	-30,6

Iturria: HPSk 2005, 2006, 2007, 2008 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-taulak. Tesiaren egileak moldatua.

Taulan jasotako zenbakiek zenbait baieztapen egiteko beta eskaintzen dute:

1.- Aldizkari gehien kasuan, aurrekontuak txikituz joan dira denboran zehar. Zenbaki absolutuei begiratuta, 2005ean aurrekonturik handiena zutenak dira 2013an jaitsiera handienak izan zituztenak (*Argia*, *Elhuyar*, *Gazteberri*, *Zazpi Haizetara* eta *GAUR8*). Portzentajeak kontuan hartuta, ordea, beste hurrenkera bat dago, *Gazteberri* delako, alde handiarekin gainera, ikergaitzat hartutako epealdian beherakadarik handiena izan zuen hedabidea⁵¹². Horren ondoren, beste hiru kasu dira nabarmentzekoak: lehena *Egan*, ia %70eko aurrekontu jaitsierarekin, bigarrena, beti multzoko diru gehien kudeatu duen *Argia* astekaria, 2005ean zuenaren ia erdira joan zelako aurrekontua 2013an (%47,8ko beherakada), eta hirugarrena, *Elhuyar* %45,1eko murrizketarekin. Aipatzekoa ere *Zazpi Haizetara* aldizkariak %30 egin zuela behera. Hortaz, taulako bigarren zutabea, 2013ko aurrekontuei dagokiena, hedabideen zenbakien arabera aurkeztu beharko balitz, aldaketak egin beharko liriateke horien hurrenkeran.

2.- Hala ere, badira 2013an 2005ean baino aurrekontu handiagoa kudeatu zuten aldizkariak ere. Horien artean, *Gaztezulo* da zenbaki absolututan gehien irabazi duena (%16,4). Portzentajetan *Hemen eta Uztaro* nabarmentzen dira⁵¹³.

3.- Aztertutako aldizkari ia guztien kasuan, aurrekonturik handiena ez da izan 2005ekoa ezta 2013koa ere. Bitarte horretako beste urteren batean izan dute kutxa osasuntsuen. Adierazitakoak salbuespen bikoitza du: *Gazteberri* 2005ean izan zuen daturik onena, eta *Hemen erlijio gogoetarako aldizkaria* da 2013an urte segida osoko gasturako zenbakirik oparoena izan zuen hedabide bakarra. Beste kasu batean ere, *Zazpi Haizetara*, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuen lehen urtean (2008) izan zuen aurrekonturik handiena.

⁵¹² .- *Gazteberri* aldizkariaren aurrekontuak behera egin du urtero 2005etik, baina murrizketarik gogorrena; %30,6koa, 2012an gertatu zen: *Gazteberri* 117.750 euroko aurrekontua izan zuen 2011n, hurrengo urtean, 2012an, berriz, 36.000koa.

⁵¹³ .- Ehunekotan *Hemen*, *erlijio gogoetarako* aldizkariaren aurrekontuak egin du gehien gora, %52,4. Dena den, *Gaztezulo* eta *Hemenen* zenbaki guztiak alderatuta, esanguratsuagoa da lehenak izan duen bilakaera. Beste horrenbeste gertatzen da *Uztaro* aldizkariarekin, baina kasu honetan ere aurrekontua zenbaki absolututan 4.895 eurotan handitzeak aldaketa handia eragiten du portzentajearen (%16,9).

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

4.- Aurrekonturik handiena izan zuten urteari dagokionez, ezin daiteke esan urte bat nabarmentzen denik⁵¹⁴.

5.- Bitxikeria bezala esan *Bertsolari* aldizkariak zenbaki berberak zituela 2005-2013 epealdiko lehen eta azken urteetan. Dena den, bere daturik onena 2008koa da, 83.200 euroko aurrekontuarekin.

6.- Aurreko taulan ageri ez diren gainontzeko hedabideei erreparatuta, joera bera erakusten dute, beherakoa alegia⁵¹⁵.

Egunerokoekin bezala, aldizkakoen kasuan aurrekontuen banakatzea aztertuko ezkerro datu interesgarriak ageri dira.

⁵¹⁴ .- Taulan ageri diren hamasei hedabideen kasuan batek du aurrekonturik onena 2005ean (*Gazteberri*), hiruk 2006an (*Argia*, *Elhuyar* eta *Jakin*), batek 2007an (*GAUR8*, aurrekontu bera izan zuen 2008an ere), lauk 2008an (*Gaztezulo*, *Bertsolari*, *Euskal Herriko Natura* eta *Zazpi Haizetara*), hiruk 2009an (*Egan*, *Ekonomiaren KZ* eta *Xabiroi*), batek 2010ean (*Aizu!*), bik 2011n (*Bat* eta *Uztaro*) eta beste batek 2013an (*Hemen*).

⁵¹⁵ .- *Irria* aldizkariaren aurrekontuak gora egiten du, baina 2011n sortu zen, eta ondorioz, ikertutako epealdian bi urtean bakarrik jaso zuen diru-laguntza, 2012an eta 2013an.

108. taula. Informazio orokorreko aldizkariaren eta aldizkari espezializatuen aurrekontuen banakatzera, 2007 (€).

Egitasmoa	Aurrekontua	Langileak	Funtzionamendua	Produktzioa	Bestelakoak
Aizu!	233.915	130.012	24.078	54.400	15.425
Argia	1.049.590	500.130	202.030	261.180	86.250
BAT	64.670	35.030	15.052	11.700	2.888
Bertsolari	79.300	16.000	37.900	19.000	6.400
Egan	57.300	11.400	24.000	18.000	3.900
Elhuyar	271.047	188.804	27.413	36.500	18.330
Euskal Herriko Natura	36.600	12.500	5.100	19.000	00 ⁵¹⁶
Gazteberri	147.500	35.000	7.500	85.000	20.000
Gaztezulo	316.624	136.874	71.280	74.032	34.438
Hemen	33.234	5.259	16.043	10.567	1.355
Jakin	187.922	108.366	53.910	19.607	6.039
Uztaro	30.850	16.000	7.450	5.450	1.950
Xabiroi	101.272	23.117	53.255	20.250	4.650
GAUR8	477.240	113.000	163.240	201.000	00 ⁵¹⁷
Ekonomiaren KZ ⁵¹⁸	75.000	30.000	4.510	35.490	5.000
Zazpi Haizetara ⁵¹⁹	442.600	79.500	177.600	177.000	15.000

Iturria: HPSk 2007 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Zerrendan dauden hedabideetatik, ia erdien kasuan (hamaseitik zazpi), langileei bideratutakoa izan zen 2007an diru-partidarik handiena, *Gaztezuloren* %43,2 eta *Elhuyarren* %69,6 artekoa. Hala gertatzen denean, informazio orokorra eta espezializatua eskaintzen duten aldizkariak diru gehiago jartzen zuten langileen soldatak, gizarte-gastuak eta abarrak ordaintzeko egunerokoak jartzen zutena baino. Beste bost hedabidetan funtzionamendu-gastuak gailentzen ziren (*Bertsolari*, *Egan*, *Hemen*, *Xabiroi* eta *Zazpi Haizetara*), eta gainontzeko lau aldizkaritan produktioari lotutakoak (*Gazteberri*, *Euskal Herriko Natura*, *GAUR8* eta *Ekonomiaren KZ*).

⁵¹⁶ .- Hala agertzen da arazketa-tauletan.

⁵¹⁷ .- Horrela dago arazketa-tauletan.

⁵¹⁸ .- Kontuan hartu datu hauek "Hedabideak" deialdiko laguntza jaso zuen lehen urtekoak direla, 2008koak hain zuzen. *Ekonomiaren KZ* 2007an sortu bazen ere, lehen urte hartan ez zuten diru-laguntza eskaera aurkeztu.

⁵¹⁹ .- Kontuan hartu datu hauek 2008koak direla, urte hartan kaleratu baitzen *Zazpi Haizetara*.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Azpimarratzekoa da langileei lotutako partida nagusi ez zuten aldizkari askoren kasuan funtzionamenduari eta produkzioari lotutako gastuek, biak batera, aurrekontu osoaren ia hiru laurdenak eta zenbaitetan gehiago ere jaten zutela⁵²⁰ 2007an; *Hemen* edo *Zazpi Haizetaran*, adibidez, %80ra iristen zen.

Egunerokoetan, orokorrean banaketak zuen pisurik nabarmenena langile-gastuen ondoren 2007an; informazio orokorreko aldizkariekin eta aldizkari espezializatuekin ordea, salbuespen bi kenduta (*Gazteberri* eta *Ekonomiaren KZ*), ez da hala gertatzen, “bestelakoak” bezala izendatutako atalak, hau da, banaketak zuelako diru-kopururik txikiena aurrekontu osoaren banakatzean.

2013ko laguntza-eskaeretan jasotako datu ekonomikoei erreparatuz, ondokoa da osatu daitekeen taula:

⁵²⁰ .- Ondokoak dira funtzionamendua + produkzioa %70etik gorakoa dutenen datu zehatzak: *Bertsolarik* %71,7, *Egan* aldizkariak %73,3, *Hemen*, *erlijio gogoetarako aldizkariak* %80, *Xabiroi* komikiak %72,5, *GAUR8k* %76,3 eta *Zazpi Haizetara* aldizkariak %80,1.

109. taula. Informazio orokorreko aldizkariaren eta aldizkari espezializatuen aurrekontuen banaketa. 2013 (€)

Egitasmoa	Aurrekontua	Langileak	Funtzionamendua	Produkzioa	Banaketa
Aizu!	216.469	135.899	12.886	49.296	18.388
Argia	820.500	367.500	170.000	178.000	105.000
BAT	55.250	30.600	2.400	22.250	00
Bertsolari	76.000	13.000	43.000	15.000	5.000
Egan	14.125	1.500	4.625	7.000	1.000
Elhuyar	253.084	182.808	20.776	38.300	11.200
Euskal Herriko Natura	30.240	00	5.000	25.240	00
Gazteberri	36.000	00 ⁵²¹	14.500	14.000	7.500
Gaztezulo	278.000	170.000	42.000	50.000	16.000
Hemen	43.383	7.133	17.500	11.160	7.590
Jakin	180.045	116.916	41.421	16.560	5.148
Uztaro	33.895	21.395	3.000	6.800	2.700
Xabiroi					
Xabiroi	110.242	32.976	50.396	25.670	1.200
GAUR8					
GAUR8	391.000	87.000	198.000	106.000	00
Ekonomiaren KZ					
Ekonomiaren KZ	81.235	42.000	8.080	18.000	13.155
Zazpi Haizetara	307.000	51.000	146.000	110.000	00

Iturria: HPSk 2013 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

2013an, aztertutako argitalpenen erdian langileria-gastuak ziren nagusi. 2007an egoera horretan zeuden berberei *Ekonomiaren KZ* gehitu zitzairen, eta gainera, aipatu gastuek 2007an baino ehuneko handiagoa jaten zioten aurrekontu osoari, ia denetan %60tik gorakoa⁵²². Azpimarratzekoa da *Gazteberri* eta *Euskal Herriko Naturak* ez zutelatal honetan zentimo bat jartzen. Gainontzekoei dagokienez, sei aldizkaritan funtzionamendu-gastuak ziren nagusi, eta beste bietan (*Euskal Herriko Natura* eta *Egan*) produkzioari loturikoak. 2013an, 2007an gertatu zen bezala, banaketak hartzen zuen diru-poltsa osoaren zatirik txikiena⁵²³. Bestalde, 2013an langileria-gastua nagusi ez zuten hedabideetan (erdiak dira), funtzionamenduari eta produkzioari lotutako

⁵²¹ .- Hala agertzen da arazketa-tauletan.

⁵²² .- *Elhuyar* aldizkariaren kasuan portzentajea %72,2koa da. %60tik behera dauden salbuespen bakarrik *Argia* (%44,7) eta *BAT* aldizkaria (%55,4) dira.

⁵²³ .- Salbuespena gertatzen da *Aizu!* eta *Ekonomiaren KZ* aldizkariekin.

gastuak batu ezker, ikusten da 2007an aurrekontu osotik hartzen zutena baino gehiago kentzen ziotela 2013an; kasuren batean, adibidez *Euskal Herriko Natura* aldizkarian, aurrekontuaren %100era iristeraino⁵²⁴. Ondorio logikoa, kontuan hartzen bada denbora-tarte horretan aurrekontuek behera egin zutela, baina ez funtzionamendu eta produkzio-kostuek.

Egunerokoen multzoarekin alderatuta, bi kontu aipa daitezke: aldizkakoetan pertsonal-gastuak portzentajetan neurtuta egunerokoetan baino handiagoak zirela eta banaketa-gastuak, berriz, txikiagoak.

5.2.1.2.2. INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIEN ETA ALDIZKARI ESPEZIALIZATUEN FINANTZAKETA-MAILA PROPIOA

Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek, 2005-2013 bitartean finantzaketa-maila propioaren arloan erakutsi duten joerari dagokionez, erdi eta erdi banatuta daudela esan dezakegu. Erdiek okerrerako bidea egin dute, eta besteek, ordea, hoberakoa. Lehenengoen egoera erraz ulertu daiteke: sarrera pribatuek eta aurrekontuek behera egin badute ere, murrizketa neurri handiagoan gertatu da sarrera pribatuekin; ondorioz, bien arteko zatiketa-eragiketaren emaitza txikiagoa izango da: finantzaketa-maila propioak behera egin du. Hobera egin dutenekin kasuistika anitzagoa den arren, argi dago multzo honetako argitalpen denetan sarrera pribatuen eta aurrekontuen arteko aldea txikiagoa dela 2013an 2005ean baino.

⁵²⁴ .- Ondokoak dira 2013an funtzionamendua eta produkzioa batera hartuta aurrekontu osoarekiko suposatzen zutena: *Gazteberri*: %80,5, *Bertsolari*: %76,3; *Egan*: %82,3; *Euskal Herriko Natura*: %100; *GAUR8*: %77,7 eta *Zazpi Haizetara*: %83,4. Bi kasutan bakarrik izango da 2007an zutena baino portzentaje baxuagoa: *Hemen, erlijio gogoetarako aldizkaria*: %66,1 eta *Xabiroi*: %68,9.

110. taula. Informazio orokorreko aldizkariaren eta aldizkari espezializatuen autofinantzaketa-maila, 2005 eta 2013 (%).

	2005	2013	2005-2013	Urterik onena eta %	
Aizu!	73,0	50,9	-22,1	2007	73,6
Argia	74,0	56,0	-18,0	2006	74,3
BAT	49,0	43,9	-5,1	2012	63,7
Bertsolari	48,0	51,0	+3,0	2011	60,8
Egan	51,0	40,0	-11,0	2010	63,2
Elhuyar	52,0	43,4	-8,6	2009	46,3
Euskal Herriko Natura	40,0	41,0	+1,0	beti 40-41 inguruan	
Gazteberri	58,0	66,7	+8,7	2013	66,7
Gaztezulo	63,0	59,3	-3,7	2011	61,0
Hemen	54,0	67,7	+13,7	2013	63,7
Jakin	55,0	64,9	+9,9	2013	64,9
Uztaro	40,0	46,9	+6,9	2010	54,9
	2006	2013	2006-2013	Urterik onena eta %	
Xabiroi	54,5	54,1	-0,4	2010	56,5
	2007	2013	2007-2013	Urterik onena eta %	
GAUR8	39,5	55,5	+16,0	2013	55,5
	2008	2013	2008-2013	Urterik onena eta %	
Ekonomiaren KZ	40,0	53,3	+13,3	2013	53,3
Zazpi haizetara	36,1	59,3	+23,2	2010	60,4

Iturria: HPSk 2005, 2006, 2007, 2008 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatuta.

2005-2013 urte-segidan, finantzaketa-maila propioak behera egin zuen, nabarmen, *Argia* eta *Aizu!* aldizkarietan⁵²⁵. Maila apalagoan bada ere beste horrenbeste gertatu zitzairen *Elhuyar*, *Gaztezulo*, *Bat* eta *Egan* aldizkarietara.

Txanponaren beste aldean leudeke 2013an 2005ean baino finantzaketa datu sendoagoa zutenak: *Jakin*, *Gazteberri*, *Bertsolari*, *Euskal Herriko Natura*, *Uztaro*, *Hemen*, *GAUR8* *Ekonomiaren KZ* eta *Zazpi Haizetara*. Aurretik esan bezala, horien hobekuntza azaltzeko orduan desberdintasunak daude. Bilakaerarik ikusgarriena *Zazpi Haizetarak* izan zuen, 2008an kaleratu eta sei urteko epean hogeita hiru puntuan

⁵²⁵ .- *Argia* aldizkariaren kasuan, aurrekontua ia erdira erori zen 2005etik 2013ra, baina sarrera pribatuak are gehiago murriztu ziren. *Argiak* 1.571.900 euroko aurrekontua eta 1.163.657 euroko diru-sarrera pribatuak izan zituen 2005ean ($1.163.657/1.571.900 = 0,7403 \times 100 = 74,0\%$ ko finantzaketa-maila propioa). 2013an, aldiz, aurrekontua 820.500 eurokoa eta sarrera pribatuak 459.480 eurokoak izan ziren (autofinantzaketa: %56). *Aizu!* aldizkariak aurrekontu berdintsua izan zuen 2005ean eta 2013an, baina ez da gauza bera gertatzen sarrera pribatuekin, horiek askoz txikiagoak zirelako 2013an. *Aizu!* 2005ean 215.809,6 euroko aurrekontua zuen eta sarrera pribatuak 158.165,8 eurokoak ziren (finantzaketa-maila propioa %73koa), eta 2013an aurrekontua 216.469,4 eurokoa eta sarrera pribatuak 110.267,9 eurokoak (autofinantzaketa %50,9koa).

hobetu baitzuen finantzaketa-maila. Gertatua erraz azaldu daiteke hedabide horren aurrekontuak eta sarrera pribatuek egindako bidean arreta jarrita: lehenengoak behera egin zuen eta bigarrenak, berriz, gora; ondorioz bien arteko aldea txikitu egin zen eta zatiketaren emaitzak gorako bide aipagarri hori hartu zuen⁵²⁶. Finantzaketa-maila hobetu zuten gainontzekoetan bilakaera anitza da. *GAUR8* eta *Jakinen* kasuan, autofinantzaketak nabarmen egin zuen gora. *GAUR8*k bere lehen urtean, 2007an, aztertutako zerrenda osoko finantzaketa-maila baxuena zeukan eta 2013an 16 puntu egin zuen gora⁵²⁷. *Jakinek* behera egin zuen aurrekontuan, baina gora sarrera pribatuetan⁵²⁸. *Ekonomiaren KZ, Uztaro eta Hemen* aldizkariak aurrekontu apalak kudeatu zituzten 2005-2013 bitartean, denboran zehar, apur bat bada ere, haziz joan zirenak, eta, gainera, sarrera pribatuek aurrekontuak baino apur bat gehiago haztea lortu zuten, ondorioz emaitza positiboa izan zuten. *Bertsolarik* aurrekontu bera izan zuen 2005ean eta 2013an eta sarrera pribatuek arean gora egin zuten⁵²⁹. Antzeko eredua jarraitu zuen *Euskal Herriko Natura* aldizkariak. Azkenik, *Gazteberriren* emaitza kontu handiz irakurri behar da, ezin da benetako irabazitzat kontsideratu, ia bederatzi puntuko hobekuntzak aurrekontuak izandako ikaragarritzko murrizketa duelako sorburuan.

5.2.1.2.3. INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIEN ETA ALDIZKARI ESPEZIALIZATUEN MAIZTASUNAK, BOTALDIK ETA ORRIALDE-KOPURUAK

Multzo honetako hedabideak oso anitzak, heterogeneoak dira hiru ezaugarri horiei erreparatuta. 2013an, esaterako, botaldiak 450 aletik 13.000 alerainokoak izan ziren, maiztasunak urtean 4 zenbaki kaleratuzetik 51 zenbaki izaterainokoak eta beste horrenbeste gertatzen da orrialde-kopuruarekin, 32 orrialde izatetik 180 izaterainokoak. Erregela orokor moduan, baieztatu daiteke maiztasunak eta orrialde-

⁵²⁶ .- *Zazpi Haizetara* aldizkariaren zenbaki zehatzak honakoak dira: 2008an 442.600 euroko aurrekontua zuen eta sarrera pribatuak 160.000 eurokoak; 2013an aurrekontua 307.000 eurokoa zen eta 182.000 euroko sarrera pribatuak izan zituen.

⁵²⁷ .- *GAUR8*ren aurrekontuak 2007-2013 tartean %18 egin zuen behera eta sarrera pribatuek %15 gora (188.500 eurotik 217.000 eurora)

⁵²⁸ .- 2005ean 113.160 euroko diru-sarrerak izan zituen *Jakinek*, 2013an 116.900 eurokoak.

⁵²⁹ .- *Bertsolari* aldizkariaren aurrekontua 76.000 eurokoa izan zen 2005ean eta 2013an. Sarrera pribatuak 36.400 eurokoak 2005ean eta 38.800 eurokoak 2013an.

kopuruak alderantzizko harremana erakutsi dutela; hau da, maiztasun txikienez kaleratzen direnek (4 zenbaki urtean) dituzte orrialde gehien. Hori gutxi ez eta, gainera, era askotako formatuak dituzte. Diru-laguntza deialdian DIN-A4ko formatua izatea eskatzen zaie, baina kasu askotan hala gertatzen ez denez, deialdiaren kudeatzaileek berriaz prestatutako baliokidetasun-taula erabili izan dute⁵³⁰. Gure azterketa egiteko aldizkari bakoitzak duen orrialde-kopurua erabiliko dugu, formatuan izan daitezkeen berezitasunak, ezaugarri diferentzialak aintzat hartu gabe.

111. taula. Informazio orokorreko aldizkariaren eta aldizkari espezializatuen maiztasunak (urtean), orrialde-kopuruak eta botaldia, 2005 eta 2013.

	Maiztasuna (urtean)		Orrialde-kopurua (ale bakoitzak)		Botaldia (zenbaki bakoitzeko)		
	2005	2013	2005	2013	2005	2013	2005-2013
Aizu!	10	10	48	56	10.300	9.780	-520
Argia	48	46	60	52	10.000	8.140	-1.860
BAT	4	4	150	180	1.300	700	-600
Bertsolari ⁵³¹	4	4	140	120	3.000	3.000	=
Egan	4	4	150	150	1.200	1.050	-150
Elhuyar	11	11	64	60	2.400	2.000	-400
Euskal Herriko Natura	6	7	48	52	4.000	4.000	=
Gazteberri	12	6	32	32	25.000	10.000	-15.000
Gaztezulo	11	11	60	76	10.200	11.000	+800
Hemen	4	4	100	112	880	450	-430
Jakin	6	6	140	130	2.800	2.300	-500
Uztaro	4	4	125	125	1.000	500	-500
	2006	2013	2006	2013	2006	2013	2006-2013
Xabiroi	4	4	36	36	23.500	10.750	-12.750
	2007	2013	2007	2013	2007	2013	2007-2013
GAUR8	52	51	32	32	50.000	13.000	-37.000
	2008	2013	2008	2013	2008	2013	2008-2013
Ekonomiaren KZ	5	11	16	16	10.000	10.000	=
Zazpi Haizetara	12	11	64	64	15.000	11.000	-4.000

Iturria: HPSk 2005, 2006, 2007, 2008 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

⁵³⁰ .- Esan bezala, multzo honetako aldizkariak, formatuz oso neurri desberdinak dituzte; adibidez, 2013an *Uztaro*, *Bertsolari* edo *Gaztezulo* aldizkariak 17x24 zentimetroko orriak zituzten; beste batzuk oraindik txikiagoak, esaterako, *Egan* aldizkariak 14x21 zentimetrokoak. Egoera horrela, "Hedabideak" deialdiko arazketa-tauletan neurri horiek guztiak DIN-A4 tamainara ekarriko dituzte; ondorioz, 2013an *Eganek* zituen 150 orrialdeak 71n geratuko dira edo *Gaztezuloren* 76 orrialdeak 50 orrialdetan geratuko dira balorazio-irizpideak aplikatu eta puntuak emateko orduan.

⁵³¹ .- Diru-laguntza eskaera egiterakoan *Bertsolari* aldizkariak 160 orrialde jartzen zuen arren, azken urteko zenbakien batez bestekoa 120 orrialdekoa izan zen.

Maiztasunari dagokionez, ez da gorabehera handirik izan, 2005ean txikiena zutenak, hau da, urtean lau, sei, hamar edo hamaika zenbaki kaleratzen zituzten aldizkariak eutsi egin zioten maiztasunari eta *Euskal Herriko Naturak* bat irabazi zuen. Zenbaki gehien kaleratzen zutenek (48, 52) bat edo bi galdu zituzten urtean. Salbuespena *Gazteberri* da, 2005ean zuenaren erdira joan baitzen⁵³². Beste muturrean dago *Ekonomiaren KZ*, sortu zenetik, sei urtetan, bikoiztu egin zuelako maiztasuna⁵³³.

Orrialde-kopuruari begiratuta, maiztasunarekin gertatu bezala, ez da gorabehera handirik gertatu. Gehienek berdintsu eutsi zioten 2005etik 2013ra. Izenen bat azpimarratzekotan *Gaztezulo* litzateke, 2013an 2005ean baino %26 orrialde gehiago zituelako. Eta *Gaztezulok* zenbaki bakoitzeko orrialde gehiago argitaratzeaz gain, botaldian ere gora egin duen multzo honetako aldizkari bakarra da. Izan ere, botaldiek galera-bidea jorratu dute urteekin ia denen kasuan, portzentajetan %5etik %74ra galdu dute. Daturik txarrenak, zenbaki absolututan, *Xabiroi*, *Gazteberri* eta *GAUR8*renak dira, 12.750, 15.000 eta 37.000 ale galdu baitzituzten hurrenez hurren, ehunekotan neurtuta lehenak %54, bigarrenak %60 galdu du eta hirugarrenak %74.

Azkenik, euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuek 2005ean eta 2013 urtean zenbat orrialde sortu eta inprimatu zituzten bildu daiteke, egunerokoekin egin bezala. Horretarako orain arte kudeatutako zerrenda erabili beharrean aipatu urte bakoitzean diru-laguntza jaso zuten aldizkarien zenbakiak hartuko ditugu kontuan. 2005ean 23 izan ziren onuradun:

⁵³² .- *Gazteberri* aldizkariak 2005etik 2007ra 12 zenbaki kaleratu zituen urtean, 2008tik 2010era 10 zenbaki urtean, eta 2012tik aurrera sei zenbaki urtean.

⁵³³ .- *Ekonomiaren KZ* 2011n hazi zen urtean 11 zenbaki kaleratzen. Aurreko hiru urtetan, 5, 7 eta 6 zenbaki kaleratu zituen.

112. taula. "Hedabideak" diru-laguntzaren onuradun izan ziren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek urtean sortutako eta inprimatutako orrialde-kopurua, 2005.

	2005ean sortutako orrialdeak	2005ean inprimatutako orrialdeak
Aisia biziz	224	896.000
Aizu!	480	4.944.000
Aldaketa hamasei	3.536	21.216.000
Argia	2.880	27.360.000
BAT	600	780.000
Bertsolari	560	1.680.000
Egan	600	720.000
Elhuyar	704	1.689.600
Entzun	312	468.000
Euskal Herriko Natura	288	1.152.000
Gazteberri	384	9.600.000
Gaztezulo	660	6.732.000
Hemen	400	352.000
Ipurbeltz	384	844.800
Jakin	840	2.352.000
Karmel	512	588.800
Mantangorri	832	18.304.000
Matraka	1.280	64.000.000
Nabarra	720	2.160.000
Ostiela!	192	384.000
Uztaro	500	500.000
Xirika	1.152	2.304.000
Zabalik	2.208	16.780.800
GUZTIRA	20.248	185.808.000

Iturria: HPSk 2005 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Beste horrenbeste egiten bada 2013 urtean diru-laguntza jaso zuten multzo honetako aldizkariakin, ondoko taula osatzen da:

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

113. taula. "Hedabideak" diru-laguntzaren onuradun izan ziren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek urtean sortutako eta inprimatutako orrialde-kopurua, 2013.

	2013an sortutako orrialdeak	2013an Inprimatutako orrialdeak
Aizu!	560	5.476.800
Aldiri, arkitektura eta abar	176	35.200
Argia	2.392	19.470.880
BAT	720	504.000
Bertsolari	480	1.440.000
Egan	600	630.000
Ekai center	648	324.000
Ekonomiaren KZ	176	1.760.000
Elhuyar	660	1.320.000
Euskal Herriko Natura	364	1.456.000
GAUR8	1.632	21.216.000
Gazteberri	192	1.920.000
Gazteon KZ	176	1.760.000
Gaztezulo	836	9.196.000
Hazi hezi, etxerako heziketa aldizkaria	240	720.000
Hemen	448	201.600
Irria	440	2.464.000
Jakin	780	1.794.000
Karramarro	208	3.369.600
Uztaro	500	250.000
Xabiroi	144	1.548.000
Zazpi Haizetara	704	7.744.000
+/- 18 presta ezazu zure etorkizuna	128	640.000
GUZTIRA	13.204	85.240.080

Iturria: HPSK 2013 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Goiko taulan, 2013an zenbait aldizkarik⁵³⁴ argitaraturako gehigarriak ere kontuan hartuta sortutako orrialde-kopuruari beste 358 orrialde gehitu beharko genizkioke, eta inprimatutako kopuruetan, berriz, beste 2.815.840 orrialde gehitu

⁵³⁴ .- Lau aldizkari dira: *Argiak* 176 orrialde sortu/kaleratu zituen gehigarri bezala 2013an eta botaldia 8.140 alekoa izan zen. *Gaztezulo* aldizkariak 14 orrialde sortu eta botaldia 11.000 alekoa, *Xabiroik* 56 orrialde eta botaldia 10.750 alekoa eta azkenik *Irria* aldizkariak 112 orrialde sortu zituen gehigarri bezala 5.600 aleko botaldiarekin.

beharko genituzke. 2005eko arazketa-tauletan ez dago gehigarrii buruzko informaziorik.

2005eko egoera jasotzen duen taula eta 2013koa alderatu ezker, agerikoa da zenbakiak behera egin dutela; sortutako orrialde-kopuruetan 7.044 gutxiago izan ziren 2013an; hots, herena baino zertxobait gehiago egin zuen behera sortutako orrialdeen kopuruak (%34,8). Eta inprimatutakoei dagokienez, bien arteko aldea handitu egiten da, 2005ean 185.808.000 orrialde inprimatu zituzten informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek, eta 2013an berriz, 85.240.080 orrialde inprimatu zituzten; hortaz, bien arteko aldea 100.567.920koa da. Horrek esan nahi du 2005ean inprimatutako orrialdeen kopurua erdira etorri dela (beherakada %54,1ekoa da). Jaitsiera horretan erabateko eragina du 2005ean orrialde gehien sortu eta inprimatzen zituzten hiru aldizkari, *Zabalik*, *Aldaketa hamasei* eta *Matraka* 2013ko onuradunen zerrendan ez izateak⁵³⁵; izan ere hiruren artean bakarrik 2005ean sortutako orrialde guztien ia herena eta inprimatutako orrialdeen erdia baino gehiago beraiena zen.

Urte batean eta bestean diru-laguntzak jaso zituzten aldizkariak kontsideratu beharrean, urtero urtero onuradun izan diren hamaseiak hartzen baditugu aldea txikitu egiten da; ondorioz, azken balantzea hobetu.

114. taula. 2005-2013 bitartean urtero "Hedabideak" diru-laguntzaren onuradun izan ziren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek urtean sortutako eta inprimatutako orrialde-kopurua.

Urtean sortutako orrialde-kopurua		Urtean inprimatutako orrialde-kopurua	
2005	2013	2005	2013
8.896	8.532	57.861.600	43.659.280

Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-taulak. Tesiaren egileak moldatua.

Kasu honetan sortutako orrialdeen kopuruak %4 egin zuen behera 2005-2013 bitartean, eta inprimatutakoak %24,5 egin zuen behera.

⁵³⁵ .- Hiru aldizkari horien artean 7.024 orrialde sortu zituzten 2005ean, hau da urteko ia herena. Hiruren artean 101.996.800 orrialde inprimatu zituzten, hau da, 2005eko kopuru osoaren %55. Banakako datuak ondokoak dira: *Zabalik*: 2.208 orrialde sortu eta 7.600 aleko botaldia zuen. *Aldaketa hamasei*: 3.536 orrialde sortu eta 6.000 aleko botaldia. *Matraka*: 1.280 orrialde sortu zituen eta 50.000 aleko botaldi zuenez 64.000.000 orrialde inprimatu zituen 2005ean.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Azkenik, egunerokoekin egin bezalaxe, multzo honetan aztertutako informazio guztia taula bakar batean bilduko da. Euskararen esparru geografiko osoan 2005-2013 bitartean zabaldu ziren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso zituzten informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuek eginiko bidea ahalik eta modurik laburtuenean ikustarazteko balio dezakeen taula da ondokoa.

115. taula. Euskarazko informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuen bilakaera orokorra, 2005-2013⁵³⁶.

	Aurrekontua	Finantzaketa-maila propioa	Maiztasuna	Orrialde-kopurua	Botaldia
Aizu!	↑	↓	=	↑	↓
Argia	↓	↓	↓	↓	↓
BAT	↓	↓	=	↑	↓
Bertsolari	=	↑	=	↓	=
Egan	↓	↓	=	=	↓
Elhuyar	↓	↓	=	↓	↓
Euskal Herriko Natura	↓	↑	↑	↑	=
Gazteberri	↓	↓	↓	=	↓
Gaztezulo	↑	↓	=	↑	↑
Jakin	↓	↑	=	↓	↓
Hemen	↑	↑	=	↑	↓
Uztaro	↑	↑	=	↑	↓
Xabiroi (2006)	↑	↓	=	=	↓
GAUR8 (2007)	↓	↑	↓	=	↓
Ekonomiaren KZ (2008)	↓	↑	↑	=	=
Zazpi Haizetara (2008)	↓	↑	↓	=	↓

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

⁵³⁶ .- Gogoratu zenbait aldizkariaren kasuan azterketarako erabilitako lehen urtea ez dela 2005a. Horiek beranduago sortutakoak lirateke, eta ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak ere beranduago hasi ziren jasotzen. Hala gertatzen denean, aldizkariaren ondoan dago adierazita zein urtetik hasi den datuen lanketa.

Aztertu diren adierazleak kontuan hartuta esan dezakegu aldizkariak egunerokoek baino bilakaera hobea erakutsi dutela 2005etik 2013ra. Batzuen izenak azpimarratzekotan, *Gaztezulo, Aizu!, Euskal Herriko Natura, Uztaro eta Hemen, erlijio gogoetarako aldizkaria* izango genituzke. Eredu desberdinak jarraitu dituzten arren, irabaziak edo igoerak izan dituzte hainbat arlotan. Beste muturrean daude arlo guztietan edo ia guztietan beherako bidea egin duten aldizkariak; horien artean izenen bat aipatzekotan *Argia* aldizkariarena dago.

Taulako zutabeetatik finantzaketa-maila propioari buruzko informazioa jasotzen duenak eskaintzen ditu emaitzarik onenak; hala ere, tentuz interpretatu beharrekoa da, kasu gehienetan finantzaketak gora egin duelako aurrekontuak asko murriztearen kontura.

Multzo honetako hedabideen azterketari ekiteko orduan, arreta sei, zazpi, zortzi edo 2005-2013k bitarteko bederatzi urteetan diru-laguntzen onuradun izan direnengan jartzearen aldeko hautua egin da. Hala ere, euskarazko informazio orokorreko eta informazio espezializatuko aldizkariak eskaintako atalaren hasieran adierazi den moduan, denbora horretan guztira 36 aldizkari desberdinek jaso dute dirua. Horietatik asko aspaldi desagertu ziren⁵³⁷, eta gainontzekoak edo hasi berriak ziren 2013an eta, hortaz, ez dute aukerarik ematen alderaketak egiteko edo, aurrekontuei eta botaldiei begiratuta, ez dakarkiate aldaketa esanguratsurik orain arte ikusitakoari. Dena den, azterketatik kanpo utzi diren aldizkariekin ere osatu daiteke horien bilakaera laburbiltzen duen taula. Bertan, gorriz daudenak, 2005-2013 bitartean kaleratzeari utzi zioten argitalpenak dira.

⁵³⁷ .- *Zabalik, Ostiela, Mantangorri, Xirika, Matraka, Aisia biziz, Entzun, Lanabesa, Nora eta Nabarra* besteak beste.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

116. taula. 2005-2013 bitartean desagertu ziren informazio orokorreko aldizkariaren eta aldizkari espezializatuen bilakaera eta 2005-2013 bitartean 4 urtetik behera laguntza jaso zutenen bilakaera.

(1)Maiztasuna. (2)Finantzaketa-maila propioa. (3)Botaldia. (4)Maiztasuna. (5)Orrialdeak

Egitasmoa eta laguntza zein urtetan jaso	1	2	3	4	5
Aisia biziz (2005-2007)	↑	↑	=	=	=
Aldaketa hamasei (2005-2010)	↑	↑	=	=	↓
Aldiri, arikitektura eta abar (2010-2013)	↓	↑	↓	=	=
Entzun musika aldizkaria (2005-2007)	↑	↓	↑	↓	=
Gazteon KZ (2009-2013)	↓	↑	=	=	=
Ipurbeltz (2005-2008)	↑	=	=	=	↑
Irria (2012-2013)	↑	↓	↓	=	↓
Karmel (2005-2007 eta 2009)	↑	↓	↓	=	↑
Karramarro (2011-2013)	↓	=	=	=	=
Lanabesa (2009-2012)	↓	↑	=	=	=
Nabarra (2005-2011)	↓	↓	↓	↓	↑
Nora (2008-2012)	↓	↓	↓	↓	=
+/- 18 presta ezazu zure etorkizuna (2009-2013)	=	↑	=	=	↑
Urte bakarrekoak: <i>Zabalik, Ostiela, Mantangorri, Xirika, Matraka, Ekai center eta Hazi Hezi</i> ⁵³⁸					

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Taulan jasotako hedabideen informazioak aurretik aztertu ditugunen joera bera erakusten du. Daturik onenak orrialde-kopuruei, botaldiei eta maiztasunei loturikoak dira, gehienetan eutsi egin ziotelako laguntzak jaso zituzten urteetan. Finantzaketa-maila propioari dagokionez, igoera izan zutenek aurrekontuak asko murriztearen truke lortu zuten emaitza positiboa⁵³⁹; izan ere, gehiengoa dira gasturako erabilgarri zuten dirua murriztuz joan zirenak. Bestalde, zerrendan bada, izan zuen bilakaeragatik, aipamen berezia merezi duen aldizkaria, *Ipurbeltz* hain zuzen. Ikertzen ari garen

⁵³⁸ - Hauekin ez dago alderaketak egiterik, 2005-2013 bitartean, urte bakar batean jaso zutelako "Hedabideak" diru-laguntza.

⁵³⁹ - Baieztape honek badu salbuespenik, esaterako +/- 18 presta ezazu zure etorkizuna aldizkariaren kasuan autofinantzaketak gora egiten du sarrera pribatuen igoerari esker. Aldizkari horrek, ikertu den denbora-tartean 33.000-35.000 euro bitarteko aurrekontua izan du beti.

2005etik 2013ra bitarteko lehen lau urteetan jaso zituen diru-laguntzak eta adierazle guztiek hobera egin zuten⁵⁴⁰.

5.2.1.2.4. INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIEN ETA ALDIZKARI ESPEZIALIZATUEN SALMENTAK

Ondoko taulan laburbiltzen da multzo honetako hedabideei diru-laguntzak esleitzeko erabili diren arazketa-tauletan jasota dauden salmenta-datuak.

117. taula. Informazio orokorreko aldizkariaren eta aldizkari espezializatuen salmenta, 2005 eta 2013.

	Salmenta 2005	Salmenta 2013
Aizu!	9.708	8.688
Argia	9.000	7.400
BAT	500	450
Bertsolari	1.100	1.400
Egan	600	150
Elhuyar	1.850	1.500
Euskal Herriko Natura	208	96
Gazteberri ⁵⁴¹	0	0
Gaztezulo	7.500	7.000
Hemen	250	424
Jakin	1.720	2.100
Uztaro	650	400
	Salmenta 2008	Salmenta 2013
Xabiroi (2008 ⁵⁴²)	22.800	10.750
	Salmenta 2011	Salmenta 2013
GAUR8 (2011 ⁵⁴³)	6.000	5.000
	Salmenta 2008	Salmenta 2013
Ekonomiaren KZ (2008)	0	0
Zazpi Haizetara ⁵⁴⁴ (2011)	5.000	4.500

Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etauletak. Tesiaren egileak moldatua.

⁵⁴⁰ .- *Ipurbeltz* aldizkariak 158.600 euroko aurrekontua izan zuen 2005ean, eta 186.200 eurokoa 2008an. Autofinantzaketara mailari dagokionez, honakoa lau urteotako bilakaera: %52, %51,1, %51,0 eta azkenik, %51,0. Urtean 12 zenbaki kaleratu zituen eta bakoitzeko 2.200 aleko botaldia. Bestalde, aldizkariaren orrialde-kopuruak gora egin zuen, 32 izatetik 36 izatera.

⁵⁴¹ .- Salmentari buruzko informazioa dagoen arazketa-tauletan, *Gazteberri* aldizkaria beti ageri da 0 zenbakiari lotuta 2008an izan ezik. Urte hartan botalditik 1.000 ale saltzen zituela jasotzen du taulak.

⁵⁴² .- *Xabiroi* aldizkariaren kasuan, 2007ko tauletan ez da ageri salmenta-daturik; lehena 2008koa da; hemen jaso dena.

⁵⁴³ .- *GAUR8* aldizkariaren kasuan, salmentari buruzko lehen datua 2011ko arazketa-taulan ageri da (6.000 ale). Hurrengo urtean, 2012an, zenbaki bakoitzeko 5.500 ale saltzen zituen.

⁵⁴⁴ .- *Zazpi Haizetara* aldizkariaren kasuan, salmentari buruzko lehen datua 2011ko arazketa-taulan ageri da (5.000 ale). Hurrengo urtean, 2012an, zenbaki bakoitzeko 4.500 ale saltzen zituen.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Egunerokoekin gertatu bezala, euskaraz argitaratutako informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen salmentak, oro har behera egin du 2005-2013 aldian. Salbuespenak aipatzekotan *Bertsolari*, *Jakin* eta *Hemen*, *erlijio gogoetarako aldizkaria* ditugu.

5.2.1.3. UDALERRI, ESKUALDE EDO LURRALDE JAKINETAN ZABALTZEN DIREN INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIAK (TOKIKOAK)

Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak jaso ditzakeen multzorik handiena da onuradun izan direnei begiratuta, ez ordea hartu dituzten diru-kantitateei erreparatuta. 2005-2013 bitartean 53 tokiko aldizkari ezberdinei esleitu zaie diru-laguntza, lehen urtean 36ri eta beste horrenbesteri azkenengoan. Bitarteko urteetan ez da inoiz onuradun kopuru hori gainditu⁵⁴⁵. Hortaz, onuradun kantitate bera da aztergai den denbora-tartearen lehen eta azken urtean, baina horien izen-abizen zehatzetan aldaketak gertatu dira.

⁵⁴⁵ .- Multzo honetara bideraturiko 2005-2013 bitarteko diru-laguntza deialdietan urterik makalenak 2006 eta 2010 izan ziren, bietan 32 onuradunekin, 2007an diru-jasotzaileak 33 izan ziren, 2008an 34 eta gainontzeko guztietan esleipena 36 aldizkarirentzat egin zen.

118. taula. "Hedabideak" deialdiko laguntza jaso duten udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien bilakaera, 2005-2013.

	Laguntzen onuradunak
9 urtean: 21 aldizkari	<i>Aikor! Txorierriko aldizkaria, Aiurri Beterri-Buruntzako astekaria, Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria, Anboto, Asteleheneko Goiena papera, Baleike, Barren, Begitu, Berton, Danbolin, Drogeteniturri, ...eta kitto!, Galtzaundi, Goiena papera, Karkara, Noaua!, Pil-pilean, Prest!, Txintxarri, UK Uribe Kostako aldizkaria, Uztarria.</i>
8 urtean: 2 aldizkari	<i>Artzape, Kalaputxi: 2005-2012</i>
7 urtean: 6 aldizkari	<i>Goierritarra, Otamotz: 2005-2011 Guaixe, Mailope, Ttipi-ttapa: 2007-2013 Irunero: 2005-2009, 2011 eta 2013</i>
6 urtean: 2 aldizkari	<i>Oarsoaldean On aldizkaria: 2005-2010 Pulunpe: 2008-2013</i>
5 urtean: 4 aldizkari	<i>Geu, Maxixatzen, Txaparro: 2005-2009 Zuhatza berriketan: 2009-2013</i>
4 urtean: 0 aldizkari	-
3 urtean: 3 aldizkari	<i>Arabako Hitza, Bizkaiko Hitza, Gipuzkoako Hitza: 2011-2013</i>
2 urtean: 8 aldizkari	<i>Akatz, Herria: 2005-2006 Behe Bidasoako Hitza: 2009-2010 Berbaz, Boga: 2011-2012 Ezkerraldeko KZ, Goiberri, Nafarroako Hitza: 2012-2013</i>
Urte bakarra: 7 aldizkari	<i>Aretxagazeta, Arrasate Press, Berrigara, El Social Basauriko aldizkaria: 2005 Bagabiz: 2013 Irutxuloko Hitza, Oarso Bidasoko Hitza: 2013</i>
GUZTIRA	53 ALDIZKARI

Iturria: 2005-2013 urte bitarteko ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariekin egin bezala, eta haiekin azaldutako arrazoi berberengatik, ez da multzo honetako argitalpen guztien azterketa burutuko. Aurrekontuetan, finantzaketa-mailan, maiztasunean, orrialde-kopuruetan eta botaldietan izan duten bilakaera zehatz lantzeko, udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko 28 aldizkari hartuko dira kontuan. Aurreko multzoarekin egin bezala, 6 urtetik gora laguntza jaso dutenak dira denak; horietatik, lehenengo, alfabetikoki aurkeztuko ditugu 2005-2013 bitartean urtero

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

laguntza izan duten 21 hedabideak, zortzi urtean jaso duten biak⁵⁴⁶ eta *Irunero*⁵⁴⁷; gero zazpi urtean diru-laguntza izan duten hirurak⁵⁴⁸, eta azkenik, sei urtean dirua jaso duen *Pulunpe* aldizkaria agertuko da azterketa-zerrendan.

5.2.1.3.1. UDALERRI, ESKUALDE EDO LURRALDE JAKINETAN ZABALTZEN DIREN INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIEN AURREKONTUAK

Euskara hutsezko idatzizkoen multzoa osatzen dutenen artean, tokikoak dira zalantzarik gabe, aurrekonturik xumeenak dituzten hedabideak. 2005. urtean, dozena bat kenduta, gainontzeko guztiek ehun mila eurotik beherako diru-partidekin ekin zioten urteroko jardunari; 2013an, berriz, hamabostek zuten ehun mila eurotik gorako aurrekontua. Horien artean nabarmentzekoa *Anboto*, *Astelehenko Goiena papera*, *...eta kitto!* eta bereziki *Goiena paperak* zuten aurrekontua. 2013. urtean, orain arte aztertu ditugun hedabide guztietatik, *Berria* egunkariak bakarrik zuen *Goiena paperak* baino aurrekontu handiagoa.

⁵⁴⁶ .- *Kalaputxi* eta *Artzape* dira. 2013an ez zuten diru-laguntzarik hartu, balorazio-prozesu osoa burutu ondoren egokitu zitzaiena ez zelako deialdian ezarritako 2.000 euroko gutxieneko kantitatara heltzen.

⁵⁴⁷ .- *Iruneroren* kasua berezia da, urtero jaso du diru-laguntza, 2010ean eta 2012an izan ezik. Azterketa egiteko orduan, beraz, baditugu 2005eko datuak, eta, ondorioz, 2005etik 2013ra laguntza jaso dutenekin batera agertuko da zerrendan.

⁵⁴⁸ .- *Mailope*, *Guaixe* eta *Ttipi-ttapa*.

119. taula. Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien aurrekontuak, 2005 eta 2013.

	Aurrekontua 2005 (€)	Aurrekontua 2013 (€)	2005-2013 (€)	2005-2013 %
Aikor!Txorierriko aldizkaria	79.108	131.705	+52.597	+66,4
Aiurri Beterri-Buruntzako astekaria	116.998	157.700	+40.702	+34,8
Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria	167.785	144.250	-25.535	-15,2
Anboto	342.628	400.950	+58.322	+17
Artzape	21.623	24.500	+2.877	+13,3
Asteleheneko Goiena papera	259.620	364.065	+104.445	+40,2
Baleike	43.672	67.950	+24.278	+55,6
Barren	199.015	248.000	+48.985	+24,6
Begitu	83.430	129.400	+45.970	+55,1
Berton	40.945	36.000	-4.945	-12,0
Danbolin	27.668	35.500	+7.832	+28,3
Drogeteniturri	35.400	48.900	+13.500	+38,1
... eta kitto!	264.940	296.945	+32.005	+12,1
Galtzaundi	111.500	111.500	0	0
Goiena papera	320.298	834.103	+513.805	+160,4
Irunero	70.000	52.676	-17.324	-24,7
Kalaputxi	32.647	22.200	-10.447	-32
Karkara	66.382	85.405	+19.023	+28,7
Noaua!	96.381	175.100	+78.719	+81,7
Pil-pilean	43.880	48.908	+5.028	+11,4
Prest!	41.113	40.000	-1.113	-3,0
Txintzarri	255.000	203.200	-51.800	-20,3
UK Uribe Kostako aldizkaria	220.200	245.217	+25.017	+11,3
Uztarria	69.450	90.000	+20.550	+29,5
	Aurrekontua 2007	Aurrekontua 2013	2007-2013	2007-2013 %
Guaixe(2007)	207.683	221.825	+14.142	+7,0
Mailope(2007)	34.285	41.695	+7.410	+21,6
Ttipi-ttapa(2007)	170.283	302.333	+132.050	+77,5
	Aurrekontua 2008	Aurrekontua 2013	2008-2013	2008-2013 %
Pulunpe(2008)	47.330	50.250	+2.920	+6,1

Iturria: HPSk 2005-2013 aldian diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Aztertutako zerrendan, agerikoa da multzo honetako hedabideek, orokorrean, bilakaera positiboa, hazkundera izan zutela aurrekontuen arloan 2005-2013 bitartean. Denen artean nabarmentzekoa da *Goiena paperak* egindako jauzia; izan ere, ia hirukoiztu egin zuen 2005eko aurrekontua⁵⁴⁹. Horrekin batera azpimarratu daitezke *Asteleheneko Goiena papera*, *Begitu*, *Baleike*, *Aikor*, *Ttipi-ttapa* eta *Noaua!* aldizkarien bilakaerak; horien aurrekontuek %40 eta %81,7 bitartean hazi baitziren aztertutako denbora-tartean. Aurrekontuetan behera sei aldizkarik egin dute, eta beste batek, *Galtzaundi aldizkariak*, kopuru berbera izan zuen epealdiko lehen eta azken urtean⁵⁵⁰.

Hortaz, udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak ez dute bat egiten egunerokoek eta informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuek aurrekontuei dagokienez 2005etik 2013ra erakutsi zuten beherako joerarekin.

Aurrekontuen errebaso azkar hau osatze aldera, esan tokian tokiko aldizkariak bi azpimultzotan banatu daitezkeela urterik urtera erakutsitako gorabeheren arabera: batetik, aurrekontua pixkanaka haziz joan direnak, 2013an daturik onena izan arte,⁵⁵¹ eta bestetik, aurrekonturik onena 2005-2013 bitarteko beste urteren batean, batez ere 2009an, izan zuten aldizkariak⁵⁵².

Eguneroko prentsarekin eta informazio orokorreko aldizkariekin zein aldizkari espezializatuekin egin bezala, goazen orain aurrekontuaren banakatzeari dagokion informazioa lantzeraz.

⁵⁴⁹ .- *Goiena paperak* 2006ko aurrekontuan izan zuen hazkunde ikaragarria: 929.350 euro. Igoera erraz ulertu daiteke, kontuan hartzen bada 2005ean oraindik kalean zirela *Arrasate Press* eta *Aretxagazeta* aldizkariak. 2006an, ordea, berrantolaketa-prozesu baten ondorioz, bi horiek desagertu eta bat egingo dute *Goienkarian*, gerora *Goiena papera* izango den hedabidean.

⁵⁵⁰ .- *Galtzaundik* 2007an izan zuen aurrekonturik handiena: 121.400 euro.

⁵⁵¹ .- Ondoko aldizkari hauek izan zuten epealdiko aurrekonturik onena 2013an: *Noaua!*, *Aikor*, *Karkara*, *Uztarria*, *Drogetteniturri*, *UK*, *Begitu* eta *Mailope*. Horiez gain, beste lauk 2012koa izan zuten onena: *Ttipi-ttapa*, *Pil-pilean*, *Danbolin* eta *Asteleheneko Goiena papera*.

⁵⁵² .- Ondoko aldizkari hauek izan zuten epealdiko aurrekonturik onena 2009an: *Barren*, *Aiurri Beterrri-Aiztondoko hamaboskaria*, *Aiurri Beterrri-Buruntzako astekaria*, *Baleike*, *Prest!*, *Berton*, *Guaixe*, *Irunero*, *Pulunpe* eta *Txintarri* (honek aurrekontu bera izan zuen 2008an eta 2009an: 260.125 euro).

120. taula. Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien aurrekontuen banakatzea, 2007 (€).

Egitasmoa	Aurrekontua	Langileak	Funtzionamendua	Produktzioa	Bestelakoak
Aikor!Txorierriko aldizkaria	108.633	50.907	6.249	36.464	15.013
Aiurri Beterri-Buruntzako astek.	143.000	00 ⁵⁵³	68.000	57.000	18.000
Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria	164.883	00 ⁵⁵⁴	73.213	77.605	14.065
Anboto	370.331	213.244	50.476	52.205	54.406
Artzape	24.390	12.940	2.200	8.300	950
Asteleheneko Goiena papera	293.118	166.300	13.600	56.020	57.198
Baleike	49.500	16.415	16.285	14.600	2.200
Barren	230.760	122.785	15.500	74.500	17.975
Begitu	97.300	45.300	7.000	34.500	10.500
Berton	45.830	16.830	7.700	14.500	6.800
Danbolin	32.680	19.400	2.200	9.080	2.000
Drogeteniturri	37.900	15.600	4.200	15.500	2.600
... eta kitto!	291.441	151.280	131.811	140.500	15.850
Galtzaundi	121.400	68.000	11.000	34.700	7.700
Goiena papera	950.304	507.696	60.000	222.250	160.358
Irunero	86.945	41.200	16.445	19.500	9.800
Kalaputxi	41.499	00 ⁵⁵⁵	16.800	21.999	3.100
Karkara	70.700	34.000	7.200	23.500	6.000
Noaua!	141.058	73.585	17.059	39.078	11.336
Pil-pilean	60.300	26.000	3.500	27.800	3.000
Prest!	47.900	19.000	2.400	18.000	8.500
Txintzarri	254.755	122.175	39.705	66.500	26.375
UK Uribe Kostako aldizkaria	241.833	119.941	24.492	59.000	38.400
Uztarria	80.700	48.000	5.700	21.000	6.000
Guztira					
Guaixe(2007)	207.683	90.460	36.007	50.115	31.101
Mailope(2007)	34.285	13.500	3.350	15.500	1.935
Ttipi-ttapa(2007)	170.283	38.903	34.780	82.900	13.700
Guztira					
Pulunpe(2008)	22.500	12.900	400	8.000	1.200

Iturria: HPSk 2007 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

⁵⁵³ .- Horrela dago arazketa-taulan.

⁵⁵⁴ .- Horrela dago arazketa-taulan.

⁵⁵⁵ .- Horrela dago arazketa-taulan.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Langileei loturiko atalean egindako gastuak jaten zuen 2007an, ia kasu guztietan, aurrekontuaren %40tik %60ra. Ehuneko horretatik behera zortzi aldizkari zeuden: *Baleike*, *Prest!*, *Berton* eta *Mailopek* %33,1etik %39,6ra bideratzen zuten langile-partidara; *Ttipi-ttapak*, berriz, aurrekontuaren %22,8 erabiltzen zuen langileak ordaintzeko, eta gasturik handiena produkzio-arloan egiten zuen (%48,7). Azkenik, *Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskariak*, hedabide bereko *astekariak* eta *Kalaputxik* ez zuten zentimo bakar bat jartzen arlo horretan.

Bigarren gastu garrantzitsuena, berriz, ia kasu guztietan, produkzioari lotutakoa izan zen, eta partidarik txikiena banaketara bideratutakoa.

2013ko datu ekonomikoak kontuan hartuz, ondoko banakatze-taula osatzen da:

Taula 121. Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien aurrekontuen banakatzea, 2013 (€).

Egitasmoa	Aurrekontua	Langileak	Funtzionamendua	Produktzioa	Banaketa
Aikor!Txorierriko aldizkaria	131.705	65.180	12.325	44.100	10.100
Aiurri Beterri-Buruntzako astek.	157.700	10.500	66.500	64.200	16.500
Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria	144.250	3.250	72.000	62.500	6.500
Anboto	400.950	214.624	42.100	82.626	61.600
Artzape	24.500	16.000	2.500	4.500	1.500
Asteleheneko Goiena papera	364.065	204.967	25.065	65.185	68.848
Baleike	67.950	40.000	13.250	12.500	2.200
Barren	248.000	157.000	15.000	58.000	18.000
Begitu	129.400	81.000	6.900	20.000	21.500
Berton	36.000	14.000	4.000	11.500	6.500
Danbolin	35.500	21.000	3.100	10.600	800
Drogeteniturrri	48.900	21.000	5.800	17.800	4.300
... eta kitto!	296.945	147.150	11.900	122.000	15.895
Galtzaundi	111.500	60.000	16.000	28.500	7.000
Goiena papera	834.103	462.443	65.300	129.250	177.110
Irunero	52.676	17.200	21.448	10.108	3.920
Kalaputxi	22.200	00 ⁵⁵⁶	4.000	14.500	3.700
Karkara	85.405	44.745	8.000	28.000	4.660
Noaua!	175.100	109.300	15.000	44.000	6.800
Pil-pilean	48.908	34.848	2.747	9.396	1.920
Prest!	40.000	14.000	6.000	13.000	7.000
Txintzarri	203.200	107.000	19.700	59.500	17.000
UK Uribe Kostako aldizkaria	245.217	136.517	12.500	56.200	40.000
Uztarria	90.000	48.900	7.500	26.000	7.600
Guztira					
Guaixe(07)	221.825	138.825	19.000	40.000	24.000
Mailope(07)	41.695	00 ⁵⁵⁷	1.995	37.000	2.700
Ttipi-ttapa(07)	302.333	136.450	52.682	92.000	21.201
Guztira					
Pulunpe(08)	50.250	22.600	7.150	20.500	00 ⁵⁵⁸

Iturria: HPSk 2007 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

⁵⁵⁶ .- Horrela dago arazketa-taulan.

⁵⁵⁷ .- Horrela dago arazketa-taulan.

⁵⁵⁸ .- Horrela dago arazketa-taulan.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

2013an langileak ataleko zenbakiak, oro har, gora egin zuten aurrekontu osoarekiko. Baieztapenaren erakusgarri da 2007an hedabide bakar batean ere ez zela gertatzen langileengana aurrekontuaren %60tik gora bideratzea; 2013an, ordea, sei zeuden egoera horretan⁵⁵⁹. Zenbait aldizkaritan asko igo zen gainera; horren lekukorik garbienak *Pil-pilean*, *Baleike*, *Ttipi-ttapa* eta *Noaua!* aldizkariak ditugu, hurrenez hurren 28, 25, 22 eta 20 puntu egin zuelako gora langileei bideratutako diruak⁵⁶⁰. Horietako hiruren kasuan aurrekontuek ere igoera handiak izan zituzten, baina ez da hala gertatzen *Pil-pilean* aldizkarian. Bestalde, 2013an langileak ordaintzeko erabilitakoa 2007an behar zutenarekin alderatu ezkerro, behera egin zutenen artean aipatzekoak dira *Irunero* (15 puntu behera)⁵⁶¹, *Pulunpe* (12 puntu behera) eta pertsonal gastuak hutsean utzi zituen *Mailope* aldizkaria.

Azkenik, 2007an gertatu bezala, 2013an ere bigarren gastu-partida handiena oro har, produkzioari lotutakoa izan zen, eta *Goiena papera* eta *Asteleheneko Goiena* kenduta, tokikoek diru gutxien argitalpenen banaketan gastatu zuten.

5.2.1.3.2. UDALERRI, ESKUALDE EDO LURRALDE JAKINETAN ZABALTZEN DIREN INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIEN FINANTZAKETA-MAILA PROPIOA

Eskualde, udalerrri, eta lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak finantzaketa maila propioan hazkunderako urratsa, puntuak irabazteko bidea egin zuten 2005etik 2013ra. Azterketarako ditugun 28 hedabideetatik hala gertatu da 23tan, eta horietatik hiru azpimarratu daitezke: ia hamalau puntu irabazi zituen *Galtzaundi*, hamaika pasatxo irabazi zituen *Mailope* eta gora gehien, hamazazpi puntu, egin zuen *Ttipi-ttapa*. Lehenengoaren kasuan, aurrekontu berari eutsi zion, baina sarrera pribatu gehiago eskuratu zituen⁵⁶²; beste bietan aurrekontuak nabarmen

⁵⁵⁹ .- *Barren* %63,3; *Noaua!* %62,4; *Begitu* %62,6; *Pil-pilean* %71,2; *Artzape* %65,3 eta *Guaixe* aldizkarian %62,5.

⁵⁶⁰ .- *Pil-pilean* aldizkarian langileentzako diru-partida 2007an aurrekontu osoaren %43,1ekoa izan zen eta 2013an %71,2koa. *Baleike* aldizkarian portzentajea %33,2 izatetik %58,8 izatera igaro zen. *Ttipi-ttapa* aldizkarian %22,8tik %45,1era eta *Noaua!* aldizkarian %52 izatetik %62,4 izatera.

⁵⁶¹ .- *Irunero* aldizkarian langileentzako diru-partida 2007an aurrekontu osoaren %43,1ekoa izan zen eta 2013an %32,6koa. *Pulunpe* aldizkarian portzentajea %57,3tik %44,9ra igaro zen eta *Mailope* aldizkarian 2007 urtean %39,4 izatetik 2013an hutsa izatera igaro zen.

⁵⁶² .- *Galtzaundi* aldizkariak 111.500 euroko aurrekontua izan zuen 2005ean eta beste horrenbestekoa 2013an. Sarrera pribatuak 2005ean 58.300 eurokoak izan ziren, 2013an 73.500 eurokoak.

hazi ziren eta are handiagoa izan zen horien sarrera pribatuek izan zuten igoera⁵⁶³. Bestalde, autofinantzaketan behera egin dute 5 aldizkarik; gehien *Noaua!* ia hamahiru puntu galduta⁵⁶⁴.

Ondoko taulak erakusten du multzo honetan azterketa egiteko hautatu diren 28 hedabideen autofinantzaketak izan duen bilakaera.

⁵⁶³ .- *Mailope eta Ttipi-ttapa* aldizkariak 2007tik aurrera jaso zuten Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza. Aurreko bi urteetan ezin izan zuten eskaria aurkeztu, deialdiak honela definitzen zituelako aldizkari hauen azpi-multzoa: "EAEko udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkariak". Biak Nafarroakoak izanik, esan bezala, ez zuten aurkezterik izan. 2007ko deialdian, ordea, "EAE" aipamena desagertu egin zen. *Mailopen* aurrekontua %21,6 hazi zen 2007-2013 bitartean, eta sarrera pribatuak, denbora tarte berean, %54,1 hazi ziren. *Ttipi-ttapa* aldizkariari dagokionez, aurrekontua %77,5 hazi zen 2007tik 2013ra. Sarrera pribatuak 78.727,8 eurokoak izan zituen 2007an, eta 2013an 191.564,1 eurokoak. Hortaz, sarrera pribatuek % 143,3ko hazkundea izan zuten aipatutako denbora-tartean.

⁵⁶⁴ .- *Noaua!* aldizkariak finantzaketa-maila propioan izan duen beherakada erraz ulertu daiteke, kontuan hartzen bada 2005-2013 artean aurrekontuak % 81,7ko igoera izan zuela, eta sarrera pribatuek ere gora egin zuten arren (%41,4), igoera hori oso urrun zegoen aurrekontuek izandakotik. (Sarrera pribatuak 2005ean 56.347,4 eurokoak izan ziren; 2013an 79.700 eurokoak).

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

122. taula. Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien autofinantzaketa-maila, 2005 eta 2013 (%).

	2005	2013	2005-2013	Urterik onena eta %	
Aikor!Txorierriko aldizkaria	53,4	59,6	+6,2	2013	59,6
Aiurri Beterri-Buruntzako astekaria	45,0	41,1	-3,9	2005	45,0
Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria	40,4	41,2	+0,8	2006	50,4
Anboto	57,5	55,0	-2,5	2006	62,3
Artzape	44,4	40,4	-4,0	2012/13	44,7
Asteleheneko Goiena papera	69,5	69,8	+0,3	2006	71,8
Baleike	50,6	50,7	+0,1	2012	51,5
Barren	50,1	47,3	-2,8	2005	50,1
Begitu	42,4	46,7	+4,3	2007	60,9
Berton	40,0	49,4	+9,4	2013	49,4
Danbolin	41,4	48,4	+7,0	2013	48,4
Drogeteniturri	40,0	44,2	+4,2	2013	44,2
... eta kitto!	61,0	61,4	+0,4	2007	71,7
Galtzaundi	52,3	65,9	+13,6	2013	65,9
Goiena papera	54,9	57,0	+2,1	2006	59,4
Irunero	41,4	45,6	+4,2	2013	45,6
Kalaputxi	40,9	48,2	+7,3	2012	47,0
Karkara	51,4	51,8	+0,4	2013	51,8
Noaua!	58,5	45,5	-13,0	2005	58,5
Pil-pilean	47,4	50,3	+2,9	2013	50,3
Prest!	41,3	52,0	+10,7	2013	52,0
Txintzarri	56,7	57,2	+0,5	2013	57,2
UK Uribe Kostako aldizkaria	40,0	44,9	+4,9	2013	44,9
Uztarria	55,6	56,1	+0,5	2007	59,2
	2007	2013	2007-2013	Urterik onena eta %	
Guaixe(2007)	40,5	46,9	+6,4	2012	47,1
Mailope(2007)	42,6	54,0	+11,4	2010	57,0
Ttipi-ttapa(2007)	46,2	63,4	+17,2	2012	66,5
	2008	2013	2008-2013	Urterik onena eta %	
Pulunpe(2008)	41,2	49,7	+8,5	2010	54,9

Iturria: HPSk 2005-2013 aldiru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatuta.

Goiko datuak orokorrean irakurrita, eta jadanik jorratu ditugun eguneroko inprimatuen zein informazio orokorreko eta espezializatutako aldizkariak eskainitakoekin alderatuta, esan daiteke 2005-2013 bitartean finantzaketa-maila propioari dagokionez, portaerarik onena tokikoek erakutsi dutela.

5.2.1.3.3. UDALERRI, ESKUALDE EDO LURRALDE JAKINETAN ZABALTZEN DIREN INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIEN MAIZTASUNAK, BOTALDIAK ETA ORRIALDE-KOPURUAK

Informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariekin gertatu bezala, honakoan ere aniztasuna da nagusi botaldiei, maiztasunei eta orrialde-kopuruei dagokienean. 2005etik 2013ra botaldiak zortziahun aletik hogeit mila alera arteko tarte zabalean zeuden; maiztasunekin beste horrenbeste gertatzen zen: urtean 11 zenbaki kaleratzetik 84 zenbaki izaterainokoak ziren, eta orrialde-kopuruei begiratuta 8 orrialde zituztenetik 56 zituztenera zeuden; hala ere, gehientsuenak 24 eta 32 orrialde artekoak ziren. Bestalde, tokian tokikoekin ez da hain argi ikusten informazio orokorra eta espezializatua zabaltzen zuten aldizkariarentzako erregela: maiztasuna zenbat eta urriagoa, orduan eta orrialde gehiago.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

123. taula. Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien maiztasunak (urtean), orrialde-kopuruak eta botaldiak, 2005 eta 2013.

	Maiztasuna		Orrialde-kopurua (ale bakoitzak)		Botaldia (zenbaki bakoitzeko)		
	2005	2013	2005	2013	2005	2013	2005-2013
Aikor!Txorierriko aldizkaria	11	11	36	40	5.000	7.000	+2.000
Aiurri Beterri-Buruntzako astek.	43	42	16	16	4.000	4.167	+167
Aiurri Beterri-Aiztondoko hamab.	22	22	32	24	1.850	1.650	-200
Anboto	44	45	24	24	8.600	10.600	+2.000
Artzape	11	11	24	24	1.075	1.170	+95
Asteleheneko Goiena papera	44	44	32	40	5.000	4.250	-700
Baleike	11	11	36	32	1.050	800	-250
Barren	43	42	28	24	4.350	4.860	+510
Begitu	12	22	28	16	5.200	6.600	+1.400
Berton	11	11	32	32	1.800	2.300	+500
Danbolin	11	11	20	20	1.350	1.500	+150
Drogeteniturri	11	11	28	24	1.650	2.360	+710
... eta kitto!	42	42	32	28	7.850	8.100	+250
Galtzaundi	22	20	28	24	5.000	4.500	-500
Goiena papera	45	45	28	40	18.900	20.150	+1.150
Irunero	13	18	32	16	3.500	3.500	=
Kalaputxi	11	11	28	24	1.900	2.200	+300
Karkara	24	19	24	28	2.830	3.200	+370
Noaua!	23	42	24	20	2.600	2.960	+360
Pil-pilean	22	11	16	16	1.920	2.000	+80
Prest!	11	11	36	32	2.200	2.800	+600
Txintzarri	84	72	16	8	7.400	7.800	+400
UK Uribe Kostako aldizkaria ⁵⁶⁵	20	19	56	56	4.000	3.500	-500
Uztarria	11	11	44	40	2.430	2.500	+70
<hr/>							
Guaixe(2007)	44	45	24	20	4.500	4.500	=
Mailope(2007)	11	11	28	32	1.500	1.600	+100
Ttipi-ttapa(2007)	24	24	40	48	6.000	6.000	=
<hr/>							
Pulunpe(2008)	11	11	28	32	1.500	1.630	+130

Iturria: HPSk 2005, 2007, 2008 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

⁵⁶⁵ .- UK Uribe Kostako aldizkariak 2013an bakarrik egin zuen behera maiztasunean; gainontzeko urte guztietan 20 zenbaki kaleratu zituen, eta 2011n bat gehiago, 21 zenbaki kaleratu zituen.

2005-2013 bitartean, multzo honetako hedabideek polito eutsi zioten maiztasunari, eta zenbaitek, *Noaua!*, *Begitu* edo *Irunero* aldizkariak, esaterako, sarriago kaleratzen ziren, 2013an 2005ean baino. Horietan maiztasunean gora egin zuten, baina orrialde-kopuruetan behera. Orrialde-kopuruari dagokionez, denetarik dago, baina gehiengoa da kopurua murriztu zuena. Botaldiak eskaintzen ditu, zalantzarik gabe, azterketarako daturik onenak: errepatatutako 28 hedabideetatik 20k ale gehiago kaleratzen zituzten 2013an 2005ean baino, beste hiruk kopuru bereberki eutsi zieten eta bosten kasuan botaldiak behera egin zuen. Hortaz, multzo honetako argitalpenek nabarmen desberdintzen dira aurretik aztertu ditugun beste guztietatik. Izan ere, egunerokoen eta informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen botaldiek 2005etik 2013ra beherako bidea egin zuten bitartean, udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen zirenek, orokorrean, hobetu egin zituzten botaldiak. Eta arlo horretako portaera onarekin erabat loturik egongo da 2013an inprimatutako orrialde-kopurua 2005ean izandakoaren gainetik egotea. Zenbaki zehatzetan jartzeko, 2013an 2005ean baino 12.580.864 orri gehiago inprimatu zituzten tokikoek, hazkundea portzentajetara ekarrita, %12,7koa da. Ez da hala gertatzen, ordea, sortutako orrialdeei dagokienez, kasu honetan 2013an 2005ean baino 1.144 orrialde gutxiago sortu zituzten; hots, %6,1ko beherakada. Eta negatiboa den datua positiboa bilaka daiteke gehigarrietan sortutako orrialde-kopurua ere kontuan hartzen bada; izan ere, 2013an aztertu diren 28 aldizkariak 2.000 orrialde sortu zituzten⁵⁶⁶. Dena den, 2005eko arazketa-tauletan ez denez gehigarriari buruzko informazioa jasotzen, ezin da bi urteen arteko alderaketa zehatza burutu.

⁵⁶⁶ .- Ondokoak dira 2013ko gehigarriari buruzko datu zehatzak: *Ttipi-ttapa*: 204 orrialde, *Noaua!*: 140, *Barren*: 120, *Anboto*: 384 orrialde, *Txintxarri*: 128, *Asteleheneko Goiena*: 24 orrialde, *Aiurri Beterrri-Aiztondoko hamaboskaria*: 48, *Aiurri, Baterri-Buruntzako astekaria*: 72, *Galtzaundi*: 24, *Karkara*: 60, *Guaixe*: 80, *Goiena papera*: 256, *Pulunpe*: 64, *Drogetteniturri*: 16, ...*eta kitto!*: 136 eta *Pil-pilean*: 40 orrialde.

124. taula. "Hedabideak" diru-laguntzaren onuradun izan diren udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarietako urtean sortutako eta inprimatutako orrialde-kopurua, 2005 eta 2013

	Urtean sortutako orrialdeak		Urtean inprimatutako orrialdeak	
	2005	2013	2005	2013
Aikor!Txorierriko aldizkaria	396	440	1.980.000	3.080.000
Aiurri Beterri-Buruntzako astek.	688	672	2.752.000	2.800.224
Aiurri Beterri-Aiztondoko ham.	704	528	1.302.400	871.200
Anboto	1.056	1.080	9.081.600	11.448.000
Artzape	264	264	283.800	308.880
Asteleheneko Goienkaria/ Asteleheneko Goiena papera ⁵⁶⁷	1.408	1.760	7.040.000	7.480.000
Baleike	396	352	415.800	281.600
Barren	1.204	1.008	5.237.400	4.898.800
Begitu	336	352	1.747.200	2.323.200
Berton	352	352	633.600	809.600
Danbolin	220	220	297.000	330.000
Drogetenitturri	308	264	508.200	623.040
... eta kitto!	1.344	1.176	6.720.000	9.525.600
Galtzaundi	616	480	3.080.000	2.160.000
Goienkaria/Goiena papera ⁵⁶⁸	1.260	1.800	23.814.000	36.270.000
Irunero	416	288	1.456.000	1.008.000
Kalaputxi	308	264	585.200	580.800
Karkara	576	532	1.630.080	1.702.400
Noaua!	552	840	1.435.200	2.486.400
Pil-pilean	352	176	675.840	352.000
Prest!	396	352	871.200	985.600
Txintzarri	1.344	576	9.945.600	4.492.800
UK Uribe Kostako aldizkaria	1.120	1.064	4.480.000	3.724.000
Uztarria	484	440	1.176.120	1.100.000
	2007	2013	2007	2013
Guaixe(2007)	1.056	900	4.752.000	4.050.000
Mailope(2007)	308	352	462.000	563.200
Ttipi-ttapa(2007)	960	1.056	5.760.000	6.336.000
	2008	2013	2008	2013
Pulunpe(2008)	308	352	462.000	573.760
GUZTIRA	18.732	17.588	98.584.240	111.165.104

Iturria: tesiarene egileak prestatua.

⁵⁶⁷ .- 2005ean, Asteleheneko Goienkaria zen. 2013an, Asteleheneko Goiena papera.

⁵⁶⁸ .- 2005ean, Goienkaria zen. 2013an, Goiena papera.

Azterketarako hautatu diren 28 aldizkariak kontsideratu beharrean, 2005ean diru-laguntza jaso zuten guztiak eta 2013an beste horrenbeste egin zutenak hartuko balira, 36na kasu bakoitzean, logikoa denez, sortutako zein inprimatutako orrialde-kopuruek gora egingo lukete; baina horrela ere, aurretik ikusitako joera errepikatzen da: 2013an sortutako orrialde-kopurua 2005ean sortutakoa baino zertxobait txikiagoa da eta inprimatutakoekin alderantziz gertatzen da, gehiago dira 2013an. Zerrendetan ez daude kontabilizatuta gehigarrien bidez sortu eta inprimatutako orrialdeak, eta ez daude jasota 2005eko arazketa-tauletan ez direlako horiek ageri.

Multzo honetako azterketa egiteko hautatu ditugun 28 tokikoak hartu beharrean, 2005ean eta 2013an Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso zuten tokiko argitalpen guztiak kontsideratuta⁵⁶⁹, berriz, ondokoa da urte bakoitzeko zenbakiak gehituta sortzen den emaitza:

125. taula. "Hedabideak" diru-laguntzaren onuradun izan diren udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkari guztiek 2005ean eta 2013an sortutako eta inprimatutako orri-kopurua.

Sortutako orri-kopurua		Inprimatutako orri-kopurua	
2005	2013	2005	2013
23.684	22.258	128.088.840	155.656.224

Iturria: HPSk 2005ean eta 2013 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-taulak. Tesiaren egileak moldatua.

⁵⁶⁹ .- Eragiketa egiteko urtean sortutako eta urtean inprimatutako orrialdeen kopuruak biltzen dituen taulari beste zenbait gehitu behar zaizkie. 2005eko zutabean laguntzak jaso zituzten ondoko aldizkariak: *Akatz* (urtean 264 orrialde sortu eta 264.000 inprimatu), *Aretxagazeta* (1.080 sortu eta 3.078.000 inprimatu), *Arrasate Press* (1.080 sortu eta 8.121.600 inprimatu), *Berrigara* (900//5.481.000), *El Social Basauriko aldizkaria* (176//2640.000), *Geu aldizkaria* (576//1.728.000), *Goierriarra* (600//4.200.000), *Herria* (800//2.080.000), *Oarsoaldean On* (484//1.161.000), *Otamotz* (264//528.000) eta *Txaparro* (352//2464.000). Horiek guztiak dagoeneko ez dira izango 2013ko onuradunen zerrendan. Baina 2013koan 2005ean ez zeuden beste zenbait agertuko dira, ondokoak alegia: *Arabako Hitza* (urtean 376 orrialde sortu eta urtean 564.000 orrialde inprimatu), *Bgabiz* (336 sortu eta 1.881.600 inprimatu), *Bizkaiko Hitza* (752//7.500.000), *Ezkerraldeko KZ* (176//1.760.000), *Gipuzkoako Hitza* (752//22.560.000), *Goiberri* (704//4.294.000), *Guaixe* (900//4.050.000), *Irutxuloko Hitza* (704 //2780.800), *Mailope* (352//563.200), *Nafarroako Hitza* (376//564.000), *Oarso Bidasoko Hitza* (720//3.168.000), *Pulunpe* (352//573.760), *Ttipi-ttapa* (1.056//6.336.000) eta *Zuhatza berriketan* (220 orrialde sortu urtean eta 308.000 inprimatu). Bi urteei dagokien zerrenda luzeetan, ñabardura bat egin behar da, *Herria* aldizkariari buruzkoa hain zuzen. 2005eko onuradunen zerrendan ageri da, baina ez 2013koan. Ez da hala gertatzen 2013an kaleratzen ez zelako, baizik eta beste arrazoi bategatik: *Herria* aldizkaria 2005 eta 2006 urteetan "Hedabideak" deialdira aurkeztu zen, diru-laguntza jaso ahal izateko, eta jaso ere jaso zuen. Baina 2007an, Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu zuen Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin, eta hortik aurrera *Herria* aldizkariak hitzarmenean aurreikusitako partidatik jasoko du laguntza, ez urteroko "Hedabideak" deialdi bidez.

2005 eta 2013 urteen arteko aldea erakusten duen goiko taulari iruzkin pare bat egin behar zaizkio:

1.- 2005ean, urtero mila orrialdetik gora sortzen zituzten aldizkarien artean, tokikoen historian aitzindari izandako *Arrasate Press* eta, horrekin batera, *Aretxagazeta* ere kalean ziren. 2006ko deialdian dagoeneko ez dira agertuko.⁵⁷⁰

2.- 2013ko datuetan gertatu zen aldaketarik aipagarriena lurraldeetako *Hitzak* argitalpenei esker etorri zen⁵⁷¹; horietako bik, Bizkaikoak eta bereziki Gipuzkoakoak ekarpen garrantzitsua egiten baitzioten urtean sortutako eta inprimatutako orrialde-kopuruei: biak batuta 2013an 1.504 orrialde sortu eta 30.060.000 orrialde inprimatu zituzten. Horrez gain, ez da ahaztu behar 2013an ordura arte egunerokoen multzoan izandako *Oarso Bidasoko Hitza* eta *Irutxuloko Hitza* ere, lehen aldiz aldizkako hedabide bilakatu zirela eta bien artean ia sei milioi orrialde inprimatu zituztela.

Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien atala osatzeko, orain arte azaldutako informazioa taula bakar batean biltzea geratzen da. Lehenik eta behin, azterketarako hautatu diren 28 aldizkariena aurkeztuko da, eta ondoren, 2005-2013 bitarteko uneren batean “Hedabideak” deialdiko laguntza jaso zuten 52 aldizkariena osatzeko geratzen diren gainontzekoena.

⁵⁷⁰ .- *Goienkaria* egitasmoarekin bat egiten dutelako.

⁵⁷¹ .- *Araba, Bizkaia, Gipuzkoa* eta *Nafarroako Hitzak* 2010ean kaleratu zituzten. Lehenengo hirurek 2011an hasi ziren “Hedabideak” deialdiko laguntzak jasotzen, eta Nafarroakoak 2012tik aurrera jaso ditu. 2013ko deialdiko arazketa-taulen arabera, argitalpen horiek 47 zenbaki argitaratzen dituzte urtero, Arabakoak eta Nafarroakoak 8 orrialde eta 1.500 aleko botaldiak dituzte (Arabakoak lehen urtean 1.000 ale), beste biak 16 orrialde dituzte, *Gipuzkoako Hitzak* 30.000 aleko botaldia du eta *Bizkaiko Hitzak* 10.000 alekoa.

126. taula. Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien bilakaera orokorra, 2005-2013⁵⁷²

	Aurrekontua	Finantzaketa maila propioa	Maiztasuna	Orrialde-kopurua	Botaldia
Aikor!Txorierriko aldizkaria	↑	↑	=	↑	↑
Aiurri Beterri-Buruntzako astek.	↑	↓	↓	=	↑
Aiurri Beterri-Aiztondoko ham.	↓	↑	=	↓	↓
Anboto	↑	↓	↑	=	↑
Artzape	↑	↓	=	=	↑
Asteleheneko Goiena papera	↑	↑	=	↑	↓
Baleike	↑	↑	=	↓	↓
Barren	↑	↓	↓	↓	↑
Begitu	↑	↑	↑	↓	↑
Berton	↓	↑	=	=	↑
Danbolin	↑	↑	=	=	↑
Drogeteniturri	↑	↑	=	↓	↑
... eta kitto!	↑	↑	=	↓	↑
Galtzaundi	=	↑	↓	↓	↓
Goiena papera	↑	↑	=	↑	↑
Irunero	↓	↑	↑	↓	=
Kalaputxi	↓	↑	=	↓	↑
Karkara	↑	↑	↓	↑	↑
Noaua!	↑	↓	↑	↓	↑
Pil-pilean	↑	↑	↓	=	↑
Prest!	↓	↑	=	↓	↑
Txintzarri	↓	↑	↓	↓	↑
UK Uribe Kostako aldizk.	↑	↑	↓	=	↓
Uztarría	↑	↑	=	↓	↑
Guaixe (2007)	↑	↑	↑	↓	=
Mailope (2007)	↑	↑	=	↑	↑
Ttipi-ttapa(2007)	↑	↑	=	↑	=
Pulunpe (2008)	↑	↑	=	↑	↑

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

⁵⁷² .- Gogoratu informazio orokorreko aldizkariekin eta aldizkari espezializatuekin gertatzen zen bezala, multzo honetako zenbait argitalpenen kasuan ere analisiaren lehen urtea ez dela 2005a. Horiek beranduago sortutakoak lirateke, eta ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak ere beranduago hasi ziren eskatzen eta jasotzen. Hala gertatzen denean, aldizkariaren izenaren ondoan dago adierazita zein urtetik hasi den datuen lanketa.

Aurreko atalean, hau da, 2005-2013 bitartean informazio orokorra eta espezializatu zabaltzen duten aldizkarien bilakaera egunerokoena baino hobea izan zela baieztatu da. Tokikoei dagokien bilakaera laburbiltzen duen arestiko taulako informazioa ikusita ondoriozta daiteke hirugarren multzo honetan kokatzen diren hedabideak, tokikoak hain zuzen, izan direla 2005-2013 epealdian denen artean bilakaerarik onena erakutsi dutenak. Gehientsuenek igoerak izan zituzten aurrekontuetan, botaldietan eta bereziki azpimarratu behar dugun finantzaketa-maila propioan. Aztertutako 28 hedabideetatik 23tan egin zuen gora autofinantzaketak, eta igoera kasu gehienetan, ez zaio lotu behar aurrekontuetan egindako murrizketari baizik eta sarrera pribatuetan izandako hobekuntzari. Horrez gain, maiztasunari ere polito eutsi zioten, eta daturik txarrena, argitaratutako orrialde-kopuruek izan zuten, erdiek behera egin baitzuten arlo horretan.

Multzo honek neurri ezberdineko esparru geografikoetan zabaltzen diren aldizkariak biltzen ditu; batzuk udalerrri bakar batean banatzen dira, beste batzuk eskualde mailakoak dira eta handienak lurralde oso batean. Aztertutako bost adierazleen bilakaera paperezkoa zabaltzen den esparru geografikoaren tamainarekin harremanetan jarri ezker, esan daiteke emaitzarik onenak eskualde mailako edo udalerrri anitzeko zabalkundea duten aldizkarietan gertatu direla. Horren lekuko *Aikor*, *Goiena papera*, *Begitu*, *Karkara*, *Drogetteniturri*, *Guaixe*, *Ttipi-ttapa*, *Mailope* eta *Pulunpe*. Dena den, horiekin batera badira udalerrri bakar batean zabaldua ia adierazle guztietan hobera egin duten aldizkariak ere; adibidez ... *eta kitto!* eta *Uztarria*.

Bestalde, 2005etik 2013ra uneren batean Jaurlaritzaren dirua jaso zuten gainontzeko 24 aldizkarien informazioak, beheko taulak erakusten duenez, ez dakarkio berrikuntzarik orain arte ikusitakoari.

127. taula. 2005-2013 bitartean desagertu ziren udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetako informazio orokorreko aldizkarien bilakaera eta 2005-2013 bitartean 5 urtetik behera laguntza jaso zutenen bilakaera.

(1)Maiztasuna. (2)Finantzaketa-maila propioa. (3)Botaldia. (4)Maiztasuna. (5) Orriak

Egitasmoa eta laguntza zein urtetan jaso	1	2	3	4	5
Akatz (2005-2006)	↓	↑	=	=	=
Arabako Hitza (2011-2013)	↓	↓	↑	=	=
Behe Bidasoako Hitza (2009 – 2010)	↑	↓	↓	↑	=
Berbaz (2011-2012)	↓	↓	↓	=	=
Bizkaiko Hitza (2011-2013)	=	↑	=	=	=
Boga (2011 -2012)	↓	↓	=	=	=
Geu aldizkaria (2005-2009)	↑	↓	↓	=	↑
Gipuzkoako Hitza (2011-2013)	↓	=	=	=	=
Goiberri (2012 -2013)	↓	↓	=	↑	=
Goierritatarra (2005-2011)	↓	↓	↓	=	↑
Herria (2005 -2006)	↓	↑	↓	=	=
Maxixatzen (2005-2009)	↑	↓	↑	=	↓
Nafarroako Hitza (2012 -2013)	↓	=	=	=	=
Oarsoaldean On aldizkaria (2005-2010)	↑	↓	↓	=	↓
Otamotz (2005-2011)	↑	=	↓	=	↑
Txaparro aldizkaria (2005-2009)	↑	↓	↓	=	↑
Zuhatza Berriketari (2009-2013)	↑	↑	↓	↓	↓
Urte bakarrean jasotakoak: <i>El Social Basauriko aldizkaria, Bagabiz, Oarso Bidasoko Hitza, Irutxuloko Hitza, Berrigara, Arrasate press, Aretxagazeta</i> ⁵⁷³					
GUZTIRA: 24					

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Goiko taulatik zerbait aipatzekotan lurraldekako Hitzen bilakaera litzateke. Sorreratik 2013rako daturik onenak Bizkaiko eta Gipuzkoako edizioei dagozkie⁵⁷⁴; gainera, horiek dira botaldi handienak dituztenak.

⁵⁷³ .- Aldizkari hauen kasuan, aztertu den epealdian urte bakarrean jaso zutenek “hedabideak” diru-laguntza, ezinezkoa da denboran zehar izan duten bilakaerari buruzko ezer adierazi. Horregatik daude taulako lauki guztiak hutsik.

⁵⁷⁴ .- *Gipuzkoako Hitzaren* aurrekontuak behera egin zuen 2011-2013 tartean, baina beherakada hori oso txikia izan da: 2011n 187.000 euroko aurrekontua izan zuen eta beste bi urteetan 185.000 eurokoa.

5.2.1.3.4. UDALERRI, ESKUALDE EDO LURRALDE JAKINETAKO INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIEN SALMENTAK

Doakotasuna da udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien ezaugarri bereizgarrienetakoa eta, aldi berean, duten harrera ona azaltzeko arrazoiatariko bat. Gehienak zabalkunde masibokoak dira eta doakoak. Etxez etxeko banaketa egiten dute, eta horrez gain, jendea biltzen den puntuetan uzten dituzte aleak (dendak, tabernak...). Horrekin batera, tokikoekin erabilitako formularik ohikoena harpidetza ordainduarena da. Kasu batzuetan aldizkaria jasotzeagatik ordaintzen da, eta beste batzuetan, aldizkariaren bultzatzaile den elkarteko kide izateagatik ordaintzen den kuotak lotuta dakar aldizkaria etxean hartzea. Edonola ere, multzo honetan kokatzen diren argitalpenen salmenta-datuak urriak dira. Ideia bat izateko 2005eko diru-laguntzen esleipenak egiteko erabili ziren arazketa-tauletan "Saldu" izeneko zutabeetan gehien errepikatzen zen zenbakia, alde handiarekin, 0 zen. Urte hartan, guztira udalerrri eta eskualdeetako informazio orokorreko 36 aldizkariri esleitu zitzairen diru-laguntza, eta horietatik lau kasutan bakarrik ageri zen hutsa ez zen beste salmenta-zenbakiren bat: *Asteleheneko Goienkaria*: 5.000 ale, *Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria*: 1.800 ale, *Akatz*: 800 ale eta *Herria*: 300 ale. Lan honen ikerketa-epealdiaren azken urtean, 2013an, egoera zertxobait aldatuta zegoen 2005ekoarekiko. Ondoko taulak erakusten du:

128. taula. Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien salmenta, 2013.

	Salmenta 2013 (aleak)
Aikor!Txorierriko aldizkaria	120
Anboto	472
Arabako Hitza	1.500
Asteleheneko Goiena papera	4.250
Baleike	200
Barren	357
Bizkaiko Hitza	5.000
Danbolin	20
... eta kitto!	277
Gipuzkoako Hitza	15.000
Goiberri	3.450
Goiena papera	510
Guaixe	1.500
Irutxuloko Hitza	2.150
Karkara	66
Mailope	40
Nafarroako Hitza	1.500
Oarso Bidasoko Hitza	2.400
Ttipi-ttapa	3.272
Uztarria	300

Iturria: HPSk 2013 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Taulak eskaintzen duen panoramatik gauza pare bat aipa daitezke; batetik, *Oarso Bidasoko Hitza* eta *Irutxuloko Hitzarentzat* aldizkako hedabide gisa aritu ziren lehen urtea izan zen 2013koa; lehenak, 2012an saldutako kopuru bera errepikatuko du, botaldiaren erdia baino zerbait gehiago (%54,5); *Irutxuloko Hitzak*, berriz, gainditu egingo du 2012an zuen salmenta kopurua⁵⁷⁵, eta botaldi osoaren %54ra iritsiko da. Bestetik, aipagarria da lurraldeko *Hitzak* dituzten salmentak. Laguntzen esleipenak egiteko erabili ziren balorazio-taulen arabera, Arabakoak eta Nafarroakoak botaldi osoa saltzen zuten eta beste biak, berriz, (Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak) botaldiaren erdia. Eta salmenta-daturik onenak bi aldizkarik zituzten 2013an: *Ttipi-ttapa* aldizkariak (botaldiaren %55) eta, bereziki, *Asteleheneko Goiena paperak*; azken honek, arazketa-tauletan jasotako informazioaren arabera, botaldi osoa saltzen baitzuen.

⁵⁷⁵.- Arazketa-taularen arabera 2012an *Irutxuloko Hitzak* 1.612 ale saldu zituen, botaldiaren %32.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

5.2.1.4. NAGUSIKI GAZTELANIA DARABILTEN EGUNKARIEK PRESTATU ETA ZABALDUTAKO EUSKARA HUTSEZKO GEHIGARRIAK ETA ERREFERENTZIA-ORRIALDEAK

Orain arte aurkeztu eta aztertu diren euskarazko idatzizko hedabideen hiru multzoez gain, 2005-2013 bitarteko zenbait urtetan, diru-laguntzak esleitu zitzaizkien beste bi multzori. Batetik, 2006tik 2011ra, biak barne, nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak, eta bestetik, 2009an eta 2010ean, beste horrenbeste egin zen nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskarazko erreferentzia-orrialdeei zuzenduta.

129. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako gehigarriak eta erreferentzia-orrialdeentzako "Hedabideak" deialdia: laguntzak norentzat eta zein urtetan.

	Onuraduna	Diru-laguntza zein urtetan
Gehigarriak	<i>Xirika 16</i>	2006
	<i>Ortzadar</i>	2006tik 2011ra biak barne
	<i>Araba Gaztea</i>	2006tik 2011ra biak barne
	<i>Izan gazte</i>	2006tik 2011ra biak barne
	<i>El Diario Vasco</i>	2011
Erreferentzia-orrialdeak	<i>El País egunkaria</i>	2009
	<i>Diario de noticias de Álava</i>	2009
	<i>Deia egunkaria</i>	2009
	<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	2009 eta 2010
	<i>El Diario Vasco</i>	2010

Iturria: 2006-2011 urte bitarteko "Hedabideak" diru-laguntzen ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Gehigarrien eta erreferentzia-orrialdeen azterketari ekin aurretik, labur bada ere, horien ezaugarriak erreparatuko zaie. Gehigarriak dagokienez, bost izan ziren onuradunak, horietatik hiru (*Ortzadar*, *Araba gaztea* eta *Izan gazte*) Noticias taldekoak:

1.- *Xirika 16*: Gara egunkariak kaleratzen zuen ostegunetan. Hamasei orrialde zituen, guztira eta gazteei zuzendutako era guztietako informazioa lantzen zuen: nazioartekoa, politika, sexualitatea, etxebizitza, elkarrizketak, kultur-agenda, musika....

2.- *Ortzadar*: Larunbatetan kaleratzen da Noticias taldeko egunkarietan: *Deia*, *Diario de noticias de Álava* eta *Noticias de Gipuzkoa*. Musika, literatura, antzerkia, dantza eta, oro har, euskal kulturarekin zerikusia duten gaiak jorratzen ditu.

3.- *Araba Gaztea*: *Diario de Noticias de Álava* egunkariak ostegunetan kaleratua. Haurren eta gazteen kirola lantzen du. Argazki ugari eta asteburuan izandako emaitzak dakartza.

4.- *Izan gazte*: aurrekoaren baliokidea, baina, kasu honetan, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak zekarrena ostegunetan⁵⁷⁶. Honetan ere argazki ugari eta kirol-sailkapenak nagusi.

5.- *Diario Vasco*: gehigarria *DVKirolak* deitzen da, eta aurretik aipatutako bien formula bera darabil. Guztira dituen hamasei orrialdeen erdia eskola-kiroleko emaitza eta sailkapenekin betetzen du. Horrekin batera, kirol-taldeen argazki asko argitaratzen ditu. Gehigarri hau ere ostegunetakoa da.

Erreferentzia-orrialdeei dagokienez, gehienbat kulturarekin zerikusia zuten albiste, erreportaje edota elkarrizketekin argitaratzen zituzten egunkariak 2009 eta 2010 urteetan (Ibilaldia, euskal eskola publikoaren jaia, Hamaika telebista, Peru Abarcaren itzulera, Ordizia hiri hezitzailea, Trinitate jaiak Mendaron....).

Euskarazko gehigarri izan zein erreferentzia-orrialde izan, "Hedabideak" deialdiak bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen zizkien onuradun izan ahal izateko:

1.- Gehigarriak: tabloide formatuko 16 orrialde edo gehiago izatea⁵⁷⁷, orrialdeko 2.500 karaktere izatea batez bestean⁵⁷⁸, urtean 44 zenbaki kaleratzea, originala izatea eta, zabalkundeari dagokionez, gutxienez euskararen esparru geografikoko lurralde historiko batean banatzea.

⁵⁷⁶ .- Argitaratzeari utzi zion 2012ko apirilean.

⁵⁷⁷ .- Hamasei orrialdeko kopurua zortzi orrialdera murriztu zen 2010eko deialdian.

⁵⁷⁸ .- Gehigarrientzako diru-laguntzak ezarri zituen lehen hiru deialdietan, 2006, 2007 eta 2008koan, ez zen karaktere-kopuru zehatzik aipatu.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

2.- Erreferentzia-orrialdeak: astean-astean, gutxienez euskaraz idatzitako 12 orrialde estandar argitaratzea⁵⁷⁹ ondoko atal hauetan: gizartea, politika, mundua, ekonomia, kirolak eta kultura. Estatu mailan zabaltzen diren egunkarien lurralde-edizioetan, astean asteko euskarazko edukiek lau orrialdeko luze-zabalera izan behar zuten. Eskatutako gutxieneko horretan, ez ziren tokian tokiko berriak kontuan hartzen 2009ko deialdian, 2010ekoan, ordea, bai. Azkenik, edizio digitala zuten egunkariak aurretik zehaztutako euskarazko edukiak osorik agertu behar zituzten edizio digitalean. Aipatu gutxieneko baldintzak ez betetzeagatik, esleipenetatik kanpo geratu ziren 2010ean *Diario de Noticias de Álava* eta *Deia* egunkariak aurkeztu zituzten eskabideak⁵⁸⁰. Aurreko urteko deialdian, berriz, *Gara* egunkariak egindako eskabidea geratu zen kanpoan, baina kasu hartan Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketetan egunean ez egoteagatik.⁵⁸¹

Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriekin eta erreferentzia-orrialdeekin ez dago aurrekoekin burututako azterketa sakona egiterik; askoren kasuan, diru-laguntzak urte bakar batean edo bi urtetan izan zituztelako eta, ondorioz, ez dagoelako denboran zehar izandako bilakaera arakatzeko aukerarik, baina hala ere zenbait datu interesgarri nabarmendu daitezke.

⁵⁷⁹ .- Hamabi orrialdeko kopurua hamasei orrialdera igo zen 2010eko deialdian.

⁵⁸⁰ .- Urte hartako ebazpenak honelaxe dio egunkari batentzat zein bestearentzat: “Ez ditu gutxienekoak betetzen (Agindua 30. artikulua, 2.3.2. puntua)” (EHAA, 2010-12-10: 236 zk.).

⁵⁸¹ .- 2007ko deialdian hasi ziren zehazten “Hedabideak” diru-laguntza eskatzen zutenek Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketetan egunean egon behar zutela, eta hori ziurtatzeko agiria eskatzen hasi zitzairen. *Gara* egunkariak 2009ko deialdian erreferentzia-orrialdeei eskainitako laguntza jasotzeko eskabidea aurkeztu zuen, baina adierazi bezala, kanpoan geratu zen aginduaren 32. artikuluko 2.e puntua ez betetzeagatik. Honela zioen aipatutako puntuak: “e) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak kitatuta dituela adierazten duen ziurtagiri eguneratua, gehienik ere hiru (3) hilabete lehenago egindakoa” (EHAA, 2008-12-26: 247 zk.).

5.2.1.4.1. NAGUSIKI GAZTELANIA DARABILTEN EGUNKARIEN EUSKARA HUTSEZKO GEHIGARRIEN BILAKAERA

Eusko Jaurlaritzak 2006-2011 urteetan, biak barne, eskaini zien laguntza nagusiki gaztelania darabilten egunkariek zabaldu eta prestaturiko euskara hutsezko gehigarriei. Dirutan 3.032.050 euro⁵⁸² guztira epealdi osoan.

2006an, Jaurlaritzaren “Hedabideak” deialdiko diru-laguntza jaso zuten euskara hutsezko gehigarrien artean, *Xirika 16* gehigarriak zeukan aurrekonturik handiena; 2011n, berriz, hura desagertuta, *Ortzadar* gehigarriak. Denetan azpimarratzekoa da aurrekontuak denboran zehar egin duen gorako bidea, kasuren batean (*Ortzadar*) ia bikoizterainokoa.

130. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrien aurrekontuak, 2006 eta 2011.

	Aurrekontua 2006 (€)	Aurrekontua 2011 (€)	2006-2011 (€)	2006-2011 (%)
<i>Araba gaztea</i>	148.183	268.073	+119.890	+80,9
<i>El Diario Vasco</i>	-	208.649	-	-
<i>Izan gazte</i>	183.466	286.000	+102.534	+55,9
<i>Ortzadar</i>	291.500	553.636	+262.136	+89,9
<i>Xirika 16</i>	342.262	-	-	-

Iturria: HPSk 2006 eta 2011 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatua.

Aurrekontuen banakatzeak eredu desberdinak eskaintzen dizkigu. 2007an esaterako, *Izan gazte* gehigarriak diru gehien langileen soldatak, kuotak eta gastu sozialak ordaintzeko erabiltzen zuen bitartean, *Ortzadar* eta *Araba gazteak* banaketari lotutako gastuak estaltzeko erabiltzen zuten aurrekontuaren zatirik handiena.

⁵⁸² .- Kantitate honen kalkuluak zailtasuna dauka. 2009 eta 2010 urteetako deialdietan euskara hutsezko gehigarriez gain, erreferentzia-orrialdeei ere eman zitzaizen laguntza. Multzo bientzat 718.600 euro. Baina deialdietan ez zen zehaztu zenbat batzuentzat eta zenbat besteentzat. Eta ebazpenetan argitaratutako kantitateekin ere ezin da argitu, ez zelako aurreikusitako diru guztia esleitu. Dena den, 2007 eta 2008 urteetan 568.600 euro izan zirenez gehigarrientzat, 2009an eta 2010ean ere gehigarrientzakoa kantitate bera zela kontsideratu da. Erreferentzia-orrialdeentzat, berriz, bi urte horietako bakoitzean 150.000 euro.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

131. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutsezko gehigarrien aurrekontuen banakatzea⁵⁸³, 2007 (€)

Egitasmoa	Aurrekontua	Langileak	Funtzionamendua	Produkzioa	Bestelakoak
<i>Araba gaztea</i>	179.920	86.100	79.320	41.000	92.300
<i>Izan gazte</i>	207.910	111.000	91.110	57.000	65.800
<i>Ortzadar</i>	311.820	126.000	119.700	126.000	148.120

Iturria: HPSk 2007 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Lau urtera egoera bestelakoa zen, *Araba gaztea* eta *Izan gazte* gehigarriek patroi bera zuten: diru gehien langileen arlora zuzenduta, eta ondoren funtzionamendua, produkzioa eta banaketa. *Ortzadar* gehigarrian, ordea, oraingoan ere partidarik handiena banaketara bideratutakoa zen, eta bigarren garrantzitsuena produkzioari loturiko gastuak estaltzeko erabiltzen zuten. *El Diario Vascon*, berriz, 2011n, produkzioak eta funtzionamenduak jaten zuten aurrekontu osoaren %80.

132. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutsezko gehigarrien aurrekontuen banakatzea, 2011 (€).

Egitasmoa	Aurrekontua	Langileak	Funtzionamendua	Produkzioa	Banaketa
<i>Araba gaztea</i>	268.073	97.261	84.953	42.959	42.900
<i>El Diario Vasco</i>	208.649	23.500	72.415	93.550	19.184
<i>Izan gazte</i>	286.000	110.000	85.000	46.000,00	45.000
<i>Ortzadar</i>	553.636	134.536	127.350	139.100	152.650

Iturria: HPSk 2011 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Finantzaketa-maila propioari dagokionez, ez zen apenas gorabeherarik gertatu 2006an zutena eta 2011koa alderatu ezkerre.⁵⁸⁴ Dena den, datuei eutsi izana balioetsi beharreko kontua da. Izan ere, lehenago adierazi denez, aurrekontuak asko hazten

⁵⁸³ .- Taula honetan ez daude *El Diario Vasco* eta *Xirika 16*. Kontuan hartu taulak 2007ko datuak erakusten dituela, urte hartan hasi zirelako HPSn aurrekontuaren banakatzea arazketa-tauletan jasotzen. *El Diario Vascon* euskara hutsezko gehigarriak 2010 urtean jaso zuen lehen aldiz Eusko Jaurlaritzaren laguntza eta *Xirika 16*ren kasuan 2007an *Xirika KZ* moduan aurkeztu zuen eskaria baina ebazpenean bazterrean geratu zen "Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko hitzarmenaren baitan diruz lagungarria izateagatik (Agindua, 4. artikulua, 2.j puntua)" (EHAA, 2007-08-22: 161 zk.).

⁵⁸⁴ .- *Xirika 16* eta *El Diario Vascon* gehigarrietan urte bakarreko datuak ditugunez aztergai, ezin da autofinantzaketari buruzko baieztapenik egin. Diru-laguntzak jaso zituzten urtean finantzaketa-maila propioa %42koa eta %40koa izan ziren bi hedabide horietan, hurrenez hurren.

direnean, gehigarriekin gertatu bezala, derrigorrezkoa da sarrera pribatuetan gutxienez beste horrenbesteko hazkundera izatea, autofinantzaketa-mailak beherako bidea hartu ez dezan. Horrez gain, multzo honetako argitalpenak bat datoz beste ezaugarri batean: tarteko urteetan hirurek izan zituzten autofinantzaketa-datu askoz hobeak.⁵⁸⁵

133. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutsezko gehigarrien autofinantzaketa-maila.2006 eta 2011 (%).

	2006	2011	2006-2011	Urterik onena eta %	
<i>Araba gaztea</i>	41,0	41,0	=	2007, 2008	57,9
<i>Izan gazte</i>	36,0	40,0	+4,0	2007, 2008	54,0
<i>Ortzadar</i>	40,1	43,7	+3.6	2007, 2008	56,0

*Iturria: HPSk 2006 eta 2011 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatuta.*

Maiztasunak, orrialde-kopuruak eta botaldiak denboran zehar gehigarrietan izan duen bilakaerak orain arte landu diren gainontzeko idatzizko hedabideetan izandakoaren antzeko joera erakusten du. Beheko taulan bildutako datuetatik deigarriena, *Ortzadar* gehigarriak 2006-2011 bitartean hiru adierazleetan egindako beherakada litzateke, batez ere botaldiari dagokiona, 2006-2011 bitartean, botaldia ia erdira jaitsi zen eta.

134. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutsezko gehigarrien maiztasunak (urtean), orrialde-kopuruak eta botaldiak. 2006 eta 2011.

	Maiztasuna		Orrialde-kopurua (ale bakoitzak)		Botaldia (zenbaki bakoitzeko)		
	2006	2011	2006	2011	2006	2011	06/11
<i>Araba gaztea</i>	44	44	16	16	8.000	6.397	-1.603
<i>El Diario Vasco</i>	-	44	-	16	-	84.941	+84.941
<i>Izan gazte</i>	44	44	16	16	12.000	9.035	-2.965
<i>Ortzadar</i>	48	46	16	8	45.000	22.708	-22.292
<i>Xirika 16</i>	47	-	16	-	47.000	-	-47.000

*Iturria: HPSk 2006 eta 2011 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatuta.*

⁵⁸⁵.- Aztergai diren hiru gehigarrietan gertatzen da 2007an eta 2008an finantzaketa-maila berberak izan zituztela. Gainera hiruretan, 2007an eta 2008an aurofinantzaketa mailan izandako igoerak azalpen bera dauka: aurrekontuek gora egin zuten baina are gehiago hobetu zituzten lortutako sarrera pribatuak.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Taulan jasotako informazioak aukera ematen du 2006an eta 2011n nagusiki gaztelania darabilten egunkarietan argitaratzen ziren gehigarriek landutako euskarazko orrialdeak zenbat ziren jakiteko: 2006an guztira 89.984.000 orrialde izan ziren; 2011n 79.019.136 orrialde.

Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrien bilakaeraz bildu den informazio guztia taula bakar batean txertatuta ondokoa litzateke:

135. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrien bilakaera orokorra, 2006-2011.

	<i>Aurrekontua</i>	<i>Finantzaketa maila propioa</i>	<i>Maiztasuna</i>	<i>Orri-kopurua</i>	<i>Botaldia</i>
<i>Araba gaztea</i>	↑	=	=	=	↓
<i>Izan gazte</i>	↑	↑	=	=	↓
<i>Ortzadar</i>	↑	↑	↓	↓	↓

Iturria: tesiaeren egileak prestatua.

2006-2011 bitartean Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso zuten euskara hutsezko gehigarriek portaera txukuna agertu zuten arlo ekonomikoan; aurrekontuek gora egin zuten eta beste horrenbeste finantzaketa-mailak. Baina produktuari hertsiki loturiko adierazleak; hots, botaldiak, maiztasunak eta orrialde-kopuruak ez zuten igoerarik izan. Kontuan hartu behar da argitalpen hauek nagusiki gaztelania darabilten egunkarietan kaleratzen zirela eta horiek ere astindu zituela 2008tik aurrerako krisiak.

5.2.1.4.2. NAGUSIKI GAZTELANIA DARABILTEN EGUNKARIEN EUSKARAZKO ERREFERENTZIA-ORRIALDEEN BILAKAERA

Bi urtean, 2009an eta 2010ean izan ziren diru-laguntzak “Hedabideak” deialdian nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako erreferentzia-orrialdeentzako. Lehenago azaldu bezala, aipatu orrialdeak egunkariaren gizartea, politika, mundua, ekonomia, kirolak eta kultura ataletan argitaratu behar ziren eta “euskarazko informazio horrek, informazioaren izaeraren ikuspegitik garrantzitsua izan behar duenak, nagusiki kronikekin, erreportajeekin, elkarrizketekin

eta analisis/iruzkinak eskaintzen dituzten leihoeekin zerikusia izango du” zioen aginduak (EHAA, 2008-12-26: 247 zk.).

Baldintzak betetzen zituzten bost hedabidek jaso zuten dirua 2009 eta 2010ean: *Deia*, *Diario de noticias de Álava*, *El Diario Vasco*, *El País* eta *Noticias de Gipuzkoa*. Azken hau izan zen urte bietan laguntza jaso zuen bakarra. Hortaz, ezinezkoa da denboran zeharreko azterketa egitea. Hala ere, hurrengo taulan bildu dira zenbakirik interesgarrienak, eta horien artean bada zer aipatu.

136. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko erreferentzia-orrialdeen aurrekontuak, autofinantzaketa, maiztasuna, orrialekopuruak eta botaldiak, 2009 eta 2010.

	Aurrekontua	Autofinantzaketa	Maiztasuna	Orri-kopurua	Botaldia
Deia (2009)	113.756	42,86	52	18	33.318
Diario de noticias de Álava (2009)	88.717	41,0	44	12	6.200
El Diario Vasco (2010)	457.269	40,0	26	16	90.632
El País (2009)	211.470	40,9	52	7	21.996 ⁵⁸⁶
Noticias de Gipuzkoa (2009)	96.954	40,0	52	12	10.000
Noticias de Gipuzkoa (2010)	176.000	40,3	52	16	9.000

Iturria: HPSk 2009 eta 2010 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-taulak. Tesiaren egileak moldatua.

2009 eta 2010 urteetan euskarazko erreferentzia-orrialdeak kaleratu zituzten bost hedabideen arteko aldea aurrekontuan eta botaldi-zenbakietan dago. *El Diario Vasco* nabarmendu zen bietan eta zenbakirik apalenak *Diario de noticias de Álava* egunkariak zituen. 2010ean *Deiak*, *Diario de Noticias de Álava* eta *El País* egunkariak utzi egin zioten erreferentzia-orrialdeak euskaraz lantzeari “Hedabideak” deialdiak onuradun izateko eskatzen zuen neurrian. Ondorioz, 2010ean bi onuradun izan ziren multzo honetan: aurreko urtean ere laguntza jaso zuen *Noticias de Gipuzkoa* eta lehenengoz, erreferentzia-orrialdeen atalean laguntza eskatu zuen *El Diario Vasco*. Hurrengo bi urteetako deialdietan (2012 eta 2013) ez zen diru-partidarik izan euskarazko erreferentzia-orrialdeentzat ezta nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutsezko gehigarrientzat ere.

⁵⁸⁶ .- Lurralde edizioaren datua da, Estatu osoan 598.282 ale.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

2005-2013 urte bitartean euskaraz idatzizko paperezko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak jaso zituzten paperezkoen lanketak erakutsi du, oro har, udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak izan zutela portaerarik onena aztertutako adierazleetan: aurrekontuak, autofinantzaketa-mailak, maiztasunak, orri-kopuruak eta botaldiak. Horien artean, eskualde mailako edo udalerrri anitzekoak agertu dituzte daturik onenak. Beste muturrean egunerokoak leudeke; multzo horretako hedabide inprimatuek orrialde-kopuruei ozta-ozta eustea lortu bazuten ere, beheranzko bilakaera izan zuten 2005etik 2013ra aurrekontuei, autofinantzaketa-mailari, maiztasunari eta botaldiei erreparatuta.

5.2.2. EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUAK ETA 2005-2013 BITARTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK

Euskara hutsezko idatzizko hedabide inprimatuek 2005-2013 bitartean izan zuten bilakaera aztertzeke, atalaren sarreran azaldu bezala, bi urratsetako zeregina diseinatu da. Lehenengoan, aipatu hedabideek aurrekontuetan, finantzaketa-maila propioan, maiztasunetan, orrialde-kopuruetan eta botaldietan egin zuten bidea landu da. Bukatu berri den zeregin horren ondoren, bigarren urratsari ekin behar zaio: euskarazko inprimatuen bilakaera eta esleitutako diru-laguntzak harremanetan jartzen dituen urratsa hain zuzen. Horretarako, bi eragiketa burutuko dira:

1.- 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzak esleitutako diru-laguntzek inprimatuei zenbateko ekarpen ekonomikoa egin dieten argitu. Eskaria egiten duten euskarazko inprimatuek aitortutako aurrekontuak eta ebazpenetan kaleratutako diru-laguntzak izanik, erraz kalkulatu daitekeen portzentajea litzateke.

2.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuek eskatutako laguntza eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak esleitutakoaren artean dagoen erlazioa ezagutzeari ekingo zaio bigarren eragiketan; hau da, euskarazko hedabide inprimatuek eskatu dutenetik zenbat esleitu zaien erakutsiko da.

5.2.2.1. "HEDABIDEAK" DEIALDIAREN BIDEZ ESTALITAKO AURREKONTUA

Ikergaitzat hartu den 2005-2013 epealdiko lehen urtean eta azkenengoan onuradun izan diren hedabideek hartu zituzten diru-laguntzak (A) eta eskatzaileek zituzten aurrekontuak (B) jakinda, eragiketa matematiko errazaren bidez (A:B) kalkulatu daiteke laguntzak aurrekontuaren zein zati estaltzen edo babesten duen. Zeregina orain arteko prozedura bera jarraituz burutuko da; hots, analisia urteroko deialdiak ezarri dituen hedabide-multzoen banaketa jarraituz egingo da.

5.2.2.1.1. EGUNEROKO PRENTSA INPRIMATUA

Prentsa inprimatuaren kasuan, ondokoak dira emaitzak denbora-tarte osoan aritu diren hedabideentzat:

137. taula. "Hedabideak" diru-laguntza bidez euskara hutsezko eguneroko prentsak estali duen aurrekontua, 2005 eta 2013 (%)

	Aurrekontua 2005	Diru- laguntza 2005	Estaldura 2005	Aurrekontua 2013	Diru- laguntza 2013	Estaldura 2013
Berria	8.196.391	1.400.000	17,1	6.575.517	1.510.180	23,0
Goierriko Hitza	577.453	46.883	8,1	439.706	62.044	14,1
Hernaniko Kronika	280.000	28.130	10,0	295.000	36.059	12,2
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	481.533	34.211	7,1	411.755	60.326	14,6
Urola Kostako Hitza	638.029	47.965	7,5	476.616	74.250	15,6

*Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak eta 2005 eta 2013ko ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.*

Zenbakiak argi erakusten dute kasu guztietan "Hedabideak" deialdian esleitutako diruaren bidez lortutako estaldura-proporzioak gora egin zuela. *Berria* egunkariak ia sei puntu irabazi zituen, eta 2013 urtean Eusko Jaurlaritzak emandako diruak aurrekontuaren bostena baino zertxobait gehiago estaltzeko balio izan zion.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Eskualdeetako *Hitzetan* bikoiztu egin zen erlazioa⁵⁸⁷ eta estaltze-portzentajearen hazkunderik apalena *Hernaniko Kronikak* izan zuen. Beraz, emaitzek azaleratzen dute esleitutako diru-kopuruek hedabideen aurrekontuetako gero eta zati handiagoa babestu zutela. Egoera horren zergatiak arakatzuz gero, ikusten da arrazoi nagusia aurrekontuek denboran zehar izandako murrizketa dela. Hau da, 2005etik 2013ra hedabide bakoitzarentzako diru-laguntzak gora egin zuen arren, are handiago izan zen euskarazko egunerokoen aurrekontuetan izandako beherakada; ondorioz, bien arteko zatiketak gorako joera hartzen du. Taulan jasota dauden hedabideen artean, aurrekontuen analisia egiterakoan azpimarratu zen bezala, joera positiboena *Hernaniko Kronikak* erakutsi zuen; berau izan zelako 2013an 2005an baino aurrekontu handiagoa zuen eguneroko bakarra. Baina txanponak bigarren aldea du *Hernaniko Kronikarentzat*; aurrekontuek gora egin zuten 2005etik 2013ra, esleitutako diru-laguntzekin beste horrenbeste gertatu zen, laguntzei esker lortutako aurrekontuaren estaldura ere hobetu zen, baina beste egunerokoetan baino portzentaje txikiagoan.

Eguneroko prentsa inprimatuaren multzoan, ez 2005-2013 epealdi osoan, baina zenbait urtetan diru-laguntzak esleitu zitzaizkien eguneroko prentsako multzoan kokatuta izan diren gainerakoekin joera bera errepikatzen da.

⁵⁸⁷ .- *Goierriko Hitzaren* kasuan, bi puntu falta zaizkio bikoiztera iristeko.

138. taula. Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak eta Busturialdeko Hitzak "Hedabideak" diru-laguntza bidez estalitako aurrekontua, 2005/2006 eta azken urtea (%).

	Aurrekontua lehen urtean	Diru- laguntza lehen urtean	Estaldura lehen urtean	Aurrekontua 2010	Diru- laguntza 2010	Estaldura 2010
Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza (2005- 2010)	471.385	45.629	9,7	383.248	48.674	12,7
Busturialdeko Hitza (2006- 2010)	420.519	42.171	10,0	354.615	45.038	12,7

Iturria: HPSk 2005, 2006 eta 2010 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak eta 2005, 2006 eta 2010eko ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.

2011 urtean biak bat egin eta ondoko datuekin aritu ziren:

139. taula. Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak eta Busturialdeko Hitzak "Hedabideak" diru-laguntza bidez estalitako aurrekontua, 2011 eta 2013 (%).

	Aurrekontua 2011	Diru- laguntza 2011	Estaldura 2011	Aurrekontua 2013	Diru- laguntza 2013	Estaldura 2013
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	593.901	61.872	10,4	565.918	77.141	13,6

Iturria: HPSk 2011 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak eta 2011 eta 2013ko ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.

Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzaren kasuan 2013an estaldurak puntu bat irabazten du, aurreko Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak eta Busturialdeko Hitzak, bakoitzak bere aldetik, laguntza bidez eskuratzen zuen babesaren portzentajearekin alderatu ezker; baina hedabide bakar moduan kaleratzen hasi zenetik lortu zuen laguntza ekonomikoa ez zen iritsi aurretik zeuden paperezko biek eskuratzen zutenaren batuketara.

Azkenik, ibilbide gorabeheratsua izan duten bi hedabide dira; batetik, Oarsoaldeko Hitza; 2011n Oarso Bidasoko Hitza bilakatu zena eta 2013an maiztasuna murriztu eta aldizkako multzora joan zena. Halere, orain arte ikusitako egunerokoen eredu bera jarraitu du aztertzen ari garen gaiari dagokionez; hau da, aurrekontuek

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

beherako bidea egin zuten eta diru-laguntza bidez lortutako babesak gora portzentualki.

140. taula. Oarsoaldeko Hitzak "Hedabideak" diru-laguntza bidez estalitako aurrekontua, 2005 eta azken urtea (%)

	Aurrekontua 2005	Diru- laguntza 2005	Estaldura 2005	Aurrekontua 2010	Diru- laguntza 2010	Estaldura 2010
Oarsoaldeko Hitza (2005- 2010)	471.022	44.782	9,5	327.943	41.650	12,7

*Iturria: HPSk 2005 eta 2010 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak eta 2005 eta 2010eko ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.*

Eta behin Oarso Bidasoko Hitza bihurtuta,

141. taula. Oarso Bidasoko Hitzak "Hedabideak" diru-laguntza bidez estalitako aurrekontua, 2011 eta 2013 (%)

	Aurrekontua 2011	Diru- laguntza 2011	Estaldura 2011	Aurrekontua 2013	Diru- laguntza 2013	Estaldura 2013
Oarso Bidasoko Hitza	385.927	50.607	13,1	238.736	37.052	15,5

*Iturria: HPSk 2011 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak eta 2011 eta 2013ko ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.*

Kasu honetan, ez da errepikatzen orain arte ikusitako patroia. Egia da aurrekontuek behera egin zutela, eta arlo horretan ez legoke ezberdintasunik, baina aurrekoetan ez bezala *Oarsoaldeko Hitzak* zein *Oarso Bidasoko Hitzak* hartutako diru-laguntzetan ere behera egin zuten. Hala ere, portzentajetara ekarrita diru-laguntzaren beherakada aurrekontuena baino txikiagoa izan zen, eta ondorioz, aurrekontuaren zati handiagoa estali zuen "Hedabideak" laguntzaren bidez. Ez ahaztu, gainera, ikertu den azken urtean, 2013an, dagoeneko ez zegoela eguneroko prentsaren multzoan, aldizkakoenean baizik.

Bestetik, antzeko ibilbidea egin zuen *Irutxuloko Hitza* dago. Hedabide hau ere aldizkakoa bilakatu zen 2013an. Aipatu urtean, *Irutxuloko* Hitzaren aurrekontuak

ikaragarri egin zuen behera⁵⁸⁸, eta beste horrenbeste gertatu zen esleitu zioten laguntzarekin. Hori baino gehiago, aztertu diren euskarazko eguneroko idatzizko guztietatik *Irutxuloko Hitza* da esleitutako diru-kantitatearen eta aurrekontuaren arteko erlazioak behera egin zuen hedabide bakarra.

142. taula. Irutxuloko Hitzak "Hedabideak" diru-laguntza bidez estalitako aurrekontua, 2005 eta 2013 (%).

	Aurrekontua 2005	Diru- laguntza 2005	Estaldura 2005	Aurrekontua 2013	Diru- laguntza 2013	Estaldura 2013
Irutxuloko Hitza	670.208	52.400	7,8	262.080	14.041	5,4

*Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak eta 2011 eta 2013ko ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.*

Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatuaren multzoko hedabideekin ikusitakoaren laburpen gisa, esan daiteke 2005-2013 epealdian *Berria* egunkaria izan zela beti Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzari esker urteroko aurrekontuaren estaldura-proporziorik altuena lortu zuen hedabidea, portzentajetan %17 eta %23 bitartekoa. Gainontzekoetan, portzentajea %10aren inguruan edo horren azpitik zegoen 2005ean eta 2013an, berriz, *Irutxuloko Hitzan* izan ezik, hazkundera izan zuen kasu guztietan, zenbaitetan proportzioa bikoizterainokoa. Edonola ere, %12 eta %15 bitartean kokatu zen "Hedabideak" laguntza bidez eskuratutako aurrekontuaren estaldura-maila; hots, kasu guztietan *Berria* egunkariak 2005ean lortzen zuen zifraren azpitik.

Diru-laguntza publiko bidez eskuratutako estaldurak, babesak gora egiteak bilakaera positibotzat kontsideratu daiteke ekimena sustatzen duenaren aldetik zein onura jasotzen duenaren aldetik. Baina ikerketa honi dagokionez, ezin da esan estaldura-portzentajeak gora egitea positiboa denik; izan ere, gorakada hori kutsu negatiboa, ezkorra duten zenbait faktoreren ondorioz gertatu da. Estalduraren hazkundera aztertutako hedabide bakoitzaren aurrekontuen murrizketa nabarmenari zor zaio; hau da, laguntzak denboran zehar kuantitatiboki handitu diren arren, are handiagoa izan da hedabideek urteroko jardunerako erabilgarri izan duten diru-

⁵⁸⁸ .- *Irutxuloko Hitza* 2012an aurkeztu zen azken aldiz eguneroko moduan "Hedabideak" diru-laguntza deialdira, urte hartan bere aurrekontua 450.508 eurokoa izan zen.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

partidaren beherakada. Aurretik azpimarratu bezala, formula orokorrak salbuespen bakarra dauka: *Hernaniko Kronika*.

5.2.2.1.2. INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIAK ETA ALDIZKARI ESPEZIALIZATUAK

Eguneroko prentsa inprimatuaren multzoko hedabideekin alderatuta, lehen begiratuan bi kontu aipatu daitezke euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren aldizkakoei dagokienez: batetik, jasotako diru-laguntzek, hasiera hasieratik, (2005etik) aurrekontuaren proportzio handiagoa estaltzen dutela⁵⁸⁹; kasu askotan, gainera, aurrekontuaren laurdenetik gora dagoen neurriko estaldura eskainiz. Bestetik, egunerokoekin gertatu bezala, multzo honetan ere estaldura-proportzioa nabarmen hazi da urteekin⁵⁹⁰. Aipatzeko modukoa da 2013an laguntzek aldizkari askoren aurrekontuaren herena estali zutela.

⁵⁸⁹ .- Egunerokoen multzoko *Berria* egunkaria aparte uzten bada, aldizkako guztietan betetzen da esandakoa. *Berria* ere kontuan hartuta, *Gazteberri* eta *Gaztezulo* dira 2005ean *Berriarena* baino estaldura-proportzio txikiagoa duten aldizkari bakarrak.

⁵⁹⁰ .- Adierazitakoak hiru salbuespen ditu: *Euskal Herriko Natura*, *Xabiroi* eta *GAUR8*.

143. taula. "Hedabideak" diru-laguntza bidez informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek estali duten aurrekontua, 2005 eta 2013 (%).

	Aurrekontua 2005	Diru- laguntza 2005	Estaldura 2005	Aurrekontua 2013	Diru- laguntza 2013	Estaldura 2013
Aizu!	215.809	53.982	25,0	216.469	81.647	37,7
Argia	1.571.900	278.346	17,7	820.500	352.653	43,0
BAT	61.300	10.813	17,6	55.250	14.845	26,9
Bertsolari	76.000	18.202	23,9	76.000	25.509	33,6
Egan	46.700	8.779	18,8	14.125	3.011	21,3
Elhuyar	461.399	113.224	24,5	253.084	88.101	34,8
Euskal Herriko Natura	37.625	8.940	23,8	30.240	5.921	19,6
Gazteberri	245.000	29.909	12,2	36.000	10.525	29,2
Gaztezulo	238.787	30.949	13,0	278.000	98.469	35,4
Hemen	28.467	7.147	25,1	43.382	14.000	32,3
Jakin	204.642	46.970	22,9	180.045	51.320	28,5
Uztaro	29.000	7.077	24,4	33.895	10.620	31,3
	Aurrekontua 2006	Diru- laguntza 2006	Estaldura 2005	Aurrekontua 2013	Diru- laguntza 2013	Estaldura 2013
Xabiroi	99.071	26.382	26,6	110.242	21.417	19,4
	Aurrekontua 2007	Diru- laguntza 2007	Estaldura 2007	Aurrekontua 2013	Diru- laguntza 2013	Estaldura 2013
GAUR8	477.240	157.489	33,0	391.000	123.647	31,6
	Aurrekontua 2008	Diru- laguntza 2008	Estaldura 2005	Aurrekontua 2013	Diru- laguntza 2013	Estaldura 2013
Ekonomiaren KZ	75.000	13.121	17,5	81.235	16.304	20,0
Zazpi Haizetara	442.600	103.241	23,3	307.000	105.859	34,5

Iturria: HPSk 2005, 2006, 2007, 2008 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-taulak eta 2005, 2006, 2007, 2008 eta 2013ko ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.

Taulan bilduta dauden zenbakien banan banako errepeaso eginez, azpimarratzekoa da *Argia* aldizkariaren kasua; 2013an erabilgarri zituen 10 eurotik 4,3 euro Eusko Jaurlaritzak esleitutako laguntzaren bidez estaltzen zirelako eta 2005-2013 aldian nabarmen hazi zelako aurrekontuaren eta diru-laguntzen arteko erlazioa. Horretan zeresan handia du aztertutako denbora-tartean *Argia* aldizkariko

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

aurrekontuak izan zuen beheranzko bilakaera; izan ere, ia erdira etorri zen urteroko jarduna kudeatzeko zeukan diru-partida.

Egunerokoentzat ikusi bezala, aldizkako gehientsuenentzat ere diru-laguntzak hazi egin ziren⁵⁹¹ 2005-2013 tartean, baina horrekin batera gertatu zen estaldura-proporzioaren gorakada azaltzen duen benetako faktorea aurrekontuetan gertatutako murrizketak dira. Kopuruei begiratuta, kasurik deigarriena *Gazteberri* aldizkariarena da, 2005eko laguntza-eskaera egin zuenean, 245.000 euroko aurrekontua aurkeztu zuen, 2013koan 36.000 eurokoa.

5.2.2.1.3. UDALERRI, ESKUALDE EDO LURRALDE JAKINETAN ZABALTZEN DIREN INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIAK

Multzo honetako hedabideen aurrekontuaren azterketa egiterakoan nabarmendu da gehientsuenek goranzko bilakaera erakutsi zutela 2005-2013 bitartean. Aldea dago, beraz, egunerokoen eta aldizkari espezializatuen aurrekontuek denbora tarte berean izandako portaerarekin.

Orain, 2005-2013 bitartean esleitutako diru-laguntzek aurrekontuaren zenbatekoa estali zuen aztertu ezker, ondokoak dira emaitzak.

⁵⁹¹ .- Bost aldizkariren kasuan, 2013an 2005ean baino diru-laguntza txikiagoa jaso zuten Eusko Jaurlaritzatik: *Egan*, *Elhuyar*, *Euskal Herriko Natura*, *Xabiroi* eta *GAUR8*.

144. taula. "Hedabideak" diru-laguntza bidez udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak estali duten aurrekontua, 2005 eta 2013 (%).

	Aurrekontua 2005	Diru- laguntza 2005	Estaldura 2005	Aurrekontua 2013	Diru- laguntza 2013	Estaldura 2013
Aikor! Txorierriko aldizkaria	79.108	9.175	11,6	131.705	15.014	11,4
Aiurri Beterri- Buruntzako astekaria	116.998	5.824	5,0	157.700	13.358	8,5
Aiurri Beterri- Aiztondoko hamaboskaria	167.785	11.353	6,8	144.250	12.358	8,6
Anboto	342.628	27.368	8,0	400.950	57.709	14,4
Artzape ⁵⁹²	21.623	2.576	11,9	24.500	-	0,00
Asteleheneko Goiena papera ⁵⁹³	259.620	44.094	17,0	364.065	66.086	18,1
Baleike	43.672	3.884	8,9	67.950	7.142	10,5
Barren	199.015	11.258	5,7	248.000	21.795	8,8
Begitu	83.430	5.771	6,9	129.400	12.352	9,6
Berton	40.945	2.796	6,8	36.000	3.373	9,4
Danbolin	27.668	3.139	11,3	35.500	2.976	8,4
Drogeteniturri	35.400	2.260	6,4	48.900	3.820	7,8
... eta kitto!	264.940	23.511	8,9	296.945	32.002	10,8
Galtzaundi	111.500	9.369	8,4	111.500	14.000	12,6
Goiena papera ⁵⁹⁴	320.298	26.277	8,2	834.103	127.065	15,2
Irunero ⁵⁹⁵	70.000	2.494	3,6	52.676	4.053	7,7
Kalaputxi ⁵⁹⁶	32.647	2.631	8,1	22.200	-	0,00
Karkara	66.382	6.599	9,9	85.405	8.766	10,3
Noaua!	96.381	8.463	8,8	175.100	13.461	7,7
Pil-pilean	43.880	4.027	9,2	48.908	4.052	8,3
Prest!	41.113	4.371	10,6	40.000	3.666	9,2
Txintzarri	255.000	19.032	7,5	203.200	17.819	8,8

⁵⁹² .- 2013 urtean *Artzape* aldizkariak ez zuen Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarik jaso. Eragiketa 2012ko datuekin egin ezker, urte hartan aldizkariak 27.500 euroko aurrekontua izan zuen eta 2.142 euroko laguntza esleitu zitzaion; beraz, 2012an laguntza horrekin aurrekontuaren %7,8 estali zuen.

⁵⁹³ .- Lehenengo urteetan *Asteleheneko Goienkaria papera* bezala.

⁵⁹⁴ .- Lehenengo urteetan *Goienkaria* bezala.

⁵⁹⁵ .- *Irunero* aldizkariak ez zuen Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarik jaso 2010ean eta 2012an.

⁵⁹⁶ .- 2013 urtean *Kalaputxi* aldizkariak ez zuen Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarik jaso. Eragiketa 2012ko datuekin egin ezker, urte hartan aldizkariaren aurrekontua 25.100 eurokoa izan zen eta 2.038 euroko laguntza esleitu zitzaion; beraz, 2012an laguntza horrekin aurrekontuaren %8,1 estali zuen.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

UK Uribe Kostako aldizkaria	220.200	12.000	5,4	245.217	14.092	5,7
Uztarria	69.450	6.059	8,7	90.000	9.279	10,3
	Aurrekontua 2007	Diru-laguntza 2007	Estaldura 2007	Aurrekontua 2013	Diru-laguntza 2013	Estaldura 2013
Guaixe (2007)	207.683	36.874	17,7	221.825	24.362	11,0
Mailope (2007)	34.285	7.305	21,3	41.695	4.408	10,6
Ttipi-ttapa (2007)	170.283	27.794	16,3	302.333	49.609	16,4
	Aurrekontua 2008	Diru-laguntza 2008	Estaldura 2008	Aurrekontua 2013	Diru-laguntza 2013	Estaldura 2013
Pulunpe (2008)	47.330	8.424	17,8	50.250	5.013	10,0

Iturria: HPSk 2005, 2007, 2008 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-taulak eta 2005, 2007, 2008 eta 2013ko ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.

Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien multzoan ere, aurretik landutako beste bietan gertatu bezala, oro har, diru-laguntza handiagoak esleitu zitzaizkien 2013an 2005ean baino. Horrekin batera, aurrekontuen estaldura-proporzioak ere gora egin zuen, baina ez urtero jarduteko zituzten diru-partidetan murrizketak izan zirelako. Hortaz, ezberdintasun garrantzitsua da egunerokoen eta aldizkari espezializatuen multzoko hedabideekin alderatuta, haien kasuan murrizketak zirelako aurrekontuetan. Bestalde, esleitutako kopuruei begiratuta, azpimarratzekoa da, hedabide inprimatu guztien artean, tokikoak izan direla beti kantitate txikiak jaso dituztenak. Ondorioz, 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzaren "Hedabideak" diru-laguntza bidez lortu zuten aurrekontuaren estaldura-proporzioa beste bi multzoetako hedabideek lortu zutena baino askoz apalagoa izan zen. Aldea deigarria da bereziki aldizkari espezializatuen datuekin konparatu ezker. Tokiko gehienetan Jaurlaritzaren diru-laguntzak eskainitako estaldura %10etik behera edo horren inguruan zegoen 2013an. Adierazitakoaren salbuespenak dira *Anboto* (%14,4), *Asteleheneko Goiena Papera* (%18,1), *Galtzaundi* (%12,6), *Goiena papera* (%15,2) eta *Ttipi-ttapa* (%16,4).

5.2.2.1.4. NAGUSIKI GAZTELANIA DARABILTEN EGUNKARIEK PRESTATU ETA ZABALDUTAKO EUSKARA HUTSEZKO GEHIGARRIAK ETA ERREFERENTZIA-ORRIALDEAK

Lehenbizi euskara hutsezko gehigarrien kasua aztertuko da. 2006-2011 bitartean bost hedabide desberdinek jaso zituzten Eusko Jaurlaritzaren laguntzak, baina biren kasuan urte bakar batean: *Xirika* 16k 2006an eta *El Diario Vasco*k 2011n. Hortaz, bi hedabide horiekin ez dago 2006-2011 epealdiko lehen urtearen eta azken urtearen arteko alderaketak egiterik⁵⁹⁷. Hala ere, bi kasu horietan ere, laguntza jaso zuten urteko aurrekontua eta estaldura-portzentajea jasoko dira. Gainontzeko hiru hedabideekin berriz lehen eta azken urteetako datuei erreparatuko zaie.

145. taula. "Hedabideak" diru-laguntza bidez nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak estali duten aurrekontua, 2006 eta 2011 (%).

	Aurrekontua 2006	Diru- laguntza 2006	Estaldura 2006	Aurrekontua 2011	Diru- laguntza 2011	Estaldura 2011
Araba gaztea	148.183	39.294	26,5	268.073	30.945	11,5
El Diario Vasco	-	-	-	208.649	62.595	30,0
Izan gazte	183.466	49.997	27,2	286.000	37.254	13,0
Ortzadar	291.500	57.476	19,7	553.636	64.482	11,6
Xirika 16	342.262	150.626	44,0	-	-	-

*Iturria: HPSk 2006 eta 2011 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak eta 2006 eta 2011ko ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.*

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso dituen multzo honetako hedabide inprimatuek bilakaera desberdina izan dute orain arte aztertu ditugun guztiekin konparatuta. Izan ere, aurrekontuek gora egin zuten, baina laguntzekin estalitako portzentajeak beherakada nabarmena izan zuen ikertutako epealdian. *Araba gaztea* gehigarrian %43,4 behera, *Izan gazte*k %47,8 behera, eta *Ortzadar* gehigarrian %58,9 behera. Lehen bietan, laguntzetan 2006tik 2011ra irabazi zutena aurrekontuek izandako igoera baino askoz txikiagoa izan zen portzentajetan neurtuta, eta egoera horren ondorioz, zatiketaren emaitzak behera egiten du. *Ortzadarren* kasuan, ordea,

⁵⁹⁷ .- *Xirika* 16k 342.262 euroko aurrekontua izan zuen 2006an, eta urte hartan 150.626 euroko diru-laguntza esleitu zioten; beraz, kantitate horrekin aurrekontuaren %44,0 estaltzen zuen. *El Diario Vasco*k, 2011ko deialdiaren datuen arabera, 208.649 euroko aurrekontua zuen eta 62.594,66 euro esleitu zizkieten; hau da, aurrekontuaren %30eko estaldura.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Jaurlaritzatik jasotako diruak gora egin zuen arren, askoz handiagoa da aurrekontuak izan zuen igoera (ia-ia bikoiztu egin zen), eta azkenean, estaldura kalkulatzeko eragiketaren emaitzak beherakada handia du.

Bestalde, oso deigarria da multzo honetan urte bakar batez Eusko Jaurlaritzaren dirua jaso zuten bi hedabidek agertzen duten estaldura-portzentajea: 2006ko *Xirika 16* gehigarrian, berau prestatu eta zabaltzeko jarritako 10 eurotik 4,4 laguntza bidez estaltzen zuten; 2011ko *El Diario Vasco*ren gehigarrian, berriz, hamar eurotik hiru diru publikoarekin estaltzen zuten.

Multzo honen aurrekontuen eta laguntza bidez lortutako estalduren arteko harremanaren azterketarekin amaitzeko, esan beharra dago Eusko Jaurlaritzak ez zuela inoiz multzo honetako laguntza-eskatzaileentzat aurreikusitako diru guztia euren artean esleitu. Behin eskaeren balorazio-prozedura bukatuta, deialdian ezarritakoa baino diru gutxiago erabili zuen beti euskara hutsezko gehigarriekin. Eta soberakina beste multzo bateko inprimatuen artean birbanatzen zuen. Gehienetan tokikoak izaten ziren horren onuradun.

146. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutsezko gehigarrientzat laguntza deialdian ezarritako diru-partida, horiei esleitutakoa eta soberakina, 2006-2011 (€).

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Ezarritako dirua ⁵⁹⁸	507.650	568.600	568.600	568.600	568.600	250.000
Esleitutako dirua	297.393	400.503	420.506	251.808	163.553	195.276
Soberakina ⁵⁹⁹	210.257	168.097	148.094	316.792	405.047	54.724

Iturria: 2006-2011 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak eta ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Bestalde, 2009 eta 2010 urteetan diru-laguntzak jaso zituzten erreferentzia-orrialdeei dagokienez, gauza gutxi esan daiteke atal honetan. Bost onuradun izan ziren guztira, baina horietatik bakar batek, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariaren erreferentzia-orrialdeek jaso zuten diru publikoa bi urtean. Hala ere, ondoko taulan daude bilduta daturik interesgarrienak:

147. taula. "Hedabideak" diru-laguntza bidez nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko erreferentzia-orrialdeek estali duten aurrekontua, 2009 eta 2010 (%).

	Aurrekontua 2009	Diru-laguntza 2009	Estaladura 2009	Aurrekontua 2010	Diru-laguntza 2010	Estaladura 2010
Deia egunkaria	113.756	45.502	40,0	-	-	-
Diario de noticias de Álava	88.717	26.401	29,8	-	-	-
El Diario Vasco	-	-	-	457.269	100.000	21,9
El País egunkaria	211.470	31.777	15,0	-	-	-
Noticias de Gipuzkoa	96.954	38.781	40,0	176.000	52.800	30,0

Iturria: HPSk 2009 eta 2010 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-taulak eta 2009 eta 2010eko ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.

⁵⁹⁸ .- Hemen 582. oharrean esandakoa errepikatu behar da. 2009 eta 2010 urteetan euskara hutsezko gehigarriez gain, laguntzak esleitu zitzaizkiela nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko erreferentzia-orrialdeei ere; eta bientzat diru-partida bakarra, 718.600 eurokoa, ezarri zela. Ez zen zehaztu kantitate horretatik zenbat zen gehigarrientzat eta zenbat erreferentzia-orrialdeentzat. Ikerketa honetan, lehenago adierazi bezala, kontsideratu da 568.600 euro euskara hutsezko gehigarriei bideratutako laguntza zela eta gainontzeko 150.000 euroak erreferentzia-orrialdeentzakoak. Ebazpenen arabera, 2009an 142.462 euro banatu ziren erreferentzia-orrialdeen artean; eta 2010ean 152.800 euro.

⁵⁹⁹ .- Taula honetan ageri diren 2009 eta 2010eko soberakin-datuak kontuz irakurri beharrekoak dira. Izan ere, hor ageri diren esleitutako kantitateei erreferentzia-orrialdeen artean banatutako dirua batuko balitzea, soberakinak nabarmen egingo luke behera. 2009ko benetako soberakina 174.330 eurokoa litzateke, eta 2010eko soberakina 252.247 eurokoa.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Batzuen eta besteen artean alde handiak dauden arren, esan daiteke nagusiki gaztelania darabilten egunkarien erreferentzia-orrialdeak direla “Hedabideak” diru-laguntza bidez estaldura-portzentajerik altuena lortu zutenak. Salbuespena *El País* egunkariarena litzateke; baina 2009an, esaterako, *Deia* eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak erreferentzia-orrialdeak prestatzeko jartzen zituzten hamar eurotik lau Eusko Jaurlaritzaren diru publiko bidez heltzen zitzairen. 2010 urtean, *Noticias de Gipuzkoaren* hamar eurotik hiru ziren publikoak, eta *El Diario Vascon* erreferentzia-orrialdeak prestatzeko adierazitako aurrekontuaren 10 eurotik 2,2 diru-laguntza bidez estaltzen zuten.

5.2.2.2. PAPERZKOEK ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZATIK JAURLARITZAK ESLEITUTAKOA

Euskara hutsezko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko deialdian parte hartu dutenek eskabide-orrian zehazten dute zenbateko laguntza ekonomikoa nahi duten. Datua, esleipen-prozedura gauzatzeko osatzen diren arazketa tauletan dago jasota⁶⁰⁰; ondorioz, informazio hori oinarritzat hartuta erraza da bi kalkulu burutzea: batetik, jakin daiteke hedabide inprimatu bakoitzak aurrekontuaren zein portzentaje eskatzen zion Jaurlaritzari laguntza moduan, eta bestetik, posible da eskatutako kantitatea eta esleitu zaiena harremanetan jartzea eta zehatz-mehatz ikustea esleipenak zenbateraino bete duen hedabide inprimatu bakoitzaren laguntza-eskaria.

Analisia egiteko, 2005etik 2013ra euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatuak eta aldizkako argitalpenek izan zituzten aurrekontuak, egin zituzten eskaerak eta esleitu zitzaizkien kantitateak jaso eta landuko dira. Deialdi bakoitzean izan ziren onuradunei ere erreparatuko zaie.

⁶⁰⁰ .- 2005 eta 2006ko deialdiak ebazteko erabilitako tauletan, hedabideek eskatutako diru-kantitatea egitasmo bakoitzaren datu ekonomiko guztiak biltzen zituen azken zutabearen kokatzen zen (aurrekontua>>sarrerak>>diru-laguntza publikoak>>defizita>>autofinantzaketa>>eskatutakoa). 2007tik 2010era bitarteko deialdietan, berriz, eskatutako laguntza ekonomikoa lehen zutabearen kokatzen da, egitasmoaren izenaren ondoren eta aurrekontuaren aurretik; eta 2011tik 2013ra bitarteko arazketa-tauletan, bigarren zutabearen ageri da, aurrekontu-datuak jasotzen dituenaren parean.

148. taula. Euskara hutsezko eguneroko prentsaren aurrekontuak, eskatutako eta esleitutako laguntzak eta onuradunak. 2005-2013.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Aurrekontua (€)	11.786.021	11.802.048	11.283.754	11.891.510	11.653.018	10.785.305	10.288.455	10.279.348	8.764.512
Eskatutako laguntza (€)	2.253.527	2.390.269	2.200.087	2.498.116	2.672.927	2.426.113	2.344.451	2.336.198	2.049.893
Esleitutako laguntza (€)	1.700.000	1.848.200	2.003.480	2.003.480	2.003.480	2.003.480	2.000.000	1.820.000	1.820.000
Onuradunak	8	9	9	9	9	9	8	8	6

Iturria: 2005-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak eta esleipenak egiteko HPSk erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

149. taula. Euskara hutsezko aldizkari inprimatuen aurrekontuak, eskatutako eta esleitutako laguntzak eta onuradunak. 2005-2013.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Aurrekontua (€)	10.274.648	9.687.208	9.009.779	10.060.433	11.024.880	9.897.790	10.344.482	9.813.095	9.566.939
Eskatutako laguntza (€)	2.665.443	2.046.143	2.290.998	2.752.944	3.296.863	2.934.888	3.031.522	2.839.430	2.446.589
Esleitutako laguntza (€)	1.580.000	1.490.850	1.901.120	1.901.120	1.901.120	1.901.120	2.050.000	1.841.500	1.841.500
Onuradunak	59	51	52	53	59	55	59	59	59

Iturria: 2005-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak eta esleipenak egiteko HPSk erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Eguneroko prentsa inprimatuaren multzoan izan diren hedabideek ia hamabi milioi euroko aurrekontua kudeatu zuten 2005-2009 bitartean, zenbakirik onena 2008ko izan zen. Hortik aurrera ordea gastu-aurrekontuak behera egin zuen eta ikertu den azken urtean 2005an baino hiru milioi euro gutxiago zuten; hau da gastu-aurrekontuaren laurdena galdu zuten. Egia da laguntzen onuradunak ere bi eguneroko gutxiago izan zirela 2013an baina aurrerago xehe-xehe ikusiko denez, gastu-aurrekontuaren beherakadaren erdia *Berria* egunkarian izandako murrizketei zor zaie. Bestalde, egunerokoek eskatutako diru-kantitateei dagokienez, agerikoa da aurrekontuen bide bera jorratu zutela, gastu-aurrekontuak gora egin zuenean beste horrenbeste egin zuten eskatutako kantitateek eta 2010etik aurrera biak, gastu-aurrekontuak eta eskatutako laguntzak jaitsez joan ziren. Eta esleitutako laguntzen kasuan jaitziera urte bete beranduago hazi zen, 2011n.

Euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkarietan eta aldizkari espezializatuetan 2005-2013 bitartean erabilgarri izan zuten gastu-aurrekontuak eta Eusko Jaurlaritzari eskatutako laguntzak bide gorabeheratsuagoa egin zuten. Denen artean kudeatutako aurrekonturik onena 2009koa izan zen eta egunerokoekin gertatu bezala aldizkakoetan ere gasturako partidak behera egin zuen 2005etik 2013ra, hori bai haietan neurri txikiagoan (707.709 euro gutxiago 2013an). Multzo honetako onuradunen kopuruak 2006a izan zuen urterik makalena, juxtu-juxtu esleitutako kantitaterik txikiena egokitu zitzairen urte bera. Jaurlaritzak ezarritako diru-partidarik handiena 2011n heldu zitzairen eta hortik aurrera esleitutakoak behera egin zuen.

Dena den, inprimatuen multzo honetan kokatzen diren argitalpenak bi azpimultzotan sailkatu dira beti urteroko laguntza-deialdian: batetik informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak, eta bestetik, udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak, hau da, tokikoak. Beraz, interesgarria da azpimultzo bakoitzak 2005-2013 epealdian izan zuten

aurrekontua, Eusko Jaurlaritzari egin zioten eskaera, horrek esleitutako laguntza⁶⁰¹ eta onuradunen bilakaera modu banakatuan aurkeztea.

⁶⁰¹ .- Argitu beharra dago 2005eko deialdiak 1.580.000 euroko partida ezarri zuela euskara hutsezko aldizkari inprimatuen multzoko argitalpenentzat. Horiek bost azpimultzotan sailkatu zituen baina ez zuen zehaztu zenbat diru egokituko zitzaion bakoitzari. Modu berean jokatu zuen gainontzeko multzoekin ere (eguneroko prentsa, irratiak eta telebistak). Aginduak honelaxe zioen: “(...) multzo multzo zehaztutako diru-kopuruak, multzo horietako bakoitzak bere baitan dituen azpimultzoen artean banatuko dira. Banaketa hori azpimultzo bakoitzeko eskabideen zenbatekoa eta nolakoa ikusi eta arrazoitu ondoren egingo du Balorazio-batzordeak” (EHAA, 2005-06-03: 104 zk.). Hala ere, urte hartako ebazpenean aurkitu daitezke azpimultzo bakoitzari esleitutako kantitateak. Batetik 380.000 euro esleitu zitzaizen EAEko udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen ziren euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkariari (B2 azpimultzoan kokatuta zeuden 2005eko deialdian), eta gainontzeko 1.200.000 euroak euskararen esparru osoan zabaltzen ziren informazio orokorreko eta informazio espezializatuko aldizkari moduan kontsideratu daitezkeen artean banatu ziren. Horien artean lau azpimultzo zeuden: B1 azpimultzoa: euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak: 670.000 euro; B3 azpimultzoa: euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren euskara hutsezko aldizkari espezializatuak (pentsamendua, zientzia, musika, natura...): 365.000 euro; B4 azpimultzoa: haurrei zuzenduriko euskara hutsezko aldizkariak: 36.360 euro eta B5 azpimultzoa: nerabeei eta gazteei zuzenduriko euskara hutsezko aldizkariak: 128.640 euro.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

150. taula. Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen aurrekontuak, eskatutako eta esleitutako laguntzak eta onuradunak. 2005-2013.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Aurrekontua (€)	5.812.033	5.018.368	4.178.980	4.914.971	5.067.801	4.608.012	4.551.758	3.860.051	3.693.744
Eskatutako laguntza (€)	2.074.054	1.454.989	1.514.700	1.931.972	2.197.266	1.949.426	1.853.357	1.603.274	1.422.678
Esleitutako laguntza (€)	1.200.000	1.082.730	1.151.000	1.151.000	1.151.000	1.151.000	1.250.000	1.137.500	1.137.500
Onuradunak	23	19	19	19	23	23	23	23	23

Iturria: 2005-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak eta esleipenak egiteko HPSk erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

151. taula. Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien aurrekontuak, eskatutako eta esleitutako laguntzak eta onuradunak. 2005-2013.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Aurrekontua (€)	4.462.615	4.668.840	4.830.799	5.145.462	5.957.079	5.289.778	5.792.724	5.953.044	5.873.195
Eskatutako laguntza (€)	581.389	591.154	776.298	820.972	1.099.597	985.462	1.178.165	1.236.156	1.023.911
Esleitutako laguntza (€)	380.000	408.120	750.120	750.120	750.120	750.120	800.000	704.000	704.000
Onuradunak	36	32	33	34	36	32	36	36	36

Iturria: 2005-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak eta esleipenak egiteko HPSk erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Arestiko bi tauletan bildutako informazio kuantitatiboa alderatuz baieztatu daiteke tokikoek informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen multzoko argitalpenek baino bilakaera hobea izan dutela. Hori baino gehiago, tokikoak dira Eusko Jurlaritzaren diru-laguntza jaso duten hedabide inprimatu guztien artean gastu-aurrekontuan gorako bidea jorratu duten bakarrak, 2013an 2005ean baino 1.410.580 euro gehiago, portzentajetara ekarrita %31,6ko igoera. Tokikoentzat urterik onena 2009a izan zen. Informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen kasuan ordea, kudeatutako gastu-aurrekontuak galera nabarmena izan zuen 2005-2007 bitartean, gero zenbait urtetan errekupeazio bideari ekin zion arren ez zuen inoiz 2005eko maila berreskuratu eta epealdi osoan %36,4ko galera izan zuen. Bestalde, eskatutako kopuruei dagokienez, aurrekontuen bilakaeraren araberrako joera bera erakutsi dute batzuek eta besteek; hau da, aurrekontuek gora egin dutenean eskatutako kantitateak ere gora egin du eta alderantziz. Esleipen-partidarik onena 2011n izan zuten batzuek eta besteek eta jasotzaile-kopuruari begiratuta tokikoek jaso dute beti diru-kantitate txikiena, nahiz eta onuradunen kopuruari begiratuta multzorik handiena osatu duten. Izan ere, tokikoetan onuradunak 32 (2006 eta 2010), 34 (2008) eta 36 artean ibili diren bitartean, informazio orokorreko aldizkarietan eta aldizkari espezializatuetan 19 (2006,2007 eta 2008 urteak) edo 23 izan dira.

Behin ikuspegi orokorra aurkeztuta, azterketa xehatua egiteko unea iritsi da; hau da, hedabide bakoitzak izan duen portaera lantzeko unea. Horretarako, orain arte egin den bezala, 2005 eta 2013 urteak hartu dira erreferentzia-moduan. Lehenbizi harremanetan jarriko dira hedabideen aurrekontuak eta Eusko Jurlaritzari eskatutako diru-kantitateak, horrela gastu-aurrekontuaren zein zati eskatu dioten erakutsiko da eta ondoren eskatutakotik zenbat esleitu zaien jasoko da. Agerikoa da proportziorik onena, 1/1 delakoa, eskatutako diru-kantitatea eta esleitutakoa berberak direnean agertuko dela. Kasu horretan esleitutako kopuruak eskatu denaren %100a beteko du. Bestalde, zenbat eta gertuago egon kantitate biak, orduan eta hobea izango da emaitza, eta alderantziz; zenbat eta alde handiagoa izan eskatzen eta esleitzen denaren artean, orduan eta portzentaje txikiagoa aterako da biak harremanetan jartzerakoan.

5.2.2.2.1. EGUNEROKO PRENTSA INPRIMATUA

Aurreko ataletan erakutsi eta azaldu da 2005etik 2013ra eguneroko prentsa inprimatuaren multzoko hedabideen aurrekontuek, oro har, behera egin zutela. Diru-laguntza bidez jasotako kantitateek, ordea, gora egin zuten oro har. Denbora-tarte horren lehen eta azken urtean eskatu zituzten kopuruei begiratu ezker, ondokoa izan zen bilakaera:

152. taula. Euskara hutsezko eguneroko prentsaren aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2005 eta 2013. (€ eta %)

EGITASMOA	2005 aurrekontua	2005 eskatutakoa	%	2013 aurrekontua	2013 eskatutakoa	%
Berria	8.196.391	1.464.062	17,8	6.575.517	1.694.108	25,8
Goierriko Hitza	577.453	147.726	25,6	439.706	62.044	14,1
Hernaniko Kronika	280.000	42.000	15,0	295.000	46.000	15,6
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	481.533	50.951	10,6	411.755	84.649	20,5
Urola Kostako Hitza	638.029	145.654	22,8	476.616	85.950	18,0

*Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatua.*

Taulan bildutako zenbakien arabera, hiru eredu desberdin bereizi daitezke:

- 1.- Aurrekontuetan behera eta eskatutako baliabide ekonomikoetan gora egin zuten egunerokoak: *Berria* eta *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza*.
- 2.- Aurrekontuetan eta eskatutako laguntzetan behera egiten dutenak: *Goierriko Hitza* eta *Urola Kostako Hitza*.
- 3.- Aurrekontuetan zein eskatutako kopuruetan berdintsu edo zertxobait gora egin duen hedabide bakarra dago: *Hernaniko Kronika*.

Bestalde, eguneroko prentsa inprimatuaren multzoan, ez 2005-2013 epealdi osoan, baina zenbait urtetan diru-laguntzak jaso zituzten gainontzeko hedabideei dagokienez, orain arte adierazitako bidearen antzekoa landu zuten: beherakada

aurrekontuetan eta beste horrenbeste Eusko Jaurlaritzari eskatutako diru-baliabideetan.

153. taula. Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzaren eta Busturialdeko Hitzaren aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2005/2006 eta azken urtea. (€ eta %)

EGITASMOA	Aurrekontua lehen urtean	Eskatutakoa lehen urtean	%	2010 aurrekontua	2010 eskatutakoa	%
Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza (2005-2010)	471.385	115.893	24,6	383.248	75.074	19,6
Busturialdeko Hitza (2006-2010)	420.519	179.999	42,8	354.615	64.672	18,2

Iturria: HPSk 2005, 2006 eta 2010 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

2011-2013 bitartean, biak bat eginda aritu zirenean, aurrekontuak gora egin zuen baina inola ere ez aurretik, bakoitzak bere aldetik jarduten zuenean batu ezkeroriristen ziren mailara heltzeko beste, eta horrez gain, inoizko kantitaterik apalenak eskatu zituzten.

154. taula. Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzaren aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2011 eta 2013. (€ eta %)

EGITASMOA	2011 aurrekontua	2011 eskatutakoa	%	2013 aurrekontua	2013 eskatutakoa	%
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	593.901	61.872	10,4	565.918	77.141	13,6

Iturria: HPSk 2011 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Bestalde, 2005ean eguneroko prentsaren multzoan zegoen *Oarsoaldeko Hitza* hartuta, eredu bera errepikatzen da: aurrekontuak eta eskatutako diru-kopuruak, biak behera.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

155. taula. Oarsoaldeko Hitzaren aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2005 eta 2013. (€ eta %)

EGITASMOA	2005 aurrekontua	2005 eskatutakoa	%	2010 aurrekontua	2010 eskatutakoa	%
Oarsoaldeko Hitza (2005-2010)	471.022	123.067	26,1	327.943	71.021	21,6

*Iturria: HPSk 2005 eta 2010 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatua.*

Eta 2011-2013 bitartean, *Oarso Bidasoko Hitza* bezala funtzionatu zuenean,

156. taula. Oarso Bidasoko Hitzaren aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2011 eta 2013. (€ eta %)

EGITASMOA	2011 aurrekontua	2011 eskatutakoa	%	2013 aurrekontua	2013 eskatutakoa	%
Oarso Bidasoko Hitza	385.927	72.024	18,7	238.736	39.682	16,6

*Iturria: HPSk 2011 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatua.*

Oarso Bidasoko Hitzaren kasuan, beti izan behar da gogoan, ikerketak objektutzat duen azken urtean, 2013an, ez zegoela eguneroko prentsaren multzoan, aldizkakoenean baizik.

Azkenik, *Irutxuloko Hitza*, dago. Hedabide hau ere, egunerokoen multzoan zegoen 2005ean, baina aldizkakoenera joan zen 2013an. Bi urte horietako aurrekontuen eta eskatutako diru-kopuruen zenbakiak ibilbide deigarria erakusten dute:

157. taula. Irutxuloko Hitzaren aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2005 eta 2013. (€ eta %)

EGITASMOA	2005 aurrekontua	2005 eskatutakoa	%	2013 aurrekontua	2013 eskatutakoa	%
Irutxuloko Hitza	670.208	164.174	24,5	262.080	16.155	6,2

*Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatua.*

Datuen arabera, *Iruxuloko Hitzak* 2013an, dagoeneko aldizkakoa zenean, 2005ean eskatutako diruaren hamarrena eskatu zion Eusko Jaurlaritzari; orain arte aztertu diren hedabide guztietatik kantitaterik apalena litzateke, bai zenbaki absolututan zein portzentajetan ere⁶⁰².

Hortaz, orain arte ikusitakoa honako formula honekin laburtu daiteke: salbuespenen bat dagoen arren, 2005-2013 bitartean, eguneroko prentsa inprimatuaren multzoko hedabideek gero eta kantitate txikiagoa eskatu zioten Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.

Atal honetako bigarren urratsean, eskatutako baliabide ekonomikoak eta esleitu zirenak harremanetan jartzeari ekingo zaio. Oinarrian, ondoko galderari erantzuteko ahalegina legoke: hedabide inprimatu bakoitzak eskatu zuen dirutik zenbat egokitu zitzaion?

2005-2013 bitartean urtero “Hedabideak” deialdiko dirua jaso duten bost egunerokoek eskatu eta jaso duten kantitatea parean jarrita, ondoko taula osatu daiteke:

158. taula. Eguneroko prentsak eskatutako diru-laguntza eta esleitutakoa, 2005 eta 2013. (€ eta %)

EGITASMOA	2005 eskatutakoa	2005 esleitutakoa	%	2013 eskatutakoa	2013 esleitutakoa	%
Berria	1.464.062	1.400.000	95,6	1.694.108	1.510.180	89,1
Goierriko Hitza	147.726	46.883	31,7	62.044	62.044	100
Hernaniko Kronika	42.000	28.130	66,9	46.000	36.059	78,4
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	50.951	34.211	67,1	84.649	60.326	71,3
Urola Kostako Hitza	145.654	47.965	32,9	85.950	74.250	86,4

*Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak eta ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.*

⁶⁰² . Eskabidea eguneroko moduan egin zuen azken urtean, 2012an, 450.508 euroko aurrekontua izan zuen eta 86.565 euro eskatu zituen; hots, aurrekontuaren %19,2.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Zenbakien azterketatik honakoak nabarmendu daitezke:

1.- *Berria* egunkarian izan ezik, gainontzeko guztietan eskatutako eta esleitutako kantitateen arteko portzentajeak gora egin zuen 2005etik 2013ra; zenbaitetan modu nabarmenean gainera. *Goierriko Hitza*, esaterako, hirukoiztu egin zen proportzioa.

2.- 2013 urtean, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatutako hamar eurotik zazpi baino gehiago esleitu zizkien multzo honetako hedabideei.

2.- Baina arestian aipatutako igoera hori, zenbait kasutan, eskatutako dirua asko murrizteari lotzen zaio. Horixe da, adibidez, *Goierriko Hitza* eta *Urola Kostako Hitzarekin* gertatu zena. Lehenak 2005ean eskatu zuen diruaren %58 gutxiago eskatu zuen 2013an, eta bigarrenak 2005ean baino %41 gutxiago.

Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdean ikergai den epealdian zabaldu ziren egunerokoen emaitzak ondoko taula bietan daude bilduta:

159. taula. Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak eta Busturialdeko Hitzak eskatutako diru-laguntza eta esleitutakoa, 2005/2006 eta azken urtea. (€ eta %)

EGITASMOA	Lehen urtean eskatutakoa	Lehen urtean esleitutakoa	%	2010 eskatutakoa	2010 esleitutakoa	%
Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza (2005-2010)	115.893	45.629	39,4	75.074	48.674	64,8
Busturialdeko Hitza (2006-2010)	179.999	42.171	23,4	64.672	45.038	69,6

Iturria: HPSk 2005, 2006 eta 2010 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-taulak eta ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.

2011-2013 bitarterako, biak bat eginda kaleratu ziren denborarako:

160. taula. Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzak eskatutako diru-laguntza eta esleitutakoa, 2011 eta 2013. (€ eta %)

EGITASMOA	2011 eskatutakoa	2011 esleitutakoa	%	2013 eskatutakoa	2013 esleitutakoa	%
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	61.872	61.872	100	77.141	77.141	100

*Iturria: HPSk 2011 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak eta ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.*

Kasu honetan ere, aurrekoetan bezala, asko hazten da eskatutako eta esleitutakoaren arteko harremana, baina, berriro ere, eskatzen den diru-kantitateak ikaragarri egiten duelako behera. Dena den, datu bitxi moduan esan behar da 2011tik 2013ra, urte biak barne, dagoeneko eguneroko bakar moduan funtzionatzen zegoela, eskabidean jarritako kantitate osoa esleitu ziotela⁶⁰³.

Lehenbizi *Oarsoaldeko Hitza* eta ondoren *Oarso Bidasoko Hitza* bilakatu zen hedabideari dagokionez, orain arte ikusitako hedabideen ibilbide berbera jorratu zuen:

161. taula. Oarsoaldeko Hitzak eskatutako diru-laguntza eta esleitutakoa, 2005 eta 2010. (€ eta %)

EGITASMOA	2005 eskatutakoa	2005 esleitutakoa	%	2010 eskatutakoa	2010 esleitutakoa	%
Oarsoaldeko Hitza	123.067	44.782	36,4	71.021	41.650	58,6

*Iturria: HPSk 2005 eta 2010 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak eta ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.*

Eta 2011-2013 bitarterako datuak:

162. taula. Oarso Bidasoko Hitzak eskatutako diru-laguntza eta esleitutakoa, 2011 eta 2013. (€ eta %)

EGITASMOA	2011 eskatutakoa	2011 esleitutakoa	%	2013 eskatutakoa	2013 esleitutakoa	%
Oarso Bidasoko Hitza	72.024	50.607	70,2	39.682	37.052	93,4

*Iturria: HPSk 2011n eta 2013 urtean diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak eta ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.*

⁶⁰³ .- 2011 urteko esleipenean 61.871,80 euro esleitu zizkieten, baina hemen borobilduta jarri da kopurua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Ez da ahaztu behar, ikergai den azken urtean, 2013an, *Oarso Bidasoko Hitza* aldizkako hedabide inprimatuaren multzoan izan zela, esleipenak egiteko orduan. Beste horrenbeste gertatu zitzaion multzo honetatik geratzen den azkenari: *Irutxuloko Hitza*.

163. taula. Irutxuloko Hitzak eskatutako diru-laguntza eta esleitutakoa, 2005 eta 2013. (€ eta %)

EGITASMOA	2005 eskatutakoa	2005 esleitutakoa	%	2013 eskatutakoa	2013 esleitutakoa	%
Irutxuloko Hitza	164.174	52.400	31,9	16.155	14.041	86,9

Iturria: HPSk 2005 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-taulak eta ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.

Hortaz, ikusitako zenbakiak ikusita baieztatu daiteke euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatuaren kasuan, 2005-2013 bitartean, esleitutako kantitatea asko hurbildu zitzaizola hedabide bakoitzak eskatutakoari. Esandakoa bi faktorek bultzatuta gertatu zen: batetik, esleipenak gora egin zuten ia kasu guztietan, eta bestetik, idatzizkoek askoz diru gutxiago eskatu zuten. Egoera horrela, 2013 urtean eskatutako hamar eurotik zazpi baino gehiago esleitu zitzaizkion multzo honetako hedabide bakoitzari, eta zenbait kasutan, eskatutako %100a egokitu zitzaion.

5.2.2.2. INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIAK ETA ALDIZKARI ESPEZIALIZATUAK

Multzo honetako aldizkarien aurrekontuak eta “Hedabideak” deialdiaren bidez lortutako estaldurak aztertzeke landu diren ataletan erakutsi da, oro har, 2005-2013 bitartean urteroko jarduna gauzatzeko diru-partidek behera egin zutela, jasotako diru-laguntzak, berriz, hobera, eta ondorioz, estaldurak ere gora egin zuen. Euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek ikergai den epealdian eskatu zituzten baliabide ekonomikoak dagokienez, azpimarratzekoa da, portzentajetan neurtuta, egunerokoek baino diru gehiago eskatu zutela 2005ean zein 2013an. Zehatzago esateko, 2013 urtean informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak laguntza-deialdirako aurkeztu zituzten aurrekontuen 10 eurotik 3-5 euro

bitartean eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari⁶⁰⁴; hortaz aurrekontuen herena eta erdia bitarteko laguntza eskatu zuten.

164. taula. Informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2005 eta 2013. (€ eta %)

EGITASMOA	2005 aurrekontua	2005 eskatutakoa	%	2013 aurrekontua	2013 eskatutakoa	%
Aizu!	215.809	57.644	26,7	216.469	106.201	49,0
Argia	1.571.900	381.743	24,3	820.500	361.020	44,0
BAT	61.300	24.300	39,6	55.250	26.000	47,0
Bertsolari	76.000	31.800	41,8	76.000	35.200	46,3
Egan	46.700	20.300	43,5	14.125	8.000	56,6
Elhuyar	461.399	208.000	45,1	253.084	113.084	44,7
Euskal Herriko Natura	37.625	22.524	59,8	30.240	16.184	53,5
Gazteberri	245.000	70.000	28,6	36.000	12.000	33,3
Gaztezulo	238.787	38.264	16,0	278.000	103.000	37,0
Hemen	28.467	13.000	45,6	43.382	14.000	32,3
Jakin	204.642	91.482	44,7	180.045	57.019	31,7
Uztaro	29.000	12.570	43,3	33.895	10.620	31,3
	2006 aurrekontua	2006 eskatutakoa	%	2013 aurrekontua	2013 eskatutakoa	%
Xabiroi	99.071	26.382	26,6	110.242	28.592	25,9
	2007 aurrekontua	2007 eskatutakoa	%	2013 aurrekontua	2013 eskatutakoa	%
GAUR8	477.240	157.489	33,0	391.000	154.000	39,4
	2008 aurrekontua	2008 eskatutakoa	%	2013 aurrekontua	2013 eskatutakoa	%
Ekonomiaren KZ	75.000	13.121	17,5	81.235	31.235	38,4
Zazpi Haizetara	442.600	103.241	23,3	307.000	110.000	35,8

Iturria: HPSk 2005, 2006, 2007, 2008 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

Eta eskatutako dirua eta esleitutakoa parean jarrita, hauekin ere egunerokoen multzoan ikusitako joera errepikatzen da. Ia kasu guztietan gora egiten du eskatutako diruaren eta esleitutakoaren arteko proportzioak; hau da, eskatutako dirua eta balorazio-prozeduraren ondoren esleitzen den diruaren arteko aldea txikitu egiten da.

⁶⁰⁴ .- Taulan hiru salbuespen ditugu: *Xabiroi* aldizkariak hamar eurotik 2,6 eskatu zituen eta *Egan* eta *Euskal Herriko Natura* aldizkariak hamar eurotik bost baino zertxobait gehiago.

165. taula. Informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek eskatutako diru-laguntzak eta esleitutakoak, 2005 eta 2013. (€ eta %)

EGITASMOA	2005 eskatutakoa	2005 esleitutakoa	%	2013 eskatutakoa	2013 esleitutakoa	%
Aizu!	57.644	53.982	93,6	106.201	81.647	76,9
Argia	381.743	278.346	72,9	361.020	352.653	97,7
BAT	24.300	10.813	44,5	26.000	14.845	57,1
Bertsolari	31.800	18.202	57,2	35.200	25.509	72,5
Egan	20.300	8.779	43,2	8.000	3.011	37,6
Elhuyar	208.000	113.224	54,4	113.084	88.101	77,9
Euskal Herriko Natura	22.524	8.940	39,7	16.184	5.921	36,6
Gazteberri	70.000	29.909	42,7	12.000	10.525	87,7
Gaztezulo	38.264	30.949	80,9	103.000	98.469	95,6
Hemen	13.000	7.147	54,9	14.000	14.000	100
Jakin	91.482	46.970	51,3	57.019	51.320	90,0
Uztaro	12.570	7.077	56,3	10.620	10.620	100
	2006 eskatutakoa	2006 esleitutakoa	%	2013 eskatutakoa	2013 esleitutakoa	%
Xabiroi	26.382	26.382	100	28.592	21.417	74,9
	2007 eskatutakoa	2007 esleitutakoa	%	2013 eskatutakoa	2013 esleitutakoa	%
GAUR8	157.489	157.489	54,5	154.000	123.647,0	80,3
	2008 eskatutakoa	2008 esleitutakoa	%	2013 eskatutakoa	2013 esleitutakoa	%
Ekonomiaren KZ	13.121	13.121	65,6	31.235	16.304	52,2
Zazpi Haizetara	103.241	103.241	36,5	110.000	105.859	96,2

Iturria: HPSk 2005, 2006, 2007, 2008 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak eta ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.

Aztertutako informazio orokorreko eta informazio espezializatuko aldizkarien erdiek diru gehiago eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari 2013an 2005ean baino, eta gainontzekoek justu kontrakoa egin zuten: diru gutxiago eskatu zuten 2013an 2005ean baino. Gehiago eskatu zutenetik, *Xabiroi* aldizkariari izan ezik, denei esleitu zitzairen diru gehiago 2013an. Gutxiago eskatu zutenetik, batzuk gehiago jaso zuten 2013an 2005ean baino (*Argia*, *Jakin* eta *Uztaro*), eta gainontzekoek diru-laguntza txikiagoa jaso zuten 2013an 2005ean baino (*Egan*, *Elhuyar*, *Euskal Herriko Natura*, *Gazteberri* eta *GAUR8*). Baina egoera edozein izanda ere, eta salbuespenak salbuespen, arestian

aipatu bezala, gehientsuenentzat hobera egin zuen esleitutakoaren portzentajeak⁶⁰⁵. 2013an eskatutako hamar eurotik zazpi baino gehiago esleitu zitzaizkien informazio orokorreko aldizkariari eta aldizkari espezializatuei. Zenbait kasutan, egunerokoekin gertatu bezala, esleitutako diru-kantitatea eskatutakoaren %100era iritsi zen.

5.2.2.2.3. UDALERRI, ESKUALDE EDO LURRALDE JAKINETAN ZABALTZEN DIREN INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIAK

Ikuspegi ekonomikotik tokikoek izan zuten bilakaerarik onena 2005-2013 bitartean; aurretik azaldu bezala horietako gehienetan aurrekontuek gora egin zuten. Horrez gain, 2013an 2005ean baino diru-laguntza handiagoa jaso zuten, eta diru horrekin estali zuten aurrekontuaren zatia ere hazi egin zen. Hortaz hiru datuek hobeko bidea egin zuten. Hala ere, oso gogoan izan beharreko bi kontu azpimarratu behar dira: batetik, tokikoak direla Jaurlaritzaren laguntza-deialdiak kontuan hartu dituen paperezkoen multzoetatik aurrekonturik apalenak izan dituztenak eta laguntzarik txikienak jaso dituztenak, eta bestetik, "Hedabideak" diru-laguntza bidez lortu duten estaldura-maila ere egunerokoek eta informazio orokorreko eta espezializatutako aldizkariak lortutakoa baino askoz apalagoa izan dela.

Bestalde, tokikoek ikertutako epealdian izan zituzten aurrekontuak eta Jaurlaritzari eskatu zioten dirua harremanetan jarri ezker, denentzako balio duen arau orokor moduan, baieztatu daiteke multzo honetako hedabideak izan zirela euskara hutsezko paperezko guztien artean diru-kopururik txikienak eskatu zituztenak. Zenbaki absolutuei begiratuta logikoa da hala egitea, hauek direlako aurrekonturik apalenak dituztenak. Baina aipatutako arauaren garrantzia beste neurketa batetik dator; portzentajeei arreta jarrita egindako neurketatik, hain zuzen. Hau da, 2005-2013 bitartean diru-laguntzak eskatu zituzten hedabide inprimatu guztien artean, tokikoak izan ziren portzentualki laguntzarik txikienak eskatu zituztenak. Banakako salbuespen batzuk diren arren, orokorrean diru-eskaerak aurrekontuen %20tik beherakoak izan ziren 2005ean zein 2013an. Ondoko taulan daude bilduta bakoitzaren datu zehatzak.

⁶⁰⁵ .- Salbuespenak Egan, *Euskal Herriko Natura eta Ekonomiaren KZ* aldizkariak liriateke.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

166. taula. Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2005 eta 2013. (€ eta %)

	2005 aurrekontua	2005 eskatutakoa	%	2013 aurrekontua	2013 eskatutakoa	%
Aikor! Txorierriko aldizkaria	79.108	17.514	22,1	131.705	20.776	15,8
Aiurri Beterri-Buruntzako astek.	116.998	10.000	8,5	157.700	15.000	9,5
Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria	167.785	12.500	7,4	144.250	19.000	13,2
Anboto	342.628	34.451	10,0	400.950	58.170	14,5
Artzape	21.623	6.353	29,4	24.500	6.220	25,4
Asteleheneko Goiena papera	259.620	66.300	25,5	364.065	68.465	18,8
Baleike	43.672	6.000	13,7	67.950	10.000	14,7
Barren	199.015	21.215	10,6	248.000	35.000	14,1
Begitu	83.430	12.053	14,4	129.400	29.136	22,5
Berton	40.945	5.745	14,0	36.000	6.040	16,8
Danbolin	27.668	7.681	27,8	35.500	5.000	14,1
Drogetenitxurri	35.400	4.472	12,6	48.900	3.820	7,8
... eta kitto!	264.940	36.883	13,9	296.945	50.135	16,9
Galtzaundi	111.500	13.844	12,4	111.500	14.000	12,5
Goiena papera	320.298	38.050	11,9	834.103	127.065	15,2
Irunero	70.000	2.900	4,1	52.676	12.000	22,8
Kalaputxi	32.647	5.800	17,8	22.200	3.322	15,0
Karkara	66.382	11.318	17,0	85.405	11.478	13,4
Noaua!	96.381	13.067	13,5	175.100	26.726	15,3
Pil-pilean	43.880	9.336	21,3	48.908	9.300	19,0
Prest!	41.113	7.834	19,0	40.000	6.000	15,0
Txintxarri	255.000	24.500	9,6	203.200	24.000	11,8
UK Uribe Kostako aldizkaria	220.200	12.000	5,4	245.217	15.938	6,5
Uztarria	69.450	9.247	13,3	90.000	12.180	13,5
	2007 aurrekontua	2007 eskatutakoa	%	2013 aurrekontua	2013 eskatutakoa	%
Guaixe (2007)	207.683	40.924	19,7	221.825	65.000	29,3
Mailope (2007)	34.285	9.185	26,8	41.695	10.195	24,4
Ttipi-ttapa (07)	170.283	27.794	16,3	302.333	56.000	18,5
	2008 aurrekontua	2008 eskatutakoa	%	2013 aurrekontua	2013 eskatutakoa	%
Pulunpe (2008)	47.330	10.000	21,1	50.250	19.250	38,3

Iturria: HPSk 2005, 2007, 2008 eta 2013 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-taulak. Tesiaren egileak moldatua.

Zenbakien banan-banako errepasoak agerian uzten du bi portaera bereizi daitezkeela multzo honetako argitalpenen artean:

1.- Taulan daudenen heren batek (10/28), portzentajetan neurtuta diru gutxiago eskatu zion Eusko Jaurlaritzari 2013an 2005ean baino. Horien artean hiru eredu daude:

a.- *Artzape, Danbolin, Drogetenitturri* eta *Pil-pilean* aldizkarietan, aurrekontuak gora egin zuen eta eskatutako diru-kopuruak behera; hortaz, bien arteko harremana portzentajetara ekarrita txikiagoa da 2013an 2005ean baino.

b.- *Aikor, Asteleheneko Goiena papera, Karkara* eta *Mailope* aldizkarien kasuan, aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, zenbaki absolututan, hazi egin ziren 2005etik 2013ra; baina aurrekontuaren hazkundera eskatutako laguntzarena baino handiagoa izan zenez, bien arteko harremanak behera egiten du portzentajetan.

c.- *Kalaputxi* eta *Prest* aldizkarien ereduak aurrekoen kontrakoa litzateke. Aurrekontuek behera egin zuten, beste horrenbeste eskatutako diru-kopuruek, baina aurrekontuen beherakada eskatutako diruarena baino handiagoa izan zenez, bien arteko harremanak behera egiten du portzentajetan.

2.- Gainontzekoek (18/28), portzentualki neurtuta, diru gehiago eskatu zioten Jaurlaritzari 2013an 2005ean baino. Hauen artean ere hiru eredu dira:

a.- Gehientsuenetan⁶⁰⁶, aurrekontuak hazi egin ziren 2005etik 2013ra, baina are gehiago hazi zen eskatutako diru-kantitatea; ondorioz, bien arteko harremanaren kalkuluak portzentaje handiagoa dakar. Deigarria da *Pulunpe* aldizkariaren bilakaera, 2005etik 2013ra aurrekontuak hazkundera izan zuen baina txikia, Jaurlaritzari eskatutako diru-laguntza, ordea, ia bikoiztu egin zen.

b.- *Txintxarri* aldizkariaren kasua aurrekoaren kontrakoa litzateke, 2005etik 2013ra behera egin zuen aurrekontuak eta 2013an 2005ean baino diru gutxiago eskatu zuen. Dena den, aurrekontuan izandako murrizketa eskatutako diru-kantitatean izandakoa baino handiagoa izan zenez, azken emaitzak, portzentajetan, gora egiten du.

⁶⁰⁶ .- *Aiurri Beterrri-Buruntzako astekaria, Anboto, Baleike, Barren, Begitu, ...eta kitto!, Goiena papera, Noaual, UK Uribe Kostako aldizkaria, Uztarria, Guaixe, Ttipi-ttapa* eta *Pulunpe*.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

c.- *Aiurri Beterrri-Aiztondoko hamaboskaria, Berton eta Irunero* aldizkarietan aurrekontuak behera egin zuen eta eskatutako diru-laguntzak gora; hortaz, bien artekoak portzentajetan neurtuta gora egiten du. Deigarria da *Irunero* aldizkariaren ibilbidea, 2005ean aurrekontuaren %4,1 eskatu zuen, 2013an, berriz, aurrekontuaren %22,8.

Hurrengo urratsa eskatutako kantitateak eta esleitutakoak parean jarri eta horiek lantzea da.

167. taula. Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eskatutako diru-laguntzak eta esleitutakoak, 2005 eta 2013. (€ eta %)

	2005 eskatutakoa	2005 esleitutakoa	%	2013 eskatutakoa	2013 esleitutakoa	%
Aikor! Txorierriko aldizkaria	17.514	9.175	52,4	20.776	15.014	72,3
Aiurri Beterri- Buruntzako astek.	10.000	5.824	58,2	15.000	13.358	89,0
Aiurri Beterri- Aiztondoko hamab.	12.500	11.353	90,8	19.000	12.358	65,0
Anboto	34.451	27.368	79,4	58.170	57.709	99,2
Artzape ⁶⁰⁷	6.353	2.576	40,5	6.220	-	0,00
Asteleheneko Goiena papera	66.300	44.094	66,5	68.465	66.086	96,5
Baleike	6.000	3.884	64,7	10.000	7.142	71,4
Barren	21.215	11.258	53,1	35.000	21.795	62,3
Begitu	12.053	5.771	47,9	29.136	12.352	42,4
Berton	5.745	2.796	48,7	6.040	3.373	55,8
Danbolin	7.681	3.139	40,8	5.000	2.976	59,5
Drogetenitturri	4.472	2.260	50,5	3.820	3.820	100
... eta kitto!	36.883	23.511	63,7	50.135	32.002	63,8
Galtzaundi	13.844	9.369	67,7	14.000	14.000	100
Goiena papera	38.050	26.277	69,1	127.065	127.065	100
Irunero	2.900	2.494	86,0	12.000	4.053	33,8
Kalaputxi ⁶⁰⁸	5.800	2.631	45,4	3.322	-	0,00
Karkara	11.318	6.599	58,3	11.478	8.766	76,4
Noaua!	13.067	8.463	64,7	26.726	13.461	50,4
Pil-pilean	9.336	4.027	43,1	9.300	4.052	43,6
Prest!	7.834	4.371	55,8	6.000	3.666	61,1
Txintzarri	24.500	19.032	77,7	24.000	17.819	74,2
UK Uribe Kostako aldizkaria	12.000	12.000	100	15.938	14.092	88,4
Uztarria	9.247	6.059	65,5	12.180	9.279	76,2
	2007 eskatutakoa	2007 esleitutakoa	%	2013 eskatutakoa	2013 esleitutakoa	%
Guaixe (2007)	40.924	36.874	90,1	65.000	24.362	37,5
Mailope (2007)	9.185	7.305	79,5	10.195	4.408	43,2
Ttipi-ttapa (07)	27.794	27.794	100	56.000	49.609	88,6
	2008 eskatutakoa	2008 esleitutakoa	%	2013 eskatutakoa	2013 esleitutakoa	%

⁶⁰⁷.- Artzape aldizkariak ez zuen Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarik jaso 2013 urteko deialdian. 2012koan, 8.032 euro eskatu eta 2.142 jaso zituen; hortaz eskatutakoaren %26,7.

⁶⁰⁸.- Kalaputxi aldizkariak ez zuen Jaurlaritzaren diru-laguntzarik jaso 2013ko deialdian. 2012koan, 4.074 euro eskatu zituen eta horietatik 2.038 jaso zituen; beraz, eskatutakoaren erdia.

Pulunpe (2008)	10.000	8.424	84,2	19.250	5.013	26,0
----------------	--------	-------	-------------	--------	-------	-------------

Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak, tokikoek, orokorrean diru gehiago eskatu zioten Jaurlaritzari 2013an 2005ean baino⁶⁰⁹. Esleitutakoari dagokionez, jasotako euroei begiratuta, 2013an ia denek 2005ean baino gehiago jaso zuten arren⁶¹⁰, ez da gauza bera gertatzen bi urteetako portzentajeak alderatu ezker. Izan ere, aztertutako argitalpenen herenak (10/28) portzentualki diru gutxiago jaso zuen 2013an. Horien artean, bi azpitalde leudeke: batetik, zenbaki absolututan 2013an 2005ean baino diru gutxiago esleitu zitzairen hedabideak (*Txintxarri, Guaixe, Mailope* eta *Pulunpe*), eta bestetik, 2013an 2005ean baino diru gehiago esleitu zitzaienak (*Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria, Begitu, Irunero, Noaúa! UK Uribe Kostako aldizkaria* eta *Ttipi-ttapa*). Azken horietan, esleitutako portzentajeak behera egiten du urte batetik bestera, eskatu zuten kantitatea urte batetik bestera esleitu zitzaiena baino askoz gehiago hazi zelako; ondorioz, bien arteko koefizienteak behera egiten du. Kasurik deigarriena, berriro ere, *Irunero* aldizkariarena, 52,2 puntu galdu baitzituen ikertutako epealdian. Horrekin batera, azpimarratu beharrekoa da Nafarroan zabaltzen diren hiru aldizkarietan (*Guaixe, Mailope* eta *Ttipi-ttapa*) behera egin zuela esleitutakoaren portzentajeak.

Bestalde, multzo honetako gainontzeko bi herenentzat (18/28) portzentajeak hobera egin zuen, eta zenbait kasutan, eskatutako kantitate osoa, %100a, asebate zuen. 2005ean, aztertutako tokikoetatik Eusko Jaurlaritzak 16ri esleitu zizkien eskatutako 10 eurotik 6 baino gehiago, 2013an, berriz, 17ri. Muga hamarretik zazpi eurotan jarriko balitz, 2005ean 9 tokikori esleitu zitzairen eskatutako hamar eurotik zazpi baino gehiago, 2013an, berriz, 13ri.

⁶⁰⁹ .- Salbuespenak dira: *Artzape, Danbolin, Drogeteniturri, Kalaputxi, Pil-pilean* eta *Txintxarri*. Azken bi horien kasuan ia-ia diru-kantitate bera eskatu zuten 2005ean eta 2013an.

⁶¹⁰ .- Esandakoaren salbuespena lirateke *Danbolin, Prest!, Txintxarri, Guaixe, Mailope* eta *Pulunpe* aldizkariak. Horiei diru gutxiago esleitu zitzairen 2013an 2005ean baino.

5.2.2.2.4. NAGUSIKI GAZTELANIA DARABILTEN EGUNKARIEK PRESTATU ETA ZABALDUTAKO EUSKARA HUTSEZKO GEHIGARRIAK ETA ERREFERENTZIA-ORRIALDEAK

Jaurlaritzaren diru-laguntzak 2006tik 2011ra jaso zituzten multzo honetako *Araba gaztea*, *Izan gazte* eta *Ortzadar* gehigarrietan aurrekontuek gora egin zuten aztertutako denboran, baina laguntza bidez estalitako aurrekontuaren portzentajeak behera egin zuen.

Ondoko taulan daude aipatu hedabide inprimatuek laguntza publikoa izan zuten hedabideen lehen eta azken urteko aurrekontuak, eskatutako diru-laguntzak eta datu bien arteko erlazioa. Baita epealdi bereko urte bakar batean diru-laguntza izan zuten *Xirika 16* eta *El Diario Vasco* gehigarrien zenbakiak ere.

168. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrien aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2006 eta 2011. (€ eta %)

	2006 aurrekontua	2006 eskatutakoa	%	2011 aurrekontua	2011 eskatutakoa	%
Araba gaztea	148.183	87.423	58,8	268.073	158.163	59,0
El Diario Vasco	-	-	-	208.649	125.189	60,0
Izan gazte	183.466	117.418	64,0	286.000	171.600	60,0
Ortzadar	291.500	125.000	42,9	553.636	311.936	56,3
Xirika 16	342.262	199.417	58,2	-	-	-

*Iturria: HPSk 2006 eta 2011 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatua.*

Orain arte, euskara hutsezko hedabide inprimatuekin egindako datu-lanketek erakutsi dute informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek izan zirela 2005-2013 bitartean izan zituzten aurrekontuekiko diru-laguntzarik handienak eskatu zituztenak, baina arestiko taulan bildutako informazio kuantitatiboaren arabera, gehigarriek gaintu egiten dituzte haiek eskatutako kopuruak. Horixe da, hain zuzen ere, multzo honetako hedabideen daturik deigarriena: aurrekontuaren hamar eurotik erdia baino gehiago eskatu ziotela Eusko Jaurlaritzari. Gainera, 2006tik 2011ra, aurrekontuen hazkundearekin batera, ia neurri berean hazi ziren eskatutako diru-baliabideak; hortaz, ez zegoen apenas aldaketarik epealdiko lehen eta azken urteetako

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

portzentajeen artean. Salbuespena *Deia* egunkariaren *Ortzadar* gehigarria litzateke. Kasu horretan, eskatutako laguntzak hamahiru puntu irabazi zituen 2006tik 2011ra.

Eskatutako eta Jaurlaritzak esleitutako dirua harremanetan jarri ezker, berriz,

169. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak eskatutako diru-laguntzak eta esleitutakoak, 2006 eta 2011. (€ eta %)

	2006 eskatutakoa	2006 esleitutakoa	%	2011 eskatutakoa	2011 esleitutakoa	%
Araba gaztea	87.423	39.294	44,9	158.163	30.945	19,6
El Diario Vasco	-	-	-	125.189	62.595	50,0
Izan gazte	117.418	49.997	42,6	171.600	37.254	21,7
Ortzadar	125.000	57.476	46,0	311.936	64.482	20,7
Xirika 16	199.417	150.626	75,5	-	-	-

Iturria: HPSk 2006 eta 2011 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-taulak eta ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.

Diru-laguntza publikoa urte bakar batean jaso zuten *El Diario Vasco* eta *Xirika 16* gehigarrietan, hurrenez hurren, eskatutako hamar eurotik bost euro eta zazpi eta erdi euro esleitu zitzairen. Bestalde, sei urtez jarraian onuradun izan ziren *Araba gaztea* eta *Izan gazte* gehigarrietan eskatutakoa hazi egin zen, lehenengoan ia bikoizteraino; baina esleitutako diruak behera egin zuen bietan. Portzentajeei erreparatu ezker, *Izan gazte* gehigarriak erdia galdu zuen 2006tik 2011ra, eta are gehiago galdu zuen *Araba gazteak*. Aurrekontuetan eta esleitutakoan gora egin zuen gehigarri bakarra *Deia* egunkariaren *Ortzadar* izan zen; hala ere, kasu honetan ere 2006tik 2011ra datu bien arteko portzentajeak behera egin zuen, erdia baino gehiago galtzeraino. Sei urtez diru publikoaren onuradun izan ziren multzo honetako hedabide inprimatuentzako joera orokorra honela laburtu daiteke: 2006an eskatutako hamar eurotik lau esleitu zizkien Eusko Jaurlaritzak, 2011n eskatutako hamar eurotik bi.

Azkenik, nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako erreferentzia-orrialdeei dagokienez, horientzat laguntzak izan ziren 2009 eta 2010eko urteetan.

170. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko erreferentzia-orrialdeen aurrekontuak eta eskatutako diru-laguntzak, 2009 eta 2010. (€ eta %)

	2009 aurrekontua	2009 eskatutakoa	%	2010 aurrekontua	2010 eskatutakoa	%
Deia egunkaria	113.756	65.000	57,1	-	-	-
Diario de noticias de Álava	88.717	52.343	59,0	-	-	-
El Diario Vasco	-	-	-	457.269	274.361	60,0
El País egunkaria	211.470	125.000	59,1	-	-	-
Noticias de Gipuzkoa	96.954	58.173	60,0	176.000	105.000	59,6

*Iturria: HPSk 2009 eta 2010 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak. Tesiaren egileak moldatua.*

Erreferentzia-orrialdeekin euskara hutsezko gehigarrietan ikusitakoaren antzeko portaera errepikatzen da, hau da, aurrekontuaren erdia baino gehiago eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari. Alderaketa egin daitekeen kasu bakarrean, *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian, urte batetik bestera aurrekontua ia bikoiztu egin zen, eta beste horrenbesteko hazkundera izan zuen eskatutako diruak; ondorioz, bi datuen arteko erlazioa portzentajetara ekarrita, ez da alderik sumatzen.

Bestalde, eskatutakoa eta esleitutakoa parean jarrita, ondokoak dira erreferentzia-orrialdeen emaitzak:

171. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko erreferentzia-orrialdeek eskatutako diru-laguntzak eta esleitutakoak, 2009 eta 2010. (€ eta %)

	2009 eskatutakoa	2009 esleitutakoa	%	2010 eskatutakoa	2010 esleitutakoa	%
Deia egunkaria	65.000	45.502	70,0	-	-	-
Diario de noticias de Álava	52.343	26.401	50,4	-	-	-
El Diario Vasco	-	-	-	274.361	100.000	36,4
El País egunkaria	125.000	31.777	25,4	-	-	-
Noticias de Gipuzkoa	58.173	38.781	66,7	105.000	52.800	50,3

*Iturria: HPSk 2009 eta 2010 urteetan diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-
taulak eta ebazpenak. Tesiaren egileak moldatua.*

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Taulan bildutako datuek erakusten dute kasu honetan ez dagoela denentzat balio duen baieztapena egiterik. 2009an *Deia* egunkariak aurkeztutako erreferentzia-orrialdeei eskatutako laguntzaren ia hiru laurdenak esleitu zizkioten, *Diario de noticias de Álavari* erdia eta *El País* egunkariari eskatutakoaren laurdena. 2010ean eskatutakoaren herena baino zertxobait gehiago esleitu zioten *El Diario Vasco*ri. Bi urtetan laguntza jaso zuen *Noticias de Gipuzkoa* egunkariaren kasuan, berriz, diru gehiago jaso zuen 2010ean 2009an baino, baina bi urteen artean eskatutako kopurua are gehiago hasi zenez, ondorio moduan, portzentualki galera izan zuen urte batetik bestera; eskatutako hamar eurotik ia zazpi esleitu zioten 2009an eta hamarretik bost 2010ean.

5.2.3. EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZA 2005-2013 EPEALDIAN JASO ZUTEN EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEN ETA ESLEIPENEN BILAKAERA LABURBILDUTA

Atal honetan, euskara hutsezko hedabide inprimatuek ikergai den 2005-2013 epealdian izan duten argazki kuantitatiboa aurkeztu da. Helburua burutzeko zeregina bi urratsetan gauzatu da:

- 1.- “Hedabideak” laguntza-deialdiak urtero berezitu dituen multzoen banaketa aintzat hartu eta multzo bakoitzean aurrekontuak, finantzaketa-mailak, maiztasunak, orrialde-kopuruak, botaldiak eta salmentak jorratu duen ibilbidea landu da.
- 2.- “Hedabideak” laguntza-deialdiaren onuradun izan diren hedabide inprimatuei esleitutako diruak aurrekontuaren zein zati estali duen kalkulatu eta, horrekin batera, hedabide bakoitzak eskatutakotik zenbat esleitu zaion erakutsi da.

Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” deialdiaren onuradun izan diren euskara hutsezko hedabide inprimatuek eta deialdiaren esleipenek 2005-2013 epealdian izan duten bilakaera modu grafikoan erakutsi daiteke. Oso kontuan izan behar da ondoko taulak hedabide-multzo bakoitzaren joera orokorra biltzen duela; multzo bakoitzaren barne badirelako hemen erakutsitakoaren kontrako ibilbidea egin duten argitalpenak.

Horien berezitasunak ondoren landuko dira. Beraz, adierazi bezala, hemen ageri den taula multzo bakoitzeko hedabide gehienek jorratutako bidearen lekuko da.

172. taula. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta "Hedabideak" deialdiaren esleipenen bilakaera, 2005-2013.

	Eguneroko prentsa	Aldizkariak	Tokikoak	Gehigarriak	Erreferentzia-orrialdeak
Aurrekontuak	↓	↓	↑	↑	↑
Finantzaketa-maila propioak	↓	% 50 ↑, % 50 ↓	↑	=	=
Maiztasunak	↓	=	=	=	=
Orri-kopuruak	↓	=	↓	=	↓
Botaldiak	↓	↓	↑	↓	↓
Esleitutako dirua (%)	↑	↑	↑	↓	↓
Estaldura-maila (%)	↑	↑	↑	↓	↓

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Hedabide inprimatuen bilakaerarik onena, neurtu diren adierazle kuantitatibo guztiak aintzat hartuta, udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak, tokikoak izan dute. Bestalde, hedabide-multzoen bilakaera positiboa zein negatiboa izan arren, Eusko Jaurlaritzak esleitutako diru-laguntzak eta horri esker hedabide inprimatuetan estali den aurrekontuaren portzentajeak gora egin zuen 2005tik 2013ra multzo guztietan, salbu nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldu zituzten euskara hutsezko gehigarrietan eta erreferentzia-orrialdeetan.

"Hedabideak" deialdiak 2005-2013 bitartean ezarri dituen onuradunen banaketari erreparatuta, ondokoak dira azterketaren emaitzarik azpimarragarrienak:

1.- EGUNEROKO PRENTSA INPRIMATUA: multzo honetan kokatutako hedabideek, oro har, aurrekontu txikiagoak zituzten 2013an 2005ean baino. Autofinantzaketa-mailari dagokionez, *Goierriko Hitza* eta *Hernaniko Kronikak* hobera egin zuten 2005etik 2013ra, *Lea-Artibai*, *Mutriku* eta *Busturialdeko Hitzak* portzentaje berdintsuei eutsi zien urte batetik bestera, eta gainontzekoen finantzaketa-mailak behera egin zuen. Aurrekontuetan zein finantzaketa-mailetan izandako beherako joerak eragina izan

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

zuen egunerokoen maiztasun, botaldi eta orrialde-kopuruetan. Gorabehera handiak dira aipatu adierazleei begiratuta; ez dago eguneroko guztiei egokitzeko moduko baieztapena egiterik. Portaerarik onena *Hernaniko Kronikarena* izan zen, maiztasunari eta orrialde-kopuruari eutsi zielako eta botaldia handitu zuelako; eta beste muturrean leudeke *Irutxuloko Hitza* eta *Oarso Bidasoko Hitza*, bi horiek egunerokoak izateari utzi zioten eta. Dena den, euskara hutsezko eguneroko prentsaren sektoreak 2013an 2005ean baino %43 orrialde gutxiago sortu zituen, eta bakoitzaren botaldiak kontuan hartuta, sektoreak %54 orrialde gutxiago inprimatu zuen 2013an 2005ean baino. Eta salbuespenen bat dagoen arren, eguneroko prentsaren salmenta-datuek ere txarrera egin zuten ikertutako epealdian.

Bestalde, egindako datuen analisiak agerian utzi du eguneroko prentsaren sektoreko hedabide inprimatuek aurrekontuaren zati handiagoa estali zutela 2013an Eusko Jaurlaritzak esleitu zien diruaren bidez⁶¹¹. Egoeraren arrazoia aurrekontuen beherakadari zor zaio; hau da, multzo honetako hedabideek 2013an 2005ean baino diru-laguntza handiagoak hartu zituzten arren, are handiagoa izan zen aurrekontuetan eginiko murrizketa; eta ondorioz, laguntza handiagoa eta aurrekontua txikiagoa izanda, datu bien arteko zatiketaren emaitza den estaldura-mailak gora egin du.

Egunerokoek 2005-2013 epealdian Eusko Jaurlaritzari urtero zenbat diru eskatu zioten aztertuta, agerian geratu da ez dagoela portaera-eredu bakarra. Aurrekontuetan behera egin arren, batzuek diru gehiago eskatu zutelako 2013an 2005ean baino, beste batzuek ordea gutxiago. Eta azkenik, eskatutako eta esleitutako dirua harremanetan jartzeak erakutsi du *Berria* egunkarian izan ezik, gainontzeko egunerokoetan eskatutako eta esleitutako kantitateen arteko portzentajeak gora egin zuela, baina hobekuntza, kasu askotan, 2013an 2005ean baino askoz diru gutxiago eskatzeari lotzen zaio. Edonola ere, 2013an eguneroko idatzizko hedabideek eskatu zituzten hamar eurotik zazpi baino gehiago esleitu zizkien Jaurlaritzak, eta zenbait kasutan, eskatutako laguntzaren %100eraino heldu zen esleitutakoa.

⁶¹¹.- Salbuespen bakarra *Irutxuloko Hitza* izan zen. Kasu horretan, analisia egin den atalean jasota geratu den bezala, 2005ean aurrekontuaren %7,8 estali zuen Eusko Jaurlaritzak esleitutako diru-laguntzarekin, eta 2013an %5,4.

Aurreko paragrafoetan baieztatutakoa taula batera ekarri ezker:

173. taula. Euskarazko eguneroko prentsaren bilakaera, laguntzei esker lortutako estaldura-mailaren bilakaera eta jasotako diru-kantitatearen bilakaera, 2005-2013.

	Aurrekontua	Finantzaketa-maila propioa	Maiztasuna	Orri-kopurua	Botaldia	Estaldura-maila (%)	Esleitutako laguntza (%)
Berria	↓	↓	=	↓	↓	↑	↑
Goierriko Hitza	↓	↑	↓	=	↓	↑	↓
Hernaniko Kronika	↑	↑	=	=	↑	↑	=
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	↓	↓	↓	=	↑	↑	↑
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	↓	↓	↓	=	↓	↑	↑
Urola Kostako Hitza	↓	↓	↓	=	↓	↑	↓
Oarso Bidasoko Hitza	↓	=	↓	↑	↓	↑	↓
Irutxuloko Hitza	↓	↓	↓	↑	↓	↓	↓

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

2.- EUSKARA HUTSEZKO INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIAK ETA ALDIZKARI ESPEZIALIZATUAK: diru-laguntza deialdiak urtero ezarri duen bigarren hedabide-multzoa da honakoa. "Hedabideak" diru-laguntza multzo horretako 36 argitalpenek jaso zuten 2005-2013 bitartean. Horietako hamaseiren azterketa zehatza egin da, ikergai den epealdiak hartzen dituen bederatzi urteetatik gutxienez bi herenetan, hau da, sei urtean, onuradun izan direnena, hain zuzen. Gainontzeko hogei aldizkarietatik hamahiru bidean geratu ziren edo laguntza eskatzeari utzi zioten, eta beste zazpiak sei urte baino gutxiagotan, zenbait kasutan urte bakar batean jaso zuten laguntza 2005-2013 bitartean. Dena den, horiei buruzko ikuspegi laburtua ere jaso da multzoari dagokion atalaren amaieran.

Informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen aurrekontuek, oro har, egunerokoetan gertatu bezala, behera egin zuten 2005etik 2013ra. Salbuespenak izan ziren *Gaztezulo*, *Hemen*, *Uztaro* eta *Xabiroi* aldizkariak. Finantzaketa-maila propioak izan zuen bilakaerari erreparatuz, erdiek hobetu egin zuten eta beste erdiek txarrerako bidea egin zuten. Galerarik nabarmenenak *Aizu!* eta *Argia* aldizkariak izan ziren, kasu bietan arrazoi beragatik: sarrera pribatuetan izan zuten beherakada. Autofinantzaketa-arloko bilakaerarik onena, berriz, *Zazpi Haizetara* aldizkariak erakutsitakoa da, 23 puntu irabazi zituen 2005etik 2013ra; kasu horretan, sarrera pribatuek gora egin zuten arren, finantzaketa-maila propioan izandako hobekuntza gehiago zor zaio aurrekontuan egindako murrizketari.

Maiztasun, botaldi eta orrialde-kopuruen lanketatik baieztapen orokorrak egitea zaila da, informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarietan oso hedabide heterogeneoak direlako. Hala ere, oro har, txukun eutsi zioten maiztasunari eta orrialde-kopuruari. Botaldiek, ordea, behera egin zuten ia denetan. *Gaztezulo* aldizkaria izan zen 2013an 2005an baino botaldi handiagoa zuen aldizkari bakarra, eta *Bertsolari*, *Euskal Herriko Natura* eta *Ekonomiaren KZ* aldizkarien kasuan, tirada-kopuru berberak izan zituzten bi urtean. Azkenik, egunerokoekin esan bezala, multzo honetako hedabideek ere orrialde gutxiago sortu, inprimatu eta saldu zituzten.

“Hedabideak” diru-laguntza bidez estalitako aurrekontuaren zatiari begiratuta ikusi da euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek eguneroko prentsak baino zati handiagoa estali dutela hartutako diru publikoari esker, eta 2013an, aztertutako aldizkako argitalpen gehienentzat Eusko Jaurlaritzak esleitutako diru-baliabideek aurrekontuaren %25etik gorako estaldura eskaini zieten. Hazkunde hori bi faktoretan oinarritzen da; batetik, 2013an 2005ean baino diru gehiago jaso zuten; bestetik, estaldura-mailaren hobekuntzaren benetako arrazoa multzo honetako hedabideen aurrekontuek izandako beherakada litzateke.

Informazio orokorreko eta espezializatutako aldizkarien bilakaera aztertzeke osatu den atalaren laburpenarekin amaitzeko, esan behar da portzentajetan neurtuta, egunerokoek baino diru gehiago eskatu ziotela Jaurlaritzari 2005ean zein 2013an. Eta jasotakoari dagokionez, salbuespenak salbuespen, multzo honetako onuradun gehienei diru gehiago heldu zitzairen denboran zehar. Hala, 2013an, eskatutako hamar eurotik zazpi baino gehiago esleitu zitzairen, eta zenbait kasutan, eguneroko prentsarekin gertatu bezala, eskatutako kopuru osoa esleitu zitzairen.

Egunerokoekin egin bezala, aztertu diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatu bakoitzak izan dituen emaitzak kontuan hartuta, ondoko taula osatuko litzateke:

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

174. taula. Informazio orokorreko aldizkariaren eta aldizkari espezializatuaren bilakaera, laguntzei esker lortutako estaldura-mailaren bilakaera eta jasotako diru-kantitatearen bilakaera, 2005-2013.

	Aurrekontua	Finantzaketa-maila propioa	Maiztasuna	Orri-kopurua	Botaldia	Estaldura-maila (%)	Esleitutako laguntza (%)
Aizu!	↑	↓	=	↑	↓	↑	↓
Argia	↓	↓	↓	↓	↓	↑	↑
BAT	↓	↓	=	↑	↓	↑	↑
Bertsolari	=	↑	=	↓	=	↑	↑
Egan	↓	↓	=	=	↓	↑	↓
Elhuyar	↓	↓	=	↓	↓	↑	↑
Euskal Herriko Natura	↓	↑	↑	↑	=	↓	↓
Gazteberri	↓	↓	↓	=	↓	↑	↑
Gaztezulo	↑	↓	=	↑	↑	↑	↑
Jakin	↓	↑	=	↓	↓	↑	↑
Hemen	↑	↑	=	↑	↓	↑	↑
Uztaro	↑	↑	=	↑	↓	↑	↑
Xabiroi (2006)	↑	↓	=	=	↓	↓	↓
GAUR8 (2007)	↓	↑	↓	=	↓	↓	↑
Ekonomiaren KZ (2008)	↓	↑	↑	=	=	↑	↓
Zazpi Haizetara (2008)	↓	↑	↓	=	↓	↑	↑

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

3.- UDALERRI, ESQUALDE EDO LURRALDE JAKINETAN ZABALTZEN DIREN INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIAK: multzo honetako 53 aldizkarik jaso zuten laguntza 2005-2013 bitartean, eta horietatik, informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariekin egin bezala, sei urtetik gora onuradun izan zirenen azterketa sakona burutu da, guztira 28 hedabideena.

Hortaz, kopuru aldetik onuradunen multzorik handiena da tokikoena. Hartu dituzten diru-baliabideei dagokienez, bestelakoa da errealitatea; kasu isolaturen bat kenduta (*Goiena*) tokikoei diru-laguntza apalenak esleitu zaizkielako beti. Kontuan izan behar da aurrekontuak ere apalak izan dituztela; baina horrela izan arren, nabarmentzekoa da 2005etik 2013ra bilakaera positiboa izan zutela. Ezberdintasun garrantzitsua da eguneroko eta aldizkako informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariekin alderatu ezker. Beste horrenbeste baieztatu daiteke tokikoen autofinantzaketak 2005etik 2013ra eginiko ibilbideaz; hori ere goranzkoa izan zelako gehientsuenetan.

Bestalde, multzo honetako hedabideek dotore eutsi zioten maiztasunari 2005etik 2013ra. Orrialde-kopuruaren bilakaerari dagokionez, denetarik izan da, baina askok orrialde gutxiago kaleratu zituzten 2013an 2005ean baino. Eta botaldien datuek agerian utzi dute hoberako bidea jorratu zutela gehienek; hau da, aztertutako 28 hedabideetatik 20k ale gehiago kaleratu zituzten 2013an 2005ean baino. Ondorioz, inprimatutako orrialde-kopuruek ere gora egin zuten urte batetik bestera. Sortutakoek, ordea, aurretik azaldutako bi multzoetan gertatu bezala, behera egin zuten. Zenbakiak ikusita, garbi ikusi da udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak izan direla arlo guztietan bilakaera onena izan duten hedabide inprimatuak. Eta horien artean, daturik baikorrenak eskualde mailan edo udalerrri anitzetan zabaltzen direnak izan dituzte. Bestalde, apenas dago tokikoen salmenta-daturik, doakotasuna delako hedabide horien ezaugarri bereizgarrienetakoa.

Multzo honetako hedabideek, oro har, diru-laguntza handiagoak eskatu zituzten 2013an 2005ean baino. Hala ere, zenbaki absolutuei begiratuta, tokikoak izan dira kantitaterik txikienak eskatu dituzten hedabideak. Horrekin batera, "Hedabideak" diru-laguntza bidez estali zuten aurrekontuaren portzentajeak ere hobekuntza izan

zuen. Honaino ez legoke alderik, beraz, egunerokoekin eta informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariekin alderatuta; baina bai, ordea, eta alde garrantzitsua gainera, bi konturi dagokionez: batetik, tokikoak dira Eusko Jaurlaritzak esleitutako diru-laguntza bidez aurrekontuaren zatirik txikiena estali duten euskara hutsezko hedabide inprimatuak; 2013an, esaterako, ia kasu guztietan %10etik beherako estaldura-maila lortu zuten. Bestetik, egunerokoetan eta informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarietan, diru-laguntza bidez lortutako estaldura-portzentajeak 2005etik 2013ra izan zuen hazkundera bi urte horien artean aurrekontuetan egindako murrizketei loturik dago; baina tokiko gehienetan aurrekontuak gora egin zuen; hortaz, 2005etik 2013ra estaldura-mailak izan zuen hazkundera beste modu batera azaltzen da tokikoetan: portzentajetan jarrita, esleitu zitzairen diru-kantitatea aurrekontua baino gehiago hazi zen; ondorioz, estaldurak, gutxi bada ere, hobera egin zuen. Esleitutako diru-kantitateari dagokionez, berriz, portzentajetara ekarrita, aztertutako tokikoen herenari diru gutxiago esleitu zioten 2013an 2005ean baino; beste bi herenei, ordea, gehiago esleitu zitzairen 2013an, eta zenbait kasutan, eskatutakoaren %100a egokitu zitzairen.

Tokikoek 2005etik 2013rako aurrekontu, finantzaketa-maila propio, maiztasun, orrialde-kopuru eta botaldietan izan zuten bilakaera eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzen bidez eskuratu zuten aurrekontuaren estaldura eta diru-laguntzen bilakaera modu grafikoan dago jasota ondoko taulan.

175 . taula. Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariaren bilakaera, laguntzei esker lortutako estaldura-mailaren bilakaera eta jasotako diru-kantitatearen bilakaera, 2005-2013.

	Aurrekontua	Finantzaketa-maila propioa	Maiztasuna	Orri-kopurua	Botaldia	Estaldura-maila (%)	Esleitutako laguntza (%)
Aikor!Txorierriko aldizkaria	↑	↑	=	↑	↑	↓	↑
Aiurri Beterrri-Buruntzako astekaria	↑	↓	↓	=	↑	↑	↑
Aiurri Beterrri-Aiztondoko hamaboskaria	↓	↑	=	↓	↓	↑	↓
Anboto	↑	↓	↑	=	↑	↑	↑
Artzape	↑	↓	=	=	↑	↓	↓
Asteleheneko Goiena papera	↑	↑	=	↑	↓	↑	↑
Baleike	↑	↑	=	↓	↓	↑	↑
Barren	↑	↓	↓	↓	↑	↑	↑
Begitu	↑	↑	↑	↓	↑	↑	↓
Berton	↓	↑	=	=	↑	↑	↑
Danbolin	↑	↑	=	=	↑	↓	↑
Drogeteniturrri	↑	↑	=	↓	↑	↑	↑
... eta kitto!	↑	↑	=	↓	↑	↑	↑
Galtzaundi	=	↑	↓	↓	↓	↑	↑
Goiena papera	↑	↑	=	↑	↑	↑	↑
Irunero	↓	↑	↑	↓	=	↑	↓
Kalaputxi	↓	↑	=	↓	↑	↓	↓
Karkara	↑	↑	↓	↑	↑	↑	↑
Noaua!	↑	↓	↑	↓	↑	↓	↓
Pil-pilean	↑	↑	↓	=	↑	↓	↑

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Prest!	↓	↑	=	↓	↑	↓	↑
Txintzarri	↓	↑	↓	↓	↑	↑	↓
UK Uribe Kostako aldizkaria	↑	↑	↓	=	↓	↑	↓
Uztarria	↑	↑	=	↓	↑	↑	↑
Guaixe (2007)	↑	↑	↑	↓	=	↓	↓
Mailope (2007)	↑	↑	=	↑	↑	↓	↓
Ttipi-ttapa(2007)	↑	↑	=	↑	=	↑	↓
Pulunpe (2008)	↑	↑	=	↑	↑	↓	↓

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

4.- NAGUSIKI GAZTELANIA DARABILTEN EGUNKARIEK PRESTATU ETA ZABALDUTAKO EUSKARA HUTSEZKO GEHIGARRIAK ETA ERREFERENTZIA-ORRIALDEAK: horiek osatzen dute Jaurlaritzak diruz lagundu dituen hedabide inprimatuen laugarren multzoa. Lehenengok 2006-2011 bitartean, urte biak barne, jaso zituzten laguntzak eta erreferentzia-orrialdeek 2009an eta 2010ean. Bi multzo hauetako hedabideekin egin daitekeen azterketa mugatuagoa da; batetik, jasotzaile-kopuruari begiratuta, gutxi direlako, eta bestetik, horietako asko urte bakar batean edo bitan izan zirelako laguntzen onuradun; hortaz, ez dago epe luzeko bilakaera aztertzerik.

Eusko Jaurlaritzak euskara hutsezko bost gehigarriei esleitu zien dirua 2006tik 2011ra, horietatik hiruk jaso zuten laguntza urtero eta bik urte bakar batean. Epealdi osoan onuradun izan zirenen kasuetan (*Araba gaztea*, *Izan gazte* eta *Ortzadar*), aurrekontuek gora egin zuten eta finantzaketa-maila propioari dagokionez, ia-ia zenbaki berberak izan zituzten 2006an eta 2011n. Maiztasunak eta orrialde-kopuruak ez zuten gorabehera handirik izan lehenengo bietan; *Ortzadar* gehigarriaren kasuan, ordea, behera egin zuten. Botaldiak okerrerako joera agertu zuen kasu guztietan, zenbaki bakoitzeko ale-kopuruak nabarmen egin baitzuen behera 2006tik 2011ra.

Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak izan ziren Eusko Jaurlaritzari aurrekontuekiko diru-laguntzarik handienak eskatu zizkietenak: batez beste, aurrekontuaren hamar eurotik sei euroko laguntza eskatu zuten. Esleitutako kantitateei begiratuta, berriz, portzentajetan neurtuta, denek jaso zuten diru gutxiago 2011n 2006an baino.

Erreferentzia-orrialdeen arloan, bost hedabidek jaso zituzten laguntzak 2009 eta 2010ean, horietatik bakarrak, *Noticias de Gipuzkoa*, urte bietan. Horren kasuan, aurrekontuak gora egin zuen, ia bikoizteraino; autofinantzaketa-maila berdintsuari eutsi zion, maiztasunean ez zen aldaketarik izan, eta orrialde-kopuruak eta botaldiek behera egin zuten. Azkenik, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak diru gehiago eskatu zuen 2010ean, baina Jaurlaritzaren diru-laguntza bidez lortutako estaldura-mailak eta esleitutakoaren portzentajeak behera egin zuten bigarren urtean.

Ondoko tauletan dago bilduta euskara hutsezko gehigarrientzat eta erreferentzia-orrialdeentzat aurreko lerroetan azaldutakoa.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

176. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrien bilakaera, laguntzei esker lortutako estaldura-mailaren bilakaera eta jasotako diru-kantitatearen bilakaera, 2006-2011.

	Aurrekontua	Finantzaketa-maila propioa	Maiztasuna	Orri-kopurua	Botaldia	Estaldura-maila (%)	Esleitutako laguntza (%)
Araba gaztea	↑	=	=	=	↓	↓	↓
Izan gazte	↑	↑	=	=	↓	↓	↓
Ortzadar	↑	↑	↓	↓	↓	↓	↓

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

177. taula. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako erreferentzia-orrialdeen bilakaera, laguntzei esker lortutako estaldura-mailaren bilakaera eta jasotako diru-kantitatearen bilakaera, 2009-2010.

	Aurrekontua	Finantzaketa-maila propioa	Maiztasuna	Orri-kopurua	Botaldia	Estaldura-maila (%)	Esleitutako laguntza (%)
Noticias de Gipuzkoa	↑	=	=	↑	↓	↓	↓

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Taula horiek zarratzen dute 2005-2013 epealdian Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuten euskara hutsezko hedabide inprimatuek izandako bilakaera azaltzeko jorratu den atala. Hurrengo urratsa ikergaiaren hirugarren helburu orokorrari lotzen zaio; hots, diru-laguntzen esleipen-prozesuan protagonista izan diren bi aktoreen arteko harremanari.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

5.3. INFORMAZIO-ITURRI EZ ZUZENEN ANALISIA III: EUSKO JAURLARITZAREN ETA EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEN ARTEKO HARREMANA

Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntza deialdien nondik norakoak kudeatu dituen Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta diru publikoaren onuradun izan den euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak denboran zehar izan duten harremana ezagutu eta landuko da atal honetan. Zeregina burutzeko, lanaren atal metodologikoan azalduta geratu den moduan, nagusiki hemerrotekak eskainitako informazioa bildu eta erabili da. Aurreko ataletan egin bezala, analisisa laurogeiko hamarkadan abiatuko da, baina arreta berezia eskainiko zaio ikerketak fokua jarrita dion 2005-2013 epealdiari.

5.3.1. AUTONOMIA ESTATUTUAREN ONARPENETIK 1983RA. ABIATZEN

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren onarpenak⁶¹² atek ireki zituen komunikazio-politika propio bati ekiteko eta beharrezkotzat eta egokitzat hartzen ziren hedabideak eta edukiak sortu, diseinatu, ekoiztu eta zabaltzeko. “Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak” (Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua, 19.3 artikulua).

Laster ekin zion Jaurlaritzak zereginari, Ramón Labaien sailburuaren eskutik.

“Gure lehentasun nagusietako bat euskara babestea eta bultzatzea zen, zeren eta, printzipio bezala, argi baikeneukan euskararik gabe ez zegoela Euskal Herririk. Argi geneukan halaber, ez bazen euskarazko komunikabiderik sortzen euskarak ez ziola bereari eutsiko” (Azurmendi, 2004: 12).

Hortaz, helburua izango da euskal komunitateak bere nortasunaren garapenerako eta nortasun horrek bereizgarri dituen elementuei eusteko bermeekin funtzionatuko zuten hedabideak martxan jartzea. Eta apustua, hasieratik, ikus-

⁶¹².- Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

entzunezkoen aldekoa izan zen⁶¹³, horren froga 1980an osatu zen Gobernu-taldeko Ramón Labaien hitzak:

“Esan genezake telebista sortu zela Eusko Jaurlaritza eratu eta Kultura Sailari esan zitzaionean lehentasuna komunikabideak zirela. Guk orduan esan genuen ez genekiela euskara aurrera aterako zen telebista eta irratiarekin, baina argi zegoela ez zuela aurrera egingo telebistarik gabe”(Berria, 2012-10-14: 28).

Hala ere, orduko Jaurlaritzak ez du euskara hutsean idatzizko hedabideak sortzea erabat baztertuko. Horren adibiderik argiena Labaienek berak 1981ean egin zioten elkarrizketa batean iragartzen zuen egitasmoa:

“Orain DEMA aterako dugu. Kirol aldizkaria da, gazteentzat. DEMA Euskal Herriko aldizkaririk handiena izango da. Gratis emango da eskoletan 10-16 urtetako gazteentzat. Gainera bi tirada egingo dugu. Bata bilinguea 200.000 alekoa, bestea euskara hutsean eta 40.000 alerekin. Aurten errebista bat sortu nahi dugu: euskaraz, frantsesez, ingelesez eta erdaraz munduko euskaldun guztiontzat. Argentinan bakarrik, 3.000.000 euskaldunak edo euskaldunsemeak⁶¹⁴ dira. Beraiekiko hartuemanak intentsifikatu behar ditugu. Rosarion mutilak euskaraz ikusi genituen eta dantzariak kriston trajeaz. Guk hemen ez dakigu hau. En fin euskaldunon hizkuntza eta problematika normalizatu behar da” (Anaitasuna, 1981eko azaroa: 11-12).

DEMA 1981eko azaroaren 24an sortu zen 260.000 aleko botaldiarekin; horietatik 20.000 euskaraz. Pare bat zenbaki kaleratu ondoren desagertu egin zen.

Bitartean, urte hartan bertan Eusko Jaurlaritzak lau milioi eta erdi pezeta (27.045 euro) banatu zituen euskara hutsezko hamabost aldizkariren artean⁶¹⁵. Labaien sailburuak honela azaltzen zuen horren zergatia eta banaketarako erabilitako irizpidea: “Guk aleak eta papera kondatzen⁶¹⁶ ditugu subentzioa ematerakoan. Guttienez iaz

⁶¹³ .- Ikus-entzunezkoen aldeko apustua egin zuen ez soilik Eusko Jaurlaritzak, baita euskara sustatzearen alde lan egiten zuten hainbat taldek ere. Esaterako, 1982an *Euskal Herrian Euskarazek* (EHE) *Gabonetarako irratia/telebista euskaraz* izeneko kanpaina antolatu zuen.

⁶¹⁴ .- Pasarte hau hartu den *Anaitasuna* aldizkarian horrela dago idatzita.

⁶¹⁵ .- Kultura Sailaren dirua jaso zuten 1981ean ondoko aldizkariak: *Anaitasuna*, *Argia*, *Elhuyar*, *Euskera*, *Goiz-Argi*, *Ikastola*, *Ipurbeltz*, *Jakin*, *Karmel*, *Kili-Kili*, *Oh Euzkadi*, *Olerti*, *Saski-Naski*, *Susa* eta *Zer*.

⁶¹⁶ .- Horrela ageri da idatzita *Anaitasuna* aldizkarian.

beste pagatuko dugu, inongo diskriminaziorik gabe, euskararen alde lan egiten duzue eta” (Anaitasuna, 1981eko azaroa: 11).

Laguntzak laguntza, euskara hutsezko garaiko aldizkariak ahaleginak eta bi egin beharrean zeuden irauteko. *Argia* astekariaren kasuan, esaterako, desagertu egin zen 1981eko irailetik 1982ko urtarrilaren amaiera arte, eta berriro kaleratu zutenean, datu zehatzekin azaldu zuten egoeraren larritasuna.

“4.000.000 (lau milloi⁶¹⁷) ptaz gaineko zorra. Irailetik irten gabe. 18.000.000 (hemezortzi milioi)tako presupuestoa. Eusko Jaurlaritzak 1.045.000pta, Gipuzkoako Aldundiak 2.000.000, hau da, hileru 163.000 pta, baldintza gogorrekin. Azpiegitura porru eginda. Orain arteko kultur dinamika guztia azpikoz gain” (Argia, 1982 urtarrila 24-31: 17).

Itzuleraren berri ematen zuen erreportajeon, zorra faktore askoren ondorioz sortutakoa zela azaltzen zien aldizkariak irakurleei, besteak beste astekari eta egunkari berrien agerpenak, erdarazkoak, izandako eragina.

“Hori askotan esan eta aztertu dugu, baina⁶¹⁸ jendeari gogorazi behar zaio. Nolabait adierazteko: lehen “abertzale kuota” ARGIAren bidez ordaintzen zen bezala, gero beste astekarietara pasatu zen, eta gero batez ere EGIN eta DEIAra ... Eta hor guk noski ezin dugu konpetitu. Horiek bi hankak osorik dituzten bitartean gu hanka motzak garelako” (Argia, 1982 urtarrila 24-31: 18).

Egoerari aurre egiteko, etxe barrura begira aldizkaria hobetu eta harpidetza berriak lortzeko beharra aldarrikatzen zuten eta, horrez gain, administrazio publikoari diruz laguntzeko eskatzen zioten,

“Eta azkenik subentzioak: aginte publikoak euskarazko prentsari euskarazko ekintza guztiei bezala, lagundu egin behar die. Erdarazkoen ondoan inferioridadean gaudenez, alde hori berdintzeko. Orain arte behintzat agertu ez den politika bat behar dugu” (Argia, 1982 urtarrila 24-31: 19).

⁶¹⁷ .- Horrela idatzita jatorrizkoan.

⁶¹⁸ .- Horrela idatzita jatorrizkoan.

Hitz horiek argitaratu ziren garaitsu berean *Jakin* aldizkaria 25. urteurrena ospatzen ari zen⁶¹⁹. Urtarrila-martxoa bitarteko alea *Komunikabideak Euskal Herrian* izenburupean argitaratu zuten eta bertan euskara eta prentsa ardatz nagusi gisa hartu zituen mahai-inguru batean esandakoak bildu zituzten⁶²⁰. Saioan Luis Alberto Aranberri, *Amatiño*, orduko Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Euskara Arazoetarako zuzendariak hedabideen eremuan erakunde publikoek duten zeregina aldarrikatu zuen:

“Euskararen presentzia komunikabideetan salbatuko bada, irtenbide bakarra erakunde publikoetan dago. Gobernuek edota Gobernuek sortaraz ditzaketan erakundeek baizik beste inork ez du gakoaren giltza. Euskarazko prentsa idatziaren irtenbide bakarra, beraz, prentsa publikoan dago” (Jakin, 1982 urtarrila-martxoa: 80)

Baieztapenak handik urte batzuetara euskarazko egunkariaren sorreran gertatuko direnak ulertzen eta denbora-lerroan kokatzen laguntzen du. Horrez gain, erakundeek eskainitako diru-laguntzez ere aritu ziren, denek uste zuten euskal prentsaren une hartako egoera larria ez zela bakarrik diruz konponduko, baina hala ere, beharrezkotzat jotzen zituzten diru-laguntzak. Hori bai, zenbaitek, *Amatiñok* esaterako, argi utzi zuen administrazioak ezin zituela laguntzak eman beste barik.

“Neri grabea hau iruditzen zait: nik lau milioi galtzen duen enpresa⁶²¹ bat baldin badut, ez Administrazioak eta ez beste inork emango dit dirurik ezeren truke. Euskara erabiltzen dela eta, zergatik bai?” (Jakin, 1982 urtarrila-martxoa: 116-117).

⁶¹⁹ .- 1982ko lehen hiruhilekoko zenbakian honela zioen: “JAKINen zilarrezko eztaiak ospatzen ari gara, 1981eko udazkenean hasita. Lehen zenbakia kaleratu genuen urte sasoi berean, udazkenean, 25 urte geroago, zenbaki extra bat eskaini genizun: JAKIN 25 urte euskal kulturaren. Orain, gutxi barru, harpidedunak ugaltzeko kanpaina bat egingo dugu JAKIN 25 urte euskal kulturaren. Zergatik ez beste 25 gutxienez lemapean” (Jakin, 1982 urtarrila-martxoa: 3).

⁶²⁰ .- Mahai inguruan parte hartu zuten Jesus Mari Zalakain, orduan *Herria 2000* aldizkariaren zuzendaria; Luis Alberto Aranberri, “Amatiño”, sasoi hartan Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Euskara Arazoetarako zuzendaria; Jose Felix Azurmendi, orduan *Egin* egunkariko zuzendaria; eta Jose Mari Otermin, orduan Donostiako Herri Irratiko *Sei ordu euskaraz* programaren zuzendaria. Moderatzaile zereginetan Jose Azurmendi eta Joan Mari Torrealdai aritu ziren. Mahai-inguruaz gain, solaskide bakoitzari Euskal Herriko komunikabideen egoera eta etorkizunari buruzko idatzizko txosten bat ere eskatu zieten. Txostenak aipagai dugun *Jakin* aldizkarian argitaratu ziren.

⁶²¹ .- *Argia* aldizkariak ari da.

Handik beste bi urte igaroko dira Eusko Jauraritzak aldizkarietzako dirulaguntzak agindu bidez arautzeko. 1982an lehentasuna, beste ezeren gainetik, udaberrirako iragarrita zegoen euskal telebista zeukan⁶²². Nabarmentzekoa da, urte hartan, sei hilabeteko tartearekin onartu zirela Euskal Irrati Telebista sortzeko legea⁶²³ eta Euskararen Erabilera Normalizatzea. Eta sasoi berean, horiek gauzatzen ziren bitartean, euskal egunkariaren (bat ala gehiagoren) inguruko hausnarketa eta iritziak loratuz joan ziren han eta hemen. 1983an gaia lehen mailan izan zen⁶²⁴; baina hasierako beroaldiaren ondoren, 1985ean barealdia etorri zitzaion euskarazko egunkariaren egitasmoari, “euskarazko egunkariaren lau predikari zoroak isildu garenean bertan behera geratu dira proiektu guztiak” idatzi zuen garai hartan Mikel Atxaga kazetariak (Argia urtekaria, 1985: 130). Haren ordean, albisteetarako euskal agentzia lehenestearen aldeko ahotsak nagusitu ziren. Horien artean zeuden Luis Mari Bandres, garai hartako Kultura Sailburua eta Martin Ugalde⁶²⁵. Honelaxe zioen Ugaldek *Argia* aldizkariaren urtekarian: “Euskal egunkaria? Noski. Baina Euskal Agentzia behar dugu lehenbizi. Eta legeaz erabakia, onartua eta dagoeneko presupostuetan sartu dena, gainera”(Martin Ugalde, Argia urtekaria 1985: 129). Izan ere, Legebiltzarrak 20 milioi pezeta (120.202 euro) erreserbatu zituen 1985eko aurrekontuetatik agentziarako, baina egitasmoa ezerezean geratu zen⁶²⁶.

⁶²² .- Lehentasuna telebista izan arren, ez da ahaztu behar Euskadi Irratiak aurrea hartu ziola. Izan ere, 1982ko azaroaren 21ean aieratu zen. ETBren lehen emisioa 1982ko gabon zaharrean egin zen. EAE bertako telebista ez da izango beste autonomietan bezala Estatuko hirugarren kanala, baizik eta kanal propioa. Hasieran, arrazoi teknikoengatik seinalea ez zen Euskal Herri osora heldu. Donostian, adibidez, %30ek hartu zezaketen ETB. Iurretako egoitzatik bidaltzen zen seinalea 1983ko udan heldu zen EAE osora. Nafarroan, berriz, 1985ean hasi zen hedatzen.

⁶²³ .- Carlos Garaikoetxea lehendakariak sinatu zuen Euskal-Irrati Telebista Herri-Erakundea sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legea, eta uztailen 157/1982 dekretuak Euskal Telebista sozietatea eratu zuen.

⁶²⁴ .- Urte hartan, *Egin* egunkaria kaleratzen zuen enpresak (Orain) euskara hutsezko egunkari baten proiektua aurkeztu zuen Gipuzkoako Foru Aldundian eta Eusko Jauraritzan, baina egitasmoa ezerezean geratu zen.

⁶²⁵ .- Martin Ugalde Jauraritzako Euskara Zerbitzuaren arduradun moduan aritu zen Pedro Miguel Etxenike Kultura sailburu izan zenean. Luis Mari Bandres sailburu izendatu aurretik utzi zuen Ugaldek Eusko Jauraritzan.

⁶²⁶ .- Eusko Jauraritzak bi urtera, 1987an, akordioa egin zuen Vasco Press agentziarekin, albisteak euskaraz eskainiko zituen lau itzultzailez osaturiko taldea sortuz. Akordioak eta itzulpen-zerbitzuak 1992. urtera arte iraun zuen.

5.3.2. LEHEN DIRU-LAGUNTZA AGINDUTIK (1984) *EUSKALDUNON EGUNKARIA* KALERATU ARTE. DIRU-LAGUNTZAK ARAUTU ETA HARREMANA MIKAZTU

Eusko Jaurlaritzak, aurretik adierazi bezala, 1984an ekin zion euskarazko aldizkarietarako diru-laguntzak agindu bidez arautzeari⁶²⁷. Honelaxe zioen lehen deialdiak:

“Eusko Legebiltzarrak, 1982.eko Azaroaren 24an onartu zen Euskararen Normalizazio-Legeak, komunikabideak euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen duenez eta, euskal aldizkarien eta irakurlegoaren ezaugarriak kontutan harturik, aurtengo deialdi honen laguntzen oinarria aldizkarien zabalkundea handitzea da”(EHAA, 1984-08-11: 137zk.).

Urte hartan ia hogeit hamar milioi pezeta (120.202 euro) banatu ziren hamazazpi aldizkariaren artean⁶²⁸, eta 1985ean beste horrenbeste jaso zuten hogeita bat aldizkarik.

1986 urteak EAEko bizilagunak ustekabearen harrapatu⁶²⁹ eta hainbat kritika eragin zituen ETB2 gaztelania hutsezko kate berriaren sorrera⁶³⁰ ekarri zuen. Horrekin batera, aipatzeko moduko ekimenak eta berrikuntzak gertatu ziren euskarazko kazetagitzaileen esparruan:

1.- Batetik, udaberrian, martxoaren 23an, igandez, saio bat egin zen *Deia Euskaraz* izenpean. Edukiei erreparatuta, argitalpen hura ez zen egun batetik bestera prestatutako egunkaria; kaleratu ahal izateko, beste hedabide batzuetako kazetariaren

⁶²⁷ .- EHAA, 1984ko abuztuak 11; 137 zenbakia. Agindua Joseba Arregik sinaturik dago, bera izan zen Kultura sailburu 1984ko apiriletik 1985eko urtarrilera; gero Luis Mari Bandresek hartu zion lekukoa.

⁶²⁸ .- Diruaren erdia *Argia* eta *Ipurbeltz* aldizkariak jaso zuten (5.641.750 eta 4.941.960 milioi pezeta hurrenez hurren, eurotan 33.907,6 eta 29.701,8 euro). Beste horrenbeste gertatuko da 1985ean (6.024.791 eta 5.779.458 milioi pezeta, hau da, 36.209,7 eta 34.735,2 euro, hurrenez hurren).

⁶²⁹ .- Jose María Gorordo EITBko zuzendari nagusiak bezperan eman zien ETB2ren sorreraren berri Administrazio Kontseiluko kideei. Legebiltzarrean oposizioa osatzen zuten PSE-EE eta Coalición Popular alderdiek legez kanpokotzat jo zuten hasitako emisioa.

⁶³⁰ .- Ettore Gianninni zuzendariaren *Carrusel napolitano* (1954) pelikularekin ekin zion emisioei ETB2k 1986ko maiatzaren 31n. *Deia* egunkariak honelaxe zioen hurrengo egunean: “Una película de colorido tan vivo como el estruendo que ha provocado la decisión del Gobierno Vasco”. *Egin* egunkariak, berriz, portadako albiste nagusi bilakatu zuen gertatutakoa, “De la sorpresa a la polémica por el segundo canal de ETB” zioen titularrarekin, eta *El Correo* egunkariak Espainiako Gobernu ordezkariak kaleratutako oharrean jarri zuen azentua; horren arabera “(...) la puesta en marcha del segundo canal de ETB es absolutamente ilegal”(*El Correo*, 1986-06-01: lehen orria).

laguntza izan zuen⁶³¹. Kultura eta Turismo Sailaren inkesta ere bazuen harrerari buruzko informazioa jasotzeko⁶³². *Deia* egunkariak emandako zenbakien arabera 35.000 ale kaleratu ziren. Egun batzuk geroago, Xabier Mendigurenek, ondokoa idatzi zuen bere ohiko zutabearen, *Egunerokoa* izenburupean:

“Izenburu honen beronen azpian idatzi zuen Lizardi, gure olerkari gailenak, 1929ko uztailaren 13an, euskara hutsean egunkari bat argitaratzearen inguruan bere hirugarren artikulua. “Itz lauz” liburusk⁶³³ datoz gai honetaz idatzi eta garaiko kezka biltzen dituzten hiru idazlanak, irakurri nahi dituenarentzat. Honela amaitzen du artikulua: “Berriro diotsuet, IRU MILLA arpidedun sortzen bada, sortuko dala egunkaria ere” (...) 23ko DEIA euskalduna horixe izan da: etsipenaren poderioz irudimenaren zokoan lizundurik daukagun utopiari astinaldi bat eman, eta ezinkizuna eginkizun dela aitortzeko aukera” (*Deia* euskaraz, 1986-3-27: 31).

2.- Udan, 1986ko uztailaren 24an Eusko Jauriaritzak “Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko Oinarrizko Legearen 25. Atalaren arabera euskararen zabalkundeari eta benetan erabili ahal izateari indar emateko asmoz eta gaurko euskal gizartearen euskarazko egunkariaren beharrez kontuan hartuz⁶³⁴, diru-laguntza deialdia kaleratu zuen astebururo euskarazko egunkari bat argitaratu nahi zuten enpresei zuzenduta. Interesatuak hiru asteko epea izan zuten egitasmoak aurkezteko. Horretarako ondoko baldintzak bete behar zituzten:

“2. Atala.- Diru-laguntzetara bildu nahi duen enpresa orok, behar duen azpiegitura izateaz gain, egitasmo honetarako 6(sei) euskal erredaktore izan beharko ditu gutxienez.

⁶³¹ .- Honela aurkezten zen martxoaren 23ko alea osatzeko zereginetan ibilitako lan-taldea: “DEIA lan egin zutenak eta gaurregun dihardutenak bildu dira euskarazko hau egiteko. Asko, telebistan eta irratan baldin badabil ere, etxe honetan kazetaritzan jardunak dira: Nikolas Aldai, Estepan Aldamiz-Etxebarria, Jose Mari Aranalde, Luis Alberto Aranberri “Amatiño”, Antton Aranburu, Xipri Arbelbide, José Luis Arriaga, Mikel Atxaga, Nerea Azurmendi, Miren Jone Azurza, José Ramón Beloki, Luis Mari Bengoa, Jean Baptiste Dirassar, Aingeru Epalza, Manu Etxebarria, Jesús Mari Etxezarraga, Pedro Mari Goikoetxea, Kepa Intxaurbe, Fermín Iraolagoitia, José Mari Iriondo, Arantxa Iturbe, Felipe Lizaso, Itziar Mena, Xabier Mendiguren, Juan Mari Mendizabal, Koldo Narbaiza, Roberto Oñederra, Agurtzane Ortiz de Landaluze, Mikel Ugalde, Iñigo Urrutia, Karmelo Vivanco, Juan Antonio Zubikarai”.

⁶³² .- Inkestak galdetzen zuen: “egunkari hau egunero argitaratuko balitz, erosiko al nuke?”. Ikerketa honen egileak ez du inon emandako erantzunen berri aurkitu.

⁶³³ .- Horrela idatzita jatorrizkoan.

⁶³⁴ .- EHAA, 1986ko uztailak 14, 148 zenbakia. Luis M. Bandres Unanue, orduko Kultura eta Turismo sailburuak sinatu zuen agindua.

3. Atala.- Sei erredaktoreok plantilla barruan izan beharko dute, Informazio Zientzietan lizentziatuak edo egunkarigintzan bost urtetako esperientziadunak izanik.
- 4.- Atala.- Egunkari honek edozein egunkarik dituen atal guztiak izan beharko ditu.
- 5.- Atala.- Goizez argitaratua eta beste egunkariak banatzen diren ordu berberetan banatu beharko da.
- 6.- Atala.- Gutxienez 32 orrialde, tabloide formatokoak, izango ditu eta %75 aktualidade informazioaz osatua egongo da.
- 7.- Atala.- Banaketa Euskalerriko lurralde guztietan egin beharko da, diru-laguntzak eskatzerakoan banatuko den herrien izen zerrenda jarritz.
- 8.- Atala.- Proiektuak abuztuaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko dira Kultura Saileko Euskara-Arazoetarako Zuzendaritzan, honek onespena eman ahal diezaien.
- 9.- Atala.- Proiektua onartutakoan eta iraileko lehen astetik abenduaren azkenerarte astero gutxienez 10.000 ale argitaratzeagatik diru-jasotzaileak 6.500.000 pezetako laguntza eskuratuko du abenduaren 31a baino lehenago, ordainketak zatikakoak izan daitezkeelarik” (EHAA, 1986-07-14: 148 zk.).

Hiru hautagai aurkeztu ziren deialdira: *Egin* egunkaria kaleratzen zuen Orain S.A enpresak aurkeztutako *Hemen* izenekoa, *Deia* egunkaria kaleratzen zuen Iparragirre S.A. enpresak aurkeztutako *Eguna* izenekoa, eta *Argia* aldizkariarena. Eusko Jaurlaritzak lehenengo bien alde egin zuen, eta hirugarrena, *Argiarena* baztertu “proiektuek egunkari baten estrukturan integratuta egon behar dutelako”(Argia urtekaria 1986: 115). Hau da, *Argiak* aurkeztutako egitasmoa astekarigintzari lotua zegoela argudiatu zuten, ez egunkarigintzatik sortua, deialdiak aipatzen zuen bezala.

Erabaki hura gogor kritikatu zuen *Argiak* :

“Udazken honetan, beraz, gureaz gain beste bi astekarirekin aurkitu gara. Bat batean eta neurri berdinetan sartzea ukatu digutelarik, ARGIAkook urte luzeetan bakar izatera kondenaturik bageunden, bi konpetidorerekin aurkitu gara. Norgehiagoka denon onerako datekeen neurrian eskertu beharra dago, eta batik bat euskarazko prentsari haize berriak ekar diezazkioketen neurrian.

Baina norgehiagoka bat guztiak baldintza berdinetan jokatzen den heinean da zilegi eta onargarri. Honetan gauzak ez dira garbiak: ARGIAk urterik oparoenean jaso dituen subentzio guztien ia bi halako kopurua jasoko dituzte “asteroko egunkari” kategoriaz datozen bi astekari berriek. Hori ez da justiziazkoa, hasteko. ARGIAk sekula ez du proposatu beste inori subentzioak kendu edo gutxitu diezaioten, euskal kulturak horiek eta gehiago ere beharrezko dituelako, baina aldi berean ezin dugu ametitu dirulaguntza bide berri eta aberatsagoetatik kanpo arbitrarioki uzten gaituzten bitartean ARGIAri aurten subentzioa diferentzia nabarmen batean jaistera⁶³⁵.

(...)

Denok dugu eskubidea euskal prentsa egiteko, dudarik gabe, eta areago, euskaltzale guztiok dugu eginahalik handienak egiteko beharra. Horrek gure arteko konpetentzia dakarren neurrian ontzat eman dugu beti, eta baita emango ere. Onartu ezin duguna da gure aurrean sortzen diren inizatibek baino baldintza txarragoetan eta laguntzaren erdiarekin funtzionatzea eskatzen digun lehiaketa. Hori da, hain zuzen, neurria: ARGIA, bere azpiegitura osoa mantentzeko bere gain bakarrik dagoena, “Eguna” eta “Hemen”en subentzioaren erdiarekin lan egitera behartuta dago” (*Argia*, 1986-11-16: 66).

Argia aldizkaria ezezik⁶³⁶, gainontzeko idatzizko hedabideak ere ez zeuden konforme Jaurlaritzako Kultura Sailak diru-laguntzak emateko orduan erabilitako irizpideekin. Horren lekuko 1987ko maiatzean bidali zuten agiria. Bost puntu dituen dokumentuan sinatzaileek⁶³⁷ salaketa, eskaera eta aldarrikapena biltzen zituzten. Salaketari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezkoak lehenesten zituela baieztatzen zuten “idatzizkoak oso bigarren maila batean utziz”; horrekin batera, instituzio politikoek idatzizko komunikabideei buruzko politika falta zegoela zioten, “ez

⁶³⁵ .- 1986ra arte *Argia* aldizkariak Jaurlaritzatik eta Gipuzkoako Diputaziotik jasotzen zuen laguntza (1985ean, esaterako, 13 milioi pezeta, 78.131,6 euro, erakunde biak emandakoa batuta), baina 1986an, Foru Aldundiak ezin izango die aldizkariari laguntza ekonomikorik esleitu, Lurralde Historikoen Legeak emandako konpetentzia esklusiboak direla medio. Hortaz, 1986tik aurrera Eusko Jaurlaritzak esleituko ditu laguntzak. 1986ko ebazpenean 8.804.937 pezeta (52.918,7 euro) esleitu zitzaizkion *Argiari*, 1987koan 7.792.456 pezeta (46.833,6 euro) bi ataletan banatuta: 6.770.456 pezeta (40.691,3 euro) laguntza arrunta gisa eta beste 1.022.000 pezeta (6.142,3 euro) *Azala lau koloretan* izeneko proiektuari. 1987an *Hemen* eta *Eguna*, astean behin kaleratzen ziren egunkariak, 23 milioi pezeta (138.232,8 euro) eta 26 milioi pezeta (156.263,1 euro) jaso zuten hurrenez hurren.

⁶³⁶ .- *Argia* aldizkariak beste bi editorialetan kaleratu zuen gaiari buruzko iritzia, lehena 1987ko azaroaren 29an zenbakian kaleratu zuen (1.175 zenbakia) *Diskriminazioaren gainetik ARGIA aurrera* izenburupean, eta bigarrena urte bereko abenduaren 6an (1.176. zenbakia) *Jaurlaritza ARGIA itzali asmoz ari ote?* izenburuarekin.

⁶³⁷ .- Agiria ondoko hedabide inprimatuek sinatu zuten 1987ko maiatzaren 7an: *Aizu*, *Argia*, *Elhuyar*, *Idatz&Mintz*, *Ipurbeltz*, *Jakin*, *Karmel*, *Larrun* (ez zuen diru-laguntzarik jaso 1987an), *Literatur Gazeta* eta *Susa*. Urte hartan diru-laguntza jaso zuten hiru aldizkarik ez zuten agiria sinatu: *Kili-Kili*, *Saski-Naski* eta *Senez*.

da politikarik ikusi orain artekoan; ekinbide bakarra subentzioetara mugatu da” eta horien zenbatekoa eskasa dela gaineratu zuten. Aurrekoak ezarriko du eskaeraren nondik norakoa: “legozkiokeen instituzio politikoek (Eusko Jaurlaritzak kasu) idatziko komunikabideak aintzakotzat har ditzaten, beren lehentasun maila atxikiz. Honek irakurketa zehatza izango luke banatu beharreko diru-laguntzen kopuruan”. Bukatzeko, sinatzaileek laguntzen helburua zein izan beharko lukeen aldarrikatu zuten: “Diru-laguntzen helburua, aldizkarien normalizazioa erakartzea litzateke, hots, erderazko⁶³⁸ aldizkarien parean modu normal batetan⁶³⁹ konpetitu ahal izateko baldintzak jartzea” (Argia, 1987-12-13: 3).

Urte berean, 1987an hain zuzen, EAJk *2000erako abertzaletasuna* izenburuko txostena⁶⁴⁰ landu zuen. Dokumentu hark garaiko egoeraren diagnostikoa egin eta 2000. urtera begirako oinarri politikoak eta programa jasotzen zituen, besteak beste hedabideen arlokoak. Edukiari erreparatuz gero, hedabideek hizkuntzaren normalizazioan duten eragina aitortzen zen⁶⁴¹, baina agerian utziz, EAJk ikus-entzunezkoei ematen ziela lehentasuna⁶⁴². Ondoko lerroak esandakoaren erakusgarri dira, eta aldi berean, hurrengo urteetan euskara hutsezko egunkariaren inguruan izango diren gorabeherak testuinguruan jartzeko baliagarri kontsideratu daitezke:

“Herri-irradi eta telebista onartzea eta herri-albistaritza gaitzestea historian zeharko arrazoiengatik ideologia hutsezkoengatik baino gehiago izan bada ere horren pareko errealitatea da mendebaldeko albistaritza pixu handiko arrazoiak behar liratekeela herri-albistaritza sortu beharra izateko. Dena dela, arrazoiatariko bat, indartsua gainera, hizkuntza-arazoa litzateke.

⁶³⁸ .- Horrela idatzita agirian.

⁶³⁹ .- Horrela idatzita agirian.

⁶⁴⁰ .- Dokumentua, Zestoan 1987ko uztailaren 3, 4 eta 5ean egin zen Batzar Nagusian aurkeztu zuten.

⁶⁴¹ .- “Euzko Alderdi Jeltzaleak badaki giza-komunikabideek edozein hizkuntzaren garapenean duten garrantzia, egunkariak, irratia eta telebista itzelezko eragina bait dute hizkuntza nazionalaren funtzio sinbolikoa eta soziala finkatzerakoan”(2000erako Abertzaletasuna 1987: 140).

⁶⁴² .- Euskal Telebistaren kate biak martxan zeuden dagoeneko, baita Euskadi Irratia ere. Dokumentuan, berritasun bezala, “Euzko Alderdi Jeltzaleak benetako irradi edo irradi-emankizun elebiduna martxan jartzea proposatzen du”, ondoko baldintzak bete beharko lituzkeena: “lortu beharreko helburuak aurretik zehaztea, eman beharreko edukiak aztertzea, langileak ondo aukeratzea, sistematikotasuna arlo guztietan eta emaitzen jarraipena. Azken baten, epe ertain eta luzerako frogalekua litzateke” (2000erako Abertzaletasuna, 1987: 145-146).

Euskerak gizartean izango duen indarketak egunkarietan agertu beharra ekarriko du azkenean. Dena den, Euzko Alderdi Jeltzalearen ustez bide horrek euskera telebistan eta irratan indartu beharra eskatzen du, azken baten ziur gaude eta, elektronikazko komunikabideotan lortutako arrakastak epe ertainean berez eramango gaituela irarkolabidezkoak eskatzera. Bitartean euskal egunkariak ahal bait arinen benetako beharrizana izatera hel daitezten ahaleginak egingo ditu Euzko Alderdi Jeltzaleak.

Bien bitartean Euzko Alderdi Jeltzalearen partaidetza duen Jaurlaritza honek euskal astekari biri kaleratzen lagunduko die⁶⁴³, produktuok irits dezaketen kalitatea zein onarpenaren aldetik betiko astekariaren eta etorkizuneko euskal egunkariaren arteko zubitzat joka bait dezakete” (2000erako Abertzaletasuna, 1987: 148-149).

Dokumentuan TVEren euskararekiko eta euskal kulturarekiko jokaerari buruzko aipamenik ere bada,

“Euskal kulturaren bideetan oinarrituriko ikuspunturik, onartezinezkoa da TVEren joera bere bi kateetan eta, batez ere, Euzkadirako ematen dituen saio berezietan, Telenavarra eta Telenorte. Euskeraren gizarte-egoeraren aurrean itsuarenak egitea ez dago inondik inora onartzerik.

Euzko Alderdi jeltzaleak behar diren bideetatik joko du politika-mailan TVEk euskararekiko duen joera alda dezan eta dagokion tokia eman diezaion. TVE bera ere euskeraren normalkuntzarako prozesura hurbiltzea besterik ez da eskatuko” (2000erako abertzaletasuna, 1987: 178).

Eta azkenik, euskarazko aldizkariari dagokienez, “zabalkunde eta eragin gutxikoak badira ere, euskeraren gordeleku direla aitortu behar zaizkie euskerazko aldizkariari, baita kultura eta arlo ezberdinetan euskeraren normalkuntzarako egiten ari diren lana ere” (2000erako Abertzaletasuna 1987: 180-181) adierazi ondoren, aldizkariok jorratu beharko luketen zereginari buruzko baieztapena dator: “euskaldunzaharren alfabetatzeari eta haur eta gazteei bideratutako aldizkariak bultzatu beharko lirateke batez ere” (2000erako Abertzaletasuna 1987: 181).

Testuinguru horretan, 1987ko maiatzean hamar aldizkarik sinatu zuten agiriak Eusko Jaurlaritzaren erantzuna izan zuen baliabide ekonomikoei begiratuta, 1988ko

⁶⁴³ .- *Hemen eta Eguna*.

deialdiak ia bi milioi pezetan (1.915.000=11.509,4 euro) igo zuelako diru-laguntzetarako partida⁶⁴⁴. Baina ez zen laguntzak banatzeko irizpideei edota helburuei buruzko alde biko hausnarketarik ezta elkarrizketarik izan.

Garai berean, Jaurlaritzaren eta euskarazko hedabide inprimatuen arteko harremanak mikaztuko zituen beste urrats bat egin zen; izan ere, sektoretik eskatutako azterketa⁶⁴⁵ baztertu eta etorkizuneko egunkariari buruzko ikerketa enkargatu zion Jaurlaritzak⁶⁴⁶ CIES enpresari. Lana egin ondoren ez zituen emaitzak argitara eman, baina *Argiak* eskuratu eta publikatu egin zituen *Eusko Jaurlaritzak gordetakoak agerian* izenburu⁶⁴⁷ adierazgarriarekin. Horren arabera, euskarazko egunkari batek 88.000 irakurle potentzial izango lituzke, eta erosleen kopurua berriz, 21.000 eta 26.000 artean kokatuko litzateke. Irakurleen profilarik dagokionez, adinez gazteak, ideologiaz ezkertiarrik, eta lurraldeari erreparatuz, nagusiki gipuzkoarrak. CIESen ikerketak hiru eszenatoki desberdin landu zituen: merkatuan euskarazko egunkari bakarra zuena (ideologiaz ezker aldekoa, zentrokoa zein zentro-eskuinekoa), bi zituena (zentro-errekeroa bat eta zentro-eskuinekoa bestea) eta azkenik, kalean hiru egunkari jartzen zituena (bakoitza ideologia batekoa). Lanaren emaitzen arabera, bideragarritasun ekonomiko txikiena duen eszenatokia hirugarrena zen (aldi berean kalean hiru egunkari aurreikusten zituena), eta beste muturrean legoke, alegia bideragarritasun ekonomiko handiena izango luke, ezker aldeko ideologia zuen egunkari bakar bateko eszenatokiak⁶⁴⁸.

⁶⁴⁴ .- 1988an esleitutako dirua 12 aldizkariren artean banatu zen, aurreko urteko kopuru berbera.

⁶⁴⁵ .- *Argia*, 1.262.zenbakian: "Gogoratu 87an euskarazko aldizkari guztiak bilduta azterketa bana ordaintzea eskatu ziotela Jaurlaritzari bakoitzak aurrera normaltasunez egiteko eta merkatuan erdarazko aldizkariekin konpetitu ahal izateko beharko lituzkeen subentzioak aztertzeke".

⁶⁴⁶ .- Enkargua Euskadiko Ezkerrak Legebiltzarrean aurkeztutako ekimen bati erantzunez gauzatu zen eta Kultura Sailak 12 milioi pezetako (72.121,4 euro) diru-partida jarri zuen azterketa burutzeko. CIES enpresak 1989ko otsailean bukatu zuen lana.

⁶⁴⁷ .- 1989ko urriaren 8ko alean argitaratua. (1.262 zenbakia). Hurrengo astekoan, 1.263. zenbakian ere gaiak jarraipena izan zuen.

⁶⁴⁸ .- Lanak zioen lehen eszenatokian (egunkari bakarra) zentro-eskuin aldeko egunkari bakar bat ere bideragarria litzatekeela baldin eta irakurle goa bereganatzea lortzen bazuen, eta zentro-errekero aldeko egunkari bakarra oso bideragarria litzatekeela. Baina hiru aukeren artean, perspektibarik onena ezker aldeko egunkari bakarrari esleitu zion. Bigarren eszenatokiari dagokionez (bi egunkari batera kalean), zentro-errekero aldeko bideragarri izan daitekeela zioen lanak eta gauza bera iragartzen zuen zentro-eskuin aldekoarentzat baldin eta epe ertainera irakurleak bereganatzen bazituen.

Une horretatik aurrera areagotu⁶⁴⁹ egin ziren euskarazko egunkaria kalean jartzeko bi ekimen eta haien arteko tirabirak. Batetik, *Egunkaria Sortzen* taldeak bultzatutako proiektua⁶⁵⁰, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzak abiatuko zuena⁶⁵¹. Eta testuinguru horretan burutu ziren Euskal Kazetarien Jardunaldiak, Donostian 1990eko maiatzaren 28an eta 29an. Sarrera-hitzaldian, Mari Karmen Garmendia, orduan Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia zenak euskal hedabideek hizkuntzaren normalizazioan duten garrantzia azpimarratu zuen:

“Gure gizartea bere onera ekar dezakeen euskararen normalkuntzak euskal komunikabideak behar ditu. Hezkuntzaren apustuan irakaskuntza elebidunaren alde gizarteak erakutsi duen gogoak, pausu haundi bat emanarazi dio euskarari aldapa malkartsu honetan. Eskolak bakarrik, ordea, ez du euskara normalduko, gizarte osoaren euskararen aldeko jarrera eskatuko du. Euskarazko komunikabideen orain arteko lanak garrantzi handikoak izan dira, eta hemendik aurrera landu beharreko luberriak ez dira nolanhikoak izango. Hor, testuinguru horretan, kokatzen da euskarazko kazetariaren lana” (Euskal Kazetarien Jardunaldiak, 1991: 12).

Hitzaldia bukatzeko, Garmendiak une hartan egunkariaren sorreraren inguruan sortutako giroari buruzko gogoeta egin zuen:

“Kezkak baditugu baina itxaropentsu ikusi behar dugu geroa, batez ere ahalegin sakona egiteko gogoia sumatzen dudalako, hemen bildu zireten kazetariok kezka bera duzelako eta, egoeraren diagnosia egoki egin eta gero, konponbidea lantzen denok saiatu beharko genukeelako” (Euskal Kazetarien Jardunaldiak, 1991: 12).

Baina konponbidea ez zen gauzatuko. Laster geratu zen agerian bi proiektuok ez zutela elkartzeko, bakar batean biltzeko biderik egingo; hortaz bitasun-giroa, horrek

⁶⁴⁹ .- *Hemen* astegunkariak honela zioen kaleratu zuen azken alean: “Azken txanpa hau piztu zuen suziria CIESen azterketaren kaleratzea izan zen” (1990-09-28: 7).

⁶⁵⁰ .- *Egunkaria Sortzen* taldea osatzeko ideia 1989ko Euskal Prentsaren Egunean erne zen, eta hasieran hirurogei bat pertsonak osatu zuten taldea. Gerora gauzatuko den euskarazko egunkaria martxan jartzeko lehen bilera 1989ko azaroaren 1ean egin zen Donostiako Joxe Miel Barandiaran Lizeoan, bigarrenean (Durango, 1989-12-10) egunkariaren ezaugarriak onartu ziren eta hirugarrenean (Donostia, 1990-1-21) *Egunkaria Sortzen* sustapen-taldea formalki antolatu eta talde eragileko kideak hautatu zituzten.

⁶⁵¹ .- Eusko Jaurlaritzak 1990eko martxoan Jose Ramon Beloki izendatu zuen euskarazko egunkariari buruzko azterketa egiteko lan-taldearen arduradun. Belokiren aurkezpen publikoa Donostian egin zen hilabetera, apirilaren 4an.

dakarren guztiarekin, nagusitu zen. Batzuek zein besteek zekiten euskarazko egunkari bat ez zela bideragarria izango diru-laguntzarik gabe. Eusko Jaurlaritzak argi utzi zuen berak martxan jarritako proiektuaren alde egingo zuela, eta horrekin bat egin beharko luketela euskarazko egunkaria nahi zuten guztiek. Hori baino gehiago, ez zuela Egunkaria Sortzen taldearen proiektua babestuko eta lagunduko. Horren lekuko Joseba Arregi Kultura sailburuak 1990eko ekainaren 29an Legebiltzarrean adierazitakoa:⁶⁵²

“Eusko Jaurlaritzak espero du oporrak aurretik, hau da, abuztu aurretik, euskal egunkariaren proiektua esku artean izatea, berak martxan jarritako taldearen proiektua eskuan izatea, batez ere kazetaritzari dagokionez. Proiektu hori izango da aurrera jarraitzeko Eusko Jaurlaritzak gidari legebiltzar honetara biltzen diren alderdiekin elkar-lanean lehen esan bezala. Honetara biltzen joan beharko lukete euskal egunkaria nahi duten guztiek. Eusko Jaurlaritza ez dago prest bi euskal egunkari laguntzeko. Bateratzerik ematen ez bada, beraz, “Egunkaria sortzen” proiektuak ez du Jaurlaritzaren babes eta laguntzarik izango” (Eusko Legebiltzarreko bilkura-egunkaria, 1990-06-29, 65. alea: 50).

Adierazi eta bete. Eusko Jaurlaritzak uztailaren 27an aurkeztu zuen bere proiektua. Bi hilabetera, irailaren 27an, *Eguna* astegunkariak azken alea kaleratu zuen eta hurrengo egunean beste horrenbeste gertatu zen *Hemenekin*. Biek Jaurlaritzari leporatu zioten itxi beharraren ardura, *Egunak* lehen orrian jarritako hitz hauekin eman zuen agurraren berri:

⁶⁵² .- Joseba Arregi Kultura sailburuak Euskadiko Ezkerreko Xabier Gurrutxaga legebiltzarkideak eginiko bost galderei erantzun zien ekainaren 29an. Galderak ondokoak izan ziren: “bat, Euskal Herrian baten faltan bi euskal egunkari aurrera ateratzeko moduan gaudela uste al duzu? Bigarren, botere publikoen interbentzio eta zuzeneko partizipaziorik gabe euskal egunkaririk sortu eta aurrera ateratzerik badagoela uste al duzu? Hirugarrenez, ez al duzu uste gauzatzen ari diren bi proiektu bereizi horiek demokratiko, pluralista eta misto izaerakoa izango litzatekeen proiektu bakar batera biltzeko ahaleginak bideratu beharko lirakeela? Laugarren, izan al duzu ‘Egunkaria sortzen’ delako proiektuaren egile eta sustatzaileekin bi proiektuak batera elkartzeko elkarrizketarik? Eta azkenik, Sailburu jauna, ezezkoan, izango al du proiektu horrek Eusko Jaurlaritzaren babes eta laguntzarik?”. Esan beharra dago Euskadiko Ezkerrak bat egin zuela Arregi sailburuak emandako erantzunarekin. Hitz hauekin adierazi zuen Xabier Gurrutxagak: “Guk ere, talde bezala, talde parlamentari bezala, gu gauden erakundeetan esango dugu euskal ‘Egunkaria sortzen’ proiektu hori ez baldin badator, ez baldin badute erakusten borondaterik momentu honetan instituzioek eta botere publikoek aurrera atera nahi duten proiektu horretara hurbiltzeko, horretara bideratzeko asmorik ez baldin badute azaltzen, Euskadiko Ezkerrak ere ez duela babestuko dagoen instituzioetan ‘Egunkaria sortzen’ proiektua” (Eusko Legebiltzarreko bilkura-egunkaria, 1990-06-29, 65. alea, 51. orria).

“EGUNAREN azken alea da gaurko hau. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak sortarazi zuen eta bere laguntzarik ezak bukarazten du. Euskal egunkariaren ordua omen da. Datorrela, beraz. Jaioko dira berriak....” (Eguna, 1990-09-27: 1).

Eta hurrengo egunean *Hemenek* hitz gogorak zuzendu zizkion Jaurlaritzari:

“Eusko Jaurlaritzak zikoitz jokatu” izenburuko testuan: “Euskal prentsaren bidean, euskarazko egunkaria helburu, subentzioaren bidea zabaldu zuenak berak itxi du, esplikazio publikorik eman gabe, HEMEN eta Egunako irakurleei muzin eginez”(Hemen, 1990-09-28: 3).

Gauzak horrela, udazkenean, proiektu bakoitzak bereari eutsi eta kaleratzeko ahaleginak bizkortu zituen. Belokik argia ikusiko ez duen *Egunero* izenekoaren aurre-diseinua aurkeztu⁶⁵³ zuen abenduaren 3an, eta hiru egunera *Euskaldunon Egunkariak* lehen alea kaleratu zuen⁶⁵⁴. Honela zioen azalean:

“Ziur gaude beren publizitatea eskainiko diguten enpresei, euskarazko edozein mediok behar dituen dirulaguntzak eman behar dizkiguten erakunde publikoei eta funtsean gure bultzatzaile sutsuenak ditugun euskaltzaleen babesari esker, EGUNKARIAK etorkizun oparoa izango duela” (Euskaldunon egunkaria, 1990-12-06: 1)

5.3.3. XX. MENDEKO AZKEN HAMARKADA: 1991-1999. ESKATIMA-GIROA

Legebiltzarrean ekimenen bat edo beste aurkeztu zen arren⁶⁵⁵, *Euskaldunon Egunkariak* ez du Jaurlaritzaren diru-laguntzarik izango 1994ra arte. Sortu zenetik, egunkariko ordezkariak hainbat alditan salatu zuten egoera. Adibide gisa, Martin Ugalde Administrazio Kontseiluko lehendakariak 1992ko ekainean Usurbilen egindako jaiaren aurkezpeneko agerraldian adierazitakoa: “Gaur arte ez genuen beste gauza bat sentitu: zentsura. Uste genuen zentsura diktadurak sortzen zuela baina orain badakigu badela euskal demokrazian zentsura egiteko modu bat: zentsura ekonomikoa” (Euskaldunon Egunkaria, 1992-06-17: 9). Usurbileko jaialdi hartan, beste

⁶⁵³ .- Aurkezpen hura *Euskaldunon Egunkariaren* ordezkari baten (Iñaki Uria) eta Jaurlaritzako euskara zuzendariaren (Josu Legarreta) arteko eztabaida luze bilakatu zen.

⁶⁵⁴ .- Zuzendari zereginetan Pello Zubiria eta Administrazio Kontseiluko lehendakari moduan Martin Ugalde.

⁶⁵⁵ .- 1991n esaterako, EA eta EuE diru-laguntzak ematearen alde agertu ziren Legebiltzarrean, baina ekimena hutsean geratu zen EAJK eta sozialistek kontra egin zutelako (PP eta UA abstenitu egin ziren). Kontuan hartu 1991-1995 bitarteko legegintzaldian EAJ eta PSE-PSOE alderdien artean adostutako gobernua izan zela EAEn.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

askoren artean izan zen Patxi Baztarrika, aurrerago Hizkuntza Politikarako sailburuorde izango zena eta orduan Euskal Ezkerrako⁶⁵⁶ (EuE) ordezkaria. Baztarrikak ondokoa adierazi zuen:

“EGUNKARIA da daukagun bakarra eta pentsatzen dugu herri honetan bat baino gehiagorentzat lekurik ez dagoenez, zoritxarrez, badaukagun hau kontsolidatu egin behar dela. EGUNKARIAk irekia izan behar du. Irekia izateko beharrezkoa da guztiek parte hartu ahal izatea. Eta nik uste bide hau urratzeko gaurko egun hau egokia dela” (Euskaldunon Egunkaria, 1992-6-23: 9).

Eusko Jaurlaritzak ez, baina 1992an Gipuzkoako Batzar Nagusietan EA, EuE eta HBk bat egin eta 50 milioi pezetako (300.506 euro) diru-laguntza onartu zuten egunkariarentzat, eta beste horrenbeste hurrengo urtean, baina oraingo honetan EAJ eta sozialistak ere alde agertu ziren⁶⁵⁷. Une horretatik aurrera badira *Egunkariaren* eta Jaurlaritzaren arteko harremanean aldaketa izango zela iragartzen zuten elkarren segidako hainbat gertaera:

1.- Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiak *Euskaldunon Egunkaria* euskararen hedapenerako tresna “baliagarria eta lagundu beharrezkoa” zela adierazi zuen 1993ko uda bezperan, eta gaineratu zuen “bai, nik esperantza bat badaukat: abertzale euskaltzaleok egunen batean, ez dut uste luzaroan beharko lukeenik egoera honek, kapaz izango garela elkarrekin gauzak aztertu

⁶⁵⁶ .- Euskal Ezkerra (EuE) alderdia Euskadiko Ezkerra alderditik sortu zen. 1991n EE Jaurlaritzan sartu zen EAJ eta EA alderdiekin koalizio gobernua osatuz. Orduan nabarmendu egin ziren EEren barruko bi korronteen arteko tirabirak; batetik, *Renovación Democrática* izenekoak PSOErekin aliantzak egitearen aldekoak ziren, eta bestetik, *Auñamendi* izenekoak, EArekin egitearen aldeko. 1991ko irailean, EA Jaurlaritzatik kanporatu zuten Herri Batasunak zenbait udaletxetan independentziaren alde jarritako mozioak babestu zituelako, eta horrekin batera, *Auñamendiko* legebiltzarkideak (EEK zituen 6tik 5, horien artean Kepa Aulestia EEko idazkari nagusia) EEtik bota zituzten. Horrek behin betiko bihurtu zuen alderdi barruko bi korronteen arteko haustura. Batzuk alderdi sozialistan integratu ziren (PSE-EE) eta *Auñamendikoek* Euskal Ezkerra (EuE) sortu zuten. Horien artean zeuden, besteak beste, Kepa Aulestia, Martin Auzmendi, Xabier Gurrutxaga eta Patxi Baztarrika. 1993ko hauteskunde orokorretara Eusko Alkartasunarekin batera aurkeztu ziren, baina emaitza txarren ondorioz, koalizioa hautsi egin zen, eta handik gutxira EuE desagertu egin zen.

⁶⁵⁷ .- 1993an Herri Batasuna abstenitu egin zen, diru-laguntzaren alde zegoen baina 80 milioi eskatzen zituen.

eta joko arau jakin batzuetara iristeko. Uste dut horren baitan EUSKALDUNON EGUNKARIAk ere bere erantzuna behar duela” (Egunkaria, 1993-06-06: 12).

2.- Egun gutxira, Martxelo Otamendi *Euskaldunon Egunkariaren* zuzendaria honela mintzatu zen *Argiak* eginiko elkarrizketa batean: “Gure helburuak azpiegitura ekonomikoa sendotzea eta diru iturriak bermatzea, eta gaur egun administrazioarekin dagoen izotza urtzea dira (...) esperantza dut lehen aipatu izotz hori udan hasiko dela urtutzen”⁶⁵⁸ (Argia, 1993-06-27: 37-38).

3.- *Euskaldunon Egunkariak* lurretan egin zuen urteroko jaia (1993ko uztailaren 4an), eta lehen aldiz bertaratu ziren Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak. Adierazgarria presentzia eta beste horrenbeste Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritzan zegoen Roman Berriozabalek esandakoa: “etortzen garen lehen aldia da eta gure presentziak zerbait adieraz dezake”(Euskaldunon Egunkaria, 1993-07-06: 8).

4.- Aste horretan bertan *Argiak* Joseba Arregiri egindako elkarrizketa publikatu zuen, eta bertan zioen egunkaria diru publikoz laguntzea “posible dela”, baina ondokoa gaineratu zuen:

“Egoera normaldua duen egunkaria izan behar du. Eta guk zenbat diru eman beharko genioke? 500 edo 600 milioi?⁶⁵⁹ Orduan egunkaria publiko egiten da. Eta orduan jakin beharko genuke nola egituratzen den, enpresaren kapital osaketa nolakoa den, nork izendatzen duen zuzendaria... Proiektu hauek ezin dira egin korrika eta presaka, orain ezin baikara minimoetan oinarritutako proiektu batekin hasi. Galdu ezin daitekeen apustua da eta irabazteko baldintzetan egin behar da”(Argia, 1993-7-11: 7).

5.- Irailean⁶⁶⁰, EA eta EuEk ez-legezko proposamena aurkeztu zuten Legebiltzarrean, Eusko Jaurlaritzaren publizitate instituzionalaren banaketan *Euskaldunon Egunkariak* besteek zituzten aukerak izan zitzan eskatzeko eta *Egunkariako* ordezkariekin elkarrizketa hasteko.

⁶⁵⁸.- Horrela idatzita elkarrizketan.

⁶⁵⁹.- Eurotan jarrita: 500 milioi pezeta 3.005.060,5 euro dira eta 600 milioi pezeta 3.606.072,6 euro.

⁶⁶⁰.- 1993ko irailaren 3an.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza, esan bezala, 1994an helduko da, bederatzi hilabeteko elkarrizketa-prozesuaren ostean. Eusko Jaurlaritzak eta *Euskaldunon Egunkariak* elkarlanerako akordioa sinatu⁶⁶¹ zuten 1994ko ekainaren azken egunean, Donostian. Zazpi puntuko dokumentuan jasotakoaren arabera, “Eusko Jaurlaritzak ordezkari bat izango du EUSKALDUNON EGUNKARIAren Administrazio-Batzordean” eta baliabide ekonomikoei dagokienez, urte hartarako partida zehaztu eta hurrengoetarako asmoen berri ematen zen.

“(…) hirurogeita hamar milioi (70.000.000 pta) pezetako⁶⁶² diru-laguntza emango dio EUSKALDUNON EGUNKARIA Elkarteari, Elkarte horrek 1994. urterako dituen ustiaketa gastuei aurre egin diezaien⁶⁶³. Adostutako bide honi jarraituz, datozen ihardunaldietan ere, urteroko aurrekontuetako egitarauaren barruan, Eusko Jaurlaritzak EUSKALDUNON EGUNKARIAren beharrianak kontuan hartuko dituela hitz ematen du” (EGUNKARIA, 1994-07-01: 8).

Hala, *Euskaldunon Egunkariak* 120 milioi pezeta (721.214,5 euro) jaso zituen 1995ean, eta beste horrenbeste 1996an.

Jaurlaritzaren eta *Euskaldunon Egunkariaren* arteko tirabirak irauten zuen bitartean, gainontzeko idatzizko hedabideek urteroko diru-laguntzak eskatu, jaso eta noizbehinka, horiei buruzko iritzia eta eskariak kaleratu zituzten⁶⁶⁴. Labur esanda, hiru

⁶⁶¹ .- Akordioa Joseba Arregi Kultura sailburuak eta Iñaki Uria, *Euskaldunon Egunkariako* kontseilari ordezkariak sinatu zuten.

⁶⁶² .- Eurotan jarrita 420.708,5 euro dira.

⁶⁶³ .- *Euskaldunon Egunkariak* 1995eko maiatzaren 21eko zenbakian eman zuen bezperan Andoainen eginiko akziodunen batzarrari buruzko informazioa (16.or). Bertan publikatutakoaren arabera, 559.248.492 pezetako sarrerak (3.361.151 euro) izan zituen 1994an eta 589.087.780 pezetako irteerak (3.540.488 euro); ondorioz urteko emaitza ekonomikoan negatiboa izan zen: 30 milioi pezetako defizita. (zehatz esateko 29.839.288 pezetako defizita, hau da, 179.338 eurokoa).

⁶⁶⁴ .- 1989ko azaroan, esaterako, *Argia* aldizkariak egunkari formatuko 8 orriko ale berezia kaleratu zuen, azalean *Euskal Prentsa Lagundu* izenburua zeramana. Edukien artean, azaroaren 10ean *Aizu!*, *Argia*, *Elhuyar*, *Idatz eta Mintz*, *Ipurbeltz*, *Jakin*, *Karmel*, *Larrun*, *Senez* eta *Susa* aldizkariak sinatutako agiri bateratua zegoen. Bertan, diru-laguntzak urriak zirela, banaketarako irizpideak desegokiak zirela eta epe luzeko plangintza bati erantzuten ez zietela adierazi zuten. Horrekin batera, publizitate publikoa banatzeko orduan jasaten zuten egoera ere salatu zuten: “euskal aldizkariak publizitate publikoa banatzeko orduan marginaturik bait gaude, orohar (...) Euskal instituzioek, gure aburuz, euskal aldizkarietan eginiko publizitateari buruzko jarrera positiboa eta eragilea erakutsi beharko lukete: alde batetik eta gutxienez, beraiek sortzen duten publizitatearen zati bat euskal prentsaren bidez bideratuz eta bestetik, euskal komunikabideetan eginiko publizitatea sustatuz. Publizitate kopurua igo ahala laguntza publiko zuzenen beharra urrituko dela begibistakoa da bestalde” (*Argia*, 1989-11-26: 2)

ardatzen inguruan landutakoak ziren: esleitutako baliabide ekonomikoen urritasuna, dirua banatzeko erabilitako irizpideen desegokitasuna eta epe luzeko politika baten gabezia.

1995eko urtarrilean EAJ, PSE eta EA alderdien artean adostutako Jaurlaritza berria eratu zen, eta Mari Karmen Garmendiak hartu zuen Kultura Sailaren ardura.⁶⁶⁵ Euskarazko hedabideei begirako politika, ordura arte bezalatsu, urteroko diru-laguntza deialdietan mamitu zen. Eta berriro ere, sektoreak politika horrekiko desadostasuna agertu eta aldaketa eskatu zuen. Horren isla, 1996an *Euskalkom*ek Donostiako Miramar Jauregian antolatutako Prentsa Jardunaldietan izan ziren hedabideek kaleratutako ondorioak. Merezi du dokumentu haren edukia bere osotasunean jasotzea, diru-laguntza politikari buruzko aldarrikapenak eta kezak ez ezik, sektoreak garai hartan bizi zuen egoeraren erradiografia gardena eskaintzen duelako,

“1.-Euskarazko prentsak funtzio garrantzitsua betetzen du hizkuntz komunitatean. Euskal Herri mailako lotura mantenduz, hizkuntza komunitatea trinkotzen duen elementu apurretako bat da. Bestetik euskaraz bizitzeko ezinbesteko elementua da.

2.- Irauteari begira jarrita daude energiari gehienak. Irautearekin eta produktu horretarako egokitze eta hobetzearekin asko egiten du euskal prentsak. Eta hori egiteko ere estuasun handiak ditu.

3.- Pauso kualitatiboak emateko, azpiegitura indartzeko, gizarteko presentzia soziala benetan hazteko biderik ez du. Hazi nahi, hazi behar eta hazi ezina. Izan litekeenera iritsi ezina da egoeraren laburpena.

4.- Euskal prentsa idatziko langileak lan-baldintza eskasetan daude halabeharrez. Amildegia dago ikus-entzunezko proiektu publikoetako lan-baldintzen aurrean, eta amildegi hori kaltegarri eta eutsiezina da.

5.- Merkatua osatzeko pausoak ematea lehentasunezkoa da. Irakurketa bultzatzeko modua eratu behar da, irakurle berriak, batez ere gazte-belaunaldiak euskal prentsara sartzeko. Honek sustapen ahalegin handia eskatzen du. Bere lehentasuna azpiegitura eta enpresa-ikuspegia indartzea da.

6.- Lehentasun horietan prentsagileei dagozkien zereginak dira:

- elkartzea, ikuspegia lantzeko.
- elkarlan-bideak urratzea. Bereziki publizitatean enpresa handietara iristeko masa kritikoa lortzeko, sustapenerako, horniketarako eta hainbat arlotarako.
- enpresa-ikuspegia lantzea, lan komertzialean energia gehiago jartzea.

⁶⁶⁵ .- Ardura horrekin batera gobernu-bozeramalea ere izango da.

7.- Gizartea sektorearen egoera zailaz eta euskal prentsaren estrategikotasunaz jabetzeko ahaleginak egin behar ditugu.

8.- Erakunde publikoei politikan aldaketa sakona eskatzen diegu. Apustu instituzionalik eta kultur politika egokirik ez dago alor honetan. Orain arteko laguntzak hiru ezaugarri ditu: eskasa, uneoroko borondateari atxekia, gutxi arautua eta arlo giltzarri batzuk ahaztu dituena. Aspektu negatibo horiek aldatu behar dira, aldaketa sakona eginez:

- sektorearen garrantzi eta desfioei egokitutako laguntza.
- laguntza arautua, jokuko arauak finkatu eta optimizazioa bultzatuko duena.
- azpiegitura indartzeko inbertsiotarako, sustapenerako, eta merkaturatze/banaketarako laguntza, enpresak etorkizunean burujabeago izan daitezen.
- publizitate-politika egokia. Euskaraz informatua izateko eskubidetik abiatuta euskararen esparrurako publizitate instituzionalari buruzko araubide bat martxan jarri behar da lehenbailehen". (Jakin, 96 zk.: 107-109).

Ondorioetan jasotakoa, ia hamar urte lehenago, 1987an, euskarazko hedabideek Eusko Jaurlaritzari zuzendutako mezuaren garapen eguneratua dela esan daiteke. Ordukoan bezala, euskarazko hedabide inprimatuek hizkuntza-normalizazioaren esparruan betetzen zuten zeregina aldarrikatu eta diru-laguntza politikaren aldaketa sakona eskatu zuten.

1996ko Prentsa Jardunaldien ondorioak kaleratu zituen *Jakin* aldizkariaren zenbaki berean jardunaldietan irakurritako ponentziak eta komunikazioak bildu zituzten. Horietatik bada nabarmentzeko konturik. Esaterako, garai hartan *Egunkariako* kontseilari-ordezkarria zen Iñaki Uriak zioen euskal prentsa ez zela existitzen salmenta-puntuetan, gehienbat harpidetza bidez saldu edota doan banatzen zelako eta egoera horri aurre egiteko sustapen-kanpainen garrantzia azpimarratzen zuen (Uria, 1996). Bestalde, Pello Zubiriak *Zein dira euskal prentsaren desafio berriak?* galderari heldu eta erantzuna emateko orduan hainbat nabarmendu zituen: "subentzio-kopuru txukun batzuk lortzea", publizitate instituzionalaren arloan tratu egokiagoa jasotzea erakundeetatik edota hedabideen arteko sinergiak bultzatu eta elkarlana baliatuz gestioa hobetzea. Aipatutako horiek guztiak zertarako? euskal gizartean eraginkor izateko.

“Geure Herrian bertan eraginkor izatea da begien aurrean daukagun apustu nagusia. (...) gure produktu, informazio eta iritzien kalitateak merezi baino askoz oihartzun gutxiago lortzen dute. Eraginkortasuna, influentzia, efektibotasuna, oihartzuna... Egiten dugun ahaleginak eragin sendoago bat erdietsi behar du” (Zubiria, 1996: 66)

Pello Zubiriaren hitz horiei darien doinu bera izango dute euskarazko hedabide inprimatuen sektoretik zein administratibotik ondorengo urteetan egingo dituzten beste hamaika adierazpen eta aldarrikapenek; bereziki ikerketak aztergaitzak hartu duen 2005-2013 epealdian.

Uriak eta Zubiriak burututako hausnarketekin batera ezinbestekoa da Jon Sarasuak 1996ko Prentsa Jardunaldietan aurkeztu eta *Jakin* aldizkariak bildu zuen ponentziari erreparatzea. *Euskarazko prentsaren diagnostikoa* izenburuarekin sektoreak une hartan zuen egoera arakatu eta argazkia osatu zuen⁶⁶⁶; baita proposamenak aurkeztu ere. Diru-laguntzei dagokienez, euskarazko prentsaren sektoreak honako diagnostikoa egiten zuela zioen Sarasuak:

“Dirulaguntza sistemaren diagnostikoa nahiko koinzidentea da:

- Gutxi da euskal prentsaren sendotze-desafioari erantzuteko.
- Uneko borondatearen gora-beherei lotuegia dago.
- Aldagai batzuk kontuan hartzen badira ere, lotuegia dago defizitari, eta honek ez du optimizazioa bultzatzen”. (Sarasua, 1996: 15)

Behin diagnostikoa eginda, Jon Sarasuak baieztatzen zuen “sektore honen garrantziaren araberako erantzuna ematea dagokie erakunde publikoei” (Sarasua, 1996: 27) eta jarraian erantzun horren ildo nagusiak marraztuz ematen zion amaiera artikuluari:

- Sektorearen garrantzi eta beharrei egokitutako laguntza.
- Laguntza arautua, jokuko erregelak finkatuta, optimizazioa bultzatuko duena.
- Azpiegitura indartzeko inbertsioetarako, sustapenerako, merkaturatzean laguntzeko laguntza ere bultzatu behar da, enpresak finkatu eta etorkizunean burujabeago izan daitezen.
- Publizitate-politika egokia, euskararen esparrurako publizitate instituzionala arautuko duena” (Sarasua, 1996: 28).

⁶⁶⁶ .- Horretarako hamaika agerkarirekin egindako lanaren emaitzetan oinarritu zen: *Egunkaria, Argia, Jakin, Elhuyar, Aizu!, Bat, Arrasate Press, Irutxulo, Eraz, Ttipi-ttapa* eta *Bizarra Lepoan*.

Proposamenak proposamen eta eskaerak eskaera, euskarazko aldizkariak ez zuten 1996ko urteari zegokion diru-laguntza hartu urte hartan. Ebazpena inoiz baino beranduago egin zenez, abenduaren 18an⁶⁶⁷; ordainketak hurrengo urtean gauzatu ziren. Egoera horrek haserre bizia eragin zuen sektorean eta tirabira latza izan zuten Jaurlaritzako Kultura Sailarekin urtarrilean zehar. Agerkariak diru-laguntzen murrizketa salatu zuten agiri baten bidez⁶⁶⁸, “Eusko Jaurlaritzak ez die, inolaz ere, euskal prentsaren laguntza-premiei behar bezala erantzuten: ez die orainarte erantzun, eta ez die orain erantzuten, lehendik eskasak ziren dirulaguntzak murriztu egin baititu” (Jakin, 98zk.: 41 edota *Euskaldunon Egunkaria*, 1997-01-18: 11). Baieztapena babesteko hamaika zenbaki argitaratu zituzten, eta Kultura Sailak beste horrenbesterekin erantzun zuen kontrakoa argudiatzeko; hots, diru-laguntzetan ez zela murrizketarik egon. Bestalde, Kultura Sailak iragarpena ere egiten zuen: “Eta 1997an, lehentasuna izanik euskal prentsako proiektuak bideragarriagoak egitea, laguntzek hazkundera izango dute”(Jakin, 98zk.: 42). Emandako erantzunarekin konforme ez, eta egun gutxira⁶⁶⁹ hedabideek beste agiri bat prestatu eta kaleratu zuten. Bertan, Eusko Jaurlaritzak 1995ean eta 1996an aldizkariz aldizkari banatutako laguntzen zenbatekoak jakinarazi zituzten. Horrekin batera, eskaera bikoitza egin zioten Kultura Sailari: euskal prentsarekin elkarlanean aritzeko eta arazoaren muinari behingoz heltzeko.

“Euskal prentsa sektore estrategikoa da, Euskal Herrian euskaraz bizi ahal izateko ezinbesteko zerbitzua. Eta egoera larrian dago. Sektorearen garrantziaren neurriko laguntzak behar ditu euskal prentsak, eta ez bakarrik orainarte⁶⁷⁰ bezala urteroko defizita arintzen laguntzeko, azpiegituretan, sustapenean, banaketan eta abarrean aurrera egin ahal izateko ere laguntzak ezinbestekoak baititu”(Jakin, 98zk.: 45 edota *Euskaldunon Egunkaria* 1997-01-23: 8).

1996an gertatutakoen errebasoarekin bukatzeko, esan sektorearen eta Jaurlaritzaren arteko harremana mikaztuz zihoan bitartean, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru-aldundiek diru-laguntza deialdiak kaleratu zituztela euskaraz ari ziren idatzizko

⁶⁶⁷ .- Ebazpena 1997ko urtarrilaren 9ko EHAAn argitaratu zen.

⁶⁶⁸ .- Agiria 1997ko urtarrilaren 17an kaleratu zuten 44 aldizkarik eta *Euskaldunon Egunkaria* sinatuta.

⁶⁶⁹ .- 1997ko urtarrilaren 22an.

⁶⁷⁰ .- Horrela dago idatzita jatorrizkoan.

hedabideentzat⁶⁷¹, lehen kasuan ia 24 milioi pezeta (144.243 euro) eta bigarrenean 3 milioi pezeta (18.000 euro). Araban ez zen halakorik gertatu.

Hurrengo hiru deialdietan (1997,1998 eta 1999) aldaketa izan zen, baina ez sektoreak eskatzen zuen bidetik. Diru-hornikuntzari erreparatuta, ia hiru aldiz hazi zen partida lehen urtean, eta hazten jarraitu zuen hurrengo bietan⁶⁷²; baina ez aldizkarietzako diru-poltsa handitzen zelako, baizik eta eguneroko prentsa ere (*Euskaldunon Egunkaria*) lehenengoz sartu zelako deialdian⁶⁷³ eta hari esleitzen zitzaiolako⁶⁷⁴ ezarritako diru-baliabide guztien erdia baino gehiago.

5.3.4. DIRU-LAGUNTZEN ONURADUN BERRIAK ETA BAREALDIA: 2000-2004

2000. urtean, idatzizkoei irratiak⁶⁷⁵, telebistak eta on-line argitalpenak gehitu zitzaizkien diru-laguntzen onuradun gisa. Ondorioz, urte hartako deialdiak, baliabide ekonomikoari begiratuta, hazkunde nabarmena izan zuen⁶⁷⁶, eta horren barruan aipatzekoa da inprimatuei bideratutako kantitatea ia bikoiztu egin zela⁶⁷⁷. Ondorengo

⁶⁷¹ .- Gipuzkoaren kasuan, apirilaren 2ko 32/1996 foru dekretuaren bidez. Haren xedeak honela zioen hitzez hitz: "Deialdi honen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren esparruan udal, eskualde nahiz herrialde mailako euskarazko aldizkariak sustatu eta bultzatzen dituzten erakunde eta elkarteei dirulaguntzak ematea, deialdi honetan araututakoaren arabera". Urte hartan 23.658.607 pezeta (142.191 euro) banatu ziren 18 aldizkariaren artean. Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, deialdia otsailaren 27ko 19/96 foru dekretuaren bidez kudeatu zen eta udal mailako aldizkariak deialditik kanpo geratu ziren. 3.000.000 pezeta (18.030 euro) banatu zituzten lau hedabideren artean: *Arranondo*, *Bizarra Lepoan*, *Deiadar* eta *Akatz*.

⁶⁷² .- 1996ko deialdian, guztira 66 milioi pezeta (396.668 euro) banatu zituen Eusko Jauraritzak baldintzak betetzen zituzten aldizkako argitalpenen artean; 1997koak 198.100.000 pezetako dirulaguntzak (1.190.605 euro) aurreikusi zituen prentsa idatzian euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal prentsa egitasmoak bideragarriago egiteko. 1998koak 234.200.000 milioi pezeta (1.407,570 euro) eta 1999koak 273 milioi pezeta (1.640.763 euro).

⁶⁷³ .- Ordura arte, 1994tik urtero sinatutako hitzarmen bidez ematen zitzaion dirua *Euskaldunon Egunkariari*; ez zen deialdira aurkezten, deialdiak ez zuelako eguneroko prentsara zuzendutako partidariak aurreikusten.

⁶⁷⁴ .- *Egunkariak* 120 milioi pezeta (721.214,5 euro) jaso zituen 1997ko deialdian, diru-baliabide guztien %60,6. Hurrengo urtekoan, 1998koan are gehiago, 156 milioi pezeta (937.579 euro), urte hartako baliabide guztien %66,6 eta 1999koan beste horrenbeste, baina ehunekotan behera egingo du, aginduak ezarritako diru-baliabideen %57,1 esleitu zitzaion eta.

⁶⁷⁵ .- Irratiek ordura arte laguntzak jasotzen zituzten, baina ez hedabideentzako deialditik, baizik eta *Euskalgintza* izeneko deialditik.

⁶⁷⁶ .- 1999koak 273.000.000 pezetako diru-poltsa zuen (1.640.763 euro), 2000ko deialdiak 622.000.000 pezetakoa (3.738.295 euro).

⁶⁷⁷ .- 1999koan 273.000.000 pezeta euskarazko inprimatuentzat (1.640.763 euro), 2000koan 485.000.000 pezeta (2.914.909 euro).

urteetan ez da laguntzen kopuruetan apenas gorabeherarik izango, baina sektoreak bizitasuna erakutsiko du. Sasoi hartan, egunerokoen eskaintza handitu egin zen, *Hernaniko Kronika* izan zen bidea urratzen lehena⁶⁷⁸ eta ondoren, bereziki 2003tik aurrera, eskualdeetako egunkariak (*Hitzak*) hasi ziren zabaltzen. Bestalde, tokikoek hausnarketari ere ekin zioten⁶⁷⁹ xede bikoitzarekin; batetik, egindako hamabost urteko ibilbidearen errepassoa egitea eta bigarrenik, hiztun-sarea eta merkatua handitzeko jarraitu beharreko estrategia gorpuztea, “produktuak txukundu, estrategiak doitu eta euskal hizkuntza-komunitatean modu eraginkorragoan eragiteko asmoz” (Aiestaran, 2009: 76).

Hausnarketa hartan, besteak beste⁶⁸⁰, tokikoentzat eskualdeko ekoizpen antolaketaren bidea jorratzearen garrantzia azpimarratu zen. Maiztasunari dagokionez, egunerokoa guztiz baztertu zuten, horrek gaindiezineko gastua izango lukeelako tokikoentzat; ondorioz, asteroko maiztasunaren aldeko apustua egin zuten eta enpresaren tamainari erreparatuta, 8.000 aleko tiradak edo handiagokoak ekoiztera jo behar zela aipatu zen. Honela argudiatzen zuen estrategia Joxemari Muxikak, garaiko Topagunea Euskara Elkartearen Federazioko lehendakariak:

“Izan ere, horrek sinesgarritasuna ematen dio lantegiaren etorkizunari. Langileentzat ez ezik, iragarle zein irakurleentzat ziurtasuna (eta, bide batez, lasaitasuna) bermatzen laguntzen du estrategia horrek” (Topagunea, 2003: 45).

Hurrengo urtean hausnarketak tokikoen maila gainditu zuen eta *Euskarazko Kazetaritzaren lehen Kongresua* egin zen⁶⁸¹. Lau egunez sektorearen diagnostiko

⁶⁷⁸ .- *Hernaniko Kronika* 2000. urtean kaleratu zen, Dobera euskara elkartearen ekimenez.

⁶⁷⁹ .- Topaguneak *Tokiko hedabideak etorkizunera begira* izeneko jardunaldiak antolatu zituen Zamudion 2003ko azaroaren 28an eta 29an.

⁶⁸⁰ .- Orduko hartan, etorkizunari buruzko gogoeta sakona egiteaz gain, Topaguneak *Asteon* aldizkariaren egitasmoa aurkeztu zuen. Doakoa, herri aldizkariekin batera banatuko zen tokiko aldizkari gehigarri moduan, eta gaitzat telebista izango zuena. Lehen zenbakia 2004ko otsailaren 27an kaleratu zuten 75.000 aleko botaldiarekin. Arazo ekonomikoak zirela eta, *Asteon* aldizkaria desagertu egin zen sortu eta 5 hilabetera.

⁶⁸¹ .- Kongresua 2004ko azaroaren 9tik 12ra bitartean egin zen.

zehatza burutzeaz gain, Europan hizkuntza gutxituetan aritzen ziren zenbait ikus-entzunezkoren eta egunkariren ikuspuntuak eta esperientziak ezagutu zituzten. Horrekin batera, euskarazko kazetaritzaren aurrera begirako erronkei heldu zieten. Kongresu hartan landutakoak *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa* izeneko lanean⁶⁸² daude bilduta. Lan horren edukiari erreparatuta ekingo zaio ondoko lerroetan azalduko den Eusko Jaurlaritzaren eta sektorearen arteko harremanen hurrengo fasearen azterketari.

5.3.5. EGONKORTASUNA DEIALDIETAN ETA HARREMANETAN BAKOITZA BEREARI EUTSIZ: 2005-2013 EPEALDIA

Ikerketa honen jomuga den 2005-2013ko epealdian, Eusko Jaurlaritzaren eta euskara hutsezko hedabideen sektorearen arteko harremana ezaugarri beretsuak dituzten zikloen bidez garatuko da. Aldarrikapenak eta administrazioari zuzenduriko eskaerak eta kritikak dira ziklo horien osagai nagusiak. Denbora-tarte horretan, gainera, aurreikusi gabeko bi gertaera txertatuko dira batzuen eta besteen arteko erlazioan: krisi ekonomikoa eta EAEko lehen gobernu sozialista. Hortaz, 2005-2013 bitarteko azterketa testuinguru ekonomikoan eta politikoan izandako gorabeherei loturik dauden bi zatitan burutuko da: lehenak, 2005-2008 tarte hartzen du; bigarrenak, 2009tik 2013ra artekoa.

5.3.5.1. DIAGNOSTIKO ETA ALDARRIKAPENETATIK KRISIARI USAINA HARTZEN HASI ARTE: 2005-2008

Arestian aipatu bezala, 2005etik 2013ra arte "Hedabideak" diru-laguntzaren esleipen-prozesuan parte hartu duten bi aktoreen arteko harremana nolakoa izan zen aztertzeko abiapuntu egokia da *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa* izenburuko lana. Horren aurkezpenean garaiko euskarazko kazetaritzaren egoera laburbiltzen da:

⁶⁸² .- Lanak lau atal ditu. Bakoitzean Kongresuko egunez eguneko edukiak jasotzen ditu, Hala, lehen atala euskarazko komunikazio-esparruari buruzkoa da; bigarrenean, *Euskarazko hedabideak* izenekoan prentsa, ikus-entzunezkoak, Internet bidezkoak, publizitatea, kazetaritza eta literaturaren arteko harremana zein diasporaren komunikabideak aztertzen dira; hirugarrenean, *Bideak eraikitzeak ahaleginean* izenekoan, euskarazko hedabideek aurrera egiteko sinergiak sustatu eta baliabideak optimizatu behar dituztela azpimarratzen duen gogoeta nagusitzen da, eta laugarren atala etorkizunari begira jarrita dago, bertan *Erronka nagusiak* izenburupean hiru arlo nagusi aztertzen dira: teknologia berriak, hizkuntza eta kazetari euskaldunen lan-baldintzak. Lanak 448 orrialde ditu guztira.

“Bistan denez, Euskarazko Kazetaritza izugarri hazi da, oso handia baita mundu honek berezkoa duen indar-sortzailea. Errealitate hori makina bat pertsona, elkarte, gizarte-mugimendu eta erakunderen ahalegin eta elkarlanaren ondorioa izan da. Orobat, hazkunde ikaragarri horrek agerian utzi ditu sektorean dauden hainbat ahulezia: egoera soziolinguistikoa, merkatu txikiak, lan-baldintza makurrak eta dirulaguntza politika definitu gabeak, besteak beste. Euskarazko Kazetaritza beregaintasuna lortzetik urrun da, oraindik ere” (Askoren artean, 2005: 9-10).

Hortaz, idatziz jasotakoaren arabera, orduko diru-laguntza politika “definitu gabea” zen euskarazko kazetaritzaren ahulezietariko bat. Baieztapena ez da berria; izan ere, aurretik azaldu den bezala, 80ko hamarkadaren bigarren zatitik, euskarazko hedabide inprimatuek aldiro-aldiro plazaratu zuten sektorearentzako diru-laguntza politikak aldaketa sakona behar zuela eta epe luzera begirako politikaren beharra zegoela. Ia hogeitaz urtera, beraz, aldarrikapenak bere horretan dirau.

Euskarazko kazetaritzaren I Kongresuaren jarduna biltzen duen lanak hamaika ondorio plazaratzen ditu azken orrietan. Merezki du horiek denak dauden moduan jasotzea, nondik-non-nora galdera hirukoitzari erantzuteko ahalegintzat hartu daitezkeelako; hau da, euskarazko kazetaritza nondik zetorren, non zegoen eta nora jo beharko lukeen. Honakoak hamaika ondorioak:

“Lehenengoa. Euskarazko kazetaritzaren munduak berebiziko aldaketak izan ditu azken hiru hamarkada hauetan. Dozena erdi/dozena bat profesional izatetik, 700dik gora berriemaileren kolektibo izatera igaro gara. Oso handia da mundu honek berezkoa duen indar sortzailea.

Bigarrena. Euskarazko kazetaritzak izan duen garapena oso nabarmena da, baina agerian dira ahuleziak ere: egoera soziolinguistikoa, merkatu txikia, behar baino eskaintza urriagoa... Gainera, mundu honek gehiegizko sakabanaketa bizi du eta ez du oraindik beregaintasunik lortu maila askotan.

Hirugarrena. Euskarak 800.000 hiztunera iristen ez den komunitatea osatzen du. Arazo asko eta asko hiztun-kopuru murriz horren ondorio dira. Edozelan ere, bermatu beharreko gizarte-erantzukizuna da informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea. Erkidego gisa, euskaldunontzat, zer estrategikoa da euskarazko komunikazio-esparruaren etorkizuna. Gizarteak eta administrazioak esku-hartze

aktiboagoa zor diote euskal komunitateari. Euskarazko kazetaritzaren mundua ezin da merkatuaren legeen pairuan utzi, eta horregatik ere, behar-beharrezkoa du erakunde publikoen diru-laguntza bidezko, arautu eta garbi bat. Euskarazko kazetaritza zerbait izatera heldu baldin bada, bertan mamitu den elkarlanaren ondorioz izan da. Etorkizunari begira ere, elkarlan horrek berebiziko garrantzia izaten jarraituko du: hortaz, sinergiak sustatu eta garatu behar dira, eta baliabideen erabileraren optimizazioa bilatu ere.

Laugarrena. Euskarazko kazetaritzak aurrera egingo badu, kalitatezko gutxieneko estandar batzuk bermatzen direlako izango da. Imajinario kolektiboaren sortzaile garen heinean, ekoizten eta igortzen ditugun edukietan ere jarri behar dugu ardua. Eduki horiek, beraz, elkarbizitza bideratzen eta euskal komunitatearen kohesio soziokulturalaren mesedetan eragiten lagundu behar dute. Kalitatezkoa behar du izan, maila guztietan, euskarazko komunikazioak: produktuen eraketan, ekoizpen-prozesuan, banaketa-sisteman eta baita erabiltzen den hizkuntza-ereduan ere.

Bosgarrena. Zenbait kasu eredugarri alde batera utzita, kazetari euskaldunek ere lan-baldintza ez duinak pairatzen dituzte sarritan: lan-jardun amaigabeak, ordain-sari eskasak eta badaezpadako kontratuak. Kazetaritza-eredu duin, etiko eta beregaina lortzea helburu izanik, funtsezkoa da egoera horiek errotik ezabatzea.

Seigarrena. Euskaratik eta euskaraz sortu eta landutako publizitate-sareak sustatu behar dira. Inon funtsezkoa bada administrazioen laguntza, publizitatearen eremuan da, dudarik gabe.

Zazpigarrena. Euskararen komunikazio-esparruaren hedapena ez da soilik hedabideen egitekoa. Izan ere, informazio-iturriak dira kazetari-lanaren lehengaiak. Haien gobernatzeko dute albistearen joan-etorria. Informazio-iturri euskaldun barik ezin dira albisteak euskaraz taxuz landu. Euskal Herrian dauden gizarte-eragile gehienek erdaraz pentsatu eta ekoizten dituzte euren jardun publikoak. Arlo horretan, politikarien erantzukizuna aipagarria iruditzen zaigu, gizarte baten ikono eredugarri diren heinean; hori dela-eta, konpromiso-maila handiagoa eskatzen diegu. Kazetari euskaldunak ordu dezente ematen du egunero informazio-iturri erdaldunen idazlanak itzultzen. Horregatik, besteak beste, albiste-iturrien euskalduntzea eskatzen du euskararen komunikazio-esparruaren garapenak.

Zortzigarrena. Elkar elikatzen duten munduak dira gurean kazetaritza eta literatura. Sistema propio baten aldeko apustua da harreman emankor horretan sakontzea, kohesio soziokulturala helburu duen erdu baten alde ekinez.

Bederatzigarrena. Espezializazioaren fenomenoak ez du etenik izan azken 30 urteotan. Zientzia eta ezagutzaren mundua abiada batean garatu da. Garapen horren ondorioetako bat da kazetaritza espezializatua. Aintzakotzat hartu beharko luke fenomeno hori ere euskarazko kazetaritzak.

Hamargarrena. Euskarazko kazetaritzak jomuga garrantzitsuak dauzka geroari begira. Horren adierazle garbiak dira Internet eta teknologia berriak. Mundu horietara egokitzeko egin ditugun ahaleginak garrantzitsuak badira ere⁶⁸³, oraindik asko falta zaio beregaintasuna lortzeko bidean euskarazko kazetaritzari. Bide horretan estrategiko deritzoguz multimedia egitasmoak garatzeari.

Hamaikagarrena. Euskarazko komunikazioaren erkidegoak bere burua ezagutu behar du, bere burua egokitu behar du abagune berrietara, bere esku hartu behar du etorkizuna marrazteko ahala. Horretarako, aipaturiko gabeziak zuzendu eta zedarritutako egitasmoak garatzeko, plangintza estrategiko baten beharra dakusagu. Berori egiteko eta euskarazko kazetaritzak daukan potentzialtasun osoa garatzeko, foro edo erakunde ireki eta iraunkor bat sortzeari ezinbesteko irizten diogu, euskarazko komunikaziogintzan diharduten eragileak eta Euskal Herriko ikastegi, unibertsitate zein administrazioak bertako partaide direla. Honenbestez, foro hori gauza dadin lanean jarraituko dugula berresten dugu editore-taldeko kideok⁶⁸⁴ (Askoren artean, 2005: 447-448).

Ondoriootan bi norabidetan zuzenduriko mezuak berezitu daitezke. Batetik, euskarazko kazetaritza-sektoreari begira hainbat proposamen edo errezeta luzatzen dira; besteak beste, sinergiak sustatu, baliabideen optimizazioa bilatu, maila guztietan kalitatea bermatu, langileen lan-baldintzak hobetu, espezializazioa aintzakotzat hartu, multimedia estrategiak garatu eta Internet eta teknologia berrietara egokitu eta horiek baliatu. Bestetik, erakunde publikoei zuzenduriko eskaerak daude, eta esparru horri dagokionez, bi nabarmentzen dira: publizitate instituzionala eta diru-laguntzak.

⁶⁸³.- Eusko Jaurlaritzaren 2005eko "Hedabideak" deialdian diru-laguntza esleitu zitzaizen idatzizko 67 hedabideri (eguneroko prentsa inprimatua eta aldizkariak), eta horietatik hogeitaz bederdi Interneten.

⁶⁸⁴.- Editore-taldeko kideak izan ziren Mikel Arrieta (orduan *Berriako* komunikazio-arduraduna), Jose Inazio Basterretxea Polo, EHUko Kazetaritza Saileko irakaslea, María González Gorosarri (orduan Topaguneko hedabide saileko koordinatzailea), Arantza Gutiérrez Paz (EHUko Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Saileko irakaslea), Txema Ramírez de la Piscina (EHUko Kazetaritza Saileko irakaslea), Idoia Torregarai (orduan UEUko komunikazio-arduraduna), Ana Urkiza (orduan EIEko idazkari kudeatzailea) eta Aitor Zuberogoitia (orduan EHUko Kazetaritza Saileko irakaslea).

Baina Eusko Jaurlaritzaren 2005eko “Hedabideak” deialdiak⁶⁸⁵ ez zuen, aurreko urtekoarekin alderatuta, goranzko aldaketarik ekarri euskarazko eguneroko prentsa eta aldizkariarentzat jarritako diru-kopuruari dagokionez⁶⁸⁶. Garaiko EAJ, EA eta EB-Berdeak alderdien arteko Jaurlaritza berriak berehala jakinarazi zituen zeintzuk izango ziren euskara biziberritzeko bidean jorratuko zuen hizkuntza-politikaren ildo, oinarri eta jarraibide nagusiak. Guztira 33 jardunbide⁶⁸⁷, eta horien artean, hedabideen esparrura zuzendurikoak ere bazeuden. Batetik, “dauden hedabideen inguruko balorazioa egitea eta datozen urteetarako politika definitzea gainerako herri-aginteekin batera” (Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, 2005: 50); bigarrenik, HAKOBAREN⁶⁸⁸ bitartez, “diru laguntzetarako irizpideak koordinatzea, lehentasunak finkatuz eta erakunde bakoitzaren jardun-esparruak zehaztuz” (Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, 2005: 44); eta hirugarrenik, “ibilbide bat egina duten dirulaguntza-deialdien ebaluazioa egingo da” (Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, 2005:56). Aipatu ebaluazioak hiru zeregin hartzen zituen:

“28.1. Deialdi guztien ebaluazioa egitea eta gainerako herri-aginteekin batera hurrengo urteetarako estrategia finkatzea.

28.2 Hurrengo urteetarako deialdietako helburuak, dirulaguntza gaiak eta irizpideak finkatzea.

28.3. Deialdien inguruko prozedura ondo finkatzea, helburua izanik urtearen lehenengo seihilabetekoan deialdiak ebatzita izatea” (Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, 2005: 56).

Azken zeregina, hau da, diru-laguntzen esleipenak urteko lehen seihilekoan burutzea euskarazko idatzizko hedabideen eskaera eta aldarrikapena izan da betidanik. 2005ean ere, legealdia hasi berria zegoela eta, sektoreak prentsaurrekoa⁶⁸⁹ antolatu

⁶⁸⁵ .- Urte hartako diru-laguntza deialdiaren agindua zortzigarren legengintzaldia kudeatu zuen koalizio-gobernu hirukoitza (EAJ, EA eta EB-Berdeak) osatu eta egun gutxira argitaratu zen EHAAn.

⁶⁸⁶ .- 2004ko deialdian 3.335.951 euro izan ziren euskara hutsezko eguneroko prentsa eta euskara hutsezko aldizkari inprimatuentzat; 2005eko deialdian, berriz, 3.280.000 euro.

⁶⁸⁷ .- *Hizkuntza politika aurrera begira* izeneko lanean daude bilduta.

⁶⁸⁸ .- HAKOBA Herri Aginteen Koordinazio Batzordea da. Bilgune horretako partaide dira: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiak, eta Vitoria-Gasteiz, Bilbo eta Donostiako udalak. Horiez gain, HABE, IVAP, EUDEL eta UEMA eta Jaurlaritzako beste sailen bateko ordezkariak ere izan daitezke euskararen inguruko politika publikoei buruz egiten dituzten bileretan.

⁶⁸⁹ .- Prentsaurrekoa Donostian eskaini zuten 2005eko urriaren 10ean. Egun hartan, oraindik ez zuten 2005eko “Hedabideak” deialdiaren ebazpenaren berri (ebazpena azaroaren 14an hartu zuten eta

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

eta berriro eskatu zion Jaurlaritzari diru-laguntzen zenbatekoa urteko lehen erdian jakin eta ordaintzeko modua egiteko⁶⁹⁰, diru-laguntzak berandu banatzeak ziurgabetasun egoera sortzen zuelako hedabideetan. Horrela azaltzen zuen Topaguneko ordezkariak:

“Urte bukaera arte zenbat diru jasoko den ez jakiteak aurrekontuan zalantzak sortzen ditu. Izan ere, sarritan ez dira aparteko gastuak egiten, diru sarreretan ziurtasunik ez dagoelako. Arazoak sor daitezke, aurreikuspen batzuekin jokatzeko bada eta laguntzak urte amaieran murrizten badira” (Berria, 2005-10-11: 3).

Agerraldi hartan, beste bi eskaera nabarmendu ziren: milioi bat euro gehiago jartzeko idatzizkoentzat hurrengo deialdian, 2006koan, “urterik urtera, kostuak etengabe handitzen direlako, gero eta baliabide gutxiago dugu euskarazko hedabideek gure jarduna garatzeko” (Berria, 2005-10-11: 2) eta aldi berean, euskarazko irratien, ikus-entzunezkoen eta Internet bidezko hedabideen eskariak ere aintzat hartzeko: “Euskarazko prentsa idatziko eragileok egiten ditugun eskariak eta bestelako hedabideek egiten dituztenak osagarriak dira, eta lan egingo dugu jasoak izan daitezen” (Berria, 2005-10-11: 2).

Baliabide ekonomiko gehiago eskatzearen oinarrian bi arrazoi zeuden: lehena, kostuak urtetik urtera handituz zihoazela, eta bigarrena, urterik urtera gero eta idatziko hedabide gehiago aurkezten zela laguntza-deialdira eta, ondorioz, baliabide ekonomiko bertsuak gehiagoren artean banatu behar zituztela. 2003ko deialdian, eguneroko prentsa eta aldizkako inprimatuentzat jarritako 3.300.000 euroak 59 hedabideri esleitu zitzaizkien, eta bi urtera, 2005eko deialdian, multzo horretakoentzat ipinitako 3.280.000 euroak 67 hedabideren artean banatu ziren⁶⁹¹.

abenduaren 1ean argitaratu zen EHAAn). Agerraldi hartan esandakoekin bat egin zuten euskarazko 44 hedabide inprimatuk.

⁶⁹⁰ .- 2005, 2006, 2009, 2010 eta 2011ko deialdietan ebazpena ez da lehen seihilekoan izango, gainontzeko urteetan (2007, 2008, 2012 eta 2013an) ordea bai. 2005-2013 epealdian, ordaintzeta ez zen inoiz lehen seihilekoan egin.

⁶⁹¹ .- Urtez urteko diru-baliabideen eta jasotzaileen bilakaeraren datu zehatzak lan honen “*Hedabideak*” laguntza deialdiaren diru-baliabideen bilakaera izeneko atalean daude.

Diru-poltsa handitzeko eskariak erantzuna izan zuen 2006ko aginduan, baina ez euskarazko inprimatuek eskaturikoaren bidetik. Eusko Jaurlaritzak 950.000 euro gehiagorekin hornitu zuen deialdia, baina igoeraren onuradun nagusiak ez ziren paperezkoak izan, baizik eta zati batean edo osorik emititzen zuten telebistak⁶⁹² eta “nagusiki gaztelania darabilten egunkariek prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak” kategorian⁶⁹³ kokaturiko eskatzaileak. Euskara hutsezkoen kasuan, eguneroko prentsa inprimatuak 148.000 euroko igoera izan zuen aurreikusitako diru-hornikuntzan eta euskara hutsezko aldizkari inprimatuek, berriz, aurreko urteko deialdian baino 89.150 euro gutxiago. Hala ere, gaztelaniazko egunkarien euskara hutsezko gehigarrientzat jarritako dirutik ia erdia haiei egokitu gabe geratu zenez, multzo hartan geratutako soberakina (210.257 euro) aldizkako artean birbanatu zen.

2006an, diru-poltsaren tamainaz ez ezik, horren banaketarako erabilitako irizpideen egokitasunaz eta euskarazko hedabideek burutzen zuten zereginaz ere hitz egin zen. Paperezkoek euskarazko eskaintza indartzeko eta deialdiaren balorazio-irizpideei buruzko hausnarketa partekatua egiteko eskatu zioten Jaurlaritzari. Miren Azkarate Kultura sailburuak euskarazko hedabideentzako laguntzen estrategikotasuna aitortu zuen 2006ko agindua kaleratu baino hiru hilabete lehenago, baina zera gaineratu zuen: “estrategikoak dira, era berean, helduak euskalduntzeko diru laguntzak, euskara sustatzeko dituen diru laguntzak. Estrategikoak dira bai, baina beste alor batzuk ere estrategikoak dira, eta guztion artean aurkitu behar da oreka” (Berria, 2006-02-04: 14). Orduan Hizkuntza Politikarako sailburuordea zen Patxi Baztarrikak, berriz, “jartzen diren diru kopuruak ez dira eskasak” zioen deialdia argitaratu eta egun batzuetara⁶⁹⁴, eta ondokoa gaineratzen zuen:

⁶⁹² .- 2005eko deialdian 150.000 euro jarri ziren hauentzat, 2006koan 500.00 euro. 2005ean lau telebista izan ziren onuradunak: euskara hutsez ari ziren *Ttipi-ttapa telebista*, *Goiena telebista eta Xaloa telebista* eta ebazpenak zioen bezala, “partez baino ez” euskaraz ari zen *Durango TB*. Hurrengo urtean, 2006an, berriz, sei telebista izan ziren laguntzen onuradunak: euskara hutsez ari ziren *Ttipi-ttapa telebista*, *Goierri telebista*, *Goiena telebista (GOITB)*, *Oizmendi telebista*, *Zarauzko telebista (ZTB)* eta *Xaloa telebista*.

⁶⁹³ .- 2005eko deialdian ez zegoen multzo hau, 2006koan 507.650 euro aurreikusi ziren horientzat. Partida horretatik, behin betiko esleipena egin eta gero, 297.393 euro egokitu zitzaizkien.

⁶⁹⁴ .- Diru-laguntza deialdia 2006ko maiatzaren 29ko EHAAk kaleratu zen eta Patxi Baztarrikari egindako elkarrizketa ekainaren 6an argitaratu zen *Berria* egunkarian.

“Gogoeta eta galderak egin behar ditugu hedabideen arloan ere, irakurlearen ikuspuntutik: euskal irakurleen nahiak eta espektatibak asetzeko produktu egokiak egiten ari al gara? Euskal irakurleen aniztasunari modu egokian erantzuten dioten produktuak egiten ari al gara? Diru laguntzekin zerikusirik ez duten eta egiten ari garen lanarekin zerikusia duen galdera asko daude. Okerra da euskalgintzarentzat etengabe irudikatzea diru publikoena dela euskarazko hedabideen arazo nagusia. Gizarteak jakin behar du hemen ez dagoela hedabide bakar bat ere diru laguntza publiko garrantzitsu bat ez duena. Eta hala izan behar du. Hori ez da opari bat” (Berria, 2006-06-07: 14).

Aipatu gogoeta mamitzen joateko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko hedabideei buruzko hainbat ikerketa egiteari ekin zion. Lehenengoa, 2006ko *Euskarazko Hedabideak* izenekoa da. Bertan, euskara hutsean edo ia osorik euskaraz ari ziren hedabideen (egunkariak, aldizkariak, irratiak, telebistak eta Internet bidezkoak) inguruko azterketa⁶⁹⁵ burutu zen. 184 hedabide⁶⁹⁶ aztertu zituzten guztira. Lanak helburu bikoitza zuen: euskarazko hedabideak zenbatek kontsumitzen zituzten eta kontsumitzaileen profila zein zen ezagutzea. Euskarazko idatzizkoei dagokienez, horien kontsumitzaileek ondoko ezaugarriak zituzten:

“Gaztea (16-34 urte), gizona (nahiz eta emakumezkoak ere %40tik gora izan), goi mailako ikasketak dituen (tokiko aldizkariaren kasuan ez) gipuzkoarra eta hirugarren gune soziolinguistikokoan⁶⁹⁷ bizi dena(...) Euskarazko hedabide idatzien irakurleak etxean ikasi du euskara. (...) oro har, erraztasun handiagoa du gaztelaniaz irakurtzeko, batez ere

⁶⁹⁵ .- Lanean Euskal Autonomia Erkidegoan euskara hutsean edo ia osorik euskaraz ari ziren egunkariak, aldizkariak, irratiak, telebistak eta Internet bidezko hedabideak hartu ziren ikerketa. Azterketaren unibertsoa 16 urte edo gehiagoko EAEko euskaldunek eta ia euskaldunek osatu zuten eta hori zehazteko 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua hartu zuten kontuan; ondorioz, 613.200 lagunek osatu zuten unibertsoa. Laginari dagokionez, 4.000 inkesta egin ziren guztira, eskualdeka banatuta. Landa-lana telefono bidez egin zen 2005eko abenduan.

⁶⁹⁶ .- Gehienak, 125, aldizkariak ziren, eta horrez gain 9 egunkari, 21 irrati, 8 telebista eta Internet bidezko 31 hedabide.

⁶⁹⁷ .- Hirugarren gune soziolinguistikokoan euskaldunak biztanleen %50-%80 dira. Testuan esandakoak salbuespen bat zeukan, Bizkaiko Uribe Kostako UK aldizkariaren irakurlearen profila: aldizkari horren irakurle ia guztiak lehen gune soziolinguistikokoak (euskaldunak biztanleen %20 baino gutxiago) edo bigarrenekoak zirelako (euskaldunak biztanleen %20-%50 bitartean), eta gainera, %66ren lehen hizkuntza gaztelania zen.

tokiko aldizkarien eta egunkarien irakurleak. Hala ere, errazago hitz egiten du euskaraz gaztelaniaz baino” (Euskarazko Hedabideak, 2006: 65-66).

Kontsumitzaileen zenbatekoei erreparatuz, berriz, emaitzen arabera 99.100 pertsonak irakurri zuten bezperan egunkariren bat eta 118.500 pertsonak irakurri zuten 2006ko “Hedabideak” deialdian diru-laguntza jaso zuen aldizkariren baten⁶⁹⁸ azken zenbakia. Diru-laguntzarik jaso ez zuten aldizkariak ere kontuan hartu ezker, irakurleen kopuruak zertxobait gora egiten zuen: 140.000 pertsonak irakurria zuten euskarazko aldizkariren baten azken zenbakia. Hortaz, kontsumitzaile potentzial guztietatik; hots, ikerketa burutu zen urtean, EAEn bizi ziren 16 urtetik gorako 613.200 euskaldun edo ia euskaldunetatik %16,2k kontsumitzen zuen euskarazko egunkariren bat eta %19,3k – %22,8k⁶⁹⁹ euskarazko aldizkariren bat.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lehen lan harekin hasitako bideak segida izan zuen 2007an eta 2008an. Bi urteotakoak dira *Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa (2007)*, *Euskarazko komunikabideen polikontsumoari buruzko azterlana (2007)*, *Euskarazko komunikabideak erabiltzeko eragingarriak eta eragozpenak (2007)* eta *Euskal Hedabideak EAEn (2008)*. Horien guztien emaitzek⁷⁰⁰ agerian utzi zuten euskarazko hedabideek oro har, irismen txikia zutela, merkatu potentzialaren zati txiki batera baino ez zirela heltzen, harrerarik onena Gipuzkoan zutela eta, idatzizkoen kasuan, bi eragozpen nagusi zirela euskarazkoak kontsumitzeko: ohitura falta eta irakurtzeko eta ulertzeko erraztasun eza.

Bitartean, 2007ko “Hedabideak” deialdiak aurreko urtean baino 626.500 euro gehiago bideratu zituen inprimatuen multzora; hau da, %16,3ko hazkundera. 2007koak ordura arteko diru-partidarik handiena eskaini zuen euskarazko hedabideentzat,

⁶⁹⁸ .- *Euskarazko Hedabideak* txostenean aztertu zituzten 125 aldizkarien zerrendan, 2006ko deialdian diru-laguntza jaso zuten euskarazko zortzi aldizkari falta dira: *BAT soziolinguistika aldizkaria*, *Karmel*, *Uztaro*, *Aisia biziz aldizkaria*, *Gazteberri*, *Xabiroi komikia*, *Ipurbeltz* eta *Euskal Herriko Natura aldizkaria*. Horrez gain, zerrenda horretan ez daude EAetik kanpo, hau da, Nafarroan eta Iparraldean argitaratzen ziren aldizkariak eta 2006 urtean horietako batek, Iparraldeko *Herria* aldizkariak ere izan zuen diru-laguntza.

⁶⁹⁹ .- Lehen portzentajea, %19,3 diru-laguntza jaso zuten aldizkarien irakurleak oinarritzat hartuta ateratzen da, bigarrena (%22,8) berriz, aldizkari guztien irakurleak (laguntza jaso zutenak zein laguntzarik gabe ari zirenak) kontuan hartuta.

⁷⁰⁰ .- Aipaturiko lau lanen emaitzak zehatz-mehatz landuta daude ikerketa honek euskarazko hedabideen kontsumoaren bilakaera azaltzeko propio osatu den *Idatzizko hedabideen kontsumoa* izeneko atalean.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

5.575.000 euro idatzizko, ikus-entzunezko eta Internet bidezkoentzat (%17,4ko hazkundera 2006ko deialdiarekin alderatuta). Horietatik 4.473.200 euro hedabide inprimatuentzat izan ziren, hau da, diru-baliabide guztien %80,2. Ondorioz, salbuespen gutxi batzuk kenduta⁷⁰¹, euskarazko inprimatu guztiek jaso zuten aurreko urtean baino diru gehiago. 2007an guztira 65 hedabide inprimaturi esleitu zitzaizkien laguntza; 2006an, berriz, 64 izan ziren jasotzaileak.

Beste horrenbeste gertatu zen 2008an. Diru-baliabideei begiratuta, deialdia 2007koaren kopia hutsa izan zen, eta esleipenei begiratuta, idatzizko hedabide bat gehiagori (66) egokitu zitzaion. Urte hartan, gainera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Euskara hedabideetan* izeneko lana osatu zuen. Horretarako jardun profesional eta sentiberatasun ideologiko-politiko anitzeko hamazazpi adituren gogoetak bildu zituzten; horietako gehienak euskarazko hedabideen mundua bertatik bertara ezagutzen zutenak ziren⁷⁰². Egindako ekarpenekin landu zen sintesi-txostenak euskarazko prentsarena sektore atomizatua dela baieztatzen du eta hala izateak “eragina duela berez eskasak diren errentagarritasun zein baliabideetan”. (*Euskara hedabideetan*, 2008: 29). Era berean, tokian tokikoak euskararen normalizazioaren ikuspuntutik ekarri duen aurrerapena azpimarratzen da, “beste inola nekez erakartzen den euskaldun asko eta asko hurbildu da euskarazko informazioaren irakurketaren mundura” (*Euskara hedabideetan*, 2008: 31). Bestalde, administrazioaren laguntzei buruz adituek adierazitakoetatik⁷⁰³ ondoko sintesia aurkezten du lanak:

⁷⁰¹ .- Ondoko sei hedabideei esleitu zitzaizkien 2006an baino diru gutxiago: *Irutxuloko Hitza* (aurreko urtean baino 3 euro gutxiago), *Euskal Herriko Natura*, *Hemen*, *Aiurri Beterri-Buruntzako astekaria*, *Uztarrria* eta *Karmel*. Beste hiru aldizkariri 2006ko diru-kopuru berbera esleitu zitzaizkien: *Egan literatur aldizkaria*, *Drogeteniturrri* eta *UK Uribe Kostako aldizkaria*.

⁷⁰² .- Txostengileak: Unai Agirre, Kike Amonarriz, Iban Arantzabal, Inazio Arregi, Nerea Azurmendi, Jose Inazio Basterretxea, Julian Beloki, Allande Boutin, Aingeru Epaltza, Joxe Mari Irazusta, Mikel Irizar, Karmen Irizar, Odile Krutzeta, Martxelo Otamendi, Jon Unanue, Iñaki Zubizarreta eta Bingen Zupiria. Horiei hamabost galdera egin zitzaizkien, besteak beste euskarazko prentsaren egoerari buruz, administrazioetik lehenetsi beharrekoen buruz eta kontsumitzaile gehiago lortzeko egin beharrekoen inguruan.

⁷⁰³ .- Txostenaren lanketan parte hartu zuten adituei ondoko galderak luzatu zitzaizkien: Zertarako (zein kontzeptutan, alegia) eman beharko lituzke laguntza, bultzada eta babes administrazioak? Nola uztartu merkatuan lehiatu beharra (eta, beraz, lehiatzeko moduko produktua izatea eta lehiatzen jakitea) eta administrazioaren laguntza, laguntza morrontza bihur ez dadin? Diru-laguntzak jasotzeko denbora

“Askoren ustez, laguntzak **emaitzekin**⁷⁰⁴ lotu beharko lirateke nolabait. Hau da, egin daitekeena eta egin nahi dena hedabideekin adostu eta administrazioak parte bat ordainduko luke nolabaiteko baldintza edota bi aldeko konpromiso batzuen pean.

Horretarako, batetik, administrazioak, **neurtzeko gailu estandarrek** behar ditu. Neurtu egin behar da hedabide zehatz baten arrakasta eta horren arabera, besteak beste, lagundu. Honela, hedabideen kalitatea neurtzeko ahalegin berezia egin behar da; kalitatea, denboran zehar hobea eta arrazoizko kostukoa dela ulertuta.

Finan, administrazioak neurgarriak diren **adierazleak** identifikatu eta martxan jarri behar ditu. Izan ere, euskaraz egite soila diruz lagundu beharrekoa izan bada ere, etorkizunera begira euskarazko produktu konpetitibo eta kalitatezkoak bultzatu behar dira administrazioetik.

Bestalde, zenbaiten ustez, gastu edo laguntza kontzeptuetatik **inbertsio** kontzeptuetara igaro behar da. Eta hortaz, finantziazioa beste era batera ulertu behar litzateke. Honela, esaterako, merkatu-ikerketek izugarritzko garrantzia dute; baita beste hizkuntza minorizatueta arrakasta duten formatuen inguruko azterlanek, etab.

Hots, **dirulaguntza hutsetatik haratagoko estrategiak** bultzatu behar dira: merkatu ikerketak, I+Grako laguntzak, etabar, eta baita sustapena eta banaketa laguntzeko partidak ere (azken batean, gero eta garrantzi zein pisu handiagoa baitute erdal hedabideetan hauek guztiek ere).

Hori horrela, aipatu da aurrekontuak diseinatu eta dirulaguntzak esleitzerakoan kontuan hartu beharko liratekeela, batetik, langileen egoera ekonomikoa (soldata duinak bermatu; segurtasun eta ongizate ekonomikoa), eta, bestetik, teknologia eta berrikuntza diruz lagundu” (Euskara hedabideetan, 2008: 35-36).

Hortaz, euskaraz ekoizten delako diru-laguntzak banatzetik, adierazle zehatzen bidez neurtu daitezkeen emaitzen arabera inbertsioak egitera igaro beharko litzatekeela proposatu zen. Ikuspegi berritzailea da, hedabideentzako diru-laguntzen inguruko iritzia eman zuten aditu-multzo baten ekarpenetatik ondorioztatuko planteamendu bezala lehen aldiz publikoki plazaratzen zelako. Ordura arte, aipatu proposamena idatziz jarri zuen banakako ahotsen artean zegoen *Goiena* ikus-entzunezkoen zuzendariarena, Iban Arantzabalena. *Euskara hedabideetan* lana argitaratu zen sasoi berekoak dira Arantzabalek idatzitako lerro hauek:

mugatu beharko al litzateke, esaterako ikusi arte kontsumitzaileek onarpena ematen dioten ala ez produktu bati?

⁷⁰⁴.- Negritaz jasotakoak hala daude, jatorrizko dokumentuan ere negritaz ageri direlako.

“Ba egia esan, diru-laguntzak emaitzekin lotzearen aldekoa naiz eta irakurle-entzule-ikusle kopurua aintzat hartu beharra dagoela uste dut. Administrazioak pausoa emango balu sektorea ere berrantolatu egin beharko litzateke.(...) Denon diruak administratu behar dituenak argi izan beharko luke hilabetean behin 1.000 edo 15.000 biztanleko herri batendako agerkari bat den lagundu beharrekoa edo agerkari hori proiektu sendoago baten parte izateko lagundu behar duen, agerkari hori proiektu komunikatibo oso egiteko lagundu behar duen. Herri aldizkariak bihurtu beharko genituzke eskualdeko aldizkari eta are argiagoa dirudi herri telebisten kasuak (lizentziek derrigortuko dutena, zoriez)” (BAT soziolinguistika aldizkaria, 2008(3): 105).

Adierazitakotik abiatuta, egindako lana; hots, ekoiztutako produktua neurtzearen alde agertzen zen eta neurketa bikoitza izan beharko litzatekeela zioen; batetik, hedabideek egindakoa, eta bestetik, aurrekoarekin batera, administrazioak burutu beharrekoa:

“Ez gabiltza ondo tokiko aldizkari, telebista, irrati zein webguneok egiten duguna ez badugu neurtzen, ez badiogu zenbakirik jartzen egiten dugunari, adierazleak ez baditugu finkatzen, ez badugu egunak joan ahala aurrera edo atzera egiten dihardugun jakiten. Gure lana ezin da amitu aldizkaria buzoian utzita edo ordubeteko telebista saio bat emanda. Jakin behar dugu hartzaileak zer pentsatzen duen gutaz, ea zein den hartzailea, nora ari garen heltzen, zein den gure penetrazio-maila gure hartzaile potentzialen artean, ia publizitatean gora egiten dugun edo ez ... Gure bezeroak (irakurleak, publizitatea jartzen dutenak...) aintzat hartutako produktuak egiten dihardugun edo ez jakin behar dugu. Kalitateaz mintzo garenean aldagai hauek ezinbestean izan behar ditugu buruan. Esan dut gure lana ez litzatekeela amaitu behar produktuak egin eta ematea hutsarekin, baina administrazioen lana? Administrazioen lana amaitzen al da dirua ematearekin? Administrazioak hedabideekin elkarlanean neurketa sistemak garatu beharko lituzke. Jakin beharko luke kontsumitzen den hedabide bati dirua ematen diharduen edo hedabide horiek ez duten kontsumitzaileen babesik. Edo akaso bezero gutxi izan arren ere diruz lagundu beharreko hainbat proiektu daude eta beharrezkoak direla arrazoi daiteke, baina jarri behar dira neurgailuak, derrigor. Hedabideondako ere akuilu izango dira eta administrazioarendako lagungarri izan daitezke gu guztion diruak zelan kudeatu jakiteko” (BAT soziolinguistika aldizkaria, 2008(3): 112).

Ikuspegiak ikuspegi, iritziak iritzi eta txostenak txosten, hurrengo urteetan ez da hedabideentzako diru-laguntza deialdiaren edukietan, bereziki esleipenak egiteko orduan erabilitako irizpideetan eta ebazpen-prozeduran aldaketa nabarmenik egingo. Bitartean, garai hartan sektore ekonomiko guztiak gogor astintzen ari zen krisiak prentsari ere eragin zion, eta hainbatetan⁷⁰⁵ egoerari aurre egiteko erabakiak hartu beharrean izan ziren. Horren adibide argia Euskararen Komunikazio Taldeak⁷⁰⁶ (EKT) *Berría* egunkariako irakurleei Gabon bezperan zuzenduriko gutun publikoa. Bertan, 2009ari begira taldearen emaitza negatiboa izatea espero zutela aitortu, eta egoera horretan gauzatuko zituzten neurrien berri ematen zuten. Lehena “Administrazio Kontseiluak erabaki du krisi garai hauetan tira egin behar dela aurreko urteetan sortutako erreserbetatik” (Berría, 2008-12-23: 4), eta horri esker, EKTk 2009an galera bat bere gain hartzeko moduko aurrekontua prestatu zuen; bestetik, gastuak murrizteko plan zabala prestatu zuten, eta plan horrek, komunikabideei dagokienez, ondorio handiak izango zituen egunkarian:

“(…) batetik, BERRIA egunkarian, zeina asteartean eta asteazkenean 8 orri gutxiagorekin argitaratuko den –informazio orokorreko 48 orrialde izango ditu-; bestetik, Matrakak gazteen gehigarrian, inprimatzeari utziko baitzaio, besteak beste gazteek paperean baino Interneten gehiago jarraitzen dituztelako hedabideak ere” (Berría, 2008-12-23: 4).

Eta hirugarrena lanpostuei lotutakoa izan zen, 2009an ez zen egingo lan-itunean adostutako igoera; beraz, aurreko urteko soldatarekin jarraitu zuten, KPI eguneratu gabe eta igoerarik gabe.

⁷⁰⁵ .- Pare bat aipatzearen: *Busturialdeko Hitza* eta *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* egunkariak dagoeneko urte bat lehenago, 2007an sei egunetan kaleratetik bost egunetan kaleratzeko erabakia hartu zuten, lehenak urtearen hasieratik eta bigarrenak maiatzetik aurrera.

⁷⁰⁶ .- EKT *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta gero sortu zuten euskarazko komunikazio-eremua zabaldu eta aberasteko helburuarekin. Betebehar ezberdineko sei enpresa hartzen ditu bere barne: Euskal Editorea enpresa *Berría* argitaratzeaz arduratzen da, Iragarri enpresa publizitatea lortzeaz, Etxeraino enpresa *Berría* eta *Hitzak* harpidedunei euren etxeetara helarazteaz, Bertako Hedabideak izeneko enpresak eskualdeetako hedabideak sortu eta garatzeko lan egiten du, Jarduna enpresak administrazio lanak egiten ditu eta Ehuntzen enpresa Interneteko edizioaren kudeaketaz arduratzen da.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

5.3.5.2. KRISIAREN ZIZTADATIK, AURRERA BEGIRAKO DIAGNOSTIKO ETA ALDARRIKAPENETARA

Hurrengo urteak, 2009ak, argi-ilunak izan zituen euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorean⁷⁰⁷. Administrazioak horientzat bideraturiko diru-baliabideei dagokionez, inoizko diru kopururik handiena jarri zuen euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko: 5.725.000 euro guztira. Hortaz, zenbait hedabidetan dagoeneko otsoari belarriak ikusten hasiak baziren ere, Jaurlaritzak 2009an ezarri zituen diru-partidetan oraindik ez zegoen krisiaren seinalerik. Diru-poltsaren hazkundera, hala ere, deialdira lehen aldiz aurkeztu zitezkeen gaztelaniazko egunkariak kaleraturiko erreferentzia-orrialdeei⁷⁰⁸ zuzenduriko diruari lotzen zitzaion oso-osorik. Izan ere, gainontzeko hedabide-multzoetara⁷⁰⁹ aurreko urteko kopuru berberak bideratu ziren. Eta diru-laguntza jaso zuten hedabideen kopuruari begiratuta ere, urte oparoena izan zen 2009a. Guztira 122 hedabideri esleitu zitzairen laguntza, horietatik 75 inprimatuak.⁷¹⁰

Bestalde, bada aipatu beharreko kontu garrantzitsu bat: 2009ko diru-laguntzen ebazpena kaleratu zenerako, sozialistek gobernatzen zuten EAE⁷¹¹, alderdi popularraren babesarekin. Gobernu berriak ez zuen inolako aldaketarik egin 2010eko diru-laguntza deialdian, baina bai laguntza horien kudeaketaz arduratzen zen Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzan. Ramon Etxezarretak dimisioa eman zuen⁷¹², eta haren

⁷⁰⁷ .- Martxoan *Behe Bidasoko Hitza* sortu zen, baina abenduan *Geu Gasteiz* aldizkariak, Araban euskara hutsez kaleratutako argitalpen bakarrenetarikoak, atek itxi zituen.

⁷⁰⁸ .- C2 azpi-multzoa: nagusiki gaztelania darabilten egunkarietako euskarazko erreferentzia-orrialdeak.

⁷⁰⁹ .- Egunkariak, aldizkariak, nagusiki gaztelania darabilten egunkariak kaleratutako euskara hutsezko gehigarriak, irratiak, telebistak eta Internet bidezko hedabideak eta berri-agentziak.

⁷¹⁰ .- Euskara hutsezko egunkariak: 9, euskara hutsezko aldizkariak: 59, nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduetako euskara hutsezko gehigarriak: 3, eta nagusiki gaztelania darabilten egunkarietako euskarazko erreferentzia-orrialdeak: 4 (*El País*, *Diario de Noticias de Álava*, *Deia* eta *Noticias de Gipuzkoa*).

⁷¹¹ .- Patxi López lehendakari sozialista maiatzean heldu zen Ajuria Eneara. 2009ko diru-laguntzen deialdia, aurreko urteko abenduan argitaratu zen eta esleipenak jasotzen zituen ebazpena, berriz, 2009ko irailaren 23ko EHAAn argitaratu zen. Ebazpena, oraindik Hizkuntza Politikarako sailburuorde zen Ramon Etxezarretak sinatu zuen.

⁷¹² .- Etxezarretak ez zuen dimisiorako arrazoi zehatzik eman, "deseroso" zegoela adierazi zuen, besterik ez.

ordez, Lurdes Auzmendi izendatu zuten sailburuorde⁷¹³. Deialdia berriz, arestian esan bezala, aurreko urtekoaren kopia hutsa izan zela baieztatu daiteke, diru-baliabide, baldintza, ebazpen zein gainontzeko prozedura guztiei dagokienez. Urte hartan 116 hedabidek jaso zuten diru-laguntza, horietatik 69 idatzizkoak⁷¹⁴, eta horien artean aipatzekoa da *Hernaniko Kronika*, euskaraz egunero kaleratutako prentsaren arloan aitzindari izandako hedabideak hamargarren urteurrena bete zuen eta.

2010ean, hedabideek positibotzat jo zuten eta eskertu ere eskertu zuten diru-baliabideei eusteko egindako ahalegina, “are eskertzekoagoa beste instituzioek, Gipuzkoako Foru Aldundiak adibidez, aurtan bertan euskarazko hedabideentzako diru sailak jaitsi egin dituela ikusirik⁷¹⁵” (Berria, 2010-11-20: 14). Baina kezka ere agertu zuten esleipenean aurrekontu txikiko hainbat aldizkarik, tokikoak zein espezializatuak, aurreko urtean baino diru gutxiago jaso zutelako⁷¹⁶.

Hortaz, 2011. urteari begira euskarazko hedabideen izaera estrategikoa kontuan hartzeko eskatu zuten berriro. Eskaera *Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua*⁷¹⁷ izenburuko editorial bateratuan plazaratu zuten. Ekonomikoki sektore garrantzitsua zirela adierazi zuten, 600 langiletik gora eta 400.000 kontsumitzaileekin, eta instituzioengandik sostengu eta babes handiagoa nahi zutela aldarrikatu zuten,

“Edozelako gizarte modernoren orainean, edozein kulturaren geroan, giltzarri da hedabideen zeregina. Ez da hori ukatuko duenik, eta hala ebazten da behin eta berriz erakunde publiko eta alderdi politiko

⁷¹³ .- Izendapena 2010eko martxoaren 30ean egin zen.

⁷¹⁴ .- Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua: 9; euskara hutsezko aldizkari inprimatuak: 55; nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak: 3, eta nagusiki gaztelania darabilten egunkarietako euskarazko erreferentzia-orrialdeak: 2 (*El Diario Vasco* eta *Noticias de Gipuzkoa*).

⁷¹⁵ .- Gipuzkoako Foru Aldundia 2010ean EAJren esku zegoen. Dagoeneko aurretik ikusi dugun Siadeco enpresak Eusko Jaurlaritzaren enkarguz egindako ikerketa baten arabera, 2010ean Gipuzkoako Foru Aldundiak 801.740 euro jarri zituen hedabideentzat, 2009an, berriz, 861.650 euro eta 2008an, 1.133.020 euro.

⁷¹⁶ .- Diru gutxiago esleitu zitzaizen ondokoei: *Ekonomiaren KZ, Gazteon KZ, Euskal Herriko Natura, HEMEN, +/-18 Presta ezazu zure etorkizuna, Gazteberri, Elhuyar, BAT soziolinguistika aldizkaria, Jakin, Uztaro, Bertsolari, Egan literatur aldizkaria, Aldaketa 16, Aiurri, Danbolin, Karkara, Mailope, Pulunpe, Drogeteniturrri, Kalaputxi, Baleike, Prest!, Bertón, Pil-pilean, Otamotz, Nabarra* eta *Lanabesa* aldizkaria.

⁷¹⁷ .- *Berria* egunkaria, 2011-02-01: 2. orrialdea. Artikulua *Berriak* eta euskarazko beste 60 hedabidek sinatu zuten. *Berria* egunkariaz gain, *Jakin* aldizkariak ere argitaratu zuen 2011. urteko urtarrila-otsaileko aldizkarian (182 zenbakia).

gehienen euskarari buruzko gogoeta eta plan estrategikoetan. Printzipio eta helburuetan letra larriz aitortzen dute garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat publikoak diren hedabideei dagokionez". (Berria, 2011-02-01: 2 edota Jakin 182: 9-10)

Aurreko paragrafoaren azken hitzetan izen abizenekin jarrita ez badago ere, bada publikoak ez diren euskarazko hedabideak sarritan agertu duten kexaren arrastoa; EITBra bideratutako aurrekontuei lotuta dagoen kexa, hain zuzen. Artikuluan bertan diru publikoen beste erabilera bat ere aipatuko da, azpiegitura handietara bideratutakoa:

"Adibidez, *Euskal Y* tren proiektuaren kilometro bakar batek erakunde publikoetatik publikoak ez diren euskarazko hedabide guztietara lau urtean bideratzen dena balio du. Errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna berma dezake. Euskarazko komunikazioak merezi du tamainako apustua, eta euskal kulturak ere bai" (Berria, 2011-02-01:2 edota jakin 182: 11).

Hitz horiekin bukatu zuten gogoeta sinatzaileek. Eta hamabost egunera agerraldi publikoa egin zuten euren egoeraren larritasuna jakinaraziz⁷¹⁸ eta administrazio publikoei sektorea indartzeko politika berria eta sostengu ekonomikoa eskatuz, "merkatu parametro hutsetan bizirik irauterik ez dutelako eta funtzio publiko ordezkazina betetzen dutelako" (Berria, 2011-02-16: 2). Agerraldi hartan, ordezkatuta zeuden 86 hedabidek ordura arteko laguntza-sistema aldatu beharra zegoela adierazi zuten, "kasurik onenean prekarietatean bizirik irauteko aukera eskaintzen digutelako laguntzek, garatzeko aukerari hegoak moztuz" (Berria, 2011-02-16: 3). Horrekin batera gaineratu zuten publizitate instituzionalaren kudeaketa egiteko orduan, erakundeek "baztertuta edo ahaztuta eduki dituzte euskarazko komunikabideak publizitatean inbertitzeko orduan" (Berria, 2011-02-16: 3), eta arlo horretan benetako pausoak

⁷¹⁸ .- Horren adibide pare bat emateko: *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak* eta *Busturialdeko Hitzak*, egoera ekonomikoak itota, bat egin behar izan zuten; hau da, 2010ean bi egunkari izatetik bat izatera igaro ziren halabeharrez 2011n. Bestetik Nafarroako *Guaixe* astekariak "Sakandar bat euro bat. 20.000 baietz!" kanpaina jarri zuen martxan hedabideak zuen zorrari aurre egiteko. (Laguntza espero zuten Nafarroako Gobernutik eta hainbat inbertsio egin zituzten, baina ez zuten halakorik jaso eta ondorioz, diru-zuloarekin amaitu zuten urtea).

emateko eskatu zieten instituzio publikoei. Hedabideek, euren aldetik, prest azaldu ziren hainbat ekimen elkarrekin egiteko.

Baina 2011ko diru-laguntza deialdiak ez zien albiste onik ekarriko euskara hutsean inprimatuei. Batetik, urtearen hondarretan ebatzi zelako⁷¹⁹, eta baliabideei erreparatuta, aurrekoa baino makalagoa izan zelako: 5.480.000 euro guztira. Euskara hutsezko eguneroko egunkariak eta euskara hutsezko aldizkariak ez zuten murrizketarik izan⁷²⁰, bai ordea irratiek, telebistek eta nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak. Internet bidezko hedabideen multzoarentzat jarritako diru-partida ia bikoiztu⁷²¹ egin zen.

Egoera horrela, 2011ko ebazpena sinatu zen egunaren bezperan, 2011ko abenduaren 1ean, euskarazko hedabideek hurrengo deialdiari, 2012koari begira jarritako mezu bateratua idatzi zuten berriro ere, *Euskarazko hedabideek erakundeen konpromisoa behar dute* izenburupean. Bederatzi hilabete lehenago kaleratutakoaren eduki bertsua zeraman mezuak. “2012. urtea ate-joka dugu, eta erakundeetatik sektoreari begira jasotzen ari garen mezuak kezkarriak dira, ikaratzeko modukoak”. Idatzian, Nafarroako Gobernuak⁷²², Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek 2012rako aurrekontuetan hedabideentzat aurreikusitakoaren errepassoa egiten dute⁷²³, sektorearen etorkizuna euren lanaren baitan dagoela eta bide hori lantzen ari direla aitortzen dute, eta azkenik, eskaera plazaratzen dute: “erakundeei publikoki eskatzen diegu gaiaren garrantzia kontuan hartzeko eta aurrekontuak ahalik eta gehien egokitzeko, diru sailak handituz”. (Berria, 2011-12-02: 12 edota Jakin 187: 9-11)

Mezu hura argitaratu eta hogeiei egunera sinatu zuen Blanca Urgell Kultura sailburuak 2012ko euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntza deialdi berria. Hedabideek aurreikusi eta iragarri bezala, murrizketak zekartzan jasotzaile izan zitezkeen hedabide guztientzat, Internet bidezko hedabideak

⁷¹⁹ .- Ebazpena abenduaren 2koa da, eta Gabon Zahar bezperan argitaratu zen EHAAn.

⁷²⁰ .- Egunkarientzat 2010ean baino 3.480 euro gutxiago jarri ziren, eta aldizkariarentzat, 2010ean baino 48.880 euro gehiago.

⁷²¹ .- Internet bidezko hedabideen multzoak 197.800 euro izan zituen 2010ean, 2011n, berriz, 380.000 euro.

⁷²² .- Nafarroako Gobernuak 2012an euskarazko hedabideei diru-laguntzarik ez ematea erabaki zuen.

⁷²³ .- Une horretan eskura zituzten datuen arabera, ia denetan aurreikusten ziren murrizketak. Salbuespena Bizkaiko Foru Aldundia zen (erakunde honetan 47.500 euro gehiago).

eta berri-agentziak osaturiko multzoarentzat izan ezik⁷²⁴. Eta inprimatuen kasuan, 2006ko deialdiak jarritako diru-kopurua baino urriagoa jartzen zuen deialdiak. Hau da, aztergai den 2005-2013 epealdi osoan, 2005ekoak bakarrik izan ziren 2012koak baino txikiagoak⁷²⁵. Gainera, aurreko bost urteetan diru-laguntzak jasotzeko aukera izan zuen inprimatuen multzo bat desagertu egingo da deialditik; nagusiki gaztelania zerabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrien multzoa, hain zuzen. Horrek haserrea eragin zuen zenbaitengan, esaterako *Ortzadar* gehigarria kaleratzen zuen⁷²⁶ Diario de Noticias taldean:

“En materia de euskera, las previsiones del Gobierno vasco no dejan lugar a la esperanza, por mucho que López se afanase en cantar a Xabier Lete el día del euskera para mostrar su compromiso con la lengua vasca, los números cantan”(Deia, 2012-01-08: 20).

Testuinguru hartan, Lurdes Auzmendi Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak “mozketak ez dira orain garrantzitsuena, baizik eta daukagunarekin eutsi ahal izatea, euskararen berreskuratzean eta normalizazioan etenik ez egitea” zioen, *Berría* egunkariari eskainitako elkarrizketa zabalean.⁷²⁷ Sailburuordeak estrategikotasuna aitortzen zien euskarazko hedabideei hizkuntzaren garapenean aurrera egiteko zereginen, baina aldi berean, lehentasunak ezartzearen alde agertu zen:

“Beharrezkoa al da Gipuzkoan 27 herri aldizkariri eustea? Ez da nahitaezkoa. Kalitatezko medioak behar ditugu, eta behar dugu euskararen presentzia indartsu bat hedabide guztietan, baina horretarako ez da nahitaezkoa dugun guztia. Beste era batera antolatzeke esan diogu sektoreari, eta ulertu dute. Horretan ari dira, eta espero dut 2013rako beste panorama bat edukitzea. Denbora

⁷²⁴ .- Aginduak 485.000 euroko diru-partida ezartzen zuen E multzoko hedabideentzat, hau da, Internet bidezko hedabideak eta berri-agentziak, aurreko urtean baino 105.000 euro gehiago.

⁷²⁵ .- 2012ko deialdiak 1.820.000 euro jartzen zituen euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatuarentzat, 2005ean baino 120.000 euro gehiago, baina gainontzeko urte guztietan baino gutxiago. Euskara hutsezko aldizkariei dagokienez, 2012koak 1.841.500 euro jarri zituen multzo honentzat, 2005ean baino 261.000 euro gehiago, eta gainontzeko urte guztietan baino nabarmen gutxiago.

⁷²⁶ .- Orduetik, “Hedabideak” deialdiko diru-laguntzarik izan ez duen arren, *Ortzadar* euskarazko gehigarria larunbatero kaleratzen da.

⁷²⁷ .- *Berría*, 2012-02-25: 12-13.

daramagu euskalgintzan elkarlanean aurkeztutako proiektuak lehenesten. Herri eta auzo bakoitzak ezin du bere ekimenekin jarraitu; ez gara horrenbeste”(Berria, 2012-02-25: 12).

Hitz horiek kaleratu eta egun batzuetara, euskarazko hedabideak jendaurrean agertu ziren berriro. Ordukoan, Auzmendik aipaturiko “beste era batera antolatze” bidean lanean ari zirela baieztatu zuten, elkarlana sustatzea baitzen etorkizunera begira euskarazko hedabideen sektoreak ezarritako lehentasunetariko bat. “Bai gure artean, bai instituzioekin. Garai zailei bakarka baino taldean hobeto egiten zaie aurre” zioten (Berria, 2012-3-14: 2). Horrekin batera, beste lau erronken berri eman zuten: hedabideen behatoki bat sortzea, sektoreko langileen lan-baldintzak hobetzea, ikerketan, kalitatean eta lehiakortasunean urratsak egitea, eta azkenik, diru-laguntzak hitzarmen bidez jasotzea. “Sektorearen inbertsioak eta garapena sustatu behar dituzte erakunde publikoek” aldarrikatu zuten.

2012koak garai latzak izan ziren euskarazko hedabideentzat oro har, eta horien barruan nola ez, paperezkoentzat. Bakanen batek, krisiari aurre egin ezinik, argitaratzeari utzi zion⁷²⁸, eta gehienek neurri gogorrak hartu behar izan zituzten diru-sarreraren jaitsierari aurre egiteko. Horien artean, adibidez, *Argia* aldizkaria eta *Berria* egunkaria. Lehenengoaren kasuan, soldatak jaitsi zituzten, “gerrikoa estutu beharrak, esate baterako, 2012ko soldatetan %14ko beherakada egitera behartu gaitu. Gure lehen helburua lanpostuei eustea da, eta gure produktuei eta beren kalitateari ere bai” (Argia, 2012-07-29: 3). Eta *Berria* egunkarian ere beste horrenbeste; ordura arte ardatz izandako salmenta, publizitate eta diru-laguntza bidezko sarrerak etengabe beherantz zihoazela eta galerak pilatzen ari zirela ikusirik⁷²⁹, egoera bideratzen

⁷²⁸ .- *Nabarra* aldizkariak 2011ko abenduan itxi zituen ateak.

⁷²⁹ .- Akziodunen bilera egin osteko egunean, 2012ko ekainaren 3an argitaratutako egunkarian irakurri zitekeen egoera ekonomikoa zein zen: “Salmentek behera egin dute, ez kopuru handitan baina bai etengabe. Harpidedun kopurua jaitsi egin da; egun 9.000 ditugu, duela bost urte baino %10 gutxiago. Publizitate fakturazioari dagokionez, 2008tik hona jaitsiera handia izan dugu: 2009 eta 2010 artean %33 jaitsi zen, beraz, 1.400.000 euro gutxiago sartu ziren. 2011n ez ziren jaitsi aurreko urteko kopuruak, baina 2012an berriro oso nabarmen egin du behera, eta lehen bost hilabeteetan iaz baino %25 gutxiago sartu da publizitate bidetik –alegia, 200.000 euro gutxiago-. Gainera, 2012an Eusko Jaurlaritzak hedabideetara bideratutako dirua %10 gutxitu da, eta guk ere, diru laguntzen kontzeptuan, gutxiago jasoko dugu”(Berria, 2012-06-3: 2).

ahalegintzeko erabakiak hartu behar izan zituzten: “Tristea, zaila eta gogorra da, baina, proiektuari eutsi nahi badiogu, ezinbestekoa” adierazi zuen Berria taldeko lehendakariak, Joxean Lizarribarrek, akziodunen urteroko batzarrean⁷³⁰. Hiru mailatan oinarritutako proposamena landu eta jarri zuen zuzendaritzak mahai gainean:

1.- Batetik, eskainitako produktuari dagokionez, lehentasuna eustea eta hobetzea zen,

“Bakarrik asteburueta gehigarrietan ken ditzakegu orrialde batzuk, baina oinarrian garrantzitsua da egungo eskaintzari eutsi eta digitalean are eta eskaintza zabal eta hobea egitea”(Berria, 2012-06-03: 3).

2.- Bigarrenik, diru-sarreretan eragiteko ekimen berritzaileak gauzatu. Horretarako tresna ziren aurreko urtetik martxan zegoen BERRIALaguna komunitatea eta borondatezko diru ekarpenak jasotzeko *Zure zitzada behar dugu* izeneko kanpaina⁷³¹. “BERRIALagun bakoitzak, ekarpen txiki bat eginez, bideragarritasunean lagundu eta bideak zabalduko dizkio proiektuari” (Berria, 2012-06-03: 3)

3.- Eta hirugarrenik, “gastuak are gehiago gutxitzeko plana egin behar da derrigorrez” zioen zuzendaritzak. Lanpostuei eragiten zien honako proposamena egin zuten:

“Hamabi lanpostu gutxitzea BERRIA taldeko egituran (250 langile daude gaur egun taldean); 2012ko lansari bati uko egitea; eta 2013rako soldata jaitsiera bideratzea. Neurri gogorrak dira, kontuan hartuta kaleratzeak eta azken urtetan izoztuta egondako soldatak jaitea dakartelako, baina egoerak behartutakoak diru sarrerak handitzea lortzen ez dugun bitartean”(Berria, 2012-06-03: 3).

Garai zailak, neurri gogorrak: etorkizuna ziurtatzeko izenburuko artikulua luze batekin azaltzen zuen egoera eta erabakien nondik norakoa Joanmari Larrarte Berria taldeko kontseilari ordezkariak akziodunen batzarra egin osteko egunkarian.

⁷³⁰ .- Akziodunen batzarra Andoainen egin zen 2012ko ekainaren 2an.

⁷³¹ .- Neurrien berri eman zuten egunean ia 3.000 lagunek jarria zuten dirua jada.

Bitartean, Jaurlaritzaren diru-laguntzen jasotzaile multzorik zabalenean, herri-aldizkarien esparruan ere lanean ari ziren. Udaberrian TOKIKOM⁷³² eratu eta Mikel Irizar izendatu zuten presidente. “Toki hedabideak sakabanatuta jaio ziren, eta horrela iraun dute orain arte, baina, egungo egoeratik indartuta irtetekotan, elkarlana behar da” (Berria, 2012-06-07: 28). Tokikoen bilgune berriak hiru zeregin hartu zituen bere gain:

“(…) esparru komunak kudeatzea (publizitate bateratua, garapen teknologikoa, trebakuntza...), solaskidetza sendoa eraikitzea sektorearekin eta erakundeekin, eta integrazio posiblea lantzea eta adostea” (Berria, 2012-06-07: 28).

Diru-laguntza publikoen inguruan, berriz, publikoak ez diren hedabideen sektore osoan bezala, hitzarmen- edo itun-sistemara joatearen aldeko apustua egiten zuten TOKIKOMETik “gure egoera egonkortu dadin”. Honelaxe argudiatzen zuen Irizarrek:

“Baina erakundeak uzkertuta daude krisiaren aurrean, diru faltaren beldur. Eta guk planteatzen diegu zikloaren kontra jokatzeko hedabideen kasuan, diru gehiagorekin erantzutea egoerari, sekulako aukera dagoelako elkarlanaren pertikarekin jauzi dezente bat egin eta erdal hedabideek ateratzen diguten koska murrizteko” (Berria, 2012-06-07: 28).

Eskaerak eskaera eta ekimenak ekimen, iragarrita zegoen bezala, 2012ko ebazpenak diru gutxiago jasotzea ekarri zuen ia hedabide inprimatu guztientzat⁷³³. Bistakoa zen hala gertatuko zela kontuan hartuta zein zen deialdiaren abiapuntua; hots, aginduan ezarritako poltsak diru gutxiago zeukan denen artean banatzeko. Ondorioz, euskarazko hedabide ez publikoen sektoreak berriro kaleratu zuen iritzia *Beste behin, murrizketak hedabideentzat* izenburuko artikulu baten bidez. Bertan

⁷³² .- TOKIKOM bezalako bilgunea eratzeko ideia ia hamarkada bat lehenago sortu zen, 2003an. Topaguneak *Tokiko hedabideak etorkizunari* begira izenburuarekin antolatutako jardunaldietan entzun ziren horri buruzko proposamenak.

⁷³³ .- Ebazpenak laguntzak esleitu zizkion idatzizko 67 hedabideri. Horietatik seiren kasuan bakarrik jaso zuten aurreko deialdian baino zertxobait gehiago: egunkarien multzoan *Urola Kostako Hitza* eta *Oarso Bidasoko Hitza* (gehikuntza ez da 2.000 eurora iristen), aldizkariaren kasuan *Aizu!*, *Gaztezulo*, *Xabiroi komikia* eta *Ttipi-ttapa* (azken hau da aurreko urtearekin alderatuta hobekuntza nabarmenena izan zuena, 12.000 eurokoa, *Gaztezulo* aldizkariak 5.000 euro inguru gehiago jaso zituen, eta gainontzekoen kasuan, igoera ez da 2.000 eurora iristen). Zazpigarren baten kasuan, *BAT soziolinguistika aldizkarian*, 2011n jasotako diru-kopuru bera izan zuen 2012ko ebazpenean: 20.000 euro.

gogora ekarri zuten zeintzuk ziren euren eskaera zehatzak:

“(…) diru laguntza politika aldatu eta hitzarmen eredia kaleratu dezatela, sektorean inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publizitate instituzionalaren banaketan hizkuntz irizpideak pisu handiagoa izan dezatela” (Berria, 2012-07-13: 9 edota Jakin 191: 10).

Horrez gain, funtsezkotzat jo zuten instituzioekin batera, gogoeta estrategiko konpartitua egitea. Baieztapen honekin bukatzen da aipatu artikulua: “guztion artean erabaki dezagun nolako sektorea behar dugun, eta, behin hori eginda, beharrezko baliabideekin horni dezagun”(Berria, 2012-07-13: 9 edota Jakin 191: 11)

Sozialistek ordurako galdua zuten alderdi popularraren babes, eta uda betean, Patxi López lehendakariak urrirako deitu zituen X. legealdirako hauteskundeak. Agintaldiaren azken egunetan, Lurdes Auzmendik, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak egindako lanaren balorazioa agertu zuen:

“Hasiera hasieratik hizkuntza politika oso zaindua izan da gobernu honetan. Euskararen alorreko aurrerapausoak ez dira egoeraren araberakoak; ibilbide luzeko kontua da, eta funtsean ezin da geratu. Hasieratik esan genuen: euskararen normalizazioan zein da nahitaezko sarea? Bost diru laguntza deialdi handi dauzkagu⁷³⁴; azken batean gizartea baita bere egin behar duena hizkuntza politika. Bost deialdi nagusi horietan oso mozketak txikiak izan dira agintaldi osoan, gure helburua zelako sare horiek sendo jarrai zezatela lanean. Mozketak egin behar izan ditugu, tamalez, denok bezala, baina ez dira hain handiak izan” (Berria, 2012-10-2: 10).

Hedabideen arloan egindakoari dagokionez, Auzmendik horiekin izandako harreman emankorrak goraiatu eta, aldi berean, aurretik beste inoiz kaleratutako iritzia nabarmendu zuen; hedabide sendoak izatearen garrantzia eta beharra, hain zuzen: “Sektoreari askotan esan diot: behar ditugu hedabide sendoak, indartsuak. Ez dut esaten horrenbeste herri aldizkari interesagarriak ez direnik, baina nahitaezkoak ez dira. Dena ez da nahitaezkoa euskararen izenean”(Berria, 2012-10-02: 10).

⁷³⁴ .- Ondoko diru-laguntza deialdiez ari da: Hedabideak, IKT, Euskalgintza, EBPN/ESEP eta Lanhitz.

EAJK irabazi zituen urriko hauteskundeak. Iñigo Urkullu lehendakaria eta gobernu berria oraindik osatu gabe zegoela, herri ekimenetik sortutako euskarazko hedabide ez publikoek Hekimen, Euskal Hedabideen Elkarte, aurkeztu zuten⁷³⁵. Elkartearen zeregina hedabideek ahots bateratuz aurrera egitea eta euskararen hiztun komunitatearentzako eremu komunikatiboa sendotzea. Hori lortzeko, Jaurlaritza berriarekin “Serio berba egin beharko dugu diru laguntzez, publizitate instituzionalaz, mintzakidetzaz iraunkorraz” aipatzen zuen Iban Arantzabalek, elkartearen lehen zuzendariak⁷³⁶.

Hekimen eratu zuten hilabete berean, Euskararen Legeak 30 urte bete zituen. Hausnarketarako eta aldarrikapenerako⁷³⁷ parada izan zen. Hiru hamarkadetan euskarazko hedabideek izandako bilakaera eta hizkuntzaren normalizazioan egindako ekarpena ere aipagai izan zen han eta hemen. Bidean izandako gorabehera eta ikamiken gaintetik, lorpen bikoitza azpimarratu zen: batetik, euskaraz kazetaritza egin daitekeela, egunerokoa ere bai, demostratu da, eta bestetik, euskarazko hedabideak inoiz baino hartzaile gehiagorengana iristea. Hala ere, sektorearen ikuspegitik, hedabideen eskaintza zabalagoa, osatuagoa izan zitekeen, erakundearen parte hartzea sendoagoa izan balitz eta hedabideek euskararen normalizazioan duten estrategikotasunari egokitutako laguntza eta babesa eman izan balitzaie.

Ikerketa honek objektutzat hartu duen azken urtea, 2013a, aurrekoa joandakoaren bidetik hasi zen euskarazko hedabide inprimatuentzat. Zenbait, krisiak gogor astinduta, maiztasunari eutsi ezinik ibili ziren. *Irutxuloko Hitzak*, esaterako, egunkaria izateari utzi eta astekari bihurtu zen; horrez gain, askok diru-galerak

⁷³⁵ .- Aurkezpena Donostiako Koldo Mitxelena kulturgunean egin zuten 2012ko azaroaren 21ean. Elkartearen izenak herri mugimenduetatik sortutako hedabideak direla adierazi nahi zuen, eta horregatik jarri zioten herri hitzetik hartutako hizkia.

⁷³⁶ .- Hekimen elkartearen lehen zuzendaritza zortzi kidek osatu zuten, beste horrenbeste hedabide edota enpresa ordezkatzeko zutenak: *Argia*, *Berria*, *Euskal Irratiak*, *Gaur 8*, *Gazteberri*, *Hamaika Telebista*, *TOKIKOM* eta *Xaloe Telebista*. Iban Arantzabal TOKIKOMen ordezkari gisa izendatu zuten zuzendari zereginetan bi urterako. Hekimen elkarteak 52 kideekin hasi zuen ibilbidea.

⁷³⁷ .- Kontseiluak deituta *Euskaraz bizi nahi dut* lelopeko manifestazioa egin zen Donostian abenduaren 1ean. Milaka lagunek bat egin zuten deialdiarekin, eta antolatzaileek euskararen berreskurapen-prozesuari heltzeko elkarlana eskaini zuten arduradun politikoei.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

zituzten, adibidez, *Berria* taldeak 150.000 euroko galerekin⁷³⁸ itxi zuen 2012a, eta okerrena, zenbait idatzizkok agur esan zuten, *Nora* hilabetekariaren kasu⁷³⁹.

Hala ere, beti erakutsi bezala, sektoreak gogoetari eta etorkizunera begirako asmoak eta erronkak diseinatu eta aurkezteari ekin zion. Euskal esparru komunikatiboari buruzko hausnarketa⁷⁴⁰ burutu zen. “Euskarazko hedabideen beharraren kontzientzia zabaltzen jarraitu behar dugu, herritarrak gure proiektuetan inplikatu” zioen Iban Arregi, *Berria* taldeko ordezkariak⁷⁴¹ eta erakunde publikoei egotzi zien oraindik euskarazko eta erdarazko hedabideen artean zegoen aldea. “Azken 30 urteetan egoera ez irauli izanaren erantzukizunaren zati handi bat haiena da. Hizkuntza irizpideak kontuan hartuta, ez dute neurri kualitatiborik hartu”(Berria, 2013-01-12: 3).

Gara egunkariko zuzendariak, Iñaki Sotok, berriz, hedabideen finantziazioan izandako klientelismoarekin bukatzeko eskatu zuen: “Beti eskatu dugu klientelismoa amaitzeko, instituzioek ez finantzatzea ildo politikoaren arabera” (Berria, 2013-01-12: 3).

Etorkizunera begira, lehentasunezko zat jarri zituzten paperezko hedabideak teknologia berrien garapenak ekarritako negozio-eredu berrira egokitzea, hedabideen arteko loturak, sinergiak sustatzea eta euskarazko hedabideei bultzada emateko berariazko politikak garatzea.

Sektoretik ez ezik Eusko Jaurlaritzatik ere pertsona, erronka eta asmo berrituekin ekin zitzaion urteari. Iñigo Urkulluk gidatutako gobernua osatu berri zegoen, eta lau urteko etenaldiaren ostean Patxi Baztarrikak hartu zuen berriro EAEko

⁷³⁸ .- Taldearen bideragarritasun ekonomikoa kolokan zegoela ikusita, hainbat neurri erabaki zituzten sarrerak handitzeko. Horien artean BERRIALagun gehiago erakartzea, beraien borondatezko ekarpenen bidez 600.000 euro biltzeko.

⁷³⁹ .- *Nora* hilabetekariak 58 zenbaki kaleratu zituen guztira. Lehen zenbakia 2008ko urtarrilaren 31n argitaratu zen. *Berria* egunkariko harpidedunek doan hartzen zuten baina bere kasa ere erosi zitekeen.

⁷⁴⁰ .- Joxemi Zumalabereren heriotzaren 20. urteurrenean antolatutako jardunaldietan parte hartu zuten *Berria* egunkariko Iban Arregik, *Gara* egunkariko Iñaki Soto zuzendariak, Gorka Julio Interneten adituak, eta Lorea Agirre kazetariak eta handik gutxira *Jakin* aldizkariko zuzendari izango zenak. Jardunaldia Donostiako Koldo Mitxelena kulturgunean burutu zen 2013ko urtarrilaren 11n.

⁷⁴¹ .- Jardunaldia egin eta bost hilabetera, ekainean, *Berria* taldeko Administrazio Kontseilua eraberritu zen eta Iban Arregi izendatu zuten *Berria* taldeko kontseilari-ordezkari.

hizkuntza-politikaren ardura. Legebiltzarrean egin beharreko lehen agerraldiaren bezperan, Jaurlaritzak hizkuntza-politikari sail guztietan zehar-lerro izaera emango ziola aurreratu zuen Baztarririk. Era berean, 30 urte beteta zituen Euskararen Legearen balioa azpimarratu eta legeak erakutsitako adostasun-bidean garatzearen alde agertu zen. Hedabideei dagokienez, 2005-2009 legealdian behin baino gehiagotan plazaratutako ikuspegia berretsi zuen:

“Guztiok gure buruari galdetu behar diogu zer egin dezakeen bakoitzak. Herri aginteek euskarazko hedabideei babesa ematen jarraitu behar dute, laguntzen eta kontsumoa sustatzen. Hedabideek eurek ere beren buruari galdetu behar diote –galdetzen diote– kontsumitzaile potentzialak erreal bihurtzeko zer egin dezaketen. Gero eta gehiago dira euskarazko hedabideak kontsumitu ditzaketenak. Aztertu beharko da zer egin litekeen horiek erakartzeko”(Berria, 2013-02-10: 9).

Elkarrizketa hartan euskarazko hedabideek eskaturiko hitzarmen bidezko laguntzei buruzkoa izan zen azkenaurreko galdera. Honakoa sailburuordearen erantzuna: “Hitz egin beharko da horretaz. Ateak irekita dauzkat. Baina ez dakit itunena den bidea. Ulertzen dut egonkortasunaren interesa eta helburua egotea. Aztertu beharko da hori nola lor daitekeen”(Berria, 2013-02-10: 9).

2013an ez zen hitzarmen bidezko laguntzarik gauzatu. Prozedura ohikoa izan zen; hots, urteroko diru-laguntza deialdi bidezkoa. Agindua, sektoreak sarri eskatu bezala eta beste urte batzuekin alderatuta, goiz argitaratu zen, maiatzean. Edukiari erreparatuta, 2012koaren ia kopia hutsa da. Bi berrikuntza baino ez zituen ekarri: batetik, lehen aldiz interesdunek bide elektronikoak erabiltzeko aukera izan zuten prozeduraren izapideak eskatzeko, kontsultatzeko eta egiteko; bestetik, esleitutako laguntzen ordainketari zegokionez, berau bi zatitan egingo zela ezartzen zuen aginduak. Lehenengoan diru-laguntza osoaren %65 ordainduko zitzaien, onarpena jasotzen zen egunean hasi eta 2 hilabeteko epean, eta bigarren ordainketan, hala bazegokion, gainerako %35a ordainduko zen, diru-laguntza justifikatzeko agiri guztiak jaso eta ontzat eman ondoren, hilabeteko epean. Edozein kasutan, bigarren ordainketa 2014. urtean egingo zela ezartzen zuen aginduak. Txarrerako aldaketa izan zen hedabideen ikuspuntutik; izan ere, 2012koan bi zatitan ordaindu arren, lehenengoan

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

hedabideek esleitutako laguntza osoaren %80 jaso zuten, eta bigarren ordainketa, %20arena ez zen hurrengo urterako utzi.

Arestian baieztatu bezala, Eusko Jaurlaritzak 2012ko diru-partida berberari eutsi⁷⁴² zion hedabideentzako deialdian, 4.875.000 euro guztira. Horietatik 3.661.500 euro inprimatuentzat ziren. Ebazpena udan etorri zen⁷⁴³. Eguneroko prentsaren kasuan, 2012an baino diru gehiago esleitu zitzairen eskaera egin zuten guztiei, baina ez beraientzako partida handitu zelako, baizik eta banatzeko jasotzaile gutxiago zeudelako: 8 izan ziren 2012an eta 6 ordea 2013an⁷⁴⁴. Aldizkarien multzoari dagokionez, aurreko urteko jasotzaile-kopuru berbera izan zen, 59 guztira, eta jaso zuten laguntzei erreparatuta, salbuespenak salbuespen⁷⁴⁵, ez zen gorabehera handirik izan: gehiago jaso zutenek zertxobait egin zuten gora, eta beste horrenbeste gertatu zen gutxiago esleitu zitzaizaien kasuan.

Hekimen, Euskal Hedabideen Elkartetik begi onez ikusi zuten Jaurlaritzak diru-sailari eutsi izana, baina sektoreak itunen sistema nahi eta behar zuela berretsi zuen Alberto Barandiaran elkarteko zuzendariak⁷⁴⁶: “Epe luzeko proiektuak behar ditugu, estrategikoak eta urte askorakoak. Ezin gara egon urtero ezustekoa jasotzeko zain, laguntzak igo edo jaitsi egingo diren”(Berria, 2013-09-04: 20).

Uda aurretik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Jaurlaritzaren X. legealdirako lan-ildo nagusiak aurkeztu zituen Euskararen Aholku Batzordeko kideen

⁷⁴² .- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatutako gainontzeko lau laguntza deialdietan, Euskalgintza, Lanhitz, EBPN/ESEP eta IKT deialdietan, murrizketak izan ziren 2013an.

⁷⁴³ .- Ebazpena 2013ko uztailaren 23koa da, eta EHAAn abuztuaren 28an argitaratu zen.

⁷⁴⁴ .- *Oarso Bidasoko Hitzak* eta *Iruxuloko Hitzak* egunerokoen multzoan egoteari utzi zioten urte honetan. Asteroko maiztasunarekin kaleratzen hasi ziren, hortaz aldizkari inprimatuen multzora igaro ziren.

⁷⁴⁵ .- *Egan literatur aldizkariari*, esaterako, 2012koaren herena esleitu zitzaion (2012an 8.663 euro eta 2013an 3.011 euro), *BAT soziolinguistika aldizkaria* eta *Ttipi-ttapa* aldizkariari 5.000 euro gutxiago (lehenari 20.000 euro esleitu zioten 2012an, eta bigarrenari 54.400 euro) eta *Kalaputxi* eta *Artzape* aldizkariak laguntzarik gabe geratu ziren, bien kasuan esleitu beharrekoa deialdiak ezarritako gutxieneko kantitatearen azpitik zegoelako, 2.000 euroren azpitik alegia.

⁷⁴⁶ .- Alberto Barandiaran kazetaria otsailean hasi zen Hekimeneko zuzendari zereginetan.

aurrean⁷⁴⁷. Guztira 25 lan-ildo, eta horietatik bi (17.a eta 23.a) zuzen-zuzenean esku artean dugun ikerketa objektuari lotuak:

“17. Euskararen presentzia hedabideetan oro har eta euskarazko hedabideak bultzatu eta sendotzen ahaleginduko gara. Euskarazko eskaintza orotarikoa bultzatu behar da hedabideetan, arreta berezia jarritz haur eta gazteentzako produktu espezifikokoak sortu eta zabaltzen.
23. Diru-laguntza deialdiak lan-ildo hauetara egokitzeko ahalegina egingo dugu, irizpide nagusizat eraginkortasuna hartuz” (EAB, 2013-06-28: 6-7).

Aipatu lan-ildoak mamitzen joateko, hedabideen arloko ikerketa bideratzea aurreikusitua zen; hots, azterlan berezi bat egitea euskarazko hedabideen erabiltzaileen eta publiko potentzialaren komunikazio-beharrak ezagutzeko, euskararen eskualde desberdinak kontuan hartuz. Aipatu lan-ildoak eta gainontzekoak gauzatzeko, Euskararen Aholku Batzordeak 2013-2014 jardura bi eginkizun nagusitara bideratzea onartu zuen: batetik, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) garapenera jarraipena, eta bestetik, euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berri eta bateratze bidean jarri.

2013 urteko azken hiruhilekoan, euskaraz idatzizkoak berri ugariaren sorburu bilakatu ziren, batzuetan gaziak: *Aiurri* aldizkariak⁷⁴⁸ hilabeteko lan-etena egin behar izan zuen estualdi ekonomikoak eraginda, eta *Le Journal du Pays Basque* egunkaria itxi egin zuten hamabi urteko ibilbidearen ondoren. Baina izan ziren gozoak ere: *Tolosaldeko Ataria* izeneko proiektu komunikatibo berria jarri zuten martxan⁷⁴⁹, Araban *Aiaraldea press* hamabostekaria abiatu zuten⁷⁵⁰, *Lea-Artibai eta Mutrikuko*

⁷⁴⁷.- Bilera Gasteizen egin zen 2013ko ekainaren 28an. Bertan izan ziren, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Cristina Uriarte, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua. Han adierazitakoa ez dago publikatuta.

⁷⁴⁸.- *Aiurrik* astekaria, hamabostekaria eta webgunea ditu. Hiruretan egin zuten lan-etena urriaren 21etik azaroaren 20ra arte.

⁷⁴⁹.- *Tolosaldeko Ataria* hiru hedabideren bat egitetik eratu zen: *Tolosaldeko Hitza*, *Galtzaundi* aldizkaria eta *Txolarre* irratia. 2013ko urriaren 4tik aurrera, idatzizko biak kazeta bakarra bihurtu ziren: *Ataria*. Irratiari zegokionez, *Ataria irratia*. Proiektu berriaren helburua Tolosaldeko 28 herrietako erreferentzia bihurtzea.

⁷⁵⁰.- Lehen alea 2013ko urriaren 3an kaleratu zuen Aiaraldea Komunikazio Leihoa elkarteak. Kasu honetan ezohiko bidea jarraitu zuten; izan ere, aurretik martxan jarri zituzten *Aiaraldea.com* ataria (2010) eta Internet bidezko irratia (2012).

Hitzak hamargarren urteurrena bete zuen⁷⁵¹, *Berria* taldeak lau urtean jarraian balantze ekonomiko negatiboa izan ondoren, langileen gastuak estutu eta 2013a galerarik gabe ixtea lortu zuen. Bestalde, tokiko euskal hedabideak batzen zituen elkarteak, TOKIKOMek, *Euskal hedabideen etxea* izenburuko gogoeta-txosten sakona aurkeztu zuen⁷⁵². Lanean euskarazko tokiko hedabideen egoera deskribatu eta etorkizunerako ikuspegia lantzen da. Bakarka aritzeko joerak gainditu eta lankidetzaren alde egin behar dela dio txostenak, “baliabideak askozaz modu eraginkorragoan erabil daitezke eta erabili behar dira, hizkuntza komunitatearen mesedetan eta diru publikoaren etekin soziala areagotzea helburu” (TOKIKOM, 2013: 19). Hortaz, tokikoei dagokienez, eskualdeko integrazioa bultzatzearen aldeko apustua egiten zen, eta hedabide orokorragoei begiratuta⁷⁵³, osagarritasuna jorratzea proposatzen zuten. Bi solairuko etxe batekin irudikatzen zuten batzuen eta besteen arteko uztardura.

“Etxearen beheko solairuan toki komunikabideak leudeke, eskualde eta zonaldeka antolatuta, multimediarako, plataforma beraren gainean saretuta. **Bakoitza bere esparrua lantzen**⁷⁵⁴ beste inor iritsiko ez den punturaino, **euskara prestigiatzen** komunitateko kideei euskaraz emango zaielako dagokien tokia eta garrantzia. Eta **sarea** baliatzen aldiro ez ibiltzeko bolbora asmatzen eta zerotik abiatzen; besteek egindakoari norik berea erantsita edukietan balioa metatzeko; hornidurak, teknologia berriena edota jakinduria partekatzen. Eta goiko solairuan leudeke hedabide orokorrak. Hauen saretzea meheagoa izan daiteke, baina eraginkortasunaren ikuspegitik ezinbestekoa da. Hedabide guztiek dute multimediarako joera eta igurtzi guneak gero eta ugariagoak dira. Euskal hedabideen kasuan lortu behar litzateke igurtzi hori ez izatea gatazkatsua, baizik eta lankidetzazkoa. Ez da asmatu zaharra kontzeptu bat, **lankidetzaren lehiakorra**, adierazteko hainbat egoeretan egon daitekeela lehia konbergente bat zeinetan batek irabazteko ez den derrigorrezkoa besteak galtzea, eta aukera dagoen estrategiak garatzeko bi lehiakideek irabaz dezaten” (TOKIKOM, 2013: 28).

⁷⁵¹ .- 2003ko azaroaren 11n kaleratu zuten lehen zenbakia. 2010ean *Busturialdeko Hitzak* elkartu zitzairen.

⁷⁵² .- Aurkezpena Mondragon Unibertsitatearen Aretxabaletako campusean egin zen 2013ko azaroaren 26an, Gertuko Komunikabideen 1. Jardunaldian. Txostena burutzeko zereginetan Mondragon Unibertsitateko ikerlariak aritu ziren.

⁷⁵³ .- Hedabide orokorrez ari denean, TOKIKOMek era guztietako euskarrietan kaleratzen direnak eta publikoak ere (EITB esaterako), kontuan hartzen ditu.

⁷⁵⁴ .- Jatorrizko testuan negritaz ageri direnak, hemen horrela erreproduzitu dira.

Txostenak negozio- eta finantziario-ereduari ere heltzen zion. Eskainitako datuen arabera, erakunde publikoek (Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek) emandako diru-laguntzek tokiko hedabideen aurrekontuaren %39a hartzen zuten bere gain eta urteroko diru-laguntza sistemak bi aje zituela gogorarazten zuten, hedabideen ordezkariak hamaika aldiz egindako agerraldi eta adierazpenetan azaldutakoak: batetik, prozedura administratibo astuna, eta bestetik, ezegonkortasuna. Gerora begira diru-laguntza sistematik hitzarmenera jauzi egin beharra zegoela zioten *Euskal hedabideen etxea* gogoeta-txostenean:

“Jauzi honekin **erabat aldatzen da finantziario publikoaren ikuspegia.**⁷⁵⁵ Orain artekoa izan da nagusiki bi alde guztiz autonomoen arteko harremana: emaileak bere kabuz erabaki ditzake diru boltsak eta banaketarako irizpideak; eta hartzaileak egokitu ohi ditu bere txostenak irizpide horietara baina ez horrenbeste jarduna, eta jarraitu du bere kabuz erabakiak hartzen. Urte amaieran gehienetan aski da agiri kontableak aurkeztea eta akats larririk ez egin izana agindutako dirua jasotzeko.

Bere aldetik, **hitzarmenak eskatzen du alde aurretiko lan handia.** Ezer baino lehen, elkar aitortze esplizitoa. Gero, ikuspegiak partekatzeko dinamika bat abiatzea, mahai egonkor bat eztabaidarako eta lanerako; hirugarren urratsa da ikuspegiak adostu ahala ibilbideak marraztea eta lanak banatzea; laugarrena litzateke ibilbiderako baliabideak finkatzea; eta azken urratsa, hori guztia hitzarmenean jasotzea eta bere zaintzarako alde biko tresna bat jartzea” (Tokikom, 2013: 46).

Harreman-eredu berria proposatzen da beraz, hedabideen eta administrazioaren arteko lankidetzan oinarritua eta arlo ekonomikotik harago gauzatuko dena. Txostenean negritaz idatzita ageri da: “**horretarako ezinbestekoa da alde bien artean konfiantza giroa eraikitzea eta giro hori baliatzea eredu berria adosteko**” (TOKIKOM, 2013: 48). Eredu berria eraikitzen den bitartean, tokikoen ustez, oso lagungarria litzateke ahalik eta azkarren urte anitzeko diru-laguntza deialdietara jotzea. Proposamena aztertzeko prest agertu zen txostenaren aurkezpen ekitaldian egon zen Patxi Baztarrika sailburuordea: “Eraginkortasunari erantzun egokia eman

⁷⁵⁵.- Jatorrizko testuan negritaz ageri direnak, hemen horrela erreproduzitu dira.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

diezaioke urte anitzeko laguntzak. Hori aztertuko dugu, 2015era iristen garenerako aukera hori gauzatzeko moduan egon gaitezen” (Berria, 2013-11-27: 13).

Hortaz, batzuen eta besteen hitzetatik, publikoki esandakoetatik zein txostenetan jasotakoetatik, ondoriozta daiteke 2013an, lan honek ikergaitzat hartu duen azken urtean, euskarazko hedabideen sektorearen jarduna, diru-laguntzak ematen dituen Jaurlaritzarena, eta bereziki bien arteko harremana etapa berri baten atarian izan zitezkeela.

5.3.6. EUSKO JAURLARITZAREN ETA EUSKARAZKO HEDABIDE INPRIMATUEN ARTEKO HARREMANA LABURBILDUTA

Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko prozeduran parte hartu duten bi aktore nagusien arteko harremana aztertu da atal honetan. Eusko Jaurlaritza batetik, eta hedabideen sektorea bestetik. Lan honek, jakina denez, hedabide inprimatuetan jartzen du arreta.

Jaurlaritza diru-laguntzen sustatzaile eta kudeatzaile moduan aritu da; hedabide inprimatuen sektoreak, berriz, rol bikoitza izan duela baieztatu daiteke: laguntzen eskatzaile eta onuradun izan da, eta horrekin batera, deialdian ezinbestekotzat kontsideratu dituzten aldaketen aldarrikatzaile zeregina ere bete du.

EAEko Autonomia Estatutua onartu zenetik 2013ra, Jaurlaritzaren eta euskarazko inprimatuen arteko erlazioak izandako gorabeherak bost etapatan laburbilduta azaldu daitezke:

1.- Autonomia Estatutuaren onarpenetik 1983. urtera. Aktore bien artean garatuko den harremanaren lehen urratsak, abiatzekoak gauzatzen direneko urteak lirateke. Lehen fase honetan prozesua hutsetik hasi zen, diktaduraren ondoren eratu zen Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideak sortzeko zereginari ekin zion, eta lehentasuna ikus-entzunezkoetan jarri zuen. Aldi berean, urte haietan kaleratzen ziren euskarazko aldizkariak, gehienak egoera ekonomiko ezin larriagoan, zorrak itota

zeudenak, diru publikoz laguntzen hasi zen. Ezarritako diru-partidak denen artean banatu ziren, oraindik laguntzak ez zeudelako agindu bidez araututa.

2.- 1984tik euskarazko egunkaria kaleratu arte (1990). Bi kontu azpimarratu daitezke etapa honetatik: batetik, Eusko Jaurlaritzak hedabideentzako diru-laguntzak agindu bidez arautu zituela, aldizkarien zabalkundea handitzeko helburuarekin; bestetik, euskarazko hedabideen eta Jaurlaritzaren arteko harremana mikaztuko duten hainbat gertaera izan zirela. 1986ko udan euskarazko egunkaria kaleratzeko lehen deialdi gorabeheratsua⁷⁵⁶, hilabete batzuetara euskaraz idatzizkoek salaketa eta ezinegona adierazteko sinatu zuten agiria, eta euskarazko egunkariaren sorrera-prozesuan izandako zatiketa eta enfrontamendu-giroa lirateke batzuen eta besteen arteko harreman zailaren erakusgarri.

3.- XX. mendeko azken hamarkada (1991-1999). Etapa honetan eskatima-giroa nagusitu zela esan daiteke. Hemerotekan bildutako materialekin egindako azterketak erakutsi du, hamarraldi honen lehen zatian, Eusko Jaurlaritzaren eta *Euskaldunon Egunkariaren* arteko tirabirek eta horiei emandako irtenbideak monopolizatu zutela arreta publikoa neurri handi batean. Bitartean, idatzizko sektorearen argazkia erabat aldatuko zuen fenomeno gertatu zen: tokian tokiko hedabideen loraldia. Jaurlaritzak, berriz, ordura arte bezala, urteroko deialdi bidez banatu zizkien laguntzak gero eta gehiago ziren aldizkako argitalpenei. Jasotzaileek noizbehinka laguntzei buruzko iritzia jakinarazten zuten, funtsean aurreko etapan adierazitakoak berresteko: diru-baliabideen urritasuna, esleipenak egiteko erabilitako irizpideen desegokitasuna eta epe luzeko politika baten gabezia. Etapa honen azken hiru urtean (1997-1999) Eusko Jaurlaritzak jarritako diru-baliabideak asko handitu zirela erakutsi da, eta hazkundearen arrazoia ere azaldu da. 1997tik aurrera, euskarazko egunkariak ere aukera izan zuen diru-laguntzak eskatzeko, eta ondorengo urteetan hedabide horri esleitu zitzaizkion urtero diru-partidarik handienak.

⁷⁵⁶ .- Deialdi horren babesean *Hemen* eta *Eguna* astegunkariak kaleratu ziren. *Argia* aldizkariak aurkeztu zuen egitasmoa kanpoan geratu zen.

4.- Diru-laguntzaren jasotzaile berriak eta barealdia, 2000-2004. Mende batetik besterako jauzia egin zen etapa honetan sektorearen eta Jaurlaritzaren artekoari dagokionez, barealdi-giroa nagusitu zen. Inprimatuen sektoreak bizitasun handia erakutsi zuen. Bizitasuna eskaintzari begiratuta; horren lekuko hainbat eskualdeetako *Hitzak* egunerokoen sorrera edota tokiko beste hainbat argitalpenena; baina bizitasuna baita sektorearen egoera ahalik eta zehatzen ezagutzeko burutu ziren hausnarketa-ekimenei erreparatuta⁷⁵⁷. Horrekin batera, diru-laguntza deialdiak berrikuntza garrantzitsua izan zuela azaldu da. Ordura arte paperezko hedabideek soilik eskatu zezaketen diru-laguntzak, baina etapa honetan, euskarri berrietara zabalduko da onuradun izateko aukera. 2000. urtetik aurrera onuradun izan daitezke irratiak, telebistak eta on-line argitalpenak. Hala ere, jarritako diru-hornikuntza kontuan hartuta, partidarik handiena beti inprimatuei bideratuko zaie.

5.- Egonkortasuna deialdietan, krisia eta bakoitza bereari eutsiz: 2005-2013 epealdia. Ikerketa honek hartu duen epealdiaren lehen urtean, aldaketa esanguratsua gertatu zen EAEko testuinguru politikoan. Autonomia Estatutua onartu zenetik lehen aldiz, EAJ ez den beste indar politiko batek, Alderdi Sozialistak, kudeatuko ditu Jaurlaritzaren nondik norakoak 2009-2012 bitartean. Baina egindako azterketan erakutsi du gurean inoiz ezagutu gabeko egoera horrek ez zuela ondorioz izan publikoak ez diren euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzetan ezta sektorearen eta administrazioaren arteko harremanen bilakaeran ere. 2005etik 2013ra bitartean, urte biak barne, laguntza-deialdiak egonkortasuna erakutsi zuen, ezarritako helburuei (hedabideak sendotu, garatu eta normalizatu) eta esleipenerako erabilitako irizpideei dagokienez. Diru-hornikuntzari erreparatuta, berriz, deialdiak urterik oparoenak ezagutu zituen (2009 eta 2010). Baina aldi berean, murrizketa-garaia ere izan zela azaldu da, krisi ekonomiko globalak murrizketak ekarri zituelako Jaurlaritzaren aurrekontuetara eta gogor astindu zituelako hedabideenak ere. Zenbait kasutan, hedabideek neurri gogorrak hartu behar izan zituzten, langileei zuzenean eragiterainokoak.

⁷⁵⁷ .- Etapa honetan egingo dira besteak beste *Tokiko hedabideak etorkizunari begira* izeneko jardunaldiak (2003) eta Euskarazko Kazetaritzaren lehen Kongresua (2004).

Azkenik, epealdi honen errebasoan ikusi da Eusko Jaurlaritzaren eta hedabide inprimatuen arteko harremanean laurogeiko hamarkadatik aldiro agertutako kezka eta aldarrikapenak kaleratu zirela berriro. Hedabideek diru-laguntza politika definitu gabea izatea leporatu zioten Jaurlaritzari eta sektorea indartzeko politika eta estrategia berria garatzeko eskatu zioten. Hau da, urteroko deialdietatik epe luzera begirako estrategia, hitzarmen bidez gauzatuko litzatekeenera jauzi egiteko beharra aldarrikatu zuen sektoreak. Aldi berean, euskarazko hedabideek egitura berriak eratu zituzten epealdi honetan⁷⁵⁸, elkarlanean oinarrituta ahots bateratuz ekiteko eta euskararen hitzun komunitatearentzat esparru komunikatiboa sendotzeko. Jaurlaritzaren aldetik, berriz, laguntzen kudeatzaileak jeltzaleak izan zein sozialistak izan, egindako azterketan ikusi da esleitutako diru publikoa emaitzekin lotzearen alde agertu zirela eta hedabideen arrakasta neurtzeko gailu estandarrak eta adierazleak garatzearen beharra azpimarratu zutela behin eta berriro 2005-2013 urteetan. Hots, produktuak euskaraz kaleratze soila diruz laguntzetik euskararentzako produktu konpetitiboak eta kalitatezkoak diruz laguntzera eramango lukeen egoerarako jauzia egin beharra azpimarratu zen administraziotik.

⁷⁵⁸ .- TOKIKOM eta Hekimen.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

5.4. ELKARRIZKETA SAKONEN ANALISIA: EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEN ETA EUSKO JAURLARITZAKO ORDEZKARIEN DISKURTSOAK

Ikerketaren atal metodologikoan azaldu bezala, lanak xedetzat du, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak esleitutako diru-laguntzei buruz ekoiztu edo eraiki diren diskurtso adierazgarriak azalera. Horretarako, elkarrizketa sakonak eta Delphi teknika erabili dira. Aipatu hurrenkera horretan burutu da zeregina, lehenbizi elkarrizketak egin dira, eta horiek bukatu eta sakon aztertu ondoren ekin zaio Delphiari. Hala egin da ez beste barik horrela suertatu delako, baizik eta ezarritako helburuak horrelaxe jokatzeko eskatzen duelako. Hau da, elkarrizketek bi gauzatarako balio izan dute: batetik, euskara hutsezko hedabide inprimatuen esparrua ondo ezagutzen duten pertsonen eta diru-laguntzak kudeatzeko ardura izan duten pertsonen bizipenak, iritziak, testigantza zuzenak jasotzeko, horiek hurbiletik ezagutzeko; eta bigarrenik, bildutako informazio aberatsaren laguntzaz ondorengo Delphi teknika ahalik eta modu egoki eta zorrotzenez prestatzeko. Hortaz, elkarrizketetan bildutako gogoetekin, elkarrizketatuek eraikitako diskurtso esanguratsuekin elikatu da Delphia.

Labur bada ere, gogoratu dozena bat elkarrizketa burutu zirela, eta horiekin esparru diskurtsiboan zeresana izan dezaketen aktore guztien ahotsak jasotzeko ahalegina egin dela. Haiengandik bildutako ekarpenekin hiru azpi-ataletan banatuta dagoen analisia prestatu da:

- 1.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen bilakaera: atal honetan, euskarazko paperezko argitalpenek denboran zehar egin duten ibilbidea, indarguneak eta ahuleziak, kontsumitzaileen aldetik duten harrera edota egun hedabide inprimatuen esparruan produktu berriak kaleratzeko izan daitezkeen aukerak landu dira besteak beste.
- 2.- Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntza deialdia: denbora aldetik atal honi eskaini zitzaion tarterik zabalena elkarrizketetan, berau delako ikerketaren ardatza. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) 2005-2013 bitartean kaleratu ziren

aginduak oinarritzat hartu eta horien ertz guztiak jorratu ziren elkarrizketatuekin. Horrez gain, laguntza-deialdia kudeatu duten administrazioko hiru langileekin izandako aurrez-aurrekoari esker, maila praktikoari lotutako hainbat kontu argitzeko aukera izan zen. Horien ekarpenak ere atal honen barruan sartu eta aurkeztuko dira.

3.- Etorkizunerako zereginak eta erronkak: hirugarren azpi-atalean, hedabideek beraiek zein administrazioak heldu beharrekoen buruz hitz egin zen, baita batzuen eta besteen arteko harremanez eta hedabideen artekoen ere.

“Hedabideak” laguntza-deialdiren inguruko diskurtso adierazgarrien azterketa, arestian aipatutako hiru azpi-ataletan planteatu eta aurkeztuko den arren, jakina da elkarrizketa sakonak dinamikoak direla, eta horren ondorioz, gerta daitekeela gidoiaren atal batean kokatutako gairen baten inguruko hausnarketa gidoiaren beste une edo toki batean agertzea eta garatzea. Ikerketa honetan ere hala jazo da noizean behin. Dena den, analisia modu ordenatuan egitearen mesedetan, hausnarketa bakoitza gidoian aurreikusitako atalean kokatu eta landu da.

5.4.1. EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEN BILAKAERA(Z)

Euskarazko hedabide inprimatuen sektoreak laurogeiko hamarkadatik aurrera egin duen ibilbidea laburbiltzeko orduan, tonu baikorra nabarmentzen da. Elkarrizketatu gehienek lau konturi egiten diote erreferentzia eta horiek azpimarratzen dituzte bereziki: *Arrasate Press* aldizkariak hasitako bidea, euskarazko egunkariaren sorrera, 90eko urteetan gertatu zen loraldia eta tokiko hedabideen bilakaera.

“90etik aurrera batez erre informazio orokorreko hedabideen garapena izan dugu, tokiko zein nazionaletan. Egunkaria eta Arrasate Press sortu, eta handik aurrera batez ere tokikoen garapena”. (E8)⁷⁵⁹

“Hasierako loraldi, loraldia baino gehiago nik esango nuke halako eztanda indiskriminatu moduko bat, irizpide argirik gabekoa, garai hartan ematen zuen hedabide bat argitaratzea nolabait ere talde baten eskubidea zela, eta orduan

⁷⁵⁹ .- Hemendik aurrera, sakoneko elkarrizketetatik hautatutako aipamen bat jartzen den bakoitzean honelaxe identifikatuko da: E hizkia (elkarrizketa hitzaren adierazle) eta dagokion zenbakia. Elkarrizketen fitxa teknikoa ikerketaren *Eranskinak* izeneko atalean dago.

sortzen ziren nik uste planifikaziorik gabe, eta gero, denboraren poderioz ni konturatu naiz behintzat hura ezinbestekoa izan zala edo beharrezkoa izan zala gero gertatu dena gerta zedin, ezta?”. (E4)

“Zertzelada batzuk bota daitezke eta bat izan daiteke, bat argi dago, euskarazko egunkaria daukagu harrezkeroztik ezta? Ebidentzia bat, ordura arte ez geneukan, eta hortik bai, orduan edozein komunikazio esparrurendako eta are gehiago prentsarentzat, funtsezkoa da. Bestea tokiko prentsaren hedapena, hedatzea eta finkatzea 90eko hamarkadan finkatzen da, aurretik dator eredu Arrasate Pressekin eta abar eta Ttipi Ttaparekin nagusiki, baina eztanda eta finkatzea 90ean finkatzen da. Eta hori ere oso garrantzitsua da euskarazko prentsan”. (E7)

“Nik 90ean inpresioa daukat loraldia aipatzen denean aipatzen dela egunkariaren sorreragatik batez ere. Nire ustez egunkariaren sorrerak aldatu zuen erabat euskal hedabideen, euskal komunikabideen sistema, egunkari bat jarri zuelako plazan horrek dakarren guztiarekin: egunero informazio zehatza eta aktualizatua eta Euskal Herri osokoa eta ikuspegi zehatz batekin”. (E12)

Arestian aipatutakoak gauzatzeko orduan, zericusia izan duten bi eratako faktoreei ere erreparatu diete zenbaitek. Batetik diote, euskara hutsezko hedabide inprimatuek egindako ibilbidea ekimenaren eta ausardiaren arteko konbinazioaren emaitza izan dela. Bestetik, aurrekoarekin batera, baina bigarren maila batean, ezinbestekotzat jotzen dute administrazioaren bultzada.

“Euskarazko hedabideetan, euskarazko hedabideek existitzen duten neurrian, guk daukagun tamainu demografikoa kontuan edukiz, existitzen duten neurrian, ez zuten existituko hainbat eta hainbat jenderen ekimen militanterik gabe eta momentu askotan baldintza zailetan lan egiteko jarrerarik gabe, ez zuten existituko. Baina ez zuten existituko jarrera horrekin bakarrik, ez zuten existituko herri erakundeen aldetik egon izan ez balitz, egon den bezala jarrera aktibo bat, jarrera positibo bat, babes efektibo batean, babes eraginkor batean islaturik”. (E11)

“Ekimen indibidual eta norbanako asko dago atzean; administrazioaren bultzada ezinbestekoa izan da, hori gabe ere gaur egun daukagun sistema ez zen egongo. Baina inpresioa daukat, eta beharbada administrazioan ari direnak igual horrekin haserretzen dira, baina nik uste dut ekimen hori inportanteagoa izan dela. Hori ez da administrazioari ezer leporatzea, administrazioa beti ibiltzen da neurri batean gizartearen atzetik ezta?. Administrazioa etorri da babestera jendeak, herri ekimenak edo, sortutako gauzak, eta hala izan da; baina egia da ekimen hori oso inportantea, eta oso interesgarria, eta oso indartsua izan dela. Beste hitz bat nik uste dut ausardia da ere bai ez? jo ni gogoratzen naiz egunkaria sortu zenean oso jende gutxik sinesten zuela, edo

behintzat sinisten zutenak baino gehiago ziren sinisten ez zutenak, eta hala ere jendea ausartu zen, eta bere bizitza profesionala eta askotan pribatua ere sartu zuen hortan, ba hori aurrera eramateko ezta?”. (E12)

Behin balorazio orokorra egin ondoren, elkarrizketatuei egungo egoeran kokatu eta hortik begiratuta denboran zehar izandako irabaziak eta galerak identifikatzeko eskatu zitzaizkien; hau da, zein arlotan egin den aurrera eta zeinetan atzera adierazteko. Profesionaltasuna eta eskaintzaren kantitatea eta kalitatea jarri dituzte ia denek irabazien gordailuan; euskara hutsezko idatzizko hedabideen langileei eta ekoizten duten produktuari loturiko irabaziak hain zuzen:

“Profesionaltasunean nik uste dot orokorrean irabazi dala, akaso honek berak be ekarri dau borondatezko lanaren apaltze apur bat be bai”. (E1)

“Nik uste dot profesionalagoak direla sektoreko danak esango neuke. Lehen fanzinetik gehiago zeukan adibide asko zeuden eta gaur uste dot hori superauta dagoela. Gaur inork ez dau ataratzen ezer fotokopianta, teknikak hobetu dira, teknologiak asko hobetu dau, asko erraztu dau be bai egitea gauzak”. (E2)

“Hobetu dugu kalitatean, hobetu dugu gure presentzian”. (E3)

“Nik uste dut gauza askotan aurreratu dela, ikusten badugu 90eko hamarkadaren hasieran zegoen, sektorea nola zegoen eta nola dagoen gaur egun ba asko ugaltu da produkzioa. Ugaltu da produkzioa, askoz bariatua da gaur egun, askoz gauza gehiago dago aukeratzeko eta askoz kalidade hobegokoa da”. (E12)

Profesionaltasunari eta kalitateari dagokionez, bada ñabarduraren bat egin duenik ere. Horren iritziz, tokikoetan dabilzanek, lanean ari diren medioaren izaera eta ezaugarriak baldintzatuta, aukera gutxiago dute “kazetaritza jasoa egiteko”.

“Arazoa dutena herri-aldizkariak da kazetaritza, hau esan behar dut errespeto guztiarekin, e, kazetaritza jasoa egiteko aukera gutxiago daukazu herri aldizkarietan. Profesionaltasunaren ikuspegi horretatik, motibazio parte hortatik, motibatzeke zela txikiagoa daukazu, oso zela murrizta daukazu luzitzeko zure kazetaritza kapazitatea. Ez nabil balorea kentzen herri-aldizkariari, baina rangoa da... lanerako zelaia, eta luzimendurako zelaia, eta profesionalki zure burua superatzeko eta segitzeko zailagoa da, aukera gutxiago dago luzitzeko. Informazio tipologia horrek dauka kazetaritza tipologia bat hegalak moztuta daukana”. (E3)

Aipatu bi arlotan lortutako irabaziez gain, beste batzuk ere agertu dira elkarrizketetan. Horien artean, badira izaera orokorrekoak, eskaintzari, zabalkundeari, hizkuntzaren garapenari, erakundeekiko harremanei, zein herritarren atxikimenduari loturik daudenak.

“Euskaraz ezer gutxi zegoen lekuan, eskaintza sortu da. Zabalkundea lortu dute, ordainpekoen kasuan ere”. (E8)

“Ez dakit, dezente daude, baina aber kalitatea zeresanik ez, euskarazko kazetaritza hizkuntzaren garapenean ere zeresanik ez, enpresa egituren sendotzean zeresanik ez, erakundeekiko harremanetan, medioen arteko harremanetan, azken finean ezer gutxi egotetik asko egotera gehienetan aurrerakuntza da.(...) Gaur egun atxikimendu gehiago, askoz handiagoa, bai soziala eta bai era guztietakoa. Orduan batzuen ardura bakarrik zan, eta gero lortu zan hori sozializatzea (...) Eta azkenean, pues esango nuke laburtuz, ba denbora horretan lortzen dela euskal gizartean euskal prentsaren presentzia orokortzea. Ordura arte ez zegoen orokortua, pues orokortu egiten da eta beste edozein gizartetan bezala, ez modu berdinean, modu desberdinean baina orokortu egiten da”. (E9)

“Euskaldun kopuru dezenteak dagozan lekuetan danetan dago hedabideren bat, kalba gutxi daukagu mapan. Gero beste kontu bat da intentsitatea, behar besteko erantzuna, batzuetan hilabetekaritxo bat da... Mapan ondo kokatuta gagoz”. (E1)

Azken kasu honetan, esaterako, agerikoa da hitz egiten duena tokikoen esparrura lotzen zaiola eta positiboki baloratzen du zabalkunde geografikoari begiratuta izan duten bilakaera. Baina ez da iritzi berekoa elkarrizketetan parte hartu duen beste bat; honen ikuspegitik zabalkunde geografikoari dagokionez, oraindik ere desoreka handiak dira.

“Deskompensazio izugarriarekin jarraitzen dugu, Araban gabe, Bizkaian zenbat zonatan baita ere gabe eta beste batzutan hor nola edo hala eta Gipuzkoan...bai? Euskararen ezagutzan ez bezala, ze euskararen ezagutzan bai, lurralde guztietan egin da aurrera, eta hedabideetan berriz, hor izugarrizko gabezia dago bai”. (E10)

Jakina denez, euskara hutsezko inprimatuena ezaugarri desberdinak dituzten hedabideak biltzen dituen hedabide-multzoa da, esparru geografiko osoan zabaltzen den egunkaritik hasi eta herri bakar batean banatzen direnetaraino. Hala ere, irabazien

edo aurrerapausoen zerrenda osatzeko orduan ez da apenas desberdintasunik nabarmentzen batzuen eta besteen ordezkariak emandako erantzunen artean.

Azkenik, bada krisi ekonomikoak hedabideen sektorerara ekarri dituen ondorioei guztiz lotuta ageri den aurrerapauso bat, elkarrizketatu askok aipatzen dutena, baina, bereziki, tokikoen ordezkariak azpimarratzen duena: ahaleginak metatzeko garatu den joera, krisiak eraginda garatu den lankidetzarako joera.

“Ahuleziak metatuz ere indarra sortzen dela deskubritu dogu. Hau da, ahul gagozanean ere elkartzeak indarra sortzen dauala.(...) Nik uste dot oin, momentu honetan indargune bat badala lankidetzarako joera, momentu honetan nabarmena dala ta seguru asko krisiak eraginda. Nik momentu batzutan holan pixka bat probokatzearren baina esaten dot zorioneko krisia umil egin gaituelako.(...) Ondiño badagoz hor erresistentziak eta zera, baina momentu honetan dagoen aurrera egiteko borondatea nik ez dot ezagutu, elkarregaz egiteko borondate hori... hori da momentu honetan indargune itzela”. (E1)

Aurreko ekarpenean adierazten den moduan, oso kontuan hartzekoa da elkarlanerako ekimenak krisi ekonomikoak bultzatuta etorri direla; era gordinean esateko, behartuak, derrigor egikaritutakoak izan dira. Hala, argi eta garbi aitortzen dute sektoreko zenbait ordezkariak.

“Krisiak denak bultzatu gaitu gauzak elkarrekin egitera, Tolosan egon da Atariaren prozesua, unifikazio prozesua, baina egin da krisiak eraginda, bestela ez genuen egingo. Oso egoskorrak gara herri honetan, oso baserritarrak gara, bakoitzak bere traktorea nahi du nahiz eta urtean lau aldiz bakarrik erabili, baina ni ez nago prest zurekin konpartitzeko”. (E3)

“Baina egia da momentu honetan indarrak batzea egin behar dela eta ari garela. Horrek ekar dezakeen herritatik eskualderako prozesu hori uste dut interesgarria dela; adibidez, Tolosaldean egin dena edo Bilbo aldean egiten saiatzen ari direna, edo Araban. Ekimen horiek interesgarriak direla. Zalantza daukat bakarrik arazo ekonomikoengatik egiten ari ote den, eta hori ez litzateke edo ez litzateke ideia ona izango, edo benetan sinisten delako hori izan daitekeela bide bat”. (E12)

Irabaziak, aurrerapen-eremuak identifikatu ondoren, txanponaren beste aurpegiari, hau da, galerei heldu zitzaion. Nabarmentzekoa da elkarrizketatu bakar batek aipatu zuela galera bat; ez erabatekoa, berak hola adierazi zuelako: “ez da guztiz

galdu e!“. Elkarrizketatu horrek teknologia berriekin eta digitalizazioarekin zerikusia duen argudioa osatzen du; bere ustez, galera da teknologien arloan hartu beharreko tren hartzeko orduan, adiago eta azkarrago ibili ez izana.

“Ze zuk imajinatu egizu Interneten , sare sozialak eta... hedabideak remolkean joan beharrean lokomotora moduan joan izan balira, ba seguru asko euren pisu erlatiboa... Hor antizipaziñoagaz jokatu egin bazan, klaro igarri egin behar zan. Ze hedabide handiak hortan nahiko torpe eta nahiko lento izan dira. Arrasate Pressek urrezko domina hortan autoediziñoa inplantau eban hasieran eta Diario Vascok handik hiru urtera. Gu hemen konturatu izan bagina ba sare sozialen garapena etorriko zala 2000, 2001, 2002 hortan, ba igual jarriko ginen aurrean eta derrepente gu izango ginan nolabait gizartearen zera bideratzen genduna ezta eta orduan nik uste dot aukera bat galdu egin dala, ez da guztiz galdu e!, besteak be ez dabe erreakzionatu asko eta guk ondiño aukera hori badaukagu”. (E1)

Gainontzeko parte-hartzaileek ez zuten galerarik aipatu. Horren ordez, zein arlotan ez den behar beste edo nahi beste aurrera egin azaltzeari ekin zioten, eta jasotako erantzunak ikusita, baieztatu dezakegu ugaritasuna eta aniztasuna dagoela iritzietan. Batzuk kontu zehatzekin geratu dira, adibidez, euskara batuak duen tratamendua, euskarazko hedabideetan ari direnen lan-baldintzak edo euskarak erdal prentsan eta nagusiki erdara darabilen prentsa abertzalean duen presentzia; beste batzuk kontu orokorragoak aipatzen dituzte, anbizioa edo bakoitzaren buruarekiko konfiantza, edo euskarazko prentsaren irismena, proiektio publikoa kasu.

“Igual anbiziño puntu bat, gauzak egiteko edo gauza barriak egiteko, berrikuntzarako apur bat narkotizantea izan da, erosotasun presupuestarioak pixka bat narkotizatu egin dabe”. (E1)

“Ba seguramente konplejo batzuk laga beharko gendukez ondiokan be, ze kapazak gara erdal hedabideekin konpetitzeko ta ez dogu aurreratu horretan horrenbeste”. (E2)

“Diru-laguntzekiko menpekotasuna. Batzuek euskara batua baztertu eta txokokerietara jo izana, mesede gutxi egiten dio euskararen zabalkundeari eta herria egituratzeari. 25 urte ondoren, oraindik prentsa nazionalak euskaraz ez du lortzen hartzaile gehiago, eta tokiko prentsaren kontsumitzaileak, zabalagoak behar duenean, erdarazkora jotzen du. Gehienek oraindik diote euskaraz kostatzen zaiela egunkari bat irakurtzea. Lan baldintzak eskasak dira baliabide faltagatik eta militantziak oraindik pisua du. Erdal prentsak ez du biderik egin euskalduntzeko. Erdal prentsa abertzalean bertan, euskararen presentzia oso txikia da. Eta hizkuntza politikatik ez da urratsik egin kuotak jartzen joateko”. (E8).

“Beharbada ez da aurreratu, aurreratu du baina ez nahiko genukeen bezainbeste, seguraski ba lehen esaten genuen proiektio publikoan beharbada. Nik uste dut gaur egun hedabideek lehen baino penetrazio edo eragin handiagoa daukatela euskal komunitatearen inguruan, nik hortan ez daukat zalantzarik, presentzia handia dutela, kontsumoa ere horren araberakoa dela; baina batzuetan nukleo bat izaten jarraitzen du, nukleo gogorra deitzen dena, edo barruko, trinko hori ezta?. Eta kosta egiten da hortik salto egitea, kosta egiten da irabaztea beste geruza horiek ezta? Hainbat arrazoiengatik e, baino beharbada hortan ez da aurreratu produkzioan eta kalitatean aurreratu dan adina, eta hori aztertzeko kontu bat da, zergatik ez den aurreratu horrenbeste”. (E12)

Aurreko ekarpenetan adierazitakoak adierazita, agerikoa da iritziekin kontu bitxia gertatu dela. Elkarrizketatu batzuek zabalkundea, atxikimendua edota proiektio publikoa elkarrizketatu irabazien aldean kokatu dituzten bitartean, beste batzuek horrenbeste aurreratu ez duen aldean kokatu dituzte. Horren azalpena, dudarik ez, elkarrizketatu bakoitzak argudioa alde batean edo bestean kontsideratzeko ezarri duen neurria litzateke; batentzat “nahikoa” edo “asko” dena, bestearentzat “ez horrenbeste” izan daitekeelako.

Elkarrizketaren gidoiak bazuen hor arestian agertu den zabalkundearekin, proiektio publikoarekin zerikusia duen beste gai bat ere: irakurleen, hartzaileen edo kontsumitzaileen aldetik euskara hutsezko hedabide inprimatuek duten harrerari buruzko gogoeta, hain zuzen. Aurrez aurrekoetan honelaxe formulatu zen: “euskara hutsezko hedabide inprimatuak ez dira iristen dauden kontsumitzaile potentzial guztiengana eta euskararen kasuan gainera, merkatu erreala (euskarazko kioskoa) eta merkatu potentziala ez dira neurri berean hazi⁷⁶⁰; ondorioz, denborarekin bien arteko distantzia handitu egin da. Zeintzuk dira zure ustez horren arrazoiak?”. Aitortu behar dugu emandako erantzunen hitzezko edukia baino esanguratsuagoa izan zela eskatutako hausnarketak parte hartzaileengan eragin zuen erreakzioa⁷⁶¹.

⁷⁶⁰ .- Merkatu potentziala, hau da, euskaraz irakurtzeko gai direnen merkatua azken urteetan asko hazi den bitartean, bereziki hizkuntzaren ezagutzak gora egin duelako, ez da beste horrenbeste gertatu euskarazko idatziko hedabideen produktu-eskaintzarekin, eskuratu daitekeenarekin.

⁷⁶¹ .- Gaiak sortu zuen erreakzioa ez zen sutsua izatera iritsi, baina bai tinkoa, oso norberarena den zerbaiti eraso egiten zaionean gauzatzen den bezalakoa. Kasu honetan, elkarrizketatuek zer esan zuten baino adierazgarriagoa suertatu zen nola esan zuten esan beharrekoa.

Gehientsuenek kontu batez ohartarazi zuten ikerlaria; galderan proposatutakoa ez dela euskara hutsezko hedabideekin bakarrik gertatzen.

“Ez dago periodiku bat munduan guztiengana iritsiko denik, ni Le Monde. Ni le Monde”. (E3)

“Hori ez euskeraz ezta gainerakoetan. Beharbada galdera horren bertiente batek oin dala hamar urte, krisiaren aurretik, hedabideen krisiaren aurretik izan zezakeen zentzua (...) ez dut uste esate baterako gure inguruan dauden edo gaztelania edo frantsesa baino okerrago gaudenik maila horretan [El País eta La Razón egunkariaren adibideak jartzen ditu]. Gu gure hitzun-komunitatearen proportzioan haiek baino gehiago daukagu”. (E9)

“Hizkuntza guztien kasuan, bueno ba badakigu erdarazko komunikabideak, prentsa nola dabilen; beraz, ezin dugu pentsatu gaztelerazkoak beherantz joatea eta gureak berriz gorantz joatea”. (E10)

“Kontuan hartu behar da azken urteetan prentsaren kontsumoa etengabe ari dela jaisten, eta erdarazkoa askoz ere gehiago ari da galtzen %ekoetan. (...) Hizkuntza gutxituen arazo nabarmena dugu hori. Joan gaitezen Kataluniara. El Punt-Avuik, hango egunkari nazionala katalanez, 145.000 irakurle (EGMren arabera). BERRIAren bikoitza, nahiz eta katalanera dakitenak euskaldunak halako hamar izan. Egoerak egoera, euskalduna nahikoa fidela dirudi. Edo ez?”. (E8)

Azken ekarpena egin duenak harago jo eta euskarazko ikus-entzunezko hedabide publikoen arlora, EITBra, eraman zuen hausnarketa. Bere ustez ikus-entzunezkoetan arazoa haniagoa izan daiteke.

“Bide batez, ETB1eko informatiboak 45.000 ikus-entzule inguru (telebistan, doan) eta BERRIAk 65.000 irakurleen bueltan. Horrela kontatuta, agian prentsak baino arazo handiagoa dute euskarazko beste batzuek”. (E8)

Horrez gain, zenbaitek, bereziki tokikoen esparrua gertu-gertutik ezagutzen dutenek, erlatibizatu egin zuten elkarrizketen egileak egindako baieztapena eta beraien sektorean kontsumo aldetik lortutakoa balioetsi, azpimarratu zuten.

“Bueno, erlatiboa da e, erlatiboa da (...) Nik esango neuke irakurtzeko, ondo irakurtzeko eta euskera bizian 150.000 garezela, orduan oso urrin dare euskaldun kopuru horreek eta hedabideak daukien audientziak? Ba ez hain urrin. (...) Bestetik, uste dot tokikook daukagun indar nagusienetako bat hain zuzen be dala jende gehiagorengana heltzea; euskeraz bizi direnak eta irakurleak direnak eta liburuak euskeraz erosten dituenak, eta erosteaz gain irakurri egiten dituenak, hortik baino askoz gehiago heltzen gara tokikook, igual esango nuke beste batzuk heltzen ez diren moduan ezta? Batzuk ez dabe

erosten kioskoan euro terdi pagauta egunkari bat, daukagun egunkari bakarra, ba igual ez dabelako asetzen eta ez dare ohituta euskeraz irakurtzera eta beste pauso bat eskatzen dau seguruenik ta tokikook heltzen gara esparru horretara”. (E2)

“Doanekoak nik uste dot lortzen dabela penetrazio oso altua, etxe askotan tokikoa da etxe askotan sartzen den komunikabide bakarra, hori neurtuta dago. Hori baino eraginkortasun handiagoa lortzea...” (E1)

Kontsumitzaile potentzial gehiagorengana ez iristearen arrazoiei dagokienez, bi eratakoak agertu dira; batetik, hizkuntzaren beraren egoerari loturikoak; hau da egoera soziolinguistikoari lotutakoak. Argudio horren arabera, hizkuntzarekin ere gertatzen da ezagutza hazi egin dela baina erabileraren hazkundera ez da izan neurri berekoa; ondorioz, bien arteko distantzia handitu egiten da. Euskarazko hedabideen artean beste horrenbeste gertatuko litzateke, elkarrizketatu horien iritziz.

“Baina eramango bagenu hori ere hizkuntza beraren erabilerara berdin gertatzen da, zuri handitu zaizu ezagutza ikaragarri, baina zenbatek erabiltzen dute? (...) Orduan zuk pretenditzen duzu hizkuntzaren ekintza oinarri oinarritzkoenean, hau da hitz egitea horretan ez iristea ezta urrutitik ere zure potentzialera, eta pretenditzen duzu kontsumoan eta produktu kulturalen kontsumoan, izan prentsa, izan antzerkia... horretan kontsumitzea eta dirua pagatzea? Inposible!”. (E9)

“Euskeraren bilakaerarekin lotuta dago. Orain, momentu honetan euskal hiztunen hazkundera gazteen bitartez egiten doia, ta klaro, gazteek ez badute hedabide tradizionalak kontsumitzen, hor dago erronka”. (E1)

Bestetik euskaraz irakurtzeko zailtasunei eta irakurtzeko ohiturei loturiko arrazoiak ageri dira:

“Euskaraz irakurtzeko zailtasunak, ohiturak, gaztelaniazko egunkariekiko fideltasuna”. (E8)

Beste urrats bat eginez, proiektu berriak martxan jartzeko, bultzatzeko garaia ala dagoenari eustekoa ote zen galdetu zitzairen elkarrizketatuei. Eta erantzunei erreparatuta, baieztatu daiteke aniztasuna dagoela. Baiezko tinkoa, garbia ematen dute zenbaitek, besteren batek baldintzen arabera dela dio eta esanguratsuenan agian ondokoa litzateke, inor ez dela erabat kontra agertu .

Baiezko borobila eman dutenek argi dute momentuko egoerari eustea ez dela inondik inora aukera onargarria.

“Ez, eustea hiltzea da, argi ta punto. O sea, amaitu da galderaren erantzuna. Ezin dogu eutsi, askoz aurrerago egin behar dalako eta ahal dogu. Gainera gure mundua, hedabidegintza doia hain bizkor aldatzen, gaur zelan ulertuko dogu hedabide bat Twitter konturik ez daukana? (...) O sea, eutsi, ez, eutsi ez”. (E2)

“Proiektu berrietarako garaia ala eutsi?. Keba, keba, eutsi ez, euskerazko hedabideek, idatzizko hedabideek daukie etorkizuna birpentsatu beharra guztiz eta berez hortan gabiz”. (E1)

Erantzunari ñabardura egin dion beste baten ustez, merkatuaren eta sektorearen beraren egoera objektiboa aztertuta, agian ez da proiektu berrietan sartzeko unerik egokiena, baina hala izan arren, sektorea etengabe ari dela mugitzen gaineratzen du,

“Ba segurasko nahikoa da irautearekin baina eske ez dira [idatzizkoak] horretara mugatzen.(...) Nik ikusten dut sektorea oso, oso bizi, oso bizi nahiz eta irauteko baino ez duen ematen. Orduan e, zer egin du edo ze egiten ari da jendea? Askotan biderkatu, biderkatu lana, biderkatu ahalegina, astindua ematen ari zaio eta ari dira pentsatzen elkarlana nola egin beste batzuekin (...) Orduan produktu berriak, esaten badidazu merkaturatu produktu berri bat, kirol egunkari bat adibidez, ba hori da ametsa, hori ezin da egin, ekonomikoki ez duelako ematen, baina elkarlanaren ikuspegitik, berrikuntzaren ikuspegitik eta barne mugimenduaren ikuspegitik etengabe ari dira mugitzen”. (E12)

Beste batentzat proiektu berriak eremu digitaletik etorri daitezke soilik, eta gainontzeko euskarrien kasuan, horien artean paperezkoak, proiektu berrietarako garaia baino produktuak berritzeko garaia da.

“Nik uste det produktuak, produktu berrietarako baino produktuen berritzerako garaia dela. Nik ez det ikusten aktore berririk, ez det ikusten.(...) baino aktore berriak etorri daitezke soilik eremu digitaletik. Eta nik uste det hortik etorri daitezkeela, hor egon daitezkeela produktu berriak eta hor egon daitezkeela eragile berriak. Iruditzen zait hor egon daitezkeela produktu berrietarako tokia”. (E4)

Eta azkenik, elkarrizketatu baten ustez proiektu berriak beharrezkoak diren arren, zaila ikusten du horiek gauzatzea, eta ondorioz, lehentasuna dagoeneko lortu denari eustea eta sendotzea dela gaineratzen du.

“Proiektu barriak? Segun eta nola begiraten den. Beharraren aldetik, proiektu berrietarako garaia ere bada. Hutsuneak handiak dira oraindik eta beharko genituzke. Baina sektorearen aukeren aldetik, zaila da, besteak beste instituzioetatik ez dagoelako benetako apusturik. Sendotzea eta eustea da lehenetasuna, eta batez ere ez galtzea. Alde horretatik, garrantzitsua da sektorea antolatze aldera egiten ari diren urratsak, bai proiektuen aldetik (tokikoak eskualdeka antolatzen), bai sektore osoa Hekimenen”. (E8)

Atal honi bukaera emateko, euskal komunikazio-esparruaz galdetu zitzaizen elkarrizketetan parte hartu zutenei. “Euskaraz egiten dugunon arteko esparru hori egon badago. Euskal esparru komunikatiboa da euskaraz egiten dana, nik hori oso garbi daukat, niretzat hola da, euskal da euskara” dio batek (E9). Izan ere, hizkuntzari, euskarari erabat lotuta definitzen dute esparrua, komunikazio arloan euskara hutsez egiten dena bere barne hartzen duen eremu gisa. Beste batek erabilitako hitzetan errepikatuta: “Aber euskaraz ematen den jardun guztiak hedabideen munduan horrek osatzen du espazio, eremu hori” (E11). Gehiago zehazte aldera, aurreko elkarrizketatuak ondokoa gaineratzen du:

“Ez dakit bestea nola definitu beharko genukeen baina, eta kosziente naiz euskaldunoi ia ia lapurtu digutela euskal, baina oraindik euskaraz aritzen garenok uste dut erreibindikatu behar dugula euskal hori ez dela vasco, ze vasco garbi daukagu izan leikela euskal-ekin edo euskal gabe ez? Baina euskal ez”. (E9)

Beste batek ere ideia beraren hariari heldu eta hedadura geografikoa, euskarriak eta hiztun-komunitatearen ezaugarriak kontuan hartuta azaltzen du zer den euskal esparru komunikatiboa:

“Bueno, geografikoki garbi dago, Euskal Herria da euskal hedabideen zera, gero euskarriei dagokienean garbi dago esparru guztiak hartu behar dituela, prentsa, irrata, telebista, internet eta gero nik uste dut euskal hiztunetik sortzen den... hitz egiten dugunean euskal hedabideei buruz, zerk bereizten gaitu beste hedabideetatik? Euskerak noski, baina ez hizkuntzak bakarrik (...) nik uste dut esparru komunikatiboaz hitz egiten dugunean hemen euskera kontsumitzen eta kontsumitzera ohituta dagoen hiztun komunitateak badituela ezaugarri batzuk, nahi bezain zabalak izan daitezke, baina badauka kontzientzia garbi bat ba zer den hizkuntza beretzat, zer zentralidade daukan hizkuntzak, ze zentralidade daukan lurraldetasunak, ze zentralidade daukan komunitateak ta hori, ta nik uste dut garrantzi handia ematen diotena euskal hedabideek”. (E12)

Administrazioaren aldetik definizioa konpartitzen dute, eta horrez gain, beste bi kontu gaineratzen dizkiote. Batetik komunikazio-eremu horrek duen ahalmena, potentzialtasuna azpimarratzen da, eta bestetik, euskal esparru komunikatiboari legitimazioa kontsumitzaileek ematen diotela gaineratzen da.

“Eremu horrek potentzialidade aldetik askoz gehiago daukala errealidadetik baino, nik uste; baina potentzialidadetik askoz gehiago badauka errealidadetik baino espazio hori legitimatu dezaketenen aldetik, hau da, kontsumitzaileen aldetik. Espazio hori ez du legitimatzen ez Jaurlaritzak, ez legeek, ez ... hori legitimatzen dute kontsumitzaileek (...) espazio hori ere kontsumitzaileek legitimatu dezakete eta orduan gu behartuta gaude, gu esan nahi dut Jaurlaritza, hizkuntza-politikaren ardura daukagunok, behartuta gaude hain zuzen gure ikuspuntua hori izatea, ez izatea gauzak euskeraz egin daitezela, ez, ez, ez, keba, keba, keba. Ya ez gaude horretarako, badago masa kritiko bat hainbat eta hainbat gauza kontsumitzeko kapazitatea duena, baina masa kritiko horrek baita ere kontsumitzeko muga batzuk baditu zeren eta ez du bakarrik euskeraz kontsumitzen eta ez du bakarrik euskeraz kontsumituko, baina zergatik? Zertarako? Zergatik uko egin behar diogu beste hizkuntza batzuetan kontsumitzeari?”. (E11)

Hortik abiatuta, elkarrizketatu honek baieztatzen du euskal esparru komunikatiboak duen potentzialtasun-mailan irabaziak lortu nahi badira, kontsumitzailea zerumugan izango duten produktu berrien eskaintzan asmatu beharra dagoela; betiere, dituen mugaz kontziente izanda. Horrek balio erantsia emango liokeelako esparru komunikatiboari, diru publikoak babestu eta “sarituko” beharko lukeen gainbalioa hain zuzen.

“Orduan, bere mugak ere baditu, bueno ba muga hoietaz kontziente izanda asmatu behar da beste hizkuntza batzuk eskaintzen ez digutena euskarazkoak eskaini dakigula. Tokiko prentsak zergatik irabazi du espazio propio hori? Tokiko informazioa, gertuko informazioa denok behar dugu eta, kontxo, lantzen du, kalitate handiagokin, gutxiagokin baino, kontxo, behar duzu, asmatu behar dugu... Adibidez, oraintxe Berria berrituaren webgunean musikako ataria, nik uste dela oso ekimen inportantea, oso bide onetik dihoan ekimen bat iruditzen zait; horrek eduki dezake, horrek eduki dezake kontsumitzaile asko eta musikako lotura euskaraz egingo duen kontsumitzaile asko, beraz euskararekin gozatu ahal izango duen kontsumitzaile asko. (...) nik uste dut, balio erantsia niretzako sentidu horretan dago, baina balio erantsia zein da? Ez du erabakitzen laboratoriorik, erabakitzen du kontsumitzaileak eta nik asko sentitzen dut batek zer produktu egin nahiko lukeen bere gogorako eta bere gustorako, bale, askatasun osoa du baina diru publikoarekin egiten baldin badu produktu hori, denena den diruarekin egiten badin badu produktu hori, barkatu, baina egin behar du kontsumitzaileen gogoen arabera produktu bat”. (E11)

Euskarazko esparru komunikatiboa sendoa eta zabala izateko, orain arte aipatutakoari, alegia produktu eraginkor eta erakargarrien eskaintza izateari, bi baldintza gehitzen dizkio beste elkarrizketatu batek: hizkuntza komunitatearen nahia, borondatea eta hizkuntza-politika sustatzaileak.

“Batetik, inportanteena hiztun komunitate horren borondatea izateko euskarazko esparru komunikatibo bat edo ez, eske hori bere baitatik ateratzen ez bada ez dago instituziorik edo ez dago sanpedrorik hori bultzatuko duenik; orduan, lehenbizikoa hori da, edozein hizkuntza garapenerako edo hizkuntza komunitateak kontzientzia behar du ez? Bere egoera horretatik aurrera egiteko eta ateratzeko, eta komunikazioaren esparruan berdin. Hori nagusiki, eta hortik aurrera hori bultzatuko duen hizkuntza-politika bat, eta hortik aurrera ba ya gauza asko izan daitezke, behar du kalidadea, behar du teknologia, behar du enpresa-egiturak, behar ditu pues.... Baina oinarri oinarrikoak esango nuke lehenengo komunitate horren borondatea, eta bigarrena, aldeko hizkuntza-politikak. Hori baldin badago asko egiten da, eta hori ez badago, pues oso konplikatu da”. (E9)

Nahiaren, borondatearen ortu bera jorratzen du beste elkarrizketatu batek ere, esparru komunikatiboa osatzeko ezinbestekoak diren baldintzez hitz egiten duenean.

“Ze baldintza beharko lituzke? Uste dut gizarte nahi hori edo borondate hori, nik uste dut hori oso inportantea dela eta uste dut badagoela; seguraski ez dago nik nahiko nukeen adina, o sea, euskerari ez zaio ematen herri honek nire ustez eman beharko liokeen adina indar, baina bueno ematen dio eta nukleo hori hor dago, eta seguraski nukleo handiagoa ez izateko baldintzetako bat da, edo arrazoietakoa bat da hain zuzen ere euskera ez delako ardatza; esate baterako, mugimendu politikoetan eta bai, utz dezagun mugimendu politikoetan orokorrean”. (E12)

Nahia eta politika sustatzaileak uztartuz urratsak egingo lirateke hizkuntzaren normalizazio-prozesuan, eta horrek, dio beste elkarrizketatu batek, hedabideak sendotzea eta garatzea ekarriko luke; hau da, komunitatearen nahia eta politika sustatzaileak batetik eta hedabideen garapena bestetik, elkar elikatzen duten kontuak lirateke.

“Komunitate euskaldun bat antolatu eta euskaraz bizitzeko aukera egiten badu, hedabideak ere beharko ditu. [Horretarako baldintzak?]”⁷⁶² Euskararen benetako sustapena eta normalizazioa ekarriko dutenak dudarik gabe: biztanle

⁷⁶² .- Ikerlariak egindako galdera da.

oro euskaldun izatea helburu, lehentasunezko hizkuntza duena. Hori da ezinbesteko oinarria esparru komunikatiboari eta euskarari berari eusteko". (E8)

Euskal esparru komunikatiboari buruzko gogoetarekin eta ekarpenekin zarratu zen elkarrizketen lehen atala. Behin euskarazko hedabide inprimatuen bilakaera aztertuta, ikerketaren objektu nagusiari, Eusko Jaurlaritzaren urteroko laguntza-deialdiari heldu zitzaion elkarrizketetan.

5.4.2. EUSKO JAURLARITZAREN "HEDABIDEAK" DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA(Z)

Hasteko, datu esanguratsua: "Hedabideak" deialdia sektorearentzat ezinbestekoa dela onartu eta aldarrikatzen da. Hortaz, aitortu egiten da aho batez laguntza-deialdiak euskarazko hedabide inprimatuentzat duen balioa.

"Denboran zehar oso fase ezberdinak bereiztu behar dira, baldin bagoaz 80ko hamarkadara desastrea zen hura; Arregiren bolada eta lehenago, lau txakur handi, hau zuretzat bakarrik da, lau txakur handi. Orduan garai batzuk txarrak, eta zorionez, gero ba joan izan da berbideratzen esparru hori, eta esango nuke gaur egun hizkuntza-politikaren ikuspegitik askoz gehiago behar dugula baina uste dut lehen ere erantzun dudala, oso inportanteak direla guretzat eta aitorten hori eman behar zaiela instituzioei eta, hola dalako! Edozelako euskarazko komunikabiderentzat izango da, diru laguntza publikoa izango da EAEn gutxienez %20, %25 edo %30aren, aurrekontuaren zati bat asi ke hori begibistakoa da". (E9)

Laguntzaren balioa hedabideen egoera ekonomikoari, zehatzago esateko, aurrekontutik estaltzen duen portzentajeari lotzen zaio.

Bestalde "Hedabideak" deialdiak iraganean eta gaur egun izan duen funtzioaz eta balioaz gain, bada fokua aurrera begira jarrita erantzun duenik ere. Horientzat, deialdiak ezinbesteko izaten jarraituko du euskara normalizatuta ez dagoen bitartean.

"Ez dot uste toki-komunikabideen edo euskarazko hedabideen finantziario publikoa desagertu behar denik, ez bada euskera normalizatuta dagoen momentuan, hau da, euskara unibertsala dan momentuan". (E1)

Elkarrizketatu honen iritziz, finantziario publikoa erabat lotzen zaio tokiko komunikabideen doakotasunari eta horiek betetzen duten funtzio sozialari.

"Hemen abiapuntuan dagoena da tokiko komunikabideek hautatzen daben momentuan euskeraz izatea uko egiten deutso merkatu libreko posibilitate batzuei, lehia dago, baina... %100aren zerari uko egiten deutzazu. Horrek

suposatzen dau, dagoela beste helburu bat, ez dago helburu enpresarial bat, merkantil bat egiteko. Beste helburu bat dago eta helburu hori da euskararen normalizazioan eragitea, hor dago funtzio sozial bat aitortu beharrekoa”. (E1)

Diru-laguntza baloratu ondoren, urteroko deialdiak jasotzen duen helburuari buruzko gogoeta eta ekarpenak jasotzeko ahalegina egin zen elkarrizketa sakonetan. Gogoratu deialdietan ezarritako helburua dela “euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatu”. Urteroko aginduetan baina, ez da inon argitzen nola ulertu behar diren hiru kontzeptu horiek; hortaz, horixe galdetu zitzairen sektoreko zein administrazioko ordezkari. Bildutako erantzunei erreparatuta, agerian geratu da ikuspegi-aniztasuna dela nagusi. Salbuespena izatekotan, “normalizatu” kontzeptuak ekarritakoa litzateke. Kasu honetan ere ez dago erabateko adostasuna, baina “normalizatu” kontzeptua hizkuntzaren egoerari lotuta ulertzen da gehienetan.

“Normalizatzea, bueno ba hizkuntzarekin lotura seguruenik, ez? Nik hola ikusten dot”. (E2)

“Normalizatu ezin da komunikabide bat guztiz normalizatu hizkuntza ez badago normalizatuta, imposible, hizkuntzari lotua dago”. (E9)

“Hori lotuta dago hizkuntzarekin, bere kabuz normalizatu daitekeen sektore bat ez da ze bere lehengaia da normalizatu bako lehengai bat. Euskal hedabide bat normalizatu egon daiteke euskera normalizatu dagoenean, unibertsa denean eta funtzio sozial nagusiak betetzen dituzenean, orduan momentu horretan ez litzateke plus bat izango euskeraz egitea, helburu hori lortu ezkeroraino inkluso finantziario aldetik ez leuke aitzakiarik izango. Sektorearen normalizazioa ikusten dot hizkuntzaren bilakaerari lotuta. Bai, ze euskera elkarteak sortu ziren desagertzeko eta euskal hedabideak ez dira sortu desagertzeko baizik eta euskara normalizatuta ez dagoen bitartean funtzio bat egiteko”. (E1)

Hala ere, elkarrizketatuen artean bada “normalizatu” kontzeptua hizkuntzaren egoerarekin lotzen ez duenik ere. Horietako batentzat normalizatzeak ordenatuta izatearekin, sektorearen mapa bat izatearekin du zerikusia. Horrentzat “normalizatu” deialdian xedetzat ezarrita dauden beste bi kontzeptuen aurretik egin beharreko urratsa litzateke; hots, hedabideak sendotu eta garatu aurreko urratsa.

“Sendotu aurretik eduki behar dituzu, normalizatuta ez dakit baina bai organizatuta. Hori da zikintzea bezala, zikintzeko behar duzu zerbait garbia, sendotzeko behar duzu zerbait... ia besterik ez baldin bada ere mapa egina,

eske nik uste det mapa, mapa ere ez dagoela egina; mapa hori ere ez dago egina, o sea, deskribapena ere ez dago egina, enuntziatua falta zaigu”. (E4)

Eta beste birentzat “normalizatu” kontzeptua produktuari berari lotu behar zaio, baina ñabardura ezberdinekin. Izan ere, batek eskaintzaren izaerarekin lotzen duen bitartean, besteak produktuaren kontsumoarekin egiten du,

“Normalizatzea da naturalki, pentsatu gabe kontsumitzen duzun produktu bat izatea”. (E11)

“Normalizazioa da produkto estandarrak izatea, produkto normalak izatea. Ez dakit normala zer dan baina produkto estandarrak, hau da, besteetan, erderaz ikusten ditugunak euskeraz ere izatea, hori da normalizazioa, klaro horrek zer esan nahi du? Egin behar dugula besteek egiten duten guztia ta? Ez, hori da euskal gizartean, Euskal Herriak eskatzen dituen edo behar dituen hedabideak egitea, klaro, normalizazioa baldin bada modu berdinean eta jartzea hedabideak ni horrekin bat nator; baina ez dut esan nahi horrekin alboan zortzi periodiko baldin badaude guk zortzi eduki behar ditugunik, ez guk eduki behar ditugu bat edo bi, beharbada bat, ezin dugu gehiago baina izan dadila besteen antzekoa edo eduki dezakeen besteen aukera berdintsuak bere esparruan dauzkanak”. (E12)

Deialdiaren helburu gisa aldarrikatutako beste bi kontzeptuei dagokienez, “sendotu” eta “garatu” definitzeko orduan, arestian esan bezala, ikuspegi aniztasuna azaleratu zen elkarrizketetan.

“Sendotu” hedabide inprimatuak ekoizteko behar diren baldintzekin, baliabideekin lotzen du elkarrizketatu batek,

“Bueno ez dakit buelta handia daukan, sendotzea da egiten dena egin ahal izateko baldintzak jartzea, ezta? Hedabide horrek ez dezan jasan edo pairatu halako gorabehera handirik urte batetik bestera, orduan sendotzea da jakitea hurrengo urtean eta hurrengo urtean eta hurrengoan izango dituzula laguntza batzuk zure lana egin ahal izateko”. (E12)

Beste batentzat sendotzeak faktore askorekin du zerikusia, hala nola, kalitatearekin, enpresa-egiturekin edota aldaketei egokitzeko gaitasunarekin,

“Bueno bistan da, sendotzea da, ez dakit faktore askok eragin dezakete sendotze hori, baina kalitatean irabaztea da sendotzea, audientzian irabaztea da sendotzea, enpresa egituretan sendotzea, garatzea, ze enpresa egiturak sendotzea bada sendotzea, ikuspegi periodistikotik zure jarduera indartzea da sendotzea, euskarri desberdinetan hau da errealitatera, datozen aldaketetara egokitzeko erakusten duzun indarra eta gaitasuna da sendotzea, ez dakit, hainbeste gauza izan daitezke”. (E9)

Beste bik emaitzei, irakurle gehiagorengana heltzeari, eraginkortasunari lotuta ikusten dute sendotzea,

“Sendotzea da masa kritiko batera ailegatzea”. (E1)

“Sendotzea? Niretzako da gure bezeroengana hobeto ailegatzea eta eraginkorrago izatea. Niretzako sendotzea hori da, eta gainera horri lotuko nioke gure baliabideak ahalik eta hobetoen erabiltzea. Nik uste dot hori dala sendotzea. Ta edozein enpresatan izango litzateke”. (E2)

Azkenik, “garatu” kontzeptuari dagokionez ere, ikuspegi aniztasuna nabarmendu daiteke. Hala ere, erantzun gehienak aurrera egitearekin, garai berrietara egokitzearekin lotzen dute “garatu”. Batzuk modu orokor batean,

“Sendotzen danak garatzeko aukera dauka; bat izan daiteke sendo ta ez garatu, ze erraldoiak horregatik erortzen dira, garatzen ez direlako erortzen dira, eta txiki asko oso sendoak izan gabe ere, bueno pues handik eta hemendik egokitu pixka bat tin-ton-tin-ton pues eutsi. Hori da orduan, bereizten ditut bi, sendotasunak erakusten du momentu baten zein indarra daukazu, baina beharbada ez duzu garatzeko inongo borondaterik; indartsuari gertatzen zaio normalean sendo ikusten duela bere burua eta gainera, beraz ez du garatzeko behar handirik ikusten ere. Orduan, bueno, zer gertatzen da? Batzutan erortzen direla, ez dakit, adibideak ba Fagor daukagu ez?”. (E9)

“Nik lotzen dot gehixago egokitzearekin denboretara, nik uste dot hortik... nik hala ulertzen dot”. (E2)

Eta beste batzuk gehiago zehaztuz, produktu berriak egiteko gaitasunarekin lotzen dute “garatu” kontzeptua, edo euskarri berrietan aritzeko gaitasunarekin,

“Garatu da produktu berriak egin ahal izatea, hau da, ez bakarrik iraunbizitzeko laguntzak izatea baizik eta borroka edo pelea edo proiektu berrietan sartu ahal izateko laguntzak ere izatea beste sektore askok dauzkaten bezala, industriaren sektorea, nekazaritzaren sektorea, eta gauza hoiek”. (E12)

“Multimedian sakontzea, hau da, euskarrietara ailegatzea eta...(…) horretarako egon behar dogu preparatuta euskarri guztietan horri salida emateko. Hor ikusten dut nik garapena”. (E1)

Azkenik, “normalizatu” lehen urrats gisa ikusten zuen elkarriketatuarentzat, “garatu” prozesuaren azken urratsa litzateke.

“Nik aurrena normalizatu egingo nituzke, gero sendotuko nituzke eta zuk ia sendotuta baldin badaukazu bakoitzak ia bere garabidea aurkitzen du. Eske sendotu eta normalizatu, orduan sendotzeko nondik abiatzen zara? Anormaletik? Anormala ezin da sendotu”. (E4)

Hortaz, irakurritakoak irakurrita, agerikoa da “Hedabideak” deialdiak xedetzat aldarrikatzen dituen hiru kontzeptu klabeen inguruko zehaztasun falta dagoela deialdian bertan, eta deialdiaren kudeatzaile eta jasotzaile direnen artean. Eta kontzeptuen esanahia argi ez baldin badago, logikoa da pentsatzea nekez baloratu ahal izango dela esleitutako diru-laguntzek aurreikusitako helburuak betetzen dituzten ala ez. Dena den, zailtasunak zailtasun, zenbait elkarrizketatuk horri buruzko gogoeta ere egin zuten. Eta bi muturreko ekarpenak aurkitu ditugu; batzuentzat “Hedabideak” deialdiak euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko balio du. Hori defendatzeko esleitutako diru-kantitatea erabiltzen da argudioa moduan,

“Nik uste baietz, nik uste baietz eta esango dizut, oso bereziki esango nuke tokiko prentsari dagokionean, normalizatzeari dagokionez; o sea, azken faktore horri dagokionez. Sendotu, garatu eta abar hori prentsa idatzi guztiari dagokionez, egunerokoari dagokionez ba imajinatu ezazu Berria euskerazko egunkari bakarra, orduan Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzetatik ba jasoko du ba kantitate orokorra hor egongo da, baina oraindikan nabarmenago ikusteko zer suposatu dezakeen horrek gutxi gora behera, gutxi gora behera, ez da iritsiko, ez da iritsiko, gutxi gora behera izango da kaleratzen den egun bakoitzeko 5.000 euro, kaleratze hutsagatik, hor ibiliko da gutxi gora behera, baina 4.700dik ez da jaitsiko, gutxi gora behera 5.000 euro kaleratzen den egun bakoitzeko. Kontxo, klaro, horrek nola ez du ba balioko hedabide bat sendotzeko, hedabide horrek garapen bideak eduki ditzan, ezta?”. (E11)

Beste batzuek, ordea, ezetz diote. Deialdia zerbaitetarako lagungarri izatekotan, defizita estaltzeko edo kasu bakanen bati bultzada emateko izan dela. Deigarria da era honetako iritziak sektorean ez ezik, Eusko Jaurlaritzan erabaki- eta kudeaketa-ardura izan dituzten pertsonengan ere agertu izana,

“Ematen diren laguntzek ez dute helburu hori, hori izenburua baino ez da. Gaur egun ematen diren laguntzak gehienez ere defizita estaltzeko ematen dute, eta aurkezten diren aurrekontuetan lan-baldintza eskasak daude, eta ez dago baliabiderik produktuak berritzeko, ezagutzera emateko eta abar, jakin badakitelako hedabideek laguntzak ez dizkietela handituko”. (E8)

“Ez, uste dut benetan, bueno kasuren batean bai, kasuren batean bai, baina esango nuke handienei eta indartsuenei bai, baina txikienei besterik gabe, bueno ba bizirik irauteko e enfin bidea ematen diela, baina horrekin inora ez goaz”. (E10)

Ikerketaren aterpe teorikoan azaldu bezala, “Hedabideak” diru-laguntza deialdiak helburua/k bete duen/dituen baieztatzeko/ezeztatzeko prozedurarik egokiena horien ebaluazio jarraitu eta sistematikoa burutzea litzateke. “Nik ebaluaziorik gabeko politika publikoetan ez det sinisten” baieztatu du irmo elkarrizketatu batek (E10). Baina “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren ebaluazio sistematikorik ez da izan. Horren zergatiari buruz galdetuta, honelaxe erantzun zuen aurreko baieztapena egin zuen elkarrizketatuak,

“Bueno ba enfin gu egon ginen denbora, denbora laburra izan zen, benetan desbordatuak sentitzen ginen, momentu askotan ze hainbeste gauza ziren egin beharrekoak bai? Orduan ba bueno lehentasun batzuk markatu genituen eta ez genituen hauek lehentasunen barruan jarri baina dudarik gabe egin beharko lukete”. (E10)

Gainontzeko urteetan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza EAJren esku egon denean, ez da ebaluaziorik egin, batetik, aurreko elkarrizketatuak argudiatu bezala, ebaluazio-zereginaren aurretik beste lehentasun batzuk jarri zirelako eta bestetik administrazio publikoetan oraindik ere ebaluazio-kultura ahula delako.

“Ez da egin ebaluazio sistematikorik. [Zergatik?] Bueno ba nik uste det bi arrazoi nagusigatik: batetik, lehen esan dudana lehentasun hori egon delako, presentzia bermatzearena, orduan babestu behar da jarduera eta hori inportantea da;(…) Orduan bat hori izan daiteke, eta bestea, nik uste dut badela baita arrazoi orokorrago bat eta da ebaluazio sistematikoaren kultura apurka apurka, pixkanaka pixkanaka sartzen doan kultura bat da. Administrazio publikoetan ere pixkanaka ezartzen doana da eta gaur egun ebaluazio sistematikoari ematen zaion pisua eta garrantzia orain dala 10 urte ematen geniola esango bagenu, gezurra esaten arituko ginateke, ez genion ematen, hori ikasten joan den zerbait da ez? Hori ikasten ari gara eta horrek duen inportantzia eta horrek eduki dezakeen inportantziaz jabetzen ari gara, baina orain dala 10, dozena bat urte ez geunden horretaz jabetuta, bueno ni behintzat ez”. (E11)

Egoera horrela, gehienek uste dute iritsi dela ibilbide luzea duen deialdia egungo egoerara egokitzeke unea, birpentsatzekoa. Hainbat arrazoi ematen dituzte

iritzi hori defendatzeko, adibidez, ezinbestekoa delako ebaluazioa egitea edota ezarritako irizpideak ez direlako hainbat urtetan aldatu.

“Eta deialdiena nik benetan buelta bat eman behar zaiola goitik beherakoa, goitik beherako buelta eman behar zaio eta neurri batean intzentibatu eta asko intentzibatu ahalegina egiten duten hedabideak. Ezin dute kontsiderazio bera eduki eta ez naiz ari bakarrik diru kontutaz e, ez da diru kopurua, baina ezin diozu kontsiderazio berbera eman ahalegina egin duen hedabide bati eta orain dela hamabost urtekoan jarraitzen duen bati. Eske horiek esparru komunikatibo horretan orbita desberdinetako produktuak dira eta hor lehentasunak nik uste dut finkatu beharko liratekela”. (E4)

“Baina hori nik uste dot hori politikoei eskatu behar jakon gauza bat dala, euren egiteko bat da, zuk banatzen dozu dirua, bueno ba, balio dau ala eztau? Hori ez da, nik ez dot ulertzen beste modu batera, bestela da irizpide barik dirua banatzen egotea, gainera beti diru hau ze bestela pankarta ateratzen deusta; orduan da diru hau behintzat badaukat eta orduan mugiduko dot betiko antzera. Ezin da ulertu zelan dagoen irizpideak aldatu barik hogei urtean, ezin da ulertu. Onargarri be ez da, politikoei eskatzen jakiena da politika egitea, hau da, erabakiak hartzea, zer bai, zer ez, zer moldatu, zer egin eta hori... ta politikoei, berdin Jauriaritzan, berdin aldundian ta udaletxean be bai e?. Uste dot hor geldo gabizela. Hasi dira mugitzen gauzak zorionerako, baina aber zelan mugitzen diran, ikusiko dogu ta ze adostasun mailakin”. (E2)

Arestiko bigarren ekarpenean aipagai diren irizpideen arloari dagokionez, orain arte esleipenak egiteko erabilitakoak ez direla “txar txarrak” izan (E1) dioten arren, horiek berrikusteko garaia heldu dela gaineratzen dute.

“Orduan momentuan ez dakit egokiak ziran edo hala izan behar zan, gaur 2014an nik uste dot ez direla egokiak”. (E2)

“Sektoreari heldutasuna onartu nahi baldin badiogu irizpide helduagoekin funtzionatu behar dugu”. (E4)

Eta norantz egin beharko lukete irizpideok? Jasotako erantzunen arabera, irizpideak bezeroa erdigunean kokatuz eraikitakoak izan beharko lirateke.

“Bezeroen ikuspuntutik egindako laguntzak izan beharko litzazke. Bezero esaten dodanean da ikusentzule, irakurle, bai? Ta horrek esan nahi dau audientziak, horrek esan nahi dau kalidadea be bai, horrek esan nahi dau jendea gustora dagoen hedabide horrekin edo ez, bezeroak,(...) Hau da, zenbat bezerorengana heltzen da, bezeroa gustora dago, gero ta gehiago bezero dagoz, gero ta bezero formatuagoak daukaguz, laguntzen deusagu bezeroei ez bakarrik irakurtzen ez bada parte hartzen, bezero horreek ekartzen doguz gure

komunidadesera, bezero horrekin batera zer egiten dogu. Honek eskatzen dau aldaketa handi bat eta filosofia aldaketa bat lehenengo, ta gero irizpideetara bajatu beharko litzatekeen zera bat. Eta honetan be ez dot uste ezer asmatzen gabizenik, esan nahi dot, beste batzuk, beste enpresa batzuk euskalgintzarekin zerikusirik ez daukienak esaterako bezeroa daukie erdigunean, eta guk be hala eduki beharko gendukela iruditzen jata”. (E2)

Beste horrenbeste defendatzen du administrazioko ordezkari batek ere. Honen iritziz, denbora luzean arreta produktuan jarri da, kontsumitzailean jarri beharrean, eta gaineratzen du badela egokitzeko garaia.

“Eta fokoa ez da gauza bera kontsumitzailean jartzea edo produktuan jartzea, eta euskeraz nik uste dut produktuan jarri dugula kontsumitzailean baino gehiago fokoa eta momentua... gure ibilbide honetan gainera pentsatzen dut momentu askotan horrela jarri behar zela, o sea, ez dut kritikatzan hori, baino kontxo, jakin dezagun egokitzen eta... horregatik da zaila ze hori klaro, erantzun berriak behar direlako ze arazo horiek, euskarak dauzkan arazoak arazo berriak dira”. (E11)

Ikuspegi edo konstatazio horretatik abiatuta, 2005-2013 bitartean diru-laguntzak ebazteko erabilitako irizpideak eta deialdien gainontzeko edukiak aztertzeari ekin zitzaion. Aldatu beharreko kontuen artean, bat nabarmentzen da beste guztien gainetik: deialdien aldizkakotasuna. Gai honek erabateko adostasuna eragiten du prozesuan aktore direnen aldetik. Izan ere, denek uste dute eskatzaileen beharrak eta funtzionamendua kontuan hartuta, deialdia urterokoa izatea ez dela formularik egokiena. “Urteroko deialdiak balio izan dau besterik ez dagoen bitartean” dio elkarrizketatu batek (E1). Sektoreko ordezkarien iritziz, urterokoak ez du aukerarik ematen egonkortasunerako, ziurtasunez aritzeko, plan estrategikoak burutzeko. Egoera hori dela eta, urte anitzeko deialdien aldeko agertu dira.

“Ziurgabetasun handia sortzen du gugan eta logikoena da gutxienez hiruzpalau urtetarako edo 4-5 urtetarako behintzat, hortik gora ya gatxa da, baina esango nuke zentzuzkoa dela 3-4 urtetarako zerbait finkatzea eta guk geuk ere jakin dezagun zer daukagun datozen 3-4 urteetan ez, edo plan estrategikoak egiteko edo”. (E9)

“Dudarik gabe, ez. Urterokoak izanda, logikoa litzateke urtea hasi orduko edo aurretik jakitea zenbatekoa izango den laguntza. Baina edozein proiektuk jarraikortasun bat behar du, eta urte anitzetako planak behar dira. 2-3 urterako egitasmoak egiteko aukerak eman dezake garapenerako ikuspegia”. (E8)

“Horren problema da askotan oso berandu iristen direla laguntzak, iazko diru-laguntza batzuk kobratu zuten abenduan horrek dakarren ezinegon guztiarekin eta problema guztiekin ezta? Guk behin baino gehiagotan aldarrikatu dugu urte anitzeko proposamenak, uste dut hortik dihoala”. (E12)

Beste horrenbeste administrazioko ordezkarien aldetik. Horietako batek, gainera, argudiatu egiten du zergatik izan beharko litzatekeen urte anitzekoa eta ez, ordea, hitzarmen bidezkoa.

“(Urteroko) diru-laguntza deialdiaren sistemak izugarritzko ezegonkortasunera eramaten dituelako bai?, ta hori da, ezpata hori buruan duzula funtzionatzea benetan ez dauka, ez dauka inolako esplikazio logikorik bai?”. (E10)

“Guk pentsatzen dugu, HPSn eta nik neuk pertsonalki, publikoki adierazi dudan zerbait da, jo beharko genukeela diru-laguntza sistema egonkortasun handiagoa ematera, ta nik hori nahi nuke ta de hecho hori aztertzen ari gara.(...) Eta aztertzen ari garena da eta jorratu nahi dugun bidea ez da hitzarmenaren bidea baizik eta da urte anitzeko diru-laguntza deialdiaren bidea. Zergatik urte anitzeko deialdia eta ez hitzarmenaren bidea? Helburua ez delako hitzarmena, helburua da egonkortasun handiagoa, baina egonkortasun handiagoa lortzeko proiektuen arteko lehia ezabatu egin behar al da? Nik nahiago det proiektuen arteko lehia ez ezabatzea, parkatuko duzu insistitzea baino benetan pentsatzen dudalako eraginkortasunarena klabea dela, giltzarri dela etorkizunari begira eta orduan proiektuen arteko lehia ezabatzea ez dut uste ona denik baizik eta proiektuen arteko lehia izatekotan areagotu egin behar dela uste dut, areagotu egin behar dela eta orduan hori hitzarmenaren bidetik joko bagenu ezabatuta geratuko litzateke eta egonkortasunaren helburua lor daiteke urte anitzeko deialdia eginez, diru-laguntzaren ebazpena urte betekoa izan ordez, ba 3 urtekoa edo 4 urtekoa izanez, hori egin daiteke baina proiektuak euren artean lehiatuta”. (E11)

Aurreko pasartean aipatzen den kontu batek, eraginkortasunak hain zuzen, elkarrizketa sakonen minutu asko jan ditu. 2012tik, EAJk lehendakaritza berriro eskuratu zuenetik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik behin eta berriz azpimarratu den printzipioa eta irizpidea izan da eraginkortasunarena, hizkuntza-politikako arlo guztiei egokituta, horien barne, diru-laguntzak jasotzen dituzten hedabideen arloari.

“Eraginkortasuna neretzako da hedabideen kasuan, hedabide idatzien kasuan, kontsumitzailearen ikuspegitik izatea eraginkorra, alegia kontsumitzailearen gogoak, kontsumitzailearen apetak, kontsumitzailearen premiak edo kontsumitzailearen kapritxoak, berdin zait, berdin zait premiak diren, kapritxoak diren, baina azken batean kontsumitzailearen gogoak asebetetzeko

gai diren produktuak izatea euskaraz. Eta ikuspegi horretatik ebaluatu behar da hizkuntza politikaren ikuspegitik begiratuta, beti ere hortik begiratuta, hortikan neurtu behar da eraginkortasuna.(...) Bueno ba uste dut Jaurlaritzak asmatu beharra daukagula, plus hori kontuan eduki dadin neurriak hartzea eta sustapena sentidu horretan egiten eta uste dut aldi berean euskarazko hedabideek, euskarazko hedabide idatziek aurrez aurre daukaten erronka nagusia, nagusietan nagusia hori dela, eraginkortasuna. Eta eraginkortasuna beraiei dagokielako merkatuan, Euskal Herriko plazan, euskararen plazan, euskararen plaza Euskal Herriko plaza da, Euskal Herriko plazan lekua irabaztea eta lekua irabazteko kontsumitzaileak irabazi behar dituzte eta guri dagokigu kontsumitzaileak irabazten laguntzea, guri dagokigu ez konformatzea existitzerarekin, ez konformatzea presente egotearekin. Horretarako ahalegin handiak egon dira eta lehenengo hedabideak eurak baina orain erronka da ez presente egotea baizik eta onartuak eta kontsumituak izatea”. (E11)

Goian azaldutakoa ordea ez da eraginkortasuna ulertzeko agertu den modu bakarra. Beste hiru ere plazaratu dira elkarrizketetan sektoreko kideen eskutik:

1.-Batek eraginkortasun kuantitatiboa eta kualitatiboa berezitu ditu. Lehena salmentakopuruen arabera neurtu daiteke; bigarrena, kualitatiboa, euskarazko kazetaritza izateari, egikaritzeari lotuko litzaioke.

“Esan nahi det, dago eraginkortasun kuantitatibo hutsa, ta hori da salmenta punto, hori kopurua da, kalkulatu makinan horrenbeste saltzen du; ta bestea da kualitatiboa, herri honetan erdal medioek gai batzuk lantzea bada edo ez da euskeraz egotearen ondorioa eta gai horiek lantzearen ondorioa ez?”. (E3)

2.- Beste batek bost faktoreri helduta osatzen du eraginkortasunari buruzko azalpena: irismena, kalitatea (baliabide ekonomikoen eta horiekin ekoiztutako produktuaren arteko emaitza gisa ulertuta), izaera estrategikoa, laugarrena eraginkortasun soziala (hedabide batek kokatuta dagoen gizartean zenbateko pisua duen neurtuko lukeen kontzeptu gisa ulertuta), eta bosgarrena eraginkortasun ekonomikoa, aurofinantzaketa-maila bidez adierazten dena.

“Modu askotara ulertu daiteke baina nik uste dut, ezinbestekoa da eraginkortasuna irismenaren bidez ulertzea, hau da, zenbat jenderengana iristen zaren eta zenbat, zure esparru esaten dugun irismen potentzial hori, zenbat jenderengana iritsi zaitezkeen eta zenbat jenderengana iristen zaren, hori da eraginkorra. Bi egunkari balira eta batek 50.000 salduko balu eta besteak 10.000, garbi dago 50 saltzen duena dela eraginkorragoa. Hori garbi dago. Eraginkortasuna ere, nik uste dut, neurtu behar dela kalitatearen arabera

ere bai, hau da, zure baliabideekin ematen duzun produktua, produktuaren kalitatea nolakoa den. Zuk kudeatzen dituzun errekursoak produktua kalitatezkoagoa edo ez egiteko, diru berdinarekin zuk egiten baduzu ardo txarra edo ardo ona garbi dago zein den eraginkorragoa, ardo ona egiten duena. Eraginkortasun ekonomikoa dago eta orduan horri lotuta dago, zuk aurrekontu batekin zer egiten duzun eta hori garbi dago.(...) Beste bat da, ez dut ahaztu nahi estrategikotasuna, hau da, zergatik da inportantea estrategikotasuna? O sea, zergatik da inportantea Jakin bat egotea edo Gaztezulo bat egotea edo, edo Ttipi-ttapa bat egotea? Zu ari zarelako zure komunitateari zerbitzu bat ematen, ari zara bertako euskaldunei euskaraz komunikatzeko aukera ematen ta hori ere bada eraginkorra ari zarelako osatzen mapa bat eta ahalegin hori baloratu behar da ere bai, baloratu behar da Jakin bat egoteak zer esan nahi duen, Gaztezulo bat egotea edo Euskadi irratia egoteak zer esan nahi duen. Hori ere lotuta egon behar du eraginkortasunari. Ta gero eraginkortasun soziala, hori orain garatzen ari den kontzeptu bat da eta da gizartearekin daukazu harremanaren pisu hori nolakoa den, hau da, inguruan dauden talde, norbanako, gizarte-ekimenak eta hori ze presentzia daukaten zure hedabidean, ze ahotsa ematen diozun hoiei eta nola daukazu hartueman hori, uste dut hori inportantea dela horrekin osatzen duzulako komunitatea ere bai, osatzen duzulako bueno komunitate horrek elkarrekin komunikatzeko aukera hori. Uste dut hori inportantea dela eta oraintxe ari gara pixka bat horri buruz...(…) Lehenago ez dut aipatu, oraintxe gogoratzen naiz esan dugunean eraginkortasuna, autofinanziazioa oso inportantea da, hori da eraginkortasun ekonomikoa baino, nik uste dut hori oso, oso inportantea dela eta hori oso kontuan hartzeko gaia dela”. (E11)

3.- Azkenik, bada eraginkortasuna ulertzeko hirugarren modu bat; hizkuntza normalizazioan egindako ekarpenarekin edo hizkuntzaren corpusari egindakoarekin harremanetan jartzen duena; neurri batean aurretik aipatutako estrategikotasunarekin zerikusia duena.

“Baina zer da eraginkorra izatea? (...) Irakurleak kontuan hartu behar dira egoera minorizatu eta diglosikoan. Horrez gain, eraginkortasuna da egoera horretan eskaintza egitea bera, hizkuntza normalizazioan duen eragina, hizkuntza corpusean duena (Euskaltzaindiak berak onartua du batua batez ere hedabideek egiten dutela, eta erabaki bat hartzeko orduan eredia dela Egunkaria-Berrian nola erabili den). Eraginkortasuna neur daiteke baita kontuan hartuta baliabide ekonomikoa eta emaitzak. Pentsa horrela neurtuta zein den eraginkorrago: EITB edo gainerakoak?”. (E8)

EITBren eta publikoak ez diren euskarazko gainontzeko hedabideen arteko alderaketa sarritan erabiliko dute elkarrizketatuek, txosten honetako hainbat ataletan ikusiko den bezalaxe. Gehienetan hedabide publikoetara (EITB) eta gainontzekoetara bideratzen diren diru-partidak konparatzeko erabiltzen dute. Arestiko ekarpenean,

eraginkortasunari lotuta ageri zaigu eta berau neurtzeko proposamen bat iradokitzen/luzatzen da: hedabideak eskuragarri dituen baliabide ekonomikoak eta emaitzak (audientziak, irakurle-kopuruak) harremanetan jartzetik aterako litzatekeen neurria hain zuzen. Hala ere, ez da proposamen bakarra izango, ia elkarrizketa guztietan dagoelako horren inguruko gogoeta. Izan ere, denek onartzen dute diru-laguntzak, “danon dirua” batek esaten duen moduan, emaitzen arabera banatu beharko liratekeela; beste era batera esanda, hedabide bakoitzaren eraginkortasunaren arabera.

“Ba hori guk hasieratik esan dugu eta hori gure diskurtsoa izan da, ni behintzat nire diskurtsoa izan da Hekimenen nagoenetik, hasieratik. Kontua da zer hartzen den eraginkortasuntzat”. (E12)

“Gero ta jende gehixago gara pentsatzen dogunak lotu behar direla gure egitekoa emaitzei, derrigorra dala. Nafarroan eskualde batzutan egotea izan leike ondiokan be helburua ze emaitzei lotzea beranduago etorri beharreko tema bat da, edo igual Iparraldeko lekuren batzutan be egotea litzateke ondiokan helburua, ondo! Esan nahi dot hau ez dala egia osoko esaldi bat ezta, ze lurralde bakoitzean begiratu behar da zer eta zelan. Baina gure inguru honetan behintzat emaitzei lotu bako produktuak diruztatzea nik uste dote ee, baina eske ez hedabideetan bakarrik, hau izan beharko litzateke berrikuntza gaietan, industrian, osasunean eta ez dakit , hemen dirua, danon dirua dan hau ondo bideratzea nik uste dot hori da gutxieneko bat”. (E2)

Baina behin hori onartuta, berehala heltzen da bigarren aitortpena: beharrezkoa da eraginkortasuna neurtzeko tresnaren bat, adierazleak izatea. Eta gertatzen dena da, urteak joan urteak etorri, ez dagoela. Eta ez izatea, arazo bilakatu dela.

“Hori problema handi bat da. (...) gure aldetik premiazkoa ikusten dugulako neurketa eta adierazle sistema bat eukitea”. (E1)

“Eske pentsau hau noizkoa dan, irizpide objetiboak zehaztu, helburuak eta epeak finkatu eta horren arabera eman edo kendu diru-laguntza. Eske eskubideak balira bezala interpretatzen dira⁷⁶³ hasiera hasieratik, orduan. Eta administrazioarentzat eta oro har gauza publikoarentzat ere oso zaila da finkatzea lehentasunen artean ze puntuazio eman behar diozun laguntza adar horri jakin gabe horrekin zer lortzen duzun.(...) finkatzeko orduan hedabideen ingurukoak...ze hor beste gauza bat neurtu gabe edo neurtu baldin bada ez zait

⁷⁶³ .- Diru-laguntzei buruz ari da.

neri iritsi neurketaren emaitza da. Badaramatzagu ya 30 urte historia honekin, norbaitek neurtu du euskararen normalizazioari euskarazko hedabideek egin dioten ekarpena norainokoa dan?”. (E4)

Ez hori bakarrik, gainera ez dago bat ere argi zein irizpidetan oinarrituta erabakiko litzatekeen hedabide bat hizkuntzaren normalizazioari begira eraginkorra den ala ez. Hau da, sektorean denek diote neurtu behar dela, baina jasotako ekarpenak errepasatuta, ez dago bat ere argi zer eta nola neurtu behar den. Elkarrizketetan, gai honen inguruko baieztapen orokorrak egiten dituzte gehienbat, baina oso urriak dira ekarpen zehatzak. Batek, esaterako, hedabide guztien neurketa kuantitatiboa eta kualitatiboa burutu beharko litzatekeela dio,

“Nola neurtzen da? Ba modu kuantitatiboetan eta modu kualitatiboetan, eta biak erabili beharko lirateke, baina gaur egun zein da errazena? Ba nagusiki audientzia ez? Baina hori ondo neurtzea ere kostatzen da egiten zaigu, gaur egun badaude neurketa batzuk hedabide batzuenak eta abar, baina ez guztiena, handienena edo esan leike ez?”. (E9)

Elkarrizketatu horrek proposatutako bidean sakontzen du administrazioak. Horko ordezkarien/kudeatzaileen iritziz, kontsumoaren ikuspegitik neurtu beharko litzateke eraginkortasuna; hots, euskarazko hedabide inprimatuaren irakurle-kopuruek emango lukete orokorrean hedabide bakoitzaren eraginkortasunaren neurria. Betiere salbuespenak izan daitezkeelako, aldizkari espezializatuak kasu.

“Zenbat irakurtzen diren bai, idatzizkoen ari garenez, zenbat irakurtzen diren(...) Eta gero hor daude hainbat salbuespen, esan nahi dut, aldizkari espezializatu bat hartzen baldin baduzu, zuk aldizkari espezializatu bati ezin eskatuko diozu milaka irakurle eukitzea euskaraz, hori lekuz kanpo egotea da.(...) Baina oso gaizki egingo genuke etorkizunari begira konformatuko bagina euskara presente egotearekin, kioskoan egotearekin. Egon behar du presente gure irakurketetan eta gure obligazioa da; hau da, hedabideen erronka da hori lortzea ze hori eurak lortu behar dute, hori ez du Jaurlaritzak lortuko, hori ez dute herri erakundeek lortuko, hori ez dute lortu behar, hori lortu behar du bakoitzak bere produktuarekin eta Jaurlaritzak egin behar duena da nire ustez bere sustapen-politikak horretan laguntzera bideratu”. (E11)

Bestetik, neurketa egitea noren erantzukizuna litzatekeen ere ez dago argi. Sektoretik diote behategia edo behatokia⁷⁶⁴ sortu beharko litzatekeela horretarako.

⁷⁶⁴ .- Elkarrizketa sakonetan batzuek behategia hitza erabiltzen dute eta beste batzuek behatokia. Hemendik aurrera, bat zein bestea agertu daiteke.

Elkarrizketen azterketaren hurrengo atalean ikusiko da etorkizunera begira dituzten zeregin eta erronkei dagokienez, hedabideek berebiziko garrantzia ematen diotela aipatu behatokia martxan jartzeari.

“Dударik gabe, lehenik baliabideak jarri behar dira benetako neurgailuak sortzeko. Hekimen ari da EHU eta Mondragonekin behatoki bat eratu nahian. Hortik etor daitezke aukerak. Berriro diogu, eraginkortasuna ez da bakarrik botaldi edo zabalkundera mugatu behar”. (E8)

“Justu behategiaren planteamendua hortara dago bideratuta, o sea, eduki daigun neurketa sistema bat, kontsumoarena, ohiturena, zerena, ikertu daigun. Neurketa horretatik urtetan dauan, zer dan komenigarria eraginkorrigo izateko, eta goazen horren arabera ibilbide batzuk marraztera eta joera batzuk bultzatzera, sustatzera eta dirua izan daitela horretarako”. (E1)

“Hedabideak” diru-laguntza deialdian, 2013 bitartean esleipenak egiteko prozeduran erabili izan diren gainontzeko irizpideei dagokienez ere hainbat ekarpen jaso dira. Urteroko deialdiak hainbat multzotan sailkatzen ditu laguntza jaso ditzaketen hedabideak: eguneroko prentsa inprimatua, aldizkakoak (euskararen lurraldek osoan zabaltzen diren informazio orokorrekoak, espezializatuak eta tokikoak), irratiak, telebistak eta azkenik Internet bidezkoak eta berri-agentziak. Urte batzuetan gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrientzat eta erreferentzia-orrialdeentzat ere laguntzak izan ziren. Horrekin batera urteroko aginduak diru-partida zehatzak ezartzen ditu multzo bakoitzarentzat. Diru gehien, alde handiarekin gainera, lehen multzoan jarri da beti; hau da, eguneroko prentsan. Honen inguruan zenbait elkarrizketatuk diote gaur egun idatzizko batzuen eta besteen arteko mugak ez daudela bat ere garbi; ondorioz, multzoena beste era batera planteatu beharko litzatekeela eta diru-laguntzak beste era batera esleitu beharko liratekeela; komunikazio-proiektuka adibidez.

“Niri sailkapen hori antigualekoa iruditzen zait (...) Nik komunikazioa proiektuka egingo nuke, nik esleipenak eta deialdiak egingo nituzke komunikazio-proiektuka, ze uste dut ya ezin dela segmentatu. Komunikazio-proiektuak gaur egun, komunikazio-proiektuak multimedia dira. Ezin da segmentatu, zuk ezin dituzu apartatu (...) nik Berria paperekoa ezin dut desbinkulatu Intenetekotik eta Argia paperekoa ezin dut desbinkulatu Internetekotik; hor azken batean,

une honetan hedabideak gainditu dituzte, teknologiak gainditu ditu muga hoiek eta Argiak bere ikus-entzunezko produkzio hori zer sartzen dezu? Telebista bezala kontsideratzen duzu? (...) ze zentzu dauka hori bereiztea eta paperari lerro bat ematea. (...) Nik komunikazio-proiektu ulertzen det enpresa batek edo talde batek edo kolektibo batek finkatzen dituen komunikazio helburuak betetzeko erabiltzen dituen baliabide guztiak (...) Niri aspaldiko kontua iruditzen zait, eta froga hor dago, zenbat urte daramatzagu eskema honekin, mila, 25 urte daramatzagu eskema honekin, 30 urte, eta zerbait aldatu baldin bada azken 25 urte hauetan hedabideak dira. Eta deialdia ez da aldatu, horrek ez dauka inolako zentzurik, horrek ez dauka inolako zentzurik”. (E4)

“Multzoena sekula ez dot ikusi oso argi zergaitik zen holan ez, seguramente sortu ebenean zegoen errealidadeak diru-banaketa zentzuzko bat edo adieraziko eban multzoen arabera eginda; baina, baina ez dakit, ez dakit hau dan errealidadea e! Gaur asko aldatu da gaia, sortu dira barriak eta gaur uste dot multzoenak zentzua galdu dauala”. (E2)

“Nik ez dakit zentzurik daukan momentu honetan Berriari diru-laguntza bat ematea eta berria.infori beste bat, eta beste kasuetan berdintsu. Orduan ez dakit ez ote den holako, proiektu komunikatiboai eman behar gehiago, paperezkoak, Internetezkoak, irratizkoak... Zalantza daukat mantendu behar den multzokako hori, proiektu komunikatiboak uste dut gehiago, hortara gehiago jo behar dela”. (E12)

Beste batzuek, ordea, uste dute oraindik multzokako sailkapenak, eta horien artean hedabide inprimatuak lehenesteak, baduela izateko arrazoia.

“Zentzua daukan horrela izatea? Izan dezake, bai, izan dezake oraindik ere oraindik, Internetek ez du oraindik hori hainbeste hautsi, kolokan jartzeko moduan.(...) [Idatzizkoak lehenestea?]-Bai, esango nuke baietz, eta ez bakarrik idatzikoak naizelako e? ba termino kuantitatiboetan ere handienak direlako idatziko hoiek baina bistan da aldatu behar dala eta Internetekoak izan behar dutela daukatena baino garrantzi askoz handiagoa”. (E9)

Bestalde, elkarrizketatu guztiek uste dute Eusko Jaurlaritzak aldizkako argitalpen espezializatuak (pentsamendua, zientzia, musika, natura, haur eta gazteei zuzendutakoak...) babesten jarraitu behar duela, nahiz eta argitalpen horiek kasu askotan minoritarioak izan. Ondoko hitzetan ikusiko den bezala, normalizazioari begira funtzio garrantzitsua aitortzen zaie, eta bakanen batek proposatuko du horiek aparteko multzo edo sail bat osatzea, gainontzeko euskarazko hedabide inprimatuekin nahastu gabe.

“Nik uste dot funtzio inportantea betetzen dabela horreek be, eduki beharko leukiena da, adierazle sistema horretan, neurketa sistema horretan, eduki beharko leukie ba kontsideraziño berezia, egokitua bere jardun espezifikoko horri

edo dana dala; baina Gaztezulo batek duen gazteengan dinamika bat bultzatzea eta Elhuyar batek zientzia esparrua edo beste zenbaitek egiten dauan lana, bai nik uste dot horreek danak beharrezkoak direla; nolabait euskal komunikazio ekosisteman dauden espezieak dira nahiz eta minoritarioak izan”. (E1)

“Ahaztu egiten zaigu hauek duten garrantzia. Kontuan hartuta zer eskaintzen den euskaraz, badirudi euskara soilik tokiko informaziorako balio duela. Lehen baserrikoa zen, orain tokiko gaietara mugatuko dugu? Ikasketak euskaraz egin eta garapen intelektuala ezin da euskaraz egin? Eta horretan hedabide espezializatuak lagundu beharko lukete. Landu beharreko eremu bat da, seguruenik aparteko sail batean, ez beste hedabideekin batera”. (E8)

“Horiek daukate lehen aipatu dudan irakurketa kualitatiboa, handia. Ze zuri interesatzen zaizu esparru bakoitzak izan dezala bere hedabide, komunikabide, horrek laguntzen du”. (E9)

Iritziak ez daude hain argi udalerrri bakar batean zabaltzen diren tokiko hedabideen multzoaz galdetzen denean. Horiek, gutxienez, hiru iturritik jaso ditzakete diru-laguntzak: Eusko Jaurlaritzatik, foru-aldundietatik eta udaletatik. Sektoreko aktore nagusien ustez, tokikoen kasuan, maiztasunik egokiena astekaria litzateke eta gutxieneko hedadura-eremua eskualdea beharko luke izan (eskualdea era zabalean ulertuta, ez soilik EAEko lurralde-antolamenduan definituta dauden unitate administratibo gisa). Ondorioz, bakanen batek dio Eusko Jaurlaritzak ez liekeela laguntzarik esleitu beharko udalerrri bakar batean zabaltzen diren argitalpenei.

“Nik uste dot ezetz. [Asko dagoz gero!] badakit, badakit, Gipuzkoan gehienak bai momentu honetan, baina igual bi urte barru asko aldatuko da mapea, asko aldatuko da mapea eta, bueno, hortan gabiz”. (E1)

Administraziotik aitortzen dute arestiko aukera, alegia udalerrri bakarrekoei dirurik ez ematea planteatu zela garai batean⁷⁶⁵, baina erreakzioa izua izan zela: “nik planteatu nuenean agian hobe zela udalek egitea herri-aldizkarien eta herri-komunikabideen kargu, bueno, izua, izua erabateko izan zen”. (E10)

Beste batzuek uste dute komenigarria litzatekeela erakunde bakoitzaren kudeaketa-esparrua zehaztea, hau da, komenigarria litzatekeela argitzea nork nori eman behar dizkion laguntzak.

⁷⁶⁵.- Sozialistak Jaurlaritzan izan zirenean.

“Definitu beharko lukete instituzioek zein den bakoitzaren eremua. Baina nazio mailako hedabideek laguntzak bakarrik Eusko Jaurlaritzatik eta tokikoek udala, aldundi eta Jaurlaritzatik, ez dirudi oso zentzuzko. Nola bideratu? Hasteko, instituzioek euskara eta euskal hedabideak lehentasunez hartu behar dituzte”. (E8)

“Zerak (udalerrri bakar batean ari denak) ere beharko du arrazoi berdinarekin. Beste kontu bat da nork eman behar dion eta hori da instituzioetan dagoen lehia; edo diputazioak, udalak edo Jaurlaritzak”. (E9)

Zentzu honetan, gehienei iruditzen zaie erakundeek modu partekatuan eta irizpide bateratuak baliatuz kudeatu beharko lituzketela diru-laguntzak. Eta izan bada horretarako organoa, HAKOBA izenekoa⁷⁶⁶, baina hedabideentzako diru-laguntzen gaian ahaleginen bat egin den arren, ez du eraginkortasunez funtzionatu. “Nahiko genuke” fasean dagoela esan daiteke.

“HAKOBA barruan martxan jarrita daukaguna da lantalde bat, batzorde bat, aipatu dituzun hiru erakunde maila horiek euskararen sustapenerako ematen dituzten diru-laguntzen azterketa bat egiteko, lehenik eta behin argazki bat egiteko erakunde bakoitzak zer nolako eta zertarako ematen dituen diru-laguntzak eta zenbatekoan eta zein irizpideei jarraiki, eta behin hori edukita marko horretan, HAKOBAREN marko horretan aztertze, bueno eman daiteke beste pauso bat harago, alegia, hau da argazkia, batak eta besteak diru-laguntzak hontarako eta hartarako ematen ditu, irizpide hauek lehenesten ditu beste batzuen aurrean, bueno non gaude, distantziak daude denon artean, ez daude, bueno ba hor nahiko genuke koordinazio handiago bat egotea.(...) Beraz, aurrerapausoak, bateratze pausoak eman litezkeen neurrian ematea. Hori da guk martxan jarrita daukagun lan-ildo bat da legealdi honetan jarri duguna. Zer emango duen? [Baina orain arte ez da izan?] modu antolatu batean ez, modu antolatu batean ez, eta gero ere ez da erraza izango, seguro, oso zaila izango da. Bakoitzak bere politikak egiten ditu eta...” (E11)

Honaino “Hedabideak” diru-laguntza deialdien edukiak elkarrizketatuengan eragin zituen hausnarketak eta ekarpenak. Nabarmenezkoa da atal osoan zehar pitean-pitean agertu dela ideia bat: deialdiaren edukiarekin zerikusia duen edozer, egokitu, gehitu, kendu, moldatu egin behar baldin bada, sektorearen eta administrazioaren artean landutakoa eta adostutakoa behar duela izan. Horren lekuko ondoko ekarpenetan adierazitakoak:

“Lehen aipatu dudak akordio sektorial, sektorea ta administrazioaren arteko akordio hortan markatu behar dira irizpideak”. (E3)

⁷⁶⁶ .- Herri Administrazioen Koordinazio Batzordea.

“Adostea indikadore batzuk, adierazle batzuk adostu, helburu batzuk finkatu, adostuak beti ere eta horren arabera funtzionatu.(...) Irizpide hoiek adostu behar dira sektorearen, neurketaren profesionalen eta aginte publikoen artean”. (E4)

“Nik hor ez neuke kuestionatuko gehiegi oin artekoa, gehiago inporta jatana da hori ordezkatzekoan izan daitela sistema bat ba objetibatu ahal dana gehiena eta gainera adostua izan dadila, ez dadila izan txandakako ataundarraren⁷⁶⁷ arabera edo derrepente hori izan ez balitz eta beste bat datorrela, derrepente hankaz gora jarri sistema osoa”. (E1)

“Bai sektorearekin kontatu behar da, nik uste dot edozein aldaketa sektorearekin kontatzea ona litzateke, ze adostuta badoiaz gauzak ondo doaz, eta ez badoiaz beste dinamika batzutan sartzen gara, ez direnak lagungarri”.(E2)

Adostasun eskariari helduta, baieztatu daiteke sektorean kexu direla Jaurlaritzak ez dielako aukerarik eskaini deialdiaren baldintzak eta irizpideak ezartzeko prozesuan parte hartzeko. Eta hala egin izanak konfrontaziorako aukerei atea zabaltzen diela gaineratzen dute.

“Orduan deialdika ibiltzea hori azken batean da unilaterala; nik deialdi bat zabaltzen dot, eta zuk gura badozu aurkeztu. Nik baldintzak ipiniko dodaz normalean zugaz kontsultau barik, normalean, o sea, ez daukat obligaziorik kontsultatzeko edo kontsultatzen badot ez daukat obligaziorik zuri kasu egiteko eta dinamika horrek konfrontaziorako aukera asko sortzen ditu”. (E1)

Administraziotik, ordea, beste era batera ikusten da kontua. Kontsultak egin dituztela diote, hedabideei entzun egin zaiela, baina, aldi berean, argi utzi dute azken erabakia nori dagokion.

“Guztiekin ez, hedabide guztiekin ez, baina hainbati bai kontsultak egiten genizkien, bueno ba kontsultak urtean zehar egiten genituen bileren bitartez edo deialdia ya gainean geneukanean bueno ba telefonoz edo idatziz esan zaie zer iruditzen zaizue aurten hau eta hau eta hau eta hau egiten badugu, bai? Beti ez zeuden ados, baina beti lortzen genuen adostasun maila bat behintzat. Konfliktorik ez zen egon, maila horretara ez ginen iristen”. (E10)

⁷⁶⁷ .- Lan honek ikergaitzat hartu duen epealdian, 2005-2013 bitartean, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza hiru pertsonen ardurapean izan da: Ramón Etxezarreta, Lurdes Auzmendi eta Patxi Baztarrika. Lehena denbora laburrez egon zen karguan. Beste biak, Auzmendi eta Baztarrika ataundarrak dira.

“Urte hauetan guztietan esan nahi duzu? Bueno euskerazko hedabideei entzun egiten zaie, noski entzun zaiela. [Eta ados daude erabilitako irizpideekin?] Nik ez dut entzun, ez dut inoiz sentitu irizpideen kontrako, ez dut inoiz entzun irizpide nagusi hiru horiek hartu eta horietakoren baten kontrako jarrerarik. (...) Iritziak entzun jakina entzuten ditugula, gero guri dagokigu erabakitzea, erantzukizun hori gurea da, onerako eta txarrerako, asmatzen badugu asmatzeko eta asmatzen ez badugu edozeinek kritikatu gaitzan, ezta? Baina nik euskarazko hedabideekin dugun solaskidetza oso solaskidetza normalizatu eta aberasgarritzat jotzen dut, inolako zalantzarik gabe. Beraiek ez dakit zer esango duten”. (E11)

Batzuek eta besteek egindako baieztapenen arabera, argi dago landu beharreko zelaia dela. Eta zelai horren nondik norakoak ulertzeko, beharrezkoa da “Hedabideak” diru-laguntzaren kudeaketa-prozedurari erreparatzea. Horregatik, elkarrizketen hirugarren atalean sartu aurretik; hau da, etorkizunari begira jarrita dagoen atalari ekin aurretik, interesgarria litzateke urteroko deialdiak jarraitzen dituen urrats administratiboari tartea eskaintzea.

5.4.2.1. DEIALDIAREN PROZEDURA ADMINISTRATIBOARI BURUZKO ZENBAIT ARGIBIDE

Tarte honetan, arestian iragarri bezala, diru-laguntza deialdia zirriborroa denetik esleitutako diruen zuriketa-prozesua bukatzen den arte betetzen diren zeregin eta epeei buruzko azalpena bilduko da. Beharrezko informazio zehatza jasotzeko, elkarrizketa eskatu zitzaizen “Hedabideak” diru-laguntzaren kudeaketaren ardura zuzena duten administrazioko hiru langileei, eta horiek baiezkoa eman zioten eskariari. Horietako bi 2010etik aurrera ibili izan dira, beste zeregin askorekin batera, deialdia kudeatzen; hirugarrena, 2011n hasi zen.

Hiru pertsona horiek esandakoen arabera, lehen konstatazioa litzateke administrazioaren barne-funtzionamenduak dituen ezaugarrien ondorioz, asko luzatzen direla epeak. Edozein deialdiren tramitaziorako lehenbiziko urratsa deialdi horren zirriborro-proposamena prestatu eta dagokion saileko aholkularitza juridikora bidaltzea da.

“Deialdi baten tramitazioa etxe honetan oso, oso luzea da. Hasieran egin behar dozu deialdiaren proposamena, zirriborro-proposamena eta egiten dituzun aldaketak edo zergatik uzten dozun hori arrazoituz memoria bat sinatu behar

du zuzendariak. Orduan deialdiaren testua eta memoria aholkularitza juridikora, Saileko aholkularitza juridikora bidaltzen dira beraiek legezko txostena egin dezaten. Gutxienez hilabete pasatzen da bertan, bai?”. (E5)

Behin aholkularitza juridikoak bere txostena landuta, deialdia kudeatzen duten teknikariek eta zuzendaritzak aztertzen dute txosten horretan jasotakoak deialdian jarri behar dituzten ala ez.

“Batuetan gauza batzuk jaso egin behar izaten dira, baina gero beste gauza batzuk, teknikoak baldin badira eta beraien ustez ba igual ez da egokia hau hemen jartzea, baina gure ustez hori da tokirik egokiena, ba horiek ez dira mugitzen baina beste gauza batzuk aldatu egiten dira. Batuetan gertatzen da aholkularitza juridikoak egindako txostenaz gain, guk be txosten osagarri bat egin behar izatea beraiek esandakoa bai edo ez jaso dogun edo zergatik, hori azalduz, batzutan egiten da, beste batzutan ez”. (E5)

Hurrengo urratsa Kontrol Ekonomikorako Bulegoan (KEB) burutzen da. Hor beste txosten bat egiten da eta, horrez gain, diru-kontuak ondo jasota dauden ala ez zaintzen da. KEBn duten lan-kargaren arabera, prozesua luzatu egin daiteke.

“Bertan egiten dute beste txosten bat, txosten normatibo fiskala, aztertzen dute araua ondo dagoen ala ez eta gero bestalde diru-kontuak eta ondo jasota dauden ala ez, bai? Ba diru kontu horiek noski ez ditugu jasotzen kasualitatez, diru kontu horiek aurrekontuetan jasota daude, horretarako aurrekontuen prestakuntzak eta egiten direnean zuzendaritza bakoitzari dagokio bere aurrekontuen ondoren betetze-maila jakiteko zein izango da helburu batzuk finkatzea, ekintza batzuk, indikadore horiek, orduan hoiek konprobatu egin behar dituzu baita ere deialdiarekin bat datozen, eta beraiek egiten dute beste txosten bat. OCEn deialdiak bi hilabete egin izan ditu, lan-kargaren arabera. OCEtik gobernuak argitaratzen dituen deialdi guztiak pasa behar dute; beraz, segun ze boladan doan igual lehenago egin daiteke baina beste batzutan bi hilabete nik esango nuke tope bezala inoiz (...) normala hilabete edo izaten da, baino...” (E5)

Kontrol Ekonomikorako Bulegoak prestatzen duen txostenaren arabera ikusten da diru-laguntzetarako agindua egokitu behar den ala ez. Behin azken bertsioa prest dagoenean, Gobernu Batzordera doa. “Hedabideak” deialdiaren kasuan, jarritako

partida bost milioi eurotik beherakoa denez ez du Gobernu Batzordearen baimena behar⁷⁶⁸.

“Gobernu Batzordeak gure kasuan ez ditu baimentzen, sailburuak informatu egiten du Gobernu Batzordean eta esaten du aizu halako deialdia jarriko dugu abian, OCEren txostena badugu. Ze gure deialdia 5 milioitik beherakoa da, 5 milioitik gorakoak balira orduan Gobernu Batzordeak baimendu egin behar ditu.(...) Gobernu Batzordetik pasatzeko ere hamabost egun”. (E5)

Eta gaia Gobernu Batzordera eramateko ere epe batzuk bete behar dira.

“Gobernu Batzordeak bilerak egiten ditu asteartean, eta bi aste lehenagoko osteguna da azken eguna handik hamabost egunerako Gobernu Batzordean gaia sartzeko”. (E6)

Prozesuaren hurrengo urratsa deialdia boletinean (EHAA) argitaratzea da. Eta fase horretan ere izan daiteke denbora zein espazio-gorabeherarik.

“Orain paperean ateratzen ez denetik aldatu da pixka bat, baino garai batean, klaro deialdi guztiak, HPSko deialdi guztiak⁷⁶⁹ batera zihoazenean kasi zan boletin berezi bat horretarako, orduan tokirik ez zen egoten. Orduan bilatu behar zan zein egunetan atera ahal zan, ez zen erreza, 5 deialdien testua sartzea, gehi eranskinak, deialdi bakoitzak bere eranskina, eske kasi ziren 2 liburu. Ohiko boletina gehi gure deialdia gehi eranskinak. Izaten zan oso, oso zaila tokia topatzea”. (E7)

Bestalde kontuan hartu behar da boletinean publikatuko den testuaren zuzentasuna ere zaindu behar dela, euskara aldetik ondo dagoen ala ez.

Prozedura administratiboaren izaerak eta derrigor jarraitu beharreko prozedurak azaltzen du, hortaz, lehen urratsa ematen denetik argitaratu bitartean igarotzen den denbora. Eta hori, esan bezala, bide osoaren lehen etapa egiteko; ondoren datozelako eskaerak egiteko epea, eta behin hori agortuta, ekiten zaio esleipenak argitaratu bitarteko lanari. Elkarrizketatuek diote egin beharreko guztia azken egunerako uzten duen hedabiderik egon badagoen arren, urteekin nabarmena

⁷⁶⁸ .- Elkarrizketa 2014 urtean egin zen, eta urte horretako prozedurari buruz ari da elkarrizketatua. Kontuan izan 2007, 2008, 2009, 2010 eta 2011 urteetan “Hedabideak” deialdiak 5 milioi eurotik gorako diru-partida zuela; hortaz, urte haietan Gobernu Batzordearen baimena behar izan zuen.

⁷⁶⁹ .- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kaleratzen dituen deialdi hauetaz ari da: Euskalgintza, IKT (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia), Hedabideak, EBPN/ESEP (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia/Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) eta Lanhitz. Zenbait urtetan, 2008an, 2009an eta 2010ean esaterako, deialdi horiek guztiak aldi berean kaleratu ziren.

dela sektoreak asko ikasi duela deialdiaren funtzionamenduaz, “profesionalizatu” egin dela.

“Profesionalizatzen ari dira, orduan badakite zein den funtzionamendua, orduan badakite Gabonetan edo abenduan ateratzen ez bada, ba badakigu apirila baino lehenago ez dela kaleratuko”. (E6)

“Gure harridurarako, baina zentzu positiboan, hedabideetako sektorea nahiko, beti komentatu izan dugu hauek profesionalak dira eta gustoa ematen du espedienteak hartzea, aztertzea, jo danak txukun daude”. (E5)

Espedienteak aztertzea aipatzen da arestiko paragrafo horretan; izan ere, horixe baita kudeatzaileen zeregin nagusia hedabide bakoitzari zenbat diru esleituko zaion ebazteko. Hainbat datu aztertu eta konprobatu behar dituzte, besteak beste, aurkeztutako aurrekontuak, diru-sarrerak edota beste erakunde batzuetatik dirua jasotzen duten.

“Diru-laguntzak eskatu egin baditu eta jaso egin baditu, dagokion diputazioaren edo udalaren boletinean ikus dezakegu eta konprobatu dezakegu. Bale, hori bat. Gero bestalde, diru-sarrerak, ba diru sarrerak berak, o sea, esaten dituenak sinistu egiten ditugu, egia da a posteriori, gero konprobatu egiten ditugula, baita ere, kasu batzuetan aurreko urteko auditoriarekin bai? Hor erkatu egiten dira datuak eta gero bueno ba zuriketa egiten denean. Baina guk printzipioz sinistu egiten dugu beraiek esaten dutena”. (E5)

Baliabide ekonomikoez gain, eskaria aurkeztu duen hedabide inprimatu bakoitzaren ezaugarriak (botaldiak, maiztasunak, orrialde-kopuruak) arakatzen dituzte,

“Guk daukagu OJDk emandako datuak edo inprentako faktura edo ziurtagiria eta hor agertzen da bueno zenbatekoa den tirada eta batzuetan jartzen dute orri-kopurua eta abar, hori fakturretan ikusten da. Orrialde-kopurua gero fakturak aurkezten dituztenean inprentako batzuetan agertzen da orrialde-kopurua, baina orrialde-kopurua bestela guk beraiek ematen dutena begiratzen degu eta guk aldizkari horiek jasotzen ditugunez beti begiratzen dugu ia bat datorren ala ez (...) Astero edo hamabostero edo hilero ateratzen den aldizkariak gehienetan dute urte osoan berdina da, ez dago gorabeherarik, begiratzen ditugu ere batzuk eta bai ia bat dator berak emandakoarekin. Problematikogoa izaten da hori, bertsolarien aldizkaria eta holakoak, igual zenbaki batean 200 orrialde ditu eta hurrengoan 300. Bueno aurreko urtekoak hartu egiten ditugu eta begiratu egiten ditugu eta alde handia badago ba egokitu egiten dugu hori”. (E6)

Edukiari erreparatuta, diru-laguntza deialdiak zenbait urtetan aldaketa handirik ez izateak lana erraztu duela diote horren kudeaketaz arduratzen diren teknikariek, eta aldi berean, sektoreari lasaitasuna eman diola.

“Guri tramitazioa egiterakoan bueno ba errazagoa da, baina bueno pentsatzen dut hor lasaitasuna edo sektoreak izango zuela, ze hau da, aldaketarik ez da izan orduan bueno... pentsatzen dot ezta? Honbre, aldaketak eta izan dira, baina deialdia izan da aurreko urteetako kopia nagusiki, orduan lasaitasuna gehienbat nik esango nuke beraientzat”. (E5)

Zeregina, ordea, ez da bukatzen esleipenaren berri ematen duen ebazpena kaleratzearekin. Izan ere, emandako diru-laguntzak justifikatu egin behar dira; hots, dirua deialdian aurreikusitako helburuetarako erabili dela konprobatu behar dute. Fase horri zuriketa deitzen zaio.

“Zuriketa da diru-laguntzaren justifikazioa. Orduan epe bat jartzen dugu, aginduan jarrita dago epea eta orduan beraiek azken batean zuriketarekin zer egiten da? Guk konprobatu egin behar dugu emandako dirua emandako helburuetara erabili dela. [Nola?] Egiten duguna da hartu eskabidea eta justifikazioa. Justifikazioa egiteko beraiek egiten digute hasteko memoria antzerako bat: zer egiten duten, hasierako helburuak bete diren ala ez, egia da hor literatura dela baina bueno batzutan lagungarri gertatzen da, eta gero daude diru-kontuak. Justifikatu egin behar dute gastu-aurrekontua; beraiek esandako gastu-aurrekontua edo arazketaren ondorengo gastu-aurrekontua eta horretarako egin behar dute balantze ekonomikoa edo aurrekontu likidatua aurkeztu egin behar digute eta gero gastu-zerrenda guztia, sailkatua. Eta gero guk konprobatu egiten dugu hasierako eskabidearekin bat datorren eta benetan egindako gastua bat datorren egitasmoarekin eta egitasmoaren edo emandako diru-laguntzaren betetze-maila”. (E5)

Elkarrizketatuen arabera, noizbehinka gertatzen da hasierako eskabidean adierazitakoa eta bukaerako justifikazioa bat ez etortzea. Horrelakoetan dirua itzuli behar izaten da, eta itzulitakoa ez doa HPSra, baizik eta altxortegi orokorrera.

Bestalde, elkarrizketatuek argi utzi zuten deialdiaren edukia ardura politikoa duenak/dutenek erabakitzen duela/dutela; hau da, horren/horien esku geratzen dira ondoko erabakiak: hedabideen multzokako banaketa, multzo bakoitzari zenbat diru egokitu, nagusiki gaztelaniaz ari direnei euskarazko gehigarriak lantzeko diru-laguntzak eman ala ez, edota balorazio-irizpideak.

“Erabakiak beraienak dira, guk proposamenak egin ditzakegu, noski baietz eta egiten ditugu, baina erabakiak beraienak, bai, bai”. (E5)

Azkenik, deialdiaren ebaluaziorik egiten ote den galdetu zitzairen, eta erantzun zuten beraiek hainbat urtetan bildu dituzten datuekin jarraipen orokor bat egiten dutela, baina ez ebaluazio sistematikorik.

“Ez holakorik ez dugu egiten, ez. Gainera nik beti pentsatu izan dut e, ebaluazioak egitea oso kontu zaila da, ebaluazio txukun bat egiteko jakin egin behar da, bai? Guk egiten ditugun ebaluazioak, egiten ditugunak dira azken batean deialdiaren beharra eta deialdiaren nondik norakoa, ibilbidea ikusteko, bai? Baina oso orokorrak egiten ditugu, eta hor datu asko dauzkagu baina deialdiari dagozkionak edo multzo ezberdinen ibilbideari dagozkionak”. (E5)

Hortaz, ez da diru-laguntza deialdiaren helburuak betetzen ote diren aztertzeko ebakuaziorik burutu.

“Ez, ez. Bueno, aber, bere garaian ba Unescok zeozer egin zuen⁷⁷⁰ eta hor gure iritziak be eman genituen, orduan hor bakoitzak bere iritzia izan dezake Unescoren lanaren inguruan ezta? Baina guk barruan, etxe barruan holako ebaluaziorik ez dugu egiten”. (E5)

Baieztapen horren aurrean ezinbesteko galdera egin zitzairen: Beharrezkoa litzateke? Elkarrizketatu batek isiltasunarekin eman zion hasiera erantzunari eta ondoren, “*Egiten den guztia ondo egongo litzateke*” gaineratu zuen. Beste batek, “*Kalterik ez luke egingo*” adierazi zuen.

Hemen bukatzen da diru-laguntzaren kudeaketa-prozesuak betetzen dituen urratsen azalpena. Orain, aurrera begira jarrita, hedabide inprimatuen sektoreko ahotsek zein administraziokoek dituzten diskurtsoak jasotzeko unea da.

⁷⁷⁰ .- 2011n UNESCO Katedrak eta EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia sailak egindako lanaz ari da. Izenburua: *Hizkuntza Politikorako Sailburuordetzak kudeatzen dituen diru-laguntza deialdien ebaluaketa eta hobekuntzarako proposamenak. HEDABIDEAK DEIALDIA*. (Hizkuntza Politikorako beharko luke izan baina Orekin idatzita dago). Lanaren egileek HPSko teknikarien, erakunde eskatzaileen eta hedabideen kontsumitzaileen iritzia jaso zuten eta EFQM Kalitate eta Bikaintasun ereduari jarraituz, deialdia bera aztertu zuten. Horrekin batera, hedabideek euskararen erabilpenean duten inpaktua estimatu zuten, eta azkenik, laguntzen eskatzaileek euren auto-ebaluazioa egin ahal izateko eta euren inpaktua estimatzeko tresna eratu zuten. Lanaren alde kuantitatiboan, 2010eko datuak erabili zituzten. Ebaluazio-txostenaren edukia eta emaitzak ikerketa honen aterpe teorikoan daude bilduta (2.1.4.2.2. *Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntzaren ebaluazioa* izeneko atalean).

5.4.3. EUSKARAZKO HEDABIDE INPRIMATUEK ETA EUSKO JAURLARITZAK EGIN BEHARREKOA(Z)

Atal honetan aurrera begira jarri ziren elkarrizketatuak, lehentasunezkoak izan beharko liratekeen erronkei eta zereginiei begira. Gidoian sektoreko aktoreei dagozkienak eta administrazioari dagozkionak banatuta planteatu baziren ere, elkarrizketa-prozesuak agerian utzi zuen zenbait kasutan erronka edo zeregin bera bi aldeetan ageri dela; hau da, zeregin bera hedabideei eta Eusko Jaurlaritzari esleitzen zaiola. Derrigorrezkoa da hala gertatzea; esaterako, burutu beharreko zeregina bien arteko harremanak hobetzea baldin bada, batzuek eta besteek heldu behar diote zeregin horri.

Ñabardurak ñabardura, hirugarren ataleko transkripzioak irakurri eta aztertu ondoren, baieztatu eta azpimarratu daiteke elkarrizketatuak bat datozela adierazitako kontu gehientsuenetan. Zalantza barik, elkarlana eta adostasuna landu beharra da bildutako diskurtsoak josten dituen ideia-gakoa; hala ageri da, behin eta berriro, iritzietan; batzuetan esplizituki, eta gainontzekoetan lerro artean igartzen da.

“Nik lankidetzan sinistu izan dot beti, hau da gizarte-ekimena eta erakundeen ahalmena uztartzea uste dot gauza guztietarako dala ezinbestekoa eta kasu honetan duda barik”. (E1)

Lankidetzak krisiari aurre egiteko zein globalizazio-aroan murgiltzeko formula ezin egokiagoa dela diote ia elkarrizketatu denek. Aipatzekoa da globalizazioa ez dutela ikusten mehatxu, traba edo oztopo bezala, baizik eta euskaraz ari diren hedabideentzako aukera bezala.

“Nik alde horretatik globalizazioa aukera bezala ikusten det ze argi eta garbi erakusten dizu zuri buruz eta zure inguruari buruz inork ez dizula hitz egingo baina ezta hemengo gaztelaniazko hedabideetan ere (...) Globalizazioak ez bakarrik ez dit oztoporik jartzen baizik eta pixka bat animatzen nau eta bultzatzen nau nerera hurbiltzera ez? (...) Baina horrenbeste aukera daukadanez, hori nire hizkuntzan ematen didanak ondo eman behar dit, ze euskeraz irakurtzeagatik bakarrik ez dut irakurriko, irakurriko det interesgarria baldin bada, irakurriko det zerbait ematen baldin badit eta hemendik kanpoko gaiei dagokienez, ba gauza bera”. (E4)

Etorkizunera begira jarrita, euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak datozen urteetan heldu beharreko erronkak eta zereginak zeintzuk diren zehazteko eskatu zitzaizkien elkarrizketatuei. Jasotako erantzunak sei multzotan bildu daitezke:

1.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen arteko elkarlana sustatu, gauzatu eta edukiz hornitu. Erronka/zeregin hau aipatu zen sarrien eta horren oinarrian legokeen argudio nagusia litzateke bakoitzak bere aldetik aritzeak ez diela mesederik egiten euskarazkoei.

“Uste dot badagozala ondiokan ze irabazi handiak batera joanda, o sea lehiatuta batera, lehiatuta merkatuan uste dot gauza asko irabazteko dekola (...) Jarraitu geinke bakoitza bere aldetik lehian edo bateratu eta lehiatu danok, uste dot hortik doala gehixago mundua orokorrean eta gu be hortik joan beharra daukagula. Gauza asko daukaguz batera egitekoak eta ondiokan asmatzeko daukaguzanak be bai seguruenik (...) Bueno zelanbait batzea zen orain arte erronketako bat ta Tokikomak eta Hekimenek erraztu dabe hori. Oin hori edukiz janztea izango da seguruenik e erronketako bat”. (E2)

“Hau izango da munduan sinergiaz gehien hitz egiten duen sektorea, mundu osoan, eta gutxiena praktikatzen duena. Nahi dugu sinergia denok, etorri zaitzen ni nagoen lekura, horrela ulertzen dugu dela sinergia. Orain krisiari esker, hala gertatu da, krisiari gauza asko eskertu behar zaio, eskertu edo jakin gertatu direla”. (E3)

Bigarren elkarrizketatu horren arabera, baliabideak eta ahaleginak batzearen beharra testuinguru ekonomikoaren bilakaerak, krisiak, eragin du. Sektorean zein administrazioaren aurrekontuetan murrizketak ekarri dituen krisia litzateke, hortaz, sinergia-beharraren eragile.

Ez bakarrik sektorean, administrazioetik ere, laguntza-deialdiaren ardura politikoa izan dutenen iritziz, behar beharrezkoa da hedabideek elkarri begira eta elkarrekin aritzea,

“Uste dut hedabideek beraiek erabakia hartu behar dutela ezin dela jarraitu gaurko bidetik eta batasunak dudarik gabe onura izugarriak ekarriko lizkiela guztiei, guztiei. Irabaziko genukeela bitarteko hobeak edukitzen, komunikabide hobeak edukitzen, profesional hobeak edukitzen, ondo ordainduak, beraz kalitate askoz hobeagoak eta irakurleek seguru nago zenbat eta itxuraz, edukiz jantziagoak ikusi kontsumitzeko grina handiagoa edukiko luketela”. (E10)

Elkarrizketatu honek argi dio batera aritzeak onurak ekarriko lizkiekeela hedabideei, ez soilik barrura begirako funtzionamenduari dagokionez, baizik eta baita

kontsumitzaileei begira ere; izan ere, bere ustez, ekoiztutako produktuak kalitatean irabaziko lukete eta horrek kontsumitzaileak erakartzeko balioko luke.

2.- Euskarazko hedabide inprimatuen egoerari buruzko gogoeta sakona eta partekatua egin.

“Nik uste dot gogoeta egitea nagusiki. Uste dot etorkizun oso konprometitua dekola. Papera, ez balitz publizitatearen migrazioa oso lentoa izaten ari delako, papera honezkero egongo zan oso, oso larri”. (E1)

“Nik uste det elkarri begiratu behar diotela Komunikazio Biziagoak eta Tokimomek elkarri begiratu behar diote eta Argiak ere, hiru eragile nagusi horiek behintzat pankartarekin batera ateratzeaz gain, diagnostiko partekatu bat egin behar dute eta proposamen nire ustez, proposamen konpartitu bat eta proposamen realista bat, bakoitzak ikusiz ze toki bete behar duen eta nola indartu elkar”. (E4)

Gainera, gogoeta horretan mamitu daitezkeen ekarpenak, inputak partekatzeko, eta horietatik abiatuta, administrazioari luzatu dakizkiokeen proposamenak gorpuzteko behatokia edo behategia⁷⁷¹ martxan jartzea lehentasunezkoztat jotzen dute elkarrizketatu askok.

“Nik uste dot momentu honetan benetan beharko litzatekeela, hor azkeneko ESEP honetan planteatuta dago, euskal hedabideen behatoki hori, niri hori urgentea iruditzen zait, ze azken batean gogoeta horiek e bildu, partekatu eta ditzakeen, ez dakit ze, nola deitu behatoki horri, baina hori, horretarako, gogoeta hoiek partekatzeko eta horren arabera administrazioari proposamenak egiteko eta administrazioak ere jakiteko. (...) Nik hor uste det behar dela, organo bat, behar da toki bat, behar da espazio bat gogoeta hoiek partekatzeko eta benetan, Irigoienazpikoa⁷⁷² dela, ez dela, baina behatoki hori eta oso oker ez banago ESEPen gainera lehentasunezko ekintzen artean hori dago. Neri hori urgentea iruditzen zait”. (E4)

⁷⁷¹ .- Elkarrizketatu batzuek behatokia deitzen duten bitartean beste batzuek behategia esaten diote.

⁷⁷² .- Irigoienazpikoa egitasmoa 2009ko azken hilabeteetan jarri zuen martxan Andoaingo udalak, eta 2010eko apirilaren 7an, Andoainen bertan, hizkuntza ez-hegemoniko edo maila ertainekoek hedabideetan eta IKTetan urratu behar duten bidearen inguruan egindako mintegian aurkeztu zen. Honelaxe definitu zen Irigoienazpikoa egitasmoa: “hizkuntza ez-hegemonikoen jakintza trukerako gunea izango da. Euskaratik egingo da lan, baina beste hizkuntzei atea zabalik dituelarik beti. Hedabideek eta IKTek hizkuntza ertainengan duten eragina eta hizkuntzok erreminta hauetan zelan eraginkorrago bihurtu aztertuko da. Batzuetan ikerketak eginaz, beste batzuetan teoriak praktikan jartzeko laborategia erabiliz, datuak lortu eta kontrastatuz, bestetan gainontzeko herrialdeetan egiten dena norberarenera egokituz zein hemen garatutakoak gainontzekoen probetxura jarriz...” (Arantzabal, 2011: 190). Egitasmoaren egoitza Andoaingo udalaren jabetzakoa zen Berrozpe sektoreko eraikin batean kokatzea aurreikusitua zen.

Behategiarena aipatu zutenei horren ekimena eta kudeaketa noren esku egon beharko litzatekeen galdetu zitzairen eta erantzukizuna partekatua izatearen alde agertu ziren, lankidetzan oinarritua; sektoreaz eta herri erakundeez gain, unibertsitatea ere tartean egon beharko litzatekeela zioten.

“Hor lankidetzan egin beharko litzateke, sektoreak bakarrik ez, bueno ez nintzateke ni oso seguru egongo bai? Baina bueno eta Jaurlaritzak, beste administrazioek eta unibertsitateak adibidez bai? (...) Lankidetzan aritu beharko lukeen foro bat izan beharko luke”. (E10)

“Nik lideratzen ikusten dot Hekimen, hedabideok garezelako horko zera ezta, horko jasotzaile eta egile nagusiek; baina nik ez daukot inongo problemarik parean ipintzeko Jaurlaritza, aldundiak, unibertsitatea”. (E2)

“Nik uste dut hiru hanka oso argi daudela: bat hedabideak beraiek, bi unibertsitate mundua, hiru instituzioak. Eta ez bakarrik batzuk egin, besteak dirua jarri eta besteak ikertu, ez. Hor interrelazio askoz handiagoa egon behar du hiruren artean”. (E9)

“Behategian unibertsitateak, sektoreak eta erakundeak zertzen badira, hor uztartzen badira, hedabide publikoak tartean be bai, nik uste dot hortik etorri daitekeela eta administrazioak hori bultzatzea izango litzateke oso inportantea objetibatzeko zerak, hortik neurketa-sistemak, adierazle-sistemak eta hortik etorri dadila... ikerketa ze gabezia dagoen, ze produkto behar dan sektore hontan edo atal hontan edo segmento hontan eraginkorrangoak izateko. Neurtu eta ikertzen bada, ikerketak ondorioak emongo ditu, ondorioetatik dator politikak proposatzea”. (E1)

Administrazioa, unibertsitatea/k eta hedabideez gain, laugarren aktore bat ere egon beharko litzatekeela proposatu du batek; zentro teknologikoak hain zuzen.

“Eta hor ari gara laugarren hanka bat edo ikusten eta oraindik zalantzan dago, baina da zentro teknologikoena, baina iruditzen zaigu baita ere hori ere hor sartu behar dela. Berrikuntzaz eta prospektibaz eta hitz egiten dugunean, gero ta gehiago teknologiaz ari gara, teknologia berriez eta hor zentro teknologikoek nik uste dut paper handia daukatela ba ikusteko adibidez, atzerrian zer egiten ari diren, zer motatako lanak egin ditzakegun. (...) Inpresioa daukagu hor egotea, hor barruan egotea inportantea izango dala, esate baterako, egiteko urtean behin, urtean hirutan txosten teknologiko bat, hau da, ze gauza behar diren, hau da, ze gauza berri ateratzen ari da, edo egiten ari da, edo ze proiektu garatzen ari dira hemen eta munduan zehar ba hedabideekin lotuta”. (E12)

3.- Aurrekoarekin zeharo lotuta legoke zenbaitek aipatu duten beste zeregin edota erronka bat: sektorea ordenatu. Labur esateko, euskarazko hedabideen eskaintzaren nondik norakoak identifikatu, zehaztu, adostu. Zeregin hori batzuek sektorearen esku uzten dute eta beste batzuentzat berriz, sektorearen eta administrazioaren/en artean konpartitua beharko litzateke

“Guk egin behar dogu: zenbat gara? Horrenbeste? Zenbat izango gara hurrengo urtetan? Horrenbeste. Zer da gutxienekoa herri hontan zertu behar duguna? Gutixenez guk programatu, guk programatu, esan nahi det sektoreak eta Jaurlaritzak eta administrazio publikoak, hau egin beharko luke”. (E2)

“Sektoreak egin beharko luke etorkizunerako plan bat: zer eratako hedabideak behar ditugu euskaraz, zein da nahi dugun argazkia, nolako hedabideak, zenbat ...” (E8)

Azken finean, euskarazko hedabideen eskaintzak nolakoa izen behar duen erabakitzeaz ari da, normalizazioaren bidean modu progresibo batean hedabideen esparruan zer eskaini behar den erabakitzeaz. Elkarrizketatu bik Eusko Jaurlearitzari egotzen diote sektorea ordenatu gabe egotea. Horien esanetan, bi arrazoik eragin dute hedabide inprimatuaren sektorea dagoen moduan egotea; batetik, hedabideena sektore ekonomikotzat ez hartzea eta, bestetik, mesfidantza.

“Ez da egon sektorearen ordenamendu itundu bat, ez da egon.(...) ez da ordenatu, ez da ordenatu nahi izan, ez da ordenatu osasuna egin zan bezala eta makina-herramienta (M-H) ordenatu zen bezala, eta aireportuak eta garraio publikoa. Hori ordenatzeko liderazgoa edo sektorearekin batera hartu zezakeenak, Jaurlearitzak, ez zuen ordenatu nahi izan (...) Zergatitik ez da gertatu hori komunikabideen alorrean, edo gertatu da ez ordenatzea? ba ez delako ekonomia kontsideratu. Kontsideratzen da kultura edo hizkuntzaren garapeneko kontu bat ez? (...) gu gara toleratu behar den gauza bat ez? (...) orduan alde batetik ez da kontuan hartu hor ekonomia sortzen ari garela, hor dala sektore bat aberastasuna sortzen duena, lanpostuak sortzen dituen eta gero beste aldetik da gehiago parte ideologiko moduko bat; esan nahi det, zuk makina-herramientan zuk herramienta saltzen duzu, ez zaie inportako gerentea izatea ez dakit zer inguru politikokoa edo ez. Gure kasuan, guk, hauek fidagarriak dira edo ez dira fidagarriak, en fin , jendeak hitz egiten duen bezala gureak dira edo ez dira gureak ez?”. (E2)

“Isilik egon daitezene baina ez daitezene hil adina diru ematera mugatu da erakunde publikoen politika; inoiz izan gabe argi zer nolako hedabide egitura nahiko luketen ere (izan hura egokia edo ez). Eta beti hartu dituzte mesfidantza handiz, kontrolatzen ez dituztelako”. (E8)

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Hala ere, elkarrizketatuen artean bada egoeraren kausa beste baten teilatuan, administrazioarenean jarri beharrean, norberaren teilatuan kokatzen duenik ere. Honen esanetan, euskarazkoek ez dute askotan sektore moduan funtzionatu.

“Bueno, gu be ez gara sektore bat izan, ez tokikoak eta ez orokorrak, ez dogu funtzionatu sektore moduan; juntu izan gara bakarrik protesta konkretu batean pankarta baten atzean baina bestela ez da egon...” (E1)

Jaurlaritzatik, berriz, tinko argudiatzen da sektore bezala kontsideratzen duela euskaraz idatzizko hedabidegintzarena. Argudio hori babesteko “Hedabideak” diru-laguntza deialdia bera aipatzen dute; hots, Eusko Jaurlaritzak urtero kaleratu duela euskarazkoentzako deialdi espezifikoa eta bertan ezarritako baliabide ekonomikoei begiratuta laguntza-deialdi guztien artean diru gehien duena dela gaineratzen dute.

“Baina euskarazko hedabideen sektorea sektoretzat ez baldin badu Jaurlaritzak hartzen nola demontre esplika diteke diru-laguntza deialdia urtez urte hutsik egin gabe hor egotea eta gainera ematen zaion garrantziarekin egotea, batzuk behintzat ematen diogunarekin. Hori sektorea ez bada! Ez dakit diru-laguntza bat, hedabideak, IKTetako software produktuak, aisialdirako euskara sustapeneko ekintzak, benga tori denak deialdi batera, ez dugu politika hori egiten eta euskarazko hedabideek daukate deialdi espezifikoa bat, gainera daukate diru-laguntza deialdi hornituena ekonomikoki diferentzia handiarekin, diferentzia handiarekin. Hori sektorea ez bada! (...) Sektoretzat kontsideratu bai ala ez? Sektoretzat kontsideratzen dugunaren erakusgarri da 2013ko aurrekontuak egiterakoan nahitanahiez lehentasunak finkatu behar izan genituela diru-sarrerak jaitsi zirelako eta euskarazko hedabideei zuzendutako diru-laguntza izan zen bakarra, helduen euskalduntzearekin batera, zero beherapen izan zuena. Beraz, diru-sarrerak gutxitu direnean ere eutsi zaie laguntzei. Ez bakarrik sektoretzat kontsideratzen ditugulako baizik eta lehentasunezko sektoretzat”. (E11)

Ikuspegiak ikuspegi, hedabideena sektore bezala kontsideratua izatea behin eta berriro ageri da elkarrizketetan aurrera begirako erronka gisa.

“Sektore moduko trataera lortzea ez bakarrik kultur ikuspegitik, baita industri jarduera ekonomiko eta industri jarduera moduan”. (E9)

Sektorearentzat erronka dena, administrazioarentzat zeregina bilakatuko da aurrerago ikusiko den bezala. Hau da, etorkizunari begira administrazioak burutu

beharrekoei buruz galdetu zenean, sarri agertu zen hedabide inprimatuei bere egitekoa eta estrategikotasuna aitortzearena.

4.- Bada etorkizuna egunerokoari zeharo lotuta ikusten duenik ere, horrentzat lehentasunezkoa irautea da.

“Ui, orain lehentasun handiena, guztiena da bizirautea, bizirautea. Bueno, guztiona, nik entzuten dudanagatik gehienona. Ba oso estu gabiltz, oso estu gabiltz eta orduan ba esango nuke bizirautea dela erronkarik handiena aurrera begira, beti izan da hola ez”. (E9)

5.- Eraginkortasuna, ahalik eta hartzaile gehienengana iristea, dagoeneko euskarazkoak kontsumitzen dituzten nukleo gogorretik harantzago, hurrengo geruzetan daudenengana iristea da sarri aipatu den beste lehentasunezko zeregin bat. Hori lortzeko errezeta gisa teknologia berriak erabiltzea eta ausardia aipatzen dira.

“Lehentasuna da jakina jende gehiagorengana iristea, hor ez dago zalantzarik, jende gehiagorengana iritsita horrek esan nahi du kalitatezkoa zarela, horrek esan nahi du pluralagoak zarela, horren esan nahi du eraginkorragoa zarela ezta? Gehiago lortzen duzula egiten duzunarekin eta horra iristeko, jende gehiagorengana iristeko teknologia berriekin apustu handia egin behar dugu, ausarta izan behar duzu, jarraitu behar duzu ekintzailea izaten, jarraitu behar duzu ilusioa izaten (...) nola egin jende gehiago erakartzeko edo nola egin jende gehiagorengana hurbiltzeko, ausartagoak izan behar dugu seguraski ulertzeko, beste geruza horietan jendeak zer nahi duen, zer eskatzen duen, galdu gabe nukleo horrek zer nahi duen eta zer eskatzen duen, hori da gure oinarria baina gehiago ulertzeko zer eskatzen duten besteek”. (E12)

Irakurleak irabazteko, hartzaile gehiagorengana iristeko sektoreko ordezkariak onartzen dute produktu hobeak, “erreferentzialagoak” egin behar dituztela; baina horretarako beharrezkotzat jotzen dute administrazioaren eskuhartzea, bereziki sustapen-kanpainen bidez, “lurra ongarrirituz” ondoko pasartean ageri den bezala.

“Bisualizatu dadila euskerazko produktuak badaudela, bisualizatu, prestigiatu, bisualizatu baita ere noski produktuak hobetuz. Orduan dago elementu bat internoa dena, guk produktu hobeak egin behar ditugu, erreferentzialagoak eta argitaratu behar dugu bihar ez dakit zer inork argitaratu ez duena besteek baino lehenago, azken batean gurea da lehia bat zeinek argitaratzen duen lehenago ta hobeto. Hori da bat, eta bestea da gu hori egiten ari garen bitartean lortu behar da gero ta gehiago diren euskaldun horiek gero ta gehiago kontsumitzea euskeraz, ETB, antzerkia... eta hori elementu externo bat da, ez da gurea bakarrik, hori da Jaurlaritzak esaten duenean komunikazioa sustatu ulertu behar da komunikabideen prestigio bat, komunikabideen bisualizazio bat,

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

bisualizatu dadila existitzen dela egunkari hori, bisualizatu dadila ETB1 dagoela, bisualizatu dadila badaudela euskerazko literatura, euskerazko produktuak, herri aldizkariak, Letxundi eta... Hori da elemento externo bat. Gu ezin garaegon, gu oso onak gara eta guk ez daukagu zer hobeturik, guk egin behar duguna da umildade ariketa bat, badaukagu hobetzeko. Seguraski asko hobetu dugu azken 20 urte hauetan, eta asko daukagu hobetzeko. Baina behar dugu terreno ongarritu bat eta terrenoa ongarritzea Jaurlaritzari, administrazio publikoari, gurekin elkarlanean dagokio. Gure lana da hazi on bat eukitzea, kalitatezkoa, baina behar dugu lur ongarritu bat”.(E2)

Elkarrizketatu horrek adierazitakoaren arabera beraz, euskarazko hedabide inprimatuen sektoreari kalitatezko hazi jartzea dagokio eta administrazioak hazi hori garatzeko, sendotzeko behar den lur ongarritua jarri beharko luke.

6.- Administrazioarekin, edo batek dioen moduan “administrazioekin” diren harremanak, komunikazioa hobetzea da sektoreak aurrera begira duen beste erronka/zeregina.

“Nik uste dut administrazioarekin lortu behar dela komunikazio hobea, lortu behar da konpartitzea gauza gehiago eta horrek eskatzen du ahalegina bi aldeetatik zalantzarik gabe”. (E12)

“Instituzioekin lortu dezala mintzakidetza egoki bat, hitzarmenarena lortu dadin, segurtasuna eman diezagun guri”. (E9)

Behin sektoreak etorkizunera begira dituen zereginak jaso ondoren, administrazioari, nagusiki Eusko Jaurlaritzari dagozkionak plazaratzeari ekin zioten elkarrizketatuek. Horiek garantzen hasi aurretik, nabarmendu behar da euskarazko hedabide inprimatuen ordezkariak balioetsi egiten dutela administrazioetik urtetan egindako ahalegina. Hau da, “Hedabideak” deialdiari buruzko iritzia lantzeko tartean (5.4.2. atala) ikusi da sektoreak onartu eta aldarrikatu egiten duela deialdia ezinbestekoa dela, aho batez aitortzen da euskarazko hedabide inprimatuentzat duen balioa. Orain berriz gauza bera gertatzen da administrazioak egin duena baloratzerakoan, hori ere aho batez azpimarratzen da.

“Nik uste dut haien lana ezinbestekoa izan dela gaur egun dagoena egiteko. Uste dut aitortu behar zaiela ere bai ez dutela, eta hori gutxitan aitortu izan da, ez dutela eskatu konpromiso ideologikorik edo konpromiso politikorik; hau da, seguraski askotan beraien gogoz kontrako edo politikoki beraien ildokoak ez ziren produktuak sustatzen jarraitu dute eta bultzatzen eta hori hola da, hala behar du, derrigorrez hala behar du baina hola izanda, izan zitekeen beste modu batez, oso salagarria izango zen baina ez da izan eta hori aitortu behar

da, aitortu behar da hori, iraunkortasunez jarraitu izan dela, ari naiz batez ere HPSri buruz e, zeren Nafarroari buruz hitz egingo bagenu ba beste historia bati buruz hitz egingo genuke. Baina bueno egia da HPSk ematen dituenak direla diru-laguntza inportanteenak, orduan hori aitortu behar da”. (E12)

Baina aitortzaren ondoren, segituan dator kritika, jarritako diru-kantitateari loturik dagoena. Askok diote hedabideak laguntzeko deialdian jarritako diru-baliabideak ez direla sektoreak behar dituen neurrikoak.

“Ahalegin hori izan den sektoreak behar duenaren tamainakoa? Ba seguraski ez, sektoreak egin duen eta ematen dituen produkzioa eta euskal komunitateari aportatu dion guztia aportatu ondoren jarriko bagenu balantza batean, ba beharbada aportazio ekonomikoa ez da behar zuena izan; batez ere baldintzak, produktu horiek ekoiztu diren baldintzak oso prekarioak izan direlako beti, eta jarraitzen dute izaten, eta gero eta prekarioagoak dira. Orduan, ez da benetan egin ahalegin bat sektorea homologatzeko. Askotan eskatu izan zaio sektoreari edo produktuari kalitate bat, berrikuntza bat, baina ez dira jarri baliabideak hortarako jakinik baliabide horiek beharrezkoak direla, ez gaudelako erdal hedabideen liga berean jokatzeko ari. Orduan hori hala da, seguraski ez da izan izan behar zuena, baina aurrekoa aitortu behar zaio”. (E12)

“Jaurlaritzak daukan dirua nahikoa da edo ez da? Bueno sekula ez da nahikoa eta sekula ez da izango gainera. Baina egia da oin momentu honetan marra gorri baten garelara, o sea, hortik behera ya nekez litzateke onargarri.(...) Gehiago doitzera nekez joan leike, nekez joan leike ez bada produktuaren kaltetan, eta hori litzareke pausuak atzera egiten hastea, euskera ardatz moduan dauan enpresa honetan be bai, ezta? Eta euskerak atzera egitea ezin dogu permitidu, o sea, aurrera egin behar dogu derrigor. Nik hala sinisten dot eta egin beharko genduke. Orduan diru-laguntza horreek marran dare, hortik behera ez da onargarria nire ustez”. (E2)

Jarritako diru-partidak ez ezik, gogor kritikatzeko da publizitate instituzionalaren arloan Eusko Jaurlaritzak izan duen jokabidea. Askoren ustez, jokabide baztertzailea izan da.

“Publizidadearen munduan gu bai egon izan garelara oso bazterreratuak orokorrean euskarazko medioak konparatuta erdaldunekin. Erdaldunekin hemen oparotasun garaietan hemen ze dirutzak joan izan dira publizidadean erdaldunetara edo euskarazko publikoetara, ze dirutzak; eta guk hortik ez dugu ia, ia ezer; eta hori ez da bakarrik, da tresna bat baita ere herrialde guztietan prentsa eta hedabideak bultzatzeko. Modu bat da ere publizidadea egiten dut interesatzen zaidalako e, baina gainera bultzatzen dudalako medioa, El País, El Mundo, ez dakit zer. Sustapen-molde hori guretzat ez da existitu ia, ez dugu lortu eta gainera hor daukagun erronka itzela da mundu hori oso opakoa dela, gezurra badirudi ere”. (E9)

Hortaz, irakurritakoa irakurrita, agerikoa da aurrera begira diru-baliabideak handitzeko eskatuko zaiola Eusko Jaurlaritzari. Zeregin horrekin batera, administrazioari legozkiokeen beste bi ageri ziren elkarrizketetan: euskarazko hedabideek burutzen duten lanaren, ekarpenaren izaera estrategikoa aitortu, eta hedabideen eta Jaurlaritzaren arteko harremana sendotu eta hobetu. Ondoren, esandakoaren erakusgarri diren sei pasarte bildu dira, denak esanguratsuak.

“Sektorea lehentasunezko jo eta behar diren bitartekoak jartzea sektorea sendotzeko eta egituratzeko. Instituzioek laguntzaile behar dute, ez oztopatzaile. Eta benetako laguntzak ematen dituztenean, haien gainean jarraipen zorrotza. Baina horretarako egungo limosnatik gora egin behar da”. (E8)

“Lehentasunak? Sostengu ekonomikoa handitzea eta bigarrena gurekiko mintzakidetzara sendotzea eta orain arte esan dudana, bien arteko harreman horretatik elkarlan eraginkorrago batera pasatzea. Hori la ospa izango litzateke”. (E9)

“Administrazioen pluralean, ba uste dot euren egiteko bat da euren dirulaguntza politika berriro aztertzea ta egokitzea egunotara, uste dot euren egitekoa dala bultzatzea, ez irauteko e, aurrerago egiteko baino, o sea, marra gorritik aurrerago egiteko ta horretarako, bultzatzeko, hainbat modu dare ta dirua da bat; baina ez da beti dirua, ta dirua bada e, ta inportantea da baina badare beste modu batzuk. Administraziñoak esango neuke oin dala hamar urte baino gehiago ikusten gaituela produktu moduan be, publizidadean eta be uste dot badaukala zer esana hor. Administraziñoak egin beharko leuke be bai berrikuntza bultzatu, beste eredu batzuk ikusi eta administraziñoak egin beharko leuke lan sektorearekin batera gehixago (...) Gu hola ibili gara, sektorea pankarta baten eta administraziñoa bulego baten eta ez da modua, ez da modua”. (E2)

“Nik uste dot izango litzatekeela sektorearekin hitzarmen-dinamika batean sartzea, ikuspegia definitzera joan eta finantziazio egonkorretarako urratsak egin. Aitortu sektoreari bere egitekoa eta aldi berean onartu sektoreari baldintza batzuk jartzeko autoridadea. Orain ez deusie alkarri aitortzen hori; bakarrik da diruaren indarra edo... Hitzezko aitortpena ez da traduzitzen lankidetzara efektibo batean”. (E1)

“(…) euskarazko komunikabideen karakter estrategikoa EBPNn beti aitortu da, beti aitortzen da. Bueno, aitortzatik aitortza hori gauzatzera pasa beharko da ze aitortzak ez dit ezertarako balio. Orduan aitortza hori egina dago, gauzatu eta gero tratatu sektorea errespetoarekin eta ez aurrejuzgu ideologiko-editorial batzuekin”. (E3)

“Ba nik uste dut [administrazioak] beste modu batez begiratu behar dituela hedabideak. Inpresioa daukat, hau inpresio oso pertsonala da, batzutan pixka bat arerio bezala ikusten dituela ezta, beti egurra ematen duen sektore bat, gainera ez dira oso onak, ez dira oso kalitatezkoak, begira besteek zer egiten duten eta orduan hor falta da feeling pixka bat falta da ezta?. Eta nik onartzen dut e, urruntasun politiko bat egotea, ez dut uste sektore guztia barruan sartuta justua denik, baina bueno ulertzen dut ba egon daitekeela urruntasun bat, urruntasun sentsazio bat. Ez da ahaztu behar sektore hau nondik datorren, zein den herri honen egitura soziopolitiko eta Hekimen non dagoen eta egiten diren aportazioak normalizazioari, zeren HPSz ari gara, egiten diren aportazioak eta nik uste det aportazioa oso inportantea dela. Badakit hori baloratzen dutela baina inpresioa daukat beti gutxiesten dela egiten den aportazioa, eta nik uste dut kontuan hartuta ze baldintzetan egiten den lana, ze oinarriak dauden eta nik uste dut aportazio handia dagoela, uste baino handiagoa”. (E12)

Horraino sektoreko ordezkari erreferentzialek etorkizunera begira diru-laguntzak kudeatzen dituen erakundeari jarritako etxeko lanak. Administrazioan, deialdiaren inguruko erabakiak hartu dituztenen esanetan, orain arte ahaleginak euskarazko hedabideen eskaintza bermatzera, ziurtatzera bideratu dira.

“Lehentasuna zeri eman zaio? Eskaintzari, eskaintza bermatu nahi izan da, euskarazko eskaintza, horretan jarri dira indarrak, egon dadila kioskoan euskara presente nolabait esatearren. Euskarazko egunkariak existitu dezala, euskarazko informazio orokorreko aldizkariak existitu dezatela, tokiko-prentsa idatziak existitu dezala; hau da, euskara presente egon dadila esparru horietan, presente egote hori, eskaintza egote hori, aspektu kuantitatiboari eman zaio lehentasuna”. (E11)

Etorkizunari begira, sektoretik aurkeztutako erronka berdintsuak ezarri zituzten administrazioko ordezkariak. Batetik, hedabide inprimatuen sektorearekin duten harremana iraunkortu eta gogoeta partekatua lantzeari ekin.

“Gu momentu honetan hedabideei dagokienez daukagun, daukagun planoak dira batetik, Hekimenekin eta Tokikomekin daukagun harreman iraunkortu horretan etorkizunerako ildo berriak eta bide berriak aurkitzeko gogoeta partekatu bat egiten ari gara, eta horretan areago joan nahiko genuke, lehen esan dudan izpiritu horrekin, mahai bereko kide izpirituarekin nahiz eta bakoitzaren funtzioak eta egitekoak diferenteak izan baina mahai berean, hori nola metatu ikusiz ez? O sea elkarlanerako ere beste modu berri batzuk aurkituz eta konfiantzan hitz eginez, hori guretzako klabea da, klabe klabea da”. (E11)

Bestetik, diru-laguntza deialdien bidez esleitutako baliabide ekonomikoak heldu. Jaurlaritzatik gogoratu zuten diru publikoaz ari garenean, eraginkortasunez erabili beharreko diruaz ari garela; eta ondorioz, babes ekonomikoa sektorearen emaitzei, sektorea eraginkorra izateari lotuta joan behar dela uste dute.

“Buena dudarik gabe, Administrazioak jarraitu behar du idatzizkoak begira diru-laguntzak ematen eta buena gainera hori, kontu handiz zaindu beharreko alorra dela beti presente edukita, baina, baina ez dakit, itun politiko bat edo zer behar dugun horretara iristeko, baina ya egoera nik uste dut ezin dela gehiago luzatu e? ezin dela gehiago luzatu, enfin, baita ere politikoki kontuak ematen direnean diruak zertan gastatzen ditugun uste dut oso inportantea dela baita ere gure herritarrei esatea begira buena ba honetarako ematen genuen, ez dugu emango hau ez dutelako egiten kontxo!”. (E10)

“Guk egin behar duguna da berrikuntza eta hobekuntza hori babestu eta nik eraginkortasuna esaten dudanean, kasi obsesiboki, esan nahi dudana da guk geuk ere eraginkorrak izango baldin bagara diru publikoak kudeatzerakoan asmatu behar dugu benetan eraginkorra den hura babesten, ez edozer babesten baizik eta hura babesten eta hortan asmatu behar dugu elkarren indarrak lotzen baina klaro, hor ere askotan gero interesak sartzen dira, ze gainera eraginkorra ez danak aterako ditu beste argumentu batzuk eta buena... normala da, hori normala da baina hor asko hitz egin behar da eta konfiantza asko irabazi behar dira”. (E11)

Horien esanetan, hortaz, ezinbestekoa da diru-laguntzen kudeaketa eraginkorra burutzea, eta horrek eskatuko luke hedabideen eraginkortasunaren araberako diru-babesa eskaintzea. Hortik dator sektoreko hedabideei egiten zaien eskaera, jendea, irakurleak irabazteko eskaera hain zuzen.

“Lehentasuna neretzako eraginkortasuna, bai, bai, bai merkatua irabaztea, o sea, kontxo eta hau askotan ez zaie gustatzen entzutea horrela, ze esaten dute zertan uste duzu ba ari garela? Baina, e, hau da, pentsatzea nik zer egin dezaket nire posizioa hobetzeko ze nagusiki beraien esku baitago posizio hori hobetzea (...) badaukazu non hazia eta hazteko egin behar da jendea irabazi, irakurleak irabazi eta irakurleak bakarrik irabazten dira irakurleak gustukoak dituen gauzak eginez. O sea, hor epaimahaia ez da Jaurlaritzak, hedabide baten epaimahaia ez da Jaurlaritzak, hedabide baten epaimahaia da irakurlea”. (E11)

Bestalde, naturala denez, administrazioeko ordezkariak ez zuten bat egin sektoretik behin baino gehiagotan EITBri zuzendutako kritikekin (hara bideratutako aurrekontuak, ETB1en audientziak...). Eusko Jaurlaritzatik onartu zuten hedabide

publikoei ere eraginkortasuna eskatu behar zaiela, baina gaineratuz horrek ezin duela eraman haien existentzia zalantzan jartzera.

“Publikoa ta pribatua modu horretan lehian jarri nahi izatea nik ez dut konpartitzen, ez nator bat sinesten dudalako ba hedabideena bezalako telebista, irratia egon behar duela horrek euskeraz ere, eta nahiko nukeena da dan baino oraindikan indartsuagoa izatea (...) Nik uste det eskatu behar dela, eskatu behar zaiola ETB1i, ETBri, Jaurlaritzari, hedabide publikoetan ere eraginkortasuna, eta eskatu behar dela gauzak egitea kasu horretan ikusentzuleak irabazteko. Eskatu behar da dudarik gabe, hori exijitu behar da, eskatu ez, exijitu egin behar da eta hori ba kasu honetan EiTBen arduradunen erantzukizun erabatekoa. Hortik eramatea kuestionatzera horrelako ente publiko batek existitu behar duen edo ez duen, zer nahiago dugu Valentzian gertatu dena gertatzea hemen? Eta bueno hedabide pribatuek orduan... aber ez dut konpartitzen debate hori, konpartitzen dudan debatea da guztiei eta lehenik eta behin publikoei dudarik gabe eraginkortasuna eskatu behar zaiela, unibertsitate publikoari eta unibertsitate publikoko irakasleei eskatu behar zaien bezala jaso duten neurriko eraginkortasuna, baina horrek nondik nora eraman behar gaitu kuestionatzera horren existentzia, nik behintzat gizarte eredu honetan ez”. (E11)

Bestalde, erdarazko hedabideei dagozkien zereginei buruz ere galdetu zen elkarrizketetan. Gutxik heldu zioten gaiari; horren orde, kasu gehienetan, geroago ikusiko den bezala, erantzunak hedabide horiek diru publikoz laguntzeko aukeraren inguruan osatu ziren. Dena den, gaiari heldu ziotenen ekarpenetatik badira kontu esanguratsuak: batek dio “Erdarazkoek euskaratzen joan behar dute”(E8); beste bat oso kritiko ageri da haietan euskara beti bigarren mailan egongo dela argudiatuz eta ñabarduraren batekin bada ere, zalantzan jarri zuen hizkuntzari, euskarari, egiten dioten ekarpena.

“[Gaztelaniazkoek] lehen aipatu dituzun helburu horietarako sendotu, garatu ta normalizatu ez du praktikamente ezer aportatzen, bai badakit, beti aportatzen du zerbait, igual zorrotzegia naiz eta hoietan ere badaude eredu desberdinak, o sea, desberdin iruditzen zait tartekatzea hiruzpalau albiste zure egunkarian edo demagun ateratzea GAUR8 bat, oso desberdina da ez?”. (E9)

Elkarrizketatu honen ustez, gaztelaniaz ari diren hedabideei zerbait eskatzerik balego, euskararen mundura begiratu eta errealitate hori islatzea eskatu beharko litzaieke, baina betiere publikoa engainatu gabe.

“Haiei guk eskatu? Ez zait okurritzen gauza handirik, ez dakit horiek euren dinamika daramate ez? Zer eskatu behar zaie haiei? Erderazkoei? Eskatzekotan zerbait gure mundurantz gehiago begiratzea, errealdade hori erreflejatzeke. Gehiago begiratzea existitzen den errealdade bat badelako, indartsua gainera eta hori ere erreflejatzeke. Nik ez nieke eskatuko egin zazue euskarazko produktua, hombre aber, euskara hutsezko produktuak egingo balituzkete hobeto, dudarik ez, inkluso gure konpetentzia balira ere, osasungarria litzateke hizkuntzarentzat ez? Bai hori eskatu dezaket baina nola badakidan ez dutela... Oraingoz behintzat demostratu dutenagatik ez dute egiten. Ez daukat ezer eskatzerik haiei. Ez dezatela tranparik egin behintzat. Nik azkenean kontsideratzen dut e, ondo dago erdal komunikabide batek zerbait egiten duenean euskaraz, ba zenbat eta gehiago egitea ahalik eta ondoen, baina horrekin ez gaitzaten engainatu, horrekin gu ez gaituzte engainatzen baina beren burua ere ez dezatela engainatu, zein zentzutan engainatu? Ba pentsatuz zerbait oso garrantzitsua egiten ari direla hiztun komunitatearentzat, oso bigarren mailakoa da egiten dutena, han euskara beti izango da, komunikabide batean bai txertatuta modu soltean edo baita ere produktu bakar bat aterata, oso bigarren mailakoa da. Orduan, bale, pues ongi dago, haien irakurleek eukiko dute euskeraz irakurtzeko zerbait alde horretatik, baina aizu nik ez dut nahi nire hizkuntza bigarren mailakotzat, nik nahi dut nire hizkuntza lehenengo mailan egotea eta hoietan beti izango da bigarren mailakoa”. (E9)

Hirugarren elkarrizketatu batek aurrekoaren bide bertsua jorratzen du, baina honen iritziz, gaztelaniazko hedabideetan euskara egotea ez zaio hizkuntzaren normalizazio-zereginari lotzen, baizik eta produktuaren kalitateari eta irakurleari eskainitako zerbitzuari.

“Nik prentsa elebidunean ez det sinesten, imposible iruditzen zait (...) Hor iristen zara euskararen erabilera testimonial batera edo euskararen erabilera sektorial batera (...) Nik uste dut gaztelaniazko hedabideen funtzio bat euskararekiko funtzio garrantzitsu bat dela euskararen errealtatea euskara ez dakitenei erakustea, marketing-estrategia moduan nik gaztelaniazko hedabideek euskararekin duten harremana batetik puntu horretatik ikusten det aprobetxatu behar dala, eta gero bestetik, natural euskeraz sortzen diren gauzak eta bezero euskaldunaren erreferentzia mundukoak direnean euskeraz eman. Baina uste det horrek ez daukala zerikusirik euskararen normalizazioarekin baizik eta produktuaren kalitatearekin du horrek zerikusia.(...) Gaur egun gaztelaniazko hedabide batek bere bezeroari behar duena emateko gauzaren batzuk euskaraz ematea kalitatearekin lotutako zerbait da, eta bezeroari eskaintzen dion zerbitzuarekin lotutako zerbait da. Ez da euskararen normalizazioarekin zerikusia duen zerbait baizik eta euskararen normalizazioaren ondorio”. (E4)

Nagusiki gaztelaniaz ari diren hedabideekin jarraituta, arestian esan bezala, Eusko Jaurlaritzak laguntzak eman behar ote dizkien, eta hedabide horiekin nola jokatu beharko lukeen ere landu zen elkarrizketetan. Entzundakoetatik argi dago sektoreko ordezkariak ez dutela begi onez ikusten deialdian horientzako diru-partidak ezartzea. Jarrera azaltzeko argudioa ere eman zuten; euren iritziz, eta dagoeneko aurreko zenbait aipamenetan aditzera eman den bezala, gaztelaniaz ari direnei emandako dirua ez da eraginkorra euskararen normalizazioari begira.

“Eraginkortasuna horrenbeste aipatzen dela, eraginkorra da ateratzea haur kirol-gehigarri bat fotoz beteta eta oso testu gutxi daukana?. Hori ez da euskara sustatzea eta hori egin da. Ez da kontrol bat egin, ematen da diru-laguntza eta gero ez da kontrol bat egiten euskeraren presentzia kualitatiboa zein den, egiten dena da haurren kirol-gehigarri bat fotografia pila batekin eta sailkapenekin. Hori ez da euskara sustatzea”. (E3)

“Nik uste det erdarazko hedabide konbentzionalei ez zaiela laguntzarik eman behar euskara sartzeagatik. Dirua irabazi zein dirua galdu (...). Beraz, administrazioak hor nik ez det uste hor inolako eskuhartzerik behar duenik eta inolako laguntzarik behar danik”. (E4)

“Ez, ez, ez, nik ez dot ikusten hori. Ez dot ikusten, gure artean asko komentatzen da eta barruek eragiten deuskuz horrek”. (E2)

“Hedabide elebidunen ekarpena hizkuntza normalizazioan gezur handi bat baino ez da. Zein ekarpen egiten dute 70eko hamarkadan sortutako Egin eta Deiak euskarari? Batere ez. Beraz, ez dute zentzurik horrela planteatuta.(...) Lau orri euskaraz egiteagatik laguntza eman nahi bada, diru publikoa desbideratzeko ekimena baino ez da; hizkuntza politikaren ikuspegitik zentzurik ez duena”. (E8)

Azken honen iritziz, hortaz, nagusiki edo osorik gaztelaniaz ari diren paperezkoen laguntza ematea diru publikoa desbideratzea litzateke. Jaurlaritzatik, berriz, gai honi buruzko bi ikuspegi jaso ziren, guztiz kontrajarriak. Lehenak bat egiten zuten sektorearen iritziarekin; izan ere, 2012ko deialdian desagertu egin zen nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduriko euskarazko gehigarrientzako partida; horren zergatiaz galdetuta, hauxe elkarrizketan jasotako erantzuna:

“Ba bueno, azken batean, hoiena bai zela, eta gordinki esango dut bai? Euskerazko gehigarri horiek egiten gastatzen zuten dirua baino gehiago jasotzen zuten diru-laguntzen bidez. O sea, negozio bat zen, eta bueno gero ikusita ze eratako gehigarriak ziren gainera, bai, badakit politikoki ez dela bat

ere zuzena, ez daukat zertan izanik, baina bueno hori izan zen, alegia benetan erderazko hedabideek ahalegin bat egin nahi baldin badute euskeraz ere jendeak irakurri dezan bai, egin beharko luketena da erderazkoan, erderazko edizioaren barruan argitaratu ditzatela euskerazko berriak, artikuluak, eta ez euskarari buruzkoak ta ezta gaztetxoan futbol-taldeen berriak. Daukate baina bueno, aukera guztiak daukate euskeraz lana egiteko eta ez dute egiten, alegia dirua dagoenean egiten dute eta dirurik ez dagoenean ez, beraz...” (E10)

Bestetik, bigarren ikuspegiaren arabera, nagusiki gaztelaniaz ari diren egunkariei esleitutako diru-laguntzak baliagarriak dira hedabide horiek euskarari leku handiagoa eman diezaioten eta horrela, euskarak kontsumitzaileak, irakurleak irabazi ditzan. Elkarriketatu honek gogora ekarri zuen hizkuntza-politikaren helburua ez dela euskerazko hedabidea baizik eta euskerazko kontsumoa, eta ondorioz, nagusiki gaztelania darabilten egunkarietan euskara txertatzeak, horiei diruz laguntzeak eraginkortasunari, alegia euskerazko kontsumoa areagotzeari lagundu diezaiokeela.

“Hizkuntza politikaren ikuspegitik helburua da, ez da objektua, ez da euskerazko hedabidea, da hedabideen euskerazko kontsumoa, hori da gure helburua hizkuntza politikaren ikuspegitik. (...) Orduan euskaldungoak, zer egiten du? Euskerazko hedabideak bakarrik kontsumitzen ditu? Idatzizko euskerazko hedabideak bakarrik irakurtzen ditu? Keba, badakigu ezetz. Dakiguna da euskaldun askok eta askok eta askok irakurtzen dutela, irakurtzen duguna dela gaztelaniaz nagusiki dagoen prentsa. Bueno, ba hor guk euskarari lekua egin nahi diogu. (...) Zer gaitaz? Ahalik eta gairik gehienetaz, esate baterako ahalik eta gairik gehienetaz erabili dadin bere momentuan atera zen, urte betean egon zen, erreferentziako-orriak esaten zaio⁷⁷³, zan erreferentziako gaitiaz egotea euskaraz. Klaro, hori bilatzen zen, bilatzen zen ez izatea euskaraz idatzitakoa bertsolaritzari buruz idatzitakoa bakarrik, baizik eta erreferentziakoak. Horrexegatik deitzen genion horrela, hori garbi egon zedin. Gero horrek ditu emaitza hobeagoak edo txarragoak, euskerazko hedabideekin gertatzen den bezala. Euskerazko hedabide batzuk oso emaitza onak dituzte eta beste batzuk oso txarrak, baina emaitza txarrak dituztenak hainbat izateak eramaten ez gaitun bezala pentsatzera euskerazko hedabideetan ez dela indar egin behar, ba gaztelania nagusi duten hedabideetan euskerazko kontsumoak zailtasunak eukitzeak ez gaitu ezta eraman behar inondik inora nire ustez pentsatzera hor euskarak lekua eduki behar ez duenik. (...) Neri benetan zaila gertatzen zait entenditzea zer daukan txarrik, zer daukan txarrik, euskara

⁷⁷³ .- Erreferentziako orrialdeentzako eskainitako diru-laguntzak sakon aztertu dira lan honetan. Dagoeneko ikusi denez, bi urteko deialdietan kaleratu ziren: 2009koan EAJ Jaurlaritzan zegoela eta 2010ekoan sozialistak Jaurlaritzan egin zuten lehen urtean. Hortik aurrera ez da berriz izan halako partidarik.

euskaldunen gehiengoak, euskaldunen gehiengo zabalak kontsumitzen duen hedabide batean⁷⁷⁴, euskara presente jartzeak eta euskaldun horientzako euskara irakurtzeko eskaintza egiteak zer daukan txarrik nik ezin dut entenditu, egitan esaten dizut. Ulertu dezakedan eztabaida da, askoz ulergarria egiten zait hori zenbateraino den eraginkorra euskarazko erabilera bultzatzeko. Bueno hori, debate hori, guztiz ulergarria egiten zait eta bueno hori batentzat izango da ustez eraginkorragoa, beste batentzat ustez ez hain eraginkorra bai? Baina gauza negatiboa, kontra, kontra egoteko ez dot ulertzen, ezin dut ulertu. (...) Eske euskara sustatu behar dugu euskarazko hedabideetan bakarrik? Euskarazko hedabideek irabazi ditzatela kontsumitzaileak, hori da erronka nagusia, ez beste inon ez dadila egon neretzako lehiarik”. (E11)

Administrazioetik begiratuta hortaz, diruz lagundutako sustapen-lanari ekin behar zaio, betiere eraginkortasun bila; sektoretik, ordea ezetz; laguntza horiek ez direlako eraginkorrak hizkuntzaren normalizazioari begira. Elkarrizketetan parte hartu zuten sektoreko ordezkarien ikuspegitik, orduan, nola jokatu beharko luke Eusko Jaurlaritzak nagusiki gaztelania darabilten hedabideekin? Gai honi emandako erantzunetan jarrera ezberdinak nabari dira:

1.- Bakanen batek ez du argi ikusten administrazioak esku hartu beharko lukeen, eta hala egingo balu, gaztelaniaz ari den hedabidea euskarara erakartzea litzateke zeregina.

“Zerbait egin beharko leuke? Ondo egongo litzateke euskerara erakartzea erdal hedabideak be bai, ez dakit horretarako zer egin behar dan”. (E2)

2.- Zenbaitek diote Eusko Jaurlaritzak erantzukizunez jokatzeko eskatu beharko liekeela.

“Dirua irabazten dutenekin ardura publikoa eskatu behar zaie”. (E3)

“Egin beharko lukeena da behintzat esatea aizue erantzukizun bat daukazue bizi garen euskal gizarte honetan, erantzukizun bat daukazue euskararekiko baita ere. Alegia, bi hizkuntza dauzkagu, bi hizkuntza ofizial, orduan zuen irakurleekiko ez duzue inolako konpromisorik sentitzen? Hori dudarik gabe egin beharko luke gobernuak, bueno ta uste dut neurri batean egin egingo duela, baina nik uste dut diskurso hori ezin dela ya barruan eduki, diskurtso hori kanpora atera behar da, bai?”. (E10)

⁷⁷⁴.- Nagusiki gaztelania darabilten egunkariez ari da.

3.- Azkenik, badira Jaurlaritzak gaztelania darabilten egunkarietan kuotak ezarri beharko lituzkeela defendatzen dutenak.

“Kuota-sistema batzuk ezarri beharko lirateke (publizitate instituzionala jaso ahal izateko baldintza izanik, adibidez)(...) Kuota sendoak ezarrita (adibidez, bi hizkuntzetan argitaratuta, edota ehuneko altu bat euskaraz jarrita) izan dezake zentzuren bat, baldin eta erabat euskaratu arteko plan bat egiten bada”. (E8)

“Dirua irabazten dutenekin joan behar du lehendakariak zuzendariarengana ta esan behar dio, deja de tocarnos las [...] a este país eta hasi zaitez kazeta euskeraz ere egiten (...) esan diezaiola e, ya,ya,ya, 6 milioi euro ari zera irabazten eta ez dizut emango euro bat euskeraz ezartzeagatik, hasi zaitez euskera sartzen ekonomian gaur , bihar egin zazu Realeko entrenatzailearekin, gainera euskalduna⁷⁷⁵, euskaltzalea, euskaraz hurrengoan egin zazu politikan, hurrengoan...” (E3)

Era honetako iritziak sutsu defendatzen dituztenak dauden modu berean, horren aurka irmo ageri direnak ere agertu ziren, sektorean bertan zein Jaurlaritzan.

“Eske ezin zaio kuotarik jarri, nola jarriko diozu kuota, bai jarri daitezke kuotak baina jarri behar dizkiozu kuotak danei jarri behar dizkiozu kuotak e? eta igual Berriari gaztelaniazko kuota bat jarri behar diozu, zergatik jarri behar zaio honi euskerazko kuota bat eta diru publikotik bizi den Berriari ez diozu jarri behar gaztelaniazko kuota bat, eske argumentu horri nik ez diot, ez dakit nondik heldu argumentu horri”. (E4)

“Ez, prentsa idatzian ez dago kuota ezartzerik, horrek gainera zerikusia dauka, zerikusia dauka neurri handi batean edo dirudienez ez?, prentsa idatziaren beraren, beraren funtzioarekin eta ezaugarriekin gizarte libre batean, gizarte aurreratu batean. Hori prentsa idatzian, ba bueno hori horrela da gizarte aurreratuetako tradizio guztian, ezta?”. (E11)

Elkarrizketetan ezarritako hirugarren ataleko edukiekin bukatzeko, hedabide publikoen eta herri-ekimeneko hedabideen edota ekimen pribatuko hedabideen arteko funtzionamenduaz galdetu zen, batzuek eta besteek etorkizunera begira izan dezaketen elkarlanerako aukerez. Esan beharra dago ahaleginak batzeko bideak jorratzearen alde agertu zirela denak, uste dutelako onerako izango dela.

“Bistan da, zenbat eta truke gehiago zenbat eta aberasgarriagoa”. (E9)

⁷⁷⁵ .- Elkarrizketa egin zen unean Gaizka Garitano zen Realaren entrenatzailea.

Iritzi baikorrenak tokiko hedabideetan agertu ziren. Horien artean, elkarrizketak burutu ziren sasoian, dagoeneko bazeuden hedabide publikoekin batera aritzeko aukera posibleak arakutzen hasiak zirenak, eta elkarlanak zer ekarri zezakeen oraindik ez bazekiten ere, zenbait ideia iradoki zizkioten ikerlariari. Tokikoen kasuan, uste zuten hedabide publiko handiekin elkarlanean arituz, presentzia, ikusgarritasuna irabazi zezaketela eta, horrekin batera, baliabideak optimizatuz, eraginkortasuna areagotu zitekeela.

“Neri bide hori, bide hori egokia iruditzen zait baina batez ere daukazu kapitala modurik eraginkorrean erabiltzeko, zuk produktu on bat baldin badaukazu, zuk produktu hori mantentzeko dirua behar duzu eta aldi berean hedabide publiko horrek produktu onak behar ditu”. (E4)

Hala ere, bazen elkarlanerako zaitasunak ikusten zituenik ere. Horien ustez, administrazioak hedabide publikoen, EITBren eraginkortasunaz eta horrek hizkuntzari egiten dion ekarpenaz daukan ikuskera aldatzen ez den bitartean, zaila izango da batzuen eta besteen arteko elkarlanerako asmoetan urratsak ematea.

“Ez da erraza. Ez da erraza ez bada aldatzen EITBren beraren kontzepzioa administrazioan daukatena. Guk planteatzen dugunean, hitz egiten dutenean eraginkortasunaz, guk esaten dugu, bale, neurtuko dugu EITBren eraginkortasuna? Ez, hori ez, hori zerbitzu publiko bat da eta gainera hori egiten baduzue ari zarete osasun publikoa bota nahi dutenen argudio berdinak erabiltzen; hori onartezina da. Orduan hori zer da, hori da ukiezina, horren eraginkortasuna ez dugu neurtuko, zuena bai. Eta orduan elkarlana ze oinarritan. Nik uste dut horri buruz hitz egin beharko litzatekeela, hau da, EITBren kontzepzioa komunikazio ikuspegitik zein den eta zein den gurea hor lortuko bagenu edo ulertuko bagenu sektore berekoak garela, ze gaur egun ere ez dakit sektore berekoak garen edo kontsideratzen garen, EITBko jendeak kontsideratzen dituen beste euskal hedabideak sektore berekoak edo ez. Hor lan handia dago egiteko eta nik uste dut egin beharko dala e, egin behar da saiakera bat konpartitzeko gauzak, baina oinarriak ez dakit oraindik jarrita dauden, ze esaten dizut diru-laguntza publikoen erabilera hor, 112 milioi euro uste dut direla aurten [2014] EITBrentzat, iaz 130 milioi eta guretzako 4,8 milioi. Zein da bakoitzaren emaitza hizkuntza politikaren ikuspegitik e? zein da emaitza normalizazioari begira? eta zein da EITBren balorazioa hizkuntza politikari begira? Zein da EITBren balorazioa egin duen lan, lan ez bakarria eta ez handiena ere, egin duen azpimarragarrietako bat izan denean euskaldunak erderaz hizketan jarri telebista publiko batean, zein da horren balorazioa hizkuntza politikaren ikuspegitik? Orduan, beharbada horri buruz hitz egin behar dugu, hitz egin nahiko dute? Ez dut uste, orduan hori gabe elkarlanak egin daitezke baino hizkuntza-politikaren ikuspegitik uste dut oso ahul dagoela kontua”. (E12)

Azkenik, bakanen batek hedabide publikoek, gainerakoekiko, hain handiak ez diren euskarazko hedabideekiko duten sustapen-erantzukizuna azpimarratu zuen.

“Bada elementu bat oso kontuan hartzekoa. Hedabide publikoek bere eginkizunen barruan hartu beharko lukete gainerako euskarazko hedabideen sustapena. Adibidez, irradian eta telebistan zergatik ez doan publizitate tartek beste hedabideek urtean zehar beren burua eta produktuak ezagutzera emateko? Hori ere zerbitzu publikoa litzateke. Eta 80ko hamarkadan abiatu ere egin zen”. (E8)

Hedabide inprimatuetako ordezkariak zein administraziokoek elkarrizketa-prozesuan eraikitako diskurtsoekin landu den aurkezpena zarratzeko, gidoian zereginei eta erronkei buruzko atalean jasota zegoen gai bat falta da: doakotasunarena. Tokiko hedabide inprimatu ia guztien ezaugarri esanguratsua da, eta horren inguruan etorkizunari begira jartzeko eskatu zitzaaien parte-hartzaileei. Bildutako ekarpenek erakutsi dute doakotasunak oso iritzi desberdinak eragin dituela elkarrizketatuen artean:

1.- Batzuentzat doakotasuna bertutea litzateke; tokikoek aurea hartzen jakin zutenaren erakusgarri, eta aldi berean, tresna garrantzitsua bilakatu da udal- eta eskualde-esparruan zabaltzen diren argitalpenek euskararen normalizazio-prozesuari begira egin dezaketen ekarpenean.

“Hori nik uste dot izan zala abilitade bat ze doako prentsa... Arrasate Press-en berezitasunen artean bat hori izan zan, doakotasuna ekartea, hori be izan zan gure antzizipaziño ezaugarria. Nik doakoaren alde egiten dot gehienbat funtzio sozialarekin eta euskeraren normalizazioarekin lotuta. Uste dot inportantea dala erosketaren zera gainditzea, beste kontu bat da harpidetzarena, harpidetza sistemak eukitea. Nik uste dot bai eskatu behar dala gizarteko alderik kontzientziatuenari, edo bai eskatu behar jakola bere ekarpena. Ba azken baten euskara elkarte baten kuota eskatzea moduan, ba hedabide baten kuota bat eskatzea, harpidetza bat eskatzea, ba aizu proiektu hau zuri esker egingo da; baina bestela nik uste dot doakotasuna oso herraienta inportantea dala normalizazioan”. (E1)

“Oso ondo etorri zaigu tokiko prentsaren garapena hizkuntza-normalizazioari, komunidadea trinkotzeari eta oso ondo etorri zaio eta doanezkoa izan da ez?”. (E9)

Baina doakotasuna eta hedabide batek jarduteko behar dituen diru-sarrerak ez dira bateragarriak. Hori asko nabaritu dute tokikoetan krisiarekin batera iritsi zen publizitate bidezko sarreren beherakada gertatu zenean.

“Zer gertatu da doakotasunarekin? Ba orain arte tokiko hedabide asko publizitate bizi izan dela, horri esker ziren doakoak, baina publizitatea ikaragarri jaitsi da, sekulakoa hartu du eta horrek ezinezkoa egiten du doakotasuna mantentzea”. (E12)

Hortik dator arestiko aipamen batean ageri den harpidetzaren beharra eta laguntza.

“Harek [harpidetzak], egiten dau ba neurri batean lagundu. Gure finantziazioaren hiru hanka zerak, o sea merkatuak heren batentzat emon behar dau, nik herritarren sostenguari beste heren bat eta diru publikoari beste heren bat”. (E1)

Elkarrizketatu honen iritziz tokiko guztiek jo beharko lukete harpidetza sistemara, horrek diru-iturri bat ziurtatzen duelako: “Joan hortara ze hori da jario bat urtero daukazuna”. (E1)

2.- Beste muturrean legoke doakotasuna hanka-sartze bezala interpretatzen duen elkarrizketatuaren ikuspegia. Honek erakundeei leporatzen die horren erantzukizuna.

“Hori instituzioetatik bertatik elikatu izan da eta okerra da. Gogoan izan 90ean, Eusko Jaurlaritzak egunkari nazionala euskaraz egin eta eskola umeen bidez zabaldu behar zela zioela. Hanka sartu da urteetan, eta orain zaila da horri buelta ematea”. (E8)

3.- Tarteko posizio batean dago doakotasunarena eta salmenta bidezkoa ereduak bateragarriak direla defendatu zuen elkarrizketatua.

“Nik uste dot bi ereduak bateragarri direla eta bakoitzak funtzio batzuk daukazala eta ona dala”. (E2)

Gerora begira, elkarrizketatuen ustez, denborak eta, bereziki, diru-sarrerak ziurtatzeko beharrak ezarriko du doakotasunari eusterik dagoen ala ez.

5.4.4. “HEDABIDEAK” DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAN PARTE HARTU DUTEN AKTORE NAGUSIEN DISKURTSOAK LABURBILDUTA

Ikerketa honek ezarri dituen helburuen artean dago “Hedabideak” diru-laguntza kudeatzen duen Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak dituzten ikuspegiak, iritziak, diskurtsoak azaleratzea. Horretarako, lehenbizi elkarrizketak eta, ondoren, hurrengo analisi-atalean aurkeztuko den Delphi teknika erabili dira.

Elkarrizketetan “Hedabideak” deialdiaren nondik norakoak ederki ezagutzen dituzten hamabi subjektu kualifikatuk eskainitako ekarpenei esker hiru arlori buruzko informazio deskriptiboa, interpretaziozkoa eta baloratiboa eskuratu da:

- 1.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen bilakaera.
- 2.- Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntza deialdia.
- 3.- Etorkizunera begira, batzuek eta besteek dituzten zereginak eta erronkak.

Euskara hutsezko hedabide inprimatuek denboran zehar izan duten bilakaera aztertzeko orduan, baikortasuna nagusitzen da sektorean. Oro har uste da, norbanakoen eta gizarte-eragileen urteetako ekimena eta ausardia izan direla sektoreak hartu duen neurriaren motorra, eragile. Horrekin batera, administrazioaren, herri-erakundeen inplikazioa ere azpimarratzen da.

Denboran zehar egin diren aurrerapen edo irabazien esparruan, profesionaltasuna eta kalitatea nabarmendu dituzte elkarrizketatuek. Horiekin batera, beste hainbat kontu ere aipatu dira: eskaintza ugaritu dela, euskarazko kazetaritza-hizkuntza garatu dela, enpresa-egiturak sendotu, erakundeekiko eta beste hedabideekiko harremanetan urratsak eman direla, gizarte-atxikimendua handitu dela eta lankidetzarako joera areagotu dela.

Bestalde, horrenbeste aurreratu ez duten eremuen zerrendan hainbat kontu kokatu dituzte hedabide inprimatuetakoz zein administrazioko ordezkariak: teknologia berriak baliatzeko orduan azkarrago ibili ez izana, berrikuntzarako anbizio-falta, gaztelaniaz ari diren hedabideekin lehiatzeko konplexuak, diru-laguntzekiko menpekotasuna, euskara batuaren tratamendua, lan-baldintzak, erdal prentsa euskaratzeko behar beste urratsik egin ez izana; eta, azkenik, uste dute euskarazkoaren proiektio publikoan ere ez dela nahi beste aurreratu.

Aurrez aurrekoetan esandakoen arabera, sektoreko ordezkariak onartzen dute euskarazko hedabide inprimatuak ez direla iristen kontsumitzaile potentzial guztiengana, baina gaineratzen dute hori ez dela soilik euskararen arazo, baizik eta edozein hizkuntzatan ekoizten diren hedabideena, krisiarekin areagotu egin den arazoa. Hala ere, tokikoen kasuan ñabardura egin dute, horien irismena handiagoa dela argudiatuz.

Proiektu berriak martxan jartzeko aukeraren aurrean ez da jarrera edo ikuspegi bakarra azaleratu idatzizkoen artean. Batzuek egun martxan dauden proiektuei eusteaz gain, berriei heltzeko garaia ere badela baieztatzen duten bitartean, beste batzuek tentuz jokatzearen alde agertu dira.

Euskarazko komunikazio-esparruari buruz, oro har, sektoreko ordezkarien iritziz izan bada esparru hori, baina egun dagoena garatzeko, sendotzeko zenbait baldintza beharko lirateke; besteak beste, kontsumitzailearen beharrak asetzeko produktu erakargarriak eta eraginkorrak, hiztun-komunitatearen nahia eta hizkuntza-politika eraginkorrak.

Elkarrizketen bigarren atalak, "Hedabideak" deialdiaren inguruan landutakoak, agerian utzi du euskara hutsezko paperezkoen sektoreak funtsezkotzat jotzen duela Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza. Baina horrek ezarrita dituen helburuei heldu zaienean, ez dago adostasunik. Hau da, 2005-2013 bitarteko aginduek xedetzat ezarri duten "euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatu" kontzeptuak modu

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

anitzean deskribatzen eta interpretatzen dira. Ondorioz, bakoitzak egiten duen kontzeptuon interpretazioaren arabera da laguntza-deialdiaren betetze-mailari buruz duen ikuspegia ere: batzuek helburuak betetzen dituela dioten bitartean, beste batzuentzat, ez da hala gertatzen eta deialdia egungo egoerara egokitzeko uea dela gaineratzen dute.

“Hedabideak” laguntza-deialdiaren edukira eta prozedura zehatzetara etorrira, denek uste dute urterokoa izan beharrean, urte anitzekoa izan beharko litzatekeela eta askoren ustez, diru-laguntza publikoak hedabideen eraginkortasunaren arabera esleitu beharko liriateke. Baina sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuekin gertatu bezala, “eraginkortasuna” kontzeptua ulertu eta definitzeko modu anitz ageri da. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreko ordezkariak beharrezkotzat jotzen dute eraginkortasuna neurtzeko tresnak eta adierazleak izatea, eta zeregin hori bere gain hartuko lukeen behategia/behatokia sortzea proposatzen dute.

Halaber, euskara hutsezko hedabideentzako diru-laguntzak ematen dituzten herri-erakundeei zuzendutako eskariak ere plazaratu dituzte sektoreko ordezkariak. Batetik, diru-laguntzen sustatzaile diren Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek era koordinatuan eta irizpide bateratuekin lan egin beharko luketela diote. Bestetik, aurrekoarekin lotuta, plazaratu dute “Hedabideak” deialdian edozein aldaketa, egokitzapen, berrikuntza egiteko orduan ezinbestekoa izan beharko litzatekeela sektorearen eta administrazioaren/en artean adostutakoa izatea. Esandakoa eskari moduan, baina, aldi berean, administrazioak diru-laguntzak kudeatu eta esleitzeko jarraitu duen prozeduraren edo jokabidearen kritika moduan ulertu daiteke.

Etorkizunari begiratu dio elkarrizketen hirugarren atalak, etorri beharko litzatekeenari edo paperezko hedabideek eta administrazioak heldu beharreko erronka eta zereginari. Diru-laguntzen emaileak (Jaurlaritzak) zein jasotzaileek eskainitako ekarpenak laburbilduz, esan daiteke hedabide inprimatuen sektoreak bere buruari ondoko zereginak agintzen dizkiola:

- Sektorea osatzen duten hedabideen arteko elkarlana sustatu, gauzatu eta edukiz elikatu.
- Sektorearen egoerari buruzko gogoeta sakona eta partekatua burutu.
- Aurrekoarekin guztiz lotuta dagoen beste zeregin bat litzateke euskarazko hedabideen eskaintza nolakoa izan beharko litzatekeen definitu, adostu; hau da sektorea ordenatu.
- Behategia martxan jarri.
- Kontsumitzaile gehiagorengana iritsi; hots eraginkortasuna areagotu.
- Administrazioarekin/ekin duten harremana hobetu, sendotu, sakondu.
- Aipatutako zeregin horiekin guztiekin batera, egunerokoari eutsi eta iraun.

Herri-erakundeek, administrazioek aurrera begira dituzten zereginei dagokienez, hedabide inprimatuen sektoreko ordezkariak ondoko hirurak aipatu dituzte:

- Diru-laguntza deialdien bidez banatutako baliabideak handitu, egungo egoerara egokitu.
- Sektorearen lana, izaera estrategikoa aitortu.
- Hedabideekin dituen harremanak hobetu, sendotu, sakondu.

Agerikoa da, beraz, batzuen eta besteen harremanen ortuan egin beharrekoa gauzatzeko ahalegin konpartitua beharko dela.

Etorkizunari buruzko galdera bera administrazioako ordezkariak erantzun dutenean, azpimarratu dute ezinbestekoa dela diru-baliabide publikoak eraginkortasunez kudeatzea eta diru-esleipenak horien onuradun diren hedabideen emaitzei, eraginkortasunari lotzea.

Bestalde, gaztelaniazko hedabideei diru-laguntza publikoa ematea ez da begi onez ikusten euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorean. Administrazioan, ordea, era bietako iritziak agertu dira. Gaztelaniazko hedabideei laguntzak eskaintzearen kontra hitz egin duenak uste du ekimenak ez duela eraginkortasunik euskararen normalizazioaren esparruan; gaztelaniazkoei laguntzak ematearen alde dagoenak, ordea, laguntza horrek euskararen presentzia eta euskarazko kontsumoa areagotze aldera ekarri dezakeena nabarmendu du. Edozein kasutan, euskarazko hedabide inprimatuen ordezkariak diote, Eusko Jaurlaritzak nagusiki gaztelania darabilten hedabideak euskarara erakarri beharko lituzkeela eta euskararekiko erantzukizunez jokatzeko eskatu beharko liekeela. Bada gaztelaniazkoei kuotak ezartzearen alde agertzen denik ere, baina, oro har, neurri horren kontrako iritzia eman dute elkarrizketetan parte hartu duten euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreko ordezkariak.

Hedabide publikoen eta herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko hedabideen arteko harremanari ere heldu zaio elkarrizketa-prozesuan. Gai honi dagokionez, sektoretik diote batzuen eta besteen arteko elkarlana jorratu beharko litzatekeela, baina zenbaiten ustez, asmoa gauzatzea zaila izango da, administrazioak EITBrekiko ikuspegia (bereziki EITBren eraginkortasunari buruzkoa) aldatzen ez duen bitartean.

Azkenik, euskarazko hedabide inprimatu askoren, bereziki tokikoen, ezaugarri bereizgarria den doakotasuna etorkizunean nola ikusten duten landu da. Elkarrizketatuek uste dute zaila izango dela horri eustea, eta ondorioz, hedabideen finantziazioan lagundu dezaketen formula egokiak bilatu beharra dagoela diote.

5.5. DELPHI TEKNIKA BIDEZKO ANALISIA: ADOSTASUNAK ETA DESADOSTASUNAK EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEN SEKTOREAN

Ikerketa honek ezarritako helburuak eta hautatutako prozesura metodologikoa azaltzeko tarteetan adierazi bezala, Delphi teknika erabili izan da 2005-2013 bitartean, urteroko laguntza-deialdien prozesuan parte hartu duten euskara hutsezko hedabide inprimatuen ikuspegia eta hausnarketa ahalik eta modurik zehatzenean jasotzeko eta, horrekin batera, sektorean izan daitezkeen eragileek etorkizunari begira egindako ekarpenak eta izan daitezkeen adostasun eta desadostasun puntuak identifikatzeko eta kontrastatzeko. Hala egiteak, gainera, aurretik informazio-iturri ez zuzenen laguntzaz eta elkarrizketa sakonen bidez jasotako informazioa osatzeko eta aberasteko balioko du.

Adierazitakoarekin batera, gogoratu behar da badela Delphia martxan jarri izana justifikatzen duen beste argudio bat ere. Azken elkarrizketa sakona bukatu baino astebete lehenago kaleratu zen EHAAn 2014ko "Hedabideak" deialdia. Horrek erabateko aldaketa ekarri zuen hainbat urtetan diru-laguntzak banatzeko Eusko Jaurlaritzak erabili zituen irizpideetan. Urte hartako esleipena lau hilabetera, urrian, argitaratu zen, eta irizpideetan ezarritako berrikuntzen ondorioz, *Berrria* egunkariak 2013an baino %13,8 gutxiago jaso zuen⁷⁷⁶. Gainontzekoen kasuan, egunerokoek eta informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak aurreko urteetan esleitutakoaren antzeko kantitateak jaso zituzten eta tokikoek, ia denek, hobera egin zuten, diru gehiago esleitu zitzairen 2014an. Hurrengo urtean, 2015ean, egoera errepikatu egin zen. Gauzak horrela, ikerketa honetan ezinbestekotzat jo da diru-laguntza deialdiaren edukietan, bereziki balorazio-irizpideetan egindako aldaketek idatzizko hedabideen iritzietan eraginik izan ote duen arakatzea. Helburua adostasunak eta desadostasunak identifikatzea denez, ez da nahikoa elkarrizketetan egin bezala, sektorea ordezkatzeko

⁷⁷⁶ .- 2013 urteko ebazpenaren arabera, *Berrria* egunkariari 1.510.180 euro esleitu zitzaizkion. 2014ko deialdian, berriz, 1.301.963 euro.

duten Hekimen eta TOKIKOM elkarteen ahotsak biltzea; baizik eta beharrezkoa da hedabide bakoitzarengana jo eta ahalik eta ahots gehien jasotzea. Horixe da, hain zuzen, Delphi teknika erabilita lortu nahi izan dena.

Hortaz, prozesuan parte hartzeko gonbidapena luzatu zitzairen 2005-2013 bitartean, epealdi osoan zein urteren batean, Jaurlaritzaren diru-laguntzen onuradun izandako hedabide inprimatu guztiei; eta prozesuaren amaieran, horien %85en erantzunak jaso ziren.

Prozeduraren xehetasunak atal metodologikoan daude bilduta. Hala ere, labur adieraziz, lau atalez osatutako galdeketa bidali zitzairen diru-laguntzen onuradun izandako euskarazko hedabide inprimatuei; horietatik hiru aurretik elkarrizketa sakonetan landutakoak dira. Izan ere, dagoeneko azaldu da elkarrizketa sakonetan bildutako diskurtsoak funtsezko informazio-iturri bilakatu zirela, Delphia prestatu eta elikatzeko. Honakoak dira Delphi-gidoiaren atalak:

1.- Euskara hutsezko idatzizko hedabideen egoera. Elkarrizketetan egin bezala, euskara hutsezko hedabide inprimatuek denboran zehar izan duten bilakaera baloratzeko eskatu zitzairen; baina ez bakarrik sektorearena orokorrean, baizik eta erantzuten ari zenak ordezkatzeko zuten hedabide partikularrena ere. Horrekin batera, lorpenei eta galerei, kontsumitzaileen erantzunari edota hedabide inprimatuen sektorean produktu berriak kaleratzeko izan daitezkeen aukerei buruzko ekarpenak bildu ziren.

2.- Eusko Jaurlaritzaren "Hedabideak" diru-laguntza deialdia. Atal honetan, batetik, deialdiaren balorazio orokorra egiteko eta horren alde positiboak eta negatiboak identifikatzeko eskatu zitzairen. Bestetik, elkarrizketetan jorrotutako eduki berberak landu ziren Delphian ere, hala nola, deialdiaren helburuak, erabilitako balorazio-irizpideak, nagusiki gaztelania darabilten hedabide inprimatuei eskainitako diru-laguntzak, eta abar.

3.- Harremanak. Atal hau ez zen modu espezifikoan landu elkarrizketetan, nahiz eta haietan horri buruzko hainbat eta hainbat ekarpen izan, gero analisisan bildu eta aurkeztu direnak. Delphian, ordea, bai; gidoian harremanei buruzko atal berezia prestatu zen. Ez hori bakarrik, idatzizkoen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanaz gain, euskara hutsezko inprimatuen sektorea osatzen duten hedabideen arteko harremana ere landu nahi izan da. Hortaz, sektorearen barnean eta sektorea eta administrazioaren arteko harremanak nola gauzatu diren, denboran zehar aldaketarik izan ote den eta, behar izatekotan, nolako aldaketak egin beharko lirartekeen, idatziz adierazteko eskatu zitzaizen Delphian parte hartu zutenei.

4.- Etorkizunari begira. Delphiaren azken atal honetan landutako edukiak antz handia du elkarrizketa sakonetan egindakoarekin. Hala ere, hemen, lehenbizi, euskal hiztun komunitateak beharko lukeen esparru komunikatiboa diseinatzeko proposatu zitzaizen parte-hartzaileei, hau da, euskara hutsezko hedabideen mapa eraikitzeko (zenbat egunkari nazional, informazio orokorreko aldizkari, tokiko...). Gero, sektoreak orokorrean eta bakoitzak ordezkatzeko duen idatzizkoak etorkizunean dituen erronkak, zeregin nagusiak eta gainditu beharreko oztopoak zehazteko eskatu zitzaizen, eta, beste horrenbeste, administrazioek (Jaurlaritzak, aldundiek zein udalek) izan ditzaketen erronka eta zereginekin. Azkenik, irudikapen-ariketa planteatu zen, zein izango den euskara hutsezko hedabide inprimatuak hamar urte barru izango duten egoera irudikatzea hain zuzen.

Delphi teknikak eman duenaren analisia lau ataletan banatu da, prozesuan parte hartu duten hedabideei bidalitako gidoiak izan dituen atal berberak.

5.5.1. EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEN EGOERA

Euskara hutsezko idatzizko hedabideek, oro har, ikuspegi baikorra dute denboran zehar⁷⁷⁷ izandako bilakaeraz. Ondoko ekarpenak laburbilduko luke sektorearen iritzia:

⁷⁷⁷ .- Delphi gidoian denboran zehar egindako bilakaeraren balorazioa eskatu zitzaizen, argituz ez zela beharrezkoa 80-90eko hamarkadetara jotzea, eta nahikoa litzatekeela, erreferentzia moduan, azken hamarkada hartzea.

“Sektoreak oro har aurrera egin duela esango genuke. Oztopoz beteriko bidean, jardunari eustea eta eskaintza hobetzea lortu du, nahiz eta arriskuak, batez ere ekonomikoak, benetan handiak izan”. (D41)⁷⁷⁸

Hortaz, ia denek adierazi dute ibilbidea positiboa izan dela, bi mailatan gainera; kuantitatiboan zein kualitatiboan. Kuantitatiboki argazkia asko aldatu dela, hobera aldatu dela uste dute Delphian parte hartu dutenek. Euskara hutsezko medioen presentzia, eskaintza zabaldu egin da, bereziki tokian tokiko argitalpenen esparruan izan den ugaltzeari esker. Zabalkundea, gainera, ez da mugatu gune euskaldunenetara.

“Euskarazko medioen egoeraren bilakaera hitz gutxitan azaldu behar izatekotan, positiboa izan dela esango nuke. Batez ere tokian tokiko komunikabide txikiagoek izan duten bilakaerari dagokionez. Azken urteotan nabarmen areagotu dira tokiko komunikabide berriak eta horrek euskararen normalizazioan urratsak ematen lagunduko duela azpimarragarria da”. (D33)

“Euskara hutsezko idatzizko hedabideen argazkia aldatu egin da. Euskal Herriko erradiografia eginez gero, tokiko hedabideak geroz eta gehiago gara. Gune euskaldunetan ez ezik, euskara herren dagoen tokietan ere sortzen ari dira euskara hutsezko egunkari eta aldizkariak.

Euskal hedabideen argazkia kuantitatiboki aldatu den arren, kualitatiboki ere aldatu egin da. Teknologia aurrera pausoak eman dituen erritmo paretsuan ahalegindu gara tokikook urratsak ematen. Tokikom plataforma ere sortu genuen eta elkar laguntzen ginen heinean indartzen joan gara. Sektorean presentzia irabazten. Produktua fintzen. Irakurleak fidelizatzen. Gure baloreei balioa ematen. Hobetzen”. (D46)

Bigarren ekarpen honek eta jasotako beste hainbatek sektoreak arlo kuantitatiboan izandako bilakaerarekin batera arlo kualitatiboan egindako bidea ere azpimarratzen dute. Irakurleen eskuetan jarritako produktuak hobeak direla diote, eta beste horrenbeste gertatu dela hedabide inprimatuetan lan egiten dutenen profesionaltasunarekin, prestakuntza-mailarekin. Bi kontu horien eskutik etorri da, parte-hartzaile baten iritziz, inoizko komunikazio-sektorerik sendoena izatea eta euskarazkoek kontsumitzaileen aldetik lortu duten errekonozimendua.

⁷⁷⁸.- Hemendik aurrera, Delphi teknika bidez eskuratutako aipamen bat jartzen den bakoitzean honelaxe identifikatuko da: D hizkia (Delphiren adierazle) eta dagokion zenbakia. Delphi bidez bildutako ekarpenen fitxa teknikoa ikerketaren *Eranskinak* izeneko atalean dago.

“Bilakaera positiboa izan dute gure ustez euskarazko hedabide idatziek azken hamarkadan: erreferentzialtasunean irabazi dutela esango genuke, baita produktuaren kalitatean ere”. (D28)

“Azken hamarkadetan euskarazko hedabideen panorama asko ugaritu da, eskaintza zabaldu egin da. Eta kalitate-profesionaltasun mailak ere gora egin du”. (D14)

“(…) inoizko komunikazio sektorerik sendoena ezagutu du euskarak azken urteotan: inoiz baino profesional gehiago eta ongi prestatuak; kontsumitzaile kopurua ere inoizko handiena; gizartearen aldetik jasotzen duen errekonozimendua... Gure ajeekin, baina bagara nor”. (D41)

Hala ere, askok, aurreko balorazioarekin bat etorri arren, ñabardura egin diote ikuspegi baikorrari. Horien arabera, bilakaera ona eten egin da bi faktoreen eraginez: batetik, idatzizkoen edo, argiago nahi bada, paperaren eredu-krisia, eta, bestetik, krisi ekonomiko-finantzario globala. Krisiaren hasierari data jartzeko orduan ez dago adostasunik. Batzuek 2008a aipatzen dute joera-aldaketaren muga bezala, eta beste batzuek, berriz, 2012an kokatzen dute joera-aldaketa. Data bat edo bestea izan, krisiak astinaldia eragin du sektorean; argitalpenen maiztasunari, orrialde-kopuruari, kalitateari eta euskarazko hedabideetan ari direnei eragin dion astinaldia, hain zuzen. Horren erakusle ondokoetan aitortutakoa:

“Gure aldizkariaren azken urteotako bilakaeran argi ikusten da: aldizkaria hilabetekari izatetik, hiruhilabetekari izatera pasa da, horrek aldizkariarentzat dituen ondorio guztiekin: gaurkotasunari erantzuteko baliabide oso eskasak utzi dizkigu; hedabide bezala genuen presentzia galdu dugu hein handi batean... Baliabide pertsonaletan ere atzera egin dugu, nabarmen: duela 5 urte egiten genuen lan-jardunaren laurdenarekin egitera pasa gara une honetan, maiztasun-murrizketa eta zailtasun ekonomikoak tarteko. Horrek lan egiteko modua aldatu du: lehen aurrez aurre izandako harremanak eta elkarrizketak, telefono bidez dira orain beti; argazki propioak ezin egin; maketa egiteko lanordu eskasak... Baliabide teknikoetan ere, berdin: inprimategian dirua aurrezteko lehenetsi behar izan dugu, eta kalitatean atzera pausu nabarmena izan da”. (D29)

“(…) paperera bideratutako kazetal-produkzioa murriztu egin behar izan du (egunero 56 bat orrialdeko egunkari estandarra egitetik 40 bat orrialdeko egunkari estandarra egitera pasatu da BERRIA), eta lan-taldea ere murriztu egin behar izan du. Horretaz gain, urteak daramatzagu soldatak izoztuta”. (D8)

“Astean sei egunean egunkaria publikatuzetik, paperekoan astekari izatera pasatu gara; langileen artean murrizketak izan ditugu; inbertsioak egiteko oso tentuz ibili behar gara urteko balantzeetan ez eragiteko...” (D35)

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

“Fokua euskara hutsezko idatzizko hedabideen sektorean jarriz, oro har, irudipena dut egoerak okerrera egin duela (orrialde gutxiago ekoizten dira azken urteotan, publizitate gutxiago argitaratzen da eta, ez da sobera aztia izan behar, lan-baldintzak prekarizatu baino ez direla egin pentsatzeko). Eta erranen nuke egunerokoetan oraindik nabarmenagoa izan dela ‘kolpea’”. (D26)

Bestalde, “Hedabideak” laguntza-deialdiaren bilakaera aztertzeke atalean ikusi bezala, 2012koak aurreko urteetan baino baliabide ekonomiko gutxiago izan zituen euskara hutsezko hedabideentzat, eta hala izateak eragina izan zuen neurri handi batean laguntza publikoen tamainaren araberakoa den inprimatuen egunerokoan.

“Azkenengo urteetan aldizkariaren egoera ekonomikoa oso larria izan da. 2012. urtean izandako dirulaguntzen murrizketa handia eta hurrengo urteetan publizitate arloan izandako zailtasunak izan dira egoera honen arrazoiak. Bestalde, 2012an hasitako bidea jarraitu behar izan dugu lantaldeari dagokionez, pertsona bat gutxiago gara, kazetari bat gutxiago, hain zuzen ere”. (D32)

“Atzenengo urteetan asko baldintzatu dau krisi ekonomikoak gure aldizkariaren egitekoa. Publizidadeak behera egin dau eta enpresakaz euki doguzan hitzarmenak ia desagertu egin dira eta horrek gastuen doitzea ekarri dau. Aspaldi astekarira salto egiteko asmoa erakutsi dogu baina ez da posible, zoritxarrez diru-laguntzek asko baldintzatzen dabe gure egitekoa”. (D42)

Beraz, gehienek euskara hutsezko hedabide inprimatuek denboran zehar goranzko bidea egin dutela badiote ere; bestelakoa da, gaur egungo egoerari erreparatzen zaionean ageri den ikuspegia. Oraina, egungo argazkia, deskribatzeko eskatzen zaienean “ataka estuan”, “kezkagarria”, “eskasa”, “prekarietatea” eta antzeko hitzak erabiltzen dituzte askok:

“Egungo euskara hutsezko idatzizko hedabideen egoera kezkagarria da. Azken bospasei urteotan euskarazko aldizkari eta agerkari ugari desagertu dira”. (D5)

“Gaur egun, auzoko kioskora hurbildu eta hantxe ikus dezakegu euskara hutsezko idatzizko hedabideen egoera: nazio mailako egunkari bat, eskualde mailako egunkari bat, astekari bat eta... eta herriko aldizkari hilekaria. Gai espezialduetan sartu gabe, herritar guztiei zuzendutako produktuak horiexek dira”. (D6)

“Oro har, sektorea prekarietatean bizi dela esango nuke”. (D15)

“Euskara hutsezko idatzizko hedabideen egoera prekariora dela esango nuke. Krisi ekonomikoek eragin handia izan du. Egoera ekonomikoa dela eta hainbatek haien ateak itxi behar izan dituzte, beste batzuk eraldaketa prozesuan daude eta gutxi batzuk sortu dira”. (D16)

Hortik abiatuta, euskara hutsezko hedabide inprimatuen egungo egoera bizirautea dela kontsideratzen dute, eta berriro aipatuko dira bi arrazoi egoeraren kausa bezala: diru-sarrera propioen urritasuna eta diru-laguntza publikoekiko menpekotasuna.

“Zeharo ezberdina da bizitzea edo irautea. Euskara hutsezko idatzizko hedabideen egoera, bizirautea da. Eta ez irakurle edo kazetari faltagatik, hedabideen diru sarrerarik handiena laguntza publikoak direlako baizik”. (D46)

“Denok dakigun modura, zoritxarrez, euskara hutsean lan egiten dugun hedabideen egoera ez da nahiko genukeen modukoa; ez da euskarak behar eta merezi duena modukoa.(...) Herritarren eta udal batzuen babesagaz; eta autogestioan oinarri badugu ere, diru laguntzen menpe. Eta horrela jarraitzen dugu: urtero-urtero erakunde publikoetatik helduko diren diru laguntzen menpe”. (D18)

Azpimarragarria da egindako balorazioetan ez dagoela ezberdintasunik hedabideen izaeraren arabera; hots, izan eguneroko prentsa, izan informazio orokorreko zein espezializatuko aldizkari edo izan tokiko hedabide, denetan aurki daitezke antzeko argudioak.

“Ez dut uste goranzko honetan ezberdintasunik egin daitekeenik hedabide motaren arabera. Hau da, badago tokikorik ondo dabilenik eta oso gaizki dabilenik. Trenak hartzen dituenik eta galtzen dituenik. Berdin berezitetan etab...” (D1)

Denboran zehar izandako bilakaeraren balorazio orokorraz eta egungo egoerari buruzko hausnarketaz gain, gehiago zehazteko eskatu zitzaizen hedabideei; hau da, irabaziak eta galerak identifikatzeko, beraien ikuspegitik sektoreak zertan egin duen aurrera eta zertan atzera adierazteko. Batzuek euren egoera partikularretik heldu zioten eskaerari:

“Azken hamar urtean izan dugun jardunari begiratuta, esan dezakegu Interneten aurreratu dugula gehiena: aurten Tokikomen plataforma ezarri dugu, egunero elikatzen dugu eta bisita kopuruan izugarritzko gorakada izatea

lortu dugu. Aldizkariari dagokionez, maiztasunean atzera egin dugu, (...) Papereko produktuan jasotzen ditugun edukien kalitateari dagokionez, ez dugu aurrerapauso nabarmenik ematen asmatu". (D13)

Baten esperientzia partikularretik abiatuta, inprimatuek sektore bezala osatzen duten multzora salto egin ezker, Delphian parte hartu duten hedabideengandik jasotakoaren arabera irabazi//galeren balantzea lehenengoan, irabazien aldekoa izango litzateke.

"Bizirauten asmatu dela, behin eta berriro berrasmatzen nola aurrera egin" dio hedabide batek (D3). Hortaz, agerikoa da aurrera nola egin berrasmatu ahal izateko beharrezkoa dela lorpenak, irabaziak izatea, eta horiek aztertzen hasita esan daiteke ia erabateko adostasuna dagoela bi arlotan egindakoa aipatzeko orduan. Lehena hartzaileei begirakoa litzateke; bigarrena hedabideetan lan egiten dutenen prestakuntza-mailari.

1.- Euskarazko idatzizko hedabideek hartzaileak eta esparruak irabazi dituzte: hartzaileei dagokienez, horien kontsumo-ohiturak aldatu dituztela diote, euskaraz ezer ez irakurtzetik kontsumorako pausoa ematera bultzatu dutela, eta, horrekin batera, lehendik jorratzen ez ziren esparruak euskaraz landu eta eskaintzera iritsi direla.

"(...) gure ustez, hainbat arlotan aurreratu da: Gero eta esparru gehiagotara iristen dira euskarazko hedabideak eta aniztasunean ere irabazi egin da, geroz baino geroz hedabide espezifikoko gehiago dagoelako (Irria, Gaztezulo, Elhuyar, Hazi Hezi, Hik Hasi, Ttantak, literatura, arkitektura...). Hala ere, iruditzen zaigu, hutsune gisa 8-14 urte arteko haur-gazteentzat ez dagoela eskaintzarik". (D25)

"Aurrera egin dela diogu, esate baterako, lehenagoko kontsumo ohiturak aldatzea lortu delako neurri batean, euskaraz hitz erdi irakurri gabe egotetik euskarazko prentsa idatzia kontsumitzeko urratsa ematea ekarri dielako milaka eta milaka herritarrei". (D17)

Tokiko hedabideen presentziari lotzen zaio gehienbat irakurleen kontsumo-ohituretan izandako aldaketa, eta, euren esanetan, erdal komunitatea erakartzea ere lortu dute. Hori baino gehiago, tokikoen artean bada funtzio soziala betetzen dutela defendatzen duenik.

“Tokiko komunikabideek erdal komunitatea ere hurbildu du euskararen mundura. Hala ere, esparru honetan lan handia dago egiteke”. (D36)

“Herriko informazioaren igorle izateaz gain, beste funtzio bat ere betetzen dugu: askorentzat, gurea da etxean jasotzen duten euskarazko idatzizko hedabide bakarra. Gure funtzio soziala, beraz, agerikoa da”. (D22)

2.- Profesionaltasuna irabazi da: ekarpenetan behin eta berriro ageri den ideia da. Hedabide inprimatuek kaleratzen dituzten produktuen kalitatea hobetzearekin eta garai berrietara egokitzearekin ezkondata legoke produktu horiek ekoizten dituzten pertsonen prestakuntza-maila hobea izatea. Hortaz, adierazitakoei jarraituz, lehen garaietako boluntarismotik profesionalizaziorako jauzia egin du sektoreak.

“Gure herri aldizkariaren kasuan, kaleratutako produktua poliki-poliki saiatu gara garai berrietara egokitzen. Horretarako beharrezkoa izan da langileen profesionalizazioa, lan-baldintzen hobekuntza eta hori lortu ahal izateko diru-iturrien eta irakurleen babesa. Duela hamarkada bat baino egoera hobean gaude zentzu horretan. Gure uste xumean, prentsa eraginkorragoa eta erakargarriagoa eskaintzen dugu egun, bai estetikoki eta baita edukiaren edota hizkuntzaren kalitateari dagokionean ere”. (D17)

“Sektoreak, oro har, boluntarismo hutsetik profesionaltasunerantz bidea hartu izan du, neurri batetan; alegia, gizarte mugimenduak bultzatua, eta boluntario sutsu batzuek garatua izatetik enpresa “konbentzionalen” parametroetara mugitu da ..., puntu horretaraino iritsi gabe. Esan dut “puntu”, ez “helmuga”. (D11)

Bi arlo horiez gain, beste hainbatetan izandako lorpenak ere nabarmendu dituzte hedabide inprimatuetakoek. Horietan, ordea, ez datoz denak bat, eta horregatik, gehien aipatzen direnetatik gutxien aipatzen direnetara aurkeztuko dira.

1.-Teknologia berrien aukerez baliatzen asmatu da. Kasu honetan ezin esan erabateko adostasuna dagoenik; izan ere, asko dira Interneterako eta sarerako jauzia oraindik behar edo nahi duten neurrian burutu gabe dutela dioten hedabideak, tokikoak batez ere. Bestalde, aitortu egiten dute teknologia berrietara egokitzea derrigortuta burutu den prozesua izan dela, aro digitalak ezarri duen erritmoaren trena ez galtzeko.

“Produktuari berari dagokionez, teknologia berrietan inbertitu eta sareko kazetal-produkzioa areagotzeko aukera ere izan dugu, kasu honetan ere halabeharrez neurri handi batean”. (D8)

“Asko aurreratu dugu Interneten egindako lanari esker eta emaitzak sumatzen dira. Era berean, etengabeko berrikuntza eskatzen digu aro digitalak eta dauzkagun baliabideekin maiz kostatzen da erritmoari eustea.(...) Lortu dena, hortaz, erronka digitalari duintasunez erantzutea izan da”. (D28)

2.- Tokikoek aurrea hartu diote beste hizkuntza batzuetan ari diren hedabideei. Lorpen estrategikotzat jotzen da eta berau gauzatzea errazagoa da lurralde, eskualde edo udalerrri jakinetan zabaltzen diren hedabideentzat; hots, tokikoentzat euskararen lurralde osoa helmugatzat duten informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarietzat eta egunerokoentzat baino.

“Esanenezake, tokiko aldizkarigintzan aurrea hartu diogula (ziotela, hobeto esan) bestelako hizkuntzetan jardun zezaketen hedabideei. Gaur egun ez litzateke batere erraza gaztelera hutsezko toki aldizkari bat sortzea dagoeneko euskarazkoak dauden lekuetan. Esango nuke leku hori hartua dagoela (jakinda ez dagoela lo egoterik) eta euskaraz hartu dela. Hori oso garrantzitsua izan da eta estrategikoa. Zailagoa da aldizkari berezituaren kasuan edo euskararen herrirako lan egin gura duen baten kasuan”. (D1)

3.- Tokikoek erreferentzialtasuna lortu dute. Arestian aipaturiko lorpenari zeharo loturik dago.

“Euskarazko tokiko hedabide ez publiko baten ikuspegitik, uste dut erreferentzia nagusia izaten jarraitzen dugula. Guk eta gure parekoak. Paperean duela 20 urtetik hona, eta paperean eta sarean gaur egun. Informazioaren esparruan hutsune handi bat zegoen eta euskarazko tokiko hedabideek jakin zuten espazio hori bere egiten”. (D22)

4.- Arlo ekonomikoan diru-sarrerak dibertsifikatzen jakin da, eta horri lotuta, zenbait kasutan, autofinantzaketa-mailan gora egin da. Hedabidearen enpresa-egoerari begiratzen dion lorpena litzateke. Teknologia berrietara egokitzearekin gertatu bezala, krisi ekonomikoren ondorioei eman beharreko erantzunetik sortu den irabazia da.

“Publizitatea/egunkari-salmentak/dirulaguntzak eskema klasikotik harantzago joateko aukera izan dugu, halabeharrez neurri handi batean, eta horren diru sarrera berriak bilatu ditugu [XXX⁷⁷⁹] bidez edo zerbitzu salmenten bidez”. (D8)

“Zertan egin den aurrera? Autofinantzaketan %50etik gora egiteak, laguntzaile eta publizitate, oinarri sendoa eman dio aldizkariari”. (D19)

⁷⁷⁹.- Formula hau erabili da ekarpen-egilearen anonimotasuna babestu eta bermatzeko. Kortxete artean kokatutako “XXX” horren lekuan ekarpena egin duen hedabidea identifikatzen zuen hitza zegoen.

5.- Enpresa-eredua egokitzen asmatu da. Kontu hau hedabide bakar batek aipatzen du irabazi moduan. Geroxeago ikusiko da besteren batek lortu ez diren zereginen artean kokatuko duela gai bera.

“Asmatu da enpresa eredua egokitzen, 2016ko kazetaritzara moduetara moldatzen, enpresak eraldatzen. Multimedia kazetaritza adarretatik heldzea erabaki ona izan da”. (D1)

6.- Sektoreak elkarlanean jarduteko duen gaitasunean ere aurrera egin da. Geroago ikusiko da badela iritzi honekin bat egiten ez duenik ere.

“(…) tokiko hedabideek sekulako garapena izan dute, neurri handi batean elkarlanaren bideari irimo eta eraginkortasunez helduta (...); sektoreak batzeko eta elkarlanean aritzeko gaitasuna erakutsi du (hor dago Hekimen elkartearen sorrera eta lana)...” (D41)

Behin lorpenen/irabazien errepassoa eginda, txanponaren beste aldeari, galerei edo nahi beste aurreratu ez duten kontuei heltzeko unea da. Eta horien lanketak bi kontu utziko ditu agerian: batetik, galerak erabat loturik daudela euskarazko hedabide inprimatuek etorkizunera begira ezarriko dituzten erroka edo zereginiei, eta bestetik, lorpen edo irabazi moduan zerrendatu diren zenbait gai orain galera moduan agertuko direla.

1.- Paperezko euskarriak presentzia, ikusgarritasuna galdu du. Teknologia berrien, bereziki Interneten, garapenaren ondorio dela diote Delphian parte hartu dutenek.

“Paper euskarri bidezkoa lehen informazio iturria izana, eta dena oraindik askorentzat, lekua galtzen ari da internet bidezko eskaintzen aurrean, nabarmen eta abiada bizian”. (D10)

2.- Oro har, ez da lortu langileen lan-baldintzak hobetzea edota komunikazio-talde handietan ari diren profesionalek dituztenak berdintzea. Soldatak, produktuak kaleratzeko sartzen diren orduak, lanpostuen galerak aipatzen dira, besteak beste, egindako ekarpenetan.

“Kazetarien lan baldintzak eskasak dira”. (D4)

“Lan baldintzak ez dira onak, sartzen diren orduak ez daude konpentsatuak”.(D12)

“Orokorrean langileen soldatak baxuak dira (...)Langileen egoera ekonomikoa asko hobetu behar da”. (D36)

“Berez, euskarazko hedabideen esparruko langileen lan-baldintzak beti izan dira hala-moduzkoak, eta horretan pixkanaka hobera egin den arren, krisi ekonomikoak berriro ere gogor erasan die: murrizketak, lan kargaren handitzea, lan postuen galera, hedabideak hobetzeko egitasmo berriak garatzeko ezintasuna...” (D41)

“Zentzu horretan, euskarazko hedabideek orokorrean baliabide ekonomiko mugatuekin lan egiten dugu (ikusirik ez dago euskarazko komunikabideetako langileon lan baldintzak zeintzuk diren) eta beraz, argitaratzen ditugun produktuetan egin ditzakegun inbertsioak (produktuak hobetu eta beraz bezero berriak erakartzeko) mugatua dela uste dugu”. (D27)

Mugak muga, arestiko hausnarketa egin duen hedabidetik gaineratu dute kalitateari dagokionez, euskarazko produktuak ez daudela erdarazko hedabideek kaleratzen dituztenen atzetik.

“Halarik ere, baliabide gutxirekin talentu handiko produktuak ekoizten ditugula uste dugu, erdarazko medioek dituztenak bezain onak edo hobek ere”. (D27)

3.- Sektoreak hastapenetan zuen izaera edo ezaugarri militantea galdu du. Irabazien atalean azpimarratutako profesionalizazioaren B aldea litzateke honakoa. Baina, ekarpen batean adierazten denez, militantziak behera egitea ez da derrigor txartzat hartu behar; horren arabera, gaur egun euskarak eta euskal hedabideek militanteak baino erabiltzaileak behar dituztelako.

“Beharbada, beste hamarraldi batzuetan euskalgintzak eta euskarazko hedabideen sektoreak hein handi batean hain berezkoa duten militantzia izaeraren apaltzea izan da; baina horrek, berez, ez du zertan txarra izan.(...) Gainera, normalizazioaren bidean, militanteak baino, erabiltzaileak behar ditugu. Hedabideon kasuan, irakurleak. Eta irakurleagoa zenbat eta ugariagoa eta anitzagoa izan, are hobeto bai hedabideontzat, baita euskararen normalizazioarentzat”. (D41)

Ildo beretik jorratutako beste ekarpenen bat ere izan da Delphian, baina kasu horretan militantziaz aritu beharrean, kutsu ideologikoz ari da. Bere ustez, euskara hutsezko idatzizkoetan belaunaldi berriak sartzeak, horien profesionalizazioak eta beste “kolore ideologiko batek” kudeatzen dituen diru-laguntzen beharra izateak hasierako kutsu ideologikoa arintzea ekarri du.

“Hasierako izaera herritar eta ideologikoak dirauen arren, jardun askoz profesionalizatuagoa ere begi bistakoa da. Aldaketa, ez da aggiornamento estetikoa izan; aldaketak biziraupenerako estrategiari erantzun dio nagusiki. Horretan, belaunaldi txandaketak ere zerikusi handia izan du: gazteria teknikoki ongi prestatua ekarpen handia egin dio sektoreari, IKTekiko duen hurbiltasun handiagoa tarteko. Paradigma ezberdinei erantzuten dioten neurrian, logika profesionalak zorrotasun ideologikoa kamustea ekarri du.

Bestalde, zama edo lotura ideologikoa arindua gertatu da, kutsu profesionalak lekua bereganatzea ez ezik, diru-laguntza publikoaren beharra ere nabarmena izan delako. Azken horrek beste kolore ideologikoen eskuetan egonda, laguntza eskaera/eskaintza binomioaren emaitza positiboak indartu diren neurrian, erradikaltasun ideologikoa zalantzan jarri eta alboratu da, neurri batean bederen. Ez erabat, ezta arintze progresiboan ere; gora-behera ugarirekin baizik”. (D11)

4.- Sektoreak ez du asmatu erreleboa ziurtatzen. Bi dira hausnarketa hau galeren edo nahi/behar beste aurreratu ez duten kontuen aldean kokatu duten idatzizko hedabideak, biak tokikoak. Batek euskarazkoa ekoizteko behar diren kideen erreleboari heldu dio, eta besteak, irakurleen, hartzaileen erreleboari. Hori baino gehiago, “odol berririk” ez egoteak hedabidearentzako ondorio kaltegarriak izan ditzakeela eta produktuak birpentsatu beharra dakarrela baieztatu dute.

“Zertan ez duen “asmatu” aldizkariak? Batetik, kideen erreleboan. Bai kultur elkartearen zuzendaritzan, bai aldizkariako langileari laguntzea helburu duen erredakzio kontseiluan, garai bateko kide berak dira egun. Hauen nekea, nabarmena da. Militantzia handia, baina bestela ere norberak bere lana, eta ezin behar bezainbeste dedikazio eskeini. Eta ez dago hauen lekukoa hartu duen jende berririk. Herritarrek bai, babes zabala erakutsen doten aldizkariari, baina babes pasiboa da. “Gustura hartzen dugu aldizkaria etxean”, baina gero, nolabait ere parte hartu behar denean, inor gutxi animatzen da pausua ematera. Eta horrek, isla izan dezake aldizkarian: gai beretsuak errepikatu maiz, garai bateko moldean segi egun ere... Odol berriaren eta ideia freskuen premian gara”. (D19)

“Prentsa idatzia, bere osotasunean, krisiak jota dago/gaude. Informazioaren kontsumo ohiturak nabarmen aldatzen ari dira urteak pasatu ahala, irakurlegoa zahartzen ari zaigu, belaunaldi errelebo nahikorik ez dator idatzizkoen harpidedunetan eta , beraz... geure produktuak birpentsatu beharrean gaude”. (D26)

Hartzaileengana, erosle edo irakurle gisa ikusita, nahi beste ez iristeaz gain, horiengan lortu ez den beste kontu bat ere agertu da Delphian: eragina. Eta horrekin adierazi nahi da hartzaileari ez zaiola ahotsa, agerikotasuna eman idatzizko hedabidearen zertzean aktiboki inplikatzeko eta bide batez komunitatea sendotzeko.

“Zerbaitetan ez badugu egin gora da ez garela gai izan gura genukeen beste jenderengan eragina izateko. Ez diot erostea edo iristea bakarrik, baita eragina izatea ere. Hori irabazteko dugu oraindik euskarazko hedabideok, nor izatea kazetarigintzan, ez euskal kazetarigintzan. (...) Ez dago informazioa igorletik hartzailera pasa eta amaitu dela pentsatzerik. Ezta nahikoa feedbacka lortzea ere. Asmatzeko daukagu irakurleekin batera egitea aldizkariak, egunerokoak edo dena delakoak. Ahotsa emanez eta agerikotasuna emanez irakurleei. Hitz baten, komunitatea sendotu eta agerikotasuna eman. Horretan herren gaude oraindik”. (D1)

Arestiko lerroetan aipatzen den komunitatea sendotzeko edo trinkotzeko zeregina estu lotzen zaio ekarpenen batean nabarmendu den beste gai bati: hedabidearen eta komunitatearen arteko harremanari. Horren arabera, euskarazko hedabideen kasuan, harremanak bi norabidekoa beharko luke herrigintzan eta hizkuntzaren normalizazioan duten funtzioa egikaritzeko eta, aldi berean, hedabideen iraupena ziurtatzeko.

“Hedabide guztien moduan, idatzizkoak ere bere komunitatean inplikatu behar du, eta alderantziz, komunitatea hedabidean inplikatu. Euskarazkoen kasuan ezinbestekoa da hori, gurean argi dugu behintzat hori. Ulertu behar dugu komunitateari zerbitzu bat emateko sortu ginela, badugula funtzio bat herrigintzan eta hizkuntza normalizazioan, eta funtzio hori ahalik eta hobekien betetzeko gure hiztun komunitatetik gertu egon behar dugula. Entzun egin behar dugula komunitateko lagun hori, ulertu egin behar dugula. Era berean, komunitatea proiektuetara erakartzea ezinbestekoa izango da, iraungo badugu. Finantziazioan lagunduz, baina ez finantziazioan lagunduz bakarrik”. (D8)

5.- Sektoreak ez du asmatu/lortu multimedia-eredua jorratzen. Lorpenen atalean, euskara hutsezko hedabide inprimatuek, halabeharrez eta oro har, teknologia berrietara egokitzeko gaitasuna erakutsi dutela esan bada ere, orain adieraziko da ez dela lorpenik izan idatzizko hedabide izatetik multimedia izatera iristeko bidean.

“Sektore gisa lortu ez duguna, gure ustez, hedabide multimedia bihurtzea izan da: oraindik idatziak pisu handia du gure hedabideetan”. (D28)

6.- Sektoreak ez du aurrerapen handirik egin elkarrekin lan egiteko dinamikak sortzen. Irabazien aldean azpimarratutakoa galera moduan aurkezten da orain. Eta hala izatea errazago ulertu zitekeen, iritzi bat eta bestea izaera ezberdinetako hedabideek defendatuko balute; adibidez, tokikoek eta egunerokoek edo tokikoek eta informazio

orokorreko eta espezializatuko aldizkariak. Baina ez da hala gertatzen. Moltzo bereko hedabideak dira sektore barneko elkarlanak aurrera egin duela baieztatzen dutenak eta ez duela egin baieztatzen dutenak. Kasu honetan, elkarlanerako dinamiketan behar beste aurreratu ez izanaren arrazoitzat jartzen dira jokaera indibidualista eta ondokoa zertan dabilen ez erreparatzea.

“(…) eragileen arteko elkarlana bultzatu beharko litzateke, sektorea oso atomizatuta baitago. Elkarre, talde, fundazio, udal... bakoitzak bere aldizkaria edo agerkaria kaleratzen du eta kitto (...) Indar eta aukera asko galtzen dira jada beste batek egindako lana errepikatuz, eskualde batean hamaika aldizkari zabalduz eta beste batean, berriz, bat ere ez. Euskaltzale ugari gara, baina oso indibidualistak. Norberak bere agerkaria lantzen du, sarritan albokoak egiten duena ezagutu edo kontuan hartu gabe. Euskal prentsa sistema nazionala eraiki beharko litzateke, kaleratzen diren hamaika aldizkariak nolabait koordinatuz. Honekin ez dugu esan nahi elkarre, fundazio, udal... bakoitzak ez duela askatasunik izan behar nahi duen egitasmoa garatzeko, gustukoa dituen edukiak zabaltzeko... Baina bai koordinazioa egon behar duela, euskalgintzako eragileok elkar ezagutu eta egiten dugun lana bateratu”. (D5)

Honaino euskara hutsezko hedabide inprimatuek denboran zehar izandako bilakaerari eta irabazi/galera zehatzei buruzko idatzizko ekarpenen azterketa. Sektorearen egoerari eskainitako atalarekin bukatzeko, proiektu berriak martxan jartzeko sasoia ote den galdetu zitzairen eta erantzunetan, espero bezala, bi moltzo berezitu daitezke:

1.- Ikusitakoak ikusita eta egungo egoera nolakoa den kontuan hartuta, batzuek uste dute ez dela proiektu berrietarako une egokia. Krisi ekonomikoak gogor astindu dituen hedabideak dira kasu guztietan hala uste dutenak. Ia denak aldizkari espezializatuak diren arren, badira tokikoak ere. Proiektu berrietan sartu ordez, orain krisiak utzitako ondorioei aurre egiteko eta eusteko unea dela diote.

“Gure kasuan, une honetan ez dugu uste hau denik proiektu berri handietan sartzeko unea. Argitalpenaren maiztasun-murrizketak utzitako ondorioak ahal den neurrian ebitatzea eta sektoreak dituen erronka horietan asmatzea dira gure lehentasuna. Alegia, dugunari eutsi eta sendotzea. Tokiko hedabideek jakin dute erronka berrietara egokitzen eta beren presentzia bermatzen. Orain argitalpen espezializatuei dagokigu gure bidea egiten joatea”. (D29)

“En la situación actual, creo que no es tiempo de embarcarse en nuevos proyectos, especialmente en el sector de los medios impresos en euskera, que no puede darse más que por satisfecho si mantiene lo que ha logrado en estos años logrado, pues lo normal es que cierren medios. Negro futuro veo yo⁷⁸⁰. (D43)

2.- Gehienak, ordea, krisiak krisi, proiektu berrietan sartu edo proiektu berriak sortzearen aldeko dira. Horren lekuko Delphia burutu zenean euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorean lanean hasi berri zegoen asteroko argitalpen batetik jasotako hausnarketa. Esan beharra dago ez zela zerotik abiatu, baizik eta aurretik zegoen beste baten jarraipena zela, baina goitik behera eraberritutakoa. Hedabide horrek argi eta garbi azaldu zuen zeintzuk izan diren proiektu berria martxan jartzeak ekarri dituen alde onak eta txarrak. Lehenek kaleratutako produktuaren ezaugarriekin dute zerikusia, bigarrenek egoera ekonomikoarekin,

“Bilakaera honek aritzen garen eskualdeari onurak ekarri dizkiola bistan dago: hedabide indarberritu bat, guztion parte-hartzea baimentzen duena, maiztasunean (paperean) hobetu dena, sare-agerkarian berritu eta hobetu dena, egunerokotasuna, kultura, agenda, kirola...eta abar gaitan gaur egun lantalde handiago eta bateratu baten esfortzuaz kalitate handiago bat emateko gaitasuna izanik. Baina kalitate honek, esfortzu honek, prezio bat dauka: aurrekoaren prezioa handitzen du. Lan taldea handiagoa da, maiztasuna handitu da, kalitatea hobetu da, baliabide beharra handiagoa da, espazio handiagoa behar da...diru gehiago behar da: lehen ere estu bazebiltzaten, orain, estuago gabiltza, eta dirulaguntzak ez dira handitu. Beraz, hedabideak aurrera egin du, baina egoera ekonomikoak atzera”. (D12)

Eta lehen pertsonan, zuzen zuzenean bizitako esperientziatik abiatuta honelaxe diote:

“Daukaguna mantentzea, nekez lortzen dugun eguneroko lana da. Daukaguna sendotzea, mantentzearen ondoren datorrena da. Proiektu berriak? [Gurea]⁷⁸¹ proiektu berria da, erronka berria, euskarazko tokiko hedabide bakarra gure eskualdean, beharrezkoa zena. Horretarako unea izan da, behar beharrezkoa, baina hala ere apostu handia baita; urte bateko bizitza du gureak, eta bere etorkizuna ez dakigu zein izango den. Nekez arituko garela, hori bai”. (D12)

⁷⁸⁰ .- Gogoratu Delphian parte hartu zuen hedabide baten kasuan, gidioa gaztelaniaz jaso eta erantzuteko aukera izateko eskatu zutela.

⁷⁸¹ .- Hemen ekarpena egin duen hedabidearen izena kendu da anonimotasuna bermatzeko.

Hala ere, lehen aurreratu bezala, gehiengoa dira proiektu berriei ekitearen aldeko iritzia ematen dutenak, hori bai, beti ere zenbait baldintza beteta, besteak beste horretarako laguntza izatea. Izan ere, argudiatzen da euskarazko hedabideen sektorean proiektu berrientzako lekua egon badagoela, baina arazoa finantziarioa dela, ez delako diru-laguntzarik eskaintzen proiektu berriei ekiteko, horien sorrera sustatzeko.

“Proiektu berrietarako sasoia beti da. Ezin dugu egiten dugunarekin geratu. Horrenbeste aldiz aipatzen den "conford gunee" moduan ere defini dezakegunarekin hautsi beharra dugu.(...) Oraindik proiektu berri askotarako lekua dago, izan tokian tokian, Euskal Herri mailan zein espezializatueta. Horretxetan laguntzen du gutxien diru-laguntza deialdiak. Dagoen poltsatik aparte behar luke hedabide berrien sorrera. Laguntzok ez daude bideratuta dagoeneko hedabidegintzan ari garenok proiektu berriak sortu ditzagun”. (D1)

“Beraz, bai, uste dugu proiektu berriak beharrezkoak direla. Baina horietarako ezinbestekoa den finantziarioa falta zaio sektoreari”. (D28)

Proiektu berriak martxan jartzearen alde agertu diren hedabide askotatik ñabardura egin diote apustuari. Horren erakusgarri ondoko esaldia: “(...) proiektu berriei atea irekitzea bai, baina ez edonola eta zein garen edo nondik gatozen ahaztuta”(D17). Hots, alde bai, baina argi utzita proiektu berriei ekiteko beharrezkoa dela dagoeneko badirenak sendotzea, indartzea.

“Martxan dauden egitasmoak indartu beharra ezinbestekoa da, bidean aurrera egitea nahi badugu; bestela, ibilbide laburreko egitasmoak ahalbidetuko ditugu, ez euskal jendarteak behar dituen egitasmo iraunkorrak. Eta daudenak indartu eta egonkortu ahala, berriak sortzen hasi ahalko gara. Horretan, noski, diru sarrerak, eta horren baita, diru laguntzak klabeak dira”. (D18)

“Proiektu berrietarako garaia da, beti izan behar dugu berritzeko, apostu berriak egiteko, hobetzeko eta modernizatzeko erronka. Gure sektoreak ezin du "estankatuta" jarraitu. Nolanahi ere, aurrera egiteak ez du zertan suposatu beharrik orain arteko guztia eraldatzea edo atzean uztea. Egungo egoerari eutsi eta sendotzea ez da erronka makala. Alegia, proiektu berriei atea irekitzea bai, baina ez edonola eta zein garen edo nondik gatozen ahaztuta. Gaizki dagoena hobetu, ondo dagoena mantendu eta ahal dela gauzak hobeto egin eta proiektu berriak indartu... horretan asmatzean legoke koxka”. (D17)

Euskarazko hedabide inprimatuaren sektorean beraz, bada egitasmo berrientzako lekua, bada horiek gauzatzeko nahia eta badira nahia elikatze arrazoiak ere. Bi dira nagusi: batetik argudiatzen da hizkuntzaren normalizazioan laguntzeko ezinbestekoa

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

dela euskararen lurraldean ari diren beste hizkuntzek (erdarek) duten neurriko hedabide-eskaintza euskaraz ere izatea; bigarrenik, hedabidearen zabalkunde-esparruan dauden kontsumitzaileen ezaugarriak eta beharrei egokitutako produktuak sortu behar direla defendatzen da. Betiere, aurretik azaldu bezala, gogoan izanda proiektu berriak sortzea eta daudenak sendotzea asmo, erronka bateragarriak direla.

“Era berean, produktu berriak, espezializatuak, modernoak, erakargarriak egiteko unea dela uste dugu; euskarak, erdarek besteko tresna izan behar ditu etorkizunean biziko bada”. (D27)

“(…) beharbada iritsi da ordua produktu estandar hori begibistatik kendu gabe, herri edo bailara bakoitzean detektatzen diren kontsumitzaile-talde adierazgarriak ere keinu bat egitea euren interesekoa izan daitekeen produktua sortuz: hizkuntzaren ezagutze-maila, adina (haurrak, gazteak, adinekoak...), zerbitzu edo gai zehatzen ingurukoak (agenda eta denbora libre, kirol emaitzak, lan-eskaintzak...), eta horiek guztiak ez derrigor paperezko edizioen bitartez.(…) ez dut uste ‘proiektu berriak’ eta ‘dagoena sendotu’ gauza kontrajarriak direnik”. (D26)

Proiektu berrien inguruan dagoen ikuspegia laburbilduta, esan daiteke euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak begi onez ikusten duela horiek martxan jartzea, baina dagoeneko kalean direnak deskuidatu gabe, horiek indartuta. Bestalde, osasun oneko finantziarioa izatea litzateke proiektu berriei ekiteko funtsezko baldintza. Hortik Delphi azterketaren hurrengo atalean landuko den Eusko Jaurlaritzaren garrantzia eta ezinbestekotasuna. Hala aitortzen da ondoko ekarpenean:

“Euskarazko hedabideei Jaurlaritzatik ematen zaizkien diru-laguntzak oso garrantzitsuak dira, diru-laguntza hauekin elkarrekin baliabide gehiago izaten dituzte eta honek eragin zuzena du sortu eta bultzatzen ditugun herri aldizkarietan. Diru-laguntzek hedabideei oxigenoa ematen diete, hedabideak ekonomikoki ongi gaudenean ausartago gara eta proiektu berriak ere egitera ausartzen gara!”. (D17)

Oxigenoa, jakina denez, bizitzeko behar dugu gizakumeok. Ondoko lerroetan ikusiko da Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntza deialdiak beste horrenbesteko zeregina eta garrantzia ote duen euskara hutsezko hedabide inprimatuentzat.

5.5.2. EUSKO JAURLARITZAREN “HEDABIDEAK” DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

Funtsezkoak, oso garrantzitsuak, ezinbestekoak, oso positiboak... Hitz horiexek erabili dituzte ikerketa honetan parte hartu duten euskara hutsezko hedabide inprimatuetakoko ordezkariak Eusko Jaurlaritzak “Hedabideak” deialdiaren bidez emandako diru-laguntzei buruz aritzeko. Esan daiteke ekarpenetan erabateko adostasuna dagoela balorazioa egiteko orduan. Bi hedabide izan ezik, gainontzeko guztiek Jaurlaritzarengandik jasotako laguntza azpimarratuz ekin diote arlo honetako hausnarketari. Gehienek euren etxeko egoerari erreparatuta baloratu dute deialdia. Horren lekuko ondoko ekarpen-zerrenda. Luzea den arren, interesgarria da hemen aurkeztea, gaiari buruz dagoen adostasunaren neurria ematen duelako, eta bertan, egunerokoak, informazio orokorreko zein espezializatuko aldizkariak eta tokikoak daudelako ordezkaturata.

“Gurean eragin positiboa du diru-laguntza honek eta jaso ezean, zaila egingo litzaziguke aurrera jarraitzea”. (D38)

“Diru-laguntzak beharrezkoak dira, bestela ezin da gisako aldizkari bat mantendu”. (D20)

“[Gure]⁷⁸² aldizkariak diru-laguntzen beharra du argitaratu ahal izateko”. (D16)

“[Gure] aldizkaria, Jaurlaritzaren diru laguntza gabe kaleratzea ezinezkoa litzateke. Alde horretatik ontzat, egokitzat eta beharrezkotzat jotzen dugu diru laguntza”. (D21)

“Gure proiektua garatzeko eta sendotzeko ezinbestekoa da laguntza hau”. (D32)

“Diru-laguntza horiek ezinbestekoak dira tokiko komunikabideak sortzeko eta iraunarazteko, baita gure aldizkarirako ere”. (D36)

“Si no fuese por ellas no existiría ni el 20% de los medios en euskera que hay hoy. Sin esa ayuda [XXX] no existiría”. (D43)

⁷⁸².- Formula hau erabili da ekarpen-egilearen anonimotasuna babestu eta bermatzeko. Kortxete artean kokatutako “gure” edo horren aldagairen bat dagoen lekuan ekarpena egin duen hedabidearen izena zegoen.

“[Gure] moduko proiektuak garatu ahal izateko funtsezkoa izan dela uste dugu. Diru-laguntzek bideragarri egiten dituzte proiektuok. Alde positiboa da, diru-laguntzei esker proiektuak aurrera egin dezakeela, ZZ⁷⁸³ moduko hiri batean euskarazko komunikabide bat mantentzeak dakartzan zailtasun guztien arren. Diru-laguntzei esker, euskarazko eta kalitatezko edukia eskaini ahal izan da [gure inguruan]”. (D24)

“[Guretik] behar beharrezkotzat jotzen dugu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak urteko kaleratzen duen diru laguntza. (...) Gaur egun HPSk ematen duen diru laguntzak ahalbidetzen du [gurea] argitaratzea, horrek duen esanahi guztiarekin: euskararen normalizazioan eragitea, hau da, herritarrek egunero euskara erraz batean irakurtzeko aukera izatea; herritarrek komunikabide propio bat izatea; herrian gertatzen dena plazaratzeko tresna gisa ulertzea; era berean, diru laguntzak ahalbidetzen du produktua bera lantzea eta garatzea; eta bide horretatik, eraginkorragoa izatea. HPSek ematen duen diru laguntzak zati garrantzitsua du [gure] aurrekontuan, eta beraz, gaur egun finantziario iturri garrantzitsuenetakoa da”. (D34)

“Gure proiektuaren bideragarritasunari dagokionez, inportantea da Eusko Jaurlaritzaren ekarpena”. (D22)

“Ordezkatzen dudana hedabidearen kasuan balorazioa, orokorrean, positiboa edo oso positiboaren artean finkatuko nuke. Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak denbora luzean desagertuta (2010-2016) egon direnean, ez balitz izan Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzengatik, egoera dramatikoan egonen ginatke. Izan ere, gure kasuan udal eta mankomunitateetako diru-laguntzak 2008ko kopuruetan daude 2015ean, eta murrizteko joerarekin aurrera begira”. (D26)

Bildutako iritzien arabera, beraz, Eusko Jaurlaritzaren urteroko deialdiak euskarazko hedabide inprimatu bakoitzaren bideragarritasunari laguntzen dio. Are gehiago, ekarpen askotan, norberaren etxetik haragoko begirada luzatuz, adierazten da diru-laguntza horiek gabe ez litzatekeela euskaraz idatzizkoen sektorerik izango.

“Hasteko esan beharra dago laguntza horiek gabe ez legokeela sektorerik”. (D3)

“Hedabideak” diru-laguntza ezinbestekoa da euskara hutsezko idatzizko hedabideentzat. Hori gabe, argi dugu sektorearen parte handi batek ezingo liokeela bere produktuari eutsi”. (D29)

⁷⁸³ .- Ekarpen-egilearen anonimotasuna babesteko jarri da horrela.

“Argi dago sektore osoko behar edo gabezia bati erantzuna ematen dion programa dela eta hori ezean medio askok aurrera egiteko zailtasunak izango lituzketela. Alde horretatik positiboa de Eusko Jaurlaritzak euskaraz argitaratutako hedabideak laguntzeko programa martxan izatea”. (D33)

“Deialdiari esker, euskarazko hedabide asko argitaratu daitezke. Deialdian eskaintzen diren laguntzak ezinbestekoak izan dira euskalgintzako sektorearen garapenerako”. (D5)

“Ezagutzen dudan neurri apalean laguntzarik gabe sektorea oso kinka larrian legoke”. (D11)

“Laguntza oso garrantzitsua izan da aurrera egiteko. Diru laguntzarik gabe euskal hedabideek nekez egingo lukete aurrera, edo ezingo lukete bizi iraun”. (D37)

“Oro har, HPSren deladiak onura besterik ez dio ekartzen sektoreari, hark emandako diru-laguntzarik gabe hainbat eta hainbat proiektu jausi egingo bailirateke. Hortaz, ekonomikoki behar-beharrezkoa bide du sektoreak deialdi hori”. (D6)

Aurreko lerroak irakurrita, argi geratu da “Hedabideak” deialdian esleitutako partida diru-sarrera garrantzitsua dela euskarazko inprimatuentzat; batez ere, aintzat hartzen bada sarrera propio bidez lortutako finantziazioa ez dela nahi bestekoa, publizitate bidezko sarrerek behera egin dutelako eta euskarazko idatzizko gehienetan ez delako salmenta bidezko dirurik jasotzen.

“Hasteko eta behin, hedabideei zuzendutako diru-laguntzak ezinbestekoak direla onartu behar da. Hedabideon helburua da ahalik eta autofinantziazio mailarik altuena lortzea, eta horretan ahalegin handia egiten dugun arren, oraindik ere gure aurrekontuen zutabe garrantzitsua dira Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak, publizitatearekin eta harpidetzekin batera. Funtsezko laguntzak dira sektorearentzat eta sektorea osatzen dugun hedabideontzat, beraz. Are gehiago krisi garaiotan”. (D41)

“Gutziz beharrezkoa da laguntza deialdi hau, salmentetatik euskarazko hedabide bat sustengatzea guztiz ezinezkoa delako eta publizitatearen bilakaera negatiboa delako. Gure kasuan, aurkeztu ahal garen deialdi bakarra da”. (D44)

Goiko bigarren ekarpen horrek ñabardura gehitu dio orain artekoari. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntza edozein eratako euskara hutsezko hedabide inprimatuek eskatu dezaketen bitartean, ez da gauza bera gertatzen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

aldundiek eta udalek helburu berdinarekin eskaintzen dituzten laguntzekin. Horietara ezin dira aurkeztu euskararen lurralde osoan zabaltzen diren egunerokoak, tokikoek ordea deialdi guztietatik laguntza jasotzeko aukera dute. Hona tokiko batek dioena.

“Diru laguntzei esker bizi gara gu. Batez ere Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Diputazioa eta [gure] Udaletxeari esker. Hori argi eta garbi”. (D7)

Baina, zenbaterainokoa da Eusko Jaurlaritzaren urteroko “Hedabideak” deialdiaren bidez onuradunek jasotzen duten laguntza? Galdera ez zegoen Delphian, baina, hala ere, izan da portzentajea zehaztu duen hedabideren bat. Horren arabera, gastu-aurrekontu osoaren 10 eurotik bat eta bi euro artean estaliko litzateke Jaurlaritzak esleitutako diru publikoari esker.

“Esan beharrik ez dago, baina badaezpada esan egingo dut: “Hedabideak” diru laguntza oso garrantzitsua izan da, orokorrean eta hainbat urtetako ibilbidea aztertuta, euskal hedabideontzat. Bateren bat egongo litzateke bizirik beharbada laguntzok gabe, baina hedabide gehienek nekez egingo lukete aurrera “Hedabideak” deialdiaren barruan urtetan emandako laguntzarik gabe. Deialdi honek hedabide bakoitzaren gastuen proportzio garrantzitsu bat laguntzeko balio du, % 10etik % 20era bitartean, gutxi gorabehera”. (D39)

Administrazioaren diru-laguntzak sektorearen ekonomikoari laguntzeaz gain, ondorio mesedegarriak ditu beste esparru batzuetan, hala nola, hedabideetako profesionalen prestakuntzan, lanpostuen sorreran edota proiektu berriak martxan jartzeko.

“Deialdi honi esker, hedabide asko jaio eta ibilbide oparoa izaten ari dira. Profesional bikainak sortu eta bilakaera borobila izan dute sektore honetan. Lanpostu ugari sortu eta Euskadiko ekonomiarengan eragin handia izan du”. (D5)

Baina dena ez da lore, kritikaren bat ere egon badelako. Delphian bildutako ekarpenen arabera, “Hedabideak” deialdiak ez du efektu positiborik izan euskarazko hedabideek merkatuari begira izan beharko luketen jarrera proaktiboan, lehiatzeko grinan; diru-laguntza izango dela jakiteak nolabaiteko erosotasunean murgildu duelako sektorea. Eta ez hori bakarrik, erosotasunak diru-laguntzekiko menpekotasuna dakarrela gaineratzen da.

“Laguntzek badute alde negatiboa, noski: menpekotasun eta erosotasunarena, batez ere. Erosotasuna litzateke saihestu beharrekoa, menpekotasuna horren arrimuan ematen delako. Hau da, urte bukaerako balantzea koadratuz gero merkatuan lehiatzeko beharrik eza letorke. Hori, aurretik esandako planteamendua estrategikoaren guztiz kontrakoa litzateke. Nola uztartu laguntza eta jarrera merkatuari begirako proaktiboa? Hor dago gakoa!”. (D11)

Kritikak kritika, oro har, urteroko deialdiaren bidez esleitutakoaren balioa onartu eta azpimarratu dute euskarazko inprimatuek. Hori litzateke Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzari buruzko lehen ideia nagusia. Baina segituan dator bigarrena: sektorearen iritziz emandako laguntza ez da nahikoa.

“Ez da nahikoa “euskarazko hedabideak sendotu, garatu, normalizatu eta eraginkortu”-tzeko. Sendotzen, garatzen, normalizatzen eta eraginkortzen duen bakarra, prekarietatea, ezegonkortasuna eta elkarren arteko konfiantza eza da. IRAUTEN laguntzen digu eta ezin diogu uko egin diru-ekarpen honi”. (D10)

“Kontua da nahikoa diren joan nahi genukeen abiadurara joateko. Euskarak behar duen abiadurara joateko, alegia. Orain egiten duguna egiteko ere justokoak direla esango nuke, baina oso justokoak dira, edo zehatzago esanda ez-nahikoak, proiektu berriak-eta zabaltzeko”. (D1)

“(…) orain arte Jaurlaritzak eman duen finantzazioa euskal prentsarentzat garrantzitsua izan den arren, euskarazko hedabideok aurrean dauzkagun erronkei erantzuteko ez dira nahikoak gaur egun”. (D28)

Hortaz, diru-laguntzak funtsezkoak dira, baina ez nahikoak. Salbuespenen bat dagoen arren, hedabideek diote Eusko Jaurlaritzak esleitutako baliabide ekonomikoek bizirauteko balio dutela, egungo prekarietate-egoeran aurrera egiteko, baina ez deialdietan ezarritako helburuak lortzeko; hau da, ez direla baliagarri euskarazko hedabideak sendotzeko, garatzeko, normalizatzeko eta eraginkortzeko⁷⁸⁴.

“Eusko Jaurlaritzaren ekarpen ekonomikoak **IRAUTEN**⁷⁸⁵ laguntzen digu”. (D10)

“(…) Jaurlaritzaren xedea hedabidea sendotu, eraginkortu eta garatzea dela esaten duenean ez gaude guztiz ados. Noski laguntzen digula hori guztia egiten, bestela aspaldi utziko genion argitaratzeari. Baina ematen diguten dirua ez da nahikoa, gure kasuan, sarera jauzi eta webgune bat martxan jartzeko, adibidez. Dugun diru laguntzarekin justu iristen gara aldizkari bat egiteak sortzen dituen gastuak ordaintzera”. (D7)

⁷⁸⁴ .- Kontuan hartu helburu hau, euskarazko hedabideak eraginkortzearena 2014ko deialdian jaso zela lehen aldiz. 2005-2013 bitartekoetan sendotu, garatu eta normalizatu esaten zen.

⁷⁸⁵ .- Jatorrizko idatzizko ekarpenean horrela dago idatzita, maiuskulaz eta negritaz.

“Gure kasuan eta gure inguruan ikusi ahal izan ditugun kasuetan, deialdiak ez du bere funtzioa betetzen. Hobe esanda, diru-laguntzaren baitan egotearen dinamika horrek ez dio sektoreari sendotzeko, eraginkortzeko, garatzeko eta normalizatzeko aukerarik ematen; prekarietatean egonkortzen gaitu. Errua ez da deialdiarena edo Jaurlaritzarena. Sektorearen etorkizunaren inguruko hausnarketa sakona behar da. Dinamika horretan zaila da proiekturen bat sendotzea; benetan proiektu sortzailea beharko litzateke horretarako. Komertzialki bideragarriak diren hedabideak behar dira; diru-laguntzak horien aurrekontuan ehuneko txikia osatu beharko luke”. (D15)

“[Gure] aldizkariaren ikuspegitik, aipatu sendotu/eraginkortu/garatu/normalizatu horien gainean bizirauten lagundu digula uste dut”. (D19)

“(…) ezin esan “Hedabideak” diru-laguntza deialdiak ordezkatzeko dudan hedabidea sendotzen, eraginkortzen, garatzen eta normalizatzen laguntzen duenik; ez behintzat modu osotu eta eraginkorrean. Jakina, neurri batean bai, hori ere ezin da ukatu, baina ez nahikoan, ezta gutxiagorik ere”. (D41)

“Dirulaguntzen sistema ez da egokia. Bat, iraunkortasunik ematen ez duelako, eta urtero-urtero segurtasunik gabe abiatu behar direlako proiektuak. Bi, dirulaguntzak hedabideen beharretarako moldatu ordez, hedabideak deialdira moldatu behar izaten dutelako.(…) Azken 40 urtetako historiak erakusten ditu superbibentzia batean gaudela euskarazko hedabide zibilak. Arnasa justuan hartuz, ezin hazi eta prekarietatean lan egiten. Dirulaguntzek hor kokatu gaituzte, eta ezin izan da burujabe izan, hazi, sendotu, normalizatu”. (D14)

Esan bezala, gehiengoak dio Jaurlaritzaren diru-laguntzak ez duela balio deialdietan ezarritako helburuak lortzeko; baina ezin da esan iritziak sektorearen erabateko adostasuna eragiten duenik; kontrakoa defendatzen duen hedabideren bat ere badelako. Gainera horiek, laguntzen onuradun izan daitezkeen edozein multzotakoak dira, hau da, egunerokoen multzokoak, tokikoak zein informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak.

“HPSk egiten duen deialdiaren xedeak lau dira: sendotu, eragin, garatu eta normalizatu. [Gureak] argi du diru laguntzek lagundu egiten dutela funtzio horiek betetzen. [Gure]aren balore nagusiak hiru dira: euskararen normalizazioan eragitea, herriko eguneroko informazioa eman eta zabaltzea; eta gizartearen kohesioan eragitea. Hiru balore horiek bat datoz HPSk indartu nahi duten lau xedeekin”. (D34)

“Gure kasuan, diru-laguntza honek proiektua sendotzen laguntzen du. Eta horrekin, babesa ematen digu guk gure aldetik aldizkaria ezagutarazteko eta eraginkorrago egiteko urratsak eman ditzagun, nahiz eta erabateko normalizaziora ez iritsi”. (D25)

“Diru-laguntzek lagundu egin digute gure komunikabidea sendotzen, garatzen, eraginkortzen eta normalizatzen. Baita sortzen ere. Arrazoiak? Diru-laguntza barik ezingo ginateke bizi”. (D36)

Hortaz, “Hedabideak” izeneko deialdiak euskarazko inprimatuak sendotzen, garatzen eta normalizatzeko lagungarri den ala ez den defendatzeko orduan, iritzi bat eta bestearen arteko aldea bi kontutik etorri daiteke: batetik, iritzi-emaile bakoitzak aipatutako helburuari nahikoa den ala ez den esateko ezartzen dion neurritik; izan ere, horren arabera, batentzat nahikoa izan daitekeena ez nahikoa izan daiteke beste batentzat. Eta bigarrenik, kontzeptu horiek ulertzeko modutik. Horregatik, sendotu, garatu, normalizatu eta eraginkortu kontzeptuak nola ulertzen zituzten azaltzeko eskatu zitzaizen hedabideei. Zortzik ekin zioten zereginari⁷⁸⁶; beraz, kontuan hartuta 61 hedabidek hartu zutela parte Delphian, horietatik %13k erantzun zioten. Kopuru txikia izatea esanguratsua izan daiteke; gainera, horiengandik bildutakotik ondoriozta daiteke lau kontzeptuok oso modu desberdinean ulertzen direla. Banan banako azterketa eginez:

1.- Sendotu: zazpi hedabide ahalegindu dira kontzeptu hau azaltzen. Hiruk kalitatezko produktua ekoiztearekin lotu dute.

“Sendotu: gero eta produktu hobea egiteko. Kalitateari lotua”. (D1)

“Sendotu: Kalitatezko produktua egitea. Hau da, gai interesgarriak lantzea, kalitatezko testu eta argazkien bitartez. Beste inon irakurri ez daitezkeenak bilatzea eta modu egokian lantzea”. (D38)

“Consolidar: : Consolidar es mantenerse en el tiempo con una calidad buena de imagen y texto, buena me refiero que sea de de interés social”. (D43)

⁷⁸⁶ .- Luzatutako proposamenari ekin dioten zortzi horietatik, batzuek, gainera, lau kontzeptuak definitu beharrean bi edo hiru azaldu dituzte.

Laugarren hedabide batek finantziazioaren egoerarekin lotzen du.

“Hedabide bat **sendotzea**⁷⁸⁷, boteprontoan, finantziazio bideak dibertsifikatzearekin lotzen dut”. (D26)

Beste batentzat sendotu kontzeptuak adierazi nahi du eskainitakoa erreferentziazkoa kontsideratzen dutela herritarrek.

“(...) erreferentziazkoa, herritarrek irakurri bakarrik ez, erabili ere egiten dutena: informazioa emateko, egungo berriak jasotzeko, eskelak jartzeko, lana bilatzeko...” (D34)

Seigarrenak dio sendotzea etorkizuna ziurtatzea dela.

“Sendotu: komunikabideon iraupenerako (langileen baldintzak, eta komunikabidea kaleratzea) baldintzak hobetzea eta, ondorioz, ziurtatzea”. (D36)

Eta sendotu kontzeptua nola ulertzen duen idatziz azaldu zuen zazpigarren inprimatuaren ustez, sendotzeak hedabidearen jarduna eta eskaintza hobetzearekin du zerikusia.

“Sendotu: une honetan, tamalez, hedabidearen finantziazioaren ezinbesteko zutabe dira. Alde horretatik, hedabidea sendotzen dutela ezin da ukatu, baina hedabideari bere egoera itoa gainditzeko aukerarik eman gabe. Haatik, hitzarmen bidezko gutxieneko finantziazioa ziurtatuz gero, sendotzea askoz eraginkorragoa litzateke, gutxienekoak bermatuta hedabideen jarduna eta eskaintza hobetzeko bide berriak lantzeko oinarri sendoagoak izango bailituzkete hedabideek”. (D41)

Pentsa daiteke “sendotu” kontzeptuaren azken definizio honek aurretik adierazitako guztiak barne hartzen dituela; eskaintzaz ari denean, produktuari eta hedabidea erreferentziazkoa izateari lotu dakiokelako, eta jardunaz ari denean, berriz, hedabidearen finantziazioari eta lan-baldintzak hobetzeari.

2.- Garatu: kasu honetan ere, zazpik egin dute ekarpena, eta, berriro ere, adiera desberdinak ematen zaizkio. Horrez gain, agerian geratzen da batzuentzat sendotu dena beste batzuentzat garatu dela. Hala, birentzat garatzeak kalitatearekin du

⁷⁸⁷ .- Horrela, negritaz idatzita jatorrizko ekarpenean.

zerikusia, kalitatea hedabideetan lan egiten duten profesionalei eta ekoizten duten produktuari egokituta.

“Garatu: hobeak izan kazetari moduan eta produktu moduan”. (D1)

“Desarollo es mejorar contenidos”. (D43)

Beste hedabide inprimatu batek aurreko biak adierazitakoaren bideari ekiten dio, baina garatu eta eraginkortu batera azaltzen ditu.

“Eraginkortu eta garatu: biak batera aipatuko ditugu, bata besteari loturik dagoelakoan. Diru-laguntzen deialdiak aintzat hartzen ditu hedabideak eraginkortze eta garatze aldera emandako urratsak, eta alde horretatik, akuilutzat har daitezke. Haatik, akuilu beharrik gabe ere hedabideok beti dugu helburu gure jarduna eraginkortzea eta garatzea. Hots, ahalik eta produktu hobe eskaintzeko lanean ari gara etengabe”. (D41)

Garatu kontzeptuaren esanahia azaltzeko ahalegina egin zuten beste hirurentzat garatzeak hedabidearen atal guztiei modu transbertsanean, zeharkakoan eragiten dien berrikuntzarekin du zerikusia: produktuarena (diseinua, edukiak eta zabaltze-moduak), enpresaren kudeaketa-eredua eta estrategiena. Azken batean, batek erabilitako hitza baliatuz, garatzea eboluzionatzearen sinonimotzat hartu daiteke.

“**Garatzea**⁷⁸⁸ berrikuntzarekin lotzen dut. Hau da, berrikuntza modu transbertsanean ulertuta, komunikabide baten baitako atal guztiei eragiten diola kontuan hartuz (berrikuntzak) eta, hori guztia, garapen teknologikoa ere begibistatik galdu gabe. Eta horrekin batera, kazetarion prestakuntza etengabea eta enpresaren kudeaketa aurreraturako estrategiak inplementatzea gure egunerokoan”. (D26)

“Garatu ere egin da [gurea], 16 urte hauetan, jasotako diru laguntzari esker. Hedabide batek etengabeko berritzea eskatzen du. Herritarrentzako intereseakoak diren berriak ematea da helburu nagusietako bat, baina berri horiek eman eta zabaltzeko moduak berrikuntza behar du, etengabe. Garapena beraz, eboluzio gisa ulertzen du [gureak]”. (D34)

“Garatu: Eboluzionatu, erosotasunean geratu barik: gaiak bilatu, modu erakargarrian aurkeztu, diseinua berritu, atalak aldatu, jendearen eskakizunei erantzun...” (D38)

⁷⁸⁸ . Horrela, negritaz idatzita dago jasotako ekarpenean.

Azkenik, zazpigarren ekarpen-egileak teknologiarekin eta irismenarekin lotzen du garapena.

“Garatu: Gero eta teknologia hobeak edukitzea eta leku edo pertsona gehiagorengana iristea. Baita tokiko komunikabiderik gabeko leku gehiagoetara heltzea”. (D36)

3.- Normalizatu: zazpik erantzun dute, eta nabarmena da horietatik lauk hizkuntzarekin, euskararen egoerarekin lotzen dutela normalizatu kontzeptua.

“Normalizatu: normalizazioa euskararen ikuspuntutik”. (D1)

“Eta normalizazioaren kontzeptua ere, bide honetan egongo litzateke. Aurretik aipatu bezala, [gure]aren balore nagusietako bat da euskararen normalizazioan eragitea, eta HPSk emandako laguntzek ahalbidetu dute, azpimarratutako guztia”. (D34)

“Normalizatu: hizkuntza gutxitu batean diharduen sektorea izanik, egoera soziolinguistikoa normalizatu ezean, zaila da sektorea bera (tartean gure aldizkaria) normalizatua egotea. Hortaz, normalizazioan apustu askoz serioagoa eta sendoagoa egin beharko lukete erakunde publikoek, horrek errealitate soziolinguistikoan eta aldizkarian eragingo lukeelako, aldi berean”. (D41)

“Normalizatu: Euskara edozein esparrutan erabili ahal izatea. Edozein gai lantzeko, edozein pertsonarekin hitz egiteko”. (D38)

Birentzat normalizatzek euskara hutsezko hedabide inprimatuek eskaintza zabala eta anitza izatea esan nahi du.

“Normalizatu: bezero euskaldunek idatzizko hedabideen merkatuan haien burua normalizatua ikustea euskarazko eskaintza ahalik eta zabalen eta anitzena izanik”. (D19)

“Dibertsitatearen ideiarekin lotzen dut, eta beharbada baita produktuen ugaritasun eta aniztasunaren ideiekin ere”. (D26)

Eta zazpigarrenak euskarazko hedabide inprimatuek erdaraz ari direnek duten pareko egoera eta baldintzak izatearekin lotu du normalizatu kontzeptua.

“Normalizatu: Tokiko komunikabideak izatea kontu normal bat, ez ezohikoa. Erdal komunikabideek daukaten egoera eta baldintzak geurean ere edukitzea”. (D36)

Beraz, normalizatu definitzeko, hiru erreferentzia desberdin hartu dituzte: hizkuntza, merkatua eta jarduera-eremu berean ari diren erdarazko hedabide inprimatuak.

4.- Eraginkortu: kasu honetan, kontzeptua azaltzen ahalegindu diren zortzi hedabideetatik lauk irakurleengana heltzearekin lotu dute eraginkortasuna.

“Eraginkortu: euskararen suspertze eta erabilera ikuspuntutik irakurleengana heldu eta eragin ahalik eta modu jarraikorrenean”. (D1)

“**Eraginkortzea**⁷⁸⁹ aldiz, irismenarekin, audientzien edota kontsumitzaileen neurketarekin (CIES, Analytics...) eta emaitzen segimenduari ere (indikadoreak edo adierazleak zehaztea, datuak interpretatzea, jardunbideak finkatzea, ...)”. (D26)

“Eraginkortu: Jarritako baldintzak akuilu izatea diru kopuru batekin pertsona gehiagorengana eta kalitate hobeagorekin heltzea”. (D36)

“Penetrar⁷⁹⁰ es conseguir nuevos lectores”. (D43)

Beste batek hedabidea hobetu eta gastuen kezka txikitzearekin.

“Eraginkortu: hedabidearen lana eta ahalegina komunikabidea hobetzeari bideratzea gastuak estaltzeko kezka txikituz”. (D19)

Seigarren batek euskararen esparru askotako hobekuntzarekin (irakurtzeko ohitura, erabilera; azken batean, hizkuntzaren normalizazioa) jarri du harremanetan eraginkortasuna.

“Eragina kontzeptua modu oso zabalean ulertu daiteke, baina [guk] batez ere euskararen ikuspuntutik ulertzen du (...) [Gure]aren sorrerak ekarri du, euskaraz irakurtzeko ohitura hori sortzea, alfabetatze maila, herritarraren adina edo euskara mailari berebiziko garrantzirik eman gabe. [Gureak] euskararen erabileran eragin duela esan daiteke beraz. Eta normalizazioaren kontzeptua ere, bide honetan egongo litzateke”. (D34)

Zazpigarren ekarpenean, aurreko esanahi biak konbinatzen dira; hau da, euskararen eragitea eta, aldi berean, irismena handitzea jendearengan beharra sortuz.

⁷⁸⁹ .- Horrela, negritaz idatzita dago jasotako ekarpenean.

⁷⁹⁰ .- “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren eraginkortu hitza gaztelaniazko bertsioan “penetración” bezala ageri da.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

“Eraginkortu: Aldizkariaren xedea euskararen eragitea izanik, eraginkortzea izango litzateke gero eta jende gehiagoren interesa piztea, euskarara hurbiltzea, euskaraz irakurtzeko premia sortzea...” (D38)

Sendotu, garatu, normalizatu eta eraginkortu kontzeptuen inguruan, orain arte azalduetako taula batera eraman ezker, ondokoa izango litzateke:

178. taula. Sendotu, garatu, normalizatu eta eraginkortu kontzeptuen esanahiak “Hedabideak” laguntzaren onuradun izan diren euskarazko inprimatuentzat.

KONTZEPTUA/XEDEA	HEDABIDEEK EMANDAKO ESANAHIA
Sendotu	<ul style="list-style-type: none"> - Produktuaren kalitatea hobetu - Finantziakoa hobetu/dibertsifikatu - Produktua erreferentziala bilakatu - Hedabidearen baldintzak hobetu eta etorkizuna ziurtatu - Hedabidearen jarduna eta eskaintza hobetu
Garatu	<ul style="list-style-type: none"> - Hobekuntza (produktua, edukiak, profesional moduan) - Berrikuntza - Hartzaile gehiagorengana heldu
Normalizatu	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntzarekin, euskararekin lotuta - Eskaintza zabala eta anitza izatea - Erdal hedabideen pareko egoera izatea
Eraginkortu	<ul style="list-style-type: none"> - Irismena, irakurleengana heldu - Hedabidea hobetu, gastua txikitu - Euskararekin lotu, hizkuntzaren normalizazioan eragin - Garatu

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Taulari erreparatuta begi-bistakoa da diru-laguntza deialdiak xedetzat dituen kontzeptuen esanahia anitza dela eta batzuek eta besteek egiten dituzten definizioen edo interpretazioen arteko mugak oso lausoak direla. Horren erakusgarri izan daiteke baita, gaiari heldu dion hedabide-kopuru txikia (61etik zortzi).

Kontzeptuak argitzeari ekin aurretik, baieztatu da Delphi bidezko ekarpenetan adierazitakoen arabera, euskara hutsezko hedabide inprimatu gehienek ustez, diru-laguntza deialdiak ez dituela ezarritako helburuak betetzen. Horretarako arrazoi nagusia diru-baliabideen tamaina, ez-nahikotasuna litzateke. Baina baliabide ekonomikoen neurria ez da diru-laguntzen helburuak lortzen ez direla argudiatzeko ematen duten arrazoi bakarra. Horri beste zenbait argudio gehitzen dizkiotelako idatzizkoek, deialdiaren alde negatiboak kontsidera daitezkeenak:

1.- Deialdiaren prozedurak, bereziki urterokoa izateak, esleipenak urtea oso aurreratuta dagoela gauzatzeak eta aurretiaz diru-kopuru bat bermatuta ez edukitzeak ezjakintasuna, ziurgabetasuna eragiten duela diote hedabideek. Asko dira gai hau azpimarratzen dutenak. Hedabideen iritziz, ziurgabetasun-egoera horretan ez zaie aukerarik ematen berrikuntzak, proiektu berriak martxan jartzeko, aurretiaz planifikatzeko, tentsioa dakarkie, dagoeneko martxan dauden proiektuak egonkortzea eta epe luzera begirako estrategien lanketa zailtzen du, ezinezko bilakatzen du haztea, likidezia-buruhaustea sortzen ditu. Gai honi dagokionez, sektorean ikuspegi bakarra dagoela esan daiteke. Horren lekuko ondoren datozen hamar ekarpenak. Zerrenda luzea da, eta ia denetan errepikatzen da ideia bera, baina hala ere horiek denak hemen jasotzea interesgarria da; batetik, zerrenda horretan eguneroko prentsa inprimatuaren multzoko ekarpenak, euskararen esparru goeografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak eta udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak (tokikoak) daudelako, eta bestetik ekarpen-zerrendak gai horren inguruan zenbateko adostasuna dagoen garbiri erakusten duelako.

“Orain arte, deialdi honen alde negatiboetako bat hedabideok genuen ezjakintasuna izan da. Hau da, hurrengo urteko aurreikuspenak egiterakoan zenbat eta noiz jasoko dugun ezin izan dugu inoiz jakin. Hori proiektu berriak edo berrikuntzak egiterakoan oztopo handia izaten da. Aurten baina, hiru urterako deialdia izan daiteke. Uste dugu horrek, ziurtasuna emango diola proiektuari, eta aurrerapausoa dela deritzogu. Likidezia aldetik ere, ebazpenen zain egon beharrak edo berandu kobratzeak tesorerian tentsioa eragin du sarri”. (D9)

“Gainera, esan bezala laguntza hauek urtero-urtero berritzen dira, eta tokiko hedabideok ez dakigu urtea heldu arte dirulaguntza horren zenbatekoa, eta horren ondorioz, ezinezkoa zaigu egokia den kudeaketa plan bat egitea. Hitzarmenak, gutzienez 3 urterako hitzarmenak, beharrezkoak dira, bestela, ez dago dirulaguntza honek bilatzen dituen lau helburuak lortzerik. Sendotzeko, eraginkortzeko, garatzeko eta normalizatzeko, ez da bakarrik kopuru bat finkatu behar, baizik eta laguntza hori, kopuru hori, bermatu egin behar da aurrez zehazturiko urte tarte batetan”. (D12)

“Diru-laguntzak urtero kaleratzeak eragin zuzena du hedabideen etorkizuna eta proiektuak definitzeko orduan. Epe luzera begira ezin izaten da egitasmoak definitzea, urteroko diru-laguntzek zer ekarriko duten aurrez ezin izaten baitugu aurreikusi”. (D17)

“Proiektua urtero aurkeztu behar izateak, jarduteko denbora gutxi uzten du. Urtez urteko helburuak finkatu eta bete behar izateak proiektuaren egonkortzea zailtzen du. Bi edo hiru urteko formula egokiagoa izango litzatekeela uste dugu”. (D24)

“Laguntza urteroko deialdietan gauzatzea oztopo handia da. Oso zaila da planifikatzea, eta ezinezkoa egiten zaizu haztea. Baina hori, jakina, laguntzarekiko duzun dependentziaren baitan da hori. Gurea oso handia da eta aurrekontua urtero prestatu beharra jakin gabe zer jasoko duzun eromena da. Laguntzak denbora epe luzeago baterako ematea egonkortasunaren eta sendotasunaren mesedetan izango litzateke. Eta hor gabiltzan guztion lasaitasunerako zer esanik ez!”. (D30)

“Alde negatibo nagusia da, ebazpenak argitaratzen diren garaia aldakorra izatea; urtearen arabera, data bat edo bestea izatea. Egun Tokiko hedabide gehienok dugu, nahita ez, diru-laguntzekiko menpekotasun handia, eta ebazpenak berandu ateratzen direnean (udatik aurrera) oso zaila da urtearen kontrol egokia eramatea. Kasuan kasu, diru laguntza hori gutxitu egiten bada, urte bukaera bitartean horri buelta emateko aukerak nabarmen gutxitzen dira. Bestalde, ebazpena atzeratzen den guztietan, likidezi arazoak mahai gainean azaltzen dira”. (D34)

“Diru-laguntza urteroko deialdietan gauzatzea ez da formularik egokiena proiektuaren plangintzarako. Gure ustez euskarazko idatzizko sektoreak ziurtasun handiago behar du eta horretarako itun luzeagoak egin beharko ziren, 5 urtekoak adibidez”. (D36)

“Urteroko deialdien dinamikak ziurgabetasuna eragiten du hedabidean, eta horrek asko oztopatzen du aurrera begirako estrategien lanketa”. (D4)

“(…) urteroko deialdia izan beharrean, epe luzeagorako proiektzioa izatea egokiagoa iruditzen zaigu (3, 4, 5 urte), hala aurreikuspenak egin eta hobeto planifikatu ahal izateko”. (D25)

“Urteroko deialdien dinamikak ziurgabetasuna eragiten du hedabidean, eta horrek asko oztopatzen du aurrera begirako estrategien lanketa. (...) Lehenik eta behin, deialdiak urterokoak izatea ez da batere lagungarria, egonkortasunik ez baitu ematen. Horren ordez, iraupen luzeagoko hitzarmenak landu beharko lirateke, eta unean uneko diru-laguntzak egitasmo puntualak sustatzera bideratu.(...) Laguntzak urteroko deialdiak egiteari dagokionez, sektoreak aspaldi azaldu izan du ez dela modu egokia. Epe luzeagora begirako hitzarmenak landu beharko lirateke, argi eta garbi, proiektu komunikatibo oro hasieratik ziurgabetasunari lotuta ibil ez dadin”. (D41)

Arestiko ekarpenetan agerikoa denez, eta etorkizunari begira sektoreak zein administrazioak dituzten erronkak eta zereginak aztertzeke landuko den atalean ikusiko denez, euskara hutsezko idatzizko hedabideak, egunerokoak, informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak zein tokikoak izan, denak, urteroko prozedura-esparrua gainditu eta urte anitzeko deialdiak gauzatzearen alde agertu ziren. Hala agertu arren, planteamendu horrek zalantzak eragin zituen batzuen artean. Era askotako zalantzak. Adibidez, urte anitzeko deialdiekin hasi ezker, nola txertatuko liratekeen proiektu berriak, nola kudeatuko liratekeen diru-partidak, nola eragingo lieken aldaketak Eusko Jaurlaritzaren deialdiaren onuradun izan diren Nafarroako hedabideei, jasoko luketen laguntzaren tamainak eragindako zalantzak... Honela adierazi zituzten horiek guztiak:

“(...) Balizko urte-anitzeko deialdiaren xehetasunak ezagutu gabe, hainbat kezka eta zalantza sortzen zaizkit. Konparazio batera: nola egingen zaie lekua deialdi horretan urte batetik bestera sor daitezkeen proiektu berriei? Eta hartara, dirubaliabideak ere aldatuko dira urtetik urtera edo epe jakin horretan kopuru finkoa izanen dute? Euskarabideak aurtengorako aurreikusitako dirubaliabideak HPSetik iaz Nafarroako hedabideei emandako kopurua baino txikiagoa dela ikusita, zer gertatuko da Nafarroako hedabideekin, deialditik kanpora geldituko dira?”. (D26)

“Hala ere, egoera egonkortua bizi ez duten komunikabideen kasuan nola egin hiru urterako aurreikuspenak? Jasotako datuak eguneratzeko modua izango al da? (...) Kasu honetan, nire ustez egoera egonkortua bizi duten komunikabideen mesedean hartutako neurria da. Hasi berriak diren proiektuak ez dira behar bezala aintzat hartzen eta bestetik, zer gertatuko da deialdia igaro ondorengo hiru urte horietan proiektu berri bat martxan jarri nahi duten ekimenekin”. (D33)

“Horrek esfortzu handiagoa suposatuko dio hedabideari, plana epe luzera egin beharko duelako; baina era berean, lehen aipatutako bi faktoreetan egonkortasuna emango dio. Aukera honetan kontuan hartu beharko litzateke, zer gertatzen den proiektu berriekin; edo epe luzera jarritako helburuak betetzen ez badira; edo erronka gehiago sortu eta garatzen badira... Urte anitzeko hitzarmenarekin gainera, urte horietan HPSk saihestu dezake hedabideetarako partida igotzea, nahiz urtetik urtera ikusi, beharra handiagoa dela”. (D34)

“Bestalde beldur dezente ere ematen du hiru urtetarako deialdi batek. Gure kasuan hiru urterako hori txarra emango balute itxiera ekarriko luke bai ala bai. Urterokoarekin, urte batean txarra izanda ere beti izan dezakezu esperantza hurrengo urtean laguntza hobea etorri daitekeela, konpondu daitekeela nolabait desastrea”. (D3)

“Hedabideak” diru laguntzak urtez urtekoak izatetik lau urterakoak izateak eragin zuzena izango du gure etorkizun hurbilean. Sostengu edo diru laguntza hori behar dugun bestekoak izateak, aurrera egin eta erronka berriak bideratzea ahalbidetuko liguke; kontran, diru laguntza hori “murrizta” izateak, biziraupen hori “kolokan” eta “arrisku larrian” jarriko luke”. (D18)

Urte anitzeko deialdiek sortzen dituzten zalantzak gehienbat kudeaketari buruzkoak dira, administrazioak zein hedabide inprimatuek burutu beharreko kudeaketari buruzkoak. Horrekin batera, zenbait ekarpenetan badira urteroko deialdian parte hartzeko prozedurak eskatzen dituen zereginei buruzko kexak: eskaera-eta zuri-keta-faseak gauzatzeko behar den denbora eta ahalegina, “burokraziaren pisua” dio beste batek, diru-laguntzaren onuradun izateko ezarri diren baldintzen kantitatea eta zorrotasuna eta abar. Kontu horiek guztiak deialdiaren “alde negatibo” moduan hartzen dituzte euskara hutsezko idatzizko hedabideek

“Alde negatiboa da diru-laguntzekiko gehiegizko dependentziak ahalegin handia eskatzen duela. Denboraren zati handi bat eman beharra dago diru-laguntzen eskaerak egiten, horiek justifikatzen etab.” (D24)

“Negatiboa da eskaeretan eta zuriketetan galtzen den denbora bai hedabideen aldetik eta baita erakundeetan ere”. (D1)

“Administrazio publiko guztietako deialdiekin gertatzen den moduan, burokrazioaren pisua izan daiteke egotzi diezaiokegun akats bat”. (D5)

“Deialdiaren alde negatiboren bat esan behar badut likidatzerako orduan aurrekontu osoa justifikatu beharra izango litzateke”. (D45)

“Ematen den diru-laguntza txikia da eta baldintza gehiegiri lotua, zail da gisako aldizkari batek baldintza horiek bete-betean kunplitzea. Ez kunplitzeak, diru-laguntza kentzea edota urritzea erakartzen du”. (D20)

“Alde negatiboa ere badu. Jaurlaritzak eskatzen dituen baldintzak urtez urte gogorragoak dira. Geroz eta paper gehiago bete behar ditugu geroz eta txikiagoak diren laguntzak jasotzeko (gure kasuan)”. (D31)

2.- Deialdia urterokoa izatea eta horrek sektorean eragiten duen ziurgabetasunaren ondoren, diru-laguntzen esleipenak egiteko erabiltzen diren irizpideak sektorearekin adostu gabekoak izateak bete du ekarpenen espazio esanguratsua. Euskara hutsezko inprimatuek baieztatzen dute bien arteko harremana berdinetik berdinerakoa izan

beharrean, goitik beherakoa dela. Hau da, Eusko Jaurlaritzak sektorearekin kontrastatu, adostu gabe ezartzen dituela esleipen-irizpideak, horiei buruzko informazioa sarritan prentsaren bidez jaso dutela diote eta administrazioak diru publikoa berea balitz bezala kudeatu duela.

“Alde negatiboan daude irizpideak-eta kontrastatu beharko litzuketela Jaurlaritzatik hedabideekin (ardura eta erabaki ahalmena Gobernuarena dela zalantzan jarri barik)”. (D1)

“Hitzarmengintza landu behar da, beste hainbat sektoreekin egiten den bezala. Eta horretarako gizarte zibil eta administrazioaren berdinetik berdinerako harremana: noiz eseriko gara elkarrekin eta esan, zer eta nola egin dezakegu hedabideen ekosistema indartzeko? ze behar ditu? ze garrantzi dute? nola landuko dugu irismena? nola formatu berriak? nola... Orain artean, azken 40 urtean, goitik beherako harremana izan da, administrazioak (EAEn ari naiz, eta hor egin da egin den apurra) diru publikoak propio gisara kudeatu ditu beti”. (D14)

“Sektorearekin adostu gabe banatzen dira diru laguntza publikoak eta hori arazoa dela uste dugu. Hedabideok behin baino gehiagotan adierazi dugu laguntzak banatzeko irizpideak administrazioarekin hitzartzeko borondatea baina orain arte Jaurlaritzak ez dio eskaintza horri erantzun positiborik eman. Horren ordez, sektorearekin kontsultatu gabe irizpideak aldatu izan ditu eta maiz erabakien berri prentsaren bidez izan dugu”. (D28)

Hortaz, aurreko lerroetan adierazitakotik abiatuta, erraza da ondorioztatzea zein izan daitekeen sektorearen jarrera eta aldarrikapena. Euskara hutsezko idatzizko hedabideen ikuspuntutik sektorea aktore aktiboa beharko litzateke izan, eskarien balorazio prozesuan erabiltzen diren irizpideak aztertu eta, beharko balitz, egokitzeko orduan. Eta gaineratzen dute, irizpideak inplikaturiko aktore guztien artean adostutakoak izan beharko liratekeela.

“(…) laguntzak esleitzeko irizpideak aztertu eta egokitu beharko litzuke HPSk, baina gaia sektorearekin landuta. Horrek ez du esan nahi sektoreak finkatu behar dituenik irizpideak, ezta gutxiago ere, baina denen artean aztertu eta eragile guztiek adostu beharko litzukete, beti ere sektorearen garapena, estrategikotasuna eta produktuen kalitatea oinarritzat hartuz”. (D41)

Ikerketa honetan 2005-2013 bitarteko diru-laguntzak ebazteko erabili izan diren irizpideei buruzko iritzia jasotzeko ahalegina egin da eta hartutako idatzizko erantzunetan ez da aipatutako epealdiari buruzko erreferentziarik, bai, ordea, 2014 urteari buruzkoak. Izan ere, 2014an ezarri zen, lehen aldiz, balorazio-irizpide gisa

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

“irismena” izeneko, eta horrek bereganatu du euskara hutsezko hedabide inprimatuen arreta osoa. Ez bakarrik arreta osoa kontzentratu; horrez gain, irismen-irizpideak zatiketa eragin du Eusko Jaurlaritzaren laguntzen onuradun diren inprimatuen artean. Irismen-irizpidearen aldekoak eta kontrakoak daude. Zenbaitek gogor egiten dute irismenaren irizpidea ezarri izanaren kontra, horiek iradokitzen dute irismena nahitasun edo asmo zehatz batekin erabili dela, hedabide zehatz batzuk saritzeko (tokikoak) eta beste batzuk kaltetzeko edo zigortzeko (eguneroko prentsa eta informazio orokorreko eta espezializatutako aldizkariak). Azken bi multzo hauetako hedabideak dira irismenaren kontra gogorren mintzatzen direnak.

“Irismenaren irizpidea esaterako, oso modu aldrebesean erabili dela iruditzen zait.(...) azken emaitza argia da: eskualde erabat euskaldunean eta doan banatzen den tokiko hedabidea saritzen ari dira, eta Euskal Herri osoan banatzen den ordainpeko espezializatua zigortzen. Adibidearekin jarraituaz izenak ere jar daitezke. Lehenengoa Goiena izan daiteke, eta bigarrena Jakin. Eta hainbat galdera sortzen zaizkit horren aurrean:

- Goienak ekarpen handiagoa egiten du euskararen normalizazioan Jakinek baino?
- Badauka logikarik aldizkari espezializatu baten diru-laguntza kalkulatzeko irizpide nagusia irismena izatea?
- Badauka logikarik atzetik Udalen, kooperatibismoaren eta abarren laguntza sendoa daukan proiektua saritzea, eta aurrera ateratzeko gorriak ikusten ari den proiektua zigortzea?”. (D3)

“(...) horrek batzuei onura ekarri die baina askori kalte.(Onura: tokikoei). (...) Diru banaketa gauzatzeko irizpide nagusia, azken urteetako deialdietan irismena izan da eta guri kalte egin digu”. (D44)

Kritikak kritika, gaineratzen dute aldizkari espezializatuentzat oso zaila dela irismenaren joko-zelaiari lehiatzea.

“Gure kasuan ikusten diogun arazorik handiena, ordea, azken urteotan emandako irizpide-aldaketa izan da: irisgarritasunari eman zaion pisua eta, batez ere, irisgarritasuna ulertzeko modua. Gure kasuan, euskara hutsezko aldizkari espezializatua den aldetik, oso zaila egiten zaigu irisgarritasunean lehiatzea”. (D29)

Azkenik, irismena balorazio-irizpide moduan erabiltzearen kontra dauden hedabideek uste dute irizpide horrek ez duela balio euskarazko hedabideen kontsumoa handitzeko; irismenak ez dituela aintzat hartzen hedabideek dituzten ezaugarri bereizgarriak eta, horrez gain, ez diela mesederik egiten haizea kontra duten eta kontsumo-arrakastarako aukerarik gabe ari diren hedabideei, alegia, ez diela mesederik egiten eremu erdaldunetan euskaraz jarduten duten hedabideei. Hori baino gehiago, iradokitzen da Jaularitzak euskarazko hedabideak horiek dituzten beharren arabera lagundu ordez, diru publikoaren onuradun diren hedabideen arteko lehia sustatzen ari dela, lehia hori lehenetsi duela.

“Gaur egungo sistemak, tranpak tranpa, balio dezake kontsumo audientzia txukunak dituen hedabidea saritzeko, edo ez hain txukunak dituen zigortzeko, baina ez du balio kontsumoa areagotzeko. Eta beti aterako da kaltetua eremu zabalean (Euskal Herrian, kasu) edo eremu erdaldunean lanean ari den hedabidea. Eta ez ahaztu hizkuntza parametroetatik begiratuta beti dela errazagoa arrakasta lortzea eremu euskaldunetan eremu erdaldunetan baino”. (D40)

“Azken deialdietan⁷⁹¹ audientziei eman zaien puntuazioak ez ditu kontuan hartzen hedabide bakoitzaren berezitasunak eta izaera. Ez du saritzen hiztun komunitatea ahulen dagoen lekuetan lan egiten duen hedabidea, audientzia neurtzeko moduak euskarak osasun hobea duten lekuetan jarduten duten hedabideei egiten baitie mesede gure ustez. Badirudi administrazioak interes handiagoa erakutsi duela euskarazko hedabideen arteko audientzien arabeko konpetentzia sustatzeko, hedabide guztiei beraien beharren arabera laguntzeko baino. Norabide hori okerra dela deritzogu”. (D28)

Beste muturrean kokatzen dira tokikoak; irismena diru-baliabideak esleitzeko erabiltzearen alde agertzen dira, logikoa iruditzen zaie hala egitea.

“Tokikomek bezala, [gureak] ere begi onez ikusten du deialdi honetan irismenari garrantzia ematea”. (D9)

“Zentzu horretan, positiboa iruditzen zait azken deialdian sartutako irizpideak (irismena eta hedadura gehiago baloratzea, eta berdin harpidetza ordaindua eta kioskoetako salmentekin,...), eta baita hobekuntza jaso duten komunikabide kopurua handitu izana ere. Deialdiaren aldaketa horiek guztiak, orohar, positibotzat baloratzen ditut eta ez ez dut alde negatibo aipagarririk ikusten”. (D26)

⁷⁹¹ .- 2014ko eta 2015eko deialdiei buruz ari da.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

“HPSk diru-laguntzak ematen ditu euskararen erabileran areagotzeko. Hori da bere helburua eta xede horrek bultzatuta laguntzen ditu euskarazko hedabideak. Eta abiapuntu horretatik, logikoa da eraginkortasuna neurtzea irismenaren arabera. Horrek zentzu guztia dauka”. (D2)

Irismen-mailarena urteetan HPSk eta sektoreko zenbait ahotsek plazaratutako eskaerari erantzunez ezarritako balorazio-irizpidea da; esleitutako diru-laguntza hedabide bakoitzaren emaitzei edo, zehatzago esateko, eraginkortasunari lotzeko ahaleginetik deialdira ekarritakoa. Hori jakin badakite diru-laguntza eskaera egiten dutenek; ekarpenetan onartu ere onartzen dute hala izatea. Hain argi ez dagoena da nola ulertu behar den eraginkortasuna. Esandakoaren lekuko hamaika aipamen egin zirela eraginkortasunaz, baina oso gutxik heldu ziola kontzeptuaren esanahiari. Eta heldu ziotenen artean ere, irismenarekin gertatu bezala, agerikoa da ikuspegi aniztasuna nagusitu dela. Hori baino gehiago, egindako hausnarketetan, hedabide inprimatuek onartzen dute desadostasunak izan daitezkeela kontzeptu horiek definitzerakoan; horregatik, funtsezkoa iruditzen zaie sektorearen aniztasuna aintzat hartzea, irismena zein eraginkortasuna bezalako kontzeptuei heldu eta horiek definitu eta neurgarri bihurtzeko tresnak jartzeko.

“Eraginkortasuna, irismena eta antzekoak "ulertzeko" eta definitzeko hedabide bakoitzak izan dezakegun ikuspuntuari dagokionez, hedabideen artean desadostasunak izatea gerta liteke. Baina hedabide sistemaren aniztasuna abiapuntu, batzuen zein besteen ezaugarriak ongi aztertuta irizpide eta neurgailuak ezartzeak ere ez luke arazo izan behar, baldin eta sektoreko eragileen artean batetik, eta sektorearen eta administrazio publikoaren artean bestetik, zorrozki eta zintzotasunez lantzen badira. Azken batean, bistakoa da hedabide bakoitzaren ezaugarriak oso kontuan hartu behar direla irismena neurtzeko orduan, eta errealitate horri neurrian erantzun behar zaio. Eraginkortasunarekin ere, antzera. Finean, findu behar dira termino/kontzeptu horiek guztiak, baina sektorearen aniztasunetik abiatuta”. (D41)

Eraginkortasuna definitzeko erronkari heldu ziotenen artean, lehenago azaldu bezala, ikuspegi-ugaritasuna da nagusi. Batzuk autofinantziazioarekin lotzen dute kontzeptua eta helburu horretara heltzeko diren zailtasunak aipatzen dituzte, hala nola egoera soziolinguistikoa, errotuta dauden kontsumo-ohiturak edota publizitateak eta salmentek izandako bilakaera; eta gaineratzen dute, eraginkortasuna hedabideei eskatu beharrean, diru-laguntzei eskatu beharko litzaiekeela.

“Ulergarria da Administrazioak eraginkortasuna bilatu nahi izatea. Alegia, autofinantziatzeko gai diren hedabideak nahi izatea. Gaineratuko nuke hedabideok ere hori bilatzen dugula, nahiagoko genukeela proiektuak inori kontuak eman beharrik gabe aurrera atera. Baina egoera soziolinguistikoa ikusita, kontsumo ohiturak ikusita, ikusita publizitatea eta salmentak nola mugitzen diren... oso gai delikatua da eraginkortasunarena.(...) (...) Nire uste apalean eraginkorrak izan behar dutenak diru-laguntzak eurak dira lehen terminoan. Eta horretarako askoz erabilgarriagoa iruditzen zitzaidan garai batean egiten zen Sustapenerako deialdia, hedabideen irisgarritasuna sustatzeko ematen zena. Hor bai ari zara sektorea indartzen”. (D3)

Beste batzuentzat eraginkortasunak hedabide bakoitzak bere zabalkunde-eremuan lortzen duen irismenarekin du zerikusia; horientzat zenbat eta irismen handiagoa izan, orduan eta kontsumitzaile gehiago eta orduan eta eraginkorragoa litzateke hedabidea.

“Zein diren hedabide batek emaitza onak dituela/eraginkorra dela esan ahal izateko izan beharko lituzkeen ezaugarriak? Bada, bere hedapen eremuan erdiesten duen irismen-maila edo audientzia. Eraginkortasuna batez ere irismenarekin eta erdietsitako kontsumitzaile kopuruarekin lotzen dut nik”. (D26)

Hedabidearen baliabide ekonomikoak, ekoizpena eta irakurle-kopurua harremanetan jarriz ere definitzen da eraginkortasuna; hau da, baliabide gutxirekin ahalik eta produktu gehien eta ahalik eta kontsumitzaile gehien duena litzateke eraginkorra. Laburrago esateko, efikaza izatearekin identifikatzen da kasu honetan.

“Definizioz, eraginkortasuna kontsumo edo gastu gutxienarekin produktu gehien ekoiztea da. Komunikabideon kasuan, geure ustez, ahalik eta jende gehienengana heltzea diru gutxienarekin izango litzateke, beti ere jasotzailearen baitan euskararekiko edo euskal kulturarekiko erakarmena sortuz”. (D36)

Eraginkortasuna berrikuntzarako edo egokitzeko gaitasunarekin ere lotzen da, datorrenari aurrea hartzeko ahalmenarekin, eta gaitasun hori baliabideak dituztenek baino ez dutela gaineratzen da.

“Eraginkortasunak etor daitekeenari aurreratzea esan nahi du; ildo horretatik sakondu eta ikertu behar da, baina guk ez dugu baliabiderik horri aurre egiteko. Alde horretatik, argi dago baliabideak dituenaren egitekoa dela”. (D23)

Aurretik azaldutako hainbat ikuspegi bakar batean biltzen dituen definizioen bat ere agertu da ekarpenen artean, alegia ikuspegi horren arabera, argitalpenaren kalitatea, egokitze-gaitasuna, baliabideen kudeaketa eta emaitzak aintzat hartu beharko lirateke argitalpen bat eraginkorra den ala ez den zehazteko.

“Aldizkari bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta guztia kontutan hartu beharko litzateke. Nola jakin eraginkorra den? Emaitzak ikusirik, kalitatea begiratzuz, izan duen egokitzeko gaitasuna neurtuz, dituen baliabide eta lortutako emaitzak aztertuz”. (D44)

Definizioak definizio, eraginkortasunak, irismenarekin ikusi bezala, jarrera desberdinak eragiten ditu euskara hutsezko hedabide inprimatuen artean. Batzuek, lehenago nabarmendu den moduan, begi onez ikusten dute: horiek tokikoak dira. Baina tokikoen artean ere zenbaitek ñabardura egiten diote gaiari; hau da, horien ustez ondo dago eraginkortasuna oinarritzat hartzea esleipen-prozedura gauzatzeko, baina gaineratzen dute diru-laguntzak ez liratekeela oso-osorik eraginkortasunari begiratuta esleitu beharko.

“Ados nagoena da eraginkortasun handiena duten hedabideei laguntzearekin. Telebistak dira? Ba telebistak, bideo-jokoetan egin behar da ahalegina? Ba bideojokoetan. Izan behar dute laguntza handiagoa autoen aldizkariak horiek direlako merkatuan gehien zabalduko direnak euskara hutsez? Ba bego. Laguntzek bidea markatu beharko lukete. Ez horrenbeste produktu konkretuei begira, bai eraginkortasunari begira. % 100banatu dirua horrela? Ba seguruenik ez”. (D1)

“(…) balorazio irizpideen puntuazio banaketari dagokionez, guztiz ulergarria da proiektu bakoitzaren emaitzak edo eraginkortasuna kontutan hartzea”. (D33)

Egunerokoek eta informazio orokorreko eta espezializatutako aldizkarien multzoko inprimatuek, ordea, beste iritzi bat agertu dute. Horiek ez diote uko egiten eraginkortasuna diru-laguntzen esleipenatarako ardatza izateari, baina gaineratzen dute “Hedabideak” deialdian ezarrita dagoen moduan, elkarren arteko lehia jartzen direla ezaugarri ezberdineko hedabideak eta ez dituela kontuan hartzen presente egon beharko luketen zenbait adierazle, adibidez hedabideen maiztasuna.

“Eraginkortasunaren izenean, izaera oso desberdineko hedabideak elkarrekin konpetitzen jartzen dira, eta horretatik ezer onik ateratzea zaila da. (...) Maiztasuna ez da kontuan hartzen, produktuaren izaera apenas hartzen den kontuan..... Ez dauka ez bururik eta ez hankarik, gure ustez. Eraginkortasuna kontuan hartu behar da, bilatu behar da laguntzen bidez (ere) hedabide eraginkorrek edukitzea gure herrian, baina tranparik egin gabe. Ez daukana zentzurik da edozein hizkuntzaren normalizazioan erabileraren maiztasunak daukan garrantzia alde batera uztea; edo egunkarien kasuan egunero egunkari hori irakurtzen duten euskaldunak bakarrik kontuan hartzea (eta ez egunkari hori astean 3-4 aldiz irakurtzen dutenak, edo astean 1-2 aldiz irakurtzen dutenak), baina gero egunkari horrekin eraginkortasun lehia jartzen duzun aldizkariaren kasuan hilean behingo irakurleak kontuan hartzea”. (D8)

Eraginkortasunari eskainitako tartearekin amaitzeko, esan Delphian parte hartu dutenen ekarpenak irakurrita ondoriozta daitekeela normalizatu gabe dagoen hizkuntza batean diharduten hedabideen eraginkortasuna zein den zehazteko behar-beharrezkoa dela osotasunari erreparatzea. Horrekin adierazi nahi da adierazle bakar bat (adibidez, salmentak) edo bi edo hiru aintzat hartu beharrean, ezinbestekoa dela ikuspegi osatuagoa praktikatzea; hots, hedabidearen beraren eta hedabidea zabaltzen den testuinguruaren ezaugarri guztiei erreparatzea. Ondoko lerroetan dauden bi ekarpenetan laburbiltzen da esandakoa.

“Diru-laguntzak emaitzei/eraginkortasunari lotzeaz: argi dago diru-laguntzak ez direla ezer ez egitearen truk eman behar, baina berriro ere behin eta berriz aipaturiko arazora bueltatzen gara: ez gara errealitate soziolinguistiko normalizatu batean bizi, eta ondorioz, normalizazioari osotasun batetik heldu behar zaio. Horri heldu ezean, hedabideek euren aldetik izan dezaketen eraginkortasuna nahikoa mugatua da: esaterako, administrazioak berak euskarazko hedabideetan ia publizitaterik ipintzen ez badu (gaztelaniazkoetan jartzen duenaren aldean, hutsaren hurrengoa), zer nolako mezua helduko zaio irakurleari? (...) Bistan denez, eraginkorra izatea ez da ahalik eta ale gehien saltzea. Ez bere horretan, bederen. Euskararen presentzia eskasa den leku eta komunitateetara iristea, erdarazko hedabideak nagusi diren esparru komunikatiboan erreferentzialtasuna lortzea, euskarazko eskaintzarik ez den eremuak betetzea, eskaintza anitza ziurtatzea, euskarazko produktuak kontsumitzen dituzten hiztun komunitatearen nukleotik haragoko euskaldunengana iristea... badira eraginkortasuna neurtzeko aintzat hartu beharreko elementu askoz gehiago”. (D41)

“Eraginkortasuna saritu: irismenaren bidez (horretarako, neurketa egoki bat behar da, balio absolutuak –zenbat jenderengana iristen den– eta erlatiboak –bere merkatu potentzialeko zenbat jenderengana iristen den, hedabide bakoitza bere kontestuan eta izaeraren arabera aztertuta– neurtuko dituen), teknologia berrietan egiten diren inbertsioak lagunduz, IKT deialdien bidez”. (D28)

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen esleipenak egiteko erabili izan diren irizpideei buruzko ikuspegiak horrela, inprimatuen ustez zein irizpide lehenetsi edo kontuan hartu beharko litzatekeen adierazteko eskatu genien ikerketan parte hartu duten euskara hutsezko idatzizko hedabideei. Erantzunetan, berriro ere, aniztasuna; hau da, irizpide ugari proposatu zituzten.

1.- Eskainitako produktuaren kalitatea. Hamaika ekarpenetan agertu da; dena den, esan beharra dago irizpide hau dagoeneko erabili izan zela 2005-2013 deialdietan.

“Gure ustean laguntzak emateko garaian ibilbidea eta egindako lanen kalitatea kontutan hartu beharko lirateke”. (D4)

“La calidad del medio (contenidos e imagen) y su difusión aunque sea gratuito (...) lo que se debe valorar es la creación de un buen producto y que éste llegue masivamente”. (D43)

2.- Eskainitako produktuaren estrategikotasuna. Irizpide honek, baina, zailtasuna planteatzen du; estrategikoa zer/zein den eta zein ez den zehaztetik datorren zailtasuna hain zuzen.

“Ez dakit esaten, eta gustura entzungo nioke dakienari zein den zein baino estrategikoago. (...) Eskerrak ez garen hedabideok diruok banatzen ditugunak. Zein da zein baino estrategikoagoa? Zein da zein baino ezinbestekoagoa euskararen suspertzerako? Zein da kalitatezkoagoa eta zer da kalitatea? Galderak egitea errazagoa erantzunak ematea baino”. (D1)

Hala ere, ekarpenetan irakurritakotik pentsa daiteke hedabide bati estrategikotasuna nondik datorkion ezartzeko orduan, bi iritzi daudela inprimatuen sektorean. Batzuen ustez, estrategikotasuna hedabidea ari den gune geografikoko egoera soziolinguistikoaren arabera definitu daiteke, eta planteamendu horri jarraituta, estrategikoak lirateke nagusiki erdaldunak diren guneetan ari diren hedabideak.

“(...) emaitzak diru-laguntzak banatzeko irizpide garrantzitsua diren arren, uste dugu badirela emaitza apal izan arren estrategikoak izan daitezkeen proiektuak. Erdalguneetan izan daitezkeen proiektuek, esate baterako, emaitza apalak izan ditzakete, baina tresna garrantzitsua izan daitezke euskararen erabilera indartzeko”. (D9)

“Diru-baliabideak banatzeko orduan erabilitako irizpideetan komunikabideen zabalpen esparruko egoera soziolinguistikoa ERE kontutan hartu beharko litzateke.(...) Euskarazko komunikabideen lana eta zabalpena “estrategikotzat” jo dute eragileek, kudeatzaileek eta adituek”. (D31)

Beste batzuen iritziz, estrategikotasuna hedabidearen izaeraren eta gizarteari egiten dion ekarpenaren arabera ulertu behar da.

“Gure ustez, diru-laguntza ematera orduan kontuan izan beharreko irizpideetan irismena kontuan hartzea ondo dago, baina hedabide bat eraginkorra izan dadin, baita ere kontuan izan beharko litzateke euskal gizarteari zer-nolako ekarpena egiten dion eta zer-nolako balioa ematen dion. Adibidez, [guk] xxx gaiak⁷⁹² jorratzen ditugu euskaraz, euskal adituekin, bertako esperientziak ezagutzera emanaz, inguruko profesionali galdetuz...” (D25)

“Ulertzen dugu Administrazioak eraginkortasuna eta emaitzak lehenestea. Baina, gure ustez, badira estrategikoak diren alor batzuk baita irizpide horien gaineratik finantzatu beharrekoak direnak, eta Administrazioak aztertu beharko du zein diren horiek. Gure kasuan, adibidez, ezinezkoa da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak jarritako irizpideekin ekonomikoki sostengarri izatea. Administrazioak erabaki beharko luke xxx-gaiak⁷⁹³ euskaraz lantzen dituen argitalpen bat estrategikoa ikusten duen edo ez, eta horrekin koherente izan”. (D29)

3.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuek proposatzen duten hirugarren balorazio-irizpidea emaitzak dira; hau da, beste edozein sektoreko enprekin gertatu bezala, hedabide bakoitzak dituen emaitzei erreparatu beharko litzaieke diru-laguntzak banatzeko orduan. Ez hori bakarrik, gaineratzen da hedabideen sektoreak bere buruari eskatu beharreko kontua dela emaitzena. Eta emaitzak gauza askoren konbinazio bezala ulertzen dira: produktuak hobetzea, zenbat jenderengana heltzen den, maiztasuna, ordainpekoa edo harpidetzak dituen izatea, eta abar.

⁷⁹² .- Ekarpene honetan hitz baten ordez xxx jarri da hitza zegoen bezala utzi ezkerro ez zelako ekarpena egin duen hedabidearen anonimotasuna babestu eta bermatzen.

⁷⁹³ .- Ekarpene honetan hitz baten ordez xxx jarri da hitza zegoen bezala utzi ezkerro ez zelako ekarpena egin duen hedabidearen anonimotasuna babestu eta bermatzen.

“Zein irizpideren arabera banatu laguntzak? Uste dut gure sektoretik harantzago ere begiratu beharko genukeela erantzun hau eman aurretik. Enpresei emaitzak eskatzen zaizkie eta uste dut guk geure buruari eskatu behar dioguna horixe dela, emaitzak. Emaitzak produktuak hobetzen, emaitzak industria jarduera moduan... eta, akaso, horiek denak beste poltsa batzuetatik lagundu beharko lirateke. Euskara badute ardatz HPSko laguntzek, eskatu behar zaigu ahalik eta jende gehienengana heltzea gure produktuekin. Garrantzitsua da irismenaren irizpidea. Bakarra? Ezin daiteke izan. Baina bai garrantzitsua. Honek esan nahi du ez liratekeela lagundu behar zientzia aldizkariak? Ez. Behar dira irizpideak dagoeneko daudenak duin laguntzen jarraitzeko. Adibidez, maiztasun handiagoa duten agerkariak laguntzeko irizpideren bat egon beharko litzatekeela uste dut. Ordainduak direnak eta ez direnak bereiztu, harpidetzak dituztenak eta ez dituztenak... Nahi beste konplikatu daiteke”. (D1)

4.- Idatzizkoek egindako laugarren proposamenaren arabera, hedabide bakoitzaren izaera, ezaugarriak lehenetsi beharko lirateke balorazioa egiteko unean; denak zaku berean sartu gabe.

“(...) hedabide bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu behar dira laguntzak emateko orduan, eta denak ezin dira zaku berean sartu (doakoak, ordainpekoak...). Diru laguntzen deialdian hedabide bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu beharko lirateke: hedapena, dagokion tokian, autofinantziazioa, ordainpekoa den edo doakoa, laguntza estrukturalak, maiztasuna, kontsumoan eragiteko izatea”. (D37)

“Gaur egungo hedabideen deialdian, berriz, justu kontrakoa egiten da. Tokikoak eta nazionalak, doakoak eta ordainpekoak..., denak zaku berean sartu eta elkarrekin lehiatzen jartzen dira. Sektorean ez dugu horrela bizi gaia, [gurea] ez delako Goienarekin konpetitzen ari merkatuan, Gara-rekin, Correo Taldearekin edota Noticias Taldearekin baizik”. (D8)

Zenbaitek, gainera, aurreko bi paragrafoetan adierazitakoarekin bat egin eta beste pauso bat urratuz laguntza-deialdian ezarritako hedabideen multzokako banaketa ezabatzea proposatu dute.

“Gero eta gehiago, komunikabideak multikomunikabideak dira: papera/irratia/telebista +sarea. Beharbada, gaur egungo multzoak kentzera jo beharko litzateke, eta kostu estandarretan guztia sartu”. (D28)

5.- Hasi berriak diren proiektuak "sartu" beharko liratekeela diote batzuek. Hau da, hasi berriak diren proiektuak aparte kontsideratu eta horien egoera aintzat hartu esleipen-prozeduran puntuak banatu behar direnean. Planteamendu horrekin batera, deialdiaren helburuetan aitortutako sendotu, garatu, normalizatu eta eraginkortu kontzeptuei bosgarren bat gehitu beharko litzaiekeela defendatzen da; sortu kontzeptua, hain zuzen.

"Hortaz, ondo legoke hedabideen euskarrien arabera banaketa egiten den moduan (paperekoa, espezializatu, irratia, webgunea...), komunikabideen momentuko egoeraren arabera sailkapena ere egitea. Esate baterako hasi berriak edo martxan jartzen ari diren proiektuen atal propioa izan beharko lukete, baldintza edo irizpide propioak izanda eta abiaratze prozesuan aurreratu beharreko gastuei erantzuten lagunduko dien programa garatuta. Ideia horren harira Hedabideak deialdiak adierazitako xedean puntu gehigarri bat sartuko nuke: "euskarazko hedabideak SORTU, sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak ematea". (D33)

"Era berean, irismenak emaitzak neurtzen baditu ere, uste dugu, hasi berriak, egonkortze bidean edo indartu behar diren proiektuek ere behar dutela diru-laguntza". (D34)

6.- Beste erakunde publiko batzuetatik diru-laguntzarik jasotzen ote den kontuan hartu beharko litzatekeela plazaratzen da ekarpenen batean. Argi azaltzen ez den arren, iradokitzen da euskarazko zenbait hedabide inprimatuk Jaurlaritzaren laguntzaz gain, beste iturri batzuetatik ere hartzen dutela diru publikoa. Hortaz, horiek iturri bakarretik hartzen dutenekin alderatuta, finantziario publiko handiagoa izango lukete.

"2013 arteko deialdietan proiektu baten autofinantziarioari ematen zitzaion pisua (edo bestela esanda, proiektu horrek demandatzen duen finantziario publikoa) ez da apenas aintzat hartzen orain. Beraz, berdin du proiektu horrek gainontzeko erakunde publikoetatik jasotzen duen ala ez diru gehiago, ia-ia berdin du (Jaurlaritzako laguntzetatik aparte) %30eko edo %0ko laguntzak dituzun". (D39)

7.- Hedabideak defizita izan behar duela dioen baldintza/irizpidea kentzea proposatzen da. Kasu honetan, hortaz, zein balorazio-irizpide lehenetsi edo zein erabili beharko litzatekeen zehaztu beharrean, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaren onuradun izateko derrigor bete beharreko baldintza bat baliogabe edo bertan behera uzteko eskatzen da.

“Azken deialdiek inposatzen dituzten logika batzuk aldatu beharko lirateke gure ustez. Adibidez, diru-laguntzak jaso ahal izateko hedabideok defizita izatea derrigorrezkoa izatea kaltegarria iruditzen zaigu enpresa ikuspegitik –ez du eraginkortasuna saritzen–”. (D28)

“Era berean, laguntzak banatzeko irizpideak aldatu beharko lirateke. Batetik, laguntzak jasotzeko defizita izan beharraren baldintza kendu beharko litzateke”. (D41)

8.- Sinergiak, elkarlanerako ahaleginak “sartu”. Esleipen-prozeduran aintzat hartu beharreko irizpide bilakatu beharko litzateke hedabideak elkarlanean aritzeko egiten dituen ahaleginak eta horien eraginez izandako lorpenak. Era berean, proposamena neurtzeko edo operazionalizatzeko moduko irizpide batean bihurtzea zeregin zaia dela aitortzen da.

“Pentsatzekoa da ea laguntza horietan **elkarlanerako ahaleginak edo lorpenak ez ote diren sartu beharko**⁷⁹⁴. Ni baiezkotan nago. Hortaz, irizpidetako bat horri begira jarri beharko litzateke. Nola? Ni ez naiz horretan batere trebe”. (D11)

Azkenik, egungo prozedura-markoa gainditu eta beste era batera jarduteko proposatu dute bi hedabidek. Horietako batek azaldu ere azaltzen du nola gauzatu beharko litzatekeen laguntza-egitasmoa; bere esanetan, proiektuka eta helburuka egin beharko litzateke, eta Industria Saila jartzen du adibide gisa.

“Asko eztabaida daiteke gaur egungo laguntzak nahikoa ote diren, gehiago behar ote den, zertarako... Nik uste dut gaur egun ezarrita dagoen markoa gainditu behar dela”. (D2)

“Irizpideei dagokionez, medioaren izaeraren arabera proiektuka eta helburuka lagundu beharko luke administrazio publikoak, helburu horiek lortzeko bitartekoak jarrita. Nola egiten bestelako da enpresekin bada industria sailetik? Bada berdin”. (D14)

Atal honetan, orain arte aztertu eta aurkeztutako hainbat kontu esanguratsu biltzen ditu hedabide batek bere idatzizko hausnarketan. Interesgarria da hori hemen jasotzea, hainbat gairi buruz sektorean nagusi den ikuspegia eskaini eta laburbiltzen duelako eta, horrez gain, aurreratu egiten duelako nondik norakoak izango diren

⁷⁹⁴ .- Horrela, negritaz idatzita dago jasotako ekarpenean.

euskara hutsezko hedabide inprimatuek etorkizunera begira dituzten zereginak eta erronkak.

- “Batetik beraz, diru ekarpen handiagoaren beharra.
- Diru-laguntza horiek banatzeko irizpideak sektorearekin adostu beharra.
- Urtekako diru-laguntzen formulatik urte askotarako hitzarmengintzaren alde egitea, hedabideoi egonkortasuna emate aldera eta apustu berriak egiteko aukera eman diezagun.
- Erdal eremuetan lanean ari garen hedabideak bereziki laguntzea, eta ez “zigortzea” azken urteotako diru-laguntza ebazpenetan egin den bezala. Nabarmena da erdal eremuetan euskarazko irakurleak lortzea zailagoa dela euskal eremuetan baino, eta beraz diskriminazio positibo bat eman beharko litzateke erdal eremuekiko.
- Modu berean euskarazko mediorik ez dagoen erdal eskualdeetan hedabide berriak sortzeko laguntza bereziak beharko zirela uste dugu, hasierako sustapen lana laguntzeko.
- Irakurleez gainera, bestelako inpaktoa ere baloratzea.(...) Guk argi dugu gure hamabostekariaren 10.000 kopia doan banatuta gure eskualdean, irakurle euskaldunetan ez ezik, ia euskaldun horiengan zein erdaldunengan ere eragin positibo nabaria duela, pertsona horien bizitzetan euskara gure hedabidearen eskutik sartzen delako, eta nahiz eta irakurri ezin, irakurtzeko ahalegina egin nahi izaten dutela (tokiko informazioak sortzen duen interesagatik), eta garrantzitsuena dena, euskara ez jakitegatik zer edo zer galtzen ari direla gogorarazten die gure hamabostekariak”. (D27)

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” deialdiari buruzko atala osatzeko, zenbait urtetan nagusiki gaztelania darabilten egunkariei emandako diru-laguntzen inguruko iritzia eskatu zitzaizen euskara hutsezko idatzizkoei. Bakanen batzuk (4) horiei laguntzak ematearen alde agertu ziren, baina gehiengoa (34) kontra azaldu da. Gainontzekoek (23) ez zioten gai honi heldu.

Gaztelaniaz ari diren hedabide inprimatuei laguntzak ematearen alde agertu zirenek baldintzatu egiten zuten euren posizioa; hau da, ekimena euskararen normalizaziorako lagungarria izan daitekeela zioten, baina ez lukete onartuko gaztelaniazkoak diruz laguntzea horrek euskara hutsezkoetara diru-baliabide gutxiago bideratzea suposatuko balu. Hortaz, gaztelaniazkoak diruz lagundu bai, baina diru-partida berezitua erabiliz eta euskarazkoei esleitutako kantitateak baino txikiagoak esleituz.

“Ez zait gaizki iruditzen hauei diru-laguntzak ematea. Hori ere euskararen normalizazioa sustatzea dela iruditzen zait. Beste kontu bat da hauei emateko euskaraz bakarrik dihardutenei gutxiago ematea. Nagusiki erdaraz ari diren hedabide horietako enpresak euskaraz ari direnenak baino askoz indartsuagoak direnean gainera. Lehentasun osoa euskaraz bakarrik ari direnek izan beharko lukete. Eurak dira euskarazko prentsaren bihotza”. (D3)

“Gure ustez, kasu honetan komenigarria litzateke partida ezberdinak egotea. Euskara hutsean aritzen diren hedabideentzat diru poltsa bat egon behar dela uste dugu, urtez urte, eta beharrak ondo aztertuta, gora egingo duena. Horrek ez du esan nahi, pixkanaka euskara beraien hedabideetan sartzen duten gainerako komunikabideek laguntzarik jaso behar ez dutenik. Kasu honetan, poltsa propioa izatea aztertu beharko litzatekeela uste dugu, egunero euskara hutsean egiten duenari eragingo ez liokeena; eta era berean, laguntza bakarra jasotzeko aukera, hau da, ez izatea batetik eta bestetik, euskara hutsean egiten dutenek baino laguntza gehiago; gutxienez, parekoa izatea”. (D34)

“Erdarazko komunikabideek, diru-laguntzak behar izatekotan, euskarazkoekin alderatuta, askoz txikiagoak izan beharko liriateke”. (D36)

Nagusiki gaztelaniaz ari direnei diru publikoa ematearekin ados ez daudenen kasuan, sutsu egiten dute aukera horren kontra.

“Gaztelaniazko hedabideei txanpon bakar bat ere ez! Ez dut uste hori euskarazkoen mesedetan denik, kontrakoa baizik. Diru hori euskarazkoen promozioan erabilia askoz emankorragoa litzateke”. (D11)

“Noski, gaztelerazko hedabideei diru laguntzak ematea, niretzat, ez du inolako logikarik”. (D35)

“Zenbait urtetan “Hedabideak” deialdiak diru-laguntzak nagusiki gaztelania darabilten egunkariei esleitu izana nahiago dugu ez aipatzea. Guk jasotzen ditugun laguntzei buruz iritzia eman nahi dugu, ez jasotzen ez ditugunei buruz”. (D31)

Kontra daudenek arrazoi ezberdinak plazaratzen dituzte, euren jarrera azaltzeko. Askok uste dute horiei laguntzeak ez duela logikarik, besteak beste hedabide horiek irabaziak izaten dituztelako.

“Euskal hedabideon kasuan, baldintzetako bat da irabazirik ez izatea hedabideak. Zail da ulertzen erdaraz dirua egiten ari den hedabide bat horrela laguntzea. Ez zait ondo iruditzen”. (D1)

Beste batzuek diote gaztelaniazkoek beste era bateko laguntza jasotzen dutela, horietan txertatzen den publizitate instituzionalaren bidezkoa hain zuzen, euskara hutsean ari diren argitalpenei iristen ez zaien neurriko laguntza.

“Gaztelerazko medioei, zuzeneko publizitate kontratazioa medio dirutzak eman zaizkio, eta horiek dira diru publiko horrekin egonkortu eta indartu direnak. Hor 'ezkutuko' eta de factoko dirulaguntza politika publiko bat egin da, euskarazko medioei eman ohi zaiena aise gainditu duena. Paradoxikoa da gertatu dena, eta gero euskarazko hedabideak laguntzen direla esaten da, subsidiarioak balira. Nik neuk oraintxe sinatuko nuke erdal hedabideei ematen zaien tratamendua euskarazkoei ematea.(...) Gaztelerazko medioei aipatu publizitatea medio eman dirutzez gainera, azkenaldian dirulaguntzetan ere sartzen dira. Politika publikoak minorizazio egoeran daudenak laguntzeko dira, euskara eta euskarazko hedabideak kasu honetan. Printzipio horretatik abiatuta ez dakit justifikatu daitekeen gaztelerazko medioak laguntzea eta, demagun, errumanieraz direnak ez, edota gurean hitz egiten diren beste hizkuntza normalizatuetoak”. (D14)

“(...) nagusiki gaztelania darabilten hedabideak diru-laguntzen deialdian sartzea ez dugu egoki ikusten. Publizitate bidez diru publiko ugari jaso ohi dute gaztelaniazko hedabideek, euskarazkoen aldean askoz gehiago”. (D41)

Badira gaztelaniazkoek laguntzearen oinarrian motibazio politikoa dagoela defendatzen duenik ere. Eta gaineratzen da hedabide horietan euskara beti bigarren mailako hizkuntza gisa dagoela tratatuta, nagusi den beste hizkuntza baten makulu bilakatzen dela, eta hala izanik, ezin daitekeela eraginkorra izan hizkuntzaren normalizazioari dagokionez. Ez hori bakarrik, uste da nagusiki gaztelaniaz ari diren hedabide inprimatuentzat euskara diru-baliabide gehigarria eskuratzeko tresna baino ez dela.

“Batez ere, kontutan hartu beharko litzateke erderazko komunikabide horiek “euskerazko zatitxo” argitaratzeko duten benetako helburua zein den: dirua eskuratzea, besterik ez. Dirulaguntzarik ez balego, seguraski ez lukete halakorik egingo. Alegia, euskera bera beraientzat tresna dela, helburu baino. Eta horrek, benetan euskeraren normalizazioaren alde lanean ari garenon kaltetan eragiten du”. (D19)

“Gaztelaniaz nagusiki argitaratzen diren hedabideak laguntzearena irizpide politikotzat jotzen dugu. (...) kasu horretan, euskara bigarren mailako hizkuntza da, gaztelania nagusi den hedabide batean bigarren platera. Kasu horretan, adibidez, egokiago ikusiko genuke euskara hutsez argitaratutako gehigarriak”. (D15)

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

“Horrekin batera, nabarmendu nahi genuke gure ustez erdal hedabideetan euskarazko edukiak sartzeko ematen diren diru-laguntzek ez dutela hizkuntzaren normalizazioan laguntzen. Euskarak bere leku propioa behar du eta ez beste hizkuntza baten makulu izan”. (D14)

Nagusiki gaztelaniaz argitaratzen diren hedabide inprimatuei esleitutako diru-laguntzak ez ezik, “Hedabideak” deialdiari eskainitako tartean azaldu diren gainontzeko gai guztiak sektorearen eta Jaurlaritzaren arteko urteetako harremana elikatu duten lehengai izan dira. Eta horretan, euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanean jarriko da fokua ondoren datorren atalean.

5.5.3. EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARTEKO HARREMANA

“Hedabideak” deialdiak sektorean eragindako balorazioaren aurkezpenean adierazi da adostasuna nagusitzen dela; hau da, deialdiaren garrantzia azpimarratzen dela ia aho batez. Harremanei buruz galdetzen denean, ordea, ezin esan sektorean ikuspegi bakarra, adostasuna dagoenik. Kontuan hartu behar da, gainera, gaiak bi aurpegi dituela. Batetik, sektorearen barneko harremanak leudeke eta, bestetik, sektoreak administrazioarekin garatu dituenak.

Ikerketa honetan, hedabide inprimatuen eta administrazioaren artekoan sakondu da. Hala ere, Delphi ekarpenetan sektoreko hedabideen arteko harremanak ere izan dira aipagai. Horiek “onak” edo “osoa onak” direla nabarmendu da bildutako ia erantzun guztietan. Kasu batean “inoiz izan diren onenak” direla dio.

“Komunikabide ezberdinen arteko harreman eta erlazioa positiboa eta emankorra dela esango nuke”. (D33)

“Oro har, elkarlanerako eta elkar laguntzeko joera dugu gure artean”. (D41)

Dena den, bada gainontzeko hedabideekin harremanik ez duela aitortzen duenik ere. Horrelakoetan, ia kasu guztietan aldizkari espezializatuak dira.

“Gure kasuan ez dugu apenas harremanik izan gainerakoekin. Oso autista ibil izan gara.(...)Nire inpresioa da nahikoa lan izan ohi dugula gure buruarekin”. (D3)

“Las relaciones entre los medios que integran el sector creo que son escasas. Nosotros no tenemos mucha relación con otros medios ni ellos con nosotros. Cada uno hace su trabajo y nada más”. (D43)

“Esan beharra daukat ez daukagula harreman sendorik beste hedabideekin”. (D45).

Bestelakoa da euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremana baloratzeko ekarpenetan aurkitutakoa. Ezin esan erabateko adostasuna dagoenik. Zenbaitek (7) ikuspegi positiboa dute. Jaurlaritzak hedabide bakoitzarekin eta sektorearekin izandako jarrera irekia goraipatzen da, batzuen eta besteen artekoa elkarrekiko leialtasunean eta konfiantzan oinarrituta eraiki dela defendatzen da eta garai hotzagoak ezagutu dituztela dio hedabide batean 27 urte lanean daramatzen ordezkarik batek. Eta denetarik dago iritzi-emaielen artean: egunerokoak, informazio orokorreko eta informazio espezializatuko aldizkariak eta tokikoak.

“Esperientzi propioetik abiatuta, beti izan ditugu ateak zabalik; bai diru laguntzak atera aurretik, bai irizpideen inguruan hitz egin dugunean; eta baita ere, ebazpena atera, eta desadostasuna edo adostasuna izan dugunean. Sektorearekiko harremanari dagokionean ere, antzeko gertatzen dela esango genuke. HPSk kontuan hartzen du sektorea erabaki berri bat hartu behar duenetan; eta sektoreak zabalik ditu HPSren ateak. Horrek ez du esan nahi, bien artean beti ere adostasuna lortzen denik”. (D34)

“Gure aldetik ezin ezertaz kexatu”. (D21)

“Gure aldetik Jaurlaritzarekiko harremana irekia izan da hasieratik”. (D25)

“Jaurlaritzarekin dugun harremana ona da, konfiantzan eta leialtasunean oinarrituta”. (D5)

“Azken urteotan batez ere, HPSk sektorearekin orokorrean duen harremana inoizko emankorra dela iruditzen zait (laster 27 urte beteko ditut ordezkatzen dudana hedabideari profesionalki lotua). Halako irudipena dut hau idazterakoan. Ezagutu ditut garai hotzagoak”. (D26)

Beste hedabide batzuentzat (15), ordea, euskara hutsezko inprimatuen eta Jaurlaritzaren arteko harremana txarra izan da eta txarra da. Aurrekoek ziotenaren kontra, hauen ustez, elkarrekiko mesfidantzan oinarritutako eta interes alderdikoiek gobernatutako harremana litzateke.

“Elkarlanean beharrean katua eta sagua bezala ibili izan garela iruditzen zait. (...) Iruditzen zait Administrazioak mesfidantza duela sektorearekiko, eta berdin gertatzen zaiola sektoreari Administrazioarekiko. Arrazoiak asko izan daitezke, baina nabarmen samarra da Gobernuak bere sokako hedabideak nahiagoko lituzkeela, eta horrela ez denez, sektorea indartzeko aparteko interesik ez duela”. (D3)

“Sektorearen harremanak EJrekin mesfidantzan oinarritzen dira, eta horren oinarrian kolore/interes politikoak (alderdikeriak)”. (D11)

Horrez gain esaten da sektorearen eta Jaurlaritzaren artean gauzatzen den harremana politika egiteko era jakin baten isla dela, harremana ez dela berdinen artekoa eta ez dela erabakiak adostasunetik hartzeko ahaleginik egiten.

“Jaurlaritzaren eta sektorearen arteko harremana, nire ustez, ez da batere txukuna. Ez naiz ari harreman pertsonalez, horretan ez dago inolako arazorik. Baina Jaurlaritzak, oro har, arazoak ditu gure sektorea berdinetik berdineratratatzeko. Ez dut uste gaiari dagokion heldutasunarekin eta merezi duen garrantziarekin heldu dionik.(...) Erabakiak nork hartzen dituen argi esan zaigu hasieratik, erabaki horiek adosteko benetako ahaleginik egin gabe. Gure sektoretik harantzago, politika jakin baten ajeak dira, beharbada”. (D8)

“Uste dugu Jaurlaritzarekin harremanak ez direla behar bezain onak, eta sektorearen iritziak ez direla behar bezala aintzat hartzen”. (D27)

Aurrekoak kontuan izanda, ondorioztatzen da zaila dela errespetuzko harremana izatea eta, horren orde, prozesuan parte hartzen duten aktoreen artekoa nagusi/menpeko logikaren arabera gauzatu dela diote. Oso tonu kritikoa gaineratzen dute administrazioak politikoki markatu dituela kultura-, euskara- eta hedabideen arloan aritu diren herrigintzako eragileak eta hala egiteak kalte handia egin duela.

“Jaurlaritzarekin harremana ez dut uste ona denik. Zail da errespetuzko tratua lortzea, beti da nagusi eta menekoaren artekoa. Eta konplizitateak lortzea are zailagoa da. Zergatik? Erakundetzea gertatu zenetik politika publikoak kulturaren, euskaran eta hedabideetan ordurako lanean zeuden talde zibilen bizkar egin direlako. Eurekin kontatu gabe. Beti mesfidantzaz. Eta sarritan administrazioetik herrigintzako erakundeak politikoki markatu nahi izan dira, zikindu, kutsatu, bene-benetan politikoki markatua administrazioeko kudeatzaileak direnean. Pentsamendu eta jokaera honek ekarri dituen kalteak eta sofrimendua ikaragarriak izan dira, Egunkariaren sorrerako boikota eta ondorengo itxiera kasu”. (D14)

Iritzi negatiboei erreparatuta, esanguratsua da ia denak eguneroko prentsatik eta informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarigintzatik datozela. Horietako batek hiru urrats dituen “ekaitz perfektu” gisa deskribatzen du Eusko Jaurlaritza eta sektorearen artekoak denboran zehar izan duen bilakaera.

“Ekaitz perfektua. Batetik tokikoak urteak daramatzate egituratzen, eta nolabaiteko diskurtso bat garatzen. Diskurtso horren txertaturik sortzen da irismenaren ideia (esango nuke MU-Goiena-Tokikometik sortua dela). Egituraketak zuzeneko interlokuzio bat ematen die Jaurlaritzarekin. Eta interlokutore horiek askoz sintonia hobea dute Administrazioarekin Berriakoek baino (neutraltasun ideologikoa aldarrikatzen dute eta aldi berean politikoki gertuago daude). Hurrengo pausua da irismenarena irizpide gisa txertatzea deialdietan. Administrazioak ikusten du bide horretatik badaukala berria pixka bat estutu eta izorratzeko modua. Berak gustukoagoak ditueni mesede egiten die gainera, eta Hekimenen inguruan sortzen hasi den sektorearen batasuna (Administrazioarentzat, EKT-Argiak kontrolatua izan daitekeela susmatzen duenez, deserosoa den interlokuzio potente bat) zalantzan jartzen du. Azkenik, guk, espezializatuok, ez dugu ezer pintatzen kontu guzti honetan, ez gara gerra horren ‘zeharkako kaltetuak’ baino izan”. (D3)

Delphian parte hartu duten gainontzeko hedabideei dagokienez, badago bakanen bat positibo/negatibo hari-muturretan kokatzen ez denik. Errespetuzko solaskidetza badagoela, baina lankidetzarik ez diote batzuek.

“Jaurlaritza/hedabideak harremanaz, uste dut antzerakoa izan dela azken hamarkadan, balekoa”. (D35)

“Harremana badago EJ-rekin; ez bakarrik HPSrekin, gainera, eta hori normalizatu beharko dugu, gainontzeko sailekin ere maiz batzea HPSk, seguruenik hamaika egiteko dituelako, ez du guk behar besteko arintasunez erantzuten. Harremana errespetuzkoa da, baina esango nuke ez dela lankidetzak girorik egon. Bai solaskidetza, ez lankidetzak”. (D1)

Eta beste guztiek, ia denak tokiko hedabideak, adierazten dute, beraiek ez dutela harreman zuzenik Eusko Jaurlaritzarekin, baina bai udal erakundeekin, eta horiekin dutena hurbila, aurrez aurrekoa eta edukiz betea dela diote.

“Eskualdeko Udalekin harreman gertuagokoa dugu. Zerbitzu zuzena jasotzen dute, lankidetzak ildoak edukiz betea dugu eta ebaluaketa jarraituagoa da: kargu politikoekin aurrez aurre biltzen gara”. (D10)

Hortaz, udal, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko hedabideentzat TOKIKOM edota Hekimen elkarteak dira euren ahotsa eta bozgorailua Eusko Jaurlaritzan. TOKIKOM eta Hekimenen sorrerak sektorearen eta Jaurlaritzaren arteko harremana gauzatzerakoan ekarri duen aldaketa eta onura aipatzen da. Bereziki, informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarien aldetik datoz era horretako ekarpenak. Ahots bakarra duen sektore gisa aritzeko eta diagnostiko partekatua egiteko aukera ireki dela aldarrikatzen dute. Horrekin batera, Hekimen hedabideen arteko harremanak sendotzeko baliagarria izan dela eta krisiari aurre egiteko gauzatu behar diren sinergien sustatzaile-zeregina bete duela nabarmentzen da.

“Hekimen elkartearen sorrerak elkarren arteko harremana sendotu du, krisiari aurre egiteko orduan elkarlanean sakontzeko eta sinergien erabilera bultzatzeko jarrera indartuta. (...) Hekimen, era berean, Jaurlaritzarekiko zein gainontzeko erakundeekiko harremana lantzeko tresna oso ona da. Batetik, sektorearen ahots moduan joka dezakeelako. Bestetik, hedabide bakoitzak bere kabuz jokatuta ziurrenik lortuko ez liratekeen interlokuzio mailak lortzen dituelako”. (D41)

“Euskarazko hedabide idatzizkoen eta Jaurlaritzaren arteko harremana, urte luzez egituratu gabea izan dela esan liteke. Bakarkako harremanak genituen Eusko Jaurlaritzarekin. Idatzizko hedabide bakoitzak diru-laguntza deialdiei begira bere posizionamendua indartzeko egindakoak izaten ziren harreman horiek eta oso gutxi maila estrategikokoak edo sektoreari bultzada ematera bideratutakoak. Aldiz, HEKIMEN sortu zenetik, Euskarazko Hedabideok ahots bakarrez hitz egiteko eta sektore gisara Jaurlaritzaren aurrean esertzeko aukera sortu da”. (D29)

“Hekimen sortu izanak hedabide bakoitzaren egoeratik harago, sektorearen diagnosi partekatua egiteko aukera eskaini digu, baita oinarrizko eskaera bateratuak egiteko ere. Hedabideen arteko harremanak sendotu direla esan dezakegu eta hori positiboki baloratzen dugu”. (D28)

Hala ere, beste hainbat gairekin gertatu bezala, honetan ere badira Hekimen elkartearen inguruan zalantzak agertzen dituzten hedabideak. Horien ustez, Hekimenen sorreran dagoen asmoa interesgarria da, baina bi kezka iradokitzen dira: lehena, hedabide txikiak handien interesen konpartsa ez ote diren, eta bigarrena, arrisku bikoitzaren ingurukoa litzateke; ezaugarriei erreparatuta, anitzak diren

hedabideen arteko desorekak sortu daitezkeela eta hedabide bakoitzak independentzia galtzeko arriskua izan dezakeela.

“Ikusten da bakoitza bere aldetik joanda ez garela ezer, eta horrela jarraituaz gero ez goazela inora. Eta badago gogo bat probatzekoa. Hekimen hortik sortu da. Eta niri interesgarria iruditzen zait ideia. Arazoa da hor ere zenbateraino dagoen elkarlana eta zenbateraino ote gauden txikiak bizpahiru handiagoen ideia eta interesak adornatzeko konpartsa soil bezala...” (D3)

“(…) jite oso ezberdineko hedabideok osatzen dugu Hekimen, eta horrek desorekak eragiteko arriskua dakar. Haatik, orain arteko esperientziak ez du halakorik erakutsi, zorionez, eta horretan portaera txalogarria erakutsi dute hedabide guztiek. Bistakoa denez, sektorearen batasuna beharrezkoa da, bai, baina norberaren independentzia galdu gabe”. (D41)

Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak berriz, erabateko atxikimendua eta babesa aitortzen diote TOKIKOMi. Horrek egindako lana goraiatzeko hamaika arrazoi plazaratzen dituzte. Horiek denak bi multzotan bildu daitezke: sektoreari eraginkortasuna eta Eusko Jaurlaritzarekin solaskidetza zuzena egiteko aukera ekarri dizkio eta horrekin batera, elkarlana, sinergiak lantzeko eta etorkizunari modu bateratuan aurre egiteko aukera eskaini die.

“Tokikomen sorrerak tokiko hedabideok sektorean posizionatzea eragin du. Hedabide txikiok elkarrekin egonda indarra izan genezakeela bagenekien, baina aurrerapausoak ematea falta zitzaigun. Tokikomekin egitura berria sortu dugu eta sektorean ahots propioa dugu orain.(…) Tokikomen sorrerak hedabide txikioi aukera handiak eskaini dizkigu: Jaurlaritzagaz solaskidetza zuzena izateko aukera dugu orain, banan-banan atejoka joan beharrean. Horrez gainera, tokiko hedabideon bateratzeak proiektu komunak bideratzen lagundu digu”. (D9)

“Tokikom sortu denetik aldaketa sumatu dugu bertan parte hartzen dugun tokiko hedabideek sektoreko gainerako eragileekin eta Jaurlaritzarekin duten harremanean. Gure ordezkari itza indartsuagoa da”. (D13)

“(…) izaera txikiagoko proiektuak sortu ditugun entitateak behar bezala antolatu, egituratu eta garatzen laguntzen dute Tokikom bezalako taldeek. Egunerokotasunetik irtetzen diren proiektuen ikuspegi zabalagoa izaten laguntzen du bertako partaide izateak eta Jaurlaritzarekin harremanak garatzerako orduan, izaera honetako taldeek negoziazio ahalmen handiagoa izango dute beti”. (D33)

“Tokikomek sektorea batzen eta irizpide beretsuak izaten eraginkor jokatu du”. (D4)

“Tokikom lortzen ari da bakoitza bere mundutxoan zebiltzan hedabideak gauza zehatzen inguruan elkarlanean jartzen”. (D26)

“Elkarrekin ari gara tokikoen sarea ehuntzen, zailtasunak arintzeko, baina baita elkarrengandik ikasteko ere. Aurrerapauso handia izan da Tokikom eratzea eta plataformari forma ematea. Aurrera begirako pausoak ematen laguntzen baitigu horrek”. (D46)

Ekarpena egin duen hedabide batek ñabardura esanguratsua egin dio Eusko Jaurlaritzak Hekimen eta TOKIKOMekin dituen harremanari. Horren ustez, harremana ezberdina da batzuekin eta besteekin; “naturaltasuna” hitza darabil Jaurlaritza eta TOKIKOMen artekoa deskribatzeko eta Hekimenekin gauzatutakoa estilo berekoa izan beharko litzatekeela dio. Horren kausa Jaurlaritzak eta Berria taldeak elkarrekiko duten jarreran kokatzen du, eta, azkenik, elkarren kontra aritzeak sektore osoarentzat ondorio kaltegarriak dituela nabarmentzen du.

“TOKIKOMekin ematen den naturaltasun berarekin nahiko genuke ere ematea Jaurlaritza eta HEKIMENen artekoa. Sektorea, esan bezela, guztiok osatzen dugu, bai tokikook, bai nazionalek, bai espezializatuek, bai orokorrek... eta maiz, tematu xamarra ikusten dugu Jaurlaritza Hekimenen barruko eragile zehatz batekin, Berria taldearekin, eta uste dugu horrek askotan beharrezkoa eta ezinbestekoa den elkarrizketa dinamika mantsotu eta geldiarazi egiten duela. Bestetik, talde horretatik bertatik eta ingurukoetatik Jaurlaritzari egurra emateko bidea, antzua izan daitekeela uste dugu. Argi dago, aurrera egingo badugu, erakunde eta komunikabideok, guztiok elkar hartuta, mahai baten inguruan soilik egingo dugula, bestela, elkarren kontra hasita, galtzeko gehiago ba bait dugu, irabazteko baino, bai batzuk bai besteek”. (D19)

Euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta Eusko Jaurlaritzaren artekoari buruz egindako analisiarekin bukatzeko, esan asko direla bi eragileek nolako harremana izan beharko luketen idatziz jarri dutenak. Bien artekoa modu positiboan baloratu duen hedabide bateko ordezkariak dio harremana txukuna izatetik ona izatera igaro beharko litzatekeela,

“Ba nik esango nuke oro har txukuna dela harreman hori eta gainera horrek bere fruituak ematen dituela eta fruituak nagusiki dira bizi garela; bueno batetik esparru oso bat asko garatu dala, harreman horren ondorioz edo. Garatu izanaren eragile garrantzitsu bat da instituzioak egotea eta instituzioak eta hedabideen arteko harreman hori, eta... baina bueno esango nuke aldi

berean ez dela nahikoa, askoz anbiziosoagoak izan behar dugula, harreman hori hobetzeari begira, eta pasatu gaitzkeela harreman txukunak izatetik harreman onak izatera". (D9)

Jaurlaritzaren eta hedabide inprimatuen artekoa txarra izan dela diotenentzat berriz, harremana indartsuagoa, iraunkorra, eraginkorra izan beharko litzateke. Horiek dira euren ekarpenetan sarrien ageri diren hitzak.

"Harremanak indartsuagoa eta batez eraginkorragoa beharko luke izan". (D35)

Adierazitakoa lortzeko bidean hiru osagai dituen ideia nagusitzen da ekarpenetan: mesfidantza gainditu, adostasuna jorratu eta elkarlanean sakondu. Mesfidantza gainditzeko, jarrera-aldaketa eskatzen da alde bietan, bakoitzaren interesak ez ezik euskararenak daudelako jokoan; eta jarrerak aldatzeko, laguntza gehiago ematea lagungarri izan daitekeela baieztatzen da.

"Mesfidantza gainditu beharra dago eta horretarako jarrerak aldatu beharko dira, alde bietatik. Baina errazena Jaurlaritzak daukala esango nuke; laguntza hobeak emanda dinamika aldatzeko aukera dauka". (D3)

"Lehen esan bezala, elkarrenganako konfiantza ezinbestekoa da. Horren premiaz batzuek eta besteek jabetu behar dute eta bide horretatik abiatzeko ahalegin serioak egin. Bakoitzaren interesak ez dira (bakarrik) jokoan daudenak, euskararenak baizik". (D11)

"Harremanak zintzoagoa izan beharko luke alde guztietatik eta hori lortzeko dago oraindik". (D1)

Elkarlanari dagokionez, euskal esparru komunikatiboaren garapenerako eta euskarazko hedabideak hizkuntzaren normalizazioari begira eraginkorrago egiteko tresnak sortzea proposatzen du batek, eta beste batek dio elkarlanak sektorea handitzea izan beharko lukeela xede. Kasu honetan ere pentsa daiteke sektorea handitzeak euskal esparru komunikatiboaren sendotzea izango lukeela ondorio moduan.

"Sektorearen eta administrazioaren arteko elkarlanean sakondu beharra dago. Tresnak sortu behar dira euskal esparru komunikatiboaren garatzeari begira, hedabideak gero eta eraginkorragoak izan daitezen euskararen normalizazioan". (D32)

"Harremana elkarlanean oinarritua eta sektorea handitzeko zuzendua izan beharko luke". (D36)

Adostasunari erreparatuta, ezinbesteko osagaitzat jotzen da bien artekoa ona izan dadin sektorearen eta administrazioaren arteko harreman iraunkorra elikatzea proposatzen da, aktore bakoitzak izan ditzakeen interes, pentsaera eta abarrei uko egin gabe.

“Jakina, Jaurlaritzarekiko harremanean zer hobetua badago. Harremanak ez du zertan izugarri bikaina izan behar, bakoitzak bere interes, pentsakera, jokamolde eta ideiak dituelako, baina helburu eta praktika komunetan adostasuna lortzeko ezinbestekoa da etengabeko harremana lortzea, iraunkorra eta jarraitua izango dena. Harreman estua bai, baina bakoitzak bere esparruari eutsita. Azken batean, interlokuzioa egon badago, formalismo hutsean geratu gabe ahalegin handiagoa eskatu behar zaio HPSri sektorearekin adostasunak lortzeko, sektoreak borondate irmoa duelako horretan. Azken baieztapen hori ez da sektorearen interes partikularrean oinarritzen, baizik eta euskararen normalizazioan oinarritzeko sektore garen aldetik ezinbesteko jardun garenaren konstatazioan”. (D41)

Adostasuna landuta ekidin daiteke hartzen diren erabakiak aldebakarrekoak izatea, Delphiari erantzun dion hedabide bateko ordezkariaren arabera. Eta horrekin batera dio, sektoreari duen garrantzia eta egindako lana aitortu beharko litzaizkiokeela.

“Sektorearen eta Jaurlaritzaren harremanak ona izan beharko lukeela uste dugu, baldin eta euskararen normalizazioan eragin nahi bada. Sektorea indartsua da, eta horri duen garrantzia eman behar zaio, egiten den lanak aitorten bat merezi du. Erabakiak hartzeko orduan sektoreak zeresana eduki behar duela iruditzen zaigu gainera, ez dugu uste erabakiak alde bakarrekoa izan behar duenik”. (D37)

Eta bada Eusko Jaurlaritzari eskaera zehatzagorik egiten dionik ere. Ondoren datorrenaren ustez, administrazioako ordezkariak bertatik bertara ikusi eta ezagutu beharko lituzkete egiten duten lana eta dituzten behar zehatzak, diru-laguntzen kudeaketa egiteko orduan, ezagutza horretaz baliatu daitezten.

“Herrietara etorri eta zer lan egiten dugun ikusi beharko lukete, zer nolako azpiegiturak edota baliabideak beharko genituzkeen... eta gero Jaurlaritzak, hedabideentzako planak eta formakuntzak antolatzea ere ez legoke gaizki. Diru-laguntzak emateko orduan gure hedabideen kalitateaz, irismenaz eta abar mintzo dira, baina apenas ezagutzen gaituzte kasu askotan”. (D17)

Hortaz, azken ekarpenetan bildutakotik agerikoa da euskara hutsezko hedabide inprimatuek bi oinarritzko eskari zuzentzen dizkiotela administrazioari; sektoreak egikaritzen duen funtzio sozialaren aitortzea eta, bigarrenik, finantziarioa bermatzea.

“Betetzen dugun funtzio soziala kontuan izanda, interes publikoko enpresa da [gurea], baita gainontzeko euskarazko hedabideak ere. Baina ez dugu jasotzen instituzioetatik gizaratean betetzen dugun zeregin horren mailako tratuerik. Horrek zaildu egiten du gure komunikazio proiektuak eta sektore osoak dituen erronkei aurre egiteko beharko genukeen babes publikoa lortzea”. (D28)

Arestiko paragrafo horretan bildutako hitzek parez pare zabaltzen dituzte atek Delphiaren azken atalaren azterketari ekiteko: etorkizunari begira euskarazko hedabide inprimatuek eta Eusko Jaurlaritzak dituzten zeregin eta erronkei buruzko atala hain zuzen.

5.5.4. ETORKIZUNARI BEGIRA: SEKTOREAREN ETA JAURLARITZAREN EGITEKOAK

Iritzi aniztasuna da, zalantzarik gabe, aurrera begirako ikuspegia lantzeko atalaren ezaugarri bereizgarri nagusia. Horren lekuko “Nola irudikatzen duzu sektorea hemendik hamar urtera?” galderari emandako erantzunak. Lau multzotan sailkatu daitezke:

1.- Baikorrek. Galderari heldu dioten guztietatik (27), laurdenak, zazpiak, uste dute hamar urte barru euskarazko hedabide inprimatuen sektorea hobeto egongo dela. Euskal komunikazio-esparru oparoagoa iragartzen dute, kantitateari zein kalitateari erreparatuta.

“Hamar urteko epean, idatzizko euskarazko hedabideak kalitatean eta kantitatean haziko dira”. (D24)

“Bere ajeekin, euskarazko hedabideak izango direla ziur naiz. Berregituratuta eta egungo ezaugarrietara egokituta, egungo merkatu tradizionalak hein handi batean eutsiko dio bere lekuari. Eta, era berean, teknologia berrien abantailen abaroen, komunikazio esparru aberatsagoa eta anitzagoa sortuko delakoan naiz”. (D41)

“Nik osasuntsu irudikatzen dot sektorea 10 urte barru. Mota guztietako egunkari eta aldizkariak egongo dirala uste dot, papelean zein digitalak”. (D42)

Eta ez bakarrik kalitatezko eskaintza handiagoa, harremanen arloan ere egoerak hobera egingo duela diote baikorrek. Administrazioa eta sektoreko eragileak besoz beso lanean, hizkuntza komunitateak behar duen ekosistema eraikitzeko ahaleginean.

“Plan estrategiko sakon eta epe luzeko baten aplikazioan imajinatzen dut 10 urte barru. Administrazioa eta herri ekimeneko hedabideak elkarlanean, helburuak konpartituz, bitartekoak diseinatuz eta behar beharrezko den ekosistema hori eraikiz, eta ekosistema hori hiztun komunitatearen andamio izan dadin, eta horretarako hiztuna audientzia eta eragile izan dadin politikak bideratuz”. (D14)

2.- Ezkorrak. Hamar dira. Aurretik baikor moduan aurkeztutakoen beste muturrean daude. Multzo honetan kokatzen diren hedabideetako ordezkariak uste dute baliabideen faltak eskaintza murriztuko duela.

“Mucho peor, menos medios porque habrá muchos menos recursos. La crisis ha venido para quedarse un par de décadas más. [El nuestro] no vivirá, seguro”. (D43).

“Euskaraz idatzizko hedabideen sektorea hemendik 10 urtera egungoa baino murriztagoa izango da”. (D31)

“Hamar urte barru? Egungo dinamika aldatzen ez bada, seguruenik, euskarazko hedabide gutxiago izango dira”. (D15)

3.- Gaurko egoera bertsua irudikatzen dutenak. Erantzun guztietatik beste laurden bat dira (7). Sektorearen mapa, hau da, eskaintza antzekoa izango dela diote eta hedabideen ahalegina egunean egunean irautera bideratuko dela, beti aurrera egiteko zailtasunekin. Horren erantzukizuna, zenbaitek, erakundeei leporatzen diote.

“(…) horiek [erakundeek] ez badute behingoz euskarazko hedabide guztien aldeko apustu irmoa egiten, 10 urte barruko egoera, duela 10 urtekoaren berbera izango da: egunean-egunean bizi, aurrera urratsak egiteko zailtasunekin”. (D35)

“Gaurko antzera irudikatzen dugu, ez dugu uste aldaketa nabarmenik egongo denik. Gure kasuan, bai onerako zein txarrerako antzera egongo gara”. (D38)

“Hamar urte barru oso antzekoa ikusten dut sektorearen mapa”. (D22)

“Kosta egiten zait orain baino askoz hobeto egongo dela irudikatzea”. (D3)

4.- Pronostikorik, ez onerako ezta txarrerako ere, egiten ez dutenak (3). Horietako batek berak ordezkatzeko duen argitalpenari egokitzen dio hamarkada batera luzatutako begirada, baina hala ere, aipatu denboran idatzizko edozein hedabideri eragingo dioten hainbat faktoreren errebasoa egiten du; hala nola, paperezko euskarrian kontsumitzen dutenen zahartzea eta harpidedunei eusteko zailtasunak, gazteen kontsumo-ohitura berriak edota sareko edizioetatik errentagarritasun ekonomikoa lortzeko ezintasuna.

“Ez zait erraza egiten hemendik 10 urtera euskaraz idatzizko hedabideen sektorea irudikatzea. Etxetik hasita, jakin badakit gure kontsumitzaileen bataz besteko adina goraka doala, erreleboa bermatze aldera harpidetza kopuruei eustea izugarritzeko lana dela, belaunaldi gazteek paper gutxi kontsumitzen dutela eta edizio digitalen bideragarritasun ekonomikoa buruhauste izugarria dela. Aldaketa garaian gaude, bereziki hedabideen sektoreak eta hamar urte asko dira gauzak garbi ikusteko”. (D26)

Bigarrenak dio teknologiak sektorean eragiten duen aldaketaren abiadurak merkatuaren aldaketa dakarrela eta horrek zaildu egiten duela hamar urtera begirako pronostikoa egitea.

“Zaila da etorkizunari begira aritzea. Sektorea azkar ari da aldatzen, teknologiak eraginda-eta merkatua aldatzen ari da”. (D37)

Eta hirugarrenak asmatzeko ezintasuna aitortzen du lehenbizi, baina ondoren dio digitala nagusituko dela.

“Eta hemendik hamar urtera? Asmatzen duenari Pulitzerra...(…) Hamar urte barru digitala ikusten dut jaun eta jabe, eta zail egiten zait papera irudikatzea”. (D2)

Ia-ia beste horrenbeste gertatzen da euskal hiztun komunitateak beharko lukeen esparru komunikatiboa deskribatzeko eskatzen zaienean. Kasu honetan 24 hedabideek⁷⁹⁵ erantzun zioten galderari eta, sektorea hamar urtera nola ikusten duten galderarekin gertatu bezala, orain ere askok diote zaila dela proposatutako zeregina

⁷⁹⁵ .- Ez dira sektorea hamar urtera nola ikusten duten galderari erantzun dioten berberak. Izan ere, zenbait kasutan, hedabide batek galdera biei buruzko idatzizko ekarpena egin du, baina beste askotan galdera bati erantzun dio eta besteari ez (edo alderantziz).

burutzea. Zailtasuna arrazoiz janzteko, berriro erabiltzen da inprimatuen sektoreari eragiten dion aldaketaren azkartasuna.

“Euskal hiztun komunitateak behar duen esparru komunikatiboa zein den zehaztea ez da lan erraza. Nire ustez ezin liteke kopuru zehatz batean kuantifikatu, ezin da esan zenbat eta nolako komunikabideak behar diren”. (D33)

“Zaila da zehaztea euskal hiztun komunitatean behar duen esparru komunikatiboa zein den. Eta are zailagoa prospektiba azkar bat egitea etorkizunera begira. Hain ari da azkar aldatzen merkatua, hain ari dira azkar aldatzeko kontsumo joerak, teknologia eta abar...” (D8)

Zailtasunak zailtasun, irakurritakoaren arabera, bi multzo argi daude; batetik, heren batek (8) egungo mapa komunikatiboaren oso antzekoa marrazten du. “Nahikoa lan izango dugula daukagun `mapa´-ri eusten” dio horietako batek (D2). Beraz, hala ikusita, euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen den egunkari bat legoke, birentzako ez omen dagoelako lekurik, eta, horrekin batera, udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariak, informazio orokorreko aldizkariak eta espezializatuak eta udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak (tokikoak).

“Oraingo maparen oso antzekoa. Uste dut hemen inor ez dela paratxutista bat. Bultzada, ekimen eta arrazoi ezberdinengatik osatu da gaur egun dugun mapa komunikatiboa”. (D22)

“Etorkizunari begira, eta idatzikoei dagokienez, uste dut nahikoa lan izango dugula daukagun “mapa”-ri eusten. Logikak dio maiztasunak aldatuko direla (egunkariak astekari edo astean bitan), bateratze prozesuak gertatuko direla (eraginkorrago izateko) eta gutxiengo zabal bati zuzendutako produktuak izango direla (masiboki banatu izan diren tokikoek dute hor erronka, irizpidea aldatu beharra). Etorkizun hori denok onartu behar dugu, hedabideok eta erakunde publikoek. Paperezko idatzizkoak hedabide masibo izateari utziko dio etorkizunean”. (D2)

Bigarrenik, egungo eskaintza baino zabalagoa irudikatzen dutenak daude (13). Iritzi hori defendatzen dutenengan asko dago desiotik, eta mapa zehatza marrazteko orduan, hainbat aukera desberdin plazaratzen dituzte, ia iritziak beste. Edozein kasutan, apalenetik hasita, ahalik eta gehienera jotzen duen mailakatzea nabari da

ekarpenetan. Apalenak egungo egoeratik abiatu eta apurka-apurka argitalpen berriak, bereziki aldizkari espezializatuak, izango lituzkeen mapa aurkezten du.

“Sortuta daudenak egonkortu behar dira lehenengo eta bat, eta horiek egonkortu ahala, berriak sortzen joan. Etorkizunean informazio aldizkari espezializatu gehiago irudikatzen ditut”. (D18)

Maila bat gorago legoke hurrengo proposamena; ezaugarriei dagokienez, antzekotasun gutxi duten bi hedabide desberdinetatik iritsitakoa; baina, esan bezala, ia kopia hutsa den mapa marrazten dute: hauek bi egunkari nazional eta, horrez gain, herri bakoitzeko hedabide bana proposatzen dituzte. Biek egiten dituzten proposamenen arteko aldea informazio orokorreko eta espezializatuko arloan kokatzen da.

“Zaila da zehaztea zein den euskal hiztun komunitatean behar duen esparru komunikatiboa. Baina behetik jota, gutxienez, hedabideen mapak izan beharko luke: egunkari nazional BI, informazio espezializatuko aldizkariak, espezializazioko bana, eta eskualde eta herri bakoitzeko komunikabide bana”. (D31)

“El espacio comunicativo de la comunidad vascohablante es difícil de precisar, pero podrían ser dos periódicos que se distribuyan en toda la geografía vasca + varias revistas de información general y de información especializada + un medio de información local en cada pueblo”. (D43)

Eta beste muturrean leudeke gainontzekoak; bide batez esateko, gehienak dira. Horientzat mapa komunikatiboa ahalik eta zabalena, oparoena beharko litzateke izan; egun jorratu ez dituen esparruak, esaterako kirol-esparrua ere barne hartu beharko lukeena.

“Esparru komunikatiboak ahalik eta zabalena izan beharko luke. Zaila da kuantifikatzea zenbat hedabide izan beharko lirartekeen baina, adibidez, ahalik eta esparru gehien jorratu beharko lirartekeela uste dugu (adibidez, ez da euskarazko kirol-prentsarik - Marca antzeko zerbait)”. (D15)

“Euskal hiztun komunitateak behar duen informazio oro euskaraz izatea da etorkizun ideala. Eta hor, denek dute lekua: hedabide nazionalak, tokiko hedabideek, astekariak, hilabetekariak, gai edo esparru ezberdinetan espezializatutakoek... (...) Orduan eta hedabide gehiago, orduan eta aukera gehiago izango du euskal komunitateak behar duen hori euskaraz izateko”. (D34)

“Alde batetik, informazio orokorreko komunikabide nazionalak behar dira, bestetik eskualde guztietan tokiko komunikabideak eta, azkenik hainbat komunikabide espezializatu”. (D36)

Apustu maximalista egiten dutenen ikuspegia ondo laburbiltzen ditu ondoko lerroak idatzi dituen hedabidearen ordezkariak. Horrek dioen bezala, euskarak beste edozein hizkuntza normalizatuk duen eskaintza bera izan beharko luke, aniztasuna bermatzeko bestekoa, denetarikoa.

“Euskal hiztun komunitateak behar duen esparru komunikatiboa? Edozein hizkuntza normalizatuk duena. Begira dezagun erdarantz: erdarazko hedabideek kioskoetan betetzen duten espazioa eta eskaintza aniztasuna nahiko nituzke euskararentzat ere. Jakina, komunitate txikia garela oso presente eduki behar da, eta beraz, ez dugu gehiegizkorik eskatuko ere. Baina gutxienez egunkari nazional bat (gehiago balira, hobe), informazio orokorreko eta espezializatutako aldizkariak egun baino gehiago daudenak (espezializatuena kasuan, esparru edo alor ugari ditugu oraindik jorratzeke), tokiko aldizkari sare hedatu bat, aisialdiko aldizkariak...Finean, ugaritasuna eta aniztasuna bermatuko duen esparru komunikatiboa. Batez ere aniztasuna: izan dezagun denetarik. Nerabeentzako aldizkari txorua, komikiak, arrantzari buruzko aldizkaria, informatikari buruzkoa, kolore politiko ezberdineko aldizkariak”. (D41)

Azkenik, erantzun duten gainontzeko hiru hedabideen iritziz, euskal hiztun komunitateak behar duen mapa komunikatiboa aldakorra izango da eta unean uneko merkatuak, irakurleen beharrek zehaztuko dute.

“Hedabideen mapa "ideala" aldakorra izango da, momentuko beharretara egokituko baita”. (D46)

“Komunikabideen kopuru eta izaerak merkatu baten beharrei erantzun behar die”. (D33)

“Hiztun komunitatearen barne indarrak eta kontsumoak marraztuko du, zati handi batean, etorkizuneko hedabideen mapa, berdin nazio mailan zein herri eta eskualde mailan”. (D26)

Arestian aurkeztutako multzo batean zein bestean kokatu, etorkizuneko euskarazko hedabideen mapa diseinatzerakoan, deigarria da tokikoei buruzko iritzia ematen denean, gehienek eskualdekako formula bultzatzearen alde egiten dutela. Eta hala egiten da, eskualdeka lan egitea tokikoentzako formularik eraginkorra izan

daitekeela uste dutelako. Eraginkorrena, gainera, bi arlori erreparatuta; batetik, ekoiztutako produktuari eta lan-baldintzei dagokionez,

“Eskualdeko formula da bultzatu beharko litzatekeena. Uste dut hau dela eutsigarri eta eraginkorrena den entitate txikiena. Horrela bakarrik hobetu daitezke proiektuak, pertsonetan inbertitu, baldintzak hobetu, kazetaritza duina egin, produktu konpetitiboak egin (konpetitzekoak gazteleraz daudenekin)...” (D1)

Bestetik, eraginkorrena baliabide ekonomikoen kudeaketari dagokionez. Eta baliabide ekonomikoen barne leudeke eskuratutako diru-laguntza publikoak.

“Gure ustez, eskualdeko aldizkari/egunkariak bat egin behar dira. Tokian tokiko hedabideak behar dira, baina herri txiki bakoitzak bere propioa izan gabe. Horrela diru laguntzak ere foko bakar batean zentratuko ziren, eta baliabideak (ekonomikoak, giza-baliabideak, materialak) denok konpartituta emaitza askoz hobea aterako litzateke. Noski, aldizkari edo egunkari horretan herri bakoitzak bere protagonismoa izan beharko luke, eta hori bermatuta egon”. (D7)

Formularen oinarritzko unitatea, beraz, eskualdea litzateke. Baina ez da formula bakarra, ezta derrigor aplikatu beharrekoa ere. Kasu bakoitza aztertu beharko litzateke, zenbait egoeratan, eskualdeka antolatzeak ez lukeelako efikazia ziurtatuko.

“Tokiko informazioa ere eskualdeka egin liteke, baina eskualde batzuk ez dute komunitate izaerarik, hortaz, kasu horietan ez da oso efikaza. Hortaz, errealitate bakoitzaren arabera aldatu egiten da mapa hori, orokortasunetik ezin da mapa zuzenik osatu”. (D46)

“Argi dago eskualdeka batzeko pausu hori kasu batzuetan ezin daitekeela egun batetik bestera eman, eta badirela herrika oso ondo funtzionatzen duten hedabideak ere. Beraz, herrika edo eskualdeka jarduteko aukera kasuan kasu aztertzeko kontua izan beharko litzateke”. (D9)

Etorkizunari begira jarritako atalean, euskara hutsezko inprimatuen sektoreak eta Eusko Jaurlaritzak burutu beharreko zereginari buruzko hausnarketa eskatu zitzaizkien hedabideei, eta denek heldu zioten proposatutakoari, gogotsu ekin gainera.

Sektoreak dituen zereginetatik hasita, batzuk etxe barrukoak, hau da, partikularrak garandu dituzte lehenbizi. Eta ondoko lerroetan irakurri daitekeenez, denetarik dago: belaunaldi-erreleboa ziurtatu, sare sozialetan duten presentzia sendotu, publizitatea eta harpidetza landu, langile gehiago kontratatzeke aukera izan, eskualdean funtzionatzen hasi...

“Gurean hasteko belaunaldi aldaketa finkatzea. Sortzaileek utzi egin dute eta kostatzen ari zaigu talde berria egonkortzea.

Sare sozialetan badaramatzagu hiru urte. Oso emaitza interesgarriak lortu ditugu baina asko hobetu dezakegula iruditzen zait. Webgune berria oraintxe estreinatzen dugu eta inpultso berri horrekin sareko jardunean koska bat gora egin beharko genuke. Aurrera begira webguneak badauzka, azken bertsio honek, hobetzeko hainbat gauza (baina garestiak dira). Ikus-entzunezko gehiago ere egin beharko genituzke.

Marka zabaltzen lan gehiago egin beharko genuke. Eta noski, publizitatetik eta harpidetzetatik gehiago ateratzeko gai izan.

Ederra litzateke pare bat soldatapeko langile izateko gaitasuna lortzea. Horrek bestelako lan bolumen bat ziurtatuko luke, ziurrenik”. (D3)

“Gure kasuan Tokikomen modu aktiboan parte hartzen jarraitzea eta hazteko eta egonkortzeko bidea emango ligukeen eskualde mailako egitura sortu ahal izatea lirerateke erronkak”. (D13)

Bakoitzaren etxean egin beharrekoek gain, edo egiteko asmoa dagoenaz gain, Delphian parte hartu duten guztiek, euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak orokorrean dituen zereginak bildu dituzte. Jasotakoaren arabera, adostasun handia islatzen da ekarpenetan. Zenbait kasutan, zaila da hedabide inprimatuek planteatu dituzten egitekoak banaka edo elkarrengandik berezitatea aurkeztea. Izan ere, denak interpretatu daitezke sare baten osagai gisa, koadro bati esanahia ematen dioten elementu gisa. Hala ere, hemen hamaika zeregin aurkeztuko dira zerrendatuta, gehien errepikatzen diren kontuetatik hasi eta gutxien errepikatzen direnetara.

1.- Garai berrietara egokitu eta berritu. Ekoizten dituzten produktuak birpentsatzeaz ari dira, kontsumitzaile berrien errelebo-etzari aurre egiteko eta herritarren komunikazio-tresna izaten jarraitzeko.

“Etorkizunean euskal eta herritar oroien komunikazio tresna izaten jarraitu behar dute! Garai berrietara egokitu eta herritarren beharrak asetzeko gai izan behar dute, bidean hamaika oztopo aurkituta ere”. (D17)

“(…) belaunaldi errelebo nahikorik ez dator idatzizkoen harpidedunetan eta, beraz... geure produktuak birpentsatu beharrean gaude. Hainbestetan aipatzen dugun ‘etengabeko berrikuntza’ delakoa estrategia eta akzio zehatzetan gauzatu beharra dugu, sektorean eta geure etxean”. (D26)

Xede hori lortzeko jarraitu beharreko bidea nondik nora doan ere sarri aipatzen da. Adar ugari dituen bidea litzateke, baina adarrik sendoenak, bai ala bai ibili beharrekoak berrikuntza teknologikoak idatzizkoetara ekarri dituen erronka eta zereginen marka darama. Hau da, behin eta berriro esaten da sarean, edizio digitaletan eduki erakargarriak kokatu behar direla; hala egiteak eman diezaiekeelako gainbalioa hedabieari. Bitartean, paperezko euskarria ez litzateke desagertuko, baina nagusi izatetik osagarri izatera igaroko litzateke eta horretarako ere, erakargarritasuna helmugatzat dituzten formulak arakatu eta martxan jarri beharko lituzketela diote. Adierazitakoaren adibide ondoko hiru ekarpenak.

“Irakurtzeko ohiturak erabat aldatu diren honetan, online irakurketa hainbeste orokortu den honetan, idatzizko hedabideok eta kazetariok asmatu behar dugu online webguneetan kalitateko narratiba erakargarria sortzen, ondo dokumentatua eta ilustratua, sarerako espreski sortutako tresnak baliatuta (erreportaia interaktiboak egiteko tresnak, datu-kazetaritza esplotatzeko tresnak, argazki galeriak eta abar). Eta horrekin batera, papereko idatzizkoak eskaini behar du zerbait desberdina, zerbait harrizko zaituena, erakarriko zaituena, bezperako gertaera hori ulertzen lagunduko dizun analisia puntu hori eskaini behar dizu”. (D8)

“Geroz eta argiago ikusten den bilakabidea zera da, gure ustez: produzitzen dugun informazioaren “erabilera balioa”, hau da, informazioaren balio praktikoa, edizio digitaletan hartuko dute. Paperezko medioek “kapital sinbolikoa” mantenduko dutela uste dugu, hau da, publikoak paperezko prentsa hedabide horri dion atxikimendu erakusle gisa erabiliko duela. Beraz, gure paperezko produktuek erronkari eusteko eremu sinboliko horretan zerbait eskaintzeko gai izan beharko dute”. (D28)

“Paperak digitalaren osagarri izan behar du, bestela akabo. Horrek egokitze prozesu bat ekarriko du ezinbestean: maiztasunak aldatu beharko dira (egunerokoak oso zail du, oso zaila eta garestia delako egunero produktu landua eskaintzea; eta irakurlearentzat ere “gehiegi” izan daiteke); kazetaritza moldeak berrikusi beharko dira (oinarrietara itzuli beharko da kazetaritza: iturriak zaindu, informazioa kontrastatu, albisteak ondo landu...), erredakzioak berrantolatu (soilik idaztera mugatzen diren erredaktoreen garaia bukatu da)...” (D2)

Arestikoaren azken esaldian beste era bateko zereginak ageri dira, hedabideetan lan egiten duten profesionalen kualifikazioarekin zerikusia dutenak. Beraz, produktua garai berrietara egokitzeko eta berritzeko funtsezkoa izango da berau

lantzen dutenen etengabeko prestakuntza. Hala nabarmentzen da Delphian bildutako ondoko hitzetan.

“Etengabeko prestakuntza, berrikuntza, webguneen negozio ereduarekin asmatzea, sare sozialak, gazteengana heltzea...” (D9)

Euskarri digitalak garatu, papera edukietan sakontzeko osagarri bihurtu eta profesionalen formazioa sakondu lirateke derrigor heldu eta ondo jorratu beharreko adarrak, hedabide inprimatu gehienek azpimarratu duten lehen zeregina arrakastaz burutzeko. Bigarren zereginak, berriz, hartzaileei begiratzen die.

2.- Irakurleak fidelizatu eta erakarri/ irakurlegoa handitu. Hizkuntza gutxitu batean ari den hedabide inprimatu batek dituen mugak aintzat hartuta, ahalik eta publiko zabalenarengana heltzea planteatzen da erronka moduan. Hots, irismena.

“Plataforma eta bide desberdinen bidez, sortzen dugun eduki hori ahalik eta gehien zabaltzea lortu behar dugu, baina kontuan izan behar da ez dela hedabiderik publiko potentzial ia guztiarengana iristen denik. Eta kontuan hartuta euskarazko zailtasun areagotua dugula, hizkuntza gutxitua izatean”. (D8)

Eta irismena hobetzeko logikoa izateaz gain, funtsezkoa izango da produktu onak, kalitatezkoak, erakargarriak eskaintzea. Horretarako, idatzikoek diote berebiziko garrantzia izango dutela aurretik garai berrietara egokitzeari loturik azaldu diren kontu guztiak; hala nola, teknologia eta euskarri berriak baliatzea.

“Horretarako, kontsumo-bide berrietara egokitu beharko da eskaintza, hala nola mugikorretara eta tabletetara, eta kontsumo-denborek duten beheranzko joeraren arabera edukia eskaini beharko dira”. (D29)

“Hori bai, teknologia berriak gutxiago edo gehiago erabilia ere, erronka berbera dugu denok ere: geroz eta produktu hobea eta erakargarriagoa sortzea, oraindik eta kontsumitzaile gehiagorengana iristeko”. (D41)

3.- Merkatuan dauden hutsuneak identifikatu eta hartzailearen/ kontsumitzailearen/ herritarraren nahi eta beharrekin bat egiten duten kalitatezko produktu erakargarriak eta konpetitiboak ekoiztu. Azken batean, euskarazko produktuen eta kontsumitzaileen merkatua sortzeaz ari dira.

“Ez bakarrik sektorearentzat, euskararentzat ere erronka bada eta. Merkatua sortzea, euskaldunak euskarazko produktuetara erakartzea da, euskaldun gehien-gehienek ez baitute euskarazko prentsarik irakurtzen”. (D11)

Delphi bidezko ekarpenetan behin eta berriro dagoen hirugarren egiteko hau eta dagoeneko azaldu diren aurreko biak ideia beraren hiru aurpegi dira: euskarazko hedabideek garai berrietara egokitu behar dute produktu hobek, kalitatezkoak, konpetitiboak, erakargarriagoak egiteko eta, horrekin batera, dagoeneko badiren kontsumitzaileak fidelizatzeko eta oraindik ez direnak erakartzeko. Eta zeregin edota erronka horiek denak euskararen erabilera sustatzeko eta, hala eginez, hizkuntzaren normalizazioan agente eraginkor bilakatzeko.

“Alde horretatik eta kontutan izanda, gure helburu nagusia euskararen normalizazioan eragin eta erabilera maila sustatzea dela, ahalik eta publiko zabalenera iritsarazteko erronka da esku artean daukaguna. Horretarako ezinbesteko baldintza da, benetan publikoaren interesa erakarri eta jendea gure produktuak kontsumitzera erakarri nahi badugu, eskaintzen diren edukien kalitatea, izaera eta formatua merkatuko beharrei egokitzea”.(D33)

“Produktu konpetitiboak bultzatzea. Daudenak ez dira txarrak, baina merkatuan dena kontra izanik, hoberenak izan behar dute. Produktuaren kalitateak erakarriko ditu irakurleak”. (D11)

“Etorkizunera begira sektoreak irakurleen eskaera sustatu beharko luke, hots, irakurleek euskarazko hedabideak eskatu beharko lituzkete, adibidez, El Correo eskatu beharrean Berria eskatzea. Nola lortu hori? Produktu erakargarriagoak eginez”. (D15)

Beraz, euskara hutsezko hedabide inprimatuaren lehentasuna beharko litzateke izan hartzaileei, eskariari, merkatu potentzialari egokitutako eskaintza lantzea. Eta egokitutakoa bi zentzutan: formari, euskarriari erreparatuta eta edukiari erreparatuta.

“Gure lana ez da proiektuak sortu eta argitaratzea bakarrik baizik eta jendeak eskatzen dituen eduki eta euskarri motak beraiei eskaintzea”. (D33)

Horretan asmatu behar dutela diote euskarazkoek, herritarren interes eta beharrek ezkontzen diren produktuak sortzen asmatu beharko luketela.

“Gizartearen beharretara egokitzen asmatu beharko luke euskarazko prentsaren sektoreak. Beste hizkuntza batzuetan sortutako prentsara ez dezatela jo beharrik izan irakurleek euren beharra edo interesak asetu ahal izateko. Horretan asmatu beharko genuke”. (D17)

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Azken batean, Delphian parte hartu zuen hedabide bateko ordezkariak azaldu zuenez herritar/irakurle/kotsumitzaile bakoitzaren premia, nahi eta gustuetara egokitutako eskaintza izan beharko litzateke. Norberaren neurriak kontuan hartuta josten den soinekoarekin gertatzen den moduan, %100ean pertsonalizatua.

“Herritar modura, nire premia, nahi edo gustuetara egokitutako komunikazio eskaintza pertsonalizatua. Horrek zer esan nahi du, praktikan: kanal bakarrean (ez dakit hamar urte barru izango den webgunea, aplikazioa edo dena delakoa) nik jaso ahal izatea euskaraz, munduan, Euskal Herrian eta nire herrian gertatzen diren nire intereseko albisteak. Adibidez: XX-k nahi ditu Estatu Batuetako saskibaloiko albisteak + Euskal Herriko politikari buruzkoak + bere herriko albiste guztiak + lan egiten duen herriko albisteak + eskualdeko kultur agenda. Horiek dira bere interesguneak; informazioaren menua bere nahien arabera aukeratzen utziko dion kanala nahi du. Bada, hori eskaintzeko kapaz izango den ekosistema antolatu beharko du euskarazko hedabideen sektoreak”. (D2)

4.- Diru-sarrera propioak handitu. Honezkero azaldu diren zereginak gauzatzeko dirua behar da. Euskaraz zein beste edozein hizkuntzatan. Kontua da euskarazkoen diru-sarrera propioak txikiak direla eta horiek handitzea, “biderkatzea” batek dioen moduan, bete gabe duten erronka dela. Formula, ekarpen batean jasotakoaren arabera, kontsumitzaileek euskarazko hedabideekiko duten atxikimendu emozionala sostengu ekonomikoa bihurtzea litzateke, horrek bideragarritasuna bermatuko lukeelako. Koska da hori nola egin.

“Etorkizunari begira, euskarazko idatzizkoen sektoreak duen zeregin nagusia honakoa da: diru iturri propioak biderkatzea ekonomikoki geroz eta autonomoagoak izateko. Harpidetzak, bazkidetzak, sustapenak, salmentak, azokak, outletak... indartzea, iturri propioak finean, erakunde publikoen eta gizartearen konpromiso eraginkorra iritsi bitartean”. (D31)

“Erronka da atxikimendu emozionala sostengu ekonomiko bihurtzea. Harpidetza-bazkidetza formula klasikoak ez ditu belaunaldi berriak erakartzen. Beste formula batzuk landu dira (Berri laguna, bazkide klubak...), baina hor badago lan handia egiteko”. (D2)

5.- Euskaraz ari den sektoreko hedabideen arteko sarea josi. Txikietatik hasi eta handiagoak diren hedabideetara zabalduko litzatekeen sarea. Eta ez bakarrik publikoak ez diren hedabideen artekoa, baizik eta publikoak ere kontuan hartuz. Horrek segurtasuna eta babesa ekarriko lituzkeela diote.

“Sare oso eta handi bateko kide izateak ematen duen segurtasuna eta babesa ere ezinbestekoa dugu. Eta behin tokikoen arteko sarea josita, tokiko eta nazionalen artekoari heldu behar diogu. EITB eta TOKIKOMen arteko akordioa, horren adibide da: TOKIKOMek maiz aipatu izan duen bi solairuko etxea (non beheko solairuan tokian tokikoak gauden, eta goikoan nazionalak), igogailuak behar ditu, solairu batetik besterako bidea erraztuko dutenak”. (D19)

6.- Sektoreak bere buruan sinistu eta sektore bezala funtzionatu, egiten duen lana balioetsiz. Adierazitakoa aurrera begirako zereginen artean kokatzea esanguratsua da. Zenbait ekarpenetan iradokitzen da hedabide bakoitzak bere etxe partikularrari begiratzuz jarduten duela, sektorea bere osotasunean kontsideratu gabe. Horrela aritzeak indarrak eta aukerak galtzea dakarrela diote.

“Alde batetik, eragileen arteko elkarlana bultzatu beharko litzateke, sektorea oso atomizatuta baitago. Elkarre, talde, fundazio, udal,... bakoitzak bere aldizkaria edo agerkaria kaleratzen du, eta kitto. (...) Indar eta aukera asko galtzen dira jada beste batek egindako lana errepikatuz, eskualde batean hamaika aldizkari zabalduz eta beste batean, berriz, bat ere ez. Euskaltzale ugari gara, baina oso indibidualistak. Norbera bere agerkaria lantzen du, sarritan albokoa egiten duena ezagutu edo kontutan hartu gabe”. (D5)

Hori baino gehiago, sektore moduan funtzionatzeko egin beharrekoak ere plazaratzen dituzte: iraganean eragindako zauriak alde batera utzi eta militantzia garaiak gainditu behar direla dio batek.

“Sektore bezala, aurren aurrea sektore garelara sinistu behar dugu, oraindik ere zalantzak izan ba bait dira. Eta behin halaxe sinistuta, sektore gisara jardun, norberaren egoera baino, guztiena kontutan hartuta, noski, norberak bere etxeari ere begiratzeari utzi gabe. Eta elkartzerako orduan, ezinbestekoa da garai bateko zauriak alde batera uztea. (...) Militantzia garaiak gainditu eta baloreen jarri behar dugu egiten duguna”. (D19)

Beste batek, berriz, elkarren arteko lehiakortasunak eta errezeloak eragindako kalteak aipatzen ditu, horiek liskar-iturri izateaz gain, sektorearen ahulezia azaleratzen dutelako.

“Finantziario iturri-arazoak aparte, euskal hedabideek gainditu beharreko arazoetako bat da elkarren arteko “lehiakortasuna”. Diru faltak, diru laguntzen irizpideek, kompetentziak, publizitateak... eta beste hainbat faktorek errezeloak sortzen dute batzuen eta besteen artean. Euskal hedabideek bizi duten egoera ikusita, ondokoa arerio baino gehiago bidelagun gisa ikusi beharko genuke. Eta gehiago etortzen badira, ontzat hartu. Askotan hainbat faktore gehitzen dira:

hedabide berriak sortzen dira, diru laguntzen poltsa ez da handitzen, irizpideak aldatzen dira... eta horiek liskarrak sortzen dituzte gure artean, euskal hedabideek dituzten ahulguneak azaleratzen dira”. (D34)

“Argi dago tarta berdina banatzen den bitartean, bati puska handiago emateko besteari txikiagoa eman behar.(...) Estrategia komun baten aldeko eragile gisa jokatu beharko genuke, eta ez tarta puska handiago lortzeko lehiakide gisa”. (D23)

7.- Sektorea alderdi/estrategia politikoaren amaraunetik askatu. Euskara hutsezko hedabideen sektorearen lana “marka politikoekin” kateatzen dela aitortzen dute eta iradokitzen da hala izateak ez duela mesederik egiten. Are gehiago, lotura horretatik askatzeko komenientziaz mintzatzen dira.

“Euskarazko hedabideen sektorearen estrategiak alderdi politikoaren estrategien prisma berriz egiteko joera zabalduta samartua egon da gure artean. Egokiena litzateke poliki-poliki prisma hori gurea moduko hizkuntza gutxitu batek behar duen ikuspegi beregain baterantz joatea, estrategia politikoak eta alderdien estrategiak kontuan hartuz, baina inoren amaraunean katigatu edo altzoan lo hartu gabe. Horrek babes eta indar handiagoa izaten lagunduko liguke gure estrategiak garatu ahal izateko”. (D13)

8.- Euskarazko hedabideen sektorean ari diren langileen baldintzak hobetu eta erreleboa ziurtatu. Zeregina zortzimilako mendi baten tontorrera iristea besteko erronka bilakatu daiteke boluntarioen esku dauden argitalpenetan.

“Gure kasuan, beharrezkoa da langile eta zuzendari gazteagoen esku uztea. Saiakera batzuk egin ditugun arren, gure produktua, ez da inorentzat bizitzeko lanbide. Ezin bada ordaindu, aseguruak moldatu, norentzat izan daiteke erakargarri gisako aldizkari baten ardura hartzea?”. (D20)

9.- Hausnarketa sakona egin eta akordioa landu gizarte eragileekin. Hausnarketa partekatua eta orain arte egin denaren parametroetatik harago landutakoa beharko litzatekeela izan diote. Hau da, euskarazko hedabideak eta administrazio publikoaren arteko harremanei ez ezik, euskal gizartearekiko eta hizkuntzaren normalizazioarekiko duten funtzioari eta eraginari helduko dion hausnarketa.

“Euskarazko hedabideok euskaldunon bizitzan, euskararen biziberritzean, euskararen normalizazioan eta abar dugun funtzio eta eraginaz hausnarketa partekatu berriak behar ditugu, gizartea soluzioaren parte eraginkorrago izatea bultzatuko duena. Euskarazko Hedabideak-Erakunde Publikoak ez ezik,

Euskarazko Hedabideak-Euskal Gizartea egoera aztertu eta birbideratu beharra dago". (D10)

Orain arte zerrendatutako bederatzi zereginak sektoreko edozein hedabidek, izan egunerokoak, izan informazio orokorreko edo espezializatuko aldizkariak zein izan tokikoak gauzatu beharrekoak lirateke. Baina Delphi bidezko ekarpenetan badira beste bi zeregin edota erronka ezaugarri bereziak dituzten inprimatuei lotuta aurkezten direnak. Bata aldizkari espezializatuei eta bigarrena tokikoei. Horrek ez du esan nahi horietara mugatu beharko liratekeenik, baina idatzizko ekarpenetan hala jaso dira.

10.- Informazio espezializatua lantzen duten aldizkariak tokikoek landutako biderei jarraitu; hau da, egituratu eta horrekin batera euren ekarpenari buruzko hausnarketa teorikoa landu eta gizarteratu.

"Planteatu beharko litzateke tokikoek Topagunea edo Tokikomek egin bezala espezializatuok zerbait egitea, nolabait egituratzea sektorearen alderdi hori. Eta gure ekarpenaren inguruan teorizatzen hasteko gai izan beharko genuke pixkanaka, diskurtso bat eraiki eta sozializatzeko gai izan". (D3)

11.- Tokikoen kasuan, paperezko euskarrian lortutako erreferentzialtasuna sarean ere lortu eta papera/sarearen artekoa era egokian uztartu.

"Erronka nagusiak dira paperean lortu dugun erreferentzialtasun hori (etxeke buzoi guztietara astero iritsiz lortu duguna) mantentzea eta areagotzea. Eta erreferentzialtasun hori sarean ere erdiestea. Alegia, Interneten: web orriak eta sare sozialetan. Beste erronka polita dugu aurretik: paperaren eta sarearen arteko fluxua uztartzen asmatzea". (D22)

Behin euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak bere buruari jarri dizkion egitekoak aztertuta, administrazioari/Jaurlaritzari dagozkion zereginen txanda iritsi da. Delphian adierazitakoak agerian utzi du euskarazkoek hiru zeregin azpimarratzen dituztela:

1.- Sektoreari bideraturiko laguntza handitu eta, horrekin batera, urte anitzeko deialdiak gauzatu. Ezinbestekotzat jotzen dituzte kontu biak. Diru-poltsa handitu euskarazko hedabideek bizi duten egoera itogarriari aurre egiteko, kalitatezko produktu erakargarriak ekoizteko, langileen lan-baldintzak hobetzeko eta erreferentzialtasunean aurrea egiteko.

“Guk behintzat argi dugu, hizkuntzaren normalizazio erabatekoa erdietsi artean, instituzio publikoek gaur egun egiten dutena baino inbertsio ekonomiko askoz handiagoa egin beharko lukete euskarazko hedabideetan, kalitatean eta erakargarritasunean jauzi bat eman eta sektorean gabiltzan langile eta entitateen lan baldintzak duintzeko”. (D27)

“(…) diru partiden kopuruak ere handiagoa beharko luke izan; orain banatzen dena ez baita nahikoa, estrategikotzat hartu bai baina baldintza egokiak garatzeko aukerarik eskaintzen ez zaion sektorearen eguneroko jardunak erakusten duenez. Oraingo diru-laguntzek ez dute ahalbidetzen hedabideok bizi dugun itolarria apaltzen, eta egoera hori aldatu egin behar da”. (D41)

“Jaurlaritzaren egiteko litzateke, sektorea indartzeko eta eskaintza kalitatezkoagoa izateko beharrezko diren diru-laguntzak bideratzea, irizpideak malgutzea eta sektorearen mesedetan jartzea, sektorearen aniztasuna aintzat hartzea eta arlo desberdinak indartzeko neurriak jartzea”. (D29).

“Eskualdeetan erreferentzia handiagoa lortu behar dogu, eta horretarako behar-beharrezkoa da laguntzak indartzea”. (D42)

Zenbaitek diotenez, laguntzetarako diru-partida handitzea onuragarria da ez bakarrik hedabide bakoitzaren egoerari eta ekoiztutakoari begira, baita hizkuntza gutxituaren normalizazioari begira ere.

“Administrazioak diru eta baliabide gehiago jarri behar du, euskarari benetako garrantzia eman nahi badio”. (D36)

“Sektorea oso garrantzitsua da eta baliabideak handitzea ezinbestekotzat jotzen dugu: euskararen normalizaziorako hizkuntza politika eraginkorra bideratzeko, herri izaera sustatzeko eta sektorea indartzeko”. (D37)

Bestalde, urte anitzeko diru-laguntza deialdiak kaleratzeko eskatzen diote Eusko Jaurlaritzari. Inprimatuen ustez, horrek segurtasuna emango lioke sektoreari, epe luzeko egitasmoak planifikatzeko aukera, urtero-urtero laguntza-eskaera aurkeztu behar izateak dakartzan lan-administratiboak arinduko lituzke.

“Urte anitzeko dirulaguntza hitzarmenak egitea aurrerapauso handia litzateke, proiektuei segurtasuna eman eta hedabide txikiei lan administratiboak arintzeko”. (D13)

“Diru-laguntzak bi edo lau urtean behin kaleratzea egokiago ikusten dugu akaso, horrela elkarteok epe luzeago baterako plangintzak egitea edukiko genukeelako”. (D17)

Urte anitzeko deialdien aldarrikapena Eusko Jaurlaritzari ez ezik, euskarazko hedabideentzako laguntzak esleitzen dituzten administrazio guztiei zuzentze zaie; hau da, baita foru-aldundiei eta udalei ere.

“Laguntzen jasotzaileengan konfiantza izan behar du Jaurlaritzak. Burokrazia murriztu behar du. Laguntzak 2/3/4 urterako eman behar ditu eta horrela, guk, jasotzaileok, planifikazio eraginkorragoak (errealistagoak eta zehatzagoak) egingo ditugu, eta agian, guzti horrek balioko digu epe ertainean sendotzeko, eraginkortzeko, garatzeko edota normalizatzen.

Baina aldaketa horiek Jaurlaritzak ez ezik gainerako erakunde publikoek ere egin behar dituzte, Foru Aldundiek eta Udalek ere bai. Denok eraginkortu gaitezen”. (D31)

2.- Sektorearekiko mesfidantza gainditu. Hedabide batek oso modu grafikoan adierazten du: euskarazko hedabideak eta Eusko Jaurlaritzak katua eta saguaren arteko jolasean ari direla eta jolasari utzi beharko lioketela dio.

“Sektorearekiko mesfidantza gainditu beharko lukete behingoz. Katua eta saguaren jolasari utzi eta sektoreak daukan garrantziaren araberrako laguntzak eman”. (D3)

Beste batek era gordinean deskribatzen du Jaurlaritzak euskarazko hedabideekiko duen jarrera; sektorea kontrolatzen ez duenez “estutu baina ito gabe” kalkuluaren araberrako errezeta aplikatzen diola baieztatzen du.

“Kalkulua da: estutu baina ito gabe; agintean dagoena ez da inoiz fidatu kontrolatzen ez duen hartaz, eta kontuz ematen dio benetan indartzeko adina. Deskonfiantza honen kalteak ikaragarriak dira, eta zaildu egiten du benetako elkarlana”. (D10)

Mesfidantza-egoera gaintzeko beharra azpimarratzen da ia ekarpen guztietan; desadostasunak izan arren, batzuek eta besteek (sektoreak eta administrazioak) proiektua partekatzen dutelako.

“Konfiantza landu behar da, eta horretarako ulertu behar da proiektu berean gaudela, nahiz eta denean ados egon ez, baina herri perspektiba izan behar da eta baita publikoa denaren kontzeptu zabal eta berriago bat ere, publikoa ez da estatala, gurean herrigintzaren jarduna sarritan administrazioena baino publikoagoa baita”. (D14)

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

3.- Sektoreak buruturiko lana errekonozitu/aitortu/balioetsi. Euskarazko hedabideek hainbat urtetan jendaurreko agerraldietan eta iritzi-artikuluetan behin eta berriro plazaratu duten aldarrikapena da honakoa. Zenbaitentzat administrazioak eman beharko lukeen lehen pausoa litzateke.

“Sektoreak gaur egun osatzen duen hedabide-sistema horren errekonozimendua da aurreneko pausoa, nire ustez; kosziente izan behar dugu gaur egun euskarazko hedabide batek eremu bat betetzen badu, tradizio eta presentzia bat baldin badu zeozergatik dela, merkatu demanda bat badagoela hori horrela izan dadin. Beraz, gaur egungo eskaintza diberso hori, gaur egungo ekosistema hori errekonozitzea eta babestea, hortxe aurreneko pausoa”. (D8)

Delphiaren idatzizko ekarpenetan diote zor zaien errekonozimendua ez dagoela euskaraz jarduteari loturik, baizik eta produktu onak argitaratzeari eta euskarazko hedabideek betetzen duten funtzio sozialari.

“Gurea ona da, ez euskaraz delako, bestela ere ona delako baizik. Eta horrenbestez, zerbitzu bat eskaintzen diogu gizarteari. Eta zerbitzu hori onartu egin behar du bai Jaurlaritzak bai Nafarroako Gobernuak. Eta onarpen horrek isla izan behar du bestelako neurrietan: dirulaguntzetan kasu”. (D19)

“Hedabideekiko jarreran, instituzioek baloratu beharko lukete zer nolako funtzio soziala betetzen dugun hedabideok. Eta gurea egoki ez badu ikusten, nola / zein baliabiderek beteko lukeen guk orain egiten dugun lana, betetzen dugun funtzioa”. (D22)

Betetzen duten funtzioaz dabiltzanean, Delphian parte hartu duten eukara hutsezko idatzizko hedabideak hizkuntzaren arloan egindako lanaz aritu dira nagusiki. Era horretako aipamen gehienak udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak (tokikoek) egin dituzte.

“Idatzizko tokiko komunikabideek euskaldunon sareak sortu edota indartu ditu, euskararen erabilera etengabe handitu du, euskara esparru formaletik kanpora atera du eta euskarari prestigioa eman dio”.(D36)

“(…) laurogei urteko amona baten esperientziak lekukotasun garrantzitsu bat eman ahal digu aldizkariak betetzen duen funtzioaz: “Hasi zenean ezin nuen ezer irakurri, ez nuen ulertzen, baina gaur egun goitik behera leitzen dut”. (D6)

Euskararen ezagutzari, erabilerari eta prestigioari zuzenean lotzen zaion funtzio sozialaz gain, beste batzuk ere azaldu dira ekarpenetan; lurraldetasunaren eta hiztun-

komunitatearen errepresentazioarekin, informazioaren kalitatearekin edota herri-izaeraren sustapenarekin.

“Ekarpena ikaragarria izan da, bai hizkuntzaren normalizazioan (ezinbesteko idatzizko hedabideak), bai hizkuntzaren corpusaren gaurkotzean eta aberastasunean, bai lurraldetasun eta nazio mailako kontzepzioan eta baita informazioaren beraren kalitate eta tratamenduan”.(D14)

“(…) garrantzitsuena nire ustez, sorreratik esaten genuen moduan, aldizkaria herri osoarena izatea, eta herriko eragile guztiek erabili ahal izatea. Gaur egun, gero eta gehiago dira beren mezua herri osora zabaltzearen guregana jotzen duten herriko elkarteak”. (D6)

“Esango genuke euskal prentsak rol oso garrantzitsua jokatu duela hiztun komunitate baten imaginarioa egunero erreproduzitzen. Euskal Herrian gutxiengoan dagoen hiztun komunitatearentzat bai plano praktikoan – informazioa eskaintzea–, bai plano sinbolikoan –informazio hori euskal hiztunen posizio autozentratutik argitaratzea– ekarpen handia egin dugu azken urteetan, komunitatea egituratzen, trinkotzen eta elikatzen”. (D28)

Delphi fasean euskara hutsezko hedabide inprimatuek Eusko Jaurlaritzari egokitu dizkioten hiru zeregin nagusiak lan honetan banatuta eta elkarren segidan aurkeztu diren arren, bistakoa da denak soka bera harilkatzen dutela.

Esan bezala, hiru zereginok dira gehien errepikatzen direnak; baina horiez gain, Jaurlaritzak egin beharreko beste zenbait adierazi dira:

1.- Publizitatea egin/jarri/bideratu euskarazko hedabideetan. Gaztelaniazko hedabideetan jartzen den neurri berean jartzeko eskatzen da. Hala egiteak hamaika onorio onuragarri izango lituzkeelako euskarazkoentzat; besteak beste, autofinantziazio-mailak hobetzeko eta euskarazkoak publizitatea egiteko izan badirela nor erakusteko balioko luke; hau da, publizitate-merkatuaren, aukeren mapan jarriko lituzke.

“Publizitatea euskal hedabideetan egiteak duen garrantzia ere aintzat hartu beharko luke administrazioak. Izan ere, berdintasunaren bidean, gutxienez publizitate hori %50 eta %50 egin beharko litzateke gaztelaniazko eta euskarazko hedabideetan. Honek era berean lagunduko luke euskal hedabideak mapan jartzen. Eta baita ere, euskal hedabideak gainerako enpresa, entitate, eta abarren mapan sartuko lirateke, eta hauek ere aintzat hartuko lukete publizitatea jartzeko orduan. Honek auto-finantziazioan gora egiteko aukera emango lieke hedabideei... eta abar luze bat”. (D34)

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Gai honen inguruan agertu diren iritziak irakurrita, baieztatu daiteke euskarazko idatzikoek uste dutela tratu diskriminatzailea jasotzen dutela administrazioetik. Horrek diru-laguntzak esleitzen dizkienez, beste finantziazio-bide batzuetatik kanpo uzten dituela.

“Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak ematen dizkigunez ez digu dagokigun publizitatea bideratzen, eta garenak baino pobreagoak eta ez-eraginkorragoak garelako itxura ematen digu”. (D36)

Horregatik, gaztelaniaz ari diren hedabideekiko diskriminazioarekin amaitzeko exijitzen dute. Bidea ere proposatzen da: publizitate instituzionala arautzeko legean zehatz-mehatz jasotzea zein portzentaje bideratuko den euskarazkoetara.

“Publizitate instituzionaleko diskriminazioarekin amaitzea: Finantzazio publikoak ez dauka, gure ustez, ikuspegi estrategikorik eta diru-laguntzez aparteko diru publikoak –publizitate instituzionaletik jasotzen direnak, adibidez– hutsaren hurrengoa dira sektorearentzat. Bereziki deigarria da atal hau, erdal hedabideek jasotzen duten publizitate instituzionala guztiz gairadimentsionatuta baitago gure ustez. Ez dago lege-bermerik euskarazko hedabideok publizitate instituzionalaren alorrean jasaten dugun diskriminazioa eragozteko. Aurrerapauso handia litzateke Publizitate Instituzionala arautzeko EAEko Legea aldatzea, 10. artikuluan publizitate instituzionala zein hizkuntzatan egingo den zehazteaz gain, horien portzentaje bat –hiztun kopuruaren arabera, adibidez– euskarazko hedabideetan egingo dela bermatzeko”. (D28)

2.- Garai berrietara egokitzeko prozesuan lagundu. Aurretik erakutsi da euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak aurrera begira bere buruari jartzen dion lehen zeregina, gehien aipatzen dena, garai berrietara egokitzea dela. Orain gaineratzen da administrazioa bidelagun izan behar dela prozesu horretan. Nola? batetik, baliabideak jarrita, inbertsioak eta berrikuntzak sustatu eta laguntzeko, eta bestetik, inprimatuen sektorean izan daitezkeen esperientzia aurreratuei buruzko informazioa helaraziz.

“Erakunde publikoak trantsizio hori egiten lagundu behar du, laguntza horren jokalekua egokituz eta osatuz. Soilik irismena izango bada neurgailua, idatzizko produktuek ziurrena dute gainbehera. Erakundeek lagundu behar dute egokitze prozesu horretan, inbertsioak sustatuz, berrikuntzarekin lagunduz...” (D2)

“Jaurlaritzaren egitekoa izan behar da datorrenari aurreratzea, kanpoko esperientzia aurreratuak aztertzea, eta gurean egokitzeko informazioa eta baliabideak jartzea”. (D23).

3.- Sektorearen mapa osatu eta harremanetarako gunea/k sortu. Zeregin hau euskal esparru komunikatiboak izan beharko lukeen egiturari, osaketari lotzen zaio. Beste era batera esanda, zein izan beharko litzatekeen euskara hutsezko hedabide inprimatuen eskaintza. Eta galderari erantzuteko, ezinbestekoa da egungo euskal gizartearen behar komunikatiboak identifikatzea.

“Komenigarria litzateke administrazioak hedabideen mapa bat egitea, eta egungo gizartearen asebetetzea eta beharrak identifikatzea”. (D34)

Baina ez bakarrik mapa diseinatu, ekarpenen batean esaten denez, administrazioak euskal esparru komunikatiboan ari diren hedabideen arteko harremanak bultzatu beharko lituzke eta sektorea ordenatzeko irizpideak jarri; betiere eraginkortasuna helburu izanda.

“Euskarazko hedabideen mapa garatu eta eremu honetan dihardugun eragileen arteko hartu-emanak bultzatu, topaketarako gunek sortuz. Era berean, sektorea pixkat ordenatzeko irizpideak eman beharko lituzkete, egindako lana eraginkorragoa izan dadin, eta IKTetara jauzia emateko edo jada abian dagoena hobetzeko tresnak edota adituen kontseiluak sortuz eta eragileei eskainiz”. (D5)

4.- Hedabideek egiten duten lana ezagutu eta horren jarraipena egin. Zeregin hau planteatu duten hedabideentzat sektoreari buruzko edozein erabaki hartu aurreko derrigorrezko pausua izan beharko litzateke hedabide bakoitza bertatik bertara ezagutzea, sakon ezagutzea. Hala eginez, dio batek, eraginkorrenak diren hedabideak hobetsi daitezkeelako.

“Ezagutu eta ulertu beharko lituzkete komunikabide bakoitzak dituen ezaugarriak eta berezitasunak (tamaina, langile kopurua, helburuak, errealitateak...), eta horren arabera erabakiak hartu”. (D38)

“Burokraziaz eta deialdietako izapidetzeez gain, egiten den lanaren ikuskaritza sakona egin: aldizkarien banaketa, jasotzaileen balorazioak,...puntuazio hobeagoa lortzen duten edota eraginkorragoak diren hedabideak hobetsiz”. (D5)

5.- Gune erdaldunetan ari diren hedabideei, proiektu berritzaileei eta bateratze-prozesuei erreparatu, eta horien alde egin. Egoera horietan zailtasunak handiagoak direla diote zenbaitek, baina era berean, euskararen normalizazioari egindako ekarpena balio handikoa izan daitekeela. Horregatik, horiei erreparatu ez ezik, administrazioak lagundu egin beharko lituzkeela gaineratzen dute.

“Arreta berezia eskaini gune erdaldunagoetan argitaratzen diren agerkariei: hedabidea garatzeko zailtasunak handiagoak dira gune euskaldunagoetan baino. Era berean, euskararen normalizazioaren alde egiten den ekarpena handiagoa izan daiteke”. (D5)

“Horretan guztian, administrazio publikoak bere alea jarri beharko luke eta proiektu berritzaileei aukera eman. Bateratzearen alde egin, eta bateratze horrek suposatuko duen onurari erreparatu eta lagundu”. (D7)

“(…) arreta berezia jarri beharko litzateke proiektu berrien sustapenean, horiek izango baitira sortzen diren merkatuko eskaera zehatzei erantzuna emango dietenak”. (D33)

6.- Euskarazko argitalpenen sustapena. Hedabide inprimatuen sektoreak sarri adierazi du ez duela sustapen-kanpainak martxan jartzeko baliabiderik. Ondorioz, euskaraz dagoen eskaintza ikusezina bilakatzen da.

“(…) euskal gizartearen gehiengoak ez du ezagutzen zer dagoen. Komunikazio talde nagusiek betetzen dute eskaintzaren erakusleihoa. Euskarazkoa euskalgintza baino ez da ezagutzen; ez dut esan “ondo ezagutzen”, “ezagutzen” baizik”. (D11)

Egoera horrela, Delphian ageri denez, administrazioak hartu beharko luke bere gain bi alde dituen zeregina: batetik, euskal prentsa ezagutarazi, euskaraz dagoen eskaintzaren ikusezintasunari aurre egiteko, eta bestetik, horren kontsumoa sustatu.

“Ezinbestekoa deritzogu euskal instituzioek eskura dauzkaten tresnen bidez – irakaskuntza, zentro publikoak...– euskal prentsa ezagutaraztea, batetik, gure produktuak herritarren eskura jarritz; bestetik, hedabideon sustapen-kanpainak bultzatuz; eta azkenik, herritarrei euskarazko medioak hautatzeko abantailak eskainiz –adibidez, euskal prentsako harpidedun izateagatik hobari fiskalak–”. (D28)

“Laguntzak handitzeaz gain (horrek beti laguntzen du), beste hainbat gauza egin daitezke, batez ere argitaratzen denaren iragarpenean. Hainbestetan aipatzen den euskarazko kulturaren “ikusezintasun” hori gaingaitu”. (D30).

7.- Beste esparru batzuetara bideratzen diren laguntzak izateko aukera zabaldu euskarazko hedabideei. Kultura Sailak kudeatu eta esleitzen ditu euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak, baina zenbaitek gogoratzen dute euskarazko hedabideak ekonomian eragiten duten enpresak direla; hortaz, laguntzak eskuratzeko orduan, beste sektore batzuk dituzten aukerak izan beharko litzuketela, adibidez, berrikuntzarako eta inbertsioak egiteko diru-laguntzak eskuratzeko aukera.

“Euskarazko hedabideak euskararen erabilera sustatzeko tresnak dira, baina enpresa-industria ere badira. Jarduera ekonomikoa duen sektore bat, alegia. Orain arte erakunde publikoek ez dute begi horiekin ikusi, baina uste dut aurrera begirako gakoa hor dagoela. Hedabideoi ate berriak zabaldu behar zaizkigu, beste sektore ekonomikoek dauzkaten aukerak eskaini behar zaizkigu. Berrikuntzarako eta inbertsioak egiteko diru-laguntzak, esate baterako”. (D2)

“Euskal hedabideen diru laguntza esparrua ezberdinetara eskatzeko aukera zabaldu beharko luke administrazioak; beste hainbat sektoretara sartzeko aukera eman, hala nola: industria...” (D34)

“Horiek, gainera, ez lukete zertan soilik Kultura sailetik etorri behar. Zergatik ez Industrietatik, esaterako? I+G+I esparruan sakontzeko, kazetarien trebakuntzan, negozio ereduaren hobekuntzan... Bide berriak irekiko lirateke, eta hala behar du, gainera”. (D41)

Honaino sektoreari eta Eusko Jaurlaritzari, bakoitzari bere aldetik, dagozkion zereginen bilduma oparoa. Delphian parte hartu duen hedabide batek hiru lerrotan aurkezten du batzuei eta besteei dagokiena: sektorearen esku jartzen du aurrera begirako estrategiaren diseinua eta gauzatzea, eta Eusko Jaurlaritzaren esku lagundu beharreko apustu estrategikoei buruzko erabakia, betiere sektoreko eragileekin batera egindako lanean oinarritu beharko litzatekeena.

“Sektoreko eragile nagusiei dagokie ildo estrategikoak identifikatu eta apustu berri horiei forma ematea eta Jaurlaritzari bisioa eragileekin batera landu eta lagundu beharreko apustu estrategikoak bereiztea”. (D13)

Bestalde, hedabideengandik jasotako materialaren artean, bada orain arte aurkeztutako mamia laburbiltzen duen bat, honelaxe dioena:

“Ditugun zeregin nagusiak : Gero eta jende gehiagorengana heltzea, bezeroa pozik izatea, gero eta ordainuzko bazkide gehiago izatea, produktuak hobetzea, marka egitea, kazetaritza duina egitea, bezeroari entzutea... Euskal hedabideok dugun balioa erakustea, bereziki publizitateari begira. Erakundeek begiak zabaltzea eta euskarri publizitario bikaina garela jabetuaraztea... Edukiak ahalik eta modu gehienetan helaraztea. Zukua ateratzea lantzen den eduki bakoitzari. Uste dut hedabideok dugula egiteko gehien. Ez dago gelditzerik, aurrera egin behar dugu, garrantzitsuak izan bakarrik ez, garrantzitsu garela erakutsi. Formazioa, kudeaketa aurreratua... edozein sektoretan dauden premiak daude gurean ere. Industria gara gu ere, euskararentzako mesede izateaz gain. Gurekin inbertitutako euro bakoitzeko bueltatzen dioguna gizaritari askoz gehiago da (Ikus Eneko Bidegainen lana: Balio soziala).

Hauek denak orain baino hobeto egiteko beharko dugu daukaguna baino diru-laguntza handiagoa eta leku gehiagotatik. HPSren lana, diru-partida hori handitzea da. Eta gehitzeaz gain egonkortzea. Urte anitzeko deialdia eskatu dugu urteak joan urteak etorri. Jarraitzen dugu horrekin pentsatzen, baina soluzio bat emanda etor litezkeen proiektu berriei eta diru gehiago jasotzeari uko egin gabe.

Gure lana, berriz, enpresek izan behar dutenetatik ez da asko aldentzen: efizientziaz egitea lan (gauzak ondo egitea), efikaziaz egitea (kazetaritzan, bereziki zuzen jardutea emaitzak lortzeko) eta efektibitatean garatzea (efizientzia eta efikaziaren arteko dantzan, optimoa buruan)”. (D1)

Azken batean, euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreari eta Eusko Jaurlaritzari lotzen zaizkien zeregin/erronka horiek guztiek xede nagusi bat izango lukete: euskarazko merkatu sendo eta zabala sortzea, hedabideen ekosistema oso bat eraikitzea.

“Oro har hedabide sistema eta ekosistema oso bat behar dugu. Bai hedabideen nolakotasunaren ugaritasunari begira (lokala, nazionala, espezializatua, pentsamendua...) eta baita hedabide sare horrek sortuko duen irakurle komunitateari (herria?) begira. Eta honek eskatzen digu hutsuneak identifikatu eta betetzea (ze eremu ez da betetzen eta nola beteko dugu, ze produktuekin) eta baita ekosistema hori zurkaiztuko duen estrategia diseinatzea eta 'audientzia sortzea, eraikitzea', eta horretarako kultura normalizatuek erabili ohi dituzten bideak erabiltzea: berriazko politika publikoak aplikatzea eta hezkuntza sistemaren transmisioa baliatzea, besteak beste”. (D14)

Batzuek eta besteek, sektoreak eta administrazioak aurrera begira ekin beharreko zereginak aurkezteaz gain, horiek burutzeko dauden oztopo nagusiak ere identifikatu dituzte ikerketan parte hartu dutenek. Eta Delphian bildutakoan arabera, oztopoak nagusiki hiru eratakoak lirateke: hedabideen sektorea astindu duen krisiari loturikoak, euskararen egoera soziolinguistikoari loturikoak eta Eusko Jaurlaritzaren eta sektorearen arteko harremanen gorabehereri loturikoak.

1.- Hedabide tradizionalen krisiari eta baliabide ekonomikoei loturikoak: krisi bikoitzak gogor astindu du hedabide inprimatuen sektorea, ez du hizkuntzaren araberako bereizketarik egin. Hortaz, zenbaitek diotenez, edozein zereginetan sartu aurretik lehentasunezkoa da krisiari eta horren ondorioei aurre egiteko formulak bilatzea, krisiak baldintzatzen dituelako gainontzeko egiteko guztiak.

“Jakina, badira bi faktore ezinbesteko, sektore osoak eta aldizkari honek ere, beraz, gaingitu behar dituenak: sektorearen etorkizuna kolokan jarri duten hedabide tradizionalen krisia eta krisi ekonomikoa. Negozio molde berriak bilatu behar dira, biziraupena bermatu eta ahal bada harago joateko, eta teknologia berrien iraultzari egokituko behar zaizkio hedabideak. Bai bata zein bestea ezinbesteko zereginak dira. Horri loturik datoz kalitatea, kazetarien formazioa, lan baldintzen hobetzea... horietan guztietan lanean ari da sektorea, baina aurre bi faktore nagusi horiei aurre egin ezean, zaila izango da”. (D41)

Eta formulak proposatzen hasita, dagoeneko azaldu diren zenbait ageri dira berriro, esaterako, sektorean sinergiak bilatu edota erakundeen babes ekonomikoa.

“Oztopo nagusiak ekonomikoak dira. Ezagutzen ditugun kasu gehienetan proiektuak kinka larriar daude. Horren aurrean, gure artean sinergiak lortu beharko genituzke, kostuak murrizteko eta kalitate handiagoko hedabideak lortzeko”. (D15)

“Bidean aurkitu ditugun oztopoak “ekonomikoak” dira gure ibilbidea hasi genuenetik. Euskararen normalizazio bidean lanean ari garen egitasmoen sostengua ematea lehentasuna izan behar da, horretan erantzukizuna daukaten erakundeen kasuan, are gehiago”. (D18)

Baina administrazioetik jasotako diruak aurpegi bikoitza dauka; batetik, ezinbestekoa da euskarazko hedabideentzat, baina bestetik, agerian uzten du sektoreak horiekiko duen menpekotasuna, eta gainera, baldintzatu egiten du euren jarduerara, bideragarritasuna eta proiektu berrien sorkuntza.

“Diru laguntzetatik dugun dependentziak, eta hauek izan dezaketen atzerapenek asko baldintzatzen dute urtea... Bide horretan, laguntza handia izango litzateke erakunde bakoitzak emango duen laguntza urte hasieratik jakitea. Eta era berean, zehaztuta izatea noiz jasoko den laguntzaren zati bakoitza; horrek likidezi arazoekin lagundu baitezake”. (D34)

“[Erakunde publikoen diru-laguntzekiko] menpekotasun hori agerian gelditu da behin eta berriz, diru-laguntzen gorabeherak baldintzatu baitute proiektuen bideragarritasuna eta irautea. Eta noski, proiektu berrien sorkuntza”. (D23)

2.- Egoera soziolinguistikoari loturiko oztopoak: ekarpen batzuetan jasotakoaren arabera, euskararen egoera soziolinguistikoak zaildu egiten du euskarazko hedabide inprimatuen irakurle potentzialen unibertsoa finkatzea. Gai horrek, gainera, tirabirak eragiten ditu Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politika kudeatzen duten ordezkariekin; batzuek (sektoreak) eta besteek (Jaurlaritzak) kontsumitzaileen unibertsoa potentzialari buruz dituzten ikuspegiak ezberdinak direlako.

“Arazo nagusiak darabilgun hizkuntzaren egoera soziolinguistikotik eratortzen direla esango genuke. Hiztun komunitateak geruza ugari ditu, egunero euskaraz bizi, lan egin eta irakurtzeko gai diren pertsonetatik hasi eta ozta-ozta ulertzeko gai direnetaraino. Horrek asko zailtzen du irakurle potentzialen unibertsoa bat finkatzea –gai hau erakunde publikoekin eztabaidagai izan du sektoreak, baina ikuspuntuak oso diferenteak dira; hizkuntza politikaren arduradunek euren lanaren arrakasta adierazten duten datuei heltzen diete, eguneroko praktika linguistikoak besterik adierazten duen arren–”. (D28)

“Hizkuntzaren egoera ez normalizatuak eta horrek dakarren irakurle potentzialaren desegituraketak ez du laguntzen irakurlearen artean zabaltzen eta ezagutzera ematen”. (D14)

Delphi bidez jasotako ekarpen batean, ñabardura esanguratsua egiten zaio egoera soziolinguistikoaren gaiari. Izan ere, euskara hutsezko hedabide inprimatuen artean alde handiak daude bi konturi erreparatuta: batetik, zabaltzen diren eremu geografikoari dagokionez, egunerokoak eta informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak euskararen lurralde osoan hedatzen dira; bestetik, tokikoak hizkuntza-egoera anitzetako guneetan zabaltzen dira, hiztunen dentsitateari erreparatuta alde handiak dituzten gune soziolinguistikoetan, eta hala izateak asko baldintzatzen du euskarazko argitalpen batek izan dezakeen harrera, azken batean, argitalpen batek

lortu dezakeen irismena. Eta hori ere kontuan hartu beharrekoa dela nabarmentzen da aipatu ekarpenean.

“Bi hedabide mota bereiztu ditzakegu: tokikoak eta, orohar, euskararen eremuan zabaltzen direnak. Eta tokikoen kasuan, beste bereizpena egin genezake: herri edo ingurune euskaldunetan zabaltzen direnak, eta euskal hirietan edo herri erdaldunagoetan zabaltzen direnak. Ingurune euskaldunetan euskararekiko jarrera konprometituagoa da, eta hedabide hauek harrera hobegoa izaten dute. Honela, hirietan eta eskualde erdaldunetan (Bizkaiko Ezkerraldean, esaterako) ez dago ia euskarazko aldizkaririk, baina merkataritzaren eremuan ere ez dago euskarazko aldizkarietan publizitatea txertatzeko ohiturarik, publizitatearen bidez diru sarrerak edukitzeko aukerak murriztuz. Ez da kontu bera Eskoriatzan edota Oñatin euskarazko aldizkari bat argitaratzea eta gauza bera Sestaon edo Barakaldon egitea. Zailtasunak, harrera eta jarrerak oso oso ezberdinak toki batetik bestera”. (D5)

3.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanaren gorabeherari loturiko oztopoak: mesfidantzatik elkarlanerako urratsa egin behar dela diote euskarazko inprimatuek; eta guraria gauzatzeko, Jaurlaritzak hizkuntzaren normalizazio bermatuko duten neurriak hartu beharko lituzkeela diote. Horien artean, dagoeneko hainbatetan azaldu den finantziazioa handituz, baina hala egiteak ez dezala hedabideen ildo editoriala baldintzatu.

“Gainditu beharreko oztopo nagusia administrazioek sektorearekin maiz agertzen duten mesfidantzatik elkarlan egoera batera iristea da. Horretarako, ezinbestekoa iruditzen zaigu hedabideen independentzia eta ildo editoriala baldintzatu gabe, hizkuntzaren normalizazioa bermatuko duten neurriak hartzea. Funtsean, finantzazio handiagoa –bai diru-laguntzen bidez, bai berrikuntza alorretik, bai publizitate instituzional bidez–, ikuspegi estrategikoa eta hedabideen egonkortasuna bermatzeko deialdiak egitea, egun dagoen hedabide-mapa euskarak behar duen minimoa dela aintzat hartuta”. (D28)

Elkarlanaren beharrari buruzko aipamenak ia ekarpen guztietan daude. Adierazi bezala, hedabideek hil ala biziko kontua dela diote, batek idatziz jarri duen moduan, ezinbestekoa da “norabide berean arraun egitea” (D26). Hortaz, behar beharrezkotzat jotzen dute beraien eta Jaurlaritzaren arteko lankidetzak, akordio berriak adostu eta garatzea.

“Hasiera-hasieran, egiteko bakarra, baina nagusia; garrantzi osokoa; lehentasunezkoa: elkarrekin eseri, hizketan hasi, gardentasunez, euskara zein euskarazko hedabideen etorkizuna lehentasun hartuta.(...) Sektoreko kideak izan edo herri-administrazioa izan, eragile mota guztien arteko elkarlana ezinbestekoa da. Zergatia guztiz ulergarri: Bizi ala hil! (...) Elkarlanerako elkarrekiko konfiantza da ezinbesteko; hori ez da inprobisatzen eta serioски landu behar da”. (D11)

“Behar beharrezko begitantzen zait euskararen gizarteratze, bizi-berritze, normalizatze ... bideetan engaiatuta gaudenon artean helburu estrategikoekiko ikuspegi komunak eta adostasunak lantzea. Apustuak argiagoo eta garbiagoo izan behar du. Nahita ezkoa zaigu LANKIDETZari zentzu osoa ematea”. (D10)

Eta zertarako lankidetzari zentzu osoa eman? Delphian bildutako ekarpenetan adierazitakoaren arabera, batzuek eta besteek aurrera begira dituzten zereginiei eraginkortasunez ekiteko eta arrakasta lortzeko.

“(...) euskarazko komunikabideek sortzen duten balio soziala neurtu eta hauek ahalik eta eraginkorrenak izateko lanean jarraitu beharra dago. Eta horretarako elkarlana ezinbestekoa da erakunde eta hedabideen artean”. (D32)

Delphi teknikaren bidez bildutako edukiei azken ginda jarri nahi izan ezker, ondoko lerroetan adierazitakoa litzateke. Horren sortzaileak letra larriz nabarmendu ditu euskara hutsezko hedabide inprimatuek eta Eusko Jaurlaritzak praktikan jarri beharko luketen ahaleginaren mugarriak zeintzuk diren.

“Derrigorra da AKORDIO ESTRATEGIKOA, ARNAS LUZEKOA eta PAREZ PAREKO harremanean oinarritua lortzea erakunde nagusi eta hedabideen ordezkarien artean; LANKIDETZA kontzeptua edukiz betetzea eta LAGUNTZaren alderdirik miserableena (ni laguntzaile esku zabala, zu lagundu behartsua) baztertzea, behingoz, [gurean]⁷⁹⁶ Udal askok egin duten bezala. Horretan Eusko Jaurlaritzak behar luke aitzindari. Horretarako, beharrezkoa da egoeraren irakurketa partekatu eta zintzoa egitea, bi aldeetatik. Galdera egokiak egitea bi aldeok. Sektoreak beharrezkoa du, gutxienez, euskaldunon herriaren etorkizunaren ardura dutenen aitortza eta babesa sentitzea eta elkarren arteko konfiantza giroan sakontzea; gizarte eragile, eragile politiko eta herritarrei oro har mezu baikor eta partekatua luzatzea; guztiok onartzen dugun hedabide mapa adostea

⁷⁹⁶ .- Hemen ekarpena egin duen hedabidearen izena zetorren. Haren anonimotasuna babestu eta bermatzeko, beste hainbat ekarpenetan egin bezala formula hau erabiltzea erabaki da; hau da, gurean, gureak, guk edo antzeko aldagairen bat jarri kortxete artean.

eta behar diren baliabideak erdiestea. Galdera egoki eta zuzenek eramango gaituzte neurri zuzentzaile egoki eta zuzenetara, eta gertu beharko genuke interes pertsonalak alboratzeko". (D10)

5.5.5. EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEN SEKTOREAN DIREN ADOSTASUNAK ETA DESADOSTASUNAK LABURBILDUTA

Delphi teknikan parte hartu zuten euskara hutsezko hedabide inprimatuek lau gairi buruzko ekarpenak egin zituzten: sektorearen egoera, Eusko Jaurlaritzaren "Hedabideak" diru-laguntza deialdia, sektore barruan zein Jaurlaritzarekin dituzten harremanak eta etorkizunari begira heldu beharreko zereginak edota erronkak.

Sektorearen egoerari dagokionez, oro har, euskara hutsezko hedabide inprimatuek uste dute hoberako bidea jorratu dutela, aurrera egin dutela denboran zehar. Jardunari eutsi izana eta eskaintza kantitatez zein kalitatez hobetu izana jartzen dira iritzi hori janzteko argudio moduan. Hartzaileak eta esparruak irabazi dituztela, boluntarismotik profesionaltasunerako jauzia egin dutela aldarrikatzen dute ia denek. Eta, horrekin batera, beste lorpen asko ere plazaratzen dituzte zenbaitek: teknologia berriek eskainitako aukerez baliatzen jakin dutela, tokikoek aurrea hartu dietela zabaltzen diren esparruan beste hizkuntza batzuetan ari diren idatzizkoei, elkarlanean jarduteko borondatea eta gaitasuna erakutsi dutela...

Hortaz, gehienek diote inprimatuen arlokoa inoizko komunikazio sektorerik sendoena izatera iritsi dela. Hala ere, denek aitortzen dute paper-ereduaren krisiak eta krisi ekonomiko globalak euskarazkoen sektorea ere gogor astindu duela eta urteetako bilakaera ona eten duela. Horren lekuko, askok kaleratzen dituzten argitalpenen maiztasunetan eta orrialde-kopuruetan egin behar izan dituzten murrizketak. Bestalde, krisi bikoitzak eragin dituen beste era bateko kalteak edo galerak azaleratzen dituzte idatzizkoek; hala nola, paperezko euskarriak presentzia, ikusgarritasuna galdu duela edota hizkuntza gutxituan ari direnen lan-baldintzak ez direla komunikazio-talde handietan dabilzanenen mailakoak izatera heldu. Eta azkenik, krisiari zuzenean egozterik ez dagoen beste kontu batzuk bildu dira

ekarpenetan, euskara hutsezko hedabide inprimatu guztiek ez baina zenbaitek galera moduan kontsideratzen dituztenak: sektoreak hasieran zuen izaera militantea galdu duela, ez duela asmatu produktua ekoizteko behar den jendearen ezta irakurleen erreleboa ziurtatzen, ez dela asmatu multimedia-eredua lantzen, eta ez dela urrats handirik egin elkarrekin jarduteko dinamikak sortzen. Beraz, agerikoa da kontu bera, sinergiak lantzearena adibidez, irabazien zein galeren aldean agertu daitekeela aldi berean. Izan ere, idatzizko batzuentzat arlo horretan aurrera egin den bitartean, beste batzuentzat ez da nahi edo behar beste aurreratu. Eta aukera-bitasun hori sarri agertzen da euskarazkoen sektorean.

Arestian adierazitako guztiaren ondorio moduan esan daiteke euskara hutsezko hedabide inprimatuek begi onez ikusten dutela denboran zehar izandako bilakaera baina baikortasun-ikuspegia lausotu egiten dela, egungo egoerari erreparatzen diotenean. Izan ere, egungoa deskribatzeko, prekarietatea, eskasa edo kezkarria bezalako hitzak erabiltzen dituzte askok, eta gaineratzen dute, krisiak areagotu egin duela sektoreak sorreratik bertatik aldean daramatzen bi ezaugarri: diru-sarrera propioen urritasuna eta diru-laguntza publikoekiko menpekotasuna.

Egoera horrela, proiektu berriei ekiteko aukeraz galdetu zaienean, ez dago adostasunik. Aldeko eta kontrako iritziak plazaratu dira, baina ez neurri berean. Azken urteotan hedabide bakoitzak izan duen bilakaerak baldintzatu du erabat erantzunaren norabidea. Hala, krisiak gogorren astindu dutenek diote krisiak utzitako ondorioei aurre egiteko sasoia dela, ez egitasmo berriak martxan jartzekoa. Iritzi hori agertzen duten gehienak informazio espezializatuko aldizkariak dira eta horiekin batera zenbait tokiko. Baina gehiago dira, krisiak krisi, proiektu berriei ekitearen aldeko iritzia eman dutenak. Hori bai, prest leudeke hala egiteko, zenbait baldintza beteko balira: batetik, berriei ekiteko beharrezkoa da dagoeneko badirenak sendotzea, indartzea, eta bestetik, proiektu berrien finantziarioari loturiko baldintza aipatzen dute. Eta finantziarioaz ari direnean, begirada administrazioari, herri-erakundeei zuzentzen zaie. Ikerketa honetan, Eusko Jaurlaritzari.

Delphiaren bigarren atalean, fokua Eusko Jaurlaritzak urtero kaleratu duen “Hedabideak” diru-laguntza deialdian jarri da. Horrek euskara hutsezko inprimatuen artean eragiten dituen adostasun eta desadostasunen bildumaren azterketa baieztapen batekin hasi da: deialdia funtsezkoa, ezinbestekoa da sektorearentzat eta hedabide bakoitzaren bideragarritasunari laguntzen dio. Ia denek bat egiten dute iritzi horrekin, eta hori baino gehiago, askok diote diru publikorik gabe ez litzatekeela euskarazkoen sektorerik izango. Eta bat egiten ez dutenek jarrera kritikoa agertu eta argudiatzen dute “Hedabideak” deialdiak erosotasun- eta menpekotasun-giroan kokatu dituela euskarazkoak eta horrek ez diola mesederik egiten erakutsi beharko luketen lehiakortasunari.

Kritikak kritika eta aitopenak aitopen, bada Delphian parte hartu duten hedabide gehienek aipatzen duten beste ideia bat: Eusko Jaurlaritzak esleitutako laguntza ez da beharko luketena. Beraz, onartzen da diru-laguntza funtsezkoa dela, baina, aldi berean, gaineratzen dute ez dela nahikoa. Eta nahikotasunaz ari direnean, euskara hutsezko hedabide inprimatuak sendotu, garatu eta normalizatzeko helburuarekin urtero jartzen den diru-partidaren neurriaz, tamainaz ari dira. Esan bezala, gehienek ustez, esleitutako diru-laguntzak prekariedade-egoerari eusteko balio dute, bizirauteko balio dute, baina ez aginduetan ezarritako helburuak eskuratzeko; hots, ez dute balio sendotu, garatu eta normalizatzeko.

2005-2013 bitarteko aginduetan egitasmoaren xede gisa ezarri ziren sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuak euskarazko inprimatuek nola ulertu eta azaltzen dituzten jasotzeko ahalegina egin zen Delphian; baina gutxik heldu zioten proposatutako zereginari. Hala gertatzea berez da adierazgarria; gainera, heldu ziotenen erantzunek agerian utzi dute oso modu desberdinetan interpretatzen dituztela hiru kontzeptuak. Ez hori bakarrik, zenbait kasutan, batentzat sendotzea dena beste batentzat garatzea da eta hirugarrenarentzat, berriz, normalizatzea. Esaterako, hedabidea sendotzea kalitatezko produktua ekoiztearekin, finantziazioa dibertsifikatzearekin, eskaintza erreferentziala izatearekin edo etorkizuna ziurtatzearekin lotzen dute. Beste horrenbeste gertatu da garatu aditzarekin;

batzuentzat garatzeak kalitatearekin du zerikusia, beste batzuentzat produktuaren eta estrategiaren berrikuntzarekin, eta bada irismenarekin lotzen duenik ere. Eta normalizatu kontzeptuari dagokionez, erantzun duten gehienek hizkuntzaren, euskararen egoeran eragitea dela diote; baina ez da ematen dioten adiera bakarra; badirelako normalizatzea eskaintza zabala eta anitza izatea dela uste dutenek eta bakanen batek dio gaztelaniaz ari diren hedabideen egoera eta baldintza bertsuak izatea dela hedabide bat normalizatzea.

Jaurlaritzaren laguntza-egitasmoan ezarritako eta horren bidez esleitutako diru-baliabideen zenbatekoa ez dira euskarazko inprimatuek deialdiari leporatzen dizkioten kontu negatibo bakarrak. Horrekin batera, badira aipatzeko moduko beste bi gutxienez.

Lehena, deialdia urterokoa izatea eta ebazpenak gehienetan udatik aurrera kaleratzea. Euskara hutsezko hedabide inprimatu gehien esanetan, laguntza horrela gauzatzeak ziurgabetasuna eta tentsioa dakarkie, eta ondorioz, ez zaie aukerarik ematen aurretiaz planifikatzeko edota epe ertainerako edo luzerako berrikuntzak eta estrategiak landu eta martxan jartzeko. Gai honen inguruko hamaika ekarpen bildu dira, eta horiek denak irakurrita, esan daiteke, iritzia azalertzeko hitz ezberdinak erabili arren, erabateko adostasuna dagoela sektorean: hedabideei laguntzeko urteroko formularen orde, urte anitzekoa aplikatu beharko litzatekeela diote. Dena den, planteamendu horrek zenbait zalantza ere eragiten ditu; adibidez, urte anitzeko deialdietan nola txertatuko liratekeen proiektu berriak, nola kudeatuko liratekeen esleitutako diru-partidak eta abar.

Deialdiari leporatu zaion bigarren kontu negatiboak esleipenak egiteko erabili izan diren irizpideekin du zerikusia; hobeto esateko, irizpideak erabaki eta aplikatzeko jarraitu den prozedurarekin. Izan ere, euskara hutsezko inprimatuek kontsideratzen dute arlo horretan Eusko Jaurlaritzak aldebakartasunez jokatu duela, ez diela berdinetik berdinerako tratua eskaini eta kontrastatu gabe ezarri dituela, goitik behera, esleipen-irizpideak.

Bestalde, laguntzak ebazteko erabili diren irizpideei buruzko ikuspegia azaltzeko gonbidapenak erantzun deigarria, esanguratsua izan du sektoreko hedabideetan. Ekarpene gehientsuenak "irismena" izeneko irizpideari buruzkoak izan dira. Aipatu irizpidea 2014ko deialdiaren balorazio-prozeduran agertu zen lehen aldiz; hortaz, lan honek ikergaitzat hartu duen denbora-tartetik kanpo dago. Hala ere, irismenak eragiten dien erreakzioa kontuan hartzen bada, oso interesgarria izan da ikustea euskarazko idatzizkoak bi bloketan banatu daitezkeela. Batzuek, batez ere egunerokoek eta informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak, kontrako jarrera eta hitzak agertu dituzte. Horien ekarpenetan irakurritakoaren arabera, irismenak onura ekarri die tokikoei eta kalte egiten die gainontzekoei. Ez hori bakarrik, hedabideren batek dio, irismenaren irizpidea erabilita, Eusko Jaurlaritzak diru publikoaren onuradun diren hedabideen arteko lehia sustatzen duela. Are gehiago, kontra egin dutenek uste dute, eskualde euskaldunetan doan banatzen diren tokikoak saritzen direla eta zigortu egiten direla eremu erdaldunetan ari diren euskarazko argitalpenak edo Euskal Herri osoan banatzen diren ordainpekoak. Bigarren blokean, lurralde, eskualde eta udal zehatzetan zabaltzen diren informazio orokorreko argitalpenak, tokikoak leudeke. Horiek irismena diru-baliabideak esleitzeko irizpide gisa erabiltzearen alde daude, begi onez ikusten dute Jaurlaritzak hala egin izana, uste dutelako hedabide bakoitzaren emaitzak, edo beste era batera esateko, hedabide bakoitzaren eraginkortasuna neurtzeko tresna baliagarria dela.

Baina eraginkortasuna delakoarekin, deialdiaren helburutzat ezarrita dauden sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuekin gertatzen den egoera bera errepikatzen da; hau da, eraginkortasuna modu anitz, eta kasu batzuetan, zeharo ezberdinetan ulertzen dute euskarazko inprimatuek. Batzuek hedabide bakoitzak autofinantzatzeko duen gaitasunarekin lotzen dute; beste batzuentzat, argitalpen bakoitzak bere zabalkunde-eremuan lortzen duen irismenaren bidez neurtu daiteke; beste batzuek efizientziarekin identifikatzen dute; hots, baliabide gutxiarekin produktu asko ekoiztearekin, beste batzuek berrikuntzarako edo egokitze gaitasunarekin... Definizioak definizio, eraginkortasunak ere bi bloketan banatzen ditu euskara hutsezko

hedabide inprimatuak. Irismenarekin gertatu bezala, orain ere tokikoak eraginkortasunari erreparatu eta hori diru-publikoaren banaketarako aintzat hartzearen alde agertu dira; egunerokoek eta informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak ez dute guztiz kontra egiten, baina hedabide bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak kontuan hartuz erabili beharko litzatekeela uste dute. Izan ere, egunerokoen eta informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarien ordezkariak diote, egun, eraginkortasunaren izenean izaera eta ezaugarri desberdinak dituzten hedabideak jartzen direla elkarren arteko lehia eta hala egiteak ezin dezakeela emaitza onik izan sektorearentzat. Horregatik, eraginkortasuna erabiltzekotan, hedabide bakoitzaren eta berau zabaltzen den testuinguruaren ezaugarriei erreparatu beharko litzatekeela defendatzen dute eta ezaugarri horiek balorazio-prozeduran integratu beharko liratekeela diote.

Irismenak eta eraginkortasunak eragindako desadostasunak alde batera utzita, euskara hutsezko hedabide inprimatuek irizpide ugari proposatzen dituzte Eusko Jaurlaritzak laguntzetarako bideratutako diru-partida esleitzeko. Horien artean, badira dagoeneko 2005-2013 bitarteko aginduetan ezarrita daudenak; adibidez, ekoiztutako produktuaren kalitatea edota hedabide bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak (autofinantziazio-maila, maiztasuna, ordainpekoa izatea...) Baina badira proposamen berritzaileak ere; esate baterako, eskainitako produktuaren estrategikotasuna, hedabidearen emaitzak, beste erakunde batzuetatik laguntza ekonomikorik jasotzen ote den edota sinergiak gauzatzeko ahalegina. Dena den, proposamenak ugari izan arren, sarri ez datoz bat horiek nola ulertu behar diren zehazteko orduan. Esate baterako, estrategikotasuna batzuen ustez hedabidea zabaltzen den esparru geografikoko egoera soziolinguistikoaren arabera definitu beharko litzateke. Hala, gune erdaldunetan zabaltzen direnak estrategikoak lirateke. Beste batzuen ustez ordea, hedabide baten estrategikotasuna gizarteari egiten dion ekarpenaren arabera ulertu eta baloratu beharko litzateke.

Balorazio-irizpide berriak proposatzeaz gain, euskara hutsezko idatzizko askok urteroko aginduetan jasota dagoen irizpide zehatz bat kentzeko eskatzen dute, onuradun izateko hedabideek defizita izan behar dutela dioena, hain zuzen.

2005-2013 bitarteko zenbait urtetan, nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehiagarriari eta erreferentzia-orrialdeei eman zaizkien diru-laguntzei dagokienez, bakanen batek hala egitea begi onez ikusten duen arren, sektoreak, oro har, sutsu egiten du aukera horren kontra. Eta alde daudenek ere baldintzatu egiten dute euren jarrera; hau da, ez lukete onartuko gaztelaniazkoak aipatu produktuak ekoizteko diru publikoz laguntzea, horrek euskarazkoentzako diru-partida txikitzea ekarriko balu.

“Hedabideak” diru-laguntzaren onuradun izan diren euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanak landu dira Delphiaren hirugarren atalean. Gai honi dagokionez, ezin esan idatzizkoen artean adostasuna dagoenik; are gehiago, zenbait kasutan, ikuspegiak bi muturretan kokatzen dira. Batzuek Jaurlaritzaren jarrera irekia goraiatu eta administrazioarekin izandako harremana elkarrekiko leialtasunean eta konfiantzan oinarritu dela defendatzen duten bitartean, beste batzuek juxtu kontrakoa diote; hots, Jaurlaritzarekin izandako harremanak elkarrekiko mesfidantza eta nagusi-menpeko logika izan duela oinarrian; eta hori baino gehiago, interes partidistak baldintzatutakoa izan dela. Eta deigarria da ikuspegi positiboa duten hedabideen artean egunerokoak, aldizkariak zein tokikoak daudela, baina ikuspegi negatiboa agertu dutenak nagusiki egunerokoak eta informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak direla.

Jaurlaritzarekin izandako harremanari buruzko iritzia positiboa zein negatiboa izan, ia denek azpimarratzen dute laguntzak kaleratu eta kudeatzen dituen administrazioaren aurrean ahots bakarrarekin aurkezteko orduan, TOKIKOM eta Hekimen elkarteek ekarri duten onura. Kontu hori ia denek azpimarratzen dutela adierazi da; izan ere, zenbait hedabidek Hekimeni lotutako bi kezka planteatzen dituzte; batetik, uste dute Hekimen elkartean hedabide txikiek handien konpartsa huts izan daitezkeela, eta bestetik, izaeraz oso desberdinak diren hedabideen arteko

desorekak sortu daitezkeela eta hedabide bakoitzak duen independentzia galdu dezakeela; nolabait esateko, hedabide bakoitzaren izaera urtu egin daitezkeela.

Sektorearen eta Jaurlaritzaren arteko harremana nolakoa den adierazteaz gain, nolakoa izan beharko litzatekeen ere bildu da. Indartsuagoa, iraunkorra eta eraginkorra izan beharko litzatekeela aldarrikatzen dute euskarazko inprimatuek. Eta hala izateko, hiru osagai dituen errezeta proposatzen dute: mesfidantza gainditu, adostasuna jorratu eta elkarlanean sakondu. Hirurak neurri egokian elikatzeko, berriz, sektoreak eta Jaurlaritzak jarrera aldatu behar dutela diote, baina horrek ez duela esan nahi bakoitzak izan ditzakeen interesak, pentsaerak bertan behera utzi behar dituenik.

Behin harremanak aztertuta, Delphiaren laugarren eta azken atala etorkizunari begira jarrita dago; hots, euskara hutsezko hedabide inprimatuek eta Eusko Jaurlaritzak dituzten zeregin edota erronkei begira.

Delphi bidez egindako ekarpenetatik ondoriozta daiteke, etorkizuna irudikatzeko lau era direla hedabideen artean. Lehenak baikorrak lirateke, horiek euskal komunikazio- esparru aberatsagoa eta besoz beso lanean ari diren sektorea eta administrazioa iragartzen dute. Bigarren multzoan, ezkorrek leudeke, eta horiek jarduteko beharrezko diren baliabideen eskasiak eskaintzaren murrizketa ekarriko duela uste dute. Hirugarren multzoan, egungo egoera berdintsua irudikatzen dutenak kokatuko lirateke; horientzat, euskarazko hedabideak egunerokoari eusten ahaleginduko dira eta eskaintza-mapak ez du aldaketa handirik izango. Eta azkenik, ez onerako ez txarrerako pronostikorik egiten ez dutenak daude; horiek argudiatzen dute zaila dela aurrera begirako pronostikoak burutzea, batik bat sektorea aldaketa-erritmo azkarrean murgilduta dagoelako eta norabidea bat ala bestea izan, hainbat faktoreren menpe dagoelako; hala nola, paperezko euskarrian kontsumitzen dutenen bilakaera, gazteen kontsumo-ohitura berriak, sareko edizioei errentagarritasun ekonomikoa ateratzeko gaitasuna...

Aurrera begira dituzten iritziak aintzat hartuta, euskarazko hedabide inprimatuen artean lau multzo berezitu daitezkeen bitartean, etorkizuneko euskal esparru komunikatiboaz galdetzen zaienean, bi ikuspegi nagusitzen dira. Batetik, egungo maparen oso antzekoa irudikatzen dutenak; horientzat euskarazko sektoreak nahikoa lan izango du egungoari eusten. Bestetik, egungo mapa baino zabalagoa, kantitate zein kalitate aldetik oparoagoa irudikatzen dutenak daude. Modu batean zein bestean ikusi, egungoaren antzekoa zein oparoagoa, denek uste dute komenigarria litzatekeela mapa horretan tokikoek eskualdekako formula lehenestea, eskualdeka jardun ezker eraginkorragoak izango liratekeela uste dutelako. Eta eraginkortasunaz ari direnean, hiru kontu barnebiltzen dituen kontzeptuaz ari dira: ekoiztutako produktua, lan-baldintzak eta kudeatutako baliabide ekonomikoak. Azken horietako parte dira diru-laguntzak.

Etorkizunera zuzendutako ikuspegi orokorra landu ondoren, erronka eta zeregin zehatzerako jauzia egin da. Sektoreak dituen zereginei dagokienez, hedabide bakoitzak bere etxeko egoeratik abiatuta egin du egitekoen zerrenda, eta ondorioz, denetarik agertu da: belaunaldi-erreleboa ziurtatu, publizitatea eta harpidetzak landu, sare-sozialetan presentzia sendotu... Dena den, zeregin partikularrez gain, inprimatuen sektoreak bere osotasunean burutu beharrekoak ere planteatu dira. Zalantza barik, gehien aipatzen dutena garai berrietara egokitzea da. Inprimatuek diote kontsumitzaile berriengana heldu nahi bada eta herritarren komunikazio-tresna izaten jarraitu nahi bada, ezinbestekoa dela hiru osagai dituen ekuazioa praktikan jartzea: lehena, berrikuntza teknologikoak ekarri dituen aukerez baliatu produktu berriak ekoizteko; bigarrena, paper-euskarria edukietan sakontzeko osagarri gisa erabili; eta hirugarrena, hedabideetan ari diren profesionalen formazioa. Hiru osagai, hortaz, euskara hutsezko hedabide inprimatuek plazaratzen duten bigarren erronka gauzatzeko: dituzten irakurleak fidelizatu eta berriak erakarri. Horretarako, arestian aipaturiko egokitze-zereginaz gain, garrantzitsua litzateke merkatuan diren hutsuneak identifikatu eta kontsumitzaile potentzialen interes, nahi eta beharrekin ondo ezkondu daitezkeen produktu konpetitiboak eta erakargarriak ekoiztea. Horixe hain zuzen, Delphi bidezko ekarpenetan sarri ageri den sektorearentzako hirugarren zeregina. Adierazitakotik,

erraz ondoriozta daiteke euskara hutsezko hedabide inprimatuek aurrera begira dituzten egitekoen artean, lehentasunezkoztat jotzen dutela euskarazkoen merkatu potentzialaren beharretara egokitutako ahalik eta eskaintzarik osoena (zentzu kuantitatiboan zein kualitatiboan) lantzea.

Arestian nabarmendutako hiru zereginenez gain, beste hainbat agertu dira Delphian; hala nola diru-sarrera propioak handitu, euskaraz ari diren hedabideen arteko sarea josi, sektorea alderdi edo estrategia politikoekin lotzen duen amaraunetik askatu, langileen lan-baldintzak hobetu eta erreleboa ziurtatu edota sektoreak bere buruan sinistu eta sektore bezala funtzionatu. Azken proposamen honek iradokitzen du egun hedabide bakoitzak bere aldetik jarduten duela, sektorea bere osotasunean kontuan hartu gabe. Hala jaso da ekarpenen batean, eta gaineratzen da bakoitzak bere aldetik aritzeak indarrak xahutzea eta aukerak galtzea dakarkiola euskaraz inprimatutakoei.

Administrazioari, Eusko Jaurlaritzari ezartzen dizkioten zereginiei erreparatuta, agerikoa da hiru nagusitzen direla. Lehena, euskara hutsezko hedabideak (ez soilik paperezkoak) laguntzeko diru-poltsa handitu, eta horrekin batera, urte anitzeko deialdiak gauzatu. Aipatu eskaera bikoitza Eusko Jaurlaritzari ez ezik, laguntza-deialdiak kaleratzen dituzten herri-erakunde guztiei luzatzen zaie; horien artean dira foru-aldundiak eta udalak. Bigarren zeregina sektorearekiko mesfidantza gainditzea dela diote. Ia ekarpen guztietan irakurri daiteke horri buruzko hausnarketa. Eta hirugarren zeregina aurrekoari lotuta dago: sektoreak burutzen duen lanaren errekonozimendua eskatzen diote Jaurlaritzari. Aitortza behar dutela uste dute inprimatuek, ez euskaraz jarduten dutelako, baizik eta produktu onak kaleratzen dituztelako eta horiekin funtzio soziala egikaritzen dutelako.

Hiru zeregin horietaz aparte, beste zenbait ere ezartzen zaizkio Eusko Jaurlaritzari, hala nola, euskarazko hedabideetan publizitatea egiteko eskatzen zaio. Sektoretik diote publizitate instituzionalaren arloan tratu diskriminatzailea ematen

zaiela eta horrekin bukatzeko exijitzen dute. Horrekin batera Jaurlearitzari eskatzen diote sektoreak bere buruari ezarri dion egokitze-zereginetan laguntzaile, bidelagun izateko, hedabideek egiten duten lana jarraitzeko, euskaraz ari diren hedabideen mapa osatu eta harremanetarako guneak sortzeko, gune erdaldunetan ari direnei, proiektu berritzaileei eta bateratze-prozesuei erreparatzeko eta horiek laguntzeko, euskarazko argitalpenak sustatzeko edota euskarazko hedabideei beste esparru batzuetara bideratzen diren laguntzak eskuratu ahal izateko aukera eskaintzeko.

Euskara hutsezko hedabide inprimatuek etxe barrura zein kanpora, Eusko Jaurlearitzara begira zehaztu dituzten zeregin guztiak xede bakarraren inguruan harilkatutakoak dira: euskara hutsezko hedabideen merkatu sendoa sortu, euskarazkoen ekosistema osoa eraiki. Xedea gauzatzeko izan daitezkeen oztopoak era askotakoak izan daitezkeela aitortze dute; hedabide formatu tradizionalen gainbeherari eta baliabide ekonomikoen urritasunari loturikoak, hizkuntza gutxitu baten egoera soziolinguistikoari lotuta agertu daitezkeen trabak edota sektoreko eragileen eta administrazioaren arteko harremanen gorabeheretatik sortu daitezkeenak.

Bukatzeko, lankidetzarako deiak jartzen dio azken puntua inprimatuen artean diren adostasunak eta desadostasunak biltzeko burutu zen Delphi lanari. Ekarpenak egin zituzten hedabide guztien iritziz, eraginkortasuna eta arrakasta lortzeko bide bakarra dago: sektoreko eta administrazioako aktoreak besoz besoz lanean jartzen dituen arnas luzeko akordio estrategikoa gauzatzea.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

6. IKERKETAREN ONDORIOAK

Jakingura eta beharra, premia omen dira edozein ikerketaren oinarrian dauden funtsezko arrazoiak eta pizgarriak. Hitz horiek hauspotuta abiatu zen Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuak sendotu, garatu eta normalizatzeko helburuz esleitutako diru-laguntzen azterketa. Aterpe teorikoa eraiki, helburuak eta hipotesiak aurkeztu, metodologia hautatu eta landa-lana burutu ondoren, azken urratsa egiteko unea iritsi da. Ondorioak plazaratzeko unea, ikerketan proposatutako hipotesiak egiaztatzen ote diren erakutsi eta azaltzeko unea alegia. Eta zereginari ganoraz heltzeko ikerketak orain arte jorratu duen bideari erreparatu behar zaio. Izan ere, marko teorikoan landutako edukiek, ikerketarentzat ezarritako helburuek eta nola ez, informazio-iturri ez zuzenen bidez, elkarrizketa sakonen bidez eta Delphi teknikaren bidez eskuratutako informazioek elikatuta datoz lan honen ondorioak.

6.1. EUSKO JAURLARITZAREN “HEDABIDEAK” DIRU-LAGUNTZA EZINBESTEKOA DA EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUENTZAT

“Hedabideak” izenez ezagutzen den laguntza ekonomikoa 1984tik kaleratzen da urtero agindu bidez. Horretara bideratutako diru-partida Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorretan jasotzen da; beraz, diru publikoa da. Ikerketa honetan diru-laguntza publikotzat hartu da lurralde batean gobernu-erantzukizuna duen aginteak modu zuzenean edo zeharka (zerga-murrizketak, esaterako) interes publikoa duen ekintza edo egitasmoak sustatzeko xedearekin eskainitako abantaila ekonomikoa, onuradunari sarrera osagarriak izateko edota kostuak txikitzeko balio diona. Definizioa lan honetara ekarrita, Eusko Jaurlaritza da gobernu-erantzukizuna duen agintea, onuradunak euskara hutsezko hedabide inprimatuak dira eta interes publikoa hizkuntzaren normalizazioaren ikuspegitik ulertu behar da.

Lanak fokua jarri du 2005-2013 epealdian esleitutako diru-laguntzetan eta denbora tarte horretan horiek jaso dituzten euskara hutsezko hedabide inprimatuen bilakaeran. Administrazioak, kasu honetan Eusko Jaurlaritzak, deialdi publiko bidez eta eskatzaileen arteko konkurrentzian oinarrituta egin ditu esleipenak, betiere urteroko deialdiaren oinarri arautzaileetan ezarritako balorazio-irizpideak aintzat hartuz.

Ikerketan diru-laguntzak jaso dituzten hedabide inprimatuen enpresa-izaera nabarmendu da. Hizkuntza batean zein bestean lan egin, nagusian zein gutxituan, eta euren produktua edozein euskarritan zabaldua, hedabideak enpresak dira. Beste edozein sektoreko enpresen ezaugarriak dituzte baina aldi berean bereizgarriak ere badituzte. Izaera askotakoak izan daitezke, pribatuak, irabazi asmorik gabeko erakundeek, elkarrekin sustatutakoak edo publikoak. Errentagarritasun bikoitza lortzeko dihardute, batetik ekonomikoa eta bestetik soziala; hots, ondasun publiko bat eskainiz gizartean eragina izatea bilatzen dute, kalitatezko informazioa landuz eta zabalduz eztabaida demokratikoa sustatu eta iritzi-publikoan eragitea (Cagé, 2016). Bestalde, kostu finko handiko enpresak dira, abiatzeko kapital-inbertsio indartsuak behar dituztenak eta horrek zaildu egiten du sektorean aktore berriak agertzea. Gainera, oso kalteberak dira merkatuan gerta daitezkeen gorabeheren aurrean, izan eskariaren gorabeherak, publizitate bidezko sarrerenak zein globalizazioak hedabidegintzara ekarri dituen aldaketa eta joera berriek bultzatutako gorabeherak. Beraz, ziurgabetasunean murgiltzen dira. Hortik erraz ulertu daiteke hedabide inprimatuen sektorean ari diren enpresentzat diru-laguntzak jasotzeko duen garrantzia. Are gehiago hizkuntza gutxituetan kaleratzearen aldeko hautua egin dutenen kasuan, horientzat ahultasun ekonomikoa eguneroko ogia delako eta ondorioz, oso zaila dutelako irabazi ekonomikoak eskuratzeko zelaian jokatzeko, lehiatzea. Zaila esan beharrean, agian egokiagoa litzateke ezinezkoa esatea. Baina zelaian izatea, jardutea ez da ezinezkoa. Eta euskara hutsezko hedabide inprimatuak zelaian dira.

Ondorioen kapitulura heldu aurretik jorratu den bidean sarri ikusi da euskara hutsezko hedabide inprimatuak bi indar edo arrazoiren uztardurari esker garatu direla gurean. Gizartearen ekimena batetik, eta erakundeen ahalmena bestetik. Lehena eta arrazoi nagusia herri-ekimeneko eragileek euskal hizkuntza eta kultura berreskuratu eta biziberritzeko baliagarri izan daitezkeen tresnak sortzeko erakutsi duten nahia, borondatea, kemena eta egin duten lana litzateke. Tresna horien artean leudeke euskara hutsezko hedabide inprimatuak. Bigarren arrazoa, aipatu ekimenak erakundeetatik jaso duen babesa eta laguntza ekonomikoa da.

“Laguntza publikorik gabe ez litzateke egun dagoen euskara hutsezko inprimatuen sektorerik izango” aitortu dute aho batez ikerketa honetan parte hartu dutenek. Beste era batera esanda, Eusko Jaurlaritzak zein EAEko gainontzeko administrazioek (foru-aldundiek eta udalek) ematen dizkieten diru-baliabideak ezinbestekoak dira urteroko aurrekontuetan zulorik ez izateko.

Arestian adierazitakoa ikerketak ezarri duen lehen hipotesiari lotzen zaio zuzenezuzenean. Honelaxe zioen:

H1.- Abiapuntuko hipotesi bezala planteatuko da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duen “Hedabideak” diru-laguntza funtsezko baliabide ekonomikoa dela euskara hutsezko hedabide inprimatuentzat. Hedabide bakoitzarentzat eta idatzizko sektorearentzat oro har. Funtsezkoa dela esaten denean ondokoa adierazi nahi da: paperean kaleratzen diren euskara hutsezko hedabideek diru-laguntza horrekiko dependentzia dute; hau da, administrazioaren finantziario publikoa behar dute irauteko, diru-laguntzarik gabe zailtasun handiak izango lituzkete jarduerari eusteko. Ondorioz, diru-laguntza publikorik gabe euskarazkoen eskaintza murriztu egingo litzateke.

Hipotesia ikergaitzat hartu den 2005-2013 epealdian egiaztatu daitekeen ala ez ikusteko inprimatuek eta Eusko Jaurlaritzaren esleipenek izan duten bilakaerari erreparatu zaio. Laguntzak jaso dituen paperezko bakoitzaren egoera ekonomikoak hobera edo txarrera egin duen aztertu da lehenbizi. Horretarako bakoitzaren aurrekontuak eta finantzaketa-maila propioak bildu eta aztertu dira. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak esleitutako diruarekin aurrekontuaren zein portzentaje estali duten arakatu da. Eta hirugarren urratsean, batetik eta bestetik jasotako datuak elkarren ondoan jarri dira.

Euskarazko hedabideek, ez soilik inprimatuek, bi zutabeko finantziazio-iturriekin elikatzen dituzte aurrekontuak: batetik, sarrera propioak edo pribatuak eta bestetik, erakundeen diru-laguntzak. Bi diru-iturri horietatik edaten dute euskara hutsezkoek euren egitasmoen eta enpresaren bideragarritasuna bermatzeko. Sarrera propioen barne daude ekoiztutako produktuen salmentatik eskuratzen direnak (bezeroak, harpidedunak), zerbitzuen salmenta bidez edo publizitate bidez lortu daitezkeenak, eta azkenik, entitate pribatuetatik jasotakoak. Horien gehiketa eta aurrekontua harremanetan jarrita hedabide bakoitzaren finantziazio-maila zehaztu daiteke. Izan ere, sarrera pribatuen bidez aurrekontuaren zenbat eta zati handiagoa estali, orduan eta autofinantzaketa-maila altuagoa izango du hedabideak eta aldi berean, diru-laguntza publikoekiko behar/menpekotasun txikiagoa izango du. Eta alderantziz, zenbat eta autofinantzaketa-maila eskasagoa izan, orduan eta diru publikoen behar handiagoa proiektuari eusteko. Beraz, parra egiteko, %100eko autofinantziaioa izateko sarrera propio bidez, diru-laguntzarik gabe eskuratu beharko litzateke hedabidearen aurrekontuan aurreikusitako partida osoa.

“Hedabideak” deialdiaren esleipenak egiteko erabili diren arazketa-taulen azterketak erakutsi du 2005-2013 bitartean alde handiak daudela euskara hutsezko hedabide inprimatu batzuetatik besteetara. Portaera ezberdina erakutsi dute egunerokoek, informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak eta udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak (tokikoek).

Mailakatzea egingo balitz, aurrekonturik apalenak kudeatu dituzten tokikoek agertu dute bilakaerarik onena. Gehientsuenek gasturako diru gehiago zuten 2013an 2005ean baino, eta finantzaketa-maila propioan ere, orokorrean, hobera egin zuten. Dena den, 2013an, kasurik gehienetan, tokikoen finantzaketa propioa %40 eta %52 bitartean zegoen⁷⁹⁷; horrek esan nahi du aurrekontuaren erditik %60ra sarrera

⁷⁹⁷ .- Gogoratu 2005-2013 epealdian “Hedabideak” laguntza-deialdira aurkeztu zen hedabide orori gutxieneko autofinantzaketa-maila izatea ezarri zitzaiola baldintza moduan. Urte beteko bizitza baino laburragoa zuten hedabideen kasuan gastu-aurrekontuaren %35 eta urte beteko bizitzatik gora zutenen kasuan %40.

pribatuak ez diren diru-iturriekin hornitu beharra zegoela urte amaierako balantzean zuzenki ez izateko. Hortik laguntza publikoek duten garrantzia. Horrekin batera nabarmentzekoa da, aztertutako tokikoen bi herenek Eusko Jaurlaritzak esleitutako diruarekin 2013an 2005ean baino aurrekontuaren zati handiagoa estali zuten arren, kasurik gehienetan estaldura-maila %10etik beherakoa izan zela eta estaldura-maila portzentaje horretatik gora zegoen hedabideen artean ez zen kasu bakar batean %20ra heldu. Orain arte azaldutakoei beste datu bat gehitu behar zaio: tokikoak izan ziren, ez bakarrik zenbaki absolututan baizik eta baita portzentajetan ere Eusko Jaurlaritzari laguntzarik txikiak eskatu zituzten euskara hutsezko hedabide inprimatuak.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

179. taula. Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkari autofinantzaketa-mailak eta "Hedabideak" deialdiaren bidez lortutako estaldura-mailak, 2005-2013, (%).

	Autofinan- tzaketa (A)	Estaldura- maila (B)	A+B	Autofinan- tzaketa (A)	Estaldura- maila (B)	A+B
	2005	2005		2013	2013	
Aikor!Txorierriko aldizkaria	53,4	11,6	65,0	59,6	11,4	71,0
Aiurri Beterri-Buruntzako astek.	45,0	5,0	50,0	41,1	8,5	49,6
Aiurri Beterri-Aiztondoko hamab.	40,4	6,8	47,2	41,2	8,6	49,8
Anboto	57,5	8,0	65,5	55,0	14,4	69,4
Artzape	44,4	11,9	56,3	40,4	0,00	40,4
Asteleheneko Goiena papera	69,5	17,0	86,5	69,8	18,1	87,9
Baleike	50,6	8,9	59,5	50,7	10,5	61,2
Barren	50,1	5,7	55,8	47,3	8,8	56,1
Begitu	42,4	6,9	49,3	46,7	9,6	56,3
Berton	40,0	6,8	46,8	49,4	9,4	58,8
Danbolin	41,4	11,3	52,7	48,4	8,4	56,8
Drogeteniturri	40,0	6,4	46,4	44,2	7,8	52,0
... eta kitto!	61,0	8,9	69,9	61,4	10,8	72,2
Galtzaundi	52,3	8,4	60,7	65,9	12,6	78,5
Goiena papera	54,9	8,2	63,1	57,0	15,2	72,2
Irunero	41,4	3,6	45,0	45,6	7,7	53,3
Kalaputxi	40,9	8,1	49,0	48,2	0,00	48,2
Karkara	51,4	9,9	61,3	51,8	10,3	62,1
Noaua!	58,5	8,8	67,3	45,5	7,7	53,2
Pil-pilean	47,4	9,2	56,6	50,3	8,3	58,6
Prest!	41,3	10,6	51,9	52,0	9,2	61,2
Txintzarri	56,7	7,5	64,2	57,2	8,8	66,0
UK Uribe Kostako aldizkaria	40,0	5,4	45,4	44,9	5,7	50,6
Uztarria	55,6	8,7	64,3	56,1	10,3	66,4
	2007	2007	A+B	2013	2013	A+B
Guaixe(2007)	40,5	17,7	58,2	46,9	11,0	57,9
Mailope(2007)	42,6	21,3	63,9	54,0	10,6	64,6
Ttipi-ttapa(2007)	46,2	16,3	62,5	63,4	16,4	79,8
	2008	2008	A+B	2013	2013	A+B
Pulunpe(2008)	41,2	17,8	59,0	49,7	10,0	59,7

Iturria: Autofinantzaketa-mailetarako HPSk 2005-2013 aldian diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-eta mailak. Estaldura-mailak eta bien arteko gehiketak tesiarene egileak kalkulatu.

Taulak zenbaki zehaztutara dakar aurretik azaldutakoa. Tokiko argitalpenetan sarrera pribatu bidez lortutako kopuruak hobera egin zuen 2005etik (edo Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso zuten lehen urtetik) 2013ra; eta horri Jaurlaritzak esleitutakoaren bidez urte batetik bestera aurrekontuaren portzentaje handiagoa estali zutela gehitzen bazaio, ondorioa begi-bistakoa da: finantziario iturri biak gehituta gastu-aurrekontuaren zati handiagoa bete zuten 2013an 2005ean baino. Hala ere, kasurik gehienetan oraindik zati ederra falta zitzaien aurrekontu osoa estaltzera iristeko.

Tokikoekin alderatuta, beste muturrean daude informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak. Horien osasun ekonomikoak okerrera egin zuen 2005etik 2013ra. Ikergetzat hartu den lehen urtean gastu-aurrekonturik handienak zituztenak dira 2013ko aurrekontuetan puntu gehien galdu zutenak eta beste horrenbeste gertatu zitzaien autofinantzaketa-mailari dagokionez. Ez hori bakarrik, sarrera pribatuen bidezko finantziario portzentajeak gora egin zuen gehienen kasuan baina hazkunde hori gastu-aurrekontuak izandako galeraren bidez azaldu daiteke eta ez sarrera pribatuak asko igo zirelako. 2013an euskara hutsezko informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariaren erdiek aurrekontuaren %40 eta %54 bitartean finantzatzen zuten sarrera propioen bidez eta beste erdiek %55 eta %68 bitartean. Gainontzekoa beste iturri batzuetatik elikatu beharra zegoen urte amaieran galerarik ez izateko. Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” deialdiak eskainitako babes oso garrantzitsua izan da multzo honetako hedabideentzat. Tokikoentzat izan dena baino askoz garrantzitsuagoa kopuru absolututan zein portzentajetan neurtu ezker. 2005ean, Jaurlaritzak esleitutako diru-partidak informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariaren gastu-aurrekontuaren %17 eta %33 bitartean estaltzen zuten eta are portzentaje handiagoa 2013an: %19tik %43ra. Ez hori bakarrik, zenbait kasutan Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarekin estaltzen da eskaeretan aitortutako sarrera pribatuen bidez estaltzen ez den portzentaje ia osoa; esate baterako, *Argia* aldizkariak 2005ean %74ko autofinantzaketa-maila zeukan eta “Hedabideak” diru-laguntzarekin aurrekontuaren %17,7 estaltzen zuten; beraz, biak batuta %91,7. Ikergetzat hartu den azken urtera, 2013ra etorrira, *Argia* aldizkariaren finantzaketa-maila propioa %56koa zen eta Jaurlaritzak esleitutako partidarekin aurrekontuaren

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

%43 estali zuen; beraz, biak batuta %99. *Argia* aldizkariarena adibiderik adierazgarrienetarikoa litzateke, baina 2005tik 2013ra gainontzeko informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkari gehienetan ere patroi bertsua jarraitu zuten: hobera egin zuen sarrera pribatuekin eta Eusko Jaurlaritzak esleitutakoarekin betetzen zuten aurrekontuaren zatia. Hau da, Jaurlaritzaren laguntzari esker gastu-aurrekontuaren portzentaje handiagoa estali zuten, ia denetan %70etik gora.

180. taula. Informazio orokorreko aldizkariaren eta aldizkari espezializatuen autofinantzaketa-mailak eta "Hedabideak" deialdiaren bidez lortutako estaldura-mailak, 2005-2013, (%).

	Autofinan- tzaketa (A)	Estaldura- maila (B)	A+B	Autofinan- tzaketa (A)	Estaldura- maila (B)	A+B
	2005	2005		2013	2013	
Aizu!	73,0	25,0	98,0	50,9	37,7	88,6
Argia	74,0	17,7	91,7	56,0	43,0	99,0
Bat	49,0	17,6	66,6	43,9	26,9	70,8
Bertsolari	48,0	23,9	71,9	51,0	33,6	84,6
Egan	51,0	18,8	69,8	40,0	21,3	61,3
Elhuyar	52,0	24,5	76,5	43,4	34,8	78,2
Euskal Herriko Natura	40,0	23,8	63,8	41,0	19,6	60,6
Gazteberri	58,0	12,2	70,2	66,7	29,2	95,9
Gaztezulo	63,0	13,0	76,0	59,3	35,4	94,7
Hemen	54,0	25,1	79,1	67,7	32,3	100,0
Jakin	55,0	22,9	77,9	64,9	28,5	93,4
Uztaro	40,0	24,4	64,4	46,9	31,3	78,2
	2006	2006	A+B	2013	2013	A+B
Xabiroi	54,5	26,6	81,1	54,1	19,4	73,5
	2007	2007	A+B	2013	2013	A+B
GAUR8	39,5	33,0	72,5	55,5	31,6	87,1
	2008	2008	A+B	2013	2013	A+B
Ekonomiaren KZ	40,0	17,5	57,5	53,3	20,0	73,3
Zazpi haizetara	36,1	23,3	59,4	59,3	34,5	93,8

Iturria: Autofinantzaketa-mailatarako HPSk 2005-2013 aldiaren diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-eta taulak. Estaldura-mailak eta bien arteko gehiketak tesia-egileak kalkulatuak.

Taulan bildutako datuei gehitu behar zaie, 2013an, salbuespenak salbuespen, eskatutako hamar eurotik zazpi baino gehiago esleitu zizkiela Jaurlaritzak euskara

hutsezko aldizkariei eta aldizkari espezializatuei, eta zenbait kasutan eskatutako kantitate osoa eman zien.

Euskara hutsezko eguneroko hedabide inprimatuei dagokienez, arestian aurkeztutako bi multzoko hedabideen artean kokatzen direla esan daiteke. Oro har, aurrekontu txikiagoak izan zituzten 2013an 2005ean baino; finantzaketa-maila propioan ere gehienek beherako bidea egin zuten eta Jaurilaritzaren “Hedabideak” deialdiaren bidez esleitutako diruarekin bakoitzaren gastu-aurrekontuaren zati handiagoa estali zuten 2013an 2005ean baino. Dena den, estalitako portzentajeari erreparatuta, tokikoen antzeko kopuruetan daude; *Berria* egunkaria kenduta gainontzekoetan estaldura-maila %12 eta %15,6 artean zegoelako 2013an; informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak lortzen zutenetik oso urrun.

181. taula. Eguneroko prentsaren autofinantzaketa-mailak eta “Hedabideak” deialdiaren bidez lortutako estaldura-mailak, 2005-2013, (%).

	Autofinan- tzaketa (A)	Estaldura- maila (B)	A+B	Autofinan- tzaketa (A)	Estaldura- maila (B)	A+B
	2005	2005		2013	2013	
Berria	82,1	17,1	99,2	74,2	23,0	97,2
Goierriko Hitza	48,2	8,1	56,3	57,4	14,1	71,5
Hernaniko Kronika	52,9	10,0	62,9	55,2	12,2	67,4
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza ⁷⁹⁸	64,3	9,7	74,0	63,6	13,6	77,2
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	63,8	7,1	70,9	53,2	14,6	67,8
Urola Kostako Hitza	55,2	7,5	62,7	52,5	15,6	68,1
Oarsoaldeko/ Oarso Bidasoko Hitza	58,8	9,5	68,3	59,1	15,5	74,6
Irutxuloko Hitza	52,9	7,8	60,7	45,7	5,4	51,1

Iturria: Autofinantzaketa-mailetarako HPSk 2005-2013 aldian diru-laguntzen esleipenak egiteko erabilitako arazketa-etaulak. Estaldura-mailak eta bien arteko gehiketak tesiaren egileak kalkulatu.

⁷⁹⁸ .- Gogoratu 2005 urtean *Lea-Artibai eta Mutriku*ko Hitza bezala kaleratzen zela.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Egunerokoen datuak biltzen dituen taularen begiratu azkarrak bi ondoriotara darama: batetik, *Berría* egunkariak, 2005etik 2013ra autofinantzaketa-mailan behera egin zuen arren, denbora-tarte berean diru-publiko bidez estalitako gastu-aurrekontuak gora egin zuenez, ia %100eko finantziazioa lortu zuen urte bietan sarrera pribatuak eta laguntza publikoak batuta. Bide batez esan, 2005ean *Berría* egunkariari eskatu zuen kantitate osotik %95,6 esleitu zitzaiola eta 2013an eskatutakotik %89,1. Bestetik, gainontzeko egunerokoetan oro har, 2013an estaldura-maila handiagoa zuten, baina sarrera pribatuetatik eta laguntza publikotik jasotako dirua batuta ere, oraindik herena falta zitzaien gastu-aurrekontu osoa hornitzeko eta urtea zenbaki gorriekin ez bukatzeko. Tokikoei falta zitzaiena baino gutxiago, baina informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariari baino zertxobait gehiago. Eta diru-laguntza moduan eskatutako hamar eurotik batez beste zazpi-zortzi esleitu zitzaizkien.

Hedabide-multzo bakoitzari ateratako argazkiak lehen hipotesiaren hariari ganoraz heltzeko aukera eskaintzen du. Ondokoa baieztatu daiteke: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duen “Hedabideak” diru-laguntza funtsezko baliabide ekonomikoa da euskara hutsezko hedabide inprimatuentzat. Izan ere, denek behar dute laguntza-deialdiaren bidez esleitutako diru publikoa gastu-aurrekontuetan sarrera pribatu bidez lortzen ez dutena osatzeko. Horrek bilakatzen du jasotako euro bakoitza behar-beharrezko onuradun den hedabide bakoitzarentzat.

Jaurlaritzaren diru-laguntzak eskaintzen duen babesari erreparatuta, esan daiteke tokikoak direla esleitutako diruarekin gastu-aurrekontuaren portzentajerik apalena estaltzen dutenak, ondoren daude eguneroko prentsako hedabideak, eta estaldura-mailarik handiena informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak lortzen dute. Portzentajeak portzentaje, aztertutako hedabide bakoitza banaka zein sektore moduan kontsideratuta, denek dute Jaurlaritzaren laguntzarekiko dependentzia, denak daude laguntzaren menpe urte bukaeran, ahal den neurrian, zulorik ez izateko. Horrek ez du esan nahi “Hedabideak” deialditik jasotakoarekin

aurrekontua osatzeko behar duten kantitate osoa eskuratzen dutenik, baina kantitate hori gabe jarduerari eusteko zailtasunak biderkatu egingo lirateke, kasuren batean ezinezko bihurtzeraino.

Ez bakarrik zenbakiek, euskara hutsezko idatzizkoen sektorean ari diren aktoreek, elkarrizketa sakonen bidez eta Delphi bidez, ikerketa honetarako egindako adierazpenetan ere babesten dute arestian esandakoa. “Ezinbesteko”, “funtsezko”, “garrantzitsu” edota “behar-beharrezko” bezalako hitzak errepikatzen dira behin eta berriro Eusko Jaurlaritzaren laguntza kalifikatu eta horren garrantzia azpimarratzeko. Ondoko ekarpen biak dira horren lekuko: “Gure proiektua garatzeko eta sendotzeko ezinbestekoa da laguntza hau” (D32), “Hedabideak” diru-laguntza ezinbestekoa da euskara hutsezko idatzizko hedabideentzat. Hori gabe, argi dugu sektorearen parte handi batek ezingo liokeela bere produktuari eutsi” (D29). Ondorioz, hipotesian planteatu den bezala, diru-laguntza publikorik gabe euskarazkoen eskaintza murriztu egingo litzateke. Laguntza hedabide inprimatu bakoitzarentzat ez ezik, sektore osoarentzat delako funtsezkoa. Baieztapen horrek bigarren hipotesira darama.

6.2. “HEDABIDEAK” DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAK EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEN ESKAINTZA KUANTITATIBOARI EUSTEN LAGUNDU DIO

2005-2013 bitartetan “Hedabideak” deialdiak gorabehera handirik gabeko bilakaera erakutsi du laguntzak jaso dituzten euskara hutsezko hedabide inprimatuen kopuruei dagokienez. Lanaren analisi-atalean ikusi bezala ondokoa izan da bilakaera:

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

182. taula. "Hedabideak" deialdiaren onuradunak hedabide inprimatuen sektorean, 2005-2013.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua	8	9	9	9	9	9	8	8	6
Euskara hutsezko Informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkari inprimatuak	23	19	19	19	23	23	23	23	23
Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkari inprimatuak	36	32	33	34	36	32	36	36	36
Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutseko gehigarriak		4	4	4	3	3	4		
Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutseko erreferentzia-orrialdeak					4	2			
GUZTIRA	67	64	65	66	75	69	71	67	65

Iturria: 2005-2013 bitarteko ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

2009an izan zen onuradun gehien; urte hartako zenbakietan nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutsezko gehigarriak eta erreferentzia-orrialdeak kontsideratuko ez balira ere urterik oparoena izan zen diru-laguntzen jasotzaileei begiratuta (68) eta ondoren 2005, 2011 eta 2012koak izango lirateke, diru-laguntza jaso zuten 67 hedabiderekin.

Datuak multzoka aztertuta, euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatuaren urterik makalena 2013 da. Lanean zehar behin baino gehiagotan azaldu denez erraz azaldu daiteke gertatutakoa. Izan ere, 2013. urtean, ordura arte egunerokoen multzoan aurkezten ziren *Irutxuloko Hitza* eta *Oarso Bidasoko Hitza* inprimatuak maiztasuna murriztu eta aldizkako bilakatu ziren. Informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak 19-23 artean mugitu dira beti eta tokikoen kasuan 36 da urte segida osoan gehien errepikatzen den onuradunen zenbakia.

Dena den, arestiko taulan daudenak ez dira 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzari laguntza eskatu zieten hedabide inprimatu guztiak. Gehiago dira. Baina horietako batzuk esleipen-prozeduratik kanpo geratu ziren deialdian finkatutako baldintzaren bat bete ez izanagatik.

183. taula. "Hedabideak" deialdiak finkatutako baldintzaren bat ez betetzeagatik bazterrean geratutako egitasmoak, 2005-2013.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
GUZTIRA	26	7	20	14	4	6	7	16	16
Inprimatuak	4	2	8	5	2	2	2	2	2

Iturria: 2005-2013 bitarteko ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

2007 urtean geratu zen hedabide inprimatu gehien deialditik kanpo; batez ere aginduan ezarritako gutxieneko maiztasuna edo orrialde-kopurua ez izateagatik.

Hortaz, "Hedabideak" deialdiak izan dituen eskatzaileei eta jasotzaileei erreparatuta esan daiteke kuantitatiboki ez dela aldaketa handirik izan 2005etik 2013ra. Alde horretatik, egonkortasuna litzateke aztertutako epealdiaren ezaugarria. Eta beste horrenbeste gertatu da onuradunen zenbakiei izen-abizenak jarri ezker. Eguneroko prentsa inprimatuaren multzoan ikerketaren azken urtean laguntza jaso zuten 6 hedabideak 2005ean ere jaso zuten. Informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarietan gorabehera gehiago izan da, baina hala ere 2005ean laguntzen onuradun izan ziren 23 argitalpenetatik, hamabi 2013an ere badira. Horrek esan nahi du ikertutako epealdian aldizkako enaldiak eutsi diola jardunari, eta beste enaldiak onuradunen zerrendan utzitako hutsunea⁷⁹⁹ sortuz joan diren egitasmo berriek bete dute. Eta azkenik udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien multzoa, hau da, tokikoena izan da jasotzaile-kopuruari begiratuta handiena, baina ez ordea, diru-gehien jaso duena. Horrez gain mugimendu, bizitasun handiena erakutsi duen multzoa da: 2005-2013 epealdian 53 tokiko aldizkari ezberdinei esleitu zitzaizkien laguntza eta horietatik 21ek urtero urtero jaso dute.

⁷⁹⁹ - Onuradunen zerrendan utzitako hutsunea diogu 2005ean laguntzen jasotzaile izan ziren multzo horretako aldizkako guztiak ez zirelako desagertu. Horren adibide da *Karmel* aldizkaria; oraindik argitaratzen da baina 2010-2013 aldiaren ez zuen "Hedabideak" diru-laguntza eskatu.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Gainontzeko 32ren artean denetarik dago; hiru multzotan sailkatu daitezke: hamalau desagertu egin ziren⁸⁰⁰, beste batzuk beranduago hasi ziren laguntzak jasotzen, esate baterako, Nafarroan zabaldu arren, 2007tik Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza eskatu eta hartzeko aukera izan duten *Mailope*, *Guaixe* eta *Ttipi-ttapa* aldizkarien kasua (eta 2008tik *Pulunpe* aldizkaria), eta azkenik, 2011tik aurrera EAEn martxan jarri ziren beste hainbat egitasmo daude, adibidez *Arabako*, *Bizkaiko*, *Gipuzkoako* eta *Nafarroako Hitzak* edo *Ezkerraldeko KZ*.

Adierazitakoak adierazita, ikerketaren bigarren hipotesia egiaztatzen dela kontsideratu daiteke. Ondokoa izan da horren formulazioa:

H2.- Eusko Jaurlaritzaren "Hedabideak" diru-laguntza deialdiak paperezkoen eskaintza egonkorra izan dadin lagundu du. Egonkorra ikuspegi kuantitatibo batetik.

Baieztapen horrek, noski, ez du inplikitzen Eusko Jaurlaritzaren "Hedabideak" diru-laguntza izan denik 2005-2013 bitartean euskara hutsezko inprimatuen eskaintza kuantitatiboak egonkor irautearen erantzule bakarra, diru-laguntzei zor zaienik eskaintzak kuantitatiboki berdintsu eustea. Badirelako bilakaeraren egonkortasunean eragin duten beste bi faktore garrantzitsu. Batetik, hizkuntzaren biziberritzea sustatzeko ahaleginean inplikaturik dauden gizarte-eragileek hedabideen arloan agertu duten ekintzailetasuna, eta bestetik, sektoretik bertatik eskaintzari eusteko eta berau hobetzeko izan den nahia eta egin den lana. Hortaz, argitzeko dago, egonkortasunak zenbat zor dion gizarte-eragileei, zenbat idatzizkoen sektoreari eta zenbat Jaurlaritzak eta orokorrean erakunde publikoek esleitutako diru-laguntzei. Baina edozein kasutan, agerikoa da diru-publikoak zeresana izan duela. Eta baieztapena babesteko argudio esanguratsuenak, berriro ere, ikerketan parte hartu duten sektoreko hedabideetatik etorri dira. Lehen hipotesiari lotutako atalean ikusi bezala, argi eta garbi adierazten dute diru publikoa behar dutela bakoitzaren ortuari eusteko, baina ez bakarrik bakoitzarenari baizik eta baita denen artean osatzen duten landari eusteko ere bai.

⁸⁰⁰ .- *El Social Basauriko aldizkaria*, *Berrigara*, *Arrasate Press*, *Aretxagazeta*, *Txaparro*, *Otamotz*, *Oarsoaldean on*, *Maxixatzen* (2015ean berriro kaleratuko dute), *Goierritarra*, *Geu*, *Akatz*, *Behe-Bidasoko Hitz*a, *Boga* eta *Berbaz*.

Iritzi horren isla diren hiru ekarpen berreskuratu daitezke adierazitakoa babesteko⁸⁰¹.

Lehena, eguneroko prentsaren multzoan ari den hedabide batek ekarritakoa da:

“Laguntza oso garrantzitsua izan da aurrera egiteko. Diru laguntzarik gabe euskal hedabideek nekez egingo lukete aurrera, edo ezingo lukete bizi iraun”. (D37)

Bigarrena, informazio orokorreko eta espezializatuko hedabide inprimatuen multzotik dator:

“Hedabideak diru-laguntza ezinbestekoa da euskara hutsezko idatzizko hedabideentzat. Hori gabe, argi dugu sektorearen parte handi batek ezingo liokeela bere produktuari eutsi”. (D29)

Eta hirugarrena, udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkari inprimatuen multzotik, hau da, tokikoenetik:

“Oro har, HPSren deialdiak onura besterik ez dio ekartzen sektoreari, hark emandako diru-laguntzarik gabe hainbat eta hainbat proiektu jausi egingo bailirateke. Hortaz, ekonomikoki behar-beharrezkoa bide du sektoreak deialdi hori”. (D6)

Ekarpenak bat datoz hipotesian adierazitakoarekin. Hortaz, Jaurlaritzak jarritako baliabideek, gutxienez, arnasari eusteko beste eman diote euskara hutsezko inprimatuei, esleitutako kantitateen bidez diru-sarrera osagarria izan delako hedabideen kutxan. Urrats bat gehiago emanez, esleitutako diru-laguntzak 2005-2013 bitartean EAEn egikaritu den hizkuntza-politikaren tresnatzat hartu daitezke, helburu moduan euskararen biziberritze-prozesua laguntzea izan duen hizkuntza-politikaren tresnatzat. Beste era batera esateko, diru-laguntzak politika publikoa garatzeko baliabide ekonomiko izan dira. Lan honentzat eraikitako aterpe teorikoan aurkeztu diren hainbat egileren planteamenduei jarraituz (Sinova, 1999; Herman eta Chomsky, 2002; Gitlin, 2002; Gamble eta Watanabe, 2004), hedabideei eskainitako diru-laguntza bidez gauzatzen den politika publikoaren helburua informazio-aniztasuna babestea eta

⁸⁰¹.- Hirurak daude Delphi bidez eskuratutako ekarpenen analisisan. Beraz, hemen errepikatu egiten dira, baina interesagarria da horrela jasotzea; hipotesia egiaztatzeko, eta bide batez, ondorioei oinarri sendoa emateko baliagarri direlako.

bermatzea litzateke. Xede hori hizkuntza gutxitua duen gizartera ekarri ezker, diru-laguntzekin bi urratseko politika publikoa gauzatu nahi dela baieztatu daiteke: lehenik eta behin, hizkuntza gutxituan ari diren bizilagunen informazio-beharrei erantzuteko ahalik eta hedabide-eskaintza zabalena, pluralena sustatu eta bermatu; eta bigarrenik, aurrekoarekin erabat lotuta, komunitate horrek duen berezko hizkuntzaren eta kulturaren sustapen-zeregina.

Ikerketan zehar erakutsi denez, Europan ugari dira hizkuntza gutxitua duten izaera publikoko zein herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko hedabideen finantziazioa osatzeko ardura hartu duten administrazioak (Zabaleta eta al.). Zenbait kasutan, finantziazioa %100ean estaltzera iritsi dena. Gurean, Franco ondorengo lehen Jaurlaritzak osatu zenetik ekin zioten eskaintza eta eskariaren legean oinarritutako testuinguru lehiakorren diru-publikorik gabe irauteko gai ez diren herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko euskara hutsezko hedabideak diruz babesten. EAEko aurrekontu orokorretan, beti izan dira euskara hutsezko hedabideen bideragarritasuna bermatzera bideratutako partidak. Horien tamaina eta poltsa handiaren, hau da, aurrekontu orokorren tamaina eskutik hartuta joan ote diren argitzera joko du hurrengo atalak.

6.3. EAEko AURREKONTU OROKORRAK NORA /NOLA, “HEDABIDEAK” DIRU-LAGUNTZA HARA/HALA... BAINA EZ BETI

Eusko Jaurlaritzak denboran zehar martxan jarri dituen hizkuntza-politikak gauzatzeko baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko urteroko aurrekontu orokorretan ezarritako partidetatik edan dute; beraz, logikoa da pentsatzea aurrekontu orokorren bilakaera nolakoa euskara biziberritzeko erabilitakoarena halakoa izan dela; hau da, urte batetik bestera batek gora egin badu besteak ere gora egin duela eta alderantziz, kasuren batean, aurrekontu orokorretan diru gutxiago izan bada, beste horrenbeste gertatu dela euskara sustatzeko diru-baliabideekin.

Euskal Autonomia Erkidegoan 2005-2013 bitartean gizarteko esparru guztietako politikak garatzeko onartu ziren aurrekontu orokorren urtetik urterako errepaso azkarrak agerian uzten du bi fase bereizi daitezkeela: 2005etik 2009ra bitartean gasturako dirua haziz joan zen, baina 2010etik aurrera aldatu egin zen egoera, eta, 2011n zertxobait errekuperatu zuen arren, joera orokorra beherakoa izan da. Hala, 2013an 2008an baino diru gutxiago izan zuen Eusko Jaurlaritzak. Ikertutako urte-segida osoko aurrekonturik handiena 2009koa izan zen.

Ikuspegi orokorretik EAEko gastu-aurrekontuaren arlokako banaketara etorri ezkerro esan daiteke partidarik garrantzitsuenak bi esparrutara bideratu direla beti: osasuna eta hezkuntza. Biak batuta gastu-aurrekontuaren erdia baino gehiago hartu dute. Hizkuntza-politika gauzatzeko diru-baliabideak, eta horren barne euskarazko hedabideentzako diru-laguntzak, Kultura Sailean kokatu dira, 2013an izan ezik. Izan ere, 2013an hezkuntza- eta kultura-zereginak sail bakarretik hasi ziren kudeatzen. Edozein kasutan, kulturak aurrekontu orokorraren %2,6 eta %3,0 artean izan du ikertutako denbora-tartean; hortik erdia EITB finantzatzeko erabili da, eta gainontzekoa beste hainbat arloren artean banatu da: gazteria eta gizarte-ekintza, kirolak, ondare historiko eta artistikoa, kulturaren sustapena eta hizkuntza-politikarako programak.

184. taula. EAEko aurrekontu orokorrak (€) eta Osasun, Hezkuntza eta Kultura Saisetako partidak (%). 2005-2013.

Urtea	Aurrekontua ⁸⁰² (€)	Osasuna (%)	Hezkuntza (%)	Kultura (%)
2005	7.117.102.000	32,2	26,7	2,9
2006	7.623.134.200	32,9	27,0	3,0
2007	8.740.181.000	32,0	25,8	2,8
2008	9.939.662.000	31,8	24,5	2,8
2009	10.487.458.000	32,9	25,1	2,9
2010	10.315.210.000	34,2	26,7	2,9
2011	10.549.489.000	32,4	25,3	2,7
2012	10.449.167.000	32,6	25,3	2,6
2013	9.316.657.000	35,0	25,1	2,7

Iturria: EAEko Aurrekontu Orokorrek, 2005-2013. Tesiaren egileak moldatua.

Taulan, Osasun Sailak, Hezkuntzak eta Kulturak aurrekontu orokorretatik zein zati hartu zuten dago jasota, baina Eusko Jaurlaritzak horiek baino gehiago izan ditu 2005etik 2013ra. Ikerketak hartu duen lehen urtean esaterako hiru sailek izan zuten Kulturaren antzeko aurrekontua: Etxebizitza eta Gizarte-Gaiak izenekoak (aurrekontu orokorren %2,9), Garraioa eta Herri-Lanak (%2,7) eta Nekazaritza eta Arrantza Sailak (%2,1). Orditik 2009ra, lehenak antzeko portzentajeari eutsi zion, Garraioa eta Herri-Lanak asko hazi zen (aurrekontu orokorren %8,6) eta Nekazaritzak eta Arrantzak pisua galdu zuen (aurrekontu orokorren %1,7). 2010etik aurrera, alderdi sozialista Jaurlaritza kudeatzen hasi zenean, beste era batera antolatu zuten sailen banaketa⁸⁰³ eta Kulturari ezarri zitzaion partidaren parekoa izan zuten Justizia eta Herri

⁸⁰² .- Hemen dauden zenbakiak Eusko Jaurlaritzaren web orritik (<http://www.euskadi.eus>) hartutakoak dira. Ez datoz guztiz bat Eusko Jaurlaritzak burutu zuen *Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen Estatistika (EAE 2012)* izenburuko lanean agertzen diren zenbakiekin, baina batzuen eta besteen arteko aldea txikia da. Esaterako, 2010 urterako taula honetan 10.315.210.000 euro ageri dira eta aipatu lanean 10.327.556.416 euro. Aurrekontu likidatuetan oinarritzen den lan horrek ez ditu urteroko datuak eskaintzen baizik eta bi urterokoak. Horrez gain, euskara sustatzeko baliabide ekonomiko eta giza-baliabideen inguruko informazio osatua aurkezten duen arren, ez du eskaintzen Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzera bideratutako partidei buruzko informazioa. *Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen Estatistika (EAE 2012)* izeneko lana oso baliagarria izan da erakunde publikoen artean (Jaurlaritza, foru-aldundiak, eta udalak) alderaketa egiteko, baina ikerketa honetan urteroko datuak eta sailetakoak behar direnez, Eusko Jaurlaritzaren web orrian bildutakoak erabili dira.

⁸⁰³ .- Patxi López lehendakari izan zen bitartean Eusko Jaurlaritzak ondoko sailak izan zituen: Herrizaingoa; Hezkuntza; Unibertsitateak eta Ikerketa; Ekonomia eta Ogasuna; Justizia eta Herri Administrazioa; Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa; Enplegu eta Gizarte Gaiak; Osasuna eta Kontsumoa; Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza; Kultura.

Administrazioa Sailak (2010eko aurrekontu orokorraren %3,0) eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak (%2,7). Beste horrenbeste gertatu zen 2011n eta 2012an, nahiz eta aipatutako bi sailen portzentajeak zertxobait behera egin zuten⁸⁰⁴. Eta ikerketak aztertu duen azken urtean, 2013an, Eusko Alderdi Jeltzaleko lehendakaria Ajuria Enean zela, Autonomia Estatutua onartu zenetik inoizko sail gutxien izan dituen Jaurlaritzan⁸⁰⁵, Kultura eta Hezkuntza sail beretik kudeatu dira. Hala ere, bati eta besteari egokitutako diru-baliabideak banatu ezker, Kulturak EAEko aurrekontu orokorraren % 2,7 jaso zuen, Herri Administrazioa eta Justizia Sailak baino 4 hamarren gehiago.

Bestalde, goiko taulan bildutako portzentajeek erakusten dute aurrekontu orokorrak gora zein behera egin arren, Eusko Jaurlaritzaren sailen pisu erlatiboak ez duela gorabehera handirik izan. Zerbait aipatzekotan, 2013an, hau da, aurrekontu orokorra makalena izan zen urtean, Osasun Sailak pisua irabazi zuela. Baina portzentajetan eskaintako datuak eurotara ekarriko balira, nabarmentzekoa da hiru sailek bide ezberdina jorratu dutela. Hezkuntza eta Osasunaren kasuetan, aurrekontu orokorrak behera egin arren, beti aurreko urtean baino diru gehiago izan zuten, 2013an izan ezik. Kultura Sailak, ordea, EAEko aurrekontu orokorrek egindako bide bera egin du; hau da, 2010etik aurrera, urterik urtera diru gutxiago izan du. Ez hori bakarrik, Kultura Sailak 2013an zuen diru-partida ia hamarkada bat lehenago zuenaren antzekoa da. 209 milioi euro inguru izan zituen 2005ean, eta 2013an 213 milioi euro.

Arestian adierazitakoak hirugarren hipotesiari heltzeko atak zabaltzen ditu.

⁸⁰⁴ .- EAEko 2011ko aurrekontu orokorretan Justizia eta Herri Administrazio Sailak kopuru osoren %2,8 jaso zuen eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak %2,7. Hurrengo urtekoetan, 2012an, lehenak %2,7 eta bigarrenak %2,4.

⁸⁰⁵ .- Zortzi sail izan zituen: Herri Administrazioa eta Justizia (2013ko EAEko aurrekontu orokorraren %2,3 jaso zuena), Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna (%4,1), Ogasuna eta Finantzak (%1,0), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura (%28,2), Segurtasuna (%6,3), Osasuna (%35,0), Ingurumena eta Lurralde Politika (%6,4). Portzentaje guztien batuketak ez du %100 ematen, urte bakoitzeko aurrekontu orokorrean beste leku batzuetarako ezarritako partidak ere izaten direlako, hala nola, Legebiltzarra, Lan Harremanetarako Kontseilua, Ekonomia eta Gizarte Euskal Kontseilua, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Zor Publikoa, Erakundeen Baliabideak eta Konpromisoak, eta abar.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuak eskaintako diru-baliabideen azterketa.

Honelaxe planteatu da:

H3.- Hirugarren hipotesiak xedatzen du harremana dagoela 2005-2013 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrek izan duten bilakaeraren eta euskarazko hedabideak, ez soilik inprimatuak baizik eta euskarri guztietan ari direnak, laguntzeko bideratu diren diru-partiden artean. Hipotesi honen arabera, EAEko aurrekontu orokorrak haziz joan direnean, euskarazko hedabideak laguntzera bideraturiko diru-partidak ere hazi egin dira, eta EAEko aurrekontu orokorrek beherako bidea hartu dutenean, hedabideentzako diru-laguntzek behera egin dute.

Lerrootako edukia betetzen ote den balioztatzeko zeregina hiru urratsetan burutuko da. Lehenbizi, Kultura Sailak izan duen aurrekontuari erreparatuta; bigarrenik, euskara sustatzeko erabili diren baliabide ekonomikoak aintzat hartuta; eta hirugarrenik, euskara hutsezko hedabideak laguntzeko jarritako diru-partidei helduta.

Hipotesia Kultura Sailaren bilakaerari aplikatu ezker goitik behera bete dela esan daiteke. Izan ere, EAEko aurrekontu orokorrak haziz joan ziren 2009ra arte, eta beste horrenbeste gertatu zen kultura-arloko zereginak egikaritzeko ezarritako diru-partidekin. 2010etik aurrera, berriz, krisi ekonomiko globalaren astindua sumatzen hazi zen aurrekontu orokorretan, eta 2011ko salbuespena kenduta, diru-poltsa handiak gero eta diru gutxiago izan zuen. Egoerak eragin zuzena izan zuen Kultura Sailean. Kasu horretan, 2010etik aurrera, urterik urtera, murriztuz joan ziren gasturako diru-baliabideak. 2011 urtea ere ez zen joera horretatik libratu.

Baina hipotesiak ez ditu harremanetan jartzen EAEko aurrekontu orokorrak eta Kultura Sailarenak, baizik eta lehenak eta euskara hutsezko hedabideak babesteko baliabide ekonomikoak. Dena den, horiek laguntzeko dirua Kultura Sailak eskuragarri izan duenetik hartu da beti; zehatzago esateko, hizkuntza-politika egitasmoak garatzeko aurreikusi eta ezarri diren diru-partidetatik.

Hizkuntza-politika egitasmoak, horien artean diru-laguntza deialdiak, estrategia orokorrago baten barne txertatu ditu Eusko Jaurlaritzak betidanik. Estrategiaren helburu nagusia, ipar-orratza euskararen sustapena eta biziberritzea izan dira. Ikerketa

honentzat eraiki den aterpe teorikoan kapitulu oso bat eskaini zaio Autonomia Estatutua onartu zenetik 2013ra arte Eusko Jaurlaritzak euskara biziberritzeko garatu duen ekimen instituzionalari. Bertan, 1982ko Euskararen Erabilera Arauzkotezko Oinarrizko Legea adostu eta onartu zenetik sortu diren arau, erakunde eta planak aurkeztu dira eta, horrekin batera, hizkuntza gutxitua sustatzeko 1983-2013 bitartean jarri diren baliabide ekonomikoak ere landu dira. Oso presente izan behar da euskara sustatzeko lana ez dela mugatzen Kultura Saitetik kudeatu diren hizkuntza-politikak garatzeko behar diren diru-baliabideetara. Horiei hezkuntza-sistema euskalduntzeko, helduak alfabetatu eta euskalduntzeko (HABE) edota Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen (IVAP) helburuak gauzatzeko jarri diren baliabideak ere gehitu behar zaizkie.

1983tik 2013ra euskara sustatzeko jarri diren diru-baliabideen lanketak erakutsi du urteekin handitu egin dela arlo horretara zuzenduriko diru-partida. Hala, 1983an hiru milioi euro pasatxo izatetik 2013an laurogeita sei milioi eurokoa izatera iritsi zen. Hazkundera erraz azaldu daiteke; izan ere, behin Euskararen Legea indarrean (1982) Jaurlaritzak bertan adierazitakoa egikaritzeko hainbat tresna jarri zituen martxan, adibidez, EITB, HABE, IVAP edo Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia (HPIN); eta horiek diru-hornikuntza behar dute funtzionatzeko. Hiru hamarkadotan, hezkuntza-sistemaren euskalduntzeak eta helduen alfabetatzeak eta euskalduntzeak (HABE) jaso dituzte Jaurlaritzak euskara sustatzeko jarritako hamar eurotik ia zortzi. Eta geratzen diren bi eurotik 1,6 hizkuntza-politika egitasmoak gauzatzera bideratu da. Hortxe kokatzen dira euskara hutsezko hedabideei esleitutako diru-laguntzak.

Lanak ikergaitzat hartu duen 2005-2013 denbora tarteari dagokionez, badira nabarmentzeko moduko kontuak:

- 1983tik 2013ra bitarteko hiru hamarkadetan euskara sustatzeko erabilitako diru-baliabide guztietatik ia erdia 2005-2013 urteetan erabili zen; guztira 917,8 milioi euro.
- Kantitate horretatik 197 milioi euro hizkuntza-politikako egitasmoetara bideratu zen; portzentajetan neurtuta %21,5. Beraz, hobera egin zuen xede horretarako erabili zen

kopuruak, hiru hamarkadetan, hamar eurotik hizkuntza-politikaren esparruan batez beste 1,6 jartzetik, bi baino zertxobait gehiago jartzera iritsi zelako 2005-2013 bitartean.

- Lanean aurkeztutako datuen arabera⁸⁰⁶, EAEn diren herri-administrazioen artean (Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak eta udalak), Jaurlaritzak gastatu du biztanleko euro gehien euskara sustatzeko (urterik makalenean biztanleko 42,4 euro eta oparoenean biztanleko 51,5 euro), eta ondoren udalek (biztanleko 23,7 eta 29,5 euro artean). Baina arreta zenbaki absolutuetan jarri beharrenean hizkuntzaren sustapenerako erabilitako diruak aurrekontu osoarekiko duen pisu erlatiboan jarriko balitz, udalak Eusko Jaurlaritzaren aurretik kokatzen direla erakutsi da. Hau da, udalak, EAeko diru-poltsarik apalena duten herri-administrazioak dira gasturako duten dirutik portzentualki euskara sustatzeko gehien erabili dutenak. Foru-aldundien kasuan, Gipuzkoakoa da gehien jarri duena, baina hiru lurraldeetakoak kontuan hartuta, foru-aldundiak lirateke biztanleko zein aurrekontu osoarekiko gutxien inbertitu dutenak.

- Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 bitartean euskara sustatzeko erabili dituen baliabide ekonomikoen bilakaera EAeko aurrekontu orokorrek izandakoaren ispilu izan dela baieztatu daiteke. Hau da, haziz joan zen 2005etik 2009ra, eta behera egin zuen 2010etik 2013ra. Beraz, euskara sustatzeko aurrekontuari dagokionez ere, Kultura Saileko aurrekontuarekin gertatu bezala, egiaztatu egiten da hipotesia.

Azkenik, 2005-2013 bitarteko aurrekontu orokorrak eta denbora-tarte berean publikoak ez diren euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko jarritako baliabide ekonomikoen arteko harremana arakatzea geratzen da. EAeko herri-administrazioek euskarazko hedabideak laguntzeko eskaini dituzten hamar eurotik sei euro inguru Jaurlaritzaren kutxatik irten dira, foru-aldundiek hamar eurotik 1,3 euro jarri dituzte (gehien Gipuzkoakoak) eta udalek hamar eurotik 2,7 (kasu honetan ere gehien Gipuzkoan kokatutako udalek).

⁸⁰⁶ .- *Euskararen Aurrekontu eta Baliabide Publikoen Estatistika (EAE 2012)* izeneko lanean oinarrituta egin da datuen aurkezpena analisi-atalean.

Eusko Jaurlaritzak jarritako partidei heldu ezker, nabarmentzekoa da ikertutako denboran landu ziren aurrekontu orokorren urteroko memoriatan agertu zela euskara hutsezko hedabideak diru-laguntza deialdiaren bidez bultzatzeko konpromisoa. Eta idatziz jasotako konpromisoa praktikara eramateko zeregina Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak erabilgarri izan zuen aurrekontua kudeatuz gauzatu zen.

Helduen alfabetatze eta euskalduntzera (HABE) eta diru-laguntza deialdietara (Hedabideak, Lanhitz, EBPN/ESEP, Euskalgintza eta IKT) joan dira Sailburuordetzaren aurrekontuaren hiru laurden baino gehiago 2005-2013 bitarteko urteetan. Kopururik txikiena 2005 eta 2009 urteetan (HPSren hamar eurotik 7,5) eta handiena 2013an (HPSren hamar eurotik 8,7). Bestalde, azpimarratzekoa da HABEk hartu duela beti diru gehien, alde handiz gainera. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2013 urtealdi osoan gasturako izan zuen diru guztiaren %55,5 HABEk hartu zuen eta diru-laguntza-deialdiek %23,5.

“Hedabideak” deialdia hornitzeko partida, esan bezala, bost diru-laguntza deialdietarako ezarritako poltsan dago. Eta poltsa horretan izan den dirutik gehiena, alde handiz gainera, euskarazko hedabideak laguntzeko erabili da, hamar eurotik 3,9 eta 4,6 bitartean, hain zuzen. Gainontzekoa beste lau laguntza-deialdien artean banatu da.

Ikerketan proposatutako hipotesia Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzari aplikatu ezker, ondoriozta daiteke bete egiten dela. EAEko aurrekontu orokorrekin ikusi bezala, Sailburuordetzaren gastu-aurrekontuak ere gora egin zuelako 2005-2009 bitartean, baina 2010etik aurrera behera egin zuen, eta diru gutxien 2013an izan zuen. Hori horrela, logikoa litzateke pentsatzea gauza bera gertatu dela HPSren baliabide ekonomikoekin finantzatzen diren arloekin, baina zenbakien errebasotik ondorioztatzen da ez dela esperotakoa gertatzen HABE eta diru-laguntza deialdiak elikatzeko erabilitako partidekin. HABEren kasuan, beranduago gertatzen da joera-aldaketa; hots, urtero-urtero diru gehiago hartu du 2011ra arte, eta beherakada 2012an eta 2013an izan zuen. Eta diru-laguntza deialdiei dagokienez, aldeak daude

batzuetatik besteetara: euskalgintzak 2011n hasi zuen beherako bidea, Lanhitz eta ESEP/EBPN deialdiek 2010ean eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskara sustatzeko IKT deialdiak 2009an. Lan honen ikerketa-objektuari, "Hedabideak" deialdiari dagokionez, berriz, 2009 eta 2010 urteetan izan zuen diru gehien (5.575.000 euro), eta datua bat dator deialdiak izan duen esleipenen bilakaerarekin; izan ere, aurreko hipotesiaren lanketan erakutsi bezala, 2009an izan zen onuradun gehien. Baina 2011tik aurrera "Hedabideak" deialdirako partida murriztuz joan zen eta 2013koan 2006koan baino zertxobait diru gehiago izan zuen.

Ikusitakoak ikusita baieztatu daiteke "Hedabideak" diru-laguntza deialdiari dagokionez, ikerketak formulatu duen hipotesia ez dela %100ean betetzen. Egia da EAEko aurrekontu orokorrak haziz joan direnean, euskarazko hedabideak laguntzera bideraturiko diru-partidak ere hazi egin direla, baina batzuk eta besteak ez datoz bat joera-aldatzeko urtean. Izan ere, aurrekontu orokorrentzat 2010a izan zen bitartean, euskarazko hedabideak laguntzeko diru-baliabideek 2011n egin zuten behera. Beherakada urte bete beranduago gertatu zen hedabideentzat. Gainera, nabarmentzeko modukoa da EAEko testuinguru politikoan 2009ko maiatzean gauzatutako aldaketa esanguratsuak; hots, Eusko Jaurlaritza alderdi popularrak babestutako sozialisten esku izateak ez zuela aldaketarik eragin "Hedabideak" deialdian. Izan ere, 2010ekoa aurreko urtekoaren kopia hutsa izan zen.

Atal honetan, multzo bakar gisa kontsideratu dira edozein euskarritan ekoizten diren euskara hutsezko hedabideak; beraz, bertan plazaratutako ondorioak paperezkoentzat, ikus-entzunezkoentzat zein euskarri digitaletan lantzen direnentzat balio dute. Baina ikerketak objektutzat hautatu dituen paperezkoak eta urteroko aginduetan horien artean ezarri den banaketa aintzat hartuko balitz, ñabarduraren bat egin beharko litzateke. Horretan sakontzea da hurrengo atalaren eginbeharra.

6.4. LAGUNTZA-ESKAERAK ETA EUSKO JAURLARITZAREN ESLEIPENAK: ERTZUGARI DITUEN BINOMIOA

Ikerketaren ondorioen atala baieztapen honekin abiatu da: Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza ezinbestekoa da euskara hutsezko hedabide inprimatuentzat. Bertan, zenbakien laguntzaz erakutsi da egunerokoek, aldizkakoek eta tokikoek jasotako diru publikoarekin aurrekontuaren zein portzentaje estaltzen duten, eta ondorioztatu da Jaurlaritzak urtero emandako dirua behar beharrezkoa dutela aurrekontua elikatzen, ekoizten duten produktua kaleratzeko gastuei aurre egin ahal izateko.

Euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak kudeatu zuen gastu-aurrekontuak behera egin zuen 2005-2013 bitartean, 22.060.669 euro izatetik 18.331.451 euro izatera; hau da, %17ko jaitsiera izan zuen. Beherakada nabarmenagoa izan zen egunerokoetan aldizkako argitalpenetan baino. Ondoko taulak balio beza analisi-atalean xehe-xehe erakutsitakoaren oroigarri eta laburpen moduan:

185. taula. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen aurrekontuak, eskatutako eta esleitutako laguntzak eta onuradunak, 2005 eta 2013.

	Egunerokoak 2005	Egunerokoak 2013	Aldizkakoak 2005	Aldizkakoak 2013
Aurrekontua (€)	11.786.021	8.764.512	10.274.648	9.566.939
Eskatutako laguntza (€)	2.253.527	2.049.893	2.665.443	2.446.589
Esleitutako laguntza (€)	1.700.000	1.820.000	1.580.000	1.841.500
Laguntzaren onuradunak	8	6	59	59

Iturria: 2005 eta 2013 urteetako diru-laguntza deialdien aginduak eta esleipenak egiteko HPSk erabilitako arazketa-etaulak. Tesiaren egileak moldatua.

2005ean euskara hutsezko paperezko argitalpenek 3.280.000 euroko laguntza jaso zuten administratibotik, 2013an 3.661.500 eurokoa; beraz laguntza publikoak %10,4 egin zuen gora. Onuradunen kopuruak, ordea, behera egin zuen urte batetik bestera, 67 idatziko izan ziren 2005ean eta 65 jasotzaile 2013an.

Egunerokoetan, bi onuradun gutxiago izan ziren 2013an 2005ean baino, eta denbora-tarte berean multzo horretan kokatutako hedabideen aurrekontuak %25,5 egin zuen behera. Aldizkakoetan, onuradunen kopuru berari eutsi zitzaion, eta multzoko hedabideek kudeatutako aurrekontuak %6 egin zuen behera 2005etik

2013ra. Eskatutako diru-kopuruei dagokienez, aurrekontuetan ikusitako joera bera errepikatzen da, beherakoa alegia. Egunerokoek 2013an 2005ean baino %9 gutxiago eskatu zuten, baina eskatutakoak aurrekontu osoarekiko suposatzen duen portzentajetan neurtuta urte batetik besterako joera goranzkoa da. Izan ere, 2005ean egunerokoek urte hartan zuten aurrekontuaren %19,1 eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari eta 2013an aurrekontuaren %23,4; hortaz laguntza-eskariak gora egin zuten. Aldizkako argitalpenen kasuan, 2013an 2005ean baino %8,2 gutxiago eskatu zioten Jaurlaritzari eta 2005ean zuten gastu-aurrekontuaren %25,9 eskatzetik 2013ko %25,6 eskatzera igaro ziren, hiru hamarreneko aldea beherantz urte batetik bestera. Eta azkenik, esleitutako diru-baliabideak aztertu ezker, eguneroko prentsaren multzoko hedabideen kasuan eskatu zuten kantitate osoaren hiru laurden, %75,4 esleitu zitzairen 2005ean eta 2013an eskatutakoaren %88,8. Aldizkako multzoari dagokionez, 2005ean eskatutako diruaren %59,3 esleitu zitzairen bitartean, 2013an eskatutakoaren %75,3ra igo zen esleitutakoa. Dena den, esleitutako laguntzen portzentajeetan urte batetik bestera izandako gorakada ezin da azaldu bakarrik Eusko Jaurlaritzak ezarritako diru-baliabideak hazi zirelako, baizik eta arrazoi horrekin batera, beste bat kontsideratu behar da: idatzizkoek 2013an 2005ean baino diru gutxiago eskatu zuten; ondorioz, eskatutakoaren eta esleitutakoaren arteko distantzia txikitu egiten da, eta jasotako laguntzaren portzentajeak gora egiten du.

Arestian aurkeztutako zenbakizko informazioak lanak ikergaitzat hartu duen denbora-tartearen lehen eta azken urteko ikuspegi oso orokorra eskaintzen du. Lehen impresioa osatzeko balio dezake, baina ezin horrekin konformatu, bi arrazoiengatik: batetik, dagoeneko lan honen hainbat tokitan erakutsi eta azaldu den moduan, 2005 eta 2013koak baino aurrekontu handiagoak izan zituztelako euskara hutsezko hedabide inprimatu guztiek tarteko beste urte batzuetan; hortaz, oinarri sendoa duten ondorioak plazaratzeko ezinbestekoa da horiek ere kontuan izatea; eta bestetik, aurrekontuei, eskatutako diru-kantitateei eta esleitutakoei begira, desberdintasun esanguratsuak daudelako egunerokoen zein aldizkako multzoetako hedabide

batzuetatik besteetara. Adibiderik errazena jartzearen: 2005ean, eguneroko prentsaren multzoan laguntzak eskatu zituzten paperezko guztietatik *Berria* egunkariarena zen multzo osoak kudeatu zuen gastu-aurrekontu osoaren %69,5 (hamar eurotik ia zazpi), eta urte hartan, *Berria* egunkariari esleitu zitzaion egunerokoentzako ezarritako diru-partida osoaren %82,3. Ikertutako epealdiaren azken urtean (2013an), berriz, *Berriak* egunerokoen multzoko aurrekontu osoaren %75 zeukan eta egunerokoentzako poltsa osoaren %83 esleitu zitzaion. Eta egoera korapilatu egiten da bi azpimultzo dituen aldizkako argitalpenekin.

Hori guztia dela eta, lehen plano orokorreko argazkia egin ondoren, inprimatuen multzo bakoitzari lupa jarri zaio eta lanketa sakonagoa burutu da ikerketaren analisi-atalean. Urtez urteko azterketaren arabera, eguneroko prentsaren multzoko hedabide inprimatuek ia hamabi milioi euroko aurrekontua kudeatu zuten urtero 2005etik 2009ra; gero, 2010etik aurrera aurrekontuak murriztuz joan ziren. Ikertutako epealdian, bi kontu daude azpimarratzeko modukoak: batetik, euskara hutsezko eguneroko hedabide inprimatu guztien aurrekontu osotik zatirik handiena *Berria* egunkariak kudeatu duela beti; 2005ean, egunerokoek zuten aurrekontu osotik %69,5 *Berriarena* zen eta 2013an, %75. Bestetik, *Hernaniko Kronika* izan zen 2013an 2005ean baino gastu-aurrekontu handiagoa zeukan bakarra. Gainontzeko guztiek aurrekontu txikiagoa zuten 2013an 2005ean baino, eta joera orokor horretan, galerarik handienak 2013an egunerokoen multzoan izateari utzi zioten *Oarso Bidasoko Hitza* eta *Irutxuloko Hitza* paperezkoek izan zituzten⁸⁰⁷.

Egunerokoek Eusko Jaurlaritzari eskatutako laguntzak gastu-aurrekontuarentzat azaldutako joera bera erakutsi du; hots, euskara hutsezko prentsa inprimatuaren multzoko hedabideen aurrekontuak 2008an izan zuen zenbakirik oparoena, eta urte hartan eskatu zuten diru gehien; 2010etik aurrera, ordea, aurrekontuak urterik urtera behera egin ahala, eskatutako kantitateak ere behera egin zuen urtetik urtera. Behera

⁸⁰⁷ .- Analisi-atalean aurkeztutako datuen arabera, *Oarso Bidasoko Hitzaren* aurrekaria izan zen *Oarsoaldeko Hitzak* 471.022 euroko aurrekontua zuen 2005ean; 2013an, berriz, 147.191 euro; beraz, batetik bestera %68,7 egin zuen behera. *Irutxuloko Hitzak* 670.208 euroko aurrekontua zuen 2005ean eta 262.080koa 2013an; hortaz, jaitziera %61ekoa izan zen.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

zenbaki absolututan zein portzentajetan. Dena den, joera orokor horretan bi salbuespen izan dira: *Berria* eta *Tolosaldeko eta Leitzaldeko* Hitzaren kasuetan, 2013an 2005ean baino gastu-aurrekontu txikiagoa izan arren, diru gehiago eskatu zioten Jaurlaritzari “Hedabideak” deialdian.

Eta euskara hutsezko eguneroko prentsari esleitutako diru-baliabideei dagokienez, deialdirik onenak 2007-2010 bitartekoak izan ziren, biak barne (2.003.480 euro deialdi bakoitzean). 2011n, ordea, laguntzak behera egin zuen (3.480 euro gutxiago), eta ikertutako azken bi urteetan multzo honetako hedabideentzat ezarritako diru-partida 2006an ezarritakoaren azpitik zegoen (28.200 euro gutxiago). Edozein kasutan, *Berria* egunkaria izan da onuradun nagusia urte-segida osoan. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan euskara hutsezko eguneroko prentsari laguntzeko hamar eurotik zortzi *Berriak* jaso ditu urtero, eta gainontzeko bi euroak 5, 7 edo 8 egunerokoen artean banatu dira⁸⁰⁸. Laguntzarik txikiena aurrekonturik xumeena kudeatu duen *Hernaniko Kronikarentzat* izan da.

Inprimatu bakoitzak eskatutakoaren eta jasotakoaren arteko lanketak agerian utzi du egoerak hobera egin zuela 2005etik 2013ra. Hala, 2013an egunerokoek eskatutako hamar eurotik zazpi baino gehiago esleitu zien Jaurlaritzak, eta zenbait kasutan, *Goierriko Hitza* eta *Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzaren* kasuetan adibidez, eskatutako kantitate osoa, %100a esleitu zien 2013an. Dena den, ez da ahaztu behar esleitutakoaren portzentajeak gora egitean hiru faktorek izan dutela zerikusia: deialdian egunerokoei laguntzeko diru gehiago zegoen 2013an 2005ean baino (120.000 euro gehiago), 2013an 2005ean baino bi onuradun gutxiago izan ziren (*Oarso Bidasoko Hitzak* eta *Irutxuloko Hitzak* aldizkako argitalpenen multzoko hedabide moduan egin zuten laguntza-eskaria 2013an) eta egunerokoek 2013an 2005ean baino kantitate txikiagoak eskatu zituzten.

⁸⁰⁸ .- Urteroko deialdietan eguneroko prentsaren multzoan izan diren onuradunak: *Berria* egunkariarekin batera 8 eguneroko 2005, 2011 eta 2012an, 6 eguneroko 2013an eta 9 gainontzeko deialdietan.

Orain arte euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatuarentzat adierazitakoa erabat lotzen zaio ikerketak proposatu duen laugarren hipotesiari:

H4.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen gastu-aurrekontuak 2005-2013 bitartean izan duen bilakaerari, horiek eskatu duten laguntza-publikoaren tamainari eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak paperezko argitalpenak sendotu, garatu eta normalizatzeko esleitu dituen diru-partiden bilakaerari begiratzen dio laugarren hipotesiak. Honen arabera, inprimatuek kudeatutako aurrekontuek hobera egin dutenean haziz joan dira eskatutako laguntzak eta alderantziz, gastu-aurrekontuetan murrizketak izan direnean diru gutxiago eskatu dute. Bestalde, Jaurlaritzak euskara hutsezko hedabide inprimatuei esleitutako kantitateek harremana dute laguntzarako ezarritako diru-poltsaren tamainarekin, onuradunen kopuruarekin eta hedabideek eskatutakoarekin. Diru-poltsa zenbat eta handiagoa izan orduan eta gehiago esleitu daiteke, onuradunen kopurua zenbat eta txikiagoa izan orduan eta gehiago dago banatzeko eta hirugarrenik, hedabideen gastu-aurrekontuak eta eskatutako laguntzak behera egiten duenean esleitutakoak ere behera egiten du.

Hipotesian adierazitakoa ia goitik behera bete da 2005-2013 bitartean euskara hutsezko eguneroko prentsarentzat. Gastu-aurrekontuetan gora egin dutenean, beste horrenbeste gertatu da Eusko Jaurlaritzari eskatutako diruarekin eta alderantziz. Urteroko deialdietan hedabideak laguntzeko ezarritako diru-partida hazi egin denean, hedabide bakoitzak jasotako diruak gora egin du zenbaki absolututan zein portzentajetan. Onuradunak gutxiago izan direnean ere, 2013an esaterako, deialdian laguntzarako ezarritako diru-partida beste urte batzuetakoa baino txikiagoa izan arren, eguneroko bakoitzak jasotako diruak gora egin du. Baina hipotesian planteatzen den edukitik bada betetzen ez den kontu bat; izan ere, egunerokoen gastu-aurrekontuak behera egin duenean esleitutako partidak ez du joera bera erakutsi. Aztertutako azken urtean, 2013an, izan dute egunerokoek gastu-aurrekonturik makalena, eta aldi berean, 2005-2013 urte-segida osoko kantitaterik txikienak eskatu dizkiote Jaurlaritzari; gainera 2013an laguntzetarako ezarritako diru-partida 2006an ezarritakoaren azpitik izan zen, baina egoera horrek ez du zuzeneko isla izan esleitutako diru-baliabideetan. Izan ere, 2013an *Berria* egunkariaren kasuan izan ezik, gainontzeko egunerokoek diru gehiago jaso dute zenbaki absolututan zein portzentajetan. Hau da, gastu-aurrekontuak eta eskatutako kantitateak 2005-2013 urte-segidako apalenak izan arren eta administrazioak laguntzeko diru-poltsa urte-segidako bigarren txikiena izan arren,

esleitutakoak gora egin du, zenbait kasutan eskatutakoaren %100 izateraino. Esan bezala, *Berrria* egunkarian izan ezik. Egoera erraz azaldu daiteke, *Berriaren* aurrekontuak %19,4 egin zuen behera 2005etik 2013ra, eskatutako kantitateak, ordea, gora egin zuen urte batetik bestera⁸⁰⁹. Eta esleitu zitzaion portzentajeak⁸¹⁰ behera egin zuen, 2005ean eskatutakoaren %95,6 esleitu zitzaion eta 2013an eskatutakoaren %89,1. Esandakotik ondoriozta daiteke, gainontzekoek 2013an diru gehiago jasotzean zerikusia izan duela deialdi hartan bi onuradun gutxiago izateak eta *Berrria* egunkariari diru gutxiago esleitzeak.

Euskara hutsezko aldizkari inprimatuei dagokienez, analisia multzo honen barne dauden bi azpimultzoak kontsideratuta egin behar da, batzuek eta besteek 2005-2013 bitartean kudeatu dituzten aurrekontuen bilakaera ezberdina izan delako. informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen kasuan, aurrekontuak oro har, beherako bidea egin zuen. 2005ean izan zuen aztertutako epealdi osoko aurrekonturik onena (ia sei milioi eurokoa denen artean), hortik aurrera, esan bezala, behera egin zuen, eta 2008-2009 urteetan errekerperatzen hasia zela ematen bazuen ere, ez zen halakorik gauzatu. 2013an informazio orokorreko eta espezializatuko hedabide inprimatuen azpimultzoak kudeatzen zuen aurrekontua 2005ekoa baino %36,5 txikiagoa zen eta laguntzen onuradunen kopurua berbera izan zen urte bietan (23). Azpimultzo honetan kokatutako argitalpen bakoitzari lupa jarrita azpimarratzekoa da 2005ean gastu-aurrekonturik handiena zuten aldizkariak izan zirela 2013koei begiratuta murrizketarik handienak egin zituztenak (*Argia, Elhuyar, Gazteberri, Zazpi Haizetara eta GAUR8*). Bestalde, eguneroko prentsarekin gertatu bezala, informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen aurrekontuak gora egin duenean, diru gehiago eskatu diote Jaurlaritzari, eta aurrekontuak behera egin duenean, diru gutxiago eskatu dute. Portzentajetan neurtuta, gainera, argitalpen hauek egunerokoek

⁸⁰⁹ .- *Berrria* egunkariak 1.464.062 euro eskatu zituen 2005ean, urte hartan kudeatzen zuen gastu-aurrekontuaren %17,8. 2013an 1.694.108 euro eskatu zituen, urte hartako aurrekontuaren %25,8.

⁸¹⁰ .- Kopuru absolutua ordea 2005ekoa baino handiagoa da. 2005ean 1.400.000 euro esleitu zitzaizkion eta 2013an 1.510.180 euro. Hala ere, gainontzeko urte guztietan beti jaso du diru gehiago Eusko Jaurlaritzatik. Partidarik handiena 2010 urtean jaso zuen: 1.626.899,5 euro.

baino diru gehiago eskatu diote beti Eusko Jaurlaritzari; 2013an, esaterako, aurrekontuaren herena eta erdia bitarteko diru-laguntza eskatu zuten. Esleitu zaizkien baliabideei begiratu ezker, aldizkari hauek laguntzeko diru-poltsarik oparoenak 2005ekoa eta 2011koa izan ziren, 1.200.000 euro eta 1.250.000 euro, hurrenez hurren. Eta eskatutako eta esleitutako kantitateak harremanetan jarriz, zenbaki absolututan neurtu ezker ez dago diru gehien jasotako urte bat besteen gainetik nabarmentzerik; baina portzentajetan neurtu ezker, orduan argi eta garbi baieztatu daiteke gehientsuenek diru gehiago jaso zutela 2013an 2005ean baino; eta zenbait kasutan, eguneroko zenbaitekin gertatu bezala, eskatutako laguntza osoa esleitu zitzaien 2013an.

Hortaz, lanean planteatu den hipotesira itzulita, egunerokoekin esandako gauza bera errepikatu beharko litzateke. Egiaztatu egiten da bere osotasunean, azken zatian adierazitakoa izan ezik; hots, 2012an eta 2013an Eusko Jaurlaritzak azpimultzo honetako hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko jarritako diru-baliabideak beste urte guztietan jarritakoak baino txikiagoak izateak (2006 salbu) eta 2012an eta 2013an argitalpen hauen aurrekontuek eta eskatutako kantitateak behera egiteak ez du ekarri horiei diru publiko gutxiago esleitzea.

Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak (tokikoak) izan dira euskara hutsezko hedabide inprimatu guztien artean aurrekonturik xumeenak erabili dituztenak. Gehientsuenek ehun mila eurotik beherako aurrekontuekin dihardute. Hala ere, 2005-2013 bitartean, horien bilakaera ekonomikoak hobera egin zuen. Gehienek gastu-aurrekontuak gora egin zuen urte batetik bestera, eta denek artean hobekuntzarik handiena *Goiena paperak* erakutsitakoa izan zen; izan ere, 2005etik 2013ra ia hirukoiztu egin zuen gastu-aurrekontua (320.298koa izatetik 834.103 eurokoa izatera) eta, hori baino garrantzitsuagoa dena, 2013an *Goiena papera* bilakatuko da euskara hutsezko hedabide inprimatu guztietatik gastu-aurrekonturik handiena duen bigarrena, *Berria* egunkaritik urrun baina edozein kasutan bigarrena.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

2005ean Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso zuten tokiko argitalpenek (36) ia lau milioi euro eta erdiko gastu-aurrekontua kudeatu zuten, eta 2013an laguntzaren onuradun izan zirenek (36) ia sei milioi eurokoa. Kontuan hartu behar da 36 argitalpen horietatik 21ek urtero-urtero jaso dutela laguntza 2005-2013 epealdian. Nabarmentzekoa da tokikoek informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen juxtu kontrako bidea jorratu dutela, horien aurrekontuak 2.118.229 euro galdu zituelako 2005-2013 epealdian, tokikoenak, ordea, 1.410.580 euro irabazi zituen denbora tarte berean. Irabaziak irabazi, tokikoentzako urterik onena aurrekontuari begiratuta 2009a izan zen.

Euskara hutsezko aldizkari inprimatuen azpimultzo bietako argitalpenek 2005ean eta 2013an zituzten aurrekontuak azpimultzo bakoitzean kokatutako hedabide guztien artean zati berdinetan banatuko balira, argazki esanguratsua aterako litzateke. Aipatu eragiketaren emaitzaren arabera, 2005ean informazio orokorreko aldizkari eta aldizkari espezializatu bakoitzari 252.697,1 euroko gastu-aurrekontua zegokion bitartean, tokiko bakoitzari 123.961,6 eurokoa zegokion. 2013an argazkia zeharo bestelakoa da, informazio orokorreko aldizkariari eta aldizkari espezializatu bakoitzari 160.597,6 euroko gastu-aurrekontua zegokion eta tokiko bakoitzari 163.144,3 eurokoa.

Tokikoek eskatu zituzten diru-kopuruei dagokienez, urtero kudeatu dituzten aurrekontuen tamainako laguntzak eskatu dituzte, kasu gehienetan txikiak. Eta txikiak ez bakarrik zenbaki absolututan, baizik eta baita portzentajetan ere. Euskara hutsezko hedabide inprimatu guztietatik, tokikoak izan ziren portzentualki laguntzarik txikienak eskatu zituztenak, kasu gehienetan gastu-aurrekontuaren %20tik beherakoak 2005ean zein 2013an. Dena den, tokikoek orokorrean diru gehiago eskatu zioten Jaurlaritzari 2013an 2005ean baino, eta orain arte egunerokoentzat zein informazio orokorreko aldizkari eta aldizkari espezializatuentzat azaldutako portaera bertsua izan dute; tokikoen gastu-aurrekontuek gora egin ahala, eskatutako diru-partidak ere gora egin du, eta urteren batean aurrekontuak zeozertxo behera egin badu, 2010ean esaterako, eskatutako laguntzak ere behera egin du.

Eusko Jaurlaritzak onuradun aldetik zabalena, anitzena den azpimultzo honetara bideratu du beti partidarik apalena, 380.000 euro 2005ean eta 704.000 euro 2013an. Aintzat hartu behar da tokiko hedabideak foru-aldundiek⁸¹¹ eta udalek emandako laguntzen onuradun ere izan daitezkeela. Dena den, zenbaki absolututan neurtuta ia tokiko guztiek diru gehiago jaso zuten 2013an 2005ean, baina ez da gauza bera gertatzen urte batean eta bestean jasotako kantitatea portzentajetara ekarri ezkerero. Hala egiten denean, tokikoen heren batek diru gutxiago jaso zuen 2013an, eta horien artean daude, besteak beste, Nafarroan zabaltzen diren *Guaixe*, *Mailope* eta *Ttipi-ttapa* aldizkariak. Gainontzeko bi herenentzat jasotako diru-partida, portzentajetan ere, hazi egin zen eta zenbait kasutan eskarian jarritako kopuru osoa esleitu zitzaion.

Atal honi amaiera emateko, bi hitz 2006-2011 bitartean nagusiki gaztelania darabilten egunkariak euskara hutsezko gehigarriak prestatu eta zabaltzeko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuten hedabideen inguruan⁸¹². Bost onuradun izan ziren guztira, horietako hiru (*Araba gaztea*, *Izan gazte* eta *Ortzadar* gehigarriak) sei urtean izan ziren onuradun, eta gainontzeko biak urte bakar batean (*El Diario Vasco* 2011n eta *Xirika 16 gehigarria* 2006an). Lehen urtean 965.411 euroko aurrekontua kudeatzen zuten denen artean, eta 2011n 1.316.358 eurokoa. Hazkundera, beraz. Eskatutako diru-kantitateak ere gora egin zuen, 529.258 euro eskatuzetik 766.878 euro eskatzera. Baina igoera hori baino deigarriagoa den beste datu bat dago eskatutako diru-partidei lotuta. Izan ere, multzo honetako hedabideek laguntza-eskarian aitortutako aurrekontuaren erdia baino gehiago eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari, euskara hutsezko gehigarriak prestatu eta zabaltzeko. Eskariak eskari, esleipenek ez

⁸¹¹ - Arabako foru-aldundiak ez ditu urtero euskarazko hedabideentzako laguntzak kaleratu.

⁸¹² - Horiekin batera, 2009 eta 2010 urteetan, laguntzak izan ziren nagusiki gaztelania darabilten euskara hutsezko erreferentzia-orrialdeak prestatu eta zabaltzeko. Horiei buruz hemen ez da ezer aipatuko, besteak beste, bakar batek, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak jaso zuelako diru-publikoa bi urtean. Beraz, analisi konparatiboa soilik egin daiteke hedabide horrekin. Esan *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak laguntza-eskarian jarritako datuen arabera, ia bikoiztu egin zuela aurrekontua 2009tik 2010era (96.954 euro izatetik 176.000 euro izatera), eta beste horrenbeste gertatu zen urte batetik bestera Jaurlaritzari eskatu zion diru-kantitatearekin ere (58.173 eurotik 105.000 eurora). Esleitutako diru-partida ere hasi egin zen baina ez proportzio berean (38.781 euro 2009an eta 52.800 euro 2010ean). Ondorioz, 2010ean esleitu zioten kantitatea eskatutakoaren %50,3ra iritsi zen, 2009an lortutakoa baino portzentaje apalagoa (%66,7).

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

zuten bide bera jorratu, *Ortzadar* gehigarriaren kasuan izan ezik, epealdi osoan laguntza jaso zuten beste biek diru gutxiago jaso zutelako⁸¹³.

Adierazitakoak adierazita, orain arte landu den atal honen laburpen modura esan daiteke 2005etik 2013ra Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso duten euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorean, udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak izan dutela gastu-aurrekontuaren hazkunderako bilakaera. Eguneroko prentsako hedabideetan eta informazio orokorreko aldizkari eta aldizkari espezializatuetan, ordea, aurrekontuek behera egin dute aztertutako lehen urtetik azken urtera. Bestalde, argitalpen guztiei egokitu dakiekeen formula da Jaurlaritzari eskatu dioten laguntzaren tamaina bakoitzaren aurrekontuaren egoeraren arabera izan dela; hau da, aurrekontuak hobera egin duenean eskatutako laguntzak gora egin du eta urteko jardunerako diru-partidan beheraldia edo murrizketak izan direnean, beste horrenbeste gertatu da eskatutakoarekin, diru gutxiago eskatu zaio administrazioari. Hala izateak agerian uzten du euskara hutsezko hedabide inprimatuen gastu-aurrekontua edozein izanda ere, handia zein txikia, gorako bidea hartu duena zein artaziak sartu zaizkiona, beti izan duela diru-laguntza publikoarekiko menpekotasuna. Urte batetik besterako gastu-aurrekontua hazten denean hedabideek eskatutako diru-laguntza ere hazi egiten da eta hala gertatzeak erakusten du laguntzekiko menpekotasunak bere horretan irauten duela; handiagoa den aurrekontua elikatzeke beharrezkoa delako diru-publiko gehiago eskatu eta lortzea. Menpekotasun-egoera horretatik askatzeko ezinbestekoa litzateke

⁸¹³ .- *Araba gaztea* gehigarriak eskatutakoaren %44,9 jaso zuen 2006an (39.294 euro) eta 2011n eskatutakoaren %19,6 (30.945 euro). *Izan gazte* gehigarriari eskatutakoaren %42,6 esleitu zioten 2006an (49.997 euro) eta %21,7 2011n (37.254 euro). *Ortzadar* gehigarriak gora egin zuen zenbaki absolututan, baina ez portzentajetan, 2006an eskatutakoaren %46 jaso zuen (57.476 euro) eta 2011n eskatutakoaren %20,7 (64.482 euro). Portzentajearen jaitsiera erraz azladu daiteke: *Ortzadar* gehigarriaren eskaera asko, asko hazi zen 2006tik 2011ra (125.000 euro eskatzetik 311.936 euro eskatzera); hortaz, esleitutako kantitatea hazi bazen ere, hazkundera ez zen eskatutako kantitateak izandakoaren neurri berekoa izan eta ondorioz, eskatutakoa/esleitutakoa harremanak behera egin zuen portzentajetan. Gainontzeko bi gehigarriak urte bakarrean izan ziren Eusko Jaurlaritzaren diru publikoaren onuradun, *Gara* egunkariaren *Xirika 16* gehigarriak 2006an 199.417 euro eskatu zituen, eta kantitate horretatik %75,5 esleitu zioten (150.626 euro), eta *El Diario Vasco* gehigarriak 2011n 125.189 euro eskatu zituen, eta erdia eman zioten (62.595 euro).

gastu-aurrekontuaren hazkundeak gero eta gutxiago jatea Jaurlaritzak esleitutako partidetatik eta gero eta gehiago hedabide bakoitzak eskuratu ditzakeen sarrera pribatuetatik (salmentatik, publizitate bidezko sarreretatik eta publikoak ez diren beste iturri batzuetatik). Bestalde, idatzizko hedabideei esleitu zaizkien diru-laguntzak bi faktoreren arabera izan dira: batetik, Eusko Jaurlaritzak hedabide-multzo bakoitzarentzat ezarritako diru-baliabideen eta urteroko deialdietan izandako eskatzaileen arabera; hala, zenbat eta partida handiagoa izan eta zenbat eta eskatzaile gutxiago izan, aukera gehiago dago diru-partida oparoa eskuratzeko deialdian zehaztutako balorazio-irizpideen puntuazioak aplikatu ondoren. Horixe litzateke, adibidez, euskara hutsezko eguneroko prentsaren kasua, baina, dagoeneko azaldu den bezala, multzo horretan sekulako aldea dago *Berria* egunkariak eta gainerako egunerokoek kudeatu duten gastu-aurrekontuen eta egin dituzten laguntza-eskarien artean eta esleipenik oparoena *Berriak* jaso du. Bestetik, aurreko adibidearekin iradoki bezala, Jaurlaritzak multzo bakoitzean kokatutako hedabide inprimatuei egin dizkien esleipenak hedabide bakoitzaren aurrekontuaren eta horri zuzenean lotuta dauden eskatutako laguntzaren tamainaren arabera dira. Zenbat eta aurrekontua handiagoa izan, orduan eta laguntza handiagoa eskatu dute, eta alderantziz. Beraz, esan daiteke aurrekonturik apalenak izan dituzten tokiko idatzizko argitalpenak izan direla, oro har, Jaurlaritzarengandik diru-partidarik txikienak hartu dituzten euskarazko hedabideak⁸¹⁴.

Edozein kasutan, egunerokoen multzoan zein aldizkakoenean egon, horien aurrekontuen bilakaera positiboa zein negatiboa izan, eta eskatutako laguntza handitu zein txikitu denboran zehar, Eusko Jaurlaritzak “Hedabideak” deialdiaren bidez esleitutako laguntzak, oro har, gora egin du 2005etik 2013ra. Horri esker hedabide inprimatuetan estali den aurrekontuaren portzentajea hazi egin da multzo guztietan, salbu nagusiki gaztelania darabilten egunkariak euskara hutsezko gehigarriak eta erreferentzia-orrialdeak prestatu eta zabaltzeko multzoan. Dena den, Jaurlaritzak esleitutakoak portzentajetan gora egin izana neurri handi batean euskara hutsezko hedabide inprimatu askok aurrekontuetan izandako beherakadari zor zaio, bereziki

⁸¹⁴ .- Baieztatutakoaren salbuespenak lirateke tokikoen multzoan aurrekontu aipagarriak kudeatu dituzten ondoko paperezkoak: *Goiena papera*, *Asteleheneko Goiena papera*, *Anboto* eta *Ttipi-ttapa*.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

eguneroko prentsaren eta informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen kasuan.

Lanaren hurrengo urratsean ere zenbakiak izango dira lehengai nagusi, bertan 2005-2013 epealdiko diru-laguntza deialdietan euskarazko hedabide inprimatuen multzo bakoitzarentzako ezarritako diru-partidei erreparatu zaie eta hortik abaituta Eusko Jaurlaritzak eguneroko prentsa lehenetsi duela baieztatu eta argudiatuko da.

6.5. EUSKARA HUTSEZKO EGUNEROKO PRENTSA INPRIMATUA EUSKO JAURLARITZAREN "HEDABIDEAK" DEIALDIAREN LEHENTASUN ETA ONURADUN NAGUSIA

Eusko Jaurlaritzak euskara hutsezko hedabide gehien dituen inprimatuen sektorerara bideratu du beti laguntza-deialdirako erabilgarri izan duen diru-partidaren zatirik handiena. Esaldi horrek laburbilduko luke administrazioaren jokaera 2000. urtetik, hau da, era guztietako euskarrietan ekoizten diren euskarazko hedabideek Jaurlaritzak eskainitako laguntza ekonomikoa eskatzeko aukera dutenetik. Izan ere, 1980tik 1999ra idatzizkoak izan ziren diru publikoaren onuradun bakarrak, lehen lau urteetan (1980-1983) laguntzak modu diskrezionalean banatu ziren, eta 1984tik aurrera, agindu bidez kudeatu da ekimena.

Hortaz, herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko euskara hutsezko hedabideentzako laguntzak jorratu duen bidea ulertzeko, bi faktore izan behar dira kontuan; batetik, aurreko atalean azaldu den bezala, EAEko aurrekontu orokorren bilakaera, eta bestetik, euskarazkoen sektoreak denboran zehar izan duen garapena. Aipatu garapenean gizarte-eragileen ekimenarekin batera, funtsezko zeregina jokatu du herri-aginteek ezarritako diru-laguntzez baliatzeko aukera izateak. Hala, 1980an frankismoaren ostean osatutako lehen Jaurlaritzak 3 milioi pezeta (18.030 euro) banatu zituen aldizkako hamalau argitalpenen artean, eta 2013an, 4.875.000 euro esleitu zizkien 118 hedabideri; kantitate horretatik 3.661.500 euro, hots, partida osoaren bi herenak 65 hedabide inprimatuk jaso zituzten. Dirua zati berdinetan banatu

izan balitz, 1980an 1.287 euro egokituko litzaizkioke argitalpen bakoitzari; 2013an, 56.330 euro paperezko bakoitzari.

Diru-laguntzak urteroko agindu bidez kudeatzen direnetik eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako diru-baliabideei erreparatuta, lehen bi hamarkadak (1984-2004) izenburu batekin laburbildu daitezke: hogeitaz hamar urte hazten. Denbora-tarte horretan, diru-baliabideak eta jasotzaileak hazi egin ziren deialditik deialdira⁸¹⁵. Urte-mugarriak aipatzekotan 1986, 1997 eta 2000 lirateke. 1986an diru-partidak gora egin zuen, orduan kaleratzen ziren aldizkakoei zuzendutako deialdiaz gain, bigarren bat izan zelako astebururo egunkari bat argitaratu nahi zuten enpresei bideratuta. Horrela jaio ziren *Hemen* eta *Eguna*. Euskarazko argitalpenak laguntzeko diru-partidaren bigarren hazkunde nabarmena, ordura arteko handiena, 1997an gertatu zen. Urte hartako deialdian, *Euskaldunon Egunkariak* aukera izan zuen eguneroko prentsarentzat aurreikusitako 120 milioi pezeta (721.215 euro) eskatu eta jasotzeko (ordura arte Jaurlaritzaren babes ekonomikorik gabe jardun zuen lehenengoz kaleratu zenetik, 1993tik). Eta 2000 urtean, diru-hornikuntzak hirugarren hazkunde aipagarria izan zuen, orduan aurrera euskara hutsezko hedabide inprimatuak ez ezik, irratia, telebista eta on-line argitalpenak ere laguntza-eskatzaile eta onuradun izan zitezkeelako. Hala, 2000ko aginduak bikoiztu egin zuen 1999ko diru-partida. Dena den, onuradun nagusiak inprimatuak izaten jarraitu zuten, hamar eurotik 7,8 euro paperezkoari esleitu zitzaizkielako. Eta paperezko egunerokoen artean azpimarratzekoa da 2003ko deialdira arte jasotzaile bakarra izan zela: *Berria* egunkaria. 2003koan, ordea, *Berria* egunkariarekin batera, beste hiru egitasmok jaso zuten laguntza: *Oarsoaldeko Hitza*, *Tolosaldeko Hitza* eta *Hernaniko Kronika* egitasmok, hain zuzen. Eta ondorengo urteetan, egunerokoen multzoa ugalduz joan zen.

Ikerketan fokua jarri zaion 2005-2013 denbora-tartea “hazi, eutsi eta jaitsi” formularekin bataiatu daiteke. 2005etik 2009ra bitarteko aginduetan albiste onak izan ziren eskatzaileentzat, laguntza moduan ezarritako diru-partidak gora egin zuelako,

⁸¹⁵ .- Salbuespen bakarra 1991 urtea izan zen. Jasotzaile-kopuruak behera egin zuen urte hartan, tokiko argitalpenek ez zutelako laguntza eskatzeko aukerarik izan.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

nahiz eta neurri batean nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduetako euskara hutsezko gehigarrientzat eta erreferentzia-orrialdeentzat ezarritako diruari esker izan. Denbora-tarte horretan, urte pare bat, 2006 eta 2007, azpimarratu daitezke: 2006an 2005ean baino ia milioi bat euro gehiago izan zen eta 2007an 2006an baino 825.000 euro gehiago. Gero, 2010ean hasiko da joera-aldaketa, urte hartan aurreko urteko partida berari eutsi zitzaion, eta 2011tik 2013ra, berriz, behera egin zuen.

Aztertutako epealdian, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 46.380.000 euro jarri ditu “Hedabideak” laguntza-deialdian; horietatik 36.942.500 euro hedabide inprimatuentzat izan dira, baliabide ekonomiko guztien %79,7.

186. taula. Eusko Jaurlaritzak “Hedabideak” deialdian jarritako baliabide ekonomikoen bilakaera, 2005-2013.

	2005-2013 (€)	2005-2013 (%)
Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua	17.202.120	37,1
Euskara hutsezko aldizkari inprimatuak	16.408.330	35,4
Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduetako euskara hutsezko gehigarriak	3.332.050	7,2
Zati batean edo osorik euskaraz ari diren uhin bidezko irratiak	2.606.200	5,6
Zati batean edo osorik euskaraz emititzen duten telebistak	4.501.000	9,7
Internet bidezko hedabideak eta berri-agentziak	2.330.300	5,0
GUZTIRA	46.380.000	100

Iturria: 2005-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Taulan 2005-2013 epealdi osorako kopuru absolutuak eta portzentajeak bildu dira. Urtez urteko datuetara joan ezkerre, joera bera errepikatzen da; hau da, euskara hutsezko hedabide inprimatuentzat izan da beti diru-poltsaren zati esanguratsuena, hiru laurdenetik gorakoa. Beraz, adierazitakoak adierazita, baieztatu egiten da bosgarren hipotesia, honelaxe zioena:

H5.- Bosgarren hipotesi gisa planteatzen da Eusko Jaurlaritzak euskara hutsezko hedabideak laguntzeko ezarri duen diru-partidaren banaketa sektorearen argazki kuantitatiboa aintzat hartuta egin duela. Horrela, multzorik zabalena osatzen duten inprimatuentzat izan du beti diru gehien; hau da, Jaurlaritzak erabilgarri izan dituen baliabide ekonomikoetatik partidarik garrantzitsuena paperezkoetara bideratu du. Hortaz, harreman zuzena dago eskatzaile-kopuruaren eta diru-publikoaren banaketaren artean.

Urteroko deialdiaren eskatzaile-kopuruari begiratuta, logikoa da baliabide gehien idatzizkoentzat ezartzea, laguntza-eskatzaile gehienak paperezko euskarrian ekoiztu eta kaleratzen direlako. Edozein kasutan, hedabide inprimatuaren multzoaren barruan bi diru-partida izan dira Jaurlaritzaren deialdietan 2005-2013 epealdian; lehena, euskara hutsezko eguneroko prentsarentzakoa; bigarrena, euskara hutsezko aldizkari inprimatuentzakoa. Bigarren horren barne daude informazio orokorreko aldizkariak, aldizkari espezializatuak eta tokiko hedabide inprimatuak. Bi diru-partida horiekin batera zenbait urtetan hirugarren bat izan da; nagusiki gaztelania darabilten egunkariek prestatu eta zabalduzako euskara hutsezko gehigarrientzat (2006-2011 urteak, biak barne) eta erreferentzia-orrialdeentzat (2009an eta 2010ean). Hiru azpimultzo horietako bakoitzean izan diren eskatzaileen eta onuradunen banakako azterketa ondoko tauletan dago jasota.

187.taula. "Hedabideak" deialdian euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatuentzat jarritako diru-baliabideen eta onuradunen bilakaera, 2005-2013.

	Jarritako diru-partida	"Hedabideak" deialdiaren partida osoarekiko portzentajea	Onuradunak
2005	1.700.000	44,7	8
2006	1.848.200	38,9	9
2007	2.003.480	35,9	9
2008	2.003.480	35,9	9
2009	2.003.480	35,0	9
2010	2.003.480	35,0	9
2011	2.000.000	36,5	8
2012	1.820.000	37,3	8
2013	1.820.000	37,3	6

Iturria: 2005-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak eta ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Datuen arabera, 2005etik 2013rako urteetan Eusko Jaurlaritzak jarritako hamar eurotik 3,5 eta 4,5 euro artean euskara hutsezko prentsari esleitu zaizkio. Eusko

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Jaurlaritzak euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua sendotu, garatu eta normalizatzeko jarri dituen diru-baliabideen kasuan bete egiten da “hazi-eutsi-jaitsi” formula. Beste horrenbeste gertatu zen ondoren aurkeztuko diren gainontzeko hedabide inprimatuentzat ere.

Informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariari eta udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariari (tokikoei) dagokienez, hamar eurotik 3,1 eta 4,1 artean jaso dute.

188. taula. “Hedabideak” deialdian euskara hutsezko aldizkari inprimatuentzat jarritako diru-baliabideen eta onuradunen bilakaera, 2005-2013.

	Jarritako diru-partida	“Hedabideak” deialdiaren partida osoarekiko portzentajea	Onuradunak: informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkariak.	Onuradunak: tokikoak
2005	1.580.000	41,6	23	36
2006	1.490.850	31,4	19	32
2007	1.901.120	34,1	19	33
2008	1.901.120	34,1	19	34
2009	1.901.120	33,2	23	36
2010	1.901.120	33,2	23	32
2011	2.050.000	37,4	23	36
2012	1.841.500	37,8	23	36
2013	1.841.500	37,8	23	36

Iturria: 2005-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak eta ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Azkenik, nagusiki gaztelania darabilten egunkariak Eusko Jaurlaritzak jarritako hamar eurotik 46 zentimo eta euro bat eta hogeita bost zentimo izan zuten euskara hutsezko gehigarriak eta erreferentzia-orrialdeak prestatu eta zabaltzeko.

189. taula. "Hedabideak" deialdian nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduak euskara hutsezko gehigarrientzat (2006-2011) eta erreferentzia-orrionaldeentzat (2009-2010) jarritako diru-baliabideen eta onuradunen bilakaera.

	Jarritako diru-partida	"Hedabideak" deialdiaren partida osoarekiko portzentajea	Onuradunak
2006	507.650	10,7	4
2007	568.600	10,2	4
2008	568.600	10,2	4
2009	718.600	12,5	7
2010	718.600	12,5	5
2011	250.000	4,6	4

Iturria: 2005-2013 bitarteko diru-laguntza deialdien aginduak eta ebazpenak. EHAA. Tesiaren egileak moldatua

Lehenxeago aipatu bezala, Eusko Jaurlaritzak euskara hutsezko argitalpenak diruz laguntzen hasi zenetik, eskatzaileei begiratuta aldizkako hedabide inprimatuena izan da beti kuantitatiboki multzorik garrantzitsuena. Hasieran ez zegoelako egunerokorik eta gerora ere, garatuz joan den arren, euskara hutsezko hedabide inprimatuen eskaintza osoaren zatirik txikiena izan delako egunerokoena. Hala izatea ez da hizkuntza gutxituetan ekoiztutako hedabideen ezaugarri bereizgarria, hizkuntza nagusietan kaleratzen direnekin egoera bera errepikatzen delako; hots, aldizkako enpresaren egunerokoena baino anitzagoa eta zabalagoa da. Edozein kasutan, diru publikoaren eskatzaile gehienak aldizkakoak baldin badira, pentsa daiteke baliabide ekonomiko gehien horietara bideratu beharko litzatekeela. Baina EAEn ez da hala egin. Arestiko hiru tauletan dauden onuradunen datuei erreparatuta, agerikoa da dirua ez dela horrela banatu. Eguneroko enpresaren kasuan, 2005ean 1.700.000 euro banatu zen 8 hedabideren artean; aldizkakoentzat, ordea, 1.580.000 euro izan ziren 59 hedabiderentzat. Eta 2013an 6 egunerokoek 1.820.000 euro jaso zituzten bitartean, 1.841.500 euro banatu ziren aldizkako 59ren artean. 2012 eta 2013 urteetan, aldizkako enpresaren azpi-multzoan egunerokoenean baino 21.500 euro gehiago jarri ziren arren, batean eta bestean dauden eskatzaileak/jasotzaileak zenbat izan ziren aintzat hartu ezker, begi-bistakoa da aldizkako enpresaren multzoak proportzionalki baliabide ekonomiko gutxiago izan zituela.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Laguntza publikoak jaso dituzten hedabide inprimatuen ezaugarriei helduta argi dago bi multzo nagusiak eraikitzeke erabili den irizpidea argitaratze- edo kaleratze-maiztasuna izan dela; egunerokoak batetik, aldizkakoak bestetik. Eta Eusko Jaurlaritzak multzo bakoitzarentzako diru-partidaren banakatzea egiteko orduan, euskara hutsezko eguneroko prentsa lehenetsi du. Egoera horren lehen aztarna 1997an kokatzen da. Orduan, eguneroko prentsaren sektorean euskara hutsez jarduten zuen hedabide bakarrak, *Euskaldunon Egukariak* garaiko 120 milioi pezetako laguntza (721.215 euro) jaso zuen Jaurlaritzatik, eta urte berean 78 miloi pezetako laguntza (468.789 euro) ezarri zen aldizkako argitalpenentzat. Orduetik, joera urtero errepikatu da.

Adierazitakoak adierazita beraz, ñabardura egin behar zaio lan honetan proposatu den hipotesiari. Izan ere, egia da zabalena den paperezkoetara zuzendu dela beti baliabide ekonomiko gehien, baina hipotesiak ez du funtzionatzen urteroko deialdietan inprimatuen artean bereizi diren bi azpimultzoei aplikatuta. Kasu horretan, kuantitatiboki txikiena den egunerokoen multzoak jaso duelako, aldearekin gainera, diru gehien. Jokabide hori hizkuntza gutxituetako biziberritze-prozesuan hedabideek izan dezaketen eraginaz hainbat egilek duten ikuspegiarekin ezkondu daiteke (Hourigan, 2003; Martí, 2005; Jones, 2007; Moring, 2007, Pietikäinen, 2008). Horien ustez, hedabideak hizkuntzaren presentzia bermatzeaz gain, hizkuntzaren beraren estandarizazioa sustatzeko tresna baliagarriak ere badira; ondorioz, administrazio batek hizkuntza gutxituaren normalizazioan eragin dezaketen idatzizko hedabideen artean diru-laguntzak banatzerakoan prentsa inprimatua lehenetsi dezake arrazoi batengatik: aldizkako argitalpenekin alderatuta prentsa inprimatuak hizkuntza gutxituaren eguneroko presentzia bermatzen duelako hedabideetan. Bestalde, jokabidea koherentea da Eusko Jaurlaritzak Autonomia Estatutua onartu zenetik hedabideen esparruan garatu duen politikarekin; batetik, hizkuntzaren normalizazioan laguntzeko eraginkorrenak izan daitezkeen euskarriak (Moriarty, 2007), ikus-entzunezkoak sortzeari ekin zion (EITB); eta bestetik, inprimatuei dagokienez, horiek diru-laguntza bidez sustatzeko ahalegina egin du. Izan ere, presente izan behar da

2005-2013 epealdian diru publiko bidez egin den ahaleginak oinarrian ondoko helburua zuela ezarrita: euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzea. Eta urteroko aginduetan aitortutako sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuak dira hurrengo ondorioaren mamia.

6.6. EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEK MODU ANITZEAN ULERTZEN DUTE 2005-2013 BITARTEKO DEIALDIETAN EZARRITAKO HELBURUA

Ikerketaren azterketa atalean erakutsi da Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideak laguntzeko ekimenaren helburua hedabideek beraiek egin duten ibilbidera egokituz joan dela. Lehen urteetan, paperezko argitalpenak baino ez zeuden; hortaz, diru-laguntza deialdietan horien zabalkundea sustatzea edota bideragarriago egitea ezarri zen helburu moduan. Gero, 1987-1996 bitartean, aipatu helburua “euskarazko aldizkarigintza suspertu, sustatu eta babestu” formula erabiliz jaso zen eta 1997an, hots, Jaurlaritzak eskatzaileen artean eguneroko prentsa ere onartu zuen lehen urtean beste era batera aurkeztu zen laguntzaren xedea. Aurpegi edo alde bikoitzeko xedea zela esan daiteke; batetik, prentsa idatzian euskararen erabilera sendotu eta indartzea eta bestetik, euskal prentsa-egitasmoak bideragarriago egitea. 2000. urtetik, berriz, herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko ikus-entzunezko egitasmoek “Hedabideak” laguntza-deialdira aurkezteko aukera izango dute; baina egoera berriak ez du apenas aldaketarik eragingo helburuen formulazioan. Nahikoa izan zen “euskal prentsa egitarauak bideragarriago egiteko” jarri beharrean, “euskarazko komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko” jartzea. Aldaketa ikerketak aztergaitzat hartu duen 2005-2013 epealdian gertatu zen berriro; denbora-tarte horretan, urtea joan urtea etorri, ondoko esaldiarekin aurkeztu da laguntza-ekimenaren xedea: “euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak”.

Hortaz, sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuek laburbiltzen dute 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzak kaleratu dituen diru-laguntza deialdien ipar-orratza. Kontua da ez dela urte horietako deialdi bakar batean zehazten nola ulertu behar diren aipatu hiru hitzak. Ez hori bakarrik, ikerketan egin diren elkarrizketa sakonetan zein Delphi bidez jasotako ekarpenetan oso agerian geratu da diru publikoaren

onuradun diren euskara hutsezko hedabide inprimatuek esanahi, interpretazio desberdinak ematen dizkietela sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuei. Eta horixe da hain zuzen lan honen beste hipotesi bateko mamia.

H6.- Seigarren hipotesiak Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza deialdiaren xedeari heltzen dio. 2005-2013 bitartean, ondokoa izan da helburua: euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatu. Hipotesi honek planteatzen du euskara hutsezko idatzizko hedabideek modu desberdinean, eta zenbait kasutan kontrajarrian, interpretatzen dituztela deialdiak helburu moduan ezarri dituen sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuak.

Elkarrizketa sakonetan jasotakoaren arabera, “normalizatu” kontzeptuaren definizioak eragiten du hedabide inprimatuen arteko adostasunik handiena. Gehienetan euskararen egoerari zeharo eta ezinbestean lotuta azaldu dute elkarrizketatuek; horren erakusgarri litzateke ondoko iritzia: “Euskal hedabide bat normalizatua egon daiteke euskera normalizauta dagoenean, unibertsala denean eta funtzio sozial guztiak betetzen dituenean”(E1). Ikuspegi horrekin batera, bada euskarazko hedabideen normalizazioa beste kontu batzuekin loturik ikusten duenik ere; batetik, sektorearen mapa izatearekin, eta bestetik, produktu estandarrak eskaintzearekin; hots, kontsumitzaileak modu naturalean hartuko lituzkeenak eta gutxituak ez diren beste hizkuntza batzuetan daudenen parekoak. Parekoak bai, baina ez igualak, baizik eta euskal kontsumitzaileen beharrei erantzuten dietenak. Elkarrizketatu batek honela zioen:

“Normalizazioa da produktu estandarrak izatea, produktu normalak izatea (...) hau da, besteetan, erderaz ikusten ditugunak euskeraz ere izatea,(...) horrek zer esan nahi du? Egin behar ditugula besteek egiten duten guztia ta? Ez, hori da euskal gizartean Euskal Herriak eskatzen dituen edo behar dituen hedabideak egitea”. (E12)

2005-2013 epealdiko “Hedabideak” diru-laguntza deialdien helburuan aitortutako beste bi kontzeptuak, sendotu eta garatu, modu anitzean interpretatu zituzten elkarrizketatuek. Sendotu hedabidearen jarduna urte batetik bestera gorabehera handirik gabe ziurtatzeko behar diren baldintzekin, baliabideekin lotu dute

batzuek. Beste batzuen ustez sendotzeak zerikusia du kalitatearekin, irakurle gehiagorengana iristearekin, enpresa-egitura hobetzearekin eta aldaketei egokitzeko gaitasunarekin. Garatu kontzeptuak, berriz, aurrera egitea, garai berrietara egokitzea esan nahi duela adierazi dute elkarrizketatu askok, eta beste zenbaitek, gehiago zehaztu eta produktu berriak ekoizteko edota euskarri berrietan aritzeko gaitasunarekin identifikatu dute.

Elkarrizketa sakonetan sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuak zehazteko unean gertatu den egoera bera errepikatu da Delphi teknikan ere. Delphian parte hartzeko gonbidapenari erantzun zioten hedabideetakik zortzik heldu zioten laguntza-deialdiaren xedean ageri diren hiru kontzeptuak argitzeko zereginari. Zenbakia berez da esanguratsua, berau delako Delphia gauzatzeko prestatu zen gidoian eskatzen ziren gai guztien artean erantzun gutxien jaso duena. Idatzizko ekarpenetan irakurritakoaren arabera, eta elkarrizketetan ikusi bezala, kontzeptu berari hainbat esanahi desberdin ematen zaizkio hedabide batetik bestera, eta ez hori bakarrik, esanahi bera kontzeptu ezberdinei lotuta ere ageri da; esaterako, hedabide batentzat sendotzea dena beste batek garatzea edo normalizatzea bezala interpretatzen du. Adostasunik handiena, hala esaterik badago, orain ere normalizatu kontzeptuaren inguruan gauzatu da.

Ikuspegiak ikuspegi eta desberdintasunak desberdintasun, hedabide inprimatua sendotzea lau kontu desberdinei lotu zaio Delphian. Erantzun dutenetatik, batzuek uste dute irudi eta testuen aldetik gero eta produktu hobeak, kalitatezkoak ekoiztea dela sendotzearen seinale; emandako bigarren adieraren arabera, sendotzea hedabidearen finantziazio-bideak dibertsifikatzeari lotu beharko litzaioke; hirugarren adieraren arabera, sendotu kontzeptuak adieraziko luke eskainitako produktua herritarrentzat erreferentziala dela, eguneroko bizitzan erabiltzeko modukoa dela; eta azkenik, bada sendotu hedabidearen etorkizuna ziurtatzeko behar diren baldintzak hobetzea dela dioenik ere. Hortaz, sendotu kontzeptua definitzeko, kaleratutako produktua, hartzailea, hedabidearen egoera ekonomikoa eta jarduna (baldintzak) hartu dira abiapuntu gisa.

Garatu da helburu moduan ageri den bigarren kontzeptua. Horri ere esanahi desberdinak eman dizkiote Delphian horri buruzko ekarpena egin duten hedabideek. Horietako batek teknologia hobeak izatearekin eta hartzaile gehiagorengana iristearekin lotzen du garatzea; beste batzuentzat garapenak berritzearekin, eboluzionatzearekin du zerikusia, eta hiru arlotan gertatu beharreko berrikuntza aipatzen dute: produktuaren arloan, enpresaren kudeaketa-ereduan eta hartzaileen eskakizunei begirako estrategiaren esparruan. Eta garatu nola azaldu daitekeen argitzeko ahalegina egiten dutenen artean, badira zenbait hedabidek sendotu hitzari emandako esanahi bera egokitzen diotenak ere; horientzat garatzea produktu, eduki hobeak ekoiztea litzateke.

Bestalde, normalizatu kontzeptua definitzeko hiru erreferentzia hartu dituzte ekarpen-egileek: hizkuntza, merkatua eta erdaraz ari diren hedabideak. Gehientsuenek diote euskara hutsezko hedabideen normalizazioa hizkuntzaren, euskararen egoerari dagoela lotuta ezinbestean; hots, euskara normalizatuta ez dagoen bitartean, ezinezkoa izango dela hizkuntza gutxituan diharduten paperezkoak normalizatzea. Ikuspegi horrez gain, normalizatu kontzeptua definitzeko beste bi proposamen bildu dira Delphian; baten iritziz normalizatzeak euskara hutsezko hedabide inprimatuen eskaintzarik ahalik eta zabalena izatea esan nahi du, eta bestearen ustez, erdal-hedabideek duten egoera eta baldintzak eskuratzea esan nahi du.

Beraz, 2005-2013 epealdian kaleratu diren “Hedabideak” deialdietako helburuan aipatzen diren hirukontzeptuak nola ulertu beharko liratekeen zehaztu gabe izateak ondorio bikoitza dakar: batetik, arestian azaldu bezala, euskara hutsezko hedabide inprimatuen zehaztugabetasuna, adostasunik eza kontzeptuak mamiz janzterakoan. Jasotako erantzunen kopuru txikiari erreparatuta agian eskaturiko zereginak sortu dituen zailtasunei buruz ere hitz egin beharko litzateke. Bestetik, deialdien helburu izan diren hiru kontzeptu gakoak zehaztu gabe izateak ez dio inolako mesederik egiten diru-laguntza egitasmoaren ebaluazioari.

Ebaluazioaren ingurukoak sakonago jorratuko dira hurrengo ondorioari eskainitako tartean. Hemen bakarrik aurreratu oso presente izan behar dela “Hedabideak” diru-laguntza deialdia Eusko Jaurlaritzak hizkuntza-politikaren esparruan egikaritutako politika publikoa dela eta ondorioz, ebaluazioa behar beharrezko zeregina izango da martxan jarritako egitasmoaren, ekimenaren egokitasunari eta eraginkortasunari buruzko informazioa biltzeko (Mondragón, 2001 eta 2006; Alvira eta Aguilar, 2015), gardentasuna bermatzeko, eta gainera, ebaluazioak jarduera publikoa legitimatzeko ere balio du (Grin eta Moring, 2003b).

Gurean, “Hedabideak” diru-laguntza deialdiak ezarri dituen sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuak nola ulertu behar diren argi eta garbi jasota ez baldin badago, nekez baloratu daiteke Eusko Jaurlaritzak esleitutako diru-baliabideak euskarazko hedabide inprimatu bakoitza eta horiek osatzen duten sektorea sendotu, garatu eta normalizatzeko baliagarri izan diren ala ez. Azken finean, nekez baloratu daiteke diru-laguntza deialdiaren eraginkortasuna. Zaila izango da urteroko diru-laguntza deialdiak aldarrikatu duen helburua bete den ala ez egiaztatzea. Izan ere, hedabide bat sendotu dela, edota garatu dela, edota normalizatu dela esateko, edo sendotze-, garatze- eta normalizazio-bidean egoki doala aldarrikatzeko, edo hobetu beharra daukala adierazteko, edo agian atzera egin duenaren berri emateko ezinbestekoa da aurretiazko urratsa egoki gauzatuta izatea, hau da, sendotu, garatu eta normalizatu zer diren argitzea. Azken baieztapen horrek zuzen zuzenean garamatza hurrengo ondorioaren ortura.

6.7. DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA ERAGINKORRA DEN ALA EZ EGIAZTATZEKO ZAILTASUNAK DAUDE

Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 bitartean euskara hutsezko hedabide inprimatuei esleitutako diru publikoarekin hedabide bakoitzak estali duen aurrekontuaren bilakaerak eta elkarrizketa sakonetan zein Delphian adierazitakoek agerian utzi dute urteroko deialdiak euskarazkoen sektorearentzat duen garrantzia. Lanean erakutsi da “Hedabideak” diru-laguntza funtsezko baliabide ekonomikoa izan dela euskarazko

idatzizkoek aurrekontua elikatzeko behar duten diru-sarrera osagarria izan dezaten (6.1. ondorioa) eta, horrekin batera, sektorearen eskaintza kuantitatiboari eusteko (6.2. ondorioa). Baina Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen urteroko deialdiaren helburua ez da sektorea eustea, baizik eta euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzen laguntzea. Diru-laguntza funtsezkoa dela denek onartu badute ere, ez da erantzun bera jaso deialdian aldarrikatutako helburuaren lorpen-mailaz galdetu denean. Kasu horretan, ez dago erabateko adostasunik. Izan ere, gauza bat da diru publikoaren onuradun izan direnek aho batez onartzea eta azpimarratzea Jaurlaritzak esleitzen dien laguntzaren garrantzia, eta beste bat, diru-laguntzak hedabide bakoitza, eta sektorea oro har, sendotzeko, garatzeko eta normalizatzeko balio izan duela ziurtatzea edo aldarrikatzea. Azken kontu horri, deialdiak izan duen xedearen betetze-mailari, heldu dio ikerketaren beste hipotesi batek, honelaxe dioenak:

H7.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen artean, ikuspegi desberdinak daude Jaurlaritzaren diru-laguntza ekimenak 2005-2013 bitartean lortu duen betetze-mailari edo eraginkortasunari buruz. Ez dago iritzi argi eta bakarra. Ikuspegi desberdinak azaleratzen dira hedabide batetik bestera, eta baita urteroko aginduetan, idatzizkoen sektorean onuradun moduan zehazten diren multzo batetik bestera ere (egunerokoak, informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak eta tokikoak).

Aurreko atalean defendatu da sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuak zehaztu gabe izateak zaildu egiten duela horien betetze-mailaren inguruko balorazioa egitea. Hala ere, elkarrizketa sakonetan eta Delphi bidez bildutako ekarpenei erreparatuz esan daiteke bi muturreko iritziak daudela. Euskara hutsezko hedabide inprimatu gehientsuenek uste dute esleitutako diru-partidak irauteko, prekarietate-egoerari eusteko balio dutela, baina ez hedabideak sendotzeko, garatzeko eta normalizatzeko. Iritzi hori dutenen adibide gisa balio beza honakoak: “Arnasa justuan hartuz, ezin hazi eta prekarietatean lan egiten. Dirulaguntzek hor kokatu gaituzte, eta ezin izan da burujabe izan, hazi, sendotu, normalizatu”(D14). Bitartean, bada kontrakoa defendatu duenik ere. Horiek, aurrekoak baino gutxiago dira, eta esleitutako diruarekin euskara hutsezko hedabide inprimatuak sendotu, garatu eta normalizatu

egin direla diote. Horren adibide litzateke beste ekarpen hau: “Diru-laguntzek lagundu egin digute gure komunikabidea sendotzen, garatzen, eraginkortzen eta normalizatzen” (D36).

Diru-laguntza deialdiak, 2005-2013 bitartean ezarri duen helburua bete ote den ala ez erantzuterakoan aldeko zein kontrako balorazioa egin dutenen artean ez dago perfil bat zehazterik. Euskara hutsezko egunerokoak, informazio orokorreko aldizkariak, aldizkari espezializatuak zein tokikoak ageri dira aldeko zein kontrako iritzia eman dutenen artean. Beraz, ez da betetzen hipotesiaren bigarren zatian proposatutakoa; hau da, diru-laguntza deialdian ezarritako helburuaren betetze-mailaz era bateko edo besteko ustea agertzeko orduan, ez du eraginik multzo batean edo bestean kokatuta egoteak. Are gehiago, badira 2005etik 2013ra bitartean ia parametro guztietan (aurrekontuak, autofinantzaketa-maila, botaldia, maiztasuna, orrialde-kopurua) hobera egin duten euskarazko inprimatuak eta hala ere deialdian ezarritako helburua ez dela betetzen defendatu dute. Eta kontrakoa ere aurkitu da; hau da, ikertutako epealdian okerrera egin duen hedabideren batek dio deialdiak lortzen duela euskarazko hedabide inprimatuen sektorea sendotzea, garatzea eta normalizatzea. Hortaz, ezin da esan Eusko Jaurlaritzak paperezkoei begira egin duen lanaren balorazioa hedabide bakoitzak 2005-2013 bitartean izan duen bilakaeraren arabera denik ezta sektoreak orokorrean eta izaera/ezaugarri bereko idatzizkoek izan duten bilakaeraren arabera.

Dena den, esan bezala, ikerketan parte hartu duten gehienek diote Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duen “Hedabideak” deialdiak ez duela lortzen euskara hutsezko hedabide inprimatuak sendotzea, garatzea eta normalizatzea. Lanean bildutako ekarpenei jarraituz, bi arrazoiren konbinazioak azalduko luke helburua ez betetzea: batetik, xedea elikatzeko Jaurlaritzak jartzen duen diru-poltsaren tamainak eta bestetik, deialdiaren maiztasunak.

Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 bitartean euskarazko hedabideei esleitu dizkien diru-baliabideei dagokienez, jasotzaileek diote ez direla idatzizko bakoitzak eta sektoreak behar dituen neurrikoak; hau da, ez direla jarduteko beharrak asetzeko beharko lituzketenak ezta epe luzerako inbertsioak eta estrategiak garatzeko beharko liratekeenak ere.

Zenbait ikerketa-lanek erakutsi dute (Zabaleta, 2012c, 2013) laguntzetarako diru-baliabideei buruzko kezka zabaldua dagoela hizkuntza gutxituetan lan egiten duten hedabideen artean. Uste dute diru-publiko gehiago eskaini beharko litzaiekeela, hizkuntza gutxituan ari den komunitatearen beharrei patxadaz erantzuteko gai den hedabide-sistema egokia eta modernoa eratzeko. Eta gaineratzen dute esleitutako diru-laguntzen zain egon behar izateak segurtasun-eza eta menpekotasun-sentsazioa eragiten duela. Euskarazko inprimatuak ez dira salbuespena. Bestalde, gurean, zenbait hedabide inprimatutik adierazi dute Jaurlaritzak jarritako diru-partida euskara hutsezkoen sektoreak gizarteari egiten dion ekarpena baino txikiagoa dela, eta bakanen batek ziurtatu du 2013an esleitutakoak marra gorria ezarri duela; hortik beherako edozein kantitatek ondorio kaltegarriak izango lituzkeela ekoizten dituzten produktuen kalitateari begira. Dena den, inork ez du zehazten zenbatekoa izan beharko litzatekeen diru-laguntza, inork ez dio zenbakirik jartzen kantitate horri.

Bestalde, aginduetan argitaratutako baliabide ekonomikoen tamainarekin batera, deialdia urtero gauzatzearen ondorioez mintzatu dira hedabideetako ordezkariak. Urterokoa izateak ez dio helburuen lorpenari mesederik egiten onuradunen iritziz. Aho batez diote urteroko maiztasunak ziurgabetasun-egoera batean murgilduz jardutera kondenatzen dituela, ez diela aukerarik ematen egonkortasunez aritzeko, berrikuntzei ekiteko, proiektu berriak martxan jartzeko, epe luzeko estrategiak lantzeko, aurretiaz planifikatzeko. Delphian behin eta berriz agertu dira gai honen inguruko ekarpenak:

“Hori proiektu berriak edo berrikuntzak egiterakoan oztopo handia da”. (D9)

“Horren ondorioz, ezinezkoa zaigu egokia den kudeaketa plan bat egitea”. (D12)

“Laguntza urteroko deialdietan gauzatzea oztopo handia da. Oso zaila da planifikatzea, eta ezinezkoa egiten zaizu haztea”. (D30)

“Deialdiak urterokoak izatea ez da batere lagungarria, egonkortasunik ez baitu ematen” (D41).

Hitz batean esateko ez dagoela/dutela sendotzeko, garatzeko eta normalizatzeko aukerarik.

Diru-baliabideen tamaina eta deialdiaren maiztasuna dira euskara hutsezko hedabide inprimatuen ustez laguntza-egitasmoak aldarrikatzen duen helburua gauzatzea ezinezko bihurtzen duten arrazoiak. Horri garrantzizkoa den beste kontu bat gehitu behar zaio: edozein egitasmoari egokitzen zaion helburua bete den ala ez argitzeko funtsezkoa da horren ebaluazio sistematiko eta jarraitua burutzea. Are gehiago egitasmoa diru publikoa erabiliz burutzen denean (Subirats, 2008, 2011, 2014). Horrela jokaten denean, sistema demokratikoetan derrigorrezkotzat kontsideratzen delako herritarrei azaltzea dirua zertarako, nola eta zein emaitzekin gastatu den. Aurreko atalean laburki azaldu den moduan ebaluazioak informazioa bildu eta gardentasuna bermatzeaz gain, jarduera publikoa legitimatzeko ere balio duelako. Hau da, agente publikoek hartutako erabakiak emaitzekin legitimatu beharra dago, eta horretarako funtsezko tresna da ebaluazioa (Espejo, 2008; Grin eta Moring, 2003b).

Ikerketaren aterpe teorikoan adierazi da hizkuntza gutxitu bat biziberritzeko erakunde publikoen aldetik egikaritzen den edozein egitasmo martxan jartzea politika publikoa gauzatzea dela; helburu jakin bat lortzeko, bitarteko publikoak ezartzen dituen edozein egitasmo politika publikoen esparruan kokatu daitekeela (Gring eta Moring, 2003b). Gurera etorrira, euskararen biziberritzean eraginkorrak izan daitezkeen euskara hutsezko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntza egitasmoaz ari gara. Aurrekoari gehitu zaio diru publikoarekin gauzatzen diren laguntza-politiken kasuan beharrezkoa dela horien eraginkortasuna eta jasangarritasuna egiaztatzeko ebaluazio-mekanismoak edo prozedurak martxan jartzea; horiek aplikatuz ziurtatu daitekeelako aurreikusitako helburuak betetzen ote diren ala ez. Beste era batera esateko, ebaluazioaren bidez egiaztatu daiteke egitasmoa eraginkorra den ala ez.

Hortaz, argi dago ebaluazio-prozesuek izaera deskriptiboa eta baloratiboa dutela. Azken batean, ebaluazio-zereginak bi fase ditu; lehenengoan luparen begidarapean jarri den egitasmoari buruzko informazioa bildu eta berau zorrotasunez aztertzen da (alde deskriptiboa); eta behin fase hori osatuta, bigarrenean ebaluatzen ari den egitasmoaren edo horren osagaien baten balioari buruzko iritzia eratuko litzateke. Aipatu fase biak osagarriak dira eta asmo batekin burutzen dira; jasotako

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

informazioa eta osatutako iritzia baliagarriak izan daitezela aurrera begirako erabakiak hartu eta, beharrezkoa baldin bada, egokitzapenak egiteko (Mondragón, 2006).

“Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren kasuan ebaluazio-lan bakarra egin zen 2005-2013 bitartean, *Hizkuntza Politikorako*⁸¹⁶ *Sailburuordetzak kudeatzen dituen diru-laguntza deialdien ebaluaketa eta hobekuntzarako proposamenak. HEDABIDEAK DEIALDIA* izenburupean UNESCO Katedrak eta EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak egindakoa hain zuzen. Emaitzen arabera, lanean parte hartu zuten hamar hedabidetatik ia bederatzik uste zuten eragin handia edo oso handia dutela euskararen normalizazioan, besteak beste hizkuntzaren presentzia bermatzen, euskarazko irakurzaletasuna sustatzen eta hizkuntzari prestigioa ematen laguntzen dutelako. Iritzi berekoak agertu ziren kontsumitzaileak ere; horiek positiboki baloratu zuten euskarazko hedabideek hizkuntzaren erabilpena normalizatzeko bidean egindako ekarpena. Bestalde, hedabideek 6 puntu eman zizkioten Eusko Jaurlaritzaren laguntza-deialdiaren edukiari, 4,3 puntu prozedurari, 5,5 puntu finantzaketari eta 8 puntu HPSko teknikariek izandako harremanari.

Edozein kasutan, lan hark ez zion heldu laguntza-deialdian zehaztutako helburuaren betetze-mailari; hau da, ez zuen aztertu esleitutako diru-baliabideekin euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzen ote diren. Baina bada horri buruzko aipamenik; izan ere lanak badu administrazioari zein hedabideei zuzenduriko proposamenen atal bat, eta bertan jasota dago deialdiaren helburuen lorpena eta kontsumitzaileen asebetetzea neurtzeko prozedurak ezarri beharko liratekeela. Hori baino gehiago, lanaren egileek diote administrazioak auditoriak egin beharko lituzkeela laguntzen onuradun diren euskarazko hedabideen artean horiek aurkeztutako datuak eta emaitzak zuzenak direla egiaztatzeko.

Lan hura egin zenetik urteak joan dira, eta kontua da ez dela “Hedabideak” diru-laguntzaren ebaluazio sistematiko eta jarraiturik burutu. Aterpe teorikoan adierazi bezala, oso kontuan hartu behar da politika publikoen ebaluazioa egiteko ezinbestekoa

⁸¹⁶ .- Lanaren atal teorikoan argitu bezala PolitikArako jarri beharko luke, baina jasota dagoen moduan dago izenburuan.

dela aginte publikoaren inplikazioa, borondatea; hots, egitasmo zehatz bat (adibidez “Hedabideak” deialdia) martxan jarri duen aginte publikoa ebaluazioaren subjektu-eragile bilakatzea. EAEn 2005-2013 bitartean deialdiaren kudeaketaz arduratu ziren bi ordezkari politikoek hiru eratako arrazoiak eskaini dituzte laguntza-egitasmoaren ebaluaziorik sustatu eta egin ez izana azaltzeko: lehena denbora falta; bigarrena, premiazkoagoak omen ziren beste zeregin batzuk lehenetsi zirela (euskarazko hedabideen eskaintza nahikoa bermatzea adibidez); eta hirugarrenik, administrazio publikoan ebaluazio-kultura oraindik ahula dela, hedatu gabe dagoela argudiatu zuten.

Argudioak argudio edo aitzakiak aitzakia, dagoeneko behin baino gehiagotan adierazi bezala, ebaluazioa da ezarritako helburuaren/en eta lortutako emaitzaren/en arteko harremana nolakoa den erakutsi lezakeen tresnarik egokiena, aplikatu beharrekoa. Hizkuntza gutxituan ari diren hedabideak hizkuntza horren biziberritze-prozesuan zeregina dutela onartzen bada, orduan pentsa daiteke hedabideak zenbat eta sendoagoak, garatuagoak eta normalizatuagoak egon, are eta hobeto, are eta eraginkorrago izan daitezkeela hizkuntzari begirako zereginen. Hortaz, ezinbestekoa da euskara hutsezko hedabideak denboran zehar (kasu honetan inprimatuak eta ikerketarako hautatu den 2005-2013 epealdian) sendotu, garatu eta normalizatu diren ala ez ikustea. Erronka horri helduko zaio hurrengo atalean.

6.8. EUSKARAZKO HEDABIDE INPRIMATUAK SENDOTU, GARATU ETA NORMALIZATU: BETETZEKO DAGOEN HELBURUA.

Ikerketa honen atal teorikoan baieztatu da edozein ebaluazio-prozesu zorrotza eta objektiboa izatea nahi bada, ezinbestekoa dela adierazle-sistema argia eta egokia eratzea (Mondragon, 2006). Beraz, Eusko Jurlaritzak 2005-2013 epealdian esleitu dituen diru-laguntzak euskara hutsezko idatzizko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko eraginkorrak izan diren ala ez baieztatzeko, ezinbestekoa da helburuaren betetze-maila interpretatzeko edo neurtzeko erabiliko den adierazle-sistema bat izatea, laguntza-egitasmoari buruzko informazio sinesgarria eta fidagarria eskuratu ahal izateko. Baina aurretik azaldu bezala, ez da xede gisa aldarrikatu diren

sendotu, garatu eta normalizatu terminoen esanahia zehaztu, eta ez da adierazleetan oinarritutako "Hedabideak" deialdiaren emaitzen ebaluaziorik egin.

Hala ere, urteroko esleipenak ebazteko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako teknikariek prestatzen dituzten tauletan biltzen diren datu kuantitatiboek informazio bikaina eskaintzen dute hedabide inprimatuek hainbat arlotan hobera edo okerrera egin duten jakin ahal izateko. Bertan daude laguntzak eskatu dituzten hedabide inprimatuen aurrekontuak, finantzaketa-maila propioak, botaldiak, maiztasunak eta orrialde-kopuruak esaterako. Horiek denak baliatuz hedabide bakoitzak jorratu duen ibilbidearen argazki kuantitatiboa osatu daiteke, denboran zehar argitalpena sendotu, garatu eta normalizatu egin ote den ikusteko baliatu daitekeen argazkia.

Argazki ebaluatibo horren xehetasunak arakatzen hasi aurretik, argitu beharra dago ikerketa honetan 2005-2013 epealdiko diru-laguntza deialdietan xede moduan aitortu diren sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuak elkar elikatzen duten hiru egoera bezala ulertuko direla. Lehenak bigarrena ahalbidetzen du eta aldi berean, sendotzearen eta garatzearen eskutik hirugarrenari, normalizazioari, zabaltzen zaio atea.

Orotariko euskal hiztegiak sendotu hitza indartu, irmotu esanahiarekin lotzen du. Gurera ekarrita, egoera ekonomikoak eta kontsumoak erakutsiko lukete hedabide baten sendotasun-maila. Ikuspuntu ekonomiko batetik hedabide bat sendo dago osasuntsu dagoenean, bere sarrera propioak baliatuz (produktuen edo zerbitzuen salmenta, publizitatea, entitate pribatuetatik jasotako diru-sarrerak) urterik urtera estutasunik gabe jardun dezakeenean, inbertsioak eskatzen dituzten erronka berriei aurre egiteko aukera duenean, bertan ari diren profesionalek lan-baldintza duinak dituztenean. Horrekin batera hedabide bat sendotu dela baieztatu daiteke urterik urtera administrazio publikotik datorkion diru-laguntzaren beharra txikituz doanean, diru-laguntzek aurrekontuaren gero eta zati txikiagoa estaltzen dutenean; hau da, hedabidearen autofinantzaketa-mailak hobera egiten duenean. Era berean, hedabide bat sendo dagoela kontsideratu daiteke bere hartzaileen aitortza duenean, kontsumoaren aldetik ere nabarmentzen denean, gero eta irakurle gehiagorengana

iristen denean. Bestalde, behin sendo izanda, argitalpen batek garapenerako aukerak ditu. Kasu honetan garapenak arlo askotan gauzatu daitezkeen egitasmoekin izango luke zerikusia; adibidez, orrialde-kopurua, botaldia edota maiztasuna handitzea, zabalkunde-esparrua hedatzea, euskarri berrietan kaleratzea edota bertan ari diren profesionalen lan-baldintzak hobetzea, kontratazioak egitea, berrikuntzak martxan jartzea. Azkenik, hazten eta garatzen den hedabide inprimatu sendoak jardunbide normalizatua izango luke. Euskaltzaindiaren hiztegian irakurri daiteke normalizatzea normal bihurtzea dela, estandarizatzea. Eta Lur hiztegi entziklopedikoak dio normala dela “ezer berezirik edo neurritz gainekorik ez duena, maizkoena edo ohikoena den motaren araberakoa dena”. Definizio horri jarraituz euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorea normalizatua litzateke gutxituak ez diren hizkuntzetan kaleratzen diren hedabide inprimatuen estandarrak beteko balitu, merkatuan edo kioskoan gutxituak ez diren hizkuntzetan ekoizten diren produktuekin parez pare eta lehian balego eta kontsumitzaileak bere informazio-beharrak asetzeko euskarazkoak ere, edo horiek soilik, hautatuko balitu.

Behin hori argituta, 2005-2013 bitartean “Hedabideak” deialdiaren ebazpenak egiteko erabili diren arazketa-taulen ustiapenak erakutsi du aurrekontuei eta finantzaketa-maila propioari dagokionez udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren hedabide inprimatuek (tokikoek) izan dutela bilakaerarik onena (ikus 119 eta 122 taulak). Moltzo horretako hedabideen artean azpimarratzekoa da zenbaitek ikerketak hartu duen lehen urtetik azken urtera egin zuten jauzia, horien aurrekontuak %40tik gorako hazkundera izan zutelako 2005etik 2013ra. Horren adibide dira *Goiena papera*, *Asteleheneko Goiena papera*, *Begitu*, *Baleike*, *Aikor*, *Ttipi-ttapa* eta *Noaua!* aldizkariak. Tokikoek kudeatu zuten aurrekontuen banakatzeari erreparatu ezkerro, oro har, diru-partidarik handiena langileak ordaintzera bideratu zen, horren ondoren produkzio-gastuetarako zegoen, eta azkenik, diru gutxien argitalpenaren banaketan erabili zuten 2005ean zein 2013an. Bestalde, finantzaketa-maila propioan ere hobera egin zuten tokiko informazioa lantzen duten euskara hutsezko argitalpen inprimatu gehientsuenek. Dena den, ikerketaren lehen ondorioan, Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntza euskara hutsezko inprimatuentzat ezinbestekoa dela egiaztatu duen hartan adierazi bezala, tokiko gehienek gastu-aurrekontuaren %40 eta

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

%52 bitartean estali zuten diru-sarrera propioekin 2013an eta gainontzekoa beste diru-iturri batzuekin, esaterako diru-laguntzak, estali beharra zuten urte amaierako balantzean zenbaki gorriarik ez izateko. Eusko Jaurlaritzak esleitutako diruarekin tokiko gehienetan gastu-aurrekontuaren %10etik beherako portzentajea estali zuten; euskara hutsezko hedabide inprimatu guztien artean estaldura-portzentajerik apalena. Hortaz, tokikoen aurrekontuak, finantzaketa-maila propioak eta Jaurlaritzak emandako laguntzarekin estali zuten aurrekontuaren portzentajeak izan duen bilakaerari erreparatuta, esan daiteke 2005etik 2013ra multzo honetako hedabideak sendotu egin zirela.

Tokikoekin alderatuta, oso bestelakoa izan zen informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarien aurrekontuek denbora-tarte berean izan zuten bilakaera; ia kasu guztietan okerrera egin zuelako. Dagoeneko lanean zehar erakutsi den moduan, 2005ean diru-gehien kudeatzen zuten aldizkariak izan ziren 2013an gastu-aurrekontuaren beherakada handiena izan zutenak: *Argia*, *Elhuyar*, *Gazteberri*, *Zazpi Haizetara* eta *GAUR8* (ikus 107. taula). Aurrekontua nola banakatzen zuten azaltzeak zailtasunak ditu, ez dagoelako eredu nagusi bat; batzuek langileen soldatak eta gizarte-gastuak ordaintzeko erabiltzen zuten diru gehien, beste batzuek funtzionamendu-gastuak ordaintzeko, eta gainontzekoetan produkzio-gastuek jaten zuten aurrekontuaren zatirik handiena. Edozein kasutan, tokikoekin gertatzen zen moduan, informazio orokorreko eta informazio espezializatuko aldizkarietan ere, diru gutxien banaketa gastuetara joaten zen. Sarrera propioen bidez lortutako diru-baliabideen arloan, hau da, autofinantzaketan, bi joera izan dira multzo honetako argitalpenetan: erdiek okerrera egin zuten, eta beste erdiek hobera. Beraz, azken horietan salmentatik, publizitatetik edo beste entitate batzuetatik jasotako sarrera pribatuetatik lortutako diruarekin aurrekontuaren zati handiagoa estaltzen zuten ikertu den azken urtean lehenengoan baino. Hala ere, diru-publikoaren beharra handitu egin zen 2005etik 2013ra. Esleipenak egiteko landu ziren arazketa-tauletan bilduta dagoen informazioaren arabera, multzo honetako hedabideetan Jaurlaritzak eskainitako laguntzak gastu-aurrekontuaren %17 eta %33 bitartean estali zuen 2005ean, eta portzentajeak gora egin zuen 2013an, urte hartan Eusko Jaurlaritzaren laguntzak

%19tik %43ra estali zuen eta. Adierazitakoak adierazita, ezin da esan 2005etik 2013ra informazio orokorreko eta informazio espezializatuko aldizkariak sendotu egin zirenik; orokorrean gastu-aurrekontuek behera egin zutelako, diru-publikoaren beharra handitu egin zen, eta zenbaitetan finantzaketa-maila propioak puntuak irabazi zituen arren, hobekuntza hori tentuz interpretatu beharrekoa da, aurrekontuetan egindako murrizketei zor zaiolako eta ez diru-sarrera pribatuetan izandako gorakadari.

Eta eguneroko prentsaren multzoan kokatuta dauden hedabideen portaera tokiko argitalpenek eta aldizkakoek erakutsitakoen artean kokatuko litzateke (ikus 88, 89, 90, 91, 92, eta 93 taulak). Multzo horretako hedabide guztiek, *Hernaniko Kronikak* izan ezik, gastu-aurrekontu txikiagoak kudeatu zituzten 2013an 2005ean baino. Kasurik nabarmenenak *Oarso Bidasoko Hitza* eta *Irutxuloko Hitzarenak* izan ziren zalantza barik; bi idatzizko horiek 2013an eguneroko izateari utzi eta aldizkako argitalpen bilakatu ziren. *Irutxuloko Hitzaren* kasuan, gastu-aurrekontuak %61 egin zuen behera 2005etik 2013ra. Bestalde, gastu-aurrekontuaren banakatzeari erreparatuta ere, bada zer aipatu. Euskara hutsezko eguneroko prentsako hedabideetan langileen soldatak, prestazioak eta abar ordaintzeko diru-partidak jan zuen aurrekontuaren zatirik handiena lehen urteetan, eta are handiagoa oraindik 2013an, zenbaki absolututan zein portzentajetan. Arau horrentzako salbuespen bakarra *Berria* egunkaria izan zen, 2013an langileentzako partida baino handiagoa izan zelako funtzionamendu gastuak ordaintzeko erabilitakoa. Bestalde, sarrera propioekin lortutako finantzaketa-mailari dagokionez, 2013an Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso zuten sei egunerokoetatik *Goierriko Hitzak* eta *Hernaniko Kronikak* 2005ean baino finantzaketa propio hobea zuten, baina *Goierriko Hitzaren* kasuan aurrekontua murriztearen ondorioz izan zuen hobekuntza. Gainontzeko lau hedabideetan *Berria*, *Tolosaldeko* eta *Leitzaldeko Hitza* eta *Urola Kostako Hitzak* behera egin zuten 2005etik 2013ra, eta *Lea-Artibai*, *Mutriku* eta *Busturialdeko Hitzak* portzentaje berdintsuei eutsi zien urte batetik bestera. Eta Eusko Jaurlaritzak esleitutako diruarekin 2013an 2005ean baino gastu-aurrekontuaren zati handiagoa estali zuten baina ez zen informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek estalitako neurrira iritsi. Euskara hutsezko eguneroko prentsan estaldura-maila %12 eta %15,6 bitartekoa izan zen 2013an; salbuespen bakarra *Berria* egunkariarena izan zen (%23ko estaldura-maila). Aurkeztutako datuetan oinarrituta

ondoriozta daiteke euskara hutsezko eguneroko prentsak ez zuela sendotzerik izan ikertu den epealdian.

Gastu-aurrekontuen, finantzaketa-maila propioen eta Jaurlaritzak esleitutako laguntzarekin estalitako aurrekontu-portzentajearen bilakaeraz gain, kontsumo-datuen bilakaerak ere erakutsi dezake hedabide inprimatu bat sendotzen den ala ez. Baina gurean zaila da arlo horri buruzko baieztapenak egitea arrazoi batengatik: ikerketaren objektu diren argitalpen gehienek kasuan ez dago horien kontsumoari buruzko daturik. Bi eskuetako hatzamarrekin kontatu daitezke denboran zehar irakurlego-datuak modu sistematikoan neurtu dituzten euskara hutsezko hedabide inprimatuak (*Berrria* egunkaria, *Argia* aldizkaria, *Goiena* komunikazio-taldeko hedabideak, eskualdeetako *Hitzak*, Bortzirietako *Ttipi-ttapa*, Sakanako *Guaixe*, eta 2009 urtetik aurrera *GAUR8* eta *Zazpi Haizetara* aldizkariak). CIES enpresak 2005-2013 bitartean egindako neurketek agerian jartzen dute idatzizko denek izan dutela 2013an baino irakurle gehiago aurreko urteren batean; hortaz denboran zehar, oro har, joera beheranzkoa izan da. Gainontzeko euskara hutsezko idatzizko argitalpenetan berriz, irakurleen datuak estimazioetan oinarritu izan dira, eta erabilitako iturriaren arabera zifra zeharo ezberdinak aurkitu daitezke. Ale bakoitzeko 4 irakurle ematen zitzaizkien garai batean, baina denborarekin kopuru hori murriztu egin da, tokiko prentsaren esparruan burututako zenbait azterketek (Aztiker, 2008, 2009) erakutsi dutelako ale bakoitza gertuago dagoela 1,6-1,8 irakurle izatetik 4 izatetik baino.

Edozein kasutan, argi utzi beharra dago ordainpeko paperezkoen kontsumoan izan den beherakada ez dela euskara hutsezkoen ezaugarri bereizgarria; izan ere, edozein hizkuntzatan, gutxitua izan zein ehunka milioi hiztun izan, kaleratzen diren inprimatuak astindu dituen gainbehera-fenomenoaz hitz egin daiteke. Horren isla da egunerokoen, aldizkako eta idatzizko gehigarrien irismenak urterik urtera izan dituen emaitza negatiboak. Mundu mailako neurria hartu duen fenomeno da, krisi ekonomikoak, globalizazioak eta teknologia digitaletan izandako etengabeko berrikuntzak eragindakoa. Informazioaren eskaintza biderkatu den sasoiari bizi gara, berehalako eskuragarritasuna, erosotasuna eta doakotasuna bilakatu dira jaun eta jabe

edonon, eta horrek guztiak aldaketa sakona ekarri du prentsaren eta publikoaren arteko harremanean (Trappel eta al., 2011).

Euskara hutsezkoek ez dira egoera horretaz libratu, eta horri beste bi kontu gehitu behar zaizkio: batetik, euskarazko idatzizkoen eskaintza txikia da parean duen gaztelaniazkoekin alderatuta, eta bestetik, euskarazkoen sektorea irismen txikikoa da, merkatu potentzialaren zati txikia baino ez duelako bereganatzen (CIES, 2007). Lan honen aterpe teorikoan azaldu denez, egoera eskariarekin eta eskaintzarekin lotura duten arrazoien bidez azaldu daiteke (Zubiri, Retortillo eta Aierdi, 2008). Planteamendu horren arabera, euskarazko hedabideak, ez soilik paperezkoak, euskal hizkuntza-komunitatearen nukleora iritsiko lirateke, hizkuntzarekiko atxikimendu praktikoa handiena duten pertsonengana, euskarazkoen hautu aktiboa, militantea egiten dutenengana (Salces, 2016); baina euskarazkoek ez dute lortzen nukleo horretatik kanpo dagoen periferiara heltzea. Gainera horri gehitu behar zaio gaztelaniazko idatzizkoak jarraitzeko ohiturak eta kontsumitzaile potentzial askok euskaraz irakurtzeko erraztasunik ez izateak galga moduan funtzionatzen dutela kontsumitzaileak euskarazkoetara erakartzeko orduan.

Esandakoak esanda beraz, “Hedabideak” laguntza-deialdietan inprimatuentzat ezarri diren hiru azpi-multzoetatik tokikoena litzateke 2005-2013 bitartean hoberako bidea egin zuen bakarra. Multzo horren barne ere egoerak anitzak dira baina oro har, sendotu egin ziren. Ez ordea informazio orokorreko aldizkariak, aldizkari espezializatuak eta eguneroko prentsaren multzoko paperezkoak. Eta osasun ekonomikoa eta kontsumo-osasuna sendotu gabe, edo sendo izan gabe, hedabide inprimatuek nekez egin dezakete garapen-urratsik diru-inbertsioak eskatzen dituzten esparruetan.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako teknikariek deialdia ebazteko lantzen dituzten datuen artean daude laguntza-eskaera egiten duen hedabide bakoitzaren botaldiei, maiztasunei eta orrialde-kopuruei buruzkoak. Hiru aldagai horietan hobekuntza duen argitalpena garatu egiten dela pentsatu eta baieztatu daiteke. Jakina, garapena ez da botaldiak, maiztasunak edota orrialde-kopuruak handitzearekin bakarrik lotzen, ez da horretara bakarrik mugatzen; hori hedabide inprimatu baten

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

garapenaren ikuspegi murriztailea izatea litzatekeelako; baina hiru horiek dira 2005-2013 bitartean jarraikortasunez jasota dauden datuak, ez beste era batekoak; eta ondorioz, ikerketa honetan maiztasunen, botaldien eta orrialde-kopuruaren bilakaerak baliatu dira garapenaren inguruko hausnarketa lantzeko.

Euskara hutsezko hedabide inprimatuen aurrekontuekin eta autofinantzaketa-mailekin gertatu bezala, tokiko hedabideak dira botaldi, maiztasun zein kaleratutako orrialde-kopuruaren arloan 2013an 2005ean baino argazki hobea dutenak. Izan ere, hedabideen egoera ekonomikoak, hots, gastu-aurrekontuen gorabeherak eta sarrera propioei esker lortutako autofinantzaketa-mailaren gorabeherak modu zuzenean eragiten dute beste hiru esparru horietan. Egoera ekonomikoa zenbat eta hobea izan edo zenbat eta gehiago hobera egin, orduan eta aukera gehiago daude botaldiak, maiztasunak eta orrialde-kopuruak handitzeko.

Eguneroko prentsaren multzoko hedabideek, oro har, 2013an 2005ean baino makalago zeuden maiztasun, botaldi zein orrialde-kopuruei dagokienez. Egoerarik okerrera, berriro ere, *Oarso Bidasoko Hitza* eta *Irutxuloko Hitzarena* zen, eguneroko izateari utzi eta aldizkako argitalpen bilakatu zirelako eta, gainera, botaldietan ere beherakada handia izan zutelako. Orrialde-kopuruari erreparatu ezker, berriz, gehienek 2005ean zutenari eustea lortu zuten, baina egunkari nazional bakarrak, *Berriak*, orrialdeen herena galdu zuen ikertutako denbora-tartean. Eta botaldi-datuek erakutsi dute *Hernaniko Kronika eta Lea-Artibai*, *Mutriku eta Busturialdeko Hitza* izan ezik, gainontzeko guztiek ale gutxiago kaleratu zutela 2013an 2005ean baino. *Berria* egunkariaren botaldiak %24,4 egin zuen behera 2005etik 2013ra, *Goierriko Hitzak* %31,8, *Urola Kostako Hitzaren* botaldiak %33,8 egin zuen behera eta *Tolosa eta Leitzaldeko Hitzarenak* %40. Azaldutako datu horien guztien ondorio izan zen euskara hutsezko eguneroko prentsak 15.316 orrialde gutxiago sortu zituela 2013an 2005ean baino, portzentajetara ekarrita %43 gutxiago. Eta inprimatutako orrialdeen kopuruak kontuan hartuta, jaitsiera are handiagoa izan zen, %54koa; hau da, 2013an 2005ean baino 297.309.200 orrialde gutxiago inprimatu zituen paperezko eguneroko prentsak.

Informazio orokorreko aldizkari eta aldizkari espezializatuena oso multzo heterogeneoa da botaldi, maiztasun eta orrialde-kopuruei dagokienez. 2013an adibidez, zenbait aldizkarik mila aletik beherako botaldiak zituzten, *Bat*, *Uztaro* edo *Hemen*, *erlijio gogoetarako aldizkariak* adibidez, eta beste batzuek ordea, 10.000 aletik gorakoak, *Gaztezulo*, *Xabiroi*, *Zazpi Haizetara* eta *GAUR8* esaterako. Eta beste horrenbeste gertatzen da orrialde-kopuruekin. Arlo horretan, oro har alderantzizko harremana dago maiztasunaren eta orrialde-kopuruaren artean; hau da, maiztasun txikiena zuten argitalpenak ziren zenbaki bakoitzean orrialde gehien kaleratzen zutenak (*Bat*, *Bertsolari*, *Egan*, *Hemen*, *Jakin*, *Uztaro*). Dena den, multzo heterogeneoa izan arren, informazio orokorreko aldizkari eta aldizkari espezializatu gehientsuenek eutsi egin zioten maiztasunari eta orrialde-kopuruei 2005etik 2013ra, bi arlo horietan ez zen apenas gorabeherarik izan. Baina bai, ordea, botaldiaren arloan, gehienek behera egin zutelako, batzuk nabarmen gainera: *Xabiroi*, *Gazteberri* eta *GAUR8* aldizkarien botaldiek %54, %60 eta %74 galdu zuten hurrenez hurren, ikertutako denbora-tartean. Eta eguneroko prentsarekin gertatu bezala, multzo honetako hedabide inprimatuek ere orrialde gutxiago sortu eta inprimatu zituzten. Izan ere, 2005ean eta 2013an Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuten euskara hutsezko aldizkari guztiek sortutako eta inprimatutako orrialde-kopuruak alderatzen badira, emaitza da %34,8 edo 7.044 orrialde gutxiago sortu zituztela 2013an eta inprimatutakoei dagokienez, jaitsiera %54,1ekoa izan zen (100.567.920 orrialde gutxiago). Batetik besterakora erraz azaldu daiteke aintzat hartzen bada 2005ean sortutako orrialde guztien herena eta inprimatutako guztien erdia baino gehiago ekoizten zuten *Zabalik*, *Matraka* eta *Aldaketa hamasei* aldizkariak dagoeneko desagertuta zeudela 2013an. Hortaz, esan daiteke informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek eguneroko prentsako multzoko paperezkoek baino bilakaera zertxobait hobea izan zutela garapenaren sintomatzat hartu daitezkeen maiztasun, botaldi eta orrialde-kopuruetan. Onerako izenen bat nabarmentzekotan *Gaztezulo* litzateke, maiztasunari eutsi eta botaldian zein orrialde-kopuruan polito egin zuelako gora.

Azkenik, dagoeneko aurreratu den bezala, tokikoen multzoa izan da Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu dituen euskara hutsezko hedabide inprimatu guztien artean bilakaerarik onena erakutsi zuena 2005-2013 epealdian. Informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarien multzoko argitalpenekin gertatu bezala, tokikoena ere oso multzo anitza da maiztasunei, botaldiei eta orrialde-kopuruei dagokienean. Maiztasun txikiena dutenak urtean hamaika zenbaki kaleratzen dituzte eta handiena dutenak 45 zenbaki⁸¹⁷. Orrialde-kopuruei begiratuta gehientsuenak 24 eta 32 artekoak diren arren, 8tik 56ra bitartekoak daude, eta botaldiei begiratuta, zenbaki bakoitzeko 800 aletik 20.000 alera bitartekoak aurkitu daitezke. Hala ere, esan daiteke 2005etik 2013rako epealdian tokikoek, orokorrean, ondo eutsi ziotela maiztasunari; orrialde-kopuruan, ordea, gehiago dira behera egin zutenak gora egin zutenak baino, eta zalantza barik, daturik baikorrenak botaldiei loturikoak dira: gehiengoak ale gehiago kaleratu zituelako 2013an 2005ean baino. Ondorioz, udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan kaleratzen diren aldizkariak 2005ean eta 2013an inprimatutako orrialdeak alderatu ezker, balantzea positiboa da. Bi urte horietan Jaurlaritzaren "Hedabideak" diru-laguntzaren onuradun izan ziren tokiko guztiak kontsideratuta, 2013an 2005ean baino 27.567.384 orrialde gehiago inprimatu zituzten, hazkundera %17,7koa da. Hazkunde horretan eragin nabarmena izan zuen 2011 urtetik aurrera diru-laguntzak jasotzen hasi ziren *Arabako*, *Bizkaiko* eta, bereziki, *Gipuzkoako Hitzaren* ekarpenak. Adibidez, 2013an hiruren artean 30 milioi orrialdetik gora inprimatu zituzten. Baina ez da gauza bera gertatzen sortutako orrialdeei erreparatu ezker, kasu horretan 2013an 2005ean baino 1.426 orrialde gutxiago sortu zituztelako⁸¹⁸ (%6ko jaitsiera).

Tokikoen maiztasun, botaldi eta orrialde-kopuruek ikertutako denbora-tartean izan duten bilakaeraren azterketa osatzeko, bada azpimarratu beharreko beste kontu bat: hiru adierazle horiek eta hedabide bakoitza zabaltzen den esparru geografikoa

⁸¹⁷ .- Maiztasun horretatik gora dagoen tokiko argitalpen bakarra dago: *Txintxarri* aldizkaria. 2005ean 84 zenbaki kaleratu zituen eta 2013an 72 zenbaki.

⁸¹⁸ .- Kalkulu honetan ez dira kontuan hartu tokikoetan noizbehinka kaleratzen diren gehigarrien orrialdeak. Ez da hala egin HPSko 2013ko tauletan horien kopuruak jasota dauden arren (2.000 orrialde lirateke) 2005eko taulan ez daude jasota.

harremanetan jarri ezker, agerikoa da emaitzarik onenak eskualde mailan edo udalerrri anizteta zabaltzen diren argitalpen inprimatuek izan dituztela; adibide batzuk aipatzearen *Goiena papera, Aikor, Begitu, Karkara, Guaixe. Mailope, Ttipi-ttapa* edo *Pulunpe*.

Orain arte adierazitakoak adierazita, ondoriozta daiteke garapenaren adierazletzat hartu diren maiztasun, botaldi eta orrialde-kopuruen bilakaerari heldu ezker, 2005etik 2013ra bitartean Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa jaso duten euskara hutsezko hedabide inprimatu guztien artean tokikoek erakutsi dituztela garapen-sintomak.

Sendotzearekin eta garatzearekin batera, normalizazioa da laguntza-deialdiek aldarrikatu duten helburuaren hirugarren kontzeptua. Lan honetan erakutsi da euskara hutsezko hedabide inprimatuek modu anitzean ulertzen dutela normalizazioa. Askok euskararen egoera eta bilakaerari erabat loturik interpretatzen dute kontzeptua, eta horien arabera, zenbat eta euskaldun gehiago izan orduan eta normalizatuagoa legoke euskara hutsezko inprimatuen sektorea. Baina badira normalizazioa beste bi erataria ulertzen dutenak; batzuentzat euskara hutsezko hedabide inprimatuen eskaintzarik ahalik eta zabalena izatea litzateke; beraz, euskarazko hedabideen eskaintza zenbat eta zabalagoa izan, orduan eta normalizatuagoa legoke euskarazko inprimatuen egoera. Beste batzuek erdal hedabideek duten egoera eta baldintzak eskuratzearekin identifikatzen dute normalizazioa; hots, baldintzak gutxituak ez diren beste hizkuntza batzuetan kaleratzen diren paperezkoenetatik zenbat eta gertuago izan, bereziki gaztelaniazkoenetatik, orduan eta normalizatuago legoke euskarazkoen sektorea.

Esandakoak esanda, normalizazio-egoerara heltzeko beharrezkoa litzateke paperezko bakoitza eta sektorea bere osotasunean sendotzea eta garatzea; baina ez da hala gertatu. Esleipenak egiteko erabili diren adierazle kuantitatiboen laguntzarekin azaldu denez, 2005etik 2013ra hedabide inprimatu bakanen batzuk sendotu eta garatu diren arren, paperezkoen sektoreak, oro har, ez du bide hori jorratu. Gainera, informazio kuantitatiboak eskainitako argazkia Delphi bidez bildutako ekarpenek osatu eta aberastu dute. Hala, euskara hutsezko hedabide inprimatuek denboran zehar egindako ibilbidea baloratzeko eskatu zitzaizenean, ikuspegi baikorra nagusitu den

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

arren, bestelako iritziak azaleratzen dira 2008tik aurrerako epealdiari loturik. Krisi ekonomiko globalak eta paperezko eredu tradizionalaren krisiak euskarazkoak ere astindu dituela, urteetako bilakaera ona eten duela eta ataka estuan jartzera eraman dituela diote. Paperezkoek prekarietatea, lanpostuen galera, lan-baldintzak hobetzeko ezintasuna, erreleboa ziurtatzen asmatu ez izana, eskaintza handitzeko eta proiektu berriak martxan jartzeko zailtasunak aipatu dituzte sarri ekarpenetan. Horrekin batera sektoreak betidanik aldean izan dituen diru-sarrera propioen urritasuna eta diru-laguntza publikoekiko menpekotasuna areagotu direla onartzen dute. Eta egoera horretan hedabidea sendotu eta garatzea zortzimilako baten tontorrera iristea besteko erronka bilakatu dela gaineratu dute.

Orain arte aurkeztutako 2005-2013 bitarteko informazio kuantitatiboan (euskara hutsezko hedabide inprimatuen aurrekontuak, autofinantzaketa-mailak, kontsumoak, maiztasunak, orrialde-kopuruak, botaldiak) eta Delphian jasotako ekarpenenetan oinarrituta, ikerketak proposatu duen zortzigarren hipotesia betetzen dela esan daiteke.

H8.- Zortzigarren hipotesiak 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza deialdiaren onuradun izan diren euskara hutsezko hedabide inprimatuak aipatu denbora-tartean ez direla sendotu, garatu eta normalizatu planteatzen du.

Dena den, ñabardura egin behar zaio goiko baieztapenari. Euskara hutsezko hedabide inprimatuena multzo bakar gisa hartuta funtzionatzen badu ere, ez du balio tokikoentzat. Horien kasuan, multzo moduan kontsideratuta, hobera egin dutelako aztertu diren sendotze- eta garatze-adierazleetan. Hala ere, ezin da esan tokikoen eskaintza normalizatua dagoenik; batetik, ez delako euskararen esparru geografiko osora iristen eta, bestetik, nagusiki doakoak izateak eta gaztelaniazko estilo bereko lehiakiderik ez egoteak lagundu egin duelako euskara hutsezko tokikoek denboran zehar lortu duten irismena eta atxikimendua izaten. Horri gehitu behar zaio tokikoek aukera izan dutela, ez soilik Eusko Jaurlaritzatik, baizik eta EAEko beste bi administrazioetatik ere (udalak eta foru-aldundiak) diru-laguntzak jasotzeko.

Atal honi bukaera emateko, labur-labur bada ere, lerro batzuk eskainiko zaizkie nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduak euskara hutsezko gehigarriak eta erreferentzia-errialdeak diru-publikoa jaso zuten urteetan izandako bilakaerari. Eusko Jaurlaritzak 2006tik 2011 urtera bitartean, biak barne, 3.032.050 euro jarri zituen guztira gehigarriak laguntzeko, eta 2009 eta 2010 urteetan beste 300.000 euro euskara hutsezko erreferentzia-errialdeak laguntzeko. Gehigarrietara bideratutako partida esanguratsua da; izan ere, zati batean edo osorik euskaraz emititzen duten telebistak laguntzeko ezarritako ia kopuru bera delako⁸¹⁹ eta zati batean edo osorik euskaraz ari diren uhin bidezko irratiak laguntzekoa baino nabarmen handiagoa⁸²⁰.

Gehigarrien multzoan, osasun ekonomikoari begiratu ezker, 2006-2011 denbora-tartean Jaurlaritzaren laguntza urtero jaso zuten hiru gehigarriak sendotu egin zirela baieztatu daiteke. Aurrekontuek gora egin zuten, nabarmen gainera. Adibidez, *Izan gazte* gehigarriak %55,9 handitu zuen aurrekontua 2006tik 2011ra, *Araba gaztea* gehigarriak %80,9 eta *Ortzadar* gehigarriak %89,9. Bestalde, finantzaketa-maila propioak ez zuen gorabehera handirik izan, oro har, %40 inguruko portzentajeari eutsi zion. Datua azpimarratzekoa da, aurrekontuak asko hazten direnean, autofinantzaketari eusteko derrigorrezkoa delako neurri bereko hazkundera izatea hedabideak eskuratzen dituen diru-sarrera pribatuetan. Eta lan honetan hedabide inprimatu bat sendotu egin den ala ez baieztatzeko erabili den kontsumoari dagokionez, ez dago aztertutako gehigarrien kontsumo-daturik, baina bai ordea horiek

⁸¹⁹ .- 2006 urtean Eusko Jaurlaritzak 507.650 euro jarri zituen euskara hutsezko gehigarriak laguntzeko eta 500.000 euro zati batean edo osorik euskaraz emititzen duten telebistak laguntzeko. 2007tik 2010era, biak barne, 575.000 euro izan ziren telebistentzat eta 568.600 euro nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduak euskara hutsezko gehigarrientzat. 2011n, Jaurlaritzak gehigarriak lagundu zituen azken urtean, nabarmen murriztu zuen horietara bideratutako partida; 250.000 eurokoa izan zen, telebistentzat berriz, 550.000 euro ezarri zituen. Eta diru publikoaren jasotzaileei begiratuta beti egon da eskatzaile eta onuradun gehiago telebisten multzoan gehigarrienean baino.

⁸²⁰ .- "Hedabideak" diru-laguntza deialdiak nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduak euskara hutsezko gehigarriak 2006-2011 bitartean laguntzeko baliabide ekonomikoak ia bikoiztu egin zuten irratiak laguntzeko ezarritako kopuruak. Lehen urtean 305.200 euro izan ziren zati batean edo osorik euskaraz ari diren uhin bidezko irratiarentzat eta 507.650 gehigarrientzat. 2007tik 2010era, biak barne, 329.000 irratiarentzat eta 568.600 gehigarrientzat. Azkenik, 2011n, Eusko Jaurlaritzak kantitate bera, 250.000 euro ezarri zituen batzuentzat eta besteentzat. Eta diru publikoaren jasotzaileei begiratuta, 2011 urtean izan ezik, beti egon da eskatzaile eta onuradun gehiago irratiaren multzoan gehigarrienean baino. 2011 urtean onuradunen kopuru bera, lau, izan zen bi multzoetan.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

kaleratu dituzten gaztelaniazko *Deia*, *Diario de Noticias de Álava* eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak. Hiruren kasuan, CIES enpresak jasotako urteroko datu metatuen arabera, irakurle gehiago zituzten 2011n 2006an baino. Eraitza horretatik abiatuta ezin daiteke esan egunkari horiek prestatu eta zabalduko euskara hutsezko gehigarriek ere irakurle gehiago zituztenik, baina oso kontuan hartzekoa da bereziki ikerketaren marko teorikoan erakutsi bezala, hiru egunkarietako irakurle asko eta asko gai direlako euskaraz irakurtzeko.

Multzo honetako hedabideen maiztasunak ez zuen apenas gorabeherarik izan 2006tik 2011ra; beste horrenbeste esan daiteke zenbaki bakoitzean ekoiztutako orrialde-kopuruari dagokionez, salbu *Ortzadar* gehigarriaren kasuan, horretan nabarmen egin zuelako behera (2006ko 16 orrialdeetatik 2011ko 8 orrialdeetara), eta azkenik, botaldiak txikitu egin ziren hiruretan, baina gehien, berriro ere, ale gehien zabaltzen zuen *Ortzadar* gehigarrian; botaldia ia erdira etorri zelako 2006tik 2011ra. Azaldutakoak azalduta, ezin daiteke baieztatu multzo honetako argitalpenak garatu egin zirenik diru-publikoaren onuradun izan ziren bitartean.

Eta 2009 eta 2010 urteetan diru-laguntza eskatzeko aukera eskaini zitzaizen gaztelaniazko egunkariak prestatu eta zabalduko erreferentzia-orrialdeei dagokienez ezer gutxi esan daiteke horiek izandako bilakaeraz, bakar batek, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak eskatu eta jaso zuelako diru publikoa bi urteetan. Horren aurrekontuak hobera egin zuen, autofinantzaketa-mailari eutsi zion, lagundutako orrialdeak zabaltzen zituen egunkariak irakurle gehiago izan zituen 2010ean 2009an baino, maiztasunari eutsi zion, lau erreferentzia-orrialde gehiago kaleratu zituen bigarren urtean eta botaldian zenbaki bakoitzeko mila aletan egin zuen behera. Beraz, portaera txukuna erakutsi zuen urte batetik bestera. Hala ere, 2011ko deialdian Eusko Jaurlaritzaren aginduak ez zuen diru-partidarik ezarri erreferentzia-orrialdeentzat, eta horrekin batera bukatu zen nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskarazko era horretako orrialdeen istorio laburra. Sendotzerik, garatzerik eta normalizaziorik ez, beraz.

6.9. “HEDABIDEAK” DEIALDIAREN BALORAZIO-IRIZPIDEAK: IKUSPEGI ANITZ ETA KONTRAJARRIAK INPRIMATUEN ARTEAN

Ikerketa honen helburuetako bat “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren azterketa deskriptiboa egitea izan da. 1984an, euskara hutsezko hedabideak diru publikoz laguntzeko ekimena agindu bidez arautu zen lehen urtetik urtero argitaratu diren deialdien testuetan jasotako informazio kuantitatiboa (aurreikusitako diru-partidak) zein kualitatiboa (diru-laguntza eskatzeko bete beharreko baldintzak eta diru-laguntzen esleipenak egiteko erabili diren balorazio-irizpideak) bildu, landu eta aurkeztu da. Aipatu azterketa modu sakonagoan burutu da ikerketak hautatu duen 2005-2013 epealdian. Horrekin batera, helburu gisa ezarri da Eusko Jaurlaritzak sustatutako laguntza ekonomikoa izan duten euskara hutsezko hedabide inprimatuek deialdiaren edukiei buruz duten ikuspegia jasotzea. Eta zeregin bat zein bestea burutzerakoan fokua, neurri handi batean, diru-publikoaren esleipenak egiteko erabili izan diren balorazio-irizpideetan jarri da.

Diru-laguntza deialdien azterketa deskriptiboak erakutsi du, 1984tik 2004ra arteko bi hamarkadetan ia urtero aldatu, berritu edo egokitu egin zirela laguntza eskatzeko baldintzak zein esleipenatarako balorazio-irizpideak. Baldintzen atalari dagokionez, esaterako, 1984-1992 bitartean ez zen baldintza ekonomikorik jarri diru publikoaren onuradun izateko, eta eskari-fitxan idatzizko hedabideek diru-sarreraren eta diru-irteeraren laburpenak aurkezten zituzten. 1993tik aurrera, berriz, autofinantzaketa-maila agertuko da deialdiaren testuetan⁸²¹, eta horrek isla izan zuen eskariak egiteko orduan aurkeztu beharreko informazioan; izan ere, hedabidearen gastu-aurrekontuaren banakatze xehatu eta zehatza eta erakunde publikoetatik zein pribatuetatik eskuratutako diru-sarrerak aurkezteko eskatu zitzairen. 2005-2013 epealdian, deialdietan argitaratutako baldintzak egonkortu egin ziren; ez da aldaketarik egingo eskatzaileei ezarritako bi eratako baldintza orokorretan: batetik,

⁸²¹ .- Lau urteko deialdietan, 1993-1996 bitartekoetan, autofinantzaketa-maila ez da ageri baldintza gisa, baizik eta diru-laguntzen zenbatekoa finkatzeko balorazio-irizpide gisa edota laguntzetatik kanpo geratzeko irizpide gisa. Hala, 1996ko deialdian ezin izan zuten laguntza eskatu gutxienik gastu-aurrekontu osoaren %30eko autofinantzaketa lortzen ez zuten idatzizko hedabideek. 1997tik aurrera autofinantzaketa-maila laguntza-deialdiaren baldintzen atalean agertu zen. Gogoratu, 1997ko deialditik aurrera, euskara hutsezko eguneroko prentsak ere aukera izan zuela diru publikoaren onuradun izateko.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

hedabide inprimatuaren ekoizpen-ezaugarriei loturikoak daude (antzinatasuna, maiztasuna, formatua, orrialde-kopurua...) eta bestetik, eskatzailearen egoera ekonomikoarekin zerikusia dutenak. 2005-2013 denbora-tarteko urteroko laguntza-deialdietan hedabideek lau baldintza ekonomiko bete behar izan zituzten eskaria egin eta laguntza jaso ahal izateko: defizita izan behar zuten, gastu- eta sarrera-aurrekontu orekatua, ezin zuten gain-finantzaketarik izan, eta azkenik %35eko autofinantzaketa-maila ezarri zen agindua indarrean sartzen zen egunean, urtebete baino gutxiago zuten hedabideentzat eta gutxienez %40koa urte betetik gorako antzinatasuna zutenentzat.

Beste horrenbeste gertatu da ikerketa honek arreta berezia jarriz landu dituen balorazio-irizpideekin ere. 1984-2004 bitartean euskara hutsezko hedabideen sektoreak izan zuen bilakaerak baldintzatu zituen, neurri handi batean, diru-esleipenak egiteko erabili ziren irizpideak. Lehenbiziko urteetan, ohikoa zen urte batetik bestera irizpideak goitik behera aldatzea. 1997an, aldizkako argitalpenekin batera, eguneroko prentsak ere aukera izan zuen laguntza eskatu eta jasotzeko, eta 1997-1999 hirurtekoan esleipenak egiteko hiru irizpide-multzo konbinatu zituzten: hedabidearen egoera ekonomikoa, kaleratutako produktuaren ezaugarriak eta egitasmoaren hainbat arlotako aurreikuspenak eta estrategiak (autofinantzaketa handitzeko zein hartzaileak irabazteko). 2000 urtean "Hedabideak" deialdiak atek zabaldu zizkien irratiei, telebistei eta Internet bidezko hedabideei, eta jasotzaile berriekin batera, eskatzaileen egoera ekonomikoa bilakatu zen esleipenetarako irizpide nagusi. Ez bakarria, oraindik ekoiztutako produktuaren ezaugarriak ere kontuan hartzen zirelako, baina bai nagusia. Hedabide bakoitzaren gastu-aurrekontuaren arabera ezarri ziren jaso zitezkeen gehieneko eta gutxieneko diru-partidak.

Esleipenerako balorazio-irizpideen sinplifikazioa eta egonkortzea 2005-2013 epealdian gertatu zen. Denbora-tarte horretako lehen lau urteetan, eta euskara hutsezko hedabide inprimatuei dagokienez, zenbait berrikuntza eta aldaketa izan ziren urte batetik besterako deialdietan. Hala ere, punturik gehien egoera ekonomikoari loturiko irizpideak izan zituen beti. 2005eko deialdian, finantzaketa-maila propioari

eskaini zitzaion eskatzaile bakoitzak lortu zezakeen puntuazio osoaren erdia, 2006koan %35era jaitsi zen autofinantzaketa-mailari emandako balioa, eta 2007an eta 2008an, hedabidearen egoera ekonomikoari lotutako irizpideek, berriro ere, pisua irabazi zuten: ehun puntutik 50, hain zuzen⁸²². Egoera ekonomikoaz gain, hedabide inprimatua zabaltzeko era, irakurleak eta ekoiztutako produktua hartzen ziren kontuan puntuatzeko orduan. Bitxikeria gisa esan, 2007 eta 2008ko deialdietan 5 puntu eskaini zitzaizkiola ordainpeko izateari. Azkenik, 2009tik osteko deialdietan gauzatu zen lehen aipatutako esleipen-prozeduraren egonkortzea. Ordutik 2013ra arte, biak barne, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hiru irizpide ezarri zituen esleipenak egin eta ebazpenak kaleratzeko: finantzaketa-maila propioa, zabalkundea eta produktua. Eta irizpide bakoitzari egokitutako puntuak ere berberak izan ziren deialdi guztietan. Formula orokorra ondokoa izan zen: 100 puntutik gehienik ere 35 autofinantzaketa-mailari, gehienik ere 30 puntu zabalkunde-erari eta gainontzeko 35 puntuak produktuari. Gero, lanaren atal teorikoan azaldu denez, eskatzaileen azpimultzoak kontuan hartu eta irizpide bakoitza hainbat azpi-irizpidetan banakatu zen; esaterako, zabalkundea baloratzekoan, eguneroko prentsaren kasuan zabalkundeari eskainitako 30 puntuak hiru azpi-irizpideetan baloratu ziren (aurreko urtearekiko tirada 8 puntu, hedadura geografikoa 10 puntu, eta ordainpekoa izatea 12 puntu), informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarien kasuan, bi azpi-irizpideetara mugatu zen (aurreko urtearekiko tirada 15 puntu eta ordainpekoa izatea 15 puntu) eta tokian tokiko aldizkarien kasuan lau azpi-irizpide erabili zituzten zabalkundea baloratzeko (aurreko urtearekiko tirada 5 puntu, irakurle kopurua 5 puntu, hedadura geografikoa 10 puntu, eta ordainpekoa izatea 10 puntu). Nabarmentzeko modukoa da, 2009-2013 epealdian tokian tokiko argitalpenekin bakarrik erabili zela irakurle-kopurua balorazio-irizpide gisa esleipen-prozeduran.

Bestalde, 2006-2011 bitartean, Eusko Jaurlaritzak laguntza eskaini eta esleitu zien nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriari, eta 2009-2010 urteetan, nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako erreferentzia-orrialdeei. Horiekin erabilitako

⁸²² .- Horietatik 30 puntu ezarri ziren hedabideak aitortutako gastu-aurrekontuaren eta araztutako gastu-aurrekontuaren arteko aldea baloratzeko eta beste 20 puntu finantzaketa-maila propioa baloratzeko.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

irizpideak eta puntuazioak euskara hutsezko hedabide inprimatuekin erabilitakoen antzekoak dira, baina ez berberak. Gehigarriei bost irizpide ezarri zizkieten, eta egokitutako formula ondokoa litzateke: finantzaketa maila propioari gehienik ere 25 puntu, zabalkundeari gehienik ere 30 puntu, produktuari gehienik ere 25 puntu, orrialde-kopuruari gehienik ere 10 puntu eta karaktere-kopuruari gehienik ere 10 puntu. Eta erreferentzia-orrialdeekin ez zen egoera ekonomikoari loturiko irizpiderik izan: produkzioa (kazetaritza-trataera, informazioaren balio erantsia, lankide-sarea, kokapena, diseinua): gehienik ere 50 puntu, zabalkundea: gehienik ere 30 puntu eta orrialde-kopurua eta karaktere-kopurua: gehienik ere 20 puntu.

Behin balorazio-irizpideek denboran zehar izan dituzten gorabeherak aztertuta, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso duten euskara hutsezko hedabide inprimatuetan irizpideen inguruan dituzten ikuspegiei, iritziei, diskurtsoei erreparatu zaie elkarrizketa sakonen eta Deplhi teknikaren laguntzaz. Plurala erabili beharra dago, bederatzigarren hipotesian proposatu bezala, ez delako iritzi, ikuspegi, diskurtso bakarra agertu.

H9.- Bederatzigarren hipotesiak Eusko Jaurlaritzaren "Hedabideak" deialdian 2005-2013 bitartean jasotako eduki zehatzera darama, esleipenak egiteko erabili diren balorazio-irizpideen arlora hain zuzen. Diru-laguntzen onuradun izateko, deialdian zehaztu diren irizpideei dagokienez, ikuspegi desberdinak daude sektorea osatzen duten hedabideen artean.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2013 bitartean diru-laguntzen esleipenak egiteko euskara hutsezko hedabide bakoitzari aplikatu dizkion irizpideen gaiak hausnarketa oparoa eragin du. Adostasuna ia erabatekoa da kontu batean: laguntzen onuradunek kexu dira, euren esanetan ez dutelako parte hartzerik izan balorazio-irizpideak zehazteko orduan; hots, Jaurlaritzak irizpideak sektorearekin kontrastatu gabe ezarri dituela diote. Eta kexa aldarrikapen bilakatzen da, euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreko kideek uste dutelako diru publikoa jaso ahal izateko baldintzak eta esleipenak egiteko irizpideak sektorearen eta administrazioaren artean adostuak izan beharko liriatekeela. Hori baino gehiago, diru-laguntza deialdian

inplikaturik dauden bi aktore nagusien arteko adostasunik gabe aritzeak tentsioari edo konfrontazioari atea zabaltzen diola gaineratu dute. Kexa eta aldarrikapena elkarrizketa sakonetan zein Delphi bidez jasotako idatzizko ekarpenetan agertu dira behin eta berriro. Horren erakusgarri dira ondoko hiru ekarpenak, lehena informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarien multzoko argitalpen batetik dator, bigarrena eguneroko prentsatik eta hirugarrena tokian tokiko inprimatuen multzoko hedabide batek egindakoa da:

“Sektorearekin adostu gabe banatzen dira diru laguntza publikoak eta hori arazoa dela uste dugu. Hedabideok behin baino gehiagotan adierazi dugu laguntzak banatzeko irizpideak administrazioarekin hitzartzeko borondatea, baina orain arte Jaurlaritzak ez dio eskaintza horri erantzun positiborik eman. Horren ordez, sektorearekin kontatu gabe irizpideak aldatu izan ditu eta maiz erabakien berri prentsaren bidez izan dugu”. (D28).

“Lehen aipatu dudan akordio sektorial, sektore eta Administrazioaren arteko akordio hortan markatu behar dira irizpideak”. (E3)

“Bai sektorearekin kontatu behar da, nik uste dot edozein aldaketa sektorearekin kontatzea ona litzateke, ze adostuta badatoz gauzak ondo doaz, eta ez badoiaz beste dinamika batzutan sartzen gara, ez direnak lagungarri”. (E2)

Arestiko hiru ekarpenetan islatzen den eskaera edo aldarrikapenarekin batera, deialdia egokitzeko, birpentsatzeko unea zela adierazi zuten askok elkarrizketa sakonetan. Eta birpentsatze horren barne egongo litzateke irizpideen berrikuspena. Entzundakoen arabera, sektoreko eta deialdia kudeatzen duten Eusko Jaurlaritzako ordezkariak uste dute beharrezkoa dela planteamendu-aldaketa; zehatzago esateko, irizpideak eraiki eta ezartzeko orduan produktua erdigunean kokatu beharrean euskara hutsezko hedabideen hartzailea, kontsumitzailea kokatu beharko litzatekeela diote. Eta gaineratu dute hortik abiatuta eraiki beharko liratekeela esleipenak egiteko baliatu daitezkeen balorazio-irizpideak.

Delphi teknikaren bidez jasotako hausnarketetan, balorazio-irizpideen gaiak erantzun esanguratsua izan zuen. Ekarpene gehienak 2014ko deialdian ezarri zen “irismena” izeneko irizpidearen inguruan egin ziren. Gertatutakoa erraz ulertu daiteke

kontuan hartzen bada noiz eta zein arrazoik bultzatuta egin zen Delphia. Eusko Jaurlaritzak azken elkarrizketa sakona egin baino astebete lehenago argitaratu zuen 2014ko “Hedabideak” diru-laguntzak arautzeko agindua, eta hark aurreko deialdiekiko eduki-aldaketa nabarmena ekarri zuen. Bederatzi urtez gorabehera handirik gabe izan ondoren, 2014ko aginduak berrikuntza ekarri zuen deialdiaren helburuan zein balorazio-irizpideetan. Helburuari dagokionez, “eraginkortu” hitza gehitu zitzaion 2005-2013 bitarteko deialdietan “euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatu” esaldiarekin plazaratu zen xedeari. Bestetik, irizpideei dagokienez, hedabideen irismena bilakatu zen balorazio-irizpide nagusi. Haren aplikazioak eragina izan zuen administrazioaren eta hedabide inprimatuen sektorearen arteko harremanean; bereziki aurreko urteetan baino diru gutxiago jaso zuen *Berria* egunkariaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren artean⁸²³. Urte hartan egindako diru-laguntzen esleipenak eta horretarako erabilitako irizpideek, batez ere irismen-irizpideak, iritzi-kate luzea eragin zuen euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorean eta Cristina Uriarte, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburuak, agerraldia egin zuen Eusko Legebiltzarrean diru-laguntzei buruzko azalpenak emateko⁸²⁴. 2014an gertatutakoak errepika izan zuen 2015ean. Beraz, bi arrazoik akuilatuta egin zen Delphia. Batetik, 2014ko “Hedabideak” deialdiaren edukiak euskara hutsezko inprimatuen ikuspegi aldaketarik eragin ote zuen arakatu. Bestetik, elkarrizketa sakonetan hedabide inprimatuen sektoreko eta laguntza-deialdia kudeatzen duen Eusko Jaurlaritzako ordezkari erreferentzialesk adierazitakoa osatu eta aberasteko, batzuen eta besteen ikuspegi globaletik hedabide inprimatu bakoitzaren ikuspegi partikularrera jauzi eginez; laguntza-eskatzaileen diskurtsoetan izan daitezkeen aldeak, ñabardurak, azken batean, adostasunak eta desadostasunak bildu eta identifikatzeko tresna baliagarria delako Delphia.

⁸²³ .- “Inoizko murrizketarik handiena” izenburua jarri zuen *Berria* egunkariak 2014ko urriaren 21eko azalean. Gertatua sakonago azalduko da lan honen 7.1.4. atalean.

⁸²⁴ .- Agerraldia 2014ko urriaren 31n egin zen EH Bilduko Xabier Iasik diru-laguntzei buruz egindako galderei erantzuteko.

Lehenxeago aurreratu bezala, 2014tik hasita aplikatu zen balorazio-irizpide batek, irismenak hain zuzen, bereganatu zuen ekarpen-egileen arreta. Eta irismenari buruzko ikuspegian bat ez datozen bi multzo berezitu daitezke. Eguneroko prentsak eta informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarien multzoko hedabide inprimatuek, oro har, gogor kritikatzan dute irizpidea. Zigortu hitza ere erabiltzen dute zenbaitek. Ekarpen kritikoetan irakurritakoaren arabera, nahitasun bikoitza egozten diote diru-laguntzen kudeatzaileari: batetik, eremu euskaldunean eta doan zabaltzen diren hedabideak saritzen dituen bitartean, kalte egiten die eremu erdaldunetan ari diren doakoei zein euskararen lurralde osoan zabaltzen diren ordainpekoiei, eta bestetik, diru-publikoaren beharrea dauden euskarazko hedabide inprimatuen arteko lehia sustatzen du. Horren erakusgarri aldizkako bi argitalpenen ekarpenetik jasotako ondoko hitzak:

“(...) azken emaitza argia da: eskualde erabat euskaldunean eta doan banatzen den tokiko hedabidea saritzen ari dira, eta Euskal Herri osoan banatzen den ordainpeko espezializatua zigortzen”. (D44)

“Badirudi administrazioak interes handiagoa erakutsi duela euskarazko hedabideen arteko audientzien arabera kompetentzia sustatzeko, hedabide guztiei beraien beharren arabera laguntzeko baino. Norabide hori okerra dela deritzogu”. (D28)

Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak, ordea, beste ikuspegi bat agertu dute gai honi buruz. Tokiko gehienak, ez denak, irismena balorazio-irizpide moduan erabiltzearen alde agertu dira. Begi onez ikusten dute Eusko Jaurlaritzak hala egitea, horien iritziz laguntzak hedabide bakoitzaren irismenaren arabera esleitzea bat datorrelako deialdiari egokitutako helburuarekin. Ondokoa litzateke azaldutako argudioa ondo laburbiltzen duen ekarpena:

“HPSk diru-laguntzak ematen ditu euskararen erabileran areagotzeko. Hori da bere helburua eta xede horrek bultzatuta laguntzen ditu euskarazko hedabideak. Eta abiapuntu horretatik, logikoa da eraginkortasuna neurtzea irismenaren arabera. Horrek zentzu guztia dauka”. (D2)

Ekarpen horren arabera, hortaz, irismenak eskainiko luke hedabide baten eraginkortasunaren neurria. Ez ahaztu 2014ko deialdia arautzeko aginduak “eraginkortu” gehitu ziola 2005-2013 denbora tartean “sendotu, garatu eta normalizatu” kontzeptuen bidez ezarritako helburuari. Ez dago esan beharrik, baina hainbat ikerlariren planteamenduei jarraituta (Crystal, 2000; Hourigan, 2001; Cormack, 2004; O’Connell, 2004; Martí eta al., 2005; Williams, 2005; Jones, 2007; Moring, 2007; Pietikäinen, 2008; Chalmers, 2013) onartu eta baieztatzen baldin bada hizkuntza gutxitu batean ari den hedabide bat, edozein euskarritan hedatzen delarik, hizkuntza horren biziberritze-prozesuan lagungarri izan daitekeela; orduan iritzi horren hariari jarraitu ezkerro logikoa litzateke pentsatzea harreman zuzenki proportzionala izan daitekeela hizkuntza gutxituko hedabideak hiztun-komunitatean duen irismenaren eta hizkuntza gutxituaren biziberritzean duen eraginkortasun-mailaren artean. Adierazitakoa formula bilakatu ezkerro: zenbat eta irismen handiagoa orduan eta eraginkorrago.

Ikerketarentzat eraikitako bi solairuko aterpe teorikoan ikusi bezala, eraginkortasuna bilakatu zen 2005etik 2013ra bitartean Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako hizkuntza-politiken ikur eta erronka, bereziki lehendakaritza EAJren eskuetan izan zen urteetan. Eta eraginkortasunak hainbat lerro hartu ditu euskara hutsezko hedabide inprimatuek egindako idatzizko ekarpenetan. Baina ez bakarrik Delphian, elkarrizketa sakonak egiteko saioetan ere eraginkortasunak hamaikatxo minutu jan zituen. Hala gertatzeak garrantzia dauka, presente izan behar delako elkarrizketak, azkena izan ezik, 2014ko deialdia argitaratu aurretik burutu zirela; oraindik “eraginkortu” kontzeptuaren arrastorik ez zenean.

Eraginkortasunarekin sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuekin agertu den egoera bera errepikatu zen elkarrizketa sakonetan eta Delphian; hau da, berau ulertzeko modu ezberdin ugari izan daitezkeela plazaratu da. Euskarazko hedabide inprimatua eraginkorra izatea zer den azaltzerakoan, bi interpretazio nagusitu dira:

baten arabera, eraginkorra da kontsumitzailearen gogoia asebetetzen duena, eta bestearentzat, hartzaile gehiagorengana iristen dena da eraginkorra. Baina, horrekin batera, beste era bateko parametroei lotuta ere ulertzen da eraginkortasuna, hala nola, ekoiztutako produktuaren salmenta-kopuruari, irismenari, kalitatezko produktuak ekoizteari, hizkuntzaren corpus-arloan egindako ekarpenari, euskaraz irakurtzeko ohitura sustatzeari, autofinantzaketa-mailari, berritzeko gaitasunari, baliabideen kudeaketari edo estrategikoa izateari.

Definizioak definizio, elkarrizketatu guztiek onartu zuten beharrezkoa dela eraginkortasuna neurtzeko adierazleak sortu eta finkatzea, halakorik ez izatea arazo bilakatu delako. Baina eraginkortasuna operazionalizatzeko garaia heltzen denean, adierazle bidez gorpuzteko eskatzen zaienean, baieztapen orokor eta asmo on ugari eta zehaztasun gutxi dago. Gehien jota neurketa kuantitatiboak (irakurle-kopuruak, botaldiak edota zabaldutako aleak) eta nola egingo litzatekeen azaldu gabeko neurketa kualitatiboa proposatzen dituzte hedabideek. Horretan geratzen dira ekarpenak. Bestelakoa da, emankorragoa, Delphian parte hartu zuten euskara hutsezko hedabide inprimatuak esleipen-prozeduran zein irizpide lehenetsi beharko liratekeen galderari eman dioten erantzuna. Beste hainbat gaiekin gertatu bezala, irizpideei dagokienez ere, proposamen aniztasuna azaleratu da, eta ekarpenetan 2005-2013 bitartean erabilitako balorazio-irizpideak zein berriak ageri dira. Erdi eta erdi direla esan daiteke. Dagoeneko ezagunak diren eta 2005-2013 epealdian erabili direnen artean lau irizpide daude:

1.- Eskainitako produktuaren kalitatea: 2005-2013 epealdiko deialdietan “produktua” izeneko balorazio-irizpidearen barruan kokatuta zegoen “itxura eta edukia” azpi-atalak jasotzen zuela kontsidera daiteke.

2.- Hedabidearen izaera: 2005-2013 bitarteko deialdietan euskara hutsezko hedabide inprimatuak hiru multzotan banatu ziren izaeraren arabera, eta bakoitzari diru-partida, balorazio-irizpide eta puntuazio berezitua ezarri zitzaion. Dena den, esan beharra dago badirela multzokako banaketa ezabatzearen alde agertu diren hedabideak ere.

3.- Hedabidearen emaitzak: beste edozein jarduera-sektoretan ari diren enprekin gertatzen den moduan, hedabide inprimatuen sektorean ari direnek ere ezinbestean emaitzei erreparatu behar dietela aldarrikatzen dute euskara hutsezko zenbait hedabide inprimatuk, eta gaineratzen dute diru-laguntzen esleipenak bakoitzak dituen emaitzak oinarri hartuta egin beharko liritekeela. Hedabide horientzat emaitzen neurria hainbat parametroren konbinaziotik letorke: irakurle-kopuruak, maiztasuna edota doakoak/harpidedunak/ordainpekoak izatea. Aipatutako parametro horiek guztiak ageri dira 2005-2013 epealdiko laguntzen esleipen-prozeduran.

4.- Defizita izatea: Eusko Jaurlaritzak eskainitako diru-laguntzak arautzeko aginduen edukiak landu dituen atalean azaldu denez, defizita izatea derrigorrezko baldintza da eskatzaileentzat. Eta inoiz eskabideren bat bazterrean geratu da defizitarioa ez izateagatik⁸²⁵. Orain zenbait hedabide inprimatuk diote laguntza-deialdiaren bidez Eusko Jaurlaritzak eraginkortasuna sustatu eta saritu nahi baldin badu, ezinbestekoa dela defizita izatera behartzen duen baldintza/irizpidea kentzea.

Ezagunak diren lau irizpide horiekin batera, berriak edo berritzaileak diren beste lau proposatu dituzte:

1.- Eskainitako produktuaren estrategikotasuna: onartzen da oso zaila dela produktuen estrategikotasun-maila zehaztea, baina Delphian bildutakoaren arabera bi iritzi daude euskarazko hedabide inprimatuetan: batzuen ustez, hedabidea zabaltzen den eremu geografikoaren egoera soziolinguistikoak baldintzatzen du estrategikotasuna. Planteamendu horri jarraituz, estrategikoak liriteke eremu erdaldunetan ari diren hedabideak. Besteentzat, berriz, estrategikotasuna hedabide batek gizarteari egiten dion ekarpenari lotuta ulertu behar da, esaterako, hezkuntza edo zientzia arloetan egiten dion ekarpenari lotuta. Bigarren ikuspegi horri helduta diote euskara hutsezko zenbait hedabide inprimatu irismen handikoak ez izan arren, (adibidez, informazio

⁸²⁵ .- 2005 urteko deialdian, esaterako, *Karramarro txiki eta Karramarro aldizkaria* esleipen prozeduratik kanpo utzi zituzten defizitarioak ez izateagatik (EHAA, 2005-12-01, 229 zk.). Beste horrenbeste gertatu zen 2008an *Bizkaiei!* eta *Karmel* argitalpenekin (EHAA, 2008/08/12, 152 zk.).

espezializatuko aldizkariak) Eusko Jaurlaritzak horiek diruz babesten jarraitu behar duela, hizkuntzaren normalizazioari begira funtzio garrantzitsua, estrategikoa dutelako.

2.- Egitasmoaren antzintasuna: balorazio-irizpide hau proposatzen duten hedabideek uste dute diru-laguntzak kudeatzen dituen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak deialdiaren helburu gisa ezarri zituen sendotu, garatu eta normalizatu kontzeptuei “sortu” kontzeptua gehitu eta saritu egin beharko lituzkeela hasi berriak diren proiektuak.

3.- Jasotako diru-laguntzak: balorazio-irizpide hau dakartenek ez dabilta jasotako diru-partidaren tamainaz baizik eta zenbat iturritik datozen diru-laguntzak. Zeharka bada ere, kexa bat plazaratzen dute: euskara hutsezko hedabide inprimatu batzuek Jaurlaritzaren diru-laguntza bakarrik jaso dezakete eta beste batzuen kasuan, ordea, laguntza horri EAEko beste erakunde publikoetatik (foru-aldundiak eta udalak) eskainitakoa gehitzen zaio. Horregatik, beste erakunde publikoetatik diru-partidarik hartzen ote duten aintzat hartu beharko litzatekeela diote.

4.- Sinergiak: estrategikotasunarekin gertatu bezala, sinergia ere operazionalizatzeko zailtasunak dituen irizpidea dela onartzen duten arren, zenbaitek diote Eusko Jaurlaritzak saritu egin beharko lituzkeela hedabide inprimatuek elkarlanerako egiten dituzten ahaleginak eta horien bidez gauzatutako lorpenak. Tokikoen multzoan udalerrri bakar batean zabaltzen den argitalpenen eredua gainditu eta eskualde mailako hedadura-ereduaren aldeko apustu garbia egiten du inprimatuen sektoreak. Eskualde mailakoa litzateke, beraien ustez, eredurik egokiena eraginkortasunari, antolaketari eta funtzionamenduari begira. Eskualdea modu zabalean ulertuta, ez derrigor EAEko lurralde-antolamendu ofizialak zehaztuta dituen unitate administratibo gisa. Planteamendu horretan oinarrituta eskatzen dute sinergia-ahaleginak eta sinergia-lorpenak eskaeren balorazio-prozeduran aintzat hartu eta saritzea.

Balorazio-irizpideen nondik norakoek elikatu duten tarte hau borobiltzeko esan, euskara hutsezko hedabide inprimatuen artean gutxi batzuk 1984tik datorren prozedura-markoa gainditu eta beste era batera funtzionatzeko proposamena luzatu

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

dutela: hedabideen arteko multzokako banaketaren ikuspegia gainditu eta komunikazio-proiektuak aritu. Adierazitakoaren lekuko ondoko bi ekarpenak, lehena elkarrizketa sakonetatik hartua da, eta bigarrena Delphitik.

“ (...) nik esleipenak eta deialdiak egingo nituzke komunikazio-proiektuak, ze uste dut ya ezin dela segmentatu. Komunikazio-proiektuak gaur egun, komunikazio-proiektuak multimedia dira. Ezin da segmentatu, zuk ezin dituzu apartatu (...) nik Berria paperekoa ezin dut desbinkulatu Intenetekotik eta Argia paperekoa ezin dut desbinkulatu Internetekotik; hor azken batean, une honetan hedabideak gainditu dituzte, teknologiak gainditu ditu muga hoiek eta Argiak bere ikus-entzunezko produkzio hori zer sartzen dezu? Telebista bezala kontsideratzen duzu? (...) ze zentzu dauka hori bereiztea eta paperari lerro bat ematea. (...) Nik komunikazio-proiektu ulertzen det enpresa batek edo talde batek edo kolektibo batek finkatzen dituen komunikazio helburuak betetzeko erabiltzen dituen baliabide guztiak (...) Niri aspaldiko kontua iruditzen zait, eta froga hor dago, zenbat urte daramatzagu eskema honekin, mila, 25 urte daramatzagu eskema honekin, 30 urte, eta zerbait aldatu baldin bada azken 25 urte hauetan hedabideak dira. Eta deialdia ez da aldatu, horrek ez dauka inolako zentzurik, horrek ez dauka inolako zentzurik”. (E4)

“Irizpideei dagokionez, medioaren izaeraren arabera proiektuak eta helburuak lagundu beharko luke administrazio publikoak, helburu horiek lortzeko bitartekoak jarrita”. (D14)

Hedabideentzako diru-laguntzak esleitzeko ikuspegi berritzailea beraz, komunikazio-proiektu bakoitzaren helburuaren/helburuen lorpenerako beharrezko bitartekoak jarriko lituzkeena. Hori bai, zuzenean adierazten ez den arren, proiektuak euskara hutsezkoa beharko luke. Izan ere, hurrengo atalean erakutsiko da euskara hutsezko hedabide inprimatuek ez dutela ontzat ematen Eusko Jaurlaritzak hainbat urtetan nagusiki gaztelania darabilten egunkariekin izan duen jokabidea.

6.10. EUSKARA HUTSEZKO PAPERZKOEN SEKTOREAK EZ DU BEGI ONEZ IKUSTEN NAGUSIKI GAZTELANIA DARABILTEN EGUNKARIEI EUSKARAZKO EDUKIAK PRESTATU ETA ZABALTZEKO DIRU PUBLIKOA ESKAINTZEA

Ikerketak aztergai izan duen 2005-2013 epealdiko sei urtean (2006-2011, biak barne) Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak eskaini zizkien nagusiki gaztelania darabilten

egunkariak euskara hutsezko gehigarriak prestatu eta zabaldu zituzten. Eta 2009 eta 2010 urteetan laguntzak izan zituzten erreferentzia-orrialdeak prestatu eta zabaltzeko. Jaurlaritzak guztira 3.332.050 euro jarri zituen batzuek eta besteak laguntzeko eta diru-partida orokor horretatik, 2.024.211 euro esleitu zituen, hau da, ezarritako kantitatearen %60,7. Aurreikusitako partida agortu gabe geratu zenez urtero, soberakina beste multzo bateko hedabideen artean birbanatzeko aukera jaso zen deialdietan. 2011koak esaterako, honelaxe zioen: “Birbanaketa egiterakoan, multzoen beharrak izango dira gogoan”. (EHAA, 2011-05-20, 95 zk.)

Gaztelaniazko begirako ekimenak diru-partida propioa izan zuen, ez zen gainontzeko euskara hutsezko hedabide inprimatuei zuzenduriko poltsatik hartu. Hala ere, 2006ko deialdian, multzo berezitua osatu beharrean, B multzoaren barruan kokatu zituzten; hau da, euskara hutsezko aldizkarien multzo anitzean⁸²⁶. Urte hartan, euskarazko aldizkarien multzoarentzat jarritako partidari euskarazko gehigarrietara bideratutakoa kendu ezker, 2005ean baino diru gutxiago izan zuten aldizkariak⁸²⁷. Dena den, salbuespena 2006an bakarrik gertatu zen, aurreratu bezala, gainontzekoetan euskara hutsezko gehigarriak eta erreferentzia-orrialdeak aparteko multzo batean kontsideratu eta kudeatu zituztelako.

Deialdien oinarrietan ezarritakoaren arabera, gehigarriak gutxienez 16 orrialde izan behar zituzten, eta orrialde bakoitzeko, batez beste, 2.500 karaktere; horrez gain, originalak izatea, urtean berrogeita lau zenbaki kaleratzea eta gutxienez euskararen esparru geografikoko lurralde historiko batean banatzea eskatzen zitzairen. Erreferentzia-orrialdeei, berriz, diru-laguntzen onuradun izateko eskatzen zitzaizkien

⁸²⁶ .- 2006ko deialdian B multzoan euskara hutsez zabaltzen ziren aldizkariak eta gehigarriak izan ziren. Horren barne sartu zituzten euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen ziren euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkariak (B1 azpi-multzoa), EAEko udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen ziren euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkariak, hau da, tokikoak (B2 azpi-multzoa), euskararen esparru osoan zabaltzen ziren informazio espezializatuko aldizkariak (B3 azpi-multzoa), haurrei eta gazteei zuzenduriko euskara hutsezko aldizkariak (B4 azpi-multzoa) eta nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarriak (B5 azpi-multzoa).

⁸²⁷ .- Euskara hutsezko aldizkarien multzoak 1.580.000 euro izan zituen 2005eko deialdian, 2006koan 1.998.500 euro, baina horietatik 507.650 euro euskara hutsezko gehigarrientzat ezarri zituzten; hortaz, kantitate hori kendu ezker, 1.490.850 euro izan ziren aldizkariak esleitzeko. 2007an 1.901.120 euro aldizkariarentzat eta beste 568.600 euro nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarrientzat.

baldintzak ondokoak ziren: astean-astean, gutxienez euskaraz idatzitako 12 orrialde estandar argitaratzea gizartea, politika, mundua, ekonomia, kirolak edota kultura ataletan⁸²⁸. Estatu mailan zabaltzen ziren egunkarien lurralde-edizioetan, astean asteko euskarazko edukiek lau orrialdeko luze-zabalera izan behar zuten (eskatutako gutxieneko horretan, 2009ko deialdian ez ziren tokian tokiko berriak kontuan hartu, 2010ekoan, ordea, bai). Azkenik, edizio digitala zuten egunkariak aurretik zehaztutako euskarazko edukiak osorik agertu behar zituzten edizio digitalean.

Eusko Jaurlaritzak nagusiki gaztelania darabilten egunkariak euskaraz prestatu eta zabaldutako euskarazko gehigarriak diru publikoz laguntzeko ekimena eraginkortasunaren izenean garatu zen. Laguntza eskatzeko atea zabaldu zitzairen lehen urtean, 2006an, Patxi Baztarrika sailburordearen ardurapean zeuden hizkuntza-politikaren eta horren barne “Hedabideak” deialdiaren nondik norakoak. Haren esanetan, euskararen biziberritze-prozesuan eraginkorra izateko asmoz eta konbentzimenduz hartu zen erabakia. “Eske euskera sustatu behar dugu euskarazko hedabideetan bakarrik?” galderarekin jantzi zuen planteamendua. Izan ere, Baztarrikaren ustez, hizkuntza-politikaren xedea ez da hizkuntza gutxituan ari den hedabidea baizik eta hizkuntza gutxituaren kontsumoa areagotzea, erabilera bultzatzea. Logika horri jarraituz, eta kontuan izanda CIESen urteroko datu metatuen arabera EAEn, gaztelania darabilten egunkarien irakurle asko euskaraz ere irakurtzeko gai direla (ikus 43 eta 44 taulak), ondoriozta daiteke euskarazko edukiak txertatzea lagungarri izan daitekeela euskararen kontsumoa areagotzeko; hau da, irakurleak, kontsumitzaileak irabazteko. Patxi Baztarrikari Lurdes Auzmendik hartu zion lekukoa 2009an, sozialistak alderdi popularraren babesari esker Ajuria Eneara iritsi zirenean. Auzmendik oso bestelako ikuspegia, kritikoa, agertu zuen gai honen inguruan. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak jasotzen zituzten diru-partidak eta horiek baliatuz prestatu eta zabaltzen zituzten euskara hutsezko gehigarrien eta erreferentzia-orrialdeen kalitatea ez zetozeela bat uste zuen. Dena den, iritziak iritzi, sozialistek diru-

⁸²⁸ .- Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuten *El País*, *Diario de Noticias de Álava*, *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *El Diario Vasco* egunkariak gehienbat kulturaren esparruarekin zerikusia zuten albiste, erreportaje eta elkarrizketekin hornitu zituzten euskarazko erreferentzia-orrialdeak.

partida ezarri zuten 2010eko deialdian erreferentzia-orrialdeentzat, eta 2010eko eta 2011ko deialdietan, euskara hutsezko gehigarrientzat, ez ordea 2012koan. Beraz, Autonomia Estatutua onartu zenetik, EAEn lehen aldiz gobernu sozialista izateak ez zuen apenas eraginik izan hizkuntza-politikara eta horren barne euskarazko hedabideetara bideratutako baliabide ekonomikoetan, eta ia beste horrenbeste gertatu zen laguntza-deialdien edukiei dagokienez; hau da, sozialistek aurretik EAJk ezarri eta aplikatutako baldintzei eta irizpideei eutsi zieten.

Ordezkeri politikoen iritziez gain, euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorean gaiak eragindako ekarpenak bildu eta aurkeztu dira lanean. Ia erabateko adostasuna azaleratu da⁸²⁹, hamargarren hipotesian proposatutakoa babesten duen adostasuna. Honelaxe zioen hipotesiak:

H10.- Aztergai den 2005-2013 epealdiko zenbait urtetan, Eusko Jaurlaritzak diru-partidak ezarri ditu nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak laguntzeko. Hamargarren hipotesiak dio euskara hutsezko hedabide inprimatuak, oro har, horientzako laguntzak ezarri eta esleitzearen kontra daudela.

Laguntza ekonomikoa jaso duten euskara hutsezko hedabide inprimatuek ez dute begi onez ikusten diru publikoa gaztelaniazkoak euskara hutsezko edukiak prestatu eta zabaltzeko bideratzea. Eta erantzuna arrazoiz elikatzeko eraginkortasunaren argudioa darabilte elkarrizketa sakonetan zein Delphi bidez bildutako ekarpenetan⁸³⁰. Euskarazkoek nagusiki gaztelania darabiltenek euskaraz prestatu eta zabaltzeko edukiei erreparatzen diete balorazioa egiteko orduan, eta baieztatzen dute haiei dirua esleitzea ez dela eraginkorra euskara normalizatzeko, gaztelaniazkoetan euskarak beti bigarren mailako hizkuntza-tratamendua jasotzen duelako. Baieztapen orokor horren altzoan beste hainbat plazaratu dira. Zenbaitek

⁸²⁹ .- Delphian, gai honi buruzko jarrera argia agertu zutenetik (38), lau hedabide inprimatu agertu ziren gaztelaniazkoetan euskarazko edukiak prestatu eta zabaltzeko diru publikoa ematearen alde, gainontzekoak kontra. Dena den, alde agertu zirenen baieztapenak bi baldintza zituen: gaztelaniazkoek emandako diru-partida berezitu izatea eta haiei esleitutako kantitatea euskarazkoek bideratutakoa baino txikiagoa izatea.

⁸³⁰ .- Delphi ekarpenetan irakurritakoaren arabera, esan daiteke gai honek haserre handia, erreakzio sutsua eragiten duela ikerketan parte hartu duten batzuegan, haiek iritzia adierazteko orduan erabili duten estiloak hala erakutsi duelako.

ukatu egiten dute nagusiki gaztelania darabilten egunkariak hizkuntzaren normalizazioan eragiten dutenik, “gezur haundi bat baino ez da” dio batek, eta gaineratzen du, gaztelaniazkoek laguntza ekonomikoa ematea diru-publikoa desbideratzea dela. Hori baino gehiago, bada gaztelaniazkoentzat euskara diru-baliabide gehigarria lortzeko tresna dela ziurtatzen duenik ere. Beste batzuentzat ulergaitza da Jaurlaritzaren ekimenez urteroko balantzean irabaziak dituzten enpresak diru publikoz laguntzea. Eta besteren batek idatzi du Eusko Jaurlaritzak gaztelania darabilten egunkariei publizitate instituzionala txertatuz laguntzen diela, laguntza horrek euskarazkoek “Hedabideak” deialdiaren bidez esleitutakoa gainditu izan duela eta jokaera hori justifikaezina dela.

Ikerketan parte hartu duten hedabide inprimatuen iritziz, Eusko Jaurlaritzak gaztelaniazkoak diruz lagundu beharrean, beste era bateko estrategia garatu beharko luke. Hiru eratako ekimenak proposatu dituzte: Jaurlaritzak ahalegina egin beharko luke erdal hedabideak euskarara erakartzeko, Eusko Jaurlaritzak erdal hedabideei bi hizkuntza ofizial dituen gizartearen ari direla gogoratu eta erantzukizunez jokatu dezatela eskatu beharko lieke, eta hirugarren neurria gaztelania darabiltenetan kuota-sistema ezartzea litzateke. Dena den, sektorean hirugarren neurri horrek aldeko sutsuak dituen neurri berean aurkitu ditu kontrako iritziak. Kuotak ezartzearekin ados ez daudenek bi argudio plazaratzen dituzte; batetik, hala egitea ez datorrela bat gizarte libre batean prentsa idatzari aitortzen zaizkion ezaugarriekin eta funtzioekin, eta bestetik, gaztelaniazkoek kuotak ezartzeak euskara hutsezkoekin modu berean jokatu behar izatea ekarriko lukeela.

Azaldutakoak azalduta, atal honi bukaera emateko esan daiteke euskara hutsezko hedabide inprimatuek gogor kritikatu dutela Eusko Jaurlaritzak nagusiki gaztelania darabilten egunkariei diru-laguntzak esleitu izana; ez soilik ikerketa honetan burututako elkarrizketa sakonetan eta Delphi bidezko ekarpenetan, baita sektorearen beharren eta eskaeren berri emateko noizbehinka egin dituzten agerraldi publikoetan ere. Ikerketa honek agerraldi horien jarraipena egin du informazio-iturri ez zuzenen

laguntzaz. Emaitzak agerian utzi du zein izan den unean unean euskarazko hedabideen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanaren tenperatura. Horren inguruan landutako ondorioa hurrengo lerroetan.

6.11. EUSKO JAURLARITZA ETA EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUAK: BAT ETORRI EZINDA

Euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta horiek sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak sustatu eta eskaintzen dituen Eusko Jaurlaritzaren arteko harremana gorabeheratsua izan da. Gertaera objektiboa da Jaurlaritzak ez diola inoiz hedabideak diruz laguntzeari utzi, baina urtea joan, urtea etorri ez da sektorearen eta Administrazioaren arteko lankidetzaren oinarri sendorik finkatu, ezta euskarazko hedabideen garapen estrategikorako beharrezkoak liratekeen ildo nagusiak adostera iritsi ere. Alde batetik zein bestetik denboran zehar esandakoek eta izandako ika-mikek erakusten dute sokatira-ariketa batean murgilduta ibili direla. Horrela irudikatu daiteke bien artekoa; bakoitza soka baten muturrean kokatuta, biak sokari eusten, jakin badakitelako elkarren beharra dutela eta batak edo besteak soka askatzen badu airean izateari utzi eta lurra musukatuko duela; baina aldi berean norabide bakarrean bultza egin beharrean, bakoitza sokaren alde banatan bereari tinko eutsiz.

Batzuen eta besteen artean denboran zehar gauzatu den harremanari tenperatura hartzeko informazio-iturri ez zuzenetan, elkarrizketa sakonetan eta Delphian jasotakoak erabili dira lehengai gisa. Informazio-iturri ez zuzenei dagokienez, lehen Eusko Jaurlaritza osatu zenetik 2013ra bitartean, hedabideentzako diru-laguntzen gaiari jarraipenik eta tratamendurik zabalena eskaini dien euskarazko hedabide inprimatuak (*Euskaldunon Egunkaria* eta ondorengo *Berria*, *Argia* aldizkaria eta *Jakin* aldizkaria) arakatu dira sistematikoki. Horiekin batera hemerroteketan eskuragarri dauden beste hainbat iturritz ere baliatu da ikerketa: *Hemen* eta *Eguna* astegunkariak, *Anaitasuna* aldizkaria, *BAT* soziolinguistika aldizkaria, *Deia* eta *Gara* egunkariak, Topaguneak eta TOKIKOMek landutako agiriak, Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordearenak eta, azkenik, Eusko Legebiltzarreko bilkura-egunkaria. Material horren guztiaren lanketan ikusitakoa eta irakurritakoa oinarritzat hartuta esan daiteke

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EAEko Autonomia Estatutua onartu zenetik Eusko Jaurlaritza eta euskarazko hedabideen arteko harremanak bost etapa osatu dituela:

1.- Estatuaren onarpenetik 1983. urtera. Ekiteko unea izan zen Jaurlaritzarentzat, EAEko gizartearen kudeaketarako beharrezkoak ziren egitura guztiak abiatzeko unea. Hedabideen esparruan ikus-entzunezko publikoak jarri zituen martxan eta ekonomikoki ito beharrean ziren euskarazko paperezkoak diruz laguntzen hasi zen.

2.- 1984tik *Euskaldunon egunkaria* kaleratu arte. Eusko Jaurlaritza 1984an hasi zen euskarazko hedabideentzako diru-laguntzak EHAAn argitaratzen ziren agindu bidez arautzen. Bestalde, euskara hutsezko egunkariaren sorreraren inguruan gertatutako hainbat konturen ondorioz (5.3.2. atalean azaltzen dira horiek zehatz-mehatz) mikaztu egin zen Jaurlaritzaren eta sektorearen arteko harremana, areagotu egin zen bien arteko tentsioa eta enfrentamendu-giroa.

3.- XX. mendeko azken hamarkada. Denbora-tarte horretan bi fase berezitu daitezke. Batetik, 1991etik 1996ra tokian tokiko argitalpenen biderkatzea, loraldia gertatu zen eta aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren eta *Euskaldunon Egunkariaren* arteko tirabira, kalapita-giroa nagusitu zen. Bigarren fasea, 1997an hasi zen. Urak bere onera etorri ziren, *Euskaldunon Egunkariak* aukera izan zuelako diru publikoa eskatzeko, eta hortik aurrera bera bilakatu zen Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideei laguntzeko ezarritako baliabide ekonomikoen onuradun nagusia.

4.- 2000-2004 epealdia. Aurreko etapa nahasiaren ondoren, baretu egin zen Eusko Jaurlaritzaren eta sektorearen artekoa eta inprimatuen eskaintzak ugalduz jarraitu zuen (eskualdeetako *Hitzak* eta tokiko hedabide berriak). Ez hori bakarrik, ordura arte jasotzaile moduan hedabide inprimatuak soilik onartzen zituen "Hedabideak" deialdiak atek zabaltzeko irratiei, telebistei eta on-line argitalpenei. Dena den, diru-partidarik handiena argitalpen gehien biltzen zituen inprimatuen multzora bideratzen zen.

5.- 2005-2013 epealdia. Hiru ezaugarri jantzita dator ikerketak fokua jarri dion denbora-tartea: "Hedabideak" deialdiari dagokionez, helburuak, baldintzak eta balorazio-irizpideak egonkortu egin ziren, ez zuten apenas aldaketarik izan, eta hori lagungarria izan zen harremanetarako. Datua nabarmentzeko modukoa da, batik bat EAEko testuinguru politikoan gertatu zen aldaketagatik. Izan ere, alderdi popularraren babesari esker, Jaurlaritza eskuratu zuen alderdi sozialistak hiru urtez kudeatu zituen euskarazko hedabideentzako diru-laguntzak. Bigarrenik, arlo ekonomikoari erreparatuta, laguntza-deialdiak epealdi honetan ezarri zituen diru-partidarik handienak, baina 2008an hasitako krisi ekonomiko globalak isla izan zuen EAEko aurrekontuetan zein hedabideenetan. Hala ere, Jaurlaritzak 2011ra arte eutsi zion hedabideentzako diru-laguntzetan murrizketak egin gabe. Eta hirugarrenik, Eusko Jaurlaritzaren eta euskara hutsezko hedabideen arteko harremanen arloan, 2005-2013 aldian sektoreak ahots bateratuz ekiteko eta euskararen esparru komunikatiboa sendotzeko egitura berriak, TOKIKOM eta Hekimen, jarri zituen martxan. Eusko Jaurlaritza, bere aldetik, jeltzaleen zein sozialisten esku egon, diru publikoaren esleipena hedabide bakoitzaren emaitzei lotzearen alde agertu zen denbora-tarte honetan; hau da, laguntza euskararen normalizazioan eraginkorrak izan daitezkeen kalitatezko produktu konpetitiboari esleitzearen alde.

Informazio-iturri ez zuzenen laguntzaz "Hedabideak" diru-laguntza deialdian inplikaturik dauden bi aktore printzipalen harremanak jorratu dituen etapak eta mugarriak ezartzeaz gain, lehen laguntzak banatu zirenetik 2013ra arte batzuek eta besteek plazaratu zituzten eskaerak, kexak eta aldarrikapenak ere bildu eta landu ahal izan dira.

Euskarazkoen sektoreak laurogeiko hamarkadatik behin eta berriz errepikatu duen argudioa da hedabideek eskaintza zabaltzeko eta kontsumitzaileak erakartzeko egin duten eta egiten ari diren ahaleginak ez duela neurri bereko erantzunik izan Jaurlaritzaren aldetik, eta jarrera hori oztopo bilakatzen dela hobeto ekoizteko eta gizartean eraginkorragoak izateko. Abiapuntuko baieztapen hori heldulekutzat hartuta eraiki dute Eusko Jaurlaritzari zuzenduriko eskaera eta aldarrikapena: euskara hutsezko

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

hedabideen estrategikotasuna aitortu dezala eta sektorearen garapena eta etengabeko berrikuntza ziurtatuko lituzkeen epe luzeko apustua egin dezala.

Jaurlaritzak bere aldetik, behin eta berriz adierazi du, publikoki adierazi gainera, euskarazko hedabideak funtsezkoak, estrategikoak direla euskararen biziberritze zereginean eta uste horretan oinarrituta, sektoreak erakutsitako bilakaera kontuan hartu eta egokitu dutela diru-laguntza deialdien edukia. Baina, aldi berean, Jaurlaritzak euskarazko hedabideei aitortu zaien zeregina betetze-mailari buruzko kezka agertu du. Hala egin du bereziki ikerketa honek aztertu duen 2005-2013 epealdian. Hau da, euskarazko hedabideek oro har, eta paperezkoek bereziki, hiztun-komunitateari begira duten egitekoa eraginkortasunez betetzen ote duten ala ez planteatu du Jaurlaritzak. Izan ere, eraginkortasuna bilakatu zen Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 bitarterako diseinatu zuen hizkuntza-politikaren ikur eta erronka, eta beste horrenbeste, eraginkortasuna eskatu zien euskara hutsezko hedabideei.

Gauzak horrela, baieztatu daiteke Eusko Jaurlaritzaren eta euskara hutsezko hedabideen arteko harremana elkar elikatuz baina bat etorri ezinda gauzatu dela laurogeiko hamarkadatik, lehen laguntza deialdiaren agindua kaleratu zenetik hona. Elkar elikatuz jakin badakitelako elkarren beharra dutela; Jaurlaritzak euskarazko hedabideak behar ditu hizkuntza biziberritzeko zereginean ekarpena egin dezaketen tresna, baliabide moduan; eta hedabideek Jaurlaritzaren beharra dute urteroko gastu-aurrekontuan izan dezaketen zuloa estaltzeko eta jasotako laguntzarekin, ahal den neurrian, lan-baldintzak eta eskaintza hobetzeko.

Hala ere, hedabideen eta administrazioaren arteko harremana ez da inoiz konfiantza osoko giroan garatu, eta hausturarik gertatu ez den arren, tentsio handiko uneak izan dira. Ikuspegiak trukatu dituzte, baina ez da horiek adostu eta partekatzeko dinamika jarraiturik izan. Elkarri zuzendutako eskaerekin ere beste horrenbeste gertatu da. Gehienetan, mahai batean eserita egin beharrean, hedabideen bidez kaleratu dira; eta gainontzean, bakoitzak bere aldetik jarduteari ekin dio. Jaurlaritzak diru-laguntza deialdiak kudeatu ditu urtero; horretarako diru-baliabideak, epeak, eskatzaileek bete

beharreko baldintzak eta balorazio-irizpideak ezarriz. Hedabideek, deialdian ezarritako baldintzak bete ezker, urtero izan dira diru publikoaren onuradun. Hedabideek dagokien eskubide moduan aldarrikatu dute laguntza publikoak jasotzea, horiek euren jarduera gauzatzeko ezinbesteko baliabide eta helduleku direla aitortuta.

Jarduteko dinamika horretan, batzuen eta besteen arteko harremana zaildu duen faktore bat nabarmendu behar da: 2012ra arte, euskarazko hedabideen sektoreak, bere osotasunean kontsideratuta, ez du eskariak administrazioaren aurrean ahots bateratuz aurkezteko egiturarik izan; hots, sektoreak ez du izan ordezkaritza eta erreferente zeregina bete duen egiturarik. Egoera horrek euskara hutsezko hedabideak bakoitzak bere aldetik jokatzera, jardutera eraman du, eta inoiz elkarren artean norgehiagokan aritzera eta lehiatzera ere bai.

Arestian adierazitako guztiaren ondorioz, "Hedabideak" diru-laguntza deialdian parte hartu duten bi aktore nagusien arteko harremana esparru ekonomikora mugatu dela esan daiteke. Eusko Jaurlaritza, diru-laguntzen sustatzaile, kudeatzaile eta emaile rolean aritu da nagusiki, eta hedabideen sektorea, diru-laguntzen eskatzaile eta hartzailearen. Biek helburu eta interes komuna izan dute: euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzea, zertarako? euskarazkoen eskaintza zabaltzeko eta gizarte-eraginkortasunean irabazteko, zertarako? hizkuntzaren biziberritze-prozesuan laguntzeko. Baina ez da interes eta helburu hori gauzatzeko diru-emaile diru-hartzaile logika hutsa gainditu duen lankidetzarik izan, ez da batzuen eta besteen ahalmenaren eta kemenaren uztardurarik izan. Hau da, ez da diru-laguntzen esleipen-jasotze funtzionamendu soila gainditu eta harago doan estrategiarik mamitu eta garatu. Baina ez hori bakarrik, kudeatzaile-emaile/ eskatzaile-jasotzaile logika jarraituz gauzatu den harremana izateaz gain, testuinguru ekonomikoak, EAEkoak zein mundu zabalekoak baldintzatu du sarri batzuen eta besteen artekoak izan duen tenperatura. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanaren gorabeheretan protagonista izan den gai bat baldin bada, ezarritako baliabide ekonomikoak dira, eta bien artekoa gaiztotu den sasietan, ia guztietan, laguntzetara bideratutako diru-poltsa izan da tartean. Baieztapena laurogeiko hamarkadatik

aplikatu daiteke⁸³¹, eta, zer esanik ez, lan honek aztertu duen 2005-2013 epealdian. Esandakoaren lekuko denbora-tarte horretan mugarriztat jo daitezkeen gertaeren errepeaso laburra:

1.- 2004ko urtearen hondarretan egin zen Euskarazko Kazetaritzaren lehen Kongresuan baieztatu zen diru-laguntza politika definitu gabea izatea zela, besteak beste, sektorearen ahulezietariko bat (egoera soziolinguistikoa, merkatu txikia eta lan-baldintza makurrekin batera) eta “erakunde publikoen diru-laguntza bidezko, arautu eta garbi bat” eskatu zuten (Askoren artean, 2005: 447).

2.- EAJ, EA eta Ezker Batua-Berdeak alderdien arteko gobernu hirukoitzak 2005eko maiatzean ekin zion zortzigarren legegintzaldiari. Urte hartako diru-laguntza deialdia ekainaren 3an kaleratu zen, baina ez zuen diru-partida oparoagorik ekarri euskarazko eguneroko prentsa eta aldizkarietzat. Egoera ikusita sektoreak urrian egindako agerraldi baten bidez adierazi zuen protesta eta ezinegona. Bertan, hedabide inprimatuentzat milioi bat euro gehiago jartzeko eta laguntzen esleipenak lehenago egiteko eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari.

3.- Administrazioaren aldetik, berriz, beti esan izan da euskarazko hedabidegintzari zuzenduriko diru-laguntzak ez direla eskasak. Honelaxe zioen 2006an Patxi Baztarrikak: “Gizarteak jakin behar du hemen ez dagoela hedabide bakar bat ere diru laguntza publiko garrantzitsu bat ez duena” (Berria, 2006-06-07: 14).

4.- 2007ko deialdiak partida oparagoa ezarri zuen euskarazko inprimatuentzat (2005ean baino 626.500 euro gehiago), ondorioz multzo horretako hedabide guztiek jaso zuten aurreko urtean baino diru gehiago, eta horrekin batera barealdia izan zen batzuen eta besteen arteko harremanetan.

⁸³¹ .- Zenbait adibide jartzearen, 1982an Luis Alberto Aranberri, “Amatiño” Kultura Saileko zuzendari zenean adierazitakoak, 1986an *Hemen* eta *Eguna* astegunkarien sorreraren inguruan gertatutakoak, 1987an idatzizko hamar hedabidek sinatutako agiria, 1989an hamar aldizkarik sinaturiko agiria, 1990ean Joseba Arregi orduko Kultura sailburuak Legebiltzarrean esandakoak, *Euskaldunon Egunkaria* sortu zenetik 1994ra bitartean Jaurlaritzarekin izandako ika-mikak, 1996ko Prentsa Jardunaldien ondorioetan plazaratutakoa, 1997an 44 aldizkarik eta *Euskaldunon Egunkariak* sinatu zuten agiria... Xehetasun gehiago informazio-iturri ez zuzenen analisiari dagokion kapituluari aurkitu daiteke.

5.- 2008ko deialdia aurrekoaren kopia hutsa izan zen, eta giroa ere berdintsua. Bestetik, urte hartan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko hedabideen sektorea bertatik bertara ezagutzen zuten 17 adituren hausnarketak kaleratu zituen *Euskara hedabideetan* izenburuko lanean, eta bertan adierazi zuten laguntzak emaitzekin lotu beharko liratekeela, administrazioak emaitzak neurtzeko gailu estandarrak eta adierazleak martxan jarri beharko lituzkeela eta, azkenik, laguntza kontzeptutik inbertsio kontzepturako jauzia egin eta diru-laguntza hutsetatik haragoko estrategiak bultzatu beharko liratekeela.

6.- Ekarpen horiek guztiak jaso arren, ez dute isla izango ondoko urteetako deialdien edukietan. Bitartean, sektore ekonomiko guztietan eragiten hasi zen krisi ekonomikoak hedabideak ere astindu zituen, eta ondorioz, erabaki gogorrek hartu behar izan zituzten: murrizketak gastu-aurrekontuetan, murrizketak kaleratutako orrialde-kopuruetan, gehigarriak inprimatzeari utzi, soldatak izoztu... Hala ere, 2009an Eusko Jaurlaritzak inoizko diru-kopururik handiena ezarri zuen euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko: 5.725.000 euro guztira. Baina ez zen diru gehiago izan inprimatuentzat, ezta irrati, telebista edo Internet bidezko hedabideentzat. Hazkundera lehen aldiz laguntza eskatu zezaketen nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaltzeko erreferentzia-orrialdeentzat ezarritako diruari zor zitzaion.

7.- 2010eko deialdia sozialistek kudeatu zuten, baina ez zen inolako aldaketarik egin edukietan, ez prozeduran, ezta ezarritako diru-partidetan ere. Sektorearekin izandako harremana lasaia izan zen, hedabideek eskertu egin zuten diru-baliabideei eusteko egindako ahalegina. 2011 urteari begira sostengu eta babes ekonomiko handiagoa behar zutela aldarrikatu zuten 60 hedabidek sinatutako *Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua* izenburua zeraman editorial bateratuan.

8.- Aldarrikapenak aldarrikapen, 2011ko deialdiak ez zien albiste onik ekarri euskara hutsezkoari. Ezarritako diru-partida aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zen, murrizketak telebistei eta, bereziki, irratiari eragin zien; ez hedabide inprimatuei. Egoera horrela, sektoreak mezu bateratua igorri zion laguntzen nondik norakoan

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

ardura zuten politikari sozialistei: aurrekontuak ahalik eta gehien egokitu eta diru-sailak handitzeko eskaria, hain zuzen.

9.- 2012an garai latzak bizi zituzten euskarazkoek, eta eskaera egin arren diru-laguntza deialdiak murrizketa gehiago ekarri zituen, kasu honetan baita hedabide inprimatuen multzoko egunerokoentzat zein aldizkakoentzat ere. Horietara bideratutako diru-kopurua 2006ko deialdian ezarritakoa baino txikiagoa izan zen. Hori baino gehiago, Jaurlaritzatik beste era batera antolatzeko eskatu zion sektoreari; Lurdes Auzmendi sailburuordeak “Beharrezkoa al da Gipuzkoan 27 herri aldizkari eustea?” galdetzen zuen eta erantzuna ere eman zuen: “Ez da nahitaezkoa. Kalitatezko medioak behar ditugu, eta behar dugu euskararen presentzia indartsu bat medio guztietan, baina horretarako ez da nahitaezkoa dugun guztia” (Berria, 2012-02-25: 12). Sektorearen erreakzioa berehalakoa izan zen. Agerraldi publiko batean adierazi zuten lanean ari zirela, lan-baldintzak hobetzeko, kalitatean eta lehiakortasunean urratsak egiteko, eta elkarlana sustatzeko. Horrekin batera, ez bakarrik Jaurlaritzari, EAeko gainontzeko erakunde publikoei laguntzak hitzarmen bidez jasotzeko eta gogoeta estrategiko konpartitua egiteko eskaera luzatu zieten.

10.- Azkenik, 2013ko deialdia Jaurlaritzak berreskuratu zuen EAJk kudeatu zuen. Gobernu berria oraindik osatu gabe zegoela, euskarazkoen sektoreak Hekimen, Euskal Hedabideen Elkarteak aurkeztu zuen, eta Eusko Jaurlaritzarekin diru-laguntzez, publizitate instituzionalaz eta mintzakidetzara iraunkorraz hitz egiteko borondatea agertu zuen. Bitartean, hedabide bakoitzaren etxeko jardunak 2012an joandako bide beretik jarraitzen zuten; hau da, krisiak astinduta, batzuek kaleratzeari utzi zioten (*Nora* hilabetekaria adibidez), beste batzuek maiztasunari eutsi ezinik (*Irutxuloko Hitza* eta *Oarso Bidasoko Hitza*, esaterako), beste batzuek lan-etenak egin beharrean (*Aiurri* aldizkaria) edo gastu-aurrekontua estali ezinik. Dena, ordea, ez zen gazi izan, gozotik ere egon zelako: *Tolosaldeko Ataria* eta *Aiaraldea press* proiektu komunikatibo berriak jarri ziren martxan. Bestalde, 2013ko “Hedabideak” deialdiak ez zuen aldaketa nabarmenik ekarri; zehaztutako baliabideei dagokienez, 2012koaren kopia hutsa izan zen. Sektoreak begi onez ikusi zuen diru-partidari eutsi izana, baina berriz ere, urteroko deialdi-sistema gaingaitu eta itun-sistema batera jauzi egin beharra zegoela berretsi eta

aldarrikatu zuen. Hori baino gehiago, 2013ko azaroan, tokiko euskal hedabideen ahotsa den TOKIKOMek *Euskal hedabideen etxea* izenburuko gogoeta-txosten sakona aurkeztu zuen, eta bertan sektorearen eta erakunde publikoen arteko harreman-eredu berria proposatu zuen, konfiantza giroan eta lankidetzan oinarritua.

Arestian bildutako guztiak ikerketak planteatu duen beste hipotesi bati heltzeko atea zabaltzen du, ondokoa alegia:

H11.- Hamaikagarren hipotesiak "Hedabideak" diru-laguntza deialdian inplikaturik dauden bi aktore nagusien arteko harremanari begiratzen dio. Honela aurkeztuko litzateke: 2005-2013 bitartean euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta urteroko diru-laguntza deialdia kudeatu duen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arteko erlazioa diru-emaile//diru-hartzaile dinamika bidez gauzatu da denboran zehar. Egoera horretan, Jaurlaritzak jarritako diru-partidaren tamainak baldintzatu du harremanaren tenperatura; hau da, diru-partidarik oparoenak izan diren urteetan bien artekoa lasaitasun-giroan garatu da, baina krisi ekonomikoak eraginda hedabideentzako baliabide ekonomikoak murriztu direnean harremana mikaztu egin da.

Atal honetan orain arte aurkeztutako informazioaren arabera esan daiteke hipotesia egiaztatu egiten dela. Euskarazko hedabide inprimatuek aldiro-aldiro Jaurlaritzari zuzendu dioten eskaera-zerrendan, beti izan da diru-poltsaren tamainari loturikoa. Ez da eskaera bakarra izan, baina beti egon da presente; bereziki urte batetik besterako deialdietan diru-baliabideen hazkunderik izan ez denean edo krisiaren eraginez murrizketak iritsi direnean. Hortaz, ekonomiari lotutako gorabeherak, izan munduko ekonomiaren egoerak, izan EAEko aurrekontuenak, izan laguntza eskatu duen hedabide inprimatu bakoitzarenak, eragina izan dute batzuen eta besteen artean garatu den harremanean.

Faktore ekonomikoekin batera, pentsa zitekeen testuinguru politikoak ere baldintzatu zezakeela harremana. Eta ikerketak aztergaitzat hartu duen 2005-2013 bitartean, lanean zehar sarritan nabarmendu den aldaketa esanguratsua izan zen EAEko testuinguru politikoan: Autonomia Estatutua onartu zenetik lehen aldiz Euskadiko kudeaketa EAJren gidaritzapean izateari utzi eta sozialistek eskuratu zuten Eusko Jaurlaritza (Alderdi Popularraren babesari esker). Dena den, informazio-iturri ez zuzenetan ikusi eta irakurritakotik ondoriozta daiteke gobernu-aldaketak ez zuela

aparteko eraginik izan kudeatzaile berrien eta euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorearen arteko harremanean. Besteak beste, sozialistek ez zutelako apenas ezer berri deialdiaren prozeduran eta edukietan.

Informazio-iturri ez zuzenak baliatuz bildu den materialarekin Eusko Jaurlaritzaren eta euskarazko hedabideen arteko harremanaren argazki orokorra egin da. Elkarrizketa sakonekin eta Delphi bidez hartutako idatzizko hausnarketekin berriz argazki hori osatu eta aberastu egin da. Eta ondoren azalduko diren ñabardurak ere identifikatu dira. Esan daiteke informazio-iturri ez zuzenekin argazkiaren trazu nagusiak marraztu direla, eta elkarrizketa eta Delphi ekarpenekin argazkira hurbildu eta pintzelada fin bakoitzaren, argazkiari distira ematen dioten banakako argi-tanta bakoitzaren esanahia jaso da.

Elkarrizketa-saioetan garandutako diskurtsoetan adostasuna eta elkarlana lantzeko beharra agertu da behin eta berriro. Hedabide inprimatuen sektorearen zein laguntzak kudeatu dituen administrazioaren ordezkari erreferentzialek azpimarratu duten ideia-gakoa da. Eta adostasuna, elkarlana gauzatzeko erakunde publikoekin (Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak) dituzten harremanak hobetzea aipatzen du sektoreak etorkizunera begirako ezinbesteko erronka gisa. Hiru hamarkadetan gauzatu den harreman-estiloa baztertu edo gainditu beharra dagoela plazaratu dute batzuek eta besteek. Euskara hutsezkoen sektoreko ordezkari batek oso modu grafikoan azaltzen du nolakoa izan den, bere ustez, harremana: “Gu hola ibili gara, sektorea pankarta baten eta administraziñoa bulego baten; eta ez da modua, ez da modua” (E2) Horren ordeztu, elkarlan eraginkorra sustatuko lukeen harreman-markoa ezartzeko beharra azpimarratu dute, orain ere batzuek eta besteek. Jaurlaritzako ordezkari batek esandakoa da:

“(…) mahai bereko kide izpirituarekin, nahiz eta bakoitzaren funtzioak eta egitekoak diferenteak izan baina mahai berean, hori nola metatuz ikusiz ez? O sea, elkarlanerako ere beste modu berri batzuk aurkituz eta konfiantzan hitz eginez, hori guretzako klabea da, klabe klabea da”.(E11)

Konfiantza aipatzen da arestian eskainitako pasarte horretan. Eta konfiantzaz, edo hobe esateko, mesfidantzaz aritu dira euskarazko inprimatuen sektoretik. Aztertutako informazio-iturri ez zuzenetan ikusi bezala, elkarrizketa sakonetan ere sektorearekiko mesfidantza izatea leporatu zaio Eusko Jaurlaritzari. Sektorea “aurrejuzgu ideologiko-editorial batzuekin” tratatu duela edota hedabideak “pixka bat arerio moduan ikusi dituela (...) beti egurra ematen duen sektore bat bezala”. Egoera horren abiapuntua, esplizituki adierazten ez bada ere, euskarazko egunkaria kaleratzeko prozesuan izan ziren gorabeheretan kokatu daiteke⁸³². Landutako informazio-iturri ez zuzenen errebaso kronologikoak erakusten du orduan Jaurlaritzatik eta herri-ekimenetik hauspotutako egitasmoen artean piztu zen tentsioak eta norgehiagokak urte luzez iraun duela, eta esan daiteke oraindik ere pisua duela batzuen eta besteen arteko harremanean; bereziki administrazioaren eta eguneroko prentsaren artekoan. Gauzak horrela, euskarazko inprimatuek gaineratzen dute egoera horrek ez diola mesederik egin elkarrekin gauzatu beharko litzatekeen gogoeta partekatuari eta lankidetzara efektiboari.

Ikuspegi orokor horri, hala ere, ñabardura egin diote Delphian parte hartu duten zenbait hedabide inprimatuek. Idatzizko ekarpenetan irakurritakoaren arabera, badelako Eusko Jaurlaritzak hedabide bakoitzarekiko eta sektorearekiko izan duen jarrera goraiatzen duenik ere. Horien arabera, batzuen eta besteen arteko harremana elkarrekiko leialtasunean eta konfiantzan oinarritu da. Adierazitakoaren lekuko dira estilo honetako baieztapenak: “Beti izan ditugu ateak zabalik”, “Gure aldetik ezin ezertaz kexatu” edo euskarazko hedabidegintzan ia hiru harmakada bete dituen ordezkari batek dioena: “Azken urteotan batez ere, HPSk sektorearekin orokorrean duen harremana inoizko emankorra dela iruditzen zait”. Gainera, era horretako iritzi positiboak edozein multzoko hedabide inprimatuetatik datoz, halakoak aurkitu

⁸³².- Lehenago ere izan ziren euskarazko argitalpen inprimatuen eta Jaurlaritzaren arteko gorabeherak. Horien errebasoa egin da ikerlanaren 5.3. atalean. Esaterako, 1986ko udan, Eusko Jaurlaritzak astebururo euskarazko egunkari bat argitaratu nahi zuten enpresei zuzendutako deialdia kaleratu zuenean. *Argia* aldizkariaren egitasmoa kanpoan utzi zuen, eta erabakia gogor kritikatu zuen *Argiak*. 1987ko maiatzean, berriz, hainbat argitalpenek agiri bateratua sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezkoak lehenetsi eta idatzizkoak bigarren maila batean uzten zituela salatzeke. Dena den, egoera nabarmen mikaztu zen euskarazko egunerokoa sortzeko bi egitasmo nor baino nor aritu zirenean; bata gizarte-ekimenetik sustatu eta babestutakoa eta bestea Jaurlaritzatik.

daitezke egunerokoen, informazio orokorreko eta espezializatuko aldizkarien eta tokikoen artean.

Baina zenbaitek egindako laudorioak laudorio, gehienek “txarra” kalifikatiboa erabiliz deskribatzen dute euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta Eusko Jaurlaritzaren artekoa. Horientzat harremanak hainbat aje izan ditu: ez da berdinen artekoa izan, nagusi/menpeko logika gailendu da, sektorearen iritziak ez dira kontuan hartu, ez da adostasunerako ahaleginik egin, eta mesfidantzak eta alderdikeriek, interes partidistek elikatu dute. Mesfidantzari bi norabideko gezia jarri diote ekarpenegileek; hots, administrazioak sektorearekiko eta sektoreak administrazioarekiko mesfidantza izan dela diote. Sektoreak harremana nola bizi izan duen adierazteko balio dute idatzizko ekarpenetatik ekarritako ondoko bi esaldiak: “Elkarlanean beharrean katua eta sagua bezala ibili garela iruditzen zait” dio batek, eta besteak, berriz, “estutu baina ito gabe”.

Balorazio negatiboari lupa jarrita, nabarmendu beharra dago eguneroko prentsak eta informazio orokorreko eta espezializatutako aldizkariak agertu dutela Jaurlaritzarekin izandako harremanei buruzko ikuspegi kritikoena. Tokian tokiko argitalpenen kasuan ez da apenas baloraziorik egin, eta jarrera erraz ulertu daitezke kontuan hartzen bada tokikoek diotela beraiek ez dutela harreman zuzenik Jaurlaritzarekin, euren ahotsa TOKIKOM eta Hekimen elkarten bidez iristen delako administrazioa. Tokikoak udal-erakundeekin duten harremanaz mintzatu dira Delphian, herritarrengandik gertuen dagoen erakunde publikotik ere jasotzen dituztelako diru-laguntzak. Tokikoen esanetan, udal-erakundeekin duten harremana hurbila, aurrez aurrekoa eta edukiz betea da.

Bestalde, denek onartzen dute TOKIKOM eta Hekimen bezalako elkarten sorkuntza mesedegarria izan dela euskarazko hedabideentzat. Onura hiru arlotan nabaritu dute: batetik, sektoreko kide diren hedabideen arteko harremana sendotzeko balio izan dute; bigarrenik, krisiari aurre egiteko ezinbestekotzat jo dituzten sinergien sustatzaile izan direlako, eta azkenik, Eusko Jaurlaritzaren zein beste erakunde

publikoen aurrean ahots bateratuz ekiteko. Hala ere, tokikoen multzoko hedabideengandik jasotako ekarpenetan agerikoa da horiek atxikimendu handiagoa diotela TOKIKOMi Hekimeni baino. Udal, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren euskara hutsezko informazio orokorreko hedabide inprimatuek aho batez gorai patzen dute TOKIKOMek bi arlotan egindako lana: eraginkortasuna eta Eusko Jaurlaritzarekin solaskidetza zuzena izateko aukera. Hekimen elkartearen inguruan, berriz, bada kezka bat edo beste planteatzen duen tokiko hedabiderik. Horien ustez, tokiko hedabide txikiak handien interesen konpartsa bilakatu daitezke Hekimenen, nolabait esateko txikiak urtu egin daitezke handien itsasoan, independentzia galdu dezakete eta horrekin batera diote gerta daitekeela ezaugarriei erreparatuta oso desberdinak diren hedabideen arteko desorekak sortzea.

Behin euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanaren bilakaera ikuspegi kronologiko batetik aztertuta eta horretan eragin duten faktoreak eta inplikaturiko aktoreen diskurtsoetan ageri diren adostasun eta desadostasun-puntuak aurkeztuta, ikerketak landuko duen azken ondorioaren atariko gisa hartu daitekeen baieztapenarekin borobilduko da orain artekoa: euskara hutsezko hedabide inprimatuen ustez, etorkizunera begirako ezinbesteko erronka eta zeregina da Eusko Jaurlaritzarekin duten harremana hobetzea. Hiru hitzekin janzten dute nahiko luketen harreman-mota: indartsuagoa, iraunkorra eta eraginkorra. Eta eszenatoki horretara heltzeko errezeta hirukoitza ere mahaigaineratu dute, informazio- iturri ez zuzenetan, elkarrizketa sakonetan eta Delphi ekarpenetan behin eta berriz agertu diren hiru osagai, hain zuzen: lehena, alde bietako jarrera-aldaketaren bidez elkarrekiko mesfidantza gainditu, bigarren osagaia adostasuna da, aldebakarreko erabaki-dinamika gainditzeko eta sektorearen lana aitortzeko balio duen tresna gisa ulertuta, eta hirugarrena euskal komunikazio-esparruaren garapenerako eta hizkuntzaren normalizazioari begira eraginkorrago aritzeko ezinbestekoa den elkarlana.

6.12. ETORKIZUNERAKO ERRONKAK ETA ZEREGINAK: SARETUTA DAUDEN BI IKUSPEGI

Goldearen joan-etorria bertatik bertara ikusteko aukera izan dugunok, badakigu makina eta horri lotutako behi edo idi pareta gobernatzen zituenak noizbehinka geldialdia egin eta atzera begiratzen zuela; hots, dagoeneko goldatutako lurrari erreparatzen ziola. Horrelaxe zekien nondik zetorren, non zegoen eta norantz joango zen.

Irudi hori baliatuz esan daiteke ikerketa honetan hiru landa goldatu direla: lehenena, 2005-2013 epealdian Eusko Jaurlaritzak euskara hutsezko hedabide inprimatuak sendotu, garatu eta normalizatzeko eskaini zituen diru-laguntzen landa; bigarrena, laguntza horiek eskatu eta jaso zituzten hedabideen bilakaerarena; eta hirugarrena, prozesuan parte hartu duten bi aktore nagusien arteko harremanen landa. Orain, behin horiek goldatuta, begirada eta ahalegina aurrera zuzendu eta batzuek eta besteek etorkizunerako dituzten zeregin eta erronken landarantz joateko unea iritsi da. Lanak planteatu duen azken helburu zehatzari heltzeko unea, hain zuzen. Eta honelaxe formulatu da aipatu helburua: 2005-2013 bitartean, urteroko deialdien prozesuan parte hartu duten eragileek, sektorekoek zein administraziokoek, etorkizunari begira egindako ekarpenak eta izan daitezkeen aldaketa edota hobekuntza-proposamenak bildu eta aurkeztu.

Informazio-iturri ez zuzenak, elkarrizketa sakonak eta Delphi bidez jasotako ekarpenak izan dira berriz ere ezarritako xedea elikatu eta garatzeko lehengaiak. Horiek eman dutenaren aurkezpenari ekiteko ikerketa honen beste atal batzuetan dagoeneko aipatu den ideia nabarmendu beharra dago: euskarazko hedabide inprimatuek balioetsi egiten dute erakunde publikoetatik urteetan egindako ahalegina; esate baterako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindakoari erreparatuz, sektorearen ordezkari erreferentzial batek azpimarratzen du “ez dutela eskatu

konpromiso ideologikorik edo konpromiso politikorik” (E12) eta gaineratzen du “seguraski askotan beraien gogoz kontrako edo politikoki beraien ildokoak ez ziren produktuak sustatzen jarraitu dute eta bultzatzen”. Hala ere, aitorten horri segituan batzen zaio kritika, eskaini eta esleitutako diru-laguntzen tamainari lotzen zaion kritika, hain zuzen. Hedabide inprimatuek bi eratako argudioak ematen dituzte aipatu kritika janzteko. Batetik diote Jaurlaritzak egindako ekarpen ekonomikoa ez dela euskarazko hedabideek euskal komunitateari egindako ekarpenaren neurri berekoa, eta bestetik gaineratzen dute administrazioak kalitatezko produktuak ekoizteko eskatzen diela, baina esleitutako baliabide ekonomikoekin estutasunean lan egitera behartzen dituela. Horrekin batera, euskarazko prentsaren eta, oro har, hedabideen finantziazioan betidanik diru-iturri garrantzitsua izan den publizitate instituzionalaren arloan Jaurlaritzak izan duen jokabidea ere egurtzen dute. Euskarazko inprimatuen ustez, Eusko Jaurlaritzak gaztelaniazkoak eta euskarazko hedabide publikoak lehenetsi ditu eta herri-ekimenekoak edota ekimen pribatukoak baztertu egin ditu.

Adierazitakotik erraz ondoriozta daiteke zeintzuk diren euskara hutsezko hedabide inprimatuek Eusko Jaurlaritzari etorkizunera begira ezarriko dizkieten erronkak edo zereginak. Horien soinua ezaguna da, bi eragileen arteko harremanak landu dituen atalean dagoeneko agertu eta labur bada ere, aurreratu direlako. Izan ere, harremanei buruzko tartean, 2005-2013 bitartean hedabide inprimatuek plazaratu zituzten eskaerak eta aldarrikapenak administrazioari/ei egokitutako zeregin edo erronka gisa kontsideratu daitezke aldi berean.

Hiru dira 2005-2013 urteetan “Hedabideak” deialdiaren onuradun izan diren euskara hutsezko hedabideek Eusko Jaurlaritzari eta orokorrean erakunde publikoei aurrera begira egokitu dizkieten zereginak edota erronkak:

1.- Lehena, euskarazko hedabideentzako sostengu eta babes ekonomikoa handitzea, urteroko deialdietatik hitzarmen bidezko edo urte anitzeko diru-laguntzetara jauzi eginez eta publizitate instituzionalaren bidez. “Egungo limosnatik gora egin behar da”, “orain banatzen dena ez baita nahikoa”, “instituzio publikoek gaur egun egiten dutena baino inbertsio ekonomiko askoz handiagoa egin beharko lukete

euskarazko hedabideetan” eta antzeko adierazpenak bildu dira elkarrizketa sakonetan zein Delphi-ekarpenetan. Iritzia eman dutenen ustez, Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideak laguntzeko jartzen duen dirua ez da gastutzat hartu behar, inbertsioa dela diote; hori baino gehiago inbertsio errentagarria izan dela ziurtatu dute. Errentagarritasuna ez mozkin terminotan ulertuta baizik eta zehaztutako helburuari lotzen zaion emaitza moduan ulertuta. Hau da, Eusko Jaurlaritzak sarritan adierazi du “Hedabideak” deialdia hizkuntza-politika egikaritzeko funtsezko tresna dela; beraz, deialdiaren azken helburua euskararen biziberritzean eraginkorrak izan daitezkeen hedabideak ekonomikoki laguntzea litzateke eta baieztapen horri helduta inprimatuen sektoretik diote Jaurlaritzari errentagarria atera zaiola egin duen inbertsioa.

“Uste det oso inbertsio errentagarria izan dela, errentagarria izan da ze lagundu du bizirik mantentzen euskeraren normalizazioan ez dakit, baina euskararen presentzia sozialean gakoa izan den produktu sorta bat eta dinamika bat bizirik mantentzen lagundu du”. (E4)

Euskara hutsezko inprimatuen iritiz euskararen normalizazio erabatekoa erdiesten den bitartean, ezinbestekoa da euskarazko hedabideetara, ez soilik inprimatuetara, bideratutako baliabide ekonomiko publikoak handitzea, sektorea indartzeko, kalitatezko produktuak ekoiztu ahal izateko, lan-baldintzak hobetzeko eta erreferentzialtasunean irabazteko bidean jartzeko. Bestetik, hitzarmen bidezko diru-laguntzak sustatzeak edo urte anitzeko deialdiak kaleratzeak urteroko deialdietara aurkezteak dakartzan zeregin burokratikoak arintzeko eta epe luzeko egitasmoak martxan jartzeko aukera emango liekeela azpimarratu dute. Izan ere, sektoretik diote laguntza-deialdia urtero kaleratu eta ebatzteak ez diela aukerarik ematen euskara hutsezko hedabideei egonkortasunez eta ziurtasunez aritzeko, ezta epe luzerako inbertsioak eta plan estrategikoak burutzeko ere.

Bestalde, publizitate instituzionalari dagokionez, euskara hutsezko hedabide inprimatuen artean zabaldurik dagoen pertzepzioa da tratu diskriminatzailea jaso dutela Eusko Jaurlaritzatik, “hutsaren hurrengoa” jasotzen dutela diote. Hamaika adierazpen bildu dira gai honen inguruan, ondoko esaldian laburbildu daitezkeenak:

“Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak ematen dizkigunez ez digu dagokigun publizitatea bideratzen, eta garenak baino pobregoa eta ez-eraginkorragoak garelako itxura ematen digu”(D36). Egoera horren aurrean publizitate instituzionalak euskarazkoen autofinantziazio-maila hobetzeko eta publizitate-merkatuaren mapan ikusgarri egiteko izan lezakeen eragina nabarmendu eta euskarazkoetan gaztelaniazkoetan jartzen den neurri berean jarri beharko litzatekeela diote inprimatuek. Hori baino gehiago, bakanen batek gaia bideratzeko lege-bermeak eskatu ditu; hau da, publizitate instituzionala arautzeko legearen 10. artikuluan zehaztu dadila zein portzentaje bideratuko den euskarazko hedabideetara.

2.-Bigarrenik, euskarazko hedabideen izaera estrategikoaren aitortzea, errekonozimendua. Inprimatuek diote teorian, paperean eta hitzetan aitortza hori jasota dagoela, baina praktikara eramatea falta dela, eta gaineratzen dute praktikan jartzeak ezinbestean dakarrela sektoreak diru-laguntzen prozesuan jasotzaile hutsaren rola utzi eta eragile aktibo bilakatzea. Elkarrizketa sakonetan, adibidez, aipatu ideia honelaxe adierazi da:“Aitortu sektoreari bere egiteko eta aldi berean onartu sektoreari baldintza batzuk jartzeko autoridadea”(E1). Are gehiago, Delphi bidez landutako hausnarketaren batean ñabardura interesgarria egiten zaio gai honi; bertan diote sektoretik eskatzen duten aitortzea ez zaiola euskaraz jardun eta ekoizteari zor zaion kontua, baizik eta betetzen duten gizarte-funtzioari zor zaiona; azken batean, hizkuntza gutxitu baten biziberritze-prozesuan laguntzen duen tresna direlako eta komunitate horretako kideek informazioa euskaraz jasotzeko duten eskubidea gauzatzen dutelako.

3.- Azkenik, elkarrekiko konfiantzan oinarritutako lankidetzak eta harremana garatzea da Eusko Jaurlaritzari eta, oro har, erakunde publikoei euskarazko hedabide inprimatuen sektoreak ezartzen dion hirugarren zeregina edota erronka. Mesfidantza gainditzeko beharraz ari dira behin eta berriro, giro horrek kalte handiak eragin dituela eta sektorearen eta Jaurlaritzaren arteko elkarlana zaildu egiten duela nabarmendu dute. Horregatik, “katua eta saguaren jolasari utzi” beharko lioketela eta biak ala biak proiektu bera direla ulertuz ekin behar diotela zereginari baieztatzen dute euskarazko inprimatuek.

Hiru horiek dira, zalantzarik gabe, informazio-iturri ez zuzenetan, elkarrizketa sakonetan zein Delphi bidezko hausnarketetan euskara hutsezko hedabide inprimatuek Eusko Jaurlaritzari etorkizunerako ezartzen dizkioten erronkak edota zereginak. Baina, horiez gain, Delphiak aukera eman du beste batzuk identifikatzeko. Ezin da esan gehiengoak plazaratutakoak direnik, baina garrantzitsua da horietan ere arreta jartzea. Beste sei zeregin edota erronka dira:

- Garai berrietara egokitzeko trantsizio-prozesuan lagundu. Aurrerago ikusiko den bezala, euskara hutsezko hedabide inprimatuek sektorerara begira aipatzen dituzten zereginen artean garai berrietara egokitzeak leku garrantzitsua du, eta hala egiteko aurpegi bikoitza duen eginkizuna egozten diote Eusko Jaurlaritzari; batetik, baliabideak jartzea euskarazkoek inbertsioak eta berrikuntza sustatu ditzaten, eta bestetik, inprimatuen esparruan izan daitezkeen esperientzia aurreratuei buruzko informazioa helaraztea.

- Sektorearen mapa osatu eta harremanetarako gunea/k sortu. Hau da, euskal gizartearen behar komunikatiboen identifikaziotik abiatuta, euskara hutsezko hedabide inprimatuen eskaintza zein izan beharko litzatekeen zehazteaz, definitzeaz ari dira. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzak euskal esparru komunikatiboa osatzen duten hedabideen arteko harremanak bultzatu beharko lituzkeela diote askok, betiere eraginkortasunaren mesedetan. Zeregin hau ez zaio bakarrik Jaurlaritzari egokitzen, euskarazko inprimatuek euren buruari ezartzen dioten zerrendan ere agertuko delako.

- Euskarazko hedabide inprimatuek egiten duten lana bertatik bertara eta sakon ezagutu. Sektoreko kideentzat ezinbesteko baldintza da Eusko Jaurlaritzak sektoreari eragingo dion edozein erabaki hartzeko. Sektorearen ezagutza, mapa osatzeko lagungarri delako eta, aldi berean, eraginkorrenak diren hedabideak identifikatu eta horiek hobesteko balio dezakeelako.

- Gune erdaldunetan ari diren euskarazko hedabideen, proiektu berritzaileen eta bateratze-prozesuen aldeko apustua egin. Zeregin edo erronka honen oinarrian dagoen argudio nagusia da hizkuntzaren normalizazioari begira egin dezaketen ekarpena, ekarri dezaketen onura.

- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen sustapena. Sektoreak halakoak egiteko baliabiderik ez duela eta, ondorioz, eskaintzaren erakuslehoan ikusezina bilakatzen dela adierazten dute. Kasu honetan ere, aurrerago ikusiko da, euskarazko inprimatuek euren gain hartzen dute hartzaile gehiagorengana iristeko lana, baina hori errazteko ezinbestekotzat jotzen dute erakunde publikoek, horien artean Eusko Jaurlaritzak, sustapen-kanpainak antolatzea.

- Ekonomiaren beste sektore batzuetarako dauden laguntza publikoak izateko atea zabaldu euskarazko hedabideei. Sektoretik azpimarratu egiten dute ekonomian eragiten duten enpresak direla, aberastasuna eta lanpostuak sortzen dituztela eta ondorioz, euskarazko hedabide inprimatuek ere beste enpresa batzuk berrikuntzarako edo beste era bateko laguntzak eskuratzeko duten aukera izan beharko luketela. Jaurlaritzari egokitzen zaion erronka edota zeregin hau guztiz lotuta legoke lehen nabarmendu den beste batekin, euskarazko hedabideen izaera estrategikoaren aitorpenarekin, errekonozimendurekin, hain zuzen.

Etxe barrura begira ezarritako erronka edota zereginei dagokienez, berriz, 2005-2013 bitartean “Hedabideak” deialdiaren onuradun izan diren euskara hutsezko inprimatuek zerrenda oparoa osatu dute. Sektorearen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanaren nondik norakoak arakatu eta azaltzeko erabili diren informazio-iturri ez zuzenetan, esaterako, aipatzen da inprimatuek ahaleginak egiten dituztela lan-baldintzak hobetzeko, ekoiztutako produktuen kalitatea bermatzeko eta lehiakortasunean urratsak egiteko, multimedia estrategiak garatzeko, belaunaldi-erreleboa ziurtatzeko, teknologia berrietara egokitzeke, baliabideak optimizatzeko eta beraien arteko elkarlan-dinamikak, sinergiak sustatzeko. Ahalegin horiek guztiak sektoreak aurrera begira dituen erronka edo zeregin gisa ere har daitezke, eta askoz garatuago, osatuago agertu dira elkarrizketa sakonetan eta Delphi bidez jasotako ekarpenetan.

Esan bezala, zerrenda oparoa eraiki dute, eta ondoko lerrootan agerian geratuko den bezala, ez da bereizketarik egiten sektorean bilduta dauden ezaugarri ezberdineko hedabideen arabera; hau da, ezin da zereginen edo erronken banakatzerik egin eguneroko prentsaren, informazio orokorreko eta informazio espezializatuko aldizkarien eta tokikoen arabera. Ñabarduraren bat salbuetsita, zeregin edota erronka berberak ezartzen zaizkie denei.

Sektorearen ordezkari erreferentzialekin burututako elkarrizketa sakonetan eta Delphi bidez jasotako ekarpenetan, hamaika zeregin edota erronka azaleratu ziren. Logikoa denez, aniztasuna handiagoa izan zen Delphian, bakoitzak bere etxeko egoeratik abiatuta egin zuelako hausnarketa. Dena den, ondorioen atal honetan horiek denak sei kategoria edo multzotara ekarri dira:

1.- Bakoitzak bere aldetik ekiteari utzi eta euskara hutsezko hedabide inprimatuen arteko elkarlana sustatu, gauzatu eta edukiz hornitu. Sektoreko hedabideen arteko sarea josi behar dela diote. Esan daiteke ia erabateko adostasuna dagoela gai honen inguruan. Delphian, adibidez, askok aitortzen dute bakoitzak bere etxeari begiratzuz jardun duela urte askoan, bereziki tokikoen artean, norberaren egoera bakarrik kontuan hartuz, auzokoari erreparatu gabe, eta egoera horrek eragindako atomizazioak kalte egiten diola sektoreari bere osotasunean. Esandakoaren lekuko Delphian eskainitako ondoko baieztapena: “Indar eta aukera asko galtzen dira jada beste batek egindako lana errepikatuz, eskualde batean hamaika aldizkari zabalduz eta beste batean, berriz, bat ere ez” (D5). Hori baino gehiago, bada sektorea osatzen duten hedabideen arteko lehiakortasunaz eta errezeloez mintzo denik ere. Horiek baieztatzen dute ondokoa bidelagun gisa ikusi beharrean, sarritan “tarta puska handiagoa⁸³³ lortzeko lehiakide gisa” (D23) aritu direla; eta horrek sektorearen ahuleziak azaleratzen dituela gaineratzen dute.

⁸³³.- Diru-laguntzez ari da.

Iritziak iritzi, argi dago euskara hutsezko hedabide inprimatuek elkarlanean irudikatzen dutela etorkizuna. Sinergia beharraren eragile nagusienetarikoa krisi ekonomikoa izan dela aitortzen dute, horrek maila orokorrean zein hedabide bakoitzaren etxean ondorio latzak izan dituelako; baina era berean konbentzitura daude lankidetzak onurak ekarriko dizkiela bi mailatan: etxe barruko funtzionamenduan batetik, eta merkatuaren eta hartzaileen erantzunean bestetik. Apustua oso argia da Delphian parte hartu duten tokiko hedabideen aldetik. Horietako gehienak eskualdekako formula bultzatzearen alde agertu dira uste dutelako horrek mesede egingo liekeela ekoiztutako produktuari, lan-baldintzei zein kudeatutako baliabide ekonomikoei dagokienez. Eta tokikoekin batera, informazio espezializatua lantzen duten zenbait aldizkariko ordezkariak ere antzeko formulak arakatzearen alde agertu dira. Planteamendu hori bat dator goitik behera 2013 urtearen hondarretan tokiko euskal hedabideen elkarteak, TOKIKOMek aurkeztu zuen *Euskal hedabideen etxea* gogoeta-txostenaren edukiarekin. Honelaxe laburbiltzen zuen proposamenaren zioa: “baliabideak askozaz modu eraginkorragoan erabili daitezke eta erabili behar dira, hizkuntza komunitatearen mesedetan eta diru publikoaren etekin soziala areagotzea helburu” (TOKIKOM, 2013: 19). Gogoratu 2012-2022 hamarraldirako Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren nondik norakoak biltzen dituen Euskara Sustatzeko Ekintza Planean ere (ESEP) jarduera-eredua birplanteatzeko eskatzen zaiela hizkuntzaren normalizazioan estrategikotzat jotzen diren euskara hutsezko hedabideei: “euskarazko hedabideek elkarlana eta koordinazioa bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea etengabe hobetu eta produktu berriak eskaini behar dituzte” (ESEP, 2012: 39).

Bestalde, euskara hutsezko hedabideen arteko elkarlana sustatu behar dela diotenean, ez dute erronka hori euskarri bereko hedabideetara mugatzen ezta herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko hedabideetara ere. Tokikoak dira, zalantza barik, hedabide publikoekin (EITB taldea) bide hori urratzearen alde gehien egiten dutenak, uste dutelako batzuen eta besteen arteko elkarlanak presentzia, ikusgarritasuna irabaztearen mesedetan eragin dezakeela. Ez bakarrik teoriarik, apustu hori praktikara eramateko lehen urratsak ere ematen hasita zeuden elkarrizketa sakonak burutu

zirenean⁸³⁴. Hala ere, herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko eta publikoko euskara hutsezko hedabideen arteko elkarlanak ez du adostasun erabatekoa eragiten; inprimatuen artean badirelako zailtasunak planteatzen dituenik. Horien ustez, elkarlan eraginkorra lortzeko ezinbestekoa litzateke Eusko Jaurlaritzaren ikuspegi-aldaketa. Bi arrazoirekin janzten dute azaldutakoa; batetik, EITBra eta herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko euskarazko hedabideetara bideratzen den diru publikoan dagoen alde kuantitatiboa, eta bestetik diote herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko hedabideei emaitzak, eraginkortasuna eskatzen zaien bitartean, Jaurlaritzak ez diola neurri bera jartzen EITBri, are gutxiago ETB2ri. Galderak planteatuz defendatzen du adierazitakoa sektoreko ordezkari erreferentzial batek:

“Zein da bakoitzaren emaitza hizkuntza politikaren ikuspegitik e? zein da emaitza normalizazioari begira? Zein da ETB2ren balorazioa egin duen lan, lan ez bakarra eta ez handiena ere, egin duen azpimarragarrietako bat izan denean euskaldunak erderaz hizketan jarri telebista publiko batean, zein da horren balorazioa hizkuntza politikaren ikuspegitik?”(E12)

Eusko Jaurlaritzatik, berriz, uste dute planteamendu horrek lehian jartzen dituela hedabide publikoak eta herri-ekimenekoak edota pribatuak, eta hala egitea onartezina dela deritzote. Aldi berean, begi onez ikusten dute hedabide publikoei ere eraginkortasuna exijitzea, baina gaineratzen dute hala egiteak ezin duela eraman publikoa den zerbitzu baten zeregina eta existentzia bera zalantzan jartzera.

2.- Garai berrietara egokitu eta berritu. Euskara hutsezko hedabideen arteko elkarlana sustatzearekin batera, hauxe da, sektoreko kideek aurrera begira gehien aipatzen duten zeregina edota erronka. Ezinbestekotzat hartzen dute ez soilik

⁸³⁴ .- Elkarrizketa sakonak 2014ko uda aurretik burutu ziren. Urte hartako urrian EITBk eta euskarazko tokiko hedabideak biltzen dituen TOKIKOM elkarteak elkarlanerako akordioa sinatu zuten. Ordurako Euskadi irratiko *Mezularia* saioan astelehen arratsaldetan *Tokikom tertulia* entzun zitekeen eta telebistari dagokionez, urriaren lehen astetik TOKIKOMeko komunikabideetako kideak hasi ziren parte hartzen ETB1eko *Azpimarra* saioan. Akordioa sinatu zen egunean (urriak 3) Maite Iturbe EITBko zuzendari nagusiak adierazi zuen akordio horri esker EITBk ahots gehiago izateaz gain, hurbiltasuna zabaldu eta sendotu egingo zuela. Garai hartan TOKIKOMeko presidentea zen Urko Aristik gaineratu zuen tokiko hedabideek ezinbesteko laguntza eskaini diezaioketela EITBri eta txikiek egonkorrago egiteko bidean funtsezkoa dela handien babesa izatea. (Berria, 2014-10-04: 37). Horrekin batera, Euskara Sustatzeko Ekintza Planean ere hedabideen esparruko ekintza bezala dago jasota “euskal hedabideen sektore publiko eta pribatuaren arteko elkarlana sustatzea” (ESEP, 2012: 85).

hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideentzat, denentzat baizik. Edozein kasutan, gurean, euskara hutsezko hedabide inprimatuak ekoizten dituzten produktuak birpentsatzeaz ari dira, horiei gainbalioa emango dieten formulak arakatu eta aplikatzeaz. Eta derrigorrezko zeregintzat dute bi arrazoirengatik; batetik kontsumitzaile berrien errelebo-etzari aurre egiteko eta bestetik, herritarren komunikazio-beharrak asetzeko gai den tresna izaten jarraitzeko. Azken batean, irakurleak fidelizatzea eta, ahal den neurrian, berriak erakartzea xedetzat duen zeregina/erronka da. Beste hitz batzuetan esanda, garai berrietara egokitu eta berritu irismena handitzeko.

Zeregina eta helburua zehaztuta, horra heltzeko jorratu beharrekoak zehazten dituzte. Pluralean hitz egin beharra dago, hainbat adar dituen bidea delako:

- Berrikuntza teknologikoez baliatuz, euskarazkoen eskaintza kontsumo-bide eta ohitura berrietara egokitu; hots, sarean, euskarri digitaletan eduki erakargarriak kokatu. Eguneroko prentsak, informazio orokorreko eta informazio espezializatuko aldizkariak zein tokikoek lehenbailehen heldu beharreko zeregina/erronka dela baieztatzen da. Hala ere, tokikoen multzoko hedabideak dira kontu hau gehien aipatu eta nabarmentzen dutenak. Euren esanetan funtsezkoa da paperean lortutako erreferentzialtasun bera sarean ere erdiestea. Horrekin batera, euskarazko inprimatuen sektoreak paperezko euskarrian kaleratzen dituen edukiak birpentsatu behar dituela eta sarekoen osagarritasuna, sakontasuna eta kontsumitzailearen atxikimendua lortu dezakeen zerbait eskaintzen hasi beharko luketela diote. Delphian parte hartu zuen hedabide baten ordezkariak dioenez, “produzitzen dugun informazioaren `erabilera balioa’, hau da, informazioaren balio praktikoa edizio digitaletan hartuko dute”(D28) eta paperezkoen “kapital sinbolikoa” egokituko zaiela gaineratzen du : “(...), hau da publikoak paperezko prentsa hedabide horri dion atxikimendu erakusle gisa erabili duela” (D28).

- Merkatuan dauden hutsuneak identifikatu eta hartzailearen, kontsumitzailearen nahi, interes eta beharrekin ezkontzen diren kalitatezko produktu erakargarriak eskaini. Hitz batean adierazteko, euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntzaren

normalizazioan agente eraginkor moduan aritzeko balio dezakeen euskarazko produktuen eta kontsumitzaileen merkatua sortu. Delphitik hartutako ekarpen batetik bildutakoak dira ondoko hitzak: “Beste hizkuntza batzuetan sortutako prentsara ez dezatela jo beharrik izan irakurleek euren beharra edo interesak asetu ahal izateko. Horretan asmatu beharko genuke” (D17). Beraz, euskarazko hedabide inprimatuek hartzaileen apetak erdigunean jarri eta horietara egokitutako eskaintza landu eta osatzea izango lukete lehentasun. Eta bada aipatutakoa maila mikrora eraman duen hedabiderik ere; horien ustez, hartzaile bakoitzaren neurrira prestatutako eskaintza, %100ean pertsonalizatua den eskaintza zabaltzeko gai den ekosistema antolatu beharko luke euskara hutsezkoen sektoreak.

- Euskara hutsezko hedabide inprimatuetan ari diren langileen etengabeko prestakuntza, eta horien lan-baldintzak eta erreleboa ziurtatu. Burutzeko zaila den erronka/zeregina hedabide askoren gastu-aurrekontuak txikituz joan direnean, eta are gehiago, inprimatu askoren lanketa eta kaleratzea oraindik boluntarioen esku dagoenean.

3.- Euskarazko hedabide inprimatuak eraginkortu; hots, euskarazkoak kontsumitzen dituztenek osatzen duten nukleo gogorraren mugak gaintu eta ahalik eta hartzaile gehienengana heldu, nukleo gogorretik kanpo dauden periferiako kontsumitzaileak erakarri eta bereganatu. Zeregin edota erronka hau guztiz lotuta dago aurretik aurkeztu diren beste biek, soka bera osatzen duten hariak lirateke. Izan ere, euskarazkoen arteko elkarlanaren eta garai berrietara egokitzeko beharraren muinean dagoen xedea eraginkortasuna da. Horretan irabaztea. Eta eraginkortzeko, hedabide inprimatuek onartzen dute kalitatezko produktuak, erreferentzialak eskaini behar dituztela, eta segituan gaineratzen dute zereginean arrakasta izateko, ezinbestekoa dutela administrazioak/ek lurra ongarritzea, esku hartzea, bereziki sustapen-kanpainen bidez. Azpimarratu beharra dago sustapen-kanpaina horiek jasota daudela Eusko Jaurlaritzak eta EAEko Legebiltzarrak 2012-2022 epealdirako onartu zuten Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP); zehatzago esateko, hedabideen

ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzeko ekintzaren barruan kokatuta daude ondoko formularekin: “Euskarazko produktuen kontsumoa sustatzeko eta prestigiatzeko kanpainak antolatzea hedabideekin batera, emaitzak neurtuz” (ESEP, 2012: 86).

4.- Sektorearen egoerari buruzko gogoeta sakona eta partekatua burutu eta euskarazko hedabideen sektorea (ez bakarrik inprimatuena) ordenatu. Bi aurpegi dituen zeregina edota erronka litzateke. Gogoeta sakona eta partekatua aipatzen dutenean, diagnostikoa egiteko beharraz ari dira euskarazko inprimatuak; eta hausnarketa-prozesuan loratu daitezkeen ekarpenak partekatzeko zein horietan oinarrituta sortu daitezkeen proposamenak gorpuzteko behategi edo behatokia martxan jartzearen alde agertzen dira. Behategi horren kudeaketa konpartitua beharko litzatekeela izan diote; euskara hutsezko hedabideen sektorea, administrazioa/k, eta unibertsitatearen artean partekatua⁸³⁵. Gogoratu ESEPeke ere jasotzen zuela behatokiaren sorrera eta garapena (ESEP, 2012: 84).

Bestalde, sektorea ordenatzeaz ari direnean, euskarazkoen eskaintza identifikatu, zehaztu eta adosteaz ari dira. Elkarrizketetan adierazi zen moduan, ondoko bi galderei erantzuteaz ari dira: zenbat gara? eta zein eratako hedabideak behar ditugu euskaraz?. Hortaz, euskarazko hedabide inprimatuek onartzen dute zeregina bete gabe dagoela, eta hala izatea noren erantzukizuna den zehazteko orduan bi taldetan banatzen dira. Batzuen ustez, Eusko Jaurlaritza litzateke sektorea ordenatu gabe egotearen erantzulea, ez dituelako euskarazko hedabideak aberastasuna sortzen duen sektore ekonomikotzat kontsideratu, bakarrik kontsideratu dituelako ikuspegi kultural batetik, eta horrekin batera, mesfidantzaz hartu dituelako. Horiek adierazitakoak nolabaiteko isla du 2012-2022rako Euskara Sustatzeko Ekintza Planak aurreikusten duen ekintza zehatz batean. Izan ere, “euskarazko hedabideen enpresadimentsioa aintzat hartzea” (ESEP, 2012: 85) ageri da bertan burutu beharreko ekintza bezala, eta garrantzi handiko ekintzatzat ezarrita dago gainera. Sektorea ordenatu gabe izatearen erantzukizunarekin jarraituz, beste hedabide inprimatu batzuen iritzi, ordea, sektorea bera da egoeraren erantzulea, ez duelako inoiz sektore moduan

⁸³⁵.- Elkarrizketatu batek hiru eragile horiei laugarren bat gehitu zion: zentro teknologikoak.

funtzionatu. Batek dioen moduan “juntau izan gara bakarrik protesta konkretu batean pankarta baten atzean “(E1).

Edozein kasutan, euskarazkoen sektorea ordenatzeko zeregina nork burutu beharko lukeen zehazteko orduan ere, ez dago adostasunik. Batzuek sektorearen esku uzten duten bitartean, beste batzuen ustez sektoreak eta erakunde publikoek lankidetzan burutu beharrekoa litzateke. Eusko Jaurlaritzaren 2012-2022 hamarraldirako Euskara Sustatzeko Ekintza Planean ere ageri da, baina beste era batera formulatuta: “euskarazko hedabideen garapen estrategikoaren ildo nagusiak zehaztea” bezala planteatzen da (ESEP; 2012: 84) eta Eusko Jaurlaritzaren eta sektorearen arteko lankidetzeta eta adostasuna ezartzen ditu zereginerako bide-orri moduan.

5.- Komunikazioa, harremanak hobetu Eusko Jaurlaritzarekin eta gainontzeko erakunde publikoekin. Bi aldeetako ahalegina eskatzen duen zeregin edo erronka moduan plazaratzen da. Ezin bestela izan, prozesuan parte hartzen duen eragileetariko batek parte hartzen ez badu, ezinezkoa delako komunikazioa hobetzea. Eusko Jaurlaritzaren ESEPen ez da halakorik modu esplizituan aipatzen, baina agerikoa da plan horretan hedabideen esparrurako zehazten diren ekintza konkretu ia guztiak burutu ahal izateko, ezinbesteko baldintza dela Eusko Jaurlaritzaren eta euskara hutsezko hedabideen arteko harremana ona izatea.

6.- Euskara hutsezko hedabide inprimatuen diru-sarrera propioak handitu. Egoera ekonomikoari, hedabideen finantziarioari zuzen-zuzenean begiratzen dion erronka edota zeregina da eta ekarpena egin dutenak tokian tokiko multzoko hedabideak dira. Egiteke duten erronka dela baieztatzen dute, eta berau lortzeko bidean jartzeko, kontsumitzaileek euskarazko hedabideekiko duten atxikimendu emozionala babes-ekonomiko bihurtzeko formularekin asmatu beharra dagoela diote. Baieztapen horrekin agerian uzten dute sektoreak duen ahulezietariko bat: finantziarioaren ikuspegitik beregainak izateko duten zailtasuna eta, ondorioz, diru-laguntza publikoen beharra eta horiekiko dependentzia.

2005-2013 epealdian, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen onuradun izan diren euskara hutsezko hedabide inprimatuek deialdiaren sustatzaileari eta kudeatzaileari dagozkion erronkak edota zereginak zein etxe barrura begirakoak bildu eta lantzeaz gain, Eusko Jaurlaritzak gai berberaz duen ikuspegia ere bildu da ikerketan. Ondorioen atal honetan dagoeneko hainbat aldiz agertu den Euskara Sustatzeko Ekintza planean daude zehaztuta Eusko Jaurlaritzak hedabideen esparruan 2022ra bitarteko denbora-tartean gauzatu nahi eta behar dituenak. Ikerketaren aterpe teorikoan azaldu bezala, zazpi ekintza zehatz biltzen ditu ESEPeK hedabideen esparruan:

- Erakundeen artean euskarazko hedabideei zuzendutako laguntzen irizpideak adostu eta finkatzea. Hortaz, esplizituki ez bada ere, zeharka onartzen da diru-laguntzak eskaintzen dituzten herri-administrazioen artean, gai honi dagokionez, ez dela modu koordinatuan lan egin, baizik eta bakoitzak bere irizpideak sortuz eta aplikatuz.
- Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartu. 2005-2013 bitarteko “Hedabideak” deialdiak helburu gisa ezarri zituen “sendotu, garatu eta normalizatu” kontzeptuekin gertatu bezala, hemen ere ez da inon zehazten nola ulertu behar den euskarazko hedabideen garapen iraunkorra. Hala ere, hori lortzeko hamar azpi-ekintza zehazten ditu, hiru multzotara ekarri daitezkeenak: euskarazko hedabideen ildo estrategikoak finkatu eta horiek garatzeko politikak sustatu; bigarrenik, euskarazko hedabideen audientzia aztertzeke sistema bat eta euskarazko hedabideen behatokia sortu; eta hirugarrenik, hainbat azterketa, adibidez euskarazkoen hartzaile diren eta izan daitezkeen komunikazio-beharrak ezagutzeko, hizkuntza gutxituak dituzten beste lurralde batzuetako esperientziak ezagutzeko...
- Hedabide publikoek hizkuntzarekiko dituzten betekizunak zehazteko eta haien betetze-maila neurtzeko hausnarketa bideratu. Gogoan izan behar da herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoretik zenbaitetan kritikatu egin dela hedabide publikoetara, EITBra, bideratutako diru publikoaren tamaina. Kritika horren arabera, eskainitako babes ekonomikoa ez dator bat hedabide publikoek euskarari egiten dioten ekarpenarekin, hau da, ez dator bat hizkuntzaren normalizazioaren arloan erakutsitako eraginkortasunarekin.

- Euskarazko hedabideen garapen industrial eta teknologikoa bultzatu. Sektoretik egindako aldarrikapenei eta aldi berean ezarritako erronka edota zereginiei zuzen zuzenean lotuta dagoen ekintza litzateke. Bere barne hartzen ditu, besteak beste, euskarazko hedabideen enpresa-dimentsioa aintzat hartzea, prestakuntza orokorra eta espezifikoa eskaintzea, aplikazio teknologiko berrien garapenean laguntzea eta herritarren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzen duten komunikazio-proiektu globalak edo multimediak saritzea.
- Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatu. Aurrekoarekin gertatu bezala, Eusko Jaurlaritzak ESEPen jasota duen ekintza hau euskara hutsezko inprimatuek Delphi bidez egindako ekarpenetan agertu izan da. Zeregina gauzatzeko bide hirukoitza proposatzen da: euskarazkoen kontsumoa sustatzeko eta prestigioatzeko kanpainak antolatu, hedabideen eta gizartearen arteko lotura sustatu eta hedabideen arteko elkarlan-egitasmoak bultzatu.
- Erdal hedabideetan, publiko zein pribatuetan, euskarazko edukien presentzia areagotu. Nagusiki gaztelania darabilten egunkariek zenbait urtetan prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak eta erreferentzia-orrialdeak diruz laguntzeko ekimenak ez du sektorearen oniritzirik eta, gainera, euskarazkoek eszeptizismo handia agertu dute gaztelaniazkoetan euskarazko edukiak txertatzeak hizkuntza normalizazioan izan dezakeen eraginaren inguruan (ikusi 6.10. ondorioa). Baina ez da ahaztu behar zeregin edota erronka honen lehen aztarna ez dagoela ESEPen, baizik eta 1982ko Euskararen Legean (24. artikulua); beraz, duela mende laurden ezarritako helburua da, betetzear dagoena.
- Hedabideetako hizkuntzaren kalitatea bermatu eta zaintzeko neurriak hartu.

Agerikoa da arestian aurkeztu diren zazpi ekintzak gauzatu ahal izateko, ez dela nahikoa Eusko Jaurlaritzaren borondatea eta jarrera proaktiboa; hots, horrekin batera ezinbestekoa da sektoreko hedabideekin elkarlanean aritzea. Horregatik, ESEPe agente eragiletzat hartzen ditu hedabideak ekintza guztietarako, salbu hedabideei

zuzendutako laguntzen irizpideak herri-administrazioen artean adostu eta finkatzeko xedea duen ekintzarako. Kasu horretan herri-administrazioak lirateke eragile bakarrak.

2005-2013 denbora-tartean “Hedabideak” laguntza-deialdiaren ardura politikoa izan duten ordezkari erreferentzialekin egindako elkarrizketa sakonetan ez ziren ESEPen dauden zazpi ekintza horiei guztiei buruzko erreferentziak agertu, baina bai zenbaiti buruzkoak. Ordezkari politikoen esanetan, ikertu den epealdian euskarazkoen eskaintza bermatzea lehenetsi da Jaurlaritzatik, “horretan jarri dira indarrak, egon dadila kioskoan euskara presente” (E11) dio batek eta ideia borobiltzeko gaineratu du “aspektu kuantitatiboari eman zaio lehentasuna”. Etorkizunerako, berriz, administrazioko elkarrizketatuek azentua jarri dute sektoretik aspaldi egindako aldarrikapen batean: konfiantzatik eta harreman iraunkorretik edango lukeen gogoeta partekatuari ekitea. Bestetik, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eraginkortasuna eskatu diete euskara hutsezko hedabide inprimatuei, eta eskari hori hedabideak laguntzeko ezartzen diren diru-partiden izaera publikoak elikatzen du. Esleitutako dirua publikoa denez, eraginkortasunez erabili beharreko dirua dela azpimarratzen da. Ez dute zalantzan jartzen Jaurlaritzak euskarazkoen sektorea ekonomikoki babesten jarraitu behar duenik, baina euskarazko hedabideei esleitutako diru-partidak hedabideen eraginkortasun-mailari lotzearen alde ageri dira, horren arabera banatzearen alde. Esandakoaren lekuko ondokoa: “guk geuk ere eraginkorrak izango baldin bagara, diru publikoak kudeatzerakoan asmatu behar dugu benetan eraginkorra den hura babesten, ez edozer babesten”(E11) Kontuan hartu eta azpimarratzekoa da aipatu baieztapenak 2014ko “Hedabideak” deialdia, balorazio-irizpideen erabateko aldaketa ekarri zuen deialdia argitaratu aurretik egin zirela.

Honaino euskara hutsezko hedabide inprimatuek eta Eusko Jaurlaritzak aurrera begira josi dituzten zereginak edota erronkak. Horiek guztiak makulutzat hartu eta ikerketa honek proposatu duen hamabigarren eta azken edukiari erreparatzeko unea heldu da. Honelaxe dio:

H12.- Etorkizunari begiratzen dio lanaren azken hipotesiak. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorean ikuspegi konpartitua dago, adostasuna da nagusi, aurrerantzean dituzten zereginak eta erronkak zehazteko orduan; baina ez da gauza bera gertatuko sektorearen eta Eusko Jaurlaritzaren artean. Hau da, administrazioak eta euskara hutsezko hedabideen sektoreak ikuspegi desberdinak azaleratzen dituzte euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko bidean lehentasunezkoak diren zereginak eta erronkak proposatzerakoan.

Hipotesiaren lehen zatiari, hedabide inprimatuen sektoreak duen ikuspegiari dagokionez, esan daiteke bete egiten dela. Aztertu diren informazio-iturri ez zuzenetan bildutako informazioak eta egin diren elkarrizketa sakonek zein Delphi bidezko ekarpenek erakutsi dute 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa jaso duten euskarazko inprimatuek antzeko zereginak edota erronkak proposatzen dituztela. Adostasuna, partekatutako ikuspegia nagusitzen da, beraz. Oso agerikoa da sektoreak administrazioari aurrera begirako eginkizunak ezartzen dizkionean; euskarazko inprimatuek, denek, hiru osagai dituen diskurtsoa aurkezten dute: lehenik, babes ekonomikoa handitu; bigarrenik, estrategikotasuna aitortu eta hirugarrenik, mesfidantza gaintu eta elkarlana praktikatu. Ez hori bakarrik, laurogeita hamarrek hamarkadatik ia aldaketarik gabe iraun duen diskurtsoa da; orduetik, sektoreko hedabideek behin eta berriz luzatu dizkiotelako hiru eskari horiek Eusko Jaurlaritzari. Etxe barruko zereginak edota erronkak zehazterakoan erakusleihoa zabalagoa, anitzagoa da. Hala ere, beste horrenbeste gertatu da; hau da, adostasuna nagusitu da euskara hutsezko hedabide inprimatuen artean. Denek uste dute ezinbestekoak direla elkarlana, garai berrietara egokitu eta berritzea, kontsumitzaile gehiagorengana helduz eraginkortzea, sektorearen egoerari buruzko gogoeta sakon eta partekatua egitea, Eusko Jaurlaritzarekin duten harremana hobetzea eta diru-sarrera propioak handitzea.

Bestalde, hipotesiaren bigarren zatiari dagokionez, hau da, administrazioak eta euskara hutsezkoen sektoreak etorkizunerako erronka edota zereginei buruzko

ikuspegi desberdinak dituztela dioen zatia ez da egiaztatzen. Teoria mailan behintzat ez. Izan ere, landa-lanean bildu den materialak agerian utzi du “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren prozesuaren parte diren bi aktore nagusiek plazaratzen dituzten ikuspegiak saretuta, teilakatuta daudela. Horren lekuko eta adibide esanguratsua da eraginkortasunaren gaia. Eusko Jaurlaritzak etorkizunari begira eraginkortasuna eskatu die euskara hutsezko hedabide inprimatuei, eta aldi berean, eraginkortasuna da sektoreak bere buruari ezarri dion zereginetariko bat. Beraz, ikuspegia partekatzen dute; beste kontu bat da gero bakoitzak nola interpretatzen duen eraginkortasuna eta bereziki, nola operazionalizatuko lukeen; hau da, “Hedabideak” diru-laguntza deialdian eraginkortasuna baloratuko litzatekeen irizpide moduan ezarriko balitz, zein adierazletan oinarrituta egingo luketen horren neurketa, nola baloratuko luketen. Baina eraginkortasunarena ez da administrazioak eta sektoreak lehentasunezkoztat jo eta, bakoitzak bere aldetik adierazita, konpartitzen duten gai bakarra. Beste horrenbeste gertatzen da elkarrekiko konfiantzan eta harreman iraunkorren oinarritutako gogoetari dagokionez; bien zelaian plazaratu den erronka edota zeregina da. Eta Euskara Sustatzeko Ekintza Planak hedabideen esparrurako ezarrita dituen ekintzei erreparatu ezker, argi dago bertan ia hitzez hitz daudela euskara hutsezko inprimatuek sarritan aldarrikatu, eskatu, exijitu dituzten gaiak. Batzuk aspalditik datozenak dira, esate baterako, euskarazko hedabideen enpresa-dimentsioa aintzat hartzea edota euskarazkoen kontsumoa sustatzeko eta prestigiatzeko kanpainak martxan jartzea; beste batzuk, aldiz, hurbilago kokatzen dira denbora-lerroan, adibidez euskarazko hedabideen behatokia sortu eta garatzea. Eta ESEPen egoteak esan nahi du Eusko Jaurlaritzak bere egiten dituela, horiek gauzatzeko konpromisoa hartzen duela; uste duelako hala egiteak mesede egingo diola ez soilik euskarazko hedabideen sektoreari, baizik eta hizkuntzaren biziberritzeari. Azken batean, euskararen ezagutza hedatzeko eta euskararen erabilera eremu guztietan areagotzeko lagungarri izan daitekeela.

Azken batean, ikerketaren landa-lanak erakutsi du euskara hutsezko hedabide inprimatuei eta Eusko Jaurlaritzari lotzen zaizkien erronka edota zeregin horien guztien muinean asmo partekatua dagoela: hizkuntzaren normalizazioan eraginkorra izango

den euskara hutsezko eskaintza sendo eta anitza sortzea, euskarazko hedabideen ekosistema oso bat eraikitzea. Betiere jakinda hori lortzeko bidean dauden oztopoak gainditu beharko dituztela: hedabide tradizionalen krisiari eta sektorea gogor astindu duen krisi ekonomikoari lotutako oztopoak, egoera soziolinguistiko anitz eta ezberdinetan zabaltzeari lotutako oztopoak (ez da gauza bera euskaldunen portzentaje handiak edo txikiak dituen gune soziolinguistikoan jardutea) eta euskara hutsezko hedabideen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanetan izan daitezkeen gorabeheri lotutako oztopoak. Horiek guztiak gainditzeko formulak osagai nagusi bat dauka, batzuen eta besteen ekarpenetan jasotakoaren arabera: lankidetzak. Eta berau edukiz hornitzeko hedabide batek dio “beharrezkoa da egoeraren irakurketa partekatu eta zintzoa egitea, bi aldeetatik” (D10).

Hamabigarren ondorioari azken puntua jartzeko esan 2005-2013 bitartean Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso duten euskara hutsezko hedabide inprimatuek lau etorkizun-eszenatoki irudikatu dituztela. Baikorrenek hamar urtera egungoa baino euskarazko eskaintza edo mapa komunikatibo anitzagoa, oparagoa, aberatsagoa (kantitatez eta kalitatez) eta sektorea eta erakunde publikoak besoz besoz lanean ikusten dituzte, hizkuntza-komunitateak behar duen komunikazio-ekosistema eraikitzeko lanean, hain zuzen. Beste muturrean daude ezkorrak; horiek hamar urtera egungo eskaintzaren murrizketa izango dela iragarri dute, hedabide inprimatu gutxiago eta baliabide gutxiago. Hirugarren multzoan kokatzen diren inprimatuek egungo egoera berdintsua irudikatu dute hamar urtera; hau da, euskarazko hedabideak jardunari eusteko ahaleginetan eta aldaketa handirik gabeko eskaintza-mapa. Eta azkenik, hamar urtera begirako pronostikorik egiten ez dutenak daude, ez daki/ez du erantzun multzokoak. Horiek argudiatzen dute zaila dela etorkizunak nondik nora joko duen igartzea, besteak beste sektorean, eta ez bakarrik hizkuntza gutxituan ari diren inprimatuen sektorean, erritmo bizian ari direlako gertatzen aldaketak. Denborak erakutsiko du.

7. AZKEN-AURREKO HITZA ETA AMAIERAKO GOGOETA: IRAGANA PRESENTE, ORAINA AKUILU, ETORKIZUNA HAUSPOTZEN

Ikerketa honek 2005-2013 epealdian jarri du fokua, lanean bertan azaldu diren arrazoiengatik. Orduetik azken lerroak idatzi diren unera, 2017ko urrira, urteak joan dira, eta denbora horretan hedabide inprimatuak hamaika gorabeheren protagonista izan dira mundu zabalean. Albiste-iturri bilakatu dira pitean-pitean; gehienetan, zenbait komunikazio-taldetan egin behar izan dituzten murrizketen berri emateko edo sektorearen negozio-ereduan eta lan-merkatuan gertatzen ari diren aldaketak azaltzeko izan da. Irakurri eta ikusitakoaren arabera, haizeak ez du paperaren alde jotzen. Horren lekuko azken urteotan informazioaren kontsumo-joerak aztertzeke egin diren zenbait ikerketaren emaitzak. 2014an, esaterako, Oxford Unibertsitateak hamar herrialdetan⁸³⁶ burutu zuen inkestak erakutsi zuen herritarren heren batek baino gehiagok (%36) mugikorra erabiltzen zuela hedabideen edukiak eskuratzeko. Eta portzentajea lodituz doa denborak aurrera egin ahala⁸³⁷. Izan ere, informazio-eskaria ez da murriztu, are gehiago, gero eta handiagoa da, baina berau kontsumitzeko moduak erabateko aldaketa izan du (Gallardo, 2010). Herrialde garatuetan bizi diren herritarrek, bereziki *mobile* diren adin-tarte gazteenetan, informazio digitala eskatu eta kontsumitzen dute. Bitartean, paperak audientzia galdu eta ez ditu irakurleak berritzen⁸³⁸.

⁸³⁶ .- Erresuma Batua, Alemania, Frantzia, Espainia, Italia, Danimarka, Finlandia, Brasil, Japonia eta Amerikako Estatu Batuak.

⁸³⁷ .- *World Association of Newspapers and News Publishers* erakundeak idatzizko hedabideen arloko joerei buruzko txostena egiten du urtero. 2016an landutakoaren arabera, Estatu Batuetan populazioaren %80k sakelako telefonoa erabiliz kontsumitzen zuen informazioa. Ikerlanaren aterpe teorikoan bildu dira aipatu erakundeak 2013 urterako eskaini zituen beste datu batzuk (ikus paperezko prentsaren bilakaera aztergaitzat duen 2.2.3.1. atala).

⁸³⁸ .- Herrialde garatuetan gertatzen da aipatutakoa; garapen bidean dauden beste batzuetan, aldiz, paperezko egunkarien salmentak gora egin du alfabetatze-mailaren hazkunderari eta egoera ekonomikoaren hobekuntzari esker. *World Association of Newspapers and News Publishers* erakundeak 2016rako egin zuen txostenaren emaitzen arabera, munduan 2.700 milioi herritarrek irakurtzen zituzten egunkari inprimatuak; hots, 2013an baino 200 milioi lagun gehiagok. Baina hazkundera Latinoamerika, Asia eta Afrikan izandako igoerari esker gertatu da. Bitartean, Ipar Amerikan eta Europan paperean kaleratzen diren egunkarien audientziak atsedetik gabeko galera bidean dira.

Egoera horren ondorioz, paperezkoek berrasmatze- eta berregokitze-zereginari ekin behar izan diote ezinbestean (Poulet, 2009; Nichols eta McChesney, 2010), eta azken urteotan badira egunkarien ekoizpen-eredu tradizionala aparkatu eta digitalerako jauzia egin duten kazeta-enpresak. Bi adibide aipatzearen: 2016ko urtarrilean Quebeceko *La Presse* egunkari frankofonoak negozio-eredu berria martxan jartzea erabaki zuen: papera larunbatetarako bakarrik utzi eta gainontzean digitalean ekoiztu. Erabakia bideragarri eta errentagarri atera zitzairen, irabazien %80 digitaletik eskuratzen dutelako, bereziki tabletarako bertsioak 250.000 irakurle dituelako eta edukiaren barne doan publizitatea webgunekoa baino prezio garestiagoan saltzen dietelako iragarleei. Bigarren adibidea *The Independent* egunkari britainiarrarena da; paperaren etengabeko jaitsiera kudeatzeko ahalegina bertan behera utzi eta etorkizuna euskarri digitaletan oinarrituta eraikitzearen aldeko apustua egin zuen 2016ko udaberrian. Martxoaren 26an honakoa agertu zen *The Independent* egunkariaren paperezko azken zenbakiaren azalean: "LIGHTS OUT. Here is the last print edition of this newspaper, but the news never stops...". Eta horrelaxe, geroa erabat digitala izango zuen Erresuma Batuko lehen egunkaria bilakatu zen.

Oraindik kasu bakan batzuek baino ez dute erabateko migrazio digitalerako apustua gauzatu. Izan ere, gaur egun monetizazioa da prentsa digitalaren erronka eta traba nagusia; hau da, paperezkoen salmenta zein publizitate bidez lortzen diren diru-sarrerak nola eraman sare bidezko kontsumora. Harpidetza digitalekin arrakasta izan duen kasuren bat kenduta⁸³⁹, oro har, irakurlea ez dago gailu mugikorretan informazioa edo beste era bateko edukiak eskuratzearen truke ordaintzeko prest. Eta diru-sarrerarik gabe ez dago hedabideari eusterik. Baieztapenak edozein hizkuntzatan ari diren hedabideentzat balio du, izan hizkuntza gutxitua zein milioika hitzun dituen.

Gurean eskuragarri diren paperezko argitalpenak kaleratzen dituzten enpresak ere ondotoxoa dakite zer den etengabe irakurleak galtzen joatea. Baieztapenaren lekuko EGMren datuak. Ikerlanean erakutsi da 2005etik 2013ra bitartean hedabide inprimatuen irismenak behera egin zuela Espainian (ikusi 2.2.3.2. atala) eta 2014tik

⁸³⁹ .- *Financial Times* egunkaria da horren adibide. Londreseko prestigio handiko egunkari ekonomikoak 2002an jarri zuen martxan harpidetza digitalak egiteko kanpaina, eta hamarkada batean harpidedunen erdia baino gehiago digitalak ziren. Gaur egun, diru-sarrera gehiago lortzen ditu saretik paperetik baino.

aurrera joera horrek ez du etenik izan. Irismenaren galera ez da bakarrik idatzizko hedabideekin gertatu, irratiak eta telebistak ere irismen-mailen jaitsiera izan dute, baina inprimatuetan baino apalagoak. Irabazi handiak izan dituen bakarra Internet da.

190. taula. Hedabideen irismenaren bilakaera Espainian, 2005, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017 (%).

Hedabidea	2005	2013	2014	2015	2016	2017
Egunerokoak	41,1	32,4	29,8	28,5	26,5	24,8
Gehigarriak	27,7	14,6	12,7	11,0	9,5	9,0
Aldizkariak	53,8	43,4	41,0	38,5	35,2	33,9
Irratia	55,5	61,5	61,0	60,1	60,0	59,3
Telebista	88,9	88,7	88,6	88,3	87,8	85,7
Internet	19,7	53,7	60,7	66,7	71,9	74,4

Iturria: EGM.

EGMk 2016ko urritik 2017rako maiatzera bitarteko epealdirako kaleratu zituen datuen arabera, 14 urtetik gorako herritarren %24,8k irakurtzen zituen paperezko egunkariak⁸⁴⁰ egunero Espainian; hau da, lanean aurkeztu diren azken urteko datuekiko ia zortzi puntu galdu ditu egunerokoaren irismenak, 2013an portzentajea %32,4koa zelako. Kopuru absolututara ekarrita, 12.752.000 irakurle 2013an eta 9.871.000 irakurle 2017an. Beste horrenbesteko joera erakutsi dute gehigarriek eta aldizkariak. Hedabide guztien artean irismenean gora eta gora egin duen bakarra Internet da. 2005etik 54 puntu irabazi ditu.

Azkenik, lupa Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizten diren egunkarien zabalkundeari jarri ezker, OJDk denboran zehar eskainitako datuek erakusten dute ikerketan 2005-2013 epealdirako ikusitako beherako bideak jarraipena izan duela 2014tik aurrera. OJDren neurketak egiten dituzten⁸⁴¹ EAEko egunkari guztien batez besteko zabalkundeak azken urteetako txikienak dira.

⁸⁴⁰ .- Informazio orokorrekoak, ekonomikoak zein kiroletakoak.

⁸⁴¹ .- *Gara* eta *Berria* egunkariak ez dute OJDren neurketarik egiten. *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Diario de Noticias de Álava* 2005 urtearen ondoren hasi ziren halako neurketak egiten.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

191. taula. EAEko informazio orokorreko egunkarien batez besteko zabalkundea, 2005, 2013, 2016-2017⁸⁴².

HEDABIDEA	2005	2013	2016-2017
El Correo	124.844	82.943	63.713
Diario Vasco	89.259	59.122	48.949
Deia	-	14.203	11.600
Noticias de Gipuzkoa	-	5.411	4.412
Diario de Noticias de Álava	-	3.925	3.454

Iturria: OJD. Tesiaren egileak moldatua.

Taulak agerian uzten du batez besteko zabalkundearen beherakada, eta jaitsierarik nabarmenenak 2005ean botaldirik eta zabalkunderik handienak zituzten egunkari biak izan dituzte.

Lan honetan euskara hutsezko hedabide inprimatuak izan dira ikergai. Horientzat ere denbora ez zen geratu 2013an, aztertu den epealdiaren azken urtean. Atal honen lehen lerroetan adierazi bezala, ordutik euskara hutsean ari diren hedabideek, ez bakarrik idatzizkoek, eskaintza egokituz eta berrituz jarraitu dute. Lorea Agirre, *Jakin* aldizkariaren zuzendariak honelaxe deskribatu zuen egoera 2015ean:

“Gutako bakoitzaren patrika kiosko handi bat bihurtu da. Eta kiosko horretan inoiz baino euskarazko hedabide gehiago dago gaur egun, inoiz baino euskarri, formatu eta eduki askotarikoagoak ditugu. Baina hala ere ez da aski, hutsuneak badirelako nabarmenak. Eta gainera, kiosko handi horretan bere lekua hartu behar du” (Behategia, 2015eko urtekaria: 14).

Hortaz, euskarazkoak ekin eta ekin dabilta gutako bakoitzaren patrikan dagokien lekua egiteko ahaleginean. Bestalde, 2014tik Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren “Hedabideak” deialdiak aldaketak izan zituen eta euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko laguntza-prozesuan parte hartu duten bi aktore nagusien arteko harremanetan ere bada zer kontatua. Lanak ezarritako denbora-mugatik kanpo dauden gorabeherak dira, baina, hala ere, horien

⁸⁴² .- 2016-2017 jarri da egunkarien arabera azken zutabearen jarritako kopurua neurketa-epe desberdinei dagokielako: *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Diario de Noticias de Álava* egunkarien kasuan neurketa 2016ko urtarrila-2016ko abendua epealdiari dagokio; *El Correo* eta *Diario Vasco* egunkarien kasuan, berriz, 2016ko uztailetik 2017ko ekainera bitarteko epealdiari.

jarraipena egin da eta hona ekartzea erabaki da. Orain arte landu eta aurkeztu den ikuspegia osatu eta aberasteko balio dezakeelako eta, horrekin batera, ikerketa zarratuko duen azken gogoetari ekiteko zubia izango delako.

7.1. DENBORAREN JOANAZ: 2014-2017 URTEAK. NOBEDADE UGARIKO SASOIA

Euskara hutsezko hedabide inprimatuek egin duten ibilbidearen errepasoari eskaini zaion atalaren azken lerroetan, 2013 urtearen hondarretan eta 2014an gertatutako zenbait kontu aurreratu dira (ikus 2.2.2.4.atala). Gipuzkoan, 2013ko urrian *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak*, *Galtzaundi* aldizkariak eta *Txolarre irrtiak* ahaleginak batu eta *Tolosaldeko Ataria* komunikazio-talde berria eratu zuten. Sasoi berean, Araban *Aiaraldea egunkaria*⁸⁴³ kaleratu zuten. 2014tik aurrera, paperezkoen egitasmo berriak sustatu, sortu eta zabalduko dira, bereziki Araban eta Bizkaian. Horrez gain, ordura arte kalean ziren hainbat argitalpenek paperean zein sarean eskainitako produktuen berritze-zereginen murgilduko dira, eta bakanen batzuetan ikerketarako bildu diren Delphi bidezko ekarpenetan aipatzen zen kezka eta erronka bati helduko diote, zuzendaritza-taldeen erreleboari, hain zuzen.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” deialdiak aldaketa handiak izan zituen 2014 urtean, bereziki diru-laguntzen banaketa ebazteko erabiliko diren balorazio-irizpideetan, “irismena” izeneko bilakatu zelako jaun eta jabe. Sektoreak horri buruz duen iritzia jasota geratu da ikerketan; besteak beste, Delphi teknika irizpide berriak aplikatu ondoren burutu zelako eta idatzizkoen ekarpenetan aipatu “irismenak” hamaika lerro bete dituelako. Eta deialdiaren edukietan ezarritako berrikuntzak eragina izan du Eusko Jaurlaritzaren eta sektorearen arteko harremanetan.

Adierazitakoari gehitu behar zaio euskarazko hedabideen ezaugarriak, audientziak eta balio soziala aztertu dituzten lanak egin eta kaleratu direla 2014tik aurrera. Baita euskararen osasunaren berri ematen duten VI. Inkesta Soziolinguistikoa

⁸⁴³.- Egunkaria deitu arren, 2014 urtean 19 zenbaki kaleratu zituen. (A3 formatua eta zenbaki bakoitzeko 16 orrialde). Lehen zenbakia 2013ko urriaren 3an kaleratu zuen, baina Eusko Jaurlaritzaren “Hedabideak” diru-laguntza lehenengoz 2014 urtean jaso zuen; horregatik ez dugu 2013ko mapan jarri.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

eta kale-neurketa ere. Kontuan hartzekoak denak, 2014-2017 epealdiko argazki ahalik eta osatuena izan nahi bada. Hori guztia gutxi ez, eta 2016ko azaroan XI. legegintzaldia hasi zen EAEn⁸⁴⁴. Iñigo Urkulluk jarraitzen du lehendakari, baina oraingoan PSE-EE alderdiarekin hitzartutako gobernu gidatzen du, eta pertsonen erreleboa izan da Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailean⁸⁴⁵.

Hortaz, nobedadeak euskara hutsezko hedabide inprimatuen bilakaeran, nobedadeak “Hedabideak” deialdian eta berau kudeatzen duten pertsonetan, gorabeherak prozesuan inplikaturik dauden arteko harremanetan eta nobedadeak euskarazko hedabideei zein euskarari lotutako ikerketa-arloan. Horiei guztiei erreparatuko zaie ondoren datozen lerroetan. Bidaia 2014an hasi eta 2017ko urrian bukatuko da.

7.1.1. EUSKARA HUTSEZKO INPRIMATUAK: BERRIAK SORTUZ ETA DAUDENAK BERRITUZ

Ekimen sortzaileari eta berritzaileari eutsi dio euskara hutsezko inprimatuen sektoreak 2014-2017 bitartean. Sortzailea hedabide berriak kaleratu direlako, eta berritzailea dagoeneko kalean zeuden produktuak berritu eta horien kudeaketaz arduratu diren zenbait pertsonak eta taldek ere lekukoa eman dietelako beste batzuei.

Euskara hutseko hedabide inprimatuen sektoreak 2014ko otsailean eman zituen lehen hiru albiste esanguratsuak. Batetik, hilaren 19an *Jakin* aldizkariak iragarri zuen fundazio bihurtu eta talde berri batek hartuko zuela zuzendaritza⁸⁴⁶. Horrekin batera, aldizkariaren itxuran eta grafismoan aldaketak egin eta aurrerantzean paperezko argitalpena baztertu gabe edizio digitala lehenetsiko zutela adierazi zuten.

⁸⁴⁴ .- XI. legegintzaldirako hauteskundeak 2016ko irailaren 25ean egin ziren. Emaitza ondokoa izan zen: EAJ-PNV: 28 eserleku, EH Bildu: 18, Elkarrekin Podemos: 11, PSE-EE: 9 eta PP: 9 eserleku. Gehiago osoa izateko 38 eserleku behar dira.

⁸⁴⁵ .- XI. legegintzaldiko Jaurlaritzak hamaika sail ditu, aurrekoak baino hiru gehiago. Horietatik zortzi jeltzaleen esku daude eta hiru euskal sozialisten esku. Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua Bingen Zupiria jeltzalea da. Gogoratu X. legegintzaldian hizkuntzarekin eta kulturarekin zerikusia zituzten gaiak hezkuntza arlokoekin batera kudeatu zirela. Orain, ordea, hezkuntzan Cristina Uriartek jarraitzen du, eta Zupiriak hartu ditu hizkuntza-politika eta kultura. Gainera, azpimarratzekoa da Zupiriak talde ia osoa berritu duela; horren ondorioz, dagoeneko ez dago bertan Patxi Baztarrika, 2005etik, sozialisten gobernu sasoia kenduta, hizkuntza-politikaren eta horren barne “Hedabideak” deialdiaren nondik norakoak gidatu zituen sailburuordea.

⁸⁴⁶ .- *Jakin* aldizkariak 58 urte bete zituen 2014an. Hura sortu eta gutxira hartu zuten haren ardura Joan Mari Torrealdai, Joseba Intxaustik, Joxe Azurmendik eta Paulo Agirrebaltzategik.

Maiatzean gauzatu zen erreleboa⁸⁴⁷, Lorea Agirre kazetariak hartu zuen Joan Mari Torrealdairen lekukoa⁸⁴⁸. Bigarrenik, otsailean ere, Urko Aristik kazetariak hartu zion lekukoa Mikel Irizarri TOKIKOMen presidente moduan. Eta hirugarrenik, otsailaren 26an *Uriola.info* plataforma aurkeztu zuten Bilbon⁸⁴⁹. Ez da hedabide inprimatua, baina bertan, Bizkaiko hiriburuan euskara hutsez ari diren *Berton* eta *Prest!* aldizkariaren informazio bateratua ikusteko aukera dago.

Martxoan *Urumeako Kronika* eraberritua iritsi zen, webgunean egunero eta paperean larunbatero⁸⁵⁰. Bitartean, *Astigarragako Kronika* asteazkenero kaleratuko da eta *Hernaniko Kronikak* eguneroko maiztasunarekin jarraituko du.

Apirilean, *Gaztezulo* aldizkariak 150. zenbakia kaleratu zuen, eta hori ospatzeko, diseinu zein eduki arloko aldaketak estreinatu zituen. Aurrera begira, berriz, irakurle eta harpidedun berriak lortzeko helburua ezarri zuten⁸⁵¹. *Gaztezulorekin* batera *Urola Kostako Hitzak* eta *Goierriko Hitzak* ere eurenak paperean zein sarean berritzeari ekin zioten 2014an, biak hamar urte bete zituzten urtean (lehenak otsailean eta bigarrenak urrian).

Ekainean, BERRIA Taldeak urteroko akziodunen batzarra egin zuen Andoainen, eta bertan Iban Arregi, taldeko kontseilari ordezkariak adierazi zuen aurreko lau urtetan ez bezala, 2013. urtea galerarik gabe bukatu zutela, baina horretarako langile-gastuak estutu behar izan zituztela.

⁸⁴⁷ .- Errelebo-ekitaldia Hernaniko Orona Ideo Berrikuntza Gunean egin zen. Bertan izan ziren euskal kulturaren munduko aurpegi ezagunak eta baita erakundeetako ordezkariak ere; besteak beste, Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburua, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko presidentea, eta Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusia.

⁸⁴⁸ .- Lorea Agirrekin batera honakoek osatu zuten zuzendaritza-talde berria: Xabier Eizagirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio, Imanol Murua Uria, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors eta Eguzki Urteaga.

⁸⁴⁹ .- Bilbo Handian ari ziren hedabideen arteko elkarlanak akuilatuta sortu zen plataforma: *Berton*, *Prest!*, *Elgera* eta *Zorrotz Morrotz* aldizkariak eta *Bilbo Hiria* iratiaren artean sortu zuten webgunea. Paperezko hedabide bakoitzak jarraitzen du lanean, baina horien edukiak *Geuria.eus* webgunean ere eskaintzen dituzte.

⁸⁵⁰ .- *Urumeako Kronika* Gipuzkoan eta Nafarroan zabaltzen da. Gipuzkoan Hernani, Ereñotzu (auzoudala), eta Astigarragan, eta Nafarroan Aranon eta Goizuetan. Bi lurralde ezberdineko herriak diren arren, funtzionatzeko orduan ibar moduan jokatzen dute.

⁸⁵¹ .- Harpidedun gehien Bizkaian eta Gipuzkoan zituztela aitortu zuen Aitor Abaroa zuzendariak eta beste lurraldeetan irakurle gehiago lortzeko ahalegina egingo zutela gaineratu zuen. (*Berrria*, 2014-04-11: 30)

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Urrian TOKIKOMek eta EITBk elkarlan akordioa sinatu zuten⁸⁵², eta hilabete berean paperezko hedabide berria sortu zuten Hego Uribe eskualdean: *Geuria*⁸⁵³. Abenduaren 22an, UK aldizkariak azken zenbakia kaleratu zuen (263.a), baina horren irakurleak ez ziren umezurtz geratu. Izan ere, hausnarketa prozesu luze baten ondoren *Hiruka Komunikazio Taldea* sortu eta Uribe Kostako bizilagunek⁸⁵⁴ *Hiruka* aldizkaria dute irakurgai.

Hurrengo bi urteetan ere izan zen mugimendurik euskarazkoen sektorean. 2015ean, Araban urtarrilaren 16tik *Alea* astekari berriak lekukoa hartu zion 2010etik argitaratzen zen *Arabako Hitzari*. Bestalde, eskualdeetako *Hitzak* paperean zein Interneteko atarietan berrikuntzak egiteko prozesuan murgildu ziren⁸⁵⁵. Eta hori guztia gauzatzen zen bitartean sarean bakarrik argitaratzeko pentsatua zegoen *H28* izeneko euskarazko hilabetekari satirikoaren lehen zenbakia⁸⁵⁶ jaio zen urtarrilaren 28an.

⁸⁵² .- Aurrerago azaldu bezala (834 oin-oharra), akordio horri esker Euskadi Irratiko *Mezularia* saioan astelehen arratsaldetan *TOKIKOM tertulia* entzun zitekeen, eta bestalde, TOKIKOMeko hedabideetako kideak parte hartzen hasi ziren ETB1eko *Azpimarra* saioan.

⁸⁵³ .- Paperezko hilabetekaria eta webgunea. Honen aipamena egin da euskarazko prentsaren ibilbideari buruzko atalean (ikusi 2.2.2.4. atala eta 258. oin-oharra). Bertsio inprimatuan 10.000 ale hilabetero Basaurin, Galdakaon, Arrigorriagan, Etxebarrin. Ugao-Miraballese eta Zaratamon banatzeko. *Geuria* Basauriko Euskara Aholku Batzordeak bultzatutako egitasmoa da. Basaurin aurretik ere izan zuten esperientzia euskarazko beste argitalpen batzuekin; hala, 1996an *Berbaz* izeneko euskarazko gehigarria izan zuten, hiru urte iraun zuena. 1996an *Bost axola* euskarazko aldizkaria ere sortu zen eta 1998ko apirilera arte iraun zuen. 2000tik 2005era *El Social de Basauri* kaleratu zuten. 2003ko abenduan Arrigorriaga, Arrankudiaga, Ugao eta Zaratamoko informazioa biltzen zuen *Artzandape* hilabetekaria jaio zen, eta 2005eko martxoan argitaratzeari utzi zion. Azkenik, 2010eko urritik 2012ko urtarrilera berriz, *Berbaz* aldizkaria kaleratu zuen Sustraiak fundazioak.

⁸⁵⁴ .- Euskarazko tokian tokiko aldizkarigintzak 1995ean jarri zuen lehen harria Uribe Kosta eskualdean. Urte hartan sortu zen Getxon banatzen zen *Bizarra lepoan* aldizkaria, eta handik lau urtera UK aldizkaria Uribe Kosta osorako eta Erandiorako.

⁸⁵⁵ .- *Urola Kostako Hitzak* hamar urte bete zituen 2014ko otsailaren 20an, eta 2015eko urtarrilaren 27an aurkeztu zuen Interneteko atariaren diseinu berria. *Oarso Bidasoko Hitzak* urtarrilaren 30etik aurrera paperekoa itxuraz aldatu eta Internetekoan ere aldaketa integrala estreinatu zuen. Otsailaren 18an *Irutxuloko Hitzak* lehen hamarkada ospatu zuen *Beste hamar urte baietz!* lelopean. Apirillean *Nafarroako Hitzaren* sarekoa berritu zuten eta abenduan *...eta kitto!* aldizkaria berritu eta 2012an krisiaren eraginez kendu zituzten lau orrialdeak berreskuratu zituzten

⁸⁵⁶ .- *H28* aldizkari satirikoak 28 zenbaki sareratu zituen, azkena 2017ko irailaren 28an. Bakoitzak 500 deskarga inguru izan zituen eta aldizkarian parte hartu zuten artean ondokoak daude: Asisko Urmeneta, Patxi Huarte *Zaldieroa*, Marc Armspach *Marko*, Adur Larrea *Adur*, Unai Iturriaga, Irene Borda, Joseba Larratxe *Josevisky*, Patxi Gallego eta Ainara Aspiazu *Axpi*. Sarerako prestaturikoez gain, Durangoko azokarako paperezko bi bilduma argitaratu zituzten, 2015ean *Urtikaria* izeneko eta 2016an *Urdekaria* izeneko.

Ez bakarrik berriak sortu eta zeudenak berritu; desagertutako inprimaturen bat ere berreskuratu zuten 2015ean. Horren adibide apiriletik aurrera, sei urteko etenaldiaren ondoren, berriro kalean izan zen Azkoitiko *Maxixatzen* aldizkaria. Urteko azken tartek bi albiste ekarri zituen sektorean; lehena *Lekore* literatur aldizkariaren sorrera izan zen, euskaraz idazten duten gazteentzako plaza izateko xedez jaioa; bigarren albistea berriz, ez zen poztekoa izan, galera ekarri ziolako euskara hutsezkoen mapari. Izan ere, 2011. urtetik Barakaldo, Sestao, Portugalete, Santurtzi eta Trapagaraneko informazioa landu eta zabaltzen zuen *Ezkerraldeko KZ* argitalpenak azken zenbakia kaleratu zuen 2015eko abenduan, egoera ekonomikoak behartuta jarri zion amaiera lau urteko ibilbideari.

2016 urteak nabarmentzeko moduko lau albiste ekarriko ditu. Batetik, Bizkaian hedabide inprimatu berria estreinatuko dute Galdakaon eta Usansolon: *Binke!* hilabetekaria⁸⁵⁷. Bigarrenik, ikerketaren analisi-atalean euskarazko inprimatuek aurrera begira plazaratu zuten erronka bat gauzatuko da, Behategiaren sorrera hain zuzen. Berau sustatzeko akordioa Hekimeneke, EHUK, Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak sinatu zuten. Behategiaren zeregina bikoitza izango da: sektorea ikertzea⁸⁵⁸ eta euskal hedabideen balioa sustatzea. Hirugarrenik, eskualdeetako *Hitzak* sakelako telefonoetan eta tabletetan izango dira *Hitza App* doako aplikazioari esker⁸⁵⁹. Eta laugarrenik, Hego Uribeko *Geuria* hilabetekariak Galdakao, Arrigorriaga, Ugao-Miraballes eta Zaratamoko udalek diruz laguntzeko konpromisoa lortu zuen (ordura arte Basaurikoaren babesa zuen). Bestalde,

⁸⁵⁷ .- Izena beinke hitzaren forma da; hau da, “noski”, “bai horixe” edo “benetan be” esamoldeen sinonimotzat hartu daitekeena. Antza denez, aldizkaria kaleratu aurretik inkesta bat egin zuten herritarren artean eta “Ez duzu uste Galdakaon euskarazko aldizkaria behar dugunik?” galderari askok “Binke!” erantzun zioten. Lehen zenbakia 2016ko urtarrilaren 21ean banatu zuten eta hilero 32 orrialdeko 14.000 ale inprimatu eta banatzeko asmoa agertu zuten. Jon Gómez Garai hilabetekariaren koordinatzaileak honelaxe justifikatu zuen paperean argitaratzearen aldeko apustua: “Hala, euskara ikusezin dutenen etxeetara ere iritsi gura dugu. Horregatik jo dugu paperera. (...) Euskaraz bizi den komunitatea badagoela erakutsi gura dugu, euskaldunak ez direnei agerrarazteko hau euskarazko herri bat dela”. (Berria, 2016-01-22: 5)

⁸⁵⁸ .- Bost ikerketa-taldek parte hartzen dute euskal hedabideen Behategian: EHUKo NOR, HGH Hedabideak, Gizartea eta Hezkuntza, eta HEKA Europako Hizkuntza Gutxituen Hedabideak eta Kazetaritza; Mondragon Unibertsitateko Hezikom eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutua.

⁸⁵⁹ .- Aplikazioa Android eta iOS sistema eragileak dituzten telefono eta tabletetarako zegoen diseinatuta. Behin deskargatuta, erabiltzaileak *Hitza* zuten eskualde guztietako albisteen jario orokorra ikusteaz gain, eskualde bakar bateko jarioa ikusteko aukera ere ematen zuen.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

paperezkoa ez den beste egitasmo bat ere jarri zuten martxan: *Urola Kostako Hitzak* bultzatu eta landutako *Zarauzko Hitza* izeneko komunikazio proiektu digitala⁸⁶⁰.

Azkenik, 2017an TOKIKOMek Jone Guenetxea, Durangaldean zabaltzen den *Anboto* astekariaren zuzendaria izendatu zuen presidente. Horrez gain, urtea gorabehera handirik gabe joan zen euskara hutsezko inprimatuen sektorean. Lehen hamar hilabeteetan, hau da, lan honek azken puntua jarri duen unera arteko denboran ez zen paperezko hedabide berririk sortu. Eta itxierarik ere ez zen izan.

Ikerketan erakutsi da zein izan den 2005-2013 epealdian Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuten euskara hutsezko hedabide inprimatuek denboran zehar izan duten bilakaera, eta hitzez azaltzeaz gain, 2005, 2009 eta 2013 urteetako hiru mapa eraiki dira udalerrri eta eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren paperezkoen argazkia osatzeko. Orain ariketa bera egin daiteke 2014-2017 epealdiarekin, eta daturik azpimarragarrienak ondokoak dira:

1.- Euskararen esparru geografiko osoan eta udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariei dagokienez, 2017an 2013an zeuden idatzizkoek jarraitzen dute. Sei dira guztira: *Berria*, *Goierriko Hitza*, *Hernaniko Kronika*, *Lea-Artibai*, *Mutriku eta Busturialdeko Hitza*, *Tolosaldeko Ataria* eta *Urola Kostako Hitza*.

2.- Euskal Autonomia Erkidego osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuen kasuan, 2013an 23k jaso zuten Jaurlaritzaren laguntza. Horiek denak daude 2017an, eta beste berri bat gehitu zaie: *El periódico universitario/Unibertsitateko aldizkaria*⁸⁶¹.

3.- Udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien (tokikoak) multzoa da, zalantzarik gabe, 2013tik 2017ra gorabehera gehien izan dituenak. Onerako gorabeherak izan dira.

⁸⁶⁰ - Garrantzitsua da Zarautzen *Txaparro* aldizkariak 2009an argitaratzeari utzi zionetik, ez delako herriko albisteen berri jasotzen duen tokiko hedabiderik izan.

⁸⁶¹ .- Argitalpen honek 2015 urtean jaso zuen lehen aldiz "Hedabideak" deialdiaren laguntza. Aldizkaria 1993an sortu zuen ikasle talde batek eta doan banatzen da EAEn eta Nafarroan; nagusiki lurralde horietan diren unibertsitateetan. Euskarazkoak urtean 16 orrialdeko sei zenbaki kaleratzen ditu eta 10.000 aleko botaldia du. Harreman estua dute gazteentzako argitaratzen diren beste aldizkari batzuekin, esaterako *Gazteberri* eta +/- *18 Presta ezazu zure etorkizuna* aldizkariekin.

- Araban, lurralde osora iristen den *Alea* astekariak hartu zion lekukoa *Arabako Hitzari* eta, horrez gain, Aiara, Amurrio, Arrankudiaga, Arakaldo, Artziniega, Audio, Okondo, Orozko eta Urduña herrietan⁸⁶² eskura izango dute *Aiaraldea egunkaria*.

- Bizkaian nobedade ugari dira, eta horiei esker mapa aldatuz joango da. *Hiruka astekariak* hartu dio lekukoa *UK aldizkariari*, *Anboto* aldizkaria 2014tik Amorebieta-Etxanora ere⁸⁶³ iritsiko da eta *Geuria* eta *Binke!k* euskarazko eskaintza informatiboa helaraziko dute halakorik ez zuen Bilbo inguruko hainbat herritara (Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes eta Zaratamo). Galdakaon aldizkari biak iritsiko dira herrira. Txanponaren bestaldean *Ezkerraldeko KZren* desagerpena aipatu behar da eta ondorioz tokiko informazioaren esparruan 2011tik mapan betetako espazioa (Barakaldo, Sestao, Portugalete, Santurtzi eta Trapagaran) hutsik geratuko da berriro.

- Gipuzkoan ere egoerak hobera egingo du. *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza* izandakoa indarberritu egiten da eta *Tolosaldeko Ataria* bilakatu, Azkoitiko *Maxixatzen* berreskuratuko dute eta *Urumeako Kronika* ere zabalduko da⁸⁶⁴. Bestalde, *Asteleheneko Goiena paperak* kaleratzeari utziko dio, baina Goiena Komunikazio Taldeak eskaintza berria izango du: *Puntua* astekaria⁸⁶⁵.

4.- Azkenik, osatu diren mapetan Nafarroa ageri ez den arren, nabarmentzekoa da 2016an *Ttipi-ttapa*, *Guaixe*, *Mailope* eta *Pulunpe* aldizkariak Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza hartzeari utzi ziotela. Jaurlaritzak eskaera egiteko aukera eman zien horiei 2007ko deialditik aurrera. Nafarroako UPNren gobernuak⁸⁶⁶, berriz, ez zien euro bakar bat eskaini 2008tik, baina Foru Erkidegoko hauteskundeen ondoren⁸⁶⁷, Uxue Barkosen gobernuak 250.000 euroko partida jarri zuen 2016ko aurrekontuetan

⁸⁶² .- Kontuan hartu zerrendan jarritako herrietatik lau Bizkaiko lurraldean daudela: Arrankudiaga, Arakaldo, Orozko eta Urduña. Baina denak dituzte mugak Aiaraldea eskualdea osatzen duten gainontzako bost herriekin.

⁸⁶³ .- "ere" jartzen du eskualde osora zabaltzeko lehen urratsa urte batzuk lehenago egin zuelako. 2008an bi herri falta zitzaizkion Durangaldeko herri guztietara heltzeko: Otxandio eta Amorebieta-Etxano. Esan bezala, 2008ko urtarrilean heldu zen Otxandiora eta 6 urte geroago Amorebieta-Etxanora.

⁸⁶⁴ .- Gogoratu *Urumeako Kronika* Nafarroako Arano eta Goizueta herrietan ere zabaltzen dela. 2017ko mapan bakarrik dago EAE.

⁸⁶⁵ .- Esan bezala *Puntua* astero argitaratzen da, baina *Goiena papera* ez bezala, ez da doan jasoko; harpidetza behar da horretarako.

⁸⁶⁶ .- UPN alderdiak Nafarroako sozialistekin (PSN-PSOE) hitzartu zuen gobernu-akordioa 2011n, baina ez zuen urtebete iraun eta 2012tik aurrera UPNk bakarrik gobernatu zuen.

⁸⁶⁷ .- Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak 2015eko maiatzaren 25ean egin ziren. Emaitzak honakoak izan ziren: UPN 15 eserleku, Geroa Bai 9, EH Bildu 8, Podemos 7, PSN 7, PP 7 eta Izquierda-

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

euskarazko hedabideentzat⁸⁶⁸ eta ondorioz, ez zuten Jaurlaritzarena eskatzerik izan⁸⁶⁹. Egoera horrek, aurrerago azalduko den bezala, eragina izan zuen 2016ko “Hedabideak” deialdiaren testua idazteko orduan.

Esandakoak esanda, honakoa litzateke 2017 urteko urrian udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren euskara hutsezko hedabide inprimatuen argazkia EAEko mapan:

Ezkerra (I-E) 2 eserleku. Uxue Bakorsek Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta Izquierda-Ezkerra alderdiek adostutako gobernua zuzentzen du.

⁸⁶⁸ .- Diru-laguntzaz gain, beste albiste on batzuk ere izan ziren Nafarroan euskarazko hedabideentzat gobernu-aldaketa gertatu zenetik; *Euskalerrria Irratiak* lizentzia lortu zuen 2015ean eta *Xaloa telebistak* lurralde osoan zabaltzeko lizentzia lortu zuen.

⁸⁶⁹ .- 2015eko deialdian, hau da, “Hedabideak” laguntza eskatu zuten azken urtean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 265.427 euro esleitu zizkien Nafarroako euskarazko hedabideei (inprimatuak, irratiak, telebistak eta Internet bidezkoak). Kantitate horretatik, 136.253 euro *Ttipi-ttapa*, *Guaixe*, *Mailope* eta *Pulunpe* aldizkariarentzat izan zen (EHAA, 2015-07-24, 139 zk.). Mikel Arregi, Euskarabideko zuzendariak urte hartako azaroan Bilbon esan zuen 2016rako aurreikusitako 250.000 euroak baino gehiago jarri nahiko luketela. “Ez da nahiko genukeen kopurua; gehiago beharko litzateke. Baina gobernuak ezarritako lehentasunekin, konplikatua da gehiago jartzea” (Berria, 2015-11-21: 12).











5. irudia. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso duten udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak EAEko mapan, 2017ko urria.



























Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

ARABA	
	<i>Aiaraldea egunkaria</i>

BIZKAIA			
	<i>Aikor</i>		<i>Bagabiz</i>
	<i>Anboto</i>		<i>Drogeteniturre</i>
	<i>Begitu</i>		<i>Geuria</i>
	<i>Binke!</i>		<i>Prest!</i>
	<i>Berton</i>		<i>Hiruka</i>

GIPUZKOA			
	<i>Aiurri astekaria</i>		<i>Kalaputxi</i>
	<i>Aiurri hamaboskaria</i>		<i>Karkara</i>
	<i>Artzape</i>		<i>Maxixatzen</i>
	<i>Baleike</i>		<i>Noaua</i>
	<i>Barren</i>		<i>Oarso Bidasoko Hitza</i>
	<i>Danbolin</i>		<i>Pil-pilean</i>
	<i>...eta kitto!</i>		<i>Puntua</i>
	<i>Goiena papera</i>		<i>Tolosaldeko Ataria</i>
	<i>Goiberri</i>		<i>Txintxarri</i>
	<i>Irunero</i>		<i>Urumeako Kronika</i>
	<i>Irutxuloko Hitza</i>		<i>Uztarria</i>
	<i>Kalaputxi</i>		<i>Zuhatza berriketan</i>

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Mapak erakusten duenaren arabera, udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren euskara hutsezko hedabide inprimatuek zabalkunde-esparrua irabazi dute 2014tik. Baina zabalkunde-esparrua irabazteak ez dakar ezinbestean irakurleen hazkundera. Hortaz, komenigarria da datu horri ere erreparatzea. Eta ahalegin horretan, berriro ere, ikerketak aztertu duen 2005-2013 bitartean nabarmentzen zen errealitatearekin egiten da topo 2014tik aurrerako denbora-tartean. Zailtasun handiak daude euskara hutsezko hedabide inprimatuen kontsumo-datu zehatzak zeintzuk diren jakiteko, gehientsuenek ez dutelako horren neurketa sistematikorik burutzen.

Hala ere, 2014tik gertatutakoa laburbiltzeko, atal honen hasieran esan da euskarazko hedabideen ezaugarriak, audientziak eta balio soziala aztergaitzat hartu dituzten zenbait lan kaleratu dela urte hartatik aurrera. Horiek baliatu daitezke euskarazkoen kontsumo-argazkia zein den osatzen ahalegintzeko.

7.1.2. EUSKARAZKO HEDABIDEEN ETA EUSKARAREN IKERKUNTZA: EKARPEN ETA AZTERKETA-ILDO BERRIAK

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Euskarazko Hedabideak* izenburuko lana⁸⁷⁰ aurkeztu zien Euskararen Aholku Batzordeko kideei 2015eko uztailan. Bertan jasotako datuen arabera, *Diario Vasco* (%19) eta *El Correo* (%15) dira inkestatuek gustukoak dituzten egunkariak, eta horren ondoren datoz *Deia/Noticias* (%9), eta *Gara* (%8). Bestalde, lan horren arabera, *Berría* egunkariak 36.644 irakurle izango lituzke, eskualdeetako *Hitzak* 15.976 irakurle eta *Hernaniko Kronikak* 4.698 irakurle. Euskararen esparru geografiko osoan banatzen diren informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen artean, *Argia* eta *Aizu!* dira irakurrienak azterketaren arabera (9.850 eta 2.503 irakurle hurrenez hurren) eta tokikoei dagokienez irakurrienak *Goiena* (18.102 irakurle), *Ttipi-ttapa* (11.997), *Anboto* (11.047), *...eta kitto!* (7.379), *UK* (5.199), *Uztarria* (5.017), *Barren* (4.929) eta *Aiurri* (4.889 irakurle) lirateke⁸⁷¹. Bestalde, azterketa hartan euskaraz irakurtzeko erraztasunaz ere galdetu zitzairen inkestatuei eta emandako erantzunetan aurretik egingako beste lan batzuetan ikusitako egoera bera islatzen da; gehienek aitortu zuten lehen hizkuntza euskara izan arren, erraztasun handiagoa zutela gaztelaniaz edo bietan irakurtzeko euskara hutsean irakurtzeko baino.

CIES enpresak ere bildu zituen 2015eko datuak. Horien errebasoak agerian utzi zuen alde handiak daudela Jaurlaritzak bildutakoekin; CIESenak nabarmen hobeak zirelako: *Berría* egunkariak 54.700 irakurle, *Goienak* 38.400, *Argia* aldizkariak 44.800 eta *Ttipi-ttapa* 32.700 irakurle. Ez da lan honen helburua iturri baten eta bestearen artean dagoen aldea azaldu dezaketen arrazoiak arakatzea, baina euskarazko

⁸⁷⁰ .- Ez dago argitaratuta. Lan honen helburu nagusia euskarazko hedabideak zenbaterik kontsumitzen dituen eta kontsumitzaileen ezaugarri nagusiak zeintzuk diren ezagutzea izan zen. Azterketa 2015eko urtarriletik uztailera bitartekoa da. Lanaren unibertsoa EAEko eta Nafarroako eremu euskalduneko eta mistoko 16 urte edo gehiagoko 690.250 pertsonak osatu zuten; horietako %94 euskaldunak dira (euskaraz ondo hitz egin eta ulertzen dute) eta gainerako %6 euskaldun hartzaileak dira; hau da, gai dira euskarazko irrati edo telebista saio bat ondo edo nahiko ondo jarraitzeko edo euskarazko aldizkari bat ondo ulertzeko. Guztira 7.109 inkesta egin ziren EAEn eta beste 1.000 Nafarroan. Eta audientzia neurtzeko EGM edo CIES enpresek erabilitako metodologia aplikatu zuten; hots, "atzo" ikusi, entzun edo irakurritakoan oinarritu ziren. Tokiko aldizkarien kasuan, azken alea irakurri zutenen kopurua neurtu zuten. Landa-lana IKERTALDE enpresak egin zuen.

⁸⁷¹ .- Datu horiek guztiak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren *Euskarazko Hedabideak* izeneko txostenean daude. Esan bezala txostena ez dago argitaratuta.

hedabideen hartzaileak kontabilizatzeko orduan ikusitako datu-dantzak behar beharrezko egiten du euskarazko hedabideetara bideratutako audientzia-azterketa sistema bat eratzea. Gogoratu aipatu proposamena jasota dagoela Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP, 2012: 84).

Audientzia-datu kuantitatiboekin osatutako argazkiari beste hiru gehitu zitzaizkion 2015 urtearen azken hilabeteen:

1.- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko hedabideen egoera ezagutzeko asmoz burututako diagnostikoaren emaitzak jaso zituen 2015eko urrian⁸⁷². Lan horretan Hekimen elkarteko 113 hedabide aztertu eta horiek 2014 urtean hainbat arlotan izan zuten jardunari buruzko informazioa bildu zuten, hala nola, zabalkundea, ekoizpena, harpidetzak eta salmentak, giza baliabideak, aurrekontuak eta diru-iturriak.

Azterketaren ondorioetan nabarmentzen da azken 5 urteetan paperezko ekoizpenak behera egin duela eta bitartean euskarazkoek gero eta baliabide gehiago bideratzen dutela euskarri digitalera. Arlo ekonomikoari dagokionez, euskarazko hedabideen sektoreak galerekin itxi zuen 2014 urtea, “ez zuten lortu, diru-sarrerak, urte berean egindako gastuaren parekoak izatea, 21,9 milioi euroko diru-sarrerak guztira, urte berean gauzatutako gastu aurrekontua baino 1,6 milioi euro gutxiago” (Eusko Jaurlaritza, 2015e: 120). Diru-sarrera moduan lortu zituzten ia 22 milioi euroatik 13,4 milioi sarrera propioak izan ziren eta gainontzeko 8,5 milioi euroak erakunde publiko ezberdinek esleitutako diru-laguntza bidezkoak.

“Finantzaketa publikoari dagokionez, Hekimeneko hedabideek diru-laguntzatan jasotako 8,5 milioi euroatik, erdia baino gehiago Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandakoa da (4,4 milioi, %52,1); ia laurdena udalek emandakoa (2,0 milioi euro, %24,2) eta %15,8 foru aldundiek (1,3 milioi). Guztirakoan oso pisu txikia izan arren, badira beste erakunderen batetik diru laguntzak jaso

⁸⁷².- Azterketa horren izenburua ere *Euskarazko Hedabideak* da (2015eko uztailan Euskararen Aholku Batzordeko kideei aurkeztu zitzaizen beste lan batek zuen izenburu bera) eta hau ere argitaratu gabe dago. Landa-lana SIADECO enpresak egin zuen. Azterketarako unibertsoa 113 hedabidek osatu zuten: euskara hutsezko 6 egunkari, informazio orokorreko eta espezializatuko 14 aldizkari, udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren 30 tokiko aldizkari, 8 irrati, 7 telebista eta Internet bidezko 48 hedabide. Informazioa jasotzeko galdetegi erdi-egituratuak erabili zituzten eta datuen bilketa 2015eko uztailaren 6an hasi zuten eta irailaren 11n bukatu zuten.

dituzten hedabideak ere, hala nola: Eusko Jaurlaritzako beste sailen batetik (%0,9), Frantziar estatuko administrazioetik (%3,3), Europako Batzordetik (%0,4) edo Euskararen Erakunde Publikotik (%3,3)” (Eusko Jaurlaritza, 2015e: 120).

Hortaz, Eusko Jaurlaritza da, alde handiarekin gainera, diru-laguntza handienak ematen dituen erakunde publikoa. Datuak berretsi egiten du 2005-2013 epealdirako erakutsitakoa. Azkenik, aztertutako hedabideei egoera ekonomikoan eragiten duten faktoreez galdetutakoan, gehienek ikerketan zehar hainbat aldiz errepikatu direnak aipatu zituzten: administrazio publikoek emandako diru-laguntzetan eta publizitate-salmentak izandako beherakadak, harpidetzetan izandako jaitsierak eta harpidedun berriak lortzeko zailtasunak, Internet bidezko produktuak eta zerbitzuak errentagarri egiteko zailtasunak edota paperaren inprentak eta banaketak dakartzan kostu handiak.

2.- EHUko HEKA ikerketa-taldeak⁸⁷³ *Euskarazko hedabideen errealitatea 2015ean* izenburuko lana egin zuen Hekimen elkartearen Euskal Hedabideen Urtekarirako. Bertan zioten 2015eko azaroan 125 hedabidek osatzen zutela euskarazkoen sistema orokorra, horietatik erdia baino gehiago (%54,4) Gipuzkoan kokatuak⁸⁷⁴. Europako beste hizkuntza gutxitu batzuekin alderatuz euskarazko hedabide-sistema indartsu zegoela baieztatu zuten lanaren egileek; hala ere, kezka agertu zuten Bizkaiaren egoeraz, HEKA ikerketa-taldekoen iritziz, Bizkaian zeuden euskal hedabideen %24ko portzentajea txikia zelako:

“(…) euskal hedabideen sisteman oso portzentaje eta kopuru txikia dituelako, kontuan hartzen baditugu bere biztanleria, euskaldun tasa eta abertzaletasunaren pisua (EAJ Bizkaiko Foru Aldundian egon da eta dagoela legegintzaldi guztietan)” (Behategia, 2015: 26).

Lanaren ondorioetan euskarazkoen indarra gizarte-eragileen ahaleginetik zetorrela azpimarratu zuten eta ez erakunde publikoen sustapenetik.

“Euskal hedabideen sistemaren indar nagusia, gure ustez, ez dator erakunde publikoen zuzeneko eragin eta diru laguntzetatik, guztiz beharrezkoak direla ukatu gabe, baizik eta gizartearen ahaleginetik.

⁸⁷³ .- Europar Hizkuntza Gutxituetako Hedabideak eta Kazetaritza Ikerketa Taldea da. Arduraduna Iñaki Zabaleta irakaslea da eta berarekin batera ari dira Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Carme Ferré irakaslea eta EHUko Arantza Gutiérrez, Itxaso Fernández, Santi Urrutia eta Nicolas Xamardo.

⁸⁷⁴ .- Lanak honako banaketa egiten du lurraldeen arabera: Gipuzkoa %54,4, Bizkaia %24, Araba %4, Nafarroa %11,2, Lapurdi %4, Behe Nafarroa %1,6 eta Zuberoa %0,8.

Herri ekimena (jabetza sozial edo pribatua izanik) da, izan, euskal hedabideen bektore nagusia, alegia, direkzioa duen indarra” (Behategia, 2015: 39).

3.- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Euskarazko hedabideei buruzko azterketa kualitatiboa* izenekoa prestatu zuen⁸⁷⁵. Azterketa hartan aurretik eginiko beste zenbait lanetan bildutako antzeko ondorioak kaleratu ziren. Horietako batzuk aipatzearren, inprimatuei dagokienez, euskarazko eskaintza urria, mugatua dela eta batez ere espezializatuak falta direla, kontsumitzaile potentzialak ez daudela egunkari batengatik ordaintzeko prest informazioa Interneten doakoa bada eta horrez gain, euskarazko argitalpenak irakurtzen ez zituzten parte hartzaileek adierazi zuten bi arrazoi zeudela gaztelaniazkoetara jotzeko: ohitura eta euskaraz irakurtzeko erraztasunik ez izatea. Euskarazkoak, ez bakarrik idatzizkoak baizik eta edozein euskarritan euskaraz ari diren hedabideak aukeratzen zituztenen artean, hala egiteko pisu gehien zuen arrazoa hizkuntzarekiko eta kulturarekiko atxikimendua zen.

“Pertsona hauentzat euskara eta euskal kultura, eta ondorioz euskarazko hedabideak, bultzatzea oso garrantzitsua da eta bere eguneroko bizitzan ekintza desberdinekin jartzen dituzte praktikan euskararen aldeko apustu hori. Informatzeko zein aisiarako hedabide bat aukeratu behar dutenean ez dute zalantzarik eta euskarazko eskaintzan oinarritzen dira bat edo beste aukeratzeko” (Eusko Jaurlaritza, 2015d: 33).

Kontsumitzaile eredu horren arrastoa ikerketaren aterpe teorikoan izan dugu; hau da, euskarazko hedabideen hautu aktiboa, kontzientea egiten duen kontsumitzailea litzateke (Salces, 2016). Arrazoi horrez gain, Jaurlaritzaren txostenean beste batzuek ere ageri dira euskarazko hedabideak jarraitzeko: bigarren arrazoa umeak edukitzea da, hirugarrena euskara ikasten egotea eta laugarren eta bosgarren arrazoiak dira hautatutako hedabidearen lerro editorialarekin bat egitea (hortaz, kontsumo-mota hori ez du hedabideak erabiltzen duen hizkuntzak azaltzen) eta eduki

⁸⁷⁵ .- Lana ez dago argitaratuta. Helburu hirukoitzarekin egin zen: euskarazko hedabideen kontsumitzaileek eta kontsumitzaile potentzialek euskarazko hedabideez zuten balorazioa aztertzea, kontsumorako arrazoi nagusiak eta ez kontsumitzeko arrazoiak identifikatzea eta hirugarrenik, hedabideen inguruan adin-talde ezberdinek dituzten joerak ezagutzea. Zortzi eztabaida-talde antolatuta zituzten eta horietan 16-65 urte bitarteko 70 pertsonak hartu zuten parte guztira.

interesgarriak eskaintzea. Bestalde, lanak erakutsi zuen badela adin-talde guztiek konpartitzen zuten ezaugarri bat: “tokiko notiziak edo bertako informazioa jaso nahi denean jotzen da batik bat euskarazko hedabideetara” (Eusko Jaurlaritz, 2015d: 40).

Etorkizunari begira, eta paperezkoiei dagokienez, ikerketa kualitatiboan parte hartu zutenek proposamen bikoitza planteatu zuten; batetik, tokiko informazioa modu egokian lantzen jarraitu; eta bestetik, euskarazko egunkari/aldizkari espezializatuak argitaratu, “bereziki kirol egunkariak eta ‘kotilleo` aldizkariak. Kasu honetan, beste hizkuntzetan aurkitu daitezkeen aukerak gustura irakurriko zituzten euskaraz” (Eusko Jaurlaritz, 2015d: 35).

4.- Euskarazko hedabideen balio soziala neurtzeko proiektua martxan jarri eta horren berri eman zuten Mondragon Unibertsitatean⁸⁷⁶. Proba modura *Berria* eta *Goiena* hartu zituzten eta horiek zabaltzen diren inguruan sortzen duten balio soziala kuantifikatzeko ahalegina egin zuten. Kalkulua egiteko euskarazko bi egitasmoek gizartearen ongizatean eragiten duten hainbat arlotan⁸⁷⁷ erabilitako orduak dirutara ekarri zituzten eta ondorioztatu zuten 27,2 milioi euroko balioa soziala sortu zutela 2014an. Kontuan hartuta urte hartako deialdian 3 milioi euro inguru jaso zutela Eusko Jaurlaritzatik, horrek esan nahi du jasotako euro bakoitzeko 9 sortu zituztela.

Hedabideen balio soziala ardatz gisa hartzeak ikuspegi berritzailea dakar hizkuntza gutxituetako hedabideen ikerkuntza-esparrura; fokua ez delako dagoeneko audientzia-datuetan edo urteroko galera-irabazietan jartzen, baizik eta hedabideek gizarteari egin diezaioketen ekarpenean.

Unibertsitatetik euskarazko hedabideen balio soziala neurtzeko zereginari ekiten zion bitartean, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak

⁸⁷⁶ .- Lan honen nondik norakoak 2015eko abenduaren 15ean aurkeztu zituzten Mondragon Unibertsitatearen Aretxabaletako campusean egin zen *Gertuko komunikabideen III. jardunaldia: balio soziala* izenburuko topaketan.

⁸⁷⁷ .- Hamabi arlo hartu zituzten aintzat: gizarte eta kultura ekintzetan parte hartzea; euskararen normalizazioa, normatibizazioa eta prestigioa; kohesio tresna izatea; euskal kulturgintzaren promozio-leku izatea; oihartzun txikia duen sektoreei lekua egitea; beste enpresa batzuei negozioak ematea; promozio-tresna izatea erakunde eta enpresentzat; prestakuntza-gune izatea; hezkuntzan erabili daitezkeen edukiak sortzea; beste hedabideentzat aitzindari lana egitea; besteentzako diru-laguntzak bilatzea eta dirua aurrezte eta horretan laguntzea.

ikerketa honetan landu diren hainbat dimentsiorekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten bi ikerlanen berri eman zuen 2016 urtearen hasieran⁸⁷⁸:

1.- *Euskararen balio eta eragin ekonomikoa* izeneko txostena. Lehenengoz egin zen era horretako lanaren helburua zen euskarak Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiari zein ekarpen egiten dion ezagutzea eta ekarpen horri zenbaki zehatza jartzea⁸⁷⁹. Hau da, euskarak sortzen duen aberastasun ekonomikoa neurtu eta euskara-sektoreen dimentsio eta balio ekonomikoa kuantifikatzea.

Emaitzen arabera 56.142 lanpostu eta EAEko Barne Produktu Gordinaren %4,2 dagokie zuzenean eta zeharka loturaren bat duten sektore ekonomikoei. Eurotara ekarrita 2.800 milioi euro⁸⁸⁰. Datu esanguratsua beste sektore batzuek barne produktu gordinean duten eraginarekin alderatzen bada; izan ere, ikerlanaren arabera, turismoak BPGaren %5,8 suposatzen du, hezkuntzak %5,5, osasunak %8,8 eta I+G+b sektoreak %2,1. Datuen inguruko azalpenak eman eta gero, Patxi Baztarrika sailburuordeak hitz hauekin bukatu zuen txostenaren aurkezpena:

“Laburbilduz, ikerketa honek agerian jartzen duenez, jarduera sektore bat gehiago da euskara euskal ekonomian. Herri-administrazioek zuzendutako jarduera publikoaz gain, euskarak merkatu gero eta zabalagoa du, berezko industria bat badu. Eta euskararekin lotura estua duten merkatu pribatuaren jarduerak enplegua sortzen dute euskal ekonomian. Eta hori berri ona da, eta espero dezagun etorkizunean ere, espero dezagun, handitzen joango dela euskara jardueren pisua sektore pribatuan. Hori euskararen normalizaziorako eta gizartean errotu, zabaldu eta sendotzeko berri ona, sintoma ona izango litzatekeelako” (Eusko Legebiltzarra, 2016-02-29: 32).

Ikerketa honi dagokionez, gogoan izatekoa da euskarazko hedabideen sektoreak, eta horren barruan, nola ez, inprimatuenak alea jartzen duela euskal ekonomian.

⁸⁷⁸ .- Bi lan horiek Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordean aurkeztu zituen Patxi Baztarrika sailburuordeak. Agerraldia 2016ko otsailaren 29an egin zen. Edukia eskuragarri dago hemen: <http://www.legebiltzarra.eus/pdfdocs/publi/3/10/13/20160229.pdf>

⁸⁷⁹ .- Hiru aldagairi erreparatu zioten: enplegua, Balio Erantsi Gordina eta Barne Produktu Gordina. Horrez gain lau sektore nagusi kontsideratu zituzten: lehena, hizkuntzaren industria (euskararen irakaskuntza, itzulpengintza eta interpretazioa, hizkuntza-aholkularitza, euskararen corpusaren lanketa eta zabalkundea eta hizkuntza teknologien alorreko jarduera-sektoreak); bigarrena, kultura eta hedabideen industria; hirugarrena, hezkuntza eta unibertsitateko jarduera (bakarrik euskaraz egiten den zatia) eta laugarren sektorea, administrazio publikoarena izan zen.

⁸⁸⁰ .- Lanean 2012ko BPGaren datuak erabili zituzten, orduan EAEren BPGa 66.775.970 eurokoa izan zen.

2.- *Euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika 2014*. Lan honek EAEko administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta 5.000 biztanletik gorako udalek⁸⁸¹) euskara sustatzeko egiten duten ahalegin ekonomikoa neurtzen du eta denboran zehar xede horrekin jarritako diru-baliabideen bilakaera nolakoa izan den ere aztertzen du. Azterlana bi urtero burutzen da. Aterpe teorikoan 2012ra arteko emaitzak aurkeztu dira (ikusi 2.2.1.4.3. atala). 2014ko estatistikak eskainitako datuen arabera, EAEko herri-administrazioek 150.117.606 euroko aurrekontu kontsolidatua erabili zuten euskara sustatzeko, eta kopuru horren gehiengoa (%63,8) Eusko Jaurlaritzak jarri zuen. 5.000 biztanletik beherako udalerrietan, berriz, 5.948.429 euro bideratu zituzten euskara sustatzera. Biztanleko zenbat diru jarri den kalkulatu ezker, Jaurlaritzak 44,1 euro jarri zituen, udalek (hiriburuak kanpo) 26,7 euro, hiriburuek 11,3 euro eta foru-aldundiek 7,7 euro. Hortaz, ikerketaren aterpe teorikoan aurkeztu diren 2013ko datuekin konparatuta, esan daiteke euskararen sustapenean erabilitako baliabide ekonomikoek hobera egin dutela⁸⁸² baina ez dute lortu 2010 urtera arte zuen neurria berdintzea eta oraindik urrun dago 2008 urtean egiten zen inbertsiotik⁸⁸³. Azkenik esan, diru-baliabide gehienak diru-laguntzetara bideratzen direla. Eusko Jaurlaritzaren kasuan erakutsi da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duen diru-partidaren zatirik handiena helduen euskalduntzera doala (HABE), eta horren ondoren, bigarren garrantzitsuena “Hedabideak” diru-laguntza deialdian ezarritakoa dela.

Ikerketa honi amaiera jarri zaion datan (2017ko urria), oraindik ez da kaleratu 2016ko euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika. Horrek erakutsiko du 2014an hasitako goranzko joerari eusten zaion ala ez. Edozein kasutan, dagoeneko kaleratu eta ebatzi dena 2016ko “Hedabideak” laguntza-deialdia da. Eskaria egin zuten euskara hutseko hedabideek, horien artean inprimatuek, badakite zein diru-kantitate

⁸⁸¹ .- Tamaina horretako udalak kontuan hartuta, EAEko biztanleen ia %90a biltzen du azterlanak.

⁸⁸² .- 2012ko estatistikaren arabera, EAEko herri-administrazioek 146,3 milioi euro jarri zituzten euskararen sustapenerako. Biztanleko neurtu ezker, udalen kasuan izan ezik (26,9 euro biztanleko 2012an) denek jarri zuten diru gutxiago 2012an: Jaurlaritzak 42,4 euro, hiriburuek 10,8 euro eta foru-aldundiek 7,3. Hala ere, aurreko urteetan (2008 eta 2010) jarritako kantitateak 2012an eta 2014an jarritakoen gainera daude (ikusi 2.2.1.4.3. atala).

⁸⁸³ .- Aurreko urteetako ikerlanen arabera, 2006 urtean 152,8 milioi euro erabili zituzten herri-administrazioek euskararen sustapenerako; 2008 urtean 172,5 milioi euro eta 2010 urtean 162,8 milioi euro. Eta beste horrenbeste gertatzen da biztanleko jarritako diru-kopuruarekin.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

izango duten urtero 2018 urtea amaitu bitartean. Ordura arteko deialdien urterokotasuna gainditu eta sektoretik behin eta berriro aldarrikatu duten (eta lan honetan jasota dagoen) urte anitzeko deialdirako jauzia egin delako.

7.1.3. “HEDABIDEAK” DEIALDIA: DIRU-BALIABIDEEI EUTSI, BALORAZIO-IRIZPIDEAK ERABAT ALDATU ETA URTEROKOTASUNETIK URTE ANITZERA

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aldaketak egin zituen 2014ko “Hedabideak” diru-laguntza deialdian. Ikerketa honek aztertu duen 2005-2013 epealdian, eta bereziki 2009tik ostekoetan, ez zen apenas gorabeherarik izan urteroko deialdien edukietan. Baina 2014koa berrikuntzaz betea argitaratu zen San Juan egunaren bezperatan (EHAA, 2014-06-19). Ondokoak dira aldaketarik garrantzitsuenak:

1.- Deialdiaren helburua. 2005-2013 denbora-tartean, xedea ezartzen duen lehen artikulua honela zioen: “Agindu honen xedea euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntza emateko modua arautu eta deia egitea da (Hedabideak deialdia)”. 2014ko deialdian ordea beste formula batekin azalduko da deialdiaren xedea:

“Agindu honen xedea da euskarazko hedabideak sendotu, garatu, normalizatu eta eraginkortu, bezeroei begira irismen-maila indartuz. Horretarako diru-laguntzak emateko modua arautu eta deia egiten da (Hedabideak deialdia)”(EHAA, 2014-06-19, 115zk. 1/23).

Hortaz, hiru kontzeptu berri sartu dira xedean: “eraginkortu”, “bezeroa” eta “Irismen-maila”. Ikerketaren analisi-atalean sarri agertu dira hirurak; batetik, 2014ko laguntza-deialdia argitaratu bezperetan egin ziren elkarrizketa sakonetan, administrazioko ordezkari politiko erreferentzial baten ahotan agertu ziren, eta bestetik, 2014ko deialdia publikatu eta gauzatu ondoren jaso ziren Delphi bidezko ekarpenetan, lerro ugari eskaini zaizkie horietako biri, eraginkortasunari eta irismen-mailari, hain zuzen ere. Bistakoa, beraz, egindako aldaketak sakon eragin duela

inprimatuen sektorean. Bestalde, 2005-2013 epealdian “sendotu”, “garatu” eta “normalizatu” kontzeptuekin gertatu bezala, 2014koan estreinatuko den “eraginkortu” kontzeptua nola ulertu behar den ez da zehazten deialdiaren testuan. Edozein kasutan, agerikoa da irismen-mailari lotzen zaiola.

2.- Deialdiaren onuradun izan daitezkeen hedabideen multzokatzea. Hau ere aldatu egiten da. 2005-2013 bitartean, inprimatuei dagokienez, bi multzo berezi zituen deialdiak: lehenengoan, A multzoa izenekoan, euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua zegoen (euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen den *Berria* egunkaria eta udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren *Hitzak* eta *Hernaniko Kronika*); bigarrenean, B multzoa izenekoan, batetik, euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak zeuden eta, bestetik, udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak (tokikoak). 2014ko deialdian bi multzo izango dira, baina beste era batera antolatuta. Izan ere, A multzoan eguneroko prentsa inprimatua (lurralde osoan eta udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen dena) eta tokian tokiko aldizkariak bilduko dira, eta B multzoan, berriz, euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak geratuko dira. Horien aurkezpenerako ere beste formula bat erabiliko da: “albistek edo gai hautatuak egunerokotasunetik haragoko sakontasunez lantzen duten idatzizko hedabideak” (EHAA, 2014-06-19, 115zk.).

Aldaketak azalekoa eman dezake, baina ez da hala. A multzoak diru-publikoaren 6 eskatzaile eta onuradun izan zituen 2013 urtean, 2014an, ordea, zortzi aldiz gehiago, 48 guztira. Eta B multzoan 2013an 59 izatetik 2014an 23 izatera igaroko dira. Multzo horietako bakoitzarentzako ezarritako diru-poltsaren banaketak ere, logikoa denez, aldaketa izango du.

3.- Diru-baliabideen banaketa. Atal honen izenburuan “diru-baliabideei eutsi” adierazi da, eta kopuru orokorrari erreparatu ezker, hala gertatu zen. 2013ko “Hedabideak” deialdiak 4.875.000 euroko diru-hornikuntza izan zuen, eta 2014koak beste horrenbeste erabiliko ditu. Baina poltsa handiaren banaketan inprimatuei

eragingo dieten zenbaki-aldaketak izango dira⁸⁸⁴. 2013ko deialdian 1.820.000 euro ezarri zituzten A multzoko hedabideentzat (6) eta 2014koan 2.524.000 euro dira A multzokoentzat (48). Eta 2013an B multzoan izan ziren 59 hedabideentzat zeuden 1.841.500 euro jarri zituzten bitartean, 2014an 1.137.500 euro izango dira multzo horretako 23 hedabideentzat. Multzo bakoitzean kokatzen diren hedabideak beste modu batera antolatu izanak eta multzo bakoitzari bideratutako diru-kantitateen banaketa berriak nola eragiten duen ulertzeko, lagungarri izan daiteke kalkulu bat egitea: zenbat diru esleitu zitzairen guztira 2013 urteko deialdian orain 2014koan A multzoan sartzen diren hedabideei. Eta kalkulua eginda emaitza 2.524.000 euro da. Hau da, aurreko urteko partida berberari eusten zaio; hortaz, multzoak beste era batera antolatzeak ez du ekarri bati edo besteari bideratutako laguntza kuantitatiboki handitzea edo txikitzea.

Bestalde, 2014ko deialdiaren testuak aurrekoetan ageri ez zen beste paragrafo bat ere badakar. Horren arabera, 2013an Jaurlaritzaren diru-laguntzaren onuradun izan ziren hedabideei, gutxienez orduan esleitutakoaren %80 jasoko dutela ziurtatzen zaie.

“Baldin eta hedabideren batek diru-laguntza jaso bazuen euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko 2013ko deialdian, eta orduko jarduerari eusten badio, aurtengo deialdian jasoko duen kopurua gutxienez iaz esleitu zitzaionaren %80 izango da, betiere gainerako baldintzak betetzen baldin baditu” (EHAA, 2014-06-19, 115zk.).

Goiko paragrafoak badu bere zergatia; izan ere, gerta zitekeen 2014ko deialdian euskarazko hedabide bakoitzari egindako esleipenak aurreko urtean egindakoaren oso ezberdina izatea. Hurrengo lerroetan dago baieztapen horren zergatia.

4.- Esleipenak egiteko balorazio-irizpideak eta puntuen banaketa. Aldaketarik handiena izan duen atala da, zalantzarik gabe. Hankaz gora jarri zituen 2005-2013 bitartean balorazio-prozeduran erabilitakoak. Deialdiaren xedean “irismen-maila” kontzeptua azpimarratzen da, eta horrekin bat eginez, irismena bilakatuko da jaun eta

⁸⁸⁴ .- Irratiak, telebistak eta Internet bidezko hedabideek 2013 urteko diru-partida berberak izango dituzte: 227.500 euro, 500.500 euro eta 485.500 euro, hurrenez hurren.

jabe eskaerak baloratzeko orduan. Hau da, zenbat kontsumitzaile dituen hedabide bakoitzak bere zabaltze-eremuan edo, beste era batera esanda, hedabide bakoitza irits litekeen herritarren artean zenbatengana iristen den, bakoitzaren eremuan euskaldunen zein portzentajek kontsumitzen duten.

Ikerketa-lanean erakutsi da 2005-2013 epealdiko deialdietan zenbait aldaketa izan ziren arren, 2009tik aurrera irizpide eta puntuazio berberak erabili zituztela esleipenak egiteko: 35 puntu idatzizko hedabidearen finantzaketa-maila propioari, 30 puntu zabalkundeari eta gainontzeko 35 puntuak produktuari. 2014ko deialdiaren edukiak zehazten dituen balorazio-irizpideak eta horietako bakoitzari egokitutako puntuak ondoko taulan daude jasota.

192. taula. Euskara hutsezko hedabide inprimatuaren balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2014.

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Finantzaketa-maila propioa	gehienez ere 20 puntu
Irismen-maila	gehienez ere 70 puntu
Teknologia berrien erabilera ⁸⁸⁵	gehienez ere 4 puntu
Berrikuntza edota hobekuntzarako neurriak ⁸⁸⁶	gehienez ere 3 puntu
Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria izatea ⁸⁸⁷	gehienez ere 3 puntu

Iturria: 2014 urteko diru-laguntza deialdiaren agindua. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Agerikoa da beraz, 2014ko deialdian Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa eskatu zuen hedabide inprimatu bakoitzaren irismen-mailak baldintzatu zuela bakoitzari zenbat diru esleituko zitzaien.

Bestalde, aginduan zehaztutako 70 puntuen banakatzea modu desberdinean egin zen hedabidea kokatuta zegoen multzoaren arabera. A multzokoen kasuan, hau da, eguneroko prentsa inprimatuaren eta udalerrri, eskualde zein lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarien kasuan, deialdiak hauxe dio: “Puntu

⁸⁸⁵ - Deialdiak hauxe dio: “Smartphonetara eta tabletetara egokitzea, webgunea responsive izatea eta APP bat garatua izatea” (EHAA, 2014-06-19, 115zk.).

⁸⁸⁶ .- Deialdiak hauxe dio: “Batetik, hedabidearen irudia hobetzeko ahaleginak, langileen formazioa, hobekuntzarako egitasmoak... eta bestetik, ikerkuntza proiektuetan murgilduta egotea” (EHAA, 2014-06-19, 155zk.).

⁸⁸⁷ .- Bikain Ziurtagiria Kalitaterako Euskal Fundazioak (EUSKALIT) eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak elkarlanean bideratutako agiria da. Horren bitartez, enpresa nahiz erakunde batek euskaraz zenbateraino eta nola egiten duen ebaluatzen da. 2014ko “Hedabideak” diru-laguntza deialdian onuradun izan ziren hiru hedabideak aurkeztu zuten Bikain Ziurtagiria: *Asteleheneko Goiena papera*, *Goiena papera* eta *Aizu!* aldizkaria.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

horietatik aurreneko 60 puntuak banatzeko, kontuan hartuko da hedabideak bere eragin-eremuan duen irismen-maila. Gainontzeko 10 puntuak, berriz, hedadura mailaren arabera banatuko dira” (EHAA, 2014-06-19, 115 zk.). Eta hedadura baloratzeko, 2013ko deialdian egiten zen modu berean jokatuko da: hots, euskararen lurralde osoan zabaltzen den inprimatuari 10 puntu egokituko zaizkio, lurralde batean zabaltzen denari 8 puntu, eskualdean zabaltzen denari 6 puntu, udalerri bat baino gehiagotan zabaldu ezker 4 puntu eta, azkenik, udalerri bakar batean zabaltzen denarentzat 2 puntu dira. Eta B multzoko hedabideen kasuan, hau da, euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak, hauxe dio deialdiak: “Puntu horietatik aurreneko 40 puntuak banatzeko, kontuan hartuko da hedabideak bere eragin-eremuan duen irismen-maila. Gainontzeko 30 puntuak finkoak izango dira” (EHAA, 2014-06-19, 115 zk.).

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak formula bat sortu zuen euskarazko idatzizko bakoitzak bere eragin-eremuan zuen irismen-maila kalkulatzeko. Formula horretan hedabide bakoitzaren botaldiak, zabaltzeko modua (salmenta bidezkoa, harpidetza ez ordainduaren bidezkoa, etxez-etxeko “buzoneo” bidezkoa edo leku publikoetan uzten dena) eta hedabidea zabaltzen zen esparru geografikoko euskaldunen kopurua kontuan hartu zituzten.

Balorazio-irizpideen aldaketak, hurrengo atalean azalduko den bezala, tirabira ugari eragin zituen Hekimen eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren artean.

5.- Diru-laguntzen onuradun izateko baldintzak. Atal honetan ez zen aldaketarik 2014ko deialdian; ñabardura txiki bat egitekotan, esan daiteke autofinantzaketa-mailari dagokionez, 2014ko testuak hitz bat gehitu ziola 2013koari: ezinbestean. “Hedabide orok gutxieneko finantzaketa-maila propioa izan behar du, ezinbestean” (EHAA, 2014-06-19, 115zk.). Gero, finantzaketa-maila propioa zenbatekoa izan behar zen zehazteko orduan aurreko urteetan ezarritako portzentajeak errepikatu zituzten, %35 urtebeteko bizitza baino laburragoa zuten hedabideen kasuan eta gastu-aurrekontuaren %40 lehenagotik ari ziren hedabideentzat.

6.- Azkenik esan 2014 urtean bi deialdi izan zirela. Lehena euskarazko hedabideak sendotu, garatu, normalizatu eta eraginkortzeko eta bigarrena “nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako idatzizko egunkarien edizio digitaletan eta Internet bidez notiziak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan, euskararen erabilera areagotzeko” xedearekin argitaratu zena. (EHAA, 2014-06-26, 120zk.). Eusko Jaurlaritzak 180.000 euroko diru-partida ezarri zuen begiz jotako xedeari aurre egiteko.

2015eko “Hedabideak” deialdia 2014koaren ia-ia kopia hutsa izen zen. Testuan aldaketa bakarra sartu zuten, balorazio-prozeduran erabiliko zituzten irizpideen puntuazioei eragiten zien aldaketa, hain zuzen. Ondoko taulan daude laburbilduta irizpideak eta bakoitzari egokitutako puntuak.

193. taula. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2015.

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Finantzaketa-maila propioa	gehienez ere 15 puntu
Irismen-maila	gehienez ere 70 puntu
Teknologia berrien erabilera	gehienez ere 5 puntu
Berrikuntza edota hobekuntzarako neurriak	gehienez ere 5 puntu
Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria izatea	gehienez ere 5 puntu

Iturria: 2015 urteko diru-laguntza deialdiaren agindua. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Hortaz, finantzaketa-maila propioak 5 puntu gutxiago izango ditu, eta horiek puntu gutxien dituzten beste hiru irizpideen artean banatuko dira: teknologia berrien erabilera, berrikuntza edota hobekuntzarako neurriak eta Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria izatea.

2015ean ere izan zen gaztelaniazko egunkarien edizio digitaletan eta Internet bidez notiziak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan, euskararen erabilera areagotzeko diru-laguntza. Kasu horretan, 400.000 euro jarri zuen Jaurlaritzak. (EHAA, 2014-12-29, 247zk.).

Hurrengo urteko laguntza-deialdiak, 2016koak, euskarazko hedabideen sektoreak urte luzez egindako aldarrikapena/eskaera gauzatzea ekarri zuen. Hau da, urte bakarrerako izan beharrean, hiru urterako deialdia, 2016-2018 epealdirako

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

kaleratu zuen Eusko Jaurlaritzak. Eta hori ez da nobedade bakarra izango, gutxienez aipatzeko moduko beste hiru badirelako:

1.- Deialdiaren idazkerari eragiten dion aldaketa. Aurreko urteetan “euskararen esparru geografiko osoan” formula erabiltzen zen Jaurlaritzaren onuradun izan zitezkeen eguneroko hedabideen eta informazio orokorreko aldizkarien eta aldizkari espezializatuen zabalkunde-eremua zehazteko; 2016ko aginduaren testuan “Euskal Autonomia Erkidego osoan” erabiliko da haren ordez. Horren arrazoia, euskarazko hedabide inprimatuek 2014tik izan duten bilakaera azaldu denean aurreratu da (ikus 7.1.1.); hots, Nafarroan zabaltzen diren euskarazko hedabideek bertako gobernuaren diru-laguntza izango dute eta ez dute Jaurlaritzarena eskatzeko aukerarik izango.

2.- Diru-baliabideen banaketa. Hiru urterako kantitate orokorrak eta urte bakoitzean esleituko direnak zehazten dira. Euskara hutsezko idatzizko hedabideei dagokienez, 10.714.500 euroko partida ezartzen du Eusko Jaurlaritzak 2016-2018 denbora-tarterako; horietatik 7.302.000 euro A multzoko hedabideentzat (egunerokoak eta tokikoak) eta 3.412.500 B multzokoentzat (EAE osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak). Hau da, urtero 2.434.000 euro direla A multzokoentzat eta 1.137.500 euro B multzokoentzat. Aurreko urteetan bi multzo horientzat ezarritako diru-baliabideei erreparatu ezker, ikusten da B multzoan ez dagoela inolako aldaketarik, bai, ordea, onuradunen aldetik handiena den A multzoan, horientzat 2014 eta 2015 deialdietan ezarritakoa baino 90.000 euro gutxiago direlako urtero⁸⁸⁸ (2014an eta 2015ean 2.524.000 euro izan zituzten urtero). Diru kantitate hori E multzoan dauden Internet bidezko hedabideetara joango da, horiek 1.726.000 euro izango dute guztira hiru urtean, 575.500 euro urtero (2014an eta 2015ean 485.500 euro izan zituzten urtero). Irratiak eta telebistak aurreko deialdietako partida bera izango dute 2016-2018 bitartean⁸⁸⁹.

Bestalde, 2016-2018 epealdirako deialdiak, aurrekoetan gertatu bezala, zehazten du onuradun bakoitzak gutxienez 2015ean jasotako laguntzaren %80 jasoko

⁸⁸⁸ .- Diru-laguntza deialdian idatzitakoaren arabera horrelaxe da. Dena den, kontuan hartu behar da 2016tik Nafarroako idatzizkoek Jaurlaritzak sustatutako “Hedabideak” deialdira aurkezterik izango ez dutenez, haiei esleitzen zitzaizen kantitatea multzo honetako hedabideek izango dutela. Eta 2013ko deialdian 136.253 euro esleitu zitzaizkien Nafarroan zabaltzen ziren lau tokiko aldizkariak (*Ttipi-ttapa*, *Guaixe*, *Mailope* eta *Pulunpe*).

⁸⁸⁹ .- Irratien multzoko hedabideak 682.500 euro hiru urtean (227.500 urtero), eta telebistak 1.726.500 euro hiru urtean (575.500 euro urtero).

duela, “betiere orduko jardunari eusten badio eta gainerako baldintzak betetzen badin baditu” (EHAA, 2016-07-22, 140zk.). Baina horrekin batera, bada EAE osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek jaso dezaketen diru-kopuruari eragiten dien beste berrikuntza bat, honela formulatua dagoena:

“B multzoko hedabideen kasuan, guztiek izango dute bermatuta 25.000 euroko diru-laguntza urteko, betiere onartutako diru-eskabidea horretara iristen bada eta onartutako gastu-aurrekontuaren erdia gainditzen ez badu. Horretara iristen ez denak onartutako diru-eskabidea jasoko du; nolana ere, jaso lezakeen gehieneko diru-laguntza bere aurrekontuaren erdia izango da”(EHAA, 2016-07-22, 140zk.) .

Ikerketaren analisi-atalean erakutsi da 2005etik 2013ra euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuek, orokorrean, gero eta gastu-aurrekontuaren portzentaje handiagoa estali zutela 2005etik 2013ra Eusko Jaurlaritzak esleitutako laguntzekin. Hala, 2013an laguntzek multzo horretako aldizkari askoren aurrekontuaren herena estali zuten “Hedabideak” laguntzarekin. Horrekin batera, erakutsi da eskatutako hamar eurotik zazpi baino gehiago esleitu zitzaizkiela. Gauzak horrela, ematen du 2016ko aginduan idatzitako goiko paragrafo horren helburua dela 2013 urtean jasotzen zuten esleipenen tamaina bermatzea.

Nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako idatzizko egunkarien edizio digitaletan eta Internet bidez notiziak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan euskararen erabilera areagotzeko diru-laguntza deialdia ere izan zen 2016an, baina kasu honetan ez zen hiru urterako deialdirik egin, urte bakarrerakoa baizik (EHAA, 2015-12-30, 248 zk.). Jaurlaritzak 400.000 euroko diru-partida ezarri zuen horientzat, eta ezarritakotik 259.806 euro esleitu zituen⁸⁹⁰. 2017 urteari dagokionez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 360.000 euroko diru-laguntza aurreikusi du nagusiki gaztelania darabilten hedabideetan euskararen presentzia areagotzeko.

⁸⁹⁰ .- *El Correo Zurekin* izeneko egitasmoak 87.000 euro jaso zituen; www.diariovasco.com egitasmoak 86.000 euro; *GARA*ren edizio digitaletan euskararen presentzia handitzeko egitasmoak 61.206 euro eta *Europa Press* berri-agentziak 25.000 euro.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

3.- Esleipenak egiteko balorazio-irizpideak eta puntuazioak. Deialdiaren atal honek aldaketak izango ditu berriro. Garrantzitsuenak bi dira: batetik, irismen-mailak 5 puntu irabaziko dituela; beraz, orain 75 puntu izango ditu; bestetik, gehienez 15 puntu egokitzen zaizkio finantzaketari eta ez finantzaketa-maila propioari 2015eko deialdian egin zen bezala. Finantzaketari dagozkion 15 puntu horietatik gehienez, 10 izango dira publizitatearen eta salmentaren bidez lortutako diru-sarrerak baloratzeko, eta gainontzeko 5 puntuak finantzaketa-maila propioaren balorazioa egiteko.

194. taula. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen balorazio-irizpideak eta puntuazioak, 2016.

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
Finantzaketa	gehienez ere 15 puntu
Irismen-maila	gehienez ere 75 puntu
Maiztasuna	gehienez ere 5 puntu
Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria izatea	gehienez ere 5 puntu

Iturria: 2016 urteko diru-laguntza deialdiaren agindua. EHAA. Tesiaren egileak moldatua.

Taulan bildutako informazioaren arabera, irismen-mailak puntuak irabazteaz gain, aurreko bi urteetan teknologia berrien erabilerarekin eta berrikuntza edota hobekuntzarako neurriekin zerikusia zuten bi irizpideak desagertu egin ziren eta berri bat sartu zuten: maiztasuna. Horrekin, berreskuratu egiten da 2005-2013 epealdiko balorazio-prozeduretan erabiltzen zuten irizpideetariko bat (2009 urtetik aurrera produktuari egokitzen zitzaizkion 35 puntuetatik 5 ematen zizkioten maiztasunari).

Hortaz, diru-laguntzen esleipen-prozedura burutzeko erabili diren balorazio-irizpideak eta horietako bakoitzari egokitutako puntuek aldaketa esanguratsuak izan dituzte 2013 urtetik 2016-2018 hirurteko deialdira: finantzaketa-maila propioak pisua galdu du, eta irismenak hartu du pisurik handiena; gehienez lortu daitezkeen puntu guztien hiru laurden doaz irismen-mailara.

195. taula. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen balorazio-irizpideen eta puntuazioen bilakaera, 2013-2018.

	2013	2014	2015	2016-2018
Finantzaketa-maila propioa	35	20	15	5
Zabalkundea/ Irismen-maila	30	70	70	75
Produktua	35	0	0	0
Teknologia berrien erabilera	0	4	5	0
Berrikuntza edota hobekuntzarako neurriak	0	3	5	0
Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria	0	3	5	5
Salmenta eta publizitatea	0	0	0	10
Maiztasuna	0	0	0	5

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Atal honekin bukatzeko, taula bat osatu da. Bertan, “Hedabideak” laguntza-deialdiak 2013tik, hau da, ikerketak aztertu duen azken urtetik kaleratu den azken deialdira (2016-2018 epealdirakoa) izan dituen aldaketa nagusiak jasotzen dira.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

196. taula. “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren ezaugarri nagusien bilakaera euskara hutsezko hedabide inprimatuentzat, 2013-2018.

	2013	2014	2015	2016-2018
Deialdiaren helburua	Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatu.	Euskarazko hedabideak sendotu, garatu, normalizatu eta eraginkortu, bezeroei begira irismen-maila indartuz.		
Diru-laguntzaren onuradun izan daitezkeen euskarazko hedabide inprimatuen multzokatzea	<p>A multzoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren egunkariak udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariak <p>B multzoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> euskaren esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak (tokikoak) 	<p>A multzoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren egunkariak udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariak udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak (tokikoak). <p>B multzoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> euskaren esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak. 	<p>A multzoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskal Autonomia Erkidego osoan zabaltzen diren egunkariak udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariak udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak (tokikoak). <p>B multzoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskal Autonomia Erkidego osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak. 	
“Hedabideak” deialdiaren diru-baliabideak	4.875.000 euro	4.875.000 euro	4.875.000 euro	4.875.000 euro urtero
Diru-baliabideak euskarazko inprimatuentzat	<p>A multzoa: 1.820.000 euro</p> <p>B multzoa: 1.841.500 euro</p>	<p>A multzoa: 2.524.000 euro</p> <p>B multzoa: 1.137.500 euro</p>	<p>A multzoa: 2.524.000 euro</p> <p>B multzoa: 1.137.500 euro</p>	<p>A multzoa: 2.434.000 euro urtero</p> <p>B multzoa: 1.137.500 euro urtero</p>
Onuradunak	<p>A multzoa: 6 (1+5)</p> <p>B multzoa: 59 (23+36)</p>	<p>A multzoa: 43 (1+5+37)</p> <p>B multzoa: 23</p>	<p>A multzoa: 44 (1+5+38)</p> <p>B multzoa: 24</p>	<p>A multzoa: 41 (1+5+35)</p> <p>B multzoa: 24</p>

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

7.1.4. EUSKO JAURLARITZAREN ETA EUSKARAZKO IDATZIZKOEN ARTEKO HARREMANA: BETIKO BIDETIK

“Hedabideak” diru-laguntza deialdian aktore nagusi diren administrazioaren eta euskarazko hedabideen artekoak 2005-2013 bitartean erakutsitako logikari eutsiko dio 2014tik aurrera ere. Hau da, diru-emailearen eta diru-jasotzaileen arteko dinamikari jarraitzen dion harremana izan da. Ikerketan aztertu den denbora-tartean azaleratu ziren eskaera, aldarrikapen eta argudio berberak kaleratuko dira orain ere. 2014ko diru-laguntza deialdian Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin zituen aldaketak ez zituen begi onez hartu sektorearen ahotsak, Hekimenek. Eta horri gehitu behar zaio urte hartako ebazpenak ere aldaketak ekarri zituela aurreko urtekoekin alderatuz: oro har, diru-gehiago esleitu zitzairen tokiko hedabideei eta gutxiago *Berria* egunkariari⁸⁹¹. Erreakzioa berehalakoa izan zen. Horren lekuko 2014ko urriaren 21eko *Berria* egunkariaren azala: Jaurlaritzaren ikurra zuten artazi batzuek *Berria* hitzaren azken hizkia (a) mozten zuten irudiaren azpian zetorren izenburu nagusiak honela zioen: “Inoizko murrizketarik handiena” (*Berria*, 2014-10-21: 1). Eta barruko orrietan hitz hauekin hasten zen albistearen mamia: “Kolpea. Kolpe handia eman dio Eusko Jaurlaritzak BERRIA egunkariari: 210.000 euro gutxiago jasoko ditu kolpetik, iaz baino %14 gutxiago” (*Berria*, 2014-10-21: 2). Egunkariak sinadura-bilketa kanpaina hasi zuen eta helegitea jarri zion diru-laguntzen ebazpenari⁸⁹².

Hortik aurrera, BERRIA taldeak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hainbat mezu eta ohar zuzendu zizkioten elkarri, egunkarian bertan kaleratzen zirenak. Horrez gain, Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak eta Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikatako sailburuordeak agerraldiak egin zituzten Eusko Legebiltzarrean⁸⁹³. Biek defendatu zituzten 2014ko laguntza deialdian ezarritako aldaketak eta egindako esleipenak. Uriarteren hitzetan:

⁸⁹¹ .- *Berria* egunkariak 1.510.180 euro jaso zituen 2013ko diru-laguntza deialdian eta 1.301.963 euro 2014ko deialdian; aldea beraz, 208.217 eurokoa izan zen.

⁸⁹² .- Eusko Jaurlaritzak, zuzenbide argudioetan oinarritu eta atzera bota zuen helegite hura 2015 urtean. Helegitea ebazpenari ez, deialdiari jar dakiokela argudiatu zuen Jaurlaritzak.

⁸⁹³ .- Cristina Uriarte sailburuak 2014ko urriaren 31n egin zen osoko bilkuran erantzun zion gai honi buruz Xabier Isasi EH Bilduko legebiltzarkideak egindako interpelazioari. Bertan esandakoak hemen daude: <http://www.legebiltzarra.eus/pdfdocs/publi/2/10/000097.pdf> Eta Uriarte bera eta Patxi Baztarrika sailburuordea Legebiltzarreko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol batzordean izan ziren 2014ko azaroaren 3an gai berari buruz azalpenak emateko.

“Tokiko hedabideak dira aurtengo diru-laguntzen gehikuntzarik handiena izan dituzten hedabideak. Arrazoa da euskal irakurle gehienengana iristen direla. Ez dago inolako misteriorik: irakurleen babesa duten neurri berean Jaurlaritzak lagundu nahi ditu hedabideak eta zenbat eta irakurle gehiago, orduan eta babes handiago. Hedabide bakoitzaren estrategikotasuna kontsumitzaileak berak erabakitzen du” (Eusko Legebiltzarreko bilkura egunkaria, 2014-10-31: 67).

Baztarrika sailburuordeak, berriz, deialdiaren bidez euskarazko hedabideen eraginkortasuna sustatu nahi zutela adierazi zuen, eta diru publikoa interes publikoaren arabera kudeatu behar dela gaineratu zuen.

“Gure obligazioa da diru publikoa, interes publikoaren arabera kudeatzea. Gu ez gaude interes pribatu edo ideologiko edo alderdikoen arabera. Denena delako, denena, diru publikoa. Gure obligazioa da diru publikoari ahalik eta etekinik handiena ateratzea. Etekinik handiena zeren mesedean? Euskararen erabilera sustatzearen eta areagotzearen mesedean. Hori da gure helburua, hori da gure obligazioa, eta hori da guk kudeatzen ditugun diru publikoaren funtzioa: euskararen erabilera areagotzea, eta euskarazko hedabideen kontsumoa areagotzea” (Eusko Legebiltzarreko bilkura egunkaria, 2014-11-03: 9)⁸⁹⁴.

Bestalde, agerraldi hartan sailburuordeak nabarmendu zuen tokikoek bat egiten zutela 2014ko deialdiaren ebazpen-prozeduran erabilitako irizpide nagusiarekin, irismen-mailarekin alegia. Baieztapen hori egiteko Baztarrika TOKIKOMen Administrazio Kontseiluak kaleratutako balorazioan oinarritu zen. Oso kontuan hartzekoa da, gainera, balorazio hura ebazpenaren nondik norakoak argitaratu aurretik egin zuela TOKIKOMek; hau da, hedabide bakoitzari zenbat diru esleitu zitzaion jakin aurretik. Ondoko lerroetan daude TOKIKOMek eginiko balorazioak zituen pasarterik mamitsuenak:

“Ez dugu uste zenbaki dantzan, batek eta beteak jasotako kopuruekin sokatiran hastea eraginkorra denik, gure arteko desberdintasunekin tematuko ginatkeelako, eta aurrera egingo badugu, batera egin beharko dugu, eta horretarako, elkartzen gaituenari heldu beharko genioke, banatzen gaituenari baino.

Euskararen sustapenaz ari bagara, guk uste dugu Jaurlaritzak erabili dituenak irizpide egokiak direla: ahalik eta jende gehienarengana iristea komeni, euskara bera zabaldu nahi bada. Egokiak eta logikoak.

⁸⁹⁴.- Agerraldiaren transkripzioa: <http://www.legebiltzarra.eus/pdfdocs/publi/3/10/13/20141103.pdf>

Irizpide horren arabera egindako banaketa ikusita, orain jakin beharko genukeena, erabilitako formula zehatza da. Irizpidea gauzatzerakoan erabilitako neurria. Eta ahal den heinean, hobetzen saiatu, izandakoen pareko kalterik izan ez dadin.

(...) Argi dugu diru poltsa berdina den bitartean, batzuk gehiago jasotzeko, beste batzuk gutxiago jaso beharko dutela. Horregatik zaku barruko banaketan baino, zakua handitzeko lanetan saiatu beharko luke sektoreak.

(...) Zer hobeturik bada beraz, baina horrek ezin itsutuko gaitu. Aurtengo dirulaguntzak, sari baino, aitortza dira. TOKIKOMek azken urteetan egindako lanaren aitortza. Gure komunitateak⁸⁹⁵, kalitatezkoak dira, eta gainera, euskaldun eta ez euskaldunengana iristeko ahalmena dute.

(...) Irizpide aldaketarena, guk gerorrek eta sektoreko gainerako eragileek eskatutako zerbaite izan da. Argi genuen irizpide zehatzak behar zirela banaketarako, eta guztiok jakin behar genituela zeintzuk ziren. Gure proposamenak ere helarazi dizkiogu Jaurlaritzari azken urte honetan, eta ez dira indarrean jarri direnen oso desberdinak. (...) Horregatik, batzuekin eta besteekin elkarlanean segitzeko prest gaude. Jaurlaritzak berak gurekin izan du orain arte elkarriketarako jarrera. Jarrera hori sektore guztira zabaldu, eta elkarrekin aurrera egitea, hori da bidea. Horretan sinistuta gaude, eta horren alde segiko dugu lanean” (Norberak eskuratua)⁸⁹⁶.

Hortaz, irakurritakoaren arabera, agerikoa da euskarazko idatzizko hedabideen sektorean ikuspegi edo iritzi bat baino gehiago eragin zituela laguntza-deialdian Eusko Jaurlaritzak ezarritako aldaketak eta horretarako jarraitutako prozedurak. Hekimenetik adostu gabe egin zela kritikatu zuten bitartean, TOKIKOMETik elkarriketa bidez gauzatu izan zela zioten. Eta gogoan hartzekoa da TOKIKOMen dauden euskarazko hedabideak Hekimenen kide ere badirela.

Agerraldiak agerraldi eta agiriak agiri, egoera ez zen guztiz baretu. Hekimenek ezohiko batzar nagusia egin zuen azaroan eta mezu bateratua kaleratu zuen irismenaren garrantzia onartuz, baina gaineratu zuten hedabideen errealitate ezberdinak aintzat hartu behar zirela eta Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakia findu eta osatu egin behar zela. Horrekin batera, ezinbestekotzat jo zuten euskal gizarteak behar duen hedabide-sareari buruzko hausnarketa estrategiakoa egitea. Handik hilabetera 2015eko diru-laguntza deialdia arautzen zuen agindua kaleratu zen (EHAA, 2014-12-29: 247zk.).

⁸⁹⁵ - Horrela jartzen du jatorrizkoan.

⁸⁹⁶ .- Testu osoa *Eranskinak* izeneko atalean dago.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

2015eko deialdia aurreko urtekoaren ia kopia hutsa izan zen, baldintzei eta balorazio-irizpideei⁸⁹⁷ zegokienez. Baliabide ekonomikoetan partida berbera ezarri zen, ez zen eskatutako igoerarik izan. Eta beste horrenbeste gertatu zen foru-aldundiek euskarazko hedabideentzat bideratutako laguntzetan.

Egoera horrela, udaberrian (apirilean) euskarazko hedabideen elkarteak, Hekimenek, bilera-sorta hasi zuen Eusko Jaurlaritzarekin finantziazio-bide eraginkorragoak adosteko. Gutxira, diru-laguntzen ikuspegi-aldaketa eta “begirada luzeko” politikak eskatu zituen prentsan argitaratutako iritzi-artikulu baten bidez:

“Gure dimentsioen eta gure ekarpenaren diagnostikoa egin nahi dugu. Irakurketa adostua egitera iritsiko bagina, diru laguntzez hitz egiteari utzi geniezaioke eta inbertsioez hitz egiten has gintezke. Zenbakiez ez ezik, balioez ere mintza gintezke.

Ezin baitugu kezka ezkutatu. Lan baldintza prekarioetan ari dira euskal kazetariak, eta sektoreak lanak ditu urtea gainditzen duten inbertsio edo sustapen egitasmoetan sartzeko. Politika iraunkorragoak behar ditugu administrazioetan, begirada luzekoak. Horretarako modu bat izan daiteke helburuak eta bideak partekatzea. Lehen urratsa egin dugu” (Berria, 2015-05-15: 16).

Itxura batean adostasuna eta elkarlana erdiesteko hasitako bideak etena izan zuen, berriz ere, udan, 2015eko diru-laguntza deialdiaren ebazpenaren edukia ezagutu zenean⁸⁹⁸. Euskarazko idatzizko hedabideei esleitutako kantitateak, oro har, aurreko urtekoen oso antzekoak izan ziren⁸⁹⁹. *Berriak* 2014an baino 9.813 euro gutxiago jaso zituen⁹⁰⁰, eta horrek mikaztu egin zuen, berriro ere, administrazioaren eta egunkariaren arteko harremana⁹⁰¹.

⁸⁹⁷ .- Aurretik azaldu bezala, balorazio-irizpideetan finantzaketa-maila propioak 5 puntu gutxiago izan zituen, eta horiek punturik gutxien zituzten beste hiru irizpideen artean birbanatu ziren.

⁸⁹⁸ .- Ebazpena 2015eko ekainaren 26koa da eta EHAAn uztailean kaleratu zuten (EHAA, 2015-07-24: 139zk.).

⁸⁹⁹ .- Salbuespenen artean aipagarriena *Elhuyar* aldizkariarena. 70.481 euro jaso zituen 2014ko deialdian eta 2015ekoan erdia baino gutxiago, 30.626 euro. Baina urte batetik bestera aldizkaria hilabetekaria izatetik hiru hilabetekaria izatera igaro zen.

⁹⁰⁰ .- *Berria* egunkariari 1.301.963 euro esleitu zizkion Hizkuntza Politikarako Sailburordetzak 2014an eta 1.292.150 euro 2015ekoan.

⁹⁰¹ .- *Berria* egunkariak *Hedabideen eskariak, erantzunik ez aurten* izenburua jarri zion albisteari. Eta izenburuaren azpian honakoak nabarmendu zituen: “Hekimen elkartearen gomendioak aintzat hartu gabe, iazko irizpideei jarraitu die Jaurlaritzak hedabideen diru laguntzetan. Iazko kolpearen ostean, are laguntza eskasagoa jaso du BERRIAK. Gogoeta eskatu du hedabideen taldeak, eta inbertsio handiagoa” (Berria, 2015-07-14: 6).

2015 urtea iragarpen garrantzitsu batekin bukatu zen: “Hedabideak” deialdiak urterokotasuna gainditu eta Eusko Jaurlaritzak, lehen aldiz, urte anitzeko laguntzak kaleratuko zituen, 2016-2018 epealdirakoak, hain zuzen.

Hekimen elkarteak begi onez ikusi zuen hala egitea, baina ez zen ados agertu oinarrian zegoen planteamenduarekin. Batetik, deialdiak aurreko urteetako diru-partida berberak ezartzen zituelako urte bakoitzerako (4.875.000 euro urtero euskarazko hedabideentzat); bestetik, ez zelako aurreikusten denbora-tarte horretan sortu zitezkeen proiektu berriak deialdian sartzeko aukerarik; eta azkenik, Hekimenen esanetan, balorazio-irizpideak sektorearekin adostu gabe ezarri zituelako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Horren aurrean, Hekimenek hitzarmen-sistema bat bultzatzeko eta 2,5 milioi euro gehiago jartzeko eskatu zion Jaurlaritzari.

2016ko urte amaierak bi kontu aipagarri ekarriko ditu. Lehena, Jaurlaritza berria. Bingen Zupiria izango da Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, eta Miren Dobaran izendatuko du Patxi Baztarrika ordezkatzeko. Bigarrena, 2016-2018 epealdirako “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren ebazpena. Oraingoan ere, aurreko bi urteetako joera errepikatuko da: udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren idatzizko gehientsuenek aurreko urteetako kopuru berdintsuak edo zerbait gehiago jasoko dute, baina badira jaitsiera izango duten hedabideak ere. Bakan batzuk aipatzearen, *Berria*, *Bizkaiko Hitza*, *Gipuzkoako Hitza*, *Urola Kostako Hitza*, *Gaztezulo*, *Aizu!*, *GAUR8* eta *Zazpi Haizetara*.

Lerro hauek idazteko orduan, XI. legegintzaldiko Eusko Jaurlaritzak ia urtebete darama lanean. Kontua da 2016ko ebazpenak lotuta utzi zituela 2018a amaitu bitartean euskara hutsezko hedabide bakoitzak Jaurlaritzatik jasoko dituen diru-laguntzak. EAEko hizkuntza-politikaren kudeaketa zuzentzen ari den talde berria “zubiak eraikitzeke” eta “mesfidantzak eta gaizki-ulertuak alde batera utziz” lan egiteko prest agertu da⁹⁰². Asmo horiek agertzen zituzten egun berean, 2017ko

⁹⁰² .- Komatxo artean jarritako hitzak Estibaliz Alkorta, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendariak esan zituen 2017ko otsailaren 22an, *Euskal hedabideak itun bila* izenburupean Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan egin zen jardunaldian. Hauexek bere hitzak: “Bada garaia zubi berriak eraikitzeke; amildegi batzuk zeharkatu nahi ditugu, garai bateko mesfidantzak eta gaizki-ulertuak alde batera utziz” (Berrria, 2017-02-23: 4). Jardunaldi hartan Alberto Barandiaran Hekimeneko zuzendariak ere parte hartu zuen, eta adostasunaren beharra azpimarratu zuen: “Adostasuna behar da esparru berriak konkistatzeko. Adostasuna eta konplizitatea sektorea osatzen duten eragileen eta administrazioaren artean. Elkarrekikoa” (Berrria, 2017-07-23: 4).

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

otsailaren 22an, Bingen Zupiria Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara eta Kirol Batzordean izan zen⁹⁰³. Bertan, Zupiriak goraiatu egin zuen irismenak diru-laguntzak zehazterakoan duen garrantzia, baina atea zabaldu zion sektorearen proposamen bati; alegia, irismen kuantitatiboarekin batera kualitatiboa ere kontuan hartzeko aukerari. Horrekin batera euskarazko hedabideekin hitz egiteko asmoa agertu zuen.

Azkenik, 2017ko ekainean, Miren Dobaran Hizkuntza Politikarako sailburuordeak jakinarazi zuen hausnarketa-prozesu batean murgilduta daudela Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Hekimen elkartearekin, 2016ko deialdia ebatzita izateak horretarako bi urteko denbora-tartea eskaintzen dielako. Hausnarketa euskal gizarteak izan beharreko hedabide-mapaz, laguntzak zehazteko irizpidez...

“Oso aberasgarria izaten ari da hori; hor ikusten da zenbat oztopo eta kontraesan dauden. Hausnarketa eskatu diegu, eta elkarlanerako bideak. 137 hedabide⁹⁰⁴ behar dira? Ez da hobe eraginkorragoak eta potenteagoak izatea, batzea? Bi urte ditugu beste buelta bat emateko”
(Berria, 2017-06-24: 7)

Hizkuntza Politikarako sailburuordeak planteatu dituen galderen inguruko hausnarketa euskararen egoera soziolinguistikoaren erradiografia berria duen sasoiari burutuko da. Izan ere, 2017ko uztailaren kaleratu zen VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Aurrekoaren emaitzekin alderatuz, euskarak hobera egin du EAEn.

197. taula. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2011 eta 2016.
(zenbaki absolutuak eta %)

	2011	2016
Euskaldunak	600.000 %32	631.000 %33,9
Euskaldun hartzaileak	322.000 %17,4	356.000 %19,1
Erdaldunak	951.000 %50,6	877.000 %47
Guztira	1.873.000	1.864.000

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011 eta VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

⁹⁰³ .- Agerraldia, Rebeka Ubera EH Bilduko legebiltzarkidearen eskariari jarraituz egin zen, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak XI. legegintzaldian hedabideekiko dituen irizpide eta babes politiken inguruan azalpenak eskatzeko. Agerraldian esandakoen transkripzioa hemen dago eskuragarri: <http://www.legebiltzarra.eus/pdfdocs/publi/3/11/14/20170222.pdf>

⁹⁰⁴ .- Zenbaki hori aipatzen du 2016-2018 epealdirako “Hedabideak” diru-laguntza deialdian 137 eskaera izan zirelako.

Lurralde bakoitzeko datuei begiratuta euskaldunen kopuruak hobera egin du hiruretan⁹⁰⁵ eta adinari erreparatuta hazkunderik nabarmenena 16-24 urte bitartekoetan gertatu da (2011 urtean horien %60 zen euskalduna eta 2016an %71,4).

Erabilerari dagokionez, hazten jarraitzen du, gero eta pertsona gehiagok erabiltzen du eremu formaletan, lagunartean, lanean zein familian. Dena den, 2011n gertatu bezala, erabileraren hazkundera gaitasunarena baino apalagoa da. 2016an, biztanleen %20,5ek euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du (2011n %20 zen). Erabilera-eremu guztien artean, nabarmentzekoa da etxean gertatu dena; izan ere, 1991etik 2011ra etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zutenen portzentajea %17 ingurukoa izan da beti, 2011tik 2016ra, ordea, aurreko bi hamarkadetako joera hautsi eta 1,8 puntu irabazi ditu.

Dena den, VI. inkestaren nondik norakoak aurkeztu eta aste betera, Soziolinguistika Klusterrak VII. kale-erabileraren emaitzak⁹⁰⁶ aurkeztu zituen. Haiek eskainitako ikuspegia bestelakoa zen, kale-erabileran beherakada islatzen zuen datua aurkeztu zutelako: 2011n eginiko neurketaren arabera behatutako elkarrizketen %13,3 egiten ziren euskaraz kalean, 2016an, ordea, portzentajea %12,6koa zen. Gainera lanaren egileek azpimarratu zuten jaitziera adin-talde guztietan eta euskaldun gehien dituen lurraldean ere, Gipuzkoan, gertatu dela.

Azkenik, euskararen erabilera sustatzearen inguruko jarrerari dagokionez VI. inkesta soziolinguistikoak erakutsi du aldeko jarrerak gora egin duela; 2011n 16 urte edo gehiago zuten EAEko hamar biztanletik sei euskara sustatzearen alde zeuden eta 2016an portzentajea %65ekoa da. Aurka zeudenak %12 ziren 2011n eta %9,3 dira 2016an.

Datu horiek guztiak eskuan dituztela ari da Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila lanean. Lau erronka ezarri dituzte legegintzaldirako: ezagutza

⁹⁰⁵ .- 2011ko datuen arabera, Araban %16, zen euskalduna, Bizkaian %25,4 eta Gipuzkoan %49,9. 2016 urtean, berriz, portzentajeak %19,2, %27,6 eta %50,6 dira hurrenez hurren.

⁹⁰⁶ .- Kale-erabilera bost urtero neurtzen du Soziolinguistika Klusterrak. Lehena 1989an egin zuten (kasu hartan neurketaren egilea SIADECO izan zen) eta orduetik behaketa bidez neurtzen dute erabilera; hau da, ez da inkesta bidezko neurketa, baizik eta behatzaileak kokatzen dira une eta leku jakin batzuetan eta hiztunek solasaldietan zein hizkuntza darabilten apuntatzen dute. VII. neurketan 187.635 elkarrizketa behatu zituzten Euskal Herri osoko 144 udalerritan.

zabaldurik, hau da, euskaldunen masa kritikoa indartu; erabilera sustatu, batik bat aisialdian eta ingurune ez-formaletan; hizkuntza-eskubideak bermatzeko urratsak egin eta euskararen hiru lurraldeen arteko koordinazioa areagotu⁹⁰⁷. Agerikoa da horietako hirutan, ezagutza handitzea, erabilera bultzatzea eta hiztunen eskubideak bermatzean ekarpen garrantzitsua egin dezaketela euskara hutsezko hedabideek eta horien artean inprimatuek. Eta ekarpena are garrantzitsuagoa izan daiteke hedabide horiek zenbat eta gehiago sendotu, garatu, normalizatu eta eraginkortu.

Lerro hauek idatzi diren unean, 2017ko urrian, euskarazko hedabideen sektorearen jarduna, diru-laguntzak sustatu eta eskaintzen dituen Eusko Jaurlaritzarena, eta bereziki bien arteko harremana etapa berri baten atarian direla pentsa daiteke. Aipatu etapak, aurrerabiderako bada, hiru zutabe izan beharko lituzke: lehena, batzuek eta besteek egindako ibilbidearen azterketa kritiko partekatua; bigarrena, elkarrekiko aitortza eta pertzepzio eraikitzailea; eta hirugarrena, eraginkortasuna helburu duen diru-laguntza deialdien kudeaketa adostua, baliabideak hobeto antolatzeko eta erabiltzeko. Hiru zutabeak elikatzea funtsezko zeregina da, bereziki ekonomiaren gorabeherak eta globalizazioak komunikazioaren eremura ekarri duen erabateko aldaketak elkarlan eta sinergia sendoen beharra areagotu duelako. Eredu emankorra eta eraginkorra batzuen eta besteen ahalmena eta ekimena uztartzetik loratu daiteke. Denborak, eta batez ere hitzen ondorengo ekintzek erakutsiko du/digu hala gertatzen den.

⁹⁰⁷ .- Erronka hau gauzatzeko dagoeneko euskara sustatzeko lankidetzaituna sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak (EEP). Horren bidez, ikasleen eta irakasleen truke-programak bultzatuko dituzte hezkuntzan eta aisian, elkarrekin arituko dira ikerketan eta hizkuntzaren aldeko sentsibilizazioan, eta beste horrenbeste egingo dute euskara sustatzeko Europaren finantzaketa lortzeko. Hitzarmena uztailaren 3an sinatu zuten Iruñean Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako sailburuak, Ana Ollo Nafarroako Gobernuako kontseilariak eta Mathieu Berge Euskararen Erakunde Publikoko presidentek.

7.2. DATORRENAZ: GALDERA ETA ERRONKA ANITZEI HELTZeko SASOIA

Euskadi Irratiko *Faktoria magazina* saioaren aurkezleak, Manu Etxezortuk, hitz hauekin ekin zion 2016-2017 denboraldiko azken saioari:

“Egun on guztioi. Begira ze mezu polita entzule batek orain dela minutu gutxi whatsapp bidez bidali diguna. Ez zait opari hoberik bururatzen irratan ari garenontzat, entzule honen mezua baino opari hoberik ez dago. Begira entzule honek whatsappen zer idatzi duen: neguko boladako azken egunean eskertu nahi nizueke egindako lana; zuei eta beste batzuei esker EGA gaitzuea lortu dut. Orain hasiko da benetakoa erronka, euskara erabiltzea. Betirako entzule naukazu” (Euskadi Irratia, 2017-06-30: goizeko 10:00).

Entzuleak esker oneko mezu laburraren bidez adierazitakoak lotura estua du ikerketan zehar garatu diren zenbait konturekin. Batetik, hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideek hizkuntzaren normalizazioan izan dezaketen zereginarekin. Kasu honetan, mezuaren igorleak ziurtzat jotzen du euskara hutsezko irratsaio baten entzule izateak euskararen gaitasun-proba gaitzuea lagundu diola. Ez da faktore lagungarri bakarra izan, baina entzulearen iritziz alea jarri du azken helburua gauzatzeko bidean. Zenbateko ekarpena izan da? Ez dago jakiterik, zenbakia jartzerik; baina garrantzitsuena da entzuleak hala interpretatu duela. Bestetik, zeharka bada ere, egungo eskaintza informatibo mugagabeen lehiatzen diren hedabideek duten erronketariko bat, ikusle-entzule-irakurleak erakarri eta fidelizatzeko erronka ageri da hitzotan. Entzuleak “betirako entzule naukazu” dio eta hiru berba horiekin islatzen du Euskadi Irratiko *Faktoria magazinak* lortu duela. Edozein hizkuntzatan, ez bakarrik gutxituetan, ari diren hedabideen muina, oinarria, berau ikusi, entzun, irakurri, erosi edota babestu egiten duten pertsonak direlako.

Lanaren aterpe teorikoan nabarmendu den *Uses and Gratifications* edo Erabilera eta Sarien teoriaren argudioei jarraituz, esan daiteke entzulea behar konkretu batek bultzatuta hasi zela euskarazko irratsaioa entzuten, rol aktiboa izan zuela edukia hautatzeko orduan, modu selektibo eta kontzientean jokatu zuela sari bat eskuratzeko (EGA gaitzuea). Bestalde, “zuei eta beste batzuei esker” dioenean mezuaren egilea testuinguruaz ari da, etxekoa, lagunartekoa, euskaltegikoa, lanekoa zein hedabide-esparrukoa izan daitekeen testuinguruaz. Eta testuinguruak *Cultural Studies*

korrontearen argudioetara darama. Hedabideen harrera- eta interpretazio-prozesuak behar bezala ulertzeko ezinbestekoa da testuinguru bikoitza aintzat hartzea: mikroa bata, makroa bestea.

Testuinguru mikroa subjektu hartzailearen eguneroko eta hurbileko harremanek taxuturik dago (etxekoa, lagunartekoa, lanekoa, harreman formalak). Beraz, oso interesgarria litzateke mezu hura bidali zuen subjektuaren eremu horietako hizkuntza-erabilerari buruzko informazio osatuena izatea, eta horren barne, aipatu irratia entzuteaz gain, euskara hutsezko hedabide inprimaturen bat ere erabili/kontsumitu ote zuen hizkuntzaren ikasketa-prozesuan. Hala balitz, datua bat etorriko litzatekeelako hizkuntza gutxituetan diharduten hedabideek hizkuntzaren biziberritzean edo berreskurapenean funtsezko zeregina jokatzeko dutela defendatzen duen planteamenduarekin.

Arreta jarri behar zaion bigarren testuingurua makroa da; hots, testuinguru historiko, politiko, ekonomiko, teknologiko, soziolinguistiko eta kulturala. Makroak berebiziko garrantzia du, haren eragina bi mailalara iristen delako: batetik, hedabideetako mezuen harrera- eta interpretazio-prozesuen nondik norakoetan eragiten du, eta bigarrenik, hedabideen jardunean. Hedabideek ez dutelako berdin jarduten diktadura batean edo demokrazia batean, ezta demokrazia batean gobernuan alderdi bat edo beste bat denean ere. Ez dute berdin jarduten krisi edo oparotasun garaietan. Ez dute berdin jarduten hizkuntza bakarra edo anitz dituen lurraldean. Testuinguru teknologikoak ere eragiten du hedabideen lanean eta horren lekuko argiena da iraultza digitalak idatzizko hedabideen kalterako elikatu dituen bi kontu: on-line albisteen kontsumoaren gorakada eta pantailen kultura. Are gehiago, edukien ekoizpenak besteko garrantzia hartu dute horien banaketak eta zabalkundeak eta gainera, kontsumitzaileek edukien hartzaile hutsak izatetik ekoizle eta eragile izatera dagoen jauzia egin dute, *prosumer*⁹⁰⁸ bilakatu dira. Horixe da eraldaketa teknologikoak, digitalizazioak, komunikazioaren egituraren eragin duen aldaketa nagusietarikoa.

⁹⁰⁸ .- Kontzeptua 1980 urtean erabili zuen lehen aldiz Alvin Toffler egileak *The Third Wave* izeneko liburuan. *Producer eta consumer* hitzen batuketatik sortutako kontzeptua da; izan ere, bere lanean Tofflerrek aurreikusi zuen etorkizunean kontsumitzailearen eta ekoizlearen rola, zereginak, nahastu egingo zirela.

Agerikoa da egungo testuinguruak zerikusi gutxi duela *Mass Communication Research* delakoak lehen urratsak egin zituen garaiarekin, hedabideen eragin zuzenaren edo ondoren landu zen eragin mugatuaren teoriak hazi zireneko garaiekin. Hortaz, bistakoa da hedabideen funtzionamendua, zeregina eta funtzioak ikuspegi teoriko berriak baliatuz azaldu behar direla gaur egun; aterpe teorikoan bildu eta aurkeztu diren iraganeko zenbait kontzeptu, teoria eta planteamendu, bere garaian balio eta aplikazio handikoak izan zirenak, orain ez direlako baliagarriak. Testuinguru orokorra, horren barne hedabideena, zeharo ezberdina delako, eta aldi berean, subjektuek egiten duten hedabideen erabilera eta horiekin duten harremana ere zeharo ezberdinak direlako.

Hortaz, hedabideen lana eta bilakaera ganoraz azaltzeko derrigorrezkoa da testuinguru makroaren osagaiei erreparatzea. Eta horrekin batera, ezinbestekoa da aztergai den errealitatean inplikaturik dauden aktore bakoitzaren bilakaerari eta euren arteko harremanei erreparatzea. Ez delako ahaztu behar hedabideek izaera bikoitza dutela; alde batetik, gizarte baten produktu eta isla dira; beste era batera esateko, gizarte-erakundeak dira eta gizarteak zehazten, definitzen, mugatzen du zein den hedabideen ekimen- eta jarduera-eremua. Hortaz, hedabideak gizartearen menpeko ditugu, bereziki erakunde politiko eta ekonomikoen menpeko. Bestetik, hedabideak gizarte zehatz baten produktu izateaz gain, agente proaktiboak dira; hots, gizartearen eraikuntza eta aldaketa-prozesuetan parte hartzen duten eragileak dira.

Adierazitakoa aintzat hartuta, doktorego-tesi honen egilea ahalegindu da ikerketarako hautatu duen objektua dagokion testuinguruan kokatuz aurkeztu eta azaltzen. Bestalde, euskarazko hedabide inprimatuek eta "Hedabideak" laguntza-deialdiak 2005-2013 epealdian izan duten bilakaera lantzeaz gain, laguntzen onuradun izan diren inprimatuen eta laguntzen emaile izan den Eusko Jaurlaritzaren artean garatu diren harremanetan jarri du fokua. Presente izan behar da "Hedabideak" diru-laguntza deialdia Eusko Jaurlaritzak helburu zehatz bat lortzeko tresna dela, hau da, euskara normalizazio bidean jartzeko garatu duen hizkuntza-politikaren osagai edo tresna dela. Beraz, euskara hutsezko hedabideei esleitutako dirua politika publikoa egikaritzeko baliabidea da. Urrats bat gehiago eginez baieztatu daiteke edozein erabaki

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

publikoren azterketa egiteko funtsezkoa dela horren parte diren aktoreen, bitartekoen eta erakundeen arteko harremanak aintzat hartu eta arakatzea. Esan bezala, horretan ahalegindu da lanaren egilea.

Zereginak, hedabideen antzera, aurpegi bikoitza erakutsi du. Aberasgarria bata, nekeza eta arazotsua bestea. Bigarren horrek aukera eskaintzen du azken gogoeta osatu eta aurrera begirako zenbait proposamen luzatzeko.

7.2.1. IKERKETA-PROPOSAMENAK: HIZKUNTZA GUTXITUETAKO HEDABIDEEN EKARPENETATIK EUSKAL ESPARRU KOMUNIKATIBORA

Doktorego-tesiaren sarreran aitortu da lan honek ekarpena egin nahi izan diola *Mass Communication Research* ezagutza-esparru zabalaren barruan oraindik gutxi landu den azterketa-ildo bati; hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideentzako diru-laguntza publikoak interesgunetzat dituen azterketa-ildoari hain zuzen. Eta gaiaren marko teorikoa lantzeko eman diren urratsetan azaleratu da hizkuntza gutxituen eta hedabideen erabileraren arteko harremana jorratzeari ekin dioten ekarpen akademikoek baieztatzen dutela hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideek modu positiboan eragiten dutela hizkuntza gutxituaren normalizazioan, biziberritze-prozesuan. Baieztatu bai, baina baieztapena elikatzen duten froga enpirikoen gabezia nabarmena da. Askok eta sarri idatzi da hizkuntza gutxituetako hedabideek hizkuntzari begira betetzen duten funtzio mesedegarriez; hau da, hizkuntza gutxituetako hedabideen jardunaren eta hizkuntza-normalizazioaren artean kausa-efektu harreman zuzena dagoela planteatu da, baina harreman horren ebidentzia enpirikorik gabe egindako baieztapen teorikoak izan dira gehienetan, hedabideei egozten zaien funtsezko zereginaren ebidentzia enpirikorik gabe formulatuak. Eta emaitza enpirikoak aurkeztu dituen lanen bat izan denean, ikus-entzunezkoak, bereziki telebista aztertuz egindako lanak izan dira.

Horregatik, hedabideek hizkuntza gutxituak normalizatzeko ekimenetan, plangintzetan toki garrantzitsua dutela argudiatu eta defendatu nahi bada, oinarrizko

ikerketez gain, behar-beharrezkoak dira ikerketa aplikatuak; gaiaren inguruko ezagutza aberasten laguntzen dutelako eta eskuratutako emaitzak politika publikoak aldatzeko, egokitzeko, zuzentzeko edo areagotzeko arrazoi bilakatu daitezkeelako. Baita politika publikoak legitimatzeko ere, eta bide batez hizkuntza gutxituetako hedabideei neurritz kanpoko balioa eta laguntza ematen zaiela diotenak argudiorik gabe uzteko. Azken batean, ikerketa aplikatuek hizkuntza gutxituetako hedabideen azterketa-esparruak oraindik erantzun gabe duen galderari argia eman diezaiokete; hau da, hedabide horiek hizkuntza gutxituak normalizatzeko nola erabili daitezkeen planteatzen duen galderari erantzuteko. Esandakoa lan honetan aztergai izan diren euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorera ekarrita, ikerketa aplikatuek balioko lukete horiek euskarari egin diezaioketen ekarpena ez bakarrik teoriak janzteko baizik eta ekarpena zenbatekoa den (tamaina) zehazteko. Are gehiago, arestiko lerroetan proposatu eta aldarrikatu den ikerketa-ildoak euskara hutsezko hedabideek euskarari dakarkiotena zehazteaz gain, euskal gizarteari egiten dioten ekarpena zein den argitzeko ere balio dezake. Baina horretarako derrigorrezkoa da euskarazko hedabide-esparruaren ahalik eta argazkirik osatuena eta eguneratua izatea. Eta oraindik ez dago.

Ikerketa honek azterketarako hautatu duen lehen urtetik, 2005etik, ugarituz joan da euskarazko hedabideei erreparatuta burutu diren era askotako lanen ekoizpena. Gainera, Behategia, euskal hedabideen behatokia martxan jarri zutenetik (2016ko urtarrila) haren webgunean aurkitu eta kontsultatu daitezke 2010 urtetik aurrera egindako hainbat ikerlan, unibertsitateetako ikerlariak zein Eusko Jaurlaritzak landutakoak. Horiekin batera webgunean da euskarazko hedabideen datutegia⁹⁰⁹. Beraz, euskarazko hedabideek osatzen duten komunikazio-esparruaren ikuspegi orokorra eta interesgarria egon badago, baita urte zehatzen batean egindako azterketa sakonen bat ere⁹¹⁰, baina ez da nahikoa sektoreak duen egoeraren diagnostikoa egiteko eta etorkizunean izan ditzakeen erronkak, aukerak zein arazoak identifikatzeko. Horretarako beharko litzatekeen erradiografia izatetik urrun gara.

⁹⁰⁹ .- Datutegian euskarazko hedabideen zerrendak, horien zenbait datu (sorrera-urtea, enpresa, hedabide-mota, euskarria, maiztasuna eta webgunea) eta mapak ikusi daitezke (hedabide bakoitzak zein zabalkunde-esparru duen).

⁹¹⁰ .- Horren adibide da 2015eko urrian Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak jaso zuen *Euskarazko hedabideak. Diagnostiaren emaitzak* izenburuko lana. Horren nondik norakoak 7.1.2. azpi-atalean azaldu dira.

Hurbiltzeko bidean jartzeko gutxienez hiru eratako informazioa beharko litzateke: batetik, hedabide bakoitzak ekoizten duen produktuari lotutako hainbat konturi buruzkoa (botaldiak, maiztasunak, orrialde-kopuruak, langile-kopurua, zabalkunde-sistema...), bigarrenik, hedabidearen kudeaketa ekonomikoari lotutakoak (aurrekontuak, diru-sarrera iturriak, autofinantzaketa-mailak...), eta hirugarrenik hedabidearen kontsumoari lotutakoak (salmentak, harpidedunak, irakurle edo audientzia-datuak). Gainera hiru eratako informazio horiek denboran zehar jaso beharko lirateke hedabide bakoitzak duen bilakaeraren azterketa diakronikoak eta hedabideen arteko alderaketak egin ahal izateko. Azken batean, euskarazko hedabideek (horien barne inprimatuek) une zehatz batean eta denboran zehar duten egoeraren adierazle esanguratsu bilakatu daitezke. Ondorengo lerroetan hasiko den gogoetak agerian utziko du zein garrantzitsua izan daitekeen adierazleak landuta izatea, ez bakarrik unean uneko eta denboran zeharreko ikuspegi zehatza izateko, baizik eta hedabideentzako diru-laguntzak sustatzen dituzten erakundeek martxan jarritako ekimenen ebaluazioa egiteko eta erabakiak hartzeko.

Diru-laguntzak, ebaluazioa eta adierazleak agertu dira aurreko paragrafoaren azken esaldian. Ikerketa lan honentzako erreferentziazko marko teorikoa osatzeko fasean oso agerian geratu da hizkuntza gutxituetako hedabide inprimatuen landa hobeto ezagutu eta ekarpenak egiteko asmoz hurbildu diren ikerlarietatik, gutxi hartu dutela hiru ortu horietarako bidea. Beste era batera esateko, hizkuntza gutxituetako hedabide inprimatuei zuzendutako diru-laguntza publikoek ikerlari gutxiren interesa piztu dute. Ikustea besterik ez dago zein ekoizpen zientifiko urria duen gaiaren inguruan. Zaila da hori zergatik gertatu den azaltzea. Izan ere, eguneroko prentsari eta aldizkako argitalpenei bideratutako diru-laguntza publikoek tradizio historiko luzea dute, ez bakarrik hizkuntza gutxituetan jarduten dutenen kasuan, baita hizkuntza nagusietan zabaltzen direnetan ere. Baina, esan bezala, ez da apenas horiei buruzko azterlanik. Hedabideen eragina, funtzioak, edukiak, kontsumo-ohiturak, erabilera-moduak eta audientzia-neurketak izan dira denboran zehar gehien aztertu diren arloak.

Arestian aurkeztu den egoeraren ondorio zuzena da hemen eta orain luzatuko den proposamena: hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideei esleitutako diru publikoen ikerketa-ildoak hornitu, aberastu egin behar da bi eratako lanekin: oinarritzakoak eta aplikatuak. Eskaera hiru arrazoik babesten dute; horietako bi hizkuntza gutxituetako hedabideen ikerketa aplikatu gehiagoren beharra azpimarratzeko erabili diren ia-ia arrazoi berberak ditugu. Batetik, ikerketa lan berriek diru-laguntza politiken ezagutza teorikoa handitzea ahalbidetuko lukete; bigarrenik, kontrastatutako datuetan, zenbakietan oinarrituta dauden lanek eta horien emaitzek argudioak eskaini ditzakete hedabideetara bideratutako diru publikoaren beharra eta eraginkortasuna ziurtatzeko, eta bide batez, laguntzekin kritiko direnek plazaratzen dituzten baieztapenei erantzuteko. Izan ere, hamaika dira horiek darabiltzaten argudioak: laguntzekin diru publikoa xahutzen dela, ez direla eraginkorrak, ez dutela aniztasuna bermatzeko balio eta bai ordea kudeaketa desegokiei eusteko, traba egiten diotela merkatu libreko lehiari edota informazioa edozeinen eskura jarri duen Interneten garaian ez dutela izatezko arrazoirik. Beraz, argudio-zerrenda luzeari erantzuteko bideak zabaldu eta arrazoiz hornitzeko ezinbestekoak dira gaiari buruzko ikerketa-lanak. Eta hirugarrenik, hizkuntza gutxituetako hedabideentzako diru-laguntza deialdien, ekimenen eta politiken ikerketak garrantzitsuak dira erabakiak hartzeko, deialdi, ekimen edo politika horietan beharrezkoak izan daitezkeen egokitzapenak egiteko. Hirugarren arrazoiak zuzen-zuzenean garamatza ebaluazio-zereginera.

Doktorego-tesian nabarmendu da ebaluazioa politika publiko ororen baldintza eta funtsezko ezaugarri dela. Baina erakutsi da teoriarik aldarrikatutakoak ez duela neurri bereko islarik praktikan. Hedabideei eskainitako diru-laguntzak ikergaitzat hartu dituzten lan akademikoak gutxi baldin badira, are gutxiago dira oraindik diru-laguntza egitasmoen ebaluazioak eta horiei buruzko lanak, txostenak edota hausnarketak. Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen "Hedabideak" diru-laguntza deialdiaren ebaluazio-lan bakarra aurkitu da eta horixe erabili da marko teorikoaren eraikuntzan. Lanean azaldu dira zeintzuk diren gabekia horren zergatiak, nagusiki gure testuinguruan politika publikoen ebaluazio-kultura ahula izatea eta politika publikoen ebaluazioak egiteko dagoen ohitura falta. Baina horiek ezin dira ebaluaziorik gabeko egoera

iraunarazteko aitzakia bilakatu; erakundeek diru-publikoaz burutzen duten edozein egitasmotan dirua zertarako eta batez ere zein emaitzekin erabili den jakitea, eta herritarrei horren ingurukoak jakinaraztea derrigor bete beharreko zeregina izan beharko litzatekeelako. Horrekin batera, lehenxeago aurreratu bezala, ebaluazioak atea zabaltzen dio martxan jarritako egitasmoarekin zerikusia duten erabakiak hartzeko prozesuari, gure kasuan euskarazko hedabide inprimatuen garapen iraunkorra ahalbidetu dezaketen neurrien inguruko erabakiak hartzeko. Aterpe teorikoan azaldu den moduan, ebaluazioari esker hiru xede gauzatzen dira: martxan dagoen egitasmo, ekimen edo politikari buruzko informazioa bildu eta eskaintzen da (horrek egoeraren diagnostikoa egiteko balio du), gardentasuna bermatzen da eta jarduera publikoa legitimatzen da.

Horregatik guztiagatik, agerikoa da behar beharrezkoa dela hizkuntza-politika egikaritzeko martxan jartzen den egitasmo ororen ebaluazioa. Horren barne leudeke diru-laguntza deialdien ebaluazio sistematikoak, egoeraren diagnostiko jarraitua egiteko informazioa eskaintzen dutenak, abian jarritako egitasmoak edo ekintzak eragina izan ote duen, hobekuntzarik ekarri ote duen egiaztatzeko aukera ematen dutenak; hots, helburuak betetzen ote diren egiaztatzeko balio duten ebaluazioak, helburuak betetzen badira zein neurritan eta betetzen ez badira zergatik azaltzeko balio dutenak. Hala izan dadin, audientziak, hartzaileak, kontsumitzaileak zenbatze hutsetik harago doan ebaluazioa burutu behar da, eurotan neurtu daitekeen kostua/etekina edo jarritako dirua/esleitutakoa logikatik, efizientzia parametro hutsetatik harago doana. Ebaluazio-lanak hiru baldintza bete beharko lituzkete: batetik, eskuhartze-prozesuan (kasu honetan “Hedabideak” diru-laguntza deialdia) inplikaturik dauden aktore guztiak eta horiek erabilgarri dituzten bitartekoak eta beharrak kontuan hartu beharko lituzkete; bigarrenik, aintzat hartu beharko lituzkete aktoreek elkarren artean garatzen dituzten harremanak eta horiek zein testuingurutan gauzatzen diren (testuinguru ekonomikoa, politikoa, teknologikoa, soziolinguistikoa); eta hirugarrenik, ebaluazio-lanak adierazle-sistema sendoan oinarritu beharko lirateke. Izan ere, edozein ebaluazio-prozesuk derrigorrezkoa du adierazle-sistema bat osatu eta

martxan jartzea; ezarritako helburuen betetze-maila egiaztatzeko tresna delako, eta aldi berean, adierazle-sistema horren ustia ketatik sortutako informazioa izango delako ebaluazioa bukatu ondoren etorri daitezkeen erabakien abiapuntua.

Hemen aldarrikatzen den adierazle-sistemak euskara hutsezko hedabideen sektoreari buruzko informazio osatuena eskaini beharko luke modu sintetiko eta jarraituan. Hala eginda aukera legokeelako denboran zehar jasotako datuak alderatu eta azterketa longitudinalak egiteko. Euskarazko hedabideek osatzen duten komunikazio-esparruaren argazki ahalik eta zehatzena izatearen beharra azpimarratu denean esana da, baina hemen ez dago soberan, kontu horrek duen garrantziaz berriro ere ohartaraztea. Eta inprimatuen kasuan esaterako, hedabide bakoitzaren egoeraren argazki zehatzena izateko, gutxienez, ondokoak jaso beharko lirateke: aurrekontuak eta horien banakatzeak, finantzaketa-maila propioak, irakurle-kopuruak, sarean duten bisita-kopurua eta eragiten duten mugimendua (Facebook, Twitter), zabalkunde-modua (ordainpekoa, harpidetza bidezkoa, doako banaketa masiboa), ekoiztutako produktuaren ezaugarri nagusiak (botaldiak, maiztasunak eta orrialde-kopuruak, testu-kopurua/irudi-kopurua, koloreen erabilera...), argitalpenean denboran zehar gauzatutako berrikuntzak, hedabideak euskarri digitaletan duen presentzia eta teknologia berrietara egokitzeko ekintzak eta proiektuak. Horrez gain, zein eremutan zabaltzen den (udalerria, eskualdea, lurraldea, euskararen esparru geografiko osoa) eta eremu horretan euskararen egoera soziolinguistikoa zein den, hau da, zenbat euskaldun, euskaldun hartzaile eta erdaldun dagoen ere jaso beharko litzateke. Orain arte zerrendatutako datu gehienak balorazio-irizpide gisa erabili izan dira lanean aztertu den 2005-2013 epealdiko "Hedabideak" deialdiaren diru-esleipenak egiteko. Informazio horrekin eta landu daitekeen berriarekin euskarazko hedabide inprimatuen datutegi sendo bat osatu daiteke, eta prozedura bera jarraituz, beste horrenbeste egin daiteke ikus-entzunezko zein Internet bidezko hedabideekin. Gero, datutegian bildutako informazioa hemen proposatu den adierazle-sistema elikatu dezakeen datu-iturri bilakatu daiteke.

Adierazle-sistemaren helburu nagusia euskara hutsezko hedabideen egoera eta bilakaera jasotzea litzateke. Hortaz, gurean, gutxienez ondoko adierazleak jaso beharko lirateke: euskararen lurraldean dagoen hedabideen eskaintza hizkuntzaren eta euskarriaren arabera (egunkariak, aldizkariak, irratiak, telebistak eta Internet bidezkoak), euskararen lurraldean diren hedabideen kontsumoa euskarriaren eta hizkuntzaren arabera (audientzia-datuak), euskara hutsezko hedabideen kontsumoari eskainitako denbora euskarriaren arabera, euskara hutsezko hedabideen egoera ekonomikoa (aurrekontuak eta finantzaketa-mailak) eta euskararen lurraldean diren hedabideen ekoizpena hizkuntzaren arabera (botaldiak, maiztasunak, orrialde-kopuruak, emisio-orduak, sarean duten bisita-kopurua eta eragiten duten mugimendua). Hortik aurrera, nahi beste adierazle sortu daitezke, betiere kontuan izanda horiek datuz hornitu behar direla; hots, eskuragarriak diren datu-iturriak behar direla.

Funtsezkotzat jo den adierazle-sistemak beste bi ezaugarri izan beharko lituzke: batetik, jaso nahi den informazioaren zein informazio hori eskuratzeko beharko litzatekeen kostuaren ikuspegitik bideragarria, egingarria eta lorgarria izan beharko litzateke; eta bestetik, adostasunetik eraikia beharko litzateke izan; hau da, "Hedabideak" diru-laguntza deialdian rol desberdinekin parte hartzen duten aktoreen arteko kontsentsutik eraikitako adierazle-sistema. Eta helburua lortzeko prozesuan inplikaturik dauden aktoreek ahalegina egin beharko dute sarri askotan bat ez datozen ikuspuntuak eta lehentasunak konpartitu eta adostasunetara iristeko; azken finean, batzuen eta besteen artean izan daitekeen distantzia txikitzeko. Adierazle-sistema baliagarria, eraginkorra eraikitzeko ipar-orratza kontsentsurako borondatea delako.

Ebaluazio zereginari, adierazle-sistema osatu, fidagarri eta eraginkorra izateari eta euskara hutsean ari den hedabide-sektorearen ezagutza handitzeari zuzenez loturik dago hurrengo proposamena. Euskara hutsean diharduten hedabideen audientziak neurtzeko metodologia eta tresna espezifikoak garatu behar dira. Datu horien gabezia izan da lan honek bidean aurkitu duen beste zailtasunetariko bat. Oso gutxi dira CIES edo EGM enpresen audientzia-neurketak egiten dituzten


euskarazkoak. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin ditu euskara hutsezko inprimatuen sektorea osatzen duten hedabideen audientzia-azterketa osatuenak. 2006 urtean eta 2015ean burutu zituen lanak. Egoera horretan, zaila da euskarazko hedabideen kontsumoak denboran zehar duen bilakaera jarraitzea, eta informazio hori ezinbestekoa da sektorearen beraren ahalik eta argazkirik gardenena izateko eta aldi berean, lehenago azpimarratu bezala, “Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren ebaluazio-zeregina burutzeko. Informazio egokirik gabe ezin delako hausnarketa egin egoeraz eta ezin delako ganorazko erabakirik hartu. Hortaz, komenigarria litzateke euskarazko hedabideen audientziak neurtu eta jarraipena egiteko metodologia zehaztea, eta horrekin batera, erakunde publikoek eta sektoreak erabaki beharko lukete zenbatero egin neurketa. Ondokoa litzateke aukera bat: urte anitzeko diru-laguntza deialdiak egiten baldin badira, 2016-2018 epealdirako egin den bezala, epealdiaren hasieran eta amaieran egin daiteke audientzia-neurketa; horrela hedabide bakoitzak denboran zehar izan duen bilakaeraren argazkia izateaz gain, informazio hori lehen aipatutako datutegian bildu eta kontsumo-adierazlea hornitzeko erabili daiteke.

Bestalde, euskarazkoei beren beregi begira prestatutako audientzia-azterketaren emaitzak irakurtzeko orduan beti presente izan beharko litzateke hedabide bakoitza ezaugarri zehatzak dituen testuinguruan ari dela. Batetik, testuinguru soziodemografikoa (zenbat herritar bizi diren eremu horretan, zein adinekoak, horien indize sozioekonomikoa...), eta bestetik, ezaugarri soziolinguistikoak (zenbat euskaldun, euskaldun hartzaile eta erdaldun dauden, horien banaketa adinaren arabera, zein den euskaldunen lehen hizkuntza edota hizkuntzaren erabilera). Hortaz, audientzia-neurketen emaitzak ezin dira testuingurutik aparte irakurri eta interpretatu. Era berean, ezin daiteke euskal komunikazio-esparrua irudikatu, pentsatu euskarazkoak zein testuingurutan kokatuta dauden eta ari diren aintzat hartu gabe, ez eta mundu zabala altzoan hartzen duen testuinguru globalean gertatzen ari dena aintzat hartu gabe ere.

Euskal esparru komunikatiboa irudikatzea, pentsatzea pendiente dagoen erronka/zeregina da. Horra hor landu beharko litzatekeen beste ikerketa-lerro bat, galdera anitzez horniturik dagoena: nolako komunikazio-esparrua du euskal gizarteak?, horren barne dagoen euskal esparru komunikatiboa nolakoa da?, nolako komunikazio-beharrak dituzte euskal hedabideen erabiltzaileek eta erabiltzaile potentzialak?, nolako politikak garatzen dituzte erakundeek euskal hedabideei begira?, zein ezaugarri eta baldintza izan beharko lituzke euskal esparru komunikatiboak publiko potentzialaren beharrak asebetetzeko? zein ezaugarri eta baldintza izan beharko lituzke euskal esparru komunikatiboak euskararen aurrerabidean modu proaktiboan jokatzeko?, zenbat eta nolako hedabideak behar dira horretarako?, nolako egitura izan beharko luke?, nola garatu eta eraginkortu euskal esparru komunikatiboa?, zein estrategia garatu beharko luke mundu zabaleko mapan presentzia izateko?... Galdera horiei emandako erantzunetatik publikoaren era askotako beharrak (informazioa, entretenimendua, korrelazioa, kultura eta nortasun erreferentzia-marko propioa eskaini, esfera publiko bereizia garatu, hizkuntza berritu eta prestigioa eman...) asebeteko lituzkeen euskarazko hedabideen mapa diseinatu zitekeen, lehentasunak ezarri eta horiek gauzatzeko epeak, ardurak, baliabideak eta abarrak formulatu eta adosten hasi.

Orain arte adierazitako guztia eskema edo irudi batean kokatu daiteke; bertan daude bilduta lanaren egilearen ustez etorkizunean jorratu eta garatu daitezkeen ikerketa-ildoak.

6. irudia. Etorkizunean garatu daitezkeen ikerketa-ildoak.



Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Azkenik, euskara hutsezko hedabide inprimatuen egoerari, erakunde publikoen zereginari eta “Hedabideak” diru-laguntza deialdiari buruzko hausnarketa orokorrak zarratuko du lana. Ikerketan arakatu, jorratu eta aurkeztu den objektuak egilearengan eragin duen inpresio pertsonala da honakoa, guztiz subjektiboa eta izaera horretatik irakurri eta interpretatu behar dena.

7.2.2. EUSKARAZKO HEDABIDEEN EKOSISTEMA OSATZEKO AUKERAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Euskara hutsezko hedabide inprimatuak direnak dira hamaika pertsona, elkarte eta erakundek egindako lanari eta ahalegin-sortzaileari esker. Zerbitzu publiko etengabea eskaintzea da euskarazko idatzizkoen zeregina eta bokazioa, hala nahi duten herritarrek euskaraz informatuak izateko duten oinarrizko eskubidea egikaritzeko tresna eta berme direlako, eta aldi berean, beste euskarri batzuetan hedatzen diren hedabideekin batera, egoera gutxituan dagoen hizkuntzaren normalizazio-prozesuan ekarpena egin dezaketelako. Adierazitako funtzioekin batera, sarri aldarrikatu da hizkuntza-komunitatea kohesionatzeko eta balio eta erreferente propioetatik eraikita dagoen herri-izaera sustatzeko tresna ere badirela.

Bestalde, euskara hutsezko hedabide inprimatuak enpresak dira, abiadura handiko globalizazio-testuinguruak ezarritako baldintzetara bai ala bai egokitu eta aldatu beharrean dauden enpresak. Egokitzeko eta aldatzeko prest egon behar dute etengabe. Testuinguru horrek goitik behera aldatu ditu prentsa sektorean nagusi ziren jarduteko estiloak, kontsumo-ohiturak eta negozio-eredua. Ziurgabetasun handiko garaiak dira, handientzat zein txikientzat. Batetik, ziurgabetasun ekonomikoa. Salmenten, harpidetzen eta publizitatearen beherakadak, inprenta- eta banaketa-kostu altuak eta Internet bidezko produktuak eta zerbitzuak errentagarri egiteko zailtasunak panorama iluna marraztu dute paperezko argitalpenentzat. Bestetik, audientzia-ziurgabetasuna; izan ere, kontsumitzaileek burutzen duten “ebaluazio jarraituak” zehazten du edozein hedabideren geroa eta hedabideentzat zaila da

kontsumitzaileak eskura duen aukera zabalaren aurrean zein hautu egingo duen aurreikustea eta behin hautua eginda, aldekoa bada ere, zenbat denboran eutsiko dion horri jakitea.

Panorama horretan txikien neurria are txikiagoa bilakatzen da eta are agerikoagoak egiten dira horien ahuleziak. Ondorioz, ematen du ez dagoela lekurik ez eta etorkizunik ere hizkuntza-egoera normalizatu gabe duten testuinguruetan ari diren idatzizko hedabideentzat. Eta lekurik baldin badago, izan litekeenera iritsi ezinda aritzera kondenaturik daudela ematen du. Aurretik azaldutako zailtasun guztiei beste batzuk gehitzen zaizkielako, egoera soziolinguistikoarekin eta lehia-zelaiaren ezaugarriekin zerikusia dutenak. Izan ere, euskarazko idatzizko hedabideek publiko mugatua dute eta, bestalde, merkatu geografiko eta sozial txikian ari dira lehian baliabide gehiago dituzten beste paperezko batzuekin; horiek hizkuntza nagusia darabilte eta, gainera, oso errotuta dauden irakurketa- eta kontsumo-ohiturak direla eta, hartzaileen fidelizazio-maila handia dute. Kontuan hartu gaur egun inork ez duela euskaraz kontsumitzen euskaraz delako bakarrik. Euskaldunek beste hizkuntzetan eskaintzen denaren pareko generoa edo hori baino hobea den produktua eskatzen duen audientzia osatzen dute. Eta ez dezagun ahaztu edozein hedabideren izatezko arrazoia eta helburua, lehentasunen artean lehena, irismena dela; hots, audientzia eskuratu eta horri eustea. Audientziarik gabe ez dagoelako hedabiderik.

Zein da orduan irtenbidea? Galderari erantzun baliagarria emateko lehenbizi ezinbestekoa da euskara hutsezko hedabideen sektoreak, horren barne paperezkoak, komunikazio-testuinguru berrian ahalik eta hartzailerik gehienengana iristeko izan ditzakeen aukerak identifikatzea. Etorkizuna aurreikusi eta, posible balitz, horri aurrea hartzea litzateke praktikan jarri beharreko formula. Ez dago zeregina erraztuko duen kristalezko bola magikorik, ezta bidezidorrik ere. Hortaz, bi norabidetara begiratzen duen ahalegina egin beharko da; batetik, hedabide inprimatuen sektorean mundu zabalean eta eremu urriko hizkuntzak dituzten lurraldeetan nagusitzen ari diren joerak, bidean dauden esperientziak eta praktikak bildu eta aztertu; bestetik, hedabideen hartzaileei, publiko potentzialari erreparatu eta horren komunikazio-esparruko

beharrak, kontsumo-ohiturak eta zaletasunak zorrotasunez bildu eta aztertu. Norabide batean zein bestean burutu beharreko ahaleginak behagarria den errealitate bat modu egiaztagarrian eta fidagarrian arakatzea eta azaltzea inplikatzeko du, ondoren erabakiak hartu ahal izateko. Hortxe, beraz, azterketarako eta hausnarketarako aukera ugari eskaintzen dituen zelaia. Zeregin tentagarria eta interesgarria izan daiteke Euskal Herriko unibertsitateetan diren hainbat ikerlari eta ikerketa-taldeentzat. Gainera, zeregina erabat lotuta dago azken gogoetari eskaini zaion tartean dagoeneko proposatu den beste kontu batekin, euskal esparru komunikatiboaren nondik norakoen ikerketa-lerroa garatu eta aberasteko egin den proposamenarekin, hain zuzen ere.

Adierazitakoarekin batera, idatzizko hedabideen sektoreak bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzeko estrategia eta jokaera enpresarial berriak garatu beharko ditu. Finantziarioa da euskarazkoen eguneroko buruhaustea. Eta ez bakarrik urte amaierako balantzean diru-zulorik ez izateko, baizik eta publikoaren beharrei egokitutako produktu bikainak ekoizteko behar diren inbertsioak egiteko aukera izateko. Egun, argi dagoena da aleen salmentan eta publizitate bidez lortutako diru-sarreretan oinarritzen den negozio-eskema zabarrak ez diela paperezkoen arnas nahikoa eskaintzen jarduerari eusteko bi baldintza bermatuz eta hobetuz: ekoizten dituzten produktuen kalitatea eta langileen lan-baldintza duinak. Ez gurean eta ez beste inon. Esandakoa are nabarmenagoa da hizkuntza gutxituetan ari diren idatzizkoetan.

Ikerketan zehar erakutsi da gurean ez dela posible argitalpen inprimatu bat bere kabuz, kanpoko babesik gabe, %100ean finantzatzea. Denek behar dute erakunde publikoen diru-laguntza, eta lanean azaldu denez, hedabide bakoitzak jasotako dirua aurrekontua osatzera bideratzen da, ez hobekuntza edota berrikuntza egitasmoak martxan jartzera. Egoera horretan, konponbidea ez da diru-laguntza handiagoak eskatetik etorriko; batetik, erakundeek jarritako baliabideak mugatuak direlako eta, ondorioz, esleitutako kantitateek ez dutelako aukerarik eskaintzen hedabideek egin nahiko lituzketen inbertsioak gauzatzeko; eta bestetik, diru-laguntzak ezin

daitezkeelako betirako helduleku bilakatu. Hala izateak diru-laguntzekiko menpekotasuna sortzen duelako, ez bakarrik ekonomikoki beregainak izan nahiko luketen hedabideentzat, baita erakunde publikoentzat ere. Euren erabaki-ahalmena neurri batean baldintzatuta, lotuta, mugatuta geratzen da; hizkuntza-politikaren esparruko egitasmo guztiak urte batetik bestera apenas hazten den aurrekontu jakin batekin kudeatu behar dituzte eta, ondorioz, aurrekontuak eta horiek elikatzen dituzten programak (hedabideentzako diru-laguntzak, esaterako) aldatzen ez diren bitartean, ia ezinezkoa da hizkuntzaren normalizazio-prozesuan egingarriak eta onuragarriak izan daitezkeen beste egitasmo batzuk martxan jartzea, ez dagoelako horiek finantzatzeko dirurik. Hortaz, urtero-urtero diru-laguntza programa berberei eutsi behar izateak erabakiak hartzeko hegoak mozten dizkiete erakunde publikoei.

Adierazitakoak adierazita, denbora, baliabideak eta jendea jarri behar dira herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko euskarazko hedabideentzat, ez bakarrik paperezkoentzat, ekonomikoki sostengagarria izan daitekeen eredia aurkitzeko ahaleginean. Aurpegi bikoitzeko hausnarketari atea zabaldu eta ekin behar zaio lehenbailehen: doakotasunaren inguruko gogoeta batetik, eta paperezkoek gizartean jokatu behar duten/beharko luketen rolari buruzkoa bestetik.

Doakotasunari dagokionez, baliagarria eta ezinbestekoa izan zen garai batean, baina ezin zaio horri eutsi gaur egun. Euskarazko hedabide inprimatuen sektoreak erakundeei diru-laguntza handiagoak eskatzeko erabili duen argudio bera helarazi beharko litzaioke publiko potentzialari; hau da, idatzizkoek hizkuntzaren normalizazioan zeregin estrategikoa dutela aldarrikatu dute erakundeen aurrean, diru gehiago eskatzeko; beraz, bada garaia aldarrikapen bera kontsumitzaileekin ere erabiltzeko. Herri-ekimeneko eta ekimen pribatuko euskara hutsezko hedabideen babesa erakundeen ardura eta zeregina izateaz gain, herritarrena ere badelako. Ordaintzeko prest izateak balioan jartzen duelako hedabidea bera eta horrek betetzen duen funtzioa. Hedabide inprimatua kaleratzeak kostu handia du eta beste edozein hizkuntzatan kaleratzen dena eskuratzeko ordaintzen bada, beste horrenbeste gertatu beharko litzateke euskarazkoekin ere. Gurean, euskarazko idatzizko gehienak, bereziki tokikoak, doakotasunari ezkondata izateak ez dio mesederik egiten hedabideari ezta

hizkuntzari ere, bigarren mailako lehentasun, behar eta kontsumo-ondasun bihurtzen dituelako. Hartzaileari, irakurleari hori guztia transmititu behar zaio; hots, funtsezkoa da hedabideetatik zein erakundeetatik pedagogia-lana egitea. Iritsi da hartzaileen atea jotzeko unea, euskarazko hedabideen publikoak horretarako heldutasun nahikoa du eta.

Euskara hutsezko paperezkoek gizartean duten rola da, doakotasunarekin batera, gogoeta sakona behar duen bigarren gaia. Mundu zabaleko inprimatuek aspaldi heldu diote gogoeta horri egoerak behartuta, eta ideia bat nagusitu da: informazioa edonon eta une oro gurekin dagoen globalizazioaren aroan presentzia ziurtatu (egun dituzten irakurleen leialtasunaren bidez) eta lehiatu (irakurle berriak erakarriz) nahi bada, rola birpentsatzeko unea iritsi zaie idatzizkoei. Euskarazkoak berandu dabilta dagoeneko. Egun, teknologia berriei esker gizakiak hartzaile pasibo hutsa izatetik era askotako edukiak sortzeko gaitasunak eta tresnak eskuratzeko jauzia egin du eta garai batean herritarrak paperezkoak kontsumituz lortzen zuen asetasun-maila egun beste euskarri batzuen bidez eskuratu dezake; hortaz, beharrezkoak al dira hedabide inprimatuak informazio orokorra izateko edota gai espezializatu bati buruzko ezagutza jasotzeko?.

Arazoa ez da informazio orokorraren edota espezializatuaren eskariak jaitsiera izan duela; izan ere, inoizko eskaririk handiena dago, baina berau asebetetzeko moduak goitik behera aldatu dira, eta paperak zuen nagusigoa, zentralitatea galdu du. Orduan, zein izan daiteke inprimatuen izatezko arrazoia XXI. mendeko bigarren hamarkada azken hondarretan dagoen honetan? Zein horien egungo zaurgarritasunari irtenbidea emateko alternatiba? Galdera horiei erantzuteaz ari gara idatzizkoen rol publikoari buruzko gogoeta aipatzen denean. Beste horrenbeste hizkuntza gutxituetan kaleratzen direnen kasuan: gaur egun kalitatezko informazioa euskaraz jasotzeko beharrezkoak dira euskara hutsezko paperezkoak?. Eta euskara aurrerabidean jartzeko?. Euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzeko beharrezkoak dira?. Eta hala bada, egun daudenak behar dira ala beste era bateko paperezkoak?. Ekoizten dituzten

produktuak dibertsifikatu eta gutxienez eskualde bateko bizilagunengana iritsi daitezkeenak agian?. Erreferentziatzko multimedia egitasmoak lantzen dituztenak agian?. Merkatu orokorretik bereizi eta beste hizkuntza eta euskarri batzuek eskaintzen ez dutena nortasun propioz lantzen dutenak agian?

Begi bistakoa da planteatutako galderei erantzuteak zailtasuna dakarrela, baina aurrerantzean garatu beharreko ikerketa-lerroak aurkeztu direnean adierazi bezala, heldu egin behar zaie. Eta ez bakarrik hedabideek. Ondoren datozen lerroetan azalduko da euskarazko hedabideentzako laguntzak sustatzen dituzten erakundeek ere badutela galdera horiei guztiei buruzko hausnarketa sakona egiteko premia eta erantzukizuna. Lehenbiziko urratsean hedabideek eta erakundeek, bakoitzak bere aldetik ekin diezaioke hausnarketa-zereginari, eta ondoren, batzuek eta besteek besoz beso elkarlanean jarriz borobildu beharko lukete lana eraginkortasunari eta arrakastari bidea zabaltzeko, erraztu nahi bazaio. Zabaldu, erraztu diogu, eraginkortasuna eta arrakasta ziurtatzerik ez dagoelako.

Erakunde publikoei erantzukizunez jokatzeko dagokie; hau da, erabilgarri dituzten baliabideekin gizartearen ongizaterako politika egokiak, eraginkorrak burutzea eta horien jarraipena, ebaluazioa egitea. Horixe kudeatutako edozein arlotan duten obligazioa, baita hizkuntza-arloan ere. Beraz, hizkuntza gutxituetako hedabideek hizkuntza horren garapenean ekarpena egin dezaketela onartzen bada, eta horrekin batera, hizkuntza gutxitua duen komunitateko kideek informazioa nahi duten hizkuntzan jasotzeko eskubidea dutela onartzen bada, orduan logikoa litzateke pentsatzea gobernu-ardura duen erakunde publikoak kuantitatiboki zein kualitatiboki aberatsa den hizkuntza gutxituko hedabideen eskaintza bermatu eta sustatu beharko lukeela; hedabide publikoak sortuz eta hizkuntza gutxituan ari diren herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko hedabideak lagunduz, hala beharko balute.

Ikerketa honetan erakutsi da Eusko Jaurlaritzak zeregin bikoitzari ekin diola Autonomia Estatutua onartu zenetik. Batetik, ikus-entzunezko publikoak jarri zituen martxan (EITB), eta bestetik, diru-laguntzak bideratu ditu urtero beste gizarte-eragile edo enpresa batzuek bultzatu eta sortutako euskarazko hedabideentzat. Baina Jaurlaritzak ez du esleitutako diru-laguntzen ebaluaziorik egin; beraz, ez dago jakiterik

burututako politika eraginkorra izan den ala ez, helburuak bete dituen ala ez, hedabideak sendotu, garatu, normalizatu eta, garrantzitsuena dena, euskararen biziberritzeari begira eraginkortu dituen ala ez. Ezin da ahaztu laguntza-egitasmoaren azken xedea hizkuntzan eragitea dela, euskarazko hedabideen irismena handituz eta hartzaile berriak erakarriz. Lanean aurkeztu diren datuen eta Delphian jasotako ekarpenen arabera, argi geratu da laguntza publikoak ezinbestekoak direla euskarazkoen sektorearentzat, baina laguntzen tamainak irauteko balio izan diela eta ez garapen iraunkorrerako bidean jartzeko.

Egoera horri irtenbidea emateko bi aukera daude; lehena, sektoreak behin eta berriz eskatu duena; hots, laguntzetarako poltsa handitzea. Baina irtenbide horrek hainbat zalantza planteatzen ditu: zein da euskarazko hedabideen sistemak behar duen diru-kopuru minimoa osasuntsu jarduteko, ikusgai bilakatzeko eta hartzaile berriak bereganatzeko? zenbat diru gehiago jarri beharko litzateke horretarako? eta gehiago jarrita ziurtatuko litzateke euskarazkoek irismenean aurrera egingo luketela? hizkuntzari begira eraginkortuko lirateke?. Bigarren aukerak orain arteko jokabidea alde batera utzi eta beste era bateko politika sustatzea ekarriko luke, diru-laguntzak esleitzera mugatzen ez den politika, euskarazko hedabideak hizkuntza-politikaren mesedetan era proaktiboan jardun dezaten ahalbidetuko lukeena.

Aldarrikatutako politika martxan jartzeko oinarrizko kontu garrantzitsu bat izan beharko litzateke presente. Erakunde publikoek (Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek) ez dute diru-laguntzak eskaintzeko obligazioa eta dirua jasotzea ez da hedabideen betiereko eskubidea. Baieztapen horrek hautsi egiten du gurean oso barneratuta izan den pentsaera eta jokatzeko dinamika. Izan ere, ikerketan azaldu bezala, euskarazko hedabideen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremana diru-emaile//diru-hartzaile logikan oinarrituz garatu da denboran zehar eta logika hori guztiz errotuta geratu da. Hedabideek eskubide moduan hartu dute urtero diru-laguntza jasotzea eta erakundeek euren kabuz erabaki dute laguntzak zein norabidetan eta zein irizpideren arabera banatu. Funtzionamendu-logika hori ontzat eman

daiteke emaitzek laguntzen dutenean, baina ez da gure kasua. Diru publikoaren onuradun izan diren hedabideak ez dira sendotu, garatu eta normalizatu, sektoreak eta erakundeak bat etorri ezinda ibili dira eta garrantzitsuena dena, lagundutako hedabide inprimatuek, oro har, ez dute irismenean aurrera egin. Egoera horretan, nekez egingo diote ekarpen esanguratsua euskarari. Eta horixe da beste ezeren aurretik presente izan beharrekoa: diru-laguntzak hizkuntza-politika gauzatzeko tresna dira. Beraz, herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko euskarazko hedabideentzako jarritako diru publikoa ez da betiereko eskubide, baizik eta arnas luzeko hizkuntza-plangintza burutzeko estrategia zabal baten osagaia. Eta hizkuntza-plangintzak eraginkortasuna du xede eta erronka; hau da, hiztun, erabiltzaile, irakurle, ikus-entzule, kontsumitzaile berriak euskarara erakartzea.

Hortaz, esandakotik abiatuta, Jaurlearitzak hizkuntzaren biziberritzean eraginkorrak izan daitezkeen euskara hutsezko hedabideen mapa pentsatu eta diseinatu beharko luke beste ezer baino lehenago. Hizkuntza-politikaren esparruan zehaztuta dituen erronkak eta zereginak burutzen eta hizkuntza-komunitatearen beharrak asebetetzen lagunduko lukeen hedabide-testuingurua diseinatzeaz ari gara. Bere kontura egin dezake lana, baina hobeto legoke prozesuan sektoreko eragileek parte hartuko balute eta emaitza adostutakoa balitz.

Diseinu-zereginak lehentasunak ezartzea inplikatu du, Euskal Herrian egun ez delako bideragarria euskaldunak dauden txoko guztietan euskara hutsezko hedabideen hornikuntza osoa (hizkuntza nagusian dagoen bestekoa eta euskarri guztietan) bermatuko lukeen eskaintza izatea. Hobeto esateko, hornikuntza osoa aurreikusten duen hedabideen mapa diseinatu daiteke eta izan ere izan daiteke, baina zaila litzateke horiek guztiak sendotzeko, garatzeko eta normalizatzeko behar duten besteko diru publikoz laguntzea. Beraz, hizkuntza-politikan aurreikusitakoa egikaritzeko zeintzuk diren ezinbestekoak erabaki beharko litzateke, eta erabakitzeak, berriro ere, oinarri oinarrizkoak diren galderari erantzutea dakar: euskararen lurralde geografiko osoan zabaltzen den egunkaria/k behar da/dira? eta eskualdeetako egunerokoak? eta informazio orokorreko aldizkariak? eta informazio espezializatuko

argitalpenak? eta tokian tokikoak? eta horien artean denak ala eskualde-eremuan banatzen direnak? eta euskaldun asko baina oso sakabanatuta, atomizatuta dituzten eskualdeetan behar dira? eta aurretik aipatutakoak paper euskarrian behar dira ala Internet bidezko hedabideak, hau da, euskarazko informazio orokorra, tokikoa, espezializatua sarean eskuragarri jartzen dutenak lehenetsi behar dira? eta irratien eta telebisten kasuan? Azken batean, planteatutako galdera guztiak bakar batean bildu daitezke: zein eratako hedabideetan oinarrituta eraikiko litzateke euskararen eta euskal hiztunen zerbitzura, horien mesedetan jardungo lukeen hedabideen ekosistema?.

Agerikoa da euskarazko hedabideek euskal gizartean bete beharreko rola inguruko hausnarketari ekin behar diotela argudiatu denean azaleratu diren galderak errepikatzen direla hedabideen maparen diseinuari ekiteko orduan. Ezin bestela izan eraginkorra bilakatu daitekeen mapa osatu eta eraikitzeko. Eta galderei ganoraz erantzuteko orainari baino etorkizunak ekarri lezakeenari erreparatu beharko liokete erakundeek eta sektoreak; hots, testuinguru demografikoak, sozioekonomikoak eta soziolinguistikoak izan dezakeen bilakaera aurreikusteko saioa eginez erantzuten ahalegindu. Proiekzio demografikoen eta soziolinguistikoen arabera, biztanleriaren beherakada eta zahartzea gertatuko da, baina aldi berean, euskaraz ulertu eta hitz egiteko gai direnek pisua irabaziko dute biztanleria osoarekiko. Hortaz, zenbaki absolututan kontsumitzaile gutxiago izango da. Horrez gain, gaur egun euskararekiko eta euskarazko produktuen kontsumoarekiko atxikimendurik handiena agertzen duen populazio-taldearen pisua eta presentzia urrituz joan daiteke eta euskarazkoen mundura etorri daitezkeen berriek kuantitatiboki haziz joango diren arren, paperezkoak ez diren beste euskarri batzuetara jo dezakete, agian egun oraindik ezagutzen ez ditugun teknologia edo plataformen bidez hartuko dituzte hedabideen edukiak eta zerbitzuak. Horregatik, berebiziko garrantzia du oso aldakor datorren eszenatokian euskarazko hedabideek, eta horren barne inprimatuek, zer paper eta nola (zein euskarritan eta zein eduki eta enpresa-egiturarekin) jokatu beharko luketen argitzea. Eginbeharra burutzeko modurik egokiena hedabideen eta erakunde

publikoen arteko harreman eraikitzailea eta iraunkorra elikatzea litzateke, batzuek eta besteek gogoeta partekatzea, batzuen eta besteen ekimena eta baliabideak txirikordatzat jotzea.

Arestian esandako guztiaz jakitun dira euskarazko hedabideen sektorean zein administrazioan/etan. Ikerketan emandako azalpenak, bereziki Delphi bidez jaso eta bildu diren ekarpenak erreparasatzea baino ez dago horretaz ohartzeko. Etorkizunera begira zehaztu dituzten erronka guztiak xede nagusi bati loturik daude: euskara hutsezko hedabideen merkatu sendoa, ekosistema osoa sortu eta garatu. Xede hori egikaritzeko funtsezkoa da ekosistema horrek (mapak) izango lituzkeen osagaiak eta ezaugarriak identifikatu eta adostea. Eginbeharrak ez du zertan zerotik abiatu, egun badagoelako hedabideen mapa bat, argi-ilunak dituen, zabalkundeari eta irismenari dagokionez oraindik hutsune handiak dituen, baina egungoari lupapean jarri eta azterketa sakona egin behar zaio, dagoena ordenatzeko eta falta dena osatzeko.

Behin lan hori eginda, hedabideen esparruan hizkuntzaren normalizazioari begira behar-beharrezkotzat jotzen diren euskarazkoek erakundeetatik jasoko luketen babesaren nondik norakoak ere erabaki eta adostu beharko lirateke. Babesa era anitzean gauzatu daitekeen arren (sustapen-kanpainak martxan jarriz edota publizitate bidez, esaterako), ikerketan erakutsi da euskaraz ari diren herri-ekimeneko edota ekimen pribatuko hedabideentzat diru-laguntzak ezinbesteko finantziatio-iturri direla; ondorioz, erakunde publikoen erantzukizuna da euskarazko hedabideetan inbertsio eraginkorrak egitea.

Inbertsio bat eraginkorra da ezarritako helburuak erdiesteko balio duenean, eta horrekin batera, onuradunari aukera ematen dionean erakunde publikoak eskainitako babesetik askatu eta beregaina izateko. Beraz, aldiroko diru-laguntza deialdien bidezko sistemari eutsi nahi bazaio eta horiek emaitzei begira eraginkorrak izatea nahi bada, funtsezkoa da eraiki nahi den mapa edo ekosistema garatu eta sendotzeko behar besteko diru-baliabidez hornitzea, helburuak argi formulatzea, ebaluaziorako adierazleak ezartzea eta esleipenak egiteko bi eratako balorazio-irizpideez baliatzea; batetik, hedabide bakoitzaren enpresa-ezaugarriak eta merkaturatzen duen produktuaren bilakaera aztertuko duten balorazio-irizpideak; eta bigarrenik, laguntza

eskatu duen hedabideak kontsumitzaileen aldetik duen harrerari begirakoak; hau da, nagusiki audientziak, baina ez bakarrik kuantitatiboki zenbatuta, baizik eta, horrekin batera, audientziaren nolakotasunari erreparatuko litzaioke, ezin direlako parekatu, adibidez, gune soziolinguistiko oso euskaldunean edo gune erdaldunean ari diren hedabideak.

Bestalde, garrantzitsua litzateke euskarazko hedabideak babesten dituzten erakunde publikoen arteko koordinazioa sendotzea. Orain arte, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek, bakoitzak bere aldetik erabakitzen du zer eta nola egin. Eraginkortasunaren izenean, hobe litzateke zeregina besoz beso lan eginda burutzea, zer egin eta nola egin denen artean erabaki eta adostea.

Ikerketa zarratzeko azken gogoeta honetan, bada behin eta berriz erabili den hitza: eraginkorra. Euskara hutsezko hedabide inprimatuen eta erakunde publikoen jardunari aplikatu zaio. Ikuspegi ekonomiko hutsetik landuta, eraginkortasuna ekimen edo egitasmoaren errentagarritasuna litzateke, kostu- eta irabazi-ratioen bidez adierazita; hortaz, eraginkorra litzateke diru-irabaziak dituen ekimena edo egitasmoa. Baina gurean beste bi kontzepturen arteko harreman gisa ulertzen da eraginkortasuna: batetik, ekimena edo egitasmoa gauzatzeko erabilgarri diren baliabideak (ekonomikoez gain, giza baliabideak, horien lan-baldintzak, jarduera- eta kudeaketa-erak, berrikuntza teknologikoak, harremanak testuinguruarekin), eta bestetik, nahi edo espero den ondorioaren, emaitzaren lorpen-maila. Bi kontzeptu horien arteko harremanak porrot egin dezake bata besteari beharko lukeen neurrian egokitzen ez zaionean; hau da, lortu edo nahi den emaitza eskuratzeko baliabideak kuantitatiboki edota kualitatiboki eskasak direlako (kasu horretan, ezarritako baliabideekin ezinezkoa litzateke aurreikusitako emaitza lortzea), eta bigarrenik, lortu nahi diren emaitzak, ondorioak zehaztugabeak edo mugagabeak direlako. Hortaz, funtsezkoa da baliabideek eta emaitzek, bakoitzak neurri egokia izatea. Eta hala izanda ere, ez dago emaitza ziurtatzerik. Baliabideak handitzeak eta hobetzeak eta lortu edo espero dena ondo zehaztuta, mugatuta izateak ez du eraginkortasuna bermatzen. Helburua lortzeko bidean jar dezake, baina, esan bezala, ez du arrakasta ziurtatzen.

Azken hitz hauek idazteko unean ikusteko dago informazioaren eta komunikazioaren sektoreak zein bide hartuko duen, zein errealitate berri iritsiko den, zein harreman-oreka nagusituko den. Etorkizunera begira ziurtatu daitekeen kontu bakarra dago: euskaraz bizi nahi duen herritarrak idatzizko eta ikus-entzunezko edukiak eskatzen, ekoizten eta kudeatzen jarraituko du. Ahots propioarekin arituko da eskura dituen tresnak, baliabideak eta gaitasunak erabiliz. Eta egun, den dena du eskura. Ez bakarrik euskaraz, baina euskaraz ere bai. Ziur. Beraz, euskaraz bizitzeko guraria eta eskubidea egikaritu ahal izateko, euskal esparru komunikatibo sendo eta zabala beharko da. Izan daiteke gaur egun dugunaren antzekoa izatea edo dagoenarekin inolako zerikusirik ez izatea. Edozein kasutan, berau osatu, antolatu, eraiki eta elikatzeko erantzukizuna herritarrena, gizarte-eragileena eta erakunde publikoena da. Bakoitzak bere aldetik jarduteko garaiak iragana dira; orain ordea, erronkari lankidetzatik eta desadostasunak adostasun bilakatzeko ahalmenetik ekiteko sasoia heldu da. Gaur bihar baino hobeto.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

8. BIBLIOGRAFIA

8.1. LANEAN AIPATU ETA KONTSULTATU DIREN ERREFERENTZIAZKO ITURRI BIBLIOGRAFIKOAK

- AED (arg.) (1991). *Prentsa lokalari buruzko I. Ihardunaldiak*. Arrasate: AED.
- AEDE (arg.) (2014). *Libro blanco de la prensa diaria 2014: estudios sobre los medios de prensa escrita desde las ópticas empresariales, tecnológicas, legales, éticas y de contenidos*. Madrid: Asociación de Editores de Diarios Españoles.
- AGER, Dennis (2001). *Motivation in language planning and language policy*. Clevedon: Multilingual Matters.
- AGIRREAZALDEGI, Alberto (1993). Euskarazko herri-aldizkari bat zure herrirako. In ARKO (arg.), *Herri komunikabideei buruzko II Jardunaldiak*, 5-14. Arrasate: ARKO.
- AIESTARAN, Alazne (2004). Euskarazko prentsa elkarlanerako estrategien bila. *Uztaro: giza eta gizarte zientzien aldizkaria*, 49, 45-57. Hemendik jaso: <http://bit.ly/wgesfm>.
- AIESTARAN, Alazne (2007a). *Deba Barreneko euskarazko komunikazio sistema: tokian tokiko aldizkariaren kazetaritza-genero eta gaien analisia 2000-2004 bitartean*. Leioa: UPV/EHU. [Doktorego-tesia]. Hemendik jaso: <http://bit.ly/AauKCO>.
- AIESTARAN, Alazne (2007b). Debarreneko euskarazko komunikazio-sistema. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 62, 81-97.
- AIESTARAN, Alazne (2010). Euskarazko herri-prentsaren irakurleen profila aztergai. *Uztaro: giza eta gizarte zientzien aldizkaria*, 74, 37-50.
- AIESTARAN, Alazne (2011). Euskarazko tokian tokiko prentsaren eduki analisi konparatiboa: Debarreneko azterketa. *ZER aldizkaria Vol. 16, 31*, 203-223.
- ALBARRAN, Alan B. (2002). *Media economics: Understanding markets, industries and concepts*. Ames, IA: Iowa State Press
- ALBARRAN, Alan B. (2010). *Media Economy*. Oxon (UK):Routledge.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

- ALBERICH, Tomás (2000). *Perspectivas de la investigación social*. In Tomás R. Villasante, Manuel Montañés eta Joel Martí (koord.), *La investigación social participativa. Construyendo ciudadanía*, 59-72. Barcelona: El Viejo Topo.
- ALKORTA, Lierni eta ZUBEROGOITIA, Aitor (2009). *Masa-komunikaziotik informazioaren gizartera. Euskararen bideetan barrena*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- ALONSO, Luis Enrique (1998). *La mirada cualitativa en sociología*. Madrid: Fundamentos.
- ALONSO, Luis Enrique (2015). La entrevista abierta como práctica social. In Manuel García Ferrando, Francisco Alvira, Luis E. Alonso eta Modesto Escobar (bil.), *El análisis de la realidad social*, 390-417. Madrid: Alianza Universidad.
- ALVAREZ-GAYOU, Juan Luis (2003). *Cómo hacer investigación cualitativa. Fundamentos y metodología*. Barcelona: Paidós.
- ALVIRA, Francisco (1991). *Metodología de la evaluación de programas*. Madrid: CIS.
- ALVIRA, Francisco (1997). *La evaluación de programas. Un enfoque práctico*. Buenos Aires: Lumen-Humanitas.
- ALVIRA, Francisco (2000). Metodología de la evaluación: la lógica de la evaluación. In AAVV. *Evaluación y calidad de las organizaciones públicas*, 231-238. Madrid: INAP.
- ALVIRA, Francisco eta AGUILAR, M^a José (2015). La evaluación de las intervenciones sociales: proyectos, programas y políticas. In Manuel García Ferrando, Francisco Alvira, Luis E. Alonso eta Modesto Escobar (bil.) (2015), *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*, 270-294. Madrid: Alianza Universidad.
- AMEZAGA, Josu (1998). *Komunikazioa eta gizartea*. Gasteiz: Txalaparta.
- AMEZAGA, Josu (2009). Talde nortasunak eta komunikabideak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 72, 41-50.
- AMEZAGA, Josu (2014). Hizkuntza gutxituak komunikazio espazio nazionalen aldaketen aurrean. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 92-93, 49-66.
- AMEZAGA, Josu (2017). Komunikazio espazioaren garrantzia naziogintzaren erronkaren aurrean. In Iñaki Irazabalbeitia (arg.), *Nola sortu espazio komunikatibo komuna Euskal Herrian?*, 14-49. Iruñea: Ezkeraberi Fundazioa.

- ANAITASUNA (1981). *Euskal Irrati telebista: Gobernu eta EHE mintzo*. 415 zk. 10-13, (1981eko azaroa).
- ANDERSON, Benedict (1993). *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*. Vol. 1983. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.
- ANONBY, Stan J. (1999). Reversing language Shift: Can Kwak'wala Be Revived. In Jon Reyhner, Gina Cantoni, Robert St. Clair eta Evangeline Parsons (arg.), *Revitalizing Indigenous Languages*, 33-52. Flagstaff, Arizona: Northern Arizona University.
- ARANA, Goio (1998). Diseinuan ere kalitatea. In ARKO (arg.), *Herri komunikabideei buruzko III. jardunaldiak*, 15-25. Arrasate: ARKO. Hemendik jasoa: <http://bit.ly/MvF9wR>.
- ARANA, Edorta; AMEZAGA, Josu; AZPILLAGA, Patxi (2010). *Euskarazko hedabideak*. Bilbo: UPV/EHU.
- ARANA, Goio eta ZUBEROGOITIA, Aitor (2012). Goiena Komunikazio Taldea: tokiko talde multimedia baten kasu-azterketa. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 83, 71-89.
- ARANBERRI, Luis Alberto (1982). Prentsa idatziaren arazoak. *Jakin aldizkaria*, 22, 70-82.
- ARANGUREN, Asier (1999). *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*. Leioa: UPV/EHU. [Doktorego-tesia].
- ARANTZABAL, Iban. (2005). Kazetari multimediarren bidea. *Mediatika, Cuadernos de Medios de Comunicación*, 11, 265-269. San Sebastián: Sociedad de Estudios Vascos.
- ARANTZABAL, Iban (2008). Tokiko hedabideek etorkizun handia dute. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 68, 103-114.
- ARANTZABAL, Iban (2011). Irigoienazpikoa egitasmoa. Hizkuntza ez-hegemonikoetarako jakintza gunea. In *Hizkuntza ez hegemoniko edo maila ertainekoak hedabideetan eta IKTetan*, 190-218. Andoain: Andoaingo Udala.
- ARANTZABAL, Joxe (1990). Euskal komunikabideak Arrasaten. *Jazten*, 3, 13-17.
- ARANTZABAL, Joxe (1992). Herri-aldizkari baten taxuketa. *Jakin aldizkaria*, 69, 67-80.
- ARANTZABAL, Joxe. (2000). Euskarazko herri prentsaren bilakaera. In Mikel Irizar, *Goiena esperientzia. Eskualdeko multimedia talde baten sorrera* [txostena], 5-11. Arrasate: Goiena. Hemendik jasoa: <http://bit.ly/KXEmD4>.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

ARGIA (1988). Euskal prentsak 100 urte bete ditu. In *1987. Euskal kulturaren urtekaria*. Donostia: Argia.

ARKO (arg.) (1993). *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*. Arrasate: ARKO.

ARKO (arg.) (1998). *Herri komunikabideei buruzko III Jardunaldiak*, Arrasate: ARKO.
Hemendik jasoa: <http://bit.ly/U81mTw> .

ARREGI, Iñaxio (2003). Goiena multimedia proiektua: ametsetik errealitatera. In *Askoren artean: Tokiko hedabideak etorkizunera begira, III Jardunaldiak*, 139-151. Abadiño: Topagunea Euskara Elkarten Federazioa.

ARREGI, Joseba (1999). Euskarazko komunikabideak. Normalak?. *Eusko News & Media*, 26. Hemendik jasoa: <http://www.eusko News.com/0026zBK/gaia2601eu.html>

ARRIAGA, Mikel eta PÉREZ SOENGAS, José L. (2000). *La prensa diaria en Euskal Herria (1976-1981)*. Leioa: UPV/EHU.

ARRIETA, Deiane (2005). Arrasate Press: Hamasei urte tokiko prentsaren aitzindaritzan. In *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*, 155-162. Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua, Bilbo, 2004ko azaroa. Bilbo: UPV/EHU.

ARRIETA, Mikel; BASTERRETXE, Jose Inazio; GONZÁLEZ, María. et al. (arg.) (2005). *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*. Bilbo: UPV/EHU.

ASCENCIO, Milton (2013). La preservación de un idioma: ¿a partir de una política o una planificación lingüística? In *Teoría y Praxis*, 23, (ekaina-abendua), 23-40.

ASKOREN ARTEAN (1982). Euskara eta prentsa. (Luis Alberto Aranberri Amatiño, Jose Félix Azurmendi, Joxe Azurmendi, Jose Mari Otermin, Jesus Mari Zalakain eta Joan Mari Torrealdairen arteko mahai-ingurua). In *Jakin* aldizkaria, 22, 105-123.

ASKOREN ARTEAN (1991). *Euskal Kazetarien Jardunaldiak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ASKOREN ARTEAN (1992). Euskal prentsa lokalaren problematika. *Jakin* aldizkaria, 69, 51-66.

ASKOREN ARTEAN (2003). *Tokiko Hedabideak Etorkizunera Begira. III. Jardunaldiak*. Abadiño: Topagunea Euskara Elkarten Federazioa.

ASKOREN ARTEAN (2009). *El fin de los periódicos. Crisis y retos del periodismo actual*. In Arcadi Espada eta Ernesto Hernández Busto (arg.). Barcelona: Duomo.

- ASKOREN ARTEAN (2010). *Política y medios de comunicación: reflexiones poliédricas sobre una relación compleja*. Hemendik jaso: <https://addi.ehu.es/bitstream/10810/15572/1/UVWEB104344.pdf>
- ÁVILA, Héctor L. (2006). *Introducción a la metodología de la investigación*. Edición electrónica. Hemendik jaso: <http://biblioteca.udgvirtual.udg.mx/eureka/pudgvirtual/introduccion%20a%20la%20metodologia%20de%20la%20investigacion.pdf>
- AZTIKER (2008). *...Eta kitto! aldizkaria: Irakurleak eta iritzia*. Eibar, 2008. Ikerketaren emaitzen txostena, Andoain.
- AZTIKER (2008). *Aikor! aldizkaria: Irakurleak eta iritzia*. Txorierrri, 2008. Ikerketaren emaitzen txostena, Andoain.
- AZTIKER (2009). *Aldaize aldizkaria: Irakurleak eta iritzia*. Idiazabal, 2009. Ikerketaren emaitzen txostena, Andoain.
- AZTIKER (2009). *Barren Aldizkaria: Irakurleak eta iritzia*. Elgoibar eta Mendaro, 2009. Ikerketaren emaitzen txostena, Andoain.
- AZTIKER (2009). *Karkara Aldizkaria: Irakurleak eta iritzia*. Eibar, 2009. Ikerketaren emaitzen txostena, Andoain.
- AZURMENDI, M. Jose; BACHOC, Erramun eta ZABALETA, Francisca (2001). Reversing language Shift: the case of Basque. In Joshua A, Fishman (arg.) *Can Threatened Languages Be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*, 234-259. Clevedon (UK): Multilingual Matters.
- AZURMENDI, Nerea (2003). Euskarazko prentsa: estrategia zehatzak eta elkarlanerako proposamenak. In *Tokiko hedabideak etorkizunera begira. III Jardunaldiak*, 37-38. Abadiño: Topagunea Euskara Elkarten Federazioa.
- AZURMENDI, Nerea (2004). *Ramon Labaien. Euskal telebista, hutsean sortua*, Andoain: Andoaingo Udala.
- BALLART, Xavier (1992). *¿Cómo evaluar programas y servicios públicos?. Aproximación sistémica y estudios de caso*. Madrid: INAP.
- BARKER, Martin eta BEEZER, Anne (arg.) (1994). *Introducción a los estudios culturales*. Barcelona: Bosch comunicación.
- BASTERRETxea, Jose Inazio (2002). *Kultura aniztasuna eta gizarte-komunikazioa*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

- BASTERRETxea, Jose Inazio (2008). Sektorea sinergia argiaren esperoan. In Askoren artean, *Euskara hedabideetan*, 123-141. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza-Kultura Saila.
- BAZTARRIKA, Patxi (2006). Press subsidies in the Basque Country. In Isabel Fernández Alonso [et al.], *Press Subsidies in Europe*, 175-184. Barcelona: Departament de la Presidència de la Generalitat de Catalunya.
- BAZTARRIKA, Patxi (2009). *Babeli gorazarre*. Irun: Alberdania.
- BAZTARRIKA, Patxi (2011). Zilegitasuna eta eraginkortasuna: hizkuntza-politika demokratikoaren habeak. In *Hermes, pentsamendu eta historia aldizkaria*, 36, 14-21. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa.
- BEHATEGIA (2015). *Euskal Hedabideen Urtekaria*. Hemendik jaso: <http://es.calameo.com/read/004658080487aa2d24773>
- BEHATEGIA (2016). *Euskal Hedabideen Urtekaria*. Hemendik jaso: <http://behategia.eus/wp-content/uploads/2016/02/Urtekaria-2016.pdf>
- BELTRÁN, Miguel (1985). Cinco vías de acceso a la realidad social. In *Revista española de investigaciones sociológicas*, 29, 7-41.
- BELTRÁN, Miguel (1986). Cuestiones previas acerca de la realidad social. In Manuel García Ferrando, Jesús Ibáñez eta Francisco Alvira: *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación social*, 17-42. Madrid: Alianza.
- BELTRÁN, Miguel (1991). *La realidad social*. Madrid: Tecnos.
- BENNETT, Tony (1997). Towards a Pragmatics for Cultural Studies. In Jim McGuigan, (arg.), *Cultural Methodologies*, 42-61. London: Sage.
- BERGANZA, María Rosa eta RUIZ José A. (koord.) (2005). *Investigar en comunicación. Guía práctica de métodos y técnicas de investigación social en comunicación*. Madrid: Mc Graw Hill.
- BERGER, Peter L. eta BERGER, Brigitte (1976). *Sociology: a biographical approach*. Revisited edition. Harmondsworth: Penguin Books.
- BERGER, Arthur A. (1998). *Media research techniques*. Thousand Oaks CA: Sage
- BEVAN, David (1984). The Mobilization of Cultural Minorities: The Case of Sianel Pedwar Cymru. *Media, Culture and Society*, Vol. 6, 103-117.

- BLASCO GIL, José J. (2008). Las ayudas públicas a la prensa en la Comunidades Autónomas españolas en 2007: tipología, cuantía de las subvenciones y sistemas de adjudicación. *Telos: Cuadernos de Comunicación e Innovación*, 75, 95-103.
- BLASCO GIL, José J. (2013). Les polítiques de comunicació. In *Informe de la comunicació a Catalunya 2011-2012*, 217-233. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- BLUMLER, Jay G. (1985). The Social Character of Media Gratifications. In Karl E. Rosengren et al. (arg.), *Media Gratification Research: Current Perspectives*, 41-59. London: Sage.
- BLUMLER, Jay G. eta KATZ, Elihu (bil.) (1974). *The Uses of Mass Communication*, Beverly London: Sage Publications.
- BONDEBJERG, Ib eta GOLDING, Peter (arg.) (2004). *European Culture and the Media*. Bristol: Intellect.
- BORGES, Jorge L. (1997). *El libro de arena*, Madrid: Alianza.
- BOURHIS, Richard Y.; GILES, Howard eta ROSENTHAL, Doreen (1981). Notes on the construction of a subjective vitality questionnaire for ethnolinguistic groups. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, Vol. 2, 145-155.
- BOURHIS, Richard Y. (2002). Espainiako Konstituzioarekin euskara mugatua dago. In *Argia* aldizkaria, 1.861 zk. 16-19.(Xabier Letona eta Kike Amonarrizen elkarrizketa).
- BRADLEY, David eta BRADLEY, Maya (arg.) (2001). *Language endangerment and language maintenance: introduction*. New York: Routledge.
- BRIGGS, Asa eta BURKE, Peter (2002). *A social History of the Media. From Gutenberg to the Internet*. Cambridge: Polity Press. Gaztelaniaz: *De Gutenberg a Internet. Una historia social de los medios de comunicación*. Madrid: Taurus.
- BROWNE, Donald R. (1992). Radio in Gaeltachta: Reviver, Preserver or Swan Song of the Irish Language?. In *European Journal of Communication*, Vol.7, 415-433.
- BROWNE, Donald R. (1996). *Electronic Media and Indigenous Peoples: A Voice of Our Own?* Ames, IA: Iowa State University Press
- BROWNE, Donald R. eta URIBE-JONGBLOED, Enrique (2013). Introduction: Ethnic/Linguistic Minority Media- what their history reveals, how scholars have studied them and what we might ask next. In Elin H. G. Jones eta Enrique Uribe-Jongbloed Enrique (arg.), *Minority Languages and Social media: Participation, Policy and Perspectives*, 1-28. Bristol: Multilingual Matters.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

BURGUEÑO, José M. (2011). La metamorfosis de la prensa. Hacia un nuevo modelo periodístico. *Telos: Cuadernos de comunicación e innovación*, 86, 87-97.

BURGUESS, Robert G. (1984). *In the field*. Londres: Allen & Unwin

BUSCH, Brigitta (2001): The Virtual Square. In Christopher Moseley, Nicholas Ostler eta Hassan Ouzzate (arg.), *Endangered languages and the media in Minority Languages in the Process of Media, Diversification and Globalization-An Example from Southern Carinthia (Austria)*, 35-39. Paper presented ant the Fifth Conference of the Foundation for Endangered Languages (FEL). Agadir, Morocco, September 20-23, 2001.

CAGÉ, Julia (2016). *Salvar los medios de comunicación*. Barcelona:Anagrama.

CAMACHO, Idoia (2002a). *Herri aldizkarien funtzioa euskara normaltzeko prozesuan (1989-1999)*. Bilbo: UPV/EHU. [Doktorego-tesia]. Hemendik jaso: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Idoia_Camacho_Markina.pdf

CAMACHO, Idoia (2002b). Herri aldizkarien funtzioak hirugarren milurtekoaren atarian. *Uztaro, giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 43, 67-85.

CAMACHO, Idoia (2004). Hurbileko informazioaren definizioa eta funtzioak. Euskarazko herri aldizkarien azterketa. *Mediatika, Cuadernos de Medios de Comunicación*, 11, 199-216.

CAMINAL, Ramón (2011). Llengua catalana, mitjans i mercat. In *Informe de la comunicació a Catalunya 2009-2010*, 323-329. Barcelona: Generalitat de Catalunya.

CARLIN, John (2009). El momento crucial. In *El País*, 2009-05-10.

CASTELLS, Manuel (1997). *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. El poder de la identidad*. Madrid: Alianza.

CASTELLS, Manuel (2005). *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. La sociedad red*. Madrid: Alianza.

CASTELLS, Manuel (2009). *Comunicación y poder*. Madrid: Alianza.

CEA D'ANCONA, M^a de los Ángeles (1999). *Metodología cuantitativa: estrategias y técnicas de investigación social*. Madrid: Síntesis.

- CHALMERS, Douglas; DANSON, Mike; LANG, Alison eta MILLIGAN, Lindsay (2013). The Contribution of BBC ALBA to Gaelic : A Social and Economic Review. In Elin H.G. Jones eta Enrique Uribe-Jonbloed (arg.), *Social media and minority languages. Convergence and the creative industries*, 212-223. UK: Multilingual Matters.
- CIES (1990): *Euskarazko aldizkako argitalpenak edo aldizkariak. Euskarazko Egunkaria*.
- CIES (2014). 30 urte ikus-entzuleen kopuruak neurtzen (1984-2013). Hemendik jaso: <http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DBKVisorBibliotecaWEB/visor.do?ver&amicus=672488>
- CIES (2015). *Estudio de la Audiencia de Medios de Comunicación en la C. A. de Euskadi y Navarra*. Iruñea: CIES. Hemendik jaso: www.ciessler.com [Kontsulta: 2016-03-12]
- CLÉMENT, Richard; BAKER, Susan C.; JOSEPHSON, Gordon eta NOELS, kimberly A. (2005). Media effects on ethnic identity among linguistic majorities and minorities: a longitudinal study of a bilinngual setting. *Human Communication Research*, 31(3), 399-422.
- CLUSTER DEL CONOCIMIENTO (2001). *Hacia la mejora de la gestión pública: una reflexión sobre la evaluació de programas*. Bilbao: Cluster del Conocimiento.
- COCA, César et al. (1993). *Los medios de comunicación en el País Vasco*. Leioa: UPV/EHU
- COCA, César eta PEÑALVA, José Luis (1998). *Modelos de los medios de comunicación social*. Bilbao: UPV/EHU.
- COHEN, Ernesto eta FRANCO, Rolando (1988). *Evaluación de proyectos sociales*. Buenos Aires: Grupo Editorial Latinoamericano.
- COLINO, Alberto (2013). Evolución de la financiación de los medios de comunicación en España. ¿Hacia un modelo más sostenible?. *Papeles de Europa*, Vol. 26 (1), 46-69.
- COOPER, Robert L. (1996). *Language Planning and Social Change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- CORBELLA, Joan M. (1988). *Social Communication in Catalonia: General Survey of the 1980s*. Barcelona: Centre d'Investigatio de la Comunicació, Generalitat de Catalunya.
- CORBELLA, Joan M. (2013). La premsa. In *Informe de la comunicació a Catalunya 2011-2012*, 17-35. Barcelona: Generalitat de Catalunya.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

- CORBETTA, Piergiorgio (2003). *Metodología y técnicas de investigación social*. Madrid: McGraw-Hill
- CORMACK, Mike (1993). Problems os Minority Language Broadcasting: Gaelic in Scotland. *European Journal of Communication*, Vol. 8, 107-117.
- CORMACK, Mike (1995a). Broadcasting and the Politics of Cultural Diversity: The Gaelic Television Debate in Scotland. *European Journal of Cultural Policy*, Vol.2, 43-54.
- CORMACK, Mike (1995b). The Use of Gaelic in Scottish Newspapers. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, Vol.16, 269-280.
- CORMACK, Mike (1998). Minority Language in Western Europe: Preliminary Considerations. *European Journal of Communication*, Vol. 13, 33-52.
- CORMACK, Mike (1999). Minority Languages and Television Programming Policy. *International Journal of Cultural Policy*, Vol.5, 293-313.
- CORMACK, Mike (2000). Minority Language Media in a Global Age. *Mercator Media Forum* 4, 3-15.
- CORMACK, Mike (2004). Developing minority language media studies. *Mercator Media Forum* 7, 3-12.
- CORMACK, Mike eta HOURIGAN, Niamh (arg.) (2007). *Minority Language media. Concepts. Critiques and Case Studies*. Clevedon, UK: Multilingual Matters.
- CORMACK, Mike (2013). Concluding Remarks: Towards an Understanding of Media Impact on Minority Language Use. In Elin H. G. Jones eta Enrique Uribe-Jonbloed, (arg.), *Social media and minority languages. Convergence and the creative industries*, 255-265. Clevedon, UK: Multilingual Matters.
- COROMINAS, Maria (2007). Media policy and language policy in Catalonia. In Mike Cormack eta HOURIGAN, Niamh Hourigan (arg.), *Minority language media*, 168-187. Clevedon, UK: Multilingual Matters
- COUNCIL OF EUROPE (1992). *European Charter for Regional and Minority Languages*. Strasbourg: Council of Europe. Hemendik jaso: <http://conventions.coe.int/treaty/Commun/QueVoulezVous.asp?NT=148&CM=1&CL=ENG>
- CROTEAU, David eta HOYNES, William (1997). *Media/Society: Industries, Images and Audiences*. London: Pine Forges Presse.

- CRYSTAL, David (2000). *Language Death*. Cambridge: Cambridge University Press
- CURRAN, James; MORLEY, David eta WALKERDINE, Valerie (bil.) (1998). *Estudios culturales y comunicación. Análisis, producción y consumo de las políticas de identidad y el posmodernismo*. Barcelona: Paidós.
- DE DIOS, Joseph María (2008). Ayudas públicas y prensa escrita. El ordenamiento jurídico comunitario. *Telos: Cuadernos de comunicación e innovación*, 75, 110-112.
- DE LA QUINTANA, Alfonso eta OLIVA, Carlos (2012). Subvenciones a la prensa en España: sinergias políticas y empresariales en Andalucía, Cataluña, Galicia y País Vasco. *Miguel Hernández Communication Journal*, 3, 101-120.
- DE LA QUINTANA, Alfonso (2016). Estudio sobre las ayudas estatales y autonómicas a la prensa. *Cuadernos de periodistas*, 32, 16-26 or.
- DE MATEO, Rosario (2009). Posperiodismo: la información en la sociedad saturada. In *Congreso Internacional Latina de Comunicación Social, Sociedad Latina de Comunicación Social*. La Laguna (Kanariar irlak). Hasierako hitzaldia. Hemendik jaso: <http://studylib.es/doc/3004307/conferencia-inaugural--de-la-miseria-del-periodismo-a-la-torre-de-babel>
- DE SWAAN, Abram (1991). Notes on the emerging global language system: regional, national and supranational. *Media, Culture and Society*, 13, 309- 323.
- DENTE, Bruno eta SUBIRATS, Joan (2014). *Decisiones públicas. Análisis y estudio de los procesos de decisión en políticas públicas*. Barcelona: Ariel.
- DÍAZ NOCI, Javier (1992). *Euskarazko prentsa XX. mendean (1919-1937): euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena*. Leioa: UPV/EHU. [Doktorego-tesia]. Hemendik jaso: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Javier_Diaz_Noci.pdf
- DÍAZ NOCI, Javier (1994). *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza/ Sociedad de Estudios Vascos.
- DÍAZ NOCI, Javier (1995). *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1937)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza/ Sociedad de Estudios Vascos.
- DÍAZ NOCI, Javier (1996). *Kazetaritzaren sorrera Euskal Herrian: XVII. Eta XVIII. Mendeetako kazetak eta errelazioak*. Hemendik jaso: <http://www.ehu.eus/zer/hemeroteca/pdfs/zer01-12-diaz.pdf>

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

DÍAZ NOCI, Javier (arg.) (1997). *Euskarazko kazetaritzari buruzko ihardunaldiak*. Leioa: UPV/EHU.

DÍAZ NOCI, Javier (1998a). Euskara komunikabideetan, italiararen edo irlandesaren ereduraino?. *Euskonews&Media*, 1998/10/2-9, Hemendik jasoa: <http://www.euskonews.com/0004zbk/media0401.html>

DÍAZ NOCI, Javier (1998b). Los medios de comunicación y la normalización del euskera: balance de dieciséis años. *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 43,2, 441-459. Hemendik jasoa: <http://www.euskomedia.org/PDFAnIt/riev/43/43441459.pdf>

DÍAZ NOCI, Javier (1999a). *Euskal kazetaritzaren historia*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

DÍAZ NOCI, Javier (1999b). Medios de comunicación en euskera: un modelo dependiente del dinero público. *Euskonews & Media* aldizkaria, 26 zenbakia. Hemendik jasoa: <http://www.euskonews.com/0026zbk/gaia2605es.html>

DÍAZ NOCI, Javier eta MESO, Koldobika (1999). *Komunikabideen ereduak*. Bilbo: UPV/EHU.

DÍAZ NOCI, Javier; MESO, Koldobika; LARRONDO, Ainara.; SALAVERRÍA, Ramón eta SÁDABA, M^a Rosario (2010). Presencia y uso de Internet en las redacciones de los diarios vascos y navarros. *Mediatika, Cuadernos de Medios de Comunicación* 12, 301-319.

DÍAZ NOCI, Javier (koord.) (2009). *Kazetaritza hizkuntza minorizatuetan: Espainiako kasua*. Bilbo: UPV/EHU.

DÍAZ NOCI, Javier (2012). Historia del periodismo vasco (1600-2010). *Mediatika, Cuadernos de Medios de Comunicación*, 13.

DURHAM, Meenakshi eta KELLNER, Douglas (2001). *Media and Cultural Studies. Keywords*. Oxford: Blackwell.

EISENSTEIN, Elizabeth (1978). *The Printing Press as an Agent of Change*, Vol. 2, Nueva York: Cambridge University Press (Gaztelaniaz: *La revolución de la imprenta en la Edad Moderna Europea*. Madrid: Akal, 1994).

ELKOROBEREZIBAR, Miguel Angel (1991). Herriko prentsa. In AED (arg.), *Prentsa lokalari buruzko I. ihardunaldiak*, 1-17. Arrasate: AED.

ELKOROBEREZIBAR, Miguel Angel (1992). Prentsa lokala Euskal Herrian. *Jakin* aldizkaria, 69, 11-29.

- ELKOROBEREZIBAR, Miguel Angel (1993). Publizitatea euskarazko herri aldizkarietan. In ARKO (arg.), *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, 99-117. Arrasate: ARKO.
- ESPEJO DAVALOS, Juvenal: (2008). La efectividad de las políticas públicas a través de la medición de la gestión pública. Hemendik jasoa: <http://www.monografias.com/trabajos55/efectividad-politicas-publicas/efectividad-politicas-publicas2.shtml>
- EUSKALKOM (1996): Prentsa Jardunaldietako ondorioak. *Jakin* aldizkaria, 96, 107-109.
- EUSKO ALDERDI JELTZALEA (1987). *2000erako abertzaletasuna* [Barne-txostena, argitaratu gabea].
- EUSKO JAURLARITZA (1983). *Euskararen Borroka. Oinarrizko inkesta bat: ezagutza, erabilera, jarrerak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA (1986). *Soziolinguistikazko mapa. 1986. urteko eroldaren araberako Euskal Autonomi Elkarteko azterketa demolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA (1991). *Euskararen jarriapena I*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA (1997a). *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996. Euskararen Jarriapena II*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA (1997b). *II. Soziolinguistikazko Mapa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA (1999). *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (1999-2009)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA (2003). *Euskararen Jarriapena III, 2001eko Soziolinguistikazko Inkestaren Emaitzak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA (2005). *Hizkuntza politika aurrera begira. Hizkuntza politikarako Sailburuordetzaren 2005-2009 egitasmoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EUSKO JAURLARITZA (2006). *Euskarazko Hedabideak*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Kultura Saila. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA (2007a). *Euskarazko polikontsumoari buruzko azterlana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA (2007b). *Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA (2007c). *Euskarazko hedabideak erabiltzeko ezaugarriak eta eragozpenak*. [Argitaratu gabea].

EUSKO JAURLARITZA (2008a). *IV. Inkesta Soziolinguistikoa.2006*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA (2008b). *Euskara hedabideetan – Euskarazko Hedabideak eta Euskararen presentzia hedabideetan*. Vitoria- Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak, Kultura Saila.

EUSKO JAURLARITZA (2008c). *XXI. Mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Oinarritzko txostena. Euskararen Aholku Batzordea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak.

EUSKO JAURLARITZA (2009a). *XXI. Mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun berri bategin baterantz*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA (2009b). *Hizkuntza Politika aurrera begira. 2005-2009 egitasmoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA (2010a). *Soziolinguistika hiztegia. Euskal Soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. Hemendik jaso: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/6503/eu_2415/adjuntos/Hiztegiak/Soziolinguistika_DF.pdf

EUSKO JAURLARITZA (2010b). *2008an euskararen sustapenerako erabilitako aurrekontu publiko diru laguntza eta giza baliabideen ikerlana*. Hemendik jaso: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/txostena_egitura_HPS_aurrekontuak_2008.pdf

EUSKO JAURLARITZA (2012a). *Euskararen Legeak 30 urte. 30 años de la Ley del Euskara*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak, Kultura Saila.

- EUSKO JAURLARITZA (2012b). *Euskara sustatzeko ekintza plana. Euskararen Aholku Batzordea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA (2012c). *Euskara sustatzeari eskainitako aurrekontu publiko, diru-laguntza eta giza-baliabideen azterketa (EAE 2010)*. Hemendik jaso: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/Euskara%20aurrekontuak-Eranskinen%20txostena.pdf
- EUSKO JAURLARITZA (2012d). *Estudio sobre el consumo de medios de comunicación e Internet en Euskadi*. Gabinete de Prospección Sociológica. Hemendik jaso: http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_11mono1_medios/es_11_medios/adjuntos/11monografico_es.pdf
- EUSKO JAURLARITZA (2013a). *V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA (2013b). *Euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika (EAE 2012)*. Hemendik jaso: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/Eus_aurrekontuak_2012_Txostena_II.pdf
- EUSKO JAURLARITZA (2014a). *Euskararen diagnostikoa*. [Euskararen Aholku Batzordeak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Prospekzio Soziologikoen Kabineteak landutako txostena. Argitaratu gabea].
- EUSKO JAURLARITZA (2014a). *Ildo estrategikoen AMIA proposamenak*. [Euskararen Aholku Batzordeak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Prospekzio Soziologikoen Kabineteak landutako txostena. Argitaratu gabea].
- EUSKO JAURLARITZA (2014c). *Euskara sustatzeko aurrekontua Eusko Jaurlaritzan (1983-2012)*. [Argitaratu gabea].
- EUSKO JAURLARITZA (2015a). *Euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika*. EAE 2014. Hemendik jaso: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/Eus_aurrekontuak_2014_Txostena_AZKENA.pdf
- EUSKO JAURLARITZA (2015b): *Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistema*. [Argitaratu gabea].
- EUSKO JAURLARITZA (2015c): *Euskarazko hedabideak*. [2015eko uztailean Euskararen Aholku Batzordeko kideei aurkeztutako lana. Argitaratu gabea].

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EUSKO JAURLARITZA (2015d): *Euskarazko hedabideei buruzko azterketa kualitatiboa*. [Argitarau gabea].

EUSKO JAURLARITZA (2015e): *Euskarazko hedabideak. Diagnosiaren emaitzak*. [Argitarau gabea].

EUSKO JAURLARITZA (2017). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. [Lana bukatzeko unean argitaratu gabea].

EUSTAT (2011). *Biztanleria eta etxebizitzaren zentsua*. Vitoria-Gasteiz: Euskal Estatistika Erakundea.

FASOLD, Ralph (2010). Hizkuntzaren inguruko politika. In Ralph Fasold eta Jeff Connor-Linton, Jeff, *Hizkuntza eta hizkuntzalaritza: hastapenak*, 399-428. Leioa: UPV/EHU

FERNÁNDEZ ALONSO, Isabel eta SANTANA CRUZ, Fernanda (2000): *Estado y medios de comunicación en la España democrática*. Madrid: Alianza.

FERNÁNDEZ ALONSO Isabel eta BLASCO GIL José Joaquín (2005). Las ayudas públicas a la prensa en Cataluña (2000-2003), *Sphera Pública*, 5, 181-199.

FERNÁNDEZ ALONSO, Isabel eta BLASCO GIL, José Joaquín (2006). Press Subventions in Europe in 2006. Categories, Funding Provided and Assignment Systems. In FERNÁNDEZ ALONSO, Isabel et al. (arg.) *Press Subsidies in Europe: Proceedings of the Symposium Press Subsidies in Europe*, 56-76. Barcelona: Generalitat de Catalunya.

FERNÁNDEZ ALONSO, Isabel eta BLASCO Gil, José Joaquín (2008). Las ayudas a la prensa en Europa en 2007: Los casos de Austria, Finlandia, Francia, Noruega y Suecia. *Telos: Cuadernos de Comunicación e Innovación*, 75, 85-94.

FERNÁNDEZ ALONSO, Isabel; GUIMERÀ I ORTS, Josep À. eta FERNÁNDEZ VISO, Ana (2012). Impacto de la crisis económica en las políticas de comunicación de la Generalitat de Catalunya (2011). *Derecom* 8. Hemendik jaso: www.webcitation.org/6FceOFqPS

FERNÁNDEZ ALONSO, Isabel eta BLASCO GIL, José Joaquín (2014). Press subsidy policies in Spain in the context of financial crisis (2008-2012): An analysis of the Catalan case. *European Journal of Communication*, Vol. 29 (2), 171-187.

FERNÁNDEZ ALONSO, Isabel eta ESPÍN, Marc (2015). Les polítiques de comunicació. In *Informe de la comunicació a Catalunya 2013-2014*, 21-32. Barcelona: Generalitat de Catalunya.

- FERNÁNDEZ, Iñigo (2008). Euskarazko hedabideak eta publizitatea. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 68, 63-74.
- FERNÁNDEZ, Luis (1997). Euskararen espazioa informazioaren autobidean. *Jakin aldizkaria*, 102, 29-46 or.
- FISHMAN, Joshua A. (1988). Hizkuntz hedapena eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntza politika. *Jakin aldizkaria*, 48, 5-21 or. (Euskaratzaileak: Xixa Gardner eta Mikel Zalbide).
- FISHMAN, Joshua A. (1991). *Reversing Language Shift: theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Clevedon, UK: Multilingual Matters.
- FISHMAN, Joshua A. (arg.)(2001). *Can Threatened Languages Be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*. Clevedon,UK: Multilingual Matters .
- FONT, Joan (arg.)(2001). *Ciudadanos y decisiones públicas*. Barcelona: Ariel.
- FRANKLIN, Bob (2008): *The future of newspapers*. Nueva York: NY University Press.
- GALLARDO OLMEDO, Fernando (2010). La era de los contenidos digitales desde una triple perspectiva: industria, cultura y comunicación. *Encuentros Multidisciplinares*, 35. Hemendik jaso: <http://www.encuentros-multidisciplinares.org/Revistan%BA35/Fernando%20Gallardo%20OlmEDO.pdf>
- GALLARDO OLMEDO, Fernando (2011). En la era de los contenidos digitales. Nuevos modelos de negocio para la prensa. *Telos: Cuadernos de comunicación e innovación*, 86, 76-86.
- GAMBLE, Adam eta Takesato WATANABE, Takesato (2004). *A Public Betrayed*, Washington: Regnery Publishing.
- GARABIDE (2012). Hedabideak: euskararen berreskuratzea III. Hemendik jaso: <http://www.ehu.eus/documents/3120344/3356416/Hedabideak.pdf>
- GARCÍA FERRANDO, Manuel; ALVIRA, Francisco; ALONSO, Luis E. eta ESCOBAR, Modesto (bil.) (2015). *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Madrid: Alianza Universidad.
- GERBNER, George (1998). Cultivation analysis: an overview. *Mass Communication & Society*, 1 (3/4), 175-194.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

- GARMENDIA, Elixabete (2005). Euskal kazetaritza modernoaren pausajea: ukapenetik izatera. In ASKOREN ARTEAN, *Kazetaritza euskaraz: oraina eta gooa*, 13-28 or. Bilbo: UPV/EHU.
- GIFREU, Josep (1983). *Sistema i polítiques de comunicació a Catalunya*. Barcelona: L'Avenç
- GIFREU, Josep (1986) From communication policy to reconstruction of cultural identity: Prospects for Catalonia. *European Journal of Communication*, Vol.1, 463-476.
- GIFREU, Josep (1991). *Construir l'espai català de comunicació a Catalunya*. Barcelona: CEDIC.
- GIFREU, Josep (1996). Linguistic Order and Spaces of communication in Post-Maastricht Europe. *Media, Culture and Society*, Vol. 18, 127-139.
- GIFREU, Josep (2005). El Informe MacBride desde Cataluña: balance de una esperanza. *Quaderns del CAC*, 21, 79-81.
- GIFREU, Josep (2006). *La pell de la diferencia: comunicació, llengua i cultura des de l'espai català*. Barcelona: Pòrtic.
- GIFREU, Josep (2009). The Catalan Communicative Space: still a strategic objective. *Catalan Journal of Communication & Cultural Studies*, 1(1), 87-95.
- GIFREU, Josep (2013). L'acadèmia i les polítiques nacionals de comunicació a Catalunya: ideació, fulgor i declivi d'una escola. In *Informe de la comunicació a Catalunya 2011-2012*, 289-298. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- GIFREU, Josep (2014). *El català a l'espai de comunicació. El procés de normalització de la llengua als mèdia (1976-2013)*. Bellaterra: Universitat Autònoma de Barcelona.
- GITLIN, Todd (2002): *Media Unlimited*. New York: Metropolitan Books.
- GONZÁLEZ, María (2006). Euskarazko tokiko hedabideen kalitatea. *Uztaro: giza eta Gizarte-zientzien aldizkaria*, 59, 41-61.
- GRIN, François (2003a). Language Planning and Economics. *Current Issues in Language Planning*. Vol. 4, 1-66.

- GRIN, François eta Tom MORING (2003b). *Support for Minority languages in Europe*. Final Report on a project financed by the European Commission, Directorate Education and Culture. Hemendik jasoa: http://www.ecmi.de/fileadmin/downloads/Smile_report_2002_Final.pdf
- GUILLAMET, Jaume (2011). La premsa: una crisi antiga, llarga i agònica. In *Informe de la comunicació a Catalunya 2009-2010*, 283-289. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- GUIMERÀ I ORTS, Josep Àngel (2013): Polítiques de comunicació a Catalunya: una qüestió d'estat en revisió. In *Informe de la comunicació a Catalunya 2011-2012*, 257-267. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- HALLIN, Daniel C. (2008). Intervención estatal en los sistemas de medios de comunicación: Perspectiva comparativa. *Telos: Cuadernos de comunicación e innovación*, 75, 107-109.
- HAMELINK, Cees, J. (1994). *Trends in World Communication. On Disempowerment and Self-Enpowerment*. Malaysia: Southbound.
- HEATH, Robert L. eta BRYANT, Jennings (1992). *Human Communication Theory and Research. Concepts, contexts and challenges*. New York: Routledge
- HERMAN, Edward S. eta CHOMSKY, Noam (2002). *Manufacturing Consent*, New York: Pantheon Books.
- HOLSTEIN, James A. eta GUBRIUM, Jaber F. (1995). *The Active Interview*. Qualitative Research Methods Series, Vol.37. Thousand Oaks, CA: Sage.
- HOURIGAN, Niamh (1998): Framing Processes and the Celtic Television Campaigns. *Irish Journal of Sociology*, vol.8, 49-70.
- HOURIGAN, Niamh (2001). New Social Movement Theory and Minority Language Television Campaigns. *European Journal of Communication*, Vol.16/1, 77-100.
- HOURIGAN, Niamh (2003). *Escaping the Global Village. Media, Language and Protest*. New York: Lexington Books.
- HOWELL, William J. (1982). Bilingual Broadcasting and the Survival of Authentic Culture in Wales and Ireland. *Journal of Communication*, Vol. 32, 39-54.
- HOWELL, William J. (1992). Minority Language Broadcasting and the Continuation of Celtic Culture in Wales and Ireland. In Stephen H. Riggins (arg.), *Ethnic Minority Media*, 217-242. London: Sage.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

HUMPHREYS, Peter (2008). Subvenciones a la prensa en Europa: Una visión histórica. *Telos: Cuadernos de comunicación e innovación*, 75, 71-84.

IGARTUA, Juan José eta HUMANES, M^a Luisa (2011). *El método científico aplicado a la investigación social. Portal de la Comunicación*. Incom (aula abierta), Universitat Autònoma de Barcelona. Hemendik jaso: http://www.portalcomunicacion.com/uploads/pdf/6_esp.pdf

IRIGOIEN, Jose Manuel (1992). Prentsa lokala Euskal Herrian. *Jakin* aldizkaria, 69, 103-113.

IRIGOIEN, Jose Manuel (1992). Ttipi-ttapa, *Jakin* aldizkaria, 69, 103-113. Hemendik jaso: <http://www.jakin.eus/show/9508a70cd6fbf3a90b1e667c27ddc80f8ede70bf>

IRIGOIEN, Jose Manuel (1993a). Herri aldizkarien ezarpena eta zabalpena: Arrasate Press, Berrigara eta Ttipi-ttapa. In ARKO (arg.), *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, 177-186. Arrasate: ARKO

IRIGOIEN, Jose Manuel (1993b). Arrasate Komunikabideak (ARKO) multimediarren esperientzia. In ARKO (ed.), *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, 131-135. Arrasate: ARKO.

IRIZAR, Mikel (2001). *Goiena esperientzia, eskualdeko talde multimedia baten sorrera*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

IRIZAR, Mikel (2002). Euskarazko tokiko hedabideak eta informazio gizartea. In *EuskoNews&Media*, 157 Hemendik jaso: <http://www.euskoNews.com/0157zBK/gaia15701eu.html>

IRIZAR, Mikel (2003). Herri aldizkariak: balantzea eta etorkizunerako erronkak. *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 48, 53-65.

JENSEN, Klaus B. (2014). *La comunicación y los medios. Metodologías de investigación cualitativa y cuantitativa*. México: Fondo de Cultura Económica.

JONES, Elin H. G. (2007): The Territory of Television: S4C and the Representation of the "Whole of Wales". In Mike Cormack eta Niamh Hourigan (arg.) (2007). *Minority Language Media. Concepts. Critiques and Case Studies*, 188- 211. Clevedon, UK: Multilingual Matters .

- JONES, Elin H.G. eta Enrique URIBE-JONBLOED, Enrique (arg.) (2013). *Social media and minority languages. Convergence and the creative industries*. UK: Multilingual Matters.
- JUARISTI, Patxi (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak: teoria eta adibideak*. Bilbo: UPV/EHU.
- KALTZADA, Pilar (2017). Eraldaketa garaiaren aurrean, zer?. In Iñaki Irazabalbeitia (arg.), *Nola sortu espazio komunikatibo komuna Euskal Herrian?*, 60-71. Iruñea: Ezkeraberi Fundazioa.
- KAPLAN, Robert B. eta BALDAUF Richard B. (1997). *Language Planning, from Practice to Theory*. Clevedon: Multilingual Matters.
- KATZ, Elihu; BLUMLER, Jay G., eta GUREVITCH, Michael (1974). Utilization of mass communication by the individual. In Jay G. Blumler eta Elihu Katz (arg.) *The Uses of Mass Communications: Current Perspectives on Gratifications Research*, 19-32. Beverly Hills: Sage.
- KATZ, Elihu; BLUMLER Jay G. eta GUREVITCH, Michael (1986). Usos y gratificaciones de la comunicación de masas. In Miquel de Moragas (arg.), *Sociología de la comunicación de masas II*, 127-171. Barcelona:GG MassMedia.
- KELLY-HOLMES, Helen (arg.) (2001). *Minority Language Broadcasting: Breton and Irish*. Clevedon: Multilingual Matters.
- KUHN, Raymond (1995). *The media in France*. Londres; New York: Routledge.
- KVALE, Steinar (1996). *Interviews, an introduction to qualitative research interviewing*. London: Sage.
- LARRAÑAGA, Jotxo; GABANTXO, Miren; ARANGUREN, Asier (1997): Sei herri aldizkari: eduki azterketaren bidetik hurbilketa bat. *Mediatika, cuadernos de medios de comunicación*, 6, 15-40. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- LARRINAGA, Elixabete (2011). Euskara eta globalizazioa. Ezkaratzeko azpiretik mugabako auzerrira. In *Irigoienazpikoa. Hizkuntza ez hegemoniko edo maila ertainekoak hedabideetan eta IKTetan*, 107- 141. Andoaingo Udala.
- LAZARSELD, Paul Felix; BERELSON, Bernard eta GAUDET, Hazel (1944). *The People's Choice*. New York: Duell Sloan & Pearce.
- LAZARSELD, Paul F. eta MERTON, Robert King (1948). *Mass Communication. Popular Taste and Organiced Social Action*. In Bryson, *The Communication of Ideas*, New York: Harper.

- LAZARFELD, Paul Felix eta MERTON, Robert King (1986). Comunicación de masas, gustos populares y acción social organizada. In Miquel de MORAGAS (arg.) *Sociología de la comunicación de masas II*, 22-49. Barcelona: GG MassMedia.
- LÓPEZ, Bernat (2011). La llengua. In *Informe de la comunicació a Catalunya 2009-2010*. 255-273. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- LOZANO, José Carlos (2007). *Teoría e investigación de la comunicación de masas*. México: Pearson Educación.
- LUCAS, Antonio; GARCÍA, Carmen eta RUIZ, José Antonio (2010): *Komunikazioaren soziologia*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.
- MACBRIDE, Sean (1985). *Many Voices, One World: Communication and Society, Today and Tomorrow*. Hemendik jasoa: <http://unesdoc.unesco.org/images/0004/000400/040066eb.pdf>
- MARKELIN, Lisa; HUSBAND, Charles eta MORING, Tom (2013). Sámi Media Professionals and the Role of Language and Identity. *Sociolinguistica*, 27, 101-115.
- MARTÍ, Félix; ORTEGA, Paul; IDIAZABAL, Itziar; BARREÑA, Andoni; JUARISTI, Patxi, JUNYENT, Carme eta AMORRORTU, Estíbaliz (2005). *Words and Worlds: World Languages Review*. Clevedon: Multilingual Matters.
- MARTÍN GAITE, Carmen (1995). *Hilo a la cometa. La visión, la memoria y el sueño*. Madrid: Espasa-Calpe.
- MARTÍN SERRANO, Manuel (1982). *El uso de la comunicación social por los españoles*. Madrid: CIS.
- MATTELART, Armand eta MATTELART, Michéle (1988). *Pensar sobre los medios. Comunicación y Crítica Social*. Madrid: Fundesco.
- MATTELART, Armand eta MATTELART, Michéle (1995). *Histoire des théories de la communication*. Paris: Éditions La découverte. (Euskarazko itzulpena: Komunikazioaren teoriaren historia. Arabera argitaletxea. Gasteiz. 1999. Itzultzaileak: Jose Antonio Sarasola eta Josu Amezaga
- MATTELART, Armand eta NEVEU, Érik. (2004). *Introducción a los estudios culturales*. Barcelona: Paidós.
- MAY, Stephen. (2001): *Language and Minority Rights. Ethnicity, Nationalism and the Politics of Language*. Harlow: Pearson Education Limited

- McCOMBS, Maxwell E. eta SHAW, Donald L. (1972). The agenda-setting function of mass media. *Public Opinion Quarterly*, 36, 176-187.
- McLUHAN, Marshall (1997). *Understanding Media. The Extensions of Man*. London: Routledge.
- McQUAIL, Denis; BLUMLER, Jay G. eta BROWN, John R. (1972). The television audience: a revised perspective. In Denis McQUAIL (arg.), *Sociology of mass communication*, 135-165. Middlegender, England: Penguin.
- McQUAIL, Denis eta WINDAHL, Sven (1982). *Communication Models for the Study of Mass Communications*. New York: Longman.
- McQUAIL, Denis (1983). *Mass communication theory. An Introduction*. London: Sage.
- McQUAIL, Denis (1992). *Media Performance: Mass Communication and the Public Interest*. London: Sage.
- MENDIGUREN, Iñaki (1992): Arrasate Press. *Jakin aldizkaria*, 69, 91-102. Hemendik jaso: <https://www.jakin.eus/show/f94bee7f311fb3856d64db180958c1b045e07603>
- MERLINSKY, Gabriela (2006). La entrevista como forma de conocimiento y como texto negociado: notas para una pedagogía de la investigación. *Cinta Moebio*, 27, 27-33. Hemendik jaso: <http://www.redalyc.org/pdf/101/10102703.pdf>
- MEYER, Philip (2009). *The vanishing newspaper*. Columbia: University of Missouri Press.
- MEYROWITZ, Joshua (1985). *No sense of place. The impact of electronic media on social behaviour*. New York: Oxford University Press.
- MIÈGE, Bernard (2000). Cultural production and cultural pluralism. In *UNESCO World Communication and Information 1999-2000 Report*, 62-71. Paris: UNESCO Publishing.
- MOLET, Jordi (1992). Kazetal enpresaren antolakuntza. *Jakin aldizkaria*, 69, 81-90.
- MONDRAGÓN, Jaione (2001). Evaluación de políticas y programas públicos. In CLUSTER DEL CONOCIMIENTO, *Hacia la mejora de la gestión pública: una reflexión sobre la evaluación de programas*, (50-65 or.). Bilbao: Cluster del Conocimiento.
- MONDRAGÓN, Jaione (2006). *Análisis de políticas públicas contra la pobreza y la exclusión en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Bilbo: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea/ Instituto Vasco de Administración Pública.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

MONTAGUT, Marta; LLAMERO, Lluisa; DOMINGO, David; GUIMERÀ i ORTS, Josep À. eta RABADÁN, J. Vicenç (2013): La comunicació local. In *Informe de la comunicació a Catalunya 2011-2012*, 197-215. Barcelona: Generalitat de Catalunya.

MORALES, A. (2006). Press subsidies in Spain. In Isabel Fernández Alonso et al. (arg.), *Press Subsidies in Europe*, 103-106. Barcelona: Departament de la Presidència de la Generalitat de Catalunya.

MORGAN, Michael (2008). Cultivation theory. In Wolfgang Donsbach (arg.) *The international encyclopedia of communication*, Vol. VII, 2945-2959. Oxford: Blackwell.

MORGAN, Michael eta SHANAHAN, James (2010). The state of cultivation. *Journal of Broadcasting & Electronic Media*, 54(2), 337-355.

MORIARTY, Máiréad (2007). *Minority language television as an effective mechanism of language policy: A comparative study of the Irish and Basque sociolinguistic contexts*. Limerick: University of Limerick.

MORING, Tom (2007). Functional completeness in minority language media. In Mike Cormack eta Niamh Hourigan (arg.), *Minority Language Media: Concepts, Critiques and Case Studies*, 17-33. Clevedon: Multilingual Matters.

MORING, Tom eta HUSBAND Charles H. (2007). The Contribution of Swedish Media in Finland to Linguistic Vitality. *International Journal of the Sociology of language* 187-188, 75-101.

MORING, Tom; LOJANDER-VISAPÄÄ, Catharina; NORDQVIST, Andrea; VINCZE László eta MÄNTY, Nadia (2011). A comparative study of media, media use and ethnolinguistic vitality in bilingual communities. *Journal of Estonian and Finno-Ugric Linguistics*, 2(1), 283-301 or. Hemendik jaso: <http://jeful.ut.ee/public/files/Moring+Lojander-Visap%25E4%25E4+et+al+283-302.pdf>

MORING, Tom (2013). Media Markets and Minority languages in the Digital Age. In *Journal on Ethnopolitics and Minority Issues in Europe (JEMIE)*. Vol. 12, (4) 34-53 or. Hemendik jaso: <http://www.ecmi.de/fileadmin/downloads/publications/JEMIE/2013/Moring.pdf>

MUNIOZGUREN, Fernando (1993). Lekuan-lekuko euskara eta standarraren trataeraz. In ASKOREN ARTEAN, *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*. Arrasate: Arko, 231-235.

- MUNIOZGUREN, Fernando (1997): Eremu urriko euskal prentsaren bideetan barrena. *Jakin aldizkaria*, 103, 73-79.
- MUXIKA, Joxemari (2000). Euskaraz idatzitako komunikabide lokalen egoera. *Eleria*, 5, 125-130.
- NARBAIZA, Bea; AMEZAGA, Josu; ARANA, Edorta eta AZPILLAGA, Patxi (2013). Languages: obstacles and brand values in the age of media convergence. In Elin H. G. Jones eta Enrique Uribe-Jonbloed (arg.): *Social media and minority languages. Convergence and the creative industries*, 246-254. UK: Multilingual Matters.
- NEGROPONTE, Nicholas (1995). *Being Digital*. UK: Hodder & Stoughton.
- NICHOLS, John eta McCHESNEY, Robert W. (2010). *The death and life of american journalism: the media revolution that will begin the world again*. Philadelphia: Nation Books.
- NOBRE CORREIA, José M. (2010): La Europa de los medios frente a la crisis IRC, *Infoamérica* (2) Hemendik jaso: [www.infoamerica.org/icr/n02/nobre%20 correia.pdf](http://www.infoamerica.org/icr/n02/nobre%20correia.pdf)
- NOELLE-NEUMANN, Elisabeth (1974). The Spiral of silence: A theory of public opinion. *Journal of Communication*, 24, 43-51.
- NIRENBERG, Olga; BRAWERMAN, Josette eta RUIZ, Violeta (2000). *Evaluar para la transformación. Innovaciones de la evaluación de programas y proyectos sociales*. Buenos Aires: Paidós.
- O'CONNELL, Eithne (2004). Serving our purposes: audiovisual media, language planning and minority languages. *Mercator Media Forum*, 7(1), 29-41.
- Ó LAOIRE, Muiris (2001). Language policy and the broadcast media: A response. In, Helen Kelly-Holmes (arg.) *Minority Language Broadcasting: Breton and Irish*, 63-68. Clevedon: Multilingual Matters.
- ORTÍ, Alfonso (2002). La apertura y el enfoque cualitativo o estructural: la entrevista abierta semidirectiva y la discusión de grupo. In Manuel García Ferrando, Jesús Ibañez eta Francisco Alvira (bil.): *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*, 219-281. Madrid: Alianza.
- PALFREY, John eta GASSERR, Urs (2010). *Born digital: Understanding the first generation of digital natives*. Nueva York: Basic Books.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

PALMGREEN, Philip, WENNER, Lawrence A. eta ROSENGREN, Karl E. (1985). Uses and Gratifications: the past ten years. In Karl E. Rosengren, Lawrence A. Wenner eta Philip Palmgreen (arg.), *Media gratifications research current perspectives*, 11-37. Beverly Hills: Sage.

PÉREZ OLIVA, Milagros (2009, 26 de julio): Las incertidumbres de la prensa escrita. Hemendik jaso: http://www.elpais.com/articulo/opinion/incertidumbres/prensa/escrita/elpepiopi/20090726elpepiopi_5/Tes

PERSE, Elizabeth M. (2001). *Media effects and society*. London: Routledge.

PICARD, Robert G. (1985). Patterns of State Intervention in Western Press Economics, *Journalism Quaterly* 62, 3-9.

PICARD, Robert G. (1986). State press aid during the era of economic readjustment: a case study of scandinavian nations. *European Studies Journal* 3, 1-8.

PICARD, Robert G. (1994). Why State support fails to preserve newspapers. A paper presented to the biannual conference of the Austrian Society of Communications, Salzburg. Austria. March, 5

PICARD, Robert G. (1999). Newspapers subsidies in the international market. *European Media Management Review*, Vol. 2, (2), 1-10.

PICARD, Robert G. (2003). Development and effects of finnish press subsidies. *Journalism Studies*, 4 (1), 105-119.

PICARD, Robert G. (2006). Issues and Challenges in the Provision of Press Subsidies. In Isabel Fernández Alonso et al. (arg.), *Press Subsidies in Europe*, 211-220. Barcelona: Generalitat de Catalunya.

PICARD, Robert G. (2007). Subsidies for newspapers: can the Nordic model remain viable?. In Hans Bohrmann, Elixabeth Klaus eta Marcel Machill (arg.), *Media Industry, Journalism Cultura and Communication Policies in Europe*, 236-246. Köln: Halem.

PIETIKÄINEN, Sari (2008). Broadcasting indigenous voices. *European Journal of Communication*, 23 (2), 173-191.

POULET, Bernard (2009). *La fin des journaux et l'avenir de l'information*. Paris: Gallimard.

- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2013). *Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia. Azterketa eta gogoetak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- RAMÍREZ DE LA PISCINA, Txema (1998). *Kazetari-lana Euskal Herrian. Interpretaziorako eta espezializaziorako abiaburuak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea
- RAMONET, Ignacio (2005). Medios de comunicación en crisis. In *Le Monde Diplomatique*, 111, 26-27.
- REBOLLOSO, Enrique; FERNÁNDEZ-RAMÍREZ, Baltasar eta CANTÓN, Pilar (2008). *Evaluación de Programas de Intervención Social*. Madrid: Síntesis.
- REYNOSO, Carlos (2000). *Apogeo y decadencia de los Estudios Culturales. Una visión antropológica*. Barcelona: Gedisa.
- RIGGINS, Stephen H. (arg.) (1992). *Ethnic Minority Media: An International Perspective*. London: Sage.
- RODA FERNÁNDEZ, Rafael (1989). *Medios de comunicación de masas. Su influencia en la sociedad y en la cultura contemporáneas*. CIS Monografía nº 106, Madrid: Siglo XXI.
- RODRIGUEZ PÉREZ, M. Pilar (2009). *Estudios culturales y de los medios de comunicación*. Bilbao: Universidad de Deusto.
- ROSENGREN, Karl Erik (1992). The structural invariance of change: comparative studies of media use. In Jay G. Blumler, Jack M. McLeod eta Karl Erik Rosengren (arg.), *Comparatively speaking: communication and culture across space and time*, 140-178. Newbury Park. CA: Sage.
- RUBIN, Alan M. (2002). The uses-and-gratifications perspective of media effects. In Jennings Bryant eta Dolf Zillmann (arg.), *Media effects. Advances in theory and research*, 525-548. New York: Routledge.
- RUIZ OLABUENAGA, José I. eta ISPIZUA, M. Antonia (1989). *La descodificación de la vida cotidiana. Métodos de investigación cualitativa*. Bilbao: Universidad de Deusto.
- RUIZ OLABUENAGA, José I. (1996). *Metodología de la investigación cualitativa*. Bilbao: Universidad de Deusto.
- SALCES, Gorka (2016). Euskaldunak komunikabideen aurrean. Iritzien, ohituren eta jarreraren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa. Bilbo: UPV/EHU [Doktorego-tesia] Hemendik jaso: <http://www.behategia.eus/Deskargak/Audientziak-eta-kontsumoak/2016/Euskaldunak-komunikabideen-aurrean-2016.pdf>

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

SÁNCHEZ TABERNERO, Alfonso (2006). The european press at the beginning of the 21st century. Defining characteristics and future trends. In *Press Subsidies in Europe*, 18-37. Barcelona: Generalitat de Catalunya.

SARASUA, Jon (1996). Euskarazko prentsaren diagnostikoa. *Jakin* aldizkaria, 96, 11-28.

SARASUA, Jon (2013). *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Iruñea: Pamiela.

SARDAR, Ziauddin eta VAN LOON, Boris (2005). *Estudios culturales para todos*. Paidós: Barcelona.

SHIRKY, Clay (2009). *Newspapers and Thinking the Unthinkable*. Hemendik jaso: <http://www.shirky.com/weblog/2009/03/newspapers-and-thinking-the-unthinkable/>

SIADeco (1996). Euskaldunak eta euskarazko kultur kontsumoa. *Jakin* aldizkaria, 96, 29-42.

SIERRA BRAVO, Restituto (1984). *Ciencias sociales. Epistemología, lógica y metodología. Teoría y ejercicios*. Madrid: Paraninfo.

SIGNORELLI, Nancy (2008). Cultivation effects. In Wolfgang Donsbach (arg.), *The International encyclopaedia of communication*. Vol. VII, 2960-2962. Oxford: Blackwell.

SINOVA, Justino (1999). Las ayudas del estado a la prensa. In Isidoro Alonso Hinojal et al. (arg.), *Política y Medios de Comunicación*, 53, 235-253. Fundación para el análisis y los estudios sociales.

SMITH, Anthony (2011). Migración digital. ¿Es este el futuro del periódico? *Telos: Cuadernos de comunicación e innovación*, 86, 98-100 or.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2017). *Hizkuntzaren Kale Erabileraren VII. neurketa*. Andoain. [Lana bukatzeko unean argitaratu gabea].

STAKE, Robert F. (1999). *Investigación con estudio de casos*. Madrid: Morata ediciones.

STEWART, David W. (1984). *Secondary research: information sources and methods*. Beverly Hills, Sage.

SUBIRATS, Joan eta GALLEGRO, Raquel (arg.) (2002). *Veinte años de autonomías en España. Leyes, políticas públicas, instituciones y opinión pública*. Madrid: CIS.

- SUBIRATS, Joan; KNOEPFEL Peter; LARRUE Corinne eta VARONE Frédéric (2008). *Análisis y gestión de políticas públicas*. Barcelona: Ariel.
- SUBIRATS, Joan (2011): *Otra sociedad, ¿otra política?*. Barcelona: Icaria.
- SUBIRATS, Joan eta DENTE, Bruno (2014). *Decisiones públicas*. Barcelona: Ariel.
- SUNDAR, Shyam S. eta LIMPEROS, Anthohy (2013). Uses and Grats 2.0: New Gratifications for New Media. *Journal of Broadcasting & Electronic Media*, Vol. 57, 504-525.
- TAYLOR, Steven J. eta BODGAN, Robert (1984). *Introduction to Qualitative Research Methods. The Search for Meanings*. New York: John Wiley and Sons Inc. (Gaztelaniara itzulita: *Introducción a los métodos cualitativos de investigación. La búsqueda de significados*. Barcelona: Paidós, 1987).
- THOMPSON, John B. (1995). *The Media and Modernity. A social theory of media*. Cambridge: Polity Press. (Gaztelaniaz: *Los media y la modernidad*. Barcelona: Paidós Comunicación, 1998).
- TOFFLER, Alvin (1980). *The third wave*. New York: William Morrow and company. Hemendik jaso: <https://archive.org/stream/TheThirdWave-TOffler/The-Third-Wave - Toffler#page/n5/mode/2up>
- TOJAR, Juan Carlos (2006). *Investigación cualitativa: comprender y actuar*. Madrid: Editorial La muralla.
- TRAPPEL, Josef; MEIER, Werner A. ; D'HAENENS, Leen, STEEMERS, Jeanette eta Barbara THOMASS, (arg.) (2011). *Media in Europe Today*. Bristol: Intellect.
- UNESCO (2001). *Universal Declaration of Cultural Diversity*. Hemendik jaso: <http://unesdoc.unesco.org/images/0012/001246/124687e.pdf#page=67>
Euskaraz:
http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/Kultura_Aniztasuna_Aldarrikapena.pdf
- UNESCO Katedra eta EHUKo Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila (2011). *Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen dituen dirulaguntza deialdien ebaluaketa eta hobekuntzarako proposamenak. HEDABIDEAK DEIALDIA*. Hemendik jaso: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/Hedabideak%20Deialdiaren%20Informea.pdf

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

- URANGA, Belén; AIERDI, Xabier; IDIAZABAL, Itziar; AMORRORTU, Estíbaliz; BARREÑA, Andoni eta ORTEGA, Ane; (2008). *Hizkuntzak eta Inmigrazioa. Lenguas e Inmigración*. Bilbo: Ikuspegi, UNESCO etxea, UPV/EHU.
- URIA, Iñaki (1996). Hedapena, sustapena eta bestelako... penak. *Jakin* aldizkaria, 96, 43-49.
- URIBE-JONGBLOED, Enrique (2014). Minority language media studies beyond eurocentrism: Cormack's seven conditions revisited. *Catalan Journal of Communication & Cultural Studies* 6 (1), 35-54.
- URGELL, Blanca (2012). Datozen hamar urteetarako plan eragingarri bat. In EUSKO JAURLARITZA, *Euskara sustatzeko ekintza plana. Euskararen Aholku Batzordea*, 9-11. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- VALERA, Sergio J. (2016). Quiebra total del sistema de medios español: requisitos para sobrevivir en el nuevo ecosistema. *Cuadernos de periodistas*, 32, 101-116.
- VALLES, Miguel S. (1997). *Técnicas cualitativas de investigación social: reflexión metodológica y práctica profesional*. Madrid: Síntesis.
- VALLES, Miguel S. (2007). *Entrevistas cualitativas*. Colección Cuadernos Metodológicos, nº 32. Madrid: CIS.
- VARELA, Juan (2006). El fin de la era de la Prensa. Cuadernos de Periodistas, 8, 17-50 . Hemendik jaso: <http://www.apmadrid.es/wp-content/uploads/2012/02/CP8%2003%20Varela.pdf>
- VINZCE, László (2013). The Bilingual Screen. Ethnolinguistic identity and television viewing among three language minorities. SSKH Skrifter 35. Helsinki: Swedish School of Social Science at university of Helsinki. Hemendik jaso: https://helda.helsinki.fi/bitstream/handle/10138/39304/vincze_dissertation.pdf?sequence=1
- VINCZE, László eta Tom MORING (2013). Towards Ethnolinguistic Identity Gratifications. In Elin H. G. Jones eta Enrique Uribe-Jongbloed (arg.), *Minority Languages and Social Media: Participation, Policy and Perspectives*, 47-57. Clevedon: Multilingual Matters.
- WATSON, Iarfhlaith (1996). The irish language and television: National identity, Preservation, Restoration and Minority Rights. *British Journal of Sociology*, Vol. 47/2, 255-274.

- WATSON, Iarfhlaith (1997). A History of Irish Language Broadcasting: National ideology, Commercial Interest and Minority Rights. In KELLY, Mary J. Kelly eta Barbara O'Connor (arg.), *Media Audiences in Ireland: Power and Cultural Identity*, 212-230. Dublin: University College Dublin Press.
- WATSON, Iarfhlaith (2002). Irish language broadcasting: history, ideology and identity. *Media, Culture and Society*, Vol. 24/6, 739-757.
- WATSON, Iarfhlaith (2003). *Broadcasting in Irish: Minority Languages, Radio, Television and Identity*. Dublin: Four Courts Press.
- WILLIAMS, Glyn (2005). *Sustaining language diversity in Europe*. Series: Palgrave studies in minority languages and communities. Houndmills and New York: Palgrave Macmillan.
- WILLIAMS, Tannis, M. (bil.) (1986). The impact of televisión. A natural experiment in three communities. London: Academic Press.
- WIMMER, Roger D. eta DOMINIK, Joseph R. (1996). *La investigación científica de los medios de comunicación. Una introducción a sus métodos*. Barcelona: Bosch.
- WOLF, Mauro (1988). *Sociologías de la vida cotidiana*. Madrid: Cátedra.
- WOLF, Mauro (1994a). *Los efectos sociales de los media*. Barcelona: Paidós.
- WOLF, Mauro (1994b). *La investigación de la comunicación de masas, Crítica y perspectivas*. Barcelona: Paidós.
- WOLF, Michael J. (1999). *The Entertainment Economy*. New York: Random House.
- WRIGHT, Charles R. (1959). *Mass Communication: a sociological perspective*. New York : Random House.
- XARXA CRUSCAT (2012). El catalá, al 2011: capacitat d'atracció i llengua de consum als media. A partir de les dades del Baròmetre de la Comunicació i la Cultura (Eln línea). Barcelona: Xarxa CRUSCAT. 9 de maig. www.webcitation.org/6GgOp9934
- YUAN, Jada (2009, 27 de octubre). Times publisher compares print media to the Titanic. Hemendik jaso: http://nymag.com/daily/intel/2009/10/times_publisher_arthur_sulzber.html
- ZABALETA, Iñaki (1997). *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia: metodo enpirikoak eta interpretatzaieak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

ZABALETA, Iñaki; XAMARDO, Nikolas; URRUTIA, Santi; GUTIÉRREZ, Arantza eta MENDIZABAL, Antxon (2004). Minority Language Media in the European Union: Reality, Issues and Development Strategies. In *Mass Media in transition: An International Compendium*, 169-187. Atenas: ATINER.

ZABALETA, Iñaki; GUTIÉRREZ, Arantza; XAMARDO, Nikolas; URRUTIA, Santi eta MENDIZABAL, Antxon. (2005). Euskarazko komunikabideak eta kazetaritza: egoera, ardatzak eta pisu erlatiboa. In *ASKOREN ARTEAN, Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*, 97-116. Bilbo: UPV/EHU.

ZABALETA, Iñaki; XAMARDO, Nikolas; GUTIÉRREZ, Arantza; URRUTIA, Santi eta FERNÁNDEZ Itxaso (2007). European Minority Language Media: Reality, Distribution and Comparison. Paper read at Applied Econometrics Association (AEA) 96th International Conference on "Press and Media Econometrics". November 22-23, at Paris (Sorbonne)

ZABALETA, Iñaki; XAMARDO, Nikolas; GUTIÉRREZ, Arantza eta Santi URRUTIA (2008). Hizkuntza gutxituetako hedabideak Europar Batasunean: egoera, banaketa eta garapen-abiadura ezberdina. *Euskonews & Media* (449), www.euskonews.com/0449zkb/gaia44901eu.html

ZABALETA, Iñaki; XAMARDO, Nikolas; GUTIÉRREZ, Arantza; URRUTIA, Santi eta FERNÁNDEZ, Itxaso (2010). Assessment and comparison of current media and journalism systems in the Catalan, Galician and Basque languages. *Catalan Journal of Communication & Cultural Studies* 2(1): 3-21.

ZABALETA, Iñaki; URRUTIA, Santiago; XAMARDO, Nikolas; GUTIÉRREZ, Arantza; FERRÉ, Carme eta FERNÁNDEZ, Itxaso (2011). Economic weight of media in Catalan, Basque and Galician languages: Minority language media and their financial impact in society. International Conference on Communication, Media, Technology and Design (ICCMTD). Estambul (Turkia) 9-11 Mayo 2012. Hemendik jaso: http://www.academia.edu/2244801/ECONOMIC_WEIGHT_OF_MEDIA_IN_CATALAN_BASQUE_AND_GALICIAN_LANGUAGES_MINORITY_LANGUAGE_MEDIA_AND_THEIR_FINANCIAL_IMPACT_IN

ZABALETA, Iñaki; GUTIÉRREZ, Arantza; FERRÉ, Carme; FERNÁNDEZ, Itxaso eta XAMARDO, Nikolas (2012a). Funding sources of media in Catalan, Basque and Galician languages: In *Search of sustainability. 10th Annual international Conference on Communication and Mass media* (ATINER), Atenas (Grecia) 14-17 mayo 2012. Hemendik jaso: www.atiner.gr/papers.htm

- ZABALETA, Iñaki; URRUTIA, Santiago; XAMARDO, Nikolas, GUTIÉRREZ, Arantza; FERRÉ, Carme eta FERNÁNDEZ, Itxaso (2012b). Economic Volume of European Minority Language Media as a Community Building Force. *International Association for media and Communication Research (IAMCR)*, Durban (South Africa) 15-19 julio.
- ZABALETA, Iñaki; GUTIÉRREZ, Arantza; FERRÉ Carme; XAMARDO, Nikolas, FERNÁNDEZ, Itxaso eta URRUTIA, Santiago. (2012c). The funding systems of European minority language media: differences and commonalities crossed by permanent uncertainty and current crisis. *International Association for media and Communication Research (IAMCR)*, Durban (South Africa) 15-19 julio.
- ZABALETA, Iñaki eta al. (2013). Media in Catalan, Basque, and Galician Languages: under the pressure of public aid. *The Global Studies Journal*, volume 5, may 2013, 55-70.
- ZACCONE, Angelo (2003). *Mercanti di (bi)sogni: politica ed economia dei gruppi mediiali europei*. Milan: Sperling & Kupfer.
- ZALAKAIN, Jexus Mari (1993). *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da*. Tafalla: Txalaparta
- ZALLO, Ramón et al. (1995). *Industrias y Políticas culturales en España y País Vasco*. Bilbo: UPV/EHU.
- ZALLO, Ramón; AZPILLAGA, Patxi eta DE MIGUEL, Juan Carlos (2002). *Komunikabideak hemen: egitura mediatikoa Hego Euskal Herrian*. Irun: Alberdania, Zerberri bilduma. (Euskaratzailea: Joxan Elozegi).
- ZALLO, Ramón (2006). *Euskal Herria, gaur. Kultura, historia eta gizartea, aniztasunaren eta ezagutzaren aroan*. Irun: Alberdania.
- ZALLO, Ramón (2011). *Estructuras de la comunicación y de la cultura. Políticas para la era digital*. Barcelona: Gedisa.
- ZALLO, Ramón (2013). Politiques de comunicació a les nacions sense estat: el cas espanyol. In *Informe de la comunicació a Catalunya 2011-2012*, 269-277. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- ZUBEROGOITIA, Aitor (2003a). Globalizazio garaiotarako biziraupen-estrategia bat euskal hizkuntza-komunitatearentzat: komunikazio-esparru autozentratua. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 48, 27-38.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

ZUBEROGOITIA, Aitor (2003b). *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean. Egin, Deia, Enbata, Ekaintza, Gara eta Le Journal du Pays Basque kazeten ikerketa eta euskara hutsezko komunikazio-esparru autozentratua trinkotzeko proposamena*. Bilbo: UPV/EHU. [Doktorego-tesia]. Hemendik jaso: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/AITOR_ZUBEROGOITIA.pdf

ZUBEROGOITIA, Aitor (2005). *Bidegorriak hizkuntzentzat. Euskarazko komunikazio-esparrua trinkotzeari buruzko burutazioak*. Donostia: Elkar.

ZUBIRI, Harkaitz; RETORTILLO, Alfredo eta AIERDI, Xabier (2008). Euskal hedabideak Euskal Autonomi Erkidegoan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 68, 85-101.

ZUBIRIA, Pello (1996). Euskal prentsaren desafio berriak. *Jakin aldizkaria*, 96, 63-70.

8.2. HELBIDE ELEKTRONIKOAK

AEDE/AMI (Asociación de Medios de Información). www.ami.es

APM (Asociación de la Prensa de Madrid). www.apmadrid.es

Arabako Foru Aldundia. www.araba.eus

Aztiker. www.aztiker.com

Behategia. www.behategia.eus

BOE. www.boe.es

Bizkaiko Foru Aldundia. www.bizkaia.eus

CIES. www.ciessl.com

EGM. www.aimc.es

EHAA/BOPV. www.euskadi.eus/ehaa

ESCACC (Fundació Espai Català de Cultura i Comunicació). www.escacc.cat

Euromedia Research Group. www.euromediagroup.org

European Social Survey. www.europeansocialsurvey.org

Euskal Erakunde Publikoa. www.eke.eus

Eusko Jaurlaritza. www.euskadi.eus

Eusko Legebiltzarra. www.legebiltzarra.eus

Eustat. www.eustat.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia. www.gipuzkoa.eus

Hekimen. www.hekimen.eus

Hizkuntz-Eskubideen Behatokia. www.behatokia.eus

IKERFEL. www.ikerfel.es

Mercator Media. www.mercatormedia.com

MIDAS (European Association of Daily Newspapers in Minority and Regional Languages) www.midas-press.org

Nafarroako Gobernua. www.navarra.es/home_eu

OJD. www.ojd.es

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Siadeco. www.siadeco.eus

Soziolinguistika klusterra. www.soziolinguistika.eus

TOKIKOM. www.tokikom.eus

UNESCO/EBLUL. www.unesco.org

Unesco Etxea. www.unescoetxea.org

UPV/EHU. www.ehu.eus

WAN-IFRA (World Association of Newspapers and News Publishers). www.wan-ifra.org

8.3. LEGEAK, DEKRETUAK ETA “HEDABIDEAK” DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAREN AGINDUAK ETA EBAZPENAK

- 10/1982 LEGEA, azaroaren 24koa, *Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.*
- 5/1982 LEGEA, maiatzaren 20koa, *EiTB sortzeko Legea.*
- 16/1983 LEGEA, uztailaren 27koa, *Herri Administrazioaren Euskal Erakundearen araubide juridikoari buruzkoa.*
- 29/1983 LEGEA, azaroaren 25ekoa, *Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortaraztekoa eta euskaltegiak araupetzekoa.*
- 138/1983 DEKRETUA, uztailaren 11koa, *Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzekoa.*
- 6/1989 LEGEA, uztailaren 6koa, *Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.*
- 117/2001 DEKRETUA, ekainaren 26koa, *Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko hizkuntza-normalkuntzarako neurriak finkatzen dituena.*
- 67/2003 DEKRETUA, martxoaren 18koa, *Euskararen erabilera Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzeko.*
- 150/2008 DEKRETUA, uztailaren 29koa, *Elebide -Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua- sortu eta kontsulten, iradokizunen eta kexen araubidea ezartzen dituena.*
- Kultura-Sailaren 1984.eko uztailaren 10eko AGINDUA, euskarazko aldizkarien dirulaguntzen ematea erregulatuz. EHAA, 1984ko abuztuak 11, 137. zk.
- Kultura eta Turismo Saileko 1985.eko ekainaren 3ko AGINDUA, euskarazko aldizkako argitalpenetarako dirulaguntzen ematea erregulatuz. EHAA, 1985eko uztailak 18, 148. zk.
- Kultura eta Turismo Sailaren 1985.eko azaroaren 5eko ERABAKIA, euskarazko aldizkako argitalpenetarako dirulaguntzak adjudikatuz. EHAA, 1985eko azaroak 11, 229. zk.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

Kultura eta Turismo Saileko 1986.eko uztailaren 11ko AGINDUA, euskarazko aldizkako argitalpenetarako diru-laguntzen ematea erregulatuz. EHAA, 1986ko uztailak 18, 143. zk.

Kultura eta Turismo Sailaren 1986.eko azaroaren 21ko ERABAKIA, euskarazko aldizkako argitalpenetarako dirulaguntzak adjudikatuz. EHAA, 1986ko azaroak 28, 235. zk.

Kultura eta Turismo Sailaren 1986.eko uztailaren 22ko AGINDUA, Euskarazko asteburuko egunkariei diru-laguntzak ematea araupetuz. EHAA, 1986ko uztailak 24, 148. zk.

Kultura eta Turismo Sailaren 1987.eko irailaren 3ko AGINDUA, euskarazko aldizkako argitalpenetzako diru-laguntzen ematea araupetuz. EHAA, 1987ko irailak 8, 167. zk.

Kultura eta Turismo Sailaren 1987.eko abenduaren 2ko ERABAKIA, euskarazko aldizkako argitalpenei adjudikaturiko dirulaguntzen berri emanez. EHAA, 1987ko abenduak 9, 232. zk.

Kultura eta Turismo Sailaren 1987.eko Irailaren 3ko AGINDUA, astean behingo euskarazko kazetak kaleratzen dituzten egunkarigintza-entrepresentzako diru-laguntzen ematea araupetuz. EHAA, 1987ko irailak 8, 167. zk.

Kultura eta Turismo Sailaren 1988.eko Martxoaren 1eko AGINDUA, astean behingo euskarazko kazetak kaleratzen dituzten egunkarigintza entrepresentzako dirulaguntzak araupetzen zituen 1987.eko irailaren 3ko Aginduan jasotako hainbat aspektu, 1988.eko ekitaldirako egokitzen duena. EHAA, 1988ko martxoak 8, 47. zk.

Kultura eta Turismo Sailaren 1988.eko maiatzaren 13ko ERABAKIA, astean behingo euskarazko kazetak kaleratzen dituzten egunkarigintza-entrepesei adjudikatutako dirulaguntzen berri ematen duena. EHAA, 1988ko maiatzak 30, 104. zk.

Kultura eta Turismo Sailaren 1988.eko Irailaren 2ko AGINDUA, euskarazko aldizkako argitalpenetzako dirulaguntzen ematea araupetzen duena. EHAA, 1988ko irailak 7, 166. zk.

Kultura eta Turismo Sailaren 1988.eko azaroaren 23ko ERABAKIA, euskarazko aldizkako argitalpenei adjudikaturiko dirulaguntzen berri ematen duena. EHAA, 1988ko azaroak 30, 225. zk.

- Kultura eta Turismo Sailaren 1989.eko martxoaren 22ko AGINDUA, euskarazko aldizkako argitalpenentzako dirulaguntzen ematea arautzen duena. EHAA, 1989ko martxoak 29, 59. zk.
- AGINDUA, 1989.eko apirilaren 5ekoa, Kultura eta Turismo Sailarena, astean behingo euskarazko kazetak kaleratzen dituzten egunkarigintza enterepresentzako dirulaguntzen ematea arautzen duena. EHAA, 1989ko apirilak 14, 71. zk.
- ERABAKIA, 1989.eko maiatzaren 29koa, Kultura eta Turismo Sailarena, astean behingo euskarazko kazetak kaleratzen dituzten egunkarigintza enterepresei adjudikatutako dirulaguntzen berri ematen duena. EHAA, 1989ko ekainak 5, 105. zk.
- AGINDUA, 1990.eko apirilaren 2koa, Kultura eta Turismo Sailburuarena, euskarazko aldizkako argitalpenentzako dirulaguntzen ematea arautzen duena. EHAA, 1990eko apirilak 9, 71. zk.
- AGINDUA, 1990eko abuztuaren 2koa, Kultura eta Turismo Sailburuarena, euskarazko aldizkako argitalpenei esleituriko dirulaguntzen berri ematen duena. EHAA, 1990eko abuztuak 9, 160. zk.
- AGINDUA, 1991ko ekainaren 12koa, Kultura eta Turismo Sailburuarena, euskaraz argitaratzen diren aldizkarietarako dirulaguntzen emanketa arautzen duena. EHAA, 1991eko ekainak 19, 124. zk.
- AGINDUA, 1992ko apirilaren 2koa, Kultura Sailburuarena, egunerokoak ez diren euskarazko aldizkako argitalpenak editatzen dituzten pertsona juridiko pribatu zein publikoentzako dirulaguntzen ematea arautzen duena. EHAA, 1992ko apirilak 8, 68. zk.
- AGINDUA, 1992ko uztailaren 14ekoa, Kultura Sailburuarena, egunerokoak ez diren euskarazko aldizkako argitalpenak editatzen dituzten pertsona juridiko pribatu zein publikoei esleituriko dirulaguntzen berri ematen duena. EHAA, 1992ko uztailak 28, 146. zk.
- AGINDUA, 1993ko otsailaren 10ekoa, Kultura Sailburuarena, egunerokoak ez diren euskarazko aldizkako argitalpenak editatzen dituzten pertsona juridiko pribatu zein publikoentzako dirulaguntzen ematea arautzen duena. EHAA, 1993ko otsailak 19, 34. zk.
- AGINDUA, 1993ko ekainaren 9koa, Kultura Sailburuarena, 1993ko otsailaren 10eko Aginduaren 2. atala aldatzen duena. EHAA, 1993ko ekainak 25, 119. zk.

AGINDUA, 1993ko uztailaren 1ekoa, Kultura Sailburuarena, egunerokoak ez diren euskarazko aldizkako argitalpenei dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskabideez erabakia hartzen duena. EHAA, 1993ko uztailak 21, 137. zk.

AGINDUA, 1994ko otsailaren 23koa, Kultura sailburuarena, egunerokoak ez diren euskarazko aldizkako argitalpenak editatzen dituzten pertsona juridiko pribatu zein publikoei dirulaguntzak emateko modua arautzen duena. EHAA, 1994ko martxoak 9, 47. zk.

AGINDUA, 1995eko apirilaren 11koa, Kultura sailburuarena, egunerokoak ez diren euskarazko aldizkako argitalpenak editatzen dituzten pertsona juridiko pribatuei dirulaguntzak emateko modua arautzen duena. EHAA, 1995eko apirilak 27, 80. zk.

AGINDUA, 1996ko irailaren 2koa, Kultura sailburuarena, egunerokoak ez diren euskarazko aldizkako argitalpenak editatzen dituzten pertsona juridiko pribatuei dirulaguntzak emateko modua arautzen duena. EHAA, 1996ko irailak 13, 177. zk.

ERABAKIA, 1996ko abenduaren 18koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, egunerokoak ez diren euskarazko aldizkako argitalpenak editatzen dituzten pertsona juridiko pribatuei dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Kultura sailburuaren 1996ko irailaren 2ko Agindura bildutako eskabideez harturiko ebazpenaren berri ematen duena. EHAA, 1997ko urtarrilak 9, 5. zk.

AGINDUA, 1997ko apirilaren 17koa, Kultura sailburuarena, prentsa idatzian euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal prentsa egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautzen duena. EHAA, 1997ko apirilak 22, 75. zk.

ERABAKIA, 1997ko abuztuaren 4koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, prentsa idatzian euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal prentsa egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Kultura sailburuaren 1997ko apirilaren 17ko Agindura bildutako eskabideez harturiko ebazpenaren berri ematen duena. EHAA, 1997ko abuztuak 25, 160. zk.

AGINDUA, 1998ko apirilaren 8koa, Kultura sailburuarena, prentsa idatzian euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal prentsa egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautzen duena. EHAA, 1998ko apirilak 17, 71. zk.

- ERABAKIA, 1998ko uztailearen 31koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, prentsa idatzian euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal prentsa egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Kultura sailburuaren 1998ko apirilaren 8ko Agindura bildutako eskabideez harturiko ebazpenaren berri ematen duena. EHAA, 1998ko abuztuak 17, 154. zk.
- AGINDUA, 1999ko ekainaren 2koa, Kultura sailburuarena, prentsa idatzian euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal prentsa egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautzen duena. EHAA, 1999ko ekainak 4, 105. zk.
- EBAZPENA, 1999ko irailaren 28koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, prentsa idatzian euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal prentsa-egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Kultura sailburuaren 1999ko ekainaren 2ko Agindura aurkeztutako eskabideez harturiko ebazpenaren berri ematen duena. EHAA, 1999ko urriak 14, 197. zk.
- AGINDUA, 2000ko uztailearen 5koa, Kultura sailburuarena, komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskarazko komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautzen duena. EHAA, 2000ko uztaileak 12, 133. zk.
- EBAZPENA, abenduaren 29koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Kultura sailburuaren 2000ko uztailearen 5eko Agindura aurkeztutako eskabideez harturiko ebazpenaren berri ematen duena. EHAA, 2001eko otsailak 22, 38. zk.
- AGINDUA, 2001eko otsailaren 21koa, Kultura sailburuarena, komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskarazko komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautu zuen Aginduari 2001eko ekitaldian ezartzeko behar diren egokitzapenak egiten dizkiona. 2001eko otsailak 23, 39. zk.
- EBAZPENA, 2001eko urriaren 22koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Kultura sailburuaren 2001eko otsailaren 21eko Agindura aurkeztutako eskabideez harturiko ebazpenaren berri ematen duena. EHAA, 2001eko azaroak 23, 227. zk.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

AGINDUA, 2002ko ekainaren 26koa, Kultura sailburuarena, komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskarazko komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautu zuen Aginduari 2002ko ekitaldian ezartzeko behar diren egokitzapenak egiten dizkiona. AGINDUA, 2002ko ekainaren 26koa, Kultura sailburuarena, komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskarazko komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautu zuen Aginduari 2002ko ekitaldian ezartzeko behar diren egokitzapenak egiten dizkiona. EHAA, 2002ko uztailak 9, 129. zk.

EBAZPENA, 2002ko abenduaren 30ekoa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Kultura sailburuaren 2002ko ekainaren 26ko Agindura, aurkeztutako eskabideez harturiko ebazpenaren berri ematen duena. EHAA, 2003ko otsailak 24, 39. zk.

AGINDUA, 2003ko irailaren 3koa, Kultura sailburuarena, komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko diru laguntzak emateko modua arautzen duena. EHAA, 2003ko irailak 10, 176. zk.

EBAZPENA, 2003ko abenduaren 30ekoa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko, eta euskal komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko diru-laguntzen esleipena egiten duena. EHAA, 2004ko martxoak 5, 45. zk.

AGINDUA, 2004ko martxoaren 30ekoa, Kultura sailburuarena, 2003ko Agindua, komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko diru-laguntzak emateko modua arautuz emanikoa, 2004an erabili ahal izateko egokitzen duena. EHAA, 2004ko apirilak 14, 69. zk.

EBAZPENA, 2004ko urriaren 22koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Kultura sailburuak 2003ko irailaren 3an emaniko Aginduaren eta berau egokitze aldera 2004ko martxoaren 30ean emanikoaren ondorioz, komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko diru-laguntzak ebazten dituena. EHAA, 2004ko azaroak 10, 215. zk.

- AGINDUA, 2005eko maiatzaren 25ekoa, Kultura sailburuarena, euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena. EHAA, 2005eko ekainak 3, 104. zk.
- EBAZPENA, 2005eko azaroaren 14koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Kultura sailburuak 2005eko maiatzaren 25ean emandako Aginduaren ondorioz, euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak esleitzen dituena. EHAA, 2005eko abenduak 1, 229. zk.
- AGINDUA, 2006ko apirilaren 26koa, Kultura sailburuarena, euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena (Hedabideak deialdia). EHAA, 2006ko maiatzak 29, 100. zk.
- EBAZPENA, 2006ko urriaren 17koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Kultura sailburuak 2006ko apirilaren 26an emandako Aginduan finkaturiko diru-laguntzak esleitzen dituena (Hedabideak deialdia). EHAA, 2006ko azaroak 15, 218. zk.
- AGINDUA, 2007ko otsailaren 14koa, Kultura sailburuarena, euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena (Hedabideak deialdia). EHAA, 2007ko martxoak 5, 45. zk.
- EBAZPENA, 2007ko ekainaren 29koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Kultura sailburuak 2007ko otsailaren 14an emandako Aginduan finkaturiko diru-laguntzak esleitzen dituena. EHAA, 2007ko abuztuak 22, 161. zk.
- AGINDUA, 2007ko abenduaren 19koa, Kultura sailburuarena, 2008an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatutako programen kontura diru-laguntzak ematea arautzen duena. EHAA, 2007ko abenduak 28, 249. zk.(gehigarria)
- EBAZPENA, 2008ko ekainaren 30ekoa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Hedabideak deialdiari dagozkion 2008ko diru-laguntzak esleitzen dituena. EHAA, 2008ko abuztuak 12, 152. zk.
- AGINDUA, 2008ko abenduaren 24koa, Kultura sailburuarena, 2009an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatutako programen kontura diru-laguntzak ematea arautzen duena. EHAA, 2008ko abenduak 26, 247. zk.
- EBAZPENA, 2009ko abuztuaren 26koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Hedabideak deialdiari dagozkion 2009ko diru-laguntzak esleitzen dituena. EHAA, 2009ko irailak 23, 183. zk.
- AGINDUA, 2010eko ekainaren 3koa, Kulturako sailburuarena, 2010ean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatutako programen kontura diru-laguntzak ematea arautzen duena. EHAA, 2010eko ekainak 4, 105. zk.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EBAZPENA, 2010eko urriaren 25ekoa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Hedabideak deialdiari dagozkion 2010eko diru-laguntzak esleitzen dituen. EHAA, 2010eko abenduak 10, 236. zk.

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 4koa, Kulturako sailburuarena, euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Hedabideak deialdia). EHAA, 2011ko maiatzak 20, 95. zk.

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 2koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Hedabideak deialdiari dagozkion 2011ko diru-laguntzen berri ematen duena. EHAA, 2012ko abenduak 30, 247. zk.

AGINDUA, 2011ko abenduaren 21ekoa, Kulturako sailburuarena, 2012. urtean euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Hedabideak deialdia). EHAA, 2011ko abenduak 29, 246. zk.

EBAZPENA, 2012ko ekainaren 12koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Hedabideak deialdiari dagozkion 2012ko diru-laguntzak jakinarazteko dena. EHAA, 2012ko uztailak 19, 141. zk.

AGINDUA, 2013ko maiatzaren 2koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2013. urtean euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Hedabideak deialdia). EHAA, 2013ko maiatzak 6, 85. zk.

EBAZPENA, 2013ko uztailaren 23koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Hedabideak deialdiari dagozkion 2013ko diru-laguntzen berri ematen duena (A, B1, B2 eta C multzoak). EHAA, 2013ko abuztuak 28, 163. zk.

AGINDUA, 2014ko ekainaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014. urtean euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Hedabideak deialdia). EHAA, 2014ko ekainak 19, 115. zk.

EBAZPENA, 2014ko urriaren 10ekoa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Hedabideak deialdiari dagozkion 2014ko diru-laguntzen berri ematen duena. EHAA, 2014ko urriak 27, 204. zk.

AGINDUA, 2014ko abenduaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2015. urtean euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Hedabideak deialdia). EHAA, 2014ko abenduak 29, 247. zk.

EBAZPENA, 2015eko ekainaren 26koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Hedabideak deialdiari dagozkion 2015eko diru-laguntzen berri ematen duena. EHAA, 2015eko uztailak 24, 139. zk.

AGINDUA, 2016ko uztailaren 20koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2016-2018 epealdian euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Hedabideak deialdia). EHAA, 2016ko uztailak 22, 140. zk.

EBAZPENA, 2016eko abenduaren 12koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Hedabideak deialdiari dagozkion 2016-2018 epealdiko diru-laguntzen berri ematen duena. EHAA, 2016ko abenduak 28, 246. zk.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

9. ERANSKINAK

ELKARRIZKETA SAKONAK: FITXA TEKNIKOA

Elkarrizketaren zenbakia	Jarduera		Kargua/ardura ⁹¹¹	Elkarrizketaren data
	Eremua	Xehetasunak		
E1	Hedabideak	Tokikoen sektorea	Zuzendaria	2014-02-26
E2	Hedabideak	Tokikoa	Zuzendaria	2014-02-28
E3	Hedabideak	Egunerokoa	Zuzendaria	2014-03-07
E4	Hedabideak	Egunerokoa	Kazetaria	2014-03-11
E5	Administrazioa	“Hedabideak” diru-laguntza deialdia	Kudeatzailea/teknikaria	2014-03-20
E6	Administrazioa	“Hedabideak” diru-laguntza deialdia	Kudeatzailea/teknikaria	2014-03-20
E7	Administrazioa	“Hedabideak” diru-laguntza deialdia	Kudeatzailea/teknikaria	2014-03-20
E8	Hedabideak	Aldizkari espezializatua	Zuzendaria	2014-03-24
E9	Hedabideak	Aldizkari espezializatua	Zuzendaria	2014-03-28
E10	Administrazioa	Hizkuntza-politika	Hizkuntza Politikarako sailburuordea	2014-04-08
E11	Administrazioa	Hizkuntza-politika	Hizkuntza Politikarako sailburuordea	2014-06-04
E12	Hedabideak	Euskarazko hedabideen sektorea	Zuzendaria	2014-06-27

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

⁹¹¹ .- Elkarrizketa egin zen egunean.

ELKARRIZKETA SAKONAK: GIDOIA

SARRERA
Elkarrizketaren aurkezpena
Elkarrizketatu bakoitzaren perfila eta lan-esperientzia kontuan hartuta, saioari ekiteko balio duen/duten komentario edo galderaren bat/batzuk
LEHEN ATALA: EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEN SEKTOREA
Euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak denboran zehar egin duen ibilbidearen inpresio orokorra
Sektoreak zertan egin du aurrera (aurrera egin baldin bada)
Sektoreak zertan egin du atzera (atzera egin baldin bada)
Egungo egoerari buruzko ikuspegia: indarguneak eta ahuleziak
Produktu/proiektu berrietarako garaia da? Zergatik?
Euskarazko hedabideen kontsumitzaileak: publiko errealaren eta potentzialaren arteko aldea nola azaldu?
Globalizazioaren garaian ba al da euskal esparru komunikatibo sendo eta beregaina izateko aukerarik? Zer baldintzatan garatu daiteke aipatu esparrua?
BIGARREN ATALA: "HEDABIDEAK" DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA
Erakunde publikoek (Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak, udalek) euskara hutsezko idatzizko hedabideei begira izan duten jokabidearen eta hartu dituzten neurrien balorazio orokorra
Deialdiak 2005etik helburu moduan ezarri dituen <i>sendotu, garatu, normalizatu</i> kontzeptuak nola ulertu
Diru-laguntzak eraginkortasunari loturik joan behar dute? Nola ulertu eraginkortasuna hedabideetan?
Euskara hutsezko idatzizkoen irakurleak neurtzeko metodologia eta tresna gabeziari buruzko iritzia
"Hedabideak" deialdiaren maiztasunari (urterokoak) buruzko iritzia/ikuspegia
Diru-laguntza deialdietan ezarri den euskara hutsezko hedabideen multzokatzeari buruzko iritzia/ikuspegia (idatzizkoak, irratiak, telebistak, Internet bidezkoak)
Diru-laguntza deialdietan hedabideen multzo bakoitzarentzat ezarri den diru-partidari buruzko iritzia/ikuspegia
Ezinbestez minoritarioak diren aldizkari espezializatuak nolako arreta/tratamendua behar dute erakunde publikoen aldetik
Herri bakar batean zabaltzen diren tokikoek nolako arreta/tratamendua behar dute erakunde publikoen aldetik
Diru-laguntza deialdiak ebazteko erabili diren balorazio-irizpideei buruzko iritzia/ikuspegia
Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak euskara hutsezko gehigarriak eta erreferentzia-orrionaldeak prestatu eta zabaltzeko diru-laguntzak esleitzeari buruzko iritzia/ikuspegia
Euskara hutsezko hedabide inprimatu askoren ezaugarri den doakotasunari buruzko iritzia/ikuspegia
HIRUGARREN ATALA: ZEREGINAK ETA ERRONKAK
Euskara hutsezko hedabide inprimatuen zeregin eta erronka nagusiak
Erakunde publikoen zeregin eta erronka nagusiak. Erdarazko hedabideei begira zerbait egin beharko lukete?
Euskarazko hedabide publikoen eta ekimen pribatuko euskara hutsezko hedabideen arteko harremanari buruzko iritzia/ikuspegia

DELPHI: FITXA TEKNIKOA

Delphi-zenbakia	Jarduera
D1	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D2	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D3	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D4	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D5	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D6	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D7	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D8	Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua eta udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D9	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D10	Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua eta udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D11	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D12	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D13	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D14	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D15	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D16	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D17	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D18	Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua
D19	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D20	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D21	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D22	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D23	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak

DELPHI: FITXA TEKNIKOA

Delphi-zenbakia	Jarduera
D24	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D25	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D26	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D27	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D28	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D29	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D30	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D31	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D32	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D33	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D34	Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua
D35	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D36	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D37	Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua
D38	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D39	Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D40	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D41	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D42	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak
D43	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D44	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D45	Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak
D46	Udalerri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

DELPHI: GIDOIA

- 1.- EUSKARA HUTSEZKO IDATZIZKO HEDABIDEEN EGOERA.
- 2.- EUSKO JAURLARITZAREN “HEDABIDEAK” DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA.
- 3.- HARREMANAK: SEKTOREAREN BARNEKOAK + IDATZIZKOEN ETA JAURLARITZAREN ARTEKOAK.
- 4.- ETORKIZUNARI BEGIRA: SEKTOREAREN ETA JAURLARITZAREN EGITEKOAK.

Atal bakoitzari buruzko ekarpena egiteko lagungarriak:

EUSKARA HUTSEZKO IDATZIZKO HEDABIDEEN EGOERA
Euskara hutsez argitaratutako idatzizkoek denboran zehar* izandako bilakaera baloratu: sektoreak orokorrean izan duena eta ordezkaten duzunak izandakoa: kaleratutako produktua, langileak eta lan-baldintzak, hedabidearen egoera ekonomikoa... (*Denboran zehar: ez da beharrezkoa 80-90eko hamarkadetara edo lehenagoko garaietara joatea, nahikoa litzateke azken hamarkada kontuan hartzea).
Izandako bilakaera horretan bereizketarik egin daiteke idatzizko hedabide-motaren arabera? (egunerokoak, tokikoak, espezializatuak...)
Zertan aurreratu du sektoreak. Zertan egin du atzera. Zer ez da lortu. Zerbait galdu da?
Zeintzuk dira gaur egun idatzizkoen sektoreak dituen arazo/erronka nagusiak? Bereizketarik hedabide-motaren arabera? (egunerokoak, tokikoak, espezializatuak...)
Euskaraz idatzizko hedabideak kontsumitzaile potentzialen zati batengana iristen dira. Zure ustez, zergatik ez dira gehiagorengana iristen?
Egungo egoeran jarrita, proiektu berrietarako garaia da ala sektoreak nahikoa du dagoenari eutsi eta sendotzearekin?
EUSKO JAURLARITZAREN “HEDABIDEAK” DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA.
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak urtero kaleratu duen “Hedabideak” diru-laguntzari buruzko balorazio orokorra.
Zein ekarpen egiten dio/zertan laguntzen dio Jaurlaritzaren diru-laguntzak idatzizko sektoreari. Eta ordezkaten duzun hedabideari?
“Hedabideak” diru-laguntza deialdiaren alde positiboak eta alde negatiboak.
“Hedabideak” deialdiaren xedea honakoa da: “euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak ematea”. Ordezkaten duzun hedabidean, nola ulertzen dituzue lau kontzeptu horiek?
Zure ikuspegitik “Hedabideak” diru-laguntza deialdiak lagundu du ordezkaten duzun hedabidea sendotzen, eraginkortzen, garatzen eta normalizatzen? Arrazoitu mesedez.
“Hedabideak” diru-laguntza deialdiak euskaraz idatzizkoetara bideratzen du diru-baliabide gehien (irradi, telebista eta internet bidezko hedabideetara bideratutakoa baino nabarmen gehiago eta idatzizkoen barruan, urte askotan eguneroko prentsa inprimatua izan da onuradun nagusia). Ados al zaude horrekin? Arrazoitu erantzuna mesedez.
“Hedabideak” deialdiko diru-baliabideak banatzeko orduan erabilitako irizpideei buruzko balorazioa.
Zein irizpide zehatzen arabera banatu beharko liriateke diru-baliabideak zure ustez?.
Diru-laguntzak emaitzei/eraginkortasunari lotuta joan behar dutela aldarrikatu dute Administrazioetik zein sektoreko zenbait aholkari. Ados zaude? Hala bada, zeintzuk liriateke euskarazko idatzizko hedabide batek emaitza onak dituela/eraginkorra dela esan ahal izateko izan beharko lituzkeen ezaugarriak? Nola ulertu eraginkortasuna hedabide baten kasuan?
Orain arte “Hedabideak” diru-laguntza urteroko deialdietan gauzatu da. Hori al da zure ustez formularik egokiena? Erantzuna ezezkoa baldin bada, zein litzateke zure ustez formula aproposa?
Zenbait urtetan “Hedabideak” deialdiak diru-laguntzak esleitu dizkie nagusiki gaztelania darabilten egunkariei. Ados zaude horrekin? Arrazoitu erantzuna mesedez.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

HARREMANAK: SEKTOREAREN BARNEKOAK + IDATZIZKOEN ETA JAURLARITZAREN ARTEKOAK.
Nolakoak dira egun sektorearen barneko harremanak? Orokorrean eta ordezkaten duzunak gainontzeko hedabideekin dituenak.
Denboran zehar (azken hamarkadan esaterako) izan da aldaketarik sektorea osatzen duten idatzizko hedabideen arteko harremanetan?
Jaurlaritzak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) sektorearekin orokorrean eta ordezkaten duzun hedabidearekin duen harremana baloratu.
Denboran zehar izan da aldaketarik sektorea osatzen duten idatzizko hedabideek/ordezkaten duzun hedabideak Jaurlaritzarekin izan duen harremanean?
Nolakoak izan beharko litzateke harreman hori?
ETORKIZUNARI BEGIRA: SEKTOREAREN ETA JAURLARITZAREN EGITEKOAK.
Zein da zure ustez euskal hiztun komunitateak behar duen esparru komunikatiboa? (=hedabideen mapa. Adibidez egunkari nazional bat, edo bi edo... + informazio orokorreko eta informazio espezializatuko XX aldizkari + herri bakoitzeko/eskualde bakoitzeko/lurralde bakoitzeko XX tokiko aldizkari + ...)
Etorkizunari begira, zeintzuk dira euskarazko idatzizkoen sektoreak dituen zeregin nagusiak. Orokorrean eta ordezkaten duzun hedabide zehatzarenak.
Etorkizunari begira, zeintzuk dira Administrazioak sektorearekiko dituen zeregin nagusiak. Orokorrean (Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak) eta "Hedabideak" diru-laguntza kudeatzen duen Jaurlaritzako Sail edo erakundearenak.
Zeintzuk dira gaingaitu beharreko oztopoak? (gaurkoak edo aurrerantzean ager daitezkeenak)
Nola irudikatzen duzu euskaraz idatzizko hedabideen sektorea hemendik 10 urtera?

TOKIKOM ETA HEKIMEN ELKARTEETAN DAUDEN PAPEREZKO HEDABIDEAK, 2017.

TOKIKOM	HEKIMEN
Aiaraldea egunkaria	Aizu! aldizkaria
Aikor! Txorierriko aldizkaria	Aldiri, Arkitektura eta abar
Aiurri Beterri-Buruntzako astekaria	Argia aldizkaria
Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria	Berria
Alea Arabako aldizkaria	Bertsolari aldizkaria
Anboto astekaria	Bizkaiko Hitza
Astigarragako Kronika ⁹¹²	Elhuyar aldizkaria
Baleike	...eta kitto!
Barren astekaria	GAUR8 astekaria
Berton	Gazteberri aldizkaria
Geuria-Hego Uribeko herri komunikabidea	Gaztezulo
Goiena Papera	Gipuzkoako Hitza
Guaixe astekaria	Goiberri
Hiruka astekaria	Goierriko Hitza
Hernaniko Kronika	Hazi Hezi aldizkaria
Karkara	Hik hasi ⁹¹³
Mailope	Ipar Euskal Herriko Hitza
Maxizatzen	Irria aldizkaria
Noaua! aldizkaria	Irutxuloko Hitza
Pil-pilean	Jakin aldizkaria
Prest!	Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialeko Hitza
Puntua	Nafarroako Hitza
Ttipi-Ttapa	Oarso Bidasoko Hitza
Txikitto ⁹¹⁴	Tolosaldeko Ataria
Txintzarri aldizkaria	Urola Kostako Hitza
Urumeako Kronika	Uztaro, Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria
Uztarria	Zazpi Haizetara
	TOKIKOMen bazkide diren guztiak

Iturria: Behategia datutegia.

⁹¹² .- *Astigarragako Kronika* Dobera Euskara Elkarteak kaleratu zuen 2014an eta asteazkenetan zabaltzen da Astigarragan. Ez da "Hedabideak" diru-laguntzaren onuraduna deialdiak ezartzen duen orrialde-kopuruari buruzko baldintza betetzen ez duelako. Ikerketaren 5.1.3. atalean kontsultatu daiteke zeintzuk diren deialdian parte hartzeko baldintzak eta zeintzuk geratu diren deialditik kanpo.

⁹¹³ .- *Hik hasi* aldizkaria Xangorin Kooperatiba Elkarte Txikiak kaleratzen du hilabetero. 1995ean sortu zen eta pedagogiaren inguruko gaiak lantzen ditu. Ez da "Hedabideak" diru-laguntzaren onuraduna deialdiak ezartzen duelako glotodidaktika- eta psiko-pedagogia aldizkariak ez direla diruz lagunduko. Ikerketaren 5.1.3. atalean kontsultatu daiteke zeintzuk diren deialdian parte hartzeko baldintzak eta zeintzuk geratu diren deialditik kanpo.

⁹¹⁴ .- *Txikitto* aldizkaria Eibarko eta kitto! euskara elkarteak kaleratzen du. Ikasle eibartar guztiak jasotzen dute hilero eta doan ikastetxeetan. Ez da "Hedabideak" diru-laguntzaren onuraduna deialdiak ezartzen duelako eskola-aldizkariak ez direla diruz lagunduko. Ikerketaren 5.1.3. atalean kontsultatu daiteke zeintzuk diren deialdian parte hartzeko baldintzak eta zeintzuk geratu diren deialditik kanpo.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EUSKO JAURLARITZAREN DIRULAGUNTZA BANAKETAREN GAINEKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN IRITZIA

Norberak jasotako kopuruak eztabaida desbidera zezakeela ikusita, deialdiaren beraren gaineko balorazioa, TOKIKOMen Administrazio Kontseiluan ebazpenaren aurretik egin genuen, azterketa ahalik eta objetiboena izan zedin. Ez dugu uste zenbaki dantzan, batek eta beteak jasotako kopuruekin sokatiran hastea eraginkorra denik, gure areko desberdintasunekin tematuko ginatkeelako, eta aurrera egingo badugu, batera egin beharko dugu, eta horretarako, elkartzen gaituenari heldu beharko genioke, banatzen gaituenari baino.

Euskararen sustapenez ari bagara, guk uste dugu Jaurlaritzak erabili dituenak irizpide egokiak direla: ahalik eta jende gehienarengana iristea komeni, euskara bera zabaldu nahi bada. Egokiak eta logikoak. Irizpide horren arabera egindako banaketa ikusita, orain jakin beharko genukeena, erabilitako formula zehatza da. Irizpidea gauzaterakoan erabilitako neurria. Eta ahal den heinean, hobetzen saiatu, izandakoen pareko kalterik izan ez dadin. Prest gaude, zenbakiak mahai gainean jarri, eta behar bezala aztertzeko. Ezin ahaztuko dugu orokorrean, tokikook jasotako zakua handitu bada ere, badirela gure kideen artean, beherakada izan dutenak; Kronika, Aiaraldean papereko edizioa, telebistak... Hauek ere, kaltetuak izan dira, eta Eusko Jaurlaritzarekin sakon aztertu nahi dugu kasu bakoitza, beherakadaren benetako arrazoa zein izan ote den ikusteko, hasiera batean, aldeko beharko lukeen ezaugarriak betetzen dituztelako gehienak.

Argi dugu diru poltsa berdina den bitartean, batzuk gehiago jasotzeko, beste batzuk gutxiago jaso beharko dutela. Horregatik zaku barruko banaketan baino, zakua handitzeko lanetan saiatu beharko luke sektoreak. Euskeraren normalizazioan eta sustapenean dihardugun eragileak garelako, bai, baina, sektore ere bagara, komunikabide bagara, industria bagara. Langile dexente dituen jarduera ekonomikoaz ari gara. Eta argi dago premia horiek Hizkuntza Politikaren Sailaren esparrua gaintitzen dutela. Horregatik, beste ate batzuk jotzen hasteko ordua dela uste dugu, eta bide horri ekiteko asmoa dugu.

Ildo horretatik aipatu behar da, autofinantziazioa eskatzen zaigula, eta gu gerorri garela interesatuenak, ahalik eta autofinantziazio maila altuena lortzen. Menpekotasunik ez dugulako nahi. Erakundeetatik jasotako laguntzez gain, publizitatea eta, kasu batzuetan, gure bazkideen ekarpenak dira gure diru iturriak. Eta hortxe dago datuak: Eusko Jaurlaritzak egiten duen publizitate guztiaren %2a baino gutxiago da euskarazkoetara heltzen dena. Eta estrategikotasuna eta eraginkortasuna onartzen bazaigu, horren arabekoak beharko lukete ere Jaurlaritzaren neurriek.

Zer hobeturik bada beraz, baina horrek ezin itsutuko gaitu. Aurtengo dirulaguntzak, sari baino, aitortza dira. TOKIKOMek azken urteetan egindako lanaren aitortza. Gure komunitateak⁹¹⁵, kalitatezkoak dira, eta gainera, euskaldun eta ez euskaldunengana iristeko ahalmena dute. Aurtengo gorakadarekin galga edo freno jarri diogu azken urteetako beheranzko joerari. 2011tik 2014rako tartean %18 egin du behera TOKIKOMeko komunikabideok jasotako diru laguntzak. Egia eta nabarmena da tokikoontzako diru poltsa handitu egin dela aurtan, bai, baina ezin izkutatu dugu komunikabide kopurua ere handitu egin dela. Aurtengo banaketan parte hartu duten 12 proiektu berrietako 7, guretakoak dira. Eta horrenbestez, proportzioan, jasotako kopurua eta proiektu zenbakiaren arteko proportzioan, 2010ean baino diru gutxiago jaso dugu.

Azken urteetan Jaurlaritza eta euskerako komunikabideen arteko harremanaren bilakaerari erreparatuta, uste dugu TOKIKOM eta HEKIMENen sorrerak eragina izan duela aldaketa horretan. Zerbaiterako balio izan duela gure jardunak. Irizpide aldaketarena, guk gerorrek eta sektoreko gainerako eragileek eskatutako zerbait izan da. Argi genuen irizpide zehatzak behar zirela banaketarako, eta guztiok jakin behar genituela zeintzuk ziren. Gure proposamenak ere helarazi dizkiogu Jaurlaritzari azken urte honetan, eta ez dira indarrean jarri direnen oso desberdinak. Zubi ori ezinbestekoa da, urteroko diru laguntzetatik epe luzerako hitzarmenera jauzi egin nahi badugu, urratsek epe luzerakoak beharko dutelako, egunetik egunerakoak baino. Horregatik, batzuekin eta besteekin elkarlanean segitzeko prest gaude. Jaurlaritzak berak gurekin izan du orain arte elkarrizketarako jarrera. Jarrera hori sektore guztira zabaldu, eta elkarrekin aurrera egitea, hori da bidea. Horretan sinistuta gaude, eta horren alde segiko dugu lanean.

⁹¹⁵ - Horrela jartzen du jatorrizkoan.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EUSKARA HUTSEZKO EGUNEROKO PRENTSA INPRIMATUARI "HEDABIDEAK" DEIALDIAK ESLEITUTAKO LAGUNTZAK, 2005-2013.

EGITASMOA	2005eko diru-laguntza	2006ko diru-laguntza	2007ko diru-laguntza	2008ko diru-laguntza	2009ko diru-laguntza	2010eko diru-laguntza	2011ko diru-laguntza	2012ko diru-laguntza	2013ko diru-laguntza
Berria	1.400.000,00	1.526.000,00	1.609.996,00	1.616.699,00	1.604.312,69	1.626.899,50	1.603.748,26	1.449.250,00	1.510.180,00
Busturialdeko Hitza		42.171,00	45.416,00	39.805,00	37.269,23	45.037,98			
Goierriko Hitza	46.883,00	47.394,00	53.691,00	57.892,00	63.437,36	64.746,83	60.729,67	58.439,00	62.044,00
Hernaniko Kronika	28.130,00	31.775,00	36.000,00	33.176,00	34.075,69	37.153,88	41.896,87	31.523,00	36.059,00
Irutxuloko Hitza	52.400,00	53.754,00	53.751,00	55.758,00	58.969,06	54.884,73	59.284,99	31.523,00	
Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza	45.629,00	46.871,00	59.470,00	49.952,00	53.598,60	48.674,50		57.661,00	
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza							61.871,80		77.141,00
Oarso Bidasoko Hitza							50.607,56	52.436,00	
Oarsoaldeko Hitza	44.782,00	43.859,00	47.580,00	44.545,00	46.882,88	41.650,59			
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	34.211,00	40.000,00	40.000,00	43.990,00	47.814,34	56.292,59	54.397,50	53.741,00	60.326,00
Urola Kostako Hitza	47.965,00	52.377,00	57.072,00	61.662,00	57.120,15	68.139,39	67.463,33	69.041,00	74.250,00

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

EUSKARA HUTSEZKO EGUNEROKO PRENTSA INPRIMATUARI "HEDABIDEAK" DEIALDIAK
ESLEITUTAKO LAGUNTZAK, 2014-2018.

EGITASMOA	2014ko diru-laguntza	2015eko diru-laguntza	2016ko diru-laguntza	2017ko diru-laguntza	2018ko diru-laguntza
Berria	1.301.963,00	1.292.150,00	1.274.952,00	1.231.122,00	1.207.660,00
Goierriko Hitza	64.370,00	66.400,00	65.624,00	63.698,00	62.710,00
Hernaniko Kronika	28.848,00	23.591,00	31.000,00	33.000,00	35.798,00
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	77.257,00	71.789,00	74.208,00	71.711,00	70.978,00
Tolosaldeko Ataria	74.469,00	69.419,00	59.745,00	57.212,00	56.155,00
Urola Kostako Hitza	80.778,00	78.122,00	65.434,00	63.538,00	62.629,00

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EUSKARA HUTSEZKO INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIEI ETA ALDIZKARI ESPEZIALIZATUEI "HEDABIDEAK" DEIALDIK ESLEITUTAKO LAGUNTZAK, 2005-2013.

EGITASMOA	2005eko diru-laguntza	2006ko diru-laguntza	2007ko diru-laguntza	2008ko diru-laguntza	2009ko diru-laguntza	2010eko diru-laguntza	2011ko diru-laguntza	2012ko diru-laguntza	2013ko diru-laguntza
+/- 18 Presta ezazu zure etorkizuna					8.000,00	4.000,00	6.000,00	5.787,00	7.000,00
Aisia biziz aldizkaria	12.343,00	25.000,00	26.480,00						
Aizu! aldizkaria	53.982,00	54.759,00	59.233,00	61.895,00	60.185,94	84.602,02	91.604,01	93.248,00	81.647,00
Aldaketa 16	184.985,00	186.238,00	191.335,00	186.655,00	161.550,90	148.881,41			
Aldiri, arkitektura eta abar						5.434,42	5.836,34	5.053,00	4.255,00
Argia astekaria	278.346,00	318.792,00	331.421,00	323.944,00	296.238,32	334.422,61	335.258,08	323.982,00	352.653,00
BAT soziolinguistika aldizkaria	10.813,00	20.850,00	24.000,00	19.473,00	22.444,69	20.795,33	20.000,00	20.000,00	14.845,00
Bertsolari aldizkaria	18.202,00	26.803,00	30.818,00	26.685,00	32.682,26	25.444,43	27.000,00	25.422,00	25.509,00
Egan literatur aldizkaria	8.779,00	20.000,00	20.000,00	16.037,00	15.879,04	17.905,34	18.554,85	8.663,00	3.011,00
Ekai center									10.064,00
Ekonomiaren KZ				13.121,00	19.102,18	12.540,91	21.889,68	12.918,00	16.304,00

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

EGITASMOA	2005eko diru-laguntza	2006ko diru-laguntza	2007ko diru-laguntza	2008ko diru-laguntza	2009ko diru-laguntza	2010eko diru-laguntza	2011ko diru-laguntza	2012ko diru-laguntza	2013ko diru-laguntza
Elhuyar zientzia eta teknologia	113.224,00	82.592,00	85.586,00	91.898,00	93.897,57	93.329,81	94.833,43	85.347,00	88.101,00
Entzun musika aldizkaria	9.829,00	16.850,00	20.376,00						
Euskal Herriko Natura	8.940,00	14.343,00	11.557,00	11.138,00	12.837,66	7.976,36	8.566,27	5.965,00	5.921,00
GAUR8 astekaria			157.489,00	170.400,00	112.321,65	132.256,10	135.619,14	99.501,00	123.647,00
Gazteberri aldizkaria	29.909,00	52.795,00	56.500,00	49.072,00	44.030,26	21.971,80	20.301,71	8.906,00	10.525,00
Gazteon KZ					20.431,03	19.835,35	16.188,16	11.190,00	12.952,00
Gaztezulo	30.949,00	42.970,00	72.970,00	72.970,00	75.000,00	92.605,19	92.814,02	97.359,00	98.469,00
Hazi Hezi etxerako heziketa aldizkaria									17.462,00
HEMEN Erljio gogoetarako aldizkaria	7.147,00	13.326,00	10.491,00	10.234,00	11.867,77	10.772,26	12.966,11	12.939,00	14.000,00
Ipurbeltz	21.152,00	57.703,00	51.591,00	54.291,00					
Irria aldizkaria								59.663,00	58.201,00
Jakin	46.970,00	49.198,00	54.774,00	55.776,00	53.271,23	49.572,27	52.948,79	53.678,00	51.320,00

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EGITASMOA	2005eko diru-laguntza	2006ko diru-laguntza	2007ko diru-laguntza	2008ko diru-laguntza	2009ko diru-laguntza	2010eko diru-laguntza	2011ko diru-laguntza	2012ko diru-laguntza	2013ko diru-laguntza
Karmel	7.725,00	14.520,00	830,00		8.710,00				
Karramarro aldizkaria							19.520,29	12.897,00	3.718,00
Lanabesa					39.985,98	28.902,14	28.870,01	22.890,00	
Mantangorri	15.208,00								
Matraka	32.304,00								
Nabarra aldizkaria	47.697,00	46.208,00	60.119,00	62.622,00	63.851,51	21.480,13	35.520,74		
Nora				52.800,00	56.008,03	56.864,30	68.165,76	48.278,00	
Ostiela	12.272,00								
Uztaro, giza eta gizarte-zientzien aldizkaria	7.077,00	11.720,00	11.989,00	9.185,00	11.258,15	11.151,57	12.381,15	8.684,00	10.620,00
Xabiroi komikia		26.382,00	28.974,00	27.999,00	27.235,14	19.516,26	18.462,63	19.957,00	21.417,00
Xirika	35.478,00								
Zabalik	206.669,00								
Zazpi Haizetara				103.241,00	104.211,59	110.739,88	106.648,72	95.173,00	105.859,00

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

EUSKARA HUTSEZKO INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIEI ETA ALDIZKARI ESPEZIALIZATUEI
 “HEDABIDEAK” DEIALDIAK ESLEITUTAKO LAGUNTZAK, 2014-2018.

EGITASMOA	2014ko diru-laguntza	2015eko diru-laguntza	2016ko diru-laguntza	2017ko diru-laguntza	2018ko diru-laguntza
+/- 18 Presta ezazu zure etorkizuna	7.000,00	7.000,00	7.000,00	7.000,00	7.000,00
Aizul aldizkaria	88.141,00	100.160,00	80.128,00	80.128,00	80.128,00
Aldiri, arkitektura eta abar	3.404,00	3.592,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00
Argia astekaria	351.723,00	363.400,00	368.645,00	369.220,00	368.030,00
BAT soziolinguistika aldizkaria	11.876,00	10.988,00	13.500,00	14.000,00	14.500,00
Bertsolari aldizkaria	22.315,00	25.157,00	25.000,00	25.000,00	25.000,00
Egan literatur aldizkaria	2.418,00	2.452,00	7.000,00	7.140,00	7.282,00
Ekai center	9.014,00	9.118,00	25.000,00	25.000,00	25.000,00
Ekonomiaren KZ	15.174,00	13.396,00	24.278,00	24.505,00	25.000,00
El periódico universitario/ Unibertsitateko aldizkaria		8.815,00	19.251,00	19.251,00	19.251,00
Elhuyar zientzia eta teknologia	70.481,00	30.626,00	25.000,00	25.000,00	25.000,00
Euskal Herriko Natura	4.737,00	4.453,00	11.219,00	11.271,00	11.271,00
GAUR8 astekaria	131.000,00	134.000,00	107.200,00	107.200,00	107.200,00
Gazteberri aldizkaria	12.627,00	11.152,00	35.918,00	35.707,00	35.265,00
Gazteon KZ	12.093,00	11.540,00	21.001,00	21.605,00	21.920,00
Gaztezulo	102.000,00	103.000,00	82.400,00	82.400,00	82.400,00
Hazi Hezi etxerako heziketa aldizkaria	17.769,00	19.660,00	24.000,00	25.000,00	25.000,00
HEMEN Erlijio gogoetarako aldizkaria	11.200,00	11.756,00	13.688,00	13.688,00	13.688,00
Irria aldizkaria	68.433,00	73.166,00	67.960,00	65.487,00	65.908,00

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EGITASMOA	2014ko diru-laguntza	2015eko diru-laguntza	2016ko diru-laguntza	2017ko diru-laguntza	2018ko diru-laguntza
Jakin	52.396,00	51.183,00	40.947,00	40.947,00	40.947,00
Karramarro aldizkaria	3.072,00	3.085,00	9.273,00	9.273,00	9.273,00
Uztaro, giza eta gizarte-zientzien aldizkaria	8.496,00	6.978,00	12.000,00	12.000,00	12.000,00
Xabiroi komikia	23.384,00	22.823,00	23.092,00	22.678,00	22.437,00
Zazpi Haizetara	108.747,00	110.000,00	88.000,00	88.000,00	88.000,00

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

UDALERRI, ESKUALDE EDO LURRALDE JAKINETAN ZABALTZEN DIREN EUSKARA HUTSEZKO INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIEI "HEDABIDEAK"
DEIALDIAK ESLEITUTAKO LAGUNTZAK, 2005-2013.

EGITASMOA	2005eko diru-laguntza	2006ko diru-laguntza	2007ko diru-laguntza	2008ko diru-laguntza	2009ko diru-laguntza	2010eko diru-laguntza	2011ko diru-laguntza	2012ko diru-laguntza	2013ko diru-laguntza
Aikor! Txorierriko aldizkaria	9.175,00	15.567,00	17.500,00	17.116,00	19.000,00	21.596,39	19.806,96	16.623,00	15.014,00
Aiurri Beterrri-Aiztondoko hamaboskaria	11.353,00	11.913,00	14.000,00	18.000,00	18.108,00	16.506,67	16.817,96	14.949,00	12.358,00
Aiurri Beterrri-Buruntzako astekaria	5.824,00	14.981,00	14.169,00	15.000,00	15.000,00	15.000,00	15.000,00	13.277,00	13.358,00
Akatz Bermeoko aldizkaria	1.969,00	3.080,00							
Anboto	27.368,00	35.247,00	61.518	67.325,00	63.348,50	74.529,10	68.462,62	55.686,00	57.709,00
Arabako Hitza							15.013,67	12.353,00	7.826,00
Aretxagazeta	10.508,00								
Arrasate press	21.611,00								
Artzape	2.576,00	6.700,00	6.901,00	4.983,00	3.874,42	4.126,48	3.774,55	2.142,00	
Asteleheneko Goienkaria/Goiena papera	44.094,00	43.929,00	62.452,00	63.402,00	65.431,21	67.690,00	74.678,16	68.465,00	66.086,00
Bagabiz aldizkaria									5.414,00
Baleike	3.884,00	6.000,00	8.500,00	10.874,00	9.899,27	9.036,53	8.822,28	7.382,00	7.142,00

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EGITASMOA	2005eko diru-laguntza	2006ko diru-laguntza	2007ko diru-laguntza	2008ko diru-laguntza	2009ko diru-laguntza	2010eko diru-laguntza	2011ko diru-laguntza	2012ko diru-laguntza	2013ko diru-laguntza
Barren	11.258,00	20.994,00	36.950,00	43.585,00	39.924,08	39.976,22	36.825,94	24.370,00	21.795,00
Begitu	5.771,00	8.538,00	14.982,00	15.000,00	15.262,28	19.663,08	18.283,56	11.897,00	12.352,00
Behe Bidasoako Hiza					20.501,10	29.358,59			
Berbaz							24.729,35	11.423,00	
Berrigara	20.372,00								
Berton	2.796,00	4.984,00	6.300,00	7.320,00	8.469,19	7.473,87	5.627,52	3.473,00	3.373,00
Bizkaiko Hitza							22.304,19	20.356,00	19.375,00
Boga							14.418,29	10.407,00	
Danbolin	3.139,00	5.540,00	6.820,00	5.464,00	5.853,43	4.919,47	4.968,68	3.077,00	2.976,00
Drogeteniturre	2.260,00	6.260,00	6.260,00	6.125,00	6.700,00	6.461,39	6.300,00	3.819,00	3.820,00
El Social Basauriko aldizkaria	2.595,00								
...eta kitto!	23.511,00	27.919,00	40.409,00	49.193,00	40.743,54	62.583,37	60.460,67	34.058,00	32.002,00
Ezkerraldeko KZ								3.790,00	6.474,00

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

EGITASMOA	2005eko diru-laguntza	2006ko diru-laguntza	2007ko diru-laguntza	2008ko diru-laguntza	2009ko diru-laguntza	2010eko diru-laguntza	2011ko diru-laguntza	2012ko diru-laguntza	2013ko diru-laguntza
Galtzaundi	9.369,00	13.300,00	25.865,00	20.291,00	19.982,62	20.742,55	19.827,10	12.063,00	14.000,00
Geu aldizkaria	9.966,00	13.500,00	15.740,00	14.972,00	15.443,20				
Gipuzkoako Hitza							35.386,46	30.041,00	29.218,00
Goiberri								33.196,00	26.839,00
Goienkaria/ Goiena papera	26.277,00	67.115,00	116.807,00	118.000,00	118.000,00	130.438,00	137.956,00	132.856,00	127.065,00
Goierritarra	15.557,00	21.953,00	25.472,00	25.005,00	24.806,92	27.349,83	24.244,35		
Guaixe astekaria			36.874,00	42.441,00	45.015,70	47.432,53	33.460,41	26.225,00	24.362,00
Herria	18.939,00	24.933,00							
Irunero	2.494,00	4.538,00	7.795,00	9.069,00	11.672,72		8.330,84		4.053,00
Kalaputxi	2.631,00	6.300,00	8.369,00	5.980,00	6.250,00	4.680,84	5.353,00	2.038,00	
Karkara	6.599,00	10.500,00	13.100,00	13.109,00	13.745,12	12.063,72	11.378,57	8.762,00	8.766,00
Mailope			7.305,00	6.000,00	6.896,08	3.300,00	5.467,47	3.974,00	4.408,00
Maxizatzen	8.844,00	15.553,00	21.551,00	17.621,00	18.379,09				

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EGITASMOA	2005eko diru-laguntza	2006ko diru-laguntza	2007ko diru-laguntza	2008ko diru-laguntza	2009ko diru-laguntza	2010eko diru-laguntza	2011ko diru-laguntza	2012ko diru-laguntza	2013ko diru-laguntza
Nafarroako Hitza								11.851,00	7.826,00
Noaua!	8.463,00	15.217,00	27.549,00	21.199,00	20.840,05	23.219,69	21.830,66	13.016,00	13.461,00
Oarsoaldean On aldizkaria	9.221,00	14.350,00	19.647,00	13.458,00	12.760,76	13.260,36			
Otamotz	1.805,00	2.799,00	3.286,00	3.487,00	3.901,00	3.500,00	8.734,79		
Pil-pilean aldizkaria	4.027,00	10.376,00	17.130,00	12.181,00	13.167,79	11.279,76	10.564,56	6.774,00	4.052,00
Prest!	4.371,00	8.977,00	9.000,00	9.158,00	9.064,98	7.663,83	5.902,03	3.430,00	3.666,00
Pulunpe				8.424,00	8.639,39	7.800,66	8.458,43	5.519,00	5.013,00
Ttipi-Ttapa			27.794,00	28.293,00	32.222,33	39.106,83	42.400,00	54.400,00	49.609,00
Txaparro aldizkaria	4.282,00	9.500,00	14.019,00	14.824,00	13.379,28				
Txintzarri aldizkaria	19.032,00	24.354,00	30.654,00	28.144	28.144,40	28.673,50	28.973,50	16.835,00	17.819,00
UK Uribe Kostako aldizkaria	12.000,00	15.000,00	15.000,00	15.000,00	14.107,88	15.120,38	14.749,74	14.450,00	14.092,00
Uztarria	6.059,00	10.200,00	9.900,00	10.500,00	11.000,00	11.733,31	11.529,55	8.654,00	9.279,00
Zuhatza Berriketari					3.762,92	3.932,93	3.881,47	2.369,00	2.305,00

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

UDALERRI, ESKUALDE EDO LURRALDE JAKINETAN ZABALTZEN DIREN EUSKARA HUTSEZKO
INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIEI "HEDABIDEAK" DEIALDIAK ESLEITUTAKO LAGUNTZAK,
2014-2018.

EGITASMOA	2014ko diru- laguntza	2015eko diru- laguntza	2016ko diru- laguntza	2017ko diru- laguntza	2018ko diru- laguntza
Aiaraldea egunkaria	7.939,00	13.902,00	15.730,00	25.759,00	34.368,00
Aikor! Txorierriko aldizkaria	20.382,00	18.399,00	19.057,00	19.482,00	20.678,00
Aiurri Beterri- Aiztondoko hamaboskaria	12.508,00	10.649,00	12.508,00	13.008,00	13.008,00
Aiurri Beterri- Buruntzako astekaria	14.000,00	12.335,00	17.853,00	18.253,00	18.253,00
Alea-Arabako aldizkaria		15.597,00	24.284,00	25.097,00	26.033,00
Anboto	64.204,00	64.515,00	75.000,00	79.000,00	78.503,00
Arabako Hitza	6.261,00				
Artzape	4.421,00	4.316,00	4.630,00	6.416,00	6.211,00
Asteleneko Goiena papera	84.800,00				
Bagabiz aldizkaria	5.613,00	5.333,00	5.140,00	5.006,00	4.980,00
Baleike	10.000,00	12.698,00	13.769,00	13.134,00	12.354,00
Barren	36.997,00	40.000,00	45.000,00	48.000,00	50.000,00
Begitu	19.924,00	18.658,00	25.763,00	26.262,00	24.903,00
Berton	3.188,00	3.019,00	3.116,00	3.132,00	3.194,00
Binke!			4.500,00	6.500,00	7.500,00
Bizkaiko Hitza	15.500,00	12.400,00	10.578,00	10.237,00	10.065,00
Danbolin	7.012,00	7.625,00	7.625,00	7.625,00	7.625,00
Drogeteniturri	4.232,00	4.269,00	5.535,00	5.400,00	5.475,00
...eta kittol!	38.185,00	54.264,00	63.963,00	69.287,00	78.540,00
Ezkerraldeko KZ	5.838,00	5.013,00			
Geuria			3.977,00	10.170,00	10.095,00

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EGITASMOA	2014ko diru-laguntza	2015eko diru-laguntza	2016ko diru-laguntza	2017ko diru-laguntza	2018ko diru-laguntza
Gipuzkoako Hitza	32.484,00	28.918,00	23.135,00	23.135,00	23.135,00
Goiberri	29.100,00	29.360,00	27.146,00	26.550,00	26.103,00
Goiena papera	161.958,00	158.182,00	161.082,00	170.257,00	171.057,00
Guaixe astekaria	60.437,00	53.510,00			
Hiruka		25.587,00	31.923,00	31.098,00	30.718,00
Irunero	5.308,00	5.306,00	4.445,00	4.981,00	4.974,00
Irutxuloko Hitza	18.745,00	21.058,00	18.192,00	17.799,00	17.944,00
Karkara	8.881,00	9.610,00	9.905,00	12.210,00	13.515,00
Mailope	8.551,00	8.143,00			
Maxixatzen			7.779,00	8.932,00	9.223,00
Nafarroako Hitza	6.261,00	5.009,00			
Noaua!	26.421,00	27.908,00	34.000,00	35.590,00	37.000,00
Oarso Bidasoko Hitza	31.486,00	25.189,00	23.372,00	23.632,00	23.312,00
Pil-pilean aldizkaria	8.225,00	9.427,00	13.300,00	14.585,00	14.727,00
Prest!	5.676,00	4.541,00	4.928,00	4.922,00	4.987,00
Pulunpe	19.090,00	17.600,00			
Puntua		84.800,00	87.800,00	87.810,00	87.795,00
Ttipi-Ttapa	54.000,00	57.000,00			
Txintxarri aldizkaria	24.000,00	24.000,00	28.500,00	29.000,00	29.500,00
UK Uribe Kostako aldizkaria	14.770,00				
Urumeako kronika		4.478,00	8.000,00	9.000,00	9.321,00
Uztarria	15.554,00	15.000,00	16.800,00	17.900,00	18.500,00
Zuhatza Berriketan	4.364,00	4.911,00	4.702,00	4.550,00	4.474,00

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

NAGUSIKI GAZTELANIA DARABILTEN EGUNKARIEK EUSKARA HUTSEZKO GEHIGARRIAK PRESTATU ETA ZABALTZEKO "HEDABIDEAK" DEIALDIAK ESLEITUTAKO LAGUNTZAK, 2006-2011.

EGITASMOA	2006ko diru-laguntza	2007ko diru-laguntza	2008ko diru-laguntza	2009ko diru-laguntza	2010eko diru-laguntza	2011ko diru-laguntza
Araba Gaztea gehigarria	39.294,00	63.990,00	60.086,00	60.036,52	35.803,72	30.945,38
Izan gazte gehigarria	49.997,00	80.324,00	75.607,00	77.721,33	43.292,68	37.253,96
Ortzadar gehigarria	57.476,00	98.700,00	114.413,00	114.050,48	84.456,00	64.482,49
Xirika 16 gehigarria	150.626,00					

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

NAGUSIKI GAZTELANIA DARABILTEN EGUNKARIEK EUSKARAZKO ERREFERENTZIA-ORRIALDEAK PRESTATU ETA ZABALTZEKO "HEDABIDEAK" DEIALDIAK ESLEITUTAKO LAGUNTZAK, 2009-2010.

EGITASMOA	2009ko diru-laguntza	2010eko diru-laguntza
Deia egunkaria	45.502,40	
Diario de noticias de Álava	26.401,00	
El Diario Vasco		100.000,00
El País egunkaria	31.777,40	
Noticias de Gipuzkoa	38.781,00	52.800,00

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EUSKO JAURLARITZAREN "HEDABIDEAK" DEIALDIK EZARRITAKO DIRU-BALIABIDEAK, 2005-2013

ONURADUNAK	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua	1.700.000	1.848.200	2.003.480	2.003.480	2.003.480	2.003.480	2.000.000	1.820.000	1.820.000
Euskara hutsezko aldizkari inprimatuak	1.580.000	1.998.500	1.901.120	1.901.120	1.901.120	1.901.120	2.050.000	1.841.500	1.841.500
Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabalduko euskara hutsezko gehigarriak		aurrekotik 507.650 euro hautentzat dira.	568.600	568.600	718.600*	718.600*	250.000		
Zati batean edo osorik euskaraz ari diren uhin bidezko irratiak	280.000	305.200	329.000	329.000	329.000	329.000	250.000	227.500	227.500
Zati batean edo osorik euskaraz emititzen duten telebistak	150.000	500.000	575.000	575.000	575.000	575.000	550.000	500.500	500.500
Internet bidezko hedabideak eta berri-agentziak	90.000	98.100	197.800	197.800	197.800	197.800	380.000	485.500	485.500
GUZTIRA	3.800.000	4.750.000	5.575.000	5.575.000	5.725.000	5.725.000	5.480.000	4.875.000	4.875.000

Iturria: tesiaren egileak prestatua. (*2009 eta 2010ean erreferentzia-orrialdeak ere sartu ziren multzo horretan).

EUSKO JAURLARITZAREN "HEDABIDEAK" DEIALDIAK EZARRITAKO DIRU-BALIABIDEAK, 2014-2018

ONURADUNAK	2014	2015	2016-18 (urtero)
Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua eta udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak	2.524.000	2.524.000	2.434.000
Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak	1.137.500	1.137.500	1.137.500
Zati batean edo osorik euskaraz ari diren uhin bidezko irratiak	227.500	227.500	227.500
Zati batean edo osorik euskaraz emititzen duten telebistak	500.500	500.500	500.500
Internet bidezko hedabideak	485.500	485.500	575.500
GUZTIRA	4.875.000	4.875.000	4.875.000

Iturria: tesiaaren egileak prestatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EUSKO JAURLARITZAREN "HEDABIDEAK" DEIALDIAREN ONURADUNAK, 2005-2013

ONURADUNAK	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua	8	9	9	9	9	9	8	8	6
Euskara hutsezko aldizkari inprimatuak	59	51	52	53	59	55	59	59	59
Nagusiki gaztelania darabilten egunkariak prestatu eta zabaldutako euskara hutsezko gehigarriak		4	4	4	7*	5*	4		
Zati batean edo osorik euskaraz ari diren uhin bidezko irratiak	8	8	5	5	5	4	4	4	4
Zati batean edo osorik euskaraz emititzen duten telebistak	4	6	7	9	8	8	7	7	7
Internet bidezko hedabideak eta berri-agentziak	26	23	22	25	34	35	40	42	42
GUZTIRA	105	101	99	105	122	116	122	120	118

Iturria: tesiaren egileak prestatua. (2009 eta 2010eko deialdietan erreferentzia-orrialdeei ere esleitu zitzaizkien laguntzak)*

EUSKO JAURLARITZAREN "HEDABIDEAK" DEIALDIAREN ONURADUNAK, 2014-2018

ONURADUNAK	2014	2015	2016-18
Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua eta udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak	43	44	41
Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak	23	24	24
Zati batean edo osorik euskaraz ari diren uhin bidezko irratiak	5	6	3
Zati batean edo osorik euskaraz emititzen duten telebistak	8	8	7
Internet bidezko hedabideak	43	50	49
GUZTIRA	122	132	124

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZA JASO DUTEN EUSKARA HUTSEZKO EGUNEROKO PRENTSA INPRIMATUKO HEDABIDEAK, 2017.

IZENA	ENPRESA/ ELKARTEA	ZABALKUNDE-EREMUA	SORRERA URTEA
Berria	Euskal Editorea S.L.	Euskal Herria	2.003
Goierriko Hitza	Goierriko Hedabideak S.L.	Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberrria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zumarraga	2.004
Hernaniko Kronika	Dobera Euskara Elkartea	Hernani	2.000
Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza	Lea-Artibaialdeko Hedabideak	Ajangiz, Amoroto, Arratzu, Aulesti, Bermeo, Berriatua, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Etxebarria, Forua, Gautegiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Gizaburuaga, Ibarangelu, Ispaster, Kortezubi, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendata, Mendexa, Morga, Mundaka, Munitibar, Murueta, Mutriku, Muxika, Nabarniz, Ondarroa, Sukarrieta, Ziortza-Bolibar	2.003
Tolosaldeko Ataria ⁹¹⁶	Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.L.	Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Zizurkil	2.013
Urola Kostako Hitza	Urola Kostako Hedabideak S.L.	Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa, Zumaia	2.004

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

⁹¹⁶ .- Tolosaldeko Ataria 2003an sortu zen Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzaren jarriapena da.

**EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZA JASO DUTEN EUSKARA HUTSEZKO INFORMAZIO
OROKORREKO ALDIZKARIAK ETA ALDIZKARI ESPEZIALIZATUAK, 2017.**

IZENA	ENPRESA/ ELKARTEA/FUNDAZIOA	ZABALKUNDE- EREMUA	SORRERA URTEA
+/- 18 Presta ezazu zure etorkizuna	Asoc. Shareak Kultur Elkarte	Euskal Herria	1.995
Aizu! aldizkaria	Euskaraz Koop. E.	Euskal Herria	1.981
Aldiri, arkitektura eta abar	Udako Euskal Unibertsitatea	Euskal Herria	2.009
Argia astekaria	Komunikazio Biziagoa S.A.L.	Euskal Herria	1.919
BAT soziolinguistika aldizkaria	Soziolinguistika Klusterra Elkarte	Euskal Herria	1.990
Bertsolari aldizkaria	Bertsozaleak Kultur Elkarte	Euskal Herria	1.991
Egan literatur aldizkaria	Real Sociedad Bascongada de Amigos del País	Euskal Herria	1.946
Ekai center	Ekai Center Fundazioa	Euskal Herria	2.012
Ekonomiaren KZ	Fundación Jesus María de Leizaola Fundazioa	Euskal Herria	2.007
El periódico universitario/ Unibertsitateko aldizkaria	Universitario Vasco Navarra S.L. unipersonal	Euskal Herria	2.015
Elhuyar zientzia eta teknologia	Elhuyar Fundazioa	Euskal Herria	1.974
Euskal Herriko Natura	ADEVE (Asoc. para la defensa de la especies en extinción)	Euskal Herria	2.002
GAUR8 astekaria	Herritar Berri S.L.	Euskal Herria	2.007
Gazteberri aldizkaria	Asoc. Shareak Kultur Elkarte	Euskal Herria	2.004
Gazteon KZ	Fundación Jesus María de Leizaola Fundazioa	Euskal Herria	2.008
Gaztezulo	Donostiako Komunikabideak S.L.	Euskal Herria	2.000
Hazi Hezi etxerako heziketa aldizkaria	Xangorin Koop. Elk. Txikia	Euskal Herria	2.012
HEMEN Erljio gogoetarako aldizkaria	Fundación Cultural Instituto Teológico Vida Religiosa	Euskal Herria	2.004
Irria aldizkaria	Irrien Lagunak S.L.	Euskal Herria	2.011
Jakin	Jakin Fundazioa	Euskal Herria	1.956
Karramarro aldizkaria	Pertsonen Garapenerako Ikerketa ta Garapen (ITG) Taldea	Euskal Herria	2.003
Uztaro, giza eta gizarte-zientzien aldizkaria	Udako Euskal Unibertsitatea	Euskal Herria	1.990
Xabiroi komikia	Euskal Herriko Ikastolak	Euskal Herria	2.005
Zazpi Haizetara	Herritar Berri S.L.	Euskal Herria	2.008

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZA JASO DUTEN UDALERRI, ESQUALDE EDO LURRALDE JAKINETAN ZABALTZEN DIREN EUSKARA HUTSEZKO INFORMAZIO OROKORREKO ALDIZKARIAK, 2017.

IZENA	ENPRESA/ ELKARTEA/ FUNDAZIOA	ZABALKUNDE-EREMUA	SORRERA URTEA
Aiaraldea egunkaria	Info-Aiaraldea Euskara eta Komunikazio Elkartea	Aiara, Amurrio, Arakaldo, Arrankudiaga-Zollo, Artziniega, Audio, Okondo, Orozko, Urduña	2.013
Aikor! Txorierriko aldizkaria	Totoan Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa	Derio, Erandiogoikoa, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika, Zamudio	2.001
Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria	Erroitz S.L.	Aduna, Amasa-Villabona, Andoain, Asteasu, Larraul, Urnieta, Zizurkil	1.994
Aiurri Beterri-Buruntzako astekaria	Erroitz S.L.	Andoain, Urnieta	2.004
Alea-Arabako aldizkaria	Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.	Araba	2.015
Anboto	DHK-Durangaldeko Herri Komunikabideak Elkartea	Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar	2.002
Artzape	Artzape Euskara Elkartea	Getaria	2.001
Bagabiz aldizkaria	Jaime Zarandona Mezo	Gernika	2.002
Baleike	Baleike Kultur Elkartea	Zumaia	1.994
Barren	Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea Elkartea	Elgoibar, Mendaro	1.992
Begitu	Asociación Zertu Kultur Elkartea	Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide, Zeanuri, Zeberio	2.002
Berton	BLB Komunikazioa Koop. E.	Bilbo (Begoña, Bolueta, Otxarkoaga, Santutxu, Txurdinaga, Uribarri)	1.998

Iturria: tesiaren egielak prestatua.

IZENA	ENPRESA/ ELKARTEA/ FUNDAZIOA	ZABALKUNDE-EREMUA	SORRERA URTEA
Binke!	AITU Euskararen Sustapenaren Aldeko Elkartea	Galdakao, Usansolo	2.016
Bizkaiko Hitza	Bizkaiko Hedabideak S,L.	Bizkaia	2.010
Danbolin	Danbolin Zulo Kultur Elkartea	Zestoa	2.000
Drogetenitturri	Euskal Birusa Elkartea Kulturala	Ermua, Mallabia	1.994
...eta kitto!	...eta kitto! Euskara Elkartea	Eibar	1.988
Geuria	Asociación Cultural Ameba Kultur Elkartea de Basauri	Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Ugao, Zaratamo	2.014
Gipuzkoako Hitza	Euskal Editorea S.L.	Gipuzkoa	2.010
Goiberri	Goierriko Hedabideak S.L.	Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberrria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zumarraga	2.012
Goiena papera	Goiena Komunikazio Taldea Koop. E.	Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Oñati	2.000
Guaixe astekaria ⁹¹⁷	Bierrik Fundazioa	Altsasu, Arakil, Arbizu, Arruazu, Bakaiku, Ergoiena, Etxarri-Aranatz, Iraneta, Irurtzun, Iturmendi, Lakuntza, Olazagutia, Uharte-Arakil, Urdiain, Ziordia,	1994
Hiruka	Hiruka Koop. Elkartea	Barrika, Berango, Erandio, Getxo, Gorliz, Leioa, Lemoniz, Plentzia, Sopela, Urduliz	2.015

Iturria: tesiaren egileak prestatua

⁹¹⁷ .- Nafarroan sortu eta zabaltzen diren aldizkariak ez zuten "Hedabideak" deialdira aurkezterik izan 2016ko deialdian, Nafarroako Gobernaren horientzako diru-laguntzak eskaini zituelako.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.

IZENA	ENPRESA/ ELKARTEA/ FUNDAZIOA	ZABALKUNDE-EREMUA	SORRERA URTEA
Irunero	837 Comunicación y Publicidad S.L.	Irun	1.994
Irutxuloko Hitza	Donostiako Hedabideak S.L.	Donostia	2.005
Kalaputxi ⁹¹⁸	Karenka Komunikazio Elkartea	Mutriku	2.001
Karkara	Karkara Taldea Kultur Elkartea	Aia, Orio	1.989
Mailope ⁹¹⁹	Mailope Kultur Elkartea	Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri	1990
Maxixatzen	Maxixatzen Euskaldunon Elkartea	Azkoitia	1.999
Nafarroako Hitza ⁹²⁰	Nafarroako Berriak Elkartea	Nafarroa	2010
Noaua!	Noaua Kultur Elkartea	Usurbil	1.996
Oarso Bidasoko Hitza	Oiartzualdeko Hedabideak S.L.	Errenteria, Hondarribia, Irun, Lezo, Oiartzun, Pasaia	2.003
Pil-pilean aldizkaria	Pil-pilean Kultur Elkartea	Soraluze	1.996

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

⁹¹⁸ .- Kalaputxi aldizkariak 2012an jaso zuen azken aldiz Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza. 2013 eta 2014 urteetan, eskatu arren, 2.000 euro baino gutxiago esleitu zioten, eta deialdiaren edukian ezarritakoaren arabera, egoera horretan zeuden hedabideek ez zuten dirurik jasotzen. 2015etik aurrera ez zuten Jaurlaritzaren diru-laguntza eskatu.

⁹¹⁹ .- Nafarroan sortu eta zabaltzen diren aldizkariak ez zuten "Hedabideak" deialdira aurkezterik izan 2016ko deialdian, Nafarroako Gobernak horientzako diru-laguntzak eskaini zituelako.

⁹²⁰ .- Nafarroan sortu eta zabaltzen diren aldizkariak ez zuten "Hedabideak" deialdira aurkezterik izan 2016ko deialdian, Nafarroako Gobernak horientzako diru-laguntzak eskaini zituelako.

IZENA	ENPRESA/ ELKARTEA/ FUNDAZIOA	ZABALKUNDE-EREMUA	SORRERA URTEA
Prest!	BLB Komunikazioa Koop. E.	Bilbo (Deustualdea)	2.001
Pulunpe ⁹²¹	Ametza Kultur Elkartea	Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Ultzama	1992
Puntua	Goiena Komunikazio Taldea Koop. E.	Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Oñati	2.015
Ttipi-Ttapa ⁹²²	Ttipi-ttapa Fundazioa	Almandoz, Amaiur, Aniz, Arano, Arantza, Areso, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Beintza-Labaien, Berroeta, Bera, Donamaria, Doneztebe, Elbete, Elgorriaga, Elizondo, Eratsun, Erratzu, Etxalar, Ezkurra, Gartzain, Goizueta, Irurita, Igantzi, Ituren, Legasa, Leitza, Lekaroz, Lesaka, Narbarte, Oieregi, Oiz, Oronoz-Mugairi, Saldias, Sara, Senpere, Sunbilla, Urdazubi, Urroz, Ziga, Zubieta, Zugarramurdi	1981
Txintxarri aldizkaria	Ttakun Kultur Elkartea	Lasarte-Oria	1.993
Urumeako kronika	Dobera Euskara Elkartea	Arano, Astigarraga, Ereñotzu, Goizueta, Hernani	2.014
Uztarria	Uztartzen Euskara Elkartea	Azpeitia	1.998
Zuhatza Berriketari	Zuhatza Euskara Elkartea de Deba		1.998

Iturria: tesiaren egileak prestatua.

⁹²¹ .- Nafarroan sortu eta zabaltzen diren aldizkariak ez zuten "Hedabideak" deialdira aurkezterik izan 2016ko deialdian, Nafarroako Gobernak horientzako diru-laguntzak eskaini zituelako.

⁹²² .- Nafarroan sortu eta zabaltzen diren aldizkariak ez zuten "Hedabideak" deialdira aurkezterik izan 2016ko deialdian, Nafarroako Gobernak horientzako diru-laguntzak eskaini zituelako.

Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa.